



HAL
open science

La Première Guerre Mondiale dans l'hebdomadaire 'Eskualduna

Eneko Bidegain

► **To cite this version:**

Eneko Bidegain. La Première Guerre Mondiale dans l'hebdomadaire 'Eskualduna. Linguistique. Université Michel de Montaigne - Bordeaux III, 2012. Français. NNT : 2012BOR30018 . tel-00747067

HAL Id: tel-00747067

<https://theses.hal.science/tel-00747067>

Submitted on 30 Oct 2012

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Université de Bordeaux 3
Euskal Herriko Unibertsitatea

Nazioarteko hitzarmen bidezko doktorego tesia
thèse de doctorat en cotutelle internationale

Euskal ikasketak – *Etudes basques*
Gaur egungo historia – *Histoire contemporaine*

VIDEGAIN Eneko

Lehen Mundu Gerra
‘Eskualduna’ astekarian
La Première Guerre Mondiale
dans l’hebdomadaire ‘Eskualduna’

Tesi zuzendariak – *Directeurs de thèse* :

CHUECA Josu, Euskal Herriko Unibertsitatea

VIDEGAIN Charles, Université de Pau et des Pays de l’Adour

Defentsa eguna – *Date de soutenance* : 2012ko ekainaren 5a – *5 juin 2012*.

Epaimahaikideak – *Membres du jury* :

VIDEGAIN Charles, PR UPPA.

CHUECA Josu, MCF Euskal Herriko Unibertsitatea.

ITÇAINA Xabier, CR CNRS, Centre Emile Durkheim UMR 5116

APALATEGI Ur, PR UPPA.

ZUBEROGOITIA Aitor, MCF. Mondragon Unibertsitatea, Huhezi.

DIAZ NOCI Javier, PR Universitat Pompeu Fabra.

***Ikerketa laboratoria* – laboratoire de recherche :**

Centre de recherche sur la langue et les textes basques
IKER - UMR 5478 (CNRS, Bordeaux 3, UPPA)
Campus de la Nive
Gaztelu Berria - Château-Neuf
15, Paul Bert plaza
64100 Baiona

Eusko Ikaskuntza eta Euskararen Erakunde Publikoaren diru-laguntzarekin egina

Nagoreri.

Amari, Aitari eta Aritzi.

Laburpena

Eskualduna euskarazko astekaria zurien eta gorrien arteko lehia politikoaren erdian sortu zuen Louis Etcheverry politikari bonapartistak. Elizarengandik hurbil, eta Errepublikaren kontra, Frantziako eskuinaren ildo politikoko astekaria zen, eta Ipar Euskal Herriko milaka etxetara heltzen zen. Giro hartan gorpuzten ari zen frantses nazioaren kontzientzia, eta Europako estatu-nazioen arteko lehia 1914ean lehertu zen, Lehen Gerla Mundialean. *Eskualduna*-k oihartzun handia eman zion gerla hari; bere idazle batzuek gerlako lekuetatik berriak igortzen zituzten. Azpiegitura arazoez gain, zentsuraren arauak ere jasan behar izan zituen, nahiz eta horrekin bat egin. Gerlaz eman zituen berriekin Frantzia egoera onean zegoela erakutsi nahi izan zuen, gerlaren alde gogorrak gutxietsiz, eta ahal zen guztietan berriak berri on gisa aurkeztuz, alegia, Frantziaren aldeko gisa. Nahiz eta euskal izaerak leku handia zuen astekariko artikuluetan, soldaduen gutunetan nabaritu zitekeen herriminaren gibelean ez zegoen euskal kontzientzia nazionalik; alderantziz, osoki identifikatzen ziren Frantziarekin, eta euskaldun izatea frantses izatearen parte zen. Gristino izaera, *Eskualduna* egiten zutenen nortasunaren hirugarren zutabea zen. Garrantzia eman zioten soldaduak gristino onak zirela eta Jainkoa Frantziaren alde zela azpimarratzeari. Gisa horretan, Elizaren eta Estatuaren bereizte legearen ondorioz elizgizonen baztertzea zuzen-kontrakoa zela erakutsi nahi izan zuten, eta Frantzia herri gristinoa zela aldarrikatu.

Hitz gakoak: Lehen Mundu Gerra, *Eskualduna*, Jean Saint-Pierre, Jean Elizalde, Jean Etxepare, euskal nortasuna.

Résumé

L'hebdomadaire en langue basque *Eskualduna* fut fondé par l'homme politique bonapartiste Louis Etcheverry, dans un climat de tensions politiques entre les blancs et les rouges. Il s'agissait d'un hebdomadaire proche de l'Eglise, contre la République et politiquement lié à la droite française. Il avait des milliers de lecteurs, en Pays Basque nord. C'est dans ce contexte que prenait corps la conscience nationale française. Et le bras-de-fer entre les

états-nations européens éclata en 1914, avec la Première Guerre Mondiale. *Eskualduna* donna un grand écho à la guerre; ses rédacteurs, étant mobilisés, écrivaient des articles directement du front. En plus des problèmes logistiques, le journal devait subir la censure, même s'il la justifiait. Sur le déroulement de la guerre, il affirmait sans cesse que la France se trouvait dans une bonne situation, il minimisait les revers et insistait sur les bonnes nouvelles pour la France. Même si le caractère basque avait une grande présence dans les colonnes du journal, il ne fallait pas interpréter cela comme une manifestation d'une conscience nationale basque; au contraire, le journal s'identifiait totalement à la France, et pour les rédacteurs, le fait d'être basque faisait parti de l'identité française. Le caractère catholique était le troisième axe de l'identité du journal. Ils avait accordé une grande importance au fait de souligner que les soldats étaient de bons chrétiens et que Dieu était aux côtés de la France. Ainsi, *Eskualduna* essayait de démontrer que les conséquences de la loi de séparation de l'Eglise et de l'Etat étaient injustes, et de revendiquer que la France était bel et bien un pays chrétien.

Mots clés: Première Guerre Mondiale, *Eskualduna*, Jean Saint-Pierre, Jean Elizalde, Jean Etxepare, identité basque.

Abstract

The Basque language weekly *Eskualduna* was founded by Louis Etcheverry the Bonapartist politician, in a climate of political tension between the *white* and *red*. It was a weekly that was close to the Church, opposed the Republic and was politically linked to the French Right. The publication had thousands of readers in the Continental Basque Country. It was in this context that the French national consciousness was being constructed, and the tug-of-war between European nation-states in 1914 broke out with the First World War. *Eskualduna* gave a major coverage of the war. Its editors and reporters were mobilized and the weekly published articles written directly from the war front. In addition to logistical problems, the newspaper had to undergo censorship, even if publication accepted the official warrant. During the war, the weekly asserted that France was in a good situation; it minimized the lapels and emphasized the good news for France. Although the Basque character had a great presence in the newspaper, this should not be interpreted as a manifestation of a Basque national consciousness. On the contrary, the newspaper, and its

editors, identified with France. Basque identity was understood as forming part of French identity. The Catholic nature was the third axis of the of the publication's characteristics. The weekly emphasized the fact that soldiers were good Christians and that God was with France. Hence, *Eskualduna* tried to demonstrate that the consequences of the law separating Church and State were unfair and it claimed that France was indeed a Christian country.

Keywords: World War I, *Eskualduna*, Jean Saint-Pierre, Jean Elizalde, Jean Etxepare, basque identity.

Eskerrak

Gisa batez edo bestez lagundu nautenak eskertu nahi nituzke. Alde batetik, ene tesi zuzendariak, Xarles Videgain eta Josu Chueca. Eskertu nahi dut ere Nagore Rodriguez, eman didan laguntza preziatuarentzat. Oihane Beñaran eta Monika Juaristi ere anitz eskertu nahi ditut, lan honetan egin duten guztiarentzat eta erakutsi duten seriositasunarentzat. Txema Egaña ere eskertu nahi dut, aholku baliosak emateko hartu duen astiarentzat. Piarres Xarriton eta Emile Larre beti prest egon dira nuen edozein duda argitzeko, eta horiei ere eskerrak bihurtu nahi dizkiet. Larraitz Ariznabarreta ere eskertu nahi dut, eta baita ere Bernard Harambillet Baionako apezpikutegiko artxibo arduraduna, Jean-Philippe Talec Iker zentroko liburutegiko arduraduna, Baionako udal liburutegiko langileak, Baionako fakultateko liburutegiko langileak eta Pirinio Atlantikoetako Artxiboaren Paueko egoitzakoak haien eskuzabaltasunagatik. Aitzol Astigarraga eskertu nahi dut, eman didan laguntza informatikoarentzat. Euskararen Erakunde Publikoa eta Eusko Ikaskuntza eskertzen ditut, eman didaten diru laguntzarentzat. Ene lankideak eskertu nahi ditut, eta baita ere edozein unetan laguntza bat edo aholku bat eskaini didaten guztiak. Azkenik, ez nuke eskerren atala bururatu nahi, pentsamendu sakonena eta besarkada familiari eta hurbilekoei eskaini gabe.

AURKIBIDEA

Laburpena	4
Eskerrak.....	7
AURKIBIDEA.....	9
Taulen eta grafikoen aurkibidea.....	13
SARRERA NAGUSIA.....	15
1. Orain artekoa	21
2. Hipotesia eta ikerketa galderak.....	32
3. Metodologia aplikatuan erabilitako iturriak.....	34
4. Metodologia	36
LEHEN ZATIA: SORRERATIK GERLA HANDIRA.....	55
I. ‘ESKUALDUNA’, ALDAKETEN GARAIAK SORTUA.....	59
A. Aldaketak, prentsaren munduan.....	60
1. Aukera berriak, bide berriak	60
2. Kazetaritza eredu berezia.....	70
3. Politika eta polemikatik informaziora.....	93
B. Giro politiko beroaren erdian	100
1. Zurien eta gorrien gatazka bizia.....	101
2. Hauteskunde giroan sortua.....	108
3. L’Action Française eta La Croix-ren eragina.....	112
C. Hedapen handia Ipar Euskal Herrian.....	118
1. Irakurketa datu orokorrak.....	118
2. Hirian irakurle gutxi.....	125
3. Barnealdean nagusi.....	128
II. GERLA HANDIA, ITURBURUAK ETA ONDORIOAK	137
A. Nazionalismoen iratzartzea	138
1. 1870eko gerlaren ondorioak.....	138

2.	Frantses nazioaren eraikuntza.....	142
3.	Estatuen arteko lehiak eta tentsioak	156
B.	Gerlaren pizgarriak.....	160
1.	Aliantzen katea.....	161
2.	Sarajevoko atentatua eta haren ondorioak.....	165
3.	Eta gerla lehertu zen.....	169
4.	Euskaldunak gerlan	171
C.	Gerlaren bilakaera.....	174
1.	Mugimendu gerla	175
2.	Posizio gerla.....	177
3.	Azken fasea.....	182
III.	GERLAREN ONDORIOAK ‘ESKUALDUNA’-N	189
A.	Ondorio materialak eta politikoak	190
1.	Murrizketak eta aldaketak.....	190
2.	Eskualduna-ko erredaktoreak gerlan	196
3.	Gerla garaiko editorialgileak.....	219
4.	Eduki politikoen berdintzea.....	230
B.	Informazio murrizta eta zentsura.....	233
1.	Kazetarien trabak.....	234
2.	Zentsuraren antolaketa	238
3.	Zentsuraren onartzea	246
C.	Sinesgarritasunaren eztabaida	251
1.	Propaganda eta honen eragina.....	251
2.	Jakin-mina eta <i>Eskualduna</i> -ren aukera	254
	BIGARREN ZATIA: GERLARI BURUZKO JARRERA	259
I.	IRAKURKETA POLITIKOA	265
A.	Gerla fasez fase.....	266
1.	Arrazoien interpretazioa	267
2.	Gerla laburretik luzera	273
3.	Bakeari buruzko eztabaida	282
4.	Garaipenera bidean.....	290
B.	Estrategiari begira.....	301
1.	Gerla tekniken irakurketa	302
2.	Itsasoko borrokaren garrantzia.....	306
3.	Baliabide ekonomikoen azterketa	311

C.	Etsaigoa.....	316
1.	Alemanen deskribapenak.....	317
2.	Abere izaera.....	323
3.	Etsaia hiltzeko gogo.....	332
II.	GERTAKARIEN KONTAKIZUNA.....	339
A.	Armak.....	340
1.	Babesteko neurriak.....	340
2.	Erasorako armak.....	342
3.	Arma berriak.....	352
B.	Guduen aipamenak.....	358
1.	Borroken xehetasunak.....	358
2.	Aitzinatzeak azpimarratzen.....	371
3.	Gibelatzeak erlatibizatzen.....	381
C.	Kalte material eta humanoak.....	393
1.	Giza kalteak.....	394
2.	Ondorio materialak eta sozialak.....	404
III.	GERLAKO TOKIETAKO BIZIPENAK.....	413
A.	Lubakiak.....	414
1.	Tokien deskribapena.....	414
2.	Lanak eta guduak.....	424
3.	Baldintza gogorrak.....	432
B.	Gibel lerroak.....	445
1.	Gibel lerroen egitura.....	445
2.	Gibel lerroko lanak.....	448
3.	Atsedena.....	452
C.	Kontrastea.....	459
1.	Gibel lerroen eta lehen lerroen arteko aldea.....	460
2.	Sura ez joan nahi.....	468
	HIRUGARREN ZATIA: NORTASUN HIRUKOITZA.....	479
I.	EUSKAL HERRIA LUMAREN PUNTAN.....	483
A.	Herrimina.....	484
1.	Etxea.....	484
2.	Euskaldunak elkarrekin.....	496
3.	Euskal Herriko ohiturak.....	500
B.	Euskal Herriarekiko lotura.....	507

1.	Euskal erreferentziak.....	507
2.	Euskaltzaletasun kulturala	515
II.	EUSKALDUN ON, SOLDADU ON.....	525
A.	Euskal Herria Frantziaren parte	526
1.	Frantziarekiko identifikazioa.....	526
2.	Frantzia goraiatzeko.....	534
B.	Euskaldunen jarrera baikorra.....	541
1.	Kemena	542
2.	Ahulguneei buru egin.....	552
3.	Gerlaren kontrako.....	562
C.	Engaiamendu abertzaletik gizakoiera	571
1.	Engaiamendutik ohiturara.....	572
2.	Giza faktoreak.....	580
III.	NORTASUN GIRISTINOA	591
A.	Soldaduak fededun onak	592
1.	Fedea indartzen.....	592
2.	Fedearen hitzorduak.....	598
B.	Jainkoa Frantziaren alde	606
1.	Apezen sakrifizioa	607
2.	Jainkoa Frantziarekin	614
3.	Garaipena Jainkoari zor.....	621
C.	Frantziako barne eztabaidaren erdian.....	626
1.	Estatua-Eliza gatazkaren ziliportak.....	627
2.	Batasun eskaera.....	633
3.	Frantzia giristino	637
	ONDORIOAK	647
	Laburpen orokorra	650
	Ondorio nagusiak	657
1.	Lehen ikerketa galdera: gerlan inplikatzeko arrazoiak	658
2.	Bigarren ikerketa galdera: gerlan inplikatzeko modua	660
3.	Hirugarren ikerketa galdera: inplikazioaren motibazioa	661
4.	Ildo editorial orokorrari buruzko ondorioak.....	662
	Sintesia.....	665
	Zeharkako ondorioak.....	671
1.	<i>Oxobi</i> gerlan izan zen.....	672

2. Jean Saint-Pierre, <i>Zerbitzari</i> eta Jean Etxepare gerlan	673
3. <i>Eskualduna</i> -ko erredakzio taldea	675
4. <i>Eskualduna</i> -ren irakurleen mapa.....	675
5. <i>Eskualduna</i> eta zentsura taldea.....	676
Ikerketa lerroetarako perspektibak	678
INDIZEA.....	681
ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA	685
ITURRIAK	687
Baionako apezpikutegiko artxiboa.....	687
Pirinio Atlantikoetako Departamendu artxiboa	687
Frantziako Lurreko Armadaren Historia Zerbitzua.....	688
Gironde departamenduko artxiboa	688
Bordeleko Udal artxiboa	688
Aipatutako <i>Eskualduna</i> -ko artikulak	688
BIBLIOGRAFIA.....	711
ERANSKINAK	735

Taulen eta grafikoaren aurkibidea

Irudia 1. Irakurritako zenbakiak.....	35
Irudia 2. Eduki azterketa prozesuaren eskema	37
Irudia 3. <i>Eskualduna</i> astekariko sailen artetik azterketarako egindako hautua	43
Irudia 4. Erregistro kategoriak.....	52
Irudia 5. <i>Eskualduna</i> -ko idazleen edo laguntzaileen zerrenda, 1914 baino lehenagokoa.....	79
Irudia 6. <i>Eskualduna</i> -ko idazleen sorterriak	80
Irudia 7. <i>Eskualduna</i> -ko zuzendariak	85
Irudia 8. <i>Eskualduna</i> -ren ale kopuruaren bilakaera	119
Irudia 9. Lapurdi, Zuberoa eta Baxenabarreko populazioa 1911n	121
Irudia 10. Ipar Euskal Herriko prentsaren eta <i>Eskualduna</i> -ren erosleak 1909ko inkestaren arabera ..	122
Irudia 11. <i>Eskualduna</i> -ko erosleen portzentajea, Baionako elizbarrutiko 1909ko inkestaren arabera ..	122
Irudia 12. Ipar Euskal Herrian saltzen ziren agerkariak	124
Irudia 13. Saltzen ziren agerkarien %80 baino gehiago <i>Eskualduna</i> -k egiten zuten herriak.....	129
Irudia 14. Biztanle kopuruka, <i>Eskualduna</i> -k salmenta handienak zituen herriak	129
Irudia 15. Baiona, Pau, Mont-de-Marsan eta Tarbeseko erregimentuak	173
Irudia 16. Andereen Bidea eta Craonne inguruak	179
Irudia 17. <i>Eskualduna</i> -ko berri-emaileak egon ziren unitateak, kronologikoki	196
Irudia 18. Ondorioen sintesia taula.....	677

SARRERA
NAGUSIA

Hiru sailenganako interesak erakarririk sortu zen doktore tesi honen osatzeko xedea: kazetaritza, euskara eta historia. *Eskualduna* astekariak Lehen Mundu Gerra nola aipatu zuen lantzearen ideia franko aspaldi piztu zen, 1999an, Euskal Ikasketetako gaur egungo Master 1en pareko lan nagusia egitean. Orduko gaia hauxe zen: «Itzuli bereziak *Eskualduna* eta *Herria* astekarietan»¹. Bi astekari horietako bost urte ezberdinetako editorialak hartu eta euskarazko itzuli bereziak bildu genituen. Urte haietariko bat 1917a zen. Kazetaritzarako interesak euskarri gisa prentsa hautatzea eragin zuen, eta euskararenganako interesak, hizkuntza ikertzea. Lan hura aitzinatu arau, hizkuntza formak aztertzeaz gain, edukien azterketa ere interesgarria izan zitekeela argi gelditu zen, eta hurrengo ikerketa bati begira, euskarri haien edukia eta mezua ikertzeko ideia mamitu zen.

Lan honetan orain arte egin ez den sakontasunarekin ikertuko da *Eskualduna* astekariak zein jarrera izan zuen euskaldunek Lehen Gerla Mundialean parte hartzeari begira. Ez gara edozein astekariz ari, XX. mende hasieran eta gerla garaian Ipar Euskal Herrian gehien zabaldua zen agerkaria baitzen, geroago erakutsiko dugun bezala. Lan honen bitartez, garai hartako Ipar Euskal Herriko euskal elizak eta haren klase politikoak Frantziarekin nolako harremana garatu zuten azalduko dugu, erakutsiko dugun bezala, *Eskualduna* garai hartako Ipar Euskal Herriko elizaren eta eskuineko politikarien hurbileko astekaria baitzen. Hots, Ipar Euskal Herriko euskaldunak frantsesteko bidean eragile haien boza izan zen *Eskualduna*-k izan zuen papera aztertzen du lan honek. Horrez gain, beste hainbat ekarpen ere eskainiko ditu lan honek, *Eskualduna* astekariaren egituraz, historiaz eta hango idazleez bereziki. Azken

¹ Eneko Bidegain, «Itzuli bereziak eta estilo efektuak *Eskualduna* eta *Herria* astekarietan» (tesina-memoria, zuz. Jean-Baptiste Orpustan], Université de Pau et des Pays de l'Adour, 1999).

ehun urteetako Ipar Euskal Herriko euskal gizartea ulertzeko garai inportante baten alde bat xeheki aztertzen du ikerlan honek.

Eskualduna-ren kazetaritza eredua eta erretorika ikertzea zen hastapeneko ideia. Nola erabiltzen zituzten euskal esaerak, hizkuntzaren baliabideak eta hitzak berak mezu baten zabaltzeko? Galdera hori buruan, garai zehatz bat ikertzea pentsaturik, Lehen Mundu Gerra hautatu genuen, XX. mendeko gertakari historiko handienetariko bat izan zelako eta Euskal Herrian eragin handia izan zuelako. Gerla haren harira, *Eskualduna*-k nolako erretorika eta zer mezu zabaltzeko erabili zuen aztertu nahi genuen. Baina lehenbiziko irakurraldi batean ohartu ginen mezua bera aztertzearekin nahiko gai zabala zegoela, erretorikan sartu behar izan gabe. Edo bestela errateko, *Eskualduna*-ren mezua bera erretorika baino garrantzitsuagoa eta interesgarriagoa iruditu zitzaigun. Erretorika eta kazetaritza eredua ikertuz, gerlari buruz zabaldu zuten mezua gutxiago ikertuko genuelakoan, lehentasuna mezuari eman diogu, eta gure indarrak ildo editorial eta politikoaren ikerketan zentratzea erabaki genuen. Gerla historia ikuspegitik ikertu dutenek garrantzia gehiago eman diote, azkenaldian, gerla egin zuten soldaduen testuak ikertzeari, Prost eta Winter-ren arabera². Eta diotenez, alde horretatik, garrantzia gehiago eman zaio soldaduek berek sortutako prentsari, gerla lekutik urrun idazten zenari baino. Adibidez, *Le Canard Enchaîné* astekariaren edukia ikertzeak gerlaren historia idazteko ez duela balio diote Prostek eta Winterrek, astekari hori Douglas-ek³ ikertu zuela argitu ondoren. Hain zuzen, astekari hori osoki Paristik idatzia zen. Guk aztertuko duguna erdibideko zerbait izan daiteke, Baionatik eta gerla lekutik idatzi artikuluak aztertuko baititugu, hala nola editorialak eta soldadu gisa gerlara joan ziren *Eskualduna*-ko erredakzioko kideek gerla lekutik igorri kronikak.

Eskualduna-k Lehen Mundu Gerraz zabaldu zuen mezua ikertzea interesgarria iruditu zitzaigun, bai alde historikotik, bai alde politikotik. Laster beteko dira ehun urte gerla hura lehertu zenetik, eta oraino bada zer ikertua Euskal Herriko ikuspegitik. Orain artekoetan dauden lan aipagarrienak dira Joël Rocafort-ena⁴ Lapurdi kostaldeko ikuspegitik, Jacques Garat-ena⁵ desertoreen eta intsumituen ikuspegitik, Ikerzaleak elkartearena⁶ Zuberoako

² Antoine Prost eta Jay Winter, *Penser la Grande Guerre. Un essai d'historiographie* (Paris: Seuil, 2004), 132.

³ Allan Douglas, *War, memory, and the politics of humor: The «Canard enchaîné» and World war I* (Berkeley; London: University of California Press, 2002).

⁴ Joël Rocafort, *Avant oublié: soldats et civils de la côte basque durant la grande guerre* (Biarritz: Atlantica, 1997).

⁵ Jacques Garat, «Insoumissions et désertions en France pendant la Grande Guerre: Le Cas des cantons basques» (tesina-memoria, zuz. Jacques Julliard, EHESS, 1983).

⁶ Robert Elissondo, ed., *Mémoires de la Soule: 1914-1918: une petite vallée du Pays Basque dans la guerre* (Maule: Ikerzaleak, 2006).

ikuspegitik eta Itxaro Bordarena⁷ *Eskualduna* astekariaren ikuspegitik. Lau horiek ondoko lerroetan barnatuko ditugu. Zuberoako historiari buruzko Jean-Marie Régnier-ren liburu sorta bat⁸ ere gehitu daiteke, kapitulu bat eskaini baitio Lehen Mundu Gerrari. Horietarik bakar bat ere ez dago euskaraz; denak frantsesez dira. Gerla hari buruz euskaraz dauden liburuak, gerla hartako kronikak idatzi zituzten idazleen artikulu bildumak dira: hala nola Piarres Xarritonek bildu Jean Saint-Pierre-ren⁹ eta Jean Etxepare-ren¹⁰ artikuluak edota Patri Urkizuk bildu Jean Elizalderenak¹¹ (gerlatik landa idatziriko oroitzapenak).

Alta, euskal gizartean eragin handia izan zuen, milaka gizonen gerla egin zutelako eta haietatik milaka hil zirelako. Eragin handia izan zuen ere euskaldunak frantsesteko bidean. Gerlaren mendeurrena hurbiltzen ari dela jakinez, garai aproposa zela pentsatu dugu, nahiz eta mendeurrenaren aitzakiarik gabe ere egiteko gisako lana izan. Pentsatzekoa da 2014an eta ondoko urteetan argitalpen eta kongresu anitz izanen dela Lehen Mundu Gerraz.

Eztabaida ere ez da faltako, besteak beste herrialde ezberdinetako soldaduek gerla onarturik ala beharturik egin ote zuten. Péronneko Historialaren inguruko taldeak – Stéphane Audoin-Rouzeau eta Annette Beckerren inguruan – dio Frantziako soldaduek gerla egitea onartu zutela, beren borondatez, frantses abertzaletasunez¹². Audoin-Rouzeauk bere tesian¹³ lubakietako egunkariak (soldaduek egiten zituztenak) ikertu zituenean, soldadu haien abertzaletasuna nabaria zela ondorioztatu zuen. Ideia horrekin jarraitu zuten ondoko urteetan ere, eta 2000n¹⁴ «gerla kultura» kontzeptuarekin sakondu zuten ideia hori, gerla kultura horren ezaugarriak ondoko hauek ziren, haien arabera: bortizkeria, herra orokorra eta zibilizazioaren aldeko defentsaren kontzientzia, erlijio kutsuarekin.

Péronne taldearen ideia horiekin ez dira batere ados CRID 14-18 (Collectif de Recherche International et de Débat sur la Guerre de 1914-1918) taldeko unibertsitarioak

⁷ Bernadette Borda, «Le journal «Eskualduna» et la guerre de 1914-1918» (Mémoire de maîtrise, dir. Michel Papy, Université de Pau et des Pays de l'Adour, 1984).

⁸ Jean-Marie Régnier, *Histoire de la Soule (tome 4). La IIIe République* (Donibane Lohizune; Ozaze: Ekaina; Hitzak, 1991), 154–190.

⁹ Jean Saint-Pierre «Anxuberro», *14eko Gerla Handia*, ed. Piarres Xarriton (Donostia: Euskal Editoreen Elkarte, 1998).

¹⁰ Piarres Charriton, *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak. III. Kazetaritza (A) (1903-1915)* (Donostia: Elkar, 1988); Piarres Charriton, *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak. IV. Kazetaritza (B) (1916-1935)* (Donostia: Elkar, 1992).

¹¹ Jean Elissalde, *LVII.a gerlan*, ed. Patri Urkizu (Zarautz: Alberdania, 1995).

¹² Stéphane Audoin-Rouzeau eta Annette Becker, «Violence et consentement: la «culture de guerre» du premier conflit mondial», in Roux, Jean-Pierre eta Jean-François Sirinelli (dir.): *Pour une histoire culturelle* (Paris: Seuil, 1997), 265–266.

¹³ Stéphane Audoin-Rouzeau, *A travers leurs journaux: 14-18, les combattants des tranchées* (Paris: Armand Colin, 1986).

¹⁴ Stéphane Audoin-Rouzeau eta Annette Becker, *14-18. Retrouver la guerre* (Paris: Gallimard, 2000).

(besteak beste Rémy Cazals, Frédéric Rousseau eta Nicolas Offenstadt biltzen dira talde horretan), eta gerla kulturaren kontzeptua atzera bota dute¹⁵. Haiek diote soldaduek ez zutela gerla beren gogoz egin, baizik eta behartuak zirelako¹⁶.

Ikuspegi historiografiko batetik ikertu dute gerla Prostek eta Winterrek, eta bi tendentzia horien arteko desadostasun horiek ere aipatu dituzte, baina ez dute baten edo bestearen alde jarri nahi izan, iruditzen zaielako eztabaidaren protagonistek alferrik gogortzen dituztela beren formulazioak eta batek funtsezkotzat dauzkan lekukotasunak besteak baztertzen dituela¹⁷. Bi taldeen arteko polemika bizia da¹⁸, eta pentsatzekoa da datozen hilabete eta urteetan lehen planora itzuliko dela.

Anitz aipatuko da, eta aukera hori ez da huts egin behar Euskal Herriko ikuspegitik lantzeko. Orain arte franko ahantzia izan da, eta ez da anitz landu euskaldunek gerla hura nola bizi izan zuten, eta zein ondorio utzi zuen Euskal Herrian. Lehentxeago aipatu bezala, ez da deus idatzi euskaraz, Lehen Mundu Gerraz, garai hartako artikuluekin osatutakoak ez badira. Hego Euskal Herrian gerla hartaz oro har ez da gauza handirik irakatsi. Euskal Herrian gutxi landu delako eta Euskal Herriko ikuspegia ahantzia izan delako, interesgarria iruditu zaigu Lehen Mundu Gerra ikuspegi horretatik lantzea.

Lehen Mundu Gerra gai zabala da, baita Euskal Herritik begiraturik ikertuta ere. Horregatik, gure ikerketa hori baino zehatzagoa da, eta Ipar Euskal Herrian gehien saltzen zen eta euskaraz idatzia zen *Eskualduna* astekariaren begietatik ikertu dugu gai hori. Astekaria zen gure abiapuntua, eta astekariarekin segitu dugu. Prentsa ikertzean interes berezia jarri dugu, prentsak funtzio inportantea betetzen baitu gizartearen hezkuntzan. Prentsaren eta Euskal Herriaren arteko loturez anitz bada lantzeko, eta Euskal Herriko prentsak euskal gizartean daukan eta historian zehar izan duen eraginaz ere bai. Gure kasuan, 1914tik 1918rako *Eskualduna*-k euskal gizartearen hezkuntzan zer egin zuen aztertu nahi dugu, zer balio transmititu zien irakurleei, zer ildo politiko, zer mezu.

¹⁵ Nicolas Offenstadt et al., «À propos d'une notion récente: la «culture de guerre»», in Rousseau (dir.), Frédéric: *Guerres, paix et sociétés, 1911-1946* (Neuilly: Atlande, 2004), 667–674.

¹⁶ Rémy Cazals eta Frédéric Rousseau, *14-18, le cri d'une génération* (Toulouse: Privat, 2001), 143–144; Frédéric Rousseau, *La guerre censurée. Une histoire des combattants européens de 14-18* (Paris: Seuil, 1999), 309. Bestalde, kolektibo honen gogoetak beren webgunean irakur daitezke: crid1418.org

¹⁷ Prost eta Winter, *Penser la Grande Guerre. Un essai d'historiographie*, 140–142.

¹⁸ Polemika horri buruzko artikulua interesgarria argitaratu zuen *Le Monde* egunkariak: Jean Birnbaum, «1914-1918, guerre de tranchées entre historiens», *Le Monde*, 2006ko martxoaren 10a.

I. Orain artekoa

Lehen Mundu Gerra *Eskualduna* astekarian, angelu zehatz horrekin, gutxi landu da orain arte, edo ia batere. Itxaro Bordak historiako memoria bat¹⁹ egin zuen gai horren inguruan, 1984an. Testu azterketa bat baino gehiago, 1914-1918ko gerla *Eskualduna*-ren zenbait artikulua hautaturen bidez kontatu zuen. Berak aitortu zuen bezala, lizentziaturako («maîtrise» maila, edo gaur egungo masterreko lehen urtea) memoria batean ez zezakeen gaia sakondu, eta beraz biziki gainetik aipatu zuen, azterketa sakonagorako gonbidapena airean utziz²⁰. Orduz geroztik nehor ez zitzaion lan horri lotu, eta gonbidapenari erantzunez, azterketa horren egitea pentsatu genuen.

Doktoretza-tesi honi lotu aitzin, masterreko bigarren urterako memoria egin dugu, gai horren inguruan, tesi honen prestakuntza bezala. Lehen Gerla Mundialeko lehen hilabeteak ikertu genituen, *Eskualduna* astekariaren eta Hego Euskal Herriko *Euzkadi* egunkari jeltzalearen ikuspuntutik²¹. Bi egunkari horiek gerlaren hasieraz izan zuten tratamendua konparatu genuen, bereziki euskal ikuspegiaren agertzeko moldetik. Atera genuen ondorioa zen *Euzkadi* egunkariarentzat nazio erreferentzia Euskal Herria zela, eta *Eskualduna*-rentzat Frantzia, eta beraz Hegoaldeko egunkari horren iritziz Ipar Euskal Herriko euskaldunak atzerriko herri baten alde ari zirela beren bizia eskaintzen, eta Iparraldeko astekariarentzat, beren herriaren alde. Baina orduan ere gauza anitz utzi genuen sakontzeko, hala nola gerla osoa eta gerlaren alde desberdinak. Tesia egiten hasterakoan, gaia oraino, funtsean, landu gabea zen, eta alor zabal bat geneukan aitzinean.

Eskualduna astekariak eta astekari horretako idazleek gauza gehiago bazen argitaraturik, aldiz. Alde batetik, euskal prentsaren historiaren arloan, Javier Diaz Nocik egin zuen lana aipatu behar dugu. Euskarazko aldizkarien bilketa lan bat egin zuen eta liburu batean²² – *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)* – agertu zituen XIX. mende bukaeran eta XX. mende hastapenean argitaratu ziren aldizkari buruzko xehetasunak. Halaber, euskal prentsaren historiaz ere, guri interesatzen zaigun garaia buruzko ondoko hau idatzi du: *Euskal prentsaren sorrera eta garapena, 1834-1939*²³. Argitalpen horiekin, euskal

¹⁹ Borda, «Le journal «Eskualduna» et la guerre de 1914-1918».

²⁰ Ibid., 6.

²¹ Eneko Bidegain, *Gerla Handia, muga sakona* (Donostia: Utriusque Vasconiae, 2009).

²² Javier Diaz Noci, *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)* (Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1994).

²³ Javier Diaz Noci, *Euskal prentsaren sorrera eta garapena, 1834-1939* (Donostia: Sociedad de Estudios Vascos, 1995).

prentsari buruzko hainbat informazio eman ditu Diaz Nocik, eta tartean *Eskualduna*-ri buruzko xehetasunak ere bai. Baina haren lana ez da zehazki *Eskualduna*-ri buruzkoa, eta gure kasuan, lan zehatzago bat behar izan dugu.

Astekariari buruzko datuak, *Eskualduna*-n idatzi zuten zenbait idazleri buruzko lanetan aurki daitezke. Hango idazle ezagunena Manex Hiriart-Urruti izan zen, eta hark *Eskualduna*-n argitaratu artikuluen hainbat bilduma plazaratu dituzte azken urteetan. Bilduma bat agertzen lehena Piarres Lafitte euskaltzain, hizkuntzalari eta *Herria* astekariko zuzendaria izan zen, 1971n, *Jean Hiriart-Urruty. Mintzaira, aurpegia: Gizon!* liburuan²⁴. Lafittek aitzin-solas luzea egin zuen liburu hartan, Hiriart-Urrutiren biziaz eta estiloaz. Hiriart-Urrutiren obra *Eskualduna* astekariarekin osoki lotua izanik, Lafitteren sarrera hura dokumentu inportantea zen astekariari buruz, astekariaren historia aski xeheki kontatzen baitu. Oinarrizko abiapuntu gisa erabiliko dugu astekariaren historia osatzeko.

Hurrengo bilduma urte bat geroago atera zen; aldi hartan Hiriart-Urrutiren artikuluen edizioa atera zuena Joseba Intxausti izan zen: *Zezenak Errepublikan* liburuan²⁵, Hiriart-Urrutik errepublikazaleen kontra idatzi zituenak bildu zituen. Liburu hartan ere izan zen hitzaurre luze bat, Intxaustik idatzia, eta hartan ere argibideak agertu ziren bai Hiriart-Urrutiz eta baita ere, zeharka, *Eskualduna* astekariaz. Hori ere kontuan hartuko dugu hurrengo orrialdeetan.

Hogei urte baino gehiago joan ziren Hiriart-Urrutiren beste artikulua bilduma bat argitaratu zen arte. 1994an Iñaki Camino Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta hizkuntzalariak atera zuen edizio bat: *Gontzetarik jalgiazaizak*²⁶. Hartan ere sarrera luzea egin zuen edizioaren egileak, eta Hiriart-Urrutiri buruz aritu zen.

Azken edizioa, eta mamitsuena, 2004koa da, Xabier Altzibar Euskal Herriko Unibertsitateko hizkuntzalariarena. *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio* liburuak²⁷ Hiriart-Urrutiren artikulua anitz bildu zuen, baina horrekin batera hitzaurre luze bat egin zuen Altzibarrek, Hiriart-Urrutiren biziaz eta obraz. Baina sarrera hori bereziki interesgarria da, *Eskualduna* astekariaz ere zabal hitz egiten baitu eta argibide anitz ematen baitu. Argibide horiek tesi honen lehen zatian sakonduko ditugu.

²⁴ Jean «Manex» Hiriart-Urruty, *Jean Hiriart-Urruty. Mintzaira, aurpegia: Gizon!*, ed. Piarres Lafitte (Jakin, 1971).

²⁵ Jean «Manex» Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, ed. Joseba Intxausti (Arantzazu: Jakin, 1972).

²⁶ Jean «Manex» Hiriart-Urruty, *Gontzetarik jalgiazaizak*, ed. Iñaki Camino (Donostia: Euskal Editoreen Elkarte, 1994).

²⁷ Jean Hiriart-Urruty, *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*, ed. Xabier Altzibar (Bilbao: Labayru ikastegia. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 2004).

Hala ere, oinarrian, Piarres Lafitteren edizioa²⁸ ezinbestekoa da *Eskualduna* hobeki ezagutzeko, gainerakoek idatzia ere Lafitteren lanean oinarritzen baita. Horrez gain, *Gure Herria* aldizkarian euskal prentsaren historiatxo bat eskainiz idatzi zuen artikulua²⁹ arras interesgarri eta lagungarria da, astekari horretaz gehiago jakiteko, bereziki *Eskualduna* astekarian oinarritu baitzen.

Piarres Xarriton euskaltzainak 1987an, *Eskualduna* astekariaren mendeurrenaren karietara egin zuen artikulua³⁰ ere biziki baliagarria izan zaigu astekariaren historia osatzeko. Bestalde, Jean Saint-Pierre-ren biografia landu zuen, hark gerla denboran *Eskualduna* astekarian idatzi artikuluen bilduman idatzi sarreran³¹. Artikulu gehienak jaso zituen hor, baina zehaztu behar da batzuk³² falta direla bilduma horretatik. Beste liburu sorta batean, Jean Etxepareren idazlanak bildu zituen, eta horietatik bi liburutan ageri dira gerla lekutik *Eskualduna*-ra igorri zituen kronikak³³. Liburu sorta hartan ere badago sarrera bat, Jean Etxepare hobeki ezagutzeko.

Baina Jean Etxepareri buruz Kepa Altonagak idatzi biografia³⁴ eta Jon Casenaveren tesia³⁵ erabili ditugu erreferentzia gisa. Azken honen lanekin, Etxeparez aparte, Etxepareren belaunaldiaz gauzak jakiteko parada daukagu, eta *Eskualduna* – bereziki guk aztertzen dugun garaia – ulertzeko, ekarpen lagungarria da hori.

Azkenik, beste idazle baten artikulua bilduma bat ere aipatu behar dugu, Hiriart-Urruti, Saint-Pierre eta Etxeparez gain, leku handia izan baitzuen *Eskualduna* astekarian, gerla denboran: Jean Elizalde *Zerbitzari*-ren artikulua sorta bat ere badago liburu batean, *LVIIa Gerlan*, Patri Urkizuk osatua³⁶. Baina liburu horretan ez dira ageri *Zerbitzari*-k gerla garaian idatzi zituen artikulua, baizik eta hogeitaurogei urte geroago idatzi zituen oroitzapenak. Hala ere, guretzat interesa izan duen liburu bat da, *Zerbitzari*-ren biziari buruz gauza guti idatzi izan delako horretaz aparte, eta Patri Urkizuren hitzaurrea eskertzekoa delako, alde horretatik.

²⁸ Hiriart-Urruty, *Jean Hiriart-Urruty. Mintzaira, aurpegia: Gizon!*.

²⁹ Piarres Lafitte, «Eskual astekariaren ixtorioa», *Gure Herria Almanaka* (1971): 32.

³⁰ Piarres Xarriton, «Eskualduna-ren mendeurrena Baionan», *Euskeru* 32 (1987): 245–252.

³¹ Saint-Pierre «Anxuberro», *14eko Gerla Handia*.

³² Bilduma horretan ez daude ondoko asteetako artikulua: 1914ko urriaren 14a, abenduaren 4a, 11 eta 18a; 1915eko urtarrilaren 22a, otsailaren 12a, martxoaren 12 eta 26a, apirilaren 2, 16 eta 30a, maiatzaren 14, 21 eta 28a, uztailaren 2, 9 eta 23a, irailaren 24a eta abenduaren 10a; 1916ko urtarrilaren 7 eta 14a, martxoaren 17 eta 24a eta apirilaren 4a; 1917ko otsailaren 2a; eta 1918ko urtarrilaren 4a eta otsailaren 15a.

³³ Charriton, *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak. III. Kazetaritza (A) (1903-1915)*; Charriton, *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak. IV. Kazetaritza (B) (1916-1935)*.

³⁴ Kepa Altonaga, *Etxepare Aldudeko medikua* (Bilbo: Euskaltzaindia, 2006).

³⁵ Jon Casenave, *De l'article de presse à l'essai littéraire: Burubkaké (1910) de Jean Etxepare*. (Madrid: Universidad nacional de educación a distancia, 2002).

³⁶ Elissalde, *LVII.a gerlan*.

Aipatutako lan horiek guztiak inportanteak dira, baina ez dute eskaintzen *Eskualduna* astekariaren historia zabalik, zatika baizik. Halaber, hutsune anitz dauzkate, astekari horri buruzko xehetasunak oro jakin nahi baditugu. Beraz jorrazteko alor bat aurkitu dugu hor, astekaria xeheki hobeki ezagutu ahal izateko. Ez du erran nahi gure lana behin betikoa denik, zilorik gabea denik, baina espero dugu astekariaren orain arteko historia bilduena eta osoena izatea.

Beste sail bat ere ez dute anitz barnatu: nahiz eta *Eskualduna*-ko idazleen artikuluak argitaratu, gerla garaikoak barne, artikulu horien eta *Eskualduna*-ren ildo orokorraren azterketa egin gabe dago oraino. Orain arte egindako lana balio handikoa da, eta zinez eskertzekoa, doktore-tesi honetarako laguntza handia izan delako. Baina argi da astekari horrek oraino azterketa sakonagoetarako bidea eskaintzen duela, eta orain arte gutxi batzuk baizik ez zaizkiola interesatu.

Doktorego-tesi honen bigarren zutabeari lotzeko, Lehen Mundu Gerra Euskal Herriko ikuspegitik nola landu zen begiratu dugu. Alde batetik, Joël Rocafort-ek Lapurdi kostaldeko herrien ikuspegitik landu zuen Lehen Mundu Gerra³⁷. Kostaldeko gizonen parte hartu zuten erregimentuetako ibilbide egunkariak hurbiletik begiratu zituen, soldaduen lekukotasunak biltzen zituzten liburuxkak eta gutunak irakurri zituen, hilen bilaketa zehatza egin zuen eta horiekin guztiekin, Lapurdi kostaldetik joan ziren soldaduek gerlan bizi izan zutena kontatu zuen. Liburu interesgarria bada ere, eta nahiz eta Lapurdi kostaldeaz kontaktzen duenarekin Ipar Euskal Herri osoari begirako irudi orokor bat egiteko lagun badezake ere, barnealde osoa falta da liburutik; beraz, ez du osoki aztertzen Lehen Mundu Gerra Ipar Euskal Herriko ikuspegitik.

Antzeko informazioak ematen ditu Jean Ansoborloren liburuak ere³⁸. 1789tik 1940 arteko Baionako historia militarra landu zuen. Egia erran, denbora tarte zabalegia da Lehen Mundu Gerra behar bezala sakontzeko. Ez da Lehen Mundu Gerraz, ez. Hala ere, Baionako soldaduek bizi izan zuten gerla handiena izan zenez, liburuaren zati handi bat betetzen du atal horrek. Dena den, armada Baionan nola antolatua zen ulertzeko balio digu.

Ikuspegiaren osatzeko badago beste liburu txiki bat, Ikerzaleak izeneko Zuberoako elkarteak argitaratua, Robert Elisondoren zuzendaritzapean³⁹. Liburuak hainbat datu

³⁷ Rocafort, *Avant oublié: soldats et civils de la côte basque durant la grande guerre*.

³⁸ Jean Ansoborlo, *Histoire militaire de Bayonne: 1789-1940* (Bayonne: Société des Sciences Lettres et Arts de Bayonne, 1995).

³⁹ Elisondo, *Mémoires de la Soule: 1914-1918: une petite vallée du Pays Basque dans la guerre*.

interesgarri ematen ditu, Euskal Herriatik joandako erregimentuen ibilbideaz, desertoreez, frantses izaeraz, soldaduen bizipenez eta abar. Azterketa, ordea, Zuberoara mugatzen da, beraz horrek ere ez du balio Ipar Euskal Herriko ikuspegi osoa erakusteko.

Unibertsitate mailako lanetan, Jacques Garat-en DEAko (diplôme d'études approfondies) memoria lana nabarmendu behar da⁴⁰. Ipar Euskal Herriko kantonamenduetan zenbat intsumitu eta desertore izan zen aztertu zuen. Gaia biziki zehatza da, baina desertoreei buruzko zenbaki, testu eta arauen inguruan egin zuen ikerketarekin, gerlak Euskal Herrian izan zuen eraginaren zati interesgarri eta garrantzitsu bat aipatu zuen. Desertoreen gaiak presentzia handia izan zuen, eta lan honetan tarte bat eginen diogu. Haren lana zinez eskertzekoa da, gerlaren beste ikuspegi hori ematen duelako. Hala ere, gaia hain zehatza izanik, horrek ere ez du balio ikuspegi orokorraren emateko. Honekin ere ez daukagu Lehen Mundu Gerrak Ipar Euskal Herrian, osotasunean eta orokorki, izan zituen ondorioei buruzko libururik.

Lehen Mundu Gerraren eta prentsaren arteko harremanaren azterketei dagokienez, hainbat lan egin dira, bakoitza bere helburu eta angeluarekin. Stéphanie Dalbin-en tesia aipa daiteke, liburu batera moldatua⁴¹. Bi egunkariren tratamendua konparatu du, bata Alemaniakoa (*Metzer Zeitung*) eta bestea Frantziakoa (*L'Est Républicain*). Egunkari horietan gerlan ukan zuen lekua neurtu du, eta edukiaren erdia gutxienez gerlako gaiak betetzen zutela ondorioztatu du. Batetik, gaurkotasuneko zenbait gai nola jorratu zituzten ikertu du, beraz artikulua batzuen irakurketa gaika egin du, eta gai horiei buruz zuten iritzia edo ematen zuten irudia deskribatu. Ez ditu gai guztiak hartu, baizik eta garai inportante batzuk, 1917a adibidez. Baina arreta jarri du egunkari baten eta bestearen arteko ildo desberdinean. Bigarrenik, gerlaz zein ikuspegi zuten aztertu du. Gerlari buruzko jarrera argitzeko balio zuten une adierazgarrienak hautatu ditu, gisa horretan 1915eko gertakariak baztertuz eta garrantzia 1914ko hastapeneko gertakarietara edota Verduneko guduari emanez. Adibidez, gerla lehertzearekin egunkarien antolaketa nola aldatu zen ikertu du, eta gerlaren gaiak zer presentzia izan duen lau urteetan zehar ere bai. Gerlaz nola mintzatu ziren aztertu ondoan, gerlan nola engaiatu ziren azaldu du Dalbinek. Alde batetik zentsurari buruz zein jarrera zuten begiratu du, eta horri loturik ere auto-zentsura ikertu du. Egunkarien inplikazioaren erakusteko beste alde bat ere ikertu du, hala nola etsaia nola aipatzen zuten, edota gerla zeinengatik lehertu zen. Engaiamenduaren arloan aztertu duen beste gai bat batasun

⁴⁰ Garat, «Insoumissions et désertions en France pendant la Grande Guerre: Le Cas des cantons basques».

⁴¹ Stéphanie Dalbin, *Visions croisées franco-allemandes de la première guerre mondiale: étude de deux quotidiens: la Metzer Zeitung et L'Est Républicain* (Bruxelles: Peter Lang, 2007).

sakratuarena da, guk ere aztertu dugun bezala. Dalbinek dio egunkari horiek beren estatuaren aldeko propagandaren logikan sartu zirela, besteak beste etsaiaren irudi txarra zabalduz. Arlo horretan, gure ikerlanaren helburuetara hurbiltzen gara, nahiz eta gurea, euskal ikuspegitik begiratu izan. Ondorio orokor batzuekin erka dezakegu gure ikerketa, baina azken ondorioetarako Euskal Herritik abiatutako ikerketa propio bat egin behar dugu.

Gilles Wolfs-ek Mendebaldeko prentsak Errusiako frontea nola aipatu zuen ikertu du, bere tesian⁴². Alemaniako, Frantziako, Italiako eta Suitzako egunkari nagusiak ikertu ditu, bai kualitatiboki, bai kuantitatiboki, gerlako gaiak, propaganda eta etsaiaren kontrako jarrera aztertzeko. Testuingurua sakonki ematetik hasi da, eta lehenik azaldu du zein zen prentsaren egoera eta aztertu duen egunkari bakoitza aurkeztu du; ondotik, zentsuraren eta propagandaren funtzionamendua eta ondorioak esplikatzen ditu. Hortik landa hasi du bere ikerketa. Gerla prentsaren ikuspegitik ikertu nahi izan du, justifikatuz oraingo historialarien lana ez dela inoiz aurkitu ez diren dokumentuen bila abiatzea, baizik eta idatzia izan dena aztertzea, hots, garai hartakoek gerla nola ikusten zuten aztertzea. Eta horretarako prentsa aztertzea erabaki du, hori delakoan iturri nagusia⁴³. Antzeko egunkariak aztertu ditu, izan ideologikoki edo zabalkunde aldetik. Hots, Alemaniako edo Frantziako egunkariak hartzean ere, tendentzia politiko berekoak hartu ditu. Elkarren arteko konparaketa bat egin du. Erakutsi du Alemaniako prentsak Ekialdeko frontean gertatzen zenaren bertsio baikorra – bere ikuspegitik – ematen zuela. Aliatuen prentsak, aldiz, zentsura erabili zuela dio, Errusiak egiten zituen hutsak ezkutatzeko. Errusiako Iraultza denboran, Frantziak jarrera aldatu zuen, traizioa sentitu zuelakoan. Tesiaren gaia Errusiara zentratua bada ere, eta aztertutako egunkariak guztiz desberdinak baldin badira ere, gure lan eredutik franko hurbil dago Wolfsena, egunkari batzuen jarrera politikoa ikertu baitzuen, guk egin dugun bezala.

Roland Faivre-ren lanak⁴⁴ izan dezake lotura bat gurearekin, Aljeriako prentsak Lehen Mundu Gerrari buruz izan zuen erreakzioa ikertu baitzuen, bereziki Aljeriako musulmanen eta frantsesen arteko harremanei begira. Ez da tesi bat, lizentziaturako memoria lan bat baizik; baina, ematen duen ikuspegi orokorra eta ondorioak begiratzea interesgarria da. Euskaldunen eta aljeriarren egoera desberdina zen, lehenak «metropolikoak» direlako eta

⁴² Gilles Wolfs, «La Russie en guerre (1914-1918) vue par les périodiques occidentaux: relation des événements, nationalismes et propagande» (doktorego-tesia, zuz. Paul Dumont eta Vladimir Claude Fišera, Université Marc Bloch (Strasbourg), 2001).

⁴³ Ibid., 22.

⁴⁴ Roland Faivre, «Réactions de la presse d'Algérie à l'égard de la guerre 1914-1918, dans ses rapports avec les algériens musulmans et dans ses rapports avec la France» (tesina-memoria, zuz. Jean-Baptiste Duroselle, Université Panthéon-Sorbonne (Paris), 1971).

besteak Frantziaren kolonia batekoak. Hala ere, nortasunaren gaiarekin hurbil daitezke bi azterketak.

D. Brandenberger ere antzeko bidetik ibili zen, DESerako (Diplôme d'Etudes Supérieures) memoria baterako⁴⁵, baina Parisko prentsa ikertu zuen, eta gai zehatza finkatu zuen, hala nola gerlaren helburuak, Parisko prentsak kontaturik ikertu zituen. Joëlle Beurier *Le Miroir* astekaria aztertzen aritu zen, liburuxka baterako⁴⁶. Egunkari hark argazki anitz argitaratu zuen, eta argazki horien bilduma bat da, ikerketa sakon bat baino gehiago. Baina argazkiak ere ikertzeko elementuak dira, gure ikerlana testuetara mugatua bada ere.

Georgia Eglezou-k Greziako prentsak Lehen Mundu Gerra eta haren ondorengoa nola aipatu zuen aztertu zuen, bere doktore tesian⁴⁷. Bereziki, Mundu Gerrak eta ondorengo garaiek Grezian izan zuten eraginaz aritu zen, eta Atenasko prentsak propagandari dagokionez zer paper jokatu zuen aztertu zuen. Atenaseko prentsa aztertu du, baina gerlatik landakoa, hala nola 1919tik 1922 artekoa. Greziako politikagintzaren eta Atenasko prentsaren arteko harremanak ikertu ditu. Ez du, guk bezala, egunkari bakar bat ikertu, baizik eta bat baino gehiago. Horrez gain, ez du gerla denborako prentsa ikertu, baizik eta gerlatik landakoa. Garaia ez bada guztiz gure ikerlanekora mugatzen ere, eta eremu geografikoa ere desberdina bada ere, hor ere badaukagu prentsaren mezuaren ikerketa bat.

Prentsak gerla aipatu zuen moduz eta gizartean izan zuen eraginaz, ikerketa lan sakona egin zuen J. Lee Thompson-ek⁴⁸. Zehazki, Alfred Harmsworth (Lord Northcliffe) Erresuma Batuko prentsa buruzagiak bultzatu egunkariak Lehen Gerla Mundialean idatzi zutena ikertu zuen, politikari gisa izan zuen eraginaren eta propagandaren ikuspegitik. *Daily Mail* eta *The Times* egunkarien sortzaileak, *Daily Mail* egunkariko kazetari gisa 1914ko urrian frontera egin zuen lehen bidaiatik idatzi artikulua aztertzen ditu lan horrek, bereziki egin zituen izenburuen bitartez.

Italiako egunkari bat eta hango iritzi publikoa aztertu ditu liburu batean Italo Falcomatà Italiako historia garaikide irakasleak⁴⁹, Domenico Nunnari-rekin batera. Italiako

⁴⁵ D. Brandenberger, «La presse parisienne et les buts de guerre: (septembre 1916-février 1917)» (tesina-memoria, zuz. Pierre Renouvin, Université de Paris. Faculté des lettres et sciences humaines, 1964).

⁴⁶ Joëlle Beurier, *Images et violence, 1914-1918: quand «Le Miroir» racontait la Grande Guerre* (Paris: Nouveau monde, 2007).

⁴⁷ Georgia Eglezou, *The Greek media in World War I and its aftermath: the Athenian press and the Asia Minor crisis* (London, New York: Tauris Academic Studies, 2009).

⁴⁸ J. Lee Thompson, *Politicians, the press and propaganda: Lord Northcliffe and the Great War, 1914-1919* (Kent (Ohio), London: the Kent state university press, 1999).

⁴⁹ Italo Falcomatà eta Domenico Nunnari, *Il Corriere di Calabria e l'opinione pubblica nella grande guerra (1914-1918)* (Ravagnese: Città del sole, 2004).

Calabria eskualdeko *Il Corriere di Calabria* egunkariak gerlaz idatzi zuena eta haren ildo politikoa ikertu dute. Gai zehatz baten inguruan oinarritu dute ikerketa, hala nola egunkariak nola agertu zuen, hastapen batean, neutraltasunaren aldeko jarrera eta gero nola pasatu ziren Italiaren interbentzioaren justifikatzera.

Giuseppina Venturelli ere Italiako prentsez aritu da, egunkari giristinoen jarrera ikertu baitu⁵⁰. Eskualde desberdinetako hainbat astekari ikertu ditu. Astekari horiek gerlaren arlo bati buruz zuten iritzia ikertu du. Italiako hainbat eskualdetako prentsa giristinoak Italian bizi-bizi zegoen eztabaida batez zer zioten ikertu du Venturellik ere, hala nola neutral izatearen edo esku hartzearen arteko eztabaidaz. Lehenik testuingurua azaldu du, eta bereziki giristinoen ikusmoldea zein zen, oro har, nola lerrokatzen ziren Aita Santuaren iritzira, zein ziren Italiako tendentzia giristino nagusiak (politikoki, ekonomikoki, sozialki eta kulturalki), eta oroz gainetik, zein zen Italia gerlan sartzearen eta ez sartzearen inguruko eztabaida. Venturelliren helburua giristinoen jarrera aztertzea izan da, eta horretarako erabili duen tresna prentsa giristinoa izan da.

Frédéric Medeiros-ek, gerlako gaitik pixka bat urrunduz, baina garai bera hartuz, Parisko prentsak garai hartako gizarte mugimenduak nola aipatu zituen ikertu zuen, lizentziaturako memoria batean⁵¹.

Alfred E. Cornebise Lehen Gerla Mundialean zehar, Amerikako Estatu Batuen eta Mexikoren arteko gatazkan, amerikar soldaduen eskutik egin zen kazetaritzaz aritu da⁵². *The Stars and Stripes* Amerikako Estatu Batuetako armadaren egunkari ofiziala da, XIX. mendean sortua. Soldaduen morala altxatzea, abertzaletasuna estimulatzea edo obeditzea ziren astekari haren helburuetariko batzuk, Alfred Emile Cornebisen arabera. Bertan soldaduek idatzitako narrazio, lekukotasun eta olerki franko argitaratu zela dio. Liburuak ez du astekariaren eduki azterketa egiten, baizik eta astekari haren Lehen Gerla Mundial garaiko historia kontatzen du. Gure ikerketaren kasutik hurbil eta urrun dago aldi berean. Urrun dago geografikoki, hurbil garaia aldetik; urrun dago, *Eskualduna* ez zelako armadaren agerkaria, ez ofiziala eta ez deus; baina hurbil dago, *Eskualduna*-n gerlaz idatzi zutenak soldaduak zirelako. Baina ez ziren armadaren izenean idazten ari ziren soldaduak. Horregatik, bi agerkarien izaera, eta beraz horien azterketa, hein bat desberdina da. Halaber, azterketa lana bera desberdinak dira, Cornebisenak ez baitu testuen azterketa eta komentario sakona eskaintzen, testu bilduma bat

⁵⁰ Giuseppina Venturelli, *La grande guerra in prima pagina: la stampa cattolica italiana tra neutralità e intervento* (Firenze: Atheneum, 1991).

⁵¹ Frédéric Medeiros, «Les mouvements sociaux vus à travers la presse parisienne de janvier 1917 à mai 1918» (tesina-memoria, zuz. Guy Pedroncini, Université Panthéon-Sorbonne (Paris), 1992).

⁵² Alfred E. Cornebise, *The Stars and stripes: doughboy journalism in World War I* (London: Greenwood press, 1984).

baizik. Cornebisek bereziki aholkatzen die liburu hori historialariei, soldaduen zuzeneko lekukotasuna eskaintzen duelako.

Kazetari profesional baten artikulua ikertu zituen André Vincent-ek⁵³. Johan Bojer idazle norvegiarrak lau hilabetez segitu zuen, Frantzia, Lehen Mundu Gerra, Norvegiako *Aftenposten* egunkariarentzat. Frontean eta ospitaleetan gaindi ibili zen, eta Norvegiar Frantziaren aldeko jarrera hartzera bultzatu zuen jendea. Vincenten tesia ez da bakarrik Gerla Mundialeko artikulua, Johan Bojerrek gerla aitizineko garaietan ere idatzi zituen artikulua aztertu zituen. Lan hau ere hurbiltzen da guk egin dugunetik, baina aztertu zituen artikulua ez dira gerlan ziren soldaduenak, gure kasuan ez bezala. Are gehiago, herrialde neutro bateko berriemaile baten artikulua dira Vincentek ikertu dituenak. Vincentek aztertu nahi izan du zein izan den kazetariaren iritziaren edo ikuspegiaren bilakaera. Gerlaren atalari dagokionez, lau fasetan bereizi du azterketa⁵⁴, lau faseek idazlearen jarrerarekin daukate lotura. Batetik, herrialde neutro bateko kazetari gisa, neutraltasunez hasi zela aipatu du. Gero, lekuko zuzen eta zintzoa izan zela gehitu du. Hirugarren fasean, gerlako sufrikarioek hunkitu zuten pertsona gisa deskribatu du Johan Bojer. Azkenik, Frantziaren irudia Norvegiar hobetzeko egin zuen ahaleginaz aritu da. Zati horietatik guztietatik bakoitzak artikulua bat dauka oinarrian. Gudu bateko lekuko gisa idatzi zuen kronikak ere bai, baina kronika aski luzea zen, eta beraz hiru ataletan banatu ahal izan du bere azterketa Vincentek⁵⁵. Lehenik, eremu geografikoaren aipamena aztertu du, ondotik antolaketa militarrena eta azkenik soldaduen gogoarena. Atal horiek ere azpi gaika sailkatu ditu⁵⁶; soldaduen gogoari buruzko atalean, adibidez, bereizi ditu aitzindarien eta soldadu soilen arteko harremanak, gudarien moralak eta heriotzarekin zuten harreman etengabea.

Martin Farrar ere egunkarietako artikuluetan oinarritu da bere lanean, gerlako berriemaileek idazten zutena aztertu baitu⁵⁷. Gerlako militarrek berriemaileekiko zuten jarrera nola aldatu zen ikertu du. Egunkariak gerla lekura igorri berriemaileek kazetaritza egiteko zituzten trabak azaldu ditu, ordena kronologikoan. Batetik, lehen bederatzi hilabeteetan kazetariak gerla lekura joateko debekua zutela azaldu du, ondotik baimena ukan zutela baina militarren zaintzapean eta azkenik armadaren propaganda tresna oso bihurtu zirela.

⁵³ André Vincent, «Johan Bojer, correspondant de presse: étude réalisée à partir de ses chroniques à Aftenposten sur la France de «La Belle Epoque» (1902-1907) et de la Grande Guerre (1915)» (Thèse de doctorat, dir. Frédéric Durand, Caen, 1989).

⁵⁴ Ibid., 253.

⁵⁵ Ibid., 269.

⁵⁶ Ibid., 282.

⁵⁷ Martin J Farrar, *News from the front: war correspondents on the Western Front, 1914-18* (Thrupp: Sutton Pub., 1998).

Beste bi berriemaile motaren gutunak ikertu ditu, aldiz, Jean-Michel Géa-ren tesiak⁵⁸. Gutun pribatuak eta argitaratuak konparatu ditu. Argitaratu gabeek eta argitaratuek gerlako lekuei buruzko informazio eta deskribapen desberdinak egiten zituztela dio: batzuek arreta eguneroko bizian jartzen zuten eta besteek gerlako gudueta. Etsaiak izendatzeko moduak ere desberdinak zirela ondorioztatu du. Guk ikertu ditugun testu guztiak argitaratzeko ziren, beraz ez dugu parametro horren arabera egin azterketa, baina Géaren lanak gerlako lekuez edota etsaiez nola mintzo ziren aztertzen du, eta hori guk ere landuko dugu.

Soldaduen gutunekin segituz, oinarrizko lan batzuk aipatu behar dira, hala nola Gérard Baconnier, André Minet eta Louis Solair-ena⁵⁹. Frantzia Hegoaldeko soldaduen gutunak aztertu dituzte. Lan honetan zehar izanen dugu aukera liburu honetaz aritzeko, baina laburbilduz, besteak beste liburu horretan ageri da soldaduek maiz gogoan zutela etxea, eta lehen lerroetakoek ez zutela gogorik gudura joateko. Halaber, Stéphane Audoin-Rouzeau-ren, *A travers leurs journaux: 14-18, les combattants des tranchées* liburua⁶⁰ ere garrantzitsua da, soldaduek egiten zituzten egunerokoak ikertu baititu. Lehen aipatu dugun gisan, Audoin-Rouzeauk azpimarratu du soldaduek beren borondatez egin zutela gerla. Bi lan horiek ez dute prentsa aztertzen, baina guretzat erreferentzia bat izan daitezke, soldaduen gutunez ari baitira, eta *Eskualduma*-k soldaduen gutun anitz argitaratu baitzuen. Kazetari baten kronikak biltzen ditu *The Letters of Mayo Lind* liburua⁶¹. *The Daily News* egunkariko kazetari hori gerlako hainbat lekutan ibili zen, baina liburua ez digu balio gure ikerketarako, artikulu bilduma bat baizik ez baita, ez azterketa bat.

Bestalde, zentsurari buruzko ondoko ikerlanetan ere hunkitzen da gure gaia, zeharka bada ere. Prentsa eta zentsura elkarri hurbiletik lotuak ziren, gerla garaian; eta horrekin batera, postako kontrola. Sophie Horvat-ek zentsuraren antolaketaz egin du DEAko memoria⁶², eta azaltzen du Prentsaren Etxea sortu zutela 1914an, eta pixkanaka egituratu, prentsak argitaratzen zuena kontrolatzeko. Ez da zuzenean gure gaia, baina astekari baten edukiak aztertzeko, informazio iturrien mugak eta funtzionamendua ezagutu behar dira.

⁵⁸ Jean-Michel Géa, «Ecrire en situation d'urgence, étude discursive et sociolinguistique de deux correspondances de guerre (1914-1918)» (doktorego-tesia, zuz. Sonia Branca-Rosoff, Aix-Marseille 1, 1997).

⁵⁹ Gérard Baconnier, André Minet eta Louis Soler, *La Plume au fusil. Les poilus du midi à travers leur correspondance* (Toulouse: Privat, 1985).

⁶⁰ Audoin-Rouzeau, *A travers leurs journaux: 14-18, les combattants des tranchées*.

⁶¹ Francis Thomas Lind, *The letters of Mayo Lind: Newfoundland's unofficial war correspondent, 1914-1916* (St. John's, Nfld: Creative Publishers, 2001).

⁶² Sophie Horvat, «De la naissance du BEPE à la Maison de la presse: les ambiguïtés de l'information en temps de guerre, août 1914 - mars 1916» (tesina-memoria, zuz. Serge Berstein, Institut d'Etudes Politiques, 1998).

Maurice Rajsfus-ek Lehen Gerla Mundialeko zentsuraz liburu sakona egin du⁶³. Zentsuraz datu anitz ematen du, eta *Eskualduna* ere aipatzen du. Olivier Forcade-ren tesiak ere zentsuraren antolaketaz xehetasun anitz ematen du⁶⁴. Lan honetan zehar frankotan aipatuko ditugu, hurrengo orrialdeetan.

Propagandaren aldea eta informazioren errezibitzea aztertu dituzte Fabrice Pappolak eta Pierre Purseiglek. Pappolak tesi bat badu egina soldaduek jasotzen zuten informazioaz edo «buru galkatzeaz» zuten iritziaz⁶⁵. Soldaduek ematen zitzaien informazioa ez sinesteko joera hartu zutela, baina hala ere informazioa heltzeko irrika zutela dio tesi honek. Komunikazio prozesuan hartzailearengan jarri du arreta, eta guk berriemaileengan. Hala ere, gure eremu bertsuan dabilenez, aipatu eta hurbiletik irakurri beharreko tesia dela iruditu zaigu.

Tokian tokiko herritarrek gerlaz zuten ikuspegia aztertu du Pierre Purseiglek⁶⁶, eta prentsa lokala ere ikertu, nahiz eta haren tesia ez prentsa lokalaz izan. Hala ere, gure lana leku zehatz bati buruzkoa izanik, tesi hori interes handikoa iruditu zaigu, *Eskualduna* astekarian agertzen ziren hainbat gai eta iritzi hark aipatu egunkarietan ere agertzen baitziren, gisa bertsuan.

Lehen Mundu Gerra prentsaren ikuspegitik aztertua izan da, gisa batez edo bestez. Aipa ditzakegu Norvegiako idazlearen kasua, Italiako prentsa giristinoarena edota Erresuma Batuko prentsari buruzkoa. Hala ere, oraino eremu zabala gelditzen da ikertzeko. Argi da, hasteko, Euskal Herriko ikuspegitik ez dela ia batere aztertu, prentsak gerla hura aipatu zuen modua. Eta nahiz eta prentsa daitekeen ezaugarri orokor batzuk agerkari guztietan agertu zirela, eta alde horretatik, *Eskualduna*-ren tratamendua ez zela bereziki desberdina izan, Euskal Herriak bere berezitasunak ditu, bere nortasun arazo propioa duenaz geroz. Euskal Herria ez zen horrelako egoera bat bizi zuen leku bakarra, baina ikertzea merezi du.

Bestalde, ohartu gara *Eskualduna* astekaria bera ere, nahiz eta euskal prentsaren historian pisu handia duen, ez dela unibertsitate mailako ikerketa anitzen gaia izan. Astekari horren edukian aztertzeko lan handia bada egiteko. Lehen Mundu Gerra izan daiteke ardatz

⁶³ Maurice Rajsfus, *La censure militaire et policière 1914-1918* (Paris: Le Cherche Midi, 1999).

⁶⁴ Olivier Forcade, «La censure politique en France pendant la Grande Guerre» (doktorego-tesia, zuz. Jean-Jacques Becker, Université Paris-X Nanterre, 1999).

⁶⁵ Fabrice Pappola, «Le «bourrage de crâne» dans la Grande Guerre: approche socioculturelle des rapports des soldats français à l'information» (Thèse doctorat, dir. Rémy Cazals, Université de Toulouse-Le Mirail, 2007), (Toulouse 2).

⁶⁶ Pierre Purseigle, «Mobilisation, sacrifice et citoyenneté, Angleterre-France 1914-1918: contribution à l'histoire des communautés locales en guerre» (doktorego-tesia, zuz. Rémy Pech eta Jay Murray Winter, Université de Toulouse-Le Mirail, 2006).

bat, baina beste hainbat ere egon daitezke. Aipatutako horrengatik guztiagatik, pentsatzen dugu Lehen Mundu Gerra *Eskualduna* astekarian ikertuz zerbait berria ekar dezakegula edo orain arteko ikuspegia osatzen lagun dezakegula.

2. Hipotesia eta ikerketa galderak

Eskualduna astekariak Lehen Mundu Gerra nola landu zuen aztertzea erabaki genuenerako, astekariaren ale batzuk gainetik irakurriak genituen, bai garai hartakoak, bai beste garai batzuetakoak. Dreyfus aferaren garaiko artikuluak irakurtzean⁶⁷ ohartu ginen guztiz Dreyfusen aurkakoa zela. Bestela ere, juduen kontrako hainbat artikulu daude, «Fuera juduak!» bezala⁶⁸, adibidez. Xabier Altzibarrek ere dio astekari hartako zuzendari izan zen Manex Hiriart-Urrutik juduak etsaitzat zeuzkala⁶⁹. 1936ko gerran, aldiz, Francoren aldeko jarrera hartu zuen orduko zuzendari Domingo Soubelet. Francoren aldeko artikuluak baino gehiago, komunisten eta Errusiaren kontrako artikuluak idatzi zituen⁷⁰. Lehen Gerla Mundialeko artikuluak irakurriz, iruditu zitzaigun osoki frantses ageri zela. Milaka euskaldun hil ziren gerla hartan, Frantziaren alde. Funtsean, «beren aberriaren aldeko» hil gisa omenduak izan dira hil horiek azken ia ehun urte horietan. Gerla hark sekulako eragina izan zuen Frantziako gizartean, eta Ipar Euskal Herrian ere. Euskaldunak frantses sentiarazteko funtsezko gertakaria izan zen. Euskaldunen frantseste prozesua ez zen gerla harekin hasi, ez eta ere bukatu; baina urrats baitezpadakoa izan zen.

Idea hori buruan ibili gara ikerketa lan horren egiten. *Eskualduna*-ren ale batzuk irakurriz, hastapenean genuen galdera zen Frantziari begira zer jarrera zuen euskarazko astekari horrek, ea euskaldun gisa erraten zuen gerla hura ez zela haiena, ala beste jarrera bat zuten. Laster ikusi genuen, bai, gerla harekin bat egin zutela, osoki, eta beren burua guztiz frantses ikusten zutela. Horrengatik, gure hastapeneko hipotesia hau da:

- *Eskualduna* astekariak, Lehen Gerla Mundialean, euskaldunak frantsesteko prozesuan aktiboki parte hartu zuen. Hots, *Eskualduna*, frantses gisa aktiboki inplikatu zen gerla hartan.

⁶⁷ Dozenaka artikuluren artean, ondoko hau irakur daiteke, juduen kontrako herraren adibide gisa: “Milesker?”, *Eskualduna*, 1899ko irailaren 29a.

⁶⁸ «Fuera juduak», *Eskualduna*, 1894ko azaroaren 9a.

⁶⁹ Xabier Altzibar, «Sarrera», in Hiriart-Urruty, *Jean: Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*, ed. Xabier Altzibar, Sutondoan sorta (Bilbao: Labayru ikastegia. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 2004), 49.

⁷⁰ Adibide batzuk: Domingo Soubelet, «Auzotik erakaspel», *Eskualduna*, 1936ko agorrilaren 7a; Domingo Soubelet, «Odol eta gezur», *Eskualduna*, 1936ko irailaren 4a; Domingo Soubelet, «Sutik herra», *Eskualduna*, 1936ko irailaren 11.

Hipotesi hori frogatzeko ahalegina egingen dugu lan honetan. Ikusiko dugu ea gauzak horrela ziren, zergatik ziren horrela eta nola agertu zen hori. Halaber, ikusiko dugu ere ea ñabardurarik badagoen postura horretan. Hipotesi hori buruan egin dugu gure azterketa, eta azterketa hiru galderen inguruan egituratu dugu. Galderak *Eskualduna*-ren inplikazioaren ingurukoak dira. Frantziaren ondoan inplikatu zela diogu; izan zitekeen neutro gelditzea eta ez inplikatzeari, edo euskaldun gisa Frantziarekin bat ez egitea. Baina hastapenetik ohartu gara inplikatu zela, beraz ikerketa galderak horren harira egin ditugu: Zergatik inplikatu zen *Eskualduna* Lehen Gerla Mundialean? Nola inplikatu zen? Zertarako inplikatu zen? Galdera horiei erantzuteko asmoz eta hastapeneko hipotesia egiaztatzeke asmoz, lan hau hiru zati nagusitan aurkeztu dugu.

- **Lehen ikerketa galdera: zergatik eta zeren eraginez inplikatu zen *Eskualduna* Lehen Gerla Mundialean, Frantziaren alde?**

Lehenik, beharrezkoa iruditu zaigu gaia bere testuinguruan ongi kokatzea. *Eskualduna*-ri berari buruzko lan sakonik ez dagoela ikusirik, astekari hori zer zen, nola sortu zen, nori egin zuen eta nola ongi esplikatzea baitezpadakotzat jo dugu. Aztertu dugun astekari horren ezagutza sakona egin nahi izan dugu, tesi honen irakurleek ere zer euskarri ikertu dugun hastapenetik jakin dezaten. Bigarrenik, Lehen Mundu Gerrari buruzko azalpen batzuk ere eman nahi izan ditugu. Nahiz eta gertakari horretaz ehunka liburu idatziak izan, ardatz orokorrak oroitaraztea komeni zela uste izan dugu. Baina, atal horretan ere ekarpen bat egiteko asmoz, gerla horri Euskal Herriko ikuspegitik begiratzeko ahalegina egin dugu. Testuinguruaren aurkezpenarekin bukatzeko, gerlak *Eskualduna* astekarian izan zituen ondorioak aztertu ditugu. Alabaina, astekaria aurkeztu ondoan, astekari hori gerla denboran nola izan zen ere erakutsi behar genuen. Lehen atal hori testuinguru ongi azaltzeko erabili dugu, baina testuinguru honen azalpen xeheak galdera bati erantzuteko balio izanen digu: zergatik inplikatu zen *Eskualduna*, gerla hartan?

- **Bigarren ikerketa galdera: nola inplikatu zen *Eskualduna* gerla hartan eta nola kontatu zuen gerla?**

Bigarren zatian sartuko gara gure ikerketaren muinean. Zati hori biziki deskriptiboa da. Astekariak gerla nola aipatu zuen kontatzen du. Gerlaren alde ezberdinak landu ditugu zati horretan: hala nola gerlari buruzko gai orokorrak edo politikoak, gerlari lotutako gertakari zehatzak eta gerlako lekuetako bizimodua. Zati honekin, *Eskualduna*-ren bertsioaren argazki

orokor eta zehatza eskainiko dugu, eta horrekin erantzunen diogu bigarren galderari: nola inplikatu zen gerlan?

- **Hirugarren ikerketa galdera: zertarako eta zein motibazioekin inplikatu zen *Eskualduna* gerlan? Zein eragin izan zuten nortasunak eta erlijioak?**

Hirugarren eta azken zatian, *Eskualduna*-ren izaeraren edo erakutsi nahi zuen nortasunaren parametrotik ikertuko ditugu artikulua. Interesatu zaigun bakarra ez da gerla nola kontatu zuten, zer deskribatu zuten. Garrantzitsuago iruditu zaigu jakitea astekariaren eta astekariko idazleen jarrera zein zen, frantses edo euskaldun izaerari begira. Erlijioak ere pisua zuela ikusi dugu eta hori ere hor txertatu dugu. Funtsean, azterketa horrek hirugarren galderari erantzuteko parada eskaini digu: zertarako inplikatu zen *Eskualduna* gerla hartan? Zein zen haren xedea? Hiru galdera horiei erantzun ondoan aterako ditugu ondorioak, eta ikusiko dugu zein izan zen *Eskualduna*-ren parte hartzea euskaldunen frantseste prozesuan.

3. Metodologia aplikatuan erabilitako iturriak

Lan hau egiteko, hiru iturri motarengana jo dugu. Alde batetik, iturri zuzenetara, hala nola *Eskualduna*-ko gerla garaiko artikuluetara. Bestetik, *Eskualduna*-ri buruzko eta garai hartako testuinguruari buruzko dokumentuetara. Azkenik, artxibo zerbitzuetara.

- **Iturri zuzenak**

Doktorego-tesi honetan, Lehen Mundu Gerra hasi eta bukatu arteko (1914ko agorrilaren 1etik 1918ko azaroaren 11ra) *Eskualduna* astekariko lau urte eta hamar hilabeteko zenbakiak aztertzea zen helburua, eta hori izan da lanaren ardatz nagusia. Astekariak gerla nola aipatu zuten aztertu nahi genuenez, gerlak iraun zuen denbora guztiko zenbakiak irakurri ditugu. Gerla hasi baino hilabete lehenagoko zenbakietatik hasi gara, hala nola 1914ko uztailaren 3kotik, gerla piztu zuen pindarra izan zen Sarajevoko atentatuaren berri zenbaki hartan eman zelako. Aste hartatik landa, 1919ko apirilaren 11 arteko zenbaki guztiak irakurri ditugu, *Eskualduna*-n idazten zuten soldaduak ordurako itzuli baitziren. Alabaina, nahiz eta gerla 1918ko azaroaren 11n bururatu zen, haren ondorenek ondoko hilabeteetan ere segitu zuten, soldaduak ez baitziren zenbait hilabete geroago iragan arte itzuli. Ondoko taulan bildu ditugu fase bakoitzean zeuden zenbaki kopuruak eta datak.

Irakurritako zenbakiak

Garaia	Datak	Zenbaki kopurua
Gerla hasi aitzineko fasea	1914ko uztailaren 3tik 31ra	5
Gerla garaia	1914ko agorrilaren 1etik 1918ko azaroaren 11ra	222
Gerla ondoko garaia	1918ko azaroaren 12tik 1919ko apirilaren 11ra	14
OROTARA		241

Irudia 1. Irakurritako zenbakiak

Zorionez, gaur egungo teknologiei esker, *Eskualduna* astekariaren zenbakiak irakurtzea biziki erraza da, sorta osoa interneten baitago (www.hemeroketa.com). Guk, ale horiek sarean jarri aitzinetik eskuratuak genituen zenbaki guztiak, PDF formatuan. Erran behar da, ordea, bai eskuratua genuen PDF formatuko sortan, bai webgune horretan, zenbaki batzuk falta direla (bi sortetan zenbaki berak daude eta zenbaki berak falta dira): 1914ko irailaren 4a eta 25a eta 1915eko ekainaren 4a. Falta diren zenbaki horiek Baionako Euskal Erakustokiko artxibo zerbitzuan aurkitu ditugu, 1914ko irailaren 4koa salbu.

▪ Testuingurua aztertzeke erabilitako iturriak

Lanaren funts eta hari nagusia iturri horien azterketa izan bada ere, lehen ikerketa galderari erantzunez, testuinguruaren osatzeko, beste hainbat dokumentu ere kontsultatu behar izan dugu. *Eskualduna* astekariaren historia eta astekari horri buruzko xehetasunak lortzeko, astekari horretako beste hainbat artikulua baliagarri izan zaizkigu. Horregatik, astekariaren hasierako zenbakietatik jarri dugu arreta, hala nola 1887ko zenbakietatik aitzina, astekariko parte-hartzaileei buruzko artikulua bilatzeko, edota astekariaren alde administratiboari buruzko xehetasunen jakiteko.

Baina informazio batzuk aurkitzeko ez da nahikoa izan. Astekariko parte-hartzaileei buruzko datu gehiago lortzeko, *Gure Herria* aldizkariko artikulua irakurri ditugu, hainbat idazleren herioaren kariatara, idazlearen biografia idazten baitzuten. Hori lagungarri izan zaigu *Eskualduna* hobeki ezagutzeko. Eskualtzaleen Biltzarreko urteko kongresuen aktak ere irakurri ditugu, idazle horiei buruzko argibideak agertzen direlako.

▪ Artxiboak

Xehetasun horiez gain, gure gaian zentratuz, *Eskualduna*-n idatzi zuten soldaduen ibilbide militarri buruz gehiago jakiteko asmoz Pirinio Atlantikoetako Departamendu Artxiboaren Paueko egoitzara joan behar izan dugu, militarren matrikulazioari buruzko erregistroak begiratzeko.

Frantziako Defentsaren baitan, Lurreko Armadaren Historia Zerbitzuak Vincennes-en duen artxibora ere joan gara gerlaren inguruko zentsurari buruzko datuen biltzeko, han bilduak baitira zentsuratutako zatiak, eta kontrolatutako agerkariei buruzko txostenak, *Eskualduma*-ri buruzkoa barne. Horrez gain, zerbitzu horren webgunean⁷¹ dauden artxiboak ere baliagarriak izan zaizkigu, euskaldunak ibili ziren erregimentuei buruzko xehetasunen jakiteko edota hildako euskaldunen fitxak ikusteko. Alabaina, fitxa horietan ageri da gerlan hildako bakoitza noiz, non eta zeren ondorioz hil zen, zein erregimentukoa zen, noiz eta non sortua zen. *Eskualduma*-n irakurri ditugun herioei buruzko berriak kontrastatzeko balio izan digu, ikusteko astekarian idatzia zena eta Frantziako Defentsaren zerbitzuak ematen zituen datuak bat zetozen.

4. Metodologia

Atal honetan azalduko dugu xeheki zein metodologia aukeratu dugun eta zein urrats jarraitu dugun, ikerketa lan honen egiteko. Hasteko, zehaztu behar dugu *Eskualduma*-ren ildo editorialari buruz gauzak argitzeko ezinezkoa zela protagonistekin hitz egitea, duela ehun bat urteko garaiaz ari garelako. Ondorioz, idatzirik gelditu diren dokumentuak aztertzea zen gelditzen zen bide bakarra. Horregatik, metodologiari dagokionez, prentsaren azterketaren inguruko metodologiak zein ziren begiratu dugu. Desberdinak begiratu ondoan, Laurence Bardin-ek⁷² eta Patxi Juaristi Larrinagak⁷³ proposatzen dituztenen alde egin dugu. Eduki azterketaren arloan sartu gara, eta Christian Leray-en⁷⁴ oharra abiapuntu interesgarria iruditu zaigu:

[L'analyse de contenu] est malheureusement souvent décriée dans nos universités pour sa trop grande référence au terrain au détriment du seul cheminement de la pensée. En conséquence, bien que l'analyse du contenu soit un outil indispensable au chercheur, elle ne doit pas constituer une fin, mais uniquement un instrument de travail pour étayer une argumentation et dégager des conclusions.

Honen arabera, nahiz eta eduki azterketa gutxietsia izan den, tresna funtsezkoa da ikerlariarentzat, ez helburu gisa, baizik eta ondorioak ateratzeko tresna gisa. Guk ere horrela ulertu dugu eduki azterketa: gure helburua ez da izan astekariaren edukia aztertzea, edukia aztertzeagatik, baizik eta astekariaren edukia bitartez, Ipar Euskal Herriko gizarteko

⁷¹ <http://www.memoiredeshommes.sga.defense.gouv.fr/>

⁷² Laurence Bardin, *L'analyse de contenu*, [lehen edizioa: 1977]. (Paris: Presses universitaires de France, 2007).

⁷³ Patxi Juaristi Larrinaga, *Gizarte ikerketarako teknikak: teoria eta adibideak* (Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen Zerbitzua, 2003).

⁷⁴ Christian Leray, *L'analyse de contenu: de la théorie à la pratique: la méthode Morin-Chartier* (Québec: Presses de l'Université du Québec, 2008), 3.

eragile garrantzitsu batzuen (*Eskualduna* egiten zuten apaiz eta eskuineko politikari euskaldunen) iritzia eta helburuak ezagutzea.

Eduki azterketaren prozesuaren eskema

Irakurketa orokorra		
Hipotesien formulazioa		
Lehen ikerketa galdera: zergatik?	Bigarren ikerketa galdera: nola?	Hirugarren ikerketa galdera: zertarako?
Testuingurua azaltzeko	Laginketa eta datu bilketa	
<ul style="list-style-type: none"> • Artxiboa • <i>Eskualduna</i>-ko artikuluak • Bibliografia 	Editorialak: <ul style="list-style-type: none"> • Manex Hiriart-Urruti • Blaise Adéma 	Gerlarien berriak: <ul style="list-style-type: none"> • Jean Saint-Pierre • Jean Elizalde <i>Zerbitzari</i> • Jean Etxepare • Jules Moulrier <i>Oxobi</i> • Pierre Duhour • A.I.
	Gaikako sailkapena	
Azterketa		

Irudia 2. Eduki azterketa prozesuaren eskema

Bernard Berelson⁷⁵ izan zen eduki azterketa metodologiaren aitzindaria. Haren definizioaren arabera, eduki azterketa ikerketa teknika bat da, komunikazioaren ageriko edukiaren deskribapen objektibo, sistematiko eta kuantitatiborako⁷⁶. Eduki azterketa alde kuantitatibora mugatzeagatik eta alde kualitatiboa baztertzegatik, Berelsonen metodologia geroztik anitzek kritikatu zutela diote Jean de Bonville-k⁷⁷ eta Laurence Bardinek⁷⁸, baina baita ere eduki azterketa metodo berriak proposatu dituzten guztiak haren metodologiatik abiatu direla. Guk de Bonvillen eta Bardinen metodologietan jarri dugu arreta, testuaz gain testuinguruari ere garrantzia ematen diotelako, hala nola nork idatzi duen eta zer asmorekin⁷⁹.

Alde horretatik, gure azterketa bereziki kualitatiboa da. Horretarako Bardinen metodologiaren arabera lan egin dugu. Haren hautua gustatu zaigu, erraten duelako eduki azterketa eremu zabala eta zabala bezain malgua dela, eta ez dagola «prêt-à-porter» delakorik azterketa baten egiteko, ia azterketa bakoitzak bere eredia asmatu behar du⁸⁰. Hor sartzen dira diskurtsoaren azterketa, ahozko elkarrizketen azterketa, literaturaren azterketa, helburu

⁷⁵ Bernard Berelson, *Content analysis in communication research* (Glencoe: Free Press, 1952).

⁷⁶ Ibid., 18.

⁷⁷ Jean Bonville (de), *L'analyse de contenu des médias: De la problématique au traitement statistique* (Bruxelles: De Boeck Supérieur, 2006), 9.

⁷⁸ Bardin, *L'analyse de contenu*, 21.

⁷⁹ Bonville (de), *L'analyse de contenu des médias*, 19; Bardin, *L'analyse de contenu*, 25.

⁸⁰ Bardin, *L'analyse de contenu*, 34.

linguistikoak dituen azterketa eta abar, eta baita prentsaren azterketa ere. Eduki azterketak bi funtzio izan ditzake, Bardinen arabera: batetik, aztertzen den euskarriaren edukia zein den deskubritzea; bestetik hipotesi batetik abiatu eta hori egiaztatzea edo gezurtatzea. Bi funtzio horien arteko elkarbizitza ere posible dela gehitu du Bardinek, hain zuzen, deskubritze fase batek azterketa zehatzago batera pasatzeko bidea eskain dezake, edo irakurketa zehatz eta hipotesi baten arabera, gauza berriak deskubritzea ere gerta daiteke.

Bardinen⁸¹ eta Juaristi Larrinagaren⁸² proposamenetatik abiatu, gure ikerlanak izan dituen urratsak ondoko hauek dira: lehen irakurketa bat ginetik; hipotesia formulatzea; laginaren hautatzea; laginketa unitateen zehaztea; erregistro unitateen zehaztea; erregistro kategorien finkatzea; datu bilketa eta erregistroka sailkatzea; inferentziak aztertzea; datuen azterketa. Beste metodologia batzuk ere badaude, ñabardura batzuekin. Jean de Bonvillek hamazazpi urrats finkatu ditu eduki azterketa egiterakoan⁸³. Zortzi urrats dauzka Morin-Chartier metodoak⁸⁴. Baina, oro har, guk segitu duguna eta hauek antzekoak dira.

Guretzat garrantzitsua zen testuingurua (politikoa, diplomatikoa eta aztertutako aldizkariari buruzkoa) azaltzea eta guk hautatutako hipotesia eta ikerketa galderen inguruan egitea eduki azterketa. Ohartu gara gisa bereko ikerlanak egin dituztenek ere eduki azterketaren bidea hautatu dutela, eta metodologia horrek eskaintzen duen malgutasunarekin jokatu dutela, testuinguruari eta hautatutako gaiari garrantzia emanez. Edukia bere alde kualitatibotik aztertu dute bereziki. Azterketa kualitatiboaren hautua egin dute, elementu kuantitatibo batzuk sartu badituzte ere, azterketa kuantitatibo huts bat pobre geldituko zela abisatuz. Italo Falcomatà eta Domenico Nunnari⁸⁵, Giusppina Venturelli⁸⁶, Georgia Eglezou⁸⁷ eta Roland Faivre⁸⁸ bakoitzak bere gaiari lotutako testuingurua xeheki azaldu dute, eduki azterketa eta aztertutako aldizkariaren ildo editoriala aztertu baino lehen. Hiruek gai bat hautatu dute ikerketa horren hari nagusi gisa: lehen bi lanetan, Italiaren neutraltasunari buruzko gaiak idatzitakoak ikertu dute, hirugarrenean gerla ondoko Greziaren arabera, eta laugarrenean Aljeriako musulmanen ikuspegitik. Ohartzen gara gai batzuen inguruan

⁸¹ Bardin, *L'analyse de contenu*.

⁸² Juaristi Larrinaga, *Gizarte ikerketarako teknikak*.

⁸³ Bonville (de), *L'analyse de contenu des médias*, 23–27.

⁸⁴ Leray, *L'analyse de contenu*, 16–18.

⁸⁵ Falcomatà eta Nunnari, *Il Corriere di Calabria e l'opinione pubblica nella grande guerra (1914-1918)*, 12.

⁸⁶ Venturelli, *La grande guerra in prima pagina: la stampa cattolica italiana tra neutralità e intervento*.

⁸⁷ Eglezou, *The Greek media in World War I and its aftermath: the Athenian press and the Asia Minor crisis*.

⁸⁸ Roland Faivre, «Réactions de la presse d'Algérie à l'égard de la guerre 1914-1918, dans ses rapports avec les algériens musulmans et dans ses rapports avec la France» (tesina-memoria, zuz. Jean-Baptiste Duroselle, Université Panthéon-Sorbonne (Paris), 1971).

idatzitako ikertu dutela. André Vincenten tesiak⁸⁹ ere gai batzuetan jarri du arreta, nahiz eta honen kasuan, aztertu duen kazetariak gerlatik idatzi artikuluko kopuru mugatuak (hogeita bi, orotara) finkatu dizkion gaiak. Martin Farrarren liburuak⁹⁰ gerlako gertakari nagusien aipamenak aztertu ditu, ordena kronologikoan. Gilles Wolfsek⁹¹ prentsaren eduki azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa egin ditu, baina zati batean artikuluen kantitatea zentimetroka zenbatu badu ere, tesiaren zati nagusia edukien gainean egituratu du. Ez du egunkarika egin azterketa, baizik eta kronologikoki, ikusteko Mendebaldeko egunkariak zer heinetan eta nola aipatu zituzten Errusian gertatzen zirenak eta haiek zituzten ondorioak. D. Brandenbergerrek⁹² gerlako garai eta gai zehatz bat aztertu du, hala nola gerlaren helburuak Parisko prentsan nola aipatu zituzten. Gerlaren helburu desberdinei buruz prentsa zerbait erraten zuen ala ez eta zer jarrera zuen aztertu du.

Erabili dugun metodologia anitz hurbiltzen da Stéphanie Dalbinen metodologiatik. Dalbinek bi egunkariren jarrerak konparatu ditu, bata alemana, bestea frantsesa. Guk, ordea, astekari bakarra aztertu dugu. Baina funtsean, aztertzeko tresna berdintsuak erabili ditugu, hala nola artikuluko dira aztertu ditugunak, artikuluek zekartzaten mezuak. Ez dugu gaien sailkapen bera egin, baina hainbat ezaugarri berdina daude bi lanetan. Dalbinek garai edo gertakari zehatz batzuk hautatu ditu; guk gaiak, oro har. Gerlak egunkarietan zuen eraginaz, bereziki zentsuraren eta auto-zentsuraren arloan, gure antzeko azterketa egin du, nahiz eta aztertu dituen egunkarietatik gai hau gehiago sakontzeko bidea izan eta bide horretan gu baino gehiago barnatu den. Guk zentsuraren gaia orokortasunen baitan sartu dugu, eta Dalbinek bukaera aldean. Etsaia edo etsaiaren ardura aipatzean ere haren antzeko lana egin dugu. Batasun sakratua prentsan nola islatzen zen ere ikertu du, guk bezala.

Gure aldetik, gai berak aztertuko baditugu ere, beste gisa batez ordenatu ditugu, eta beste helburu batekin. Dalbinek Alemaniako eta Frantziako bi egunkari konparatu ditu, ikusteko gerlaren bi aldeetan zein desberdintasunekin edo zein berdintasunekin aipatu zuten gerla eta gerlako gertakariak eta nola inplikatu ziren beren herriaren alde. *Eskualduna*-ren kasuan, Euskal Herriko eta euskarazko astekaria izanik, euskal berezitasun horren ikuspegitik aztertu nahi izan dugu gaia. Antzeko metodologia erabili dugu, hala nola eduki azterketa; antzeko gai banaketa egin dugu, geroago azalduko ditugun ñabardurekin, baina helburuak ere

⁸⁹ Vincent, «Johan Bojer, correspondant de presse: étude réalisée à partir de ses chroniques à Aftenposten sur la France de «La Belle Epoque» (1902-1907) et de la Grande Guerre (1915)».

⁹⁰ Farrar, *News from the front: war correspondents on the Western Front, 1914-18*.

⁹¹ Wolfs, «La Russie en guerre (1914-1918) vue par les périodiques occidentaux: relation des événements, nationalismes et propagande».

⁹² Brandenberger, «La presse parisienne et les buts de guerre: (septembre 1916-février 1917)».

bazituen ñabardurak: euskal izaerak zenbateraino aldatzen zuen – ala ez – gerla aipatzeko modua eta astekariaren inplikazioa. Eta ikuspegi hori oraino ez da landua izan, eta beraz azterketa egiterakoan ere berezitasun batzuk dauzka, arreta beste puntu batzuetan ere jarri dugulako.

- **Azterketa kualitatiboaz eta kategoriak egiteko moduz, ohar batzuk**

Azterketa egiteko bi modu nagusi daudela dio A.L. George-ek⁹³, Bardinek bere liburuan laburbiltzen duen gisan: azterketa kuantitatiboa izan daiteke, edota kualitatiboa. Kuantitatiboan, zenbait ezaugarriren agertze frekuentzia neurtzen da; kualitatiboan, aldiz, ezaugarri batzuen presentzia edo falta hartzen da kontuan. Guk azterketa kualitatiboan jarri dugu arreta, eta Georgek azterketa kualitatiboaz dionean ikusi dugu interesa. Haren arabera, azterketa kualitatiboak ezaugarri berezi batzuk ditu. Gertakari batentzat, inferentzia zehatz batentzat balio du. Corpus mugatu baterako balio du, azterketa kuantitatiborik ezin denean egin. Horrez gain, eduki osoa ez da kontuan hartu beharrik azterketarako indizeen hautatzeko. Indize horien interesa edo zehaztasuna hartzen da kontuan, eta posible da artikulua oso batetik pasarte bat soilik hartzea azterketarako. Selektzio mota horrek arriskua dauka elementu garrantzitsuak bazterrean uzteko edo garrantzirik ez dutenak hartzeko. Errore arriskua handitzen da, elementu isolatuak edo frekuentzia apalekoak aztertzen dituelako. Gainera, ikerlana edo laginen hautatzea hasierako hipotesiaren arabera egiteko arriskua ere aipatzen du Georgek. Horregatik, hautatutako indizeen zentzuaren ulermen zehatza berebizikoa da eta testuingurua inportantea. Zer baldintzetan produzitu da testu hori? Nor mintzo da? Nori? Zein egoeretan? Zer gertatu da lehenago? Hala ere, azterketa kualitatiboak ez du erran nahi azterketa kuantitatiboa osoki baztertzen denik. Erakuts dezakegu indize batzuk zein frekuentzian ageri diren.

Horrelako eduki azterketa bat egiteko, baitezpadakoa da, Bardinek esplikatzeko duen bezala, indizeak sailkatzeko irizpideak finkatzea eta sailkapen zehatza horren arabera egitea⁹⁴. Bost irizpide hartu behar dira kontuan. Batetik, sailkapenerako kategoriak homogeneousak izan behar dira, hala nola ez dira kategoria berean nahasi behar azterketa elementu ezberdinak. Bigarrenik, indize bakoitza kategoria bakarrean sailkatu behar da, ezin du bi kategoriatan izan lekua, nahiz eta arau hori kasu batzuetan alda daitekeela dioen Bardinek. Hirugarrenik, egokitasuna hartu behar da kontuan, eta horrek erran nahi du ikerketaren helburuaren arabera, kategoriak ahal bezain modu egokian finkatu behar direla. Laugarrenik, objektiboa

⁹³ Bardinen liburuan aipatua: A.L. George, «Quantitative and qualitative approaches to content analysis», in *Trends in content analysis*, ed. Ithiel de Sola Pool, 1 vols. (Urbana: University of Illinois press, 1959), 7–32.

⁹⁴ Bardin, *L'analyse de contenu*, 153–154.

eta leiala izan behar da. Azkenik, produktibitatea kontuan hartu behar da, hala nola kategoria horretan edukia sartzea lortu behar da.

Zein dira kategoria horietan sailkatzen diren elementuak? Hori ere aski malgua da. Izan daitezke hitzak edota esaldiak, adibidez. Bardinek Marie Christine d’Unrug⁹⁵ aipatu du, errateko azterketako unitate horiek luzera aldakorra izan dezaketela, hitzen, esaldien edo gaiaren arabekoak izan daitezkeela.

Eduki azterketan laginak eta azterketa unitateak nola egiten diren esplikatu du Patxi Juaristi Larrinagak⁹⁶, eta azalpen horiek lagungarriak dira gure ikerlanerako. Lehenik dio hartuko ditugun datuak zehatz hautatu behar direla, gure ikerketaren helburuaren, gaiaren edota garaiaren arabera. Gero laginketa bat egin behar da, askotan, eskura daukagun materiala oparoegia delako eta ez delako baliabide materialik edo astirik den-dena ikertzeko. Horregatik, irizpide batzuen arabera egin behar da lagin bat. Gero, finkatu behar da zein diren gure laginketa unitateak (lerroak, paragrafoak, artikulua eta abar). Hortik landa, sailkatuko edo kodetuko diren erregistro unitateak zehaztu behar dira, lagin horietatik. Hitza, esaldia, paragrafoa, ideia edo artikulua osoa izan daiteke erregistro unitatea. Horri loturik, testuinguru unitatea ere azaldu behar da, hala nola hartu dugun erregistro unitatea nondik hartu dugun eta zein testuingurutan kokatua den. Unitate horiek ikerketaren helburuen arabera finkatutako kategoriatan sailkatu ondoan, inferentziak ere kontuan har daitezke, hala nola mezua nork zabaldu duen, nolakoa den, zein den arrazoia, mezua zabaltzen duenaren asmoa zein den eta mezua jasotzen duena nor den.

▪ Aldizkari baten deskribapen metodologia

Eduki azterketan sartu aitzin, testuinguruaren arloan, *Eskualduna* astekariak beraz azalpenak eman nahi izan ditugu, ahal bezain xeheki. Horren egiteko, Jacques Kayser-ren metodologian oinarritu gara. Egunkarien fitxa egiteko irizpide batzuk aipatzen ditu, *Le Quotidien Français* liburuan⁹⁷. Hainbat puntutan osatzen ditu egunkarien fitxak, ordena horretan: egunkariaren izena; data; urte kopurua; buruzagi batzuen izenak; izenaren azpiko aipu bat; definizioa (adibidez, «egunkari politikoa»); leloa; erredakzioaren eta administrazioaren egoitza; periodikotasuna; argitaratze unea (astekariaren kasuan, eguna); lehenbiziko eta azken zenbakien datak; banaketa gune nagusia; tirada; prezioa; formatua; ohiko orrialde kopurua; orri bakoitzeko zutabe kopurua; inprimatzailearen izena eta helbidea; edizio kopurua eta

⁹⁵ Bardinen liburuan: Marie-Christine D’Unrug, *Analyse de contenu et acte de parole: de l’énoncé à l’énonciation* (Paris: Éditions universitaires, 1974).

⁹⁶ Juaristi Larrinaga, *Gizarte ikerketarako teknikak*, 221–225.

⁹⁷ Jacques Kayser, *Le quotidien français* (Paris: Armand Colin, 1963).

bakoitzaren eremua; egunkariaren biziaren ohiz kanpoko ezaugarriak; bildumen artxibatze lekuak; artxiboen aurkibideak.

Horrez gain, egunkariaren nortasun dossier bat ere egiten du, ondoko puntu hauekin: egitura juridikoa eta finantziarioa; ekoizte baldintzak; banaketa baldintzak; erredakzioaren antolaketa; ildo politikoa. Beste ezaugarri multzo bat morfologiari dagokio, ondoko bost atal hauen arteko proportzioak kalkulatur: azalera; publizitatea; titulatzeko forma; ilustrazioak; testuak. Azkenik, informazioaren banaketa edo erredakzio unitateen azalpena egiten du, puntu hauen arabera: informazioak; artikulak; eleberriak, atalkako istorioak, komikiak; prentsa zatiak; irakurleen gutunak; zerbitzu sailak.

Ez zaigu beharrezkoa eta aski interesgarria iruditu hain aurkezpen xehearren egitea (adibidez, formatua, publizitatearen tokia, ilustrazioak eta abar). Puntu horietatik gehienak argituko ditugu gure deskribapenean zehar, bereziki erredakzio taldearen aurkezpenaren atalean, administrazioaren atalean eta irakurleei buruzko zatian. Arreta bereziki jarri dugu – eta aurkezpena horren arabera sailkatu dugu – astekariaren kazetaritza estiloan, erredakzio taldean eta irakurleen artean zeukan hedapenean.

a) Testuingurua

Lehen zatian *Eskualduna* astekariari eta gerlari buruzko bilaketa bat egin dugu. Bibliografia funtsezkoa izan da lan horren osatzeko, baina ez bakarrik. *Eskualduna*-ren historia zehazteko, gorago aipatu ditugun iturri guztietara eta gehiagotara joan behar izan dugu, puzzlea xehetasunez xehetasun osatzeko. Zentsurari buruzko datuak ere astekariari so eginez eta zentsurari buruzko txostenak artxiboetan begiratur lortu ditugu.

Astekariaren historia osatzerakoan, lan handiena eskatu diguna parte-hartzaileen zerrenda osatzea da. Piarres Lafittek parte-hartzaileen abizenak baizik ez zituen jarri, eta apaizak zirenean hala zirela zehaztu. Besteen kasua, ofizioa ez zuen beti zehaztu. Aitortu behar da hortik zerbait gehiago jakiteko, internet tresna baliagarria izan dela, eta *Euskera* aldizkariako artikulak batzuetara edota Eskualtzaleen Biltzarreko kongresu batzuen aktetara igorri gaituela. Han egileei buruzko datu gehiago aurkitu ahal izan dugu. Ez bereziki *Eskualduna*-n idatzi zutela zehazten zuelako, baina euskal letren inguruan zein zebilen ikusi dugulako. Lafittek eman zerrendarekin erkatuz, zenbait pertsona identifikatu ahal izan ditugu. Behin izen-abizenak eta herria ukan ondoan, haien obraz eta biziaz gehiago jakitea posible zen, *Gure Herria* aldizkarian edo *Eskualduna* astekarian berean haiei buruzko aipamenean bila

joanez. Batzuk apaizak zirela jakinik, Baionako apezpikutegira ere joan gara, apaizen erregistroen kontsultatzera. Handik ere atera ahal izan ditugu hainbat izen.

Apezpikutegian beste dokumentu batzuk ere kontsultatu ahal izan ditugu, hala nola Baionako elizbarrutiak apaiz guztiei igorri galdetegiaren emaitzak. 1909ko galdeketaren txosten horri esker lortu dugu jakitea *Eskualduna*-k zenbat erosle zituen garai hartan, eta baita beste egunkariak ere. Irakurle kopuruak populazioarekin erkatu ditugu, eta 1911n egin zen jende kontaktaren emaitzak begiratu ditugu, herriz herri, Pirinio Atlantikoetako artxiboan.

Astekariari buruzko datu administratibo gehiago jakiteko, astekarian berean begiratu dugu, izenburuaren ondoan ageri baitziren xehetasun legalak (kudeatzailea, inprimatzailea, helbidea). Bestalde, astekaria inprimatzen zuen sozietatearen estatutuak⁹⁸ ere kontsultatu ditugu, Euskal Erakustokiaren liburutegian.

b) Eduki azterketako datuak

Ondoko lerroetan azalduko dugu zein diren aztertzeke hautatu ditugun artikulua eta zeinen arabera. Eduki azterketen metodologiaren arabera, ongi zehaztu behar da zein garai, gai eta euskarriz ari garen. Aitzineko lerroetan ere argi azaldu dugu, zein den garaia eta euskarria, hala nola 1914tik 1918rako garaia eta *Eskualduna* astekaria. Hemen zehazkiago aipatuko dugu garai eta euskarri horretan zein gai hautatu dugun.

Ikerketa hainbat fasetan egin dugu. Hasteko, zenbait hilabetetako zenbakiak gaintetik eta osoki irakurri ditugu, lehen ideia orokor baten egiteko. Irakurketa horretan sartu dira astekariko lehen artikulua edo editorial funtzioa betetzen zuena, egunez eguneko gerlari buruzko berri orokorrak, gerlariak igorri kronikak, herrietako berriak, sail finko batean sartzen ez ziren artikulua eta ia asteroko bertsoak. Testu kantitate handia da; handiegia doktore-tesi bakar batean aztertzeke. Horregatik, aukeraketa bat egin behar izan dugu.

***Eskualduna*-ko sailen artetik hautatuak eta baztertuak**

Baztertutako sailak	Aztertutako sailak
Berriak egunka	Editorialak
Herrietako berriak	Gerlarien berriak
Zuberoako berriak	
Bertsoak	

Irudia 3. *Eskualduna* astekariko sailen artetik azterketarako egindako hautua

Irakurketa orokor horretatik ikusi dugu zein diren aztertzea gehien merezi duten artikulua. Lehenbizikorik baztertu ditugun artikulua «berriak egunka» izeneko sailekoak dira, hala nola egunez eguneko gerlari buruzko berriak. Artikulu horiek gure azterketatik

⁹⁸ *Statuts de la Société Anonyme «Eskualduna»* (Baiona: A. Foltzer, 1917).

kendu ditugu, interes apalekoak iruditu zaizkigulako. Aztertzekeo bide bat izan zitekeen ematen zituzten bideak modu baikorrean ala ezkorrean ematen zituzten, berri «onak» ala «txarrak» ematen zituzten, «onak» bakarrik ematen zituzten ala «txarrak» ere bai. Beste ardatz bat izan zitekeen zertaz ematen zituzten informazioak, nongo fronteez, zein zen informazioen zehaztasuna eta abar. Aztertzen ahal zen ere zein zen informazioaren kalitatea eta ea komentariarik edo iritzirik agertzen zen, eta zein.

Ez zaigu iruditu hori zela egin zitekeen azterketarik interesgarriena eta sakonena. Aipatutako artikuluko horiek eskaintzen zuten informazioa ez zen biziki landua, idazteko modua aski errepikakorra zen eta, bereziki, beste egunkari batzuetatik edo agiri ofizialetatik hartutako informazioetatik osatuak zirela ageri da. *Eskualduna*-koek berek idatziak baldin baziren ere, oinarrizko produkzioa ez zen haiena, baizik eta beste batzuek argitaratutakoaren moldaketa. Horrekin ez dugu erran nahi artikuluko horiek aztertuak izateko interesik ez daukatenik, baina *Eskualduna*-ren sorkuntza propioa aztertzea interesgarriagoa iruditu zaigu, eta hori beste sail batzuetan zegoen.

Herrietako berrietan arreta gehiago jarri dugu hasieran, eta datu base batean kokatu ditugu berri haietan agertzen ziren informazioak. Lau motako informazioak ziren, nagusiki. Batetik, gerlan hildako herritar bati buruzko berria; bigarrenik, gerlan gurutze bat ukan zuen herritar bati buruzkoa; hirugarrenik, zaurituei buruzkoa; azkenik, gutxiagotan, ordea, atxilotutako desertore edo desertore baten laguntzaileari buruzkoa. Hor egon zitekeen interesa zen ikustea ea hildako guztien berriak ematen zituzten, eta zer hitz erabiltzen zuten herio horien aipatzeko: berri txar gisa ikusten ote zuten, hildakoa heroi gisa aurkezten ote zuten eta abar. Gurutze eta sarien kasuan ere azter zitekeen zenbat aipatu zituzten eta nola.

Baina azterketa horri mugak ikusi dizkiogu. Hasteko, herri anitzetako berriak ez zituzten ematen. *Eskualduna*-k zenbait herritan zituen berriemaileak, eta beste anitzetako berriarik ez zitzaion heltzen. Bestetik, artikuluko biziki antzekoak ziren, gehienetan beti modu berean eraikiak baitziren. Batzuetan nahikoa zen hildakoaren edo gurutzea ukan zuenaren izena aldatzea; gainerakoan, beste asteetako artikuluko bera zen. Ez zaigu iruditu sail hori zela *Eskualduna*-k eskaintzen zuen sorkuntza interesgarriena. Hurbilekoena zen, bai, hildako eta saritutako herritarren izen-abizenak aipatzen zirelako; eta batzuetan haien familiari eta biziari buruzko xehetasun gehiago ere bai. Baina ez ziren horiek astekariaren ildo politikoa argitzeko gehien balio zuten artikulukoak.

Desberdina zen Zuberoako berrien kasua. Gerlari buruzko gogoetak ere baziren Zuberoako berri orokorretan edo zenbait herritako berrietan. Gure azterketan txerta zitezkeen artikuluko haiek, baina astekariko artikuluko nagusian agertzen zen iritzi bera

errepikatzen zuten, zubereraz. Hots, ez zuten ekarpen berezirik egiten. Nahiago izan dugu artikulu nagusia ikertu, astekariaren ildoaren adierazle nagusia zelakoan.

Baztertu dugun azken saila, bertsoena izan da. Ia astero agertzen ziren bertsoak, ia beti gerlari buruz. Bertsoak ez ziren beti izenpetuak, eta izenpetuak ziren gehienetan ezizenez edo inisial batzuek baizik ez. Hala ere, erran daiteke gutxienez bertso egile desberdinek igorri bertsoak argitaratu zituztela *Eskualduna* astekariko azken orrialdean. Gerlako bertsoen ikerketarako materiala badago hor. Baina gure gaitik urrunduko ginatete bertsoen ikerketan sartuko bagina. *Eskualduna*-ren kazetaritza lanari interesatu gatzazkio, eta nahiago izan dugu bertsoen gaia kazetaritza arloarekin ez nahasi. Hala ere, asti pixka bat hartu dugu, testuinguruaren atalean, *Eskualduna*-ko sailak aurkezterakoan, bertso egileak zein ziren zehazteko.

c) Lagina

Laginketa finkatzerakoan, lau urte horietako astez asteko artikuluak hartu ditugu, baina zehazki, azkenean, aztertu ditugunak bi sail izan dira. Bi sail mamitsuenak. Alde batetik, lehenbiziko artikulua edo artikulu nagusia, editorialaren funtzioa egiten zuena. Garrantzia eman diogu artikulu hori aztertzeari, lehen artikulua zelako, beste artikulua baino hizki handiagoz idatzia zelako, astekariko zuzendariaren lumatik egina zelako eta, beraz, astekariaren ildo editorialaren adierazle zelako. Artikulu horien irakurketarekin, astekariak besteak beste gerlaz eta Frantziar zuen ikuspegia ongi ezagutzeko aukera daukagu. Artikulu horiek iritzi artikulua ziren. Ez du erran nahi iritzi hori sortzen zutenek iritzi bakar eta bereziak zituztenik; begi bistakoa da iritzi sortzaileak beste batzuk ere bazirela, baina ikus dezakegu *Eskualduna*-koek zein iritzi ematen zuten gehienik, eta zein zen beren berezitasuna, euskaldun gisa eta astekari giristino gisa.

Aztertu dugun sail nagusia, «gerlarien berri» saila da. *Eskualduna*-ko hainbat idazlek gerla lekutik beretik igortzen zituzten kronikekin osatu zuten sail hori. Hori zen *Eskualduna*-k zuen produkzio propio handiena. Bereziarena, hain segur ez, gerla lekutik gutun anitz igortzen baitzen, eta *Eskualduna* ez baitzen horiek argitaratzen zituen bakarra, baina astekari honek euskarazko gutun edo kronikak argitaratzen zituen, euskaldunek idatziak. Eta hori ez zen beste agerkarietan aurkitzen ahal.

Errepikapen anitz baldin bazituen ere, sail interesgarria eta mamitsua iruditu zaigu, gerlaren ikuspegi anitz jorratzen zituelako, lekuko zuzenen lumatik. Gerlari buruzko komentario eta iritzi orokorrak, gerla lekuetako gisa orotako bizipenak, gogoetak,

sentimenduak eta abar agertzen ziren kronika haietan. *Eskualduna*-ren inplikazioari buruzko gure galderen erantzunak sail horietan daude; nagusiki «gerlarien berri» saileko kroniketan, eta hein handi batez editorialetan ere bai.

Azterketak bere mugak behar zituen. Doktorego-tesiak eskatzen duen hiru urteko prozesu honetan ezinezkoa zen eduki guzti-guztia aztertzea. Horregatik baztertu ditugu sail batzuk, eta beste sail batzuk ikertu. Sail horiek, aldiz, osoki irakurri nahi izan ditugu, gaiari buruzko hari guztiak harrapatzeko.

Lehenbiziko irakurketa horretatik finkatu ditugu irakurketa zehatzago bat egiteko ardatzak, hala nola lan honen egituratzen lagundu gaituztenak. Gisa horretan, ikerketaren ardatzetariko bat zen gerlari buruzko gai orokorren ingurukoa, erran nahi baita arlo politikoagoa, estatuen arteko harremani buruzkoa, estrategiari buruzkoa, gerlako jarrera nagusiei buruzkoa eta abar. Beste ardatza gerlako bizipenei buruzkoa zen, gerla tokiekin zuzeneko harremana zuena. Hirugarren ardatz bati ere garrantzia eman diogu, hala nola nortasunari buruzkoari. Ohartu gara frantses izaerak eta euskaldun izaerak presentzia handia zutela artikulu horietan, eta baita beste elementu batek ere, hala nola erlijioak. Hiru ardatz mota horien inguruan egituratu dugu gure ikerlana, hiruek presentzia eta garrantzia zeukatela ikusi dugulako.

Artikulu guztiak datu base batean sailkatu ditugu, bakoitzarekin fitxa bat eginez. Orotara 3.422 fitxa egin ditugu, baina fitxa horietan sartzen dira editorialez eta gerlarien berriez aparteko artikuluak ere, besteak beste egunez eguneko berriak, herrietako berriak eta abar. Baina bereziki bete ditugun fitxak 956 dira.

d) Laginketa unitatea

Laginketa unitate modura, artikuluak hartu ditugu oinarri gisa. Fitxa bakoitzean zehaztu dugu artikulua noizko zenbakian agertu zen, zein zen artikulua izenburua eta zeinek izenpetu zuen. Zehaztu behar dugu gerlarien kronikak atalka zatitu ditugula. Hots, kronika batean azpтитulu franko ager zitekeen, bakoitzak gai desberdina lantzen zuela. Beraz, ez dugu fitxa bakarra egin egun bateko kronikarekin. Adibidez, berrikerari batek bere artikulua batean bost gai landu baldin bazituen, ez dugu fitxa bat egin bost gaiak barne hartzen zituen artikulua osoarentzat, baizik eta bost fitxa. «Gerlarien berri» saileko artikuluek, funtsean, ez zuten izenburu propioirik izaten. Jean Etxepareren artikuluek «Orotarik» zuten izenburua, Jean Elizalde *Zerbitzari*-ren artikuluek «Han hemenka» eta Jean Saint-Pierrerenek «Gerlarien berri».

Baina artikulua bakoitza azpigitulu zehatzago batekin hasten zen, gehienetan. Azpigitulu hori hartu dugu kontuan fitxak egituratzean.

e) Erregistro unitateak

Erregistro unitateak finkatzea pixka bat korapilatsua izan daiteke. Artikulu bakoitzak gai bakarra ukan zezakeen, edo bat baino gehiago. Edo gai nagusi baten inguruan, hainbat esalditan beste gai batzuk ere hunkitu, edo esaldi batean gai bat baino gehiago. Ideia horiek guztiak kategoriatan bildu ditugu, eta kategoriak fitxa batzuetan.

Fitxa guztiak eskuz bete ditugu: artikulua ez ditugu digitalizatu eta ez dugu bilaketa motor baten esku utzi sailkapenaren egitea. Ez zitzaigun nahiko interesgarria iruditzen informazio horren guztiaren sailkapen automatiko bat egitea. Zein irizpideren arabera? Agertzen ziren hitzen arabera? Hitzak berak baino garrantzitsuago eta interesgarriago iruditu zaizkigu esakerak, esaldiak, paragrafoak, artikulua osoak. Horiek dira gure erregistro unitateak. Diskurtsoaren azterketa bat egin dugu, eta azterketa eskuz egin behar zen derrigorrez.

Fitxa bakoitzean artikulua laburpen sintetiko bat egin dugu, zertaz ari zen eta mezu nagusia zein zuen zehatzuz. Gure oharrak ere gehitu ditugu, artikulua horretatik komentatzeko zegoena edo izan zitekeena agertuz. Beharrezkoa edo interesgarria iruditu zaigularik, pasarte batzuk ere kopiatu ditugu, lan honetan aipu zuzenak sartzeko. Adibide adierazgarrienak hautatu ditugu. Garrantzitsua zen pasarte oso batzuk kopiatzea, ideia bat edo mezu bat hainbat esalditan garatzen baita gehienetan. Azterketa ezin zen hitzetara, esakeretara edo esaldi soil batzuetara mugatu. Gai bati buruzko mezu edo iritzia zein zen zehazteko, maiz, esaldi bat baino gehiago hartu behar zen kontuan, eta batzuetan testu osoa ere, diskurtsoa bere osotasunean ikusi behar baita, ondorioak ateratzeko. Beste hainbat aldiz laburpen sintetiko batera mugatu gara, pasarteak ez zaizkigun bereziki berriak edo adierazgarriak iruditu. Hala ere, diskurtsoaren mezu orokorra laburbiltzea beharrezkoa zen.

f) Erregistro kategoriak

Fitxa horietan funtsezkoena, artikulua sailkatzeko erabili ditugun hitz gakoaren sarea da. Erran dugu ikerketa hiru ardatzen inguruan egituratu dugula, hitz gakoak ere ardatz horien inguruan osatu ditugu. Hitz gako bakoitzak artikulua aipatzen zuen gai bat adierazten zuen. Fitxa bakoitzak hitz gako bat baino gehiago ukan zezakeen, gai bat baino gehiago agertzen baitzen, artikulua gehienetan.

Alde batetik, gerlaren inguruko elementu zehatzei buruzko hitz gakoak daude. Lauki batean sartu ditugu artikulua aipatzen zuen leku nagusia, leku nagusi bat zehazten zuenean. Gehien agertu diren leku zehatzak hauek dira: Verdun, Somme, Champagne, Craonne, Alsazia edota Argona. Lekua zehaztu dugunean, horrek ez du baitezpada erran nahi artikulua idatzi duenak leku hartatik idatzi zuela, baizik eta leku hartaz ari zela. Kokapen horren helburua ez da izan azterketa kokapenaren arabera egitea, baina artikuluari buruzko fitxa egitean, eskuragarri genuen informazio hori zehaztea ere interesgarria iruditu zaigu, nahi edo behar izanez gero tokiaren araberako bilaketak egin ahal izateko eta beste gai batzuekin erkatu ahal izateko.

Lekuez gain, artikuluetan aipatzen ziren herrialde edo estatuak buruzko atal bat egin dugu. Hor sartu ditugun hitz gakoak herrialdeen izenak dira. Adibidez, artikulua Alemaniaz mintzo bazen, «Alemania» hitz gakoa sartu dugu, eta «Errumania» Errumaniaz mintzo bazen. Orotara 123 fitxatan sartu dugu herrialde bati buruzko hitz gakoa. Gainerakoetan ez dugu sartu, artikulua ez baldin baziren herrialde bati buruzkoak. Adibidez, lubakietako bizipenez baldin bazen, ez zen Errusiaz ari. Orogen buru, gerlaren alde politiko edo diplomatikoko gaiei buruzko artikuluei dagozkie hitz gako horiek. Hauek dira agertu direnak, batzuk aldi bakar batzuetan, beste batzuk maiz: Amerikako Estatu Batuak, Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Errumania, Errusia, Espainia, Grezia, Hungaria, Ingalaterra, Italia, Japonia, Suitza eta Turkia. Sailkapen hori egitea interesgarri iruditu zaigu ikusteko *Eskualduna* herrialde horiez nola mintzo zen.

Gerlako gai garrantzitsu bat, nola ez, guduei buruzkoa da. Hitz gako sorta bat guduei buruzko laukitxo batean sartu dugu. Baina lauki horretan ez ditugu sartu guduen izenak, Verduneko edo Sommeko bezala, baizik eta guduen ezaugarri orokorrei buruzkoak. Interesatu zaigu jakitea guduen zer alde aipatzen zuten gehienik. Horregatik, batzuetan «aitzinamenduak» edo «herri hartzea» hitz gakoak sartu ditugu, beste batzuetan «gibelatzeak», edota «gudua aitzin», «erasoa» eta abar. Orotara 216 fitxatan sartu dugu zerbait guduei buruz. Zehaztapen horien egitea interesgarria da konparatzeko zenbat aldiz aipatzen zituzten guduen alde baikorrak eta zenbat aldiz alde ezkorrak.

Garaiaren araberako sailkapen bat ere egin dugu. Garaiaren parametroa ez dugu sartu azterketan, baina artikulua kokatzeko baliagarri izan zaigu jakitea zer garairi buruz ari zen. Artikulua zein garaitakoa zen jakiteko, nahikoa da noizkoa zen begiratzea, baina sailkapen honetan ez da ikusi behar kokapen kronologikoa, baizik eta gerlako faseari buruzkoa. Hots, hastapenari buruzko artikulua den, gerlaren bukaerari buruzkoa den edo horrela. 115 fitxatan sartu dugu garaiari buruzko zerbait. Garaiak mintzo garenean, gerlaren hastapenaz, luzatzeaz,

etsipenaz, bake eskaintzez, itxaropenaz eta bukaeraz ari gara. Ez dira gerlako garai finko edo ezagunak, mugimendu gerla, posizio gerla eta horiek bezala. Gehiago dira gerlaren luzatzeari edo bukaerari buruzko ikuspegiak, *Eskualduna*-k sentitzen zuenaren arabera. Lauki honetako sailkapenak interesa badauka, gerlaren irakurketari buruzko azterketarako erabili dugulako, adibidez bakeari buruzko eztabaida aipatzeko edota etsipena eta itxaropena aztertzeko.

Beste lauki batean sailkatu ditugu aipatzen ziren soldadu unitate edo erregimentuak. Artikulu anitzetan ez zen zehazten zein soldaduz ari ziren, baina artikuluak ingelesei buruzkoak baldin baziren, adibidez, lauki horretan «ingelesak» hitz gakoa jarri dugu. Gehienetan, ordea, zehaztu dugun datua da Euskal Herriko soldaduei buruzko artikulua zenean. Gisa horretan, artikuluak bereziki Euskal Herriko soldaduak aipatzen zituenean, hitz gako baten bidez zehaztu dugu.

Multzo bat egin dugu lubakiei buruzko artikuluekin. Lubakiak maiz aipatzen zituenez, ez gara konformatu «lubakiak» hitz jokoarekin, horregatik, «lubakiak» izeneko multzo handi baten barnean, hitz gakoak sartu ditugu. Lubakiei buruzko artikuluetan gai anitz agertzen zen; lubakiez zerbait aipamen zeukaten artikuluen fitxa bakoitzean lubakien ataleko hitz gako bakarra sartu dugu, artikuluko gai nagusiarekin. Adibidez, artikuluko gai nagusia zorriena baldin bazen, baina, labur bazen labur, gosea aipatzen bazuen, «zorriak» hitz gakoa jarri dugu lubakiei zegokion laukian. 196 fitxatan jarri dugu zerbait lubakiei zegokien laukian. Gehien agertzen diren hitz gakoak «aroa» eta aroari lotutakoak dira: «eguzkia», «hotza», «elurra» edota «euria». Presentzia handia daukate janariak, lohiak eta arratoiek ere. Zehaztapen horiek egin ditugu lubakiei buruzko aipamenak alde desberdinetatik aztertu eta komentatu ahal izateko.

Lubakiekin bezala jokatu dugu gibel frontea aipatzen zuten artikuluekin ere. 104 fitxatan bete dugu gibel fronteari zegokion laukia. Gehienetan, gibel fronteari buruzko laukian zerbait jarri dugunean, lubakiei buruzko laukian ez dugu deus jarri. Normal da, biak ez zirelako ia sekula aipatzen artikulua berean: edo lubakiez ari ziren, edo gibel frontez. Gibel fronteari buruzko hitz gako gehienak atsedenarekin lotuak dira, «atsedena», «lasaitasuna», «pausalekua» bezala. Janariari eta edariari lotutako hitz batzuk ere sartu ditugu. Hitz horiei esker, zerrenda batean ageri zaigu gibel frontez mintzo zirenean, zer gai nagusitzen zen.

Beste lauki batean, armei eta armei lotutako gaiak buruzko hitz gakoak sartu ditugu. Armei buruzko laukietan hitz bat jartzeak ez du baitezpada erran nahi artikulua gai nagusia arma horiek zirela, baizik eta artikuluan arma horiek aipatzen zirela. Orotara 182 fitxatan jarri dugu zerbait armei buruz. Gehienetan «hegazkinak» edo «kanoiak» hitz gakoak agertu dira, baina «aire pozoitua», «crapouillots», «obusak» eta abar ere agertu dira. Gerlaz

mintzatzea armez mintzatzea ere badelako, interesgarria iruditu zaigu armen aipamenak ere zehaztea gure fitxetan, azterketarako baliagarri izan zitekeelako.

Gerlari buruzko beste informazio inportante bat gerlaren kontrako jarrerari buruzkoa da. «Gerlaren kontra» izena eman diogun multzo batean sartu ditugu desertoreei eta gerlaren kontrako beste jarrera batzuei buruzko aipamenak. Ez dugu fitxa anitz bete atal honekin: 35 bakarrik. Jarrera ezkorra edo «galtzailearen jarrera» hor sartu dugu, baina nagusiki desertoreen aipamenak dira gehien agertu direnak. Desertoreei edota garaipenaren baitan sinesten ez zutenei buruzko artikulua bilaketa batean aurkitzeko egin dugu lauki hori.

Beste multzo batean, gerlari buruzko gai orokorrak sartu ditugu. Atal honetan pixka bat denetarik ageri da. Baina bereziki agertzen diren hitz gakoak heriotzari buruzkoak dira. Batetik «heriotza» eta «hilak» hitz gakoekin, Aliatuek jasandako hilen eta inguruan ezagututako heriotzaren aipamenen erreferentziak egin ditugu. «Hiltzea» hitz gakoarekin, Aliatuek eragindako hilen erreferentzia egin dugu. Halaber, alemanei begirako jarreraren baitan, hor sartu dugu «aberekeria» hitz gakoa, artikulua horretaz zelarik. Beste gai batzuen artetik, hitz gakoetan agertu dira «zaurituak», «permisionek», «presoak», «gerlako gurutzeak», «umezurtzak» edota «motibazioa». Beste hitz franko ere sartu dugu, baina behin edo bi aldiz baizik ez direnak agertu. Nahiz eta horrek aski nahasia irudi dezakeen, gai orokorrei buruzko hitz gakoak ere sartu nahi izan ditugu, astekariak aipatzen zituen ahal ziren gai guztiak markatu nahi genituelako.

Beste gai mota batean ere jarri nahi izan dugu arreta, hala nola, jarrera politikoagoetan eta nortasunari lotutakoetan. «Nazio ikuspegia» izeneko multzo batean ere sartu ditugu hitz gakoak. Hor sartu ditugu Frantziari edota Euskal Herriari egiten zitzaizkion erreferentziak. Artikuluak, nagusiki, zer mezu zabaltzen zuen erakutsi nahi izan dugu. Adibidez, «Frantzia=gu» hitz gakoa jarri dugu Frantziar pluralerako lehen pertsona erabiliz mintzo zirela adierazteko. Beste hitz gako batean «nazionalismoa» jarri dugu, frantses nazioarenganako atxikimendua erakusten zuten artikulua markatzeko. «Euskal Herria» hitz gakoarekin, Euskal Herria aipatzen zuten artikulua markatu ditugu. «Euskal erreferentzia» hitz gakoa, aldiz, Euskal Herriko leku edo ohitura bati erreferentzia egiten ziotenean erabili dugu, hala nola gerla lekuko zerbait deskribatzerakoan Euskal Herriarekin edo Euskal Herriko zerbaitekin konparatzen zutenean. «Euskara», «euskal kultura» edota euskal kulturako zenbait ohitura zehatzago («musa», «dantza», «pilota» edo «kantua») ere nabarmendu ditugu, Euskal Herriaren aipamenetan. Beste hitz gako garrantzitsu bat ere atal horretan sartu dugu, hala nola «herrimina». Orotara 200 fitxatan bete dugu lauki hori. Gure azterketan funtsezko garrantzia

daukan hitz gako multzoa da, nortasunari buruzko aipuak zituzten artikulua zerrendatzen lagundu gaituelako.

Astekarian leku handia izan zuen beste gai bat erlijioari buruzkoa da. Horregatik, erlijioari lotutako hitz gakoak biltzea ere pentsatu dugu. Orotara 139 aldiz sartu dugu erlijioari buruzko hitz gako bat. Gehienetan «Jainkoa» hitza izan da, baina leku handia izan dute ere «meza», «eliza», «fedea», «otoitza» eta «giritinoak» hitz gakoek. Beste hitz gako bat ere sartu dugu sail horretan, hala nola «antiklerikalismoa».

Antiklerikalismoak erlijioa eta eztabaida politikoaren gaia hunkitzen zituen. Eta politikaz ere egin dugu atal bat, eta hainbat hitz gako bildu ditugu. 64 hitz gakoekin, ez da sail mamitsuena izan, eta ez eta ere gehien aztertu duguna, baina hala ere hainbat artikulua markatu nahi izan ditugu. Adibidez Elizaren eta Estatuaren arteko bereizte legea eta horren eztabaida islatzen zuten artikulua markatu ditugu. Halaber, «batasun sakratua» ere hitz gako gisa erabili dugu. Ekonomia aipatzen zuten artikuluen kasuan ere, «ekonomia» hitz gako atal horretan sartu dugu.

Gizarteari buruzko gaiak ere bildu ditugu, 76 aldiz, orotara. Hor sartu dugu «gizontasuna», gerlan anitz agertzen zen gaia. Gizartea sailean sartu dugu, gizartearen orduko mentalitatearekin lotu dugulako. Halaber «laborantza» ere sail horretan sartu dugu, edota «emazteak», «etxeak» eta abar.

Azkenik, artikuluen baikortasuna edo ezkortasuna neurtzen ahalegindu gara. Hainbat aldiz ez zen biderik errateko artikulua berria modu baikorren ala ezkorren ematen zuen. Baina beste hainbat aldiz, jarrera bat ageri zen idazlearen luman. Zerbait berri on gisa aurkezten zuen, edo bestela gauza txarrak ere aipatzen. Berri bat aipatzean, «baikoa» ala «ezkoa» agertzen ziren zehaztu dugu. Beste batzuetan «neutro» jarri dugu. Baina berri berez txar bat onera erlatibizatzen ahalegintzen zirelarik ere ikur bat jarri dugu. Hori egitea bereziki interesatu zaigu lubakietako eta gibel lerroetako bizipenei buruzko artikulua komentatzeko. Beste ataletako hitz gakoekin erkatuz posible dugu jakitea noiz mintzo zen modu negatiboan lubakiez, noiz modu positiboan, eta zenbat aldiz.

Ondoko taulak egiten du erregistro kategoria horien sintesia:

Erregistro kategoriak

Kategoriak	Fitxa kopurua	Hitz gakoak
Leku nagusia	303	Charleroi, Marne, Andereen Bidea, Craonne, Verdun, Somme, Péronne, Champagne, Alsazia, Argona, Salonika, Dardaneloak,
Herrialdeak	123	Alemania, Austria, Ingalaterra, Errusia, Belgika, Italia, Bulgaria, Errumania, Amerikako Estatu Batuak, Espainia, Grezia, Hungaria, Japonia, Suitza, Turkia.
Gudua	216	Bonbardaketak, oldartzea, ofentsiba, bataila aitzin, mugimendu

		mentura, garaipenak, gibelatzeak, aitzinamenduak, herri hartzeak, mugimendurik gabe, preso hartzeak, ukaldi handiak.
Garaia	115	1870, gerla mehatxua, gerla hastea, baikortasuna, 1914ko agorrila, gerla laburra, mugimendu gerla, (gerlaren) iraupena, luzatzea, etsipena, bakea, bake gogoa, bake eskaintzak, garaipena, bukaera.
Soldaduak, unitateak	207	142. erregimentua, 34. erregimentua, 49. erregimentua, 18. erregimentua, euskaldunak, euskaldun hilak, aitzindariak, Joffre.
Lubakia	196	Gosea, aroa, euria, hotza, lohia, arratoiak, gogortasuna, hilketak, sufrimendua, zorriak, kemena, andazainak, fronteko egunak, elkartasuna, laguntasuna, talde giroa, lubakietako baldintzak
Gibel frontea	104	Aisialdia, janaria, ogia, ostatuak, alkohola, arnoa, atsedena, lasaitasuna, besta, umorea, ihizia, lana, negua, oihana, bidea, pazko, urtats, meza, gutunak, paketeak.
Armak	182	Hegazkinak, pozoia, granadak, kanoiak, metrailadoreak, crapouillots, obusak.
Gai orokorrak	193	Soldadu alemanak, preso alemanak, presoak ihesi, presoak, jendea, hilak, heriotza, zaurituak, ezinduak, mutilazioak, desagertuak, hiltzea, hiltzeko plazera, espioiak, eritasuna, eriak, osagarria, ospitalea, gaua, jantziak, udaberria, pentsioak, salatariak, sariak, gurutzea, soldadutza, soldata, etsaiaren gizagabetzea, etsaigoa, herra, beldurra, heroismoa
Gerlaren kontra	35	Desertoreak, intsumisioa, muga, iheslariak, desertore alemanak, ezkorrek, bakezaletasuna.
Nazio ikuspegia	200	Frantses abertzaletasuna, Frantzia, nortasuna, frantsestea, hiritartzea, abertzaletasun eza, sakrifizioa, engaiamendua, euskaltasuna, herrimina, familia, etxea, pilota, dantza, musa, kantua, euskal erreferentzia, erregionalismoa, herri gutxituak.
Erlijioa	139	Antiklerikalismoa, apaizak, Frantziako eliza, apaizak «gerlaren sustatzaile», apaizak gerlan, kongregazioen hestea, Frantzia laikoa, Aita Santua, Jainkoa, erlijioa, apezpikuak, eliza, otoitza, Elizaren berpiztea, girstinoak, prentsa girstinoa, Eliza eta hiltzea, fedea, misiolariak, Jainkoa eta Frantzia, Jainkoaren zigorra, moralak
Politika	64	Batasun sakratua, errepublika, desadostasunak, masoiak, diplomazia, diputatuak, zatiketa, xuri-gorriak, estatua/eliza, gobernuak, legebiltzarra, koloniak, Maroko, Action Française, arrazakeria, eskuina, monarkia, anti-errepublika, ezkerria, gobernuaren kritika.
Gizartea	76	Alargunak, emazteak, afrikarrak, ez mobilizatuak, haurrak jostetan, laborariak, langileak, lana, lanaren kultura, nagusiak, gizontasuna, populazioa, alfabetizazioa, eskola, xenofobia, tradizioa.

Irudia 4. Erregistro kategoriak

g) Inferentziak

Eduki azterketan, eta bereziki azterketa kualitatiboan, inferentziak ere kontuan hartu behar direla aipatu dugu gorago. Gure kasuan ere, ez dugu burutik kendu irakurri eta aztertu dugun artikulua bakoitza kategoriara sailkatzeaz gain, bere testuinguruan kokatu behar zela, eta denbora guztian argi eduki behar genuela nork idatzi zuen, zein egoeretan zegoen hori idatzi zuenean, zein ziren idazteko baldintzak, zein zen astekariaren ideologia eta zein ziren balizko irakurleak. Datu horiek aztertzeko, baitezpadakoa zen hori kontuan hartzea. Inferentzia horien eragile guztiak tesi honen lehen zatian agertuko dira.

h) Azterketa

Fitxa horiek bete ondoan, datu-basea laguntza handia izan da bilaketak nahi modu eta nahi zen konbinaketekin egiteko. Horrela ikusi izan dugu idazle bakoitzak zenbat idatzi duen, zertaz eta zein jarrerarekin. Jakin ahal izan dugu ere gai bakoitza zenbat aldiz agertzen zen, eta beste zein gairekin loturik eta abar. Hitz gakoak gisa batera edo bestera sailkatu ditugu, beste hitz gako batzuekin konbinatuz edo ez. Horrela lortu dugu *Eskualduna*-k gerlaz hitz egin zuen moduaren argazki orokorra egitea, eta baita argazki zehatzagoak ere.

Lehenik ikusi dugu gai bakoitza zenbat aldiz agertzen zen, eta horrekin osatu dugu lan honen planoan. Presentzia handiena zuten gaiak barnatu ditugu, baina baita ere garrantzia zuten gaiak. «Garaiak» eta «herrialdeak» multzoak, adibidez, lagungarri izan zaizkigu gerlaren arrazoiei, gerlaren fase desberdinei eta bakearen inguruko eztabaidari buruzko atalak lantzeko eta idazteko. Adibidez, bake eskaintzari buruzko artikulua bilatzeko, datu-basean «bake eskaintza» hitz gakoaren arabera bilaketa egin, eta gai hori hunkitzen zuten artikulua guztien zerrenda atera zaigu. Hortik, guk azpimarratutako pasarte interesgarrienak berriz irakurri ahal izan ditugu, hurbilagotik. Pasarterik azpimarratu ez dugunean edo zerbait gehiago jakin nahi genuenean ere, eskura geneukan jatorrizko bertsioa, data eta artikulua izena genituenaz geroz. Hurbileko irakurketa fase hori atal guztiekin egin dugu horrela. Armen deskribapenaren atalean, kanoiak, hegazkinak, metrailetak eta aire pozoitua sartu ditugu, besteak beste. Horiek sartu ditugu, horiek zirelako maiz aipatzen zituzten armak. Arma horiei buruz *Eskualduna*-k zer idatzi zuen jakiteko, datu-basean egin dugu bilaketa.

Irakurketa zehatz horietatik landa, gaikako sintesiak egin ditugu. Adibidez, lubakien sailean, sintesi franko egin dugu, agertzen ziren barne gaien arabera antolatuz. Horrela, adibide baten emateko, janariari buruzko sintesi bat egin dugu, janariaz ematen zuten mezu nagusia aipatuz, eta mezu espezifikokoagoak zehaztuz, baldin baziren. Halaber, adibideak nondik hartu ditugun ere jarri dugu. Beste sintesi batzuk egin ditugu maiztasun gutxiagorekin agertu ziren gaiekin ere, baina agertu artikulua bakarrak aski mamitsuak baldin baziren. Lubakien egiturari buruz, adibidez, ez zuten artikulua anitz idatzi. Jean Etxepareren bakar batzuk izan ziren, baina nahiko interesgarriak eta inportanteak iruditu zaizkigu, denbora eta lekua eskaintzeko. Irakurleei lubakien nolako deskribapena egin zieten kontatzea beharrezkoa iruditu zaigu.

Lubakiena, armena edo gerlako faseena, adibide batzuk baizik ez dira. Datu-basean agertu zaizkigun gai guztiekin egin dugu antzeko lana. Sintesi horiek guztiak gaiez gai egin ditugu. Guztien artean geneukan *Eskualduna*-k gerla aipatu zuen moduaren erradiografia.

Gero, sintesi horiek guztiak ahal bezain modu logikoan egituratu behar izan ditugu. Elkarrekin lotuak ziren azpi-gaiak elkarrekin bildu ditugu, gai orokorrago baten baitan. Gai orokorrago horiek ere gai are orokorrago batean bildu ditugu. Eta horrela zuhaitz gisako bat osatu arte. Modu horretan, pixkanaka, tesia erredaktatzeko planoan marraztu dugu.

Idazten hasi baino lehen, bibliografiatik irakurritakoekin uztartu ditugu *Eskualduna*-n aurkitutako gai horiek guztiak. Irakurritako liburuei ere gisa bereko fitxak egin dizkiegu, gisa bereko datu-base batean. Hots, *Eskualduna*-ko artikuluekin egin dugun bezala, astekarian agertzen ziren gaiekin erabilitako hitz gako beren arabera sailkatu ditugu irakurritako liburuetakoko pasarteak. Sailkapena horrela egin nahi izan dugu, *Eskualduna*-ko gai bat aztertzerakoan, gai horretaz zer idatzia izan zen ikusteko. *Eskualduna*-k gai horiei buruz erakusten zuen jarrera orokorragoa zen ala berezia zen jakin ahal izateko, gai horietaz zer ikertu den eta zer ondorio atera den begiratu behar genuen. Adibidez, *Eskualduna*-k fedearen iratzartzea aipatzen zuenean, egiazki zer gertatu zen edo iratzartzea besteen arabera nola agertu zen jakin nahi izan dugu. Bilaketa erraza izan da, datu-basean gai beren arabera sailkatu ditugulako irakurketak. Beraz *Eskualduna*-ren artikuluetan «fedearen iratzartzea» aztertu dugunean, bibliografiari buruzko datu-basean hitz gako bera jarri eta gai horri buruz idatzia izan denaz irakurri duguna agertu zaigu.

Hori guztia egin ondoan, bigarren eta hirugarren zatia erredaktatzeko lanari ekin diogu. Gai bakoitzaz idatzi zutena aurkeztu dugu, eta gaia aipatu zuten alde desberdinak jorratu ditugu, nagusitzen zen jarrera zein zen zehaztuz. Beharrezkoa zen ñabardurak agertzea, bazirelarik. Horiek hola, ematen zuten mezu nagusiarekin gelditu gara, ondorioak ateratzerakoan. Beti ahalegindu gara aipua sartzera. Ez ditugu aipatu ditugun artikulua guztien pasarteak sartu, ez gehiegi luzatzeko. Adierazgarrienak hautatu ditugu. Horiek eta gainerakoak azaldu eta komentatu ditugu, ondotik. Gai bakoitza azaldu ondoan, multzo nagusiei buruzko ondorioak eman ditugu, erregulariki.

LEHEN ZATIA:
SORRERATIK
GERLA
HANDIRA

Ehun bat urte gibelera eginen dugu jauzi lan honetan. Garai bat, gertakari bat eta protagonista batzuk dira gure ikerlanaren hari nagusiak. Garaia: XX. mende hasiera. Gertakaria: Lehen Mundu Gerra. Protagonistak: *Eskualduna* astekaria eta astekari horretako idazleak. Horiek guztiak harilkatuko ditugu tesi honetan zehar, *Eskualduna* astekariak Lehen Mundu Gerra nola landu zuen aztertzean. Eduki azterketa bera eta horren emaitzak hurrengo bi zatietan azalduko baditugu ere, lehenik beharrezkoa zen testuinguruaren azalpen bat eta gaiaren halako kokapen bat egitea, aztertu dugun astekaria bera aurkezteko eta baita gerla gogora ekartzeko ere. Hori da lehen zati honetan eginen duguna. Ez da testuinguruaren kokapen soil, ez da jadanik idatzitako liburu eta erreferentzien bilduma huts bat, zati hau osatzeko ere ikerketa egin behar izan dugulako, besteak beste artxiboetan begiratu.

Lehenik *Eskualduna* aurkeztea erabaki dugu, hori delako gure protagonista nagusia, hori delako aztertu duguna eta horren ildo editoriala delako gehien interesatu zaiguna. Astekaria

aztertu aitzin, baitezpadakoa zen ongi ezagutzea. Horretarako, astekariaz idatzi izan dena bildu eta aztertu izan ez dena aztertu dugu, ahal bezain argazki zehatza egiteko asmoz. Astekaria bere testuinguruan kokatu nahi izan dugu, eta zeukan garrantzia ere azaldu.

Hortik landa aipatuko dugu gerla bera. 1914tik 1918ra Europara lehenik eta mundu osora gero zabaldu zen gerla zer izan zen eta nola iragan zen gogoraraztea garrantzitsua da. Hala ere, atal hori ahal bezainbat ekarri nahi izan dugu Euskal Herriko ikuspegira, Euskal Herriko hedabide baten begietatik aztertu baitugu. Euskal Herriko ikuspegira ekartzeak erran nahi du ezagutzea gerlaren iturburuek ere Euskal Herrian zer isla zuten eta euskal gizartea nola kokatzen zen Frantzian, edota kontatzea gerlak Euskal Herrian zer ondorio izan zuen. Beraz, gerlaren kronologia (1870ko gerlatik hasiz) kontatuko dugu, denbora guztian horrek Euskal Herrian zer eragin izan zuen aipatuz.

Zati horretan gerla gainerik aipatu badugu ere, lan honetan zehar ez da besterik izanen aipagai, beraz ondoko zatietan gerlaz beste gisako xehetasunak agertuko dira. Lehen zati honen hirugarren atalean ere gerlaren bestelako ondorio batzuk sakonduko ditugu. Hots, gerlak prentsan oro har eta *Eskualduna* astekarian bereziki izan zuen eragina zein izan zen aipatuko dugu.

Ororen buru, zati honek galdera bati erantzun nahi dio, hala nola «Zergatik?» galderari. Zergatik inplikatu zen – inplikatu bazen – *Eskualduna* astekaria gerla hartan? Lehen atalak astekariaren nortasuna emanen digu, eta nortasuna bera faktore inportantea da inplikazioaren zergatia ulertzeko. Bigarren zatiak testuinguru soziopolitiko emanen digu, eta hori ere berebizikoa da euskal gizartearen orduko egoeraren arabera ulertzeko zergatik hartu zuen astekari horrek hartu zuen jarrera. Azkenik, arrazoi material eta legalak ere esplikatuko behar ditugu, zergati horren ulertzeko.

I. ‘ESKUALDUNA’, ALDAKETEN GARAIAN SORTUA

Hogeigarren mendea bortizki hasi zen, 1914an lehertu zen gerlak markatu baitzuen mende berriaren hasiera, nahiz eta Frantzia eta Ipar Euskal Herrian beste aldaketa sakon batzuk ere gertatuak ziren zenbait urte lehenago. Hain zuzen, 1905ean Frantziako Estatuaren eta Elizaren bereizteko legea onartu izana eta Frantzia herri laiko bihurtu izana, ez ote zen mende eta aro berria azpimarratu zituen gertakari handia? Lan honek 1914tik 1918rako gerla baldin badu ere denbora ardatza, funtsean, gerlari berari baino arreta gehiago jarriko zaio gerla hartaz idatzi zuen *Eskualduna* astekariari. Eta astekaria ez zen 1914an sortu, ez eta ere 1905ean. Gerla hasi zenerako, 27 urte bazuen astero-astero argitaratzen zela, hots, XIX. mende bukaerako astekaria zen.

Horregatik, ez gaitezke egon astekari horri buruzko xehetasun orokorrak aipatu gabe. Lehen Mundu Gerraren denboran izan zuen jarrera aztertzeke eta ulertzeke, lehenik astekaria bera hobeki ezagutu behar da. Zergatik eta zer testuingurutan – bereziki, zein testuinguru politikotan – sortu zen azaldu behar da deus baino lehen, eta horri loturik, zein izan zen garatu zuen ildo politikoa. 1887tik 1914erako bilakaera ere aipatzea komeni da, hogeita zazpi urteko epe horretan – eta Frantziako testuinguru politiko nahasiaren erdian – gauza anitz aldatu baitzen eta belaunaldi berri bat hasi baitzen *Eskualduna*-n idazten.

Euskal astekari horren sorrera bere garaiko prentsaren munduan kokatu behar da, lehen-lehenik. XIX. mende bukaeran aldaketa handiak izan ziren prentsa arloan eta gizartean, eta aldaketa horiek Euskal Herrian nola islatu ziren aipatu behar da, *Eskualduna* astekariaren sorrera hobeki ulertzeke. Bestetik, orduko giro politikoak berebiziko eragina izan zuen

astekari eta agerkarien sorreran, eta nola ez, *Eskualduna* astekariaren baitan. Azkenik, baitezpadakoa da ongi azaltzea zein izan zen astekari horren hedapena Ipar Euskal Herrian, horrek ere justifikatzen baitu, nolazpait, lan honetarako euskarri hori hautatu izana.

A. Aldaketak, prentsaren munduan

Lehen Mundu Gerra hasi zenean, kazetaritza eredu berri bat indarrean jarria zen. Aitzineko hamarkadetan sekulako berrikuntzak izan ziren prentsaren munduan, eta aldaketa haien testuinguruan kokatzen zen *Eskualduna* astekaria ere. Besterik da ea astekari hori zenbateraino sartu zen aldaketa haien ildoan eta zenbateraino jarraitu zuen beste eredu bat. Garrantzitsua da testuinguru hori kokatzea, batetik, garai hartan egiten zen kazetaritza eredia eta *Eskualduna*-ren berezitasuna ulertzeko eta, bestetik, gerla lehertu ondoan prentsan zein behin-behineko aldaketa handi gertatu zen aztertzeko.

XXI. mende hastapen hau aldaketa ikaragarrien garaia da hedabideen munduan, baina aldaketak lehenago ere izan ziren, beste gisakoak baldin baziren ere. Kazetaritzak garapen handia bizi izan zuen XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran. Kazetaritza profesionalago eta hedatuago bat sortzen hasi zen, agertu ziren hainbat baldintza berrik lagundurik. Garai hartako berrikuntzek, kazetaritzaren garapenerako bideak ireki zituzten. Euskal Herrian ere aldizkari berriak sortu ziren, eta dudarik gabe, *Eskualduna* astekariaren sorrera eta hedapena aukera berri horien erdian kokatu zen. Industria iraultzaren garaian izan ziren hainbeste asmakuntzen artean, kazetaritzan ere gauza anitz aldatu ziren, teknikak lagundurik eta testuinguruak bultzaturik. Horrez gain, kazetaritza eredu berri bat sortu zen: Amerikako Estatu Batuetatik zetorren eredu bat Europara hedatu zen, nahiz eta frantsesek erresistentzia egin, eredu zaharrari eutsi beharrez. *Eskualduna* astekariak eredu zaharrei eutsi zien, bai idazkera eta aurkezpen aldetik, eta baita ere politika eta polemika aldetik. Alabaina, Frantziako kazetaritzak politikari garrantzia ematen zion, eta Ipar Euskal Herrian ere halatsu izan zen.

I. Aukera berriak, bide berriak

Kazetaritzak historia luzea zeukan bere gibelean, XIX. mendera heldu zenerako. Mende bukaeran garai berriak hasi ziren, oro har, munduan sekulako aldaketak gertatu baitziren eta hari beretik, aldaketa horiek kazetaritzari ere mesede egin baitzioten, eta nolaz ez *Eskualduna*

astekariari, garai hartan sortu baitzen. Lehenik, lege aldetik, kazetaritzak eskuak askeago zituen artikuluak argitaratzeko orduan edo egunkariak sortzerako orduan. Bigarrenik, irakurle gehiagorengana heltzeko aukera zeukaten, jende gehiena alfabetatzen ari baitzen, eskola behartuak eraginik. Hirugarrenik, garapen teknologikoek egunkariak eta informazioak garraiatzeko bide berriak eskaini zituzten, eta horrekin guztiarekin kazetaritzaren aro berri bat hasi zen. Horren ondorioak Euskal Herrian ere sentitu ziren, euskarazko egunkari eta aldizkariak ere agertzen hasi baitziren.

a) Lege berria

Munduan zehar, prentsaren historia luzea da, baina XIX. mendea eraldaketen mendea izan zen kazetaritzarentzat. Frantzian ere bihurtuak gertatu ziren, lege aldetik. Legeen bilakaeraren xehetasunetan sartu gabe, ezin da aipatu gabe utzi oraindik indarrean dagoen oinarrizko lege bat: 1881eko uztailaren 29ko legea, hala nola prentsa askatasunaren legea⁹⁹. Legeak puntu anitz ditu (geroztik zenbait aldaketa txiki egin izan dizkiote), bereziki kazetari baten edo agerkari baten lege urratzeak zehazten ditu, baina oroz gainera, prentsaren askatasuna bermatzeaz ezaguna den legea izan zen. Lege horren bosgarren artikulua da, garrantzitsuena eta oinarrizkoena:

«Article 5 : Tout journal ou écrit périodique peut être publié sans autorisation préalable et sans dépôt de cautionnement, après la déclaration prescrite par l'article 7.»

Hots, kazetaritza praktikatzeko askatasuna eta prentsa eskubidea bermatzen zituen legea zen. Gainerako artikuluak difamazioari buruz, erantzuteko eskubideari buruz edota agerkaria deklaratzeko moduei buruzkoak ziren. Hain zuzen, agerkaria sortzeko baimen berezirik ez baldin bazen behar ere, haren izenaren berri deklaratu behar zitzaion Errepublikako Prokuradoreari, eta kudeatzaile edo gerentearen izena eta helbidea eman behar ziren, bai eta inprimategiaren izena ere. Halaber, ale batzuk utzi behar zitzaizkien agintearen ordezkari, prokuradoreari berari edo auzapezari.

Frantzia ez zen halako lege bat onartu zuen lehen estatua izan. Amerikako Estatu Batuak eta Alemania aitzindu zitzaizkion, baina Frantziako legea zen denen artean liberalena, Jean-Noël Jeanneneyren arabera¹⁰⁰. Lege hura testuinguru orokorrago baten baitan sartu behar zen. Frantziako Errepublikak beste hainbat lege handi onartu zituen garai haietan, horien artean, elkartzeko askatasunari buruzko legea, justu hilabete bat lehenago onartua, eta baita ere lehen mailako eskola doan eskaintzea bermatu zuen Jules Ferry legea, hura ere

⁹⁹ «Loi du 29 juillet 1881 sur la liberté de la presse», *Journal Officiel*, 1881ko uztailaren 30a.

¹⁰⁰ Jean-Noël Jeanneney, *Une histoire des médias, des origines à nos jours* (Paris: Seuil, 1996), 100.

1881eko ekainekoa. 1882ko martxoan, aldiz, irakaskuntza derrigorrezko eta laiko bihurtu zuen legeak egin zuen aurrera. 1884ko martxoan, sindikatuak onartu zituen legearen alde bozkatu zuten diputatuek¹⁰¹.

Lege horrek eragin handia izan zuen, eta Jules Ferry legearen eta Errepublika egituratzeko eta indartzeko legeen kontra sutsuki aritu zen *Eskealduna* astekaria ere lege hari esker sortu zen, eta lege hari esker izan eta erabili zuen adierazpen askatasuna. Hain zuzen, legea 1881ekoa baldin bazen, sei urte gabe agertu zen euskarazko astekariaren lehenbiziko zenbakia, hala nola 1887ko martxoaren 15ean.

b) Gizarte alfabetatua

Prentsaren askatasuna bermatzen zuen legearekin batean, prentsaren arrakasta segurtatzeko beste elementu ezinbesteko bat ere agertu zen: gero eta herritar gehiago alfabetatua zen, eta beraz, gero eta gehiago ziren irakurtzen zekitenak. Analfabetoen kopuruak azkarki egin zuen behera Frantzian, XIX. mendearen bigarren erdialdean. Populazio kontaketen arabera, 1832an Frantziako biztanleen erdia baino gehiago (%53) analfabetoa zen. 1880rako hein hori %17ra apaldua zen, eta 1914an %4 baizik ez ziren irakurtzen eta idazten ez zekitenak, Frantzia osoan¹⁰².

1880an aztertutako estatistika batzuei esker, XIX. mendean Behe Pirinioetako departamenduan alfabetatzea zein egoeratan zen badakigu¹⁰³. Mende hasieran, Behe Pirinioetako alfabetatze tasa Frantziakoa baino pixka bat handiagoa zen: Frantziako biztanleen %55,2k ez zekien idazten eta irakurtzen 1829an, eta Behe Pirinioetan, aldiz, %48,5 baizik ez ziren alfabetatu gabeak. Urteak joan ahala, ordea, Frantziako alfabetatze tasa Behe Pirinioetakoa baino lasterrago hazi zen, eta 1877an, Behe Pirinioetakoa baino handiagoa zen. Orduan, Frantziako alfabetatu gabeak %15,6 ziren, eta Behe Pirinioetakoak %16,8. Datuak hurbilgotik begiraturaz, ordea, ageri da barnealdeko alfabetatzea anitzez murriztagoa zela. 1879an, Ipar Euskal Herriko kantonamendu gehienetan, gutxienez bost biztanletatik bat alfabetatu gabea zen. Baionako eta Hazparneko kantonamenduak ziren bataz bestetik beherako analfabeto tasa zutenak (%13,52 Baiona Ipar Ekialdean, %8,29 Baiona Ipar Mendebaldean eta %12,94 Hazparneko kantonamenduan). Iholdin eta Garazin, ordea, %40,69ko eta %43,13ko alfabetatu gabeen tasa zegoen, eta Baigorri ia erdia zen irakurtzen

¹⁰¹ Gilles Feyel, *La presse en France des origines à 1944. Histoire politique et matérielle* (Paris: Ellipses, 1999), 82–83.

¹⁰² Ibid., 71.

¹⁰³ L. Soulice, «Notes pour servir à l'histoire de l'instruction primaire dans les Basses-Pyrénées. 1385-1880», *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau* (1880): 49.

ez zekiena, %47,50 alegia. Gerora, ordea, eskolara joatea behartua izan zenean, biztanleen alfabetatzea anitzez gehiago bizkortu zela dio L. Soulicek¹⁰⁴, eta beraz pentsa daiteke XX. mende hasierarako biztanle gehienek (gazteek bereziki) irakurtzen bazekitela.

Konparaketa baten egiteko, 1913an, Espainian, oraino biztanleen erdia baino gehiago analfabetoa zen (%59,35). 1917ko emaitza zehatzago eta hobeki neurtu batzuen arabera, analfabeto kopurua apalagoa izanik ere, Frantziarekin konparatuz anitzez handiagoa zen, %28,06koa baitzen¹⁰⁵. Araberan, analfabetismoa Espainian baino apalagoa zen Hego Euskal Herrian, baina Frantzian baino handiagoa. Paul Aubert-en tesian oinarrituz¹⁰⁶, 1910ean Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia hartzen dituen eremuan % 25 eta 40 bitartean ziren irakurtzen ez zekitenak. Nafarroan %41 eta 50 artean ziren. Kopuru hori anitzez gehiago apaldu zen 1917an. Bizkaia eta Araba ziren alfabetatuena (% 90-98), Nafarroa eta Gipuzkoarekin konparatuz (%80-89).

Hego Euskal Herrian eta Espainian beranta gehiagorekin baldin bazen ere, argi gelditzen da XIX. mende bukaeratik XX. mende hasiera bitartean, oro har, gauza anitz aldatu zela, eta biztanleen zati handi batek irakurtzen ez zekien garaia gibelean gelditu eta ia denek irakurtzen bazekitela gerla lehertu zenerako. Eskolaren eragina funtsezkoa izan zen. Frantzian, Bigarren Inperioaren erdialdetik landa haur andana bat joan zen eskolara, eta urteak joan ahala eskolatzea orokortu zen. Hori barnealdeko herrietan ere nabaritu zen. Laborantza munduko jendeak irakurtzen ikasi zuen, eta horrekin batera prentsa, eta bereziki astekariak, irakurtzen hasi ziren. Gizon guztiek bozkatzeko eskubidea zuten puntutik, egunkariak irakurtzeko interes gero eta handiagoa nabaritu zen. Eta Annie Moulinen arabera, laborariak bereziki astekariak, beren eskualdeko astekariak, erosten hasi ziren¹⁰⁷.

Geroago aipatuko dugu *Eskualduna* astekariaren kasua zehazkiago, baina baieztapen horrek jadanik pista batzuk ematen dizkigu: itxura guztien arabera Euskal Herri barnealdeko laborariak ere beren eskualde astekari bat erosten zuten. *Eskualduna* ez zen bakarra, baina inportanteenetarikoak bai. Beraz, alfabetatzearen ondorioak astekari horrentzat ere izan ziren.

¹⁰⁴ Ibid., 60–61.

¹⁰⁵ Paul Aubert, «La presse espagnole et son public (1914-1918)» (doktorego-tesia, zuz. Louis Urrutia et Manuel Tuñón de Lara, Université de Pau et des Pays de l'Adour, 1983), 18.

¹⁰⁶ Ibid., 214.

¹⁰⁷ Annie Moulin, *Les paysans dans la société française. De la Révolution à nos jours* (Paris: Seuil, 1988), 150.

c) Baliabide tekniko berriak

Legeak eta herritarren alfabetatzeak berak ez ziren nahikoak izan kazetaritzaren iraultza gertatzeko. Nahiz eta legeak ematen zituen askatasunak eta irakurleak izan, horrekin bakarrik ez zen kazetaritzaren izaera aldatu. Irakurle berriengana heltzeko bide berriak ere beharrezkoak ziren. Bide horiek gabe, nekez zabal zitekeen prentsa hainbeste. Industria Iraultzaren eragina kazetaritzara ere zabaldu zen, inprimatzeko teknika berriak eta idazteko makinak agertu baitziren XIX. mendearen bigarren erdian, irakurle alfabetatuekin eta jendearen hiritartzearekin batera¹⁰⁸.

Industria Iraultza Ingalaterran hasi zen 1760-1770 urteetan¹⁰⁹, bereziki ehungintzako makinetan eta lurren bidezko makinetan oinarriturik. Makina berri horiei esker, produkzioa bikoiztu ahal izan zen eta aldaketa ekonomiko eta sozial ikaragarriak eragin zituen. XIX. mendean, aldaketa horiek beste herrialdeetara zabaltzen hasi ziren. Patrick Verley-k aipatzen duenaren arabera¹¹⁰, Douglas North-ek¹¹¹ beste irakurketa bat egin zuen, hala nola funtsean bi iraultza ekonomiko izan zirela, bata laborantzak historiaurreko aroaren bukaera markatu zuenean, eta bestea 1880-1990ean, zientzia eta teknologia elkartu zirenean. Verley-ren arabera, bigarren aldaketa hori aitzineko industria iraultzen bilakaeraren ildotik zetorren. Gehiago aipatzen da, 1870etik landa bigarren iraultza bat izan zela, argindarrak eta leherketa bidezko motorrak markaturik. François Caronek zehazten du XIX. mendearen bigarren erdian industria iraultzaren eragina Europa mendebaldeko gainerako herrialdeetara eta Amerikako Estatu Batuetara zabaldu zela, eta teknologiak hobetu zirela, besteak beste materialen eta produktuen kalitatearen hobetzeari esker. Adibidez, 1860tik landa paper industria garatu zela dio¹¹².

Industria Iraultzaren eragina bereziki bi arlo nagusitan nabaritu zuen prentsak: inprimerian eta burdinbide sarean. Errotatibaren sistema 1845 eta 1866 bitartean agertu zen; hastapenean orri bakarra ateratzen zuten, eta urteak aitzina joan ahala teknikak ere hobetu ziren eta orri bikoitzak ateratzen hasi ziren. Hypolite Auguste Marioni kontsideratzen da

¹⁰⁸ Agnès Chauveau eta Philippe Tétart, *Introduction à l'histoire des médias en France de 1881 à nos jours* (Paris: Armand Colin, 1999), 8.

¹⁰⁹ Jean-Pierre Rioux, *La révolution industrielle: 1780-1880*, [lehen edizioa: 1971]. (Paris: Seuil, 1989); Jean-Charles Asselain, *Histoire économique: de la révolution industrielle à la première guerre mondiale*, [lehen edizioa: 1985]. (Paris: Presses de la Fondation nationale des sciences politiques; Dalloz, 1991).

¹¹⁰ Patrick Verley, *La révolution industrielle*, [lehen edizioa: 1985]. (Paris: Gallimard, 1997), 445.

¹¹¹ Douglass Cecil North, *Structure and change in economic history* (New York, Londres: W. W. Norton, 1981).

¹¹² François Caron, *Les deux révolutions industrielles du XXe siècle* (Paris: Albin Michel, 1997), 22.

prentsa modernoaren sortzaile gisa, inprimatzeko makina berri horiek asmatu zituelako¹¹³. Errotatibarekin batera, papera ere eskuragarriago bihurtu zen. Tintaren eta paperaren ekoizpena ofizialeen lana izatetik industria bihurtzera pasa zen¹¹⁴. 1895ean helio-grabazioa agertu zen errotatibetan, eta 1912an offset teknika, inprimatzea hobetuz eta erraztuz. Hori tirada handiko egunkarietan erabiltzen zen. Halaber, 1880tik aitzina, argazkiak erreproduzitzeko teknikak pikoan jarri zituzten, eta egunkariak ilustrazioak ere eskaini zituzten, horrek are erakargarriago egiten zituela¹¹⁵.

Gainerako aldizkari eta liburu ia guztiak inprimatze tipografikoaren bidez ateratzen zituzten. Johannes Gutenberg izan zen inprenta tipografikoa asmatu zuena, XV. mendean. Teknika hark bere mugak zituen, ordea, ehunka ale baino gehiago inprimatzeko, eta XVIII. mendetik aitzina trabak sortzen zituen, beraz kopiak edo bikoizketak egiten hasi ziren. Ildo horretan, urte batzuk lehenago agertu estereotipia teknika anitz zabaldu zen 1850ean. Orriak erreproduzitzeko teknika hobea zen, eta oraino gehiago hobetuz joan zen. Horri esker, 1900eko argitalpen gehienak inprimatze tipografikoen bidez ateratzen ziren¹¹⁶. Inprimatzeko eta papera ekoizteko teknikak urtetik urtera hobetzearen ondorioz, egunkariak gero eta ale kopuru handiagoak inprimatzen zituzten. Ale bakoitzaren orri kopuruak ere handituz joan ziren.

Aldaketarako beste faktore nagusia burdinbide sarearen garapen ikusgarria zen. Bi ondorio nagusi izan zituen: irakurleengana aiseago zabaltzea, eta informazioa erredakzioetara lasterrago heltzea¹¹⁷. Parisen argitaratzen ziren egunkariak aiseago zabaldu ahal izan ziren, baina horrek ez du bereziki erran nahi Parisko egunkariak barnealdean anitz saltzen zirenik, geroago ikusiko dugun bezala. Ondoko lerroetan bereziki azpimarratuko duguna da informazioa bera aiseago ibiltzen zela, eta aisea heltzen zela erredakzioetara. Baina merkatu berriaren sortzeak egunkarien egituraketan ere aldaketak eragin zituen, hala nola administrazio zerbitzua garatu zen, eta horrekin batera publizitatearen bilatzeko lana eta

¹¹³ Éric Le Ray, «Un des fondateurs de la presse moderne, Hippolyte Auguste Marioni (1823-1904): entrepreneur, innovateur, constructeur de machines à imprimer, patron de presse et homme d'influence» (doktorego-tesia, zuz. Frédéric Barbier eta Jean-Michel Leniaud, École pratique des hautes études (Paris), 2004).

¹¹⁴ Claude Bellenger et al., *Histoire générale de la presse française. Tome 3. De 1871 à 1940* (Paris: Presses universitaires de France, 1972), 63.

¹¹⁵ Pierre Albert, *Histoire de la presse*, [lehen edizioa: 1970]. (Paris: Presses universitaires de France, 2010).

¹¹⁶ Inprimatze teknikari eta hauen historiari buruzko azalpen eta xehetasun gehiago: Gérard Martin, *L'imprimerie d'aujourd'hui* (Paris: Edition du Cercle de la Librairie, 1992).

¹¹⁷ Feyel, *La presse en France des origines à 1944. Histoire politique et matérielle*, 69.

egunkarietan publizitatearen presentzia¹¹⁸. *Eskualduna* astekariak berak ere bazuen publizitatearentzako txoko bat.

Gisa horretako aldaketak Ipar Ameriketako hiri handietan eragin handikoak izan ziren, informazio kazetaritza mota berri bat agertu zelako. Kazetaritza eredu hura izanen zen nagusi, 1920tik aitzina¹¹⁹. Informazioa oinarri zuen kazetaritza anitz garatu ahal izan zen burdinbidearen eta telegrafoaren bitartez. Eta honekin, informazioa biltzen eta zabaltzen zuten prentsak sortu ziren, hala nola prentsa agentziak, informazioa egunkariei saltzen zietenak. Honekin, Daniel Cornuk azpimarratu duen bezala, prentsak iritzia gero eta gehiago baztertu eta informazio soila garatu zuen:

«L'information est plus rapide, elle couvre un champ d'observation plus étendu, elle est plus abondante. Elle tend à supplanter l'expression des opinions, jusqu' alors privilégiées. La presse n'exprime plus, ou moins. Elle relaie. Le journal était une voix (Benjamin Constant). Il devient un écho»¹²⁰.

XIX. mende bukaeran baldintza guztiak bilduak ziren kazetaritzan aldaketa handiak gertatzeko. Legeak ematen zuen askatasunak, informazio gose zen eta irakurtzen ikasi berri zuen herritarrak eta baliabide tekniko berriek aro berri batean sartu zuten prentsaren mundua, eta 1914ko gerla lehertu zenerako, prentsa zinez berritua zen.

d) Euskarazko aldizkarien sorrera

Aukera berri horiek guztiek Euskal Herrian ere izan zituzten ondorioak. XIX. mendean, euskara gisa anitzez ahalegindu zen prentsaren munduan sartzen. Ez zuen lehen kolpetik erdietsi leku iraunkor baten egitea, baina gu ikertzen ari garen *Eskualduna* astekariak izan zituen aurrekariak. Are gehiago, Frantziako prentsaren askatasunaren legea baino urte franko lehenago ere ahalegin batzuk egin ziren. Eta lehenbiziko liburua (Bernat Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*, 1545) Ipar Euskal Herrian idatzia izan zen gisan, prentsaren aro berriko lehenbiziko agerkariak ere Ipar Euskal Herrian sortu ziren.

Lehen ahalegina Agosti Xaho¹²¹ zuberotar idazle, kazetari eta politikari errepublikazaleari zor zaio. 1848an sortu zuen *Uscal Herriko Gasetak* astekaria¹²², edo astekari

¹¹⁸ René Livois (de), *Histoire de la presse française. 2, de 1881 à nos jours* (Lausanne: Spes, 1965), 191.

¹¹⁹ Colette Brin, Jean Charron eta Jean de Bonville, *Nature et transformation du journalisme: théorie et recherches empiriques* (Sainte-Foy: Presses Universitaires de Laval, 2004), 3.

¹²⁰ Daniel Cornu, *Journalisme et vérité: L'éthique de l'information au défi du changement médiatique* (Genève: Labor et Fides, 2009), 181.

¹²¹ Agosti Xaho Atharratzen sortu zen 1811n, eta Baionan hil 1858an. Haren biziaz, obraz eta ideologiaz xehetasun gehiago: Luis Michelena, *Historia de la literatura vasca* (Madrid: Minotauro, 1960); Pantxix Bidart, «Agustin Chaho eta bere aroko ideiak» (tesina-memoria, zuz. Txomin Peillen, Université de Pau et des Pays de

izan nahi zuena. Bi zenbaki baizik ez zituen atera, urte hartako ekainaren 30ean eta uztailaren 25ean. Astekari politikoa zen, errepublikazaleen aldekoa. Xahok beste ahalegin bat egin zuen geroago, *Le Républicain de Vasconie* astekariarekin, 1852ko otsailean. Astekari haren zenbaki bakarra agertu zen. Hori ere errepublikarren aldekoa zen. Gero ikusiko dugun bezala, Ipar Euskal Herrian euskaraz urteetan eta urteetan argitaratu zen *Eskualduna* astekariaren ildo ez zen batere hori, hainbestera non bazirudien euskara erregezaleen eta elizaren hizkuntza zela, eta errepublikazaleena frantsesa zela, edota errepublikazaleak zirela euskararen aurkariak. Xahoren ahalegin horrek erakusten du errepublikazaleak izan zirela euskarazko prentsaren aitzindariak.

Ondoko entseguak denbora gehiago iraun zuen. *Euskal Erria* bi astetik behin agertzen zen aldizkaria sortu zuen José Manterola (1849-1884) idazle eta argitaratzaile donostiarra¹²³ 1880an, Donostian, eta 1918 arte argitaratu zen. Aldizkari literarioa zen, eta euskarak %40eko presentzia zeukan, Javier Diaz Nociren arabera¹²⁴. Aldizkari hartan garai hartako euskal idazle ezagunenek parte hartu zuten, hala nola Jean-Baptiste Elizanburuk, Gratien Adéma *Zaldubi*-k, Arturo Campionek, Antton Abadiak eta abarrek.

Abadiarekin harremana bazuen, eta Abadiak Ipar Euskal Herrian antolatu zituen Lore Jokoen gisakoak antolatu zituen Donostian, hala nola «Euskarazko Itz-Jostaldien Batzarra». Antton Abadiak¹²⁵, euskal literatura eta poesia bultzatzeko asmoz, Euskal Lore Jokoa antolatu zituen 1853an Urruñan, eta geroztik hainbat urtez segidan antolatu zituzten. Abadia (1810-1897) irlandarra zen sortzez, baina aita zuberotarra zuen. Zientzialari izan zen, baina baita euskal kulturaren sustatzaile. Beste eskualde batzuetan antolatzen ziren gisako Lore Jokoein, euskal literaturari hauspo handia eman zion XIX. mendeko bigarren erdialdean. Handik lekora, Hego Euskal Herriko hainbat herritan ere antolatu zituzten gisa hartako literatura lehiaketak. Garai hartan sortu ziren aldizkari eta testu literarioen zabalkundean eragin handia izan zuten Lore Jokoeak, eta handik urte batzuetara agertu zen *Eskualduna* astekaria ere testuinguru hartan kokatu behar da.

1883an, *Bai Jauna Bai* izeneko astekari literario elebiduna sortu zuen Serafin Barojak, Iruñean. Baina urte bat baizik ez zuen iraun. Xahoren ahaleginetik landa agertu zen euskara

l'Adour, 1997); Elisabete Zubillaga, «Joseph-Augustin Chaho, apologiste des Basques en France au début du XIXème siècle» (tesina-memoria, Département Interuniversitaire d'Etudes Basques).

¹²² Beñat Oihartzabal, «Euskarazko kazetaritzaren lehen entseia: A. Chahoren Euskal Herriko Gasetta (1848)», in *Patxi Altunari omenaldia. Mundaiz*, 5 (Donostia: Mundaiz, 1990), 191–207; Fermin Arkotxa, «150e anniversaire de l'Uscal-Herrico Gasetta», *Lapurdum* III (1998): 125–154.

¹²³ Juan San Martín, «Jose Manterola, egile eta eragile», *Euskerak* (1984): 443–448.

¹²⁴ Diaz Noci, *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*.

¹²⁵ Patri Urkizu, *Anton Abadia* (Bilbao: Bilboko Udala-Ayuntamiento de Bilbao, 2002).

hutsezko lehen astekaria Los Angelesen argitaratu zen, nafar-lapurteraz idatzirik: *Eskualdun Gazeta* 1885eko eguberri bezperan agertu zen, eta beste bi zenbaki agertu ondoan desagertu zen, 1886ko urtarrilaren 16an. Demokraten ildoko astekari harekin, itsasoz bestalde joan behar dugu, beraz, euskarazko astekarien lehenbiziko aleen bila. Ez dugu aipatu urte batzuk lehenago Buenos Airesen sortu zen *Laurac Bat*, euskarari leku sinbolikoa baizik ez baitzion eskaintzen.

Euskal Herrira itzuliz, berriz ere Ipar Euskal Herrian zeuden euskarazko kazetaritzaren erroak. 1887an sortu zen Baionan *Eskualduna* astekaria, euskarazko astekarien aitzindaritzat jo izan dena, beti, nahiz eta ezin den erran euskara hutsez idatzia zelakorik. Ez gara hemen hasiko euskararen lekua ehunekoetan neurtzen, garai batetik bestera aski aldakorra izan baitzen; baina erran daitekeena da artikulua nagusiak eta inportanteenak eta baita herrietako berriak ere euskaraz idatziak izaten zirela, ia beti. Denbora aitzina joan ahala, euskara nagusitu zen, aldizkariaren zati handiena euskaraz zuen.

Geroago agertu ziren aldizkariak Hego Euskal Herrikoak ziren, baina gehienek leku eskasa eskaintzen zioten euskarari. Euzko Alderdi Jeltzaleak bultzaturik, *Baserritarra* eta *Bizkaitarra* astekariak agertu ziren 1893an, baina euskarak %20tik beherako presentzia zuen¹²⁶. Urte berean, Amerikako Estatu Batuetan, Jean-Pierre Goitino ainhoarrak *Californiako Eskual Herria* astekaria sortu zuen¹²⁷, lapurteraz idatzia, eta osoki euskaraz. Bost urtez atera zen.

Resurreccion Maria Azkue (1864-1951) hizkuntzalari bizkaitarra¹²⁸ izan zen euskara hutsezko astekari bat sortu zuen hurrengoa. Lehena, 1897tik 1899ra bitartean atera zuen: *Euskaltzale*. Ondokoa, 1902an agertu zen: *Ibaizabal*. Eta 1902tik 1903ra argitaratu zuen: *El Correo Vasco*. Handik landa euskarari leku franko ematen zioten beste aldizkari batzuk ere sortu ziren, adibidez *Gipuzkoako Nekazaritza* batetik, eta *Baserritarra* bestetik. Biak Donostian argitaratuak ziren, lehena 1903tik 1907ra eta bigarrena 1904tik 1911ra.

1908an hilabetekari kultural bat agertu zen, *Euskal Esnalea*, ia dena euskaraz. 1931 arte agertu zen. 1909tik 1913 arte, Baionan, «gorrien» astekari bat sortu zen, euskaraz, *Argitzailea*, Joseph Garat Baionako diputatu erradikalak gidaturik. Astekari horrek 1913 arte iraun zuen. Garai hartan, EAJk beste astekari sail bat bultzatu zuen, urte batzuk lehenago bezala: *Bizkaitarra*, *Napartarra* eta *Arabarra*, euskarari lehengoek baino leku handixeagoa eskaintzen

¹²⁶ Diaz Noci, *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errodea (1834-1959)*.

¹²⁷ Xipri Arbelbide, *Californiako Eskual Herria: Jean-Pierre Goitino* (Bilbo: Euskaltzaindia, 2003).

¹²⁸ Jurgi Kintana, *Vizcaytik Bizkaitara? R.M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)* (Bilbo: BBK eta Euskaltzaindia, 2002).

ziotenak. *Napartarra* salbu, beste astekariak gelditu zituen 1913an, *Euzkadi* egunkaria sortzeko. Egunkari hark 1936ko gerla lehertu arte iraun zuen. Euskarari lekua ematen bazion ere, nagusiki gazteleraz idatzia zen.

Garai hartan, egunkari eta astekari abertzaleak loratu ziren Espainiaren parte ziren Euskal Herrian eta, bereziki, Katalunian, *La Ven de Catalunya* (1891) eta *Poble Català* (1905), adibidez¹²⁹. Okzitaniak ere izan zuen bere hizkuntzako prentsa¹³⁰, horietan lehenbizikoetarikoa *Lou Bonil-abaiisso* astekaria, 1841tik 1846ra argitaratu zena. Britainian ere izan zen antzeko mugimendurik, XIX. mendearen bigarren erdialdean. Bereziki, *Kroaz ar Vretoned* aldizkaria¹³¹ izan zen bretoierazko ezagunena, 1898tik 1920ra bitartean argitaratu zena. Lehenbizikoa, aldiz, *Feiz ha Breiz* izan zen¹³², aldizkari giristinoa, 1865etik 1884era argitaratu zena lehenik, eta 1899tik 1944ra gero. Hots, aldizkari hori *Eskualduna* baino anitzez lehenago agertu zen.

Ez ditugu euskarazko astekari guzti-guztiak aipatu, baina nagusiak eta inportanteenak aipatu ditugu. Horiei gehitu behar zaizkie, XIX. mendean eta XX. mende hasieran agertzen ziren urtekari edo almanakak. Astekari edo aldizkari gehienek bazuten beren urtekaria, *Eskualduna*-k bazuen berea, adibidez. Baina ez gara urtekarien zerrendatzean luzatuko. Erran daitekeena da astekari eta urtekari horien guztien artean, gehienak politikoak, kulturalak edota erlijiosoak zirela, eta, Joan Mari Torrealdaiak dioen bezala¹³³, orduko kazetaritza ez zela, «informazioari bertatik bertara lotua».

Laburbilduz, euskarazko prentsa idatzia pixkanaka garatu zen. Ez zen lehenbiziko ahaleginean sortu. Halaber, erroak Ipar Euskal Herrian zituen, eta *Eskualduna* ez bazen guztietan lehena ere, lehenbiziko euskal astekari iraunkorra eta bide erakuslea izan zen. Besterik da kazetaritza gaur egungo gisan egiten den bezala edo, zehazkiago, XIX. mende bukaeran izan zituen aldaketen arabera egiten ote zuen.

¹²⁹ Aubert, «La presse espagnole et son public (1914-1918)», 78.

¹³⁰ Gai horretaz 1988an egin zuen tesia argitaratu zuten, ikerlaria hil ondoan: Georges Bonifassi, *La presse régionale de Provence en langue d'Oc: des origines à 1914* (Paris: Presses de l'université de Paris-Sorbonne, 2003).

¹³¹ Gérard Cornillet, ««Kroaz ar Vretoned» (1898-1920), son histoire et ses auteurs. Index analytique des articles, poèmes, pièces et autres publiés dans ce journal» (Thèse de doctorat, Rennes 2, 1990).

¹³² Cédric Choplin, «La représentation des peuples exotiques et des missions dans Feiz ha Breiz (1865-1884)» (doktorego-tesia, zuz. Gwendal Denis, Université de Haute-Bretagne, 2009).

¹³³ Joan Mari Torrealdai, *Euskal kultura gaur. Liburnaren mundua* (s.l: Jakin, 1997), 105.

2. Kazetaritza eredu berezia

Egoera material eta sozial berriek prentsa aro berri batean sartu zuten, baina aldaketa ez zitekeen hedapenean eta produkzioan bakarrik geldi. Aldaketak edukietan ere gertatu ziren, kazetaritza lana bera garatu eta profesionalizatu baitzen. *Eskualduna* aldaketa horien garaian agertu zen, nahiz eta horrek ez duen erran nahi aldaketa haiek bere egin zituela. Atal honetan ikusiko dugu zein izan ziren aldaketa orokorrak, eta nolako eragina izan zuten *Eskualduna* astekarian. Aldaketak, aurkezpenaren edo estetikaren ingurukoak izan ziren, batetik. Bestetik, artikulua osatzeko eta egituratzeko moduak ere berri izan ziren. Baina horiek kazetaritza profesionalean sentitu ziren, eta ikusiko dugunez, *Eskualduna* astekariaren erredakzio taldea amateurra zen, izan zituen zuzendariak ere ez baitziren kazetari, ofizioz. Bide batez, astekaria nola administratua zen ere aipatuko dugu, eta azkenik, kazetaritza eredu berri haien erdian, *Eskualduna* astekariaren eredu zein zen zehaztuko dugu.

a) Aurkezpen modu berrietatik urrun

XIX. mendearen bigarren erdian eredu berri bat garatu zen Amerikako Estatu Batuetan, eta eredu hark eragina izan zuen Europan ere, baina *Eskualduna* astekarian ez hainbeste. Gutxi gorabehera orain ezagutzen dugun eredu zen amerikarrek ekarri zutena: egunkariak orri anitz hartu zituzten, kazetariak erreportari lanak egiten zituzten leku batetik bestera joanez, informazioa sailka antolatua zen, tituluak artikulua ideia nagusia laburbiltzen zuten esaldi laburrak ziren eta ez gaia zehaztera mugatzen ziren hitz bakar batekoak edo bizpahiru hitzekoak. Eugène Tavernier-en arabera¹³⁴, eredu harekin ez zen beharrezkoa egunkari osoa irakurtzea informazioaren lortzeko. Frantzia titulu eredu hura oraino ez zen sartua, beldurrez eta titulua irakurritz, jendeak ez zuela artikulua irakurtzeko beharrik sentituko¹³⁵.

Izenburuaren arloan dago *Eskualduna* eredu berri hartarik urrun egon zelako adibide bat. Astekari haren izenburuek ez zuten artikulua gaia laburbiltzen, edo ia inoiz ez. Gehienetan, artikulua gaia azaltzen zuten; edo gaia ez bazen, izenburu biziki orokorrak, erakartzeko eginak (erakargarri izan edo ez). Adibidez, nazioarteko berriak, gehien-gehienetan herrialdearen izenarekin titulatuak ziren, adibidez, Ingalaterrako berri bat baldin bazen, «Angleterratik». Artikulua irakurri gabe ezin zitekeen jakin zein zen artikulua gaia nagusia. Baina beharbada horrek ez zuen hainbeste inporta. Alabaina, astekariak 50 bat

¹³⁴ Eugène Tavernier, *Du Journalisme, son histoire, son rôle politique et religieux* (Paris: H. Oudin, 1902), 303.

¹³⁵ Brin, Charron eta Bonville, *Nature et transformation du journalisme: théorie et recherches empiriques*, 109.

zentimetroko luzerako¹³⁶ lau orri baizik ez zituen, eta beraz ez zen denbora anitz behar osoki irakurtzeko. Gaur egun, orrialde anitz dituen egunkari bat irakurtzen denean, denbora anitz behar litzateke artikulu guztien irakurtzeko, beraz, nahi ala ez, izenburuak funtsezko garrantzia du, irakurlea erakartzeko edo, gutxienez, artikulua irakurri ez duenak ideia nagusia ukan dezan, titulua irakurriz bakarrik.

Eredu amerikar hura Europan ere sartzen hasi zen. Europan ere, erreportaria bihurtu zen kazetari eredugarri. Gertakariak aipatzea zen prentsak egin behar zuena, hark zuen arrakasta, eta erreportariak gertakariak ziren lekura joaten ziren, gero irakurleei haren berri kontatzeko. Argitalpenak gero eta handiagoak ziren eta, Géraldine Muhlmannek dioen bezala, 1880ko hamarkadako mendebaldeko herrialde demokratikoetan kazetaritza modernoa sortu zen¹³⁷.

Espainia ere izan daiteke horren adibide. Amerikar ereduaren sartzen hasi zen: egunkariak gero eta orrialde gehiago zituzten, gero eta ale gehiagotan inprimatzen zituzten eta informazioaren antolaketa bera ere aldatu zen. Ordu arte, informazioa era bertikalean ematen zuten, baina Espainian, amerikarren ereduari jarraiki, egitura horizontala hartu zuten egunkariak, hala nola tituluak hainbat zutaberen zabaltasunean egiten zituzten eta artikulua ere zutabekara antolatzen zituzten¹³⁸.

Aldaketa haiek ere ez zuten inolako eraginik izan *Eskualduna* astekarian. Ipar Euskal Herriko astekari hark lehengo eredu bertikalarekin jarraitu zuen. Hots, ez zen maketa landurik. Astekariaren itxura biziki oinarrizkoa zen. Lehen artikulua lehen orriko ezkerreko zutabearen gainean hasten zen, eta artikulua bat bururatu ondoan, haren jarraipenean hasten zen hurrengo artikulua, zutabe hastapenean, zutabe erdian edo zutabe bukaeran izan. Halaber, artikuluen izenburuek ere zutabe bateko zabalera baizik ez zuten hartzen, ia beti. Maketazioan ez zen lanketa berezirik, beste egunkari anitzetan ez bezala.

¹³⁶ Formatua aldakorra izaten zen. Hasieran 48 x 34 zentimetrokoa zen. Beste batzuetan orriak handiagoak izan ziren, edo txikiagoak. Paperaren prezioak eragina izan zuen orrien zabalera aldaketetan.

¹³⁷ Géraldine Muhlmann, *Une histoire politique du journalisme (XIXe-XXe siècle)* (Paris: Presses universitaires de France, 2004).

¹³⁸ Aubert, «La presse espagnole et son public (1914-1918)», 38.

b) Piramide irauliaren erabilera irregularra

Kazetaritza idazketa berriaren oinarrizko arauetariko bat piramide irauliarena¹³⁹ da. Interesgarria da pixka bat so egitea *Eskualduna* astekariak arau hori errespetatzen zuen ala ez. Piramide irauliaren oinarria da, artikuluan informazio garrantzitsuena hastapenean ezartzea, eta azalpenak gero sartzen joatea. Hots, mezu nagusia lehen esaldian sartzen da, eta ondoko paragrafo eta esaldietan ematen dira testuinguruko elementuak eta gertakariari buruzko gainerako xehetasunak. *Eskualduna*-k oinarri hori errespetatzen ote zuen?

Eskualduna astekariaren kazetaritza eredia goraitatu du Xabier Altzibarrek. «Askoren usteak kolokan ezarri» nahi izan ditu, hala nola astekari horren kazetaritza ereduak ez zuela kazetaritza anitz. Altzibarrek dio anitzek uste dutela «euskarazko kazetaritza oso atzeratua izan dela beti, adibidez informazio generoak oso berant heldu zaizkigula, I. mundu-gerlaren ondoren edo». Horren aurka, Altzibarrek erantzun du 1910eko *Eskualduna* irakurriz gero, berrien sailean «berriak huts-hutsik, geroago *Enzka*-n edo *Euskaldunon Egunkarian* agertuko zirenen aitzindariak» ageri zirela¹⁴⁰.

Altzibarrek, hein batez arrazoi du: *Eskualduna*-k berriak ematen zituen, batzuetan komentariorik gabe. Baina komentarioak zituzten artikulua ere maiz agertzen ziren. Javier Diaz Nocik aitortzen du¹⁴¹ astekari horren «kazetaritza eredia pobre samarra» zela, hala nola «oso ideologikoa, irudi eskasak, erreportaje gutxi». Baina, bereziki, erran daitekeena da piramide irauliaren araua irregularki betetzen zuela. Batzuetan bai, artikulua arras laburretan bereziki, baina luzeagoetan ere, informazioaren antolaketa hori erabiltzen zuen. Baina maiz bazuen informazioa artikulua bukaera aldean emateko joera, eta lehenik testuinguruan luzatzekoa. Edo bestela, gertakaria ipuin bat bezala kontatzeko ohitura zeukan. Hori berretsi ahal izan dugu gerla denboran argitaratutako hainbat eta hainbat artikulutan.

Dena den, piramide iraulia erabili ala ez, segurtatzen ahal dena da *Eskualduna* pixkanaka gero eta egituratuagoa zela eta eskaintzen zuen informazioa gero eta zabalagoa zela. Irregularitasun horrek erakusten du, bestalde, ez zela talde profesional batek egiten zuen

¹³⁹ Aurélien Leclerc eta Jacques Guay, *L'entreprise de presse et le journaliste* (Sainte-Foy: Presses de l'Université du Québec, 1991), 111; Javier Diaz Noci, *Kazetaritza-idazkuntzarako eskuliburua: informazio-generoak* (Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1995).

¹⁴⁰ Xabier Altzibar, «Zer dakarkio Hiriart-Urrutik euskal kazetaritzari?», in Etxeberría, Pilartxo eta Henrike Knörr: *Nerekin yaió nun. Txillardegiri Omenaldia*, Iker 17 (Bilbo: Euskaltzaindia, 2005), 59–82, Sarean: euskaltzaindia.net.

¹⁴¹ Javier Diaz Noci, «Euskarazko kazetaritza XX. mendearan hastapenean», in *Euskarazko kazetaritza: gogoetak, esperientziak eta analisiak*, ed. Asier Barandiaran (Iruñea: Nafarroako Unibertsitatea, Filosofia eta Letretako Fakultatea, 2007), 75–82.

astekaria, eta talde ez profesionala izateak ere esplika dezake kazetaritza idazketaren arau zehatzik gabe idaztea.

c) Erredakzio talde amateurra

Kazetaritza profesionala garatzen ari zen XIX. mende bukaeran. Erredakzioek kazetariak berrien segitzera igortzen zituzten, erreportajeen osatzera. Egunkariak ziren, orrialde franko bete behar zen egunero, eta horrek lana eskatzen zuen. *Eskualduna* astekari xumeagoa zen, eta laguntzaile sare bati esker osatzen zen, halako astekaria ez baitzezakeen idazle bakarrak osa. Astekariko arduradunak nor izan ziren jakitea baino zailagoa da asteroko berriemaileak identifikatzea. Erredakzio talde ttipi bat bazen Baionan, eta gainerakoak herrietako berriemaileak ziren, gehienak apaizak, baina baita zenbait irakasle ere¹⁴².

▪ Lehen belaunaldia

Erredaktore buruaren lana baitezpadakoa izan zen hainbat urtez. Louis Etcheverry diputatugai eta lehenbiziko zuzendariak berak ez zuen, hain segur, gauza handirik eginen, ondoan ez balu laguntzaile handi bat ukan: Arnaud Pochelou hemezortzi urtez ibili zen astekariaren kudeatzen, gerente gisa, 1887tik 1905 arte. Aiherran sortu zen, baina aski laster joan zen Donibane Lohizunera bizitzera. Istripuz, zango-motz bilakatua zen, baina ez omen zen geldirik egoten zen horietariko. Politika hurbiletik jarraitzen zuen, eta Lafitteren arabera, «zuri amorratua» zen. Donibane Lohizuneko Herriko Etxean lan egiten zuen, idazkari gisa¹⁴³. Albert Goyeneche¹⁴⁴ (1847-1900) mediku eta Donibane Lohizuneko auzapeza *Eskualduna*-ko laguntzailea zen, eta haren bidez¹⁴⁵ bildu zuen Louis Etcheverryk erredakzio taldera, eta *Eskualduna* kudeatzen hasi zen. Donibane Lohizunetik Baionarako bidea trenez egiten zuen. Baina, halaber, gutunez ere komunikatzen zuen astekariko zuzendariarekin¹⁴⁶.

Horrela jakin ahal izan da zein ziren astekarian parte hartzen zutenak (zeinek idazten zuen eta zeinek ez zehazten duen informaziorik ez dago). Lafittek deiturak eman zituen, Xarritonek zenbait xehetasun gehiago eman zuen, baina bakoitza nor zen ongi identifikatzeko bilaketa sakonagoak egin behar izan ditugu, besteak beste Euskaltzaleen

¹⁴² Borda, «Le journal «Eskualduna» et la guerre de 1914-1918», 25.

¹⁴³ Piarres Lafitte, «Sarrera», in Hiriart-Urruty, Jean: *Jean Hiriart-Urruty. Mintzaira, aurpegia: Gizon!*, ed. Piarres Lafitte (Jakin, 1971), 26.

¹⁴⁴ «Albert Goyeneche», *Eskualduna*, 1900ko urtarrilaren 26a.

¹⁴⁵ Xarriton, «Eskualduna-ren mendeurrena Baionan».

¹⁴⁶ Piarres Lafitte, «Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) et les débuts du journalisme basque», *Gure Herria* 43-6 (1971ko abendua): 321-338.

Biltzarreko bilera aktak¹⁴⁷ lagungarriak izan zaizkigu, garai hartan giro euskaltzalean biltzen zirenen izenak biltzeko, *Eskualduna*-ko laguntzaile anitz hango kideen zerrendetan agertu baitziren. Bestalde, hainbat kasutan, aipatutako pertsonen sorturtea zehazteko, Pirinio Atlantikoetako artxiboko estatu zibileko aktak kontsultatu ditugu. Parte-hartzaile anitz apaizak izanez, Baionako apezpikutegiko artxiboa eta Daranatzen liburua¹⁴⁸ begiratu ditugu haien ibilbidea osatzeko.

Alde batetik baziren, Jean-Baptiste Daranatz (1869-1937) ezpeletarra eta Baionako apezpikuaren idazkari izan zena eta Curutchet¹⁴⁹ eta Laurent Hirigoyen¹⁵⁰ (1859-1935) apaiz eta irakasleak. Bestetik baziren Mixel Elizanburu *Anai Innocentius* (1826-1895)¹⁵¹ eta Arnaud Agirre *Anai Juvenal* (1850-1932)¹⁵², biak heletarrak, fraideak eta bata bestearen ondotik Hazparneko lanbide ikastetxeko zuzendari izan zirenak. Beste apaiz andana bat ere ibili zen astekarian parte hartzen, hala nola Laurent Jaret (1855-1911) Hazparneko misiolaria¹⁵³, Berho¹⁵⁴, Pierre Bidart *Oxkax* (1847-1911), Donazaharrekoa, Ibarrolako erretorea eta bertsolaria, Jean Ithurry (1845-1896) larresoroarra, gramatikaria¹⁵⁵ eta *Napoleon* pastoralaren egilea, Gaston Larre (1853-1936) arrangoiztarra, Larresoroko apaiz-eskolako irakasle eta Miarritzeko Santa Eugenia eliza eraikiarazi zuena¹⁵⁶, Dominique Giron (1859-1928) Bidarten sortua eta Heletako bikario, Liginagako eta Ainhoako apaiz izana, Dolhagaray¹⁵⁷, Jean

¹⁴⁷ *Euskaltzaleen-Biltzarra: 1912garreneko Bil-Aldia egina 28ean Jaun Georges Lacombe buru-lehen.* (Paris: Honoré Champion, 1913); *Congrès basque (Eskual-Zaleen Biltzarra): tenu dans la ville d'Irun le 29 septembre 1904 sous la présidence de Don Arturo Campion, ancien député de la Navarre.* (Baiona: A. Lamaignère, 1905).

¹⁴⁸ Jean-Baptiste Daranatz, *L'Eglise de Bayonne* (Baiona: Lasserre, 1924).

¹⁴⁹ Garai hartako apaizen zerrenda ikusiz, Jean Curutchet baizik ez daiteke izan, 1846an Hendaian sortua eta 1907an hila.

¹⁵⁰ «Laurent Hirigoyen», *Eskualduna*, 1935eko uztailaren 26a.

¹⁵¹ Luis Villasante, *Historia de la literatura vasca* (Bilbao: Editorial Sendo, 1961), 181.

¹⁵² Piarres Xarriton, «San Josep lanbide ikastetxea - 30 urte», *Herria*, 1990eko maiatzaren 31a.

¹⁵³ Jean-Pierre Arbelbide (1841-1905) kalonjeak zuzendutako *Hazparneko kalbarioa eta Kantika eskuarak bere aireekin* kantika bilduma osatu zuen. Xipri Arbelbide, *Janpierre Arbelbide: 1841-1905* (Donostia: Egan, 2005), 66.

¹⁵⁴ Bi Berho aurkitu ditugu: bata makearra eta Hazparneko misionestegian ibilia, Jean-Pierre Arbelbidek Aita Garat Hazparneko misionestegiaren sortzaileari buruz idatzitako atalean ageri denaren arabera dugu. 1846an sartu bide zen Hazparneko misionestegian. Jean-Pierre Arbelbide, *Erlisioneak: eskual-herriari dohazkon egjarik beharrenak* (Lille: Jaun Desclée De Brouwer, 1892), sarean: armiarma.com. Beste aukera da Bertrand Berho izatea, garai hartako apaizen artean Berho bakarra hori zelako. 1827an sortu zen Irisarrin, eta 1904ean hil zen. Mauleko bikario eta Iholdiko erretore ibili zen. *Eskualduna*-k artikulu luzea egin zuen Bertrand Berhoren heriotzaz 1904ko apirilaren 22an, aipatu gabe astekarian parte hartu zuen ala ez.

¹⁵⁵ *Grammaire Basque : dialecte labourdin* liburua argitaratu zuen 1895ean.

¹⁵⁶ Lafittek G. Larre jarri zuen bere zerrendan. Hiriart-Urrutik Gaston Larre aipatu zuen Lafittek aipatu zuen gutun batean. Gainera, izena G. hizkiarekin hasten zuen garai hartako beste Larre deituradun apaizik ez dugu aurkitu. Hortik ondoriozta dezakegu Gaston Larre zela *Eskualduna*-n parte hartzen zuena.

¹⁵⁷ Garai hartako apaizen zerrenda begiraturik, izan daiteke Bernard Dolhagaray (1847-1918), Senperen sortua eta Donazaharreko apaiz, Kanboko bikario eta kalonje izana. Izan daiteke ere Léon Dolhagaray (1848-1921), hau ere senperrarra, Mendikotako eta Behobiako apaiz izana.

Oihenart (1862-1932) sohütarra, azken urteetan Muskildin apaiz egona eta garai batez Saint Pierre eta Miquelonon egona, Janbattitt Etcheberry (1806-1898) Donaixti-Ibarren sortua, Uztaritzeko serorategiko omonier egona 1843tik eta *Eskualdun laborarien adiskidea* euskarazko lehenbiziko almanakaren sortzailea¹⁵⁸. Jean Etcheverry Kanboko bikario izan zenak anitz parte hartu zuen.

Elizgizon horiez gain, beste zenbait laiko ibili ziren astekarian, hala nola Ainhoan sortu eta Ezpeletan hazi zen Jean Duvoisin¹⁵⁹ (1810-1891) kapitaina eta Biblia osoaren itzultzailea, Gustave Berdeco Lore Jokoetan parte hartu izan zuen idazle eta bertso egile garruztarra, Auguste Fourcade idazlea, Etchandy Atharratzeko medikua, Charles Minjonnet (1854-1910) astekariaren jabe eta buruzagietariko bat, urte anitzetan Baigorriko kontseilari nagusi izan zena eta Charles Harispe diputatuaren iloba, Léon Hiriart (1829-1915) Baionako liburutegiko artxiboaren arduradun eta idazlea¹⁶⁰, Amédée de Laborde-Nogués (1823-1910) baionarra eta Uztaritzeko auzapez, kontseilari nagusi eta diputatua, ofizioz abokatua, Hazparneko Hyppolyte Ritou notarioa 1866an sortua eta 1905ean ordu arte lagun zuen Pierre Broussain auzapezaren kontra kontseilari nagusi izateko aurkeztu zena¹⁶¹, Léon Cabillon baigorriarra eta arrandegiko nagusia, Alexandre Mendiboure 1858an Saran sortua baina urte gehienez Baigorriin mediku gisa egona, Sarako Augustin Etcheverry (1849-1890) zapataria, Antton Abadiak antolatu koplak lehiaketetan hainbat aldiz parte hartu eta 1869an lehen saria irabazi zuena¹⁶², edota Emile Debibié Donibane Lohizuneko auzapez-orde eta ofizioz saleroslea¹⁶³.

Horiatarik batzuk 1901erako hilak ziren, hala nola Ithurry, Duvoisin, Goyeneche, Berdeco eta d'Etchandy. Baina beste batzuk ere baziren ordurako hilak ziren laguntzaileen artean, hain zuzen Louis Etcheverryk artikulu batean izendatu¹⁶⁴ zituenak: Bertrand

¹⁵⁸ Piarres Lafitte, *Euskal literaturaz*, [lehen edizioa: 1934]. (Donostia: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1990).

¹⁵⁹ Leku gehienetan Jean Duvoisin agertzen da, baina Jean-Pierre Duvoisin edo Jean-Baptiste Duvoisin izenez ere deitua izan zen. Hiriart-Urrutik Manex Duvoisin izendatzen zuen.

¹⁶⁰ Léon Hiriart *Eskualduna*-rekin lotzen duen aipu argirik ez dugu aurkitu, baina Lafittek aipatzen zuen Hiriart pertsona hori dela segurta daiteke, ikusiz garai hartako mugimenduetan, Eskualtzaleen Biltzarrean bereziki, deitura hori zuen pertsona bakarra zela.

¹⁶¹ *Eskualduna* astekariak Broussain sostengatu zuen. Hala ere ez zuen sobera gogor kritikatu Ritou notarioa. Ikus 1905eko irailaren 29ko *Eskualduna* astekariko «Hazparne» artikulua.

¹⁶² Antoine Abbadie, *Anton Abbadiaren koplarien guduak: Bertso eta aire zenbaiten bilduma 1851-1897* (Bilbao, Donostia: Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, 1997), Sarean: eusko-ikaskuntza.org.

¹⁶³ Lafittek Devivier deitura jarri zuen, baina Eskualtzaleen Biltzarreko kideen zerrendari fidatuz gero, itxura gehiago du Emile Debibié izateak, are gehiago ikusiz Donibane Lohizuneko auzapez Albert Goyeneche eta hango grefier Arnaud Pochelou ere *Eskualduna*-ko kide zirela.

¹⁶⁴ Louis Etcheverry, «Changement de mains», *Eskualduna*, 1901ko uztailearen 19a.

Beltzagi¹⁶⁵ Donibane Garaziko apaiz nagusia, Alphonse Dutey (1845-1891) Lekunberrikoa baina Perun sortua eta Garaziko kantonamenduko kontseilari nagusia, Gustave Diriar Donapaleuko notarioa, Jules d'Apat¹⁶⁶ (1824-1890) Duzunaritzeko Apat jauregikoa, 1870eko gerlan parte hartu zuen koronela eta Garaziko sindikoa, eta Charles Harispe (1817-1896) baigorriarra, Louis Etcheverry aitzin diputatu izan zena eta Harispe marexalaren iloba.

Hori zen *Eskualduna*-ko lehen belaunaldia. Baina laguntzaile bat bereziki aipatu behar da: Manex Hiriart-Urruti. Geroago ere aipatuko dugu, zuzendari izan baitzen¹⁶⁷. Baina zuzendari izan bitartean ere, haren lekua funtsezkoa izan zen, eta ezin dugu erredakzioaren funtzionamendua eta osatzea aipatu, Hiriart-Urruti *Eskualduna* astekarian sartzeari esplikatu gabe.

▪ Bigarren belaunaldia

Louis Etcheverry baldin bazen ere *Eskualduna* astekariko zuzendari eta jabe, ez zen dena haren esku. Funtsean, erredaktore buru lanak beste batzuen esku ziren. Eta erredaktore burua ere ez zegoen bakarrik, laguntzaile sare bat bazuelako berekin. Laguntzaile horietarik bat Jean Etcheverry Kanboko bikarioa zen. Baina bakarrik ez zen denetara heltzen, eta Manex Hiriart-Urrutiri laguntza galdegin zion, 1891ko martxo erdialdean¹⁶⁸. Hiriart-Urruti oraino gaztea zen, bere 32 urterekin, baina Larresoroko apaiz eskolako irakaslearen gaitasuna ezagun zuen Kanboko bikarioak.

Louis Etcheverryri berari ere gustatu zitzaion Hiriart-Urrutiren luma. Nahiz eta izenpetu gabeko artikulua idazten zituen, astekariko zuzendariak bazekien nolakoak idazten zituen, eta hasi eta berehala, martxoaren 26an, *Eskualduna*-ko erredakzio taldean sartzeko proposamena egin zion. Hiriart-Urrutik zenbait aldiz idazten zuen *La Semaine de Bayonne* astekarian, frantsesez, baina nahiago zuela euskaraz eta euskaldunentzat idatzi ihardetsi zion euskal astekariko zuzendariari, aldi berean astekariarentzako hainbat aholku emanez¹⁶⁹. Gisa hartan, erredakzio taldean sartu zen.

¹⁶⁵ Etcheverryk Belsaguy idatzi zuen, baina ortografia horrekin ez dugu nehor aurkitu, aldiz, garai hartakoen artean agertu zaiguna, Beltzagi da: Xipri Arbelbide, *Jean Pierre Arbelbide (1841-1905)* (Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2005). Halaber, Alphonse Duteyren ehorzketei buruzko kronikan predikua eman zuena Donibane Garaziko apaiz nagusi «Belsaguy» zela idatzi zuten, 1891ko agorrilaren 28an.

¹⁶⁶ Ez da nahasi behar Aingeru Irigarai Apat-Etxebarne gisa izenpetzen zuen pertsonarekin. Aingeru Irigarai 1899an sortu zen. Hau aldiz, 1901 baino lehen hil zen. Etcheverryk Apat baizik ez zuen idatzi, baina itxura guztien arabera Jules d'Apatez ari zen, Duzunaritzeko jaun handi bat zelako eta *Eskualduna*-k orri oso bat eskaini zuelako haren ehorzketei: P.B., «Morde d'Apat», *Eskualduna*, 1890ko urtarrilaren 17a.

¹⁶⁷ Ikus Manex Hiriart-Urrutiren biografia: 219.

¹⁶⁸ Lafitte, «Sarrera», 29.

¹⁶⁹ Lafitte, «Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) et les débuts du journalisme basque».

Hiriart-Urrutik laguntzaile gehiago bildu zuen talde hartara¹⁷⁰. Erredaktore berriak bilatzeari garrantzia eman zion. Bereziki zuberotarrrik ez izatea zen haren pena eragiten zuena. Haiengana joateko beharra sentitu zuen. Gisa hartan, zuberotar multzo bat bildu zuen bere taldera, hala nola Jean-Baptiste Constantin (1847-1922) *Joanes Garaztarra* Santa-Graziko irakasle eta idazlea, haren seme Albert Constantin Atharratzeko medikua, Justin de Menditte Atharratzeko erretorea, pastoral idazle eta *Eskualduna*-n zenbait bertso argitaratu zituen, Jean-Pierre Chorho Espil¹⁷¹ zalgiztarra (1884-1968), Garindaineko erretore egona eta Clément Armagnague (1870-1924), sortzez Sarrikotapekoa eta Ainharbeko erretorea. Idazle horiek produktiboak izan ziren, *Eskualduna* astekarian Zuberoako berri anitz argitaratu baitzen handik landa.

Baxenabarre eta Lapurdiko laguntzaileak ere bildu zituen Hiriart-Urrutik, hala nola Michel Iriart baigorriarra (1862-1929), Larresoroko irakasle, Gabadiko, Aldudeko eta Uztaritzeko¹⁷² apaiz eta azkenik kalonje izandakoa eta astekarian anitz parte hartu zuena, Julien Heguy aihertarra (1860-1930), Santa Grazin, Beskoitzen eta Arrokiagan apaiz izana¹⁷³, Michel Gombault Lekunberriko erretorea, Sauveur Etchegaray¹⁷⁴, Bidegaray¹⁷⁵, Jean Etxepare medikua¹⁷⁶, Pierre Harispe apaiz izana eta apaizgoa utzi zuena, Martin Landerretxe duzunariztarra (1842-1930), apaiz, idazle eta Eskualtzaleen Biltzarraren sortzaileetarikoa, Georges Lacombe sortzez Orthezekoa (1879-1947), idazle, hizkuntzalari eta Eskualtzaleen Biltzarreko buru izandakoa, Arnaud Abbadie (1843-1916) kalonjea¹⁷⁷, sortzez Bithirinakoa, eta astekarian maiz idatzi zuena («Laborarier» saila bereziki¹⁷⁸), Blaise Adéma¹⁷⁹, Dominique Mocoçain (1859-1914), Irulegikoa, Baigorriko bikario izan zena, eta Dolhagaray apaiza, besteak beste. 1910etik landa, oraino beste belaunaldi bat erakarri zuen: Pierre Broussain¹⁸⁰

¹⁷⁰ Lafitte, «Sarrera», 34–35; Amelia Hernández Mata, *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944): kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan* (Bilbo: Euskaltzaindia, 2007), 57.

¹⁷¹ Espil izenez ezaguna bazen ere, hori amaren deitura zuen, eta etxearen izena. G.E., «Espil jaun apheza», *Herria*, 1968ko azaroaren 21a.

¹⁷² Piarres Lafitte, «Iriart kalonjea», *Eskualduna*, 1929ko apirilaren 26a.

¹⁷³ Piarres Lafitte, *Julien Héguy apheza* (Baiona: Imprimerie La Presse, 1930).

¹⁷⁴ apaiza izatekotan, Sauveur Etchegaray (1879-1955) hazpandarra izan daiteke, Getarian, Hendaian eta Saran bikario egona eta Donaixtikoko erretore, besteak beste. Halaber, Saran egon zenean, Blaise Adéma zen hango erretore, eta horren bidez egin daiteke lotura Sauveur Etchegarayren eta *Eskualduna*-ren artean.

¹⁷⁵ François Bidegaray (1877-1924) Donibane Garazin sortua izan daiteke, Hazparneko misiolari, Mauleko bikario eta Jatsuko (Garazi) erretore izana.

¹⁷⁶ Ikus Jean Etxepareren biografia: 206.

¹⁷⁷ Kepa Altonaga, ed., *Arnaut Abadiaren zoo ilogikoa* (Iruñea: Pamiela, 2011), 12–22.

¹⁷⁸ *Ibid.*, 30.

¹⁷⁹ Ikus Blaise Adémaren biografia: 224.

¹⁸⁰ Pierre Broussain-ek *Eskualduna*-n izan zuen parte hartzeaz: Pierre Charriton, *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques (1895-1920)* (Bordeaux: CNRS, 1985), 21.

1859-1920) hazpandar medikua, herri hartako auzapez izan zena eta Euskaltzaindiaren sortzaileetarikoa, Jean Saint-Pierre¹⁸¹, Jean Elizalde¹⁸², Jules Moulier *Oxobi*¹⁸³ eta Jean Barbier (1875-1931) Donibane Garazin sortu zen apaiz eta idazlea.

Ondoko taulan eginen dugu laguntzaile horien guztiaren zerrendaren sintesia:

Eskualduna-ko kideen zerrenda

Nor	Sorterria, sorturtea, herio urtea	Ofizioa	Lantokia(k)
Abbadie, Arnaud	Bithirina (1843-1916)	Apez	
Adéma, Blaise	Senpere (1861-1936)	Apez	Uztaritze eta Baiona
Aguirre, Arnaud <i>Anai Juvenal</i>	Heleta (1850-1932)	Fraide eta ikastetxe zuzendari	Hazparne
Apat (d'), Jules	Duzunaritze (1824-1890)	koronel eta sindiko	Duzunaritze
Armagnague, Clément	Sarrikotapea (1870-1924)	Apez	Ainharbe
Barbier, Jean	Donibane Garazi (1875-1931)	Apez	
Beltzagi, Bertrand	Donibane Lohizune (1821-1892)	Apez	Donibane Garazi
Berdeco, Gustave	Garruze		
Berho		Apez	
Bidart, Pierre <i>Oxkax</i>		Apez	Ibarrola
Bidegaray			
Broussain, Pierre	Hazparne (1859-1920)	Mediku eta politikari	Hazparne
Cabillon, Léon	Baigorri	Arrandegiko jabe	
Chorho Espil, Jean-Pierre	Zalgize (1884-1968)	Apez	
Constantin, Albert	Atharratze	Mediku	
Constantin, Jean-Baptiste	Santa-Grazi (1847-1922)	Irakasle	Santa-Grazi
Curutchet		Apez eta irakasle	
Daranatz, Jean-Baptiste	Ezpeleta (1869-1937)	Apez	Baiona
De Menditte, Justin	Mendikota (1867-1922)	Apez eta idazle	Barkoxe, Atharratze, Muskildi
Debibié, Emile		Salerosle eta politikari	Donibane Lohizune
Diriart, Gustave		Notario	Donapaleu
Dolhagaray		Apez	
Dolhagaray		Apez	
Dutey, Alphonse	Lekunberri (1845-1891)	Politikari	Donibane Garazi
Duvoisin, Jean	Ainhoa (1810-1891)	Kapitain, guarda	Ziburu
Elizalde, Jean	Azkaine (1883-1961)	Apez	
Elizanburu, Mixel <i>Anai Innocentius</i>	Heleta (1826-1895)	Fraide eta ikastetxe zuzendari	Hazparne
Etchandy		Mediku	Atharratze
Etcheberry, Janbattitt	Donaixti-Ibarre (1806-1898)	Apez eta omonier	Uztaritze
Etchegaray, Sauveur	Hazparne (1879)	Apez	
Etchepare, Jean	Lekorne (1877-1935)	Mediku	Aldude
Etcheverry		Apez	
Etcheverry, Augustin	Sara (1849-1890)	Zapatari	Sara
Etcheverry, Jean	Senpere (1855-1909)	Bikario	Kanbo, Martxueta
Etcheverry, Louis	Donazaharre (1887-	Notario eta politikari	Donazaharre

¹⁸¹ Ikus Jean Saint-Pierreren biografia: 197.

¹⁸² Ikus Jean Elizalde *Zerbitzari*-ren biografia: 202

¹⁸³ Ikus Jules Moulier *Oxobi*-ren biografia: 210.


	1901)		
Fourcade, Auguste	Baiona		
Giron, Dominique	Bidarte (1859-1922)	Apez	Heleta, Liginaga, Ainhoa
Gombault, Michel	Baigorri (1864-)	Apez	Larrañe, Aldude, Maule, Donazaharre, Arberatze, Lekunberri
Goyenette, Albert	Donibane Lohizune (1847-1900)	Mediku eta auzapez	Donibane Lohizune
Harispe, Charles	Baigorri (1817-1896)	Politikari	Baigorri
Harispe, Pierre	Donibane Lohizune (1854-1925)	Apez eta apaiz ohi	
Heguy, Julien	Aiherra (1860-1930)	Apez	Santa-Grazi, Beskoitze eta Arrokiaga
Hiriart, Léon	Baiona (1829-1915)	Liburutegiko arduradun	Baiona
Hiriart-Urruti, Manex	Hazparne (1859-1915)	Apez	Baiona
Iriart, Michel	Baigorri (1862-1929)	Irakasle eta apaiz	Larresoro, Gabadi, Aldude eta Uztaritze
Hirigoyen, Laurent	Uztaritze (1859-1935)	Apez eta irakasle	
Ithurry, Jean	Larresoro (1845-1896)	Apez eta hizkuntzalari	Sara
Jaret, Laurent	Kanbo (1855-1911)	Apez	Donazaharre, Hazparne
Laborde-Nogués (de), Amédée	Baiona (1823-1910)	Abokatu eta politikari	Uztaritze
Lacombe, Georges	Ortheze (1879-1947)	Hizkuntzalari	
Landerretche, Martin	Duzunaritze (1842-1930)	Apez	Oragarre, Getaria
Larre, Gaston	Arrangoitze (1853-1936)	Apez eta irakasle	Miarritze
Mendiboure, Alexandre	Sara (1858-1916)	Mediku	Baigorri
Minjonnet, Charles	Baigorri (1854-1910)	Politikari	Baigorri
Mocoçain, Dominique	Irulegi (1859-1914)	Apez	Irulegi eta Baigorri
Moulier, Jules <i>Oxobi</i>	Bidarra (1888-1958)	Apez	
Oihenart, Jean		Apez	
Pochelou, Arnaud	Aiherra	Udaleko grefier	Donibane Lohizune
Ritou, Hyppolyte	Hazparne (1866-)	Notario eta politikari	Hazparne
Saint-Pierre, Jean	Milafranga (1884-1951)	Apez	

Irudia 5. Eskualduna-ko idazleen edo laguntzaileen zerrenda, 1914 baino lehenagokoa.

Gertatzen da, zerrenda horretako idazletarik batzuek baizik ez zituztela beren artikuluak izenpetzen. Berriak beren lekutik igortzen zituzten, zerbait kontatzeko zutenean; maiz artikulu laburrak ziren. Horrek garbi erakusten du kazetaritza ez zela haien eginbidea, eta beraz, erredakzio talde amateurra zuela *Eskualduna*-k.

Baina amateurra izanik ere, Hiriart-Urrutik irizpide garbiak ezarri nahi izan zituen. Eta horretan ez zuen beti bat egiten erredaktore buruarekin, hala nola Arnaud Pochelouekin. Pochelouk eskuratzen zituen artikuluak, eta hark erabakitzen zuen zein argitaratu, zein ez, zein gibelatu, eta berdin, hark zuzentzen eta aldatzen zituen, beharrez, artikuluak. Hura zen

argitaratzen zenaren erantzule¹⁸⁴. Hiriart-Urrutiri ez zitzaizkion hainbeste gustatzen haren lanak, Piarres Lafittek azaldu zuenaren arabera: «astekarian erdara sobera kausitzen zuen, erreklama sobera; ez ziron sofri galarrotsak edo zezen-lasterrak aipa zezatzen; ez zuen nahi ere besta-buruetako pilota-partidarik aintzinetik aipatzea, fededunak ez zirelakoan josteta horien gatik herriko bezperetarik zeharkatu beha»¹⁸⁵. Hots, Hiriart-Urrutik, oraino apaiz gazte zela, seriosotasunaren eta diziplina girstinoaren berme gisa jokatzeko zuen. Geroagoko haren artikuluetan ongi ageri zen zein zorrotza zen, baina zorroztasun hori gazte-gazterik zekarrela erakustera eman zuen *Eskualduna*-n parte hartzen hasi zenetik, Lafitteren arabera.



Irudia 6. Eskualduna-ko idazleen sorterriak.

Hiriart-Urrutiren gain izan zen idazle haien guztien artikuluen zuzentzea, eta beharrez aldatzea. Hots, ez zen idaztera mugatzen, nahiz eta astekariaren zati handi bat hark idazten zuen¹⁸⁶. Hark akuilatzen zituen idazleak berrien idaztera, hark hautatzen zituen berriak, hura joaten zen saltzaileengana, hark zituen harremanak inprimategiarekin, hura arduratzen zen

¹⁸⁴ Lafitte, «Sarrera», 32.

¹⁸⁵ Ibid.

¹⁸⁶ Altzibar, «Zer dakarkio Hiriart-Urrutik euskal kazetaritzari?».

astekariak urtero argitaratzen zuen almanakaz. Altzibarrek dioen bezala, «kazeta osoa bere gain zuen»¹⁸⁷.

d) Zuzendari, baina ez kazetari

Erredaktoreak ez baziren ere profesionalak, erredaktore buru eta zuzendari lanak egiten zituztenak bazituzten. Koordinatze lan hori ere ez zen profesionala, ordea. Zuzendari horien eguneroko lana beste bat zen, politikariak edota elizgizonak ziren. Ez da beti argi nor izan zen *Eskualduna*-ko zuzendari eta noiz arte. Are gehiago, zuzendari zerrenda ez da beti zuzen eman. Hainbat huts agertu dira batzuen eta besteen lanetan. Nahiz eta batzuetan zaila den data zehatzak atzematea, astekari bakoitza hurbiletik so eginez gero, kronologia ahal bezain zehatza osatu ahal izan dugu.

▪ Louis Etcheverry (1887-1901)

Hasteko, inork ez du dudan ezartzen lehenbiziko zuzendaria Louis Etcheverry izan zela, hala nola astekariaren sortzailea bera. Ez zen kazetaria. Etcheverry Donazarreko notario eta politikaria izan zen astekariaren sortzaile eta lehen zuzendari. Louis Etcheverry 1853an sortu zen; Jean-Baptiste Etcheverry eta Augustine de Préjeanen semea zen. Ikasketak Parisen egin zituen, eta zuzenbideko doktore egin zen. Donazarhartar batekin ezkondu zen, Sophie-Marie-Jacqueline Manielekin¹⁸⁸. Honen aita ekonomia arloko pertsona ospetsua zen: Jacques Maniel burdinbide egilea. Etcheverry herri hartako Salha jauregiak jabetu zen. Ekonomia soziala ikasten segitu zuen, eta Société d'Economie Sociale erakundeko kide izan zen. Hortik landa, politikara lotu zen: 1889ko diputatu hauteskundeetan aurkeztu zen Mauleko hauteskunde barrutian, Charles Harispe diputatuak hari utzi baitzion lekua. Hauteskundeak irabazi zituen, Henry Martial Berdolyren aurka. Nahiz eta hauteskunde haiek baliogabetuak izan ziren, 1890ean berriz egin zirenean ere irabazi zituen. 1900ean, bestalde, Donazarreko auzapez eta Garaziko herri elkargoko arduradun hautatu zuten. 1907an hil zen, bihotzekoak jota¹⁸⁹. Etcheverry «zurien» alderdikoa zen, bonapartista eta biziki giristinoa.

Horiek hola, 1887an *Eskualduna* astekaria sortu zuen eta astekari hartako zuzendari izan zen 1901eko uztaila arte. Hortaz, zenbait lanetan 1903ko data ageri bada ere, data hori

¹⁸⁷ Ibid.

¹⁸⁸ Orain arte, Louis Etcheverryren emazteari buruz eman izan den informazio bakarra, Jacques Manielen alaba zela. Deus ez, ordea, haren izenaz. Donazarreko Herriko Etxera joan gara informazio horren bila, eta Louis Etcheverry-ren hiltzeko akta (1907ko urriaren 15a) kontsultatu dugu.

¹⁸⁹ Piarres Lafitte, «Louis Etcheverry. Champion de la foi et de l'âme basque», *Gure Herria* 25 - 6 (1953ko azaroa-abendua): 338–344.

zuzendu behar da. 1901eko uztailaren 19ko *Eskualduna* astekarian, bere lumaz azaldu zuen astekariko zuzendaritza aldatzen zela.

*A la suite d'une note parue récemment dans le Bulletin du diocèse, il a semblé utile de donner à Eskualduna une nouvelle direction à la fois plus ferme et plus souple, libre des vieilles attaches, affranchie du souvenir des anciennes luttes locales, rajeunie, en un mot, et rajeunissante.*¹⁹⁰

1901eko elkarteen legearen harira, *Eskualduna* astekariak Jauffret Baionako apezpikuaren jarrera kritikatu izana eta hark astekariari igorri erantzuna izan zen Etcheverryren kargu uztearen arrazoia. 1892an, Leon XIII Aita Santuak eskaera argia egin zien Frantziako giristinoei: Errepublikan onartzea eta haren barneko legeetan eta joko-araudietan ibiliz borrokatzea giristinotasunaren alde. *Eskualduna*-ko kideek gogoz kontra onartu zuten, baina onartu zuten Aita Santuaren aholkua jarraitzea. Hala ere, nahiz eta Errepublikara lerrokatu, Frantziako Gobernuaren kontra piko botatzen jarraitu zuten¹⁹¹.

Gai horrek beste arazo batzuk ere piztu zituen, *Eskualduna* astekariaren baitan. Ondoko urteetan laikotasunaren bidean hainbat erabaki hartu zituen Frantziako Gobernuak, eta *Eskualduna* egiten zuten apaizek gustuko ez zituzten zenbait neurri ere bai. 1901eko elkarteen legea egin zelarik, *Eskualduna*-k Baionako Jauffret apezpikuaren jarrera kritikatu zuen, baizik eta Frantziako Gobernuarekin bat egin zuela. apezpikuak artikulu haren kontra idatzi zuen ondoko *Bulletin Diocésaine* agerkarian. Erantzun hark Louis Etcheverry gaitzitu zuen, eta bere astekaria geldiarazi nahi izan zuen. apezpikutegitik eta beste hainbat lekutatik erantzun zioten ez zedin hala asalda, eta ez zezan *Eskualduna* hala utz, segi zezala argitaratzen. Azkenean, amore eman zuen eta ez zuen astekaria geldiarazi, baina berak utzi zuen. Orduetik goiti, astekariak aitzina jarraitu zuen, baina Louis Etcheverry gabe¹⁹²

▪ Renaud d'Elissagaray (1901-1903)

Louis Etcheverryk kargua utzi ondoan, Renaud d'Elissagaray ezarri zuten astekariko zuzendari. Sortzez Atharratzekoa zen, eta Parisen kazetaritzako esperientzia ukan zuen, eta horregatik hartu zuten¹⁹³. Edouard Drumont¹⁹⁴ Pariseko politikari eta kazetari antisemitaren

¹⁹⁰ «Changement de mains», *Eskualduna*, 1901ko uztailaren 19a.

¹⁹¹ Lafitte, «Sarrera», 33.

¹⁹² Ibid., 34.

¹⁹³ Etcheverry, «Changement de mains».

¹⁹⁴ Edouard Drumont (1844-1917), Parisen sortu zen. Bereziki *La France Juive* liburuaren egile gisa egin zen ezagun. 1886an argitaratu zuen liburu hartan bere ideia antisemitak idatzi zituen. 1892an *La Libre Parole* egunkaria sortu zuen, eta urte berean diputatu bihurtu zen, talde antisemita osatuz. Dreyfus aferaren berriz aztertzearen kontra altxatu zen. Xehetasun gehiago: Grégoire Kauffmann, *Edouard Drumont* (Paris: Perrin, 2008); Michel Winock, *Édouard Drumont et Cie: antisémitisme et fascisme en France* (Paris: Seuil, 1982). Irakur ere, hain segur Manex Hiriart-Urrutik Edouard Drumont ohore eginez idatzi zuen artikulua, non bat egiten zuen Drumontek

laguna zen¹⁹⁵. Louis Etcheverry bera baino eskuinago kokatzen zen, politikoki. Ez zuen anitz denbora iraun *Eskualduna* astekariko zuzendari gisa. Lafitteren irudiko, «kalipu gutikoa» zen¹⁹⁶, eta Manex Hiriart-Urrutirekin ez zen ongi moldatzen. Azkenean kexatu ziren, eta kargua utzi zuen, 1903ko abenduaren 31n. Hark kargua uztearekin batean, astekaria izenez aldatu zen, eta *Eskualdun Ona* izena hartu zuen.

D'Elissagaray-ek bide politikoa jarraitu zuen, baina ez Euskal Herrian. Gironde departamenduko Médoc-eko hauteskunde barrutiko diputatu hautatu zuten handik landa¹⁹⁷.

▪ Nicolas d'Arcangues (1904-1907)

1904ko urtarrilaren 8an, *Eskualduna* astekariak izenez aldatu zuenean, zuzendaria ere berria zen. Renaud d'Elissagaray-en ordeaz, Nicolas d'Arcangues Milafrangako politikari eta Uztaritxeko kantonamenduko kontseilari nagusi erregezalea hautatu zuten zuzendari. Funtsean, *Eskualduna*-ko erredaktoreek d'Elissagaray kendu eta hura izendatu zutelako zen kexatu Louis Etcheverry, eta horregatik zuen astekariaren izena aldarazi¹⁹⁸. Baina, ordurako jadanik astekariaren giderrak hartzen zituen Hiriart-Urrutik manatzen zuen, eta Nicolas d'Arcangues «eltzearen estalgi» baizik ez zen, Lafitteren arabera¹⁹⁹. Ez da garbi ofizialki noiz arte izan zen zuzendari. Funtsean, *Eskualdun Ona* astekaria sortu zenean ere ez zuten zehaztu zein zen zuzendari berria. 1909an, ofizialki, Nicolas d'Arcangues zen zuzendari, baina *de facto*, Hiriart-Urrutik betetzen zuen ardura hura²⁰⁰. Zehazkiago, Nicolas d'Arcangues, 1910ean legebiltzarrerako hauteskundeetan monarkiaren aldeko hautagai gisa aurkeztu zen hura, zen zuzendari 1909an, eta Hiriart-Urruti erredaktore buru²⁰¹.

▪ Manex Hiriart-Urruti (1907-1915)

Manex Hiriart-Urruti izan zen astekariko zuzendaririk ezagunena. Alta, ez da ageri zuzendari kargua hartu zuela seinalatzen zuen artikulurik. Zaila da zehaztea ofizialki noiz bihurtu zen zuzendari, baina nahiz eta zenbait iturritan agertzen den Nicolas d'Arcangues-ek zenbait

salatzen zuenean Frantzia judu bihurtzen ari zela: Manex Hiriart-Urruti, «Edouard Drumont», *Eskualduna*, 1893ko otsailaren 10a.

¹⁹⁵ Xarriton, «Eskualduna-ren mendeurrena Baionan».

¹⁹⁶ Lafitte, «Sarrera», 34.

¹⁹⁷ Xarriton, «Eskualduna-ren mendeurrena Baionan».

¹⁹⁸ Ibid.

¹⁹⁹ Lafitte, «Sarrera», 34.

²⁰⁰ Javier Diaz Noci, «Liburuak, aldizkariak eta irakurleak XX. mendeko Euskal Herrian. Euskal testuak eta irakurketa ohiturak», *Vasconia* 27 (1998): 61–85.

²⁰¹ Pierre Tauzia, «La presse dans les Basses-Pyrénées d'après l'enquête diocésaine de 1909», *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* 130 (1974).

urtez jarraitu zuela postu hartan, errealitatean Hiriart-Urrutik zuen kudeatzen astekaria. Nicolas d’Arcangues zuzendari ofizial baizik ez zen²⁰².

Eskualdun Ona astekariak izen zaharrari lekua utzi zion garaian, Hiriart-Urrutik beste kargu bat ukan zuen, Elizaren baitan. 1907ko abenduaren 10ean hil zen ordu arteko Baionako kalonje zen Gratien Adéma *Zaldubi*. 1908ko urtarrilaren 3ko *Eskualduna*-k iragarri zuen bezala, Manex Hiriart-Urrutiren esku gelditu zen kalonje kargua, apezpikuak kargu hartara deiturik²⁰³. Kargu hori lorturik, denbora guztian Baionan zegoen, eta beraz astekaria ongi lantzeko astia izan zuen²⁰⁴.

Batek baino gehiagok azpimarratu izan du apezpikuak Hiriart-Urrutiri *Eskualduna* astekariaren ardura hartzeko eskatu ziola²⁰⁵. Hil zenean, *Eskualduna*-k argi aitortu zuen apezpikuak zergatik deitu zuen kalonje kargura:

*Quand Mgr l’Evêque connut son talent et son heureuse action comme journaliste, il l’appela au chapitre de sa cathédrale, voulant faire de lui l’interprète de ses actes épiscopaux pour le Pays Basque et lui permettre de consacrer entièrement à son journal.*²⁰⁶

Horregatik idatzi dugu Hiriart-Urruti 1907an bihurtu zela zuzendari. Ez da osoki hala, edo ez ofizialki, baina beste datarik ez denez agertu, hori kontsideratuko dugu data gisa. Aipatutako artikulu horretan, gainera, *Eskualduna*-k idatzi zuen Hiriart-Urrutik ia mende laurden batez segurtatu zuela astekariaren kudeaketa. Hein batez zuzen zebilen, 24 urte lehenago sartu baitzen astekarian, 1891n; baina hastapenean laguntzaile gisa, nahiz eta ideiak argi zituela hasi. Baina, funtsean, 1904an edo 1905ean bilakatu zen, errealitatean, *Eskualduna*-ko zuzendari²⁰⁷. Eragin handia izan zuen, *Eskualdun Ona* astekarian. Alabaina, 1904an astekariak ez zuen izena bakarrik aldatu: edukian ere aldaketa gehiago nabaritu zen, edukia aberastu eta euskarari leku gehiago eman baitzioten²⁰⁸. Halaber, ildo editorialaren aldetik, Baionako apezpikuaren eskuetara lerrokatu zen, Nicolas D’Arcangues zela zuzendari eta Manex Hiriart-Urruti erredaktore buru²⁰⁹.

Hiriart-Urruti oraino zuzendari zela hil zen, 1915eko azaroan.

²⁰² Lafitte, «Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) et les débuts du journalisme basque».

²⁰³ «Nos collaborateurs», *Eskualduna*, 1908ko urtarrilaren 3a.

²⁰⁴ Lafitte, «Sarrera», 34–35.

²⁰⁵ Diaz Noci, «Liburuak, aldizkariak eta irakurleak XX. mendeko Euskal Herrian. Euskal testuak eta irakurketa ohiturak».

²⁰⁶ «Le Chanoïne Hiriart-Urruty», *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 19a.

²⁰⁷ Lafitte, «Eskual astekariaren ixtorioa».

²⁰⁸ Lafitte, «Sarrera», 34–35.

²⁰⁹ Altzibar, «Zer dakarkio Hiriart-Urrutik euskal kazetaritzari?».

- **Blaise Adéma (1918-1925)**

Manex Hiriart-Urruti hil ondoan, astekaria zuzendari ofizialik gabe egon zen zenbait denboraz, itxura guztien arabera, eta baita Piarres Lafittek baieztatu zuenaren arabera ere²¹⁰. Hasteko, inon ez dago zuzendari bat izendatua izan zelako arrastorik, ez *Eskualduna* astekarian, ez beste inoren ikerlanetan. Are gehiago, astekari horretaz egin diren lanetan, Blaise Adéma ezartzen dute astekariko zuzendari gisa 1915etik landa. Baina, Adémaren biografian aipatuko dugun bezala, Senpereko elizgizonak 1918ko agorrilaren 8an baizik ez zuen hartu astekariko zuzendari kargu ofiziala, hots, Baionako kalonje kargua hartu zuen mementoan berean. Hala ere, 1915eko azarotik landa, nahiz eta ofizialki ez zuzendari izan, hark idazten zuen lehen orriko artikulua nagusia, gero azalduko dugun bezala²¹¹.

- **Gerlatik landako zuzendariak**

Blaise Adémak zuzendari kargua utzi ondoan, Jean Saint-Pierre apaiz eta *Eskualduna*-ko kazetariak bete zuen ardura hori 1925etik 1930era. Gero, Domingo Soubelet apaizak hartu zuen kargua, 1930etik 1937ra. 1937an Xalbat Arotzarena kalonjea bihurtu zen astekariko buru, eta 1944 arte hura izan zen, astekaria debekatu zuten arte.

***Eskualduna*-ko zuzendariak**

Zuzendari	Noiz
Louis Etcheverry	1887-1901
Renaud D'Elissagaray	1901-1903
Nicolas d'Arcangues	1904-1907
Manex Hiriart-Urruti	1907-1915
Blaise Adéma	1918-1925
Jean Saint-Pierre	1925-1930
Domingo Soubelet	1930-1937
Xalbat Arotzarena	1937-1944

Irudia 7. *Eskualduna*-ko zuzendariak

Argi gelditzen da zuzendari horiek guztiak ez zirela kazetaritzagatik zuzendari, eta beraz, lan hartan trebe izan bazitezkeen ere, lehenik politikari edo Elizako arduradun izanez, kazetaritza egiteko beste modu bat zuketela.

e) *Eskualdun Ona*-ren parentesia

Zuzendarien kronologiak egitean, laburki aipatu dugu garai batez astekariak *Eskualdun Ona* izena ukan zuela, hala nola 1904an, 1905ean eta 1907an. Renaud d'Elissagaray zuzendaria joatearekin batera, beste aldaketa handi bat gertatu zen *Eskualduna*-rentzat: astekariak izena

²¹⁰ Lafitte, «Eskual astekarien ixtorioa».

²¹¹ Ikus: 224

aldatu behar izan zuen. Hiriart-Urrutiren eragina gero eta handiagoa zen, eta, funtsean, d'Elissagarayekin zituen desadostasunek bazuketen beren eragina aldaketa haietan. Hiriart-Urruti astekariari beste itxura baten ematearen aldekoa zen, adibidez, politika arloan legez gehiago interesatzea proposatu zuen, beste zenbait aldaketen artetik. Louis Etcheverry, nahiz eta zenbait urte haietan astekaritik urrundua izan, Hiriart-Urrutiren aldaketa nahiez ohartu zenean, sutan jarri zen, eta izenburu haren erabiltzea debekatu zion Hiriart-Urrutiren taldeari²¹².

Gisa horretan, *Eskualduna* astekariaren azken zenbakia 1903ko abenduaren 31koa zen, eta haren lekua hartu zuen *Eskualdun Ona* astekariaren lehenbizikoa 1904ko urtarrilaren 8an agertu zen. Baina ez zen haserre edo zatiketa girorik nabari bi zenbaki horiek irakurtzean. *Eskualduna*-ko zuzendaritzakoek ongietorria egin zioten haren lekua hartuko zuen *Eskualdun Ona*-ri:

Azken aldikotz agertzen da egun Eskualduna. Egun zortzitik harat hunen orde, langile berez, prezio berean, chede berari darraikola, bakharrik neurritz hau baino handichago, izena ere hunek baino luzechago agertuko da, eta esperantza dugu Eskualdun maite hunen adichkide guziek, kondizione berririk den gutiena gabe, hunen segida, edo hobeki erraiteko, hau bera balitz bezala hartuko dutela hunen ondoko jartzen den kazeta berria: Eskualdun ona.

Kasik izen bera, ez dea hala?

Eskualdunaren jabe eta buruzagi zirenekin, onez onean elgar hitz-harturik; berritze huni buruz hek eta gu, eta gure laguntzaile berriak, oro bat girelarik, egiten dugu urhats hau.»²¹³

Itxura bera zuten bi astekariak, diseinu bera, izenburuaren aurkezpen bera. *Eskualduna* hiru zutabetan zen eta *Eskualdun Ona* lau zutabetan, lehena baino luzeagoa eta zabalagoa (50 zentimetro luze eta 32 zentimetro zabal) izanik bigarrena²¹⁴. Gainerakoan aldaketa gutxi. Orogen buru, belaunaldi berri baten esku gelditzea sinbolizatu zuen aldaketa horrek. Talde zaharrekoek bide ona opa zioten talde berrikoiei, eta errespetuz beteak ziren testu haietan ez zen haserrearen arrastorik ageri. Baina bereizte bat izan zela ezin uka, are gutxiago *Eskualdun Ona* astekariko lehen artikulua irakurri ondoan:

Gutaz egin ditzuen laudorio handiegiez baino esker gehiago dautzuetegu zeren, zuen buruak ahantziz, nahi izan duzuen aldatze hau egin zadin egina izan den bezala, kazeta zaharraren ondotik, haren ordain, berria berehala jartzeko errechasun guziekin. Aldatu behar eta, ez ginintazken hobeki alda, elgar adituz, elgarri orhoitzapen ahalik hoberena utziz; ba eta ere guri esperantza egun batez oraino, bizi bagira, berriz elgarrekin bat egingen dugula, Jinkoak nahi duelarik, agian oraino egun hitsen ondotik hobe batzu jitearekin!²¹⁵

²¹² Lafitte, «Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) et les débuts du journalisme basque».

²¹³ «Eskualdun Ona», *Eskualduna*, 1903ko abenduaren 31a.

²¹⁴ Lafitte, «Eskual astekariaren ixtorioa».

²¹⁵ «Eskerrak», *Eskualdun Ona*, 1904ko urtarrilaren 8a.

Artikulu horretako beste pasarteak irakurriz, lerroen artetik ulertzen da Renaud D'Elissagaray-ek ez zuela parte hartu nahi izan aldaketa horietan, eta taldea bereizi zela. Bereiztea ez zen, itxura batean, haserre giroan egin. Baina, argi dena da, talde berri batek hartu zuela gidaritzia.

Astekariak *Eskualdun Ona* izenburua lau urte osoz atxiki zuen, 1907ko abenduaren 27 arte. 1908ko urtarrilaren 3an, euskarazko astekariak izen zaharra berreskuratu zuen, Louis Etcheverry aitzineko urriaren 15ean hil ondoan, eta haren alargunak izena berreskuratzeko baimena emanik. *Eskualdun Ona*-ren azken zenbakiak horrela azaldu zuen aldaketa:

Il y a quatre ans, à pareille époque, M. Louis Etcheverry, dont nous pleurons tous la fin prématurée, crut devoir, pour des raisons dont il était juge, renoncer à poursuivre dans son vaillant journal Eskualduna la lutte qu'il avait entreprise depuis 1886 contre tout ce qui pouvait amoindrir dans notre cher Pays basque les traditions de religion, de patriotisme, de saine politique et de respect du passé.

[...] Le journal [Eskualdun Ona] a suivi le sillon tracé par son prédécesseur, les mêmes collaborateurs dévoués lui ont donné leur concours désintéressé, et nous pensons avoir rempli vis-à-vis de Louis Etcheverry notre engagement de tenir haut et ferme le drapeau de Dieu et du Pays basque. Aujourd'hui, nous publions pour la dernière fois Eskualdun Ona. Par une délicate attention, et pour perpétuer davantage parmi nous le souvenir de son mari, Mme Louis Etcheverry, autorise notre journal à devenir ce qu'il était primitivement, c'est-à-dire Eskualduna sans épithète.²¹⁶

Ororen buru, 1904ko urtarriletik 1907ko abendua arteko epe horretan, *Eskualduna* astekari gisa ez bazen agertu ere, agertu ez zena izena baizik ez zen. Funtsean, aldizkaria bera zen, eta *Eskualdun Ona* astekariaren saila *Eskualduna*-ren sailean sartzen da. Horren lekuko da, 1903ko abenduaren 31ko *Eskualduna*-ren zenbakia 862. zenbakia zela, eta izena berreskuratu ondoan ukan zuen zenbakia, aldiz, 1082. zenbakia. Horrez gain, 21. urtea zela ere zehazten zen azalean berean. Izenaren parentesi hark euskarazko astekariaren bizirik irautea segurtatu zuen, oroz gainetik.

f) Administrazioa

Erredakzioari loturik, beste kargu edo ardura batzuk ere bete behar ziren, eta beraz erredaktoreek eta zuzendariak administrazio arloko arduradun batzuen laguntza bazuten. Lehen aipatu dugun Arnaud Pochelou izan zen lehenbiziko administrari eta kudeatzailea. Hauek izan ziren, *Eskualduna* sortu zenetik gerla bukatu artean izan ziren administrariak:

- Arnaud Pochelou, 1887tik 1905eko abenduaren 28ra²¹⁷.

²¹⁶ «Eskualdun Ona», *Eskualdun Ona*, 1907ko abenduaren 27a.

²¹⁷ *Eskualduna* astekaria izenez aldatu zenean utzi zuen kargu hori.

- Clément Monge, 1906ko urtarrilaren lehenetik 1914ko azaroaren 2ra. Sortzez baionarra, ofizioz kontularia zen, Société Générale bankuan, eta bere lanaz gain, *Eskualduna* astekariko kontuak ere kudeatzen zituen. 1914ko irailaren 15ean hil zen, Craonneko frontean, 34 urte zituela. 49. Infanteria Erregimentuko soldadua zen.

Clément Monge hil ondoan, ez zen izan administratzailerik, baizik eta gerenteak bakarrik. Mongek ia bi urte pasatu zituen administratzaile eta gerente gisa, 1906ko urtarriletik 1907ko azaroaren lehenera, lehenago Pochelouk egin zuen bezala. Baina 1907ko azaroaren 8tik aitzina administratzailea eta gerentea bi pertsona ezberdin ziren. Hauek izan ziren gerente, hurrenez hurren:

- H. Dératte, 1907ko azaroaren 8tik 1909ko urtarrilaren lehenera.
- E. Dubourdiou, 1909ko urtarrilaren 22tik, 1922ko uztailearen 21era.
- A. Milox, 1922ko uztailearen 28tik goiti.

Bestalde, *Eskualduna* argitaratzen zuen enpresa bat sortu zuten 1917an, hala nola Société du Journal «Eskualduna» S.A. enpresa. Enpresaren estatutuen arabera²¹⁸, helburua astekariaren kudeaketa guztia zen:

*Tous soussignés apportent à la dite société: le titre et la propriété du journal politique hebdomadaire Eskualduna fondé par Monsieur Louis Etcheverry, député des Basses Pyrénées et publié à Bayonne; la clientèle d'abonnements et tous les droits sans exception attachés à l'exploitation de ce journal, notamment les droits résultant de tous traites concernant la rédaction, l'impression, les annonces, également l'actif de l'Eskualduna, suivant le dernier inventaire du 31 décembre 1915.*²¹⁹

Astekariaren diru kontu horiek kudeatzeko, 19.000 liberako kapitala banatu zuten 500 liberako 38 akziotan. Ondoko hauek ziren akziodunak:

Lau akziorekin:

- Pierre Broussain mediku eta Hazparneko auzapeza.

Bina akziorekin:

- Nicolas D'Arcangues, kontseilari nagusi eta Milafrangako jabea.
- Eugène Celhabe, Bardozeko jabea.
- Albert Constantin, Atharratzeko medikua.
- Jean-Pierre Alamon, Donibane Garaziko notario eta hiriguneko kontseilaria.
- Pierre Elissague, Sarakoa

²¹⁸ *Statuts de la Société Anonyme «Eskualduna».*

²¹⁹ Ibid.

- Joachim Elissague, hiriguneko kontseilaria, Sarakoa.
- Laurent D'Andurain, Mauleko jabea.
- Gaston de Laborde Noguez, Uztaritzeko jabea.
- Charles Minjonnet-en alarguna (sortzez Hourcade deiturako²²⁰), Baigorriin.

Akzio banarekin:

- Alexis Dourisboure, Senpereko medikua.
- Clément Fagalde, Hiriburuko notario ohia
- Jean Etxepare, Aldudeko medikua.
- Joseph Sala.
- Jean-Blaise Adéma, Uztaritzeko erretorea.

Sortu zenetik gerla bukatu artean, egoitza anitz izan zuen astekariak. Astekariaren aleetan begiratu dugu, haien erredakzioaren egoitza zein zen jakiteko:

- Victor Hugo karrikako 39. zenbakian, 1887tik 1890eko otsailaren 14era.
- Jacques Laffitte karrikako 9. zenbakian, 1890eko otsailaren 21etik 1904ko abenduaren 31ra.
- Galuperie karrikan, 1905eko urtarrilaren lehenetik urtarrilaren 8ra²²¹.
- Marengo karrikako 8. zenbakian, 1905eko urtarrilaren 8tik abenduaren 30ra.
- Pannecau karrikako 39. zenbakian, 1906ko urtarrilaren 5etik 1910eko otsailaren 11ra.
- Bourgneuf karrikako 53. zenbakian, 1910eko otsailaren 18tik 1912ko martxoaren 1era.
- Carmes karrikako 3. zenbakian, 1912ko martxoaren 8tik apirilaren 19ra.
- Bourgneuf karrikako 69. zenbakian, 1912ko apirilaren 26tik 1917ko agorrilaren 31ra.
- Jacques Laffitte karrikako 8. zenbakian, 1917ko irailaren 7tik aitzina.

Ongi ageri da *Eskualduna* astekariaren erredakzioa ez zela Baiona Ttipitik edo San Andres auzotik mugitu, salbu Victor Hugo eta Carmes karriketean egon zen garaian, baina

²²⁰ Aipatu estatuetan ez du zehazten zein zen alargun horren deitura, izena ere ez funtsean. Piarres Xarritonek aipatu du Charles Minjonneten biografia labur batean, zeinekin ezkondu zen 1894an (deitura bakarrik), hala nola Hourcade batekin: Charriton, *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques (1895-1920)*, 59.

²²¹ Aste horretan aldatu zen *Eskualduna* astekaria izenez. Alegia, *Eskualdun Ona* astekaria sortzarekin batera, erredakzioa egoitzaz aldatu zen.

hori ere doi-doia Errobi ibaiaren bestaldean izan zen. Astekaria Baionako A. Lamoignon inprimategiak inprimatzen zuen, *Eskualdun Ona* astekaria sortu arte, hala nola 1887tik 1904ko abendu bukaerara. Gero, *Eskualduna*-koek berek Franco-Basque inprimategia sortu zuten, inprimeria tresnen jabe izan nahiz. Ekonomikoki ez zen aski bideragarria izan, berek aitortu zuten, eta 1909 bukaeran saldu behar izan zuten²²². 1910eko otsailean A. Lamoignon eta Franco-Basque inprimategiak elkartu ziren eta A. Foltzer inprimatzaile gazteak hartu zuen haien segida. 1925ean Courrier inprimategiak inprimatu zuen *Eskualduna* astekaria, 1941 arte. Urte hartan La Presse inprimategia hasi zen astekariaren inprimatzen.

Eskualduna astekaria ostiraleko eguneko datarekin ateratzen zen. Baina zehaztu behar da igandetan saltzen zela. Hain zuzen, 1894ko artikulu batean astekariaren egiteko prozesuari buruzko zenbait xehetasun eman zituen, hain segur Hiriart-Urrutik. Artikulu haren arabera, astekaria larunbat goizetan eskuratzen zuten egileek. Beraz, larunbatetan ateratzen zen inprimategitik. Bestetik, osteguna izaten zuten astekaria egiteko eguna²²³. Hori baieztatu daiteke, funtsean, gerla garaiko artikuluei so eginez. Egunez eguneko sailean, aitzineko asteko ostegunetik aste horretako asteazken arteko berriak ematen zituzten.

g) *Eskualduna*-ren eredu berezia

Astekariaren egiteko baldintzak ikusirik, ohartu gara modu amateurrean egindako astekari bat zela. Langileak ez ziren profesionalak, nahiz eta batzuek bederen inplikazio handia izan zutelako hauteman dezakegun. Hori kontuan harturik, begi bistakoa da ez dezakegula egunkari edo astekari profesionalekin parekatu, baina garai hartan nagusitzen ari ziren informazio iturri eta kazetaritza ereduak eta *Eskualduna*-k zituenen arteko konparaketa bat egin dezakegu.

Kazetaritzaren profesionalizatzearekin batera, gero eta egunkari gehiago sortu zen eta informazioa merkatu bihurtu zen, eta horrekin negozioa egiteko bidea aurkitu zuenik bazen, ezagunena Havas prentsa agentzia zen. Gilles Feyelek ongi laburbildu zuen agentzia horren ibilbidea²²⁴: prentsaren munduan izan ziren aldaketak baino lehenagotik hasi zen egunkarietara zerbitzuak eskaintzen. Charles-Louis Havas merkatariak nazioarteko egunkarien itzulpen zerbitzu bat eskainiko zuen agentzia bat zabaldu zuen 1832an. Gerora, Frantziako egunkarietara eskaintzen ziren zerbitzu hori zabaldu zuen, eta artikuluen itzulpenak eskaintzeko ordez, nazioarteko informazioa bera eskaintzen zuen. Ondoko urteetan, XIX. mendeko azken bi hamarkadetan, oraino zerbitzu gehiago eskaintzen hasi zen, baita eskualdeetako egunkarietara

²²² «Foltzer baithan», *Eskualduna*, 1909ko abenduaren 24a.

²²³ Manex Hiriart-Urruti, «Eskuara gehiago», *Eskualduna*, 1894ko maiatzaren 18a.

²²⁴ Feyel, *La presse en France des origines à 1944. Histoire politique et matérielle*, 98.

ere. Halaber, ildo politiko desberdineko egunkarientzat egokituak izaten ziren artikuluak idazten zituen.

Prensa agentzien sistemak gaur egun ere funtzionatzen du. Eta orduan ere funtzionatu zuen. Hain zuzen, Frantziako egunkariak, oro har, nahiago izan zuten Havas agentziarekin lan egin, gertakariak ziren lekura berriemaile bereziak igorri baino. Alabaina, kazetari bat igortzeak gastu handiak eragiten zizkion egunkari bati, eta dirua aurrezteko xedez, Havas agentziari erosten zizkieten artikuluak²²⁵.

Dena den, Pariseko egunkari handiak ziren Havas agentziarengana jotzen zutenak. Eskualdeetako egunkariak aski laster autonomoagoak izan ziren beren edukiak betetzeko, tokiko berriemaile sareen bidez²²⁶. Horrekin pentsa daiteke lekuko informazio iturriak askotarikoak zirela, baina nazioarteko berrien iturriak bakar batzuk baizik ez zirela. Gure gaira etorriz, *Eskualduna* astekariak Havas agentziarekin kontraturik ba ote zuen? Hipotesia horrek ez du itxura handirik. Bere xumean, indar gehiago egiten bide zuen lekuko berriketarien berrien biltzen, eta nazioarteko berriak egunkarietatik kopiatzea edo laburbiltzea nahikoa izan zitekeen. Funtsean, hori egiten zutela aitortu izan zuen Hiriart-Urrutik berak:

*Gure langilek ez baitakite ongi eskuara, gazeta frantses batzuetarik ebaska bezala hartzen dituzte berriak, eta ezartzen Eskualdunean hala-hala.*²²⁷

Astekaria nola osatzen zuten azaldu zuen Hiriart-Urrutik, zergatik ez zen euskara anitz galdetu zuen irakurle bati erantzunez. Argitu zuenaren arabera, hainbat langilek ez zekiten euskara anitz eta frantsesezko artikuluak hartzen zituzten, ziren bezala edo moldaturik, baina ez zituzten euskarara itzultzen. Ez zuen zehaztu aipatzen zituen frantses kazeta horiek zein ziren, baina argi gelditu zen Frantziako eta nazioarteko berriak beste egunkarietatik hartzen zituztela eta ez, hain segur, prentsa agentzietatik. Beraz, bigarren eskuko berriak ematen zituzten. Gerla denboran, adibidez, nahiz eta artikulu gehienak euskaraz izan, informazio iturri berak zirela ondoriozta daiteke, artikuluak hitzez hitz argitaratzeko ordeztuz eta, hain segur, laburbiltzen bazituzten ere.

Beraz, *Eskualduna* astekariak ez zuen ekarpen berezirik egiten nazioarteko berrien arloan, baina irakurleentzat horrekin nahikoa izan zitekeen, besterik ez bazuten irakurtzen. Hastapeneko urteetan, artikuluak franko era nahasian emanak ziren, ordena zehatzik gabe. Izan zitezkeen hainbat informazio erabilgarri, eskolari buruzko xehetasunak edota merkatuko berri, adibidez. Baina egituraketa egokituz eta finduz joan zen urteak iragan ahala, eta 1894ko

²²⁵ Livois (de), *Histoire de la presse française*. 2, de 1881 à nos jours, 351.

²²⁶ Feyel, *La presse en France des origines à 1944. Histoire politique et matérielle*, 100.

²²⁷ Hiriart-Urruti, «Eskuara gehiago».

azaroan «Asteko berriak» saila sortu zuten. Euskal Herritik kanpoko berriak (Frantziakoak eta munduko beste herrialdeetakoak) aipatzen zituzten, franko gainetik eta laburki, bata bestearen ondotik. Beste garai batzuetan, eta gerla garaian bereziki, «Berriak egunka» saila sortu zen, edo berri horiek gaika sailkatzeko ordez, egunka sailkatzen zituzten.

1910eko abenduan, «Berrixkak» sailarekin ere hasi ziren. «Asteko berriak» sailetik landa, interes apalagoko berri ttipiak ematen zituzten, gehienbat orotariko gertakariak edo bitxikeriak aipatuz. Sail horren ondotik, edo sail hori baino lehen, beste artikulua batzuk ere agertzen ziren, artikulua independenteak, gai bati edo gai batzuei buruz, frantsesez edo euskaraz.

Baina astekariaren sail indartsuak hurbileko gaiak hunkitzen zituztenak bide ziren, «Laborarier» saila bezala. Garai luze batez Arnaud d'Abbadiek idazten zuen sail hori. Normal da, gisa batez, sail hark garrantzia izan zezan, pentsatuz astekariaren irakurle gehienak laborariak zirela. Laborarientzako aholkuak eskaintzen ziren sail hartan. Ezagutarazte edo zabaltze lan hark garrantzia bazuen.

Eskualduna-ren bigarren indarra beste bat zen, hala nola herrietako berriemaileen sarea. Hiriart-Urrutik herrietako berriemaile sare handi bat osatu nahi zuen, eta berrien igortzeko eskatzeko ohitura bazuen, bere artikulua batzuetan. Ez dugu azterketa zehatzik egin ikusteko zenbat herritako berriak ematen zituen eta zer maiztasunekin. Baina zenbait zenbakiri so eginez atera daitekeen ondorioa da, herrietako berriemaile sarea ez zela hastapenetik egin, eta pixkanaka osatuz joan zela. Lehen zenbakietan herri bakar batzuetako berriak baizik ez ziren heltzen, bakar batzuk euskaraz, beste batzuk frantsesez. Sail hori Hiriart-Urrutirekin garatu zen, lan handia egin baitzuen berriketariak bilatzen.

Xabier Altzibarrek dioen bezala, Hiriart-Urrutik hainbat irizpide finkatu zituen, berriketariak nola idatzi behar zuten zehaztuz. Berriak igortzekotan, norik igorri zituen jakin behar zuen, izenik gabeko artikulurik ez zuela onartuko zehaztu zuen, halaber bizi pribatuari buruzko informaziorik ez zuela onartzen gehitu zuen²²⁸. Beharrez, artikulua zuzentzen eta berriidazten zituen.

Lan handia egin zuen berriketarien bila, eta fruituak ere lortu zituen. Hastapenean herri gutxitako berriak heltzen baziren ere, «Eskual Herria» saila gero eta mardulagoa izan zen urteak aitzina joan ahala. *Eskualdun Ona* astekariaren garaian, adibidez, «Eskual Herria» sailaz gain, «Ziberoan» saila ere egin zuten, Zuberoa herrialdea Lapurdi eta Baxenabarretik bereiziz. Hori, dena den, Zuberoko berriketari sare bat osatu zuelako frogaz zen. Geroago, Lapurdik,

²²⁸ Altzibar, «Sarrera», 2.5.4.

Baxenabarrek eta Zuberoak bakoitzak bazuen bere saila. Are gehiago, Amikuzek bazuen bere sail propioa, Baxenabarretik bereiz.

Ez ziren herri guztietako berriak agertzen, eta gehienetan beti herri beretakoak errepikatzen ziren, itxura guztien arabera, *Eskualduna*-k zuen berriemaile sarearen arabera. Zuberoako berriek Lapurdikoek eta Baxenabarrekoek bien artean hartzen zuten tokia bezainbat edo gehiago okupatzen zuten zenbait zenbakitan. Ez bereziki herri gehiagotako berriak izaten zirelako, baizik eta artikulu bakoitza luzeago zelako. Zuberoako herri batzuetako berriak biziki luze barnatuak ziren.

Horrez gain, denboraren buruan, Baztango eta Nafarroako berriak agertzen hasi ziren. Beste batzuetan trenen ordutegien taulak argitaratzen zituzten, ia orri osoa betetzen zuten taulen bidez.

3. Politika eta polemikatik informaziora

Kazetaritza arloan informazioaren antolaketan baino aldaketa sakonagoa gertatu zen, politikaz hitz egiteko moduan. Horrek eragin handia izan zuen prentsan, baita Frantziakoan ere. Eta *Eskualduna*-ri dagokionez, politikaren aipatzeko modu berriarekin bat egin zuen ala ez aztertzea komeni da. Informazioa gero eta zabalduagoa izateak eta, bereziki, informazioaren zirkulazioa gero eta bizkorragoa izateak egunkarien edukietan ere izan zuen eragina. Teknika aldaketek kazetaritza eredu berriak ekarri zituzten. Frantzian politika eta polemikarako joera handia zegoen, baina Amerikako Estatu Batuetan informazioaren zabaltzeko bide berriak sortu ziren, agentzien garapenarekin. Ez Frantzian, ez *Eskualduna* astekarian, ez zitzairen anitz gustatu informazio mota berri horien sartzea. Frantziako prentsaren bilakaera hein batez desberdina izan zen, politikoagoa. *Eskualduna* astekaria ere guztiz inplikaturik zen politikan, izan zuen zuzendaritzari so eginez. Hortaz, Frantziako prentsak eredu berezi bat asmatu zuen, eta *Eskualduna*-k ere bere gisako eredu bat zuen.

a) Polemikari eta politikari eusten

Frantzian ez zeukaten politikaz aparteko gaiak aipatzeko eta polemikak baztertzeko ohiturarik. Eta *Eskualduna* frantses ohitura haren arabekoa zen. Prentsaren mundua edukien aldetik aldatzen ari zen, eta aldaketa hark ez zuen harrera bera izan Frantzian eta Ipar Euskal Herrian. Frantziako prentsak gogoeta politikoak eta artikulu literarioak (eleberriak hainbat zatitan, adibidez) argitaratzeko ohitura zuen. *Le Matin* egunkariak, 1883an sortu

zelarik, eredu anglosaxoia hartu zuen. Eredue haren arabera prentsa egiten hasi zen, Europako beste hainbat lekutan bezala: lehentasuna ez zeukan gehiago iritziak, baizik eta informazioak, erreportajeak eta elkarrizketak. Aldaketa haiek ez zuten harrera biziki ona ukan Frantziari, eta eztabaida handiak piztu zituen, batzuek «kazetaritzaren nora eza» salatu baitzuten²²⁹. Batzuek kazetaritzaren «amerikartzea» salatu zuten, eta beraz aldaketa hori emeki gertatu zen²³⁰. Biziki adierazgarria da *La Croix* egunkariaren lehen zenbakiko lehen artikuluan, haren sortzaile François Picard-ek, kazetaritzaz idatzi zuena:

«A notre avis, la presse quotidienne est la plaie de l'époque. Le meilleur des journaux ne vaut rien, car il habitue l'homme à ne plus réfléchir et crée une société superficielle qui rit de tout et veut trouver un sujet d'amusement même dans les deuils publics»²³¹.

Artikulu horretan aipatzen zuen ez zutela «kazetaritzaren apologia» egin nahi. Hots, kazetaritza zerbait txar gisa ikusten zuten. XIX. mende bukaeran, *Eskualduna* sortu zen garaian edo zenbait urte lehenago, informazioaren orde, polemika politikoekin eta komentarioekin betetzen zituzten egunkarien orrialdeak²³². *La Croix* egunkaria, adibidez, anitz aldatu da sortu zenetik, baina hastapenean estilo erretorikoa eta gero polemikoa izan zituen, gaur egungo kazetaritza eredura jin aitzin²³³. Iritziak toki inportantea zuen. *Eskualduna* astekarian ere ikaragarriko presentzia zuen, asteko artikulu garrantzitsuena lehen orriko artikulu nagusia zelako, editorialaren funtzioa zuena eta guztiz erretorikoa eta politikoa zena. Artikulu hura besteak baino hizki handiagoz idatzia izaten zen, artikulu garrantzitsuena zela erakutsiz. Hura izaten zen, gainera, lehenbiziko artikulua, zutabe bat edo zutabe bat eta erdi okupatzen zuena, gehienetan. Gisa horretako artikulua editorial deitzen dira gehienetan, eta funtsean, sail hura ere editorialtzat jotzen zen. Artikulu hartan agertzen zen kazetaren iritzia hainbat gairi buruz: Frantziako politika eta erlijioa maiz aipatzen zituzten gaiak ziren.

Baina orduko prentsa ikertu dutenek joera hori aski orokorra zela azaldu dute. XIX. mende bukaerako Frantziako prentsa polemikoa zen. Eztabaida politikoen oihartzuna zen. Frantziako Legebiltzarreko gorabeheren eta kalapiten luzapena ziren agerkariak. *Eskualduna* halakoa izan zen. Polemika horien adibide garbiena Dreyfus afera²³⁴ izan zen: ez zen

²²⁹ Thomas Ferenczi, *L'invention du journalisme en France: naissance de la presse moderne à la fin du 19e siècle* (Paris: Plon, 1993), 13.

²³⁰ Bellenger et al., *Histoire générale de la presse française. Tome 3. De 1871 à 1940*, 278.

²³¹ François Picard, «Le journal La Croix», *La Croix* (Paris, 1883ko ekainaren 16a).

²³² Casenave, *De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etxepare*, 126.

²³³ René Rémond, «Préface», in Fruchart, Vincent eta Daniel Conrod: *La Croix: un siècle d'histoire: 1883-1983* (Paris: La Croix-Bayard-Presses, 1983).

²³⁴ Dreyfus auziaz eta hark piztu zuen polemikaz xehetasun gehiago: Janine Ponty-Lavieville, «La France devant l'Affaire Dreyfus: contribution à une étude sociale d'opinion publique: 1898-1899» (doktorego-tesia, École pratique des hautes études (Paris), 1971); Vincent Duclert, *L'affaire Dreyfus* (Paris: Fayard, 2006).

euskarazko astekaria izan kalapita gorri hura elikatu zuen bakarria. Frantziako politika bitan banatu zuen afera zen, eta prentsan eztabaida haren oihartzuna nabaria izan zen. Patrice Bousselek dioenaren arabera, prentsak zuen puztu afera hura, eta prentsa zen polemikaren erantzule nagusia²³⁵. Eta polemika giroa eta iritziak emateko joera ez zen editorialera mugatzen, gainerako artikuluetan ere aski ohikoak ziren komentarioak, artikuluen hasierako edo bukaerako esaldi batzuen bidez, edo artikuluen erdiko adjektibo batzuekin.

Ildo horretan, Manex Hiriart-Urrutiri kazetari gisa ematen zioten balioa erlatibiza daiteke. Erretorikan maisua zen, gauzak kontatzeko ikaragarriko trebezia bazuen, lehenbiziko euskal kazetariarik bat zen, baina kazetaritzaren oinarriko arauak errespetatzen ote zituen, hori besterik da. *Eskualduna*-ko zuzendari gisa egin zuen lana eta izan zuen merezimendua gutxietsi gabe, komeni da haren artikulua barnagotik aztertzea eta garai hartan egin ohi zen kazetaritza ereduarekin konparatzea, ikusteko zenbaterainoko kazetaria zen eta zenbaterainoko erretorika egilea. Bat egiten dugu Iñaki Caminok aipatu zuen Jean Etxepareren iritziarekin:

«Ordea, beste zenbaitetan ele jarioaren azalaren pean mami gutixko aurki zitekeela diosku Etxeparek, eta inoizka ere idazlea nahasixea dabilen ustearekin gelditzen dela irakurlea. Haren ihardunak politikeroen odol tintta bat bazuela zainetan, beroa zela, gatazkaria, suharra borrokan, haginak ardurasko zorrotz eta aztaparrak sistakor zituela»²³⁶.

Hiriart-Urrutiren jite polemikoa ez du dudan ezartzen Xabier Altzibarrek ere. Are gehiago, haren artikuluetan «xede dogmatikoa [dela] nagusi» dio. Tonu «erasokorra, polemiko eta borrokalaria, franko aldiz irri eta trufazkoa da» ere aipatu du²³⁷.

Dena den, polemika politikoei leku handia ematen bazieten ere, irakurleengan zuen eragina erlatibizatzen dute batzuek. Zenbait urteren buruan, irakurleak polemikaz aseak ziren²³⁸. Amerikarren eredu nagusitu zen gero: informazioari eman zitzaion lehentasuna, eta iritzia bigarren planoan gelditu zen. Baina *Eskualduna* astekariaren bilakaera ez zen hain garbia izan. Aski ohikoa zen berri bat ematean, iritzi bat edo informaziorako baliagarri ez zen komentario soil bat agertzea, erakustera emanez zein zen kazetaren iritzia.

²³⁵ Patrice Bussel, *L'affaire Dreyfus et la presse* (Paris: Armand Colin, 1960), 6–8.

²³⁶ Iñaki Camino, «Hitzaurrea», in Hiriart-Urruty, Jean: *Gontzetarik jalgiaziak*, ed. Iñaki Camino (Donostia: Euskal Editoreen Elkarte, 1994), XXII-LXI.

²³⁷ Altzibar, «Sarrera», 60.

²³⁸ Bellenger et al., *Histoire générale de la presse française. Tome 3. De 1871 à 1940*, 255.

b) Zuzendari politikoak

Lehenago aipatu dugu *Eskualduna* astekariaren egileak ez zirela kazetari profesionalak. Eta profesionaltasun faltak astekariaren hainbat ezaugarri azal ditzake. Baina beste batzuk azaltzeko, zehaztu behar da idazten zuten horiek gizarteko eragileak zirela, eta eskutan zuten euskarria beren ideologia eta balioen zabaltzeko erabiltzen zutela. Idazten zuten guztiak ez ziren elizgizonak, baina aski laster, astekaria apaizen esku gelditu zen. Bernadette Bordak zehaztu bezala, garai hartan ez zen euskaraz idazteko gaitasuna zuen pertsonalitate laiko anitz Ipar Euskal Herrian²³⁹, eta horregatik ere gelditu zen apaizen esku. apaizak ez ziren, berez, politikariak, baina informatze soilaz urrunago, Elizaren mezua edo erlijio giristinoarena zabaltzea zuten kezka nagusi.

Erredakzio zuzendaritzakoak, ordea, ez ziren beti apaizak izan. Gorago aipatu dugu *Eskualduna* astekariko zuzendarien zerrenda. Une batetik goiti, elizgizonak izan zirela argi da, baina ez edozein elizgizon. Bai Manex Hiriart-Urruti, bai Blaise Adéma, Baionako katedraleko kalonjeak ziren, zuzendari ziren garaian. Eta gero ikusiko dugun bezala, erlijio gaiak bete-betean sartuak ziren Frantziako politikan eta kalapitetan. Beraz, astekaria elizgizonek kudeatzeak astekariaren kutsu politikoa eragin zuen.

Are gehiago, astekariko lehen zuzendariak berak politikariak zirela argitu dugu orain aipatzen ari garen atalean. Louis Etcheverry sortzailea diputatu bozetara aurkeztu zen eta diputatu izan zen zenbait denboraz. Haren ondotik sartu ziren Renaud d'Elissagaray eta Nicolas d'Arcangues ere politikan ibiltzen ziren. Denak eskuinekoak ziren, monarkiaren aldekoak eta Elizarengandik hurbil.

Joera orokorrago baten parte zen egoera hori. Politikariek beren aldizkariak sortzeko joera zuten, eta aldizkari horiez baliatzen ziren beren gogoetak iritzi publikora zabaltzeko, iritzi publikoan oihartzun bat izateko²⁴⁰. Eta hor izan zitekeen kazetaritzaren muga, Frantzian bederen. Prentsa aske zegoen, baina kazetariak beren kazetaren jabearen menpe ziren. Ororen buru, boterea politikariek edo ekonomia arloko gizonek zeukaten, eta haiek zabaldu nahi zuten mezura plegatu behar zuten kazetariak²⁴¹. *Eskualduna*-ko berriketariak ez zirenez profesionalak, are errazago izanen zitzairen astekariaren helburu politikoen jarraitzea, ez balira jarrera politiko harekin ados izan, ez baitziren astekarian idazten ibiliko.

²³⁹ Borda, «Le journal «Eskualduna» et la guerre de 1914-1918», 25.

²⁴⁰ Chauveau eta Tétart, *Introduction à l'histoire des médias en France de 1881 à nos jours*, 14.

²⁴¹ Feyel, *La presse en France des origines à 1944. Histoire politique et matérielle*, 85.

Politika arloan ideiak argi zituen. Eta *Eskualduna*-ren ildo editoriala eta gerla denboran zabaldu zuen mezua hobeki ulertzeko, lagungarri izanen da Xipri Arbelbidek Hiriart-Urrutiren jarrera politikoaz eman zituen azalpenak gogora ekartzea. Lehen Mundu Gerra hasi orduko *Eskualduna*-k zer jarrera frantsesa hartu zuen garbi dago²⁴². Baina nola uler daiteke, hain euskaltzalea zen norbaitek halako atxikimendua agertzea Frantziari? Arbelbidek gogorarazi du XX. mende hastapenean, Pierre Broussain, Albert Constantin, Alexandre Mendiboure, Alexis Dourisboure, Clément D'Andurein²⁴³ eta beste zenbaitek alderdi abertzale bat sortzeko eta *Eskualduna* astekaria haren zerbitzuko hartzea aipatua zutela, baina Hiriart-Urruti ez zela batere haien aldekoa eta Broussainen artikulua zentsuratzen zituela²⁴⁴. Ez zela abertzaleen aldekoa agertu zuen zenbait editorialetan, 1914an, Hego Euskal Herriko abertzaleek euskal estatu bat sortzeko zuten xedea gaitzetsiz, eta Euskal Herria Frantziaren baitan hobeki izanen zela segurtatuz²⁴⁵.

Kontraesana ez da bakarririk haren jarrera euskaltzalearen arabera ikusten. Hiriart-Urruti sutan jarri zen Frantziako Errepublikak Elizaren kontra hartu zituen neurrien ondotik, eta gogoan dugu berak ere jasan zituela neurri haien ondorioak, besteak beste apaiz eskolatik lekuak hustu behar izan baitzituen. Hauxe galdetzen du Xipri Arbelbidek: «Frantzia horrelako etsaia izanik Hiriart-Urrutik hain maite zituen Eliza, erlisionea eta fedearentzat, nolaz izan da hain atxikia Frantziari?» Eta galdera horri berak ematen dio erantzuna:

«Gertatu da Hiriart-Urrutik fedeagatik urteak eta urteak borroka gogorrek eraman dituela Frantziako gobernu gorrien kontra, Frantziako katoliko eta xuriekien eskuz esku. Hauekin duela sofritu: noekin baita gehienik sofritzen eta harekin dira lotura sendoenak. Aldiz harreman guti izan du hegoaldearekin. Euskarazko katiximaren garai gogor haietan Broussain bere herritarrari idatzi zion beste normahik bezainbat maite zuela euskara bere mintzaira. Baina ikusiz nolako erasoak jasan behar zituen fedeak, mintzairaz gutiago arrangura zela, askoz ere gehiago erlisioneaz»²⁴⁶.

Arbelbidek ematen duen xehetasun hori zinez kontuan hartzekoa da. *Eskualduna*-ren testuak eta ildo editoriala irakurtzerakoan, hori ez da burutik kendu behar. Hiriart-Urrutik harremana Frantziako giristinoekin zuen, eta beraz, *Eskualduna*-ren inspirazio iturriak eta beste agerkari erreferenteak zein ziren ere ikusi beharko da. Alabaina, Estatuaren eta Elizaren

²⁴² Bidegain, *Gerla Handia, muga sakona*.

²⁴³ Broussain, Constantin, Mendiboure eta Dourisboure medikuak ziren, elkarren lagunak. D'Andurain apaizgaia zen, Uskaldunak Ibañetan pastoralaren idazlea. Verdunen hil zen 1916an. Albert Constantin Jean-Baptisten semea zen, eta hark ere idatzi zuen *Eskualduna* astekarian. Kepa Altonaga, «Gure prosa zientifikoaren lehen urratsak: Albert Constantin jaun medikuaren Zuhainen eritarzunaz eta haien arraberrikatziatzaz», *Ekaia* 17 (2003): 121–136; Charriton, *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques (1895-1920)*; Piarres Charriton, «Piarres Broussain (1859-1920): abertzale bat Iparraldean», *Jakin* 6: 108–110.

²⁴⁴ Xipri Arbelbide, *Manex Hiriart Urruti* (Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia, 1998).

²⁴⁵ Bidegain, *Gerla Handia, muga sakona*.

²⁴⁶ Arbelbide, *Manex Hiriart Urruti*.

arteko gatazka Euskal Herrian bizi-bizi sentitu bazen ere, Euskal Herria ez zen leku bakarra izan, eta Frantziako zatiketa politikoan Elizaren aldekoek itzala bazuten. *Eskualduna* ildo orokor haren baitan kokatzen zela ikusiko dugu.

c) Frantziako eredu berezia eta *Eskualduna*

Publiko zabala alfabetatu ondoan, egunkariak irakurle gehiagorengana hel zitezkeen, eta beraz hainbatek merkatu bat ikusi zuten hor eta eskaintza «sentsazionalistagoa» egiteko gogoia agertu zen²⁴⁷. Gertatzen zenaren «oihartzuna» izan nahi zuen XIX. mende bukaerako prentsak eta «masa irakurlego» batengana zuzendu nahi zuen bere eskaintza²⁴⁸. *Le Matin* egunkariak lehentasuna informazioari eman zion, editorialaren gainetik, eta erreportajeari, komentarioaren gainetik²⁴⁹.

Horretan ikus daiteke eredu amerikarraren sarbidea. Baina eredu hark, eta prentsa «sentsazionalista» eskaintzeak ez zuen harrera ona izan Frantzian. Interesgarri da ikustea nolako erreakzioak izan ziren. Gaia aztertu zuen Thomas Ferenczik, eta hark idatzi zuenaren arabera, gertakari soilek leku gehiago eta iritziak gutxiago hartzea begi txarrez ikusia izan zen. Prentsari «distratzea» edota «publiko zabala seduzitzea» leporatzen zitzaion, «elitearen gustua» egiteko orde. Halaber, estilo literario ederraren orde kazetaritzaren estilo sinplea sartzea ere kritikatu zuten, ordu arteko prentsaren oinarria literatura eta politika zirela oroitaraziz eta kazetari soilaren soslaia ez onartzuz²⁵⁰.

Baina «Amerikako Estatu Batuetan sortu zen mugimendu saihestezin»²⁵¹ hura Europara ere hedatu zen eta Frantzian ere onartu behar izan zuten. Haatik, Frantziako agerkariek ez zioten uko egin nahi ordu arteko berezitasunari, hala nola politikari eta literaturari. Informazioa emateaz gain, gogoeta politikoen ematen jarraitzeko hautua egin zuten. Horregatik, aldizkari politikoen presentzia handia izaten jarraitu zuten, prentsaren loraldi garai hartan. Baina joera horri eustea anitz erraztu zuen bi orrialdeko aldizkari bat inprimatzea oraino merke izateak²⁵². Gisa horretan, parlamentariak beren aldizkaria sortzen zuten. Euskal Herrian ere horrelako zerbait gertatu zen, geroago aztertuko dugun bezala. Ipar Euskal Herriko prentsan ere iritziak eta politikak garrantzia eta presentzia handia izan zuten. Are gehiago, astekari horiek bultzatu zituztenak ez ziren kazetariak, baizik eta letra gizonak.

²⁴⁷ Jeanneney, *Une histoire des médias, des origines à nos jours*, 103.

²⁴⁸ Muhlmann, *Une histoire politique du journalisme (XIXe-XXe siècle)*.

²⁴⁹ Feyel, *La presse en France des origines à 1944. Histoire politique et matérielle*, 123.

²⁵⁰ Ferenczi, *L'invention du journalisme en France: naissance de la presse moderne à la fin du 19e siècle*, 14.

²⁵¹ Ibid., 15.

²⁵² Jeanneney, *Une histoire des médias, des origines à nos jours*, 108.

Horrela, Amerikako Estatu Batuetatik zetorren informazio soilaren eredia eta Frantziako tradizioa nahasi ziren, batzuek itsasoz haraindiko eredia goraiatzaren baitzuten eta beste batzuek guztiz gaitzesten. Frantses prentsa bere gisara egokitu zen, eta halako oreka bat aurkitu zuen, estilo propioa sortuz²⁵³. Gisa horretan, frantses kazetari eta erreportarien berezitasuna zen, beren erreportaje edo ikerkuntza artikuluetan, «interpretazio eta subjektibotasun kutsu bat» sartu zutela, eta idazkera bera ere hobeki landu zutela, nahiz eta prentsa «anglosaxoiak baino informazio gutxiago eskaini»²⁵⁴.

Baina pixkanaka itxura aldatu zuten eta gero eta gehiago onartu zuten informazioari lehentasuna ematea. XIX. mende bukaerako egunkariak, ordu artekoek ez bezala, artikulua zutabeka antolatzeko ordeztatu eta tituluei zutabe bakarreko zabalera emateko ordeztatu, orrialde osoko zabalera ematen hasi ziren, irakurlearen arreta biltzeko²⁵⁵. Ez zen hori izan *Eskualduna*-ren eredia, ordea²⁵⁶.

Argi da frantses prentsak, bere berezitasunen gainetik, informazioari lehentasuna emateari ezin izan ziola ihes egin. Batetik, prentsa agentzien garapenak informazioa eskuratzeko erraztasunak eskaintzen zituelako eta, bestetik, irakurleek gertakari arruntengan eta kirolarengan interes handia zutelako eta nazioarteko gertakari politiko handiek zalaparta handia sortzen zutelako, egunkariak eskaintzen zutena gero eta informatiboagoa eta gero eta egituratuagoa zen²⁵⁷. 14ko Gerlak areagotu zuen egunkarietatik iritzia baztertzeko eta informazioari lehentasuna emateko joera, Ferencziren arabera:

*La guerre a, en effet, élargi l'horizon des Français. Elle a démodé un certain nombre de thèmes que la presse avait l'habitude de traiter. Ce n'est pas un hasard si de nombreux quotidiens politiques n'ont pas reparu au lendemain de la guerre. [...] C'était des journaux d'opinion à l'heure où les Français demandaient d'abord de l'information. C'était un journalisme d'un autre âge.*²⁵⁸

Gisa horretan, kazetari ofizioa sortu zen XX. mende hasiera aldera, Frantzia. Hasieran astekarietako erredaktoreak letra gizonak baziren eta estatutu profesionalik ez bazuten ere, XIX. mendeko azken urteetan, kazetariak profesionalizatu ziren eta merkatura egokitze

²⁵³ Ferenczi, *L'invention du journalisme en France: naissance de la presse moderne à la fin du 19e siècle*, 42.

²⁵⁴ Feyel, *La presse en France des origines à 1944. Histoire politique et matérielle*, 124.

²⁵⁵ *Ibid.*, 125.

²⁵⁶ *Ikus*: 70.

²⁵⁷ Bellenger et al., *Histoire générale de la presse française. Tome 3. De 1871 à 1940*, 278–279.

²⁵⁸ Thomas Ferenczi, «Les transformations du journalisme», in *Traces de 14-18, actes du colloque international tenu à Carcassonne du 24 au 27 avril 1996*, ed. Sylvie Caucanas eta Rémy Cazals (Carcassonne: Les Audois, 1997), 59–66.

erantzukizuna zuten²⁵⁹. Dena den, garai berriko egunkariak ere irakurleak «endoktrinatzeko» helburua zeukaten, edozein izanik ere egunkariaren joera²⁶⁰.

Horrelakoa izan zen Frantziako kazetaritza ereduaren bilakaera, laburki esplikaturik. Baina eredu profesionala ez zen hala hedatu Ipar Euskal Herriko euskarazko prentsara. Testuinguru hori zehazteak badu bere garrantzia, ikusteko nolakoak ziren *Eskualduna* astekariak irakur zitezkeen egunkariak eta beraz, bere inspirazio iturriak, eta ikusteko ea astekari horren politikarako joera orokorra zen ala ez. Astekari horrek iritzia emateko zuen joerak bazuen tradizio bat Frantzian, eta tradizio horren eragina sendi zitezkeen astekari txiki horretan. Baina tradizio horri irmoki eutsi zion ondoko urteetan ere, nahiz eta egunkari handiak aldaketa garaietan sartu.

Prentsaren irakite garai batean agertu zen *Eskualduna* astekaria. Baliabideak erraztu ziren, legea ere bai, irakurleak alfabetatzen ari ziren, eta hori mesedegarri izan zen euskarazko astekariarentzat ere. Baina kazetaritza munduan gertatu ziren beste aldaketekin, kazetaritza ereduarekin, uzkurrago izan zen astekari hori, hein handi batez ez baitzuen erredakzio talde profesionalik. Are gehiago, politikoki inplikaturik zen jendeak kudeatzen zuen, eta horretaz, astekariak eredu politiko eta polemikoari eutsi zion.

B. Giro politiko beroaren erdian

Orain arte ikusi dugu *Eskualduna*-ren kazetaritza ereduak leku handia ematen ziola iritzitari eta eztabaida politikoari, Frantziako eredu bereziaren ildotik, baina profesionaltasunik gabe eta iritzitari eusteko joera markatuagoarekin. Ikusi dugu zuzendariak berak ere politikoki inplikatuak zirela. Orain, gehiago sakonduko dugu astekariaren izaera politikoa. Louis Etcheverry politikariak 1887an sortu zuenetik eta iraun zuen garaian zehar, garai bereko beste agerkarietan bezala kutsu politikoa hainbat gisatan agertu zela nabarmenduko dugu. Hastapena bera motibazio politikoek gidatua izan zela argi gelditzen da. Baina astekariaren edukia eta ildo editoriala bera zinez politizatuak zirela agertu zen ondoko urteetan ere.

Eskualduna-ren izaera eta ildo politikoa ongi ulertzeko, zein testuinguru politikotan sortu zen azaldu behar da. Lehia politiko gogorra zen, XIX. mende bukaeran eta XX. mende

²⁵⁹ Chauveau eta Tétart, *Introduction à l'histoire des médias en France de 1881 à nos jours*, 14.

²⁶⁰ Bellenger et al., *Histoire générale de la presse française. Tome 3. De 1871 à 1940*, 317.

hasieran, Elizaren eta Frantziako Errepublika laikoa aldarrikatu eta obratu zutenen artean. Zurien eta gorrien arteko gatazka gisa ezaguna izan zen garai politiko hartan gertatu zirenak eta *Eskualduna* astekaria non kokatu zen esplikatzeko da lehen urratsa. Gatazka hark hauteskundeetan zuen isla nagusia, eta beraz, astekaria ere hauteskunde giroan sortu eta hazi zela ere azaldu behar da. Azkenik, ildo politiko hori joera handiagoen baitan kokatu behar da, eta Frantziako *Action Française*²⁶¹ mugimenduaren eta *La Croix* astekariaren eragina azpimarratuko dugu.

I. Zurien eta gorrien gatazka bizia

Ahoan bilorik gabe mintzatzeko edo idazteko garaiak ziren *Eskualduna*-ren urteak. Astekaria giristinoa eta eskuinekoa zen, bonapartista batek sortua, apaizek idatzia, eta zuten inondik ere onartzen ahal Frantzia laikoaren hautua. Errepublikazaleen eta monarkiara itzultzearen alde zirenen arteko polemika bizi-bizia zen urte haietan. Errepublika laikoaren aldekoek bataila inportantea irabazi zuten Elizaren kontra, eskola laiko eta derrigorrezkoa indarrean ezari zutenean. Horrek zalaparta berezia sortu zuen Euskal Herrian. Bide horretako azken urratsa, nagusia, 1905eko legea izan zen, Eliza eta Estatua bereizi zituen legea, alegia.

a) *Eskualduna* laikotasunaren arerio handia

Legedi, gizarte eta teknika arloko aldaketek *Eskualduna* eta hori bezalako astekariak sortzea erraztu bazuten ere, funtsean, motibazio politikoak zeuden astekari haren gibelean. 1870ean, Napoleon Bonaparteren inperioak porrot egin eta Frantziako Hirugarren Errepublika sortu zenean, Eliza giristinoaren lekua dilindan jarri zen, eta horrek zalaparta handiak sortu zituen. Egoera hori biziki ongi azaldu zuen *La Croix* egunkariak, *Eskualduna* baino lau urte lehenago sortu zeneko zenbakian:

«Plus que jamais le Christ et son Eglise sont attaqués, plus que jamais il faut donc se défendre. Les petites feuilles immondes pénètrent partout, jusque dans les mansardes et dans les chaumières; il faut donc une feuille catholique à bon marché qui aille combattre le mal partout.»²⁶²

Nahiz eta egunkari hura ez zen Elizaren aldizkari ofiziala, hura sortu zuen La Maison de la Bonne Presse enpresa guztiz giristinoa zen eta egunkari hark, adibidez, Aita Santuaren

²⁶¹ Eugen Weber, *L'Action française*, itzul. Michel Chrestien, [lehen edizioa: 1962]. (Paris: Stock, 1964); Jacques Prévotat, *L'Action française* (Paris: Presses universitaires de France, 2004).

²⁶² Picard, «Le journal La Croix».

diskurtsoak osoki erreproduzitzen zituen²⁶³, Eliza girstinoaren ildoaren bozeramaile bihurtuz. *Eskualduma* astekariak ere halatsuko mezua zeukan. Hirugarren Errepublika indarrean jarri zenean, Frantziako Iraultzaren oinordekoek Errepublika laiko baten aldeko dinamika abiatu zuten. Giro politikoan eragin handia zuen horrek.

Errepublikazaleen eta elizaren ingurukoaren arteko gatazka ez zen berria, eta gogora ekarri behar da mende bat eskas lehenago Frantziako Iraultza gertatu zenean, elizgizonen kontrako jazarpen bat izan zela. Euskal Herrian berean, gatazka gogorak izan ziren, Iraultzatik landa, eta Landetara igorriak izan ziren biztanleez gain²⁶⁴, apaiz anitzek Nafarroara ihes egin behar izan zuten. Hori gogoan, Euskal Herriko elizgizonek, Frantziakoek bezala, ez zuten Errepublika begi onez ikusten. Eta euskal gizartearen %80 inperioaren alde agertu zen, 1870eko maiatzaren 8ko hauteskundeetan²⁶⁵. Baserri mundua kontserbadorea izatearen arrazoiak azaltzen dituzte Georges Duby eta Armand Wallonek:

*«En 1914 on ne saurait oublier que le monde paysan reste un monde dur, où le pauvre travaille tant qu'il en a la force parce que la cessation d'activité signifie la perte de toute ressource propre [...]. Point de recours possible vers l'État ou la société; le seul recours est dans le groupe familial. De là vient la tenace présence du système familial dans les mentalités paysannes, de là aussi – peut-être – pour une part, le conservatisme, et même le traditionalisme global de ces mentalités».*²⁶⁶

Euskal Herrian ere nagusiki baserri mundua izanik, aise uler daiteke zergatik ziren kontserbadoreak. Gainera, André Siegfrieden arabera, baserri munduan, laborariak otzanak ziren eta herriko erretoreak eragin handia zuen²⁶⁷, beraz ideia kontserbadoreak aise errotzen ziren.

Inperio garaian, Errepublika garaian baino erosoago zeuden, nahiz eta, Napoleon IIIaren erregimena «uneko behar» modura onartu zuten²⁶⁸. Hala ere, Elizaren ingurukoek monarkia zuten nahiago, eta Inperioa erori ondoan, monarkiaren itzultzeko itxaropena izan zuten, garai batez baizik ez bada ere. Euskal Herrian monarkiaren edota inperioarenganako atxikimendua handia zen. Bigarren Inperio denboran bihurtu zen Euskal Herria baserri

²⁶³ Philippe Godfrin eta Jacqueline Godfrin, *Une centrale de presse catholique: la Maison de la Bonne presse et ses publications* (Paris: Presses universitaires de France, 1965), 142.

²⁶⁴ Xabier Itçaina, *Les virtuoses de l'identité. Religion et politique en Pays Basque* (Rennes: Presses Universitaires de Rennes, 2007), 72.

²⁶⁵ Jean Micheu-Puyou, *Histoire électorale du département des Basses-Pyrénées sous la IIIe et la IVe République* (Paris: Librairie générale de droit et de jurisprudence, 1965), 126.

²⁶⁶ Georges Duby eta Armand Wallon, *Histoire de la France rurale. Apogée et crise de la civilisation paysanne: 1789-1914*, vol. 3 (Paris: Le Seuil, 1976), 501.

²⁶⁷ Ibid., 3:514.

²⁶⁸ Jacques Fontana, *Les catholiques français pendant la Grande Guerre* (Paris: Cerf, 1990), 10.

munduko kontserbatismoen gune²⁶⁹. Elizgizonen babesarekin lortua zuten oreka edo erosotasuna dudan ezar zezakeen deus ez zuten nahi. Horri loturik, Elizak eragin handia izan zuten Euskal Herri barnealdeko gizartearen baitan²⁷⁰.

Elizaren ingurukoek monarkiarara itzultzea aldarrikatzen zuten, errepublikazaleek haiengan arrisku bat ikusten zuten, eta Eliza zapaltzaile gisa ikusten zuten²⁷¹. Errepublikazaleen artean, erradikalek Estatuaren eta Elizaren bereizketa, elkartzeko askatasuna, eskola laikoa eta gizarte indibiduala aldarrikatzen zituzten, 1869tik. Gizarte liberala aldarrikatzen zuten errepublikazale horien parean, erlijioaren defentsan ari zirenek, Action Française mugimendua buru, «gizarte naturala» hobesten zuten: gizabanakoaren familia, ofizioa eta eskualdea bermatzea beharrezkotzat zeukaten²⁷². Dudarik gabe, tradizio horiek sutsuki defendatu zituen *Eskualduna* astekariak ere.

Eskualduna astekarian erne zeuden erlijioaren kontra ari zen orori begira. Maiz idazten zuten masoien edo ustezko masoien kontra. «Framazonak» edo «hargin beltzak» izenez deitzen zituzten logia hartako kideak, eta haiek erlijioa Frantziatik kendu nahi zutela leporatzen zuen astekariak. Hirugarren Errepublika garaia une ona zen, funtsean, masoientzat²⁷³, eta indarra hartu zuten.

Masoiak bezain hastio zituzten juduak ere. *Eskualduna*-ko artikuluetan maiz ageri ziren juduen kontrako aipuak eta irainak. Eta antisemitismoaren atal ezagunena Dreyfus aferarekin lehertu zen. Frantzia bitan banatu zen, alde batetik Dreyfusen errugabetasuna defendatu zutenak, hala nola errepublikazaleak eta ezkertiarak, eta bestetik errotik haren aurka zeudenak, hala nola eskuinekoak eta Elizaren ingurukoak. *La Croix* egunkaria, adibidez, argiki antisemita zen eta Dreyfusen kontra jarraitu zuen, 1900ean jabez aldatu eta jarrera eztitu zuenean ere²⁷⁴. Funtsean, Frantziaren bi ikuspegi lehiatu ziren, eta Dreyfusen kontrakoek «Frantzia arrazarekin» eta «Aberria armadarekin» identifikatzen zituzten, besteek denen arteko «berdintasuna» aldarrikatzen zuten bitartean²⁷⁵.

Denborarekin, ordea, gatazka horiek lekuz aldatu ziren. 1892an, Leon XIII Aita Santuak «ralliement» edo errepublika onartzeko deia egin zien Frantziako giristinoei. Hiriart-

²⁶⁹ Jean-Baptiste Orpustan, «Rôle et pouvoirs de l'Eglise», in *La nouvelle société basque* (Paris: L'Harmattan, 1980), 148.

²⁷⁰ Micheu-Puyou, *Histoire électorale du département des Basses-Pyrénées sous la IIIe et la IVe République*, 109.

²⁷¹ Joseba Intxausti, «Hitzaurrea», in Hiriart-Urruty, Jean: *Zezenak Errepublikan* (Arantzazu: Jakin, 1972), 50.

²⁷² Weber, *L'Action française*, 46.

²⁷³ Intxausti, «Hitzaurrea», 51.

²⁷⁴ Godfrin eta Godfrin, *Une centrale de presse catholique: la Maison de la Bonne presse et ses publications*, 136.

²⁷⁵ Jean Lestocquoy, *Histoire du patriotisme en France. Des origines à nos jours* (Paris: Albin Michel, 1968), 143.

Urrutik eskaera hura onartu zuen²⁷⁶, nahiz eta aitzina kritikatzeko jarraitu. Errepublikaren kontzeptuaren kontra borrokatzeko ordez, Errepublikaren akatsen kontra borrokatuko ziren, barnetik. Hain zuzen, herritarren babesaren aurrerakuntza zitzaien Errepublikaren kontrakoak, bonapartistek eta monarkiazaleek gero eta boz gutxiago lortzen baitzuten²⁷⁷. Jarrera berri horretan, *Eskualduna*-k une batez gibelera egin zuen, bereziki 1905eko legearen ondotik, Elizaren esku ziren eskolak eta fraidetegiak itxi zituztenean. Baina, ororen buru, Errepublika onartzera behartuak izan ziren eta hala egin zuten, nahiz eta ezkertiarren kontrako lehia politikoarekin gogor segitu.

b) Eskolaren gaia

Errepublikazaleek begi txarrez ikusten zuten Elizaren ingurukoek monarkia berriz ezartzeko zuten asmoa. Gambettaren ustez, klerikalismoa arriskutsua zen, Estatu ahuldu, batasun nazionala mehatxatu eta gizartea desegin zitzakeelako²⁷⁸. Horri buru egiteko, eskola laikoa sortzeko xedea garatu zuten, Mona Ozoufen azalpenen arabera.

*«Les dangers d'une restauration monarchique, soutenue par l'Église, sont encore trop proches pour ne pas hanter les républicains au pouvoir ; or, la liaison de la démocratie et de l'instruction publique est un vieux dogme républicain; assurer le pouvoir par l'organisation de l'enseignement devient donc la tâche la plus pressante».*²⁷⁹

Jules Ferry izan zen eskola laikoaren bultzatzaile nagusia. Errepublika segurtatzea eta Elizari eragina kentzea zen haren helburua. Haren ustez, moralak eta zientziak erlijioetik aparte erakutsi behar ziren, eta haurrei «prestakuntza errepublikarra» eskaini behar zitzaien. Eta laikotasun hori zen polemika piztu zuena, eskola doakoa eta derrigorrezkoa izatea baino gehiago²⁸⁰.

Eskualduna astekaria idazten zutenak erabaki horren aurka zeuden. Gogora ekarri behar ote dugu «Bat gutiago»²⁸¹ izenburua zuen artikulu famatua? Jules Ferry hil zelako berria ematen zuen artikulu hark, herio hartaz pozten zela ahoan bilorik gabe erakutsiz. Jules Ferryk 1881ean jarri zuen indarrean doako eskola derrigorrezkoaren legea. 1886an, eskola publikoak laikoen esku uztea erabaki zuten, eta handik bost urtera fraideak mutikoen eskoletatik kanpo

²⁷⁶ Lafitte, «Sarrera», 33.

²⁷⁷ Micheu-Puyou, *Histoire électorale du département des Basses-Pyrénées sous la IIIe et la IVe République*, 154.

²⁷⁸ Claude Langlois, «Catholiques et laïcs», in Nora, Pierre (zuz.): *Les lieux de mémoire. 2. La Nation, les Frances* Pierre (Paris: Gallimard, 1997), 2327–2357.

²⁷⁹ Mona Ozouf, *L'École, l'Église et la République (1871-1914)*, [lehen edizioa: 1963]. (Paris: Cane, 1982), 55.

²⁸⁰ *Ibid.*, 73.

²⁸¹ Manex Hiriart-Urruti, «Bat gutiago», *Eskualduna*, 1893ko martxoaren 24a.

ezarri zituzten, eta beste zenbait urtera serorak kanporatu zituzten nesken eskoletatik²⁸². apaizak zinez kezkatuak ziren:

«Eskola horietan ez zen katiximarik ikasiko: «Jainkorik gabeko eskolak» deitu zituzten. Haurrek fedea galduko zutelako beldurra hartu zituen eliza gizonak». ²⁸³

Horri erantzunez, Elizak eskola libreak sortu zituen Ipar Euskal Herriko hainbat herritan, hala nola eskola pribatu eta giristinoak. Eskola orenetatik kanpo katixima egiteko aukera ere bazuten. Barnealdeko haurrak, hala ere, ez ziren berant arte egoten eskolan, gehienek lehen jaun hartzetik landa uzten zutelako eskolako bizia, lanean hasteko²⁸⁴.

c) 1905eko legea

Errepublika laikoaren aldekoen eta Elizaren ingurukoaren arteko gatazka gogorragoak etorri ziren 1905ean, Estatuaren eta Elizaren bereizte legearen harira. Manex Hiriart-Urrutik bete-betean bizi izan zituen fraideen komentuen eta apaiz eskolen ixtea eta hustea, Elizaren eta Estatuaren bereizte legea eta holako gertakariak.

Eskola laiko publikoen sortzea ez zen azken gatazka izan. Estatuaren eta Elizaren bereiztearen zantzu batzuk zeuden, baina beste batzuk ere izan ziren. 1901eko uztailaren leheneko elkartearen legea, gaur egun oraino hainbeste goraiatua, gatazkatsua izan zen. Elkarateak sortzeko askatasuna ematen zuen lege hura ez zen Elizaren gustukoa izan. Lege hark bazuen III. zenbakidun artikulua bat, erlijio elkarte eta kongregazioei buruz. Elkarate orok hiru hilabeteko epea zeukan baimena eskatzeko. Baimen eskaera guztiak baztertuak izan ziren 1902an; beste anitzek ez zuten itxaropenik eta baimenik eskatu gabe, atzerrira joan ziren²⁸⁵. Garai hartako Frantziako Gobernuak, Emile Combe buru zuela, elizgizonek eta serorek kudeatzen zituzten eskolak hesteko agindua eman zuen. 1904ko uztailaren 7ko legeak kongregazioei irakastea debekatu zien.

Lege haien ondorioak sentitu ziren Euskal Herriko fraidetegietan. 1903ko apirilaren 18an, Belokeko fraideek lekuak husteko agindua ukan zuten, eta bi asteren buruan joan ziren handik²⁸⁶, eta Lazkaon hartu zuten egoitza. Fraide anitzen patua izan zen hori, eta

²⁸² Aline Bascans eta Xipri Arbelbide, «Uztaritzeko seroren eskolen hestea», in *Elizak eta Estatua bereizteko legea: ondorioak Euskal Herrian (1905-1906)* (Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2008), 31-37.

²⁸³ Ibid.

²⁸⁴ Philippe Fabas, «Aspects de la vie religieuse dans le diocèse de Bayonne (1905-1965)» (doktorego-tesia, zuz. Marc Agostino, Michel de Montaigne, Bordeaux III, 1999), 55.

²⁸⁵ 1905, *la séparation des églises et de l'état* (La Crèche: Geste, 2005), 33.

²⁸⁶ Marc Doucet, «Estatuaren eta Elizaren arteko borroka 1900 inguruan: fraide batzuen ihardespina Belokeko fraidetxean», *Elizak eta Estatua bereizteko legea: ondorioak Euskal Herrian (1905-1906)* (Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2008), 39-47.

garrantzitsua da aipamen horren egitea, gerla lehertu zenean oihartzun berezia hartu baitzuen gai hark.

Hurrengo urratsa, 1905eko uztailaren 3ko lege famatua izan zen. Lege harekin bereizi ziren Frantziako Estatua eta Eliza, eta bukaera eman zitzaion 1801etik indarrean zegoen konkordatuari, hala nola Frantziako Estatuaren eta Vatikanoren artean zegoen hitzarmenari. Bakoitzak bere bidea jarraitu ahal izan zuen, baina bereizte hori biziki gaizki hartu zuen Elizak. Errepublikazaleen eta Elizaren arteko gatazkaren ondorioa zen. Bereziki, Dreyfus aferan, Elizak eta haren ingurukoek agertu zuten jarrera antisemita eta Dreyfus defendatu zutenen kontrakoa izan zen legearen sortzea azeleratu zuena²⁸⁷.

1906an jarri zen legea indarrean, eta ontasunen partekatzea egiteko, inbentarioak egin zituzten. Borroka gogorrak izan ziren horren harira, Frantzia mendebaldean, Massif Central eskualdean eta Ipar Euskal Herrian²⁸⁸. Ipar Euskal Herriari dagokionez, Frantziako Iraultza garaian erlijio gatazka bizienak izan ziren herrietan gertatu ziren istilu handienak, Elizak orduko gertakariak gogora ekartzeko lana egin baitzuen²⁸⁹. Elizak zinezko eragina zuen Euskal Herria bezalako lekuetan, Patrick Cabanelek baieztatu bezala:

«Les communautés paysannes, catholiques ferventes, souvent dirigées par leur prêtre ou un jeune vicaire, ont cru que l'inventaire de l'église était le premier acte d'une spoliation réveillant le souvenir de la déchristianisation révolutionnaire. Les églises ont été barricadées, gardées nuit et jour par des hommes et des femmes, défendues par les armements les plus hétéroclites: troncs d'arbres, buissons épineux, instruments agricoles, pierres, eau bouillante, ruches. Les agents de l'État, même accompagnés de gendarmes ou de la troupe, ont dû reculer ou n'ont pu pénétrer dans le bâtiment qu'après un siège en règle.»²⁹⁰

Gatazkak ikusgarriak bide ziren. Hiriart-Urrutik ere barne-barnetik bizi izan zuen horrelako egoera. Inbentarioak izan ziren garaian, oraino Larresoroko apaiz eskolako irakasle zen, baina 1906ko abenduaren 14an, Frantziako Gobernuak hango apaizak kanporatu zituen eta egoitzez jabetu zen²⁹¹. Horrela kontatu zuen Lafittek, Hiriart-Urrutik bizi izan zuena:

«Ez zitzaion bihotza guti urratu, Frantziako gobernuak, bertze aintz ontasun saildu bezala Semenaria ere behin imitatu zuenean eta gero alde-bat ebatsi. 1906eko abendoaren 14a ez zen ahanztekoa. Poliza gizon batek gaixtagin baten pare besotik hartu zuen eta Semenariotik kanpo haizatu. Irakasle eta ikasle, denek behar ukan zituzten lekuak hustu, Errepublikaren eta Libertatearen izenean! Nor harri Hiriart-Urruti-k hain saminki aipatzen baitzuten bere astekarian itsuseria horiek?»²⁹²

²⁸⁷ Cabanel, 1905, *la séparation des églises et de l'état*, 10.

²⁸⁸ Moulin, *Les paysans dans la société française. De la Révolution à nos jours*, 164.

²⁸⁹ Itçaina, *Les virtuoses de l'identité. Religion et politique en Pays Basque*, 72.

²⁹⁰ Cabanel, 1905, *la séparation des églises et de l'état*, 23.

²⁹¹ Camino, «Hitzaurrea».

²⁹² Lafitte, «Sarrera», 21.

Ageri da Hiriart-Urruti zuzenean inplikaturaz zela Estatuarekin izan ziren gatazka haietan, eta Eliza baztertu izana jasan behar izan zuela. Ondorioz, erlijioaren defendatzaile sutsu hark, bistan denez, Estatu laikoaren aldekoekin izan zen gatazka hartan bere iritzia gordin eta gogor eman zuen. Eta hil arte bere baitan gelditu zen erlijioaren aldeko grina bizia eta erlijioa baztertu nahi zutenen kontrako herra.

d) Gatazkaren isla politikoa

Gatazka haiek eragin zuzena zeukaten herriko bizian eta bizi politikoan. Eskola publikoetako irakasleek, adibidez, ez zuten harrera ona ukaiten herri txikietan, Moulinen arabera: «En Flandre, à l'extrémité nord-ouest de la Bretagne, dans le Pays Basque, la petite paysannerie indépendante reste attachée à l'Eglise»²⁹³. Euskal Herri barnealdeko gizarte horrek Elizarekiko zuen lotura hauteskundeetan ere ageri zen. Eliza errepublikazaleen etsai eta balio kontserbadoreen defendatzaile zela jakinik, aise asma daiteke ideia haien ekarleek zituztela hauteskundeak irabazten, Orpustanek argiki azpimarratu bezala:

*«Jusqu'à la fin de la seconde guerre mondiale, les Basques, dirigés par leur clergé, choisiront des représentants politiques de droite ou même d'extrême-droite tant il semblait évident, après de tels événements et dans une telle situation, que les amis des Basques, de leur identité, de leurs coutumes, de leur langue, étaient de ce côté-là et non du côté des progressistes plus ou moins jacobins. Le meilleur exemple de cette permanence conservatrice et droitère, largement favorisée par l'Église jusqu'à une époque toute récente, sera le long règne triomphant d'un homme comme Ybarnegaray, avec tout ce qu'il impliquait: pénétration des idées d'extrême-droite, recrutement de l'Action Française chez les élites intellectualisées (malgré la condamnation par la hiérarchie en 1926), et plus tard adhésions au PSF habilement obtenues par de petits notables locaux. Le journal en basque Eskualduna, toujours dirigé par des ecclésiastiques, se fera le propagandiste du régime de Vichy».*²⁹⁴

Datuak berak ere argiak dira²⁹⁵: 1876an, Baionako hauteskunde barrutian, Jean-François Labat hautagai bonapartistak irabazi zituen hauteskundeak eta Maulekoan Jean-Charles Harispe nagusitu zitzaion Pierre Renaud diputatu errepublikarrari. 1881ean errepublikarrek indarra hartu zuten, eta Jacques Pradet-Labatek Mauleko hauteskunde barrutia kendu zion Harisperi. Baionako hauteskunde barrutia bitan banatu zen: lehenbizikoan Baionako bi kantonamendu eta Uztaritzekoa biltzen ziren, eta bigarrenean Hazparne, Bastida, Donibane Lohizune, Ezpeleta eta Bidaxunekoak. Baionako lehen

²⁹³ Moulin, *Les paysans dans la société française. De la Révolution à nos jours*, 165.

²⁹⁴ Orpustan, «Rôle et pouvoirs de l'Eglise», 152–153.

²⁹⁵ Eric Bonhomme eta Université Michel de Montaigne-Bordeaux III., *Députés et sénateurs de l'Aquitaine sous la Troisième République, 1870-1940: portrait de groupe* (Talence: Editions de la Maison des sciences de l'homme d'Aquitaine, 1995), 191–193; Micheu-Puyou, *Histoire électorale du département des Basses-Pyrénées sous la IIIe et la IVe République*.

hauteskunde barrutian Jean-Baptiste Plantié Baionako auzapez errepublikarrak irabazi zituen bozak, eta bigarrenean Labatek. 1885ean hauteskundeak zerrendaka egin ziren, baina errepublikarrek indarra galdu zuten, eta Labatek diputatu izaten jarraitu zuen eta Harispek aitzineko bozetan galdu kargua berreskuratu zuen.

1889ko bozak, *Eskualduna* sortu ondotik izan ziren lehenak, ezkerraren garaipenarenak izan ziren. Departamendu osoan ezkerak irabazi zuen, baina Ipar Euskal Herriko hiru hauteskunde barrutietatik bitan, eskuinak. Baionako bigarren barrutian, Labatek irabazi zituen berriz ere, zailtasunekin izan bazen ere. Mauleko hauteskunde barrutian, Louis Etcheverry hautagai bonapartista izan zen irabazle, Martial Berdoly hautagai errepublikarraren kontra. Azken honek 1893an eskuratu zuen diputatu kargua, eta hark bezala, beste hauteskunde barrutietan ere hautagai gorriek irabazi zituzten bozak.

1905ean berreskuratu zuen diputatu aulkia Elizaren aldeko hautagai batek. Morrochco Harriague Saint-Martin Baionako bigarren hauteskunde barrutiko diputatua hil ondoan, hauteskunde aurreratuak egin ziren, eta Léon Guichennék irabazi zituen. Mauleko kantonamendua eskuinaren eskutara itzuli zen 1914an, Jean Ibarnegaraiek hauteskundeak irabazi zituelarik.

Euskal Herriko apaizak politikan inplikatu ziren, argiki. 1889ko hauteskundeen ondotik, Louis Etcheverryk irabazi zituen hauteskundeak baliogabetu zituzten, hain zuzen, apaizek haren aldeko kanpaina egin zutela leporatuz²⁹⁶. Funtsean, apaizek Frantziako gobernuaren zigorra jasan zuten, Euskal Herriko 35 apaizei soldata kendu baitzien²⁹⁷. Kalapita handiak sortu ziren Baionako apezpikuaren, Ipar Euskal Herriko apaizen eta Frantziako gobernuaren artean. 1914an, *Eskualduna* astekariak sekulako kanpaina egin zuen Ibarnegaraien eta Guichennéren alde.

Oro har, Baionako lehen hauteskunde barrutia kendurik, Ipar Euskal Herri barnealdeko hautesleek eskuineko diputatugaiak hautatzen zituzten.

2. Hauteskunde giroan sortua

Euskarazko astekari girstinoaren sortegun ofiziala 1887ko martxoaren 15a zen. *Eskualduna* astekaria hauteskunde giroan sortu zen. Bi urte geroago diputatuak hautatzeko hauteskundeak iragan ziren Frantzian eta, ondorioz, Ipar Euskal Herrian ere. Hautagaiek beren ideien berri eman nahi izaten zuten, eta hamarkadetan zehar komunikatzeko bideak

²⁹⁶ Micheu-Puyou, *Histoire électorale du département des Basses-Pyrénées sous la IIIe et la IVe République*, 109.

²⁹⁷ Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 95.

aldatu diren bezala, gaur egun sare sozialak erabiltzen dituzten bezala, 1889ko bozei begira, astekariak sortzeko joera izan zen. Baina hori ere ez zen bat-batean gertatu. Helburu politikoz sortu astekariak bazuen bere aurre-historia, lehenago ere zenbait argitalpen izan ohi baitzen. Eta, bereziki, *Réveil Basque* astekariaren sorreraren erreakzioz agertu zen *Eskualduna* ere. Astekariak hauteskunde kanpainen biziki aktibo baldin baziren ere, horrek ba ote zuen, aldiz, eraginik hautesleen jarreretan?

a) Hauteskunde orrietatik lehen astekarietara

Hauteskunde kanpainak ez ziren 1887an hasi, *Eskualduna* urte hartan sortu bazen ere. Lehenago ere baziren hauteskundeak, eta beraz, boz biltzeko kanpainak ere antolatzen ziren. 1886 baino lehen, hauteskunde kanpainen zehar, hautagaiek kanpaina orri batzuk argitaratzen zituzten. Hautagai gorriek bezala zuriek ere izaten zuten beren orria²⁹⁸, eskuz esku banatzen zutena. Orri haiek frantsesez idatziak izaten ziren, nagusiki; euskara pixka bat ezartzen zuten tarteka, bozemaileen zati batengana aiseago heltzeko xedez²⁹⁹.

Noizbehinkako aldizkari xume haiek bozemaileengan zuten eragina dudan ezartzen hasi ziren, ordea, zenbait politikari³⁰⁰. «Gorrien» hautagaiak pentsatu zuen aldizkari erregularrago bat sortu behar zutela beren ideia errepublikarrak hautesleengana heltzeko eta haien baitan errotzeko³⁰¹. Martial-Henry Berdolyren ideia izan zen.

Martial-Henry Berdoly Bordeleko industrialari baten semea zen. Bordelen sortu zen 1844an, baina urte bat zuela joan zen Donapaleura, gurasoekin. Haren aitak, 1833an Uhartehiriko gazteluaren jabe egin zenak³⁰², 1848ko legebiltzarrerako hauteskundeetan aurkezteko asmoa agertu zuen. Errepublikarren koloreak defendatu nahi zituen, baina errepublikarrek ez zuten haren hautagaitzaren aldeko hautua egin, beste hautagai bat nahiago izan baitzuten. Martial-Henry Berdolyk lau urte baizik ez zituen, aita hauteskundeetara aurkeztu zen urte hartan. Baina haren etorkizuna politikak gidatu zuen. Abokatu lanetan aritu zen, eta 1880tik 1884ra Mauleko suprefetura kudeatu zuen.

²⁹⁸ Lafitte, «Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) et les débuts du journalisme basque».

²⁹⁹ Alzibar, «Sarrera», 23–24.

³⁰⁰ Ibid., 24–25.

³⁰¹ Lafitte, «Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) et les débuts du journalisme basque».

³⁰² Bonhomme eta Université Michel de Montaigne-Bordeaux III., *Députés et sénateurs de l'Aquitaine sous la Troisième République, 1870-1940: portrait de groupe*, 128.

1887a ez zen hauteskunde urtea, baina bi urte lehenago aurkeztu zen hauteskundeetan eta galdu zituen. Bi urte geroago izanen ziren hauteskundeei begira³⁰³ jarri zen, eta hauteskunde haietara ongi prestaturik joateko asmoz sortu zuen *Le Réveil Basque* astekari «gorria», 1886ko agorrilaren lehenean. Astekaria hein handi batez frantsesez bazen ere, euskarak bazuen bere tokia³⁰⁴. Berdolyk sortu astekari «gorri» hark 1894 arte iraun zuen. Iraupen aski laburra izanik ere, euskarazko prentsaren historian funtsezko osagaia izan zen. Ez iraun zuelako, noski, are gutxiago euskara bultzatu zuelako. Baina giro politiko nahasi hartan, haren aurkari politikoak iratzarrarazi zituelako eta beste hainbeste egitera bultzatu: eta haiek, bai, euskarari leku gehiago eman zioten.

b) *Eskualduna, Le Réveil Basque-ri erantzunez*

Le Réveil Basque astekariaren helburua hautesleen gogoetan ideia errepublikarrak astez aste sarraraztea baldin bazen, Martial-Henry Berdolyk 1889ko hauteskundeak irabaz zitzaizkion, haren aurkari politikoek ere sentitu zuten gisa bereko zerbaiten sortzeko beharra. Ordu arteko lehia politikoa noizbehinkako berripaperen bidez egiten baldin bazen, *Le Réveil Basque* astekariak jauzi kualitatibo bat egin zuen ideien zabaltzeko moduan. Tresna berrietara egokitzeko beharra sentitu zuten hautagai «gorriek» ere.

Louis Etcheverry Donazaharreko notarioak ere bazuen 1889an hauteskundeetan aurkezteko xedea. «Ordena finkatuaren hautagaiak» edo «candidats de l'ordre établi» delakoak³⁰⁵ hauteskunde haietan aurkari izanen zuenaren tresna berak erabiltzea erabaki zuen. Astekari «gorriaren» parean giristinoen astekari bat sortzearen beharra ikusi zuen. Hilabete gutxi barne, 1887ko urtarril hastapenean, zenbait lagun bildu zituen eta hiru hilabeteren buruko zutik ezarri zuen *Eskualduna* astekaria³⁰⁶. Gisa hartan, Bonaparteren eta erregearen aldeko euskaldun kontserbadore liberalen, hala nola «zurien» astekaria sortu zen, «gorrien» kontra³⁰⁷.

Zenbateraino zor zaio *Le Réveil Basque* astekariari *Eskualduna* astekariaren sorrera? Argi da «gorrien» astekari horrek dituen aipamen guztiak ez zitezkeela izanen, gaur egun, astekari hartarik landa euskarazko hori ez balitz sortu. *Eskualduna* ez balitz agertu, *Le Réveil Basque* ahantzia genuke gaur egun, garai hartako beste agerkari anitz bezala. Nahi ala ez, *Eskualduna*

³⁰³ Hauteskunde haiek ere galdu zituen, Louis Etcheverry «zurien» hautagaiaren kontra. Haatik, 1893koak eta 1898koak irabazi zituen. 1900an senatari bihurtu zen, eta 1905ean hil zen, Uhartehiriko bere gazteluan.

³⁰⁴ Altzibar, «Sarrera», 24–25.

³⁰⁵ Borda, «Le journal «Eskualduna» et la guerre de 1914-1918».

³⁰⁶ Altzibar, «Sarrera», 24–25.

³⁰⁷ Ibid., 23.

astekariaren sorrerak *Le Réveil Basque*-en erreferentzia dakar berekin. Eta, funtsean, aski da euskarazko astekari giristinoaren lehenbiziko urteetako artikulua irakurtzea bi astekarien arteko aiherkundea eta lehia zenbaterainokoak ziren ikusteko. Bata zen bestearen aurkari nagusia. Hori erranik, Piarres Lafittek dudan ezarri zuen ea *Le Réveil Basque* gabe ere ez ote zen *Eskualduna* astekaria sortuko. Lafitteren ustez, erlijioaren kontrako «orri» haren eraginaren kontra joateko baino gehiago, beste arrazoi batzuegatik sortu zen *Eskualduna*. *Le Réveil Basque* astekariari kontra egitearena aitzakia bat baizik ez zen, Lafitteren ustez. Euskal Herriak bere tradizioak sutsuki defendatuko zituen aldizkari baten beharra zuela idatzi zuen³⁰⁸.

Le Réveil Basque sortu gabe ere sortuko ote zen *Eskualduna* astekaria edo gisa bereko beste bat, Lafittek ulertaraztera ematen duen gisan? Prentsa idatziaren garapen urte haietan euskarazko astekari giristino baten sortzeko aukera beste baten sorrerak eragin gabe pitz zitekeela pentsatzea guztiz logikoa da. Baina ikusiz noiz eta nola sortu zen, ez da dudarik, *Le Réveil Basque* astekariak gutxienez azeleragailu funtzioa bete zuela, eta *Eskualduna* astekariaren sortze prozesua bizkortu zuela. Halaber, Berdolyren aurkari politiko nagusiak sortu izanak ere argi uzten du *Le Réveil Basque*-rekiko lehiak bultzaturik sortu zela, hots, astekaria helburu politikoekin eta ildo politiko zehatz batekin agertu zela.

c) Prentsa eta hauteskundeak

Tarte bat hartuko dugu lehenago aipatu prentsa politikoaren eta prentsa horrek hauteskundeen emaitzetan zituen ondorioen arteko loturak nolakoak ziren ikusteko. Neurketa zehatza egin daiteke, agerkari baten irakurle kopurua eta alderdi batek lortzen zuen boz kopurua xeheki konparatuz. Zenbait ikerlarik jarrera orokorrak aipatu dituzte, eta haien ondorioez baliatuko gara, gu ere, prentsak bizi politikoan zuen eragina aztertzeko.

Egia da aldizkariak biziki politizatuak zirela eta hauteskunde kanpainen artean bete-betean parte hartzen zutela. Helburu politikoekin sortu zen *Eskualduna* astekariak berak sekulako kanpaina egin zuen, adibidez, 1914ko legebiltzarrerako hauteskundeetan, Jean Ibarregarai hautagai zuriaren alde. Frantzian gaindi ere aldizkari anitz sortu izan zen, hauteskunde kanpainei begira. Baina hautesleen baitan ez zuten eragin handirik edo aldizkari hartako polemika gogorrak ez ziren hautesleen izaeraren isla, baizik eta ordu hartako estiloarena³⁰⁹.

³⁰⁸ Lafitte, «Louis Etcheverry. Champion de la foi et de l'âme basque».

³⁰⁹ Bellenger et al., *Histoire générale de la presse française. Tome 3. De 1871 à 1940*, 255.

Aldizkari horiek ez ote zuten irakurleak konbentzitzeko indarririk? Fernand Terrouren gidaritzapean atera liburuan ongi esplikatzen duten bezala, tendentzia politiko guztietako aldizkariak baziren, eta beraz, bakoitzak, aitzinetik konbentzituak eta beren aldeko irakurleak zituen:

«D'une manière générale l'action électorale d'un journal était fonction, moins de son tirage ou de la netteté de ses prises de position, que de la qualité de son audience et du rayonnement de ses lecteurs. La plupart des journaux d'opinion restaient sans influence électorale: leur prosélytisme était finalement bien faible car ils n'étaient lus que par des convaincus. La Gazette de France ou Le Soleil n'ont jamais gagné une voix au parti royaliste, mais l'Action française qui touchait surtout des militants fut autrement efficace. La Croix eut, grâce au clergé et malgré la faiblesse relative de ses tirages, une grande influence».³¹⁰

Oraintxe aipatu bi egunkari horiek ondoko lerroetan aipatuko ditugu, baina lehenik azpimarra dezagun irakurle konbentzituaren aipamen hori. Euskal Herrian ere horrela ote zen? Ez dago arrazoirik pentsatzeko ez zela hala gertatzen. Ikusi dugu zein ziren aldizkari baten edo bestearen irakurleak. *Eskualduna* astekarikoak laborariak ziren bezala, gehienbat, errepublikarren astekariak irakurleak irakaskuntzako eta administrazioko langileak ziren. Bakoitzak bere publikoa bazuen, eta, gauzak ez badira hain zehatzak ere, publiko bakoitzak bere nortasuna eta izaera zituen, eta baita horri loturik zegokion jarrera politikoa ere. Euskaldun laborariak fededunak eta mezara jarraikiak ziren, adibidez, eta eskualde horietan zituzten boz kopuru handienak lortzen hautagai zuriek. Pentsatzekoa da *Eskualduna* astekariaren mezua iritzi haren isla zela eta ez eragile. Hain zuzen, astekari horretako artikuluak irakurlea iritzi berekoa zela aintzat hartuz bezala idatziak ziren: aitzinetik jakintzat ematen zen irakurlearen iritzia zein zen. Joera hori agertzen zen astekariaren editorial anitzetan.

3. L'Action Française eta La Croix-ren eragina

Louis Etcheverry eskuinekoa, bonapartista eta erregezalea zela erranik, garbi ageri da zein zen hark sortu zuen *Eskualduna* astekariaren ildo politikoa ere. XXI. mendeko begiekin ikusiz, izan zitekeen berriak modu hotz batean eta intentzio politikorik gabe ematea helburu zuen astekari bat, edo irakurleari bidea libre uzten zion astekari bat, irakurlea bere baitarik gogoetatzeko gai zela pentsatuz. Baina ez zen XXI. mendeko astekaria, beste garai bat zen, eta garai haren arabera ulertu behar dira gauzak. Jon Casenavek ongi azaltzen duen bezala, *Eskualduna*-ko idazle anitzek irakurleen «hezteko ardura» zutela ikusten zuten, irakurle «pasiboei» jakintza bat transmititu behar zieten, besteak beste fede giristinoa nola praktikatu.

³¹⁰ Ibid., 256.

Baina «giristino moraletik inspiratutako doktrina sozial eta politiko kontserbadorea» ere transmititu nahi izan zieten irakurleei³¹¹. Hori erranik, Casenavek ondorioztatzen du *Eskualduna*-ko idazleek «irakurlegoaren iritzian pisua» izan nahi zutela eta irakurleen «gainetik» ikusten zutela beren burua³¹².

Eskualduna-ren ildo politikoa Frantziako *L'Action Française* eta *La Croix* egunkarien ildo berekoa zen. Erlijio giristinoak markaturik ibili zen, eta XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako politika bera ere erlijioarekin nahasia izan zela jakinik, ez da dudarik *Eskualduna*-k erlijioarentzat zuen kezka handiaren ondorioz, politikak leku handia zuela astekarian. Ildo politikoa aztertzerakoan, erlijioaren pisuaz gain, eskuineko ideologiarekin nola lerrokatu zen ere aipatu behar da. Eta Euskal Herriari begira zer ildo zuen gehiago sakontzeak merezi badu ere, ezin da gutxienez gainetik aipatu gabe utzi.

a) L'Action Française mugimenduaren ildoan

Eskualduna sortu zuena ez zen apaiza, notarioa zen, baina osoki giristinoa. Baina hein handi batez apaizen esku izateaz gainera, astekari hori erregezalea zen, eta frantses nazionalista. Action Française mugimendu politiko eta izen bereko aldizkariaren ildoan kokatzen zen. Dreyfusen kontrakoek sortu zuten mugimendu hori 1898an. Gerora, mugimendu monarkista izan zen. *L'Action Française* egunkaria bera *Eskualduna* baino hogeitabi urte geroago agertu zen, 1908ko martxoaren 21ean, baina euskal astekariak erreferente gisa erabili zuen, han idazten zuten Jacques Bainville edo Albert de Munen artikuluak osoki argitaratzen baitzituen, itzulpenik gabe³¹³. Eskuin muturreko ideia horiek ageri ziren *Eskualduna*-koek berek idatzi testuetan ere. Oroz gainetik juduen eta masoien edo «hargin beltzen» kontrako artikulugogorrak gelditu dira denen gogoan. Juduak eta masoiak etsai gisa tratatzen zituen³¹⁴.

Garai hartako egunkariak politikoki biziki markatuak ziren. Ezkerrean, Jean Jaurès-ek 1904an sortu zuen *L'Humanité* sozialista eta Miguel Almereydak zuzenduriko *Le Bonnet Rouge* (1913an sortua) anarkista ziren ezagunenak. Ezkerrean kokatzen zen baita ere *L'Aurore*, Ernest Vaughan prentsa gizonak 1897an sortu zuena eta Dreyfus aferaren baitan Emile Zola idazlearen «J'accuse» artikulua famatua argitaratu zuena. Georges Clémenceau politikari erradikal-sozialistak 1913an sortu zuen *L'Homme Libre* ere ildo bertsuan kokatzen zen. Zentro-eskuinean, *Le Temps*, *Le Soir* eta *L'Eclair* ziren ezagunenak. Eskuinekoetan zeuden *Le*

³¹¹ Casenave, *De l'article de presse à l'essai littéraire: Burubkak (1910) de Jean Etchepare.*, 420.

³¹² Ibid., 421.

³¹³ Borda, «Le journal «Eskualduna» et la guerre de 1914-1918», 29.

³¹⁴ Altzibar, «Sarrera», 49.

Figaro, 1864an sortua eta *L'Echo de Paris*, 1883an sortua. Biek ere Action Française mugimenduko kideen artikuluak argitaratzeko ohitura zuten. Lau egunkari nagusiak, ordea, ez ziren kokatzen mapa politikoan. *Le Petit Parisien*, *Le Petit Journal*, *Le Matin* eta *Le Journal* egunkariak ziren lau egunkari salduen horiek. *Le Petit Journal*-en hastapena Dreyfus aferaren erdian agertu zuen jarrera antisemitak markatu zuen, baina aski laster hartu zuen jarrera neutroa³¹⁵. Eskuin muturrean kokatzen ziren, aldiz, *La Libre Parole*, Edouard Drumont politikari antisemitak 1891n sortu zuena, *L'Autorité* 1885ean sortu zen egunkari bonapartista, *La Croix* eta *L'Action Française*.

Ororen buru, gutxi ziren zabalkunde handia zuten egunkariak. Beste andana batek, zabalkunde ttipia zuten, eta biziki politikoak ziren, tendentzia politiko bati lotuak baitziren eta eztabaida politikoetan parte hartzen baitzuten. Baina aldizkari horiek hautesleen baitan zuten eragina neurtzerakoan, ez zitzaion salmenta kopuruari so egin behar, erosleak, anitz izanik ere, jadanik aldizkariaren ideietara bilduak baitziren. Aldiz, *L'Action Française* egunkariaren eragina anitzez zabalagoa zen, haren ideiek beste aldizkari batzuk inspiratzen baitzituzten. Halaber, *La Croix* egunkariak eragin handia zuen, apaizek haren zabalkundean egiten zuten lanaren ondorioz³¹⁶.

L'Action Française aldizkari gisa agertu zen lehenik, baina 1908ko martxoaren 21ean argitaratu zuen bere egunkariaren lehen zenbakia. Charles Maurras kazetari eta politikariak egunkariarekin bat egin zuen eta idazten hasi zen, eta baita Léon Daudet eskuin muturreko kazetari eta politikaria ere. Monarkiaren aldeko egunkaria guztiz polemikoa zen, oposizioaren postuetatik gobernuaren kontra ibili zen etengabe, politikarien zirikatzen eta eskandaluen salatzen³¹⁷. Baina jarrera hori ez zen, beste egunkari edo aldizkarietan bezala, idazlearen eta irakurlearen arteko trukatzeko batera mugatzen. Hots, ez zen soilik irakurle konbentzituengana heltzen. Jarrera polemista harekin, XX. mende hasierako egunkari gehienek postura hartu behar izan zuten *Action Française*-rekiko. Bereziki, beste egunkari giristinoen baitan eta departamenduetako aldizkari kontserbadore eta bonapartisten baitan eragin handia zeukan³¹⁸. Eta zer zen bada *Eskualduna* astekaria? Aldizkari giristino eta, hastapenean, bonapartista, Louis Etcheverry sortzailea hala baitzen. *L'Action Française* mugimenduaren ideiek bazuten oihartzuna euskarazko astekarian. *Eskualduna* astekarian ez zen mugimendu haren aipamen anitz ageri, baina bai, ordea, mugimendu hartako kideenak.

³¹⁵ Livois (de), *Histoire de la presse française. 2, de 1881 à nos jours*, 357.

³¹⁶ Bellenger et al., *Histoire générale de la presse française. Tome 3. De 1871 à 1940*, 256.

³¹⁷ Ibid., 362.

³¹⁸ Ibid., 366.

Adibidez, 1908ko apirilaren 3ko zenbakian, *l'Action Française* egunkaria sortu eta zenbait egunera, nahiz eta egunkari haren berririk ez eman, *Eskualduna* astekariak artikulu gogor bat egin zuen Emile Zolaren kontra, zehazkiago Charles Maurras Action Française mugimenduko kide eta diputatuak Frantziako Legebiltzarrean, Dreyfus aferaren harira, Zolaren kontra egin zuen mintzaldia gorai patuz³¹⁹. Patrick Cabanelek³²⁰ dio Dreyfusen kontrako haien pisua biziki handia zela frantses nazionalismoan. *Eskualduna*-k ere Action Française jarraitu bazuen, Dreyfusen kontrako ildoan, frantses nazionalismoarekin ere bat egiten zuela pentsa daiteke.

Baina pentsa dezakegu, *L'Action Française*-ren zuzeneko eragina baino handiagoa zela zeharkakoa, hain zuzen, *L'Univers* eta *La Croix* egunkari giristinoen baitan eragin handia baitzuen egunkari hark³²¹. Maurice Barrès politikari nazionalista Action Française-eko Charles Maurrasengandik hurbil zegoen ideologikoki, eta gerlako kronikak *Echo de Paris* egunkarian idatzi zituen³²². Salmenten aldetik, *La Croix* aise nagusitzen zitzaion *L'Action Française*-eri. *La Croix* hilabetekari gisa agertu zen, 1880an, Asuntzioko Agustindarrek bultzaturik, eta hiru urteren buruan egunkari bihurtu zen³²³ eta 1892 bitartean, etengabe irakurle gehiago izan zituen, 168.000 ale argitaratzera heldu arte³²⁴. Haren eragina ez zen Parisera mugatzen. *L'Action Française* ez bazen Paristik kanpo hainbeste zabaltzen ere, *La Croix* egunkariak bazituen bideak herrietan barna saldua izateko. Haren argitaratzaile zen La Maison de la Bonne Presse taldeak propaganda batzordeak sortu zituen Frantzian gaindi, orotara hogeita mila batzorde. Batzorde haiek apaiz batek gidatzen zituen: *La Croix* eta taldeak argitaratzen zituen beste agerkari giristinoen saltzea eta haien aldeko propaganda egitea zen batzorde haien helburua³²⁵.

Horrek ez du erran nahi Euskal Herrian *La Croix* egunkariaren ale anitz saltzen zela. Gero ikusiko dugu zein ziren gehien salduak ziren egunkariak eta astekariak. Baina giristinoek beste argitalpen andana bat ere bazuten, eta tokiko astekariak ere bultzatu zituzten. *Eskualduna* ez zen *La Croix*-ren astekaria, baina egunkari hark eragina bazuela ia segurtzat jo daiteke. Alde batetik, antzeko ildo editoriala zuten biek. *La Croix* egunkariak Errepublikaren eta errepublikazaleen kontra idatzi zuen gogor, baita mezu antisemita zabaldu ere. Halaber,

³¹⁹ «Zola», *Eskualduna*, 1908ko apirilaren 3a.

³²⁰ Patrick Cabanel, *La question nationale au XIXe siècle* (Paris: La Découverte, 1997).

³²¹ Bellenger et al., *Histoire générale de la presse française. Tome 3. De 1871 à 1940*, 326; Jeanneney, *Une histoire des médias, des origines à nos jours*, 110.

³²² Maurice Barrès, *Chronique de la Grande Guerre (1914-1920)* (Paris: Plon, 1968).

³²³ Godfrin eta Godfrin, *Une centrale de presse catholique: la Maison de la Bonne presse et ses publications*, 134.

³²⁴ *Ibid.*, 135.

³²⁵ *Ibid.*, 173.

egunkari antisemita zen errotik, nahiz eta urteak aitzina joan ahala antisemitismo hori eztitu zitzaion. Framazonen kontra ere anitz idatzi zuen eta, oroz gainetik, lege laikoen kontra³²⁶.

Gai horiek ere etengabe agertzen ziren *Eskualduna* astekarian. Izan daiteke, beste gisan ere, *Eskualduna*-ko idazleek ideologia bera zutelako. Hain segur hala zen, eta ez zuketen *La Croix*-ren ereduaren beharrik mezu horren segitzeko. Baina Frantziako berriak eta eztabaida politikoak nonbaitetik segitzen zituzten, eta nondik, ez bazen egunkariak irakurritz? Manex Hiriart-Urrutik gisa orotako egunkari edo astekariak irakurtzen zituen, baita gorrien *Le Réveil Basque* ere. Baina Frantziako egunkarien artean, *La Croix* ere irakurtzen zuen, *L'Univers* eta beste zenbait egunkariarekin batera³²⁷. Are gehiago, *Eskualduna* astekariak frantses egunkarietako artikulua batzuk berriz argitaratzen zituen, beste agerkari lokal anitzek egiten zuten gisan. Beraz, *La Croix* egunkaria egunkari gisa ez bazen ere anitz irakurria Euskal Herrian, bai *La Croix* eta bai *L'Action Française* egunkarien edukiak eta ideiek oihartzuna bazuten Euskal Herrian ere, *Eskualduna* astekariaren eskutik bereziki. *Eskualduna*-rentzat, denetan garrantzitsuena erlijio girstinoaren zaintzea zen, eta masoien edo juduen baitan arriskua ikusten zuten, estatu laikoaren eta errepublikaren bultzatzaile ikusten baitzituzten.

b) Euskal Herria eta Frantzia

Eskualduna astekaria Frantziako Action Française mugimenduarekin eta, oro har, eskuineko ideologiekin lerrokatzen zela ikusiz, ez da harrigarri pentsatzea Frantziako politikan inplikatur, Frantziaren erreferentzialtasuna ere bazuela. Hego Euskal Herrian, euskal abertzaletasuna sortu berria eta garapen bidean bazen ere, ez zen halakorik Ipar Euskal Herrian. Bakar batzuk baizik ez ziren ideia abertzaleekin bat egiten zutenak, Albert Constantin mediku zuberotarra eta Pierre Broussain tarteko; aitzitik, Piarres Xarritonen arabera, Hiriart-Urruti, Blaise Adéma, Daranatz eta Saint-Pierre «frantses erregionalistak» ziren³²⁸.

1901-1905 urte horietan, gutxiengo horrek *Eskualduna*-ren baitako orduko ahuleziez baliatu nahi izan zuen astekaria berenganatzeko eta ideia abertzaleak hedatzeko. Baina gutxiengo abertzalearen eta elizgizon kontserbadoreen lehia hartan, Constantinen xedeak ez zuen aitzina egiterik lortu. Alderdi politiko baten sortzeko ahalegina ere egin zuen, baina babes faltagatik, ideia bere gisa utzi zuen³²⁹.

³²⁶ Ibid., 136–137.

³²⁷ Casenave, *De l'article de presse à l'essai littéraire: Burubkak (1910) de Jean Etchepare*, 127.

³²⁸ Charriton, *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques (1895-1920)*, 34.

³²⁹ Itçaina, *Les virtuoses de l'identité. Religion et politique en Pays Basque*.

1904an *Eskualduna* gelditu eta *Eskualdun Ona* sortu zelarik ere ahalegindu zen Constantin astekariaren kontrola hartzera edo, gutxienez, ideia abertzaleei atea irekitzera. Hori ere ez zuen erdietsi, orduko gidari Manex Hiriart-Urrutik ez baitzuen nehondik ere bat egiten halako ideiekin, kontserbadoreen aldeko hautuak eta Hego Euskal Herriko euskaldunen kontrako artikuluek erakutsi zuten bezala³³⁰. Aski da irakurtzea zer idatzi zuen 1914an, Euskal Herriaren batasun politikoa aldarrikatzen zutenen kontra. Hiriart-Urrutik ez zuen batere begi onez ikusten Ipar Euskal Herria Frantziatik bereiztea Hego Euskal Herriarekin bat egiteko³³¹. *Eskualduna* ez zen astekari abertzalea, eta horretan bat egiten dugu Xabier Altzibarrekin:

*Ez zen abertzalea ordea; Frantzia zeukan aberritzat. Laborantza – hiriaren aurka – eta etxaguntzaren ondokotasuna defendatzen zituen. Iraun luzeko kazeta izan zen. Iparraldeko gizartean eragin iraunkorra izan du elizgizon, laborari, idazle eta euskaltzaleengan.*³³²

1911n beste istilu bat izan zuen Hiriart-Urrutik, Pierre Broussainekin, Azkuerekin izan zuten polemika baten harira. Azkuek egonaldi bat egin zuen Senperen ikerketa linguistiko baten egiteko, eta Hiriart-Urrutik kritikatu zuen, eta argi utzi, gainera, Frantzia eta Espainia bereizten zituela. Pierre Broussaini ez zitzaion gustatu, baina bazekien Hiriart-Urruti lagunak erabat bat egiten zuela frantsesen posturekin³³³. Hiriart-Urruti euskaltzale sutsua bazen ere, euskara goraiatzaren bazuen ere, Euskal Herriarenganako atxikimendu handia agertzen bazuen ere, idazten zituen «Biba Euskal Herria!» oihuek ez zuten izaera politikorik. Politikoki, Frantzia zen *Eskualduna* kudeatzen zutenen erreferentzia.

Eskualduna astekariak ideia politiko argiak bazituen. Mezu politikoak zabaltzen zituen. Osoki giristinoa eta erlijioak gidaturik egingo izanik, erlijioaren gaia politikaren erdi-erdian zen garaian, astekari hori ere osoki inplikatu zen. Baina ideologia bereko Frantziako mugimenduekin lerrokatu zen, hots, Frantziarekin identifikatu zen. Ez zuen bere burua euskal abertzaletzat jotzen, ez zuen Frantziaren parte izatea dudaz ezartzen. Frantziako muturreko eskuinarekin bat egin zuen, laikotasuna bultzatu nahi zutenen kontra hortzez eta haginez aritzeko.

³³⁰ Ibid.

³³¹ Bidegain, *Gerla Handia, muga sakona*.

³³² Altzibar, «Sarrera».

³³³ Charriton, *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques (1895-1920)*, 46–47.

C. Hedapen handia Ipar Euskal Herrian

Astekari honen ikertzea ez du soilik alde politikoak egiten interesgarri. Astekari batek eztabaida politikoari ekartzen diona biziki aberatsa izanik ere, astekari horrek ez badu ia irakurlerik, haren ekarpena mugatua da, eta beraz haren ikerkuntzak ere beste muga batzuk izanen ditu. *Eskualduna*, bere izaera politikoarekin eta guzti, aztertzea interesgarria da, bere garaian irakurle anitz izan zuen astekaria zelako. Horregatik, memento bat hartu behar dugu irakurlego hori hobeki ezagutzeko.

Helburu horrekin, lan berezia egin dugu zuzeneko iturriengana joateko, ahal bezain datu zehatzak lortzeko asmoz. Lehenik, irakurlegoari buruzko datu orokorrak azalduko ditugu, eta 1909an Baionako elizbarrutiak galdegin ikerketa baten emaitza zehatzen bila joan gara, apezpikutegira, datu ahal bezain xeheen lortzeko. Horrek, estatistikez gain, irakurleak non ziren eta nolakoak ziren jakiteko ahala eman digu. Ikusiko dugu zein zen Baionan, Miarritzen eta Angelun zegoen irakurlegoa, eta zein zen, aldiz, barnealdekoa.

I. Irakurketa datu orokorrak

Ondoko lerroetan agertuko dira *Eskualduna* eta gainerako egunkari eta astekarien irakurle kopuruak. Datu orokorrak ematen hasiko gara, lehenik euskarazko astekariaren irakurle kopuruaren bilakaera ikusiz. Baina arreta handiena Lehen Mundu Gerra hasi aitzineko kopuruetan jarriko dugu. 1909ko inkesta bati esker, urte hartako kopuru biziki zehatzak baditugu, herriz herri, eta haien berri emanen dugu. Hots, ikusiko dugu *Eskualduna*-ren hedapena zenbaterainokoa zen, eta beste egunkariak zer heinetan irakurtzen ziren ere bai.

a) Gero eta irakurle gehiago

Louis Etcheverryk Arnaud Pochelou hartu zuen gerente edo kudeatzaile gisa. Lehen argitu bezala, honek erredaktore buru lanak ere segurtatzen zituen, baina diru kudeaketa ere bai. Horri buruzko xehetasunak gutunez igorri ohi zizkion Etcheverryri, 1905 arte, eta hari esker dakigu zenbat erosle zituen astekariak³³⁴.

Azpiko taulan ageri den bezala, astekaria sortu eta urte batera, 1888an, 850 erosle zeuzkan astekariak. 1889an ehun erosle gehiago lortu zituen. 1890ean jauzi handiagoa egin

³³⁴ Lafitte, «Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) et les débuts du journalisme basque».

zuen 1.200 erosleraren iganez. Ondoko urtean, beste ehun irakurle irabazi zituen. Ondoko urteetako urtez urteko kopururik ez daukagu, baina 1904ko irakurle kopurua ikusirik, ageri da kopuru hori aski egonkorra izan zela. Alabaina, 1904an 1.700 irakurle zituen.



Irudia 8. Eskualduna-ren ale kopuruaren bilakaera.

(iturriak: Lafitte, eta Pirinio Atlantikoetako departamendu artxiboa).

Egiazko jauzia 1904tik landakoa izan zen. *Eskualdun Ona* sortzearekin eta talde zaharrean bereizketa izan ondoan, Hiriart-Urrutik hats berria eman zion astekariari eta edukia aberasteaz gain, irakurle berrien bila ere abiatu zen. Pierre Broussain funtsezkoa izan zen astekariaren berregituraketa eta zabalkundean, Xarritonen iritziz, bereziki Hazpamen zabalduz³³⁵. Urte bateko epean, 3.300 erosle gehiago lortu zituen astekariak, hots erosle kopurua hirukoiztu zuen. Ez zen hori izan egin zuen jauzi bakarra. Hiru urte geroago, erosle kopurua 7.000koa izan zen³³⁶. Handik aitzina, kopuruak berdintsuak izan ziren.

Pirinio Atlantikoetako artxibora jo dugu ondoko urteetako datuen ezagutzeko. Suprefeturak astero biltzen zituen argitaratzen ziren egunkari eta astekariei buruzko kopuruak³³⁷, hala nola bakoitza zenbat aletan inprimatzen zen, zenbat harpidedun zituen eta zein ziren zuzendari edo jabeak. Zenbait astetako datuak begiratu ditugu. 1913ko ekainaren lehenean, *Eskualduna* 6.000 aletan inprimatu zuten, eta 500 harpidedun zeuzkan. 1916ko

³³⁵ Charriton, *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques (1895-1920)*, 35.

³³⁶ Lafitte, «Eskual astekarien ixtorioa».

³³⁷ Archives Départementales des Pyrénées-Atlantiques: 4 M 155 kartoia.

uztailaren 7an, 7.350 aletan inprimatu zuten eta 500 harpidedun zeuzkan. 1917ko ekainaren 6ko datuak ber-berak dira. 1920eko abenduaren lehenean, 6.500 ale inprimatu zituzten, eta 300 harpidedun zeuzkan.

b) Astekari irakurriena

Baionako apezpikutegiak Ipar Euskal Herriko parrokia guztietako apaizei 1909an egin galdetegi³³⁸ xehe bati esker, *Eskualduna*-k zenbat erosle zituen jakiteaz gain, irakurleak nongoak ziren ere jakin daiteke. Zenbaki horiek ordukoak dira, hots, *Eskualduna*-ren salmentak gailurrera heldu ziren garaikoak. Merezi du zenbaki horiek hurbiletik begiratzeak, irakurleagoa ezagutzeko.

Galdetegiak atal anitz dauzka, eta ataletariko bat herritarrek erosten dituzten egunkari edo astekariei buruzkoa da. Ipar Euskal Herrian salgai zeuden edo izan zitezkeen agerkarien zerrenda baten ondoan, herriko erretoreak agerkari bakoitzak bere herrian zeukan erosle kopurua jarri behar zuen. Inkesta horien emaitza guztiak Baionako apezpikutegian daude, eta guk xeheki begiratu ditugu, ahal bezain estatistika zehatzak ateratzeko. Ondoko orrialdeetan agertuko diren datuak, beraz, inkesta hartatik egin dugun irakurketatik ateratakoak dira. Zorigaitzez, ez dira datu guztiak heldu gaur arte. Donibane Lohizuneko kantonamenduko galdetegia galdua da eta beraz, Urruña, Hendaia, Azkaine, Bidarte, Biriatu, Donibane Lohizune, Getari eta Ziburuko datuak falta ditugu. Halaber, Uztaritzeko kantonamenduko galdetegia ere desagertua da, eta ondorioz, ez daukagu Ahetze, Arbona, Haltsu, Jatsu, Larresoro, Milafranga, Senpere eta Uztaritzeko daturik. Zorionez, galdetegi hori desagertu baino lehen, Pierre Tauziak kontsultatu ahal izan zuen, eta kantonamendu mailako datuak atera zituen³³⁹, eta horiek erabiliko ditugu estatistikak osatzeko.


Beste herri batzuetan, apaizak ez zituen datuak zehaztu, hala nola Angelun eta Miarritzen, Lapurdiri dagokionez. Baxenabarre eta Zuberoako zenbait herritan ere arazo bertsua gertatu zen: Erango, Burgue-Erreiti, Akamarre, Amenduze, Behorlegi, Larribarre, Zaro, Bunuze, Gamarte, Isturitze, Buztintze, Anhauze, Armendaritze, Aiziritze, Hozta, Jutsi, Arhantsusi eta Uharte Garazi herrietako daturik ez dago Baxenabarren, eta Zalgize, Berrogaine, Eskiula, Etxebarre, Gestatze, Ozaze eta Ozarainekorik ez dago Zuberoan.

Ondorioz, Lapurdi kostaldeko datuen faltarengatik bereziki, ezin dugu estatistika errealik atera. Baina tendentzia interesgarriak lor ditzakegu. 1911n egin zen populazio

³³⁸ Lettre circulaire de Mgr l'Évêque de Bayonne, Lescar et Oloron et questionnaire sur les oeuvres diocésaines de 1909. Galdetegiaren emaitzak, kantonamenduz kantonamendu, kontsulta daitezke Baionako apaizpikutegian.

³³⁹ Tauzia, «La presse dans les Basses-Pyrénées d'après l'enquête diocésaine de 1909».

kontaketa ere xeheki aztertu dugu. Pirinio Atlantikoetako artxiboan³⁴⁰ jende kontaketa taulak herriz herri zeuden, eta guk Ipar Euskal Herriko herrietako zenbakiak hartu ditugu, eta herrialde historikoen arabera kontaketa egin³⁴¹. Eta orduko datuekin erkatuz, agerkari bakoitza herritarren ehuneko zenbateraino irakurtzen zuten jakitea lortu dugu. Halaber, gure datuetan zenbateraino populazio zatia falta zaigun ere badakigu.



Irudia 9. Lapurdi, Zuberoa eta Baxenabarreko populazioa 1911n

Iturria : Pirinio Atlantikoetako Departamendu Artxiboa : 6 M 1.

Ipar Euskal Herrian 183.775 lagun bizi zen 1911n. Guk denen artean 124.420 biztanle biltzen dituzten herrien datuak dauzkagu, hots biztanleria osoaren %32,3 falta zaigu. Beraz, aterako ditugun datuak biztanleriaren bi herenari dagozkio. Bi heren horietan, ordea, Ipar Euskal Herri barnealdeko datu gehienak badauzkagu, beraz, *Eskualduna*-k gune euskalduneari zeukan zabalkundea neurtzeko nahiko datu daukagu.

Ipar Euskal Herriko datuen arabera, prentsa erosten zutenen %22k *Eskualduna* astekaria erosten zuten, hala nola, erosle gehien zuten kazeta zen euskarazko hau. Ondoko taulan erakutsiko ditugu Lapurdiko, Baxenabarreko, Zuberoako eta Ipar Euskal Herriko datu orokorrak, *Eskualduna* astekariari dagokionez.

³⁴⁰ Recensement de la population des Basses Pyrénées de 1911. Archives des Pyrénées Atlantiques, 6 M 1.

³⁴¹ Herriz herriko emaitzak eranskinetan ezarri ditugu.

Eskualduna-ren erosle portzentajeak


	Populazioa (aztertutako herrietakoa)	Agerkarien erosleak orotara	<i>Eskualduna</i> -ren erosleak	<i>Eskualduna</i> -ko erosleak erosle guztien artean	<i>Eskualduna</i> -ko erosleak populazioan
Lapurdi	63.268	19.217	2.369	% 12,3	% 3,7
Baxenabarre	37.669	3.942	2.085	% 52,9	% 5,5
Zuberoa	23.483	2.357	1.161	% 49,3	% 4,9
Ipar Euskal Herria	124. 420	25.516	5.615	% 22	% 4,5

Irudia 10. Ipar Euskal Herriko prentsa-ren eta *Eskualduna*-ren erosleak 1909ko inkestaren arabera.

Iturria : Baionako apezpikutegiak 1909an Ipar Euskal Herriko herri guztietan egindako inkesta.

Laburbilduz, 1909ko inkestaren arabera, *Eskualduna* astekariaren 5.615 ale saltzen ziren Ipar Euskal Herrian. Kontuan harturik, biztanleria osoaren heren bat okupatzen duten herrietako datuak falta ditugula, argi da egiazko salmenta kopurua handiagoa zela. Heren bat handiagoa? Hori ez daiteke erran, jakinez Angelu eta Miarritze bezalako leku batzuetan, hain segur, batezbesteko irakurle kopurua anitz apal daitekeela. Dena den, 7.000ko kopurutik ez gara urrun ibiliko.

Ateratzen dugun beste ondorioa da Baxenabarren, prentsa erosten zuten erdiak baino gehiagok, % 52,9k, *Eskualduna* erosten zutela. Zuberoako datuak doi bat apalagoak dira, baina ia-ia erdira heltzen dira, % 49,3rekin. Lapurdin anitzez gutxiago ziren *Eskualduna* irakurtzen zutenak, % 12,3rekin. Horrela, badakigu bereziki barnealdean irakurtzen zutela astekari hori.



Irudia 11. *Eskualduna*-ko erosleen portzentajea, Baionako elizbarrutiko 1909ko inkestaren arabera

Iturria : Baionako elizbarrutiko 1909ko inkesta.

Azkenik, biztanleriaren % 5 inguruk erosten zuen *Eskualduna* astekaria. Zaila da jakitea ale bakoitza zenbat lagunek irakurtzen zuen, baina itxura guztien arabera, batek baino gehiagok. Hazparneko Garcia erretoreak inkesta horretan eman zuen azalpenaren arabera, *Eskualduna*-ren aleak eskuz esku pasatzen zituzten, eta haren ustez, erosle baino irakurle gehiago zeukan. Beste batzuek ere antzeko oharrak egin zituzten. Gotaineko J.P. Luque erretoreak dio *Eskualduna*-k herrian 34 harpidedun zituela eta harpidedunek beren auzoeti pasatzen zieten beren alea, gero. Beraz, arrazoi guztiak daude pentsatzeko astekari horren ale bakoitza anitzek irakurtzen zutela.

Ondoko urteetan ere, Baionan eta inguruetan inprimatzen ziren egunkari edo astekarien artean gehien inprimatzen zen astekaria izan zen *Eskualduna*. Suprefeturaren 1913ko ekainaren leheneko txostenaren arabera³⁴², euskarazko astekariaren 6.000 ale inprimatu ziren, eta *Courrier de Bayonne*, aldiz, 3.200 aletan baizik ez zen inprimatu. Gainerakoak anitzek ale gutxiagotan inprimatzen zituzten, hala nola 2.000 aletik edo 1.000 aletik behera. Gerla garaian, 1916ko uztailaren 5ean, *Courrier de Bayonne* anitzek ale gehiagotan atera zuten, hala nola 6.500 aletan. Baina gorago erran dugun bezala, gorakada *Eskualduna* astekarian ere izan zen, beraz, urte hartan ere gehien inprimatzen zen astekaria *Eskualduna* izan zen. 1920an, aldiz, *Courrier de Bayonne* egunkariak *Eskualduna*-k baino mila ale gehiago inprimatzen zuen, hala nola 7.500.

c) Beste agerkariak

1909ko inkestaren emaitzetara itzuliz, eta itsas bazterreko daturik ez daukagula kontuan hartuz, datuak ez direla zinezkoak erranik ere, azpimarratu behar da *Eskualduna* astekaria erosten zutenak *La Petite Gironde* erosten zutenak baino ia 2.000 gehiago zirela. *Eskualduna* astekaritik landa, Bordeleko egunkari hori zen gehien saltzen zena, 3.771 alerekin. Pentsa daiteke Angelu eta Miarritzeko datuak gehituz gero, bi agerkarien erosle kopuruak hurbiltzen zirela, baina beste hainbeste arrazoi badago pentsatzeko, dena gehiturik ere, *La Petite Gironde*-eren erosle kopuruak ez zuela *Eskualduna*-rena gainditu. Alabaina, Baionan 1.450 lagunek erosten zuten egunkari hori. Baionan, 27.926 biztanle ziren, eta Miarritzeren eta Angeluren artean 24.887 biztanle ziren. Irakurle kopuru handienak hiri horietan baziren, nekez pentsa daiteke bi hiri horien artean 1.400 erosletik gora izan zezan *La Petite Gironde*-k.

³⁴² Archives Départementales des Pyrénées-Atlantiques: 4 M 155 kartoia.

Horiek dira irakurle kopuruak, agerkarika³⁴³:

Aldizkarien salmentak

Agerkaria	Erosleak	Erosleen portzentajea
<i>Eskualduna</i>	5655	22
<i>La Petite Gironde</i>	3771	15,1
<i>La France du Sud-Ouest</i>	2746	11
<i>La Chronique de Bayonne</i>	1512	6,1
<i>Le Courrier de Bayonne</i>	1475	5,9
<i>L'Echo des Basses-Pyrénées</i>	1327	5,3
<i>La Semaine de Bayonne</i>	1048	4,2
<i>Le Bulletin Religieux</i>	1025	4,1
<i>Le Matin</i>	747	3
<i>Le Journal</i>	745	3
<i>La Croix</i>	734	2,9
<i>La Frontière</i>	535	2,1
<i>Le Nouvelliste</i>	529	2,1
<i>Le Soleil</i>	514	2,1
<i>Le Peuple Français</i>	503	2
<i>L'Action Républicaine</i>	463	1,9
<i>Le Petit Journal</i>	422	1,7
<i>La Liberté du Sud-Ouest</i>	391	1,6
<i>La Croix des Basses-Pyrénées</i>	364	1,5
<i>La Dépêche</i>	251	1
<i>Le Patriote des Pyrénées</i>	158	0,6
<i>La Tribune Socialiste</i>	132	0,5
<i>L'Eclair</i>	111	0,4
<i>Les Nouvelles du Sud-Ouest</i>	107	0,4
<i>L'Echo de Paris</i>	91	0,4
<i>L'Action Française</i>	67	0,3
<i>La Libre Parole</i>	62	0,2
<i>L'Autorité</i>	54	0,2

Irudia 12. Ipar Euskal Herrian saltzen ziren agerkariak
Iturria : Baionako elizbarrutiko 1909ko inkesta

Zenbaki horiei fidatuz, atera dezakegun ondorio orokorra da *Eskualduna* astekaria zela gehien irakurria zen agerkaria. Baina *La Petite Gironde* eta *La France du Sud-Ouest* egunkariak, bien artean, euskarazko astekariak baino irakurle gehiago zutela ere zehaztu behar da. Gero datoz lekuan lekuko egunkariak, Baionan Baionakoa bereziki, eta, Miarritzeko daturik ez badaukagu ere, pentsa daiteke Miarritzen *La Gazette de Biarritz* salduenen artean zela. Beste

³⁴³ Baionako apaizpikutegiko artxiboan: Lettre circulaire de Mgr l'Evêque de Bayonne, Lescar et Oloron et questionnaire sur les oeuvres diocésaines de 1909.

ondorioa da, estatu mailako egunkarien sarbidea zinez mugatua zela, eta azkenik aldizkari anitz zinez marjinalak zirela.

L'Action Française agerkariak aipamen berezia merezi du. Ipar Euskal Herrian, ehun erosle baino gutxiago zuen eta erosleen % 0,3 bakarrik. Lehen aipatu dugun bezala, horrek ez du erran nahi mugimendu horrek Ipar Euskal Herrian eraginik ez zuenik. Alabaina, haren ildo bertsua defendatzen zuen *Eskualduna* astekariak eta beraz, irakurle zati handi batek mezu horiek irakurtzen zituen, baina euskaraz.

2. Hirian irakurle gutxi

Kopuru orokorrak ikusirik, datu zehatzagoetan jarriko dugu arreta orain. Lehenik, *Eskualduna* astekariak hirian zuen sarbidea aztertuko dugu. Hiriko irakurlekoa nolakoa zen eta zein egunkari ziren hirian arrakasta zutenak aztertuko ditugu. Hasteko, Parisen argitaratzen ziren egunkariak Baionan nolako hedapena zuten begiratuko dugu. Gero, ohartuko gara arrakasta zuen prentsa lekuan lekukoa zela. Hirugarrenik, *Eskualduna* astekariak berak eremu horretan zer leku zuen aipatuko dugu.

a) Paristarrak ahul

Ipar Euskal Herriko gune jendetsuenari so eginez, hala nola Baionako datuetan arreta jarritz, ohar gaitezke Parisko egunkariak Baionan zituztela Ipar Euskal Herrian zituzten irakurle bakarrak³⁴⁴. Kostaldetik kanpo ez zeukatela oihartzunik ageri da. *Le Matin* eta *Le Journal* egunkariak bakoitzak 730 bat ale saltzen zuten Baionan, eta Baionatik kanpo hamabost bat bakarrik. *Le Petit Journal* egunkariak salmenta apalagoak zituen, 310 Baionan, baina beste 112 Baionatik kanpo. Irakurle gehiago zeukan *Le Soleil* egunkari bonapartistak, hala nola 500 Baionan berean. Baionan 15.560 erosle zeudela oroitarazten badugu, Parisko prentsaren salmenta kopuru horiek franko apalak dira.

Parisén, *Le Petit Journal* zen irakurriena³⁴⁵, eta bigarren postuan zegoen *Le Matin*, eta haren gibeletik *Le Petit Parisien* eta *Le Journal*. Prentsaren loraldi hartan, Parisén argitaratzen zen prentsak sekulako garapena bizi izan zuen. Gerla hasi zen urtean, 3.000 argitalpen baziren Parisén bertan³⁴⁶. Bistan denez, denek ez zuten zabalkunde bera, baziren handiak,

³⁴⁴ Kontuan har, Angelu, Miarritze, Donibane Lohizune eta Hendaiako daturik ez dagoela.

³⁴⁵ Chauveau eta Tétart, *Introduction à l'histoire des médias en France de 1881 à nos jours*.

³⁴⁶ Livois (de), *Histoire de la presse française. 2, de 1881 à nos jours*, 381.

erreferentzialak, eta beste ehunka edo milaka anitzez ttipiangoak. Irakurle kopuru aldetik nagusi ez izateak ez zuen erran nahi, ordea, eraginik ez zutenik.

Baina Baionako kopuruetan ikusi dugun bezala, Paristik kanpo, egunkari horien zabalkundea aski mugatua zen. *Le Petit Parisien* eta *Le Petit Journal* egunkariak egin zuten Paristik kanpoko edizioak ateratzeko apustua. Beste egunkariak Hachette etxearen bidez lortzen zuten egunkariak beste hirietan saltzea³⁴⁷. *Le Petit Parisien* egunkariak milioi bat ale baino gehiago saltzen zituen Frantzian, 1902 hastapenean. 1914an, *Le Petit Journal*, *Le Petit Parisien*, *Le Matin* eta *Le Journal* egunkariak, orotara, 4,5 milioi ale ateratzen zituzten, hots, Frantzia osoko egunkari guztien %40³⁴⁸. Baina emaitza on hori Parisko salmentei zor zieten oroz gainera, funtsean, ez baitziren Parisko egunkariak arrakasta handiena zutenak, Paristik kanpo.

Baionan oihartzun pixka bat bazuten, baina Baionatik kanpo ia ez bazen bakar bat ere saltzen, pentsa daiteke egunkari horien banaketa ez zela egiten herri txikietan edo barnealdean.

b) Lekuko prentsa azkar

Baionan zinez arrakasta zuena ez zen Parisko prentsa, baizik eta eskualde mailakoa edo lekukoa. *La Petite Gironde* eta *La France du Sud-Ouest* Bordeleko egunkariak ziren gehien saltzen zutenak, 2.420 ale lehenak eta 2.275 bigarrenak. Irakurleek hurbileko egunkarien aldeko hautua egiten zuten. Prentsaren loraldi urte haietan, eskualde mailako egunkariak ere sortzen ziren. 1914an, 251 egunkari politiko baziren, baina horietatik zortzi baizik ez ziren 100.000 ale baino gehiagotan saltzen zirenak. Eta horien artean zegoen, hain zuzen, *La Petite Gironde*³⁴⁹. Beste 190 egunkarik 10.000 ale baino gutxiago saltzen zuten. Baina, hala ere, kopuruak ikaragarriak dira, sekulan ez baitzen hainbeste egunkari zabaltzen Frantzian zehar, hala nola, 8 milioi ale baino gehiago. Eta geroztik ere ez da horrelako markarik lortu, Livois-
ren arabera.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, Baionari lotuak ziren zenbait aldizkari edo egunkari baziren. Horietan handiena *Le Courier de Bayonne* egunkaria zen. 1852ko apirilaren 4an agertu zen egunkari haren lehen zenbakia. Hastapen hartan, eta Napoleon III.aren erregimena erori arte, egunkari bonapartista zen, eta ondoko urteetan ere halatsu izan zen, pixkanaka bere

³⁴⁷ Ibid., 387.

³⁴⁸ Bellenger et al., *Histoire générale de la presse française. Tome 3. De 1871 à 1940*, 297.

³⁴⁹ Livois (de), *Histoire de la presse française. 2, de 1881 à nos jours*, 387.

baitako bonapartismoa ahuldu eta desagertu zen arte³⁵⁰. Ondoko urteetan ere kontserbadore izaten jarraitu zuen, errepublikara plegatu bazen ere.

Bistan denez, Baionan zen gehien saldua, hala nola 1.405 ale. Egia da Bordeleko egunkariak baino salmenta gutxiago zuela Baionan berean, baina ez zen egunkari lokal bakarra. beste bi egunkari ere baziren Baionan, hala nola *La Chronique de Bayonne*, hau ere egunkari kontserbadorea, eta *L'Echo des Basses-Pyrénées*. Bien artean 2.500 bat ale saltzen zuten. Azken hau egunkari errepublikarra eta liberala zen³⁵¹. Baina egunkari horiek jadanik ez ziren argitaratzen 1914an. *Le Courrier de Bayonne*, aldiz, 1940 arte argitaratu zuten. Egunkari horrek, 1909an *La Semaine de Bayonne* bi astetik behin ateratzen zen aldizkari erregezale eta girstinoa erosi zuen.

Bestalde, Miarritzen ere baziren zenbait agerkari, hala nola *Le Courrier de Biarritz*, *La Gazette de Biarritz* eta *Le Progrès de Biarritz*. Azken hau, gerla hasi baino lehen desagertu zen.

c) *Eskualduna* eta irakurle hiritarra

Euskarazko prentsak leku mugatua zuen, ordea, hirian. *Eskualduna* astekariak 450 ale saltzen zituen, baina denetara saltzen ziren agerkari guztien artean, salmenten %2,9 baizik ez zen hori. Hiriburun ale bakarra saltzen omen zen. Baina 1909ko galdetegiari esker, Baiona, Angelu eta Miarritzeko irakurleen perfilaz zerbait gehiago jakin dezakegu. Kristautasunari mesede egiten zioten egunkariak zein ziren galdetzen zitzaaien apaizei, eta Baionako San Andres elizako erretoreak zerrenda hau eman zuen: *La Croix*, *La Semaine de Bayonne*, *Le Courrier de Bayonne*, *La Chronique de Bayonne*, *Le Bulletin Religieux* eta *Le Nouvelliste*.

Angeluko eta Miarritzeko zenbakirik ez badaukagu ere, galdetegiari erantzun zioten hango erretoreek. Angelun irakurtzen ziren egunkari edo aldizkari kristauak hauek ziren: *La Croix*, *Le Nouvelliste*, *L'Action Française*, *La Semaine de Bayonne* eta *Le Bulletin Religieux*. Miarritzen *La Libre Parole*, *La Croix*, *L'Action Française* eta *Le Pèlerin* aipatu zituzten. Baina Miarritzeko Ste Eugénie elizako erretorearen arabera, «elite batek» irakurtzen zuen *L'Action Française*.

Irakurtzen zutenak nor ziren ez da beti argi. Angelun eta Miarritzen diote denek irakurtzen zutela pixka bat, baina zehaztu gabe nork zer irakurtzen zuen. Baionako katedralari loturik zegoen eskualdean, aldiz, laborariak ez zutela irakurtzen jakin ahal izan dugu. Eta beharginei buruz, xehetasun hori eman zuen: «L'ouvrier lit chaque jour son

³⁵⁰ Micheu-Puyou, *Histoire électorale du département des Basses-Pyrénées sous la IIIe et la IVe République*, 116.

³⁵¹ Tauzia, «La presse dans les Basses-Pyrénées d'après l'enquête diocésaine de 1909», 191.

mauvais petit journal». Aipatzen ziren egunkari «txar» horiek herri guztietan berak ziren, hala nola *La Petite Gironde* eta *La France du Sud-Ouest*.

Horren kontra, parrokia bakoitzean egunkari banaketak antolatzen zituzten, eta Baionako katedralean, adibidez, hilabetean 4.000 egunkari edo astekari zabaltzen zituztela dio hango apaizak. Baina, haren arabera, ez zuten helburua lortzen: «On ne fait pas encore échec à la mauvaise presse». Dena den, Bordele aldeko egunkariak kenduta, Baiona aldekoak, gehien irakurtzen zirenak edo Bordelekoak bezainbat, egunkari kristauak ziren eta ez errepublikarrak. Hots, *Eskualduna*-k eragin txikia baldin bazuen ere, haren ildo bertuko agerkariak anitz zabaltzen ziren hirian.

3. Barnealdean nagusi

Hiria baino interesgarriagoa da barnealdeko datuen ikustea, ikerketa lan honen kasuan. Barnealdeko irakurlegoaren erradiografia bat eskainiko dugu ondoko orrialdeetan. Lehenik, irakurle kopuruari buruzko datu orokorrak emanen ditugu, ikusteko zein ziren *Eskualduna* gehien irakurtzen zuten herriak. Gero, azterketa kualitatiboago bat egingen dugu, astekaria zer jende motak irakurtzen zuen ikusteko. Azkenik, *Eskualduna*-k zergatik halako eragin handia zuen ulertzeko giltza batzuk emanen ditugu, beti ere 1909ko galdetegi hartatik egin dugun azterketa xehetik abiatuz.

a) Datu orokorrak

Kostaldean irakurle gutxi zuen, oro har, *Eskualduna*-k. Datuei hurbiletik so egiten segituz, argi da Lapurdi barnealdean, Baxenabarren eta Zuberoan zuela irakurle kopuru handiena. Orogen buru, herri gehienetan, aldizkari bat erosten zutenen erdiak baino gehiagok *Eskualduna* erosten zuten. Beste zenbait herritan, *Eskualduna* zen ia aldizkari saldu bakarra. Nahi adina grafiko, taula eta mapa egin daiteke estatistika horien inguruan, baina harira joanen gara³⁵², *Eskualduna* gehien irakurtzen zen herriak aurkezteko. Ondoko taulan jarri dugun herrien zerrendan ageri da zein herritan saltzen zen ia *Eskualduna* bakarrik:

³⁵² Datu zehatzak, eranskinetan daude, CD batean.

Eskualduna gehien saltzen zen herriak

Lapurdi	Baxenabarre	Zuberoa	
Kanbo	Ibarrola Donostiri Landibarre Banka Ostankoa Irulegi Duzunaritze Ahatsa Bithirina Arrueta	Donamartiri Martxueta Aintzila Lakarra Oragarre Labetze-Ilharre Donaixti Jatsu Heleta Mendibe	Gamere Zihiga Urdiñarbe Lohitzun-Oihergi Pagola Altzürükü Arrokiaga Lakarri Larrañe Sohüta

Irudia 13. Saltzen ziren agerkarien %80 baino gehiago Eskualduna-k egiten zuten herriak
Iturria : Baionako elizbarrutiko 1909ko inkesta.

Adierazgarriagoa da, aldiz, *Eskualduna* astekariaren salmenta populazioaren arabera begiratzea. Hiru mailatan banatu ditugu herriak, hala nola biztanleen %10 baino gehiagok *Eskualduna* erosten zuten herrien zerrenda batetik, eta %7,5 eta %10 arteko proportzioa zuten herriena bestetik.

Eskualduna-ren salmenta handienak, biztanleka

Biztanleko portzentajea %10etik gora	Lapurdi	Baxenabarre	Zuberoa
	Lekuine	Lakarra Ibarrola Jatsu Gabadi Suhuskune	Lexantzü Ospitalepea Idauze Mendi Urdiñarbe
%7,5etik %10era	Basusarri Hazparne Bardoze Ainhua	Uhartehiri Ahatsa Mendibe Ostankoa Donibane Garazi Izura Donazaharre Irulegi Irisarri Aldude	Pagola Atharratze-Iruri Hauze Ainharbe Garindaine Altzürüku Muskildi

Irudia 14. Biztanle kopuruka, Eskualduna-k salmenta handienak zituen herriak
Iturria : Baionako elizbarrutiko 1909ko inkesta eta Pirinio Atlantikoetako Departamendu Artxiboa.

Azpimarra daiteke, Lekuineren kasuan, biztanleen %24k erosten zuela *Eskualduna*, hango apaizaren arabera. Lexantzün ere anitz ziren, astekari hori erosten zutenak, hala nola %15. Herri horien guztien artean, badira herri handiak. Hazparnek 5.431 biztanle zituen, eta herritarren %8k erosten zuen *Eskualduna*, nahiz eta zerbait erosten zutenen artean, %56 baizik ez izan. Donibane Garazin 1.566 biztanle zeuden, eta herritarren %8,3k erosten zuen, nahiz eta zerbait erosten zuten guztien %32,4 baizik ez izan. Aldude eta Irisarri ere mila biztanlez gorako herriak ziren.

Oro har harturik, Zuberoako herri gehienetan, biztanleriaren %5ek baino gehiagok erosten zuen *Eskualduna*. Baxenabarren ere, bakar batzuk baizik ez ziren hein horretatik

beheragoko herriak. Azpimarra dezagun, Oragarre edo Bithirina herrietan, adibidez, biztanleen %5ek baino gutxiagok erosten zutela *Eskualduna*, nahiz eta aldizkari bat erosten zuten ia guztiek astekari hori erosten zuten. Alabaina, hainbat herritan ez zen biziki hedatua prentsaren erostea. Nahiz eta Lapurdiko herri batzuetako datuak falta ditugun, ondoko herri hauek dira %5 eta %7,5 bitarteko erosle kopuruak zituztenak: Itsasu, Ezpeleta, Kanbo, Beskoitze, Makea, Lekorne, Mugerre eta Sara.

Hots, *Eskualduna* astekaria Ipar Euskal Herriko herri gehienetara heltzen zen, nahiz eta hirira ez hainbeste heldu. Gainera, ez zen herri txikienetara bakarrik heltzen, herri inportanteago batzuetara ere heltzen zen, Hazparnera adibidez. Datu horiek agerian uzten dutena da, 1909rako, *Eskualduna*-ren banaketa biziki ongi egiten zela eta, itxura guztien arabera, sare handi bat osatua zela.

b) Hizkuntza eta baserria

Nola ulertu behar da *Eskualduna* astekariak barnealdean zuen arrakasta handia? Hainbat giltza daude horren esplikatzeko. Lehena, orokorra, egunkari handiek edo hiri handietako egunkariak barnealdera zabaltzeko zuten zailtasuna. Hain zuzen, eskualde prentsak lekua baldin bazuen ere, lekuko prentsaren garapena da bereziki azpimarra daitekeena. Hiriko egunkari handiek kanpainara edo baserri mundura zabaltzeko trabak zituzten, hainbat arrazoiengatik: alfabetatze berankorragoa, egunkariak herri ttipietara heltzeko zailtasunak eta «Frantziako nazio arazo handietarako irekitasun eskasa»³⁵³. Ondorioz, baserri munduan egunkari nagusiak ez zituzten irakurtzen. Horrek ez du erran nahi ez zutenik irakurtzen. Gerla lehertu arte, egunkari nagusiak ez ziren irakurriak, baina lekuko aldizkariak, maiz kantonamendu mailetakoak, bai, irakurtzen zituzten. Horiek ziren, gainera, urte luzez irakurriak izan ziren aldizkari bakarrak³⁵⁴.

Eta hurbileko aldizkariak baziren, eta ausarki. 1880tik landa halako aldizkari andana bat sortu zen, nahiz eta hirutik bik ez zuten urtea baino gehiago iraun. Horrez gain, hauteskunde kanpainen harira sortuak ziren aldizkari franko agertu zen, kanpainaren denboran baizik iraun ez zutenak³⁵⁵. Politika laguntzeko erabili ohi ziren halako aldizkariak. Euskal Herrian ere halatsu gertatu zen, eta Frantziako legebiltzarrerako hauteskundeetara aurkezten ziren hautagaiek beren aldizkaria sortzen zuten.

³⁵³ Bellenger et al., *Histoire générale de la presse française. Tome 3. De 1871 à 1940*, 141–142.

³⁵⁴ Ibid.

³⁵⁵ Ibid., 395.

Ipar Euskal Herriko salbuespena da, zegoen hurbileko astekari hori, *Eskualduna*, denboran iraun zuen bakarretarikoa izan zela. Nahiz eta asmo politikoekin sortu zen, ez zen kantonamendu astekaria, eremu zabalagokoa zen, baina herrietako berriak eskaintzen zituen, eta horrek hurbileko astekari bihurtarazi zuen, lekuan lekuko berriei esker.

Baina euskarazko astekari horren hedapena edota hiri handietako frantsesezko kazeten hedapen eza azaltzeko, 1909ko galdetegian apaizek eman erantzunei so egitea interesgarria da. Hizkuntzak muga handia markatzen zuen. apaiz horien arabera, leku anitzetan, herritarrek, laborariak bereziki, ez zekiten frantsesik, eta beraz euskaraz zegoen aldizkarira jotzen zuten. Horrela idatzi zuen Arrokiagako erretoreak: «Grâce à l'ignorance général du français, les mauvais journaux ne pénètrent pas dans la paroisse». Hots egunkari «txarrak» gorrien egunkariak ziren. Arrokiagan gehien irakurtzen zen astekaria *Eskualduna* zen, hain zuzen, irakurleek frantsesik ez bazekiten, hori zelako irakur zezaketen bakarra. Eiheralarren ere gisa bereko ohar bat egin zuen erretoreak: «Je recommande l'*Eskualduna*, parce que le paysan ne sait pas le français».

Galdetegi horren arabera, ageri da barnealdeko jendeak *Eskualduna* irakurtzen zuela, euskara baizik ez zekielako. Halaber, apaiz gehienek zehaztu zuten laborariak *Eskualduna* irakurtzen zutela edo, astekari hori irakurtzen zuten gehienak laborariak zirela, nahiz eta laborari ez zirenek ere irakurtzen zuten, Kanbon adibidez. Frantziako aldizkari gorriak (*La Petite Gironde* eta *La France du Sud-Ouest* bereziki) irakurtzen zituztenak zein ziren zehazten zuten, eta gehienetan funtzionarioak, mugazainak edo irakasleak izaten zirela zehazten zuten. Urrustoi-Larrabileko erretoreak izenez aipatu zituen aldizkari horien erosleak: «l'instituteur, le lieutenant Daguerre, Davant et ses conseillers».

Ororen buru, argi utzi nahi izaten zuten astekari gorrien irakurleak bakar batzuk zirela, maiz, funtzionarioak eta, beraz, ez lekuko pertsonak. Lekuko herritarrek (laborariak, gehienbat) *Eskualduna* irakurtzen zuten.

c) Apaizen propaganda

Baina *Eskualduna* erosteko, saldu behar zen. Horrek erran nahi du banaketa sare bat bazela, salgai zenaz geroz. Horren erantzunak ere 1909ko inkestan aurkitu ditugu. Galdera batean, erretoreei galdetzen zitzaien ea zer egiten zuten propaganda zabaltzeko edo «egunkari txarren» eragina ahultzeko. Gehienek erantzuten zuten *Eskualduna* banatzen zutela, igandetan, mezatik landa, eliza aitzinean. Hori erantzun zuen Kanboko erretoreak, adibidez: herrian saltzen ziren 130 aleak eliza aitzinean saltzen zituzten igande goizetan. Beste herri

anitzetan ere gauza bera zen, eta batzuetan, Irisarrin adibidez, saltzeaz gain, doan ere banatzen zuten astekaria.

Apezak hurrei ere ematen zien saltzeko lana. Batzuek eliza aitzinean saltzen zuten, Donibane Garazin adibidez. Sohütan, aldiz, astekariak hurrei banatzen zizkien eta haiek igortzen zituen, paga baten truke, *Eskualduna* etxez etxe saltzera. Amikuze eskualdean, ordea, Aiziritze eta Behaskaneko herritarrek Donapaleun erosten omen zuten *Eskualduna*.

Zenbait aldiz, astekariak inguruko saltegi txikietan ezartzen zituen salgai apaizak. Sarrikotapeko Armagnague apaizak, hala idatzi zuen: «Je fais vendre *La Croix des Basses Pyrénées* dans une épicerie». Herri hartan *Eskualduna*-ren ale bakar bat saltzen zen. Eta beste batzuetan ere ez zen ia saltzen. Baina nahiz eta *Eskualduna* ez salgai ezarri, gisa bereko salmentak antolatzen zituzten. Horren adibide da Bidaxune, ez zuten *Eskualduna* banatzen, baina bai, ordea, *La Croix*. Pentsatzeko da arrazoi linguistikoak zirela horren gibelean, aipaturako herri horietan ez baitzitekeen euskaldun anitz.

Beraz, izan frantsesez edo euskaraz, herriko apaizak prentsa giristinoaren zabaltzeko lana hartzen zuen. *Eskualduna* ez bazen, *La Croix* edo *La Croix des Basses Pyrénées* ziren gehien saltzen zituztenak. Baina *Eskualduna*-ri dagokionez, ageri da apaizek indar berezia egiten zutela astekari hori beren herrira helarazteko eta bertan saltzeko. Lekukotasunen arabera, ordea, ageri da zabalkunde hori aski berria zela. Donamartiriko apaizak erantzun zuen *Eskualduna* urte bat hartan baizik ez zela saltzen bere herrian, hots aski fenomeno berria zela. Ahatsako erretore Gracy-k argitu zuen berak hartu zuela astekari hori herrira helarazteko ardura: «A mon arrivée, je n'ai trouvé que 12 numéros. Il y en a actuellement 52». Izurako Bassaisteguy apaizak zehaztu zuen herrian banatzaile bat bazela, eta banatzaile hark harreman zuzena zeukala *Eskualduna*-ko bulegoarekin. Honek berresten du lehenago idatzi duguna: Manex Hiriart-Urrutik ez zituen erredaktoreak bilatu bakarrik, saltzaile sare bat ere muntatu zuen Euskal Herrian gaindi.

Baina Xabier Altzibarrek ohartarazten duen bezala³⁵⁶, urte haietan Estatuaren eta Elizaren bereizte legearen eta eskola laikoaren sortzearen ondorioz gertatu ziren guztiek ere eragina izan zuten, hala nola inbentarioen auziak, fraide eta seroren kanporatzeak eta abarrek *Eskualduna* gehiago saltzea erraztu zuten.

Urte haietan *Eskualdun Ona* anitz hazi zen. Hasi eta urte baten buruko, 1905eko urtarrilerako, erosle kopurua 1.700etik 5.000ra igan zen, eta handik hiru urtera 7.000raino³⁵⁷. Horrez gain, euskarari lehen baino leku gehiago eman zion. Hastapenean, astekari «zuriek»,

³⁵⁶ Altzibar, «Zer dakarkio Hiriart-Urrutik euskal kazetaritzari?».

³⁵⁷ Lafitte, «Eskual astekarien ixtorioa».

«gorriek» bezala, euskara ez zuten anitz erabiltzen, eta *Eskualduna* astekarian ere frantsesa nagusitu ohi zen. Baina *Eskualdun Ona* gidatzen eta erredaktatzen zuten apaizek erlijioaren atxikitzeke zuten kezkek euskaraz gehiago idaztera bultzatu zituen, eta gisa hartan, *Eskualdun Ona* astekarian euskara frantsesari nagusitu zitzaion, eta euskarazko artikulua gehiago argitaratzen hasi ziren³⁵⁸.

Lau urte haietan, astekaria garatu zen. Horrela idatzi zuten, *Eskualduna* izena berreskuratu ondoan:

Handitu gira. Behazue. Handitu, ez batbetan; emeki, adinarekin. Hogoï urthez.

Sorthu-ta berehala handitzen direnak, edo handi sortzen, ez tire hala iraunkor. Laster zahartzen ere, ba eta hiltzen dire.

*Halahala, ttipi sorthurik, luzaz eta iduri nekez handitzen direnak luzazago dire, bana bertze, bizitzen; eta nekezago hiltzen.*³⁵⁹

Hogei urteko ibilbidea azpimarratzea gauza sanoa da, hogei urtez irautea eta azkartzea ez delako balentria ttipia. Kontuan hartu behar da, adibidez, *Le Réveil Basque* aurkariak ez zuela hamar urte iraun. Baina bereziki erakustera ematen duena da 1887tik landa ez zutela etenik ikusi, eta *Eskualdun Ona*-rena, hastapenean ager zitezkeen desadostasun batzuen gainetik, hogei urteko ibilbide horren parte gisa ikusten zutela.

Hots, *Eskualdun Ona* astekaria trantsizio garaia izan zen, eduki aldetik, euskararen lekuaren aldetik eta baita ere salmenta kopuru aldetik. Argi gelditzen dena da, izen batekin ala bestearekin, *Eskualduna* astekariaren banaketa antolatua zela, Elizak bultzaturik, eta herrietako apaizak banaketa hartan engaiatu zirela. XX. mendeko lehen urteetan, *Eskualduna* astekariaren salmentek izan zuten gorakada ikusgarriaren azalpena daukagu hor. Salmenta ez zen harpidetza bidezkoa, ez eta ere gaur egun ezagutzen dugun ereduaren arabera, kioskoko. Jendea non eta saltzaileak han ziren. Erran nahi baita, ez zen eroslea joaten *Eskualduna*-rengana, baizik eta *Eskualduna* eramaten zuten eroslearengana. Salmenta teknika eraginkorra zela erakusten dute zenbakiek. Baina ondorioa, argi da, astekari hark zabalkunde handia zuen Ipar Euskal Herriko herrietan eta, beraz, gizartean.

Laburbilduz, hau da *Eskualduna*-ren irakurleen argazkia: Ipar Euskal Herriko astekari irakurriena zen, baina ez zuen hainbesteko irakurlerik hirian; barnealdean, ordea, prentsa erosten zuten erdiek baino gehiagok *Eskualduna* erosten zuten. Irakurleak laborariak ziren, hein handi batez, eta igandeetan erosten zuten, eliza aitzinean. Hain zuzen, apaizek lan handia egiten zuten astekari horren banatzeko.

³⁵⁸ Altzibar, «Zer dakarkio Hiriart-Urrutik euskal kazetaritzari?».

³⁵⁹ «Hogoi urthe», *Eskualduna*, 1908ko urtarrilaren 3a.

XIX. mendetik XX. menderako aldaketa arlo anitzetako izan zen, eta guri interesatzen zaigun arloan ere aldaketa sakona gertatu zen. Prentsa egiteko beste modu bat sortu zen. Legearen aldaketak eta prentsa askatasunaren legeak bide berriak urratu zizkion kazetaritzari Frantzian. Teknikaren garapenak eta egunkarien ekoiztearen merkatzeak egunkariak kantitate handian inprimatzeko eta jendeari errazago zabaltzeko aukera eman zuen. Azkenik, alfabetatze masiboari esker, irakurle anitz bazuen prentsak, informazio gose zen irakurle anitz. Horri esker, 1914an, sekulan izan ez zen egunkari erosle kopururik handiena izan zen Frantzian. Baina Frantziako prentsa ez zen guztiz egokitu Amerikako Estatu Batuetatik zetorren joera berrira. Politika eta iritziaren gainetik, informazio soila ezartzeko eredu hark erresistentzia handiak izan zituen Frantzian. Baina eredu berri hari ezin izan zion ihes egin, eta beraz, iritzi eta eztabaida politikoaren tradizioari eutsiz, halako oreka bat aurkitu zuten bi eredu artean, eta frantses kazetaritza eredu berezi bat sortu.

Baina hori egunkari paristarren artean gertatu zen. Egunkari horiek baserri mundura eta hirietatik aparte zabaltzea gehiago kosta zen. Lekuko aldizkari andana bat sortu zen garai haietan, eta nahiz eta egunkari handiak herri txikietara ez ziren heltzen, prentsaren garapen handi bat gertatu zen, hala ere. Baina lekuko aldizkari haiek, gehien bat, eredu zaharraren arabekoak ziren, hala nola politikari batzuen interes politikoei erantzuteko sortu ziren. Hori izan zen *Eskualduna* astekariaren kasua ere. Astekari hark bete-betean parte hartzen zuen eztabaida politikoan, eta ez zuen gaia eskas, garai hartan Elizaren eta Estatuaren arteko gatazka bizi-bizia baitzen. *Eskualduna*-koek Elizaren alde egin zuten, buru-belarri, eta Errepublikaren, bereziki Errepublika laikoaren, kontra.

Irakurle kopuru handia lortu zuen, Baxenabarren bereziki. Estatuaren eta Elizaren bereizte bidean, eskola laikoa sortzean, barnealdeko jendeak ez zuen eskola laikoen alde egin. 1905eko bereizte legearen ondotik izan ziren inbentarioetan ere, Elizak laborarien sostengua ukan zuen. Haiek ziren *Eskualduna*-ren irakurleak. Baina ezin da erran jendeak Eliza eta apaizak defendatzen zituela *Eskualduna* irakurtzen zutelako: alderantzizkoak zentzu gehiago du, apaizak jende haren baitan eragin handia zuelako zuten *Eskualduna* erosten eta irakurtzen.

Dena den, astekari horren ildo editorialaren azterketak erakusten digu nolako mezuak zabaltzen zituzten herritarren artean, eta *Eskualduna* astekariak defendatzen zituen politikariek hauteskundeetan lortzen zuten arrakasta ikusiz, irakurleria horren iritzi politikoa zein zen asma dezakegu. Indar handia zuen astekari hark eskuineko mezuak, erlijiosoak eta Errepublikaren kontrakoak zabaltzen zituen. Hala ere, Errepublikaren kontra eta euskararen

alde agertzeak ez zuen erran nahi ez zutenik beren burua Frantziaren parte sentitzen, geroago gehiago sakonduko dugun bezala.

Orain, 1914 aitzineko *Eskualduna*-ren argazki orokorra eginik, gerla lehertu zenean astekari horrek izan zuen lekua, ezagutu zuen egoera eta defendatu zituen ideiak hobeki ulertu ahal izanen ditugu.

II. GERLA HANDIA, ITURBURUAK ETA ONDORIOAK

Ikerlan honek bi zutabe nagusi ditu, bata bestea bezain inportantea: ikertzen dugun euskarria batetik, eta ikertzen dugun gaia bestetik. Ikerkuntzaren mamian sartu aitzin, baitezpadakoa da bi zutabe horiek ahal bezain ongi esplikatzeari. Hala egin dugu lehen kapitulu nagusian, *Eskualduna* astekariarekin eta garai hartako testuinguru soziopolitikoarekin. Bigarren kapitulu honetan, beste zutabeaz mintzatuko gara, hala nola Lehen Mundu Gerraz. Gerla hura nondik zetorren eta nola lehertu zen ulertzen ahaleginduko gara, bai eta ere nola iragan zen eta zer ondorio izan zuen argituko dugu. Gertakari orokorrei loturik, ahal den guztietan, Euskal Herrira ekarriko dugu gaia, Euskal Herrian nola bizi izan zen eta Euskal Herriarentzat zer ondorio izan zuen baita gehien interesatzen zaiguna lan honetan.

Gasolina zerbitzugune batean gasolina isuri eta isuri ondoan, gasolina putzu horren gainera norbaitek supizteko bat botako balu bezala lehertu zen gerla. Erran dezagun supizteko hori Sarajevoko atentatua izan zela. Aipatuko dugu atentatu hori, bistan da. Baina horretara heldu baino lehen, interesa bereziki jarriko dugu supiztekoa bota aitzineko gasolina isurtze horretan. Zer zen bada gasolina hori? Gerla lehertu aitzineko urte eta hamarkadetan, Europa guztian, nazionalismoak iratzartu eta indartu ziren, eta bistan da, horrek Ipar Euskal Herrian ere izan zuen eragin berezia.

Supiztekoa putzura botatzenetik gasolina zerbitzugune guztia lehertzerako prozesua ere kontatuko dugu aski xeheki. 1914ko uztailleko nondik norakoak eta gerlaren lehertzea esplikatuko ditugu. Azkenik, aski gainera bada ere, gerlaren bilakaera eta gertakari nagusiak aipatuko ditugu, euskaldunen baitan arreta berezia jarritz. Azken atal hori aski azalekoa izanen

da, gerla hari buruzko liburuak ausarki badirelako bestela ere, eta ikerlan honetan zehar ere barnatzeko aukerak ez direlako eskas izanen.

A. Nazionalismoen iratzartzea

XIX. mendean, gerla bat izan zen, ez biziki luzea, azken ehun urteetan biziki gutxi aipatua eta memoria kolektibotik franko ezabatua. Gogoan ditugun gerlak 1914an lehertu zena eta Bigarren Mundu Gerra dira. Bigarrenak berak lehenari itzal handia egin dio, eta Lehenak lerroalde honen hastapenean aipatutako gerlari. 1870eko gerlaz ari gara, edo Prusiako gerlaz. 1914koa eta 1870koa hertsiki lotuak dira, eta 1871tik 1914erako garaia une giltzarria izan zen. Gerla haren ondorioz hein batez, eta beste arrazoi orokorrago batzuegatik ere bai, XIX. mende bukaera nazionalismoen iratzartze urte bat izan zen, pixkanaka-pixkanaka gerla eraginen zuen giro bat sortzeraino.

1870eko gerlak ondorio handiak utzi zituen Frantziaren eta Alemaniaren arteko harremanetan, baina baita Europako mapa politiko eta diplomatikoan ere. Gerla hura nola pasatu zen eta zer ondorio utzi zuen aipatzea komeni da, aitzina joan baino lehen. Honekin loturik baldin badoa ere, are interesgarriagoa da, gure kasuan bereziki, Frantziako nazioaren egoera eta nazioaren eraikuntza prozesua aztertzea. Azkenik, eta besteak beste nazionalismo horien iratzartzearen ondorioz, estatuen arteko lehia handia izan zen urte haietan.

I. 1870eko gerlaren ondorioak

Nahiz eta ez garen gehiegi luzatuko 1870etik 1871ra izan zen Frantziaren eta Prusiaren arteko gerla aipatzean, gertakari haren ardatz nagusiak oroitarazi behar dira, Lehen Gerla Mundialean gerla haren itzala handia izan baitzen, eta itzal horrek leku berezia baitzuen *Eskualduna* astekarian ere, nahiz eta, François Roth-ek dioen bezala³⁶⁰, XX. mendean izan ziren gerlek 1870eko hura ahantzarazi zuten. Gerla hark ondorio handiak izan zituen Frantzian, frantses nazioaren eraikuntza prozesuan eta nazionalismoaren garapenean, bereziki. Eta horrek eragina izan zuen Euskal Herrian. Frantziak Prusiaren kontrako gerla hura galdu zuen, eta gerlarekin batera Alsazia eta Lorrena eskualdeak. Halaber, Napoleon

³⁶⁰ François Roth, *La guerre de 1870*, [lehen edizioa: 1990]. (Paris: Fayard, 1993), 7.

IIIaren inperioa desagertu eta III. Errepublikak sortu zen. Eta galdutako gerlak eta eskualde haiek sortu desohoreak bultzaturik, errebantxa gogoak piztu ziren.

a) Inperiotik III. Errepublikara

Prusiako erresumaren eta Frantziaren arteko tentsioak hein gorenera heldu ziren 1870eko uztailan. Espainiako gobernuak erregetza Prusiako erregearen ahaide bati eskaini izana biziki gaizki hartu zuten Frantziak, Prusiak Frantzia inguratzea erran nahi izan baitzezakeen. Frantziako enbaxadoreak Prusiako errege Gilen Lehenarekin negoziatu zuen Ems-en, eta Prusiak Espainiaren eskaintzari uko egitea adostu zuten. Ems-eko bileraren akta Bismarck Prusiako kantzilerrak idatzi zuen, uztailaren 13an, eta zenbait xehetasun aldatu izana leporatu zioten. Agiriaren arabera, Frantziako enbaxadorea biziki gogor jarri zen Prusiak Espainiaren eskaintza bazter zezan eskatuz, eta Prusiako erregeak ez zuen enbaxadorearekin bildu nahi izan. Agiriak Frantziaren haserrea piztu zuen, eta uztailaren 19an Frantziak gerla deklaratu zion Prusiari.

Frantziaren eta Alemaniaren arteko muga 1815ean finkatu zenetik, lehen aldia izan zen muga haren inguruan gerla hasi zela, nahiz eta hainbat aldiz tentsio eta mehatxu batzuk izan ziren bi data haien artean³⁶¹. Frantziako armada franko ahul zen, ordea, bereziki frantziarrek ez zutelako derrigorrezko zerbitzu militarra egin behar eta, beraz, erreserban zirenak kontuan harturik, mobilizatu zituzten frantsesak ez baitziren hainbeste (140.000 erreserbako), eta gainera beranta handiarekin joan baitziren gerla lekura³⁶². Prusiakoa indartsuagoa eta hobeki antolatua zen. Gainera, Prusiako erresumarekin bat egin zuten Alemaniako beste erresumek ere, hala nola Ipar Alemaniako Konfederazioak, Bavariako eta Wurttembergeko erresumek eta Badeko dukerriak. Alemania guztiak bat egin zuen Frantziaren aurka. Indartsuagoak ziren, eta Frantziako armadaren porrotak laster etorri ziren: horietan ezagunena Sedango gudua izan zen, irailaren 2an, gudu haien lekuan berean zegoen Napoleonek amore eman baitzuen, eta bere burua Prusiako armadaren esku utzi. Hala ere, gerlak zenbait hilabete gehiago iraun zuen, baina 1871ko urtarrilaren 29an, Frantziak armistizioa izenpetu behar izan zuen. Martxotik maiatzera, Parisen altxaldi handiak izan ziren Parisko Komuna izeneko mugimenduan³⁶³.

³⁶¹ Ibid., 15.

³⁶² Ibid., 21–22.

³⁶³ William Serman, *La Commune de Paris, 1871* (Paris: Fayard, 1986).

Ipar Euskal Herrian ez zitzaion arreta handirik jarri gerla hari, Pierre Darrigranden arabera³⁶⁴: gerla denboran berean, Baiona kenduta, ez ziren batere hartaz interesatu; gerlatik landa ere, gerla hartan hildako euskaldun ez ziren batere gogoratu. Erran behar da, orain arteko kontaketen arabera, 84 euskaldun hil zirela 1870eko gerlan. Litekeena da kopurua handiagoa izatea, baina 2020aren beha egon behar da, artxiboa kontsultatu ahal izateko. Gerlak berak baino gehiago, gerlaren ondorio politikoek izan zuten eragina.

Gerla haren porrotarekin batera, Frantziako Inperioa desagertu zen, eta Alemaniakoa sortu. Napoleonek boterea 1870eko irailaren 2an galdu zuen, eta Frantziako Hirugarren Errepublika sortu zen handik egun gutxira, Frantzia oraino gerlan zegoela. Alemanian, aldiz, lehendik zuten ametsa bete zuten: Alemaniako erresuma guztiak inperio batean biltzea. Prusiako erresuma zen inperio hartako handiena, eta hango errege Gilen Lehena, Alemaniako enperadore bihurtu zen. Eta inperio berri horrekin batera, Alemania bihurtu zen Europako estatu indartsuena.

b) Alsazia eta Lorrena galtzearen desohorea

Armistizioa izenpetu zutenean, Frantziak Alemaniaren esku utzi zituen Alsazia eta Lorrena eskualdeak³⁶⁵. Adolphe Thiers III. Errepublikaren sortzaile eta lehen presidentea Bismarck Prusiako kantzilerrarekin negoziatu zuen. Alemanek Alsazia eta Lorrena eskualdeak nahi zituzten – hori zen gerlaren helburuetariko bat, 1859tik landa³⁶⁶ –, baina baita Belfort eta Metz inguruak ere. Bismarck-ek onartu zuen Belfort Frantziari uztea, Luxenburgo estatu independente izaten jarraitzea uztearen eta ez Alemaniaren menpe egotearen truke³⁶⁷. Baina Frantziaren porrota nabaria zen. Autokritikarako garaia etorri zen Frantzian: argi gelditu zen militarri ez zirela prestatuak. Alsazia eta Lorraine eskualdeak galtzea eta Alemaniari 5.000 milioi libera pagatzea umilazio gisa bizi izan zuen Frantziak, eta hortik abertzaletasun handia piztu zen³⁶⁸. «Traumatismoa» aipatu zuen Anne-Marie Thiessek, Frantziaren «ustezko nagusitasun militarra, kulturala eta ekonomikoa» ametsezkoa bihurtu zela erranez. Frantziako

³⁶⁴ Pierre Darrigrand, «La guerre de 1870-1871 à Bayonne et dans les environs», *Revue d'histoire de Bayonne, du Pays-Basque et du bas-Adour* 154 (1999): 255–302.

³⁶⁵ Frantziarentzat Alsazia-Lorrena arazoa hasi zen; Alemaniarentzat ez zen halako arazorik, XVII. mende arte germaniarrak ziren lurraldeak «berreskuratu» zituztelakoan.

³⁶⁶ Jean-Claude Caron eta Michel Vernus, *L'Europe au XIXe siècle: des nations aux nationalismes, 1815-1914* (Paris: A. Colin, 1996), 299.

³⁶⁷ Roth, *La guerre de 1870*, 472–473.

³⁶⁸ Anne Sohier, «L'enfant et la guerre à l'école primaire: en Bretagne 1871-1914», in Denis, Gwendal: *Mémoire et trauma de la Grande Guerre. Bretagne, Catalogne, Corse, Euskadi, Occitanie* (Rennes: Rennes 2 Université Haute Bretagne, 2010), 11–30.

agintariak ez zuten gehiago beren estatua indartsuenen artean ikusten³⁶⁹. Raoul Girardet³⁷⁰-ek dio Frantziako Iraultzatik zetorren frantses nazionalismoari forma berri bat eman ziola Alsazia eta Lorrena eskualdeen galtzeak, eta horrek gai eta berotasun berriak eman zizkiola.

Gerla galtzarekin batera, Frantzian gauza anitz aldatu zen, besteak beste literaturan eta filosofian eta beste sektore anitzetan. Porrotaz gogoratzean, Alsazia eta Lorrena eskualdearekiko «deialtasuna» eta armadaren «goraipatzea» nabari ziren³⁷¹. 1871tik 1918ra, bi eskualde horien inguruko kezkak presentzia handia zuen Frantziako politikan, anitz aipatzen ziren, urte horietan zehar, garai batez pixka bat apaldu bazen ere. Baina Bertrand Jolyren arabera, eskualde horiek anitz aipatzen baziren ere, horrek ez du erran nahi zinezko kezkarik bazenik eskualde haien askatzeko³⁷². Txalo merkeen bila zebiltzan politikariek erabiltzen zuten tresna demagogiko bihurtzen ziren, batzuetan, bi eskualde horiek.

Baina, oro har, eskualde horien galtzea maiz aipatzeak bazuen interes sakonagorik ere: ahul zegoen Frantziaren baitako nazionalismo eta abertzaletasuna piztea. L'Action Française mugimendua sortu zuen Charles Maurras kazetariak eskualde haien galtzarekin batera, Frantziaren gibelatzearen kezka aipatu zuen bere idazkietan³⁷³. Halaber, Action Française-ko Léon Daudet politikari, kazetari eta idazleak ere anitz idatzi zuen, eta bere literaturan gai hori agertu zen³⁷⁴. Ikusirik *Eskualduna* astekariaren baitan nolako eragina zuten Action Française mugimenduaren ideiek, 1870eko gerlaren galtzeak sortu zuen giro berezi horren azpimarratzea beharrezkoa da, Alsazia eta Lorrena eskualdeari buruz euskal astekariak zuen diskurtsoa frantses nazionalismoaren ildo horretan kokatzen baitzen, geroago ikusiko dugun bezala.

c) Errebantxaren bila

Gerla galdu ondoko urte horietako giroa porrot hark markatu zuen. Gerlak Europaren egonkortasun politikoa aldatu ez bazuen ere eta Alsazia eta Lorrena eskualdeen galtzeak erreakzio berezirik sortu ez bazuen ere³⁷⁵, Frantziako giroa besterik zen. Frantsesek Alsazia

³⁶⁹ Anne-Marie Thiesse, *Ils apprenaient la France: l'exaltation des régions dans le discours patriotique* (Paris: Éditions de la Maison des sciences de l'homme, 1997), 3.

³⁷⁰ Raoul Girardet, *Le nationalisme français. Anthologie 1871-1914* (Paris: Seuil, 1983), 14.

³⁷¹ Bertrand Joly, «Le souvenir de 1870 et la place de la Revanche», in Audoin-Rouzeau Stéphane eta Jean-Jacques Becker: *Encyclopédie de la Grande Guerre 1914-1918. Histoire et culture* (Paris: Bayard, 2004), 110.

³⁷² Ibid., 113.

³⁷³ Weber, *L'Action française*, 29.

³⁷⁴ François Broche, *Léon Daudet: le dernier imprécateur* (Paris: R. Laffont, 1992); Béatrice Landerer, «Les Idées politiques de Léon Daudet» (tesina-memoria, Science Politique - Paris I, 1972).

³⁷⁵ Roth, *La guerre de 1870*, 583.

eta Lorrena eskualdeak maiz aipatzen zituzten, eta aipatze horren gibelean, eskualde haien berreskuratzeko helburua, eta horrekin batera Frantziaren ohorea salbatzekoa nabari ziren. Hain zuzen, ohore kontu bat zen arazoa, Alsazia eta Lorrena eskualdeak galtzeak ez baitzion Frantziaren demografiari, produkzio ekonomikoari edo armadari aparteko kalterik egin. Are gehiago, bost urteko epean, Frantziako armada berrosatu zen, ia Alemaniakoaren pare jartzeraino³⁷⁶. Baina Frantziak gerla galdu zuenaz geroz, diplomatikoki bakartuta egon zen ondoko hogeitun urteetan; Europako beste estatuek ez zuten sostengatu edo lagundu.

Gerla batetik bestera iragan ziren berrogeita hiru urte horietan, Alemaniari errebantxa egiteko asmoa ez zen desagertu. Berrogei urte horiek hainbat fase izan zituzten, eta Alemaniari errebantxa hartzeko gogoia ez zen beti indar berarekin agertu. 1879tik 1889ra bitartean, bizi-bizi izan zen gogo hori. Gero lasaitu zen, eta 1905ean berriz piztu zen Alemaniari buru egiteko gogoia³⁷⁷, estatu harekiko tentsioak handitu zirelako, eta horrela aitzineko urteetan nahiko ahantzia zuten desohoreak eragin traumatismoa berpiztu zen³⁷⁸. Eta errebantxaren gogo hori bazegoela bazekiten alemanek ere³⁷⁹. Errebantxa gogoaz anitz idazten zelako, Frantzian arras zabaldua zela uste bazen ere, frantsesen gehiengoaren baitan hori ez zela errotua diote Jean-Jacques Beckerrek eta Stéphane Audoin-Rouzeau³⁸⁰. Baina horren gainetik, errebantxaren presentziak erakutsi zuen noizbait beste gerla bat piztuko zelako mehatxua ez zela sekulan desagertu, 1871tik landa. Horrek ere azaltzen du 1914an gerla lehertu zenean, zergatik aipatzen zuten hainbeste 1870eko gerla. 1914an izan zen frantsesek hain aspaldi igurikitzen zuten gertakaria. Ordurako, gainera, 1871ko porrotaren eta Alsazia eta Lorrena galtzearen eraginez areagotu zen frantses nazionalismoa, eta nazio sentipenak indar handia hartua zuen. Nazio eraikuntza prozesu luzea ondua zen.

2. Frantses nazioaren eraikuntza

Frantses nazioaren eraikuntzak garrantzia handia izan zuen Lehen Mundu Gerraren lehertzeko giroaren sortzean, baina Euskal Herriari dagokionez ere, sekulako eragina izan zuen. 1870eko porrotetik landa, frantses izaeraren egoera nolakoa zen aztertuko dugu, lehenik. Frantses nazioaren egoerak eta nazio sentimenduaren eraikuntzak eragin handia eta

³⁷⁶ Ibid., 590.

³⁷⁷ Sohier, «L'enfant et la guerre à l'école primaire: en Bretagne 1871-1914».

³⁷⁸ Caron eta Vernus, *L'Europe au XIXe siècle: des nations aux nationalismes, 1815-1914*, 333.

³⁷⁹ Joly, «Le souvenir de 1870 et la place de la Revanche», 123.

³⁸⁰ Jean-Jacques Becker eta Stéphane Audoin-Rouzeau, *La France, la nation, la guerre: 1850-1920* (Paris: Sedes, 1995), 147.

berezia izan zuten eskualdeetan, eta aberri handiaren eta aberri ttipiaren kontzeptuak sortu ziren. Horregatik, Euskal Herrian nazionalismoaren gaia nola bizi izan zen aipatuko dugu. Azkenik, eta gerlako giroa sortzeari begira, eskolak eta armadak bete zuten paperaren gainean jarriko dugu arreta.

a) Frantses izaeraren egoera

Prusiako erresumaren kontrako porrotak Frantzia bere naziotasunaren muinean zauritu bazuen ere, garai hartan, oraino, Frantziako lurraldean bizi ziren gehienek beren burua ez zuten frantses sentitzen, gehiengo hori laboraria baitzen eta ez zutelako Frantziako bizitza politikoa eta kulturala jarraitzen³⁸¹. Are gehiago, 1860an, Frantziako ehun herritatik 22tan ez zuten frantsesik mintzatzen³⁸². Jean-Jacques Beckerrek eta Stéphane Audoin-Rouzeauk ñabardura bat egin dute, hala ere: toki gehienetan, hizkuntzak frantsesaren antza zuen eta beraz, jendeak frantsesa ulertzen zuen, ez bazuen mintzo ere³⁸³. Euskal Herriko datu zehatzik ez dugu, eta Pirinio Atlantikoetako Artxiboan ez dago halako inkesta soziolinguistikorik. Pentsatzekoa da, hala ere, kopuru anitzez handiagoa zela, herri ttipi eta euskaldun anitz zituenaz geroz. Frantses nazioaren eraikuntza prozesuan, derrigorrez konpondu beharreko zerbait zen hizkuntzaren arazoa. Gizartea frantsesteko bideari lotu zitzaizkion.

Jules Ferryk eta Hirugarren Errepublikako beste agintari batzuek indar handiak egin zituzten frantses nortasun horren eraikitzeke, frantses hizkuntza zabalduz eta hizkuntza gutxiak baztertuz. Eskola izan zen tresna nagusia, helburu horretan. Prozedura «bizkor eta bortitza» izan zen garai hartako haurrentzat³⁸⁴. Eskolako ikasgeletan lehenik, eta kanpoko tenorean gero, haurrak gero eta gehiago frantsesetik mintzatzen hasi ziren, frantsesa etxeetan sartzeraino³⁸⁵. Berrogei urteko epe horretan, Frantziako haur gehienak alfabetatzea lortu zen, eskolara joatea derrigorrezko egin ondoan. 1914an, Frantzian bizi ziren biztanleen %4 baizik ez zen analfabetoa. Irakurtzen ikasteaz gain, eskolan hiritar izatea gorai patzen zen, baserri munduko jendearen gutxietako joera bat sortu zen, eta honekin batera baserrietan mintzo ziren hizkuntzen erabilera apaldu zen, hots, frantsesa ere ikasi zuten gazteek hizkuntza horren aldeko hautua egin zuten³⁸⁶. Ez zen berehalako prozesua izan, Eugen Weber-ren

³⁸¹ Sohier, «L'enfant et la guerre à l'école primaire: en Bretagne 1871-1914».

³⁸² Cabanel, *La question nationale au XIXe siècle*.

³⁸³ Becker eta Audoin-Rouzeau, *La France, la nation, la guerre: 1850-1920*, 128.

³⁸⁴ Sohier, «L'enfant et la guerre à l'école primaire: en Bretagne 1871-1914».

³⁸⁵ Patrick Cabanel, «Sentiments nationaux et terre «irredente»», in: Audoin-Rouzeau, Stéphane eta Jean-Jacques Becker: *Encyclopédie de la Grande Guerre 1914-1918. Histoire et culture* (Paris: Bayard, 2004), 39.

³⁸⁶ Moulin, *Les paysans dans la société française. De la Révolution à nos jours*, 150.

arabera. Belaunaldi bat baino gehiago behar izan zen. 1880ko hamarkada hasieran eskolatu zituztenek doi-doia ikasi zuten frantsesa, baina hamar urte geroagokoek (gerla egin zutenek) frantsesa ikasi zuten³⁸⁷. Horretan bereziki eragin handia izan zuen neskak ere eskolara igorri izanak 1880tik goiti. Neskak eskolatuak ez ziren bitartean, ama bihurtzen zirenean beren hizkuntza irakasten zieten haurrari, hala nola frantsesa ez zen hizkuntza bat. Eskolatu zituztenean, frantsesa ikasi zuten, eta haurrei frantsesa transmititzen hasi ziren³⁸⁸.

Eskoletan hizkuntza gutxituen kontrako jarrerak gogorrak izan ote ziren? Denak ez datoz bat horrekin. Jean-François Chanetek uste du eskolaren eragina biziki azalekoa izan zela gizartea frantseste³⁸⁹. Halako gogortasunik ere ez zuen ikusi Thiessek, eskoletako liburuetan Frantziako beste hizkuntzak eta kulturak aipatzen zirela azalduz³⁹⁰. Baina, funtsean, Chanetek berak aipatzen du, Flandriaren kasuan, akademia ikuskaritzak idatzi zuela ez zutela hango hizkuntza deusezte bilatzen, baizik eta ondoan frantsesa ere errotzea, baina hori ez zutenez lortzen, hizkuntza bat bestearen menpe baizik ezin zela bizi. Galdera hau pausatu zuen Chanetek:

*La vraie question ne consiste donc pas à se demander pourquoi la République a voulu assurer la propagation du français, mais pourquoi cette dernière devait passer, aux yeux de certains, par la destruction des langues régionales.*³⁹¹

Bretainian hango hizkuntzaren kontrako kanpaina gogorrak eta frantsesaren zabaltzeko ahalegin handiak salatu zituzten: besteak beste eskoletan bretoiera debekatu eta bretoieraz mintzo ziren haurrak zigortzen zituztela, edota kanpoko apezpikuak izendatzen³⁹². Bretainian bezala Euskal Herrian ere, nortasun arazoaz gain, errepublika laikoaren eraikitze prozesuak eragina izan zuen bretoieraren eta euskararen kontrako politikan. Errepublikarrek euskara girstinotasunaren transmisio tresna gisa ikusten zuten, eta beraz, horregatik gogor egin zuten hizkuntza horren aurka³⁹³, besteak beste euskarazko katixima debekatuz.

Baina dena ez zen eskola. Aldaketa ekonomikoek eta hiritartze prozesuak eragin handia izan zuten gizartearen frantsestean, are gehiago gerlatik landa³⁹⁴. Hiritartze prozesua prozesu

³⁸⁷ Eugen Weber, *La fin des terroirs, la modernisation de la France rurale, 1870-1914*, itzul. Antoine Berman eta Bernard Génies, [lehen edizioa: 1983]. (Paris: Fayard, 1984), 121.

³⁸⁸ Ibid., 453–454.

³⁸⁹ Jean-François Chanet, *L'École républicaine et les petites patries*, [lehen edizioa: 1994]. (Paris: Aubier, 1996), 204.

³⁹⁰ Thiesse, *Ils apprenaient la France: l'excitation des régions dans le discours patriotique*, 1.

³⁹¹ Chanet, *L'École républicaine et les petites patries*, 207.

³⁹² Christian Brunel, «L'Académie bretonne au grand séminaire de Quimper», in *Les parlers de la foi, religion et langues régionales*, ed. Michel Lagree (Rennes: Presses Universitaires de Rennes, 1995), 31–46.

³⁹³ Orpustan, «Rôle et pouvoirs de l'Église», 139.

³⁹⁴ Philippe Vigier, «Régions et régionalisme en France au XIXe siècle», in *Régions et régionalisme en France du XVIIIe siècle à nos jours*, ed. Christian Gras eta Georges Livet (Paris: Presses universitaires de France, 1977), 167.

luze bat izan zen, Norbert Elias³⁹⁵-en iritziz. XVIII. mendetik zetorren kontzeptu bat zen zibilizazioarena. Zibilizatuak ziren gorteko jendeak (eta gerora burgesak, elitea eta abar), eta herri xehea, «barbaroena», oraino zibilizatzeko prozesu batean zegoen; zenbat eta gehiago hiritartu, herriaren zibilizatzeko prozesua orduan eta aitzinatuagoa zen. Fritz Peter Kirsch-ek Eliasen bide beretik jarraitu du eta kultura zibilizatuak, mendez mendez, «barbaroaren» baztertzeko lan handia egin zuela azpimarratu³⁹⁶. Gisa hartan, eskualde hizkuntzen gibelatzea administrazioaren ondorioz baino gehiago gizartearen aldaketaren ondorioz gertatu zela dio Christophe Charle-k. Haren iritziz, frantsesa nagusiaren hizkuntza zen eta eskualde hizkuntza azpikoarena, eta herritarrek zapalkuntzatik ateratzeko bide gisa ikusi zuten zapaltzailearen hizkuntza ikastea eta erabiltzea:

*Le patois était le langage local, quotidien, instrumental, le langage des dominés entre eux, tandis que le français était la langue des rapports avec l'extérieur, l'étranger, le dominant (l'administration ou le bourgeois), le langage de l'abstrait. Mal maîtriser le second, c'est être doublement dominé, bref c'est être obligé, comme le colonisé, l'enfant ou l'analphabète, de croire l'autre sur parole, ce qui permet de fixer les contrats unilatéralement.*³⁹⁷

Eugen Weber ere ildo beretik mintzo da. Frantziako hirietakoek laborari munduko jendea zibilizatzeko lanak egin zituzten. Haien zatik, laborariak ez ziren pertsona zibilizatuak, beren abereekin bizi ziren abere batzuk baizik:

*Entre 1860 et 1880, nous trouvons sans cesse des références, dans les rapports des inspecteurs des écoles primaires, au progrès de la civilisation et au rôle civilisateur des écoles dans les populations auprès desquelles elles sont implantées. [...] Disons pour l'instant qu'ils reflétaient la croyance prédominante que des zones et des groupes de population importants étaient encore non civilisés, c'est-à-dire non intégrés, non assimilés à la civilisation française : ces populations étaient pauvres, arriérées, ignorantes, sauvages, barbares, incultes, et vivaient comme des bêtes avec leurs bêtes. Il fallait leur enseigner les manières, la morale, l'alphabet, leur donner une connaissance du français et de la France, une perception des structures juridiques et institutionnelles existant au-delà de leurs communautés immédiates.*³⁹⁸

Eta Weberrek dioenaren arabera, laborariaren beren artean laborari izateko ahalkea sarrarazi zuten. Pariskoak miresten zituzten³⁹⁹. Beraz, miresten zituztenen antzekoak izateko, horien hizkuntzaren ikastea zen bidea. Halaber, bidaiatzen hasi zirenean frantsesetik mintzatzeari lotu zitzaizkion, eta horrela eskualde hizkuntzen hiztunek berek mespretxatu

³⁹⁵ Norbert Elias, *La civilisation des mœurs*, itzul. Pierre Kamnitzer, [lehen edizioa: 1973]. (Paris: Presses Pocket, 2002), 103.

³⁹⁶ Fritz Peter Kirsch, *Ecrivains au carrefour des cultures: études de littérature occitane, française et «francophone» = estudis de literatura occitana, francesa e «francofona»* (Pessac: Presses Universitaires de Bordeaux, 2000), 50.

³⁹⁷ Christophe Charle, «Région et conscience régionale. Questions à propos d'un colloque», *Actes de la recherche en sciences sociales* 35 (1980): 37–43.

³⁹⁸ Weber, *La fin des terroirs, la modernisation de la France rurale, 1870-1914*, 20.

³⁹⁹ *Ibid.*, 23.

zuten beren hizkuntza⁴⁰⁰. Henriette Walter eta Michel Lagreek ere diote hizkuntza ofizialak (frantsesak) ate anitz irekitzen zuela eta bereziki sozialki gora egiteko aukera, hiritartzearen bidez. apaizak ez ziren hiritartzearen alde, baina bazuten kezka bat, Walterrek eta Lagreek diotenaren arabera: jendea beren herrietan gelditzera bultzatzeak baserri munduko gain-populazioa eta miseria onartzea erran nahi zuen⁴⁰¹.

Baina Frantziako batasun politikoa bultzatu nahi zutenek ere ikusi zuten denek frantsesa ikasteko eta erabiltzeko premia. Weberrekin jarraituz, honek dio gehiengoak frantsesa ez jakitea ez zela arazoa batasun administratiborako, baina bai, ordea, batasun politikorako⁴⁰². Jean-Claude Caron eta Michel Vernusen arabera⁴⁰³, XIX. mendean European nazionalismoa sortzeko eta zabaltzeko arrazoiak nagusiki hiru esparrutakoak ziren. Batetik, industriaren garapenak eta aldaketa ekonomikoek lurralde batasun baten beharra piztu zuten; giza taldeak ez ziren gehiago beren eskualdeetan bakartuak izan, eta hori areagotu zuen garraioaren garapenak. Aldaketa horrek baserri munduaren beherakada eta hirien garapena eragin zuen, eta ondorioz gizakiak beren erroetatik urrun ziren. Caronen eta Vernusen ustez, baserri giroko erroen suntsiketak beste elkartasun bide batzuen beharra piztu zuen, eta Nazioa izan zen horren ordezkatzeko bide nagusia. Nazionalismoaren bigarren arrazoiak kulturala zen, informazioa masiboki zabaldu baitzen, alfabetatzeari esker. Hirugarren arrazoiak politikoa zen, demokraziaren garapenarekin eta sufragio unibertsalarekin jendea bere Estatu-Nazioan inplikatu baitzen. Raoul Girardetek⁴⁰⁴ ere dio hirira joateak nazionalismoaren garapena ekarri zuela. Hain zuzen, hirira joatea erlijioa uztea eta laikotasunean sartzea zela dio, eta erlijioa nazionalismoak ordezkatu zuela.

Eskualduna astekarikoek hiritartzea kritikatu ohi zuten, ez euskaldun izatea uzteko bidea zelako, baizik eta barnealdeko balioen eta erlijioaren galbide gisa ikusten zutelako⁴⁰⁵. Eugen Weberren arabera, hirira joatea prozesu «askatzaile» gisa bizi zuten baserriko jendeek. Hiriko bizi-baldintzak hobekak ziren, lan gutxiago egin behar zuten, distrakzio gehiago eta elizkizun gutxiago bazen (baserrian ez bezala), anonimotasuna bazen eta, oroz gainetik, hirian bizitzea sozialki maila bat gorago igotzea zen. Baserritik joandakoek hirian lortzen zuten estatutu berriak baserrian gelditu zirenen harrotasun eta mirespena eragin zuen, eta beraz

⁴⁰⁰ Ibid., 134.

⁴⁰¹ Henriette Walter eta Michel Lagree, *Les parlers de la foi, religion et langues régionales* (Rennes: Presses Universitaires de Rennes, 1995).

⁴⁰² Weber, *La fin des terroirs, la modernisation de la France rurale, 1870-1914*, 114.

⁴⁰³ Caron eta Vernus, *L'Europe au XIXe siècle: des nations aux nationalismes, 1815-1914*, 434–435.

⁴⁰⁴ Girardet, *Le nationalisme français. Anthologie 1871-1914*, 28.

⁴⁰⁵ Camino, «Hitzaurrea».

hiriaren ospea eta laborantzaren mespretxua areagotu ziren baserri munduan berean⁴⁰⁶. Hiriaren alde horiek liluragarri gisa ikus zitezkeen bezala, Elizako jendeak arrisku gisa ikustea ere ez da harrigarri. *Eskualduna* astekarian aurki ditzakegun artikulu horietan baieztatzen zen hirira joateko joera bazegoela Euskal Herrian ere. Baina hori ere erlatibizatu behar da, Manex Goyhenetxeri jarraikiz⁴⁰⁷. XIX. mende bukaeran kostaldearen hiritartzea ez zen biziki handia izan, eta baserri munduak nagusi izaten jarraitzen zuen. Horiek hola, XX. mendean hiritartze mugimendua bizkortu zen.

Baina nazioa eraikitzen zutenek bazekiten baserria ere nazio eraikitze prozesu horretan integratu behar zela, Anne-Marie Thiessen⁴⁰⁸ ustez. Hots, ez da ikusi behar baserria hiriaren kontra eta beraz frantses nazioa baserriaren kontra. Nahiz eta hiritartzea eta industrializazioa nazioaren eraikuntzarekin lotu, nazio horren zilegitasuna frogatzeko elementu gisa erabili zuten baserria: nazio horren erroak zeuden baserri horretan. Horrela lotu zituzten hiria, baserria eta nazioa.

b) Aberri ttipia, aberri handia eta erregionalismoak

Frantziaren nazio eraikuntza prozesu horretan, hizkuntzen eta tokiko nortasunen gaia ez zen sinplea. Frantsesa inposatzen ahalegintzeak ez zuen bermatzen jarrera erregionalista batzuk ez agertzea. Baina zer zen erregionalismoa? Aurpegi ezberdinak zituen, gai hori aztertu duten ikerlari ezberdinen arabera. Ez zen denetan berdina agertzen, ez zuen motibazio zehatz bat, baina Frantziaren eraikuntzan nolabaiteko eragina ukan zuen. Argi da lehenbiziko arrazoia edo faktorea hizkuntzari lotua zela, hots, hizkuntza «nazionalaren» parean «eskualde» hizkuntzaren babesteko dinamikan⁴⁰⁹. Baina zertarako babestu? Kasu anitzetan ez zen motibazio politikoa ikusi behar, baizik eta apaizek beren predikuak herritarren artera zabaltzeko zuten premia. Laborariak ez zuten frantsesa mintzo, eta beraz haien hizkuntzan mintzatu behar zitzairen⁴¹⁰. Hurbileko apaizek hori ongi ulertua zuten, nahiz eta apezpikuek, gehienetan, zentralismoaren alde ekin⁴¹¹. Euskararen kasuan, bretoieraren edo okzitanieraren kasuan bezala, argi da hizkuntza horietan komunikatu behar zutela, mezua herritarrengana heltzea nahi bazuten.

⁴⁰⁶ Weber, *La fin des terroirs, la modernisation de la France rurale, 1870-1914*, 413–415.

⁴⁰⁷ Manex Goyhenetche, *Histoire générale du Pays Basque: Le XIXe siècle 1804-1914* (Donostia, Baiona: Elkarlanean, 2005), 78.

⁴⁰⁸ Anne-Marie Thiesse, *La création des identités nationales: Europe, XVIIIe-XXe siècle*, [lehen edizioa: 1999]. (Paris: Seuil, 2001), 160.

⁴⁰⁹ Vigier, «Régions et régionalisme en France au XIXe siècle», 165.

⁴¹⁰ Ibid., 167.

⁴¹¹ Ibid., 172.

Apez anitz ez ziren mugatzen beren predikua «eskualde» hizkuntzan egitera. Gérard Chlovyren arabera, beren eskualdeko folkloreaken historia eta kultura sustatzen zituzten, eta eskualdeetako kulturari «apezen eragina» sentitu zen⁴¹². Ongi esplikatzeko du nolakoa zen apaiz mota horien perfila eta defendatzen zuten ereduak:

Ces prêtres, issus du peuple – et de plus en plus de celui des campagnes –, hâtivement formés dans la plupart des diocèses jusque dans les années 1835-1840, sont beaucoup plus proches des sentiments populaires. Contre les petits notables, agents très actifs de la francisation, et contre l'Etat, sinon contre l'évêque lui-même tendant à centraliser dans l'uniformité, ils contribuent à dresser les forces du particularisme local. Ils défendent l'idéal conservateur de larges secteurs de la petite paysannerie. Qu'on ne s'y trompe pas, leur attitude reste dictée par des soucis pastoraux. Mais justement les méthodes pastorales poussent au particularisme⁴¹³.

Apezaren deskribapen honek guztiz bat egiten du *Eskualduna* astekarian idazten zutenen diskurtsoarekin. Bai, hurbiletik heldu ziren, baserriak, eta gizarte tradizionalista haren defentsa sutsua egiten zuten. Zentralismoak beste balio batzuk zekartzan berekin, eta beraz ez zen on giristinitasunarentzat. Horregatik, apaizen erregionalismoa funtsezkoa izan bazen ere hizkuntzen biziraupenean, ez zegoen asmo politikorik, erlijiosoa baizik, nahiz eta erlijioak eztabaida politikoa okupatu zuen XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran. Horregatik, apaiz horiek sustatzen zuten erregionalismoa, kontserbadoretzat jo izan zen. Komeni zaigu oroitaraztea zer dioen Piarres Xarritonek⁴¹⁴ Vatikanok: XIX. mendean Hego Ameriketara edo Irlandara askapen mugimenduak agertu zirenean, Vatikanok ez zituen mugimendu horiek sostengatu.

Maiz parean ezarri izan dira Euskal Herriko eta Britainiako egoerak, antzekotasun handiak bazituztelako, hango hizkuntzaren eta giristinitasunaren arteko harremanetatik eta Frantziako Errepublikak hizkuntza haien kontra eta laikusaren alde hartu neurriengatik. Hala ere, Britainian kontzientzia politikodun erregionalismo bat sortu zen 1911n, eta britainiar alderdi nazionalista eta *Breizh Disbual* aldizkaria sortu zituzten, nahiz eta haien eragina jende gutxiengana heldu⁴¹⁵. Nortasunaren atxikimenduari lotuak ziren beste

⁴¹² Gérard Chlovy, «Régionalisme et clergé catholique au XIXe siècle», in *Régions et régionalisme en France du XVIIIe siècle à nos jours*, ed. Christian Gras eta Georges Livet (Paris: Presses universitaires de France, 1977), 187.

⁴¹³ Ibid., 194.

⁴¹⁴ Pierre Charriton, *Le droit des peuples à leur identité. L'évolution d'une question dans l'histoire du christianisme* (Montréal: Fides, 1979), 64.

⁴¹⁵ Jean-Yves Guiomar, «Régionalisme, fédéralisme et minorité nationales en France entre 1919 et 1939», *Le mouvement social* 70 (1970): 89–108.

mugimendu batzuk ere izan ziren Katalunian eta Okzitania⁴¹⁶. Baina Okzitania hizkuntzak anitz egin zuen gibelera, Hirugarren Errepublika garaiko eskola legeen ondorioz⁴¹⁷.

Oraino eraikitze prozesuan zegoen frantses nazioan eztabaida iturri izan zen eskualde horien nortasunaren gaia. Batzuek eskualdeen arteko federazio bat aldarrikatzen zuten, eta 1900ean Fédération Régionaliste Française federazioa sortu zen. Eskualdekako antolaketaren aldeko aldarriak oihartzuna izan zuen parlamentarien artean, federazio hari esker. Beste aldean, 1789ko iraultzaren eta jakobinoen jarriztaileak zeuden, eta haiek zentralismoa aldarrikatzen zuten, eskualdeen arteko federazio bat sortuko zukeen erreformak 1789ko lorpenei kalte eginen zielakoan. Kontuan harturik, zentralismoaren kontra eta eskualdeek indar handiago ukaitearen alde zeuden politikari gehienak eskuinekoak zirela, besteak beste Charles Maurras Action Française mugimendukoa, ezkertiarrek ideia haren kontra egin zuten, eta zentralismoa bultzatu zuten, erranez hori zela Frantziaren batasunaren bermea⁴¹⁸. Are gehiago, aldarrikapen erregionalisten gibelan Alemaniari mesede egingo zion zatiketa ahalegin bat⁴¹⁹ ikusten zutenak baziren.

Frantziak bere baitan hartuak zituen herrietako nortasun propioek arazoa sortzen zieten zentralismoaren aldeko, eta mugimendu erregionalista horiekiko mesfidantza edo aiherkundera agertu zen. Baina denak ez datoz bat erratean Frantziaren zentralismoaren edo batasunaren izenean, hizkuntza gutxituen ukapena eta haien kontrako jazarpena egin zirela. Adibidez, Anne-Marie Thiessek dio, Frantziaren eraikuntza hartan, Frantziak hizkuntza eta kultura gutxitu horiek bere baitan integratzeko ahalegina egin zuela:

La Troisième République, assurément, a été un temps fort d'affirmation de l'identité nationale. Mais, contrairement à une opinion forte répandue sur cette période, la célébration de l'identité française ne s'est pas effectuée par une dénégation des identités locales, tout au contraire. Loin d'être opposés frontalement, le national et le local ont été alors désignés comme parfaitement solidaires, le second étant même proposé comme fondement le plus irréfutable du premier. La thématique régionaliste, omniprésente sous la Troisième République, a engendré un ensemble profus de discours, d'écrits, d'œuvres littéraires et artistiques, de commémorations et de fêtes qui témoignent d'un intense travail de mise en scène des identités locales (Thiesse 1991). Par un paradoxe qui n'est qu'apparent, la synthèse la plus élaborée, en tout cas la plus consciente, de ce grand ouvrage identitaire a été fournie par l'institution scolaire. L'École primaire républicaine, qui a parfois été dépeinte comme le théâtre d'un combat sans merci mené par des jacobins acharnés contre les cultures régionales, a tout au contraire cultivé le sentiment d'appartenance locale comme propédeutique indispensable au sentiment d'appartenance nationale. De nombreux manuels

⁴¹⁶ Ibid.

⁴¹⁷ Fritz Peter Kirsch, Georg Kremnitz eta Brigitte Schlieben-Lange, *Petite histoire sociale de la langue occitane: usages, images, littérature, grammaires et dictionnaires*, itzul. Catherine Chabrant (Canet: Trabucaire, 2002), 157.

⁴¹⁸ Guiomar, «Régionalisme, fédéralisme et minorité nationales en France entre 1919 et 1939».

⁴¹⁹ Ibid.

scolaires spécifiquement destinés à faire connaître aux enfants leur «petite patrie» pour mieux les préparer à l'appréhension de la «grande Patrie» ont été publiés⁴²⁰.

Garrantzia handiko kontzeptu bat aipatzen du hor, Thiessek: aberri txikiarena eta aberri handiarena. Hots, «aberi txikia» osagai funtsezkoa da «aberi handiarentzat». Lehenbiziko multzoa osatzen dute Euskal Herriak, Britainiak, Korsikak eta abar. «Aberri handia» Frantziari erraten zaio. XIX. mende bukaeran, oraino, eskualde horietako nortasunek pisu handia zuten, eta frantses sentiarazteko bidean, indarra eta gatazka erabiltzea baino hobe zen horiek integratzea.

Baina zein ziren «aberi txikiaren» ezaugarriak? Thieseren arabera, «paisaiak, geografia, historia, lekuko lur-sailetako produktuak⁴²¹, gizon ospetsuak eta folklorea» dira aberri txikia osatzen duten elementuak⁴²². Hor ez da ageri nortasun nazionalik edo politikorik, ez eta ere hizkuntzarik. Nortasunaren ezaugarriak franko mugatuak dira, gaur egun oraino, Frantzian eta Frantziako herrialde gutxitu edo eskualdeetan, maiz erabiltzen direnak. «Terroir» hitza biziki adierazgarria da: lurra laborantzako lurra da, leku bati lotua eta leku horretako jendeak landua; lur horrek, lur hori lantzen dutenen laguntzaz, produktuak ematen ditu. Hiritik aparte kokatzen da, eta bakoitzak bere edo gizartearen erroak ikus ditzake hor. Dena den, Frantziaren ikuspegitik, lekuko kulturak maiz tokiko gastronomiara mugatzera dakar «terroir» hitz horrek.

Eskualdeen integrazio horretan, eskualdeetako nortasunaren balioaren gutxieste bat nabaritu daiteke. Frantziak bere batasuna eraikitzeke eta goraiatzeko erabili zuen teknika, eskualde horietako elementuen batasun bat azpimarratu zuen, Thiessek ongi azaltzen duen gisan:

C'est le mélange des formes, des climats, des ressources naturelles, assurent les élites de la Troisième République, qui constitue le véritable trésor de la France. Par conséquent, servir la patrie, c'est d'abord connaître, faire connaître et cultiver la merveilleuse diversité du territoire national.⁴²³

Frantzia paisaia eta lekuko berezitasun fisikoen bilgune bat bezala aurkeztuz, «aberi txiki» bakoitzeko jendeak bere burua ordezkatua ikusten bide zuen Frantziaren aurkezpen horretan, eta bakoitza bere berezitasunean aipatuz, denak multzo beraren parte sentiarazteko lan handia egin zuten frantses nazioaren eraikuntzaren sustatzaileek. «Aberri txiki» horiek guztiak «aberi handi eta bakar» baten parte ziren.

⁴²⁰ Thiesse, *Ils apprenaient la France: l'exaltation des régions dans le discours patriotique*, 1.

⁴²¹ «Terroir» hitza erabiltzen du, frantsesez anitz baliatzen dena. Hauxe dio, TLFi hiztegiak, bere webgunean: «Région, province, pays considéré(ée) dans ses particularités rurales, ses traditions, sa culture, ses productions et du point de vue du caractère des personnes qui y vivent ou en sont originaires».

⁴²² Thiesse, *Ils apprenaient la France: l'exaltation des régions dans le discours patriotique*, 34.

⁴²³ Ibid., 3.

c) Euskal Herria eta nazionalismoa

Euskal Herrian ere bazuen eragina kontzeptu horrek. Manex Goyhenetxek hainbat aipu bildu zituen, Ipar Euskal Herrian «aberri txiki» izatearen sentimendua nola zabaldua zen agertzeko: «Basques purs. Français sans réserve» edo «plus vous serez Basques, mieux vous serez Français» gisako esaldiak ez ziren eskas⁴²⁴. Frantziarenganako atxikimendua ez zen ukatzekoa, baina, hala ere, Ipar Euskal Herrian hizkuntzak, euskarak, karga handia zuen oraino.

Denak bat datoz errateko euskararen iraupen hori Elizari eta apaizei zor zaiela. 1904an Ardouin-Dumazetek egin zuen bidai baten berri eman zuen, eta Euskal Herriaz erran zuen, apaizek lan handia egin zutela Euskal Herriko ohituren mantentzeko, eta nahiz eta eskola laikoak frantsesa sartzeko ahaleginak egin, apaizen eragina are handiagoa zela, irakasleen baitan ere. Eskoletan euskara debekatzeko ahaleginak edo Euskal Herriko eskoletara Biarnoko irakasleak igortzeko ahaleginak eragin mugatua izan zuen, oro har⁴²⁵. Eugen Weberrek zehazten du, gainera, 1870eko eta 1880ko hamarkadetan, irakasleek zailtasun handiak zituztela frantsesez aritzeko, haurrek frantsesik ez baitzekiten. Beraz, irakasle gehienak euskaldunak ziren⁴²⁶.

Euskal Herriko apaizak Euskal Herriko etxeetatik heldu ziren, eta euskaldunak ziren errotik, herritarrak bezala. Horrek garrantzia handia zuen. Gizartea ere arras giristinoa zen eta apaizen aldekoa. Alde horretatik, irakasle laikoek ez zuten beti harrera ona izan Euskal Herrian⁴²⁷.

Julen Urkizak azpimarratzen du Ipar Euskal Herrian Eliza izan zela euskararen «kultur genozidioaren aurka jaiki zen bakarra». Hala nola, Frantziako Iraultzatik landa edota XX. mende hasieran, Frantzia euskarari jazarri zitzaionean, «irakaskuntza eta aginte politikoetan zeudenak erraz makurtu ziren estatu laikoaren esanetara», baina apaizek hizkuntzari eutsi zioten⁴²⁸. Beñat Goñik gehitu zuen eskualde hizkuntzak «kontzentrazio jakobinoari» ihardukitzeko baliabide gisa ikusten zituztela:

«Un instrument d'influence sociale et politique, une arme contre les idées libérales et laïques véhiculées en français par l'école et la presse»⁴²⁹.

⁴²⁴ Manex Goyhenetche, «Les origines sociales de l'association Eskualzaleen Biltzarra», *Bulletin du Musée Basque* (1993).

⁴²⁵ Pierre Saly et al., *Nations et nationalismes en Europe. 1848-1914* (Paris: Armand Colin, 1996), 206.

⁴²⁶ Weber, *La fin des terroirs, la modernisation de la France rurale, 1870-1914*, 450–452.

⁴²⁷ Moulin, *Les paysans dans la société française. De la Révolution à nos jours*, 165.

⁴²⁸ Julen Urkiza, *Elizaren Historia Euskal Herrian, I. Ikerlan materialak* (Markina: El Carmen, 1995), 1074.

⁴²⁹ Beñat Goñi, «Interdiction du catéchisme en basque», in *Elizak eta Estatua bereizteko legea: ondorioak Euskal Herrian (1905-1906)* (Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2008).

Eremu hartan, Elizaren eragina biziki handia zen, eta horri esker euskararenganako atxikimendua sakona zen, nahiz eta horrek ez zuen jarrera abertzalerik sortu⁴³⁰. Joseba Intxaustiren arabera, III. Errepublika garaian, elizgizon eta emazteen jokabidea funtsezkoa izan zen euskararen biziraupenean, haiek produzitu eta kontsumitu baitzuten, anitz, euskarazko kultura⁴³¹.

Elizgizon horiek euskaltzaleak ziren, baina ez zuten mezu abertzale edo politikorik. Hala ere, Jon Casenavek dioen bezala, Ipar Euskal Herriko euskal kulturgintzako arduraren postu funtsezkoenak bete zituzten⁴³². Horrek ondorio inportanteak izan zituen, Joseba Intxaustiren arabera:

«Elizak berak ere biziki baldintzatu du hizkuntzarekiko gure herriaren jokamolde soziala eta, oro har, gure bilakaera soziolinguistikoa. Onerako edo txarrerako, hori dena dialektika bizi eta aldakor batean joan izan da, mendeak zehar».⁴³³

Jean-Baptiste Orpustanek ere dio elizgizonak izan zirela arras gutxietsia zen hizkuntza baten berpizkundearen sustatzaile bakarrak. Baina hori euskara beren propagandarako tresna gisa ikusten zutelako izan zela zehazten du⁴³⁴. Hain zuzen, garai hartan oraino, herritar gehienek edo anitzek, euskara zuten zekiten hizkuntza bakarra, eta apaizek hizkuntza hartan komunikatu behar zuten. Funtsean, aski da so egitea 1909an Baionako elizbarrutiak apaiz guztien artean egin zuen inkestan zer idatzia izan zen. Propagandari buruzko atalean, gehien banatua zen astekaria *Eskualduna* zela zioten, lehenago aipatu dugun bezala.

Euskara zen komunikaziorako hizkuntza nagusia, eta apaizek hori bazekiten. Jose Maria Lachagaren arabera, ama hizkuntza funtsezkoa zen Elizarentzat, bere mezuaren zabaltzeko, hain zuzen, Elizak balio handia ematen baitzion maitasunetik ikasi hizkuntzari⁴³⁵. Beraz, beren mezua zabaltzeko, euskara erabili zuten. Eta horri esker, euskarak bizirik iraun zuen, frantsesa errotzeko ahalegin handiak egin ziren garai hartan. Horrek bazuen beste alde bat ere, euskarari esker fedea mantendu zelako⁴³⁶.

Apezek gisa horretan mantendu zituzten bakarrak ez ziren euskara eta giristinotasuna izan. Garai hartan aldaketa handiak gertatzen ari ziren gizartean, industria aroaren ondorioz.

⁴³⁰ Saly et al., *Nations et nationalismes en Europe. 1848-1914*, 206.

⁴³¹ Joseba Intxausti, «Elizarrak eta euskal kultura», in Lopez Atxurra (zuz.), Rafael: *Euskal Herriaren historiaz, III, kultura eta portaera erlijiosoak Euskal Herrian zehar. Donostiako Udako V. Ikastaroak. 1986ko uztaila* (Bilbo: EHU-UPV, 1987), 117–141.

⁴³² Casenave, *De l'article de presse à l'essai littéraire: Burubkak (1910) de Jean Etchepare*.

⁴³³ Joseba Intxausti, «Eliza katolikoa eta euskaldungoa. Ikerketaurreko zenbait ohar», *Jakin* 53 (1989): 133.

⁴³⁴ Orpustan, «Rôle et pouvoirs de l'Eglise», 139.

⁴³⁵ José Maria Lachaga, *Eglise particulière et minorités ethniques, jalons pour l'évangélisation des peuples minoritaires* (Paris: Le Centurion, 1978), 128.

⁴³⁶ Fabas, «Aspects de la vie religieuse dans le diocèse de Bayonne (1905-1965)», 54.

Gizartea hiritartzen ari zen, eta hori ez zuten begi onez ikusten apaizek eta girstinoek. Gogoan dugu Domingo Agirrereren *Garoa* liburuko Joanes, mendiaren eta artzaingoaren goraipatzearekin eta hiriaren kritikarekin. Antzeko iritziak aurki ditzakegu garai haietako *Eskualduna* astekarietan ere, zenbait artikulutan hirira lanera joaten ziren herritarren kontra idatzi izan baitzuten astekari hartako editorial egileek⁴³⁷. Iñaki Caminok dioen bezala, euskaldunak tradizioari atxikiak zitzaizkion, eta «hiria euskaldungoaren galgarri» gisa ikusten zuten⁴³⁸. Ongi laburbiltzen du, hor, Hiriart-Urruti eta horiek zuten jarrera. Horregatik, Manex Goihenetxek azpimarratu bezala, euskararen eta euskal kulturaren defentsan ez zegoen hizkuntza sustatzeko borondatea edo helburua, baizik eta tradizioa eta lehengo bizitza, pentsaera eta gizarte antolaketa babestekoa⁴³⁹. Horrek alde txarra zuen euskararentzat edo hizkuntza gutxituentzat, Lachagaren arabera, hizkuntza gutxituetan mintzo zirenak gizarte atzerakoikoak zirelako:

*Il ne faut pas oublier non plus que la société dont font partie beaucoup de minorités ethniques n'est pas non plus humainement très dynamique. Souvent les minorités représentent un type de société réactionnaire, un véritable frein à tout progrès.*⁴⁴⁰

Hego Euskal Herrian Sabino Aranek bultzatutako abertzaletasuna sortzen eta garatzen ari zen bitartean, Ipar Euskal Herrian euskararekiko atxikimenduak helburu desberdinak zituen. Ez zegoen kontzientzia nazionalik, ez eta ere nortasun kontzientziarik. XIX. mende bukaeran abertzaletasun izpi bat agertu zela dio Xabier Altzibarrek: Donibane Lohizunen 1892an, 1894an eta 1897an ospatu ziren Lore Jokoen harira, hango auzapez Goyenetze, edota Gustave Berdeco eta abar «Zazpiak Bat» leloa aldarrikatzen aritu ziren. Martin Iribarne Donibane Lohizuneko bikarioak ere euskaldunek herri bakar bat osatzen zutela erran zuen. Clément D'Andurainek ere beste hainbeste idatzi zuen⁴⁴¹. Baina jarrera hori ez zen errotu, eta *Eskualduna* ez zen aldarrikapen horren bozeramaile izan.

Tradizioa atxikitzeke jarrera atzerakoiek bultzaturik egin zen euskararen alde. Horretan, ahulezia bat bazeukan euskarak: nortasun kontzientzia hori gabe, Frantziak bere baitako eskualdeak integratzeko egin zuen ahaleginak – besteak beste eskoletan zabaldu zuen mezuaren bidez – eta frantses eskuinak, Charles Maurras buru (Frantziako nazionalismo

⁴³⁷ Adibidez, ondoko hiru artikuluko horietan emazteak hirira lanera joatea kritikatu zuten, hiria leku arriskutsu eta galgarria zela erranez: E., «Hiriak», *Eskualduna*, 1927ko martxoaren 18a; «Hirirat sehi», *Eskualduna*, 1907ko azaroaren 15a; Manex Hiriart-Urruti, «Ez hirirab», *Eskualduna*, 1915ko urriaren 15a.

⁴³⁸ Camino, «Hitzaurrea».

⁴³⁹ Goyhenetze, «Les origines sociales de l'association Eskualzaleen Biltzarra».

⁴⁴⁰ Lachaga, *Eglise particulière et minorités ethniques, jalons pour l'évangélisation des peuples minoritaires*, 262.

⁴⁴¹ Xabier Altzibar, «Zazpiak bat gaia XIX. Mendean (The zazpiak bat topic in the XIXth century)», in *Antoine d'Abbadie (1897-1997), Congrès international Eusko Ikaskuntza, Ez obizko kongresua. Eskualtzaindia. XIV biltzarra* (Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1998), 663–668.

kontserbadorearen balioak⁴⁴² *Eskualduna*-renak ziren), eskualde horiek batuko zituen federalismo bat defendatzeak euskaldunak eskema horrekiko onarberak izatea eragin zuen.

d) Eskolen eta armadaren funtzioa

Elizak euskararen (edo, adibidez, bretoieraren) alde egin bazuen ere, ukaezina da euskara gibelatuz eta frantsesa nagusituz joan zela, XX. mendean. Dударik gabe, eskolak eragin handia izan zuen alde horretatik, eta gure arbasoek oraino ere aipatzen dute eskolan ematen zitzaien zigortzeko «txotxa», euskaraz mintzatzen baziren. Hori ez zen Euskal Herrian bakarrik gertatu: Britainian ere halako lekukotasunak izan ziren, François Cochetek aipatzen duen bezala. Baina Cocheten ustez, gaur egun, gauzak ziren baino larriago kontatzeko joera dago:

*Aujourd'hui, en vertu d'un effet de mode qui s'exprime en faveur des mémoires victimaires, l'opinion a surtout tendance à retenir de cette volonté unificatrice, les aspects castrateurs des cultures régionales. L'instituteur, qui ne fut pas longtemps hussard noir de la république, aurait terrorisé les jeunes Bretons, Occitans ou Flamands placés sous sa férule en les empêchant de parler la langue de leurs parents. [...] Sans nier la dimension de contrainte qui, dans ce registre aussi, a existé, nous savons aujourd'hui, grâce à Jean-François Chanet que les instituteurs étaient le plus souvent assez accommodants sur le terrain local.*⁴⁴³

Gorago aipatu dugu Jean-François Chanetek nola erlatibizatu zuen eskualde hizkuntzen kontrako jazarpena. Anne-Marie Thiessek berak ere ideia bertsua aipatu zuen. Euskararen, bretoieraren, okzitanieraren eta beste hizkuntzen kontrako eskolako politika nolakoa izan zen zehazten hasi gabe, aipa dezakegu, ordea, nolakoa izan zen Frantziaren aldeko politika, hori baita oroz gainetik interesatzen zaiguna eta zinezko eragina izan zuena.

Eta hain zuzen, eskolan funtsezkoa izan zen «aberri txikiaren» eta «aberri handiaren» kontzeptua. Anne Sohier ikerlariak, Britainiako kasutik abiatu, ongi aztertu du eskolako haurrak bere burua Frantziaren parte senti zezan erabiltzen zuten mekanismoa: haurrak ezagutzen zuen eremutik, eremu geografikotik, abiatu behar ziren, eremu hori eremu zabalago baten parte zela ulertarazteko, hala nola beren eskualdea Frantziako beste eskualde bat zela azaltzeko⁴⁴⁴. Eta horretarako erabili zuten teknika, geografia haur ipuinen bidez esplikatzea izan zen. Frantziakoa ez bazen kasu bakarra izan ere, guk hori aipatuko dugu: *Le Tour de France de deux enfants* liburuak bi haurrek Frantzian gaindi izan zuten abentura

⁴⁴² Caron eta Vernus, *L'Europe au XIXe siècle: des nations aux nationalismes, 1815-1914*, 343.

⁴⁴³ François Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement* (s.l.: 14-18 éditions, 2005), 43.

⁴⁴⁴ Sohier, «L'enfant et la guerre à l'école primaire: en Bretagne 1871-1914».

kontatzen zuen, eta gisa horretan, Frantziarenganako maitasuna erakutsi zieten. Eta hor sartzen zen Alsazia eta Lorrena eskualdeak berreskuratzeko beharraren azpimarratzea⁴⁴⁵. 1870eko gerlak Frantzian utzi zuen traumaren ondorioak eskolan sentitu ziren bete-betean. Harekin batean piztu zen nazio eraikuntzarako grina eskolako programetan islatu zen. Frantzia guztian irakaskuntza bera zen, eta honek kutsu xobinista gerlatia izan zuen, izan historian, kantuetan edo irakurketetan⁴⁴⁶. Eta horri gehitu behar zaio etengabe «gure herria», «gure aberria» erraten zietela eskolan, mapa ongi erakutsiz, eta eskola liburuetan argi oroitaraziz⁴⁴⁷, haurrei beren lurraldea zein zen irakasteko.

Baina joera hori ez zen eskolara mugatzen; eskolatik kanpoko ekintzetara eta gizartera ere zabaltzen zen. Anne-Marie Thiessek⁴⁴⁸ azaldu du garai hartan garatu zirela, Frantzian bezala beste hainbat estatutan ere, historia nazionala kontatzen zuten museoak. Horrez gain, prentsaren garapenarekin, eta kirolarekin, aberriarenganako atxikimendu bat piztu zen⁴⁴⁹. 1870etik 1914rako urte haietan, heroismoaren aldeko mezua zen nagusi, Frantziako aberriaren aldeko mezua. Frantsesak prest egon behar ziren Frantziaren alde sakrifikatzeko, eta hori eskolatik beretik irakatsi zieten, erranez prest egon behar zutela etorkizuneko soldadu izateko⁴⁵⁰. Eta ildo horretan, 1870eko gerlatik landa abertzaletasuna ikasgai bihurtu zen⁴⁵¹.

Eta ez zitzairen teoria bakarrik irakatsi. 1880tik landa, kirola edo gimnastika egitea derrigorrezkoa bihurtu zen eskolan. Baina kirolaren berezitasuna zen haurrei armadako mugimendu militarrik egiten irakasten zietela, tiro egitea barne⁴⁵². Alegia, eskoletan eskaintzen zen irakaskuntza Frantziaren berpizte nazional eta militarra bideratua zen, 1870eko porrotak bultzaturik. Eta denak prestatzen zituzten horretara, baita neskak ere. Neskei ez zieten ariketa militarrik eginarazten, baina soldaduen ama edo emazte izatera prestatzen zituzten⁴⁵³. 1905etik aitzina, Alemaniaren kontrako gerla baten mehatxuak areagotu zirenean, frantses nazioa bere armadaren inguruan batu zela diote Jean-Claude Caron eta Michel Vernusek⁴⁵⁴. Argi eta garbi, eskola hizkuntza gutxituei jazarri zitzairen ala ez

⁴⁴⁵ Annette Becker, *Les monuments aux morts. Mémoire de la Grande Guerre* (Paris: Errance, 1988), 65.

⁴⁴⁶ Sohier, «L'enfant et la guerre à l'école primaire: en Bretagne 1871-1914».

⁴⁴⁷ Thiesse, *Ils apprenaient la France: l'exaltation des régions dans le discours patriotique*, 238.

⁴⁴⁸ Thiesse, *La création des identités nationales: Europe, XVIIIe-XXe siècle*, 143.

⁴⁴⁹ Marc Ferro, *La Grande Guerre*, [lehen edizioa: 1969]. (Paris: Gallimard, 1990), 32.

⁴⁵⁰ Paul Gerbod, «L'éthique héroïque en France (1870-1914)», *Revue Historique* 544 (1982ko urria-abendua): 409–429.

⁴⁵¹ Lestocquoy, *Histoire du patriotisme en France. Des origines à nos jours*, 136.

⁴⁵² Sohier, «L'enfant et la guerre à l'école primaire: en Bretagne 1871-1914».

⁴⁵³ Ibid.

⁴⁵⁴ Caron eta Vernus, *L'Europe au XIXe siècle: des nations aux nationalismes, 1815-1914*, 330.

eztabaidatzen hasi gabe, ageri da frantses izaten irakatsi zietela, Frantzia maitatzen eta Frantziarentzat gerla egitera prestatu zituztela, psikologikoki eta fisikoki.

Armada – eta bereziki soldaduska – ere frantses aberriaren aldeko irakaskuntza gune bat zen. Infanteria erregimentuek soldaduek eduki beharreko jarrerari buruzko liburuxkak ateratzen zituzten, eta haietan garbi azaltzen zen soldaduei aberria maitatzeko exijitzen zitzaizela. Frantzia aita bezala maitatu behar zen, hartaz harro egon behar zen eta soldaduak haren aldeko sakrifizioa egiteko prest egon behar zuen⁴⁵⁵. Gisa hartan, eskolan Frantziaren zerbitzatzeko prestatzen zituzten haurrak, eta eskolatik landa, soldaduskara joaten zirenean, Frantzia aberri gisa maitatzeko behar hori are gehiago azpimarratzen zieten.

3. Estatuaren arteko lehiak eta tentsioak

Frantziako nazio eraikuntza prozesu hori edo nazionalismoaren iratzartze hori ez zen Frantziara mugatzen. Fenomeno orokorragoa zen. Euskal Herrian berean ere euskal abertzaletasun bat agertu zen XIX. mende bukaeran, Hego Euskal Herrian zehazkiago. Nazionalismo politikoa XIX. mendean zehar hazi zen Europan gairaino, eta estatu nazioen sorrera edo egituratze fase bat hasi zen, nazioa espazio batekin lotuz eta estatuaren bidez nazioaren batasuna sustatuz. Oraino gehiago mende bukaeran, estatu nazioek beren nagusitasuna azpimarratu nahi izaten zutelako⁴⁵⁶. Lehia ekonomikoa, koloniala, politikoa eta militarra zabandu ziren estatuaren artean, gerla aitzineko giroan. Gero eta indartsuagoa zen Alemania toki baten bila zebilen mende bukaeran. Austria-Hungariak, alderantziz, barne arazo handiak zituen barneko nazioekin. Eta giro hartan, armamentu lasterketa bizian sartu ziren denak.

a) Alemania toki baten bila

1871n garaile atera zen Alemaniak sekulako garapena izan zuen 1880tik 1914era. Ekonomikoki jauzi handia egin zuen, industria arloan ordu arte nagusi zen Ingalaterraren parera heltzeraino; eta Frantzia bera ere bere industrian franko zaharkitua gelditu zen, Alemaniarekin alderatuz⁴⁵⁷. Baina arazo bat zeukan, eremuz mugatua zegoelako eta ez

⁴⁵⁵ *Notes sur l'éducation morale du soldat: 13e corps d'armée. 25e division. 49e brigade. 38e régiment d'infanterie* (Lyon: Imp S Pelletier, 1879), 10, Sarean: gallica.bnf.fr.

⁴⁵⁶ Saly et al., *Nations et nationalismes en Europe. 1848-1914*, 275.

⁴⁵⁷ XIX. mendeko Alemaniari buruzko xehetasun gehiago: Albert Pingaud, *Le développement économique de l'Allemagne contemporaine (1871-1914)* (Paris-Nancy: Librairie militaire Berger-Levrault, 1916), VIII; Jacques

zuelako koloniarik, inguruko beste estatuek zituzten gisan, lehengaiak merke eskuratu ahal izateko eta gero eta gehiago hazten ari zen biztanleria hornitzeko. Gainera, Afrika eta Asiako lurak ordurako estatu kolonizatzaileen artean banatuak ziren, eta Alemaniarentzat ez zegoen tokirik, Kamerun, Togo, Ekialdeko Afrika Alemana (oraingo Ruanda, Burundi eta Tanzaniaren zati bat), Hego Mendebalde Afrikarra (oraingo Namibia) eta Bismarck artxipelagoa (Ginea Berriaren iparraldeko hainbat uharte) salbu⁴⁵⁸.

Indartze ekonomikoarekin batera, indartze demografikoa eta politikoa gertatu ziren Alemanian. 1871ko garaipenarekin, Bismarckek Alemaniako Bigarren Reich inperioa sortu zuen eta Prusia eta beste 24 estatu bateratu ziren⁴⁵⁹, besteak beste Bavariako erresuma, Wurtembergekoa, Saxekoa eta Badeko dukerria. Prusiako erregea bihurtu zen Alemaniako enperadore. Batasuneranzko joera hori lehenagotik zetorren, egia erran. Krimeako gerlatik (1853-1856) eta Italiako gerlatik (1859-1861) landa, batasun alemana zabaltzeko bideak agertu ziren, Prusiaren inguruan⁴⁶⁰. Toki bakoitzaren berezitasunen arteko elkarbizitzak kezka sor bazitzakeen ere, eskualdeen nortasunak onartu zituzten, eta horrela zentralizatzeko bat egin zuten, herrialde uniformeak izan gabe, Jean-Claude Caron eta Michel Vernusen arabera⁴⁶¹. Garapen ekonomikoak ere lagundu zituen eskualde horiek Alemaniaren batasuna onartzen.

Urte batzuen buruan, inperio haren sortzeak alemanen nazio sentimendua handitzen lagundu zuela dio Fritz Fischer historialari alemaniarrek⁴⁶², eta honekin batera, 1880ko hamarkadan ikasleen artean mugimendu nazionalista antisemita, dinastikoa, militarra, kontserbadorea eta arrazista sortu zirela ere bai. Gilen II.a enperadore bihurtu zenean, 1888an, indar haiek are handitu ziren, eta 1914erako, jarrera espansionista haien sustatzaile horiek betetzen zituzten «postu politiko inportante guztiak»⁴⁶³.

Alemania indartsu zegoen demografia aldetik ere. Frantziako populazioa 40 milioietan gelditua bazen ere, 1871tik 1915era bitartean, hala nola 44 urtez, Alemaniako populazioa 41

Bardoux, *Quand Bismarck dominait l'Europe* (Paris: Hachette, 1953); Pierre Renouvin, *Histoire des relations internationales* (Paris: Hachette, 1955); Pierre Benaerts, *Unité allemande 1806-1938* (Paris: Armand Colin, 1939); Sandrine Kott, *L'Allemagne du XIXe siècle* (Paris: Hachette, 1999); Joseph Rovin, *Histoire de l'Allemagne* (Paris: Seuil, 1999).

⁴⁵⁸ Ferro, *La Grande Guerre*, 43.

⁴⁵⁹ Harold Kurtz, *Le Deuxième Reich: l'Allemagne de Guillaume II*, itzul. F Didier-Lauber (Ed. Rencontre, 1971).

⁴⁶⁰ Kott, *L'Allemagne du XIXe siècle*.

⁴⁶¹ Caron eta Vernus, *L'Europe au XIXe siècle: des nations aux nationalismes, 1815-1914*, 298.

⁴⁶² Fritz Fischer historialaren lanari balio handia eman zioten Antoine Prost eta Jay Winterrek, historigrafiari buruz egin zuten liburuan, Alemanian ordu arte kontatu zen historian aldaketa erradikala izan zelako, eta Alemaniako inperioaren helburu expansionistak eta horri lotutako gerla helburuak argi utzi zituelako. Prost eta Winter, *Penser la Grande Guerre. Un essai d'historiographie*, 67.

⁴⁶³ Fritz Fischer, *Les buts de guerre de l'Allemagne impériale, 1914-1918*, itzul. Geneviève Migeon eta Henri Thiès (Paris: Ed. de Trévise, 1970), 23.

milioitik 68 milioira pasatu zen⁴⁶⁴, Frantzia gain-gainetik gaudituz. Gainera, biztanleen herena hamabost urtez beherakoa zen. Ekonomikoki, Europa kontinentala modu iraunkorrean kontrolatzeko helburua zuen Bethmann-Hollweg kantzilerrak, Georges-Henri Soutou-ren arabera⁴⁶⁵. Arrazoi ekonomiko, politiko eta demografiko horiek zirela medio, munduko potentzien artean lekua egin nahi zuen Alemaniak. Eta borondate hori tentsio iturri izan zen urte haietan.

Hastapenean, Alemaniak ez zuen gatazkarik nahi Erresuma Batuarekin. Erresuma Batuak ere ez zuen Frantziarekin aliantzarik egin nahi, eta ez zuen begi txarrez ikusten European Alemaniaren eta Frantziaren artean zegoen lehia; are gehiago, nahiago zuen Alemaniak ukan zezan eragina, Frantziak baino. Alemaniak horrekin jokatu zuen, Erresuma Batuari ziurtatuz haren helburuek ez zutela Erresuma Batuaren kontra egiten⁴⁶⁶. Kolonialismo garaian ere, Erresuma Batuaren eta Frantziaren arteko tentsioak sor zitezten nahi zuen Bismarck kantzilerrak. Horrez gain, Frantziak koloniak zabalduz, frantsesek Alsazia eta Lorrena eskualdeen galtzea ahantz zezaten espero zuen⁴⁶⁷. Harremanak ez ziren hain onak, ordea, Errusiarekin. Azalean, bai, aliatuak baitziren, baina sakonean aliantza hark ez zuen iraun, 1893an Errusiak eta Frantziak aliantza ituna izenpetu baitzuten.

b) Austria-Hungaria eta Balkanetako arazoak

Austria-Hungariak⁴⁶⁸, Alemaniak ez bezala, barne arazoak bazituen. Alemaniak batasun bat eraiki bazuen, Austria-Hungariako batasuna ez zen biziki azkar. Austria-Hungariako inperioa 1867an sortu zen, eta Austriako enperadore Frantzisko Josef izan zen inperio berri hartako buru. Inperioak hainbat nazio biltzen zituen bere baitan, estatu eskubideak zituztenak, eskubide horiek ez zituztenak eta gutxiengo nazionalak. Baina bereziki, hego eslaviarrekin eta, oroz gainetik, serbiarrekin zituen arazorik handienak⁴⁶⁹. 1878an, Bosnia-Herzegovina okupatu zuen, hango serbiarren haserrea piztuz. Arazoak are gehiago handitu ziren, ondoko urteetan, Serbiarekin, bereziki 1908an, Bosnia-Herzegovina ofizialki Austria-Hungariari atxiki ziotenean. Serbiarrek eta austriarrek aliantza bat egina zuten 1881ean, baina 1903an

⁴⁶⁴ Ibid., 27.

⁴⁶⁵ Georges-Henri Soutou eta Jean-Baptiste Duroselle, *L'or et le sang: les buts de guerre économiques de la Première guerre mondiale* (Paris: Fayard, 1989), 45.

⁴⁶⁶ Roth, *La guerre de 1870*, 595–596.

⁴⁶⁷ Caron eta Vernus, *L'Europe au XIXe siècle: des nations aux nationalismes, 1815-1914*, 302.

⁴⁶⁸ Jean Bérenger, *L'Empire austro-hongrois: 1815-1918* (Paris: Armand Colin, 2011).

⁴⁶⁹ Victor-Lucien Tapié, *Les nationalités slaves d'Autriche-Hongrie de 1850 à 1914*, Les Cours de Sorbonne (Paris: Centre de Documentation Universitaire, 1962).

Belgradeko estatu kolpearean ondorioz eta 1908ko Bosniako krisiak bultzaturik, harremanak guztiz txartu ziren bi herrialdeen artean⁴⁷⁰.

Franz Ferdinand Austriako artxiduke eta oinordekoak, Jugoslaviako estatu autonomoa sortzea proposatu zuen, hego eslaviarrak inperioaren parte egiteko. Baina proposamen hura ez zen serbiarren gustukoa izan. Austria-Hungariak serbiarrekin zuen gatazka 1914ko ekainaren 28an lehertu zen, Franz Ferdinand Sarajevora joan zelarik, inperioak okupatzen zuen Bosnia-Herzegovinako hiriburura, herri haren nazio egunean; bisita hura probokazio gisa hartu zuten, eta nazionalista serbiar batek erail zuen. Fischerrek dioenaren arabera, Austria-Hungarian, atentatu hura «aukera» gisa ikusi zuten, serbiarrekin zuten arazoa «behin betikoz armen bidez konpontzeko»⁴⁷¹.

c) Armamentu lasterketa eta prestakuntza militarra

Estatu-nazioen eta inperio indartsuen eraikitze garai haietan, indar harremanak garrantzia handia zuen. Alemaniak bere eragina zabaldu nahi zuen, Austria-Hungariak ere bai, bere gisan. Frantziak lehenago galdua berreskuratu nahi zuen. Lehiaketa hark armamentu lasterketa eta prestakuntza militarra ekarri zituen. Anne Sohierrek ongi esplikatzen duen bezala, 1870eko gerlan argi gelditu zen estatu batek beste estatu baten lurralde zati bat konkista zezakeela, eta ondorioz, estatuak beren mugak zaintzeko behar gorria sentitu zuten. Lehia horretan, bakoitzaren helburua beste estatuak baino armada indartsuagoa izatea zen⁴⁷². Frantzian, adibidez, soldaduska hiru urtera luzatzeko erabakia hartu zuten 1913an.

Soldaduska luzatzeko beharra aitzineko urteetan nabaritu zuten. Aitzineko urteetan bi urteko soldaduska zegoen, baina azken 30 urteetan Frantziako sortze tasa anitz apaldu zen, eta beraz armadak ez zuen gizonik aski, balizko gerla baterako prest egonen zenik. 1912an, Alexandre Millerand Frantziako Gerlako Ministroak erran zuen alemanen indartze militarren parean aterabideak aurkitu behar zirela, eta beraz armadari eskaini aurrekontua handitu zuten, eta baita gizon kopurua ere, besteak beste Aljeriako indigenak hartuz. Baina hori ere ez zen aski izan, 1913an Alemaniak 850.000 gizoneko armada zeukala jakin

⁴⁷⁰ Jean Béranger, *L'Autriche-Hongrie, 1815-1918*, [lehen edizioa: 1994]. (Paris: Armand Colin, 1998), 151 eta 155–156.

⁴⁷¹ Fischer, *Les buts de guerre de l'Allemagne impériale, 1914-1918*, 65.

⁴⁷² Sohier, «L'enfant et la guerre à l'école primaire: en Bretagne 1871-1914».

baitzuten, Frantziak 480.000 baizik ez zituenean. Horregatik erabaki zuten soldaduska hiru urtera luzatzea⁴⁷³.

Giro hartan, tentsioak gero eta handiagoak ziren Alemaniaren eta Frantziaren artean; adibidez, Agadir (Maroko) eskualdeko krisia izan zen 1911n, eta, iritzi publikoaren arabera, Frantziak eman zuen amore. Hurrengo urtean, Raymond Poincaré estatu kontseiluko presidente egin zenean, nazionalismoa hazi zen, eta, horrekin batera, Alemaniarekiko tinkotasuna eskatzen hasi ziren⁴⁷⁴. Gerla edo gatazka armatu baten usaina gero eta handiagoa zen, eta prestakuntza militarrean nabaritzen zen.

Europa bolborategia bihurtua zen 1914erako. XIX. mendean estatu-nazio handiak eraiki ziren, eta bata bestea baino indartsuago izan nahi zuen. Indartsu izan nahi horretan, Frantzia zauriturik eta ohorea galdurik atera zen 1870eko gerlatik. Baina Alemania indartsu bazen ere, inguruko estatuek zituzten kolonietako baliabideak falta zituen nagusi izateko. Lehia haiek, nazionalismoen indartzea eragin zuten, Frantzia alemanen kontra egin zen herritarren prestakuntza guztiak eragina izan zuen Ipar Euskal Herrian ere, eta pixkanaka nortasun frantsesa eraikitzen eta egonkortzen ari ziren, euskaldunen baitan ere.

B. Gerlaren pizgarriak

Gerlaren beldurra aski barneratua zen, 1914erako, aitzineko urteetan ere mehatxu horrekin bizi baitziren. Alta, 1914an zehar ez zen bereziki nabari gerla urtea izanen zelako susmorik. Dena den, osagai guztiak bilduak ziren, eta gutxi aski zen gerla lehertzeko. Munduan ordu arte sekulan gertatu ez zena egia bihurtu zen, lehenik ia Europa osoa sartu zen gerlan, batzuk besteen kontra, eta gerla hori mundu osora zabaldu zen geroago. Gerla aitzineko fase hori ahal bezain ongi esplikatzeko lagungarri izanen da ondoko fase eta eztabaidak hobeki ulertzeko.

1914ko ekain bukaeran Sarajevon izan zen atentatua aipatu baino lehen, Europa zein girotan zegoen esplikatu behar dugu, sua hainbeste nola zabaldu zen argitu ahal izateko. Estatu arteko aliantzekin antolatua zen Europa: estatu batzuk besteen etsaiak ziren, eta

⁴⁷³ Georges Bonnefous, Édouard Bonnefous eta André Siegfried, *Histoire politique de la Troisième République. L'avant-guerre (1906-1914)*, [lehen edizioa: 1956]. (Paris: Presses universitaires de France, 1965), 336–337.

⁴⁷⁴ Prévotat, *L'Action française*, 28.

bakoitzak bazituen bere lagunak. Gisa hartan, lagunaren laguna laguna zen, eta lagunaren etsaia etsaia.

Aliantzen kate hori esplikatuz ondoan, xehekiago aipatuko dugu Sarajevoko atentatua eta, bereziki, atentatu haren ondorioak, alde diplomatikotik begiraturik. Aliantzen kate horrek eragin handia izan zuela ikusiko dugu. 1914ko ekain bukaeratik 1914ko agorril hasierako fase horren ondotik, gerla nola piztu zen eta gerlako lehen oren eta egunak nolakoak izan ziren azalduko dugu.

Atal hori ezin dugu bukatu, gerla hasi zen unean euskaldunak nola mobilizatu ziren deskribatu gabe. Hain zuzen, gure lan honetan arreta berezia jartzen dugu gerla Euskal Herriko ikuspegitik nola aipatu eta bizi izan zuten aztertzerakoan, eta beraz, nahi ala ez, hurbiltasun hori ekarri behar dugu orrialde hauetara.

I. Aliantzen katea

Gerla hasi aitzineko urteetan, estatu bakoitza aliantza baten parte zen. Lehengo atalean Frantziak Europan zuen lekua eta Ingalaterrarekin zuen harremana azaldu ditugu, baina hurrengo orrietan gerla aitzineko urteetako itunez mintzatuko gara. Sarajevoko atentatuko protagonisten inguruan antolatu dugu atala, Serbia eta Austria-Hungaria baitziren zuzenean inplikatuak ziren estatuak. Horregatik, lehenik Serbiaren aliatuak zein ziren eta nola antolatu ziren argituko dugu. Ondoren, Austria-Hungariatz eta haren aliatuez mintzatuko gara. Hirugarrenik, Espainiaren neutraltasunean sakonduko dugu, Euskal Herriaren zati bat Espainiaren parte zelako, eta alde horretatik, zuzenean interesatzen zaigulako Espainiaren eta Hego Euskal Herriko euskaldunen jarrera zein izan zen jakitea.

a) Serbiaren aliatuak

Estatu auzoen arteko tentsioak nabariak ziren. Estatu bakoitzak bazuen bere etsaia, eta etsai haren kontrako defentsa prestatzen zuen⁴⁷⁵. Frantzia eta Alemania etsai ziren bezala, Serbia eta Austria-Hungaria ere etsai ziren. Serbia, ordea, Errusiaren aliatua zen, eta beraz haren sostengua izan zezakeen. Errusia, bere aldetik, Frantziarekin aliatua zen. Serbiak, bere aldetik, beste etsai bat ere bazuen: otomandar inperioa. 1912ko urritik azarora, Greziarekin eta Bulgariarekin batera, Balkanetako gerlan, Turkiaren aurka irabazi zuen. Horrek Frantziari

⁴⁷⁵ Ferro, *La Grande Guerre*, 31.

baikortasuna eman zion, pentsatu baitzuen Alemaniako armada ahuldua zela⁴⁷⁶. Serbiak, indar horrekin, Adriatikoko itsasorako sarbidea aldarrikatu zuen, baina Austria-Hungariak ez zuen onartu. Austriaren eta Serbiaren arteko tentsioak Europan zeukan ondorioa, Serbia ez zegoelako bakarrik; Austria ere ez.

Hala ere, zehaztu behar da aliantza horiek aski berriak zirela gerla lehertu zenean. Frantzia diplomatikoki bakartu zuten 1871ko porrotetik landa. 1892an baizik ez zuen izenpetu akordioa Errusiarekin, Alemaniak edo Austria-Hungariak batari edo besteari eraso egiten bazion, besteak gerla bidez sostengatuko zuela hitzartuz. Hurrengo urrats handia 1905ean izan zen, Frantziak eta Ingalaterrak aliantza izenpetu zutenean⁴⁷⁷. Horrekin bukatu zen Frantziaren baztertze diplomatikoa, eta Serbiak lagun sendoak zeuzkan.

Frantzia, Serbia eta Errusiaz gain, beste herrialde batzuk ere aipatu behar dira, kasu bereziagokoak. Italia, berez, Austria-Hungaria eta Alemaniaren aliatua zen. Baina lurralde gatazka batzuk bazituen aspaldian Austria-Hungariarekin, eta zail ikusten zen aliantza hark luzaz irautea, gerla lehertuz gero. Ingalaterraren kasuan, Frantziaren eta Errusiaren aliatua zen, 1906an Frantziarekin izenpetu zuen itunaren eta 1907an Errusiak, Frantziak eta hirurek adostu zuten Elkargo Hirukoitzaren ondotik; baina hastapenean ez zuen gerlan sartzeko asmorik. Haren kezka nagusia, haatik, Alemaniarekin zuen lehia zen, eta ez zen prest itsasoko nagusitasuna galtzeko eta Alemaniari uzteko⁴⁷⁸. Azkenean, Alemaniak Belgikarekin izan zuen jarrera erabakigarria izan zen Ingalaterrak egin zuen hautuan.

b) Austria-Hungariaren aliatuak

Austria-Hungariak berak baino garrantzia handiagoa zuten haren lagunek, eta bereziki Alemaniak, nahiz eta gatazkaren leherketan Austria-Hungaria izan inplikatu nagusia. 1866an, Alemaniaren kontra gerla egin bazuen⁴⁷⁹, Austriak 1879an egin zuen aliantza inperio harekin⁴⁸⁰. Alemaniak bazuen interesa Austriarekin ongi jokatzeko. Alabaina, Christian Ambrosiren arabera, Frantziak 1872an onartu zuen lege militarrek Bismarck kezkatu zuen eta aliantza berrien bila abiatu zen, hala nola Austriaren eta Errusiaren bila⁴⁸¹. Baina

⁴⁷⁶ Fischer, *Les buts de guerre de l'Allemagne impériale, 1914-1918*, 46.

⁴⁷⁷ Caron eta Vernus, *L'Europe au XIXe siècle: des nations aux nationalismes, 1815-1914*, 323–324.

⁴⁷⁸ Robin Prior eta Trevor Wilson, *La Première Guerre mondiale 1914-1918*, [Jatorrizko edizioa: *The First World War*, Cassell, London, 1999]. (Paris: Editions Autrement, 2001), 34.

⁴⁷⁹ Kott, *L'Allemagne du XIXe siècle*, 79.

⁴⁸⁰ Bérenger, *L'Autriche-Hongrie, 1815-1918*, 149.

⁴⁸¹ Christian Ambrosi, *L'apogée de l'Europe, 1871-1918*, [lehen edizioa: 1987]. (Paris: Armand Colin, 1996), 239.

Errusiarekiko aliantzak ez zuen iraun, lehen ikusi dugun bezala, geroago Frantziarekin bat egin baitzuen.

Dudarik gabe, Austria-Hungariak Serbiarekin zuen gatazka izan zen pizgarria, baina Serbiak Errusiaren eta Frantziaren laguntza izan zezakeela jakinik, Austria-Hungariarentzat Alemaniarekiko hurbiltasuna baitezpadakoa zen. Marc Ferrok dioen bezala, Austria-Hungariak hego eslaviarrekin zuen mehatxuak bultzatu zuen Alemaniaren alde jartzera, eta Turkiak ere gauza bera egin zuen, hark Errusiarekin zituelako arazoak⁴⁸². Austria-Hungariak eta Errusiak bazuten aliantza itun bat, baina 1890etik goiti ez zuten berritu, pentsatuz Errusia herri bakartua zela, ez zela Erresuma Batuarengana hurbilduko, otomandar inperioa babesteko kezka izanzen zuela beti eta Frantziarekin aliantza egitea ez zitzaiolakoan interesatzen⁴⁸³.

Gauzak ez ziren Austria-Hungariak iragarri bezala joan, ordea. Bakoitzak bere ondokoekin zituen gatazkek lagundurik, hirukote hori osatu zen. Alde batetik zeuden, beraz, Serbia, Errusia eta Frantzia (eta baita Ingalaterra ere), eta bestaldetik Austria-Hungaria, otomandar inperioa eta Alemania.

Baina, funtsean, protagonista nagusia Alemania izan zen. Frantziaren eta Errusiaren kontrako gerla bat aurreikusten zuen, eta horri begira aliantzak behar zituen. Horregatik, XIX. mende bukaeran ahalegin guztiak egin zituen Austria bere alde jar zedin eta ez Errusiarekin. Italia ere bere aliatuen artean nahi zuen, harekin batera gerla egin zezan Frantziaren aurka, horrela Frantziaren armada ahultzeko, zati bat Italiakoaren kontra ariko zenez gero. Eta bigarren helburu bat ere bazuen: Ingalaterra ez gerlan sartzea⁴⁸⁴. Laster ikusi zuen, ordea, Italia ez zela haren alde sartuko gerlan.

Eta Ingalaterrari dagokionez, ez zituen begi onez ikusten Alemaniak ekialdean zituen ekimenak. Gilen II.a enperadorea Ekialde Hurbileko estatuekin tratuak egiten hasi zen, Bagdaderako burdinbidea eraikitzen hasi zen eta eskualde harekiko merkatu baten sortzeko lanak egin zituen, Ingalaterrari eta Errusiari tokia kentzeko ahalegina eginez. Ekimen hori begi txarrez ikusi zuten ingelesen⁴⁸⁵. Gisa horretan, Alemaniak ez zuen Ingalaterraren neutraltasuna lortzeko aukera handirik. Bi blokeak arras finko jartzen ari ziren, Europa erdia beste erdiaren kontra gerlan hasteko prest zegoen.

⁴⁸² Ferro, *La Grande Guerre*, 50.

⁴⁸³ Bérenger, *L'Autriche-Hongrie, 1815-1918*, 153.

⁴⁸⁴ Fischer, *Les buts de guerre de l'Allemagne impériale, 1914-1918*, 45.

⁴⁸⁵ Ibid., 37.

c) Espainiaren neutraltasuna

Estatu guztiek ez zuten gerlan sartzeko erabakia hartu. Batzuk ez ziren alde batean edo bestean; aliantzen katetik salbu ziren. Eta horietatik bat zen Espainia⁴⁸⁶. Espainiaren kasuari arreta pixka bat ezartzea beharrezkoa da, Euskal Herriaren zati bat Espainiaren baitan zegoelako, eta Ipar Euskal Herria bera ere maiz zegoelako Hego Euskal Herrira eta Espainiara begira. *Eskualduna* astekariak behin baino gehiagotan aipatu zuen⁴⁸⁷ Espainiaren edo espainiarren eta Hego Euskal Herriko euskaldunen jarrera.

Espainia ez zen sartua aliantzen logikan, eta beraz, gerla eragin zuten istiluetan ere ez zuen parte hartu. Austriaren eta Serbiaren arteko gerlaren pizteak ezustean harrapatu zuen. Hastapenean, Serbiaren eta Austriaren arteko gerlari ez zion bestelako garrantzirik eman, aitzineko Balkanetako gerlen lerroan kokatu zuen. Frantzia eta Errusia gerlan sartzeko arriskuak gehiago kezkatu zituen bazterrak. Baina kezkatu zirenak ez ziren bereziki agintariak, baizik eta kazetariak. Espainiako jendearen kezka nagusia laborantzako lanak, zezenketak eta udako beroa ziren. Politikoki, Marokon izan zituzten gatazkak ziren axola zutenak. Europa erdialdea urrun ikusten zuten.

Hala ere, nahiz eta neutro agertzeko hautua egin, noren aldekoago ziren? Espainiarrak banatuak ziren. Fernando Diaz Plajaren arabera, batzuk zinez neutraltasunaren alde ziren, Espainiak ez zuelakoan dirurik eta armada sendorik eta gehituz gerla egiten zuenak galdutako lur bat berreskuratu edo amesturiko lur bat hartu nahi izaten zuela, eta hori ez zela Espainiaren kasua. Halaber, gerla egiten zuena ideal nazional handi batek gidatzen zuela, baina Espainian ere ez zela halakorik zioen Francisco Cambo politikariak⁴⁸⁸. Beste batzuk argiki zeuden aliatuen alde, beste batzuk Alemaniaren alde eta beste batzuk Espainiako germanofiloen kontra⁴⁸⁹. Alfonso XIII.a erregea bera Frantziaren laguna zen, baina alde bateko eta besteko presioei ez zien men egin eta neutraltasunaren alde egin zuen⁴⁹⁰. Kontserbadoreen artean denak ez ziren iritzi hartakoak. Kontseiluko presidentek neutraltasunaren aldeko jarrera hartu zuen. Baina beste kontserbadore anitz, Eliza eta armada

⁴⁸⁶ Alvaro Alcalá Galiano, *España ante el conflicto europeo 1914-1915* (s.n., 1916); Victor Morales Lezcano, «La neutralidad española en la guerra de 14», *Historia* 16 63 (1981); Manuel Espadas Burgos, «España y la neutralidad en la Gran Guerra», *Historia* 16 5 (1983); Víctor Morales Lezcano, Gabriel Cardona eta Jean-Marc Delaunay, *España y la Primera Guerra Mundial* (s.l.: Grupo 16, 1985).

⁴⁸⁷ Ikus Espainiaren eta Hego Euskal Herriaren jarrerari buruzko kapitulua: 519

⁴⁸⁸ Fernando Diaz Plaja, *Francofilos y germanofilos. Los españoles en la guerra europea*, [lehen edizioa: 1973]. (Madrid: Alianza, 1981), 13.

⁴⁸⁹ *Ibid.*, 27–28.

⁴⁹⁰ Julián Cortés-Cavanillas, *Alfonso XIII y la guerra del 14* (Madrid: Alce, 1976), 34–35.

Alemaniarren aldekoak ziren. Frantziari laikotasuna leporatzen zioten. Ezkerrekoek, aldiz, Frantzia eta Ingalaterra nahiago zituzten, besteak beste haien demokrazia goraipatuz⁴⁹¹. Baina denek nahiago zuten Espainia ez zedin gerlan sar.

Madrilen Alemaniaren aldekoak ziren. Andaluzian, aldiz, merkatu harremanak eta interes ekonomikoak zituzten Frantziarekin eta Ingalaterrarekin. Euskal Herrian eta Katalunian, Frantziaren aldekoagoak ziren⁴⁹². Baina Katalunian ez ziren denak Frantziaren alde, batzuek uste zuten alemanen alde jartzea mesedegarriago zela Kataluniaren askatasun bidean; besteek aldiz, alderantziz, Kataluniaren zati bat Frantziaren lurretan zela-eta, Frantziaren alde egin zuten, eta batzuk gerlan sartu ziren Frantziarekin batera⁴⁹³. Oro har, harreman gehiago zeukaten Frantziarekin, eta horrek eragina izan zuen haien jarrera finkatzerakoan. Frantzia laguntzen zuten, katalanek adibidez⁴⁹⁴, baina gerla denboran ederki aberastu ere egin ziren, egoera baliatuz. Euskal Herriko abertzaleen artean bi jarrerak izan ziren. Resurreccion Maria Azkue, bere burua abertzale kultural gisa agertzen zuena eta ez alderdi bateko kide gisa⁴⁹⁵, germanofiloa zen. Eusko Alderdi Jeltzaleko anitz, ordea, Frantziaren aldekoak ziren, Evaristo Bustinza *Kirikino*-k edo Juan Bautista Bilbao *Batxi*-k *Euzkadi* egunkarian idazten zutenari jarraituz gero⁴⁹⁶.

Herrialde neutroak ez zituzten ahanzten, ordea, gerlan inplikatuak zirenek. Eta gerlak iraunen zuen denbora guztian batzuen eta besteen propaganda ukan zuten. Alemaniak eta Austria-Hungariak propaganda egiten zuten herrialde neutro katolikoetan, Frantzia laikoaren kontra, austriarrak eta alemanak ordenaren alde ari zirela azalduz eta Frantziak zigorra merezi zuela onarraraziz⁴⁹⁷. Ordainez, Frantziak ere ordezkariak igorri zituen herrialde neutro horietara, eta baita Espainiara ere, beste bertsio bat emateko.

2. Sarajevoko atentatua eta haren ondorioak

Beti aipatzen da 1914ko ekainaren 28an Sarajevon gertatu zen atentatua izan zela gerla piztu zuen pindarra. Pindarra hitz egokia da, orain arteko lerroetan gainetik azaldu bezala, giro txar

⁴⁹¹ Ibid., 48.

⁴⁹² Jean-Marc Delaunay, «1914 - Les Espagnols et la guerre», in Becker, Jean-Jacques eta Stéphane Audoin-Rouzeau: *Les Sociétés européennes et la guerre, 1914-1918. Actes du colloque d'Amiens - Nanterre, 8-11 décembre 1988* (Nanterre: Publication de l'université de Nanterre, 1990), 117–132.

⁴⁹³ Diaz Plaja, *Francofilos y germanofilos. Los españoles en la guerra europea*, 95, 97, 104 eta 106.

⁴⁹⁴ Albert Balcells, «Los voluntarios catalanes en la Gran Guerra (1914-1918)», *Historia* 16 121 (1986ko maiatza).

⁴⁹⁵ Jurgi Kintana, *Intelektuala nazioa eraikitzen*: R. M. Azkueren pentsaera eta obra (Euskaltzaindia, 2008).

⁴⁹⁶ Bidegain, *Gerla Handia, muga sakona*.

⁴⁹⁷ Fontana, *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*, 331.

bat nagusitua baitzen Europan, aitzineko urteetan. Mario Isnenghi italiar historialariak dioen bezala, Lehen Mundu Gerrak ez zeukan zergati bakar bat, baina Alemaniak bere eragina Europan zabaltzeko zuen gogoak garrantzia handia izan zuen. Alemaniak bere herritarrei sinetsarazten zien haien herria ezin zela hedatu, inguruko estatuek inguratzen eta itotzen zutelakoan, eta beraz gerla beharrezkoa zela botere zaharren hegemonia hausteko⁴⁹⁸. Baina Sarajevon gertatu zen atentatuak Alemaniak pentsatua zuen estrategia aktibatzeke balio izan zuen, eta horrekin batera hilabete biziki mugitua izan zen Europan, gerla saihestu nahi zutenen eta gerla bultzatu nahi zutenen artean.

a) Atentatua eta ultimatuma

1914ko ekainaren 28an, Franz Ferdinand Austriako artxidukea Sarajevora joan zen bisitan, Bosnia-Herzegovinako besta nagusi egunean. Ikasle serbiar batek tiroz hil zuen, haren emazte Sophie Chotek txekiarrarekin batera. Harekin hasi zen zurrumbilo tragikoa. Bitxi bada ere, atentatu haren ondotik, Austria-Hungarian ez zen dolu nazionalik izan, alde batetik, artxidukearen eta enperadorearen arteko harremanak ez baitziren onak, baina bereziki, Austriako militarrek gerla prebentiboa egiteko aukera ikusten baitzuten⁴⁹⁹. Atentatua aitzakia paregabea izan zen Serbiari ultimatuma ezartzeko.

Austria-Hungariaren aliatuak, Alemaniak, funtzio handia izan zuen atentatu hartarik landa Serbiari ezarri zitzaion ultimatumaren auzian. Berlinen ez ziren denak iritzi berekoak. Militarrek Serbiaren kontrako gerla prebentibo baten egitea proposatzen zuten, baina Bethmann-Hollweg kantzilerrak Errusiaren erantzunaren beldurra agertu zuen. Haatik, Gilen II.a enperadoreak, Errusiaren eta Frantziaren ihardespeneraren hipotesia onartu bazuen ere, ez zuen uste gerlan sartuko zirenik, ahulegi ikusten zituelako. Beraz, gerla lehenbailehen egin behar zela uste zuten⁵⁰⁰. Alemaniak Vienan zuen enbaxadore von Tschirschky presio egiten aritu zen, Austriak Serbiari ultimatuum onartezin bat ezar ziezaion konbentzitzeko⁵⁰¹.

Austriak, hasieran, ez zion baitezpada ultimatuum onartezin bat ezarri nahi Serbiari, nahiz eta Alemaniak presio egin gogorrago izan zitezen. Uztailaren 23an ultimatuum onartezin hori ezarri zion Serbiari baina litekeena zen Serbiak onartzea. Alemaniak hori ez zuen nahi eta presio gehiago egin zuen, baizik eta afera ezin zela garaipen diplomatiko batekin bukatu,

⁴⁹⁸ Mario Isnenghi, *La Première Guerre Mondiale*, itzul. Fabrice d'Almeida (Firenze: Casterman, 1993), 22.

⁴⁹⁹ Ferro, *La Grande Guerre*, 78.

⁵⁰⁰ Ibid., 79.

⁵⁰¹ Fischer, *Les buts de guerre de l'Allemagne impériale, 1914-1918*, 71.

Serbiarekin bukatu behar zela⁵⁰². Austria-Hungariak Serbiako nazionalistei leporatzen zien Sarajevoko atentatua, eta ez bide zuen nahi menpe zituen beste herrialde txikiak, Serbiako nazionalisten gisan, inperioaren kontra oldar zitezen. Beraz, Serbiako oldarra moztu nahi zuen. Uztailaren 5ean Alemaniaren sostengu osoa lorturik, 23an ultimatumak ezarri zion Serbiari⁵⁰³. Austriako gobernuak Serbiakoari eskatu zion serbiarrek Austria-Hungarian egiten zuten propaganda gaitzetsu ezan, eta propaganda egiten zuten erakunde serbiarrak desegin zitzaizkien. Horrez gain, Austria-Hungariako funtzionarioek mugimendu horien kontrako borrokan parte hartzea eta atentatuari buruzko inkestan parte hartzea eskatu zuten. Hori zen puntu zailena, horrek erran nahi baitzuen Serbiak bere burujabetasuna galtzea, austriar administrazioa bere lurraldean onartzen zuenaz geroz⁵⁰⁴. Serbiak baldintza guztiak onartu zituen, salbu atentatuaren inkestaren ardura Austriak har zezan.

b) Alemaniaren kalkulu estrategikoak

Alemaniak Serbiarekiko gerla nahi zuen, eta ez aterabide diplomatiko bat. Horregatik bultzatu zuen Austria-Hungaria Serbiari ultimatum onartezin bat ezartzera, Serbia inbaditu ahal izateko eta, hain zuzen, hori gertatuz gero Errusia gerlan sartuko zelako eta Errusiarekin batera Frantzia. Bi herri haietako armada ahul ikusten zuenez, aukera paregabea ikusi zuen sei asteko epean Frantzia mendean hartzeko, eta ondotik Errusiari nagusitzeko. Hots, Alemaniako gobernuak arraz kontziente zen Serbiari eraso egiteak Mundu Gerra eragin zezakeela, baina hala ere hori bultzatu zuen⁵⁰⁵. Funtsean, Fischerrek zehazten zuen bezala, Alemaniari ez zitzaion inporta Serbian zer gertatuko zen. Serbiako krisia aitzakia zen hastapeneko egitasmoa obratzeko, hau da, Europa kontinentaleko herrialdeak Alemaniaren planaren arabera elkartzeko, eta Alemania izateko eskualdeko herrialde indartsuena eta boteretsuena⁵⁰⁶.

Alemaniaren plana lehenik Frantziari eraso egitea zen, gero Errusiari lotzeko. 1905ean onartu zen Schlieffen planaren arabera hasi nahi zuten gerla. Hots, Alemania Frantziako lurretan sartuko zen, baina Parisera zuzenean joan eta han gelditzeko ordez, Frantziako armada inguratu behar zuten, gisa hartan suntsitu ahal izateko⁵⁰⁷. Horretarako, lehenik Belgikaren neutraltasuna urratu eta inbaditu nahi zuten, handik Frantziara igarotzeko. Behin

⁵⁰² Ibid., 71–72.

⁵⁰³ Pierre Vallaud, *14-18, la Première guerre mondiale* (Paris: Acropole, 2008).

⁵⁰⁴ Ferro, *La Grande Guerre*, 82.

⁵⁰⁵ Fischer, *Les buts de guerre de l'Allemagne impériale, 1914-1918*, 66.

⁵⁰⁶ Ibid., 75.

⁵⁰⁷ Ferro, *La Grande Guerre*, 32.

Frantzia sei asteko epean suntsitu ondoan, erasorako indarrak Errusiara bideratu ahal izanen zituzten. Anartean, Errusiako mugan ezarriko zuten beren indarren hamarren bat, eta gainerakoak Frantziako mugan.

Baina plan horren arabera, Ingalaterra ez zen gerlan sartuko. Halaber, Italia Alemaniaren alde gerlan hasi balitz, Frantzia are egoera zailagoan ezartzea aurreikusten zuen Alemaniak. Hala, Italiarekiko mugetako borroketan indarren zati bat ezarriz, errazago izanen zen inguratze estrategia betetzea.

c) Gorabehera eta ahalegin diplomatikoak

Sarajevoko atentatutik landa, hainbat mugimendu izan ziren, gerla saihesteko asmoz. Batzuek eta besteek ahalegin diplomatikoak egin zituzten, Austria-Hungariak gerlarik ez zezan egin konbentzitu beharrez. Gerla saihestu nahi zuteneko bat zen Karl Max von Lichnowsky Alemaniak Erresuma Batuan zuen enbaxadorea. Uztailaren 29tik 30erako gauean txosten bat igorri zion Alemaniak Vienan zuen enbaxadoreari, Heinrich von Tschirschky-ri. Gutun hartan jakinarazi zuen Austriak bitartekaritzari uko eginez gero, Ingalaterraren neutraltasuna ez zela segurtatua izanen, eta Italia eta Errumania ere ez zirela alemanen alde jarriko. Beraz, Alemaniak Austria bultzatu behar zuen gerla ez deklaratzera eta elkarrizketa egitera, aterabide diplomatikoa helburu. Bethmann-Hollweg Alemaniako kantzilerrak ohar hori igorri zion Vienari, kasu eman zezan bestela Mundu Gerra lehertuko zela. Baina, funtsean, Frischerren tesiaren arabera⁵⁰⁸, kantzilerraren helburua ez zen gerla saihestea, baizik eta Alemania ez gerlaren erantzule gisa agertzea, eta errua Errusiari botatzea.

Beraz, uztailaren 30ean, Bethmann-Hollweg-ek Alemaniako enperadoreari gutun haren berri eman zion, baina gerlaren piztea Errusiaren ardurara izanen balitz bezala aurkeztuz, eta Ingalaterraren neutraltasuna ez zela segurua azpimarratuz. Ondorioz, enperadorea sutan jarri zen Ingalaterraren kontra, eta salatu zuen Alemania inguratua zela eta inguratzen zuten horien helburua Alemania suntsitzea zela⁵⁰⁹.

Ororen buru, gerla deklaratzeko erabakia hartu zuen Austria-Hungariak. Uztailaren 23ko ultimatumak aurkezteko ere, Frantziaren eta Errusiaren erreakzio batua berantzeko ahalegina egin zuen Austria-Hungariak, hain zuzen, Raymond Poincaré Frantziako presidentea Errusiatik itzultzearen beha egonez⁵¹⁰. Errusiaren eta Frantziaren arteko bilera

⁵⁰⁸ Fischer, *Les buts de guerre de l'Allemagne impériale, 1914-1918*, 92–93.

⁵⁰⁹ Ibid., 95.

⁵¹⁰ Ferro, *La Grande Guerre*, 80.

bukatzearen beha egon ziren, elkarrekin erreakzio bat prestatzeko aukera zailtzeko edo gibelatzeko xedez.

3. Eta gerla lehertu zen

Uztailaren 28an, azken finean, Austria-Hungariak gerla deklaratu zion Serbiari. Austriaren artilleriak Belgradi eraso egin zion. Egun hura beste mugarri bat izan zen, eta mundua XX. mendean sartu zen, era bortitzean. Egun hartako erasoak gerlarako makinaria guztia martxan jarri zuen Europan. Frantziari dagokionez, giro politiko berezi bat sortu zen, batasun sakratuaren izenean.

a) Aliantza kateen aktibatzea

Aurreikuspen txarrenak bete ziren. Austria-Hungariak Serbiari gerla deklaratu izana ez zen hartan gelditu, Errusiak erantzun baitzuen. Bi egunen buruko, Errusian mobilizazioa egin zuten, eta ordu batzuk geroago, uztailaren 30etik 31rako gauean, Austria-Hungaria zen mobilizazioa egin zuen hurrengo herria. Biharamunean, agorrilaren lehenean, Alemanian eta Frantzian izan zen mobilizazioa; haiek ere gerlarako prestatzen ari ziren. Alemaniak gerla deklaratu zion Errusiari, eta bi egun geroago, agorrilaren 3an, beste hainbeste egin zuen Frantziaren aurka, Serbiaren alde jarri izana leporatuz.

Agorrilaren 4ko eguna ere garrantzitsua izan zen, Alemaniak Belgikaren neutraltasuna urratu eta estatu txiki haren lurak hartu baitzituen. Alemanek uste zuten Ingalaterra ez zela gerlan sartuko, haien kultura bakezalearengatik. Harritu eta haserretu ziren Belgika inbaditu ondoan Ingalaterra gerlan sartu zela jakin zutenean⁵¹¹. Hain zuzen, Ingalaterrak ez zuen espero Belgikaren neutraltasuna urratuko zutenik, eta erabaki hori ez zuen onartu. Horregatik, Erresuma Batuak gerla deklaratu zion Alemaniari. Gerla ez zen berdin iraganen, hain segur, Erresuma Batua ez balitz sartu; baina Alemaniak ere ezin izanen zuen Frantzian sartu, Belgikatik iragan gabe.

Agorrilaren 6an, Austria-Hungariak gerla deklaratu zion Errusiari. Agorrilaren 12an, Erresuma Batua eta Frantzia izan ziren Austria-Hungariari gerla deklaratu ziotenak. Europaren zati handi bat beste zati handi baten kontra ari zen gerlan, ordurako. Eta hori hastapena baizik ez zen izan. Azaroaren lehenean, otomandar inperioak gerla deklaratu zien

⁵¹¹ Ibid., 46.

Frantziari, Erresuma Batuari eta Errusiari. 1915eko maiatzaren 23an, Italia sartu zen gerlan, aliatuen alde. Eta horrela, pixkanaka, estatu anitz sartu zen gerlan, alde batean edo bestean.

b) Batasun sakratua

Frantziako giro politikoan, bat-bateko eragina izan zuen gerlaren lehertzeak. Gerlaren mehatxua zegoen hilabete hartan ez zen kezka handirik nabari karrikan. Populazioaren kezka ez zen nazioarteko politika eta Sarajevoko atentatuaren ondotik zegoen egoera. Laborariak belarrak zituzten egiteko, eta politika jarraitzen zuen jendeak beste afera bat jarraitu zuen, Caillaux andrearen auzia, hain zuzen⁵¹²: Joseph Caillaux Frantziako Gobernuak finantzen ministroaren emazteak *Le Figaro* egunkariko Gaston Calmette erail zuen.

Gerlaren mehatxua lehenagokoa zen, ordea. Eta gerlaren arriskuarekin batera, bakezaletasuna ere bazegoen, CGT sindikatuaren inguruan bereziki. Baina barne desadostasunak izan zituzten, gerla defentsibo baten kasuan hartu beharko zuten jarreraren inguruan⁵¹³. Azken memento arte, bakezaleak baziren Frantzian, eta agertzen ziren. Frantziako Barne ministerioak, gainera, B liburuxka egin zuen, antimilitaristak identifikatzeko. Yolande Cohenen arabera, ezkerreko jendearen baitan zegoen antimilitarismo handiena, nahiz eta sozialistek, azkenean, ez zuten intsumisioa babestu⁵¹⁴. 1914ko uztailaren 31n, Jean Jaurès diputatu sozialista eta militante bakezalea tiroz erail zuten. Gertakari hark markatu zuen, sinbolikoki, Frantzia gerlan sartzea. Hots, militante bakezaleak indargabetu zituen, eta ezkerrek ere bat egin zuen gerlako asmoekin. Frantziako Gobernuak B liburuxkan zirenen kontra ez ekitea erabaki izanak ere lagundu zuen ezker muturreko militanteek gerlaren ideiarekin bat egiten⁵¹⁵.

Gerla hurbildu ahala, Alemanian, hastapeneko xobinismoa eta gerrarako gogoia ahuldu eta gizartearen kezka eta beldurra zabaldu baziren⁵¹⁶, giroa bestelakoa zen Frantzian. Frantziarentzat, aberria salbatzeko eta «historiaren betetzeko» aukera zen. Berdin zuen

⁵¹² Jean-Jacques Becker, «La population française face à l'entrée en guerre», in Becker, Jean-Jacques eta Stéphane Audoin-Rouzeau: *Les Sociétés européennes et la guerre, 1914-1918. Actes du colloque d'Amiens - Nanterre, 8-11 décembre 1988* (Nanterre: Publication de l'université de Nanterre, 1990), 35–38.

⁵¹³ Jean-Jacques Becker, *1914. Comment les Français sont entrés dans la guerre* (Paris: Presses de la Fondation Nationale des Sciences Politiques, 1977).

⁵¹⁴ Yolande Cohen, «L'antimilitarisme des jeunesses avant 1914», *Matériaux pour l'histoire de notre temps* 16 (1989): 42–48.

⁵¹⁵ Becker, *1914. Comment les Français sont entrés dans la guerre*, 406.

⁵¹⁶ Gerd Krumeich, «L'entrée en guerre en Allemagne», in Becker, Jean-Jacques eta Stéphane Audoin-Rouzeau: *Les Sociétés européennes et la guerre, 1914-1918. Actes du colloque d'Amiens - Nanterre, 8-11 décembre 1988* (Nanterre: Publication de l'université de Nanterre, 1990), 65–74.

nolako Frantziaren alde ari ziren. Batzuek Frantziako Iraultzarekin hasi garaiaren izenean, beste batzuek erregeen «Frantzia zaharraren» izenean, baina denek bat egin zuten Frantziaren alde⁵¹⁷. Orogen buru, ezkerreko eta eskuineko nazionalismoek Frantziako nazioaren defentsaren ikuspegi bera zuten, eta horrek erraztu zuen Batasun Sakratua⁵¹⁸. Horretan lagundu zuen gerlaren erantzukizuna Alemaniak zuelako iritzia denen baitan garbi izateak. Denek argi zuten Frantziak Alemaniaren erasoari erantzun behar ziola⁵¹⁹, eta horrek anitz lagundu zuen batasun sakratuaren sorreran.

Batasun giro hark zenbait hilabete gutxienez iraun zuen. Ordu arteko kalapita gogorrek ezabatu edo izoztu ziren. Jean-Marc Delaunay⁵²⁰-ek dioenaren gisan, Louis Malvy Frantziako Barne ministroak kongregazioen desegiteko eta eskola girstinoen ixteko neurriak izoztuko zituela iragarri zuen, gisa hartan giro polemiko hura ahanzteko gisan. Elizaren eta monarkiaren aldekoak alde batetik eta laikotasunaren eta Errepublikaren sustatzaileak bestetik, bat etorri ziren gerla hartan, eta denek mezu bera zabaldu zuten. Lan honetan batasun sakratuaren gaia sakonkiago aipatuko dugu.

4. Euskaldunak gerlan

Gerla hasi zenean, Frantziako gizartea gerlarako prest zegoen, beraz. Baionan ere bazegoen armada, eta euskaldunak ere gerlara deitu zituzten. Lan honetan aipatuko ditugun protagonista nagusiak Euskal Herrikoak zirenez, komeni da euskaldunen erregimentuak hartzen zituen 18. Armada Gorputzaren antolaketa azaltzea, eta mobilizazio eguna nola pasatu zen kontatzea.

a) 18. Armada Gorputzaren antolaketa

Frantziako armadaren Baionako presentzia ez zen 18. Armada Gorputzarekin hasi, baina gerlan parte hartu zutenak gorputz hartakoak ziren. 1873an, Frantziako armadaren lurralde banaketa aldatu zuten, eta orduan sortu zen 18. Armada Gorputza. Akitaniako eskualdea hartzen zuen armada horrek, eta Bordelen zeukan egoitza nagusia. Bi dibisio zeuzkan, 35. dibisioa eta 36.a. Azken honek Baionan zeukan egoitza, eta bi brigada zeuzkan, 71. brigada

⁵¹⁷ Michael Jeissmann, *La patrie de l'ennemi, la notion de l'ennemi national et la représentation de la nation en Allemagne et en France de 1792 à 1918* (Paris: CNRS Editions, 1997), 296.

⁵¹⁸ Caron eta Vernus, *L'Europe au XIXe siècle: des nations aux nationalismes, 1815-1914*, 350.

⁵¹⁹ Becker, 1914. *Comment les Français sont entrés dans la guerre*, 370.

⁵²⁰ Jean-Marc Delaunay, «La grande guerre ou la clé du retour», *Mélanges de la Casa de Velazquez* 19, n.º 1 (1983): 347–368.

Baionan eta 72.a Pauen. Baionan zegoen 49. Infanteria Erregimentua, eta Pauen, aldiz, 18. Infanteria Erregimentua. Euskaldun anitz ibili zen bi erregimentu horietatik batean edo bestean⁵²¹. Euskaldun anitzek bi erregimentu haietariko batean egin zuten gerla. Erregimentu bakoitzak, orotara, 3.200 lagun izaten zituen batezbeste, horietatik 2.400 soldadu, hiru batailoietan, eta beste 800 lau konpainietan.

Armadak presentzia handia zeukan Baionan. 1876an, adibidez, hiriak 18.391 biztanle zituen, eta ia 5.000 soldadu, soldaduska egiten ari zirenak. Urte hartako irailean, erreserban ziren gizonak deitu zituzten, zenbait aldiz gertatzen zen gisan, eta orotara 9.734 gizon zeuden armadan⁵²². Argi da garai hartan, militarren eragina handia zela Baionako populazioaren baitan.

b) Mobilizazioa Euskal Herrian

Euskaldunen erregimentu ezagunena eta aipatuena 49. Infanteria Erregimentua zen. Baina ez zen bakarra. Gerla denboran, erregimentu bakoitzak bazuen erreserbako beste erregimentu bat, zeinen zenbakia berrehunetz handiagoa zen. Gisa hartan, 49. Infanteria Erregimentuak bazuen 249. Infanteria Erregimentua ere, erreserbarako. Baionako 49. Infanteria Erregimentua eta Pauko 18. Infanteria Erregimentua armadara deituriko soldaduek osatzen zituzten, hala nola 21 eta 23 urte artekoak. Erreserbakoak, hala nola Baionako 249. Infanteria Erregimentua eta Pauko 218. Infanteria Erregimentua, zerbitzu militarra egin zuten 35 urtetik beherako gizonak osatzen zituzten⁵²³. 35 urtetik 48 urte artekoak 142. Lurralde Infanteria Erregimentuan zeuden, hau ere Baionari atxikia. Pauk antzeko beste erregimentu bat bazuen, 143. zenbakiarekin.

Soldaduak ez zeuden bakarrik Baionan; Donibane Garaziko zitadelan eta Zokoako gotorlekuan ere egoten ziren. Hala, Donibane Garazin zeuden 18. Infanteria Erregimentukoak Pauera joateko deia jaso zuten, eta han izan zen mobilizazioa⁵²⁴. 49. Infanteria Erregimentuko mobilizazioa, aldiz, Baionan izan zen, 1914ko agorrilaren 7an. Joël Rocafortek⁵²⁵ kontatzen du mobilizazio haren berri, baina *Le Courrier de Bayonne*

⁵²¹ Ansoborlo, *Histoire militaire de Bayonne: 1789-1940*, 202.

⁵²² Ibid., 217.

⁵²³ Claude Laharie, *Les Basses-Pyrénées pendant la guerre 1914-1918* (Pau: Archives départementales des Pyrénées-Atlantiques, 1982).

⁵²⁴ Rocafort, *Avant oublié: soldats et civils de la côte basque durant la grande guerre*, 16.

⁵²⁵ Ibid., 13.

egunkarian edota 49. Infanteria Erregimentuaren ibilbide orrian⁵²⁶ ere badaude gisa hartako kronikak.

Goiz hartan, beraz, 1.600 gizon joan ziren, oinez, Baionako Boufflers hiribidetik, San Izpiritu zubitik barna, geltokirantz. Soldaduak ez zeuden bakarrik, Baionako jendetza bide bazterretatik eta leihoetatik oihuka ari omen baitzen soldaduen animatzen. Orotara, egun hartan, 3.373 soldadu eta aitzindari joan ziren gerlara, batzuk 9:00etan, beste batzuk eguerditan eta azkenak 14:30ean. 249. Infanteria Erregimentua agorrilaren 11n eta 12an joan zen, orduan ere populazioaren sostengu agerraldiekin⁵²⁷. Agorrilaren 28an eta 29an, 142. Lurralde Infanteria Erregimentua mobilizatu zuten, eta agorrilaren 30ean Paris babesteko lanetan hasi ziren, orotara 3.156 gizon, gehienak ezkonduak eta aita familiakoak⁵²⁸. Azken horiei «des pères» izengoitia eman zieten, 35 urtetik gorako gizonak, berez, ez zirelako frontera joaten, baizik eta azpiegiturako lanetan ibiltzen zirelako. Baina anitzek gerla egin zuten, «gazteek bezala», eta haien artean ere anitz hil ziren.

Horiei gehitu behar zaizkie Mont-de-Marsaneko (Landak) 34. Infanteria Erregimentua eta Tarbeseko 12. Infanteria Erregimentua. Mobilizatutako euskaldun, landestar eta biarnesen %70 Paueko, Mont-de-Marsaneko, Tarbeseko eta Baionako infanteria horietan mobilizatu zituzten, Rocaforten arabera⁵²⁹. Hona hemen Ipar Euskal Herriko eta inguruetako armadaren adar nagusiak:

Euskal Herriko soldaduen erregimentuak

Baiona	Paue	Mont-de-Marsan	Tarbes
49. Infanteria Erregimentua	18. Infanteria Erregimentua	34. Infanteria Erregimentua	12. Infanteria Erregimentua
(21 eta 23 urte artekoak)			
249. Infanteria Erregimentua	218. Infanteria Erregimentua		
(24 eta 34 urte artekoak)			
142. Lurralde Infanteria Erregimentua	143. Lurralde Infanteria Erregimentua		
(35 eta 48 urtekoak)			

Irudia 15. Baiona, Paue, Mont-de-Marsan eta Tarbeseko erregimentuak

Iturria : Joël Rocafort.

Claude Lahariak zenbaki batzuk ematen ditu: Pirinio Behereak (Basses Pyrénées) departamenduan, orotara, 45.000 gizon mobilizatu zituzten. 18. Infanteria Erregimentuko 3.200 soldadu hil ziren, hala nola erregimentu hartako soldaduen %15. Zaurituen kopurua

⁵²⁶ *Historique du 49e régiment d'infanterie pendant la guerre 1914-1918* (Nancy: Berger-Levrault, 1919).

⁵²⁷ Ansoborlo, *Histoire militaire de Bayonne: 1789-1940*, 233.

⁵²⁸ Rocafort, *Avant oublié: soldats et civils de la côte basque durant la grande guerre*, 45.

⁵²⁹ *Ibid.*, 16.

hildakoena baino lau edo bost aldiz handiagoa zen. Departamenduko 10.000 gizon hil zirela dio. Ez du ematen Euskal Herriko datu zehatzik, baina Eukeni Goyhenetxeren estimazioen arabera⁵³⁰, 6.000ko bat hil zen gerla hartan. Joël Rocafortek⁵³¹ Lapurdi kostaldeko hil kopurua eman du herriz herri. Orotara, kostaldeko herrietako 2.029 gizon hil ziren gerlan, hala nola 1911ko biztanleriaren %2,9. Ikerzaleak elkartek Zuberoako (Atharratzeko eta Mauleko kantonamenduetako) hilen kopurua eman du, hala nola 863 hil, biztanleriaren %3,2. 1911ko populazioaren arabera kalkulua egin dugu, jakiteko Rocafortek eta Ikerzaleak elkartek⁵³² aipatu ez dituzten herrietako kopurua zein izan zitekeen. 1911ko biztanle kopurua 183.775ekoa zen. Kostaldeko eta Zuberoako hilen kopurua populazioaren %3koa baldin bazen gutxi gora behera, proportzio horren arabera, Euskal Herriko hildako kopurua 5.513koa zen. Bistan dena, ez da hildako kopurua kalkulatzeko neurgailu aski zehatza. Hildakoen fitxategira joan behar litzateke, eta kontaketa herriz herri eta banan-banan egin.

Gaitzeko hilabetea izan zen 1914ko uztaila. Dena tarrapatan gertatu zen. Sarajevoko atentatutik landa, hilabeteko epean gerla lehertua zen. Bolborategiak su hartu zuen. Austria-Hungaria, Alemania eta otomandar inperioa alde batetik, Frantzia, Ingalaterra eta Errusia bestetik, bata bestearen kontra gerlan sartu ziren, eta inguruko estatu txikiak pixkanaka-pixkanaka bataren edo bestearen aldeko jarrera hartu zuten, Espainia bezalako batzuek neutro izaten segitu zuten arren. Euskaldunentzat ere ondorio handiak izan zituen, milaka eta milaka euskaldun gerlara deitu baitzituzten, eta horietatik anitz ez baitziren bizirik itzuli.

C. Gerlaren bilakaera

Aspaldi egosten ari zen mehatxua obratu zen. Gerla lehertu zen, milaka, milioika lagun hil zituen gerla piztu zen. Ia Europa osoa suaren erdian zegoen. Eta hastapenean gerla laburra izanen zela uste bazuten ere, aski laster gelditu zen argi uste baino gehiago luzatuko zela. 1914ko agorrilaren 2tik 1918ko azaroaren 11ra, lau urte eta hiru hilabete eta erdiz, ez zen beste solasik, eta *Eskualduna* astekarian ere ia gai bakarria izan zen.

⁵³⁰ Eukeni Goyhenetxe, *Historia de Iparralde: desde los orígenes a nuestros días* (Donostia: Txertoa, 1985), 112.

⁵³¹ Rocafort, *Avant oubli: soldats et civils de la côte basque durant la grande guerre*.

⁵³² Ikerzaleak elkartea, *La Soule dans la guerre de 1914-1918. Exposition d'Ikerzaleak*, 2006, Sarean: lyceedupaysdesoule.fr.

Gaia kokatzeko, beharrezkoa da 1914tik 1918ra iraun zuen Mundu Gerraren bilakaera kontatzea, azaletik bada ere⁵³³. Ipar Euskal Herriko soldaduen nondik norakoak ere jakin eta azaldu nahi izan ditugu, atal honetan⁵³⁴. Gerlak berak, alde militarretik, hainbat fase izan zituen, hala nola lehen asteetako mugimendu gerla, 1914ko urte bukaeran hasi zen posizio gerla luzea eta, azkenik, bukaerako mugimenduak. Bitarte horretan, eztabaida politiko eta diplomatikoak ere izan ziren, eta haiek ere eragina ukan zuten.

I. Mugimendu gerla

Gerlaren lehen fasean izan ziren harat-honat gehienak, mugimendu handienak. Alemanek lehen fase horretan irabazi nahi zuten Frantziaren kontra, eta frantsesek beste hainbeste egitea espero zuten, Alemaniaren kontra. Lehen aste eta hilabeteetako fase hari «mugimendu gerla» izena eman zioten. Frantziarentzat gogor hasi zen, Belgikako mugan, Charleroiko guduan gaitzeko ostikoa jasan baitzuten Alemaniaren partetik. Gero, gauzak bestelakatu ziren Marneko ofentsibaren ondotik, eta azkenik, itsasorako lasterketak indarrak egonkortu eta orekatu zituen.

a) Charleroiko porrota

Gerla deklaratu ondoan, lehen guduak aski laster hasi ziren. Agorrilaren 4an berean hasi zuen ofentsiba Alemaniak, Belgikako lurak hartuz, eta Lieja hiriaren parean, Mosa ibaia zeharkatuz. Agorrilaren 7an, Frantziako armadak Alsazian hasi zuen ofentsiba, aspaldian berreskuratu nahi zuen eskualdean. Mulhouse hiria hartu zuen, baina kontua da Alemaniak ez zuela erresistentziarik egin, oihan batean gordeak zirelako. Bi egun geroago berriz hartu zuten Mulhouse.

Frantziako armada bost armadetan banatua zen. Une hartan, 18. Armada Gorputza eta, beraz, euskaldunak II. Armadaren parte ziren. Toul (Meurthe-et-Moselle departamendua, Lorrena eskualdea) eskualdera igorri zituzten. 49. Infanteria Erregimentuak Toulerako bidea

⁵³³ Félix Débyser, *Chronologie de la guerre mondiale. De Sarajevo à Versailles (28 juin 1914 - 28 juin 1919)* (Paris: Payot, 1938).

⁵³⁴ Ansoborlo, *Histoire militaire de Bayonne: 1789-1940*; Rocafort, *Avant oublié: soldats et civils de la côte basque durant la grande guerre*; *Historique du 49^e régiment d'infanterie pendant la guerre 1914-1918*; *Historique du 172^e régiment d'infanterie pendant la Grande Guerre 1914-1919* (Paris: Imprimerie P. Orsoni, 1919); *Historique du 123^e Régiment d'Infanterie. Campagne 1914-1918* (Paris-Nancy: Librairie Chapelot, s. f.), Sarean: ancestramil.fr; *Historique du 18^e régiment d'infanterie pendant la guerre de 1914-1918* (Nancy: Imprimerie Berger-Levrault, 1920); Le colonel commandant le 57^e R.I. Bussy, *57^e régiment d'infanterie. «Le terrible que rien n'arrête». Historique du régiment pendant la grande guerre 1914-1918* (Rochefort: Imprimerie Norbertine, 1921).

hartu zuen, agorrilaren 7an, Baionan trena hartu zuenean. Baina agorrilaren 19an, IV. Armadaren parte egin zen 18. Armada Gorputza, eta Charleroiko guduan parte hartu zuen. Armada haren gain zen Frantzia eta Belgika bereizten zituen Sambre ibaia zeharkatzea, Belgikako Charleroi hirira heltzeko. 49. Infanteria Erregimentuak Gozée (Belgika) hiriaren defentsa antolatu behar zuen. Charleroiko gudua agorrilaren 21ean hasi zen, eta 23an borroka gogorrak izan ziren Gozéen, alemanek artilleriaz eraso egin baitzuten. Egun hartan euskaldun anitz hil zen. Alemaniako armada nagusitzen ari zitzaion Frantziari, eta Joffre jeneralak gibelera egiteko agindua eman zuen. Agorrilaren 24an bururatu zen Charleroiko gudua, frantsesen eta ingelesen porrotarekin.

Egunez egun, kilometro anitzez egin zuen gibelera Frantziako armadak. Joffrek Seine ibairaino gibelatzeko agindua emana zuen, Alemaniako armadak ez zitzaion inguruak suntsi, aurreikusia zuten gisan. 49. Infanteria Erregimentua egunez egun joan zen gibelera: Villiers, Fourmonon, Nouvion oihana, Voulepaix, Séry-lès-Mézières eta abar. Gibelerako mugimendua aitzina jarraitu zuten – artetik borroka batzuetan parte hartuz – irailaren 13tik goiti, Craonne eskualdean finkatu ziren arte.

Charleroiko porrotetik egun gutxira, agorrilaren 27tik 30era, ekialdeko frontean, hala nola oraingo Polonian dagoen Tannenberg hirian, gudu latza izan zen errusiarren eta alemanen artean. Hastapenean errusiarrek nagusitu baziren ere, azkenean alemanek ofentsiba geldiarazi zuten, eta Errusiak ia armada oso bat galdu zuen.

b) Marneko bihurgunea

Frantzia kinka larrian zegoen. Irailaren 2an, Frantziako Gobernuak Paristik joatea erabaki zuen, Alemaniako armada Frantziako hiriburura hurbiltzen ari zelako. Frantziako armada Parisen defentsa prestatzen hasi zen, eta Baionako 142. Lurralde Infanteria Erregimentua ere defentsa haren antolatzeko azpiegituren eraikitzaera joan zen.

Irailaren 6an hasi zen Frantziaren kontra-ofentsiba, Marneko gudu ezaguna. Bezperan, Frantziako VI. Armadak Ourcq ibaian ofentsiba egin zuen, eta Alemaniako armadaren baitan zulo bat egin zuen. Zulo hura baliatuz, V. Armada anitz aitzinatu zen Marne ibaiaren inguruetan. Irailaren 7an, 49. Infanteria Erregimentuak Montmirailko guduan parte hartu zuen. Irailaren 13an, Frantziako armadak Marneko bataila irabazi zuen, eta Alemaniak ezin izan zuen hastapenean zuen plana bete, hala nola Frantziako armada inguratu eta suntsitu eta, ondotik, Errusiari lotu.

Garai berean, errusiarrek Austriaren esku zegoen Przemysl (Galitzia, Polonia) hiria hartu zuten, baina alemanek Prusia ekialdeko Masuria lakuetako bataila irabazi zuten, errusiarren aurka.

c) Itsasorako lasterketa

Marneko gudutik landa, Oise departamendutik (Pikardia) Iparreko Itsasorako tartea zegoen jokoan. Gerlako bi aldeak ohartu ziren Marneko gudutik landa Aisne departamenduan (Pikardia) egonkortuak ziren etsaiei oldartzeko bide bakarra, etsai haiek Oise departamenduaren iparraldetik barna inguratzea zela. Beraz, gune hori hartzeko borrokak hasi ziren. Hainbat gudu izan ziren lasterketa horren baitan, bereziki Arraskoa, Yserkoa eta Ypreskoa. Lasterketa horren ondotik, frontea Iparreko Itsasotik Suitzaraino egonkortu zen, eta mugimendu gerla osoki bukatu eta posizio gerlari utzi zion lekua.

Urriaren lehenean hasi zen Arrasko (Pas-de-Calais departamendua) gudua. Gudu bortitzak izan ziren, eta frantsesen armadak kolpe latzak hartu zituen, baina, ororen buru, alemanen ofentsiba geldiaraztea lortu zuen, urriaren 9an. Handik egun gutxira, Frantzia eta Flandria lotzen dituen Yser ibaiko (Nord departamendua) gudua hasi zen, urriaren 15ean. Hamabi eguneko borroka batetik landa, belgikarrek Nieuport urtegiko urak zabaldu zituzten, eta horrek eragin uholdeen ondorioz, alemanen aitzinamendua geldiarazi zuten.

Urriaren 23tik azaroaren 22ra Ypresko (Flandria) gudua iragan zen. Aliatuak aitzina ari zirela, hiri hartan gelditu behar izan zuten, alemanen indarraren ondorioz. Frantsesek eta ingelesak 100.000 soldadu galdu zituzten, eta alemanek 130.000. Horren ondorioz alemanak gune hartan egonkortu ziren. Horrekin bururatu zen itsasorako lasterketa.

Marneko guduarekin eta itsasorako lasterketarekin, mugimendu gerla bururatu zen. Handik landa, hilabete luzez, soldaduek baldintza ezinago gogorrek jasan behar izan zituzten, lubaki edo trintxeretan. Ekialdeko frontean ere bukatu zen mugimendu gerla, handik aste batzuetara, alemanek Varsovia inguruko Lodz hiria hartu zutenean. Posizio gerla zabaldu zen.

2. Posizio gerla


1914a bukatu zen, eta honekin batera, gerla laburra izanzen zelako itxaropenak ere bai. Alemaniak espero zuen gerla epe laburrean irabaziko zuela; eta frantsesak ere hala joan ziren gerlara, alemanak egun edo aste batzuez garaituko zituztelako ustearekin. Usteak ustel gelditu zitzaizkien denei, eta Alemaniak ez bazuen bere helburua bete, Frantziak ere ez. Mugimendu

gerlaren azken faseetan egonkortu zen frontea, eta bi aldeak bereizten zituen marra egonkortu zen, zenbait urtez. Frontean borrokak izaten ziren, baina ez zen aitzinamendurik izaten, ez alde batera, ez bestera. Milaka euskaldunek fronte haren zati bat ezagutu zuten biziki ongi: Craonne eskualdea (Aisne departamenduan, Picardie eskualdea, Reims, Laon eta Soissons hirien artean). Frantziako frontea egonkorra zen bitartean, soldadu batzuk igorri zituzten Turkia aldera, Dardaneloetara eta Gallipoli eskualdera, eta geroago Serbia aldera, Grezian barna. Posizio gerla denboran, gudu biziki bortitzak izan ziren Verdun eta Somme eskualdean bereziki, eta geroago, posizio gerlaren azken garaietan, berriz ere Craonne eskualdean, zehazkiago Andereen Bidean.

a) Euskaldunak Craonne inguruan

Euskal Herriko soldaduak zituzten erregimentu gehienak Craonnelle eta Beaurieux bitartean (Craonnetik hurbil) egon ziren, hilabete andana batez. Erregimentu aipatuena, 49. Infanteria Erregimentua, eta Paueko 18. Infanteria Erregimentua 1914ko irailaren 13tik 1916ko urtarrila arte egon ziren leku haietan, zehazkiago, denbora gehienez, Hurtebiseko etxalde inguruko lubakietan. Han zen Andereen Bidea edo «Chemins des Dames». Artetan, Oulches eta Beaurieux herrietara joaten ziren, frontetik urruntzeko, eta pausatzeko. Baina, oro har, lubakietan alemanen erasoak noiz nahi jasaten zituzten, airetik bereziki; eta 1915etik alemanek botatzen zituzten aire pozoituak jasan behar izaten zituzten.

Eraso gogor batzuk ere jasan behar izaten zituzten. 1914ko irailaren 20ean eta 21ean euskaldun franko hil zen Craonnelle aldean, Andereen Bidean. Gainerako hilabeteetan, lurpean eraiki zituzten arroiletan eta aterpeetan egon behar izan zuten, arratoien, zorrien eta lohiaren erdian, eta etsaien bonbardaketen mehatxupean. 18. Armada Gorputzaren baitako beste erregimentu bat, 57. Infanteria Erregimentua, Libournekoa, handik hurbil egoten zen, mendebalderago, Verneuil aldean. Pausa denboretan, erregimentu bateko eta besteko euskaldunek elkar ikusteko aukera izaten zuten.



Irudia 16. Andereen Bidea eta Craonne inguruak.

Bitarte hartan, gudu bortitzenak beste eskualde batzuetan izaten ziren. Adibidez, 1915eko otsailaren 15etik martxoaren 23ra, Champagne eskualdean ofentsiba bat egin zuten, baina frantsesek 90.000 gizon galdu eta ez zuten lurrik irabazi. Beste batzuetan, aitzinamendu ttipi batzuk egiten zituzten frantsesek, martxoaren 26an bezala, Vosgeak mendilerroko Hartsmannwiller kaskoa hartu zutelarik. Baina prezioa biziki handia zen, 100.000 gizon hil baitziren. Ofentsiba batzuk gaizkiago joan ziren: maiatzaren 9an, Artoisko ofentsiban huts egin zuten frantsesek. Irailaren 25etik urriaren 6ra, beste gudu bat izan zen Champagne eskualdean. Frantsesak ez ziren ia batere aitzinatu, baina 140.000 gizon galdu zituzten.

b) Gallipoli eta Dardaneloak

Ekialdeko frontean ere baziren gudu gogorrak, Austria-Hungariaren eta Errusiaren artean bereziki. 1914ko abenduaren 12an, Austria-Hungariak irabazi zuen errusiarren aurka, Limanova-Lapanov aldean. 1915eko urtarrilaren 23an, austriarrek Karpatoak eskualdeko guduak hasi zituzten, eta nahiz eta ez zituzten nahi bezain ondorio onak lortu, errusiarrak geldiaraztea erdietsi zuten. Otsailaren 7an, alemanek Mazures lakuetako ofentsiba irabazi zuten errusiarren aurka, eta Ekialdeko Prusia osoa berenganatu zuten.

Egoera kezkarria zen aliatuentzat. Mendebaldean egoera blokatua zen, eta ekialdean hainbat gudua galtzen ari ziren. Britainiarrek Turkiara sartzeko asmoa agertu zuten, eta Konstantinopla hirirako sarbidea zen Dardaneloetako itsas adarrean eraso egitea erabaki zuten. Leku estrategikoa zen aliatuentzat, turkiarrak ahultzeko, Grezia eta Bulgaria herri neutroei presioa egiteko, Serbia sostenga zezaten, eta Errusiara salgaiak helarazi ahal izateko.

Dardaneloetara heldu beharrez, hango sarbidea zaintzen zuen Gallipoli herrian ofentsiba hasi zuten apirilaren 25ean, baina huts egin zuten. Aliatuek milaka soldadu galdu zituzten, eta ondoko hilabeteak ere biziki gogorrak izan ziren. Turkiarrak ahuldu beharrean, gerlan gogor ari ziren. Garai hartan egin zuten armeniarren sarraskia, Istanbulen. Gainera, Grezia oraino ez zen gerlan sartu aliatuen alde, eta Bulgariak Aliantza Hirukoitzaren aldeko hautua egin zuen; irailaren 22an sartu zen gerlan, eta urriaren 5ean Serbiaren kontrako erasoak hasi zituen.

Egun hartan, aliatuek Salonikarako (Grezia) espedizioa hasi zuten, bulgariarren erasoaz baliatuz. Gallipoliko porrotetik landa (orotara 180.000 soldadu aliatu hil ziren, gehienak australiarrak), beste eraso bat hasi zuten Salonikan, Serbia laguntzeko eta Grezia eta Errumania Alemaniaren ondoan gerlan sartzea ekiditeko. Greziako erregeak Salonikara lehorreratzeko baimenik ez bazien eman ere, aliatuek ez zioten kasurik egin. Frantziako eta Erresuma Batuko soldaduak joan ziren hara. Frantziatik 57. eta 122. Infanteria Dibisioak joan ziren. Zenbait euskaldunek ere parte hartu zuten operazio hartan. Baina gauzak anitz konplikatu ziren, eta aliatuek gerla bukaera arte ez zuten lortu han gudu sendorik irabaztea. Hala ere, 1916ko uztailaren 20ean Errumania aliatuen alde hasi zen gerlan. Baina gerla ez zen nahi bezala joan haientzat: azkenean, abenduaren 6an, alemanek Errumaniako hiriburua, Bukarest, hartu zuten.

c) Verdun eta Somme

Lehen gerla mundialeko gudurik ezagunenak eta izugarri odoltsuak 1916an izan ziren, Verdunen eta Somme eskualdean. Otsailaren 21ean hasi zen Verduneko gudua. Alemanek eraso egitea erabaki zuten, leku estrategikoa zelako. Eskualde hartan zen, besteak beste, Douaumonteko gotorlekua, eta beste hogeita bat gotorleku, inguruan. Lehenago ere alemanek hainbat ahalegin egin zituzten gotorleku horiek hartzeko, baina frantsesek alemanak Saint-Mihiel inguruan atxikitzea lortzen zuten. 1915eko agorriletik hara, ordea, gotorleku haietan ez zegoen gehiago armarik, Joffre jeneralak arma haiek beste norabait igortzea erabaki zuelako. Gainera, frantsesek indar guztiak Somme eskualdera bideratuak

zituzten, han ofentsiba handi bat prestatzeko. Otsailaren 21eko goiz hartan, alemanek eraso gogorra hasi zuten Verdun inguruan, milioi bat obus botaz eta bost minuturo pertsona bat hilez. Ondoko egunetan, alemanek sarraski gaitzak egin zituzten, eta otsailaren 25ean Douaumonteko gaina eta gotorlekua hartu zituzten.

Euskaldunak zituzten erregimentuak, 49, 18 eta 57. Infanteria Erregimentuak apirilean igorri zituzten Verdun aldera, Craonne eskualdea utzirik. 49. Infanteria Erregimentuko lehen batailoioak Charlier lubakian zeuden, eta apirilaren 23an, bigarren batailoiak gizonen erdia galdu zuen. Ondoko egunetan ere borroka gogorrak izan zituzten. Ekainaren 21ean joan ziren handik, Gruerie oihanera, atsedenaldi bat hartzeko. Beste bi erregimentuak ere gune hartatik urrundu ziren garai hartan.

Bitartean, Verduneko egoera ez zen ona. Urte hartako udazkenean abiatu zuten aliatuek ofentsiba bat, Verdunen galdua berreskuratu beharrez. Azkenean, 1916ko azaroaren 2an berreskuratu zuten galdu zutena, eta alemanen ofentsiba hala bukatu zen. 162.000 soldadu frantses hil edo desagertu ziren eta 216.000 zauritu. Alemanen kopuruak ere berdintsuak ziren.

Garai berdintsuan, azaroaren 18an, bukatu zen Sommeko gudua. Aliatuak 10-40 kilometroz aitzinatu ziren, baina orotara 1,25 milioi gizon hil ziren gudu hartan. Eraso frantsesek eta britainiarrek hasi zuten, uztailean lehenean, baina alemanek defentsa ongi prestatua zuten, eta aliatuen eraso ez zen nahi bezala pasatu. Lehen egunean berean, alde bakoitzak 20.000 soldadu galdu zituen. Baina, alemanek Verdunen ezarriak zituzten indar batzuk Somme eskualdera bideratu behar izan zituzten, eta hori mesedegarri izan zen aliatuentzat, Verdunen irabazteko.

d) Andereen bidea eta matxinadak

Hurrengo gudu bortitz ezagunena Craonne eskualdean izan zen, Andereen Bidean. Nivelles jeneralak uste zuen alemanak ahul zirela, eta 1917ko apirilaren 16an, Andereen Bideko ofentsiba hasi zuen. Alemanak, ordea, arrazoi taktikoengatik joan ziren gibelera. Bi eguneko epean, Frantziako armadako 30.000 soldadu hil ziren, baina Nivellek ofentsiba segitzeko hautua egin zuen. Bere egunerokoan, Fayolle mariskalak ahoan bilorik gabe idatzi zuen Andereen Bidean porrota izan zutela⁵³⁵. Biharamunean soldadu batzuek ez obeditzea erabaki zuten, eta maiatzaren 20an, Frantziako armadaren baitako altxaldiak edo matxinadak hasi

⁵³⁵ Marie-Emile Fayolle, *Cahiers secrets de la Grande Guerre* (Paris: Plon, 1964), 214.

ziren, Andereen Bidean, soldadu anitzek ez zutelako obeditu, ez baitzuten «alferrik hiltzera» joan nahi.

Paueko 18. Infanteria Erregimentuan ere izan ziren zenbait altxaldi. Hain zuzen, Andereen Bideko ofentsiba hasi zenean, haiek ere han ziren, Craonnen, baina lehen egunetatik ukan zituzten hilak, eta ez ziren batere aitzinatu. Maiatzaren 7 arte egon ziren han, eta eraso gogorak jasan zituzten. Maiatzaren 6an eta 7an, Fève-en-Tarnois eskualdean borrokatu ziren. Gudu haietan erregimentu hartako 824 soldadu hil ziren. Ondoko egunetan, obeditzeari uko egin zioten erregimentu hartako anitzek, 2. batailoiak bereziki, baina aski laster, gehienak makurtu ziren⁵³⁶. Erregimentu hartako hamalau lagun epaitu zituzten eta hiru fusilatu, baina epaituen artean ez zegoen Euskal Herrikerik⁵³⁷. Garai berean Craonne inguruko Fribourg lubakian zegoen 49. Infanteria Erregimentuari ere heldu zitzaizkion altxaldia egiteko deiak, baina handik ez zuen nehork desobeditu⁵³⁸.

Andereen Bideko istilu haien ondorioz, Nivelles jeneralak zituen ardurak Pétainek hartu zituen, maiatzaren 15ean. Urriaren 24an, Pétainen agintaritzapean, Andereen Bidetik hurbil, Malmaisoneko gotorlekua hartu zuten.

3. Azken fasea

Posizio gerla anitz luzatzen ari zen, eta egoera nolazpait hautsi behar zen, gerlak alde batera edo bestera egiteko. Urteak joan urteak jin, fronteetatik kanpoko faktoreak garrantzitsuak izan ziren gerlaren bilakaeran. Alde batetik, gerla egoera luze hura jasangaitza bihurtzen ari zen, eta bake proposamenak eta eskaintzak etortzen ziren leku ezberdinetatik. Horrekin, bakea egiteko baldintzei buruzko eztabaidak sortu ziren. Gauzak bestelakatu ziren 1917an, Amerikako Estatu Batuak gerlan sartu zirenean, baina dena ez zen errazago izan Aliatuentzat, Errusiako Iraultzaren ondorioz, azken hau gerlatik erretiratu baitzen. Gerla azken mementoan trenkatu zen, 1918ko uda-udazken partean, eta Aliatuen nagusitze horren ondotik Alemaniak amore eman eta armistizioa izenpetu zuen.

a) Bakearen eztabaida

1917ko urte hartan, altxaldiez gain, beste krisirik ere gertatu zen, Frantziaren berean. Gerlaren kontrako ahots kritikoak entzuten ziren, batzuk «etsituak», beste batzuk bakezaleak, eta

⁵³⁶ Guy Pedroncini, *Les mutineries de l'armée française* (Paris: Presses universitaires de France, 1967), 113–114.

⁵³⁷ Rocafort, *Avant oublié: soldats et civils de la côte basque durant la grande guerre*, 457.

⁵³⁸ Pedroncini, *Les mutineries de l'armée française*, 95.

zenbait eskandalu lehertu ziren. Bat bereziki izan zen aipatua, eta ondoko orrietan sakonkiago aipatuko dugu, *Eskualduna* astekarian ere oihartzuna izan baitzuen. Afera hori *Le Bonnet Rouge* aldizkari anarkistaren inguruan harilkatzen zen. Miguel Almercyda aldizkari hartako zuzendaria atxilotu zuten, alemanen txeke bat eskuratu izana leporatuz. Almercyda militante antimilitarista izan zen gerla aitzin, eta 1917an mezu antimilitaristak zabaltzeagatik kritikatu izan zen. Almercyda 1917ko agorrilaren 7an atxilotu zuten, eta agorrilaren 20an hilik aurkitu zuten bere preso gelan, ustez bere buruaz beste eginik. Baina afera haren ziliportak Frantziako Gobernuraino heldu ziren, Joseph Caillaux ministro ohiari afera hartan inplikatu izatea eta bakezaleekin bildu izana leporatzen ziotelako. Azkenik, Malvy Barne ministroak kargua utzi behar izan zuen, afera horrekin zerikusia zuelakoan⁵³⁹.

Gerla kritikatzeko eta bakea aldarrikatzeko biziki gaizki ikusia zen sektore anitzetan. Baina ez ziren ezker muturrekoak bakea eskatzen zuten bakarrak. Vatikanoa bera ere bake galdez aritu zen behin eta berriz. Benedikto XV Aita Santuak gerlaren kontrako hainbat mintzaldi egin zituen, 1915eko urtarrilaren 22tik aitzina. Vatikanoren egoera ez zen eroso, giristinoak elkarren aurka ari baitziren gerlan, eta ez baitzezakeen alde baten edo bestearen alderdia har. Gai honen sakontzea ere geroagoko utziko dugu, Aita Santuaren jarreraz *Eskualduna* astekariak zer iritzi zuen aztertzeak interes berezia duelako. Gisa guziez, Frantziako Gobernuak ez zuen begi onez ikusten Aita Santuaren esku sartzea. 1917ko agorrilaren 15ean bake proposamena egin zuenean, Georges Clémenceau gogor mintzatu zen haren aurka.

Hain zuzen, afera sinplea da: bakea zein preziotan? Frantziak eta aliatuek ez zuten bakerik egin nahi, zeuden egoeran: Alemania oraino frantses lurren okupatzen ari zen, oraino bazeukan indar hein bat, baina aliatuek irabazteko eta alemanak beren herrialdera haizatzeko itxaropena bazuten, eta ez zezaketen onar hainbeste hil ukan ondoan, bakea izenpetzea, gizon haiek guziak alferrik hilak izanen zirelakoan.

b) Estatu Batuen sartzea

Ez zen, alta, Aita Santua gerla gelditzearen alde mintzo zen bakarra. Amerikako Estatu Batuak ere ez ziren berehala hasi gerlan. 1917ko urtarrilaren 22an, Wilson presidentek «garaipenik gabeko bakearen» aldeko mintzaldia egin zuen. Proposamen hark ez zuen harrera biziki ona izan Frantzian, gorago aipatu arrazoï berengatik. Baina gauzak laster aldatu ziren, ordea.

⁵³⁹ Xehetasun gehiago: Jean-Yves Le Naour, *L'affaire Mahy: le Dreyfus de la Grande Guerre* (Paris: Hachette littératures, 2007).

Gerla hasi eta laster hasi zen itsasoko gudua ere. Bereziki britainiarren eta alemanen arteko gudua izaten ziren, batzuek besteen ontziak botaz. Itsasoaren gaineko kontrola eskuratzeko zen bakoitzaren helburua, salgaiak eta armak kontrola zuenaren herrialdera hel zitezkeen eta, alderantziz, beste aldearen portuetara heltzea ezinezkoa izan zedin. Ildo horrek garrantzi estrategiko handia zuen: Ingalaterra zen nagusi itsasoan, eta alemanek zailtasun handiak zituzten salgaiak eskuratzeko, eta, beraz, baita bere biztanleei jatera emateko ere. Hots, gerla ez zen frontean bakarrik irabazi behar, azpiegiturek sekulako garrantzia zuten.

Eta itsasoko gudu hartan, alemanek zenbait herrialde neutrotako ontziak bonbardatu zituzten. 1917ko otsailaren lehenean, itsas gudu osoa hasi zuten, eta estatubatuarren ontzi anitz bota zuten, kalte ikaragarriak eraginez. Estatu Batuetako iritzi publikoan jarrera aldaketa bat izan zen, eta gero eta gehiago ziren gerlan hastearen aldekoak.

Garai berdintsuan, gainera, Alemaniaren eta Mexikoren arteko harreman batzuen berri jakin zen. Alemaniak Mexiko gerlan sartzera bultzatu nahi zuen, hitzemanek Amerikako Estatu Batuetan zeuden lur batzuk Mexikori itzuliko zizkiola. Estatu Batuak, itsasoko bonbardaketengatik eta Mexikoko aferarengatik, gerlan zuzenean hunkiturik sentitu ziren. 1917ko apirilaren 6an, Amerikako Estatu Batuetako Kongresuak gerlan sartzeko erabaki zuen. Nahiz eta hastapenean soldadu gutxi igorri zuten gerlara, gerlaren bukaera aldera, haien parte hartzea funtsezkoa izan zen.

c) Errusiako iraultzaren ondorioak

Aliatuentzat mesedegarri izan zen Amerikako Estatu Batuen gerlan sartzeko, urte berean beste aliatu bat galdu zutelako. Alabaina, 1917an Errusia gerlatik erretiratu zen. Aitzineko hilabete eta urteak gogorrak izan ziren Errusiarentzat. 1915eko ekainean hainbat porrot izan zituzten, Przemysl, Lemberg eta Galitzia inguruetan, milioi bat gizon galduz. Agorrilean Varsovia galdu zuten. 1916an Galitzia eta Bukovine eskualdeak berreskuratu zituzten, baina anitz ahuldu ondano.

Ondoko urtea manifestazio eta greba handiekin hasia zuten Errusian. Otsailaren 14an grebak izan ziren Petrogradoko lantegietan, eta otsailaren 25ean greba orokorra Errusia osoan, boltxebikeek deiturik. Langileen %90 greban ziren, eta gerlaren kontrako oihu anitz izan zen. Bi egunen buruan, altxaldiak izan ziren armadan berean, eta manifestariak Neguko Jauregia eta Duma hartu zituzten. Egun hartan hauteskundeak egin ziren sobieta hautatzeko. Martxoaren 3an, Nikolas II tsarrak kargua utzi zuen.

Errusiako iraultzak eragin handia izan zuen Lehen Gerla Mundialean. Sobiet izendatu berriak, martxoaren 27an, bakerako deia egin zuen. Baina Leninek eta boltxebikeek urriaren 25ean boterea hartu arte ez zen gerlatik erretiratu Errusia. Alemaniaren eta Errusiaren arteko su-etena 1917ko abenduaren 7an izenpetu zuten, eta handik aste batera Brest-Litovsk-eko armistizioa. Bake ituna bera, 1918ko martxoaren 3an adostu zuten.

Bake hitzarmen hark gauzak anitz aldatu zituen, Alemaniak ekialdeko frontean zituen soldaduak mendebaldera igor zitzakeelako eta, hortaz, azkarrago izanen zelako. Horrez gain, martxoaren 3an, Errumaniak amore eman zuen eta Erdialdeko Inperioekin bake hitzarmena izenpetu zuen, eskualde anitz galduz.

d) Azken guduak

Pentsatu bezala, alemanek indarrak mendebaldeko frontean ezarri zituzten, eta ofentsiba gogor bat hasi zuten, 1918ko martxoaren 21ean, Pikardia eskualdean. Bazekiten amerikarrak gerlan sartuak zirela eta denbora gutxi barne Europara helduko zirela gerla egitera, eta beraz Frantzia eta Erresuma Batua lehenbailehen lehertu nahi zituzten. Egun hartan, britainiarrak ustekabeen harrapatu zituzten, Arras eta Saint-Quentin artean. Apirilaren 5ean, aldiz, Amiens aldera abiatu ziren, baina aliatuen erresistentziak motelarazi zituen. Apirilaren 9an beste ofentsiba bat egin zuten Flandria aldean, Dunkerk eta Calaisko portuetara heltzeko asmoz.

Euskaldunak ere ez zebiltzan leku haietatik urrun. 49. Infanteria Erregimentua, martxoaren 27tik apirilaren 5era, Montdidier inguruetan aritu zen borrokan, Amiens eta Compiègne artean, Somme eskualdean. 18. Infanteria Erregimentua ere inguru haietan zebilen.

Maiatzaren 27tik ekainaren 5era, alemanek beste ofentsiba bat egin zuten Andereen Bidean. Flandriako eta Arras eskualdeko erasoak ez ziren nahi bezala joan alemanentzat, eta beraz beste eraso bat hasi zuten Andereen Bidean, frantsesak ustekabeen harrapatuz eta anitz aitzinatuz. Ekainaren 4an, alemanak ia Parisera helduak ziren. Euskaldunen erregimentu gehienak gudu haietatik babesean zeuden une hartan, baina Libourneko 57. Infanteria Erregimentuan baziren euskaldun batzuk, eta haiek Soissonsetik hurbil ibili ziren borrokan. Alemanek Soissons okupatu zuten maiatzaren 30ean. Handik laster, aldiz, aliatuek alemanen eraso geldiaraztea lortu zuten, ekainaren 11n. 49. Infanteria Erregimentukoak ere gudukatu ziren egun hartan, Compiègnetik hurbil.

Alemanek beste ofentsiba bat hasi zuten ekainaren 15ean, Champagne eskualdean, eta frantsesek kontra-ofentsibarekin erantzun zieten. Uztailaren 18an, frantziarrek eta amerikarrek Marneko bigarren gudua abiatu zuten, eta alemanak gibelaraztea erdietsi zuten.

Gauzak txartzen ari ziren Alemaniarentzat. Uztailaren 13an, protesta handiak hasiak ziren herrialde hartan, eta hainbat soldaduk uko egin zion gerlara itzultzeari. Agorrilaren 8an, Montdidier eskualdean eta Aisne eskualdean galtze handiak izan zituzten, eta ordu arte irabazi leku guztiak hustu behar izan zituzten. Somme eskualdean ere gibelera egin zuten.

1918ko irailean, frantziarrek eta britainiarrek hainbat garaipen izan zituzten ekialdeko frontean ere. Indar horrekin, irailaren 26an, ofentsiba handi bat hasi zuten Champagne eskualdetik Flandriaraino. 49. Infanteria Erregimentuak ere parte hartu zuen gudu hartan, Neuville-sur-Margival herrian, Soissons iparraldean. 18. Infanteria Erregimentua ere han inguruan ari zen gerlan. Alemanek gibelera egin zuten, eta Euskal Herritik joandako soldaduek aitzina egin zuten, nahiz eta oraino ere alemanen bonbardaketak jasan behar zituzten. Urriaren 12tik 22ra beste borroka batzuetan parte hartu behar izan zuten euskaldunek, gero eta iparralderago igoz, egunez egun, Laonetik iparraldera.

e) Armistizioa eta gerlaren bukaera

1918ko udatik landa gauzak bizkortzen ari ziren, eta ageri zen aliatuak nagusitzen ari zitzazkiela alemanei eta alemanen aliatuei. Nahiz eta – paradoxa bada ere – gerlaren azken asteetan ez zen nabaritzen gerlaren hastapenean eta gerlak iraun zuen denbora gehienez zabaldu zen mezu baikorrik, ageriko zuhurtziaren gibelean, gerla bukaerara zeraman dinamika bat zegoen. Alemanak gero eta ahulago zeuden Frantziako lurretan, eta gero eta lagun gutxiagorekin gelditzen ari ziren.

Inperio Zentralak elkarren artean kalapitan hasiak ziren, Errumaniako lurren banaketan ez baitziren ados jartzen. 1918ko maiatzaren 7an egin zuten Bukaresteko bakea Errumaniarekin, baina gero Errumaniaren gaineko garaipen hura kudeatzeko zailtasunak izan zituzten, desadostasun horrengatik. Austria-Hungariako armadan altxaldiak hasi ziren, ekainaren 2an.

Britainiarrek hainbat aitzinamendu egin zituzten ekialdean. Agorrilaren 4an, Turkiako Bakou herria okupatu zuten, petrolio ustiapen handi baten kontrola hartuz. Irailaren 19an, britainiarrek Meggidoko gudua irabazi zuten, eta horri esker handik laster Damasko hiria kontrolpean hartu zuten. Frantziak, aldiz, beste herrialde anitzetako soldaduen laguntzarekin,

Bulgariako armada garaitu zuen iraileko azken hamabostaldian. Horren ondorioz, irailaren 29an, Bulgariak Salonikako armistizioa izenpetu zuen Frantziarekin eta Erresuma Batuarekin.

Urrian zehar, britainiarrek eta frantsesek gero eta leku gehiago kendu zioten Alemaniari. Austriarrek italiarren kontrako borroka galtzen zituzten, zeuzkaten barne arazoez gainera. Alabaina, urriaren 24an, Hungariak independentzia erdietsi zuen, eta handik lau egunera Txekiar Errepublika sortu zen. Austria-Hungaria inperioa desagiten ari zen, eta azaroaren 3an, Villa Giustiko armistizioa izenpetu zuen. Urriaren 30ean, aldiz, ingelesek Mudrosko armistizioa izenpetu zuten Turkiarekin. Hots, azaroa hasi zenean, Alemaniaren aliatuak gerlatik erretiratuak ziren. Soldaduek gerla egiteari uko egin zioten, eta Alemaniako iraultza hasi zen. Azaroaren 9an, Gilen II.a enperadoreak kargua utzi zuen, eta Weimarko errepublika proklamatu zuten. Bi egunen buruan, gerlari bukaera eman zion armistizioa izenpetu zuten, 1918ko azaroaren 11n.

Soldaduek zenbait hilabetez oraino mobilizaturik segitu behar izan zuten. Hala izan zen Euskal Herriko soldaduen kasua ere, preso egon zirena salbu. Preso egon zirenak armistizioarekin batera askatu zituzten, eta beren etxetara itzuli ziren. Gainerakoek 1919ko uda arte egon behar izan zuten Alsazian eta inguruetan, bakea egonkorra zela segurtatzeko.

1918ko azaroaren 11n gelditu zen lau urte baino gehiago iraun zuen odol isuri lazgarria. Orotara, 20 milioi lagunetik gora hil zen gerla hartan, horietatik 9,7 milioi soldaduak, alde batekoak zein bestekoak. Deus ez zen lehen bezala izanen, eta Euskal Herrian berean ere mugarri bat izan zen, gerlak azkarki jo baitzuen. Ipar Euskal Herriko 6.000 gizon hil ziren gerlan, «aberriaren alde». Zaurituak beste hainbeste izan ziren, eta horietan kopuru handi bat ezindurik gelditu zen. Bizirik eta osorik itzuli zirenen artean, anitzek gerlako gurutzak eta aipamenak ere ukan zituzten. Odolarekin eta heroismoarekin lotu zituzten euskaldunak Frantziarekin.

Baina, ikusi dugun bezala, euskaldunak (eta Frantziako gainerako herrialde gutxituetako biztanleak) Frantzian integratzeko bideak lehenagotik ere martxan jarriak zituzten. Gerlarako giroa areagotu zuen nazionalismoaren iratzartzeak ondorio zuzenak izan zituen Euskal Herrian ere. 1870ean Alemaniaren kontrako galtzea eta Alsazia eta Lorrena eskualdeak Alemaniaren eskutan uztea presentzia handiko gaia izan zen ondoko urteetan, eta oihartzuna izan zuen Euskal Herrian ere. Bereziki, eskola publikoa derrigortu zenetik goiti, eskolan frantses izaera goraiatzaren eta balizko gerla baterako prestakuntza eskaintzen zen. Aberri txikiaren eta aberri handiaren kontzeptua garatu zen, gisa hartan, euskaldunen kasuan adibidez, Euskal Herria aberri txikia Frantzia aberri handiaren parte zela barneraraziz.

Ipar Euskal Herriko euskaldunek ere ikasi zuten Alemania zela haien etsaia, Frantzia guztiaren etsaia zen heinean.

Giro hartan heldu ziren gerlara euskaldunak ere. Frantziako armadaren parte izan ziren, hastapenetik, eta lehenbiziko borroka gogorretan parte hartu zuten. Euskal Herriko milaka soldadu hil zen gudu haietan guztietan zehar. Une gogorrak bizi izan zituzten lau urtez, lubakietan bereziki. Frantsesek bezala, frantses gisa, gerla egin zuten, eta azkarki sufritu. Ororen buru, Frantziak eta Aliatuek gerla irabazi zuten, eta, beraz, garaile izatearen harrotasunak ere hurbildu bide zituen frantses sentitzera.

III. GERLAREN ONDORIOAK 'ESKUALDUNA'-N

Gerla oro har nola izan zen eta euskaldunek nola bizi izan zuten gainetik aipatu ondoan, gure gaira zentratuko gara. Hori baino lehen aski xeheki aipatu dugu zer izan zen *Eskualduna* astekaria, nola sortu zen, zein testuingurutan garatu zen eta abar. Kokapen horiek eginik, eta astekariaren edukien azterketan sartu aitzin, 1914an lehertu zen gerlak astekari hartan zer ondorio izan zuen azalduko dugu ondoko orrialdeetan. Alabaina, horrek lagunduko gaitu gerla garaiko *Eskualduna*-ren argazki bat ateratzen eta, horren arabera, garatu zuten ildo editoriala eta politikoa hobeki ulertzen.

Gerlak *Eskualduna* astekarian izan zituen ondorioak testuinguru orokorrean kokatuko ditugu, aldaketa anitz denetan sentitu baitziren. Baina, halaber, *Eskualduna*-k izan zituen aldaketa espezifikokoak ere landuko ditugu. Lan honetan aztertuko ditugun aleen garaiko astekariaren argazki ahal bezain zehatza atera nahi dugu, eta, beraz, ahal bezain xeheki deskribatuko dugu garai hartako *Eskualduna*.

Gerla garaian *Eskualduna* astekarian idatzi zena aztertzea denez gure xedea, tarte bat hartu beharko dugu garai hartan zabaltzen zen informazioaren kalitateaz eta informazio iturriez mintzatzeko. Hor sartzen da zentsuraren gaia. Zentsura orokorki eta *Eskualduna* astekarian nolakoa izan zen edo zer jarrera izan zuten aipatzea garrantzitsua da. Eta informazioaren kalitateak edo zentsurak beste ondoriorik ere bazuen: prentsan argitaratzen zenaren sinesgarritasuna auzitan ezarria izan zen.

A. Ondorio materialak eta politikoak

Gerla lehertu eta berehala nabaritu ziren ondorioak prentsan. Bi gisetako ondorioak izan ziren, materialak eta politikoak. Ondorio materialak izan ziren lehen begi kolpean ikus zitezkeenak. Erredakzio taldeetan ere izan ziren ondorioak, eta guk *Eskualduna*-ko erredakzio taldean jarriko dugu arreta. Gerla lekutik idazten zuten soldaduen berri emanen dugu, eta baita Baionatik beretik zuzendari lanak egiten zituztenen berri ere. Hirugarren aldaketa, seriosagoa eta sakonagoa, politikoa izan zen, edukietan nabaritu zena.

I. Murrizketak eta aldaketak

Alde ikusgarrietik hasiko gara. Prentsak, oro har, hainbat murrizketa jasan zituen gerla hasi zenean, eta *Eskualduna* ez zen salbatu. Beste anitzek ez bezala, bizirik iraun zuen, eta ez da guti. Gerla garaiko *Eskualduna*-ren argazki bat egingen dugu. Ikusiko dugu zenbat orrialde zituen, informazioa nola sailkatua zen eta nolako erredakzio taldearekin gelditu zen.

a) Orrialde gutxiago

Gerla lehertu aitzineko asteetako zenbakiei so eginez gero, astekari mamitsua zela ageri da. Lau orrialdeko astekaria zen. Lehenago aipatu dugun egituraketa egonkortua zen: artikulu nagusia, asteko berriak, berriak, Lapurdi, Baxenabarre, Zuberoa eta Amikuzeko berriak, Baztan eta Nafarroakoak eta abar.

Aurkezpenaren aldetik, hastapeneko zenbakietatik ez zen gauza handirik aldatzen. Astekariak bost zutabe zituen, artikulu bat bukatu eta jarraian hasten zen bestea, zutabearen hastapenean, erdian edo bukaeran. Izenburuak zutabe baten zabalerakoak ziren, batzuetan bi lerrokoak izan zitezkeelarik. Gehienetan, artikuluaren gaia izaten zuten titulu gisa, eta ez artikuluaren mezu nagusiaren laburpena.

Gerla lehertu zenean, aldaketa bat-batekoa izan zen. Lau orrialde zituen astekaria bi orrialdekoa izatera pasatu zen. Bi orri horiek egitea bera zaila izanzen zitzaiela aitortu zuten, lehenbiziko zenbaki hartan. Eta abisua eman zuten, ahal zuten guztia egingen zutela berriak astero helarazteko, eta ezin helduz egoten baziren, «itzal-aldi bat egingen [zutela], luzechago, laburchago»⁵⁴⁰.

⁵⁴⁰ Manex Hiriart-Urruti, «Irakurtzaleri», *Eskualduna*, 1914ko agorrilaren 7a.

Horrelakorik ez zen gertatu, ordea. *Eskualduna*-k iraun zuen gerlak iraun zuen denbora guztian, eta astero atera zuen zenbaki bat, gerlako berri emanaz. Astero bi orri baizik ez zituen ateratzen, baina bi orri mamitsu, testu frankorekin. Orrien egitura ez zen aldatu, artikulua zutabeka antolatuak ziren, gorago aipaturiko eskema beraren arabera. 1917ko urrian, orrien zabalera eta luzera murriztu zituzten, baina egiturak berdin izaten segitu zuen, nahiz eta testu gutxiago sartzen zen zenbaki haietan.

Orrialde kopuruaren murriztea orokorra zen. Ez zitzaion euskal astekari horri bakarrik gertatu. Gainerako egunkari guztiek edo ia denek ere bi orritara murriztu zuten beren orrialde kopurua, *L'Echo de Paris* egunkariak salbu, hark lau orri ateratzen jarraitu baitzuen. Gerlak iraun zuen bitartean, paperaren produkzioa garestiegia zen, jende faltagatik eta ikatzaren prezioarengatik⁵⁴¹. Baina lekuko prentsak etekina atera zion gerla egoerari, estatu mailako egunkariak garraiatzeko zailtasunak bazirelako batetik, eta lekuko egunkariak hurbileko berriak eskaintzen zituztelako, bestetik⁵⁴². Funtsean, lehenago ikusi dugu *Eskualduna*-ren salmentek gora egin zutela Lehen Mundu Gerra garaian.

b) Sailak

Nahiz eta orri kopurua murriztua ukan, itxura eta egitura berdintsuak atxiki zituen. Bi orritan ere gauza andana bat sar zitekeela erakutsi zuen. Edukiaren aldetik, ordea, beste gisako murrizketak gertatu ziren. Hastapenean segurik, gerlarekin loturarik ez zuten gairik ez zuten sartzen. Baztango eta Nafarroako berriak desagertu ziren astekariaren zenbakietatik. Gainerako sailetan ere berriak gerlakoak ziren.

▪ Artikulu nagusia

Astekariaren oinarrizko testua, lehenbiziko artikulua edo artikulu nagusia, editorial funtzioa zuena, ez zen aldatu. Betiko lekuan segitu zuen, beti bezala hizki handiagoz idatzirik. Garai hartako gai nagusia zuen aipagai bakarra, ia beti. Gerla solas zen ia astero. Gerlaren alde ezberdinak aipatzen zituen, izan politika orokorrekoak, izan euskaldunei buruzkoak, izan Jainkoari eta erlijioari lotuak. Baina, beti, gerla zuten aipagai, zenbait salbuespen salbu (adibidez, Pio X Aita Santuaren heriotzaren ondotik⁵⁴³).

⁵⁴¹ Feyel, *La presse en France des origines à 1944. Histoire politique et matérielle*, 145.

⁵⁴² Dalbin, *Visions croisées franco-allemandes de la première guerre mondiale: étude de deux quotidiens: la Metzger Zeitung et L'Est Republicain*, 61.

⁵⁴³ Manex Hiriart-Urruti, «Aita Saindua», *Eskualduna*.

Hiriart-Urrutik Baionan ikusten zituen hainbat gauza kontatzen zuen. Itxura guztien arabera, ospitalean edo zaurituak artatzen ziren tokietan denbora anitz iragaten zuen, haiekin edo haien familiarekin mintzatzen zen, eta handik ateratzen zituen informazio anitz⁵⁴⁴, eta berriak emateaz aparte, berri edo anekdota horiek bere erretorika garatzeko abiapuntu gisa erabiltzen zituen.

1915eko azaroa arte, Manex Hiriart-Urrutik idazten zuen sail hura. Hil ondoan, geroago ikusiko dugun bezala, Jean-Blaise Adémak hartu zuen saila bere gain. 1918ko garai batez, astekaria editorialik edo artikulu nagusirik gabe egon bazen ere, Adémak Baionako kalonje kargua eskuratu zuenean, berriz hasi ziren editoriala argitaratzen.

▪ Berri nagusiak

Gerla hasi aitzin, herrialdez herrialdeko berriak ematen baziren, gerla hasi ondoan sail hura erdi desagertu zen. Hastapeneko zenbakietan, gerlari buruzko artikuluak baziren, artikulu bakoitza bere izenburuarekin. Gai ezberdinei buruzko artikuluak ziren, baina ez ziren herrialdeka sailkatuak eta artikuluaren izenburuak ez ziren «Alemania», «Italia» eta horrelakoak.

Gerla lehertu eta lehenbiziko asteetan, astekariaren osaera franko irregularra zen. Egitura finkorik gabeko astekaria egin zuten, aitzineko sail finkoak desagertu edo baztertuak izan ziren. 1914ko abenduaren beha egon behar zen, berri nagusiek sailkapen finko bat izan zezaten. Horrek ez du erran nahi 1914ko abendutik aitzineko artikuluetan ez zela informazio baliosik, eta artikulu haiek ez zirela kazetaritza ikuspegi batetik interesgarriak; baina erregularitasuna eta egituraketa 1914ko abenduan hasi ziren, ordu arte antolaketa irregularra izan baitzuen *Eskualduna*-k.

Hori erranik, 1914tik landa, astero, «Berriak egunka» sail bat sortu zuten, artikulu nagusitik landa agertzen zena. Sail hartan, gerlako berriak kontatzen zituzten, egunez egun. Gertakarien antolaketa kronologiko hura bitxi izan zitekeen, ostegunean gertatu zen zerbaitek jadanik ez zuelako baliorik ostiralean; baina berri zaharrak eta berri berriak nahasten zituzten, bata bestearen ondotik. Ez zuen inporta ostiraleko berriak bezperakoa baliogabetzen bazuen. Irakurleek gerlako berriak egunez egun jakin nahi zituzten, hala galdegin omen zuten, *Eskualduna*-k 1914ko abenduaren 11ko zenbakian azaldu zuenaren arabera.

Berriak laster zahartzen ziren, eta beraz, astekari baten kasuan, beharbada hobe zen zenbakia ateratzen zen eguneko egoera esplikatzea, baina ez zen hori irakurleek nahi

⁵⁴⁴ Altzibar, «Sarrera».

zutena. Astekariak berak informazioaren antolatze kronologikoak alde txarrak bazituela aitortu zuen, baina irakurleen nahari men egitea erabaki zuten. Berri horiek guztiak, gehienetan, biziki labur aipatuak ziren, eta batzuetan ia deus ez zen jakiten, baina idazlearen komentarioz betetzen zen saila.

- **Gerlarien berri**

Gerla lehertu eta hilabete gutxira, gerla lekutik igorri lekukotasunen argitaratzen hasi zen *Eskualduna*. Lehenik zenbait soldaduren gutunak edo gutun zatiak atera ziren, frantsesez. Horietarik bat izan zen Clément Monge astekariko kudeatzailearena. Handik laster, 1914ko urrian, Jean Saint-Pierre apaizaren gutun bat argitaratu zuten, frantsesez. Hilabete hartan, beste idazle batzuk ere hasi ziren beren berrien igortzen. Jean Elizalde *Zerbitzari* izan zen hurrengoa, eta euskaraz idazten zuen. Jean Saint-Pierre ere euskaraz hasi zen berrien igortzen, J.S.P. sinadurarekin. Gutxi gorabehera, astero edo bi astetik behin ateratzen ziren haien gutunak. Jean Etxepare ere laster hasi zen berrien igortzen, J.E. sinadurarekin. Beste berriemaile irregular batzuk ere izan ziren, batzuk inzialekin bakarrik izenpetuak, beste batzuk guztiz modu anonimoan.

Sail hark astekariari balio berezia eman zion, gerla beren begiz ikusten eta bizitzen zutenen lekukotasunak argitaratzen baitzituen. Ez ziren kazetari gisa joanak gerlara. Prentsari buruzko atalean aipatu bezala, kazetariak sarbide zaila zuten gerla lekura joateko, berrikerari gisa. *Zerbitzari*, Saint-Pierre, Etxepare eta *Eskualduna*-n idatzi zuten besteak soldaduak ziren, gerla lekuan ziren, soldadu gisa. Astekarira igortzen zituztenak, funtsean, gutunak ziren, etxera igorriko balituzte bezala. Baina gutunak baino gehiago ziren; maiz, zinezko artikulua ziren, erreportaje balioa ere izan zezaketen. Sail hau da ikerlan honetan gehien barnatuko duguna.

- **Herrietako berriak**

Herrietako berrien saila bat-bateko aldatu zen gerla lehertu zenean. Hastapeneko zenbakietan, herrietako berriak desagertu ziren astekaritik. Irailetik aitzina, saila aski irregularra izan zen, baina zenbait herrietako berriak agertzen hasi ziren, Ziburukoak adibidez. Emeki-emeki, ordea, saila berrindartu zen, ez Hiriart-Urrutik jendea berotu behar izan gabe. Berrikerariak berrien igortzen hasi ziren berriz, eta gerla lehertu aitzin bezala, herrietako berrien saila astekariko sail handiena bihurtu zen. Bigarren orrian, «Lapurdi», «Baxenabarre», «Amikuze» eta «Ziberoa» eskualdeetako berriak eman zituzten, herriz herri, nahiz eta beti herri bertsuetako berriak agertzen ziren, gerla lehertu aitzin bezala.

Herrietako berriak, gehienetan, gerlari lotuak izaten ziren. Maiz, herritar baten heriotzaren berri ematen zuten, eta beste anitzetan herritar batek ohorezko aipamena edo gurutzea ukan zueneko berriak kontatzen zituzten. Beste zenbait berritan desertoreak muga zeharkatzen lagundu zituztenen atxiloketak aipatzen zituzten. Oro har, aski sail errepikakorra zen, heriotzak eta gerlako gurutzeak maiz izaten baitziren, eta beti gisa berean kontatzen baitzituzten.

▪ Sail iragankorrak

Gorago aipatu sailak erregularrak izan ziren, asterokoak edo ia asterokoak. Beste zenbait sail ere izan ziren, ez beti errepikatzen zirenak, edo iraupen mugatua zutenak. Gehienetan, atal anitzeko artikulua luze bat izaten zen: adibidez, 1914ko udazkenean, zenbait astez, Jean Etxeparek idatzi zuen «Alemanak hurbiletik» saila. Artikulu biziki zehatzak ziren, alemanei buruzko xehetasun anitz ematen zituztenak, baina Etxeparek bere begiz ikusiaren arabera. Hots, alemanak preso atxikitzen zituzten gune bateko sendagile gisa ari zenean, ikusten zuena kontatzen zuen.

Artikulu biziki pedagogiko haiez gain, geroago ere beste batzuk izan ziren; gerlaren urtemuga batzuen kariatara, adibidez, gerlari buruzko xehetasun anitz emateko. Hala gertatu zen 1915ean, gerla lehertu zenetik urte bat iragan zenean, zazpi astez gerlaren arrazoiak eta bilakaera esplikatu baitzituzten.

▪ Bertsoak

Aste gehienetan bertsoak argitaratzen zituzten. Bertso anitz anonimoak ziren, beste anitz *Oxobi*-k edo Jean Elizalde (Azkaindarra sinadurarekin) eginak ziren. Beste batzuk inizialekin edo izengoitiekiz izenpetuak ziren. Bertso gehienek gerlako gaiak aipatzen zituzten, gehienetan Frantzia edota Frantziaren alde gerlan ari zirenak goraiatzeko⁵⁴⁵. Bertso anitz Baionatik edo Ipar Euskal Herritik beretik idatziak izaten ziren, gerlan ez zirenek idazten zituztenaz geroz. Baina baziren zenbait bertso sorta gerla tokitik igorriak, ez beti identifikatuak. Soldaduek bertsoak edo olerkiak egitea ez zen euskaldunen kontua bakarrik, frantsesek, ingelesak eta gainerakoek ere egiten zituzten, Jay M. Winterrek dioen bezala⁵⁴⁶. Bertso sorta horiek, gehienetan, gerlaren ikuspegi baikorretik eginak baziren ere, argitaratu ziren bertso batzuk biziki kritikoak. Adibidez, 1916ko martxoaren 31n, Matxin *Senpertarraren* bertso gogor batzuk argitaratu zituen *Eskualduna*-k, gerlako gogortasuna garbi

⁵⁴⁵ Adibidez: J.B., «Eskualdun soldado bat gerlan», *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 27a.

⁵⁴⁶ Jay Winter, «Les poètes-combattants de la Grande Guerre, une nouvelle forme du sacré», *Vingtième Siècle*, 1994.

kontatzen zutenak. Bertso horiek Matxin Irabola Senpereko bertsolariarenak ziren⁵⁴⁷. Baina honen bertso sorta bakarra argitaratu zen gerla garaian.

Gehiago izan ziren, adibidez, «*Baigurako artzaina*» izenpetzen zuenarenak, hala nola zortzi. Egiazko izenez Martin Larroulet Jauregi zen, Ainhoakoa (1856-1930)⁵⁴⁸. Beste zortzi bertsoaldi argitaratu zituen Jean Barbier zen, bere inzialekin izenpeturik. Luzien *Soboluztarra*-ren sei bertsoaldi argitaratu ziren. Hau Luzien Villeneuve Dubardier zen, Atharratzekoa (1852-1934)⁵⁴⁹. Beste bertsoaldi andana bat izenpedurarik gabe argitaratu zituzten, edo inzialekin soilik, eta beraz ez daiteke jakin norenak ziren. Hori zehazturik, lan honetan ez gara bertsoez gehiago arituko, eta beste baterako edo beste norbaiten esku utziko dugu honen sakontzea.

c) Erredakzio talde murriztua

Gerla lehertu zenean, erredakzioek bi ondorio praktiko nagusi ezagutu zituzten. Kazetaritza egiteko baldintzak anitz zaildu ziren, kazetari anitz gerlara deitu zituztelako, gerlara joateko adinean ziren gainerako frantses guziak bezala. Ez ziren kazetariak falta ziren bakarrak, inprimategietako langileak ere falta ziren. Horren ondorioa, bereziki lekuko egunkari eta astekariak jasan zuten, egunkari paristarrek agentzien bidez informazioa lortzen jarraitu zutelako⁵⁵⁰. Kazetari faltagatik, egunkari franko ez ziren argitaratu, gerla lehertzean, ezin baitzituzten zutabeak bete. Parisen ere jasan zituzten ondorioak, eta zenbait egunkari ez ziren berriz agertu, gerla lehertzean desagertu ondotik⁵⁵¹.

Horrelakorik ez zitzaion gertatu *Eskualduna*-ri, erredaktore batzuk gerla tokian baldin bazituen ere, ez baitzuten kazetari profesionalek osatzen, eta Baionako erredakzioan zeuden apaizek astekaria astero aterako zela segurtatu baitzuten.

Hala ere, ukazina da, idazle andana bat gerla tokian izanez, astekaria ekoizteko zailtasunak ukan zituztela, jendea falta zutelako. Gerla lekuan ziren Jean Saint-Pierre, Jean Elizalde *Zerbitzari* edota Jean Etxepare. Jules Moulier *Oxobi*, aldiz, ez zen gerlara joan, osagarri arazoengatik; Baionan gelditu zen mobilizaturik. Baionako armadarako zenbait zerbitzu egin behar zituen, baina astia bazuen astekariaz arduratzeko. Manex Hiriart-Urrutik eta Jean-Blaise Adémak funtsezko laguntza izan zuten *Oxobi*-rekin.

⁵⁴⁷ Franck Dolosor, *Matxin Irabola. Senpereko bertsularia* (Baiona: Elkar, 2010).

⁵⁴⁸ Beñat Soulé, *Neurtizlari Bertsulari Iparraldean* (s.l: Erroteta, 2011), 98.

⁵⁴⁹ Ibid., 96.

⁵⁵⁰ Forcade, «La censure politique en France pendant la Grande Guerre», 38.

⁵⁵¹ Raymond Manévy, *Histoire de la presse: 1914-1939* (Paris: Corr ea, 1945), 29.

Bizkitartean, erredaktore taldearen murrizte hark, hastapenean, astekaria kinka txarrean ezarri bazuen ere, aski laster etekina atera zion egoera hari: bere baitako idazleak gerla tokitik artikulua igortzen hasi zirenean, astekariaren balioa handitu baitzen.

2. Eskualduna-ko erredaktoreak gerlan

Astekariaren sail nagusia, bereziena eta gerlari buruzko lehen eskuko xehetasun gehien ematen zuena «Gerlarien berri» saila zen. Sail horri buruzko xehetasunak geroago aipatuko ditugu, sakonki. Baina lehenik, gerlari horien identifikatzea garrantzitsua da. Gehien idatzi zutenez eta lan honetan ikertuko ditugun testuen egileez izanen dugu solasa ondoko orrietan. Berri gehien igortzen zuen idazlea Jean Saint-Pierre izan zen, ondotik Jean Elizalde *Zerbitzari*. Bi horiek biziki erregularrak ziren berriak igortzean. Jean Etxepare ere guztiz emankorra izan zen, kantitatez aitzineko biek baino gutxiago idatzi bazuen ere, kalitatez testu zinez interesgarriak igorri baitzituen; zinezko dokumentuak, geroago aztertuko dugun bezala.

Berriemaile irregularragoen artean, Jules Moulier *Oxobi* aipatu behar dugu. Gerlako lekutik berriak igorri zituen 1917an eta 1918an. Orain arte inork ez zuen aipatu *Oxobi* gerlan izan zelakorik. Denek uste izan zuten ez zela gerlara joateko on, osagarri arazoak zirela medio. Guk atal honetan baieztatuko dugu, hori hala izan zela garai batez bakarrik; baina 1917ko apirilean beste mobilizazio bat izan zenean, ez zela gerlara joatetik libratu.

Ondoko taulan egiten dugu lau berriemaile nagusiak ibili ziren unitateen bilduma:

Eskualduna-koen erregimentuak

Noiz	Jean Saint-Pierre	<i>Zerbitzari</i>	Jean Etxepare	<i>Oxobi</i>	
1914/8/3-4	Erizaintza Militarreko 18. atala	123. Infanteria Erregimentua	Gaujacq-eko presoen ospitalean		
1915/8/2					
1915/9/26				57. Infanteria Erregimentua	20/6 Anbulantzian
1915/11/21					172. Infanteria Erregimentua
1916/7/28					19 bis FHM Osasun Trena
1916/9/21	18. Infanteria Erregimentua			Laguntza zerbitzua	
1917/5/22				18. tren eskuadroia.	
1917/10/16	49. Infanteria Erregimentua				
1917/9/10					
1918/3/30		Preso			
1918/11/2				8. tren eskuadroia.	
1918/11/20				20. tren eskuadroia.	

Irudia 17. Eskualduna-ko berri-emaileak egon ziren unitateak, kronologikoki

Iturria : Pirinio Atlantikoetako Departamendu Artxiboa

Oraindik gutxiago idatzi zuten beste idazle pare bat ere aipatuko ditugu. Batetik dago Pierre Duhour marinela, eta bestetik A.I. inzialekin izenpetzen zuen zuberotarra, Serbia eta Salonika aldean ibili zena.

Horien guztien biografiak aipatuko ditugu ondoko orrietan.

a) Jean Saint-Pierre

Jean Saint-Pierre *Anxuberro* izan zen *Eskualduna*-k gerla tokitik izan zuen berri-igorle jarraikienetarik bat edo jarraikienetarikoa. Gerla hasi eta aski laster hasi zen lehen artikuluen igortzen, eta gerla bukatu arte, ia astero idazten zuen zerbait. Haren lehen artikulua, 1914ko irailaren 25ean argitaratu zuten. Bigarrena, bi aste geroago argitaratu zuen, 1914ko urriaren 9an. Bi lehenbiziko artikulua haiek frantsesez idatzi zituen, lehena «J. Saint-Pierre, prêtre» (apeza) izenpetuz, eta bigarrena «Jean Saint-Pierre». Gainerako artikulua euskaraz idatzi zituen, «J.S.P.» sinadurarekin.

Frantsesez arras trebe bazen ere, haren euskara mailak ez zeukan inorenarekin zorrik, eta zinez ederki kontatzen zituen gerlako istorioak, euskaraz. Haren ehorzketa egunean, horrela mintzatu zen, frantsesez, Mathieu apezpikua:

«Son basque ne se hérissait pas d'archaïsmes insolites ou de néologismes énigmatiques. Il écrivait une langue simple, limpide, employant le vocabulaire ordinaire de nos paysans»⁵⁵².

Alabaina, familia euskaldunean sortu zen, 1884an, Milafrangan. Jean Saint-Pierre zuen aita, eta Catherine Antchuberro ama. Biak laborariak ziren. Laborantza mundutik zetorren norbait zen⁵⁵³, eta dudarik gabe, hori nabaritu zen haren artikuluetan. Ez zen ordea laborantzara bideratu, eskolan jarraitzeko eta apaiz egiteko bidea hartu baitzuen. Ikasketak Larresoroko apaiz eskolan hasi zituen, lehenik, 1896an. Han Manex Hiriart-Urruti ukan zuen irakasle, eta baita Arnaud d'Abbadie ere, azken hau filosofiako irakasle. D'Abbadie zen Larresoroko eskolako zuzendaria. Saint-Pierrek gazte-gazterik ezagutu zuen, beraz, *Eskualduna*-ko jendea, eta horrek bidea ireki zion geroago astekari hartan idazten hasteko.

22 urte zituenean, Euskal Herria utzi behar izan zuen ikasketen jarraitzeko. Larresoroko eskolatik Baionako seminaria joan zen ikastera, baina ezin izan zituen ikasketa guztiak han bukatu, 1906an, Frantziako Gobernuak seminario guztiak beretzat hartu zituelako eta ikasleak handik haizatu.

⁵⁵² Mgr Mathieu, «Un grand deuil», *Gure Herria* 33-6 (1951): 321–327.

⁵⁵³ Piarres Xarriton, *Jean Saint-Pierre «Anxuberro» (1884-1951)* (Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2003), Sarean: euskomedia.org.

Baiona utzirik, Tolosara (Okzitania) joan zen, letretako lizentzia prestatzera. Bi urte geroago apaiztu zen, 1908an, eta handik Erromarako bidea egin zuen, han Teologiako goi ikasketak jarraitzeko. 1910ean itzuli zen Baionara, doktoretza diploma sakelan. Baionako San Andres elizako bikario izendatu zuten. Bi urtez egon zen kargu hartan, eta 1912tik 1914era Hazparnera joan zen, eta handik landa Nay-eko eskolako moral irakasle jarri zuten.

▪ Armadan eta gerlan

Bikario zen garaian, Jean Saint-Pierre *Eskualduna* astekarian idazten hasi zen, Piarres Xarritonen arabera⁵⁵⁴. Gisa hartan, bere irakasle ohi Manex Hiriart-Urrutirekin hurbileko harremana segitu ahal izan zuen eta haren ildotik, hark zuzentzen zuen astekariko laguntzaile egin zen. Berriak idazteko esperientzia zerbait bildua zuen, beraz, Gerla Handia lehertua zenerako. Biarnoko Nayeko eskolako irakasle lanak utzirik, 1914ko agorrilean berean joan zen gerla tokira, gerla lehertu eta berehala. Paueko artxiboan aurkitu ditugu haren ibilbide militarri buruzko xehetasunak⁵⁵⁵. Paueko eta Baionako kasernetako bi erregimentu ezagunenetan parte hartu zuen, hala nola 18.ean eta 49.ean.

Zerbitzu militarra hamar bat urte lehenago egin zuen, bere borondatez hara agerturik. Paueko artxiboan, agiri militarrik irakurriz osatu ahal izan dugu apaiz honen ibilbide militarra. 1903ko azaroaren 9an engaiatu zen Baionako kasernan, 49. Infanteria Erregimentuan. 1904ko irailaren 18 arte egin zuen zerbitzua eta erreserbara pasatu zuten. Handik bi urtera, ariketa batzuk egin zituen hilabete batez, erizain militarren 18. atalean. Urte hartan berean, medikuntzako ziurtagiria gainditu zuen.

1914ko agorrilaren lehenean, berriz ere armadara deitu zuten, mobilizazio orokorraren baitan. Gauzak zehazteko, azpimarratu behar da Jean Saint-Pierrek ez zuela gerla denbora guztia Baionako 49. Infanteria Erregimentuan egin, orain arte idatzia izan den bezala⁵⁵⁶. Hastapenean, erizain militarren 18. sekzioan egon zen, andazain gisa. Sekzio hori, Bordeleko 18. Armada Gorputzaren parte zen. 1915eko maiatzaren 5ean, kaporal kargua eman zioten. 1916ko irailaren 21ean Paueko 18. Infanteria Erregimentura iragan

⁵⁵⁴ Piarres Xarriton, «Sarrera», in *14eko Gerla Handia*, de Jean «Anxuberro» Saint-Pierre, ed. Piarres Xarriton, Klasikoak bilduma (Donostia: Euskal Editoreen Elkarte, 1998), IX–XX.

⁵⁵⁵ Archives départementales des Pyrénées-Atlantiques, série R (1 R 755)

⁵⁵⁶ Piarres Xarritonek Saint-Pierreren testuak bildu zituen liburuan idatzi zuen gerla 49. Infanteria Erregimentuan egin zuela. Nahiz eta ez zuen idatzi erregimentu hartan baizik ez zela egon, ez zuen zehaztu beste erregimentuetan ibili zela.

zen. 1917ko maiatzaren 16an sarjentu izendatu zuten. Urte hartako irailaren 10ean baizik ez zen sartu 49. Infanteria Erregimentuan⁵⁵⁷.

18. Infanteria Erregimentuan zegoenean, ondoko leku hauetan ibili ziren: 1916ko irailaren 23tik azaroaren 25era, Chêne (Aube) aldean egon ziren, tresna berrien erabiltzen ikasten. Gero, Somme aldera joan ziren, eta 1916ko abenduaren 24an eta 25ean, Bovent aldean borroka gogorretan parte hartu zuten. 1917ko urtarrilean Bernt-en-Santerre eta Auchy-la-Montagne inguruan egon ziren. Hotz handia jasan zuten, eta bonbardaketa anitz. 1917ko apirilaren 16an Craonne aldera joan ziren, eta biharamunean berean hamar hil ukan zituzten. Borrokak maiatzaren 4tik 7ra pairatu zituzten, Craonnen eta Fève-en-Tardenois aldean. Udan sutik urrunxeago egon ziren, Marne, Vesoul eta Alsazian barna⁵⁵⁸.

Handik landa, 1917ko irailaren 10ean, 49. Infanteria Erregimentuan sartu zen. Ez zen biziki urrun mugitu, Burnhaupt ingurutik sei kilometrora baizik ez baitzen joan, Guewenheim herrira, hain zuzen. Handik, Alsazia bista-bistan zeukaten. Baina erregimentua berehala joan zen Auberive aldera, gudu batzuetan parte hartzera, irailaren 27a arte. Ondoko hilabeteak Hamon aldean iragan zituzten, gunearen antolatzen eta 1918ko martxoan, hainbat lekutan pausan egon ziren: Yèvres, Beaux-le-Grand, Braux-le-Petit, Les Rivières, Blaise-sous-Arzillières eta abar⁵⁵⁹.

Normal da oroitzapen kolektiboan eta Saint-Pierreren orain arteko biografietan 49. Infanteria Erregimentuari egitea erreferentzia, zerbitzu militarra han egin zuelako, batetik, eta preso hartu zutenean ere erregimentu hartan zegoelako, bestetik. Halaber, erregimentu hartan zegoela eskuratu zuen Dibisioaren Ordena (Ordre de la Division) aipamena, 1917ko azaroaren 9an:

«déjà cité pour sa belle conduite au feu, le 18 octobre 1917, fait preuve des plus belles qualités d'énergie et de sang-froid, en maintenant sa section sous un violent bombardement de minnerwerfer et l'artillerie lourde, et en assurant personnellement et à plusieurs reprises, sous le feu, la liaison avec l'unité voisine. Fortement contusionné par un éboulement, n'a demandé à se reposer qu'après le bombardement».

Gisa bereko aipamen bat eskuratu zuen 1917ko maiatzaren 23an ere:

«très grand courage personnel. S'est particulièrement fait remarquer au cours des assauts du plateau de Craonne».

⁵⁵⁷ Archives départementales des Pyrénées-Atlantiques, série R (1 R 755)

⁵⁵⁸ *Historique du 18e régiment d'infanterie pendant la guerre de 1914-1918.*

⁵⁵⁹ *Historique du 49e régiment d'infanterie pendant la guerre 1914-1918.*

1918ko martxoaren 30ean, Rubescourt (Oise) herrian izan zen borroka batean zauritu eta desagertu zen. Alemanek preso hartu zuten, eta han egon zen preso, Limburg hirian, gerla bururatu arte.

Piarres Xarritonek ongi laburbiltzen du nola idazten zuen gerla lekutik:

«Luzaz berekin izan zuen Leon Aguerre apez lagunak kondatu digu nola Saint-Pierrek kanoi hotsaren artetik, karrikarte zoko batean, lursagar zakuen gainean jarririk, idazluma tzar bat hortz-artean marruskatuz, soldadu lagunen berriak eta haien etxeoen arrenkurak hausnartu ondoan, zarra-zarra, paper mutur baten gainean bere artikulua zirimarratzen zituen»⁵⁶⁰.

Xehetasun horiek guztiak inportanteak dira, Jean Saint-Pierreren artikulua testuinguruan hobeki txertatu ahal izateko. Berresten dute zaurien artatzen ibiltzen zela, baina bereziki bere ibilbidea eta non ibili zen argitzeko balio du. Azkenik, sariak edo aipamenak eskuratu izanak erakusten du ere gerlarekiko eta Frantziarekiko jarrera, hala nola diziplina, nahiz eta hori, oroz gainetik, idatzi zituen artikuluetan ageri den.

▪ Gerlatik landa

Preso egonik herrira itzuli ondoan ere segitu zuen idazten. Irakasle lanetara itzuli zen, baina ez zuen Nayen jarraitu, baizik eta Baionako apaiz eskolan. Irakasle zela, idazle berri gehiago bildu zuen bere ikasleen artetik. Manex Hiriart-Urrutirengandik hartu zuen idazteko gustua, eta idazle belaunaldi berri bati lekukoa pasatzeko funtsezkoa izan zen, bere ikasleak, besteak beste, Piarres Lafitte, Domingo Soubelet edota Leon Leon izan baitziren. Ipar Euskal Herriko idazle eta kazetari euskaldunen kate luzeko kate-begi funtsezkoa izan zen, haren ikasle izan zen Lafitte bera hurrengo belaunaldiaren irakasle izan zelako, besteak beste XX. mende bukaera arte *Herria* astekariko zuzendari izan zen Emile Larrerena.

Jean Saint-Pierrek beste aldizkari bat ere sustatu zuen. Lehen Gerla Mundialean gerla tokitik idatzi zuten beste lagunekin batera, hala nola Jules Moulier *Oxobi*, Jean Elizalde *Zerbitzari* eta Jean Etxepare, eta beste hainbat idazleren laguntzarekin, *Gure Herria* hilabetekaria sustatu zuen, 1921ean.

1925ean, *Eskualduna*-ko zuzendari kargua hartu zuen, Blaise Adémaren lekuan. Erredakzioan haize berri bat ekarri zuela aipatu zuen Xarritonek. Bost urtez bete zuen kargu hura, Domingo Soubeleten esku utzi arte⁵⁶¹. 1930ean, alabaina, Euskal Herritik joan behar izan zuen, apezpiku izendatu baitzuten, Kartagoko (Tunisia) Lemaire artzapezpikuaren laguntzaile lehenik, eta Gorduseko apezpiku gero. 1929an, Frantziako kongresu eukaristikoa iragan zen Baionan, eta Saint-Pierre izan zen antolatzaile nagusi,

⁵⁶⁰ Xarriton, *Jean Saint-Pierre «Anxuberro» (1884-1951)*.

⁵⁶¹ Borda, «Le journal «Eskualduna» et la guerre de 1914-1918».

François-Xavier Gieure Baionako apezpikuaren laguntzaile gisa, eta hango lanaz oharturik hartu zuen Lemairek berekin⁵⁶². 1937an itzuli zen Euskal Herrira.

Haren luma ez zen *Eskualduna*-ra eta *Gure Herria*-ra mugatu. 1919tik landa, Hego Euskal Herriko *Euzkadi* egunkari jeltzalean idatzi zuen, *Anxuberro* izenpedurarekin, hogeita hamar bat aldiz, Ipar Euskal Herriko berriak emanaz. Ondotik, Jean Elizalde, Jules Moulier *Oxobi* eta Jose Garmendia izan ziren Ipar Euskal Herriko berriemaileak *Euzkadi* egunkarian.

Euskara maite eta lantzen zuela inork ez du ukatu. Euskara eta literatura ongi ezagutzen zituen; haren ereduak Arbelbide, Duhalde, Duvoisin, Diharasarry eta Axular ziren⁵⁶³. Baina horrek ez zion kentzen Frantziarengan zuen atxikimendua. Hori da ondoko orrietan barnatuko duguna, baina aipamen labur bat egin daiteke oraindanik. Gerla garaian egin zuen indarra eta isuri zuen odola hartu zuen adibidetzat Mathieu apezpikuak, Saint-Pierreren ehorzketa egunean, honek Frantzia maite zuela azpimarratzeko:

«*Aimait-il le Pays Basque contre la France? Non, nul ne peut soupçonner Mgr Saint-Pierre de n'avoir pas aimé la France. [...] Mais l'amour de la grande patrie ne l'a pas empêché d'aimer passionnément la petite patrie, son cher Pays Basque dont le passé, le présent, l'avenir étaient l'intérêt suprême de la vie. [...] Son régionalisme était pur, sans nul mélange de séparatisme. Il lui semblait simplement qu'un Basque doit être Français*»⁵⁶⁴.

Hor hunkitzen da ikerlan honetan barnatuko dugun gaiaren muinetarik bat. Geroago sakonduko dugu, baina Jean Saint-Pierre-k Frantziari zion atxikimendua berresten du Mathieu apezpikuaren predikuak. Hala ere, euskara errotik maite zuen, haren heriotzaren urteurrenean, *Gure Herria*-k idatzi zuen bezala: «Il n'a cessé d'aimer, d'admirer et de glorifier la réussite du petit peuple basque et la chance presque unique de sa durée»⁵⁶⁵. Euskararen alde lan egin zuen ondoko urteetan ere. *Eskualduna* desagertu zenean, Piarres Lafitterekin batera parte hartu zuen *Herria* astekariaren sortzen. 1948an Eusko Ikaskuntzako presidente izendatu zuten. 1950ean *Gure Herria* astekaria berriz argitaratzen hasi zen. Handik urte baten buruan hil zen, 1951ko abenduaren 18an, Baionan.

⁵⁶² Mgr Mathieu, «Un grand deuil».

⁵⁶³ Villasante, *Historia de la literatura vasca*, 307.

⁵⁶⁴ Mgr Mathieu, «Un grand deuil».

⁵⁶⁵ X., «Un anniversaire. Monseigneur Saint-Pierre», *Gure Herria* 25-1 (1953): 1–11.

b) Jean Elizalde *Zerbitzari*

Jean Saint-Pierrerekin batera, Jean Elizalde⁵⁶⁶ *Zerbitzari* izan zen gerlako tokietatik artikulua eta gutun gehien igorri zuen *Eskualduna*-ko berrikeraria. Oraino gaztea bazen ere, ez zen orduan hasia *Eskualduna*-n idazten, eta gerlatik landa ere, anitz idatzi zuen, euskarri ezberdinetan. 1883ko agorrilaren 29an sortu zen Azkainen (Lapurdi), eta 1961eko maiatzaren 5ean hil zen, Gereziatan (gaur egungo Lekorneko auzo bat, Lapurdi). Jean Elizalderen eta Sabine Salaberriren semea zen.

Hil zenean hainbat ohore ukan zuen, eta hainbat artikulua edo mintzaldi argitaratu ziren. Piarres Lafittek Elizalderen biografia bat idatzi zuen *Herria* astekariaren ondoko asteko zenbakian, 1961eko maiatzaren 11n. Urte hartako martxo-apirileko *Gure Herria* hilabetekarian, Michel Labeguerie euskal kantari eta politikariak Elizalderen ehorzketa egunean irakurri mintzaldia argitaratu zuen⁵⁶⁷. *Egan* agerkariaren urte hartako lehen zenbakian, Echebarnek idatzirik berri labur bat argitaratu zuten⁵⁶⁸. Artikulu horiek eta Elizalde euskaltzain egin zeneko ekitaldian Georges Lacombe egin zuen mintzaldia⁵⁶⁹ izanen dira ondoko biografiaren oinarriak.

Azkaineko eskolan ikasi zuen lehenik, eta handik landa Larresoroko (Lapurdi) apaiz-eskolara joan zen. Gero, Baionako seminario handian jarraitu zituen ikasketak, eta Manex Hiriart-Urruti izan zuela irakasleeriko bat⁵⁷⁰. Baionatik landa Biarno aldera joan zen ikasketen jarraitzera, Nayeko eskolara, hain zuzen. Ikasketak bururatu eta apaiztu ondoan, Uztaritzera joan zen 1909an, bikario gisa. Han, Michel Iriart eta Blaise Adéma izan zituen erretore-nagusi. Pertsona «alegera», «mintza-errega» eta «predikari pollita» zela idatzi zuen Piarres Lafittek⁵⁷¹. Osagarri onekoa eta kirolaria zen, bizikletan, pilotan edo futbolean ez zen akitzen.

Ameriketara gaindi ibili zen, Uztaritzeko seminario berria eraikitzeko diru biltzen. 1926an, apaiz kargu bat nahi zuela-eta, Liginagara (Zuberoa) igorri zuten, han apaiz baten beharretan zirelako garai hartan. 1952 arte egon zen han erretore, eta gero Lekorneko Gerezieta (Lapurdi) auzora joan zen, eta han egon zen hil arte.

⁵⁶⁶ Jean Elissalde, ofizialki. Lan honetan euskal ortografia garaikidean idatziko dugu: Elizalde.

⁵⁶⁷ Michel Labéguerie, «Zerbitzari Jaunari», *Gure Herria* 33-2 (1961): 120.

⁵⁶⁸ Aingeru Irigarai «Apat Echebarne», «Zerbitzari hil da», *Egan* 1/2-1960 (1961): 110–111.

⁵⁶⁹ Georges Lacombe, «Jean Elissalde aphez jaunak bere euskaltzain sarreran irakurri zuen hitzaldiari, Georges Lacombe Euskaltzain jaunak egin zion erantzuna», *Euskera* (1931): 77–83.

⁵⁷⁰ Casenave, *De l'article de presse à l'essai littéraire: Burubkake (1910) de Jean Etxepare*.

⁵⁷¹ Piarres Lafitte, «Jaun Elissalde jaun apheza Jainkoak bereganatu», *Herria*, 1961ko maiatzaren 11.

- **Zerbitzari armadan eta gerlan**

Baina Uztaritzen zen bitartean, zenbait urtez Euskal Herritik urrundua izan zen. Alabaina, 1914an, gerlara deitu zuten, eta Libourneri lotua zen 57. Infanteria Erregimentuarekin joan zen gerla egitera. Erregimentu hori ere Bordeleko 18. Armada Gorputzaren parte zen. Xehetasun guztiak Paueko artxiboan aurkitu ditugu⁵⁷². 1904an zerbitzu militarra egitea gibelatu zioten, «ahuleziagatik». Urte bat geroago, 1905eko urrian, Baionako 49. Infanteria Erregimentuan sartu zen, bere zerbitzua egiteko. 1907ko urriaren lehenean erreserbara pasatu zen. 1911n Bordeleko 18. erizain militarren sailean izendatu zuten, eta beraz, sail hartan zegoen, 1914ko agorrilaren 4an gerlara deitu zutenean. Baina gerla hasi zenean, 123. Infanteria Erregimentura iragan zen, eta 1915eko agorrilaren 5ean, aldiz, 57. Infanteria Erregimentura pasatu zen. 1918ko ekainaren 18an, erizain kaporal izendatu zuten. 1919ko martxoaren 17an itzuli zen etxera. 123. Infanteria Erregimentua ere 18. Armada Gorputzekoa zen, La Rochelle hiriri lotua.

Elizaldek gerlako oroitzapenak idatzi zituen, zenbait urteren buruan, eta artikulu haiek bilduz, Patri Urkizuk liburua argitaratu zuen⁵⁷³. Han agertzen diren oroitzapenen arabera, Elizalde bere burua hastapenetik 57. Infanteria Erregimentuan ikusten zuen, eta ez zuen 123.a aipatzen. Gainera, lehen egunetako lekuak aipatu zituenean ere, 57.arenkin zeukaten lotura. Adibidez, agorrilaren 28an Guise herrian zirela idatzi zuen, eta 57.a ere herri hartan zen egun hartan. 123.a ere ez zebilen handik urrun, eta Guiseko guduan parte hartu zuten bi erregimentuek. Hain zuzen, biak 35. Infanteria Dibisiokoak ziren. Litekeena da Jean Elizalde, ofizialki 123.ekoa izanik ere, dibisio berekoa zelako, 57.era mugitu izana.

Lehen egunetan, Belgikako guduetan parte hartu zuten, Charleroin lehenik, Guise aldean gero. Iraila hasieran Marneko borrokan parte hartu zuten. Gero, Andereen Bidera joan ziren, eta hilabeteak egon ziren Verneuil eta Beaulne inguruan, Craonnetik dozena bat kilometrotan. 1916ko udaberri arte egon ziren eskualde hartan, geldirik. 1916ko maiatzean, Verduneko guduan parte hartu zuten. Gero, hainbat hilabetez pausan egon ondoan, 1917ko maiatzean, Andereen Bideko gudura joan ziren, Craonna. 1918ko martxoan Noyon (Oise) inguruko borroketan aritu ziren. Agorrilean, Rouy-le-Petit aldera joan ziren, Sommeko guduetan parte hartzera.

Jean Elizalde hainbat sari edo aipamen lortu zituen gerla denboran. 1917ko maiatzaren 21ean aipamen bat ukan zuen, «andazain eredugarri» gisa: «ce modèle du brancardier, instruit, modeste, dévoué jusqu'à l'abnégation, venu sur sa demande dans un

⁵⁷² Archives départementales des Pyrénées-Atlantiques, série R (1 R 743)

⁵⁷³ Elissalde, *LVII.a gerlan*.

Régiment d'Infanterie. Montre en toutes circonstances une vigueur et une énergie inlassable». Konkretuki, 1917ko maiatzaren 5ean eta 6an, «su bortitzenaren azpian zaurituei artak» eman zizkielako egin zioten aipamena.

Ondoko urtean, 1918ko apirilaren 13an, aipamena egin zioten: «a montré la plus grande initiative pour l'évacuation rapide des blessés dans un poste de secours très exposé». 1918ko martxoaren 26tik 30era Mont-Renaud-n izan zen guduan izan zuen portaeragatik jaso zuen sari hori. Gisa bereko beste aipamen bat ukan zuen 1918ko agorrilaren 7an, berriz ere «iniziatiba intelijentez» jokatu zelako eta zaurituak artatu zituelako, «bonbardaketa eta tiroketa bortitzenen azpian».

Gerla bururatu eta lau egunera beste aipamen bat eta gurutzea ukan zituen, 1918ko azaroaren 15ean:

«s'est spontanément offert pour aller chercher le corps d'un officier tombé en première ligne et aidé d'un de ses camarades ; a vaillamment accompli sa tâche sous le feu de l'ennemi et dans les circonstances les plus périlleuses»⁵⁷⁴.

Informazio horiek lagungarri dira *Zerbitzari* zehazki non ibili zen jakin ahal izateko eta, bereziki, gerlan zer jarrera izan zuen erakusten dutelako. Gerlan erakutsi zuen jarreraz gehiago jakin daiteke hark berak idatzi zituen artikulua irakurriz, baina bere buruaz ez zela anitz mintzo ikusiko dugu; beraz, armadaren aipamen horien bidez jakin daiteke zaurituen artatzen eta zaurituak ziren tokitik eramaten ibiltzen zela, eta lan hori seriooki egiten zuela.

▪ Gerlatik landa

Gerlatik landa «aldatua» itzuli omen zen, Lafittek zehaztu zuenez, «lazatua». Baina sekulan baino aktiboago eta sortzaileago izaten jarraitu zuen. Gerla lekutik erregulariki igortzen zituen berriak, *Zerbitzari* izenpedurarekin. Izengoiti hori ez omen zuen berak asmatu. Patri Urkizuk zehaztu zuen *LVII.a gerlan* liburuko sar-hitzan⁵⁷⁵ eta *Azkaine Gure Sorterria* liburuan aipatzen denaren arabera, Elizalde gerlako berriak igorritz gutun bat idatzi zion bere irakasle ohi eta *Eskualduna*-ko zuzendari Hiriart-Urrutiri, «zure *Zerbitzari*, J.E.» moduan bukatuz. Eta Hiriart-Urrutik «*Zerbitzari*» hitza hautatu zuen artikulua izenpetzeko. Bere idazle lanetan zehar, beste izengoiti franko erabili zuen, hala nola, Azkaindarra, Bilbaria, Haur Prodigoa, Lurtchuri edota Nornahi.

Hiriart-Urrutik lehenagotik ezagutzen zuen haren idazle lana, Elizalde Baionako seminario handian zenean ere aritzen baitzen *Eskualduna*-n eta *Eskualdun Ona*-n idazten.

⁵⁷⁴ Ibilbide militarri buruzko xehetasun horiek guztiak Pirinio Atlantikoetako artxiboko erregistro militarrean daude.

⁵⁷⁵ Elissalde, *LVII.a gerlan*.

Bertsoak eta artikuluak idazten zituen, eta hainbat artikulu ere bai «Zer eta zer» sailean. Gerlatik itzuli zenean ere idazten jarraitu zuen, eta ez *Eskualduna*-n bakarrik.

Beste lagun batzuekin batera (Blazy, Saint-Pierre, Barbier, Dufau, *Oxobi*, Dassance), *Gure Herria* hilabetekariaren sortzen parte hartu zuen. Horrez gain, *Almanaka*-n idazten zuen, eta baita Hego Euskal Herriko *Euzkadi* egunkarian eta *Argia* astekarian ere. Bestalde, urte anitzez – hogeita bost urtez – Donibane Lohizuneko *Mendiburutegiko egutegia*-ren argitaratzea segurtatu zuen. 1944an *Eskualduna* debekatu zutenean eta Piarres Lafitte eta beste batzuk *Herria* astekariaren sortzeko urratsetan zebiltzanean, Elizalde proiektua diruz lagundu zuen.

Idazle gisa, liburu eta testu franko badu utzirik. Liburu gehienak *Gure Herria*-n agertu artikuluekin osatu zituen. Idazle izateaz aparte, testu biltzaile ere izan zen. 1921ean, Jean Etxepararekin batera, Eskualtzaleen Biltzarra berri zuen, eta elkarte hartako idazkari izan zen. Urte andana batez, haurren ipuin lehiaketak antolatu zituen, berrogeita hamar bat herritako haurren ipuinak biltzen zituen, irakurtzen eta hoberenak *Herria*-n argitaratzen. Horrekin batean eta horren harira, ipuin lehiaketak antolatzen zituen herrietako xehetasun franko biltzen eta kontatzen zituen.

Haurrekin lan egin zuen zenbait urtez, hala nola Hazparneko kolegioan, euskara irakasle gisa. Euskara bereziki laborariak entzunez landu zuen; ez zen biziki gramatika-zalea, baina bai euskal letren zalea, oroz gainetik bertso zalea. Bertso anitz idatzi zuen, baina baita bertso anitz entzun ere. Bertso saioak ez omen zituen huts egin nahi izaten. Funtsean, bertso txapelketetako gai-emaile eta epaimahaikide ere ibili zen zenbait aldiz.

Elizalderen euskaltzaletasuna goraiatu zuen Georges Lacombe euskaltzainak, 1930eko azaroan, Elizalde Euskaltzaindian sartzeko ekitaldian, Azkainen. Urte hartako ekainean izendatu zuten euskaltzain, Jean Elizalde, ordurako euskarazko lan anitz egin zuen apaiza. Hitz hauekin goraiatu zuen Elizalde, Lacombe:

«Egia da, Eskual-herriko apez guziak eskualzale direla. Bainan heietarik gehienek uste dute beren predikuak eskuaraz eginez, kofesatuz eskuaraz eta katixima erakatsiz eskuaraz, noizean behin eskuarazko kantika batzu elizan kanta-arazirik, aski egin dutela beren arbasoen mintzairaren alde, eta hola eskuara beti aitzina joanik biziko dela menderen mendetan, betiraundean. Gutxi dire, zu bezala, bihotz eta gogo barnetik senditu dutenak horiek oro ez direla aski eskuararen iraupenerako. Eskualdun laborariak eta langile guziak, beren mintzairaren merexi duen bezala maitatzeko, behar dute gaineratekoan irakurtu eta ahal balinbada idatzi eskuaraz, eta eskuara baratze bat bezala laboratu eta moldatu. Hala eskuararen balioa hobeki ikusiko dute, eta atseginekin nola eginbidez beren haurrerik

erakatsiko diote Europako hizkuntzetarik zaharrena. Zu zare hori endelgatu dutenen bat, eta hartako laket zauzu eskuaraz idaztea».⁵⁷⁶

Elizaldeek liburu anitz utzi du euskal literaturaren katalogoan. Gazte denboran idatzi bertsoak bildu zituen *Kantari Berria* (Baiona, 1920) liburuan, *Eskual-berriko begaztinak eta choriak* ikerkuntza lana aurkeztu zuen, eta beste hainbat ikerlan eta itzulpen ere egin zituen.

c) Jean Etxepare

Jean Etxepare⁵⁷⁷ bereziki ezagun egin zen *Buruxkak* eta *Beribilez* liburuak idatzi zituelako. Jean-Baptiste Orpustanek handizki baloratu zuen: «Jean Etchepare (1877-1935) reste, comme personnage et comme écrivain, une des grandes et originales figures de la littérature basque de tous les temps»⁵⁷⁸. Euskal idazle handien lerroan izanik⁵⁷⁹, bi liburu horiek eman zioten osparearen gainetik, gutxiago ezaguna den atal bat ere utzi zuen. Jean Saint-Pierrek eta Jean Elizalde bezala, hark ere idazten zuen *Eskualduma* astekarian, eta hark ere igorri zituen artikuluak gerlako tokietatik⁵⁸⁰. Etxepareren berezitasuna da, bere ikaskideak ez bezala, ez zela apaiza, baizik eta laikoa⁵⁸¹. Medikua zen, ofizioz. Beraz, ikasketak, lanbidea eta familia bizitza zirela medio, ikuspegi desberdin batekin edo estilo desberdinez idazten zuen. Lan honetan aztertuko ditugun gerlako kroniketan ere maiz nabari da ez zela elizgizon baten luma, baizik eta zientzietako batena.

Hala ere, Saint-Pierrearen eta Elizalderen oinarri beretik abiatu zen, hastapeneko eskolak eta irakasleak berak izan baitzituzten, nahiz eta bi horiek baino zazpi eta sei urte gehiago zituen, hurrenez hurren. Etxepare 1877ko urriaren 30ean sortu zen, Argentinan, Mar Chiquita herrian. Jean Etxepare eta Catherine Bidegarai zituen gurasoak. Sei urte zituela joan zen Euskal Herrira, haiekin, eta bizia han egin zuen, lehenik Lekorne herrian (Lapurdi), gero Alduden (Baxenabarre). 57 urtetan hil zen, Kanbon (Lapurdi), 1935eko urtarrilaren 9an.

⁵⁷⁶ Lacombe, «Jean Elissalde aphez jaunak bere euskaltzain sarreran irakurri zuen hitzaldiari, Georges Lacombe Euskaltzain jaunak egin zion erantzuna».

⁵⁷⁷ Jean Etchepare, ofizialki. Euskal ortografian idatziko dugu, lan honetan.

⁵⁷⁸ Jean-Baptiste Orpustan, *Précis d'histoire littéraire basque, 1545 - 1950: cinq siècles de littérature en euskara*, [lehen edizioa: 1996]. (Baigorri: Izpegi, 2006), 253.

⁵⁷⁹ Villasante, *Historia de la literatura vasca*, 300–302; Jean Elissalde, «Etchepare jaun mirikuaren ohoretan», *Gure Herria* (1955); Piarres Lafitte, «Notre Maître: M. le Dr. Etchepare», *Gure Herria* (1932).

⁵⁸⁰ Gerla tokitik idatzi zituen artikulu gehienak argitaratu zituen Piarres Xarritonek, eta horrekin batera Etxepareren biografia ere idatzi, sarrera gisa: Charriton, *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak. III. Kazetaritza (A) (1903-1915)*.

⁵⁸¹ Jon Casenave, «Eskualduna astekariaren «gizaldi gaztea» (1877-1888)», in Apalategi, Ur: *Belaunaldi literarioak auzitan* (Donostia: Utriusque Vasconiae, 2005), 167–183, Sarean: artxiker.ccsd.cnrs.fr.

Argentinan iragan zituen lehen urteetan, ez bide zuen harreman anitz izan gaztelerarekin; alderantziz, hango «panpa zabaletan isolatuta» iragan zituen denbora gehienak, edo bakarrik edo, norbait gurutzatzekotan, euskaldunekin⁵⁸². Sei urte zituela joan zen Euskal Herrira eta Lekorneko eskolan ikasten hasi zen. Hamabi urtetan, Larresoroko apaiz eskolara igorri zuten, eta han ukan zituen irakasleak *Eskualduna*-ko idazleak ziren, hala nola Manex Hiriart-Urruti, Arnaud d'Abbadie edota Blaise Adéma, hots, Saint-Pierrek eta Elizaldekan ukan zituzten irakasle berak⁵⁸³. Nahiz eta goi mailako ikasketak ez zituen seminario batean egin, eta beraz Hiriart-Urrutiren bidetik pixka bat urrundu zen, harremana ez zuen inoiz galdu eta Larresoroko egonaldia funtsezkoa izan zen, gero *Eskualduna* astekarian idazten hasteko. Hiriart-Urrutik eta Abbadiek eragin handia izan zuten Etxeparerengan, Casenaveren ustez:

«En matière de langue basque, le modèle essentiel lui est fourni par deux chroniques de l'Eskualduna, celle de Jean Hiriart-Urruti surtout et celle d'Arnaud Abbadie dans une moindre mesure. Dans le travail du premier il trouve un sujet d'admiration et une base d'imitation, puis, très rapidement, il perçoit les limites de son modèle et s'oriente vers une conception plus ouverte du texte court, variée dans les formes et les thèmes, marqués par un traitement plus littéraire de la langue».⁵⁸⁴

1894an joan zen Bordeleko unibertsitatera, eta lau urtez egon zen medikuntza ikasten. 1899an soldadutza egin zuen Frantziako Provence eskualdean, eta gero tesia idatzi eta aurkeztu zuen. Medikuntza eta euskal nortasunaren ikur goraiatua zen esku huskako pilota uztartu zituen: hain zuzen, pilotarien artean gertatu ohi ziren zauri edo eritasunak ikertu zituen. Tesia⁵⁸⁵ 1901ean aurkeztu zuen, pilotariet jasaten zituzten zauri edo min nagusiei buruz. Tesia bukaturik, Lekornen jarri zen mediku. 1905ean, Aldudera joan zen, eta hil arte hango mediku izan zen. Horregatik, Jean Etxepare mirikuaren izena maiz lotzen da Aldude herriarekin.

Tesia aurkeztu orduko hasia zen artikuluak idazten. Jean Casenaveren arabera, 1901etik hasi zen *Eskualduna*-n artikuluen idazten. 1903an agertu zen argi eta garbi Etxepareren artikulutzat jo zitekeen lehena, baina lehenago hasi zela dio Casenavek, eta haren ustez litekeena da 1896ko artikulua bat harena izatea⁵⁸⁶.

Lehenbiziko artikulua horien bilduma bat plazaratu zuen 1910ean, *Buruxkak* izeneko liburuan. 26 artikulua bildu zituen, eta bere sakelatik ordaindu zuen liburuaren argitaratzea, Tours-eko Mame argitaletxearekin. Liburu hark, Etxepare hil geroztik, beste edizio franko

⁵⁸² Altonaga, *Etxepare Aldudeko medikua*, 56.

⁵⁸³ Casenave, *De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruxkak (1910) de Jean Etxepare*.

⁵⁸⁴ Ibid., 123.

⁵⁸⁵ Jean Etxepare, «Quelques remarques sur le joueur de pelote» (Méd.--Bordeaux, 1901).

⁵⁸⁶ Casenave, *De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruxkak (1910) de Jean Etxepare*., 45.

ukan zuen. Liburua idatzi zuenerako, hainbat gai bazuen jorraturik, besteak beste pilota, Frantziako politika, medikuntza eta abar. Gogoetak eta kronikak bildu zituen. Liburuak kritikak eragin zituen, bereziki bi artikulu ez baitziren orduko euskal elitearen, hots, apaizen, gustukoak izan. Batek eskola laikoaren aldeko mezua zekarren, eta beste batek amodio solasak. Bere laikotasunetik idatziak ziren testuak ziren, baina *Eskualduna*-ren orduko buruzagien ildoarekin ez bazuten bat egiten ere, eta Manex Hiriart-Urrutirekin zenbait kalapita izan bazituen ere⁵⁸⁷, Etxepare, oro har, anitz inplikatu zen astekari hartan eta haren ildo nagusiekin bat egiten zuten artikuluak idatzi zituen gehienetan.

1911n Cercles d'Etudes euskariennes elkartean parte hartu zuen, George Lacombe, Pierre Broussain eta Julio de Urquijorekin batera, euskara ikertzen eta lantzen. Garai haietan ez zuen *Eskualduna* astekarian bakarrik idatzi. Pierre Etxepare anai apaizarekin batean, *Eskualdun laborariaren almanaka* argitaratzen zuen urtero, 1914an gerla lehertu zen arte. Almanaka hura ez zen *Eskualduna* astekariak argitaratzen zuena, nahiz eta hura ere zurien almanaka izan. 1914an bi almanaka zuriek, *Eskualduna*-renak eta Etxepare anaiek argitaratzen zutenak, bat egin zuten, *Eskualduna*-ren gidaritzapean.

- **Etxepare gerlan**

Etxepare gerlara deitu zuten, 36 urte zituela. Mediku militar gisa ibili zen batetik bestera, eta gerlan zen bitartean, artikuluak idazten zituen *Eskualduna*-n argitaratzeko. Honen ibilbidea ere Paueko artxiboan aurkitu dugu⁵⁸⁸.

1898ko azaroan sartu zen armadan, eta 1899ko martxoan 19. Artilleria Erregimentuan sartu zen. 1900ean armada utzi ondoan, 1901eko agorrilean ariketa batzuk egin zituen 49. Infanteria Erregimentuan. 1903an, 18. Eskualdeko bigarren klaseko mediku laguntzaile izendatu zuten. 1909an bigarren klaseko mediku kargura igo zuten. 1914ko agorrilaren 2an, Gaujacqeko presoen ospitalera⁵⁸⁹ igorri zuten. 1915eko irailaren 26an, 20/6 ambulantiara igorri zuten, handik bi hilabetera, azaroaren 21ean, 172. Infanteria Erregimentuan sartu zen. 1916ko uztailaren 28an, armadako 19 bis FHM osasun trenean ezarri zuten. 1918ko apirilaren 20ean bigarren klaseko mediku nagusi izendatu zuten. 1919ko urtarrilaren 7an, Baigorriara igorri zuten.

⁵⁸⁷ Altonaga, *Etxepare Aldudeko medikua*, 76.

⁵⁸⁸ Archives départementales des Pyrénées-Atlantiques, série R (1 R 672)

⁵⁸⁹ Landetan dago, Orthezen iparraldean.

Jean Saint-Pierre eta Jean Elizalderen gisan, Etxeparek ere aipamena eskuratu zuen. 1916ko ekainaren 27tik uztailaren 4era zaurituak bonbardaketa bortitzen azpian artatzeaz eskertzeko saria eman zioten, 1916ko uztailaren 16an. Horrela dio ukan zuen aipamenak:

«*Désigné quelques jours pour passer dans une ambulance à l'arrière a demandé l'annulation de cette mutation en faisant valoir qu'il ne voulait pas quitter son régiment à la veille du danger*»⁵⁹⁰.

Eskualduna-ko artikuluak irakurriz, ez da beti argi gelditzen ea gerla tokian egon zen denbora guztian ala ez. Artxibo militarrei so eginez segurta daiteke, gerla hasi zenetik bururatu arte, sendagile gisa ibili zela batetik bestera. Ibilbide hori ongi marraztu daiteke, baina bereziki, haren inplikazioagatik saria eskuratu zuela ikusiz, ageri da Etxeparek, beste anitzen gisan, lana seriooki egin zuela gerla hartan.

▪ Gerlatik landa ere idazle

Gerlatik itzuli eta zenbait urtera, 1923an, mintzaldi bat egin zuen Alduden, «Alduden, gerlako orhoitmenaren aitzinetik». Feltzer argitaletxearekin argitaratu zuen urte hartan, 8 orriko dokumentu batean. Urte berean *1923.eko Euskaltzaleen Biltzarra Baigorri*n 23 orriko testua argitaratu zuen, Feltzer-Lasserre argitaletxearekin. Hain zuzen, garai hartan Eskualzaleen Biltzarreko lehendakari izan zen, 1922tik 1926era. Garai berean *Gure Herria* hilabetekariko lehendakariorde izan zen, eta baita euskaltzain urgazle ere.

Bitarte horretan guztian artikulua idazten jarraitu zuen, *Eskualduna*-n eta *Gure Herria*-n bereziki. Baina, egiazki, 1925etik goiti hasi zen berriz seriooki idazten. Hain zuzen, gerlari ohiak – eta Etxepare oroz gainetik – ez omen ziren biziki ongi moldatzen ordu arteko zuzendari zen Blaise Adémarekin. Etxepare berriz hasi zen gogotik idazten, zuzendari kargua Jean Saint-Pierrek hartu zuelarik⁵⁹¹. Aldudeko eta inguruko berriak idazten zituen, baina baita artikulua orokorrak ere, bai medikuntzaz, bai euskal gaiez, bai politikaz edota ekonomiaz, 1931 arte⁵⁹².

1931n bere bigarren liburua idatzi zuen, *Beribilez*. Liburua ez zen artikulua bilduma bat, *Buruxkak* bezala. Hego Euskal Herrian gaindi egun bakarrean egin zuen itzuli baten kronika idatzi zuen, 112 orrialdetan, Lasserre argitaletxeak argitaraturik. Bidaia kronikari, haur denborako oroitzapenak eta hainbat gogoeta gehiturik osatu zuen liburua.

Zenbait hamarkada geroago, Piarres Xarritonek Etxepareren testu guztiak, edo ia guztiak, lau liburukitan argitaratu zituen. Liburu horietan, testuak kronologikoki sailkatuak

⁵⁹⁰ Archives départementales des Pyrénées-Atlantiques, série R (1 R 672)

⁵⁹¹ Charriton, *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak. IV. Kazetaritza (B) (1916-1935)*.

⁵⁹² Borda, «Le journal «Eskualduna» et la guerre de 1914-1918», 27.

dira. Kazetaritza artikulu anitz aurki daiteke, baita medikuntzari buruzkoak eta abar. Halaber, *Buruxkak* eta *Beribilez* liburuetako testuak ere bilduak dira.

Anitz idatzi da Jean Etxeparez. Haren obra anitz landu da. Hau ez da xehetasun horietan guztietan sartzeko lekua, lan hori egina dela kontuan harturik. Baina Jean Etxepareren gerla denborako biziak gauza gutxi ikertu denez, garai hartaz interesatuko gara lan honetan, idatzi zituen artikuluen bidez.

d) Jules Moulier *Oxobi*

Jean Etxepareekin batera, *Eskualduna*-ren belaunaldi horretatik euskal literaturaren historian ezagunena bihurtu dena izan zen *Oxobi*, sortzez Jules Moulier. *Oxobi* bereziki bere alegiek egin zuten ezagun. Baina Gerla Handia ere ezagutu eta bizi izan zuen, eta gerla hartaz idatzi ere bai, *Eskualduna* astekarian. Bertso franko utzi zuen, eta izenpetu gabeko berri anitz ere idatzi bide zuen. Horrez gain, gerlako lekutatik zenbait kronika ere igorri zituen, 1917tik goiti.

Jules Moulier 1888an sortu zen, apirilaren 7an, Bidarrain. Jean Moulier aita, kanboarra, guarda zen. Marie Iribarne, ama, itsasuarra zuen. Aitaren ofizioaren ondorioz, haur denboran herriz herri ibili zen, Baigorriko Bastida auzoko *Oxobi* etxera bizitzera joan ziren arte. Etxearen izenetik hartu zuen ezizena⁵⁹³. Beste hainbatek bezala, apaiz egiteko gogoia agertu zuen, eta Larresoroko apaiz eskola ttipira joan zen ikasketen egitera. Geroago Maulen jarraitu zituen ikasketak, eta azkenik Biarnoko Nay herrian, Frantziako gobernua Larresoroko eskolaz jabetu ondoan⁵⁹⁴.

Piarres Xarritonen arabera, Larresoroko eta Nayeko egonaldiak garrantzia handia izan zuten *Oxobi*-k euskararen alde izan zuen atxikimenduan:

«Urte haietan, alabainan, Larresoron bazebilen euskaltzale saldo ederra : Arnaud Abbadie buruzagia bera lehenik eta gero Manex Hiriart-Urruti, Jean Blaise Adéma, Jean Barbier eta beste zenbait irakasle. Ikasleen artean, berriz, bera baino zahartxeago Jean Elissalde eta Jean Saint-Pierre, baina adin bereko Louis Dassance uztariztarra»⁵⁹⁵.

Baina Frantziako Gobernuak euskararengan zuen jarrerak ere izan zuen eragina, Xarritonen arabera:

«1903-1905etako urte haietan beretan, hain zuzen, ikusi zuen bidarraitar gazteak, nola Frantziako gobernua jazartzen zitzaion euskaldunen mintzairari, Pabeko prefetak zigortzen zituenaz geroz

⁵⁹³ Joxemiel Bidador, «Jules Moulier *Oxobi*, alegigile eta olerkari apartaz», *Euskaldunon Egunkaria*, 2000ko abenduaren 29a, Sarean: armiarma.com.

⁵⁹⁴ Piarres Xarriton, *Jules Moulier Oxobi* (Eusko Jaurlaritza, 1990).

⁵⁹⁵ Ibid.

Bidarraiko bi apezak, eta beste franko, ez zietelako beren herrietako haurrei «katixima» euskararen orde frantsesez eman nahi»⁵⁹⁶.

Oxobi-ren jarrera euskaltzale hori ondotik idatzi zituen testu eta gutunetan maiz ageritzen, baita gerla denboran idatzitako artikuluetan ere.

Ikasten ari zela idazten zituen koplak eta bertsoak. Manex Hiriart-Urrutik maiz argitaratu zizkion *Eskualdun Ona* astekarian eta gero *Eskualduna* astekarian⁵⁹⁷. Geroago, 1912an apaiztu zenean eta Hiriburuko bikario izendatu zutenean, Hiriart-Urrutik *Eskualduna* astekaria egiteko laguntza galdegin zion, eta honek «laguntza baliosa» eskaini zion⁵⁹⁸. 1915ean, Hiriart-Urruti hil zenean, *Oxobi*-k hartu zuen astekariaren zuzendari ardura, baina zuzendari kargurik gabe. Hark kudeatu zuen astekaria, 1918an Blaise Adéma zuzendari izendatu artean⁵⁹⁹.

Jules Moulier *Oxobi* gerlara joateko adinean zen, 1914an. Baina ez zen joan, etxean gelditu zen, osagarri ahula zuelako⁶⁰⁰. Horren ondorioz, Euskal Herritik segitu ahal izan zuen *Eskualduna* astekariaren ontzen, eta astekariak bazuen haren beharra, idazle gazteak gerla tokian baitziren eta Hiriart-Urruti handik laster hil baitzen. Xarritonek dioenaren gisan, *Oxobi*-k kazetari eta idazkari lanak egin zituen, baina isilean, artikulua ez baitzituen izenpetzen, bertsoak salbu.

▪ Gerla denboran

Egia da 1914ko mobilizazioa izan zelarik Euskal Herrian gelditu zela, baina orain arte *Oxobi*-ren biografiak idatzi dituztenek ziotenaren kontra, 1917an *Oxobi*-ren lumatik gerlako tokietatik idatzi artikuluek aditzera ematen dute garai batez Euskal Herritik Frantzia iparraldera joan zela, eta gerlaren berri eman zuela. *Eskualduna* astekariko gerla garaiko zenbaki guztiak irakurriz oharu gara maiz idatzi zuela gerla tokitik. «Gerlaren berri» sailean, *Oxobi*-ren artikulua bat agertu zen 1917ko uztailaren 27an, sail hartan – eta gerla bururatu arte, erregularri igorri zituen berriak. *Oxobi*-k lekuko zuzen gisa idatzi zituen testuak ziren ala norbaitengandik eskuratu lekukotasunetatik idatzi testuak? Piarres Lafittek *Oxobi* hil zeneko berria *Herria* astekarian eman zueneko artikuluan agertzen da lehen duda: «Gerlatik lekora, nahiz Moulier jaun apheza lekuaren gainean izan zen mobilizatua, salbu

⁵⁹⁶ Ibid.

⁵⁹⁷ Piarres Lafitte, «Oxobi hil zaiku», *Herria*, 1958ko otsailaren 13a.

⁵⁹⁸ Villasante, *Historia de la literatura vasca*, 308.

⁵⁹⁹ Lafitte, «Oxobi hil zaiku».

⁶⁰⁰ Xarriton, *Jules Moulier Oxobi*.

ephe labur batez [...]»⁶⁰¹. Zein izan zen epe labur hori? Erantzuna Paueko artxiboan aurkitu dugu.

1910ean zerbitzu militarretik libre gelditu zen, «ahulezia handiengatik». 1914ko mobilizazioa izan zenean, erreseban atxiki zuten, 49. Infanteria Erregimentuan. Baina 1917an beste mobilizazio bat izan zen, 1914koa baino zorrotzagoa, hain zuzen 1914an gerlatik libratu zirenen osagarri egoera berraztertze eta haietarik batzuk gerlara deitzeko. 1917ko otsailaren 20ko legea zen. Horren berri eman zuten Jean Etxeparek⁶⁰² eta Jean Saint-Pierrek⁶⁰³. Jules Moulier *Oxobi* 1917ko apirilaren 3an armadara deitu zuten, eta 1917ko maiatzaren 22an heldu zen bere erregimentura. Urte bereko uztailaren 7an laguntzaile gisa sailkatu zuten, sabeleko problemengatik. 1917ko urriaren 16tik landa, 18. trenaren eskadroian ezarri zuten. 1918ko azaroaren 2an, 8. trenera igorri zuten; handik egun batzuetara, azaroaren 20an, 20. trenera pasatu zen, eta 1919ko uztailaren 21 arte ez zen Euskal Herrira itzuli⁶⁰⁴.

Erregistro militarrean ageri diren informazio horiek erakustera ematen dute, orain arte uste zenaren kontra, *Oxobi* gerla tokian izan zela. Gainera, datek bat egiten dute. 1917ko uztailetik goiti agertu ziren *Oxobi*-k gerla lekutik igorri testuak *Eskualduna*-n, eta erregistro militarren arabera ere garai berean joan zen gerlako lekuetara. Horregatik, *Oxobi*-ren testuak ere aztertuko ditugu, Jean Saint-Pierre, Jean Elizalde *Zerbitzari* eta Jean Etxepareren testuenak bezala, hark ere igorri baitzituen gerlako berriak, nahiz eta besteek baino anitzez gutxiago izan, denbora gutxiago pasatu zuenaz geroz.

▪ Gure Herria

Gerlatik itzuli zenean eta Hiriburuko bikario kargura itzuli zenean ere jarraitu zuen idazle lanetan, *Eskualduna* astekarian eta, 1921etik landa, *Gure Herria* aldizkarian. Jean Saint-Pierre, Jean Elizalde, Jean Barbier eta horiekin batera, aldizkariaren sorreran parte hartu zuen, eta anitz idatzi zuen, bai artikuluak, bai olerkiak⁶⁰⁵. Garai bertsuan, eta aipatutako idazle horiekin batean, Bilboko *Enzkadi* egunkarirako Ipar Euskal Herriko berriak igorri zituen 1919 eta 1922 bitartean⁶⁰⁶. 1925ean, Jean Saint-Pierrek *Eskualduna* astekariaren zuzendaritza hartu zuenean, *Oxobi*-k sekulan baino gehiago idatzi zuen astekari hartan⁶⁰⁷. Funtsean,

⁶⁰¹ Lafitte, «Oxobi hil zaiku».

⁶⁰² Jean Etxepare, «Aizka», *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 2a.

⁶⁰³ Jean Saint-Pierre, «Zer laguntza», *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 13a.

⁶⁰⁴ Archives départementales des Pyrénées Atlantiques, série R (1 R 800)

⁶⁰⁵ Lafitte, «Oxobi hil zaiku».

⁶⁰⁶ Xarriton, *Jules Moulier Oxobi*.

⁶⁰⁷ Lafitte, «Oxobi hil zaiku».

Herria astekaria sortu zenean ere, sortze prozesuan parte hartu zuen eta hil arte sostengatu eta lagundu zuela idatzi zuen Lafittek.

1928an Donostiriko erretore egin zen, eta han egon zen hamahiru urtez. Ondotik Arrangoitzeko erretore izan zen, beste hamalau urtez. Egonaldi hartan lagun anitzi harrera egiten zion; besteak beste Eskualtzaleen Biltzarraren bilerak hartzen zituen bere egoitzan. Lafittek euskaltzale sutsua zela idatzi zuen:

«Harek zuen, harek, maite Eskual-herria! Eta Eskualzaleen Biltzarrak ez bide du izan lagun jarraikiagorik! Jaz ere Heletan zen, herrestan, funditua, bainan hor izanki, azken hatsa arte gudian amor ez egin nahiz!»⁶⁰⁸.

Oxobi-k, gerlako testuetan, euskarari eta Euskal Herriari buruz erakutsi zuen jarrera gero aztertuko dugu, baina Lafitteren lekukotasun horrek sinesgarritasuna baduela baieztatu dezakegu, xehetasunetan gehiago sartu aitzin ere.

Erretore gisako lanak 1955ean utzi zituen, osagarri arazoak zirela medio. Hiriburuko apaizen zahar etxera joan zen. 1958ko otsailaren 7an hil zen han berean. Ibilbide horretan zehar, ez zuen astekarietan eta aldizkarietan idatzi bakarrik; lau liburu argitaratu zituen. 1913an gazte denboran idatzi olerkiak eta bertsoak argitaratu zituen *Boz-oibu! Deiadar! Negar!* liburuan. Hamahiru urte iragan ziren bigarren liburua idatzi arte, baina 1926an agertu zen liburu hura izan zen *Oxobi*-ren sorkuntzaren ikur nagusia: *Alegiak*. 1935ean erlijio kutsuko olerkiak bildu zituen *Heiatik zerura* liburuan. Azkenik, 1944an, *Haur elbe haurrentzat* argitaratu zuen⁶⁰⁹.

e) Pierre Duhour

Lehen Gerla Mundialean *Eskualduna*-n idatzi zuten idazleak aipatzean, ezin da Pierre Duhour aipatu gabe utzi. Hain zuzen, gerlaren harira hasi zen *Eskualduna*-n idazten, eta geroztik artikulu anitz badu idatzirik. Beskoitzen (Lapurdi) sortu zen 1880eko ekainaren 20an, eta Hazparnen (Lapurdi) hil 1968ko urtarrilaren 18an, 87 urtetan.

Pierre Duhour euskaltzain urgazle eta idazle emankorra izan bazen ere, haren izena ez da biziki ezaguna euskal idazleen artean. Aipamen guti ukan du orain arte. Joxemiel Bidadorrek 1999ko otsailaren 19an *Euskaldunon Egunkaria*-n idatzi zuen artikulua⁶¹⁰ eta Jamattitt Dirassar *Herria* astekariko zuzendariak 2008ko urriaren 11n Hazparnen eskaini

⁶⁰⁸ Ibid.

⁶⁰⁹ Bidador, «Jules Moulier *Oxobi*, alegigile eta olerkari apartaz».

⁶¹⁰ Joxemiel Bidador, «Pierre Duhour beskoiztarraren lanak Gure Herria-n», *Euskaldunon Egunkaria*, 1999ko otsailaren 19a, Sarean: armiarma.com.

zuen mintzaldia izan dira mamitsuenak. Duhourren biografia idatzi zuen Piarres Lafittek, aldiz, *Herria* astekariaren 1968ko urtarrilaren 25eko zenbakian⁶¹¹. *Herria* astekariak lehen orri osoa eskaini zion Pierre Duhourri, hura hil eta ondoko zenbakian. Alabaina, Pierre Duhourrek *Eskualduna* eta *Herria* astekarietan anitz idatzi zuen.

Ondoko lerroetako biografia honentzat, Piarres Lafittek *Herria*-ren zenbaki hartan idatzi zuen artikulua eta zenbaki berean Jean Hiriart-Urrutik⁶¹² idatzi zuena izanen dira iturri nagusiak.

Pierre Duhour ez zen anitz ibili eskolan, eta gazterik ibili zen mutil, Bardozen. Hemezortzi urte bete arte Hazparnen bizi izan zen (nahiz eta Beskoitzen sortua izan, hazpandarra zen eta haurtzaroa Hazparnen iragan zuen), eta 1908an, hemezortzi urterekin, Euskal Herria utzi eta marinel gisa ibili zen, itsasoan gaindi. Baina, nahiz eta Euskal Herritik kanpo egon, «bihotzez bethi eskualdun garbi eta fidel egona» zela idatzi zion *Eskualduna*-ko zuzendariari, 1916ko irailaren 12an Sidi-Abdallatik (Tunisia) igorri gutunean⁶¹³. Astekari «estimagarri» hura astero irakurtzen zuela idatzi zuen eta berrien igortzeko prest zegoela zehaztu. Orduan hasi zen, beraz, *Eskualduna*-n erregularoki idazten.

Pierre Duhourrek berak kontatzen zuen anekdota baten berri idatzi zuen Jean Hiriart-Urrutik. Anekdota hura izan bide zen Duhour gerlako lekutik berriak igortzera bultzatu zuena⁶¹⁴. Horrela kontatu zuen Hiriart-Urrutik:

«Egun batez jin zen permisionez Hazparnerat. Mayitea deitu ostatu batean bazkariten ari zelarik, Hazparneko jujea, Kanboar bat, hasi zitzaion kitzikian gerla hortan mariñelek ez zutela deus egiten. Ez ote deus egiten? Lehenik jujeari berari eman zion Piarresek arrapostu; eta gero, bertzek ere on zutela jakitea, deliberatu zuen *Eskualduna* kasetari igorriko ziola artikulua bat».

Marinel gisa idatzi zuen lehen kronika 1916ko urriaren 27an argitaratu zen. Artikulu hartan azaldu zuen bere mina: jendeak marinelen lanaren berri ez zekiela-eta, horren jakinaraztea eta esplikatzea beharrezkoa zela idatzi zuen, eta xehetasunen ematen hasi zen.

Orotara hamabost urtez izan zen marinel, eta herrialde frankotan ibili zen. 1923an itzuli zen Euskal Herrira, beraz. Ofizio anitzetan lan egin zuen, eta azken urteetan gizarte

⁶¹¹ Piarres Lafitte, «Pierre Duhour itzali zaiku», *Herria*, 1968ko urtarrilaren 25a.

⁶¹² Jean Hiriart-Urruti (1927-1990), apaiz, idazle, euskaltzain eta *Herria*-ko berrikerari eta zuzendari izan zen. Ez da nahasi behar haren aitaren osaba Manex Hiriart-Urrutirekin (1859-1915).

⁶¹³ Artikulu hura izan zen Pierre Duhourrek *Eskualduna*-ra igorri zuen lehena. 1916ko irailaren 22an argitaratu zuten, eta 1968ko urtarrilaren 25eko *Herria*-ko artikulua batean ere («Nola hasi zen Pierre Duhour izkiriartzen») berriz hartu zuen Jean Hiriart-Urrutik. Lehenbiziko artikulua hura «Pierre Dufour, quartier-maître infirmier» gisa izenpetua zen, baina Hiriart-Urrutik, logika osoz, ondorioztatu zuen artikulua haren idazlea Pierre Duhour zela. Alabaina, idazleak bere adinaren, herriaren eta ibilbidearen berri ematen zuen, eta ondoko artikulua ere leku hartatik idatzi zituen, Pierre Duhour marinela.

⁶¹⁴ Jean Hiriart-Urruty, «Nola hasi zen Pierre Duhour izkiriartzen», *Herria*, 1968ko urtarrilaren 25a.

segurantzako bulego bat atxiki zuen Hazparnen. Piarres Lafittek⁶¹⁵ «azpimarratu zuen Duhour «fededun funtsezkoa, argitua [eta] bere lanari jarraikia» zela. Engaiamendu giristino hori hainbat sailetan erakutsi zuen. Batetik, parrokiak parrokia ibili zen, Heren Ordena sustatzeko, Aita Euseberekin batera. Halaber, Edouard Herriot Frantziako Kontseiluko presidente antiklerikalak 1924an Vatikanoarekin harremanak moztu eta «fraileak Frantziatik berriz kasatu» nahi izan zituenean, Pierre Duhour herriz herri ibili zen xede horren kontra. Eskola giristinoen alde anitz mugitu zela dio Lafittek. Bestalde, zenbait aldizkari giristinotan idatzi zuen, hala nola *Le Courrier Agricole*, *La Liberté du Sud-Ouest*, *Le Courrier français* eta *Basque-Eclair* aldizkarietan.

Baina, oroz gainetik, *Eskualduna* eta *Herria* astekarietan idatzi zuen, orotara berrogeita hamar bat urtez. Gai anitzez idazten zuen, Piarres Lafitteren hitzek ezin polikiago aipatzen duten bezala:

«Mihia ez bezala, luma kraxturatik zaukan, nehork ez baitaki papera noren gana hegaldatuko den. Bainan Pierre Duhour-en lumak ez zuen erdoiltzeko peririk: zer nahi ekeietarat lerratzerat zagon: diru, lan, moda, ixtripu, herri arrotzetako berri, eskola, ezkontza, enterramendu, biltzar, merkatu, ikusgarri, josteta,... puntaren puntan katixima izpiño bat eskapatzen zitzaioa».

Bertzerik ere idatzi zuen, *Gure Herria* hilabetekarian eta *Almanaka*, *San Frantses* eta *Etxea* agerkarietan ere erregulariki izkiriitzen baitzuen. *Gure Herria*-n idatzi zituen lehen artikulua pilotaz izan ziren. 1930ean eta 1931n Erromara egin zuen beila baten kronikak argitaratu zituen hilabetekari hartan, eta 1931n, kronika haiek guztiak *Erromako itzulua* liburuan bildu zituen. Motibazio kristauak zituen bidaia hartan, marinel gisa ezagutu zituen garaia berriz ikusteko parada izan zuen, eta bere kroniketan aipatzen zuen leku haiek ez zituela arrotzak.

f) A.I.

Arreta berezia jarri dugu idazle misterioitsu batean. Salonikatik eta Serbiatik dozena bat kronika igorri zituen ezezagun bat nor ote zen jakin nahi izan dugu. Inizialekin, edo inisialak izan zitezkeen bi hizkirekin izenpetu zituen bere kronikak, «Serbiatik letera» edota «Salonikatik letera» izenburupean, beti. Izenpedura A.I. zen. 1915eko abenduaren 31tik 1916ko irailaren 22 arte agertu ziren haren artikulua. Geroztik, deus ere ez. Nehork ez du argitu nor gordetzen zen inisial horien gibelean. Zorionez, haren artikuluetan hainbat argibide bazeuden, A.I.ren gibelean nor zegoen aurkitzen laguntzeko.

⁶¹⁵ Lafitte, «Pierre Duhour itzali zaiku».

Alde batetik, zuberotarra eta laboraria zela argitzen zuen. Bestetik haren ibilbidez hainbat xehetasun ematen zuen, hala nola lehenik Belgikara heldu zela, gero ia Parisera gibelatu zela, gero berriz oinez, itsas bazterrera. Handik landa, akiduraren ondorioz, 35 egun iragan zituen ospitale batean, eta gero Bordeleko «depotian» bost egun. Bordeletik Marseillara igorri zuten, eta Marseillan itsasontziz abiatu zen Serbiara buruz. Horra zer xehetasun eman zuen lehen kronikan:

Jauna, nourk erranen zian ni uduri laborari lepho mehiak behar ziala haimbeste bazter ikhousi. Zoure ganik joan eta bertanchka heltu nintzan Belgikara, gero abantchu Parisera, gero arrount hantche harat Frantziako azken azken itsas hegiala, ezpeitira segur arte hortan ene zankhoak hanitch pausatu. Hartze beinian hats hartzia eta arauz ezagutu beitzien baniala beharra igorri nindizien ospitale batetara. Hogeita hamabost egunez han igan dut dembora hounik éclopés lagunen artian. Gero ouste etcherat eta Bordaleko depotilat. Depotian eniz luzaz debeatu ezi bostgerren egunian bildu gutie pharrasta bat eta gai berian treñan sartu destination inconnue. Bidian aisa jakin gunian nourako geiak ginen.

Heltzen gira Marseillako bazterrilat...⁶¹⁶

Hirugarren kronikan aipatu zuen⁶¹⁷, hala ere, lubakietako lohia ezagutu zuela. Horrek erran nahi du lehenbiziko kronikan eman zuen ibilbidea biziki laburbildua zela, eta Parisetik ia itsasoraino joan zela erranik ere, garai bat lubakietan iragan zuela.

Zorigaitzez, ez zuen zehazten datarik, eta itsas bazterrera joan zirela idaztean ere, ez zuen zehaztu zein eskualdetara. Hurrengo kronikan⁶¹⁸ argitu zuen hilabetearen 20an sartu zirela itsasontzian eta biharamunean atera zirela portutik. Hamar egun iragan zituen Marseillan. Ondorioz, hilabetearen 10ean heldu zen hiri hartara; beraz, hilabetearen 9an-edo atera bide zen Bordeletik. Horrek erran nahi luke Bordelera hilabetearen 4an-edo heldu zela, eta ospitalean sartu zutela azken-aitzineko hilabetearen 29an edo 30ean. Marseillatik abiatu ondoan, hiru egunen buruan Maltara heldu ziren, erran nahi baita hilabetearen 23 arratsean edo 24 goizean. Han egun bat iragan ondoan, berriz abiatu ziren Grezia aldera, hala nola hilabetearen 25ean. Ondoko etapak ez zituen egunez egun zehaztu, baina lehenik Pireoko portuan geldialdi bat egin zuten, gero Atenasera joan ziren, gero berriz ere Pireora itzuli, handik Mudrosko portura. Han arratsalde batez egon ondoan, Salonikara abiatu ziren⁶¹⁹.

⁶¹⁶ A.I., «Serbiatik letera», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 31a.

⁶¹⁷ A.I., «Zerbiatik letera», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 28a.

⁶¹⁸ A.I., «Serbiatik letera», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 7a.

⁶¹⁹ A.I., «Zerbiatik letera». 1916/1/28.

Grezian eta Serbian gaindi egin ibilbideez ez zuen zehaztasun handirik eman. Urri-azaro aldean Varder ibaitik eta Uskubek hiritik hurbil zirela argitu zuen⁶²⁰. Abenduaren 8an Greziara bidean, zubi bat bota zutela kontatu zuen⁶²¹. Geroago, baina data zehaztu gabe, Guergeli herria zeharkatu zutela eta hango geltokia eta herria sutan utzi zituztela kontatu zuen. Handik Salonika aldera jo zuten⁶²².

Horiek dira lekuei buruz eman zituen xehetasunak. Ez da anitz, baina ez da gutxi ere. Pista batzuk dira, bilatzeko hainbat hari eskaintzen dituztenak. Horrez gain, lehenbiziko kronikan aipatu zuen, Marseillako itsasontzian bera eta beste bi euskaldun baizik ez zirela: herri ttipi bateko erretore bat eta Afrikan edo Madagaskarren ibili zen misionest bat. Izenik ez zuen eman. Baina hori ere beste hari mutur bat da, bilaketa egiteko.

Pirinio Atlantikoetako Departamendu Artxibora joan gara, Pauera, eta A hizkiarekin hasten zuten izena eta I hizkiarekin hasten zuten deitura zuten eta gerla egiteko adinean ziren euskaldun guztien zerrenda osatu dugu. 75 laguneko zerrenda osatu dugu. Bakoitzaren erregistro militarra kontsultatu dugu. Zuberoan sortuak zirenen kasuan, erregistro hori hurbiletik irakurri dugu, haien ibilbidea ikusteko. Bakarra aurkitu dugu Serbia aldean ibili zena: Augustin Ithurbide⁶²³. Baina hau ere ez da *Eskualduna*-n idatzi zuen hura, hain zuzen, 1914ko irailaren 7an heldu baitzen gerla lekura; ordurako Charleroiko gudua bururatu zen, eta astekarian idatzi zuenak dio gudu hartan ere parte hartu zuela. Augustin Ithurbide, gainera, ez zen borroketan ibili, baizik eta administrazio militarreko langileen atalean.

Beste aukera da, A.I. inizialen bigarren hizkia etxe izenari lotua izatea, baina kasu honetan, anitzez zailagoa eta luzeagoa litzateke identifikatzea. Zer gerta ere, Serbia aldean hildako zuberotarren berririk bazen begiratu dugu *Eskualduna* astekarian. Arnaud Mendicouague izeneko zalgiztar bat hil zela idatzi zuten, 1917ko uztailaren 27an⁶²⁴. Hain zuzen, Arnaud Mendicouague Serbian hil zen, Margareroko guduan, artikulua aipatzen duen bezala. Hori berretsi dugu Frantziako Lurreko Armadaren Historia Zerbitzuak sarean daukan datu basean (mémoire des hommes): 1917ko martxoaren 30ean hil zen, Serbian. Nahiz eta *Eskualduna*-ko artikulua zehaztu zuen giristino familia handikoa zela, eta Uharte kalonjearen ahaidea zela, ia baztertu dugu A.I. eta pertsona hau berak izatea. Hain zuzen,

⁶²⁰ A.I., «Zalonikatik letera II», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 3a.

⁶²¹ A.I., «Zalonikatik letera», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 10a.

⁶²² A.I., «Zalonikatik letera», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 24a.

⁶²³ Augustin Ithurbideren matrikula erregistroa, Pirinio Atlantikoetako Departamendu Artxiboan (Archives Départementales des Pyrénées-Atlantiques): série R (1 R 696)

⁶²⁴ «Zalgize», *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 27a.

alde batetik, ez zuten aipatu ere egin *Eskualduna*-n idazten zuela. Bestetik, Paueko artxiboan haren erregistro matrikula⁶²⁵ ikusi ondoan, ondorioztatu dugu nekez izan zitekeela pertsona bera. Hain zuzen, A.I., zuzenean joan zen Marseillatik Salonikara, baina Arnaud Mendicouague Ekialdeko Armadan sartu zen 1915eko martxoan. Orduan, armada hura Dardaneloetara joan zen, 1915eko urrian Salonikara joan ziren, baina eskualde hartatik. Horrez gain, *Eskualduna*-k beste artikulu batean⁶²⁶, laburki aipatu zuen Zalgizeko «Allande Uharteko semea» Serbian hil zela. Ondorioz, izatekotan, honen inizialak A.M. edo A.U. izanen ziren. Amaren deitura Goytino zen, beraz, alde horretatik ere ez dugu biderik A.I. Arnaud Mendicouague zela errateko.

Beste aukera bat izanen zen Marseillatik atera ziren itsasontzien zerrenda lortzea eta itsasontzi horietako erregistroak ikustea, bidaiarien zerrendan begiratzeko. Marseillako Portuko zerbitzuetan, Defentsaren Historia Zerbitzuko Touloneko artxiboan, Bouches du Rhône-eko Departamendu Artxiboan eta Marseillako Merkataritza Ganberako artxibo zerbitzuan galdetu dugu ea halako artxiborik badagoen, eta denek ezezko erantzuna eman dute. Izatekotan, Toulonen egon zitezkeen, baina 1912tik 1920 arteko dokumentuak desagertuak edo suntsituak direla erantzun digute.

Gelditzen zen beste bide bat zen A.I.-k berak aipatzen zuen Bordeleko depotera heldu ziren soldaduen zerrenda lortzea, hala nola noiz nor sartu zen eta noiz nor atera. Hain zuzen, hilabete batez ospitalean egon ondoan (arrastorik ere ez zuen utzi nongo ospitalean egon zen, beraz hortik ezinezkoa da zerbait lortzea), Bordelera igorri zuten bost egunentzat. Gironde departamenduko artxiboan aurkitu dugu Bordelen zaurituen eta erien berriz indartzeko guneen zerrenda⁶²⁷, eta batek badauka “dépôt” izena: “dépôt de la mendicité”. Haatik, zauritu eta erien zerrenda bat ikustekotan, Bordeleko udal artxibora joan behar zen. Ez zegoen zerrendarik ospitaleka edo artatze zentroka. Zegoen bakarra 1915ean zauriturik edo eri hartuak izan zirenean zen⁶²⁸. Zerrenda alfabetikoki ordenatua zen eta ez egutegi baten arabera. Hots: zauritu eta eri zeuden bakoitzarekin karta joko baten heineko fitxa lodi batzuk dauzkate. Izen-abizenak ageri dira (izena ez beti), erregimentua zein den eta noiz sartu zituzten ospitalean, zergatik eta – batzuetan – noiz arte. Informazio horiek irregularki ematen zituzten osoki, eta E, F, eta N-tik gorako hizki guztiekin hasten ziren abizenak zituztenen fitxak falta dira.

⁶²⁵ Archives départementales des Pyrénées-Atlantiques: série R (1 R 852)

⁶²⁶ «Zalgize», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.

⁶²⁷ Archives Départementales de la Gironde. 2 R 215 kartoia.

⁶²⁸ Archives Municipales de Bordeaux. 3161 H 2 kartoia.

Jakinez une batez ospitalean sartu zutela, pentsa liteke haren ospitaleratzearen berri eman ziotela familiari. Bordelen bizi ziren familiei igorritako gutunen kopiak badaude Bordeleko Artxiboan⁶²⁹. Horrelakorik balego Zuberoako herrietan, lagungarri izanen lekiguke. Baina Pirinio Atlantikoetako Artxiboko aurkibidearen arabera, ez dago halakorik.

Beraz, oraingoz, ezin izan dugu idazle hori identifikatu. Ez dugu horretan itsutu nahi izan ere, tesi honetan bigarren mailako garrantzia duelako. Gustatuko zitzaigun, gerla lekutik erregulariki idatzi zuten horiek guztiak nor ziren zehaztea, eta orain arte identifikatu gabeko berriemaile zuberotar horren deskubritzea, baina ezinezkoa izan da. Lehentasuna ez zenez hori, zer ahalegin egin dugun eta zergatik ez dugun lortu identifikatzea azaldu ondoan, gainerako ikerlanarekin segitu dugu aitzina.

3. Gerla garaiko editorialgileak

Lehen aipatu bezala, gerla lehertu zenean, Manex Hiriart-Urruti zen zuzendari eta hark idazten zuen artikulu nagusia. Hala ere, gerlak iraun zuen denbora gehienez ez zuen hark idatzi, 1915eko azaroan hil baitzen. Baina hura izan zen astekariari ospe handiena eman ziona eta artikuluei kolore gehien eman ziena. Hura hil ondoko editorialak nork idatziak ziren ez zen argi, baina ondoko orrietan azalduko dugu zergatik uste dugun Blaise Adémarenak zirela, nahiz eta zuzendari kargua 1918an baizik ez zuen hartu.

a) Manex Hiriart-Urruti

Gerla Handiaren garaian *Eskualduna* astekarian idatzi zuten euskal idazleak aipatzean, pisu handiko gizon bat ezin da aipatu gabe utzi. *Eskualduna* astekaria bera aurkezterakoan, ezin dugu ahantzi idazle horrek ukan zuen eragina. Manex Hiriart-Urruti kalonjeaz dugu solasa. Hain zuzen, *Eskualduna* astekaria gehienetan Hiriart-Urrutirekin lotzeko joera dago, eta beste norabidean ere gauza bera gertatzen da, hala nola Manex Hiriart-Urruti *Eskualduna* astekariarekin lotzen da. Hiriart-Urruti izan zen astekari horren zuzendari ospetsuena, hainbat arrazoiengatik: talde oso bat muntatu eta dinamizatu zuelako eta, oroz gainetik, manera sutsuman idazten zuelako eta testu haiek gaur eguneraino iritsi baitira, hainbat ikerlarik osatu bildumei esker.

Lehen Mundu Gerraz ere idatzi zuen Hiriart-Urrutik. Horregatik, haren testuak ere aztertuko ditugulako, beharrezkoa da idazle honen aurkezpena egitea, nahiz eta lehen ere

⁶²⁹ Archives Municipales de Bordeaux. 3160 H 2 kartoia.

zerbait aipatu dugun. Dena den, aipatzen ditugun idazle guztien artean ez zen Hiriart-Urruti izan gerlaz gehien idatzi zuena. Ez zezakeen bestela egin, gerla lehertu eta urte baten buruan hil baitzen, 1915eko azaroaren 4an. Baina hil aitzineko testuetan bada, segur, zer aztertua.

Ez da hori, hala ere, Hiriart-Urrutiren biografia egiteko arrazoi bakarra: gerla denboran eta handik landa *Eskualduma* astekarian idatzi zuten idazle gehienen maisu izan zen, eta eragin handia izan zuen garai hartako idazle gazteen belaunaldiaren baitan, hala nola gerlako tokitik idatzi zuten Jean Saint-Pierre, Jean Etxepare eta Jean Elizalde *Zerbitzari*-rengan, baina baita ere *Eskualduma*-ko koordinatzaile lanak egin zituen eta geroago gerla tokira joan zen Jules Moulrier *Oxobi*-rengan, eta beste hainbatengan⁶³⁰. Halaber, Iñaki Caminok ere azpimarratu zuen Hiriart Urrutik orduko idazleengan «eragina» izan zuela, «batek baino gehiagok aitortu baitzuen Hazparneko apaizaren lanenganako eta idazteko moldeekiko sentitzen zuen mirespena»⁶³¹.

Ondoko lerroetan, Hiriart-Urrutiren bizia eta ibilbidea aztertzerakoan, hiru alde barnatuko ditugu: Hiriart-Urrutiren bizia eta lana bera, eta lan horren baitan gazteengan izan zuen eragina; *Eskualduma* astekariarekin izan zuen lotura; eta haren iritzi politikoak eta haien agertzea.

▪ Haurtzaroa eta irakasletza

Jean edo Manex Hiriart-Urruti 1859ko urtarrilaren 30ean sortu zen, Hazparnen, Hazketa auzoko Joanes-ederrarenea etxean. Patin Hiriart-Urrutiren eta Mari Althegiren semea zen. Ama Larresorokoa zuen. Haren familia zapatagintzatik eta, pixka bat, laborantzatik bizi zen. Hiriart-Urrutiri laborantza lanak gustatzen bazitzaizkion ere, nahiago izan zuen apaizteko bidea hautatu. Lehenbiziko eskolak Hazparneko fraideekin ukan zituen. Hamahiru urte zituela, 1872ko urrian, Larresoroko seminario ttipian sartu zen, ikasle gisa. Han, Diharce, gerora bikario nagusi izanen zena, ukan zuen irakasle. Ikasle ona zen, Piarres Lafitteren arabera, «ikasle hoberenetarik», urte guzietz sariak eta aipamenak eskuratzen baitzituen⁶³².

Bost urte geroago, Baionako seminario handira joateko adinean izan zelarik, Arnaud Abbadie (*Apezak Soldado* eta *Laborarier* liburuen egilea eta *Eskualduma*-ko idazlea) ukan zuen irakasle. Ikasketak bururaturik, 22 urtetan, apaiztu aitzineko urtean, Larresoroko seminariora itzuli zen, 1881ean, baina irakasle izateko. Han berriz ere Abbadierekin elkartu

⁶³⁰ Arbelbide, *Manex Hiriart Urruti*.

⁶³¹ Camino, «Hitzaurrea».

⁶³² Lafitte, «Sarrera».

zen, Larresoroko apaiz eskolako buruzagi baitzen garai hartan. Abbadiek aleman irakasle izatea eskatu zion, ordu arteko aleman irakasleak lana utzi zuenean. Hiriart-Urrutik hizkuntzetarako erraztasuna erakutsia zuen Baionako seminarioan zen bitartean, gaztelaniako sariak eskuratu baitzituen, eta Abbadie horretaz gogoratzen baitzen. Alemana ere irakatsi zuen beraz, Hiriart-Urrutik. Pentsatzeko da gerla lehertu ondoan, gerlaz eta Alemaniak idatzi zuenean, bazukeela Alemanian idazten zenaz eta erraten zenaz ohartzeko gaitasuna⁶³³. Halaber, erretorikako irakasle ere izan zen⁶³⁴; haren artikulua irakurri ohartzeko gara erretorikan maisua zela; ez da harrigarri, beraz, erretorika irakatsi zezan. 25 urtez egon zen Larresoron, irakasle gisa.

Hiriart-Urrutiren lana ez zen klaseak ematera mugatzen. Seminarioan lan berezia egin zuen antzerkia bultzatzeko, ikasle gazteekin. Horrela idatzi zuen Lafittek:

«Hain irakurle ona zenaz geroz, ez da harritu behar semenarioko teatrolari gazten apailatzea laket baitzitaion: asko urtez bere gain hartu zuen lan hori, bereziki ihate aintzineko astetan. apez-lagunek erraiten ohi zioten denbora galtzea zela eta bere burua alferretan akitzea. Harek ezetz. Ez zela josteta hoitan akitzerik. Eta bertzalde bide hoberena zela, bai gazten ezagutzeko, bai hekin adixkidetzeko, heien arimen onetan»⁶³⁵.

Hain segur ez bakarrik antzerki sail horren eraginez, baina Hiriart-Urrutik bere helburua erdietsi zuen nolazpait. Gazteekin halako harreman bat lortu zuen, bereziki zenbait ikaslerekin atxiki zuen harreman hori, haiek ikasketak bururatu eta ere. Jules Moulier *Oxobi*, Jean Saint-Pierre, Jean Elizalde *Zerbitzari* eta Jean Etxepare idaztera bultzatu zituen haiek ikasketak bururatu ondoan. Lau haietatik zaharrena zen Jean Etxepare, eta hura zen lehenik ukan zuen ikaslea, beraz, 1889tik goiti. 1895-96tik aitzina Jean Saint-Pierre eta Jean Elizalde ukan zituen, eta 1901etik aitzina Jules Moulier *Oxobi*. Lau horiek *Eskualduna*-n idazten ezarri zituen geroago, eta gerla lehertu zenean, bere ikasle ohi horiei – *Oxobi*-ri salbu, ez baitzen gerla tokira joan, hastapenean – gerlako tokitik artikulua igortzeko eskaera egin zien.

Idazle haiek beti eduki zuten beren maisuarenganako mirespen bat. Horren lekuko dira Hiriart-Urruti hil ondoan, *Eskualduna* astekarian, gerla tokitik idatzi zituzten artikulua. Baina harremanak ez ziren beti hain onak ere, bereziki Jean Etxepareren eta Hiriart-Urrutiren artean. Jon Casenavek bere tesian ikertu zuen Etxeparek idatzi *Buruxkak* liburua, eta han ageri da idatzi zituen zenbait artikuluk zer harrera hotza izan zuten *Eskualduna*-ko arduradunen partetik, hala nola Hiriart-Urrutiren partetik. Nahiz eta bi idazleak ez ziren

⁶³³ Lafitte, «Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) et les débuts du journalisme basque».

⁶³⁴ Lafitte, «Eskual astekarien ixtorioa».

⁶³⁵ Lafitte, «Sarrera».

elkarrekin beti ados, besteak beste laikotasunaren inguruan, elkarrenganako errespetu handia zuten. Nahiz eta ez zen haren ohiko joera, Hiriart-Urrutik onartu zuen Etxepareren testuak ez zentsuratzea edo aldatzea, Casenaveren arabera. Horrela esplikatu zuen haien arteko errespetua:

«Les deux écrivains s'estiment mutuellement mais ils éprouvent également une méfiance réciproque. J. Etxepare connaît la puissante personnalité de son ancien professeur et ce dernier apprécie les qualités du médecin non sans craindre son intelligence et son indépendance d'esprit»⁶³⁶.

▪ **Eskualduna-ko zuzendari**

Oraino Larresoroko seminarioko irakasle zela, *Eskualduna* astekarian idazten hasi zen, 32 urtetan. Beste idazleen gisan, ez zituen haren artikuluak izenpetzen, baina Piarres Lafittek identifikatu zituen eta «artikulu onak» zirela idatzi zuen⁶³⁷. Irakasle (eta berriemaile) gazte haren dohaina ikusiz, *Eskualduna* astekariko sortzaile Louis Etcheverryk haren atxikitzea erabaki zuen.

Astekariko erredaktore buru lanak egiten zituen garaian, Larresoroko irakasle lana utzi behar izan zuen, ez erredaktore buru lanak ez ziolako ahalik eskaintzen. 1906ko abenduaren 14an utzi zuen seminarioa, bere gogoaren kontra. Estatuaren eta Elizaren bereizte legearen ondorioz, Frantziako Gobernuak apaiz eskolak bereganatu zituen, eta apaizak Larresoroko eskolatik kanporatu zituen, ikasleekin batera. Handik Maulera joan zen, beraz, eta han hilabete pare bat iragan zuen. 1907ko otsailean Belokeko komentura joan zen⁶³⁸. Urte bereko abenduaren 10ean Gratien Adéma Baionako kalonjea hil zen. Hutsik gelditu zen kargua Hiriart-Urrutiri eman zioten, eta kalonje kargua eta *Eskualduna*-ko zuzendari kargua bete zituen, zortzi urteren buruan hil zen arte. Artetik errateko, azpimarratu behar da Adémak eta Hiriart-Urrutik bazutela lotura berezi bat, Adéma izan baitzen Hiriart-Urruti bataiatu zuen apaiza⁶³⁹.

Zortzi urte haietan zehar azkarki markatu zuen euskarazko astekaria. Garrantzia handia eman zion Ipar Euskal Herriko herrietako berrien biltzeari. Berriak biltzen zituen, hautatzen zituen eta idazten edo bere gisara berridazten zituen⁶⁴⁰. Euskara ereduaren aldetik, idazleei euskaraz pentsatzeko eskatzen zien, eta «frantsesezko fraseologia»

⁶³⁶ Casenave, *De l'article de presse à l'essai littéraire: Burubkak (1910) de Jean Etxepare.*, 62–63.

⁶³⁷ Lafitte, «Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) et les débuts du journalisme basque».

⁶³⁸ Camino, «Hitzaurrea».

⁶³⁹ Lafitte, «Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) et les débuts du journalisme basque».

⁶⁴⁰ Altzibar, «Sarrera», 63.

baztertzeko; halaber, Hegoaldeko garbizaletasunarekin ez zuen bat egiten, eta gisa horretan, Luis Villasanteren arabera⁶⁴¹, euskarari lehentasuna eman zion «kazetari bakarra» izan zen.

Irakasle gisa egin zuen lana baliagarri izan zitzaion astekaria zuzentzeko eta idazle berrien bilatzeko. Jon Casenavek Jean Etxepare, Jean Saint-Pierre, Jean Elizalde eta belaunaldi horretako idazleak aipatzean, hauxe idatzi zuen: «*Eskualduna* kazetari esker beren lehen probak egin dituzte idazkera mailan. Manex Hiriart-Urruti-k, erakasle gisa luma trebeenak berehala begistatzen zituen seminario tipian eta, ondotik bere astekariarentzat behar zituen berrikeriak ikasle ohien artean hautatzen zituen ardura»⁶⁴². apaiz eskolan ezagutu zituen ikasle hobereenak bere taldean hartuz, astekariari hats berria eman zion, eta idazle belaunaldi berri bati bidea ireki zion.

Zuzendari – eta zuzentzaile – lanari loturik, editorial idazle edo astekariko artikulua nagusiaren idazle ere izan zen. Hark idatzi zituen testu anitz argitaratu zen hil eta zenbait hamarkada edo urtetara, beste zenbait editorial idazlerenak ez bezala. Lehen euskal kazetariaren fama eman izan diote Hiriart-Urrutiz idatzi duten batzuek. Horrela idatzi zuen Xipri Arbelbidek:

*«Bere artikulua irakurriz ikus daitekeenez, kazetari argia, zehatza eta bizi-bizia da Hiriart-Urruti. Euskal kazetarien arteko lehena izateko ohorea du, gainera»*⁶⁴³.

Ohore gehiago ere egin zion Xabier Altzibarrek:

*«Hiriart-Urrutik estilo berezia sortu zuen. Kazetaritzako hizkuntza moldea – esamolde eginak, hizkuntza kulta baina jendearen ahotik hurbilekoa – idazlearen sormen, berritasun sen, aldakortasun, umore eta graziarekin ezkondu zuen. Forma eta jostura zahar eta berri, noiz liluragarri noiz ustekabeko, maiz fantasiazko eta beti apainaz ehundu zuen bere hitzaldia. Idazkera askatasuna eta idaztearen josteta gozoa ekarri zituen euskal kazetaritzara»*⁶⁴⁴.

Ez da dudarik, Hiriart-Urrutiren idazkera estilo aberatsa zela, Xabier Altzibarrek biziki ongi eta xeheki esplikatzen zuen bezala. Bai, lan honetan erabiliko ditugun adibideetan beretan ageriko da «jendearen ahotik hurbilekoa» zela Hiriart-Urrutiren estiloa, baita ere «umore eta grazia ezkondu» zituela. Baina idazle gisa, eta *Eskualduna*-ko zuzendari gisa, oroz gaitetik euskararen kalitatean egin zuen indarra da azpimarra daitekeena, Casenavek egiten duen bezala:

«Bainan, gauza jakina da Hiriart-Urruti franko kilika zela euskarari buruz eta hura zela nagusia Eskualduna-ren kofinean. Hizkuntza nahi zuen egin ahala irakur-errega denek ulertzeko gisan, ez sobera nahasia ez eta ere garbiegia. Haren lan-metodologiari buruz Lafittek kontaktzen zituen

⁶⁴¹ Villasante, *Historia de la literatura vasca*, 196.

⁶⁴² Casenave, «Eskualduna astekariaren «gizaldi gaztea» (1877-1888)».

⁶⁴³ Arbelbide, *Manex Hiriart Urruti*.

⁶⁴⁴ Altzibar, «Sarrera», 85.

anekdotak ezagunak dira, hala nola idazteko nekeak zituelarik, karrikara jausten zela merkatuko jendeen artean murgiltzeko beharria euskararen mamiaz bete beharrez. Bestalde, Broussainek kontatzen zuen jendeek igorritako artikulua gain behera berriz antolatzen zituela baita ere berriz idazten, hizkuntzari berak gisa zeukan euskarazko itzulia eman nahiz»⁶⁴⁵.

Iñaki Caminok ere azpimarratu zuen Hiriart-Urrutik euskararen kalitatearentzat zuen grina.

«Euskaldunen euskara nahi zuen, ez erdi kaskoin erdi euskara; euskal hitzen, euskal itzulien eta euskal usainaren lagun zen gainera. Kazetako hainbat lankideren idazkiak bestelakutzen zituen xuxendu beharrez»⁶⁴⁶.

Euskara aldetik, estilo biziki aberatsekoa eta herrikoia erabiltzen zuen, Lafittek zioen bezala, hitz jokoz betea, itzuli bereziz betea («style à pirouettes»), alegiazko elkarrizketekin, interjekzioekin eta abat⁶⁴⁷. Hiriart-Urrutiren estilo aberats hori konfirmatzen dugu guk ere⁶⁴⁸. Dударik gabe, haren testuak irakurtzea plazer hutsa zen, iruditzen zaigu mintzatzen entzuten dugula, predikua egiten duen apaiza entzuten dugula.

▪ Heriotza

Hiriart-Urruti gazterik hil zen, 56 urtetan. Ez bat eta ez bi, *Eskualduna* astekariko hurrengo zenbakia prestatzen ari zela, eritu zen. Egun gutxiren buruan hil zen, euskal astekaria umezurtz utziz. Baina ez zuen hain umezurtz utzi. Gerlarengatik berez egoera larrian zegoen astekariak aitzina segitu zuen Hiriart-Urruti gabe ere. Irakasle gisa lehenik, eta gero zuzendari gisa, erein zituen hazien fruituari esker jarraitu zuen *Eskualduna* astekariak 1915eko azaroaren 4tik landako bidea. Parte hartzaile anitzeko sarea osatu zuen, ildo batzuk argiki markatu zituen, bai politikoak, bai euskara eta estilo aldekoak. Nahiz eta bakoitzak bere idazkera estiloa izaten duen, eta Hiriart-Urrutiren ondokoek ez zuten hark bezala idazten, haren eskolakoak ziren idazten jarraitu zutenak, eta Baionako kalonjearen herioak ez zuen funtsezko aldaketarik eragin estiloan eta ildo editorialean. Hiriart-Urrutiren estilo bizia, euskara aberatsa, erretorika, polemikarako joera eta Elizaren defentsa gero ere islatu ziren *Eskualduna* astekarian, ñabardurak ñabardura.

⁶⁴⁵ Casenave, «Eskualduna astekariaren «gizaldi gaztea» (1877-1888)».

⁶⁴⁶ Camino, «Hitzaurrea».

⁶⁴⁷ Lafitte, «Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) et les débuts du journalisme basque».

⁶⁴⁸ *Eskualduna* astekariko itzuli bereziak aztertu nituen 1998an bururatu nuen Maîtrise-ko memorian: Bidegain, «Itzuli bereziak eta estilo efektuak Eskualduna eta Herria astekarietan».

b) Blaise Adéma

Jean-Blaise Adéma *Eskualduna*-ko idazleatarik bat izan zen gerla garaian eta gero ere. Nahiz eta ez zuen Hiriart-Urrutiren itzala izan nahi, ez eta Jean Saint-Pierre, Jean Etxepare edota Jean Elizalde *Zerbitzari*-rena ere. Idazle horiek guztiek aipamen anitz izan zuten joan den mendean, eta mende honetan ere aipamena ukaiten segitzen dute. Blaise Adémaz nehor gutxi interesatu da, eta gauza gutxi idatzi da. Ikerlan honen kasuan, ordea, arreta hein bat ezarri behar dugu idazle honengan. Alabaina, gerla garaiko editorial gehienak ez ziren Manex Hiriart-Urrutirenak izan, entzutetsuenak haiek baziren ere. Ez, gerla garaian, editorial gehiago idatzi zuen Blaise Adémak.

1861eko urriaren 2an sortu zen Senperen. François Adéma txokolategilearen eta Catherine Andourandeguyren semea zen⁶⁴⁹. 52 urte zituen, beraz, gerla deklaratu zenean; ondorioz, ez zuen 1914-1918ko gerlan parte hartu. Gerlako berriak hurbiletik jarraitu zituen, ordea, *Eskualduna* astekarian idazten baitzuen, eta gerla baitzen ia gai bakarra. Nahiz eta bere artikuluak ez zituen izenpetzen, ez da dudarik gerlari buruzko hainbat artikuluren egilea zela, eta horregatik garrantzitsua da Adémaren aipamen baten egitea.

Jean-Blaise Adéma baino ezagunago egin zen, eta gaur egun ere hala da, haren osaba Gratien Adéma, *Zaldubi* izenordez ezagutua eta «Gauden eskualdun» kantuariaren egilea. Gratien Adéma 1828an sortu zen Senperen eta 1907an hil Baionan. Idazle gisa ezagun egin zen elizgizona zen, Baionako ohorezko kalonje ere izan baitzen. *Eskualduna* astekarian kolaboratu zuen. Funtsean, Jean-Blaise Adémak *Eskualduna*-ko zuzendari kargua hartu zuenean, *Eskualduna*-ko erredakzioak berak azpimarratu zuen *Zaldubi*-ren iloba zela.

Jean-Blaise Adémak Larresoroko seminario ttipian ikasi zuen lehenik, eta handik Baionako seminario handira joan zen. 23 urte zituela eman zuen bere lehen meza, Senperen berean, 1884an. Baina gero berriz ere Larresorora itzuli zen, aldi hartan, irakasle gisa. Besteak beste Jean Etxepare ukan zuen ikasle⁶⁵⁰. 1884tik 1906ra izan zen irakasle, orotara 22 urtez. Frantziako historia eta geografia irakasten zituen. *Eskualduna*-k 1936ko maiatzaren 15ean idatzi zuen bezala, «Frantziako gerthakari guziak, auzo erresumetakoak bardin, eremuak eta lurak, erhien puntan bazazkien»⁶⁵¹. Nabari da gerla garaian Frantziako eta munduko berriak irakurtzean, sail hori idazten zuenak gai horiek ongi ezagutzen zituela. Hain zuzen, Blaise Adéma zen «Asteko berriak» sailaren idazle.

⁶⁴⁹ Kontsultagarri: earchives.cg64.fr

⁶⁵⁰ Casenave, *De l'article de presse à l'essai littéraire: Burubkake (1910) de Jean Etxepare*.

⁶⁵¹ «Mgr Adéma», *Eskualduna*, 1936ko maiatzaren 15a.

1906an, Larresoroko eskola utzi eta Sarako erretore izendatua izan zen. Lau urte geroago, 1910ean, Uztaritzeko erretore nagusi izendatu zuten. Uztaritzen izan zuen, garai batez, Jean Elizalde *Zerbitzari* bikario gisa, hau ere *Eskualduna*-ko idazlea. *Zerbitzari* gerlara joan zenean, Adéma bakarrik gelditu zen Uztaritzen.

Baina gerla bururatu baino lehen utzi zuen Uztaritzeko eliza, Baionako apezpikuak Baionako kalonje izendatu baitzuen, 1918ko agorrilaren 8an. Kargu hori ematearekin batean, *Eskualduna*-ko zuzendari kargua ere eman zion, eta baita Baionako elizbarrutiko *Bulletin Religieux* agerkariko buruzagitza ere.

Komeni da data hori azpimarratzea. Alabaina, hor argitzen da *Eskualduna*-ko zuzendaritza 1918an hartu zuela eta ez 1915ean, Manex Hiriart-Urruti hil ondoan. *Eskualduna* astekariak berak eman zuen zuzendari izendatze horren berri, 1918ko agorrilaren 9ko zenbakian. Urte bereko irailaren 6an zehaztu zuen *Eskualduna*-k Adémak astekariaren zuzendaritza ardura osoa hartu zuela. Ordu arte, erredaktore buru zen. Hots, Hiriart-Urruti hil zenetik eta Blaise Adémak zuzendari kargua hartu artean hiru urte iragan ziren.

Hortaz, *Eskualduna*-ri buruzko zenbait liburu edo artikulutan, zuzendarien zerrenda egitean, anitzek huts bat egin izan dute. Zuzendarien zerrendan ageri da Hiriart-Urruti izan zela 1915 arte, eta Blaise Adéma 1915etik landa. Bernadette Bordak hala kokatu zuen *Eskualduna*-ko zuzendarien zerrendan⁶⁵². Piarres Xarritonek ere gisa bereko zerbaite idatzi zuen:

«Baina, oroz gainetik, Hiriart-Urruti bat-batean hil zelarik, 1915eko azaroan, eta euskaltzale gazte gehienak gerran zirenez, Blaise Adémak euskal astekariaren zuzendaritza hartu behar izan zuenean, Hiriburuko bikario gaztea bilakatu zen Eskualduna-ren isileko idazkari»⁶⁵³.

Isileko idazkari hori *Oxobi* zen. Zehaztu behar da Adéma aspaldian ari zela *Eskualduna* astekarian idazten: 1895ean hasi zen⁶⁵⁴, Hiriart-Urruti hasi eta urte gutxira. Heldu baita, Hiriart-Urrutik eta Adémak urte luzeetan egin zutela lan elkarrekin.

Jules Moulier *Oxobi* hil zelarik, Piarres Lafittek haren biografia bat idatzi zuen, eta han zehaztu zuen Hiriart-Urruti hil ondoan, *Oxobi*-k bete zuela zuzendari ardura, kargua ez bazuen hartu ere:

«Baionari hurbil izanez, Hiriart-Urruti jaun kalonjea auzo zuen eta laguntza egiten zion «Eskualduna» kazetari buruz. Behar dugu ere erran, kazeta-egile gaichoa hil baitzen 1915eko hazilaren 4an, Oxobi-k

⁶⁵² Borda, «Le journal «Eskualduna» et la guerre de 1914-1918», 24.

⁶⁵³ Xarriton, *Jules Moulier Oxobi*.

⁶⁵⁴ Lafitte, «Eskual astekariaren ixtorioa».

egin zuela haren ordaingoa, titulurik gabe, Adéma kalonjea 1918an izendatu artean, ichtant bat segurik»⁶⁵⁵.

Aipamen horretan ere argi ageri da Adéma 1918an baizik ez zela bihurtu astekari hartako zuzendari. Baina, nahiz eta zuzendari kargua, ofizialki, 1918an baizik ez zuen hartu, Adéma zuzendaritzat jotze horrek badu oinarririk. Hain zuzen, Hiriart-Urruti hil zenetik eta zuzendari kargua hartu zuen arteko editorialak irakurriz gero, hark idatzi zituela ondoriozta daiteke. Lau arrazoi nagusi badira hori pentsatzeko.

Batetik, editorial horietan agertzen zen euskalkia Senpere aldekoa zen. Blaise Adéma ofizialki zuzendari izan zenean idazten zituen editorialak eta 1915eko azarotik landa agertu zirenak pertsona berak idatzi zituela baieztatu dezakegu. Erabiltzen zen euskalkia ez zen aldatu, eta Senpere edo Sara ingurukoa zen. Adibidez, «gare» edo «dire» aditzak testu horietan ageri dira, ez beste batzuetan.

Hori bera ez da aski editorial haien egilea Adéma zela ondorioztatzeko, baina balio digu beste zenbait hipotesi baztertzeko, hala nola *Oxobi*-rena – bidarraitarra izanik ez baitzuen Lapurdiko euskalki hura erabiltzen – edota Jean-Baptiste Daranatz uztariztarrarena. Garai hartako beste senperririk ez da ezagun *Eskualduna*-n idazten zutenen zerrendan.

Baina editorial egilea, Senpere eskualdeko euskalkiduna izanik ere, izan zitekeen inguruko beste herri batekoa. 1917ko maiatzaren 11ko editorialean idazleak aipatu zuen 1914ko irailean, Craonneko guduan, bere herriko sei lagun hil zirela:

«Chéry, Roncey, Oulches, Craonnelle, hor aurkitzen dire, eta ni nagon herritik beretik badire herriska hoitan sei hilak lehenbiziko buruilean»⁶⁵⁶.

Senpereko hilen monumentutik 14ko gerlan hil ziren herritarren zerrenda hartu, eta Frantziako Defentsa Ministerioaren webguneko Mémoire des Hommes⁶⁵⁷ datu basearekin konparatu dugu, eta baieztatzen dugu sei zirela Aisne departamenduko gudu haietan hil ziren senperrak, hala nola:

- Jean Arancet (1884an sortua, 249. Infanteria Erregimentukoa, Craonnellen hila 1914ko irailaren 21ean),
- Felix Carricaburu (1883an sortua, 249. Infanteria Erregimentukoa, Craonnellen hila 1914ko irailaren 20ean),

⁶⁵⁵ Lafitte, «Oxobi hil zaiku».

⁶⁵⁶ «Zer guduak!», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 11.

⁶⁵⁷ Datu base horretan Frantziak parte hartu zuen gerletan hil ziren soldadu guztien – Frantziako Gobernuak gerlako hil gisa onartuenak – fitxak ageri dira. Horrez gain, armadako unitate gehieneguneguneko egunez eguneko ibilbide orriak ere kontsulta daitezke: <http://www.memoiredeshommes.sga.defense.gouv.fr/>

- Jose Michel Eyheragaray (1887an sortua, 49. Infanteria Erregimentukoa, Craonnen hila 1914ko irailaren 15ean),
- Hilaire Halsouet (1883an sortua, 12. Infanteria Erregimentukoa, Oulches-en hila 1914ko irailaren 17an),
- Michel Laxague (1890ean sortua, 144. Infanteria Erregimentukoa, Pécherie etxaldeko inguruetan hila, Pontavertik hurbil, 1914ko irailaren 17an),
- Jean Munduteguy (1892an sortua, 34. Infanteria Erregimentukoa, Beurieux-n hila 1914ko irailaren 13an).

Senpereko hilen monumentuan ageri diren izen gehiago hil ziren Aisne departamenduan, 1914ko irailean, baina haiek ez ziren senperrak, sortzez. Gainerako indize guztiak ukanik, hau gure ustea berresteko arrazoi bat gehiago da.

Hirugarrenik, aipatzen ari garen epe horretan idatzitako editorialetan bitxikeria batzuk ikusten dira, ortografiaren aldetik. Adibide garbiena da, Hiriart-Urruti hil ondoko artikulu nagusian, «alemana» idazteko ordez, «alaman» idazten zutela. Baina astekariko beste artikuluetan, «alemana» idazten zen. Blaise Adémak zuzendari kargua hartu zuelarik ere editorialetan «alaman» hitza agertzen zen. Beraz alde horretatik ere baieztatu daiteke Hiriart-Urruti hil ondoko editorial egilea Adéma zela.

Beste formula bat, Blaise Adémaren testuetan ageri zena, «zerbeit bat» zen. Adibidez: «bihotzean zerbeit bat»⁶⁵⁸. Berez, aski izanen zen «zerbaib» hitzarekin, «bat» hori sobera da. Baina beste hainbat aldiz agertu zen forma hori, Adéma zuzendari izendatua izan aitzin ere. Horra beste arrazoi bat, editorialen egilea hura izan zela baieztatzeko.

Halaber, Larresoroko apaiz eskolako irakasle izan zela aipatu zuen artikulu batean. Hain zuzen, Jean-Baptiste Erreca soldaduaren hiltzearen berri eman zuen editorial batean⁶⁵⁹, eta zehaztu zuen Larresoroko seminarioan ezagutu zuela. Hori bera ez da aski baieztatzeko artikuluaren idazlea Adéma zela, baina badakigunez Adéma Larresoroko seminarioko irakasle izan zela, eta aitzineko beste arrazoi guztiak emanez, ez dugu dudarik Adéma irakasle ohia zela hor mintzo.

Bestalde, *Eskualduna*-k hainbat artikulu laburretan zehazten zuenez, Adémak, zuzendari kargua hartu aitzineko hilabete andana batean (kopurua ez zuten zehaztu), ez zuen idatzi. Hain zuzen, zenbait irakurlek edo berri-emailek Adéma non ote zebilen galdetzen zuten, eta *Eskualduna*-k ere Adémaren «siltasun luze» aipatzen zuen. *Eskualduna*-

⁶⁵⁸ «Laster hemen dire», in *Eskualduna* 1918ko azaroaren 18a.

⁶⁵⁹ «J.B. Erreca», in *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 15^a.

k ematen zuen arrazoia zen garai hartan Adéma biziki lanpetua zela. Baina behin zuzendari izendatuz geroz, «aste guzietan han zuen bere artikulua»⁶⁶⁰. Beraz, ez da dudarik 1918ko irailetik aitzinako editorialak Blaise Adémak idatziak zirela. Baina, bereziki, horrek balio digu baieztatzeko egun horren aitzinekoak ere harenak zirela. Hain zuzen, 1918ko apirilaren 19tik irailaren 6a arte, ez zen editorialik *Eskualduna* astekarian, edo ez beti, eta editorialaren lekuan artikulua nagusi bat izaten zenean, Jean Etxeparerena zen gehienetan, hala nola maiatzaren 24, ekainaren 14, uztailaren 5 eta 26 eta agorrilaren 9ko zenbakietan. Agorrilaren 16ko lehen artikulua *Oxobi*-rena zen. Beraz, *Eskualduna*-k aipatu zuen isiltasun luze horretan ulertu behar da editorialik ez agertzea Blaise Adémaren isiltasunaren ondorio zela; hots, editorialak Blaise Adémak idazten zituela.

Editorialen egilea Senpere aldekoa zela oharturik, 1914ko irailean Craonne eskualdean haren herriko sei lagun hil zirela jakinik eta Senperetik ere sei lagun galdu zituela ikusirik, Blaise Adémak zuzendari kargua ofizialki hartu ondoan idatzi zituen editorialetan eta aitzineko urteetan idatziak izan zirenetan huts berak agertzen zirela ikusirik eta, laugarrenik, Adémak zuzendari kargua hartu aitzineko isiltasun luzeaz jabeturik, arrazoirik aski badugu 1915eko azaroaren 12tik landako editorialak Blaise Adémak idatzi zituela baieztatzeko.

Blaise Adémaren editorialak ez dira hainbeste gelditu euskal kulturaren oroitzapenetan, beharbada ez zirelako Hiriart-Urrutirenak bezain sutsuak. Haren editorialak hotzagoak ziren, neutroagoak. Horretan bat egiten dugu Bernadette Bordarekin⁶⁶¹, idatzi zuenean Adémak aitzinekoek baino editorial neutroagoak erredaktatzen zituela.

Zuzendari kargua 1925eko urtats arte atxiki zuen Adémak. Baina, gerlatik landa bederen, ez bide zuen harreman ona gerlan ibili ziren *Eskualduna*-ko berriemaileekin, Piarres Xarritonen arabera. «Badirudi gizon horrek «gerlari ohiekin» - eta ez bakarrik Etcheparekin - harreman aski hotzak zituela»⁶⁶². Jean Saint-Pierrek hartu zuen Adémaren lekua, eta Xarritonen arabera, Etxeparek *Eskualduna* astekariarekin izan zuen harremana hobetu zen, zuzendaria aldatzean.

Kalonje izan zen garaian, eliza nagusiko diruzain eta eskola girstinoetako buruzagi izan zen, eta kargu horren harira ikastetxez ikastetxe ibiltzen zen. Idazle gisa ez zen ezagun egin, ez baitzuen libururik idatzi edo argitaratu. Baina artikulua anitz eta anitz idatzi zuen

⁶⁶⁰ *Eskualduna*, 1936ko maiatzaren 15a

⁶⁶¹ Borda, «Le journal «Eskualduna» et la guerre de 1914-1918», 27.

⁶⁶² Charriton, *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak. IV. Kazetaritza (B) (1916-1935)*.

Eskualduna astekarian, bereziki. Xabier Altzibarren arabera, 39 urte iragan zituen kazetari lanetan⁶⁶³. 1936ko maiatzaren 7an hil zen, Baionan, 75 urte zituela.

4. Eduki politikoen berdintzea

Aldaketa sakonagoak ere gertatu ziren gerlarekin batera, beharbada ez zirenak lehen kolpetik ikusten, baina ondorio handiagoak zituztenak. Frantziako eta Ipar Euskal Herriko egunkariak eskaintzen zituzten eduki politikoak antzekoak ziren denetan. Lehen aipatu dugu nola gerlaren hasieran Frantziako eztabaida politikoak izoztu ziren eta batasun sakratua egin zuten. Horren ondorioak prentsan ere nabaritu ziren, denek mezu bakarria zabaldu baitzuten. Euskal Herrira hurbilduz, Hego Euskal Herriko prentsaren ikuspegia ere aipatzea interesgarri iruditu zaigu.

a) Prentsaren mezu bakarria

Gerla lehertu zelarik, egunkarietan gauza anitz aldatu zen. Arauak zorroztu ziren eta egunkariak ez zuten nahi zuten guziaz egin. Alde batetik, ezin zuten azaleko titulu nagusia orriaren zabalera osoan ezarri⁶⁶⁴. Arau hori ez zen beti errespetatua, hastapenean segurik. Aski da so egitea *Le Courrier de Bayonne* egunkariak nolako azalak egin zituen lehen astetan, eta gehienetan lehen orriko titulu nagusiak orriaren zabalera osoa edo ia osoa betetzen zuten. Gisa berean, egunkarietako izenburu nagusia karrikan oihuka erranez saltzea ere debekatua zen.

Baina hori bigarren mailako aldaketa baizik ez zen. Eta nahiz eta egunkari bakoitza ahalegintzen zen zerbait berezi ekartzen, armadak igortzen zituen eguneroko komunikatuak erretretan zegoen militar baten analisiarekin aipatuz⁶⁶⁵, adibidez, funtsean denek elkarren antza zuten. Horrela komentatu zuen Manévyk:

Faites une expérience en temps de paix. Prenez plusieurs journaux d'informations de la même date. Comparez-les. Ils sont différents dans leur conception, leur rédaction, leur présentation. Bien qu'ils traitent des mêmes sujets, tous portent la marque de leur originalité. Renouvelez l'expérience, en temps de guerre cette fois. Quelle désillusion! Tous semblent coulés dans le même moule: mêmes

⁶⁶³ Altzibar, «Sarrera», 26.

⁶⁶⁴ Georges Bonnefous, *Histoire politique de la Troisième République. Tome second. La Grande Guerre 1914-1918* (Paris: Presses universitaires de France, 1957), 104.

⁶⁶⁵ Manévy, *Histoire de la presse: 1914-1939*.

commentaires, même titres, même disposition, au point que vous êtes tenté de vous écrier: «A quoi bon m'en présenter plusieurs, un seul me suffit»⁶⁶⁶

Egunkarien eta aldizkarien berdintze horrek azalpen simple bat bazuen. Denek bat egin zuten Frantziaren alde, Alemanen eraso jasan zuen Frantziaren alde. «Egunkari guztietan gehiegizko abertzaletasun bat»⁶⁶⁷ bazen. Hots, politika giroan sendi zen «batasun sakratua» osoki islatu zen prentsan ere⁶⁶⁸. Denek mezu bera zuten, denek Frantzia defendatzen zuten, gorrien eta zurien arteko kalapitak eta errepublikazaleen eta lege laikoek kontrako arteko istiluak izoztu ziren. *Eskualduna* astekari gogorrean ere halatsu gertatu zen. Zergatik harritu? *L'Action Française* egunkaria bera ere osoki sartu zen batasun sakratuaren logika hartan eta Frantziaren defentsan⁶⁶⁹. Orogen buru, izan eskuineko ala ezkerreko, errepublikazale ala monarkiaren alde, lehentasuna Frantziak zuen, frantses nortasuna defendatu behar zen, eta horrek zatiketa guztiak ahuldu zituen.

Batasun hori ez zen solas abertzale edo nazionalista soiletara mugatzen. Gerlaren hastapenean segurik, mezuaren berdintze hori baikortasunean nabaritzen zen. *Eskualduna* astekariaren baikortasun itsua⁶⁷⁰ orokorra zen. Prentsak jendearen morala piztu behar zuen, mezu baikorrak zabalduz⁶⁷¹. Mezu baikor hori lekuko prentsan ere agertzen zen, Frantziako prentsa oihartzuna balitz bezala ere bai, eta «euforia» zabaldu zuten; baina baikortasun itsu hori eztatzen hasi zen lehenbiziko hilen berriak heldu zirenean eta, Euskal Herriko prentsa kasuan, lehenbiziko hilak eta zaurituak Baionara heltzen hasi zirenean⁶⁷². Bigarren hilabetea iragan ondoan gerla ez zela hain laburra izanen eta odola isurtzen ari zela ohartu baziren ere, batasun eta baikortasun hori ez ziren desagertu.

b) Espainiako eta Hego Euskal Herriko prentsa

Euskal Herrian beste egunkari mota batzuk ere irakur zitezkeen, Ipar Euskal Herrira ez baziren heltzen ere. Hego Euskal Herrian eta Espainian argitaratzen ziren egunkariak ez zuten Frantziakoek zuten motibazio nazionalista bera. Ez ziren frantsesak, ez zuten Alemaniaren erasorik jasaten, Espainia neutro bateko egunkariak ziren. Baina noren alde ziren? Denak ez ziren jarrera berekoak.

⁶⁶⁶ Ibid., 31.

⁶⁶⁷ Fabrice Almeida (d^e) eta Christian Delporte, *Histoire des médias en France: de la Grande Guerre à nos jours* (Paris: Flammarion, 2003), 23.

⁶⁶⁸ José Ramon Cubero, *La grande guerre et l'arrière: (1914-1919)* (Pau: Cairn, 2007), 31.

⁶⁶⁹ Weber, *L'Action française*, 123.

⁶⁷⁰ Bidegain, *Gerla Handia, muga sakona*.

⁶⁷¹ Fontana, *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*, 35.

⁶⁷² Rocafort, *Avant oublié: soldats et civils de la côte basque durant la grande guerre*, 101.

Hego Euskal Herriko prentsa abertzalean, hala nola EAJk argitaratzen zuen *Euzkadi* egunkarian, neutraltasunaren aldeko jarrera hartu zuten, baina Alemaniaren eta Frantziaren artean hautatzekotan, Frantziaren aldeko jarrera hartu zuten⁶⁷³. Kataluniako prentsa erregionalista ere aliatuen aldekoa zen, hala nola *El Poble Català*⁶⁷⁴. *La Vanguardia* egunkariaren kasua bereziagoa zen, Agusti Calvet *Gaziel*-en arabera⁶⁷⁵. Ramón Godo jabea alemanen aldekoa zen; M. de los Santos Oliver zuzendaria, aldiz, aliatuen aldekoa zelarik. Orogen buru, egunkarian Frantziaren aldeko joera ageri zen. Hala ere, Auberten arabera, egunkari horrek hainbat traba ukan zuen Frantzian saldua izan zedin, alemanen aldekoa zelakoan.

Espainiako prentsa bi zatitan banatua zen, gerlari buruzko jarrerari dagokionez. Pedro Gómez Aparicioaren arabera, ia eskuineko egunkari guztiak Alemaniaren aldekoak ziren, eta ezkerrekoak, aldiz, aliatuen aldekoak⁶⁷⁶. Ezkerrekoek demokraziaren eta askatasunaren sinbolo gisa ikusten zuten Frantziaren alde egitea; eskuinekoek Errepublika ez zuten begi onez ikusten, eta gainera Frantziarekin Marokon eta Ingalaterrarekin Gibraltarren zituzten liskarrak gogora ekarri zituzten⁶⁷⁷. Horiek hola, egunkari kontserbadore hauek ziren Alemaniaren aldekoak⁶⁷⁸: *El Siglo Futuro*, *El Correo Español*⁶⁷⁹, *El Universo*, *El Debate*, *ABC*⁶⁸⁰, *La Tribuna*, *La Acción*, *El Día*, *El Parlamentario* eta *España Nueva*. Frantziaren aldekoak ziren, aldiz, *El Imparcial*, *La Mañana*, *La Correspondencia de España*, *Heraldo de Madrid*, *El Liberal*, *El País*⁶⁸¹, *El Radical*, *España Libre* eta *El Socialista*. Horietan gehien irakurtzen zirenak *Heraldo de Madrid*, *El Liberal*, *ABC* eta *El Imparcial* ziren⁶⁸². Juan

⁶⁷³ Bidegain, *Gerla Handia, muga sakona*.

⁶⁷⁴ Aubert, «La presse espagnole et son public (1914-1918)», 457.

⁶⁷⁵ Juan Francisco Fuentes eta Javier Fernández Sebastián, *Historia del periodismo español: prensa, política y opinión pública en la España contemporánea* (Madrid: Síntesis, 1997), 194; Agusti Calvet Gaziel, *Història de «La Vanguardia» (1881-1936): i nou articles sobre periodisme* (Barcelona: Editorial Empúries, 1994), 83–87.

⁶⁷⁶ Pedro Gómez Aparicio, *Historia del periodismo español: de las guerras coloniales a la Dictadura* (Madrid: Editora Nacional, 1974), 432.

⁶⁷⁷ *Ibid.*, 434.

⁶⁷⁸ *Ibid.*, 435.

⁶⁷⁹ Ez nahas gaur egungo *El Correo Español* egunkari bizkaitarrarekin. Karlistek *El Correo Español* izeneko beste egunkari bat sortu zuten 1888an, Vazquez de Mella zela zuzendari. José Javier Sánchez Aranda eta Barrera del Barrio Barrera, *Historia del periodismo español: desde sus orígenes hasta 1975* (Iruñea: Ediciones Universidad de Navarra, 1992), 292–293.

⁶⁸⁰ Egunkari hau gaur egun ere badago. 1903an agertu zen astekari gisa, eta 1905ean bihurtu zen egunkari. Monarkiko, espainolista eta kontserbadorea zen. *Ibid.*, 281–282.

⁶⁸¹ Ez nahas gaur egun argitaratzen den *El País* egunkariarekin. Hau, 1887an sortu zuten, Alderdi Errepublikar Progresistaren organo gisa, eta 1921 arte iraun zuen. María Dolores Sáiz eta María Cruz Seoane, *Historia del periodismo en España. 2. El Siglo XIX* (Madrid: Alianza, 1983), 306.

⁶⁸² Fuentes eta Sebastián, *Historia del periodismo español: prensa, política y opinión pública en la España contemporánea*, 191.

Francisco Fuentes eta Javier Fernandez Sebastiánen arabera, Espainiako orduko prentsak etekina atera zion gerla egoerari, batetik, gerlaren alde batekoek eta bestekoek diru laguntzak ematen zizkietelako, haien mezuan eragin beharrez, eta, bestetik, alemanen aldekoen eta aliatuen aldekoen arteko eztabaidak salmentak igotzea eragin zuelako⁶⁸³. *El Correo Español* egunkariak, adibidez, Jean-Marc Delauneyren arabera⁶⁸⁴, Alemaniako diru-laguntzak jasotzen zituen.

Zehaztapen hau egitea beharrezkoa zen, Espainiako eta Hego Euskal Herriko egunkariak idazten zutena edo idazten ez zutena behin baino gehiagotan aipagai baitzen Ipar Euskal Herrian, *Eskualduna* astekarian bereziki. Astekari horrek bazuen kezka Nafarroan edo Gipuzkoan idazten zenari buruz, hango solasen berriak zabaltzen baitziren Ipar Euskal Herrira ere. Pirinio Behereetako prefekturak ere zorrotz jokatzeko eskaera egin zuen Espainiako prentsari begira. Hain zuzen, Espainian ez zuten informazioa ezkututzen, eta egunkari batzuek idatzi zuten Charleroiako batailan alemanek aitzinamendu handia egin zutela eta frantsesek gezurrak erraten zituztela; Espainian idazten zen horren berri eman zion prefetak Frantziako Barne ministroari⁶⁸⁵.

Gerla lehertu zen astean *Eskualduna* astekariak, beste agerkarien gisan, hartu zuen itxura zinez ikusgarria zen. Euskarazko astekariaren kasuan, erdira murriztu zuen orri kopurua, lautik bira pasatuz. Hala ere, garai hartan zegoen informazio gosearen asetzeko doia ematen zuen, edo hartara ahalegintzen zen. Horretara bideratu zituen zeuzkan indar guztiak. Berriketari gehienak gerla lekuetan zeuden, Jean Saint-Pierre, Jean Elizalde eta Jean Etxepare bereziki. Baina hori indar-gunea izan zen *Eskualduna* astekariarentzat, kronika bereziak eskaini ahal izan zituelako.

B. Informazio murrizta eta zentsura

Espainian eta Hego Euskal Herrian argitaratzen zenak Frantziako agintarien kezka pizten bazuen, ez gara harrizko Frantzian bertan argitaratzen ziren egunkari eta astekariak ere arreta berezia eskatzen zutela ikustean. Lehen aipatu bezala, ez zen arazo politiko handirik, batasun sakratuaren logikan sartu baitziren denak. Baina gerla lehertzeak eragin zituen

⁶⁸³ Ibid., 194.

⁶⁸⁴ Delaunay, «La grande guerre ou la clé du retour».

⁶⁸⁵ Becker, 1914. *Comment les Français sont entrés dans la guerre*, 529.

berehalako aldaketen baitan, kazetaritzaren askatasuna mugatuko zuten beste aldaketa batzuk ere izan ziren.

Gerlako berriak biltzea biziki zaila eta ia ezinezkoa bihurtu zen. Hain zuzen, egunkari eta astekarien murrizketa materialak ez ziren berak bakarrik etorri. Kazetaritza lanak ere murrizketa anitz jasan zuen. Gainera, ez zen haizu edozer gauza idaztea. Egunkariak zentsura jasan zuten, eta zentsuraren txanponaren beste aldea ere bai: propaganda baten zerbitzuko izan ziren. Baina zentsura onartu eta justifikatu zuten.

I. Kazetarien trabak

Ez ziren garai hoberenak kazetaritza egiteko. Gertakariak halako ofizio baterako aproposak ziren; baina hori teoriarik gelditzen da, gerla ez baita sekula kazetaritzarako gai erraza izan. Kazetariak ezin zuten gertakariak gertatzen ziren tokietara joan. Ez zeukaten baimenik. Informazio iturri eskasaren ondorio horri aterabide baten atzemateko eta argitaratuko zen informazioa kontrolatzeko, Frantziako Gobernuak agiri ofizialak zabaldu zituen.

a) Berriemailerik ez

Espainiako prentsak Charleroiko guduaz idatzi zuen, informazio hori lortu zuelako. Hain zuzen, ordurako, Espainiako prentsan ere garapen handia gertatua zen, egunkariak gero eta orri gehiago zuten, eta enpresa handiak sortu ziren egunkarien inguruan. Berriemaile bereziekin eta agentziekin, informazioa zabaltzeko aukerak izan ziren eta baita herritarren informazio goseari erantzutekoa ere⁶⁸⁶. Espainiako irakurleek Frantziako irakurleek ez zituzten informazioak irakur zitezaketen. Hego Euskal Herriko kazetari batzuk ere ibili ziren gerla tokietan, berriemaile gisa; horien artean zegoen Juan Bautista Bilbao *Batxi*, European gaindi egin zuen itzulian, gerlan zeuden herrialdeetatik kronikak igorri baitzituen *Euzkadi* egunkarira, eta geroago liburu batean bildu ziren kronika haiek⁶⁸⁷.

Baina, oro har, zinezko gerlako berriemaile bereziak gutxi ziren, herrialde bakoitzak dozenaka batzuk baizik ez zituen. Lehenago ere bazuten gerlako kazetaritzaren esperientzia eta militarrekin lan egiteko ohitura, baina Gerla Handia ez zen besteak bezala, eta kazetaritza egiteko mugak ukan zituzten. Arauak zorroztu zituzten, eta baimen berezirik ez zuten kazetariak ez zuten haizu gerlako tokietara joatea, berriemaile gisa, ez bazuten

⁶⁸⁶ Aubert, «La presse espagnole et son public (1914-1918)», 38.

⁶⁸⁷ Juan Bautista Bilbao Elgezabal, *Hau mundu arrano hau*, ed. Koldo Izagirre eta Iñigo Aranbarri (Susa, 1997), Sarean: armiarma.com.

espioitza egiteagatik epaituak izan nahi⁶⁸⁸. Argazkilari edo zinemagileen salbuespena kenduta, prentsa munduan ari zirenek ez zuten sarbide handirik. Argazkilariak, bai, ibili ziren gerla tokian, baina atal hori armadarena zen: 40.000 argazkitik gora hartu zituzten, eta 800 film baino gehiago grabatu⁶⁸⁹. Baina hori ez zen kazetaritza helburuekin egina: armadaren funtzioen barne zen.

Irudien salbuespen hori utzirik, kazetariak ez zuten informazioa lortzeko biderik. Espainian Charleroiako guduari buruzko informazioak eman bazituzten, Frantzian ez zen halakorik gertatu. Gerla hastapenean ez zen informaziorik heltzen erredakzioetara:

L'ennemi est sans cesse désigné, jamais localisé précisément ni vu. De surcroît, les informations sur l'extension de la guerre à l'Orient (Turquie fin octobre 1914) et dans les Balkans (entrée en guerre de la Roumanie) ne passent pas, car elles pourraient donner à croire que la guerre menace d'être plus longue que prévue. Ce constat ne signifie pas que les journaux n'informent pas leurs lecteurs: les rubriques militaires sont étoffées à la une des journaux, à l'instar du Matin, du Temps, de L'Humanité ou de La Dépêche de Toulouse. La moitié de la surface rédactionnelle de la une du Temps est ainsi consacrée aux informations militaires, à travers les deux rubriques «La guerre» et «nouvelles de la guerre». Mais elles répondent largement à une information stéréotypée, largement analytique, sans vision stratégique. La vision des informations militaires fait défaut.⁶⁹⁰

Informazioa biziki orokorra zela, egiazki gertatzen zirenen berririk ez zela eta jendea ez zela kezkatu nahi ageri da *Eskualduna* irakurtzean ere. Informaziorik ez zen heltzen erredakzioetara, baina gerla zen berri nagusia, herritarren kezka handiena, eta beraz zutabeak gerlako solasekin bete behar ziren. Zeukaten informazio iturri bakarra, Gerlako Ministerioak egunean hiru aldiz igortzen zituen komunikatuetara mugatzen zen.

Hots, egunkarien berdintze hori ez zuen batasun sakratuak bakarrik eragin. Nahi bezain frantses izanik ere eta, beraz, Frantziaren aldeko deia nahi bezain ozen erranik ere, mezu batu horren azalpena ez zen intentzio politikoetara mugatzen. Ez zezaketen bestela egin orrien betetzeko.

b) Agiri ofizialak

Frantziako Estatuak kazetaririk ez zuen baimentzen gerla tokian, eta kazetariak jakinen zuten informazioa kontrolatzeko beharra sentitu zuen. 1914ko azaroan, Informazio Atal bat sortu zen, armadaren egoitza nagusian. Informazio Atal horren eginkizuna zen

⁶⁸⁸ Rajsfus, *La censure militaire et policière 1914-1918*, 36–37.

⁶⁸⁹ *La grande guerre au jour le jour* (Paris: Fayard, 1988), 171.

⁶⁹⁰ Forcade, «La censure politique en France pendant la Grande Guerre», 125.

zuzenean Armadatik zetozen berrien biltzea, zentralizatzea eta zabaltzea⁶⁹¹. Kazetariak zerbait jakin nahi bazuten, Informazio Atal harengana jo behar zuten, Atal hark zinezko iragazki lana egiten zuen.

Horrez gain, Gerlako Ministerioak egunean hiru agiri zabaltzen zituen, gerlaren berri emanez. Zentsurak egunkariak bete behar zituzten kazetariei sortzen zien traba kontuan hartuz eta herritarrek zuten informazio goseari erantzuteko asmoz, 1914ko urrian armada agiri ofizialak ateratzen hasi zen, horretarako sortu zuen Informazio Zerbitzuaren bidez. Goizeko hamaiketan, arratsaldeko hiruetan eta arratseko hamarretan zabaltzen zituen agiriak. Parisko prentsarentzat 15:00etako agiria zen inportanteena⁶⁹², egunkari haiek ilunabarrekoak baitziren eta horrela irakurleei berri ahal bezain freskoak emateko. Besterik da zabaltzen zuten agiriak ea informaziorik ematen zuen ala, nahitara, orokorregiak eta lausoegiak ziren zinez zer pasatzen zen jakiteko. Ikerlari gehienek informaziorik gabeko eta interesik gabeko agiriak zirela diote. Hona adibide bat, Maurice Rajsfus-ek ekarria eta komentatua:

Le communiqué du 7 octobre 1915, à 15 heures, est représentatif de la langue de bois des censeurs de l'armée : «A notre aile gauche, la bataille continue toujours avec violence. Les fronts opposés s'étendent jusque dans la région de Lens-la-Bassée, prolongés par des masses de cavalerie qui sont aux prises jusque dans la région d'Armantières. Sur le front de la Somme, jusqu'à la Meuse, rien à signaler. En Wuèvre, l'ennemi a tenté un nouvel effort pour arrêter nos progrès mais ses attaques ont encore échoué.» (S.H.A.T., série 5 N, carton 374).⁶⁹³

Beste ikerlari batzuek beste adibide batzuk eman dituzte, baina oro har, ageri da agiri horiek ez zutela ahalik ematen gerla nola zihoan eta zinez zer gertatu zen jakiteko. Adibidez, agiri horietan, hastapenean ez zuten aitortu alemanak frantses lurraldean sartuak zirela, eta beraz kazetariak zeukaten informazio apurrarekin osatu behar izaten zituzten artikulua⁶⁹⁴. Horrek esplikatu dezake egunkarietan agertzen ziren artikuluen balio eskasa informazio aldetik. *Eskualduna* astekariak berriak egunez egun kontatzen zituenean, ez zuen anitzez gehiago kontatzen. Ez zezakeen. Nondik lor zezakeen informazioa?

Armadaren iturrietatik eta Frantziako Barne Ministeriotik zabaltzen zen informazioa ez zen prentsa agiritara mugatzen. 1914ko agorrilaren 3tik goiti, Barne ministerioak egunero egunkari ofizial bat sortu zuen, prefekturara igortzen zuena; prefekturak behar adina kopia egin behar zituzten departamenduko herri guztietara igortzeko, Herriko Etxe

⁶⁹¹ Horvat, «De la naissance du BEPE à la Maison de la presse: les ambiguïtés de l'information en temps de guerre, août 1914 - mars 1916», 29–31.

⁶⁹² Feyel, *La presse en France des origines à 1944. Histoire politique et matérielle*, 146.

⁶⁹³ Rajsfus, *La censure militaire et policière 1914-1918*, 41.

⁶⁹⁴ Almeida (d') eta Delporte, *Histoire des médias en France: de la Grande Guerre à nos jours*, 18.

guztietako paretan ezarria izan zedin. Barne ministroak horrela azaldu zituen egunkari haren helburuak, agorrilaren 5eko agiri batean:

«En raison de l'intérêt qu'il y a, pour la population, dans les circonstances présentes, à connaître les nouvelles parvenues au gouvernement, et à empêcher la propagation de nouvelles fausses ou tendancieuses, j'ai décidé qu'il serait créé, par vos soins, dans chaque département et arrondissement, une publication officielle qui, sous le nom de Bulletin des communes, reproduirait exclusivement et intégralement le texte du télégramme que, depuis le 3 août courant, je vous adresse pour être porté à la connaissance des populations. Ce bulletin sera imprimé chaque jour, dès la réception du télégramme quotidien et expédié aussitôt, et autant que possible le soir même à tous les maires. Il sera imprimé au recto seulement, de manière à pouvoir être affiché par les soins de la municipalité, dès sa réception. Il contiendra, sur le côté, de façon très apparente, les mots à afficher. Les dépenses que nécessiteront l'impression et l'envoi de cette feuille seront supportées par mon ministère.»⁶⁹⁵

Gisa horretan, informazioa bide bakarretik heltzen zela segurtatzen zuten, baina horrek egunkarientzat eduki berezi eta interesgarriak eskaintzeko trabak areagotzen zituen. Alde batetik, egunkarien lana errazten zuen, informazio prest-presta jasotzen zutelako, beste aldetik kazetariak beren informazio propioa lantzeko aukerarik ez zuten.

c) Beste egunkariak iturri

Agiri ofizialak *Eskualduma* astekariaren erredakziora heltzen ote ziren? Ez daukagu datu hori. Baina inon ez dugu aurkitu halakorik ukaiten zutelako aipurik, eta deusek ez digu ahalbidetzen halako ondorioen ateratzea. Dena den, egunean hiru aldiz zabaltzen ziren agiri haiek egunkarientzat zuten interesa bereziki; astekariak epe luzeagoak zituzten berri horien jakiteko, eta gainera, egoerak egunetik egunera guztiz alda zitezkeen.

Hori horrela izanik ere, *Eskualduma* berriak egunez egun argitaratzen hasi zen. Egun bakoitzari zegokion atalak lerro bakar batzuk baizik ez zituen hartzen, beraz, pentsa dezakegu beste egunkarietatik irakurri artikuluen sintesia zela euskarazko astekariak eskaintzen zuena.

Beste iturri bat ere eskuragarri izan zezakeen: prefekturak, Barne ministeriotik eguneroko jasotzen zuen telegrama departamenduko Herriko Etxe guztietara igortzen zuen, eta Herriko Etxeetan jendearen bistara jartzen zuten, lehentxeago aipatu bezala. Ez dugu garbi zein zen *Eskualduma*-koek gehien erabiltzen zuten informazio iturria. Parisko egunkari bat? *Le Courrier de Bayonne*? Herriko Etxean agertzen zuten agiria? Funtsean, horrek ez du hainbesteko garrantzirik, oinarritzko informazio iturria bera baitzen denentzat, eta hori baitzen astekari honek ere errepikatzen zuena.

⁶⁹⁵ Rajsfus, *La censure militaire et policière 1914-1918*, 32.

2. Zentsuraren antolaketa

Frantziako Gobernuak zer informazio zabalduko zen kontrolatu nahi bazuen, hainbat informazio ez zabaltzea ere segurtatu nahi zuen. Horregatik, agiri ofizialez gain, zentsura zorrotza ere indarrean jarri zuten. Zentsura aspaldiko kontua zen munduan zehar eta baita Frantzian ere. Baina 1881eko prentsaren legearekin, egunkariak ez zuten lehengo zentsurarik jasaten. 1881etik 1914 arte, prentsaren askatasun urteak izan ziren Frantzian. Prentsaren legetik landa, lehen aldia zen zentsura⁶⁹⁶ berriz indarrean jarri zutela, salbuespen gisa. Gerora, Bigarren Gerla Mundialean eta Aljeriako Gerlan ere izan ziren salbuespen egoerak. Zentsura biziki zehazki arautua eta antolatua zen. Eta ondorioak ikusgarriak ziren, begien bistan agertzen baitzen zentsura. Horrek ez du erran nahi ahulgunerik ez zuenik.

a) Araudia eta antolaketa

Egunkari eta astekariak orriak betetzeko zuten arazo bakarra ez zen informazio falta. Argitaratzen zutenaren gaineko zentsura zorrotza jasan behar izaten zuten. Gerla lehertu orduko, 1914ko agorrilaren 3an, Gerlako Ministroak salbuespen arauak ezarri zituen, eta horien artean zegoen zentsurari buruzko atala ere, prefektuei helarazi ziena. Lege berriak prentsa «hurbiletik zaintzeko» eskubidea eman zion Frantziako Gobernuari, prefekturaren eta armadako buruzagien bidez. Egunkariei eta astekariei hainbat informazio ematea debekatu zieten, bereziki gerlari buruzko gertakarien berri ematea edota soldaduen garraioari buruzko xehetasunak agertzea. Honela dio legeak:

«La loi sur l'état de siège donne au gouvernement le droit d'exercer une surveillance étroite sur la presse quotidienne et périodique, et sur toutes les publications. Les circonstances actuelles lui en imposent le devoir.»

Je vous prie de faire connaître, d'extrême urgence, aux divers organes de presse, l'interdiction qui leur est faite par le gouvernement à partir d'aujourd'hui même, de publier aucune nouvelle relative aux événements de guerre, mobilisation, mouvements et transports de troupes, composition des armées, effectifs, etc., qui ne leur aurait pas été communiquée par le Bureau de la presse fonctionnant au ministère de la Guerre.

«Dans le but d'assurer cette prescription, toutes les publications quotidiennes ou périodiques devront être avisées par vos soins que des communiqués seront faits à la presse par les soins du ministère de la Guerre (Bureau de la presse), trois fois par jour : de 10 heures à 10 h 30, de 14 h 30 à 15 heures et de 23 heures à 23 h 59. En outre, tous les quotidiens et périodiques devront envoyer au Bureau de la presse une épreuve de leur composition.»

⁶⁹⁶ Pascal Ory (zuz.), *La censure en France à l'ère démocratique: (1848-...)* (Bruxelles: Ed. Complexe, 1997).

Je vous prie de les inviter à vous faire connaître l'heure ou les heures de leur publication régulière et de les prévenir que les éditions spéciales sont toutes rigoureusement interdites.

Les journaux et périodiques pourront, après avoir envoyé cette épreuve, procéder au tirage et à la vente sur la voie publique sans autre autorisation.»⁶⁹⁷

Gisa horretan, Gerlako Ministerioak Prentsaren Bulegoa sortu zuen, eta hark ehunka ordezkari izan zituen Frantzia guztian barreiatu. Parisko Prentsaren Bulegoaz gain, eskualdeetako eta departamenduetako bulegoak ere antolatu zituzten, egunkarien gaineko kontrola egiteko, ikusgarri, kantu eta antzerkiez gain. Orotara ia 5.000 lagun ari ziren zentsura lanetan⁶⁹⁸, eta horietarik 2.000tik gora eskualde militarretan⁶⁹⁹. Hirurehun bat lekuko batzorde baziren, armadako kargudun batek eta suprefetak osatuak⁷⁰⁰. «Zentsuratzaileen zinezko armada bat» izan zen⁷⁰¹, batzuk denbora osoan inprimategian egoten baitziren egunkariak heldu orduko kontrolatzeko. Egunkariak edo astekariak inprimatu aitzineko bertzioak begiratzen zituzten, eta beharra sentituz gero, kendu beharreko zatiak seinalatzen zituzten.

Baionan ere bazegoen zentsura komitea. Pirinio Atlantikoetako departamendu artxiboen Paueko egoitzan hainbat dokumentu aurkitu dugu⁷⁰², bereziki Baionako suprefetaren eta Paueko prefetaren arteko gutunak. Hor ageri da zein ziren Baionako zentsura komiteko kideak, eta zein aldaketa izan zen denboran zehar. 1914ko abenduaren 3an, suprefetak prefetari idatzi gutunaren arabera, bi kide berri gehitu zitzaizkien Baron komandanteari, Leoarat epaileari eta Le Beuf errentadunari. Kide horiek ziren: Sautet lizeoko erretorika irakaslea eta Mandangaran zizelkaria, lehena errepublikarra eta bigarrena sozialista. 1915eko martxoaren 25ean, Antoine Malecarie, Baionako lehen mailako eskolako zuzendari ohiak hartu zuen batzordeko arduradun kargua.

Artxibo horietan begiratu ohartu gara *Eskualduna* astekaria kontrolatzeko pertsona bereziak ere izendatu zituztela. Baionako suprefetak idatzitako hainbat gutunetan aurkitu ditugu euskarazko astekaria kontrolatzearen ardura zuten kideen izenak:

Ardura hori hartu zuen lehenbizikoa, Chobirit deitura zuen abokatu bat zen. 1915eko martxoaren 9ko gutun batean proposatu zion izen hori suprefetak prefetari. Chobiriten ardura astekaria euskaratik frantsesera itzultzea zen, eta zentsura taldeak, itzulpena irakurri

⁶⁹⁷ Rajsfus, *La censure militaire et policière 1914-1918*, 30.

⁶⁹⁸ Almeida (d') eta Delporte, *Histoire des médias en France: de la Grande Guerre à nos jours*, 16.

⁶⁹⁹ Forcade, «La censure politique en France pendant la Grande Guerre», 244.

⁷⁰⁰ Olivier Forcade, «Dans l'œil de la censure: voir ou ne pas voir la guerre», in Prochasson, Christophe eta Anne Rasmussen: *Vrai et faux dans la Grande guerre* (Paris: La Découverte, 2004), 39.

⁷⁰¹ Rajsfus, *La censure militaire et policière 1914-1918*.

⁷⁰² Archives Départementales des Pyrénées-Atlantiques: 1 M 123 kartoia.

ondoan, erabakiko zuen zerbait zentsuratu behar zen ala ez. Zehaztu behar da gutun hartan suprefetak ez zuela beharrezkotzat jo *Eskualduna* astekaria ikertzeko zentsuratzaile bat gehiago izendatzea; horren ordezt, itzultzaile bat hartzea proposatu zuen, hala nola Chobirit.

Chobiritek kargu hori utzi zuenean, 1916ko uztailaren 13ko gutun batean, suprefetak Baionako liburutegiko langile bat proposatu zuen *Eskualduna* kontrolatzeko: Fort deituta zuen bat. 1917ko maiatzaren 21ean utzi zuen kargu hura, eta Baionako suprefetak ez zuen beste nehor izendatu haren ordezt. 1917ko agorrilean, Frantziako Barne Ministroaren eta Gerlako Ministroaren arteko gutun truke batean⁷⁰³ agertu zen une hartan ez zekitela *Eskualduna* astekaria bazenik ere. Kontua da, 1917ko uztailaren 27an agertu zen artikulua batez kekatu zela Barne Ministroa⁷⁰⁴. Barne Ministroak gutuna agorrilaren 11n idatzi zion Gerlako Ministroari; Gerlako Ministroak agorrilaren 14an idatzi zion 18. Eskualde Militarreko Quinquandon jeneralari, xehetasun galdez. Honek agorrilaren 17an eskuratu zituen Baionako arduradun militarren azalpenak: hark ez zekien *Eskualduna* astekaria bazenik ere, lau hilabete lehenago zentsura batzordeko ardura utzi zuen Brissé koronelak ez zuelako zehaztu *Eskualduna* astekaria bazegoenik eta maiatzaren 21a arte zentsuratzaile propioa zeukanik. Istilu hartarik landa, Frantziako Barne Ministroak zentsuratzaile propio bat izendatzeko eta astekaria kontrolatzeko eskatu zuen.

Ardura hori hartu zuen hurrengoa, beraz, militarra zen: Hastoy sarjentua, bake garaian Altzaiko irakasle zena, eta suprefetaren arabera, errepublikarra. Suprefetak, 1917ko irailaren 27ko gutunean, Hastoy aholkatu zuenean, prefetari zehaztu zion bost euskalki ulertzen zituela, hala nola lapurtera, zuberera, goi-nafarrera, behe-nafarrera eta gipuzkera.

Hastoy ez zen denbora anitz egon kargu hartan. 1917ko urriaren 16an berean, haren ordeztoko bat proposatu zuen suprefetak, hala nola Jean-Pierre Soubelet, itsasuarra, arno saltzailea ofizioz, eta 49. Infanteria Erregimentuko sarjentu ibili zena, eta zauritua izan ondoan, gerla lekutik urrundu zutena. Hark bete zuen *Eskualduna* kontrolatzeko ardura, gerlak iraun zuen azken urtean.

1914ko agorrilaren 5eko legearen⁷⁰⁵ arabera, egunkariak ezin zuten argitaratu operazio militarrei buruzko anekdota baikorrik baizik. Erregimentuen zenbakirik ezin zen eman, ez eta ere kokapenik⁷⁰⁶. Gerla hastapeneko artikulua batzuetan ageri da zentsuraren eragin hori,

⁷⁰³ Gutun horiek Vincennes-ko Lurreko Armadaren Historia Zerbitzuan (SHAT) aurkitu ditugu, 5 N 389 kartoiko, «*Eskualduna*» dossierrean.

⁷⁰⁴ Artikulu horri buruzko azalpenak «Zentsura politikorantz» atalean barnatuko ditugu: 223

⁷⁰⁵ «Loi du 5 août 1914 réprimant les indiscretions de la presse en temps de guerre», *Journal Officiel*, 1914ko agorrilaren 6a.

⁷⁰⁶ Nicolas Beaupré, *Ecrire en guerre, écrire la guerre. France-Allemagne 1914-1920* (Paris: CNRS Editions, 2006), 82.

Eskualduna astekarian. Zenbakiak zeuden lekuetan zati zuri bat zegoen, zentsuratutako zatiaren marka gisa. Horrez gain ezin zuten aipatu ere hildako soldaduen kopururik, «herritarrek morala ez galtzeko»⁷⁰⁷. Hori ez zen haizu. Eta horretaz ohar gaitezke *Eskualduna*-ko artikulua irakurtzean: ez dakigu sekulan zenbat frantses hil edo zauritu ziren gudu batetik landa. Zenbakirik ez zen sekulan argitaratzen.

Alderantzizkoa ere ez zen haizu. Porrotak ez ziren aipatzen prentsan, baina hedabideei eskatzen zitzairen garaipen faltsurik ere ez kontatzea, baikortasun faltsurik ez sortzeko⁷⁰⁸. 1870ekoaren oroitzapenak ere bultzatu zituen horretara, *Eskualduna* astekariak ere idatzi zuen bezala:

Hau ere badugu gerla huntan, lehengoan ez ginuena: 'sekretu gaitza'. Zagozte zenbeit aldiz begiak churituak, berri beha; eta kechu aste batzuez, Eskualdunak zoin berri guti dautzuen ekartzen.

Guti baita berri 'egiazkorik'. Orizue, 1870ean, bazinuketen berri. Egun guzietz tutaka, oihuka heldu ziren hirietarik kampaña herrietarat espantuak, bitoria bitoriaren gainera. Zafraldi onik harturik daude orduan alemanak mihietan, depecha eta paper mota guzietarik, handi eta ttipietan: cornet à piston, atabal, chirula eta turruteria:... 'trahison' eta 'victoire' aldizka trompetatzen zaitzutela muthiko tchar batzuek nondik noren izenean ziren heldu ere nehork ez baitzakien.

Pentsa kazetak ichilik zaudenetz.

Orai holako deus edo kasik deus ez zaiku haizu. Kazetak oihuka saltzera ez haizu: apha behar eskaini, erdia gutiago salduko bada ere.

Ez haizu kazetetan zer nahi emaiterat, gerlako berririk: berri tchar ala on, hala direnak baizik ez eman behar; hek ere ez oro. Jendea izi edo etsaia argi dezaketenik ez behar eman, edo "gare la censure!"

Debeka lezakete kazeta eta hartaraz geroz, gaztiga ere garrazki.

Horra nola gauden 1914an hoin gerlako berri gutirekin: berri 'officiels, communiqués' direlako hek bakarrik haizu emaita.

Guk oro jakin nahi eta hoin guti jakitea ezta laket. Nahi badu ba: hobe baita ordean: deusetan ez baita gerlan baino zuhurrago, beharrago, 'sekretua', ichiltasuna. Hortakotz dire soldadoak ere gerlatik hunat hango berrien nola nahi emaiterat ez haizu.

Hilen, kolpatuen, presunereren sakeletan hatzeman balitzate asko chehetasun etsaiek, jakin behar ez dituztenetarik, hanbat gaichtoago guretzat.

Debeku hoik oro, ontsa baino hobeki. [...] Orotan handiena hau: hau har othoi, orok gogoan, eta ez ez gero niri gal; 1870ean, ororen buru, bitoria galdu ginuela, eta 1914an irabaziko.⁷⁰⁹

Aitzineko gerlaren galtzearen trauma oraino bizi zen gerla hau lehertu zelarik. Gerla hartan, egunkarien diskrezio faltaz, Alemaniako aitzindariak Frantziako armadaren harat-honatak jakin ahal izan zituzten, *Le Matin* egunkariak aipatu baitzituen. Jean-Jacques

⁷⁰⁷ Rajsfus, *La censure militaire et policière 1914-1918*, 34.

⁷⁰⁸ Almeida (d') eta Delporte, *Histoire des médias en France: de la Grande Guerre à nos jours*, 14.

⁷⁰⁹ Manex Hiriart-Urruti, «1870-1914», *Eskualduna*, 1914ko urriaren 9a.

Beckerrek ere aipatu du 1870ean egunkariak informazioak ematen zituztelako jakin ahal izan zutela alemanek frantsesak zertan ari ziren⁷¹⁰. Eta hainbat aldiz aipatu zen orduan galdu bazuten ere, oraingoan irabaziko zutela. Beraz Sophie Horvaten arabera, armadako aitzindariak gerla hartatik landa argi zuten prentsarekiko mesfidati agertu behar zirela, eta 1914ko ekainean, jadanik, zentsura antolatzea pentsatzen hasiak ziren⁷¹¹. Zentsuraren edo «diskrezioaren» aldeko deia 1870eko gerlako portaera harekin ere lotzen zen.

Horvatek Armadaren Zerbitzu Historikoan aurkitu dokumentu «konfidentzial»⁷¹² batean ikusi zuen Frantziako Gobernuak zein neurri zorrotzak hartzeko asmoa zuen: «denen mesederako», edozer argitaratu aitzineko kontrol bat egingen zuten. Kontrola hiru ataletan banatua zen: aldizkariak, egunkariak eta telegramak⁷¹³. Hain zuzen, zentsuratzailen lana ez zen egunkarien kontrolera mugatzen, posta ere zentsuratzen zen, hala nola soldaduek idazten zituzten gutunak hurbiletik kontrolatzen zituzten, zentsuraren arauak ez zituztela urratzen – besteak beste, non zeuden ez zutela azaltzen – segurtatzeko⁷¹⁴.

Jean Saint-Pierrek eta *Zerbitzari*-k beren gutun batzuetan aipatu izan zuten gutunen kontrol hori:

Agorrilaren hamarretik harat ez gira gehiago haizuko gure letren hesterat. Berriak igortzekotz, agerian igorri beharko, letra idekian, edo paper zabalean. Orai artio ere frangotan aipatu daukute etzela behar deus berririk hedatu, alamaner zerbeit argi eman zezakeenik gerlako zeretan. Hortan ez du nehork erraitekorik.*

*Orai artio igorriak, guti bazen guti, aldian aldikoa neurtuz eta pisatuz igorri daukizut, eta beti kasik hala hala utzi daukizute. Oraidanik begiak zorrotzago dituzkete jaun hoiek, bereziki eskuarari aiherrakin badire. Aphairu txarra egingen duzu beraz hemendik goiti ene berriekin.*⁷¹⁵

Armada bakoitzak bere zentsura batzordea zeukan, eta soldaduen gutunak eta baita zibilenak ere irakurtzen zituzten. Batzorde bakoitzak 15-25 lagun zituen, horietatik bost militar kargudunak eta besteak hainbat ofiziotakoak, baina gehienak administrazioko funtzionarioak edota irakasleak, bankuko langileak, notarioak edo apaizak⁷¹⁶. Baina haien zentsura ez zen leku izenen ematera mugatzen, segurtatu behar zuten soldaduek ez zutela

⁷¹⁰ Jean-Jacques Becker, «La censure, ça sert à gagner la guerre», *L'Histoire* 143 (1991ko apirila): 92.

⁷¹¹ Horvat, «De la naissance du BEPE à la Maison de la presse: les ambiguïtés de l'information en temps de guerre, août 1914 - mars 1916», 11.

⁷¹² Document n°1000, ministère de la Guerre, Section Presse, Confidentiel, Instruction sur le service de contrôle de la Presse, 30 septembre 1915, SHAT 5 N 550.

⁷¹³ Horvat, «De la naissance du BEPE à la Maison de la presse: les ambiguïtés de l'information en temps de guerre, août 1914 - mars 1916», 15.

⁷¹⁴ Bruno Cabanes, «Ce que dit le contrôle postal», in Prochasson, Christophe eta Anne Rasmussen: *Vrai et faux dans la Grande guerre* (Paris: La Découverte, 2004), 56.

⁷¹⁵ Jean Saint-Pierre, «Letra idekiak», *Eskualduna*, 1915ko agorrilaren 13a.

⁷¹⁶ Cabanes, «Ce que dit le contrôle postal», 57.

jarrera kritikorik agertzen edota herritar zibilei informazio etsigarririk ez zietela emanen. Kontrolatuak zirela jakiteak auto-zentsura egitera behartzen zituen⁷¹⁷.

Euskal Herria hartzen zuen 18. Armada Gorputzak ere bazeukan bere kontrol batzordea, Bordelen. Pauen aurkitu dugu batzorde horretako parte ziren elizgizonen zerrenda. Hemeretzi izenen artetik bat Donibane Lohizunen zegoen, mobilizazio egunean, hala nola Lopez de la Vega⁷¹⁸. Elizgizon gehienak misiolariak ziren. Hala ere, zehaztu behar da Bordeleko eskualdeko posta kontrol batzordean, orotara, 189 kide bazirela. Horietatik 19 militarrek eta gainerako 170ak zibilak.

Soldaduen gutunen irakurtzearen beste helburua soldaduen iritziaren eta gogoaren neurtzea ere bazen, astero irakurtzen zituzten 180.000 gutunen bidez⁷¹⁹. Armada gorputz bakoitzak egunero txosten bat egiten zuen, gutunak irakurri ondoan, soldaduen iritziarekin. Txosten haietariko batzuk irakurri ditugu Vincennes-eko Service Historique de l'Armée de Terre (SHAT)-ren artxiboan⁷²⁰. Hor ageri da zein ziren gutunak ez helaraztearen irizpideak eta, aldi bakoitzean, irakurritako gutunetatik zenbat sesituak ziren eta zergatik. Egin ditugun zundaketa batzuen arabera, egunean gutun bakar batzuk baizik ez zituzten sesitzen, presoez hitz egiten zutelako, behar ez ziren xehetasunak ematen zituztelako edota «herri etsaiekin» trukaturako gutunak zirelako, adibidez.

b) Zentsuraren ezaugarriak

Zentsuraren ondorioek itxura berezia ematen zieten garai hartako egunkariei. Zentsura batzordeko kideek inprimategian seinalatzen zuten zer pasarte kendu behar zuten. Argitalpeneko zuzendariak zentsuratzaileen eskaera onartu behar zuten, edo bestela egunkariaren argitaratzea eteteko abisua ukanen zuten, non eta ez zen argitaratutako zenbakia salmentatik kentzen. Horren emaitza zen egunkari edo astekarietan maiz agertzen zirela hitz batzuen lekuan lauki zuriak, edo lerro oso batzuk zuriz, ez baziren paragrafo oso batzuk edo zutabe oso batzuk.

Hori ere kaltegarri zen informazioaren kalitatearentzat, informazio zaharkituak argitaratzeko arriskuaz gain, azken mementoan kentzeko eskatutako artikulu baten ordezkatzeko astirik ez zeukatelako:

⁷¹⁷ Rousseau, *La guerre censurée. Une histoire des combattants européens de 14-18*.

⁷¹⁸ Archives départementales des Pyrénées-Atlantiques: 1 M 122 kartoia.

⁷¹⁹ Jean-Noël Jeanneney, «Les archives des commissions de contrôle postal aux armées, 1916-1918», *Revue d'histoire moderne et contemporaine* (1960ko urtarrila-martxoa).

⁷²⁰ Service Historique de l'Armée de Terre: 16 N 296 kartoia.

«L'heure à laquelle les ordres étaient donnés rendait impossible le remplacement de l'article: il fallait donc «échopper», c'est-à-dire gratter sur le cylindre de plomb, les lignes condamnées. Ce qui donnait aux journaux une apparence singulière, et «les vidait». Cette censure excessive allait jusqu'à l'incohérence, décisions arbitraires voire contradictoires. Des dépêches d'agences, qui lui avaient passé sous les yeux et dont elle avait permis la publication en feuilles sont ainsi supprimées, elle empêche la reproduction d'articles qu'elle avait laissé paraître dans d'autres journaux»⁷²¹.

Euskal Herriko agerkariak ere halakoak bizi izan zituzten. Beren zentsuratzailerak bazituzten. 18. Eskualde militarreko zentsuratzailerak ehun bat agerkari kontrolatu behar zituzten, eta horietan zen *Eskualduna* ere⁷²². *Le Courrier de Bayonne* egunkarian, adibidez, maiz agertzen ziren zati batzuk zuriz. 1914ko lehen hilabeteetako aleei begiraturaz, zentsurak jasan zituzten irailaren 6, 7, 23, 25 eta 30eko egunkariak. Irailaren 23an zutabe oso bat kendu zuten, artikulua titulua bakarrik atxikiz. Urriaren 1, 5, 6, 8, 12, 21, 24, 28 eta 30ean ere izan zen zentsura, batzuetan zati ttipi bat, beste batean zutabe oso bat. Azaroan zentsura gutxiago jasan zuen egunkari hark, 21ean zati ttipi bat eta 22an ia zutabe oso bat. Abenduaren 5, 7, 14 eta 22an ere berdintsu izan zen. Konparazioz, *Eskualduna* astekarian anitzez gutxiagotan gertatu ziren lauki zuriak.

Haste-hastetik, zentsura batzordeak biziki zorrotzak izan ziren⁷²³. Ez zuten pasatzen uzten Frantziako armadaren operazioen berririk, honen taktika edo estrategia ezagutarazteko aukera eman bazezaketen. Halaber, iritzi publikoan eragina ukan zezakeen berririk ere ez zuten ematen, operazioei zegokienez. Hori aski ez balitz, zenbait guduren garaian izan ziren legebiltzarreko eztabaidak edo prentsako polemikak ere zentsuratzen zituzten, bereziki Charleroiko borrokatik eta Verdunekotik landa⁷²⁴. Funtsean, gerla luzatuko zela argi gelditu zenean, zentsura bera gero eta esparru zabalagoetara hedatu zen⁷²⁵. Marcel Berger eta Paul Allard zati zentsuratuen bila ibili ziren, eta zentsuraren ezaugarriak azaldu zituzten. Haien arabera, ez zituzten segurtasun neurrien arabera bakarrik hartzen zentsura erabakiak, *Le Bonnet Rouge* aldizkaria, adibidez, biziki hurbiletik zaintzen zuten, eta langileriarri buruzko artikulua oso bat zentsuratua izan zen, zentsura politikoa izan zitekeenaren adibide⁷²⁶.

⁷²¹ Horvat, «De la naissance du BEPE à la Maison de la presse: les ambiguïtés de l'information en temps de guerre, août 1914 - mars 1916», 20.

⁷²² Rajsfus, *La censure militaire et policière 1914-1918*, 58.

⁷²³ Bonnefous, *Histoire politique de la Troisième République. Tome second. La Grande Guerre 1914-1918*, 103.

⁷²⁴ Forcade, «La censure politique en France pendant la Grande Guerre», 119.

⁷²⁵ Livois (de), *Histoire de la presse française. 2, de 1881 à nos jours*, 401.

⁷²⁶ Marcel Berger eta Paul Allard, *Les secrets de la censure pendant la guerre* (Paris: Editions des Portiques, 1932), 199.

c) Zentsuraren ahulguneak

Zentsura ongi antolatua bazen ere, dena ez zen zentsuratzen ahal. Bere mugak bazituen. Soldaduen gutun guztiak ezin zituzten irakurri, posta zentsuratzen zutenak lanez itoak zirelako⁷²⁷. Lan karga horrengatik, kontrola zundaketa bidez egiten zuten; batzuk baizik ez zituzten kontrolatzen⁷²⁸. Beraz zentsuratzailleek zentsuratuko zituzten hainbat gutunek lortzen zuten helmugara heltzea. Egunero milioika gutun ateratzen ziren gerla tokietatik eta denak ezin zituzten kontrolatu, nahiz eta denborarekin zentsura gero eta egituratuagoa izan eta, beraz, ondorioak ere gero eta eraginkorrago izan, baina auto-zentsura ere izan zitekeen horren azalpena⁷²⁹. Dena den, soldaduek beste bide batzuk ere aurkitzen zituzten idaztea haizu ez zena ulertarazteko; adibidez, tokiaren izena enigma gisa jartzen zuten. Trikimailu ezberdinen zerrenda egin gabe, aipa daiteke *Eskualduna* astekarian agertu zen bat; Jean Saint-Pierrek ez zezakeen idatz non zegoen, baina hitz joko baten bidez, herriaren izena euskaraz idatzirik, euskara zekiten irakurleek asma zezaketen non zegoen:

*Hortik laster, urrunago treinak ereman ginintuen, Gathuluzen gaindi: (errazue frantsesez, delako gathua baita hiri bat, Baionaren heinekoa).*⁷³⁰

Denek ulertzen dugu Châlons herriaz ari zela. Fineziarik gabeko entseguia izan zen, baina funtzionatu zuen; bi aldiz funtzionatu, gainera, gutunen zentsuraren aztaparretatik ihes egiteaz gain, egunkarien zentsurarenetatik ere salbatu baitzen. Baina erran behar da, postaren kontrola ez bazen beti eraginkorra, itxura guztien arabera egunkarien kontrola ere ez zela hala. Gudu biziki bortitz batzuen kronikak agertu izan ziren, prestakuntza falta kritikatzeko zutenak, gainera⁷³¹. Zentsura batzordeek ere ez zuten beti hain zorrotz jokatzeko. Adibidez, 1916ko uztailetik 1917ko uztaileira, 1.076 artikulua mozteko eskatu zuten, eta horien herenak moztuak izan gabe agertu ziren, zentsuratzailleen aginduari kasurik egin gabe, baina ez zituzten zigortu⁷³². *Eskualduna*-k ere beste hainbeste egin zuen, Verduneko guduetatik landa. *Zerbitzari*-ren artikulua batez dugu solasa bereziki, nahiz eta Jean Saint-

⁷²⁷ Rajsfus, *La censure militaire et policière 1914-1918*, 139; Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 20.

⁷²⁸ Jacques Meyer, *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre* (Paris: Hachette, 1966), 166.

⁷²⁹ Baconnier, Minet eta Soler, *La Plume au fusil. Les poilus du midi à travers leur correspondance*, 26.

⁷³⁰ Jean Saint-Pierre, «Nun gaindi?», *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 19a.

⁷³¹ Audoin-Rouzeau, *A travers leurs journaux: 14-18, les combattants des tranchées*, 75.

⁷³² Christian Delporte, «Journalistes et correspondants de guerre», in Audoin-Rouzeau, Stéphane eta Jean-Jacques Becker: *Encyclopédie de la Grande Guerre 1914-1918. Histoire et culture* (Paris: Bayard, 2004), 719.

Pierrerena ere gogorra izan⁷³³. Zentsuratzailleek zorrotz jokatu balute, nekez uler zitekeen nola eman zen argitara halako lekukotasun gogorrik.

Zentsura batzordeak ez zuela beti ongi funtzionatzen erakusteko, Pirinio Atlantikoetako Artxiboan aurkitu dugun gutun sorta bat daukagu lekuko⁷³⁴. Paueko prefetaren eta Baionako suprefetaren arteko gutun batzuk ziren. Paueko prefeta haserre agertu zen 1915eko urtarrilaren 20ko *Le Courrier de Bayonne* egunkarian «Le Pacifiste» izeneko artikulu bat agertu zelako. Zentsura batzordeak artikulu hura ikusi zuen ala ez, eta ikusi baldin bazuen, noren onespenezkin onartu zuten argitaratzea jakin nahi izan zuen. 1915eko urtarrilaren 29ko gutun batean eman zizkion azalpenak suprefetak: zentsura batzordea egunero biltzen zen, 14:00etan, Baionako Plazan; egunkari bakarra zeukan kontrolatzeko, *Le Courrier de Bayonne*, eta oso gutxitan zentsuratu behar izaten zituzten artikuluak. Egun hartan ordea, lau kidedatik hiru falta ziren. Kide bakarra eta armadako ordezkaria gelditzen ziren, beraz. Baina delako artikulu hartan informazio konfidentzialik ez zegoela argudiatu zuten, artikulua argitaratzea justifikatzeko.

3. Zentsuraren onartzea

Zentsura jasangaitza eta onartezina izan daiteke prentsari denarentzat. Informazioa emateko traba handia da. Baina ohartuko garen bezala, hedabideak jokoan sartu ziren. Zentsuraren logika onartu zuten. Zentsura ez zen arlo militarrean mugatu, ordea, eta zentsura politikorantz lerratu zela salatu zuten, geroago, hainbat ikerlarik. Baina beste anitzek bezala, *Eskualduna*-koek ere, zentsura justifikatu zuten. Hala ere, zentsuraren arrastoak ez ziren hain gogor sentitu astekari hartan, hain zuzen onartzen zutelako eta beraz auto-zentsura handia zelako.

a) Zentsura politikorantz

Gerla aitzina joan ahala, diskrezio horri eutsi behar zioten, eta hala izan zen Verduneko bataila garaian ere. Irizpideak are gogorragoak izan ziren: ezin zen aipatu alemani aliatuen posturen edo egoeraren berri eman ziezaiokeen berririk edota deskribapen errealistegirik

⁷³³ Artikulu horiek bigarren zatian landuko ditugu: 358

⁷³⁴ Archives Départementales des Pyrénées-Atlantiques: 1 M 123 kartoia.

edo gogorregirik, baina ez eta ere armadako aitzindariak edo Frantziako gobernuak kritikatzeko zuten artikulurik⁷³⁵.

Alabaina, hastapenean zentsura helburu militarretara eta diplomatikoetara mugatzen bazen, edo hala aurkezten bazuten, zentsuraren izaera politikoa agertzen hasi zela kritikatu zuten geroago hainbat ikerlarik. Zentsura politikoa martxan jarri zela dio Maurice Rajsfusek: «gobernuak kritikatzeko duen orok herria arriskuan ezartzen du»⁷³⁶. Eta helburu politikoa horiekin kontrolatzen zituzten soldaduen gutunak ere: ez zen haizu berri ezkorrik ematea, eta halako gutunak edo gerlaren kontrako jarrerak erakusten zituztenak ez ziren helmugara heltzen⁷³⁷. Azkenik, egunkariak eta kazetariak beste betebeharrak batzuk ere bazituzten: araua ez zen mugatzen berri mota batzuen ezkutatzera; 1914ko agorrilaren 6ko agindu batean, kazetariak jarrera abertzalez jokatzeko eskatu zitzaizkien⁷³⁸.

Goraxeago aipatu dugu Paueko prefeta nola haserretu zen *Le Courrier de Bayonne* egunkarian «Le Pacifiste» izeneko artikulua argitaratu zelako. Prefeta kexu zen artikulua hark irakurlearen artean ezkortasuna edo etsipena eragin zezakeelako. Gutun franko idatzi zuten elkarren artean, atal horren harira. Gehiago sakondu daiteke, baina guk gainera irakurri ondoan erran dezakeguna da, zentsura politikoa nahia ageri zela prefetaren eskaeren gibelean. Hots, gure begiekin ikusi dugu prefeta eduki politikoa jakin batzuk zituzten artikulua zentsuratzearen alde zegoela.

Antzeko beste istilu bat gertatu zen *Eskualduna* astekariaren inguruan ere. Pirinio Atlantikoetako artxiboan ez zen deus agertu, baina Vincennes-eko Frantziako Lurreko Armadaren Historia Zerbitzuan ageri interesgarri batzuk aurkitu ditugu, astekari hark argitaratu artikulua bati buruz. Frantziako Barne Ministroak gutuna idatzi zion Gerla Ministroari, 1917ko agorrilaren 11n, *Eskualduna*-n argitaratu zen artikulua batez kexatuz, eta hori nolaz gertatu zen galdetuz⁷³⁹. Ondoko zati hau zen Barne Ministroari gustatu ez zitzaiona:

*Bada zerbeit bat Jainkoaren laguntza gure ganik urruntzen duena. Eta zerk bada?... Hilari egina izan zaizoten ebasgo itsusiak, hek berentzat utzi mezak hartu direlarik. Ebasgo horrek dirauno, Jainkoak ez gaitzazke lagunt, behar ginuken bezenbat.*⁷⁴⁰

⁷³⁵ Françoise Navet, «Verdun et la censure», *Guerres mondiales et conflits contemporains* 182 (1996): 45–56.

⁷³⁶ Rajsfus, *La censure militaire et policière 1914-1918*, 51.

⁷³⁷ Isnenghi, *La Première Guerre Mondiale*, 78.

⁷³⁸ Forcade, «La censure politique en France pendant la Grande Guerre», 36.

⁷³⁹ Vincennes-eko SHAT zerbitzuko 5 N 389 kartoiko, «*Eskualduna*» dosierreko gutun sorta batetik ateratako informazioa.

⁷⁴⁰ Blaise Adéma, «Bat eskas», *Eskualduna*, 1917ko uztailearen 27a. Artikulua ez da izenpetua, eta Barne Ministroaren gutunetan ez da ageri egilearen izenik. Artikulua horren egilea Adéma zela guk ondorioztatu

Aitortu behar dugu zati horrek ez digula arreta berezirik piztu, izatekotan Frantziako politikaren baitan laikoan eta elizkoien arteko gatazkaren isla zela, baina ez zela funtsezko garrantzia zuen zatia. Frantziako Barne Ministroak, artikulua hori zentsuratu behar zela erranez, zentsura politikoa nahi zuela argi gelditu da adibide horrekin.

b) Zentsuraren justifikazioa

Oraintxe aipatu ditugun asmo politiko horiek kontuan harturik, egunkari batzuek zainketa berezia jasaten zuten, *L'Action Française* egunkariak, Charles Maurras politikari polemikoaren editorialen beldurrez⁷⁴¹. Baina, funtsean, egunkari horrek gerla itsuki sostengatu zuen eta horren harira ez zen Frantziako Gobernuaren debekuen gainditzen hasi, bere abertzaletasun irmoak bultzaturik. Alderantziz, Giza Eskubideen Liga egunkariaren zentsura kritikatzeko kanpainak egiten hasi zenean, *L'Action Française* mugimenduak kanpaina hura gogor kritikatu zuen, nazio interesen kontrakoa eta beraz bere buruaren kontrakoa zelakoa⁷⁴². Jarrera horrekin koherente izan zen, eta ondorioz, biziki zentsura gutxi jasan zuen⁷⁴³.

Baina, funtsean, ez zen egunkari hori zentsura arauekin bat egin zuen bakarra. Jarrera hori aski orokorra zen. Stéphanie Dalbinek *L'Est Républicain* egunkariaren jarrera ikertu du, eta hark ere ontzat eman zuen zentsuraren legea⁷⁴⁴, nahiz eta 1916tik aitzina kritikatzeko hasi ziren⁷⁴⁵. Gorago agertu dugun *Eskualduna*-ko pasartean («Debeku hoik oro, ontsa baino hobeki»)⁷⁴⁶ ageri den jarrera zuten gainerako egunkariak ere: batasun sakratuaren giroan, zentsura ontzat hartu zuten⁷⁴⁷. Jean Saint-Pierrek ere gutuneko kontrola aipatu zuen artikuluan, justifikatu zuen zentsura hori:

Aho handiak izan direla badakit, ezdeusetarik egiten baitute mendia.

Izan dire bakhar batzu, beren erreken eta lerroen moldea ager arazi dutenak, itzul inguru guziekin; sekulan etsaiaren eskuetat erortzen bada halako bat, ez baita gaizki loriatuko alaman tzar barne handia!

dugu, artikulua hori editoriala delako eta gorago esplikatu dugulako zergatik ondorioztatu dugun garai hartako editorial idazlea Blaise Adéma zela: 224.

⁷⁴¹ Almeida (d') eta Delporte, *Histoire des médias en France: de la Grande Guerre à nos jours*, 17.

⁷⁴² Weber, *L'Action française*, 113.

⁷⁴³ Forcade, «La censure politique en France pendant la Grande Guerre», 516.

⁷⁴⁴ Dalbin, *Visions croisées franco-allemandes de la première guerre mondiale: étude de deux quotidiens: la Metzger Zeitung et L'Est Republicain*, 240.

⁷⁴⁵ Ibid., 244.

⁷⁴⁶ Hiriart-Urruti, «1870-1914». 1914/10/9.

⁷⁴⁷ Forcade, «Dans l'œil de la censure: voir ou ne pas voir la guerre», 38.

*Bertzalde tropen harat hunatak: behar zaizko gorde baitezpada etsaiari. Nork daki ez othe duten gure aintzindariak holako zerbeit gogoan ondoko egun hautako?*⁷⁴⁸

Zerbitzari-k horrela idatzi zuen, Saint-Pierreren jarrerarekiko ñabardura batekin:

*Ikusten ditugunak oro erraiten ahal bagintu, banuke erraiteko. Bainan gure aintzindariak ichil egoitea manatzen daukute. Berek dakite zertako.*⁷⁴⁹

Uler daiteke halako pena bat bezala bazela, «berek dakite zertako» esaldi horretan, gaitzeste zerbait bezala. Baina *Eskualduna*-ren diskurtso orokorra ikusiz, konfiantza bat ere bai ager daiteke, oro har, diziplina ez baitzuten dudan ezarri.

Gisa guziez, hastapenean segurik, gerla laburra izanen zelako usteak ere zentsura onartzera bultzatu zituen⁷⁵⁰. Hala ere, egunkariaren aldi baterako etetearen edo zenbaki baten ale guztien kentzearen mehatxuaren aurrean eta hori obratzeak egunkariaren geroarentzat zuen arrisku handiaren aurrean, prentsa egileek nahiago zuten zuhur jokatu eta, ondorioz, auto-zentsura praktikatzan zuten⁷⁵¹.

c) Auto-zentsura

Zentsurak zenbait ahulgune zituela erran badugu ere, salbuespenak ziren. Zentsuraren irizpideen arabera argitaratu behar ez ziren pasarte batzuk argitaratzeak ez du pentsatzera eman behar egunkari eta astekariak zentsurari ihes egiteko borroka batean ari zirenik. Funtsean, auto-zentsura zen zentsura guztietan eraginkorrena. Ia agerkari guztiek onartu zituzten gerlako baldintza horiek, batasun sakratuaren izenean⁷⁵². Kazetariak eta egunkariak onartu zuten haien betebeharra herritarrei itzaropena galtzeko biderik ez ematea zela. Horregatik, gerlaren kontakizun «eztitu» bat egiten zuten, soldaduek jasaten zituzten bortizkeriak isilaraziz, «gatazkaren irudi onargarri bat eraikitzen parte hartzen» zutelako, bestela herritarrek pentsa baitzezaketan haien ahaideak alferrik hil zirela⁷⁵³. Baina soldaduek berek ere auto-zentsura antzeko helburuekin egiten zuten, hots, ez zituzten lekukotasun gogorregiak kontatzen, ez bakarrik zentsuraren beldurrez, baina bereziki etxeoak ez zitezen gehiegi kezka⁷⁵⁴.

⁷⁴⁸ Saint-Pierre, «Letra idekiak».

⁷⁴⁹ Jean Elizalde, «Aspaldikoari ongi ethorri», *Eskualduna*, 1915ko irailaren 17a.

⁷⁵⁰ Forcade, «La censure politique en France pendant la Grande Guerre», 43.

⁷⁵¹ Almeida (d') eta Delporte, *Histoire des médias en France: de la Grande Guerre à nos jours*, 16.

⁷⁵² Ibid., 18.

⁷⁵³ Ibid., 26.

⁷⁵⁴ Cabanes, «Ce que dit le contrôle postal», 60.

Hala ere, auto-zentsurarena ere neurtu behar da. Gerla hasi zenean Gerlako Ministro Alexandre Millerandek kazetariari auto-zentsura egitea eta informazio iturri ofizialekara mugatzea exijitu zien⁷⁵⁵. Baina ez dirudi hori gogoz kontra egin zutenik, ez beti, hasteko, eta ez egunkari guztiek. *L'Est Républicain* egunkariak, adibidez, auto-zentsura egiten zuela dio Stéphanie Dalbinek, nahiz eta errealitatea desitxuratzen zuten. Frantziarentzat txarrak ziren berriak ez zituzten ematen, soldaduen heriotzak aipatzeko ordez, soldaduen heroismoaz ari ziren eta etengabe bilatzen zuten gerlaren desdramatizatzea⁷⁵⁶. Ikusi dugu *Eskualduna*-k, adibidez, osoki justifikatzen zituela neurri horiek eta informazio gutxi ematearen frustrazioa onartzen zuela, informatzea bera baino garrantzitsuagozat zeuzkan arrazoiaren izenean, hala nola Frantziaren egoeraren izenean.

Zinez gutxitan ageri ziren zentsurak eragin zati zuriak *Eskualduna* astekarian. Baina Pirinio Atlantikoetako artxiboan, egunkariaren zentsurari buruzko txostenetan, egunkari anitzi buruzko oharra aurkitu baditugu ere, *Eskualduna* astekariarekin izandako istilu bakar baten arrastorik ez zen⁷⁵⁷. Ikusi dugu horrek ez duela erran nahi astekari hori bazenik ez zekitela; bai, bazekiten eta pertsona batzuk izendatu zituzten astekariaren kontrolatzeko. Baina ez zen kezarik izan astekari horri begira. Horrek erakusten du astekariak diziplinaz segitzen zituela idatzi beharrekoari buruzko aginduak.

Murrizketa larrienak eta lehen kolpetik ikusten ez zirenak (nahiz eta zenbait kasutan biziki ikusgarriak izan) zentsurak eragiten zituenak ziren. Kazetariak ez zuten beren lana libreki egiteko aukerarik. Mila traba zituzten zinezko informazioa lortzeko, eta argitara zezaketen bakarra Frantziako Gobernuak iragazitakoa zen. Horrez gain, zentsura zorrotz aplikatzen zuten, segurtasun arrazoiengatik. Dena den, egunkari gehienek zentsura onartu zuten, gerla egoerak eragin zuen abertzaletasunaren izenean. Alde horretatik, auto-zentsura nagusitu zen, eta hori izan zen *Eskualduna* astekariaren kasua ere.

⁷⁵⁵ Rajsfus, *La censure militaire et policière 1914-1918*, 23.

⁷⁵⁶ Dalbin, *Visions croisées franco-allemandes de la première guerre mondiale: étude de deux quotidiens: la Metzger Zeitung et L'Est Républicain*, 247–258.

⁷⁵⁷ Archives départementales des Pyrénées Atlantiques: 1 M 126 kartoia.

C. Sinesgarritasunaren eztabaida

Informazioa kontrolatzeko eta hainbat informazio ez zabaltzeko ahalegin horrek politika horren sustatzaileen eta prentsaren kontrako kexuak ere piztu zituen. Prentsa joko horretan sartu zen, bai, baina fama txarra ere bildu zuen horregatik. Propagandak hein batez baizik ez zuen funtzionatu, bere kontra ere itzuli zen. Alabaina, gerlan zebiltzanek egiazko berriak jakin nahi zituzten, bai gerlako berri orokorrak, baina baita beren herrialdeko berriak ere.

I. Propaganda eta honen eragina

Zentsuraren beste aldea propaganda zen. Prentsan Frantziaren aldeko eta Alemaniaren kontrako propaganda handia zabaltzen zen, informazio iturri ofizialaren bozeramaile zenez gero. Baina sinesgarritasuna galdu zuen; soldaduek ez zuten gehiago prentsan agertzen zena sinesten. *Eskualduna* astekariari ere hori gertatzen ote zitzaion?

a) Informazio ofiziala

Goraxeago argitu ditugun agiri ofizialak edota eguneroko buletinak ez ziren zinezko informazioa ematen ibiltzen, Barne ministroak aipatzen zuen helburuaren kontra. Informaziorik ez zuten ematen, eta hainbat gauza gordetzen zuten. Prentsari eskaintzen zioten bazka zinez meharra zen, eta iturri bakar horrekin konformatu behar zuten. Ez zitzaien inporta, ordea, ez beti egia kontatzea, batzuetan informazio faltsuak ematea edota sekretuak gordetzea, gerlaren beharren aitzakian⁷⁵⁸, sekretuaren eta informazio faltsuaren helburua Frantziako egunkariak irakurtzen zituzten etsaien engainatzea ere bazelako. Ondorioz, non eta bazka poxi bat baldin bazuten, ez zitzaien inporta propaganda hutsa egiten bazuten ere⁷⁵⁹. Gisa horretan, gerla hasi eta berehala, egunkari guztiek gauza bera idazten zuten, hala nola garaipena hurbil zela, Frantziako armada ia Alsaziaraino heldu zela eta Frantziako Gobernuak Paristik joan bazen, armada askeago izateko izan zela⁷⁶⁰. Baina errealitatea guztiz bestelakoa zen: Alemaniako armada Parisera hurbildua zelako joan zen

⁷⁵⁸ Christophe Prochasson eta Anne Rasmussen, *Vrai et faux dans la Grande guerre* (Paris: La Découverte, 2004), 17.

⁷⁵⁹ Almeida (d') eta Delporte, *Histoire des médias en France: de la Grande Guerre à nos jours*, 19.

⁷⁶⁰ Lestocquoy, *Histoire du patriotisme en France. Des origines à nos jours*, 210.

Gobernua Paristik Bordelera. Kontua zen frantsesak ez zirela kezkatu behar eta berri txarrak ematea saihestu nahi zutela.

Propagandaren alde bat zen alemanak izatez gaizkiaren parte zirela sinetsaraztea. *Eskualduna* astekariak gisa orotara larrutu zituen alemanak. Baina ez zen bakarra. Urte anitzen buruan, *Revue Historique* aldizkariak berak aitortu zuen bera ere propaganda horretan aritu zela, erranez alemanen 1815eko gehiegikeriek azaltzen zituztela 1916koak, eta mende bat lehenagoko gaiztoa ezin zela zintzoa izan orain⁷⁶¹. Mezu hori orokorra zen, beti horrekin ari ziren, eta baita *Eskualduna* ere.

Propaganda baino gehiago, «buru galkatzea» edo «bourrage de crânes» delakoa izan zen gerla hartan. Propaganda horren ardatzak denetan agertzen ziren, eta noski, baita *Eskualduna* astekarian ere. Garaipena hurbil zela sinetsarazteaz gain, etsaia moralki apaltzea edo gutxiestea zen propaganda horren ardatz nagusia. Horrekin loturik, soldaduen heroismoa eta frantses nazioaren etorkizuna jokoan zela azpimarratzen zuten⁷⁶². Propagandaren oinarri horiek eta zentsura eta informazio ofiziala txanpon beraren bi aldeak ziren. Informazio gutxi izanez, nolazpait bete behar zituzten orriak eta propaganda baliabide erosoak zen horretarako. Informazio negatiboak gorde behar zirenez, baikorrak eman behar ziren, nahiz eta ez guztiz egiak izan. Hori propaganda zen.

Propaganda horren barnean, egunkari anitzek soldaduen gutunak argitaratzen zituzten. Zentsura jasaten zuen prentsak ez zituen, bistan denez, gutun negatiboak argitaratzen ahal. Beraz, soldaduen gutunek ere propaganda funtzioa betetzen zuten, mezu abertzaleak eta eginbidearen betetzea goraipatzen baitzituzten⁷⁶³. Agintariek horren beharra sentitu zuten, lehen asteetan hil eta zauritu anitz izan baitzen eta soldadu gehiago behar baitzuten, herritarrek etsipenean ez erortzeaz aparte. *Eskualduna* astekariak argitaratzen zituen soldaduen gutunak ere propaganda ardatz horretan sartzen ziren, ildo horretatik idatziak izaten baitziren. Baina funtzio bera zuten gerlan zeuden idazle eta kazetariek ere. Agintari militarrek ohartu ziren horiez baliatu behar zirela egunkarietara propaganda mezuak igortzeko. Beraz, soldadu batzuen ardura testuak idaztea zen, beti ildo horretakoak⁷⁶⁴, herritarren lasaitzeari begira. *Eskualduna* astekarian idazten zutenak ere idazleak ziren, baina ez ziren soldadu-idazleak, hala nola armadak ez zien idazteko funtzioa

⁷⁶¹ Michel Martin, «Histoire et actualité. La Revue historique pendant la Première Guerre mondiale», *Revue Historique* 518 (1976ko apirila-ekaina): 433–465.

⁷⁶² Stéphane Audoin-Rouzeau, «“Bourrage de crâne» et information en France en 1914-1918», in Becker, Jean-Jacques eta Stéphane Audoin-Rouzeau: *Les Sociétés européennes et la guerre, 1914-1918. Actes du colloque d'Amiens - Nanterre, 8-11 décembre 1988* (Nanterre: Publication de l'université de Nanterre, 1990), 163–174.

⁷⁶³ Cubero, *La grande guerre et l'arrière: (1914-1919)*, 37.

⁷⁶⁴ Beaupré, *Ecrire en guerre, écrire la guerre. France-Allemagne 1914-1920*, 90.

eman, Jean Etxepare sendagile gisa ibili baitzen eta *Zerbitzari* eta Jean Saint-Pierre ere antzeko funtzioetan aritu baitziren, zaurituen mugitzen.

Azken bi horien kasuan, gainera, apaizak ziren propaganda egiten zutenak. Zenbateraino ez ote zuten idazten irakurleek irakurri nahi zutena ere? Galdera hori egiten du Annette Beckerrek, kasu hori bere orokortasunean hartuz. Honen ustez, propagandak eragina izan bazuen, propaganda hori irakurtzen zutenek hori sinetsi nahi zutelako izaten zen⁷⁶⁵. Halaber, Jean-Jacques Beckerren eta Stéphane Audoin-Rouzearen arabera, orduko gizartea, baserrikoa barne, propaganda jasotzeko prestatua zen, besteak beste alfabetizazioari esker⁷⁶⁶. Beraz, logika horren haritik jarraituz, pentsa dezakegu *Eskualduna*-n idatzia zena *Eskualduna*-ko irakurleek irakurri nahi zutena zela, hein batez. Hots, ez zela gordinegi, irakurleak ez izutzeko; eta baikorregi zela, irakurleak lasaitzeko.

b) Egunkariak ez sinesten

Segurtasun arrazoiengatik edo irakurleak lasaitzeko helburuarekin informazioa gordetzeak edo zinezkoak ez ziren informazioak emateak arrisku bat izan zezakeen, hala nola irakurle batzuk galtzea. Zertarako irakurri informaziorik ematen ez zuen egunkari bat? Jakin-mina dagoenean deus ez jakiteak frustrazioa eragin dezake, eta ondorioz egunkariak kontrako eragina lor dezakete. Gauza bat da ematen den informaziotik deus ez ziurra izatea, eta uler daiteke halako testuinguru batean informazio zehatz eta zorrotzak heltzea zaila zela, are gehiago, gauzak laster alda zitezkeela, ia mutur batetik bestera.

Baina soldaduak «deus ez da ziurra» sentimendutik «dena faltsua da» usteratu ziren. Eta ez da gauza bera «ezjakintasunean» egotearen ustea eta beti «gezurrak» entzutearena⁷⁶⁷. Onar zezaketen informaziorik ez jakitea, gerlako baldintzengatik eta segurtasun arrazoiengatik. Ez zezaketen onar, ordea, deus ez jakitea gezurrak erraten zizkietelako. Adibidez, ohartzen zirelarik beren sektoreari buruzko informazio bat faltsua zela, egunkari horienganako mesfidantza areagotzen zen⁷⁶⁸.

Horrek eragin zuzena bazuen soldadu anitzen jarreretan. Soldaduak egunkarien eta berriketarien artikuluak kritikatzeko hasi ziren, guduak asmatzeagatik eta gauzak ziren ez bezala kontatzeagatik⁷⁶⁹. Eta horren ondorioz, pixkanaka, egunkariak gero eta gutxiago

⁷⁶⁵ Annette Becker, *La guerre et la foi. De la mort à la mémoire 1914-1930* (Paris: Armand Colin, 1994), 16.

⁷⁶⁶ Becker eta Audoin-Rouzeau, *La France, la nation, la guerre: 1850-1920*, 288.

⁷⁶⁷ Prochasson eta Rasmussen, *Vrai et faux dans la Grande guerre*, 16.

⁷⁶⁸ Meyer, *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*, 154.

⁷⁶⁹ Fontana, *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*, 104–105.

saltzen ziren, gezurrak erraten zituztela leporatuz. Bereziki egunkari handiak ziren salmenta arazoak izan zituztenak, 1917 inguruan⁷⁷⁰, suposatzen baitzen haien funtzioa informazioa ematea zela. Iritzi astekariak ez zuten halako kalterik jasan, aldiz.

Baina prentsari sinesgarritasuna kentzeak eta egunkariak ez irakurtzeak ez zuen estaltzen jendeak eta, oroz gainetik, soldaduek zuten informazio gosea. Beraz, bide batetik edo bestetik, solasak barreiatzen ziren, eta zurrumurruak zabaltzen hasten zirenean, zuzena ez zen informazioa nagusitzen zitzaion egiazkoari⁷⁷¹. Gerla hastapenetik egunkariak agertu zituzten informazio faltsuek sinesgarritasun galtze bat eragin bazuten ere, informazio goseak beti iraun zuen, eta horrek zurrumurruek zabaltzea eragin zuen⁷⁷². Marc Blochek⁷⁷³ dio berri faltsuak ihaurri zabaldu zirela gerla denboran zehar, batzuetan soldaduen bihotza gehiegi altxatzen zutenak, beste batzuetan kemena guztiz galarazten zietenak. Urte batzuk geroago, zer sinesteko gai ziren pentsatzea bera sinesgaitza zela dio Blochek.

2. Jakin-mina eta *Eskualduna*-ren aukera

Soldaduek jakin-min handia zeukaten, eta egunkariak ez zuten jakin-min hura asetzen. Bi berri mota jakin nahi izaten zituzten: alde batetik, gerla oro har eta beste frontetean nola iragaten zen jakin nahi zuten; bestetik, herritik ehunka kilometrotan izanik, herriko berrien gose ziren. *Eskualduna* astekarikoez beren burua laudatzen zuten, soldaduen egarri hori asetzen zutelakoan.

a) Gerlako berri jakin nahi

Egunkari horiei sinesgarritasuna kentzen bazieten ere, eta batzuetan egunkarien kontrako jarrera bortitza agertzen bazuten ere, maitasun-gorroto harreman bat bazen soldaduen eta egunkarien artean. Ez zituzten sinesten, arbuiatzen zituzten, baina hala ere irakurtzeko grina ikaragarria zuten⁷⁷⁴. Zein egunkari? Zein ez? Hori besterik da. *Eskualduna*-ko berriketariak beren burua goratzen zuten erranez soldaduek zein maite zuten astekari hura.

Baina informazio iturri bakarra ez ziren egunkariak edo astekariak. Alderantziz, edozein iturri on zen informazio poxi baten eskuratzeko. Adibidez, telefonoaren ardura

⁷⁷⁰ Forcade, «Dans l'œil de la censure: voir ou ne pas voir la guerre», 46.

⁷⁷¹ Prochasson eta Rasmussen, *Vrai et faux dans la Grande guerre*, 13.

⁷⁷² Almeida (d') eta Delporte, *Histoire des médias en France: de la Grande Guerre à nos jours*, 47.

⁷⁷³ Marc Bloch, *Réflexions d'un historien sur les fausses nouvelles de la guerre* (Paris: Editions Allia, 1999), 20.

⁷⁷⁴ Rousseau, *La guerre censurée. Une histoire des combattants européens de 14-18*, 32.

zuten soldaduengana edo agintarien ondoan lan egiten zutenengana joaten ziren, ikusteko ea berri gehiago jakin zezaketen⁷⁷⁵. Zazpi eginahalak egiten zituzten informazioa bide batetik edo bestetik jakiteko. Horretaz ohar gaitzezke *Eskualduna* astekariko soldaduen gutunak irakurtzean ere, maiz aipatzen baitzuten ez zutela informaziorik, eta elkarren artean zituzten harreman eta elkarrizketen berri ematen baitzuten, informazioa bilatzen zutela agertuz, eta atzematen zuten eta konta zezaketen poxia kontatuz.

Beste fronte batetik heldu zen soldadu bat edo soldadu multzo bat etortzen zenean, beste tokietan gauzak nola pasatzen ziren jakiteko irrika pizten zitzairen. Soldaduek ez zeukaten informazio handirik beren fronte orokorrak. Beren lekuan gertatzen zenera mugatzen zen haien jakintza eta kezka. Eta egunkariek beren lekuari buruzko berri bat ematen zutenean, taldean irakurtzen hasten ziren. Ez zekiten deus beste lekuetan gertatzen zenaz. Eta berri horiek ere nahi zituzten.

Beste informazio mota bat, gordinagoa, baina baitezpadakoa, hildako soldaduen ingurukoa zen. Lehen erran dugu ez zutela hildako kopururik ematen. Baina norbait hiltzen zenean, haren berri eman behar zitzaion familiari. Soldadu baten heriotzaren edo desagertzearen berria haren herriko Herriko Etxera heltzen zen, militar baten bidez. Soldaduen heriotza bere begiz ikusi eta baieztatu zuen batek idatzia zuen agiria. Hortik landa, herriko auzapezaren ardura izaten zen hildako familiaren abisatzea⁷⁷⁶. Huts batzuk ere gertatzen ziren, *Eskualduna*-n irakurri artikulu batzuen arabera, soldadu baten heriotzaren berria jakin eta zenbait hilabete edo urteren buruan jakiten baitzen delako soldadu hura ez zela hila, baizik eta Alemanian preso. Eta bitartean, ustezko alarguna berriz ezkondu... Baina ukalezina da *Eskualduna* bezalako hurbileko astekari batentzat, garrantzitsua zela hildakoen berri ematea, herritarrak beren semeen, senarren eta aiten berrien gose baitziren, beharbada gerlari buruzko berri orokorren gose baino gehiago.

Horrez gain, herrietako biztanleek – gerlatik urrun bizi zirenek – ere berriak nahi zituzten, haien soldaduak zertan ziren jakin nahi zuten; agiri ofizialak ematen zituen xehetasunak orokorregiak ziren haientzat, eta ez zuten beren semeen, senarren edo aiten unitatei buruzko informaziorik eskuratzen⁷⁷⁷.

⁷⁷⁵ Ibid., 31.

⁷⁷⁶ Rocafort, *Avant oubli: soldats et civils de la côte basque durant la grande guerre*, 125.

⁷⁷⁷ Ansoborlo, *Histoire militaire de Bayonne: 1789-1940*, 250.

b) Herriko berriak jakin nahi

Soldaduen kezka ere hurbilekoa zen hein handi batez. Bistan da jakin nahi zutela gerla nondik nora zoan, bereziki beste lekuetan. Baina beren herriko berri ere jakin nahi izaten zuten. Hori ageri zen *Eskualduna*-ko artikulu batzuetan, berriketariak astekari hori frontera heltzen zenean zer arrakasta lortzen zuen kontatzen zutenean. Halaber, soldadu batzuek Baionako erredakziora idatzi izan zuten herrietako berriemaileei herrietako berriak emateko eta ez gerlaz hainbeste mintzatzeko eskatuz. Erran behar da astekariaren eduki gehiena gerlaz zela, eta herrietako berriak ere gerlako gaiekin betetzen zirela: halakoak gurutzeta, bestea hila edo hango etxekoa zauritua.

Beraz, hurbileko berrien gose horrek eragin zuen lekuko prentsak bazituela irakurleak frontean, eta beraz orri horiek gehiago saltzen zirela, nahiz eta irregularki eta berantarekin heltzen ziren gerla tokira⁷⁷⁸.

Lehen Mundu Gerraren lehertzeak anitz murriztu zituen urte batzuk lehenago prentsa munduan zabaldu ziren aukera eta bide berriak. Baliabide ekonomikoetan sentitu ziren ondorio batzuk, baina bereziki erredakzio taldeak jendez hustu ziren, kazetariak berak soldadu izatera deituak baitziren. *Eskualduna* ere antzeko egoeran zegoen, hainbat parte-hartzaile gerlara joan baitziren. Baina hori aukera bat izan zen astekariarentzat. Beste gisan lehen iturriko informaziorik eskuratzen ez zuen egunkariak, lekuko zuzenen gutunak argitaratu zituen astero, gerlak iraun zuen denbora guztian: Jean Saint-Pierre, Jean Elizalde *Zerbitzari*, Jean Etxepare, Jules Moulier *Oxobi*, Pierre Duhour eta noizbehinkako beste hainbat lagunek igorri zituzten beren lekukotasunak, eta gerlari horrekin atera zion etekina astekariak.

Parada hori interesgarria bazen ere, edukiaren interesak bere mugak zituen, zentsura gainean zeukatelako alde batetik, eta zinez eskuratzen zituzten informazioak ere mugatuak zirelako. Egoera hark prentsak eta propagandak sinesgarritasuna galtzea eragin zuen, soldadu anitzen baitan. Baina ez dirudi *Eskualduna*-k hainbeste sufritu zuen sinesgarritasun galtze horrengatik, Euskal Herriko soldaduek bereziki eskertzen baitzituzten Euskal Herriko berriak edo Euskal Herritik joan ziren soldaduen berriak.

⁷⁷⁸ Meyer, *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*, 154.

Eskualduna astekaria nola eta zein testuingurutan sortu zen eta Lehen Mundu Gerra zein girotan egosi zen azaltzea beharrezkoa izan da astekari hau gerlan zergatik inplikatu zen ulertzeko. Euskarazko astekari hori ez zen astekari ohiko bat, edo ez bederen garai hartan zirenen arabera. Lehengo modan jarraitzen zuen, astekari politiko gisa, polemikaren eta erretorikaren girotik, zinezko kazetaritzaren bidetik baino, nahiz eta ordurako kazetaritza eredu berriak zabaltzen hasiak ziren. Hain zuzen, helburu politikoekin sortua zen eta han idazten zutenak ez ziren kazetari profesionalak, baizik eta apaizak (gehiengoa bederen). Astekari giristinoa eta errepublikazaleen kontrakoa zen, baina hori baino garrantzitsuagoa da zehaztea politikaz idazterakoan, nagusiki Frantziako politikaz zihardutela. Ildo politikoaren aldetik ere, Frantziako eskuinean kokatzen zen Action Française mugimendutik hurbil zegoen. Hori bera nahiko arrazoi handia da ulertzeko zergatik jarri zen Frantziaren alde.

Zabalkunde mugatuko astekaria izan balitz, beharbada ez zuen hainbesteko garrantzia izanen eta ez zuen merezi izanen ikertzea. Baina urtez urte, gero eta salmenta gehiago zeukan, eta ikusi dugu 1916an 7.350 aletan inprimatzen zutela astekaria, sekula baino ale gehiagotan. Milaka irakurlerengana heltzen zen, beraz, astekari haren mezua, Lapurdi barnealdera, Nafarroa Beherera eta Zuberoara bereziki.

Barnealdean errotoa zen astekaria zen, eta baserriko balioen defentsa egiten zuen, hiritartze prozesuaren gaitetik. Eta Frantziako nazioaren eraikuntza hiritartze prozesuan errotu zen anitz. Jendeak hirira bizitzera joan ahala, orduan eta gehiago urrundu ziren erlijioaren mundutik, eta frantses nazioarenganako atxikimenduak hartu zuen erlijio kristauaren lekua. Hala ere, dena ez zen hain sinple, eta *Eskualduna* erlijioaren eta baserri munduaren balioen defendatzaile sutsua izateak ez du erran nahi frantses ideologiarekin bat

egiten ez zuenik. Garai hartan, nazionalismoak iratzartzen ari ziren European, eta, beraz, baita Frantzian ere. Frantziak, gainera, min handia hartua zuen 1870eko gerlan Alsazia eta Lorrena eskualdeak galdurik, eta hori izan zen frantses abertzaletasuna errotzeko bandera gisa erabili zuten gertakaria. Eskola eta armada erabili zituzten, nagusiki, gazteen artean frantses nortasuna eta Frantziarenganako atxikimendua errotzeko. Ipar Euskal Herrian euskal abertzaletasuna ez zen sortu edo zabaldu, eta aberri handiaren eta aberri txikiaren kontzeptuak agertu ziren. Giro hartan kokatu zen *Eskualduna*, eta filosofia hura jarraitu zuen.

Frantses abertzaletasunaren sendotze horrekin batera lehertu zen Lehen Mundu Gerra 1914an, eta euskaldunak, frantsesak bezala, gerlara joatera behartuak izan ziren. Baikor joan ziren, egun edo aste gutxi iraunen zuen gerla erraz bat izanen zelakoan, herrialde «erasotzailearen» (Alemania) aurrean «beren» herria (Frantzia) defendatzera. Gerla espero baino anitzez gehiago luzatu zen, ordea: sarraski izugarria izan zen, eta ia 6.000 euskaldun hil ziren.

Prentsaren munduan ere izan zituen ondorioak gerlak. Murrizte materialez gain, informazio gutxiago heldu zitzaien, eta ahal bezala bete behar zituzten gerlari buruzko berriak. Are gehiago, Frantziako Gobernuak zentsura zorrotza aplikatzeko aginduak eman zituen eta ehunka zentsura batzorde sortu. Baionak ere bazeukan berea eta *Eskualduna* astekariak bere zentsuratzailerak. Astekariak ez zuen, ordea, zentsura anitz jasan, zentsura eta haren irizpideak onartu baitzituen, eta beraz auto-zentsura praktikatu baitzuen. Hor dago «zergatik» galderaren beste erantzuna, hain zuzen. Gerlan inplikatu zen, beste mezu mota bat zabaltzeko baliabiderik eta baimenik ez zuelako.

Baina, bistan da, horrek bakarrik ez du erakusten astekariaren borondate politikoa zein zen. Kokatu dugu zein girotan sortu zen astekaria, zein ildo editorialekoa zen oro har, nola zabaldu zen frantses nazionalismoa eta Euskal Herrian eta Euskal Herria bezalako lekuetan zer eragin izan zuen. Baina gerlan inplikatu zela eta horren pisu ideologikoa ikusteko, gerla denboran idatzi zituen testuak aztertu beharko ditugu.

BIGARREN ZATIA:
GERLARI
BURUZKO
JARRERA

Gerlaren berri emateko zituzten mugak ikusi ditugu lehen zatian. Baina ikusi dugu ere muga horiek onartuz, *Eskualduna* astekaria gerla hartan inplikatu zela. Lehen zatiaren helburua izan da ulertzea zergatik bat egin zuen gerla horrekin eta Frantziarekin. Errepublikazaleen eta garai hartako agintarien aurkari politikoa izanik ere, bere burua Frantziako oposizioaren parte gisa ikusten zuen, ez zen Euskal Herria Frantziaren kontra, baizik eta Frantzia guztiko giristinoak laikoaren kontra. Beraz, gerla lehertu zenean, ordurako anitz aitzinatua zen frantses nazioaren edo aberriaren kontzeptuaren eraikuntzak eragina bazuen astekariaren baitan, eta gainerako guztiak bezala, batasun sakratuaren parte izan zen. Garai hartako giroa jarraitu zuen. Horregatik inplikatu zen Lehen Gerla Mundialean.

Bigarren zati honen helburua beste galdera bati erantzutea da: «nola?» galderari. Hain zuzen, nola inplikatu zen *Eskualduna* Lehen Gerla Mundialean edota nola erakutsi zuen bere inplikazioa? Galdera horri erantzuten ahaleginduko gara, gerlaz nola mintzatu zen

aztertuz. Gerlaz diogunean, gerlako gertakariez eta bizimoduaz ari gara. Zati honetan gerlak eragiten zituen sentimendu batzuk ager badaitezke ere, sentimenduen arloa hirugarren zatian landuko dugu.

Gerlaz artikulu anitz eta anitz idatzi zuten, bistan denez. Editorialak, egunez eguneko berriak, gerlarien berriak, herrietako berriak, bertsoak eta abar mintzo ziren gerlaz. Denak ez ditugu aztertu, hauu bat egin behar izan dugulako, sarrera nagusian esplikatu dugun bezala. Editorialak eta gerlarien berriak hartuz bakarrik, gai anitz agertu zela ohartuko gara. Gai horien araberrako sailkapen baten bidez egin dugu edukiaren alde horren azterketa. Hots, astekarian agertu ziren gaiak dira ondoko orrialdeetan barnatuko ditugunak. Agertu ez ziren gaiak ez ditugu aipatuko. Gerta liteke aipu gutxi edo lerro batzuetan ageri zirenak ere ez bereziki lantzea, adibidez, lasto meten gainean lo egiten zutela nola aipatzen zuten. Aski erregulariki agertzen ziren gaiak dira oro har landuko ditugunak, eta gutxi agertu baina interesgarriak ziren beste gai batzuk ere bai, Jean Etxepareren artikulu batzuk bereziki.

Gai horiek logika baten arabera sailkatu ditugu: orokortasunetik zehaztasunera joanen gara, estatuburuaren eskalatik soldadu xumeen eskalaraino, aitzindari militarren eskalatik pasatuz. Horrela, *Eskualduna*-k gerlarekiko zuen jarreraren ikuspegi osoago bat eman nahi genuke. Ikuspegia ez litzateke zuzena lubakietako lekukotasunak baizik aztertuko ez bagenitu, ez eta ere Alemaniari buruzko editorialetara mugatuko bagina. Gai bakoitzak bere berezitasunak zituen, eta beren berezitasunez gain, denetan ageri ziren elementuak aurkitzen ere ahalegindu gara. Bakoitzaren berezitasunez harago, eta berezitasun horiek kontuan hartuz, argazki orokorrago bat egin nahi izan dugu, azkenik. Hots, nola aipatu zuten gai bakoitza, eta oro har, zein izan zen jarrera orokorra?

Gerlako jarrera neurtzeko, lehen arloa, politika da. Zein zen astekariaren irakurketa politikoa, nola aztertzen eta aipatzen zuen egoera politiko eta diplomatiko orokorra? Lehen zatian ikusi dugun bezala, batasun sakratuaren dinamikarekin bat egin zuen, garai hartako testuinguru orokorraren parte zen, ez zen salbuespen bat. Beraz azterketa honen emaitzek ez gaituzte hainbeste harrituko, astekariaren irakurketa politikoa egiterakoan, nahiz eta elementu batzuk ustekabeak izan daitezkeen, ohartuko garen bezala. Gerlari buruzko irakurketa politikoa aztertzerakoan, bistan denez, editorialen azterketak presentzia handia izanen du, baina baita gerla lekutik idazten zuten zenbait idazleren testuenak ere. Gerla bera eta gerlan agertzen ziren eztabaidak, orokorki, nola aipatzen zituzten, gerlako estrategiez zer azalpen eta iritzi ematen zuten eta alemanez zer kontatzen zuten aztertuz neurtuko dugu zein zen astekariaren jarrera politikoa.

Hori izan daiteke gai gardenena, jarrera politikoa bere hoztasunean erakusten gehien laguntzen duena. Pixka bat konplikatua izan daiteke lupa hurbiltzean, gerlako kontakizunei buruzko irakurketa baten egitea. Bigarren atala horri buruzkoa izanen da. Zein zen *Eskualduna*-ren jarrera gertakari zehatzak aipatzean, hala nola armak, guduak edota bi horien ondorio materialak eta sozialak? Nola mintzo zen gai horiez? Ikusiko dugun bezala, ez da gai sinplea, eta bere konplexutasuna kontuan hartu dugu ondorioak ateratzekoan. Gaia zein korapilatsua den erakutsi nahi izan dugu azterketa honetan, nahiz eta balorazio orokor bat eskaini nahi izan dugun, bukaeran.

Arlo bat korapilatsua baldin bazen, hori gerlako bizitokietako bizipenei zegokion. Hori izanen da zati honetako hirugarren atalean landuko duguna. Hor ere, «nola?» galderari erantzunen diogu: nola mintzo zen *Eskualduna* lubakietako egoeraz? Pausa lekuetakoz? Hor ere agertuko da zein zen astekari hartan idazten zutenek gerlari buruz zeukaten jarrera. Kasu gehienetan, gerlako tokietatik idazten zutenen artikulak dira aztertuko ditugunak. Zer berri ematen zuten? Zer xehetasun? Zer gisetan mintzo ziren? Bistan da, kontuan hartu behar da idazten zutena postaz igortzen zutela *Eskualduna*-ko erredakziora eta gero publikoki argitaratzeko zela. Beraz, zentsuraren eta auto-zentsuraren eraginaz jabetu behar dugu edozein azterketa egiterakoan. Baina gure helburua, idazle horiek zinez zer bizi eta pentsatzen zuten argitzea baino gehiago, zer inprimatzen zen eta irakurleengana zer mezu zabaltzen zen argitzea da. Zein zen *Eskualduna*-ren jarrera, gerlaz nola mintzo zen eta gerla horretan nola inplikatu zen erakutsi nahi dugu orain barnatuko dugun zatian.

Hiru atal horiekin, beraz, astekaria nola inplikatu zen aski garbi erakutsi ahal izanen dugu: jarrera politikoa, gertakariak aipatzerakoan zuen jarrera eta, azkenik, soldaduen bizipenen agerpena. Gerlaren hiru arlo edo ondorio nagusiak hunkituko ditugu, beraz.

I. IRAKURKETA POLITIKOA

Gerla gauza anitz izan zen, eta oroz gainetik, mundu osoa inarrosi eta XX. mendeko historia markatu zuen gertakari politiko handi bat. Azken finean, diplomaziako arduradunek eta estatuetako erabakitzaileek tiratzen zituzten hariak, egunerokoa herritar xeheek pairatzen bazuten ere. Gerla gisa anitzetan aipatu zuen *Eskualduna*-k, eta alde desberdinetatik, politikotik barne. Eta ikuspegi orokorrenetik hasiko gara, hala nola gerlaren alde politiko, diplomatiko eta estrategikotik. Astekariaren jarrera politiko edo gertakariaren alde politikoaren azalpena aztertzeak berak interes handia du, eta ondoko orrialdeak arlo horri eskainiko dizkiogu.

Hasteko, gerlari buruzko berri edo azalpen orokorrak aztertuko ditugu, hala nola begiratuko dugu *Eskualduna*-k nola aipatu zituen gerlaren fase nagusi ezberdinak eta gerla denborako eztabaida politiko eta diplomatiko nagusiak, hots, hiriburuetako edo ministerioetako gerla, ez lubakietako gerla. Lehen zatian esplikatu dugu gerla nola lehertu zen, zer bilakaera ukan zuen eta nola bukatu zen. Xehetasun horiek emanik, ez ditugu ondoko orrialdeetan errepikatuko. Horiek *Eskualduna*-ko artikuluetan nola agertu ziren edo ez ziren agertu aipatuko dugu bakarrik.

Bigarrenik, zati laburrago batean, strategiari buruzko aipamenak aztertuko ditugu. Gerlak ez zuen alde politiko eta diplomatiko hutsa bakarrik. Gerlan, indar harremana garrantzitsua zen, baina baita estrategia ere. Nahiz eta alde estrategikoa ez zen *Eskualduna*-k anitz barnatu zuen gai bat, zenbait aipamen aurkitu ditugu, eta haien aztertzeke tarte bat hartu dugu.

Azkenik, gerlaren funtsezko elementu bat: etsaigoa. Gerla etsaien artean egiten den zerbait da, eta *Eskualduna*-k etsaitzat zeukana, hala nola Frantziaren eta Aliatuen etsaia zen Alemania, nola eta zer hitzekin aipatu zuen, barnatuko dugu. Zein zen astekariaren jarrera

alemani begira? Xehetasun hori biziki argigarria da astekariak gerlari buruz zuen jarrera hobeki ulertzeko edo garbiago ikusteko.

A. Gerla fasez fase

Gerla hainbat fasetan garatu zen. Lehenik mugimendu gerla izan zen, gero posizio gerla eta azkenik berriz ere mugimendu gerla bat. Baina faseak beste gisa batetik ere ikus zitezkeen, *Eskualduna*-ren artikulua irakurriz, adibidez, ez baitzen garbi ageri mugimendu gerla bururatu zela posizio gerla luze baten hasteko. Fase horiek denboraren buruan ikusi ziren hobeki. Mementoaren gainean, beste gisa batez edo beste gai batzuen bidez agertzen zen gerlaren bilakaera kronologikoa. Horregatik, atal honetan ez dugu denboraren banaketa fase horien arabera egin, baizik eta eztabaida nagusien edo gerlari buruzko ikuspegi orokorren aldaketen arabera.

Alde batetik, gerlaren hastapenari so egingen diogu. Horrek ez du erran nahi gerlaren hastapenean *Eskualduna*-k zer idatzi zuen aztertuko dugula, baizik eta hastapen horretaz zer idatzi zuen, nahiz eta hasi baino urte bat geroagoko artikulua ere sartuko ditugun azterketa horretan. Hots, zergatik hasi zen gerla? Zer interpretazio eman zuen (edo ez) euskarazko astekariak? Gerlako arrazoen interpretazioa da lehen fasean aztertuko duguna.

Bigarren fasea, funtsean, mugimendu gerlatik posizio gerlara pasatzeari lotua dena, gerlaren iraupenari buruzko irakurketari dagokio. Gerla laburra izanen zela uste izatetik gerla luzatzen ari zela onartzera bitartean izan ziren garai ezberdinak nola agertu ziren aztertuko dugu. Hala nola, zer zioten *Eskualduna*-ko idazleek gerlaren luzatzeaz?

Gerlak iraun zuen denbora gehienez agertu zen eztabaida batek astekarian izan zuen isla aztertzea izanen da hirugarren atal batean egingen duguna. Hain zuzen ere, gerla lehertu ondoan, bakea egitea zen helburua. Bakearen gaiak presentzia handia izan zuen eztabaida politiko eta diplomatikoetan, eta horretaz gogoetak egin zituzten *Eskualduna* astekarian. Nola ikusten zuten bakea? Zer baldintzetan egin behar zen?

Gerlaren azken fasea, bukaera eta Aliatuen garaipena zen. Azken urteetako gorabeherak eta azken garaipena nola aipatu zituzten aztertuko dugu. Ordurako gerla anitz luzatzen ari zen, gauzak ez ziren hastapenean uste eta nahi bezala gertatzen ari, eta horregatik begiratuko dugu azken hilabeteetan zenbateraino histu zen astekariaren baikortasuna.

I. Arrazoiaren interpretazioa

Lehen ikusi dugu gerlaren arrazoiak aski korapilatsuak izan zirela. Zergatik piztu zen gerla? Gerla hasi aitzin eta gerla hasi ondoko egunetan galdera horri erantzuten ote zioten *Eskualduna* astekarian? Hasteko, astekariak ematen zituen azalpenak nolakoak ziren edo zenbaterainokoak ziren begiratuko dugu. Azalpen horien sakontasuna utziz, ohartuko gara gerlaren erantzukizun guztia Alemaniaren bizkar ezarri zutela. Hirugarrenik, Frantziak nola jokatu zuen eta *Eskualduna*-ren ustez zer huts egin zuen aipatuko dugu.

a) Azalpen urriak

Gerla gisa anitzetara kontatu zitekeen. Eta gaietarikoa bat gerlari buruzko argibide politikoetan izan zitekeen. Haatik, gerla zergatik hasi zen edo zerk bultzatu zuen ez zen argi esplikatua *Eskualduna*-ko editorialetan, aipamen bakar batzuk kenduta. Halako azalpenak, beharbada, editorialetatik kanpoko artikuluetan aurki daitezke. Alde batetik, gerla lehertu aitzineko asteetako zenbakietan ez zen krisi diplomatiko larriari buruzko aipamen handirik egin. Ageri da gerlak *Eskualduna* ustekabearen harrapatu zuela. Orokorki so eginez, Frantziako prentsak ez zuen Balkanetako krisiaren eta leher zitekeen gerlaren arteko loturarik egiten, nahiz eta gorabehera diplomatikoei buruzko xehetasunak eman⁷⁷⁹.

Gerla lehertu aitzineko astean gerla arriskuak bazirela agertu zen astekariaren editorialean⁷⁸⁰. Baina gerla nola eta zergatik lehertuko zen ez zuen esplikatzen artikulua hark. Gerla arriskuaren oinarrian alemanen eta frantsesen arteko aspaldiko etsaigoa zegoela eta ondorioak Europa osora zabal zitezkeela, bai, agertu zen, baina iturburuak zein ziren, ez. Artikulu haren helburua ez zen hori, baizik eta elizgizonen eta laikoaren arteko liskarraren harira, gerla elizaren erruz piztuko zela ziotenei erantzutea. Gisa berean, gerlaren arrazoirik eman ez eta antzeko afera zurriz batzuk agertu ziren aste batzuk geroago⁷⁸¹.

Izatekotan, gerla aitzineko tentsioaren aipamenaz xehetasun franko eman zituen artikulua hilabete batzuen buruan baizik ez zen atera, 1915eko apirilean. Artikulu hartan, 1870etik gerla lehertu arteko kronologia pedagogikoa egin zuten, 1875etik landa Alemaniako Frantziako armadaren berriz indartzearen parean beste gerla bat hasi nahi zuela baina

⁷⁷⁹ Jeissmann, *La patrie de l'ennemi, la notion de l'ennemi national et la représentation de la nation en Allemagne et en France de 1792 à 1918*, 294.

⁷⁸⁰ Manex Hiriart-Urruti, «Bake ala gerla?», *Eskualduna*, 1914ko uztailaren 31a.

⁷⁸¹ Manex Hiriart-Urruti, «Zorria leher», *Eskualduna*, 1914ko urriaren 2a.

hainbat aldiz gibelera egin behar izan zuela esplikatu⁷⁸². Baina artikulua haren helburua bakea egiteko baldintzak azaltzea zen, eta ez hainbeste 1870etik 1914era gertatu zenaren eta gerla piztu zuen giroaren esplikatzea.

Beharbada azalpen argienetarikoak, Italia gerlan sartzeari buruzkoak ziren. Italia, hastapenean, zergatik zen Alemania eta Austria-Hungariarekin eta haien arteko harremanak zergatik hoztu ziren xeheki esplikatu zuen. Honen arabera, Italiak Alemaniari hitz eman zion haien alde jarriko zela, Frantziak eraso egiten bazion, baina ez zuela deus hitzemanen alderantzizkoa gertatzen bazen:

Gerla hastetik, alemanarekin hotz, Otrichiarekin hotz eta erdi, gero eta hotzago, azkenean, ikusiz Otrichia beheiti zozala, hortzak luzatu zaizko gure Italiari. Gutizia jin zaio, gerota handiago, bertze orduz Otrichiak hartu lur pozi batzu, hiri eta lehor batzu, behar zituela gibelerat bildu, onez onean edo indarrez.

Nahi baziozkan Otrichiak Italiari bere zuzenak bihurtu, egonen zela 'neutre', erran nahi, gerla huntan sarthu gabe; ez bazuen onez onean deus ardiesten ahal, jazarriko zitzaiola ohiko etsaiari. Hanbat gaichtoago, ez bazioten berea eman nahi.

Alemania ararteko, arizan dire hor hilabetheak, elhe eta elhe. Orok haria luze eta zail; azkenean hautsi. Horra gerla. Hanbat hobe guretzat. Berant aire hunekin ez othe are hobe oraino?⁷⁸³

Artikulu hori izan zen gerlaren arrazoiei buruzko artikulua pedagogikoenetariko bat. Gertatzen dena da ez zela gerlaren arrazoi nagusia, bigarren mailako arazo bat zelako, nahiz eta zeharkako ondorio hori mesedegarri izan Frantziarentzat. Ondoko astean, Italia gerlan sartzearen berria ironia gehiagorekin kontatu zuen, baina artikulua hartan gerlaren arrazoiei eta estatuak gerlan sartzeari buruzko azalpen gehiago eman zituen.

Artikuluaren helburua Alemaniak trufatzea zen, azkarrenak zirela erraten zutela baina ororen buru, azkarrenak Frantzia eta bere aldekoak zirela azpimarratzeko. Artikulu horretan esplikatu zuen hastapenean Alemaniak uste zuela Frantzia eta Errusia airez aire errautsiko zituela, eta Italia eta Ingalaterra ez zirela gerlan sartuko. Gauzak ez zirela horrela gertatu kontatu zuen Manex Hiriart-Urrutik, 1915eko ekainean:

Trufatu nahi zen orotaz haste hartan. Sarthu baitire trufak, eta oraino sarthuko, gero eta barnago.

Nehor etzela menturatuko haren kontra erhi chingilaren altchatzera, uste zuen; eta nor behar lehenik jazarri! Nor nori! Alemaniari Belgika; mendiari sathor-mulhoa!

[...]

Anglesak ere ukho behar zion egin Alemanarekin gerlan hasteari. Fa! Zer zen Angleterra? Zer ziren orotako erresumarik azkarrenak, banazka ala elgarrekin oro, Alemaniari behatu eta?

⁷⁸² Manex Hiriart-Urruti, «Noiz finituko?», *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 2a.

⁷⁸³ Manex Hiriart-Urruti, «Italia», *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 28a.

Ez ordean ukho egin Anglesak; ez ere behin eta behin egitekotan; itsas untzi hainbertzeren galtzeak ez deusek ez izitzen Anglesa.

Rusoa ez dugu zeren aipha. Frantzia ahamen batez, biez Rusia behar zituen Alemanak iretsi.

Sangratu ba, baditu azkarki. Ez ordean iretsi; ez eta ere iretsiko. Bere burua du azkenean, odol husturik, azken hezurretaraino higaturik ezarriko.⁷⁸⁴

Hots, gerlari buruzko azalpenak, politikoak eta diplomatikoak bereziki, dosi txikitari eman zituen *Eskualduna* astekariak. Asteak eta hilabeteak egon behar zen beha, halako informazio batzuk hel zitezen. Metaforak edota ironia erabiliz, analisiak ez ziren beharbada biziki sakonak, baina irakurlearengana heltzeko eta ulergarri izateko modu egokiak zirela pentsa daiteke.

b) Alemaniaren bizkar

Gerlari buruzko azalpen politiko sakonak eskas aire baldin baziren ere, gerla nork bultzatu zuen azpimarratzen zuen *Eskualduna*-k, behin eta berriz. Jean Saint-Pierrek zenbait gogoeta egin zituen Alemaniaren erantzukizunaz. Alemanek, beren ustez, beren populazio osoa hazteko lurrik aski ez zutelakoan, frantsesei lur batzuen kentzea zuzen zela uste zutela idatzi zuen Saint-Pierrek:

Hoi, da hoi, garbiki mintzatzea! Toki eskas zintela, bazen toki mundu zabalean! Zuek auzoa nahiago, lan gutiz aberasteko. [...] Bertalde, joanago eta goseago; bota gerla, oro betan irestekol! Ez dea hala?"⁷⁸⁵

Esaldi hori, nonbait, kolonialismoaren justifikazioa zela ohartarazirik, funtsean Alemaniak Ingalaterrak eta Frantziak baino anitzez kolonia gutxiago zuelako zeukan kezka esplikatu zuen Saint-Pierrek, argi utziz zeinek nahi izan zuen gerla. Kolonia faltak bazuen bere eragina, lehen atalean aipatu dugun bezala. Beste artikulua batean ere gerla Alemaniak nahi zuela argudiatu zuen⁷⁸⁶. Gerla mus partida batekin konparatu zuen, eta baita otsoaren eta azeriaren arteko borroka batekin ere. Artikuluaren arabera, alemanek hasi zuten gerla, hastapenean «karta onak» zituztelako.

Manex Hiriart-Urrutik ere Alemaniak gerla nahi zuela azaldu zuen 1915eko apirilean⁷⁸⁷. Alemaniak bere inguruko lurren jabe egin nahi zuela esplikatu zuen honek ere. Alemanak jarrera horretan bide zeuden, aitzineko urteetan hala irakatsi zitzaielako:

⁷⁸⁴ Manex Hiriart-Urruti, «Azkarrenaren alde», *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 4a.

⁷⁸⁵ Jean Saint-Pierre, «Zertako gerla?», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 24a.

⁷⁸⁶ Jean Saint-Pierre, «Mus partida», *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.

⁷⁸⁷ Hiriart-Urruti, «Noiz finituko?». 1915/4/2.

Eta populua? Dirudun, langile nausi, negoziant gaina jo azkarrenetarik gu eta bertzeak oro baino gehiago gure lurretan hedatu nahiz; nahiz oro beretu, aleman jende cheherainokoak zertataruak etziren ja, eta zer hatsean, bethi gorago, nausiago beharrez orotan?

*Ez gobernarenduko gizonetarik, ez eskoletako buruzagietarik etzuten alabainan bertzerik ikasten: mundu hau dena behar zela bilhakatu aleman!*⁷⁸⁸

Eskualduna-k pangermanismoa azaldu zuen bere hitzekin. Funtsean, arrazoi parte bat bazuen, F. Fischer historialari alemanak berak ere gerla aitzinean garatu zen aleman nazionalismoaz eman xehetasunak irakurtzen baditugu. 1913an Gilen II.a boterera heltzearen mende laurdena ospatu zuten, eta han Friedrich von Bernhardi jeneralak aurkeztu zuen liburuaz⁷⁸⁹ azalpen horiek eman zituen Fischerrek:

Ce livre est généralement considéré par les historiens allemands comme l'ouvrage d'un pangermaniste forcé dont les opinions dépassent largement les intentions de l'état-major général et du Gouvernement. En réalité, l'auteur y exprime nettement les convictions des représentants officiels allemands en arrivant à la conclusion suivante : «Puissance mondiale ou décadence». Bernhardi énumère trois facteurs permettant à l'Allemagne son accession au rang de puissance mondiale:

*1. Élimination de la France: la France «doit être radicalement écrasée, afin qu'elle ne puisse plus jamais entraver notre route» ; formule reprise par Bethmann-Hollweg dans son «programme de septembre» quelques semaines après le déclenchement de la guerre.*⁷⁹⁰

Ez zuen gehiago behar Manex Hiriart-Urrutik gerla alemanen bizkar ezartzeko. Hitz gogorak izan zituen alemanen kontra eta haien enperadore Gilen II.aren kontra. Batzuetan, Gilen II.a Napoleonekin konparatzen zuen, gerla gose eta inguruko herriak bereganatzea helburu zuen pertsona gisa aurkeztuz. Baina konparaketa hori egitean ere, mespretxuz mintzo zen Alemaniako enperadorearen kontra, Napoleon baino gutxiago zela nabarmenduz⁷⁹¹.

Azkenik, Alemaniaren ardura ageri-agerian utzi zuen, Belgikako lurretan sartu izana kontatzean. Gerla lehertu zenean, Alemania Belgikan sartu zela eta horretan huts estrategiko handia egin zuela esplikatu zuen *Eskualduna*-k. Artikulu batean ongi esplikatu zuen, alemanak ez balira Belgikan sartu, Ingalaterra ez zela gerlan sartuko, eta orduan, frantsesek ezin izanen zietela alemanei hain aise iharduki⁷⁹². Beste artikulu batean ere esplikatu zuen Belgikari oldartzeak gainerako herrialdeak ahulenaren alde jartzea eragin zuela⁷⁹³. Bide batez, artikulu horietan, Hiriart-Urrutik aitortu zuen Frantziak ez zezakeela gerla irabaz, besteen sostengurik gabe. Baina, ororen buru, behin eta berriz, gisa batez edo

⁷⁸⁸ Manex Hiriart-Urruti, «Bertze alemanak», *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 20a.

⁷⁸⁹ Friedrich von Bernhardi, *L'Allemagne et la prochaine guerre* (Paris: Ed. du Trident, 1989).

⁷⁹⁰ Fischer, *Les buts de guerre de l'Allemagne impériale, 1914-1918*, 49.

⁷⁹¹ Manex Hiriart-Urruti, «Guillaume bera», *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 13a.

⁷⁹² Manex Hiriart-Urruti, «Angles», *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 12a.

⁷⁹³ Manex Hiriart-Urruti, «Ahulena azkarren», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 1a.

beste errepikatzen zuten mezu nagusia zen gerla alemanek piztu zutela, nahiz eta gerla pizte horren ondorioz aktibatu zen kateak Alemaniari kalte eta Frantziari mesede egin.

c) Frantziaren huts politikoak

Ezin da dudan ezarri *Eskualduna*-k argi eta garbi zuela gerlaren hobendun bakarra Alemania zela. Frantzian berean erasotzailea Alemania zelako mezu hori arras errotua zen. Hala ere, ez daiteke aipatu gabe utz jarrera horrek salbuespenak zituela. Hain zuzen, gerla aitzin eta gerla lehertu ondoan Frantziak egin zituen huts politikoak edo kalkulu txarrak kritikatu zituen Jean Etxeparek, analisi zehatz eta mamitsuetan. Orotara, gerlaz argitaratutako artikulu kopuru handia ikusiz, Etxepareren horiek ez dira anitz, hamar baino gutxiago zenbatu ditugu, baina nahiko interes badute azterketa baterako.

Jean Etxeparek Frantziako Gobernuaren aitzineko hamarkadetako jarrera kritikatu zuen, ahoan bilorik gabe. Azken urteetan Alemaniaren garapen ekonomikoa Frantziarena baino hobea izan zela, baina Frantziak garapen hori ez zuela ikusi kritikatu zuen⁷⁹⁴. Oraino urrunago joan zen aitzineko astean, Alemanek Frantzia galbidean zela erraten zutela idatzi zuelarik. Frantziako agintarien kritika biziki zorrotza egin zuen:

Ikusten ginituen ba aitzinamendu eta oldar hoik guziak mugaz hunainditik, bainan okerre bezalatsu: erdizkaxe. Laketago ginuen zorigaitzez gure ohiko ezdeuskerier beha egoitea. Politikak ergelduak, zirtzilduak, etenduak ginuzkan. Egunetik biharrera lurrean ginituen buruzagiak, gure gostuz gizentzeko doi asti uzten giniotelarik. Etzen obedientziarik gehiago: jende xehea, ausartatuz eta tzartuz zoon, – alferkeriak, edariak politikeroen gezur eta perek zoroek burbutzika noiz nahi airatzen zutelarik. Ezkontza guti, are gutiago sortze, jendetzea urtzen ari zen. Bere armadari eta gizon zuhur bakar batzuei esker, zagon xutik gure Frantzia maitea.⁷⁹⁵

Gizarte ikuspegitik, Frantziaren gibelatzea gordinki kontatu zuen Etxeparek. Alemaniako populazioak anitz egin zuen gora 1870etik hara, baina ez zen hainbestekoa izan Frantziaren bilakaera, eta horrek Frantzia ahuldu zuela idatzi zuen gerla hasi eta aski laster. Agintarien kontrako kritika zorrotzak egin zituen hiru urte geroago ere, erranez alfer hutsak zirela:

Buruzagi xuxenak izanez, zer irabaziak ez litzazke bil gobernamentuak, Frantziaren onetan, bere eskupeko lanpidetarik beretarik: burdin-bide, tabako posta ala telegrafa, aduana, mia, oihan!

Hainbertze gizon alfer edo nagi kokatu izan da hoitan orai artio, bozetako goiti-beheietarik lekora, non irabazi garbirik kasik deus ez baitzuten uzten Frantziari.⁷⁹⁶

⁷⁹⁴ Jean Etxepare, «Alemanak hurbiletik V», *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 20a.

⁷⁹⁵ Jean Etxepare, «Alemanak hurbiletik IV», *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 13a.

⁷⁹⁶ Jean Etxepare, «Budjeta», *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 6a.

Hein handi batez, agintariei leporatu zien gerlaren luzatzea. Baina, gerlaren hastapenera itzultzeko, ez zuen gerla aitzineko jarrera bakarrik kritikatu. Hastapeneko huts taktikoak aipatu zituen, eta Frantziako aitzindari militarrei leporatu zizkien Charleroiko porrota eta hastapeneko gibelatzea. Etxeparek zioen lehen asteetan Frantziako departamendu batzuk Alemaniaren esku utzi zituztela, Frantziako armada ez zelako ongi jokatu. Horrez gain, Frantziako soldaduen uniformeak sobera ikusgarriak zirela ere azaldu zuen:

Ofizierak ba holetan, ofizierak ginituen hastapenean beren soinekoen dirdiratik ikus errex. Etziren gordetzen ere dohakabeak: beti xutik, beti besoak goituz manatzen beren gizoner, beti beren gizonetarik apur bat bazter. Alemanak aldiz heier bereziki aiher, heien aurdikitzeo ukanki tirokari hautetsiak. Hartakotz dugu, lehenbiziko hiru astetan, hainbertze aitzindari galdu, gehienak hilik.⁷⁹⁷

Hautu horren ondorioz aitzindari anitz hil zela azpimarratu zuen. Beste artikulua pare batean, aldiz, alemanak gerlako tekniketan anitzez aitzinatuagoak zirela esplikatu zuen. Alde batetik, lubakien eraikuntzan alemanak nagusi zirela eta horretan ere Frantziako aitzindariak huts egin zutela kritikatu zuen⁷⁹⁸. Alabaina, lubakiak egiteko alemanen teknika hobea zela errateaz gain, babesteko sistema ere hamar mende lehenagotik zeukatela eta frantsesak horretaz ez oroitu izana leporatu zien aitzindariari. Etxepareren ustez, teknika hura gogora ez ekarri izanaren ondorioa zen Frantziak lur batzuk galdu izana⁷⁹⁹. Dena den, Mario Ishengiren arabera, lubakietako borroka Lehen Mundu Gerraren berezitasuna izan zen⁸⁰⁰.

Etxepareren artikulua horiei zor zitzaien gerlari buruzko datu zehatzago, hotzago eta objektiboagoen agertzea. Baina, ooren buru, artikulua bakar batzuk baizik ez ziren izan. Jean Saint-Pierrek Charleroiko porrotetik zenbait hilabetera aipatu zuen hastapenean kanoi gutxi zeukatela eta horregatik egin zutela gibelerara⁸⁰¹. Baina ezin erran kritika biziki zorrotza zenik: kanoi azkarrak eskuratu zituztela aipatzeko artikulua batean azaldu zuen hastapenean ez zeukatela halakorik, baina artikulua kutsu baikorra zuen, ongi armatuak zirela argitzea baitzen helburua.

Ooren buru, nahiz eta Etxepareren zehaztasuna eta Frantziako agintariei kritika salbuespena izan *Eskualduna* astekarian, harrigarria da artikulua bakar horiek ere argitaratu izan zirela pentsatzea. Lehenago aipatu dugu zentsurak ahulguneak bazituela, eta ahulgune horien seinale gisa ikus ditzakegu artikulua horiek. Gisa guzietan, hastapeneko irizpideen arabera, Frantziako armadaren asmoak agerraraz zitzaizketen xehetasunak ziren debekatuak,

⁷⁹⁷ Jean Etxepare, «Alemanak hurbiletik», *Eskualduna*, 1914ko urriaren 23a.

⁷⁹⁸ Jean Etxepare, «Langileak nundik», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11.

⁷⁹⁹ Jean Etxepare, «Urrikitana», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 4a.

⁸⁰⁰ Isnenghi, *La Première Guerre Mondiale*, 47.

⁸⁰¹ Jean Saint-Pierre, «Kanoi handiak», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.

ez hainbeste irakurketa politikoak, nahiz eta pixkanaka zentsura politikoranzko lerratze bat gertatu. Etxeparek zenbait aste eta urte lehenagokoak aipatu zituen eta, beraz, ez zuen Frantziako armadaren segurtasuna arriskuan ezarri.

Dena den, salbuespen horiek aipaturik, lan osoan zehar ikusten ari garen bezala, Etxepareren artikulu horietako jarrera kritiko horrek ez zuen astekariaren ildo editoriala islatzen. Gerlari buruzko arrazoiak ematean, argi ageri zen zein zen astekariaren ildo: etsaia alemana zen, eta erantzukizun guztia Alemaniarena zen. Astekariak bat egiten zuen, beraz, Frantziarekin eta etsai haren kontra egin beharreko gerlarekin.

2. Gerla laburretik luzera

Frantziaren aldeko jarrera horri loturik, gerlari buruzko aurreikuspenak ere jarrera horren arabera egiten zituztela ikusiko dugu. Gerla zergatik lehertu zen azaltzen ez baziren anitz luzatu ere, gerlak zer bilakaera ukanen zuen iragartzen denbora gehiago iragaten zuten. Lehenik ikusiko dugu zer nolako aldaketa izan zen *Eskualduna*-ren testuetan, gerla hasi aitzineko astetik gerla hasi ondoko atera. Hastapenean, ohartuko gara ez zirela biziki bero gerlari begira. Gerla lehertu orduko, ordea, zein baikortasun handiarekin jokatu zuten aztertuko dugu. Baina gerla ez zela uste bezain laburra izaten ari ohartzean, Frantziak zein huts militar eta tekniko egin zuen aitortu zutela ikusiko dugu. Horrez gain, gerla luzea izanen zela onartu zuten unea ere barnatuko dugu. Eta gerla uste baino luzeagoa izateak etsipen zerbait sor zezakeela agertu bazen ere, hala ere astekaria beti itxaropentsu agertu zela erakutsiko dugu.

a) Hastapeneko dudak

Franko ezaguna da gerla lehertu ondoko *Eskualduna* astekariaren zenbakiaren azal berezia. Ohiturak hautsirik, hiru zutabeko izenburu batean «Gerla haste – Biba Frantzia!» idatzi zuten, eta artikuluak gerlaren aldeko itxura guztiak zituen. Paradoxa bada ere, gerla hasi aitzin, astekari hark zuen jarrera guztiz desberdina zen. Gerla hasi baino aste bat lehenago, *Eskualduna*-k ez zuen gerlarik nahi. Hasteko, gerlaren alde lazarrienak aipatu zituen, gerta zitekeenak sortzen zuen ikararen lekuko:

Aspaldiko urthetan ez dugu Frantzian ikusi, ez eta entzun egun hautan bezen hurbildanik, egunetik biharrera leher egitekotan, gerla; eta ez nola nahikoa; menturaz egundaino European eta bertze non nahi ere izan den gerlarik izigarriena.

Bi populu handi, hala nola Frantzia eta Alemania, buruz buru elgarren kontra ezartzeko orde, hiru, lau, sei, zortzi, nork daki zonbat nazione, oro sutan, oro elgarren hilka, karraskan lotharazteko aiher den gerla bat; arte laburrez oraiko tresna ikaragarriekin bazterrak oro erhauts bailitzazke; guziak odoletan, pusketan ezar, behingo larrutuak hobekienik geldi litazkenak, eta nork daki zonbat eta zoin sekulakotz suntsituak.⁸⁰²

Hiriart-Urrutik erabili zituen hitzak pisu eta larritasun handikoak ziren: bazterren erraustea edo suntsitzea eta jendeak pusketan eta odoletan izatea esaldi bakarrean bilduz, kataklismoaren itxura eman zion etor zitekeenari. Geroak erakutsi zuen gauzak halatsu gertatu zirela, eta argi da artikulua idatzi zuenak ez zuela halakorik nahi. Berezik azipimarratu zuen erlijioa eta hura ordezkatzeko zuten gizonak errotik bakezaleak zirela:

Erlisioea, bereaz bera, ez da gerla piztale; kontrarat.

[...] Lurden izan bazinete iragan astean, hanche ikusiko zinuten ez denez erlisioea bakearen alde.

Aditzekoak ziren, harat bilduak, han mintzo gizonen, gizon guzien, bereziki girstino guzien arteko bakeaz, batasunaz, aneiatasunaz, apezpiku bihotz handidun batzu: angles, italiano, amerikano, rusiano, ba eta urrunagoko.

Goraki zioten beren mintzaldi ederretan aldizka orok: oro elgarren haurride girela mundu huntan; orotako haurridenik, gu katolikoak.

Hanitzei begiak busti ere zaizkote, gerlazko burumbaz oro betheak diren egun hautan, hanche Lurderat jina, han mintzo, Cologne hiri handiko aleman apezpiku bat, boza ikaratzeko zitzaiolarik eta bihotza pil-pil ari – aise ageri omen, zinez mintzo zela – «Zertako ez ginuken behar elgarrekin bakea, bake osoa, katolikoek bederen katolikoekin, edo zoin herrialdetako izanik ere?

[...] Agian Jainkoak eta Ama Birjinak entzunen dituzte Lurden, Aita Sainduaren ordain han zen kardinale buruzagiak egin-arazi dituen othoitz kartsuak, bakearentzat.

Diraukula bakeak. Jainkoak beira gitzala gerlatik!...⁸⁰³

Hiriart-Urrutik aipatu zituen otoitz horiek guztiak alferrik izan ziren, azken finean, gerla lehertu baitzen. Eta *Eskualduna*-k ere gerlarekin bat egin zuen, Frantzian ordu arte bakezaleak ziren gehienek bezala. Ez zen harritu behar, orain aipatu artikulua horretako zati batean, erasoari erantzuteko beharra edota aberria defendatzekoa agertzen baitziren:

Bakarrik herriaren amodioa da, herriko zuzenen zaintzeko karra ba sustatzen du, azkartzen bihotzean, bizi atchikitzen; soldadoari altchatzen dio bihotza erlisioeak; erakasten dio bere eginbidea; gogoan ezartzen: eginbidetan den handienari, herriaren begiratzekoari ez diola behar egin uko.

Hori zeiea gaizki zonbeiti? Non litake herria? Non ginitazke oro, zoin gureaz gure, soldadorik ez balitz, ez armadarik, ez herriko zedarrien zaintzalerik? Arrotz etsaiari nork nola iharduk, zuzen kontra jazarri nahi zaukunean, edo gure lurreri, ontasuneri lothu.⁸⁰⁴

⁸⁰² Hiriart-Urruti, «Bake ala gerla?». 1914/7/31.

⁸⁰³ Ibid.

⁸⁰⁴ Ibid.

Hots, nahiz eta gerla baino nahiago zuen bakea, soldaduak eta armada beharrezkoak zirela zehaztuz eta «zuzen kontra jazarri» nahi zuen «etsaiari» erantzun behar zitzaiola erranez, aitzinetik ari zen etor zitekeenaren justifikatzen. Gerla ez zuen nahi, baina erasoaren aitzinean gerla egin behar zela erratea bezala zen. Hori izan zen ondoko hilabeteetan franko zabaldua izan zen iritzia: erasoari erantzun behar zitzaion.

b) Baikortasun itsua

Gerla lehertu bazen lehertu, astekariaren tonua guztiz aldatu zen. Iragarpen beltz haiek bazterrean utzi eta berehalako garaipenaz segur zirela erakustera eman zuten. 1914ko agorrilaren 7ko artikulua nagusiak ez zuen gerlaren iraupenari buruzko iragarpenik egiten, baina gerla laburra izanen zelako usteak presentzia handia zeukan.

Ukan dezagun konfiantza gure armadetako aitzindarietan; egin dezotegun kreit, behar den guzia eginen dutela.

Kreit gobernamentuari ere: berriak goizago edo berantago beren tenoren jakinen ditugula.

Anharteaz, aste huntakoak eman errechak ditugu, zere eta guti baita, biziki guti, berri segurik.

Omen omenkako berriak ez ditugu nahi eman, edo ahalik gutiena; eta oraino erranez, ez direla segurak.

Sarri, sarri berri handiak; agian onak; gero ta hobeak, Jainkoak laguntzen gituelarik.⁸⁰⁵

Artikulu hari halako baikortasun bat zerion; soldaduen eta haien aitzindarien baitako konfiantza itsu bat erakusten zuen. Garai hartako artikulua frankotan erakutsi zuen gerla aste gutxiz bururatuko zelako ustea. Hori aitortu zuen Jean Elizalde *Zerbitzari*-k 1914ko urrian:

Guzieri hemen, haucha zauku: gerlak hainitz irauten duela. Zoin gure etchetarik, Bayonako, Tarbeko edo Bordeleko kazernetan sartu ginelarik, iduri zitzaukun zortzi edo berantenaz hamabortz egunen buruko, berriz etchean ginela, etsaiak erhautsirik.⁸⁰⁶

Gerla egun bakar batzuek trenkatuko zelako ustea ez zen bakarrik *Eskualduna* astekariarena; orokorra zen. Alemanek ere bost astez garaitzea iragarri zuten⁸⁰⁷. Frantsesek ere aste gutxikoa izanen zela uste zuten, gorengorenaz urte bukaera arte iraunen zuela⁸⁰⁸, besteak beste herri guztiak gizonez husturik egotea ezin zelakoan luzatuko zen egoera

⁸⁰⁵ Hiriart-Urruti, «Irakurtzaleri». 1914/8/7.

⁸⁰⁶ Jean Elizalde, «Frantzian gerla tokitik», *Eskualduna*, 1914ko urriaren 16a.

⁸⁰⁷ Fischer, *Les buts de guerre de l'Allemagne impériale, 1914-1918*, 51.

⁸⁰⁸ Jean-Jacques Becker, *La France en guerre 1914-1918. La grande mutation* (Bruxelles: Editions Complexe, 1988), 31.

bilaka⁸⁰⁹. Beraz guztiz normal da euskarazko astekari honek ere gisa bereko jarrera erakustea.

Nahiz eta gerla uste baino gehiago luzatu, 1914ko azaroan egun edo aste gutxi barne bururatuko zela uste izaten segitzen zuten:

*Errain dautzietan, egun jendia hemen arras alegera dela, jakinik gerla hau fite finituko dela; agian egia izan da!*⁸¹⁰

Jarrera hori franko jarraikia izan zen gerlak iraun zuen denbora gehiengan. Denbora guztian, gerlaren bukaera eta garaipena hurbil ikusten zituen *Eskualduna*-k, nahiz eta pasatzen ari ziren hilabeteek baikortasunerako arrazoiak gezurtatu. Jean Saint-Pierrek bukaera 1916ko udazkenerako iragarri zuen, 1915eko abenduan, erranez alemanek gizon eskas handia zutela, eta frantsesek izanen zutela garaipena⁸¹¹. Handik hiru astera, Alemania gerla galtzekotan zela idatzi zuen⁸¹². Jean Etxeparek garai bertsean (1915eko abenduan), 1916ko udarako egin zuen gerla bukaera iragarpena⁸¹³. Baina sei hilabete geroago⁸¹⁴, uda oraino hasi gabe, udazkenean bukatuko zela iragarri zuen, beti baikor jarraituz. Ez zuen inporta gertakariak frogatzea iragarpen txarrak egin zituztela; hala ere segitzen zuten iragarpenak egiten, beti baikor agertuz.

Haatik, André Bachen arabera, Frantziako agintariak berek ez zuten uste gerla laburra izanen zela edo frantsesak aise nagusituko zirela. Haren arabera, gerla eskualde gisa deklaratu zuten Frantzia iparralde gehiena, Britainiaraino. Jarrera hori ez zetorren bat diskurtso ofizialarekin. Hain zuzen, aukera ezkorrenak ere aurreikusi zituzten⁸¹⁵. Jean Lestocquoyek dio prentsa guztiak gisa bereko artikulu baikorrak idazten zituela, nahiz eta «funtsean, nehor ez zuten engainatzen»⁸¹⁶.

Erran dezakeguna da, *Eskualduna*-ren eta gainerakoen errealismotik kanpoko baikortasun horrek populazioa mobilizaturik atxikitzeke eta kemena emateko balio zuela, Jacques Fontanak zehaztu bezala:

*Même si elles se sont révélées fausses, ces prévisions entretenaient l'espérance. On comprend que les habitants des régions envahies se soient laissé bercer par elles.*⁸¹⁷

⁸⁰⁹ Ferro, *La Grande Guerre*, 57.

⁸¹⁰ «Bachenárre aldetik», *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 20a.

⁸¹¹ Jean Saint-Pierre, «Gizon eskasa», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 24a.

⁸¹² Jean Saint-Pierre, «Etsaiaren barneko mina», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 14a.

⁸¹³ Jean Etxepare, «Gerlaren iraupena II», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 10a.

⁸¹⁴ Jean Etxepare, «Noiz geldituko», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 16a.

⁸¹⁵ André Bach, *Fusillés pour l'exemple: 1914-1915* (Paris: Tallandier, 2003), 192–193.

⁸¹⁶ Lestocquoy, *Histoire du patriotisme en France. Des origines à nos jours*, 210.

⁸¹⁷ Fontana, *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*, 40.

Eskualduna astekariak, besteak beste, ikuspegi baikor baina iragarpen erratu horrekin erakusten zuen gerla hartan nola inplikatzeko zen, Frantziaren alde. Sinetsi nahi zuen irabaziko zutela. Eta gisa hartan, bere herritarren eta irakurleen artean baikor egoteko arrazoiak eman nahi zituen, kemena atxiki zezaten gerlarako. Gerla hasi aitzin agertu beldurra guztiz ezabatu zen bat-batean. Horrek are garbiago erakusten zuen *Eskualduna* zein aise plegatu zen Frantziako Estatuak finkatu premietara.

c) Huts militarren eta teknikoek aitortza

Hastapeneko berotasun hori epeltzen eta hozten hasi zen zenbait asteren buruan. Denbora pixka bat pasatu ondoan eta gauzak ez zirela uste bezain laster eta ongi bukatuko ulertu ondoan, autokritika hein bat egin zuten *Eskualduna* astekarikoek. Autokritika hitza beharbada handiegia da, baina gerla hasi eta lau hilabeteren buruan aitortu zuten, hastapenean gerla biziki laburra izanzen zela uste zutela. Lau hilabete geroago gerla luzatzen ari zela ikusi eta onartu zuten. Baina *mea-culpa*-rik ez Manex Hiriart-Urrutiaren editorialean, lau hilabeteren buruan, denbora luze hori ez zela hain luze idatzi baitzuen:

Lau hilabete, luze da eta ezta luze. Sofritzeko gau eta egun sofritu dituztenak, hor harat joan gizon gaiztoek, eta hemen heien eskasaren jasaiteko, egunak, asteak, hilabeteak ikharan bizitzeko, herioak ereman ditzan zoin beren etchetan hain behar semeak, aneak, senharrak, bi, hiru, lau haurren aitak, luze da: lau hilabete!

*Bainan ezta luze, ... labur da, gu lothuak gitzazko lan gaitzaren bururatzeko.*⁸¹⁸

Funtsean, hastapeneko aurreikuspenak ez zirela nahi bezala atera aitortzeko ordeztan, *Eskualduna*-k aitzina jarraitu zuen irakurleei mezu baikorrak zabaltzen. Artikulu berean azpimarratu zuen Frantziako armadak «gaina» zuela Alemaniakoaren gainean, erranez alemanek lau aldiz hil gehiago zutela.

Urte bat baino gehiago egon behar izan zen hastapenean gertatu zenaren berri zehatzagoen jakiteko. Hiriart-Urruti hil ondoan, Blaise Adémar kontatu zuen frantsesek zergatik ez zuten egin hastapenean espero zuten oldarra:

*Zertako utzi ditugu Alamanak Frantziaren sartzera? Zeren ez baiginuen orduan hoik bezenbat soldado eta kanoi. Eta gero, hoiengatik hautsi dugularik, ihes eginarazi diotegularik, zertako ez ditugu gure Frantziako mugatarik kampo egorri? Zeren gure kanoi eta chichpentzat ez baiginuen bazkarik aski.*⁸¹⁹

Hots, hastapenean ez zuten armarik aski etsaiari buru egiteko. Baina horiek guztiak ez zituzten aipatu gerlaren hastapenean, ez eta ere lehen hilabeteetan. Halaber, Charleroi

⁸¹⁸ Manex Hiriart-Urruti, «Lau hilabetez», *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 27a.

⁸¹⁹ Blaise Adémar, «Zer eskas?», *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 19a.

porrota ez zuten aipatu. Baina Charleroiri buruzko irakurketa kritikoak geroago agertu ziren. Jean-Norton Cruk garbiki erran zuen ofentsiba goraiatzeko zela, baina kirolaren eraginez. Haren ustez, ordea, gerla ez da kirola, eta frantsesen ofentsiba ez zen eraginkorra izan. 1914an alemanen ofentsibaren aurrean, Frantziako armadak beste ofentsiba batez erantzun ez balio, gauzak ez ziren hala gertatuko. Huts taktiko handitzat jo zuen⁸²⁰. Roger Fraenkel historialariak ahoan bilorik gabe idatzi du Joffre jeneralaren kontra, erranez, 1914ko agorrilaren 8tik 24erako gudu guztiak «hondamenak» izan zirela Frantziarentzat, eta hamasei eguneko epean Frantziak Verduneko guduko lehen lau hilabeteetan bezainbat gizon galdu zuela. Fraenkelen arabera, alemanek beren defentsa ongi prestatua zuten⁸²¹.

Halako gogoeta gogorrik ez zuen egin *Eskualduna*-k. Gerla denboran ez zen halakorik irakurtzen. Aitzineko lerroetan aipatu dugun Blaise Adémaren artikulua Frantziako armadaren kritikatik baino gehiago dauka, huts egitearen justifikazioak eta barkamenak bilatzeko ahaleginetik. Hastapenean armarik aski ez ukaitea ia kanpoko faktore gisa aurkeztu zuen, alemanek gehiago zituztenaz geroz. Frantziaren «ahulezia» xedeen obratzeko «denbora galtzen» zutela zen, Adémaren iritziz. Gisa hartan, alemanek aitzina hartu zuten lubakien eraikitzen. Baina Frantziako armadarenganako kritika tonu ez-tan egiteaz gain, *Eskualduna*-k huts horiek guztiak zuzenduak edo zuzentze bidean zeudela azpimarratu nahi izan zuen, oroz gainetik. Beraz, huts militar edo teknikoaren aitortza ez zen kritikaren parte sartu behar, baizik eta hutsen gainetik, baikortasunari eusteko ahaleginaren jarraitzearen parte.

d) Gerla luzea izanen dela onartzea

Gerla uste baino luzeagoa izanen zela aski laster onartzen hasi ziren *Eskualduna* astekarian. Hiriart-Urrutik berak, 1914ko urrian, gerla luzea izanen zela esplikatu zuen, baina berri txar hura berri on gisa aurkezten asmatu zuen, 1870eko gerlarekin konparaketa eginez. 1870ean gerla bi hilabetez galdu zutela, baina zortzi hilabete iraun zuela esplikatu zuen. 1914an lehertu gerla hura baino luzeago izan zitekeela, baina ez zutela galdu eta ez galduko segurtatu zuen⁸²².

Gerla lekutik, Jean Elizalde *Zerbitzari* ere aski laster hasi zen aitortzen gerla uste baino luzeagoa izanen zela, hastapeneko baikortasuna erlatibizatuz. 1914ko urriko artikulua hartan

⁸²⁰ Jean-Norton Cru, *Du témoignage* (Paris: Gallimard, 1930), 69.

⁸²¹ Roger Fraenkel, *Joffre: l'âne qui commandait des lions* (Paris: Italiques, 2004).

⁸²² Hiriart-Urruti, «1870-1914». 1914/10/9.

esplikatu nahi izan zuen armamentuz eta indarrez frantsesak nagusi zirela, baina gerlaren etengabe luzatzea Alemaniak zuen gerlari kopuru handiaren ondorioa zela⁸²³.

Baina gerla luzea izanen zela idazten zutenean, ez zuten inondik ere uste lau urte iraunen zuela. Horren lekuko zen artikulu zati hau:

*Beraz, Eskualdunak, altcha bihotzak demborak heldu dire. Uste guzien arabera, udan gure Herria, gure burhasoak, gure etcheak, gure mendiak eta gure itsasoa ikusiko ditugu. Eta agian, orduan egingen den bakeak iraunen du, gure haurrak eta gure haurren haurrak handitu arte.*⁸²⁴

Hilabetez hilabete, bukaera hurrengo hilabeteetarako aurreikusten zuten, baina aldi oro gibelatzen zen. Frantziako Legebiltzarrak 1915eko ekainean baizik ez zuen aitortu gerla luzea izanen zela, baina Christophe Prochasson eta Anne Rasmussen ikerlarien arabera, Frantziako agintariek biziki laster ulertua zuten gerla ez zela laburra izanen, Marneko gudutik landa, alemanen ofentsiba geldiarazirik, galdutako lurak berreskuratzeko xedetan baitziren:

*Il est bien connu qu'on s'attendait à une guerre courte. Mais cette perception n'est pas linéaire. Septembre 1914, qui voit stopper l'avance allemande sur la Marne, fait passer du désir d'un conflit bref à l'évidence, et au désir, côté français à tout le moins, d'une guerre qui dure.*⁸²⁵

Gerla oraino zenbat denboraz luzatuko zen maiz idatzi zuten *Eskualduna*-ko idazleek. Jean Elizalde, Etxepareren iragarpen batzuk komentatu zituen, 1916ko uztailean. Etxeparek urte hartako udazkenerako espero zuen gerlaren bukaera; Elizalde *Zerbitzari*-k, aldiz, ondoko urtatserako:

Beraz noiz akhabatuko da gerla? Helduden urthatsi buruz. Nolaz dezaket ba hori erran? Idek begiak.

Hemendik zenbeit egunen buruan Rusianoek esku emanen diote Salonikan ditugun soldadoeri. Ordu berean Angles rusiano, Italiano eta Frantsesak karraskan jazarriko zaizkote etsaieri. Guduek iraua dezakete zenbeit dembora. Bainan azkenekotz ziloa gutarik norbeitek kausituko du Alemaniarat sartzeko. Orduan debruak egin du pulloa. Amor eman beharko du etsaiak.

*Horra zer dutan nik uste. Badire naski ni hola mintzaturik irri egingen dutenak eta erranen: «Gaizoa» ! Baditake gaizo bat naizen, bainan hori uste dut. Bertzerik uste duena mintza bedi. Harek dezan egia erran edo nik.*⁸²⁶

Gerlako lekutik idatzi zuen hori. Geroak garbi utzi zuen gauzak ez zirela hala gertatu. Nondik zituen *Zerbitzari*-k halako usteak? Halako solasak komentatzen ziren armadaren barnean? Berak aitortzen zuen hori bere ustea baizik ez zela, eta beste batzuk ez zutela berdin uste. Baikor egon nahi horren baitan kokatuko genuke, guk, artikulu hori. Hots,

⁸²³ Elizalde, «Frantzian gerla tokitik». 1914/10/16.

⁸²⁴ Jean Elizalde, «Martxoaren 31ean», *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 2a.

⁸²⁵ Prochasson eta Rasmussen, *Vrai et faux dans la Grande guerre*, 12.

⁸²⁶ Jean Elizalde, «Noiz arte?», *Eskualduna*, 1916ko uztailearen 7a.

funtsezko diskurtsoa beti bera zen: *Eskualduna*-ko idazleek Frantzia garaipenaren bidean ikusten zuten etengabe, edo bederen, hala agertu nahi zuten.

François Cochet baikortasun horretaz mintzatu zen⁸²⁷: «La guerre s'installe dans la durée, mais chacun ne tient que parce qu'il est convaincu que cette durée est provisoire». Hortxe ageri da *Eskualduna*-n idazten zutenek zergatik segitzen zuten halako baikortasunarekin. Nahiz eta gerla luzatu, etengabe jarraitu zuten pentsatzen luzatze hori behin-behinekoa izanen zela. Eta horrek ematen zien indarra. Zein izanen ote zen haien jarrera, hastapenetik erran izan balitzaie gerlak lau urte iraunen zuela? Irautekotan, eta herritarrei baikortasuna eta kemena ematekotan, gerlaren bukaera ahal bezain hurbil erakutsi behar zuten.

e) Etsipenaren gaintetik, itxaropentsu

Baina gerlaren luzatzeak itzal bat zekarren, eta nekez egin ziezaiokeen ihes *Eskualduna*-k: jendearen baitan sortzen ari zen etsipen giroa. 1915eko urtarrilean, gerlak beste bost hilabete gehiago irautea izugarritzat zeukan Hiriart-Urrutik, eta ordurako izan zen hil kopuruagatik kexu zen:

Jada zoin luze, zoin odol edale, zoin gizon bizi eta hil یره! 828

Gerlaren luzetasunaz eta horrek sortzen zuen sufrimenduaz mintzo zen artikulu hartan. Hilabete batzuk geroago, gerlaren luzatzeaz eta egoeraren egonkortzeaz konparaketa berezia egin zuen, Euskal Herriko irakurleek aise ulertzeko gisakoa:

Gutaz zer erran? Ihardesten dut: Zer erran gurekin borroka, ihauzka, zalapartaka, hilka urthe huntan ari diren aleman azkar ezin garhaituzko hetaz?

Balitz pilota partida handi bat, duela zortzi egun hasia, ezin trenkatua nehorat neholere; arrats guziez hastean bezen gibela, goiz oroz berhaste, bi aldeak bardin pilotari on, zer zinezake zuk erran eskualdun irakurtzalea? - Elgarren bethe badirela. - Ontsa da; zertako juja bertzela gerlari hauk? [...] Egia hunat erradazu, othoi, adichkidea, norentzat pariatzen duzu? Nork du irabaziko zure ustez, partida hori?

Hori ber-bera da Frantziaren eta Alemaniaren arteko gerla partida hau, berez bere; batetik bertzerako eskasa lagunek bethetzen dutelarik. [...] Frantsesak alemana beretik oraino ezin khen; alemanak frantsesarenean ezin aitzina. Bardin edo 'ados', han egoki biak, zonbeit urhats baizik ez dutela bien artean; hura ere ez tokitan.

Hori zautzue dela: Frantzian alemana nausi, Alemanian ez frantsesa?... / Emazue hortik othoi! 829

⁸²⁷ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 124.

⁸²⁸ Manex Hiriart-Urruti, «Bi bakeak», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.

⁸²⁹ Manex Hiriart-Urruti, «Nor ja nausi?», *Eskualduna*, 1915ko agorrilaren 27a.

Ezin bururatzeko pilota partida hori aipatzean, etsitzeko arrazoiak ikus zitezkeen. Hor ez zen aipatzen Frantzia Alemania baino indartsuagoa zelakorik. Indarrak orekatuak zirela aitortzen zuen Hiriart-Urrutik. Errealitatea hori zen, baina, hori aitorturik ere, ez zion lekurik utzi nahi etsipenari. Ez zitzaion onargarri iruditu hortik ondorioztatzea Frantzian alemana nagusi zela.

Zenbait hilabete geroago, Blaise Adémak jendearen baitan etsipena bazela islatu zuen, nahiz baikor agertu nahi zuen:

Gerlaren hastapenean, uste zuten gerla batek, oraiko tresnekin, ez zezakela nehola ere iraun bizpahiru ilabete baino gehiago. Nork asmatuko zuen orduan, soldadoek lur pean behar zutela gorde, eta etsaiek han egin, elgarri arras hurbil, hainiz ilhabetez, ez aitzinatu ez gibelatu gabe?

Orai berriz hainitzen ahotik entzuten duzu hauche: gerla ez ditekela nehola ere burura Frantziako aldean. Hunat gerlako erreketarik zenbeit egunentzat heldu zaizkigun soldado gehienak dire hola mintzo. Ezen neronek entzun ditut erraiten: «Ez gaituzte Alamanek gure erreketarik khenduko, bainan guk ere ez hek. Ez dakigu beraz batere noiz arte garen han.»

Holako solasak gero errepikatzen dire bazter guzietan, eta jendea izitua da, ez dagola gerla hau bururaturik. [...] Ageri da Alamanak gu baino khechatuago direla gerla hunen laster bururatzeko, ez baitezakete gehiago luzaz iraun. Horra zertako, guzien arabera, urthe hunek goizago edo berantago, ikusiko duen gerlaren buztana eta buztan hori ongi moztuko.⁸³⁰

Artikulu horretan ageri zen etsipena bazela. Etsitzeko arrazoirik ez zegoela erantzun nahi zuen eta mezu horrekin bukatu. Joera erretorikoa erabili zuen, lehenik zer entzuten zen komentatzeko, eta gero entzuten ziren solas haiei erantzuteko. Nahiz eta kutsu baikorrarekin bukatu, ematen zuen funtsezko informazioa zen etsipena zabaldua zela.

Zenbait artikulutan, hitz gogorak agertu ziren gerlaren kontra. *Oxobi*-k, adibidez, «gerla madarikatua» aipatu zuen⁸³¹. Jean Etxeparek, aste bat lehenago, «gerlate lotsagarriki luzea» salatu zuen⁸³². Aipatu bi pasarte horiek 1918ko agorrilekoak ziren. Ordurako lepotik eta gorago aseak izatea ulergarri izan zitezkeen. Baina Etxeparek lehenago ere gogor idatzi zuen gerlaren luzatzearen kontra. 1915eko abenduan «noiz geldituko da sarraski hau?» galdetu zuen⁸³³. Gerlaren luzetasunak halako etsipen bat sortzen zuen Etxepareren baitan, eta franko garbiki mintzatu zen gerlaren gogortasun horren kontra. Hor nabari zen gerla luzeegi eta bortitzegi zitzaiola.

Baina Etxepareren artikuluek garrantzia baldin bazuten ere, halako solas gordinak salbuespenak ziren *Eskualduna* astekarian. Zenbait aldiz etsipena agertzen bazen ere,

⁸³⁰ Blaise Adéma, «Urthe on!», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 31a.

⁸³¹ Jules Moulier, «Goizalde», *Eskualduna*, 1918ko agorrilaren 16a.

⁸³² Jean Etxepare, «Bilku-salgia», *Eskualduna*, 1918ko agorrilaren 9a.

⁸³³ Jean Etxepare, «Gerlaren iraupena», 1915ko abenduaren 3a.

itxaropenari leku gehiago eman nahi zioten. Jean Saint-Pierre gehiago bideratua zen horretara. Hainbat aldiz, soldaduen kemena aipatzen zuen, anekdota batzuk kontatuz⁸³⁴, haietariko batzuen ekintza heroikoak agertzeko, eta beraz, kemena emateko. Beste zenbaitetan, guduen ondotik edo guduak baino lehen, armada osagarri onean zegoela azpimarratzen zuen⁸³⁵, horrekin baikortasun bat erakutsiz eta irakurleei kemena emanez. Soldaduen bihotza 1916an baino azkarrago zen 1917an, beste artikulu baten arabera⁸³⁶.

Astekariko editorialgileek ere etsipenaren gainetik ezarri nahi zuten itxaropena. Etsitzeko arrazoirik ez zegoela azpimarratu nahi zuen Blaise Adémak 1915eko abenduaren 31ko artikuluan⁸³⁷, bakea hasiko zen urterako espero edo nahi zuela adieraziz. Manex Hiriart-Urrutik gerla luzatzen ari zela onartzen zuen artikuluan ere⁸³⁸ eman nahi zuen gerla irabaziko zutelako segurtamena. 1916an ere baziren etsaia laster garaituko zutela zioten artikulu batzuk. Errumania gerlan sartzeak itxaropena ematen zuela idatzi zuen Adémak:

*Haien arabera, Rumania orai gurekin eman denaz geroz, gerla hunen buztana laster ikusiko dugu; ez naski Umia-Sainduetako, hastean uste zuten bezala, bainan Eguberriko bederen.*⁸³⁹

Hots, batzuek eta besteek, ez zuten etsipenerako tarterik utzi nahi. Garrantzitsuena, garaipenaren baitan sinestea zela adierazten zuten etengabe. Dударik gabe, une zail batzuetan, artikulu negatiboak saihestezinak izan ziren, baina oro har, alde negatiboa agertzen zen gehienetan ere baikortasunez bukatu nahi izaten zuten. Jarrera baikorra ez zen desagertu *Eskualduna*-ko zutabeetatik.

3. Bakeari buruzko eztabaida

Etengabe gerlaren bukaeraz baikor izateak beste eragin bat ere bazuen. Edozein egoera izanik ere, gerla uste baino anitzez gehiago luzaturik ere, *Eskualduna*-k ez zuen dudan ezartzen gerla Aliatuek irabaziko zutela. Beraz, horrek, bakea egiteko baldintzei buruzko eztabaidan ere eragina bazuen, logikoki. Eta funtsean, bakeari buruzko eztabaida maiz agertu zen astekarian. Alde batetik, bake eskaintzen eztabaida bera, bereziki Aita Santuaren ekarpenak eta hauek sortzen zituzten desadostasunak aztertuko ditugu. Horri loturik, bakea zer baldintzetan egin zitekeen edo ez esplikatatu zuten astekariko idazleek, eta iritzi horren

⁸³⁴ Jean Saint-Pierre, «Kurria», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 5a.

⁸³⁵ Jean Saint-Pierre, «Armada eder», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 17a.

⁸³⁶ Jean Saint-Pierre, «Guduaren segida», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 4a.

⁸³⁷ Adéma, «Urthe on!». 1915/12/31.

⁸³⁸ Hiriart-Urruti, «Lau hilabetez». 1914/11/27.

⁸³⁹ Blaise Adéma, «Oraitik», *Eskualduna*, 1916ko irailaren 22a.

berri ere emanen dugu. Bakeari loturik, beste solas batzuk ere zabaltzen ziren, hala nola behin betiko bakearen ustea, eta horretaz *Eskualduna*-k zer pentsatzen zuen jakitea ere interesgarria da.

a) Bake eskaintzen eztabaida

Gerla hasi eta laster hasi ziren bakeari buruzko eztabaidak eta planteamenduak. Aita Santuak hainbat aldiz egin zituen bakerako deiak. 1914ko agorrilaren 20ean Pio X.a Aita Santua hil zen, eta beraz, gerla garaia jarraitu zuena Benedikto XV.a zen. Georges Minoisen arabera, Aita Santu berri hark, 1914an berean, bakearen jainkoa goraiatu zuen eta Frantziako katolikoek, aldiz, armadaren jainkoa. Austriarrek beren armada bedeinkatzeko eskatu zioten Aita Santuari. Horrek erakusten zuen Aita Santuaren papera korapilatsua zela, elkarren artean gerlan ari ziren herrialde bakoitzak komunitate girstinoa zeukalako. Baina, oro har, Aita Santuaren deiek ez zuten hainbesteko eraginik ukan: elizgizon bakezaleek ez zuten arrakastarik, gerla zen eta nazioak erlijioak baino garrantzi handiagoa zuen⁸⁴⁰.

Aita Santuak oreka zailari eutsi behar zion. 1915eko agorrilaren 22an, girstinoak bi aldeetan zeudela esplikatzen zuen, eta horregatik ezin zuela alde baten edo bestearen alderdia hartu. Jean-Jacques Beckerrek laburbildu zuen Benedikto XV.aren jarrera:

«Avoir un comportement contraire ne servirait pas la cause de la paix, tout en risquant de provoquer de graves perturbations à l'intérieur de l'Église : par des condamnations sans efficacité, le pape n'aurait pu qu'entraîner la persécution des catholiques d'Allemagne. Une dernière raison justifiait le point de vue de la papauté, d'après ce document, dont on peut cependant penser qu'elle n'aurait pas été de nature à améliorer leurs sentiments envers le Pape si les Français l'avaient connue: à un moment où la victoire de l'Allemagne ne faisait de doute pour personne, en dehors de l'Entente, était-il indispensable d'exaspérer le vainqueur?»⁸⁴¹

Frantziako agintariak eta politikari laikoak ez zuten begi onez hartu Aita Santuaren eskaintza hura. Eta ondokoak ere ez. *Eskualduna* postura deserosoan zegoen, bistan denez: alde batetik, osoki bat egiten zuen Frantziarekin eta Alemaniaren kontrako gerlarekin, eta bestetik, leialtasun osoa zion Aita Santuari eta Vatikanuari. 1915eko urtarrilaren 29ko zenbakian Aita Santuaren deiaz mintzatu zen astekaria, baina ez editorialean, baizik eta lehen orriko laugarren zutabearen hasten zen artikuluan⁸⁴², zeina estiloaren ezaugarrien arabera, hain segur Blaise Adémak idatzi baitzuen. Artikulu hartan ez zegoen Aita Santuaren kritikarik; aitzitik, haren «artekotasuna» beharrezkoa zela eta herrialde guztiek

⁸⁴⁰ Georges Minois, *L'Église et la guerre: de la Bible à l'ère atomique* (Paris: Fayard, 1994).

⁸⁴¹ Becker, 1914. *Comment les Français sont entrés dans la guerre*, 465.

⁸⁴² Blaise Adéma, «Aita Saindua», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.

Aita Santuaren ondora joan nahi zutela azpimarratu zuen. Frantziari leporatu zion oraino ez zuela Aita Santuarengana bildu nahi, baina goiz ala berant hartara behartua izanen zela argitu zuen. Azkenik, Aita Santuak bakearen alde otoitz egiteko deia egin zuela azpimarratu zuen. Hots, *Eskualduna*-k guztiz ontzat eman zuen Aita Santua ez zedin gerla hartan busti.

Aita Santuak bakeaz mintzatzeko gutun bat egin zuen 1917an. Gutun hark harrera berezia izan zuen, aliatuei ez baitzitzaien hainbeste gustatu. Frantziako gobernuak eta baita gristinoek ere ez zuten lehen kolpetik onartu testu hura. Léon-Adolphe Amette Parisko artzapezpikuak bere gisara interpretatu eta aurkeztu zuen Aita Santuaren gutuna, erranez zuzenbidearen erreinua azpimarratu zuela⁸⁴³.

Eskualduna-k gutun haren berri eman zuen bere editorialean, baina ez zuen bere iritzia eman, beste gaietan ez bezala:

Lehenik behar da zuzena ezarri armaden indarra baino gorago. Hala orai arterainoko armada izigarriak guti ditezke hainitez. Hoiien orde eman liteke biltzar bat bakearen beiratzeaz arta lukena, erresumen arteko makurrak zuzenduz. Balitezke gaztiguak biltzar horren erranen arabera egin nahi ez luketen erresumentzat.

Gerla huntan kalte handiak eginak izan baitire, toki hainiz baita funditurik, Aita Sainduak ez du ikusten nola hoierei buruz erresumak elgarrekin antola ditezken, elgarri barkatuz beizik. Ez diteke holako sarraski batek iraun dezan aitzinat, diruzko makur zerbeiten gatik. Berdin diru hainiz baztertuko da, armadak gutitzearekin.

Alamanak joan beharko dire Frantzian dauzkaten eskualdetarik, eta Belgikatik ere, erresuma hori arras bere gain ezartzen delarik berriz. Alamaneri ere itzuliak izanen zaizkote Europatik kampo hartuak izan zaizkoten lurak. Eta nola baitire, ala Autrichiaren eta Italiaren artean, ala Frantziaren eta Alamaniaren artean, makur-bide diren eskualde batzu, hoientzat ikus diteke zer dioten eskualde hoitako jendeek. Bakotchak bila dezala lehenik zertan den guzien ona.⁸⁴⁴

Ohargarri da, bai, idazleak ez zuela bere iritzia eman. Aita Santuaren proposamena laburbildu zuen, baina ez zuen iruzkinik egin. Amette artzapezpikuaren gisan, «zuzentasunaren» ideiarri eman zion garrantzia. Haatik, handik urte baten buruan, herri aliatuetako agintariak bakeaz mintzo zirela, eta bake hura urte bat lehenago Aita Santuak egin proposamen berean oinarritzen zela komentatu zuen *Eskualduna*-k. Artikulu hartan, bai, lerroen artean, Frantziaren eta 1917ko agintarien isiltasuna kritikatu zuen:

Frantziak, Angleterrak eta Italiak ez zioten deusik ihardetsi, haren erranek merezi ez balute bezala. [...] Eta horra non orai Frantzia, Angleterra eta Norte Amerika mintzo diren hiruak, elgarrekin hitz harturik, Aita Sainduaren solasak bere egiten balituzte bezala.⁸⁴⁵

⁸⁴³ Jean-Marie Mayeur, «Les catholiques français et Benoît XV en 1917», in Chaline, Nadine-Josette (zuz.): *Chrétiens dans la Première Guerre mondiale* (Paris: Cerf, 1993), 154.

⁸⁴⁴ Blaise Adéma, «Aita Saindua», *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 24a.

⁸⁴⁵ Blaise Adéma, «Bakeaz», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 18a.

Frantziak eta gainerako aliatuek urte bat lehenago Aita Santuak egin proposamenetan oinarrituz eztabaidatzea ez zuen begi onez ikusi *Eskualduna*-k. Eztabaida hura bai, baina begi txarrez ikusi zuena zen urte bat lehenago eskaintza bera gutxietsi izana. Baina, funtsean, Francis Latourren arabera, gerla giro hartan, Vatikanoaren bake eskaintzak «gaizki ulertuak» ziren, eta elizgizonen «zirkulu hertsira» mugatuak⁸⁴⁶. Horregatik, *Eskualduna* astekariak oreka zaila zuen. Baina elizgizonen artean osatua izanez, Aita Santuaren diskurtsoa errazago heltzen zen haiengana, eta haren solasen nolabaiteko defentsa egitea zen haien gain hartu zuten funtzioa.

b) Bakea egiteko baldintzak

Bake eskaintzei eta proposamenei buruzko eztabaiden funts nagusia bakea egiteko baldintzen baitan zegoen, logikoa den bezala. Nehork ez zuen edozein preziotan izenpetu nahi bakea, eta *Eskualduna* ere ez zen bakea nolanhika egitearen aldekoa, nahiz eta Vatikanoak Frantziaren gustukoak ez ziren proposamenak egitean, ez zuen halako jarrera kritikoa agertzen. Dena den, gerlaren bukaera iragarpenak maiz egin bazituzten ere, bakea zein egoeratan nahi zuten ere maiz azaldu zuten. Baldintzetariko bat zen Alemaniak Alsazia-Lorrena eskualdea itzultzea, eta alde horretatik, frantsesek ez zuten onartu Aita Santuak eskualde hari buruzko elkarrizketak hastea proposatzea: frantsesentzat, ez zen elkarrizketarik izaten ahal kasu hartan⁸⁴⁷. Halaber, frantses anitz kexu ziren Aita Santuaren kontra, 1915ean bakea eskatzeak Frantziako zati konkistatua galtzea erran nahi zuelakoan⁸⁴⁸.

Zati konkistatua berreskuratu arte amore ematearen kontra zeuden *Eskualduna*-koak ere. Jean Etxepare baikor ageri zen 1916an, eta ez zuen onartu nahi alemanen bake eskaintza, aliatuek oraino gehiago irabazi behar zutelakoan.

*Eskaini daukute, dakizuen bezala, bainan gutarik nehork ez onetsi. Nundik onets ginezaken, halako eremuak eskutan dauzkalarik etsaiak? Lepoaren urka-bilurrean sartzea zitaken guretzat!*⁸⁴⁹

Jean Saint-Pierrek ere bakea egiteko baldintzak aipatu zituen, erranez ez zutela amore eman nahi galdu zutena berreskuratu arte⁸⁵⁰. 1917an erreferentzia argia egin zien Alsazia eta

⁸⁴⁶ Francis Latour, *La Papauté et les problèmes de la paix pendant la première guerre mondiale* (Paris: L'Harmattan, 1996), 297.

⁸⁴⁷ Ibid., 178.

⁸⁴⁸ Fontana, *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*, 181; Becker, *La France en guerre 1914-1918. La grande mutation*, 111.

⁸⁴⁹ Jean Etxepare, «Bakarrik ez oraino», *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 29a.

⁸⁵⁰ Jean Saint-Pierre, «Noiz artio?», *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 19a.

Lorrena eskualdeei, azalduz alemanek bakea egin nahiko zutela gauzak ziren bezala utziz, eta frantsesek hori ez zutela onartuko⁸⁵¹. Jean Elizalde *Zerbitzari* ere ildo beretik mintzo zen: Alemaniari guztiz nagusitu arte ez amore ematearen beharra esplikatu zuen. Sagar batengatik borrokan ari diren bi gizonen parabola kontatu zuen, gerla batean amore ematen duenak dena galtzen duela azaltzeko, eta beraz Alemaniak ere ez zuela bakea beretzat baldintza onetan ukanen⁸⁵².

Gisa bereko solasak erabili zituen Jean Etxeparek, 1917ko udaberrian, Stockholmen bake elkarrizketak izan zirenean. Behin eta berriz erran zuen bakea izatekotan, alemanek amore eman behar zutela, inguruko estatu-nazio guztiak aurka zituztelako eta guztiz ahulduak zirelako⁸⁵³. Gerlan zehar egindako kalte guztiak Alemaniak eta Austria-Hungariak beren gain hartu behar zituztela gehitu zuen⁸⁵⁴. Etxeparek hainbat artikulutan xeheki esplikatu zituen elkarrizketa haiek, estatu bakoitzaren ekarpena eta mahai gainean jarri zituzten baldintzak. Beraz *Eskualduna*-k ez zuen bakezaleekin bat egiten. Thierry Bonzom⁸⁵⁵-en arabera, bakezale gutxi zegoen, oro har, eta zirenak sozialistak ziren, iraultzarekin lotzen zutelako. Beraz, politikoki ere, *Eskualduna* ez zen bakezaleen aldean.

Gerlak iraun zuen urte horietan zehar, alemanek eskaini bake proposamenei ezezko erantzuna zergatik eman zieten azaldu zuen *Eskualduna*-k, editorialean. Bakea aliatuen baldintzetan eginen zela azpimarratu zuen⁸⁵⁶. Alemaniak bakea zergatik eskaini zuen eta zergatik ezin zioten onartu ere esplikatu zuen Blaise Adémak:

Erran dezagun berehala, etsaiek orai bakea galdetzen daukutenaz geroz, bake horren beharretan behar direla izan osoki, ez dezaketela beraz gehiago ihardok gerlarekin. Gerla hau hasia dute, Frantzia lehertu eta puskatu beharrez. Badakite Frantzia oraino aski azkar dela bere lurren puskatzerat ez uzteko. Beraz zertako eskaini bakearen egitea, ikusten dutelarik beren chedeetarik urrun gelditu beharko dutela? Ez zezaketen hobeki aitor beren beldur handia. [...] Ezen arras ongi ageri da, eskainia zaikun bakea ez dela alegiazko bake bat beizik. Gure etsaien gogoa beti bera da. Eskaintzen daukuten bakea laburra liteke. Badakite zerk egin dioten huts oraiokan, zeren eskasiak ez dituen utzi beren chedeen bethetzerat, gu guzien zafratzerat. Zenbeit urthez bil letzazkete ausarkian orai eskastu zaizkotenak, eta berriz laster haste liteke gerla.⁸⁵⁷

⁸⁵¹ Jean Saint-Pierre, «Noren meneko?», *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 3a.

⁸⁵² Jean Elizalde, «Nola doan gerla», *Eskualduna*, 1917ko urriaren 19a.

⁸⁵³ Jean Etxepare, «Bakea?», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.

⁸⁵⁴ Jean Etxepare, «Elgar hazt», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 25a.

⁸⁵⁵ Thierry Bonzon, «Des tranchées au Palais-Bourbon (des pacifistes au temps de Verdun)», *Mots. Les langages du politique* 24 (1990ko iraila): 55–70.

⁸⁵⁶ Blaise Adéma, «Aldair», *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 22a.

⁸⁵⁷ Blaise Adéma, «Bakeaz», *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 5a.

Horretan zegoen bakearen giltza, *Eskualduna*-ko idazleen arabera. Astekariaren ustez, bakea egitekotan, etsaia suntsitu behar zen, gerla ez zedin berriz leher geroago. *Zerbitzari*-k ongi esplikatzen zuen jarrera hori:

Deus onik ez ginuke igurikitzen ahal, gerla orai akabatzen baginu. Partida tzarra dugu: arras bentzutzen ez badugu hemen garen, gero eta laster jazar litzakegu.

Ez da aski gizon hiltzale bat buruz-buru egitean, beharri-ondoko bakar batekin aurdikirik bide bazterrean uztea: berritz, phiztu orduko, bere lan tzarleri lehen bezala lothuko da. Menean deno, hertzeak behar zaizko ideki.

Den gizonik tzarrena baino tzarrago dugu Alemana. Urkatu arte, ez dezogun barka...⁸⁵⁸

Alemania «bizkar hezurra hautsirik»⁸⁵⁹ edo guztiz suntsiturik ikusi nahi zutela aipatu zuten maiz. Hain zuzen, bakea sobera baldintza ez-tietan eskainiz, etsaia berriz azkartuko zelako usteak gidatzen zituen jarrera gogor horren hartzera. Gerlaren bukaera hurbiltzean, alemanek eta austriarrek su-eten proposamen bat egin zuten, baina horren gibelean berriz indarrak hartzeko asmo bat izan zitekeela kritikatu zuen *Eskualduna*-k 1918ko urriaren 18an⁸⁶⁰. Artikulu horren arabera, edozein su-eten baliozko izateko, alemanek lurralde okupatuetatik kendu behar zuten.

Gerlaren bukaerara heldu aitzin ere, bakea zinezko garaipen baten ondorioa izan behar zela idatzi zuen Hiriart-Urrutik. Geroago beste gerlarik ez lehertzea segurtatu behar zen, haren ustez:

Bake ahul, errorik ez iraupenik gabeko batek deus guti lukela balio, emazue othoi buruari, eta han azkarki sarthurik atchik, ezinbertze hunek dirauno. [...] Ehun urtheren bakea ez litake sobera, huntarik lekhora. Berriz haste ukaitekotz hogoi edo hamar bat urtheren buruan; balitz ere, oraiko hau dugun bezala, berrogoi-ta lauen buruan, alferretan litazke Frantziarentzat eta hunen lagun erresuma guzientzat orai artinoko indar, odol ichurtze, zorigaitz eta bihotzmin guziak. [...] Ehortzi behar luke oraikotik bethikotz, ahal balitz, gerlak; edo bederen behin eta behinkotz.

Nola hel hortara? Bertze biderik ezta, gerlakin tzar nehon eztauzkeneri errainak haustea baizik.

Ordu arte inutil eta erdi litake bakerik aiphatzea.⁸⁶¹

Hiriart-Urrutiren ustez Frantziak zuen esku-gaina, baina indar harreman harekin bakea ez zela lasterregi izenpetu behar azaldu zuen, ez zedin berriz gerla leher. Hiriart-Urrutik ez zekien gerla bukatu eta hogei urteren buruan beste bat lehertuko zela. Halako bat saihestu nahi zuen. Eta beste argudio bat ere eman zuen horri loturik: bakea ez bazen iraunkorra eta Frantziak galdu lur guztiak ez baziren berreskuratzen, ordu arte isuri odol

⁸⁵⁸ Jean Elizalde, «Zaharrak berri», *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 7a.

⁸⁵⁹ Hiriart-Urruti, «Noiz finituko?». 1915/4/2.

⁸⁶⁰ Adéma, «Bakeaz». 1918/1/18.

⁸⁶¹ Manex Hiriart-Urruti, «Berri onak», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 19a.

guztia alferrik isuria izanen zela. Odolaren argudioa behin eta berriz jin zen gerlak iraun zuen denbora guztian. Zenbat eta hil gehiago, orduan eta amore emateko gogo gutxiago zuten. *Eskualduna* astekariak, beraz, elkarki hertsiki lotuak ziren hiru arrazoi eman zituen bakea ez nolanhika egiteko: Frantziak galdu lurak berreskuratzea, isuritako odola ez alferrikakoa izatea eta etsaia ahal bezain ahul uztea, bigarren gerlarik ez lehertzeko gisan. Hiru argudio horiek, bakezalearenak baino gehiago dira frantses nazionalistarenak, Frantziarenganako atxikimenduak gidatzen baitzituen, gizakien arteko bakeak baino gehiago.

c) Betiko bakerik ez

Baina bakea behin betikoa izanen ote zen? Gerla garaian agertu zen «la der des der» (azkenetan azkena) esaera, erranez gerla hura zinez azkena izanen zela. Rémy Cazalsek dudak ditu ea soldaduek zinez sinesten zuten azkena izanen zela. Haren ustez, hori sinetsi nahi izaten zuten, beren haurrek ez zezaten hainbeste sufri, borrokatzen ari zirela konbentzitu nahi baitzuten:

Penser que l'on souffrait pour éviter à ses enfants de connaître la même horreur a été un élément explicatif de la ténacité des combattants.⁸⁶²

Denek ez zuten uste azkena izanen zela. Gerla bukaera hurbildu ahala, bakearen kudeaketaz mintzatzen hasi ziren. Jean Etxeparek Nazioen Sozietatearen sortzea aipatu zuen 1917ko ekaineko artikuluko batean, baina azaletik⁸⁶³. Zenbait hilabeteren buruan xehetasun gehiago eman zuen Nazioen Sozietatea sortzearen harira Amerikako Estatu Batuetako presidente Wilsonen egin proposamenei buruz. Wilsonen munduko herrialde guztiak biltzea proposatu zuen, Alemania barne, baldin eta bere menpe hartuak zituen herrialde guztiak itzultzen bazituen. Etxeparek azpimarratu zuen Wilsonen ustez, berez, gero ez zela gehiago gerlarik izanen. Hori ez zuen sinesten idazle medikuak:

Wilsonen nahikunde a bete baledi, hitzemaiten dauku jaun horrek, ez ginukela gehiago gerlarik nihoiz. Herrialde guztiak bakean jarriz geroz, bakotxa bere zedarrietan, ez omen litake ikus, mugetako salerospener baitezpada darraikon gudu ezitia baizik. Bat kexatzera heldu balitz, bertze guziek berehala egin lezokete airera jauzi.

Ba ote, bertze guziek? Gauden beldur alde jar lazkiokela zonbait. Gerla hunek ahuldixerik utziko baititu bazterrak, baditake luzaz sarturik egonen diren aztaparrak, eta gorderik hortzak, bainan berriz azkartzearekin apur bat gizaldeak?...

⁸⁶² Rémy Cazals, *Les mots de 14-18* (Toulouse: PUM, 2003), 45.

⁸⁶³ Jean Etxepare, «Esperantza», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 22a.

Betiereko bakea, amets bat. Ba ote da bizkitartean, gehiago xora dezakenik jendea? Bazakien nola mintza Wilsonek. Frantses batek erran daut beharritat: «seuls, l'utopique et le nebuleux sont propres à fasciner les masses». Euskaraz: deusek ez du, nola ezin ditakenaren lanbroak, mimatzen gizona.⁸⁶⁴

Beste batean, ahoan bilorik gabe idatzi zuen, haren ustez beste gerla bat izanen zela etorkizunean:

Xoriburu batzuek diote ere, ja, gerla hau izanen dela gerletan azkena; gerlaz sekulako aserik, besagainka aurdikiko dituztela guziek beren armak.

Otoi, ez holako ametsik. Gizaldek geldituko dira oraiko tresnak eskuan, ezpainak leun eta mihia ere ba, bainan hortzak xorrotx, bakotxa bere ontasunen eta zuzenen zain. Aitzinean bezala, geroan ere, hilka janen dugu oraino, noizetik noizera, elgar. Xarrenak amor, beti.

Anartean, deramagun bururaino, oraiko saila!⁸⁶⁵

Iragarpen ezkorra, baina geroak erakutsi zuen zuzen zebilela. Etxepare ez zen halako dudak agertu zituen idazle bakarra, *Eskualduna* astekarian. Blaise Adémak ere gisa bereko dudak zituen:

Badire diotenak betiereko bake baterat heldu behar dugula, gehiago gerlarik ez izaiteko heinean. Hori amets bat da gerta ez ditekena. Ezen, gizonak direino, ez diteke lur huntan betiereko bakerik. Aingeruak behar litezke hortako.⁸⁶⁶

Itxura guztien arabera, *Eskualduna* ez zen hori pentsatzen zuen bakarra. Lan honen lehen zatian zehaztu dugu Action Française erakundearen eta izen bereko egunkariaren eragin handia zutela *Eskualduna* astekaria egiten zutenek. Hain zuzen, Action Française mugimenduak ere ez zuen behin betiko bakearen baitan sinesmen handirik. Michael Jeismannen arabera, mugimendu hura zen azken gerla izanen zela amestea alferrik zela zioen bakarra:

Ce journal avait beau proscrire tout rêve de paix mondiale et tenu pour vaine toute idée de faire de l'Allemagne une terre de mission, il n'en continue pas moins d'utiliser le mot de «civilisation» pour évoquer ce qu'il s'agissait de défendre dans la guerre.⁸⁶⁷

Azkenean Alemaniak gerla galdu zuen, baina *Eskualduna*-koek eta Action Française-koek hein batez asmatu zuten bakea ez zela betirako izanen. Fischerren arabera, Alemanian berean berehala zabaldu zen gerla ez zutela ahuleziagatik galdu, baizik eta barne «traizioengatik». Horrek ez zituen bake iraunkor baterako baldintzak sortzen:

C'est ainsi que l'idée se propageait que l'Allemagne ne s'était pas effondrée à cause de sa politique ni à cause de l'épuisement provoqué par l'assaut d'un ennemi plus puissant depuis l'entrée en guerre des

⁸⁶⁴ Jean Etxepare, «Société des Nations», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 4a.

⁸⁶⁵ Jean Etxepare, «Ez urririk», *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 22a.

⁸⁶⁶ Jean Elizalde, «Urthe on!», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 4a.

⁸⁶⁷ Jeissmann, *La patrie de l'ennemi, la notion de l'ennemi national et la représentation de la nation en Allemagne et en France de 1792 à 1918*, 314.

Etats-Unis, mais par un «coup de poignard» dans le dos de l'armée. On accusait d'abord le gouvernement parlementaire du prince Max de Bade, - puis les partis socialistes et la révolution de novembre, enfin la démocratie de Weimar qui, à cause de la «trahison intérieure», avait dû accepter la «paix dictée» à Versailles. [...] Une autre illusion populaire accompagne cette fausse interprétation de la défaite: que l'Allemagne a été la victime d'un assaut organisé et qu'elle n'a fait qu'une guerre défensive justifiée. C'est selon ce point de vue que les buts de guerre allemands ont été entièrement niés ou interprétés comme sauvegarde contre un nouvel assaut par les historiens contemporains et même plus tard par d'autres. On était tenté de croire que la crise intérieure avait empêché l'Allemagne de conserver sa puissance. Le peuple ne réalisait pas que le Reich avait en réalité poursuivi, pendant quatre ans, des buts qui auraient détruit pour toujours l'équilibre des forces en Europe et auraient porté atteinte à la liberté des peuples indépendants ou de ceux qui avaient obtenu l'indépendance après les révoltes. Ces deux illusions, celle du «coup de poignard dans le dos» et celle de la guerre purement défensive, ont nourri, pendant les années d'impuissance et d'humiliation résultant du traité de Versailles, un ressentiment envers le règlement de 1919 et d'autre part l'espoir de voir l'Allemagne reprendre son rang de puissance mondiale.⁸⁶⁸

Eskualduna astekariak ez zuen halako azalpen zehatzik eman. Maiz sinpleago mintzo ziren, Action Française bezala, alemanak zibilizaziotik kanpo kontsideratuz. Baina, bereziki, Alemaniak indarra berreskuratuko zuenean berriz ere gerlara lotuko zela pentsatzen zuten. Funtsean, 1870etik landa ere, Frantziak indarrak berreskuratzea eta Alemaniaren kontrako errebantxa amestu zituen. Jean Etxeparek eta Blaise Adémak Alemanian halako zerbait gertatuko zelako susmoa zeukaten. Fischerren azalpenek erakusten dute susmo hark bazeukala oinarririk, alemanek ez zutenez uste ahuleziagatik galdu zutela.

Baina errealitatean zer gertatu zen aztertzen hasi gabe, gogoan hartu behar duguna da Aliatuek garaitzea eta alemanak ahal bezain ahul uztea zela *Eskualduna*-k nahi zuena eta aldarrikatzen zuena, bakea egiterakoan.

4. Garaipenera bidean

Gertakari anitz izan zen 1917an, eta gerlaren azken bi urte horiek baikortasuna eta ezkortasuna nahasteko elementuak eman zituzten. *Eskualduna*-rentzat, Aliatuentzat bezala, ezkor izateko arrazoi bat eman zuen Errusiako Iraultzak eta haren ondorioz errusiarrak gerlatik erretiratzeak. Alderantziz, garai bertsuan Amerikako Estatu Batuak gerlan sartzea ezkortasun haren ezeztatzeko eta baikortasunarekin segitzeko elementu bat izan zela ikusiko dugu. 1918an, aldiz, gerlaren bukaera hurbiltzen ari bazen ere, *Eskualduna*-ko idazleek gerla hastapenean ez zuten zuhurtzia izan zutela ikusiko dugu. Hortik landa, arreta berezia ezarriko diogu armistizioaren egunari, ikusteko zenbaterainokoa zen euforia edota

⁸⁶⁸ Fischer, *Les buts de guerre de l'Allemagne impériale, 1914-1918*, 634–635.

hoztasuna. Gerlaren bukaerari loturik, zenbait astez luzatu ziren ospakizunei buruzko gogoeta bat ere proposatu zuen *Eskualduna*-k, eta horren aipamenarekin bururatuko dugu atal hau.

a) Errusiako iraultzaren ondorioak

Lehen hilabete eta urteetako baikortasun jarraikiak eten bat izan zuen, halaberrez, 1917an. Gauzak aski bide txarretik ari ziren Aliatuentzat. Erresuma Batuak gizon anitz galdu zuen Flandrian, Italia eta Frantzia ere franko ahul zeuden eta, gauza guztien gainera, Errusia gerlatik erretiratu zen, hango iraultzaren ondorioz. Errusia gerlatik erretiratu izanak kezka eragin zion Jean Etxepareri, beste batzuei bezala. Erretiro hark gerlaren bukaera zailtzen zuela aitortzen zuen. 1917ko ekainean, jadanik, Errusian gertatzen zirenek izan zitzaketen ondorioek kezkatzen zuten:

Rusoak ez balaizkigu orai berebaitarutzen, etsitzeko litake. Etsitzeko ere lukete berentzat Rusoek, ezen alemanak alde batetik ausiki, bertzetik japonesak, kreit guzia galdua bazterretan, errautsetan litazke eror gizagaizoak.⁸⁶⁹

Urte bat geroago ere egoera ilun ikusten zuen Etxeparek. Egoera biziki egonkorra zela azaldu zuen, hala nola nehor ez zitzaiokeela besteari nagusitu. Adibidez, janari aldetik ere, alemanek, aitzineko garaietan ez bezala, ez zutela ukaiteko arazorik azaldu zuen, hain zuzen Errusiari esker.

[...] Guk, gure oraiko ahalekin, soldado ketaz ala artilleriaz nausi girelarik bizkitartean, hauts ditzazkeguia hek? Are gutiago. Gibelaraz ba, doidoi, zombait kilometraz guneka, bainan nolako odolak ez ixuriz! [...] Daukagu, behinik behin, udazken huntan berean erakutsiko daukutela gaihenaren abiadura zerbait. Bainan gailenduko girea osoki, azpiratuko duguia arrunt etsaia? Zernahi izanik, ez berehala.⁸⁷⁰

Oro har, Etxeparek eta beste idazleek kritika politiko gogorrak egin zizkioten Errusiako Iraultzari, sozialismoa ez baitzuten batere begi onez ikusten. Baina lan honetan bereziki interesgarri dena da erakustea *Eskualduna*-rentzat, Aliatuen gibelatzearen ardura Errusiarena zela. Blaise Adémak ere beste hainbeste egin zuen bere editorialetan. 1917an gerla luzatzen ari zen, eta luzatze hura Errusiaren bizkar ezarri zuen, Errusiako iraultzen ondorioz, hango armada gerlatik erretiratu baitzen eta Alemaniako armadak Errusian zituen tropak mendebaldeko frontera igorri baitzuten. Horrek zailtasun handiagoak eman zizkien ingelesei eta frantsesei, *Eskualduna*-ren arabera.

⁸⁶⁹ Jean Etxepare, «Stokholmen», *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 22a.

⁸⁷⁰ Jean Etxepare, «Zer uste», *Eskualduna*, 1918ko maiatzaren 24a.

Adémaren arabera⁸⁷¹, Otsaileko Iraultzak Errusiako enperadorea kendu zuen, «ahulegi» zelako, eta errepublika ezarri. Enperadorea «ahulegi» zen, emaztea «alemanen aldekoa» baitzuen eta nahi zuena egiten uzten baitzuen. Enperadorea eta emaztea preso sartu ondoan, kargudun berriek aitzinekoek baino gutxiago egiten zuten gerlan, Adémak kritikatu zuenez. Alemanen soldadu gehienak Mendebaldeko frontera etorriak zirela zioten soldaduek, Errusian ez zutelakoan deus egitekorik. Gauzak ez ziren hobetu aliatuentzat, eta Urriko Iraultza izan zen gero. *Eskualduna*-ko idazleek Errusiako iraultzaileak izendatzeko beti «nahasiak» hitza erabiltzen zuten. Giro hartan, Aliatuen gibelatze edo ez aitzinatzeak errusiarrei leporatzen zizkieten⁸⁷².

Azkenean, Errusiak Alemaniarekin bake hitzarmena izenpetu zuen Brest-Litovsken, 1918ko martxoaren 3an. Baina gauzak lehenago ere minduak ziren. Hilabete batzuk lehenago, Adémak esplikatu zuen Errusiako hiri nagusia «alemanen lagunen esku» jarria zela, eta bakea egin nahi zutela, bi hilabete epean. Hitzarmenaren ondorioz, alemanek milioi bat soldadu preso berreskuratuko zituztela eta Errusian gauza anitz erosi ahal izanen zutela abisatu zuen, gerla luzeago izanen zela ohartarazteko. Hala ere, baikor jarraitu nahi zuen:

*Zer litezke guretzat Rusiak egin daukun tzarkeriaren ondorioak? Ez beldur izan horri esker garhaituko gaituztela. Ez; berdin garhaituak izanen dire; bainan ez, uste ginuen bezen laster.*⁸⁷³

Hilabete zailak zirela aitortu zuten *Eskualduna* astekarikoek. Baina azken garaipena Aliatuena izanen zela ez zuten dudan ezarri. Hots, zailtasun guztien gainetik, beti baikor agertu nahi zuten, hastapeneko ildoari leial. Halaber, zeuden zailtasunak ez zituzten sekulan Frantziaren gain ezartzen. Edozein izanik ere egoera, Frantziaren ohorea beti salbu atxikitzen zuten.

b) Amerikako Estatu Batuei buruzko jarrera

Errusia gerlatik erretiratzea gisa batez orekatu zuen, garai bertsuan, Amerikako Estatu Batuak gerlan sartzeak. *Eskualduna*-k berak ere azaldu zuen bezala, Alemaniak itsasoko gudu latza abiatu zuen, aliatuen eta herrialde neutroen merkantzia ontziak botaz, tartean amerikarrenak ere bai. Hori izan zen Wilson presidente estatubatuarrek Alemaniari gerla deklaratzeko arrazoi nagusia. Amerika gerlan sartzeak itxaropen zerbait piztu zuen *Eskualduna* astekarian. Adémak azaldu zuen amerikar soldaduak ez zirela Europara joanen,

⁸⁷¹ Blaise Adéma, «Rusia», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.

⁸⁷² Blaise Adéma, «Ondorioak», *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 2a.

⁸⁷³ Blaise Adéma, «Rusia», *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 14a.

baina beste laguntza batzuk, besteak beste dirua, igorriko zituztela eta Alemaniari eta haren aldeko merkantziak eskuratzeko zailtasunak ezarriko zizkietela⁸⁷⁴. Beste artikulua batean, itsasoa zainduko zutela eta, ondorioz, itsasoan ibiltzea seguruago egingen zutela esplikatzen zuten⁸⁷⁵. Halaber, amerikarren engaiamenduak beste hainbat herrialde neutro Aliatuen alde jartzea eragin zuela ere gehitu zuten.

Baina, bereziki, amerikarrak tropak igortzen hasi zirenean jarri zen kontent Adéma, gisa hartan errusiarren falta ordezkatu ahal izanen zutelako. 1917ko udan 100.000 soldadu igorri zituzten Frantziara, eta negurako 2 milioi igorriko zituztela argitu zuten Adémak⁸⁷⁶. *Eskualduna* ez zen bilakaera hark poztu zuen bakarra. Soldaduen morala berriz altxatzen lagundu zuen urrats hark, Bruno Cabanesen arabera⁸⁷⁷. Horrez gain, horrek mugimendu gerlara itzultzea erraztu zuen.

Beraz, Errusiako Iraultzak eragin zuen ezkortasun harekin batera, baikortasuna ere piztu zen, amerikarren engaiamendutik landa. Jean Etxeparek gerla lasterrago bukatzeko aukera gisa ikusten zuen Amerikako Estatu Batuak gerlan sartzea:

Amerika-Gaina, berant bada berant, osoki alde jarria dugu, dakizuen bezala. Hainbertze hartze gitu, bai Angleterra, bai zorigaitzez Frantzia, halako kalteek zuten izitzen gerokotzat alemanen negozioaren ganik, non ez baitzezaken bertzerik egin. Ongi etorri! Badakigu berdin amerikano hainitzek zinez dutela maite gure Herria, ez bakarrik bere ederraren gatik, bainan guziz hunek, bertze orduz, heldu zaizkoten laguntzen oroitzapenez.

*Aditzen dugu, batzu ala bertzeen ahotik, Alemania beldurtzera doala. Onetsiko omen ditu laster, onez onean, gure galdeak oro: hustuko Belgika, halaber Serbia; Frantziari bihurtuko, ez bakarrik gerla huntan aztaparretarat bildu departemenduak, bainan oraino ondar gerlan kendu Alsace-lorraine dohakabea; Polonia bere gain utziko; Autrixari manatuko, hainbertze gizalde baitauka hunek bere zedarrietan, eman dezeien orori beren buruaren jabegoa.*⁸⁷⁸

Oraino 1917ko ekaina baizik ez zen. Eta Errusiako Iraultzari buruzko aipamenetan ohartu gara garai bertsuan franko ezkor agertu zela Etxepare. Haren morala ez zen, beraz, beti hein berean, artikulua horretan agertzen duen baikortasunaren baitan fidatzen bagara. Etxepareren arabera, Alemaniak laster onartuko omen zuen Alsazia ematea, Serbia uztea eta abar. Baina kasu, artikulua hartan berean abisua eman zuen, ez sobera goiz kontent jartzeko. Zuhurtziarako deia egin zuen. Hain zuzen, amerikarren eragina erlatibizatu zuen, erranez alemanek indar poxi bat atxikiz gero, zerbait hartu nahiko zutela. Alemanak indar izpirik gabe utzi behar zirela idatzi zuen.

⁸⁷⁴ Blaise Adéma, «Norte Amerika», *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 13a.

⁸⁷⁵ Blaise Adéma, «Geroago eta gehiago», *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 20a.

⁸⁷⁶ Blaise Adéma, «Norte Amerikanoak», *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 17a.

⁸⁷⁷ Bruno Cabanes, *La victoire édenillée. La sortie de guerre des soldats français (1918-1920)* (Paris: Seuil, 2004), 27.

⁸⁷⁸ Jean Etxepare, «Zuzentasuna», *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 8a.

Beste artikuluko batean erakutsi zuen ez zela sobera fida amerikarren baitan. Batzuek uste zutela amerikarrek urre anitz emanen zutela, eta hori ez zela horrela zehaztu zuen:

Amerikanoak alde jarri zitzaizkigunean, Pariseko kazeta gehienek ezarri zuten: Haste hastetik, adiskide berri hoik emaiten zauzkigutela bortz miliar urre present. Ba eta jende xedea loriatu, arront sinetsirik.

Ez, ez daukute holako emaitzarik eskuetarar heldu. Ez da erresumarik, erhi bat ere, auzoentzat, onez onean, higitu duenik egundaino. Ez gira jakin gabe geroaren beldurrak dituela kexarazi amerikanoak, bai ere Frantziako lurreen erro egin nahiak. Gure herrialde xehatuen eraikitza ez dira jadanik abian.

«C'est l'idealisme en surface et les interets en profondeur qui sont toute la trame des annales humaines», zion egun hotan, oixtiko idazle harek berak. Ongi etorri, halere! Frantziak geroan hatsa hartzekotz, xuhur bada xuhur, nehola du behar izan aleman tzarrak zapatua.⁸⁷⁹

Hots, batzuen baikortasuna ez zuten nahi izan zuen, amerikarren eskuzabaltasuna dudan ezarriz eta erakutsiz interesak bazituztela. Biziki adierazgarria da «Frantziako lurreen erro egin nahia». Aipamen horrek erakusten du Etxeparek kanpo politikako gauzak aztertzeke argitasun handia zuela. Gisa batez, ez ote zuen Frantziak burujabetza poxi bat AEBei uzteke arriskuaz ohartarazi nahi? AEBak gerlan sartu aitzineko artikulukoak ikusiz, ageri da *Eskualduna* ez zela baitezpada amerikarzaletan. Gerlan sartu aitzin, alemanak eta amerikarrak, elkarren artean zituzten liskarren gainetik, beti antolatzen zirela idatzi zuen behin Blaise Adémak:

Dirua irabaztea guziek maite dute, bainan nork Norte-Amerikanoek baino gehiago? Eta zer parada duten hortako gerla hunekin! Zer ez dute saltzen ala guri, ala, gure adiskideeri, ala gure etsaieri! Europa guziko urhea heien ganat doa trumilka. Nola Europako urhe gehiena heien eskualdeetarik etorria baita zuzen zaiote berriz itzul dadin sor-lekurat. Eta futcho, gerla hunek iraunen balu oraino luzaz, berak barne eman gabe, badakite hori hola gertatuko dela. Ez dire ez buruz maingu⁸⁸⁰

Amerikarrek gerla hartan interes ekonomikoak ikusten zituztela azpimarratzea ez zen haien alde mintzatzea. Ez ziren, beraz, amerikarren alde, itsutuki. Dena den, Estatu Batuak behin gerlan sartuz geroz, *Eskualduna*-k jarrera aldatu zuen, eta amerikarren goraiatzeko hasi zen. Baina hor ere irakurleari begira mezu baikorra zabaltzeko joera ikusi behar da. Edozein gertakari on zen berriak onak zirela idazteko.

c) Azken asteetako zuhurtzia

Paradoxa bat bada ere, hainbeste denboraz gerlaren bukaera hurbila iragartzen egon ondoan, 1918ko udan eta udazkenean, *Eskualduna*-ko idazleek ez zuten egiten gerlaren epe laburreko iragarpenik. Alta, azken guduen kronikak irakurtzean, bukaera biziki laster etor zitekeela nabaritzen zen. 1918ko negu hastapenean, alemanen ofentsiba handi baten

⁸⁷⁹ Etxepare, «Ez urririk». 1917/6/22.

⁸⁸⁰ Blaise Adéma, «Solas hainiz», *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 12a.

mentura zegoela aipatu zuten. Beldur ziren, amerikarrak jin aitzin, alemanek oldar handi bat egin nahi zutela Paris hartzeko. Alemanian ere gisa bereko solasak zabaldu ziren; Adémaren ustez, Gilen II.a enperadoreak oldar hori eginen zutela sinetsarazi nahi zuen, herritarrei kemena emateko⁸⁸¹. Baina, funtsean, 1918 hastapenean, egoera alemanen alde zegoen, eta Londresen eta Parisen bazterrak kezkatzen hasiak ziren. Hargatik, amerikarrak lehenbailehen heltzeko indarra egin zuten.

Martxoan ere, *Eskualduna*-k gudu bortitz baten beha zeudela idatzi zuen. Halako tentsio eta beldur bat nabari zen, baina baita itxaropena ere, azken gudua izanen zelako itxaropena.

1918ko udazkeneko artikuluak irakurtzean, egunez egun aitzinamendu handiak egiten ari zirela ageri da. Baina baikortasun hori izanik ere, Adéma editorial egileak ez zuen iragartzen gerlaren bukaera zenbait hilabete baino lehen. Hots, gerla hastapenean eta gerla luzatzen ari zenean, iragarpen ezkorrenek ere gerla urtean berean bururatuko zela zioten, eta gerla bukatzen ari zenean, iragarpen baikorrak errealitatea baino ezkorragoak ziren: ez zuten 1918 bukatu baino lehenago ikusten bukaera.

Dena den, zuhurtzia hark ez zuen gordetzen garaipena usaintzen ari zirela. Irail hastapenean azkenaldian hartu tokien zerrenda bat eskaini zuen Adémak. Zerrenda horrek berak eta emateko manerak erakusten zuten halako azelerazio handi bat bazela. Uztailaren 18an hasi oldarraz mintzatzean, azpimarratu zuen Aliatuak beti aitzina ari zirela, erreka-ziloak ahantziak zituztela eta azkeneko astean hainbat herri hartu zituztela: Royes, Chaulnes, Nestes, Ham, Noyon, Bapaume, Péronne. Oldar hori amerikarrei esker ari ziren lortzen, Adémaren arabera. Hori idaztean, aitzineko oldarren kritika egin zuen, baizik eta alferrik egin zituztela, ez baitziren batasunean ari. Azkenean ingelesak eta frantsesak prest agertu ziren Foch gidari zutela, operazio guztiak koordinaturik eramateko:

Bainan, lehenago ere, Alemanek armada zenbeit Rusiako aldean zituztelarik, Anglesak eta Frantsesak elgarrekin izan gare hemen, zenbeit ilabetez, gure etsaiak bezen azkar. Zertako bada orduko oldarrak makur joan ziren guretzat?

Zeren Anglesen eta Frantsesen armadek ez baitzuten batasunik aski. Zeren bakotcha maiz bere alde baitzoan, elgarri laguntza egin gabe. Zeren bi buru baitzituzten, eta ez bakar bat gure etsaienak bezala. Hortako debaldetan ibili eta bermatu gare hainiz ilabetez.⁸⁸²

Posizio gerla utzirik, mugimendu gerlara itzuli zirela aipatu zuen hilabete bat geroago, eta berriz ere Fochen gidaritza goraiatu zuen:

⁸⁸¹ Blaise Adéma, «Goait», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 11.

⁸⁸² Blaise Adéma, «Oldar hau», *Eskualduna*, 1918ko irailaren 6a.

Eta orai, Foch guzien buru jarriz gero, ez da gehiago hatshantzerik ez gelditzerik. Oldarra beti aitzinat doa. Armada guziak esku beretan baitire eta buru berak baititu ibil-arazten, bat gelditu orduko bertzea lotua da; eta hola izanen dela diote, batere epherik gabe, negua hasi arte bederen.⁸⁸³

Egoera berrian, gerla ordu arte baino lasterrago aitzinatzen ari zela azpimarratu zuen. Baina bukaera ez zuen garbi ikusten, «negua hasi arte bederen» iraunen zuela uste baitzuen, eta 1918ko azaroaren 11n oraino udazkena zen. Urrian ere aipatu zuten ofentsiba orokor baten berri. Adémak esplikatu zuen, ordu arte ez zirela alde guztietan batera oldartu, ez zutelakoan gizonik eta tresnarik aski. Amerikarrei esker, arazo hori giblean utzi eta Iparraldeko itsasotik Vosgeoak mendietaraino, Salonikan eta Palestinan borrokan ari zirela argitu zuen. Alemanek Frantzia laster utziko zutela iragarri zuen. Bulgariarrek amore eman nahi zutela gehitu zuen⁸⁸⁴. Kontakizun horietan, gerlaren bukaera giroa nabari zen; eta armistizioaren aitzineko astean ere halako irakite bat sendi zen:

Hiri handi batez mintzatzen zaizkigularik, badakigu, horrek zer erran nahi duen, eta horren hartzea berri handia zaiku. Bainan, batzuetan, herriska edo mendiska batek balio gehiago du, gerlari buruz, hiri handi batek baino, eta holako baten hartzea ez dugu aski goستن, ez baitakigu ongi zer den. Orduan, hoik guzien balioa ezagutzen ez dugunaz geroz, zer chehetasun eman? [...] Horko chehetasunak nola eman?

Izenak erraiten baginetza, ez zinezakete deus gehiagorik ikas. Horra zertako erranen dautzuegun holakoetan hauche bakarrik: etsaia nahi bezenbat bermaturik-ere beti aitzinat goazila. Ez naski bertze zenbeit tokitan bezen laster, bainan beti aitzinat.⁸⁸⁵

Aste bat baizik ez zen falta gerla bukatzeko, baina hala ere ez zen berehalako bukaeraren iragarpenik. Azkenik, 1918ko urriaren 18ko artikulua bat aipatu behar da, baikortasun epel haren adibide gisa:

Bainan bake laster hori ez sobera iguriki, gero ez bada gertatzen, lotsaturik ez gelditzeko. Izan diteke etsaiak zinez mintzo diren; bizkitartean, badugu zertaz gure sinhestea hein batean atchik.

Entzun dut badirela, egun hauk guziez, goait dagozinak noiz entzunen dituzten ezkila errepikak bakea egin dela erranen daukutenak. Ni beldur ez daukute gure ezkila maiteek, zenbait ilabetez oraino holako berririk emanen. Nik ere nahi nuke bertzela gertatzen balitz; bainan ez dugun irringarri bilakatu behar, oraino karia gutisko duen zerbeit berehala igurikiz.⁸⁸⁶

Eskualduna-k, gerlak iraun zuen denbora gehiengan, epe laburreko iragarpenak egin zituenean, baikorregi ez agertzeko dei horren egitea bitxi iruditu dakiguke. Beharbada, azken asteetako zuhurtzia horrek erakustera ematen zuen ez zutela itxaropen faltsuen emateko beharrik sentitzen, gero eta garbiago gelditzen ari baitzen afera trenkatua zela.

⁸⁸³ Blaise Adéma, «Foch», *Eskualduna*, 1918ko irailaren 27a.

⁸⁸⁴ Blaise Adéma, «Orotan», *Eskualduna*, 1918ko urriaren 4a.

⁸⁸⁵ Blaise Adéma, «Beti aitzinat», *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 1a.

⁸⁸⁶ Adéma, «Bakeaz». 1918/1/18.

Baina, funtsean, itxaropen faltsuen garaiak bukatuak zirela dio Bruno Cabanese: soldaduak leher eginak ziren eta bukaera hurbil baten baitako konfiantza galdua zuten⁸⁸⁷.

d) Armistizioa

Soldaduen akiduraren ondorioak 1918ko azaroaren 11n ere ageri ziren, armistizioaren izenpetzeak erreakzio kontrajarriak eragin zituelako. Baina errealitatea zen 1918ko irailaren 28tik aitzina, Alemaniak gerla galdutzat zeukala eta bakea egitearen alde zegoela. Bakea izenpetu artean, aste batzuk iragan ziren, baina gerla galdua zutela nabari zen *Zerbitzari*-ren gutunetan. 1918ko azaroaren 11 aitzin idatzi zuen gutun batean⁸⁸⁸ biziki ongi ageri zen gerla bukatzekotan zela.

Ondoko asteko berriak armistizioaren berri jakin ondokoak ziren, eta gutun haietan garaipena sentitzen zen. *Zerbitzari*-ren kronikak ziren hori islatzen zutenak, Jean Saint-Pierre preso baitzen, eta Jean Etxeparek ez baitzuen halakorik kontatu. Pozaren eta hilez gogoratzearen arteko giro berezia aipatu zuen.

Ez dakit aise sinhetsiko nauzuen: gerlariak, berri ona ikastea, ez dute halako harrabotsik ibili. Zozotuak bezala ziren. Denek kaskoari emana ginuen gure hezurak gerlan higituko gintuela: horri arras eginak ginen.

Eta betbetan gerla akhabo dela erraten daukute: nola sinhets!

Ilhunari buruz, arno chorta bat edanik, zenbeit Eskualdun irrintzinaka entzun ditut. Bainan ez hainitz demboraz. Laster orhoitu dire hainbertze lagun eskas direla, gutartean. Atsegin handienek badute bethi zerbeit itzal. Zeruan goza dezatela lurrean gozatu ez duten zoriona, lagun hilek!⁸⁸⁹

Zerbitzari-ren iruzkin horretatik hainbat ondorio atera daitezke: batetik, baikortasuna galdua zutela, gerlaren bukaeraren baitan ez zutela sinesten, eta halako etsipen bat ere bazela. Bestetik, hilak gogora ekartzekak histu zuen garaipenaren poza. Funtsean, hori orokorra izan zen Bruno Cabanesen arabera:

Derrière chacune des réactions des soldats, il faut deviner le poids des quatre années de guerre, celui des souffrances passées. En un mot: le poids des morts sur les survivants. La mémoire nationale a gardé de cette Journée historique le souvenir d'un moment exceptionnel d'élan patriotique où tous les Français auraient communié dans la joie de la victoire. Or une analyse attentive du contrôle postal permet d'adopter une lecture plus nuancée de l'événement et de sa réception par les contemporains. La perception par les combattants du 11 novembre 1918 diffère sensiblement de celle de l'arrière.⁸⁹⁰

⁸⁸⁷ Cabanes, *La victoire endeuillée. La sortie de guerre des soldats français (1918-1920)*, 30.

⁸⁸⁸ Jean Elizalde, «Zer dioten gure aintzindariak», *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 15a.

⁸⁸⁹ Jean Elizalde, «Zer dioten gerlariak», *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 22a.

⁸⁹⁰ Cabanes, *La victoire endeuillée. La sortie de guerre des soldats français (1918-1920)*, 61.

Beraz, Cabanesek aipatzen dituen soldadu horien gisan, *Zerbitzari* ere ez zen euforiko agertu. Interesgarri litzateke ikustea Jean Saint-Pierrek nolako gutuna idatziko zuen, egun hartan ez balitz preso izan. Hain zuzen, lan honetan zehar maiz ohartuko gara Saint-Pierre *Zerbitzari* baino gerlazaleagoa eta diziplinatuagoa zela. *Zerbitzari*-ri gehiagotan nabari zitzaien etsipena edo gogortasunaren aitortza. Horregatik ere, beharbada ez da hain harrigarri *Zerbitzari* ez euforiko agertzea gerlaren bukaeran.

Orai, herritar maiteak, adios guziera. Gerla akhabo denaz geroz, Zerbitzari bere chokhoan ichil-ichila egonen da. Gerlako berrien zueri emateko galdetu ninduten Eskualdunaren jabe eta buruzagiek, gerlan erdiz erdi nintzelakotz.

Bertze mende bat hasi da: Eskualdunak atchemanen du nitaz bertzerik Frantziako gora-beheren ederki kondatzeko. Izanen da segurki zer erran.

Beraz, herritar maiteak, berriz ere adios. Goraintzi guziera... surik ez den tokitik. Azken aldikotz, zuen.⁸⁹¹

Artikulu horrek despedida kutsua zuen, nahiz eta ondoko aste eta hilabeteetan ere idazten segitu zuen. Hor idatzi zuen gerla «ikaragarria» bururatua zela, nonbait gogortasuna aitortuz. Ez zen pozik edo bozkarioz ageri. Are gehiago, zenbait hilabete geroagoko kronikan azpimarratu zuen hogeituro urteko gazteek ez zutela gerla egin behar izanen eta hori pozgarria zela⁸⁹². Horretan ere aitortu zuen gerlaren gogortasuna. Frontean zirenen baitan bozkarioz ez agertzea esplikatu du Cabanesek, erranez soldadu anitzek ez zutela sinesten:

L'incrédulité avec laquelle de nombreux soldats accueillent la nouvelle s'explique aussi par la banalité du moment de l'armistice en comparaison des attentes qu'il avait suscitées. Une banalité qui éclaire peut-être la difficulté qu'éprouvent certains témoins pour raconter le 11 novembre: «Et si c'était vrai ? Non, ce n'est pas possible: une guerre ne peut pas finir comme ça. C'est trop simple».⁸⁹³

Hein batez, *Zerbitzari*-ren bozkario falta ez ote zuen horrek esplikatzeko? *Zerbitzari*-k ere denbora anitz pasatu zuen frontean, eta, beraz, soldadu haien egoera hurbiletik ikusi zuen.

Aldiz, *Oxobi*-ren testuetan bozkario eta euforia gehiago ageri zen. Armistizio egunean ezkilek nola jo zuten deskribatu zuen, egun haren edertasuna azpimarratuz:

Egun goizdanik beha ginauden noiz hasiko ziren bazterretako izkilak errepikan. Hameka orenetan hasi zaizku chuchen, iguzkia, ordu arte lanhoa ezin garhaituz harizana, gochoki agertzen zaunkularik.

Zer eguna! Eta nola jo duten izkilek eguerdi artio! Bere dute airea. Etsai arranoak gorderik dagozi, urrun, ohantze ilhuetan kokatuak, etsaien kanoiak ihesi doatzi. Etchetako athe guziak, leiho guziak ezin ederkiago aphainduak ditugu. Elizaren dorre kaskoan haize ezti batek betan ibilarazten ditu Frantziako eta Alsace-ko bi banderak.

⁸⁹¹ Jean Elizalde, «Eta orai», *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 22a.

⁸⁹² Jean Elizalde, «Gazteak», *Eskualduna*, 1919ko otsailaren 28a.

⁸⁹³ Cabanes, *La victoire endeillée. La sortie de guerre des soldats français (1918-1920)*, 39.

[...]

Eskerrak Foch gaitzari,

Eskerrak Clémenceau zaharrari,

Eskerrak hileri,

Eskerrak bereziki Jainkoari!⁸⁹⁴

Ongi bukatu zen istorio baten epilogo kutsua zuen testu hark, «zer eguna!» bezalako aipuekin eta azken lerroetako esker zerrenda horrekin. *Oxobi* ez zen osagarriz azkar, eta ez zuten frontera igorri. Beraz gerla urrunagotik ikusi zuen. Horrek esplika dezake, *Zerbitzari* eta lehen lerroko soldaduak ez bezala, *Oxobi* anitzez baikorrago agertzea. Cabanesez ere argitu du 1918ko azaroaren 11k lehen lerroen eta gibel lerroen arteko zatiketa agerian utzi zuela, lehen lerrokoek, sufritutakoa eta gero, ez baitzuten biziki begi onez ikusten gerla leku babestuetatik bizi izan zutenen bozkarioa⁸⁹⁵.

Oxobi, ondoko astean⁸⁹⁶, presoen askatzeaz mintzatu zen; Alemanian libratu heldu zirenen deskribapen zorrotza eginez, zein ahul eta itxura txarrean zetozen azaldu zuen. Oroz gainera, ezagutzen zituen euskaldunak laster askatuko zituztela idatziz bukatu zuen artikulua, eta bereziki Jean Saint-Pierre ekarri zuen gogora.

Zerbitzari-ren eta *Oxobi*-ren artikuluek epilogo kutsua zuten gisan, Blaise Adémaren artikulua nagusiak ere azken kapitulua zirudien, *Oxobi*-k egin bezala, Jainkoari eskerrak ematearekin bukatuz⁸⁹⁷. Ez ziren aste berean agertu hiru artikulua, Adémarena aste bat lehenago atera baitzen: alabaina, azaroaren 15ean agertu zen zenbakia egiterako, gerlaren bukaeraren berri jadanik bazeukan. *Zerbitzari* eta *Oxobi*-ren gutunek heltzeko astia ere behar zuten, eta hargatik aste batez gibelatu zen haien gutunen argitalpena. Baina, xehetasun hori aparte utziz, Adémaren artikulua laburbiltzeko erran daitekeena da Armistizioaren xehetasun nagusiak azaldu zituela, Alemaniak nola eman zuen amore, bakearen ordainez zer eman beharko zuen eta abar. Lau hilabete lehenago Alemania nagusitzekotan zela, baina Fochek egoera itzulikaraztea lortu zuela esplikatzen zuen. Guztiz baikorki mintzatu zen Aliatuen garaipenaz eta Alemaniaren porrotaz. *Eskualduna* astekarian, lehen lerroetako sentimendu bereziak pixka bat islatu baziren ere, oro har, astekariaren mezuak guztiz baikorrak eta pozez beterikoak ziren.

⁸⁹⁴ Jules Moulier, «Izkilak eta banderak», *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 22a.

⁸⁹⁵ Cabanes, *La victoire endeuillée. La sortie de guerre des soldats français (1918-1920)*, 48.

⁸⁹⁶ Jules Moulier, «Etcheari buruz», *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 29a.

⁸⁹⁷ Blaise Adéma, «Leher eta zapart», *Eskualduna*, 1918ko abenduaren 15a.

e) Bukaeratik landako hilabeteak

Azaroaren 11ko berriak biziki baikorki agertu baziren ere, aste batzuen buruko bozkarioek ez zuten aipamen bera ukan *Eskualduna* astekarian. Gerla bukatu ondoan ere segitu zuten gerlaz eta gerlaren ondorenez idazten. Baina azterketa denboran mugatu behar denez, gerla ondoko garaia ez dugu aipatuko. Hala ere, denboran iraun zuten ospakizunei buruz Blaise Adémak idatzi zuen artikulu bat ezin dugu baztertu. 1918ko abenduaren 13ko artikuluaren baitan fidatuz gero, ohar gaitzke hainbat lekutan besta handiak egin zituztela, gerla bukatu eta zenbait astez ere. Hori soberakina iruditu zitzaion *Eskualduna*-ri, etxeetan hilak zituztenek ez baitzuten bihotza hain gora:

Eta zertako ez utz gure bozkarioa nahi bezen handi agertzerat?

- Zertako?... Zeren gure inguruan, gure auzoan, baitire zenbeit gure bozkario handiegiaz bihotzmin luketenak. Eta badakizue hek nor diren: beren etcheko gizonetarik bat edo bertze gerlan hil zaizkotenak.

Hoiak ere irri ezti bat badute ezpainetan, ikusirik hain maite zuten seme, senhar edo anaia haren odola ez dela debaldetan ichuria izan, odol ichuri horren ondorioa dela hainbertze erresumen bozkario eder hau. Bainan gehiagorik ez dezake jasan heien bihotzak, zeren laster erdiratzen baita eta nigarretan emaiten. [...] Bizkitartean besta gaitzak, gau gehiena irauten dutenak, auzotegi guzia lo egiterat ez utziz, egiten bide dire bazterretan. Eta nor ikusten omen dire hetarat biltzen? Espainiarat ihesi joan izan diren gazte batzuen etchekoak, eta maiz hoiakin betan, beren gizonak zuhurki sutik urrun egon zaizkotenak.

Holakoek oraiko bozkarioa eresia dute merke, dolurik gabe, grina handirik gabe. Zer zuzen dukete beraz hainbertze nigar egin duten bihotzeri sastako berri baten emaiteko beren ergelkeriez, heien heinean ez emanez?⁸⁹⁸

Artikulu horrek hunkitu zuen gaia desertoreena zen. Desertoreak aipatuko ditugu geroago, baina laburki arreta jar dezagun gerla bukatu ondoan zer zatiketa ageri zen desertoreen familien eta soldadu hilen familien artean. Zatiketa horretaz harago, sufrimendua zegoen etxeetan guztiz bozkariatzea zaila zela eta besta gehiegi egitea ez zela egokia idatzi zuen Adémak. Nonbait, gerlaren larritasunaren aitortza eta arinkeriaren baztertzea ikus daiteke artikulu horretan. Dena den, horri baino indar handiagoa eman zion hilak ez zirela alferrik hil errateari, eta hilen familiek ere bazutela poz bat hori hala zela jakitean.

Artikulu hori laburpen on eta orekatu bat zen: gizartearen zatiketaz gain, sufrimendua aitortzen zuen, baina baita sakrifizioaren sariak ematen zuen poza edo kontsolamendua ere. Hots, gerlaren ondorioaren bi aldeak erakusten zituen; hala ere, gerlaren ondorio

⁸⁹⁸ Blaise Adéma, «Hein batean», *Eskualduna*, 1918ko abenduaren 13a.

lazgarrienak jasan zituztenekiko urrikalmenduak eta garaipenaren pozak gerlaren eta Frantziaren aldeko jarrera erakusten zuen.

Horiek hola, gerla behin betiko bukatuko ote zen ezin sinetsiz ari zirela ere aitortu zuten, beste artikulu batean. Alemaniako enperadorea kargutik kendua zuten, baina Adéma beldur zen ez ote zen berriz itzuliko, erranez batzuek uste zutela Alemaniako errepublika berria alegiazkoa zela, eta enperadorea laster berriz kargura ekarriko zutela. Horrez gain, Alemaniak Aliatuek ezarri baldintzak ezititzeko eskatu zuela aipatu zuen *Eskualduna*-k:

Bainan, bertze hainiz gauzetan, hitzemaneri uko egin nahi lukete. Garratzegiak, ezin atchikiak omen zaizkote. Horra zertako galdetzen duten eztiagoko zerbeit.

*Debruen urdeak, eztitasuna zuekin! Zer eztitasun agertu duzue, zuek, Frantzia eta Beljikan jabetu zinezten tokietako jende gaichoekin?*⁸⁹⁹

Gerla bukatu ere Alemaniaren kontrako aiherkundeak eta, bereziki, mesfidantzak aitzina segitzeak erakustera ematen zuen gerla izpirituak oraino irauten zuela. *Eskualduna*-ko idazleen baitan hala zen, eta beraz bururaino jarraitu zuen Frantziaren aldeko jarrera gerlatiarekin.

Zenbait duda edo kritika politiko edo bereziki estrategiko gorabehera, horiek salbuespenak ziren. *Eskualduna* astekariak hastapenetik argi utzi zuen Frantzia zuzenean zela eta Alemaniak zuela hutsa. Frantziaren eta Aliatuen garaipenaren baitako sinesmen itsuak eta gerla Alemania errautsi arte segitu nahiak garbi uzten zuen astekari hori nola inplikatu zen Lehen Gerla Mundialean Frantziaren alde. Nahiz eta Errusiako Iraultzarekin kezka batzukan zituen, Frantziaren eta honen erabateko garaipenaren aldeko jarrera leiala bururaino atxiki zuen.

B. Estrategiari begira

Gerlaren ikuspegi orokor, politiko eta diplomatiko horretatik landa, angelua pixka bat hertsiago jarriko dugu, irakurketa orokorrarekin segituz, hala ere. Gerla ez da soilik garrantzi eta hedadura handiko gertakari politiko bat. Ministerioetatik armadako buruzagien heinera jaitsiko gara ondoko orrialdeetan. Eta hor, politika baino gehiago, estrategia zen jokoan zegoena, hori ere gerlaren funtsezko osagaia baitzen. Hori horrela izanik, normal da

⁸⁹⁹ Blaise Adéma, «Eta Alamanian?», *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 29a.

Eskualduna-k estrategiari buruzko gai batzuk aipatu izana. Dena den, beste atal batzuk baino laburrago barnatu dugu astekariak gai estrategikoak nola landu zituen, hain zuzen, aipatu bazituen ere, beste zenbait gaik baino presentzia txikiagoa izan zutelako bere zutabeetan. Gainera, strategiari buruzko ikuspegi osoa ezin zen ukan astekaria irakurriz, gai batzuk besteak baino gehiago barnatu zituztelako, eta beste gai garrantzitsu batzuk ez zituztelako anitz esplikatuz, edo batere. Horregatik, aztertuko ditugun hiru atalak astekarian agertu zirenak dira; agertu ez direnak ez ditugu aipatuko.

Hasteko, gutxi sakondu bazuten ere, gerlaren ezaugarri nagusia izan zen lubakien gaia aztertuko dugu, gerlako teknika gisa. *Eskualduna*-k horri buruzko zer azalpen eman zuen eta zer irakurketa egin zuen argituko dugu. Gerla aipatzen zenean gehienbat lurrekoaz izaten bazen ere solas, eta orain ere lurrekoaz gogoratzen bagara ere, gutxiago aipatzen zen beste elementu baten berri eman zuen *Eskualduna*-k: itsasoko borrokaren garrantzia esplikatuz zuen. Horrekin zerikusia zuen beste gai bat ere barnatu zuen, hala nola baliabide ekonomikoena. Zuzenean arma bidezko borrokekin deus ikustekorik ez zuten arren, dirua ere elementu estrategikoa zela ulertarazi zuten astekariko idazleek.

I. Gerla tekniken irakurketa

Lehen Mundu Gerra bereziki ezaguna izan zen posizio gerlarengatik eta, beraz, lubaki edo trintxerengatik. Gerlako teknikez anitz erran daiteke, ez baitzen lubakietara mugatzen, baina teknika horiez, zehazki, ez zuten anitz idatzi *Eskualduna* astekarian. Lubakiek gerla teknikan zuten eraginaz pixka bat idatzi zuten. Eta horien harira, gerlaren alde teknikoaz irakurketa batzuk eman zituzten, batetik lubakien alde ona aipatuz, eta bestetik alde txarra.

a) Lubakien alde ona

Lubakiek izan zuten garrantzi handiena gerla hartan, eta lubakiak berak nolakoak ziren, nola antolatuak ziren eta hango bizimodua zein zen xeheki esplikatuz zuten hilabeteetan zehar. Oraingo lerro hauetan xehetasun haiek ez ditugu aipatuko, baizik eta ikuspegi orokorretik begiraturaz, lubakiek zer ondorio izan zuten. Funtsean, Manex Hiriart-Urrutiren artikuluan batean zegoen lubakiei buruzko irakurketa estrategikoa. Posizio gerla hasi eta zenbait hilabeteren buruan argitaratu zuen artikulua gogoeta interesgarri franko eskaini zuen; batetik, lubakien alde txarra onarturik ere, oro har zergatik baikorrak izan ziren esplikatuz

zuelako, eta, bestetik, mugimendu gerla denboran frantsesen ahulezia zein izan zen aitortu zuelako.

Hiriart-Urrutik, 1915eko apirilaren 23ko artikuluan, lubakien alde materiala pixka bat aipatu bazuen ere, ez zen horretan luzatu. Gerla ikuspegi batetik, lubakiez zenbait azalpen ematea zen helburua. Gisa hartan, lubakiek eritasun anitz edo heriotza eragiten zutela argitu zuen, baina oro har, salbatzaile izan zirela gehitu zuen. Lubakiak alemanek asmatuak izanik ere, ororen buru, frantsesentzat aukera ona izan zirela azaldu zuen. Artikulu horretan esplikatu zuen frantsesak lubakiei esker salbatu zirela, posizio gerla haren luzatzeak, hastapenean falta zituzten armak eta abar biltzeko aukera eman zuelako:

Halere, dezagun aithor egia: on baino kalte gehiago ziloetako biziak, bana bertze. Zonbat erromatisma, bulhar galdu, eztul gaichto, zango hormak hil, moztu behar ukaiterainoko! Zonbateg ez dute zilo hetan ja bizia utzi edo laburtu!

Osasuna behin bethikotz galdu, zonbateg!

Gogoratzea da gehiago, gerlaren egitea lurpez, gizonak azkon, basurde, sathor batzu balire bezala. [...]
Alabainan, gauzak diren bezala ikusi nahi dituenarentzat zilo hoiek gaituzte hastapenean begiratu, gu, Frantsesak, orduan ahulenik ginenak.

Eta huna zortzi, ja hurbil bederatziz hilabete, zilo hoiengizari esker iraun dugula, eta iharduki etsaiari.

Zilo hoiek gabe, gureak egin zuen, 'ez baikinengizari prest'; gerlako baitezpada behar direnatarik asko eta asko eskas baikinengizari.

Eskas, guduari lotzeko, Charleroi-ko gudu lazgarriak berehala erakutsi zaungun bezala; eskas, ordutik laster, La Marne-ko garhaitze aiphagari hartan, erhaustera gineraman etsaia utzi behar ukan baikinengizari, ihesi zuala, tresna eta tresnen hazkurri eskasez, artilleria eta bertze.⁹⁰⁰

Ziloetako baldintza gogorrak aipatu zituen arren, beste ondorio bat ere atera zuen, hala nola gogortasun hark batzuei on egin zuela, azkartu zirelakoan eta gero ez zelakoan eritasunik izan. Beraz, nahiz eta lubakien alde txar hori onartu, oro har ondorio onak ere izan zituela idatzi zuen. Baina goiko pasarte horretan beste xehetasun batzuk ere eman zituen. Argi aitortu zuen Charleroi-ko eta Marneko guduetan irabazi ahal izateko gauzak edo armak eskas zituztela. Batetik, ahoan bilorik gabe aitortu zuen, zenbait hilabete geroago, frantsesak ahulenak zirela. Bestetik, Marneko gudua garaipen gisa aurkeztu bazuten ere, ahulezien ondorioz ez zela erabateko garaipena izan aitortu zuen.

Beraz, lubakiei esker, fronteak egonkortuz eta gerlaren aitzinamendua nolabait izoztuz, Frantziak denbora irabazi ahal izan zuen armamentu hobearen lortzeko, *Eskualduna*-k esplikatu zuenez.

⁹⁰⁰ Manex Hiriart-Urruti, «Ziloetan», *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 23a.

b) Lubakiak gerlaren luzarazle

Denbora irabazi zutela, baina baita galdu ere. Denboraren galtzea erlatiboa dela esplikatu zuen Blaise Adémak, baina funtsean, lubakien teknika gerlaren luzarazle izan zela aitortu zuen, lubakien ondorioz gerla hark hartu zuen berezitasunari buruzko xehetasunak emanez. Lubakien ondorioz gerlaren aitzinamendua izoztu zela begi bistakoa izan zen, baina ez zuten horretaz maiz idatzi *Eskualduna*-koek. Bi editorial izan ziren nabarmentzekoak, lehena Manex Hiriart-Urrutirena, 1915eko irailean idatzia, eta bigarrena Blaise Adémarena, urte bat geroagokoa.

Hiriart-Urrutik aitortu zuen zailtasun handiak zituztela alemanak erreka zuloetatik ateratzeko:

Bainan noiz eta nola? Ez jakin. Behinik behin lurpeko erreka zilo hetarik nekez ditugula diote jalaraziko, biziki nekez.⁹⁰¹

Gerla urte bat baino gehiago hartan hasia zen, eta hastapenean uste baino anitzez gehiago luzatu zen. Hiriart-Urrutik ez zuen gerla epe motzean bururatuko zen itxaropenik agertu. Baina goiz ala berant irabaziko zutela segurtatu zuen. Hilabete batzuk lehenago idatzi zuen bezala, lubakien teknikaren ondorioz frantsesek «indarrak hartu» zituztela errepikatu zuen, eta lubakiak alemanen kaltera izanen zirela iragarri. Hain zuzen, alemanek goiz ala berant atera beharko zutela segurtatu zuen, eta hori lortzeko goseak atxiki behar zirela esplikatu, janaria helarazteko trabak ezarriz.

Ez etsi halere, den ihizirik gaichoena, den gizonkirik thematsuena, bihurriena, zailena, garhaituko duzu aski dembora emanez, thematuz haren kontra zu erem buru gogorarena eginez, iraunez, ihardokiz.

«Ez jal-arazi ahalko, ezin jal-araziak»,... horren erraitea errechago da, han bethi egoitea baino, non ez den han hil gogo, ifernuko bizi bat han eremanik.

Ororen buruan, jal-araz ez baditazke, batetara doa, han atchikitzea preso; ez uztea bizirik jalitzerat; kanporat ezin atheratuz han berean, barne hartan leher egin-araztea, goseak, egarriak, eritasunak chahaturik.⁹⁰²

Zuloetan kokaturik ikusten zuen alemana bere zuloetik ezin ateraz dagoen ihiziaren pare jarri zuen Hiriart-Urrutik. Ihiziekiko konparaketak azterketa sakonagoa merezi du, baina konparaketa zehatz hori gerlako teknika esplikatzeko molde ulergarria zen, herritarrek ihiziko teknikak ezagutzen zituztela jakintzat ematen baitzuen. Modu pedagogikoa, gerla bestearen higaduraz irabaziko zutela ulertarazteko.

⁹⁰¹ Manex Hiriart-Urruti, «Ezin jal araziak», *Eskualduna*, 1915ko irailaren 3a.

⁹⁰² Ibid.

Higadura horrekin loturik, oraintxe aipatu dugun pasarteak beste kontzeptu bat ere azpimarratu zuen: pazientzia. Luze izanen zela onartu behar zen, etsaia gosearen eta bakartzearen bidez akiaraztea ez baitzen epe laburrekoa izanen. Funtsean, urte bat geroago, Blaise Adémak gerla hainbeste luzatzearen azalpenak eman behar izan zituen, pazientzia galtzen ari zen jendeari erantzunez:

Zenbat zinkurina bazterretan: gure soldadoak arras eztiki doazila, bareen urhatsean; ez daukatela gerla izigarri hau bururaturik; etsaien nagusi direnaz geroz, behar luketela beti aitzinat joan gelditu gabe, bederen etsai hoik Frantziako lurretarik urrundu arte. [...]

Hola mintzo direnek ez dakite batere zertaz mintzo diren; ez dakite oraiko gerla hau dela gerla bat berezia, behinere ikusi ez den bezalakoa. Lehenagoko gerletan, gudu baten ondotik, garhaitua zen armada joaiten zen, hainiz leku gibelago, aterbe on baten bila, geriza horren laguntzarekin hobeki ihardokitzeko etsaiari. [...]

Ez dugu ahantzi behar, oraiko gerla huntan, garhaituak izan ondoan, soldadoek ez dutela urrun joaiterik aterbe baten atzemaiteko. Erreka-zilo bat galtzearekin, bertze holako bat badute zenbeit urhats gibelachago, han berehala gerizatzeke, eta handik berriz ere etsaiari ihardokitzeko. Nola nahi duzue bada gure soldadoak hola aitzina ditenez laster, etsaia laster Frantziako lurretarik urrun dezaten?⁹⁰³

Artikulu luzean, xeheki esplikatatu zuen gerlan aitzinamenduak mantsoak izatearen arrazoiak. Etsaiari suntsitzen zioten zulora heltzean, denbora hartu behar izaten zuten zuloa berreraikitzeke, handik haizatu etsaiak ez zezan berriz lekua berreskura, maiz gertatzen zen bezala. Gisa hartako azalpenak eman zituen Adémak. Bidenabar, lubakien deskribapen ona eskaini zuen. Baina, oroz gainetik, lubakien teknika gerla luzatzearen erantzulea zela garbiki esplikatatu zuen. Egia da lubakien teknikari buruzko kritika gisa uler daitekeela hori, baina ez da kritika ikusi behar, baizik eta ondorio ateratze bat. Adémak gauzak nola ziren erran zuen, baina alde ilun horren gainetik, aitzinamendu mantso horien bidez, pixkanaka-pixkanaka, Aliatuek gerla irabaziko zutela hitz eman zuen, artikulua bukaera lekuko:

Noizbeit – eta beharbada uste baino lasterrago – ikusiko ditugu etsai hoik, beren errekek galdurik, ihes egiten beren lurretarat, eta orduan belauniko daukute bakea galdeturen.⁹⁰⁴

Zer ondorio atera hortik? Jendeak erakutsi kezkak aipatzen hasi zen, baikor izateko arrazoi guztiak daudela segurtatuz bururatzeko. Gerla uste baino gehiago luzatzearen justifikazioa eman behar zuen, eta lubakiei buruzko artikulu pedagogikoa egin zuen horretarako (urte bat lehenago Hiriart-Urrutik egin zuen bezala), garaipena segurua zela baieztatzeke. Arazoen aitzinean, beti baikor agertzen zirelako beste adibide bat, hain zuzen.

⁹⁰³ Blaise Adéma, «Eztiki», *Eskualduna*, 1916ko irailaren 15a.

⁹⁰⁴ Ibid.

2. Itsasoko borrokaren garrantzia

Egia erran, lurreko borrokei buruzko gai estrategikoak ez zituzten hainbeste barnatu. Lubakien eta gibel lerroen funtzionamendua ongi esplikatuta zutela ikusiko dugu geroago, baina strategiari dagokionez, horrekin konformatu beharko dugu. Aldiz, argibide gehiago eman zuten itsasoaren garrantzi estrategikoaz. Baina hori gerla itsasotik edo itsas bazterretik bizi izan zuen euskaldun bati zor diogu. *Eskualduna*-k eskuratzen zituen gutunak argitaratzen zituen, eta Pierre Duhour hazpandar marinelak igorri zituen testuak, gutxi izanik ere, baliosak ziren astekarian beste gisan guti aipatzen zuten gai bati buruzko xehetasunen ukaiteko. Pentsa daiteke Duhourren gutunengatik izan ez balitz, itsasoko borrokei buruzko berri gutxiago emanen zutela. Batetik, itsasoko indarrak nola banatuak ziren eta zein ziren alde baten eta bestearen arteko indar harremanak aztertuko dugu. Itsasoan izaten ziren borrokak zein ziren eta zein ondorio zuten ere landuko dugu, Pierre Duhourren testuen haritik jarraituz. Azkenik, itsasoaren kontrola zergatik zen garrantzitsua esplikatuta zuten *Eskualduna* astekarian.

a) Indar harremanak

Pierre Duhourren azalpenek gerlako indar harremanaz beste argibide batzuk eman zituzten. Alabaina, indar harremana ez zen lehorrean bakarrik neurtzen, guduak itsasoan ere izaten baitziren. Duhourrek goraki azpimarratu zuen Aliatuak nagusi zirela itsasoan. Alde batetik, Frantziako armadak, Mediterraneo itsasoan gaindi, hainbeste mila soldadu Salonikara eta Dardaneloetara igortzeko gaitasunak alemanak guztiz harritu zituela argitu zuen. Gisa berean, Grezia ere Aliatuen kontra gerlan ez sartzea frantsesek itsasoan zeukaten indarrak esplikatzen zuela idatzi zuen:

Orai zer lan handia ez dute egiten Grezia-ko uretan, atchikitzen baitute Grezia bere errege tristerekin heintto batean. Badakizu nik bezen untsa Greziako errege kontra dugula. Aspaldian emanen zaukun gerla ez balu gure gerlako untzien beldurra izan. Baitaki eman balauku, Greziako bihotza, haren hiri nausia eta Pirée deitzen den hiri handia beste ur hegiko hiri guziekin, gerla deklaratu ordutik oren laurden batez lurrean izanen zirela erhautsirik. Berriz diot: gure gerlako untziek egin eta egiten dutela lan handia eta egin ere Jainkoaren lagunzarekin.

Gure gerlako untzietan esker, garbi ditugu mundu guziko itsasoak; gure komertsioko untziak badabilza zokho guzietan eta etsaiak ez du untzi bat bakarrik itsaso gainean.

[...] Gerlako untzi etsai putrunek izanen dutenian aski kuraie beren zilhoetarik atheratzeko eta gureen gudukatzeke anhez plazerekin ardietsiko dute gure untziek. Gerla hasiz geroz berantetsia dugu egun hura.⁹⁰⁵

Biziki baikor agertu zen Duhour artikulu hartan, dena espantu. Itsasoa, eta Adriatikoa bereziki, arriskutsuak ziren Aliatuentzat, austriarrek hainbat portu kontrolatzen zituztelako eta alemanek itsaspeko ontzi anitz igortzen zutelako handik. Egia erran, Pierre Miquelen arabera⁹⁰⁶, Aliatuek azpiegitura onak zituzten kostaldean, eta Pierre Duhourri arrazoi ematen dio erranez ez zutela hainbeste itsasontzi galdu. Duhourrek gutxiago aipatu zuena zen itsasontzietara joaten ziren soldaduek biziki egoera gogorra jasan behar zutela eta baita itsasora erortzeko beldurra ere, ez baitzekiten igerika.

Alemanen berezitasuna urpeko ontziak ukaitea zela esplikatu zuen behin baino gehiagotan, Duhourrek. Aliatuek garbi jokatzeko zutela, baina alemanek merkantzia ontziak eta ospitale-ontziak ere jotzen zituztela kritikatu zuen:

*Ur-pekoak, torpillatuz untzi ospitaleak ez dira gizon gudularier oldartzen bainan bai indarrik gabeko jender, guduak jadanik chehatu gizoner, eri tratatzen ari diren emazte gaichoer.*⁹⁰⁷

Zaurituak garraiatzen zituzten ontzi ospitaleak urperatzeko alemanek erabiltzen zuten aitzakia, Duhourren arabera, ontzi haietan gerlako tresnak eramatea zen. Hori ikusiz, ingelesek preso alemanak ere ezarri zituzten ontzietan, horrela alemanek ez zitzaten bonbarda. Baina, horien guztien gainera, itsasontzi batzuen galtzearen aitzinean, irakurleei azalpen batzuk emateko beharra sentitu zuen Duhourrek:

Itsaso-ko guduez deus ez dakiten batzuek, noizean behinka entzuten dutelarik etsai urpeko batek gure untzietarik ur zolarat igorri duela, zuzen kontra diote gure ur-pekoek ez dutela deus balio... etsaienak bethi lanari daudela eta gureak alfer.

Hola mintzo direnak ez dira ohartuak ur-peko etsaiek badutela nun jokha itsaso guzietan, gure komertsioko untziak baitabilza bake demboran bezala itsasoz itsaso. Ez da gaitz humbestetarik bat edo beste ur zolarat igortzen badaukute. Ur-peko etsaiek aski dute itsaso erdian egoitia, badakite nahi eta ez, goiz edo berant, kurutzatuko dutela gure untzietarik.

*Gureek ez dute holako alha lekhurik, ez baita itsaso gainean etsai untzi bihi bat. Nahi badute zerbeit egin, toki lanjerosenatarat bermatu behar.*⁹⁰⁸

Hots, Aliatuek alemanek baino anitzez itsasontzi gehiago zutela eta gisa hartan Aliatuen ontzi bat urperatzeko probabilitatea handiagoa zela zehaztu zuen. Horrez gain, alemanek eginahalak oro egiten zituzten Aliatuen ontzi oro botatzeko, merkantziakoak barne, azaldu zuenez. Orain aipatu artikuluan, azkenik, argitu zuen merkantzia ontziak

⁹⁰⁵ Pierre Duhour, «Gerlako untzien lana», *Eskualduna*, 1916ko urriaren 27a.

⁹⁰⁶ Miquel, *La grande guerre au jour le jour*, 323–324.

⁹⁰⁷ Pierre Duhour, «Untzi ospitaleak», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 25a.

⁹⁰⁸ Pierre Duhour, «Urpeko etsaiez», *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 2a.

lasaiago ibiliko zirela, denek kanoi bat edo bi ukanen zutelako. Duhourrek itsasoko indar harremana Aliatuen alde zegoela argi utzi nahi izan zuen, hori dudan ezartzen zutenei erantzunez.

b) Itsasoko guduak

Itsasoak bazuen beste osagai garrantzitsu bat, Pierre Duhourrek eta gainerakoek gutxi aipatu bazuten ere, aipu zerbait ukan zuena: itsasoko guduena. 1918ko martxoko artikuluko batean⁹⁰⁹, bi ontziren urperatzea aipatu zuen, hala nola alemanen eta turkoen Goeben eta Breslau ontziena. Artikuluak hainbat informazio ematen zituen, batetik ontzi haiek nola bota zituzten, baina, bestetik, zein izan zen ontzi haien ordu arteko ibilbidea, ondoko pasartean agertzen den gisan:

Jakin duzue azken egun hotan nola «Goeben» eta «Breslau» ontzi Allemand-Turkoak izan diren ezarriak gudutik kampo. «Breslau» ur zolan eta «Gobean» ur bazterrean chehatua harri banka muthur baten gainean agonian.

[...] Gerlaren bigarren egunian «Goeben» eta «Breslau» Méditerranée itsasoan ziren; tirokatu zituzten Bône eta Philippe-ville Algeria ur hegiko bi hiri; gero jo zuten Messine Italiako porturat; han ikhatz eginik, Pola Autrichiako gerla porturat. Handik jautsi ziren eta agorrilaren hamabian Dardanelles-etan sarthu nun eman baitzuten soinean Turko arropa bat, irets arazteko guri, Turkoer salduak zirela. Turko izenak eman zaizkoten, achaletik bakarrik: - Gizonezko muntadura guzia atchiki zuten (Denak Alemanak): horiek oro lege kontra.

Geroztik itsaso beltzean egin dute asko athera aldi, nun izan baitziren azkarki kolpatuak ontzi Rusoer. – Minak lothurik, nahi zuten oraino itzouli zar zombeit egin Méditerranée itsasoan. Zer den gerthatu badakizue. – Angles eta gure ontziak aldizkatuz, guardian zauden bethi Dardanelles-etako aitzinean. – Turkoek ez uste izan naski uralde hura zaindua zela, sarean sarthu dira, garratoia gathuaren aztaparretan bezala; ez baitzen goizegi.

Horrela, Pierre Duhourrek Mediterraneo itsasoko leku eta portu desberdinen berri eman zuen. Horrekin batean, itsasoko gerlan egindako «huts» batzuk kritikatu zituen. Duhourrek zioen gerla hasi zenean bi ontzi horiek lehenik Dardaneloetara eta gero itsaso beltzera sartzen utzi zituztela, Maltan atxikitzeke ordez. Ingeles amiral baten bizkar ezarri zuten erabaki hura. Hazparneko marinelaren ustez, gauzak bestela egin izan balituzte, gerla bukatua izanen zen bi urte haietan, Turkia eta Bulgaria ez baitziren gerlan sartuko.

[...] «Goeben» eta «Breslau» Algeriako ur hegieta zirelarik, amiral anglesak izan zuen gurearen ganik, Malte ondoko ur aldearen hesteko manua. Orduetik bi ontzi madarikatuak zerratuak ziren aingira pertolan bezala. Gure berrogoita hamar ontziek joiten zituzten sokho guziak bainan debaldetan: jakin ginuen Allemand ontziak Messinan ikhatze eginik han harat juanak zirela Adriatique itsasoan barna. Anglesek utzi zituzten phasatzerat. Beren ezkina gaizki zeindu. Erran zuten amiral anglesak bere

⁹⁰⁹ Pierre Duhour, «Itsasoko berri», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 22a.

nahitarat utzi zituela eskapatzerat: Zerbeit bazen, amirala bere kargutik altchatua izan zen ordu beretik. Horra zendako etziren hachemanak izan orduan.

Erranen dautazue, aski ginintuela Dardanelles-etan barna segitzia: egia handia hori!

Segitu baginintu eta Constantinople hiriaren begietan ur zolarat igorri, gerla hau akhabatua izanen zen duela bi urthe bederen: Turkia eta Bulgaria ez baitziren gerlan gure kontra sarthuko.⁹¹⁰

Horren ardura ez zela amiralarena izan, baizik eta ministro batena idatzi zuen, izenik eman gabe. Helburua, Konstantinoplan garaipen bat lortzea zen, turkiarrak gerlatik erretiratzeko eta Balkanetako herrialde neutroak Aliatuengana biltzeko. Gisa hartan Austria-Hungaria eta Alemania, ekialdetik mehatxatuko zituzten. Baina Dardaneloetako erasoak ez zen pentsatu bezala gertatu:

Beaucoup de canons turcs sont détruits, mais plus par l'action des détachements débarqués que par le tir des navires. Une distinction qui échappe sans doute aux autorités de Londres. Dès lors, l'opération navale tourne à l'échec. Les défenses turques disposent de canons lourds dans les forts des Détroits, de champs de mines et de batteries d'obusiers mobiles le long des côtes. La flotte ne peut détruire les canons des Détroits par son tir à longue portée, ni draguer les champs de mines protégés par les obusiers, ni débarquer des forces terrestres pour effectuer le travail de destruction. Elle ne peut même pas se protéger. Le 18 mars, une action d'ensemble, destinée à détruire les forts et à permettre à des embarcations légères d'éliminer les mines, échoue sur les deux plans et cause des pertes exorbitantes: un tiers de la force navale qui devait contraindre Constantinople à la reddition est coulée ou mise hors d'état.⁹¹¹

Azalpen horiek irakurriz, Duhourrek ministro bati egin zion kritika ez zen biziki zuzena. Aliatuen itsas flota guduaren galtzen ari zen, eta erretiratu behar izan zuten. Kritika taktiko horren gainera, itsasoko guduen garrantzia estrategikoa aipatzea zen artikulu haren helburua, nahiz eta borroka hartan zer gertatu zen ez zuen egiazki erran. Duhourrek itsasoko guduari sekulako garrantzia eman zion; baina zeukan garrantziari indarririk kendu gabe, oro har, espantu handiegiak egiten zituela pentsa daiteke. Dardaneloetan, lurreratu ziren indarrek egin zieten kalte handiena turkiarrei. Baina Duhourren artikuluetan bere buruaren justifikazioa ikusi behar da, marinela lasai bizi zirela kritikatu zionaren ondotik⁹¹², marinelen lanak zerbaiterako balio zuela frogatzea izan baitzen haren obsesioa, itxura guztien arabera.

⁹¹⁰ Ibid.

⁹¹¹ Prior eta Wilson, *La Première Guerre mondiale 1914-1918*, 82–83.

⁹¹² Ikus Pierre Duhourri buruzko atala: 213

c) Itsasoaren kontrola

Pierre Duhourrek eman zituen azalpenek bazuten beste alde bat, gutxietsi behar ez zena: itsasoz ez ziren soldaduak bakarrik garraiatzen, salgaiak ere bai, eta hori funtsezkoa zen. Zenbait artikulua pedagogikotan azaldu zuen itsasoaren kontrola ukaitea zein garrantzitsua zen, batetik bestera lasai mugitzeko, bereziki merkantziak garraiatzeko. Ildo horretatik, gerla hartan marinelek ere funtzio garrantzitsu betetzen zutela azpimarratu nahi zuen.

Bereziki Mediterraneo inguruen berri eman zuen. Ez zuen azaldu nondik idazten zuen, baina artikulua irakurri arau, bere ibilbidea osa dezakegu, puzzle baten gisan. Datak ez zituen eman, baina zenbait toki, bai. Adibidez, badakigu gerlako lehen bi urteak «Courbet» gerlako ontzian iragan zituela⁹¹³, Malta uhartean egon zela garai batez⁹¹⁴ eta gerla bukaera aldera Tunisiako Sidi-Abdallah hiriko ospitalean egon zela⁹¹⁵. Itsaso Adriatikoa nolakoa zen deskribatu zuen, halaber Dardaneloen inguruaren garrantziaz ere mintzo zen. Gune haren kontrola ukanez, Grezia bera lasai atxikitzeak aukera zutela esplikatu zuen. Bestalde, itsasoaren kontrolatzeak salgaien garraiatzeko erraztasuna ere ematen zuela argitu zuen:

Zer duten egiten gure mariñelek? Soldaduek lurrean egiten dutena; gerla dute irabazten. Nolaz? Zer gisaz? Etsai untziak portu zokhoetan preso atchikiz. Itsasoa urpeko etsaietarik zainduz; kanpotik behar dugun ogi, ikhatz, burdin, soldado, hots! eskas ditugun phuska guziak Frantziako lurretarat hel araziz; kofoina guzietako harat hunatak chutik atchikiz; Salonikako armada handiari behar dituen gauzak eremanez.⁹¹⁶

Zer duten egiten gure itsasoko gizonek? Bizi arazten gituzte guziak. Hek gabe, Frantzia, bitorios lurrean, selhauru hutsen aitzinean izanen zen.

Blaise Adémak ere gai hori aipatu zuen, 1917an, behingoz aitortuz alemanen urpekoek aliatuak kinka txarrean ezarri zituztela, merkantzien garraioaren arloan:

Zenbeit ilabetez desmasia handiak egin dauzkigute hola, bereziki Angleseri; hainbertzetaraino non angles ministro batek aitortzen baitzuen, arras hinka gaichtoan ginela. Noiz jakinen dugu zenbat ogi-bihi den itsaso barnean suntsiturik?⁹¹⁷

Adémaren arabera, alemanek uste zuten urpekoekin irabaziko zutela, merkantzia ontziak bonbardatuz eta, ondorioz, Frantzia eta Ingalaterra janaririk gabe utziz. Geroztik gauzak aldatu ziren, alemanek aliatuen ontziak ez baitzituzten hain errazki suntsitzen. Hain

⁹¹³ Duhour, «Itsasoko berri». 1918/3/22.

⁹¹⁴ Pierre Duhour, «Misionest baten pairamenak», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 17a.

⁹¹⁵ Pierre Duhour, «Phazko ospitale batean», *Eskualduna*, 1918ko apirilaren 26a; Pierre Duhour, «Tunisiako berri», *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 29a.

⁹¹⁶ Pierre Duhour, «Gure itsasoko armada», *Eskualduna*, 1918ko urriaren 11.

⁹¹⁷ Blaise Adéma, «Agian», *Eskualduna*, 1917ko irailaren 28a.

zuzen, Ingalaterran defentsarako beste zerbaite aurkitu zutela idatzi zuen Adémak, nahiz eta zer zen ez zuten erraten. Horri esker, Amerikatik janaria etorriko zelako poztu zen, 1917an Frantzian eskatu zela aitorturik.

Janariaren eta lehengaien helarazteaz aparte, milaka soldadu mugiarazteko aukera ematen zuen itsasoak, Duhourren azalpenen arabera. Bereziki soldaduak Salonikara igortzeaz idatzi zuen. Halaber, alemanen ustearen kontra, 1,5 milioi soldadu estatubatuar Europara ekarri zituztela ere esplikatu zuen, ondoko ondorioa ateraz:

Oraikotik irakurtzaleak jukatuko du berak, itsasoko armadaren entsegu eta segur niz erranen duela itsasoko guardiaren laguntzarik gabe ez ginela bitorios izanen Marne, Verdun, Somme-ko batailetan ez eta oraiko abantzu handian. Guziek behar dugu jakin, itsasoko armadarik gabe ez daitekeela deus egin lurrean. Etsaiak izan balire itsasoan nausi, aspaldi galdua izanen ginuen gerla.⁹¹⁸

Egia da itsasoaren kontrolak garrantzi handia zuela, batzuek eta besteek etsaien hornikuntzak portuetara heltzea tratatu behar zutelako, etsaia ahal bezainbat ahultzeko⁹¹⁹. Halaber, Erresuma Batuentzat garrantzi berezia zuen, bazekielako Alemaniak ere itsas armada indartsu bat bazuela eta haren balizko eraso bat saihestu behar zutela. Pierre Duhourren azalpenak irakurririk argi gelditu zen itsasoak egiten zuela gerla zinez mundu osoko. Gerla lurrean eta itsasoan zegoen. Eta itsasoko sarbideak giltza ziren. Itsasoaren kontrola aliatuen esku izateak baikor egoteko arrazoiak zituela ulertarazi nahi zion jendeari.

3. Baliabide ekonomikoen azterketa

Armen azantzatik urrunago, gerla beste sail batzuetan jokaten zela ere esplikatu zuen *Eskualduna*-k. Frantsesek diote dirua dela «gerlaren zaina», eta mezu hori ongi barnatu zuten astekariko idazleek. Estrategia militarraz baino gehiago idatzi zuten ekonomiaren funtzioaz. Alde batetik, merkantziak soldaduak zeuden lekura helaraztearen edo alde batetik bestera garraiatzearen edo bidea moztearen garrantzia esplikatu zuen. Ekonomia arloan Aliatuak zirela indartsuenak erakutsi nahi zuen. Hirugarrenik, irakurleei egin zien deia, dirua eta urrea Frantziaren esku utz zitzaten, gerlarako dirua behar zelako.

a) Merkantzien garrantzia

Itsasoaren kontrolak merkantzien garraiatzea edo merkantziei bidea moztea baldintza zezakeela azaldu zuen Pierre Duhourrek. Eta merkantzien garrantziaz idatzi zuten beste

⁹¹⁸ Duhour, «Gure itsasoko armada». 1918/10/11.

⁹¹⁹ Isnenghi, *La Première Guerre Mondiale*, 41.

idazle batzuek ere, besteak beste Jean Etxeparek. Gerlaren irabazteko osagai garrantzitsuenetarikoa itsasoaren kontrola zela azaldu zuen behin eta berriz. Zailtasunen aldetik, alemanen urpekoek merkantzia ontziak botatzen zituztela aipatu zuen, eta horren ondorioz merkantzia ontziak ez zebiltzala lasai, baina aliatuek ere alemanei urpeko anitz bota zizkietela gehitu zuen⁹²⁰. Beste batean baikorrago agertu zen, amerikarrak itsasontzi ekoizten ari zirela eta hori ogia heltzeko garrantzitsua zela argitu zuen, Errusiako, Errumaniako eta Austriako bidea hetsia zelako⁹²¹. Merkantziak helarazteak berebiziko garrantzia zuela ulertarazi zuen.

Azterketa horretan, *Eskualduna* ez zen itsasora mugatu, ordea. Ikuspegi estrategiko batetik, armekin baino gehiago, janari faltarekin garaitzearen aldeko apustua egina zuen Hiriart-Urrutik, lehenago aipatu dugun artikuluan⁹²². Lubakietako gerla ez aurrera ez atzera zegoen garaian, alemanak handik ez zituztela armen bidez haizatuko esplikatzen. Horren lortzeko, goseak atxiki behar zituztela gehitu zuen, eta janaririk ez bazitzairen heltzen, orduan joanen zirela.

Alemanek aliatuei bake eskaintza bat egin zietenean, Blaise Adémak haien baldintzetan egingen zen bakerik ezin zitekeela onar esplikatzen 1917ko urtarrilaren 5eko artikuluan⁹²³. Bakea eskatu ahal izaterainoko ahulezi hura janari faltarekin esplikatzen Adémak. Haren arabera, soldaduak eta tresnak bazituzten, baina Alemanian jendea kexu zen, jatekoa eskas baitzuten. Hiriart-Urrutiren iragarpena errealitate bihurtzen ari zela zirudien. Adémak 1915eko abenduan azpimarratu zuen alemanek ez zezaketela gehiago iraun⁹²⁴, eta arrazoia ez zen armamentuan bilatu behar.

Jean Etxeparek ere janarian jarri zuen gerla irabaztearen giltza, 1915eko urrian. Alemanak higitu behar zirela idatzi zuen, eta higitze hori janari gutxirekin gelditzeak eraginen zuela zehaztu zuen. Horretarako, itsasoko bideak moztu behar zirela esplikatzen. Baina ez zuen horretara mugatu bere analisisa. Bigarren osagai bat ere bazuen plan hark: Frantziak bere soldadu zaharrenak gerla tokietatik produkziara igorri behar zituen, Frantzian ez zedin janari eskasik izan. Gauzak horrela eginez, gerlaren bukaera laster izanen zela iragarri zuen⁹²⁵.

⁹²⁰ Jean Etxepare, «Nun elhorria», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.

⁹²¹ Jean Etxepare, «Itsas-untziez», *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 9a.

⁹²² Hiriart-Urruti, «Ezin jal araziak». 1915/9/3.

⁹²³ Adéma, «Bakeaz». 1918/1/18.

⁹²⁴ Elizalde, «Urthe on». 1918/1/4.

⁹²⁵ Etxepare, «Gerlaren iraupena II». 1915/12/10.

b) Frantzia eta Ingalaterra nagusi

Gerla hartan baliabide ekonomikoak izateak zeukan garrantziaz mintzatu zen Jean Etxepare ere. Gerla aitzinatu ahala, aliatuen eta Alemaniaren arteko baliabide ekonomikoak desberdinak zirela, eta alemanek baliabide gutxiago zutela esplikatu zuen, ekonomia gaiak ongi kontrolatzen zituela erakutsiz. Batetik, alemanak, kopuruz, aliatuak baino bi aldiz gutxiago zirela eta gainera diruaren balioa anitz galdu zutela azaldu zuen. Gerla hedatzen ari zela eta hori arazo zela aitortu zuen, bai eta ere Alemaniak, Bulgariarekin bat eginez, Serbia lehertu zuela, eta Turkia Asia eta Afrika hartu beharrez ari zela. Baina alemanen lagunak ahulak zirela eta errumaniarrek eta greziarrek ere leher eginen zutela iragarri zuen⁹²⁶.

Alemaniaren ahulezia ekonomikoaz mintzatu zen beste behin ere. Berez, baliabide ekonomikoak xuhurtu zitzaizkiola argitu zuen, eta horren gainera, baliabide horiek bere aliatuengana bideratu behar izan zituela:

*Hazkurri kasik osoa behar dakotelarik eman bertzalde, Autrixia ahulduari, Bulgariari, Turko herrestari.*⁹²⁷

Etxepare, Alemaniarentzat baino gogorrago izan zen Alemaniaren aliatuentzat, «herresta» adjektibo mespretxuzkoa erabiliz. Pertsona herrestak ez du deusetarako fundamenturik, miserablea da, eta maila horretan jarri zuen Turkia. Austriarentzat hitz eztiagoa erabili zuen, baina «ahuldua» zela aipatuz, indarrak galduak zituela erran nahi zuen.

Baina Alemaniak ere aukera batzuk bere alde zituela aitortu zuen, hala nola ohartaraziz Frantzia iparraldeko, Belgikako eta Errusia mendebaldeko lurak okupatuz, baliabide ekonomikoak lortzen zituela. Beste artikuluan batean, aldiz, Frantziaren portuak aski garatuak ez zirelako kezka agertu zuen. Halaber, laborariei laborantzako prezioak mugatzeko lege bat kritikatu zuen⁹²⁸. Horiek guztiak erranik, Ingalaterra eta Frantzia ekonomikoki nagusi zirela azpimarratu nahi izan zuen, lehentxeago aipatu dugun artikuluan⁹²⁹. Alemania ahul ikusteaz gainera, bere baliabideak Austria, Turkia eta Bulgariara bideratu behar izateak are gehiago ahultzen zuela eta Ingalaterra eta Frantzia beste gisan ere nagusi zirela ohartaraziz, gerla Aliatuen aldera itzultzen ari zela frogatu nahi izan zuen.

⁹²⁶ Jean Etxepare, «Nola geldituko», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 31a.

⁹²⁷ Jean Etxepare, «Frantziak hatsa luze», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 14a.

⁹²⁸ Jean Etxepare, «Bizia kario», *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 28a.

⁹²⁹ Etxepare, «Frantziak hatsa luze». 1916/1/14.

c) Urre biltzeko eskaera

Baliabide ekonomikoen arloan, nahiz eta Frantziaren egoera Alemaniarena baino hobea zela erraten ibili ziren, dena ez zela loriagarria ere aditzera eman zuten, eta hori, maiz. Eta Frantziako egoera ekonomikoari buruzko artikuluetan, berriak eman baino gehiago, jendeari dei egiten zieten. Jean Etxeparek, 1917an, Frantziako Gobernuak ogia murrizteko hartu zuen erabakia aipatu zuen: dirua aurrezteko beharrez, ogiaren murriztea eta beste irin mota batzuekin nahastea erabaki zuten. Etxepareren ustez ordu zen murrizketa hori egiteko, ez alemanei bezainbat, Frantzia ez zelakoan hain gaizki, baina hein bat murriztearen aldekoa zen⁹³⁰. Baina artikulua biziki zehatza eta teknikoa zen. Irakurleek dena ongi ulertzen ote zuten?

Gisa guzietz, halako azalpenak beharrezkoak ziren, murrizte erabakiak ez zirelako sekula errazak onarrarazteko. Funtsean, beste aste batez, Frantziako Gobernuak populazioarengan sor zitezkeen kezken zerbitzu bazueldako seinale gisa aurkeztu zuen ogia laborarietara erosi baino merkeago saltzea. Alabaina, Laborantzako ministroa «ikaran» omen zegoen jendea oldar zedin, bizia sobera kariatzen bazen. Baina Etxeparek segurtatu zuen jendea baturik zegoela⁹³¹.

Bestalde, zergak anitz igo zirela oroitarazi zuen, eta gerla bukatu ondoan ere igoko zirela iragarri, dena berreraiki beharko zelako:

Buruzagi xuxenak izanez, zer irabaziak ez litzazke bil gobernamentuak, Frantziaren onetan, bere eskupeko lanpidetarik beretarik: burdin-bide, tabako posta ala telegrafa, aduana, mia, oihan!

Hainbertze gizon alfer edo nagik kokatu izan da hoitan orai artio, bozetako goiti-beheitietarik lekora, non irabazi garbirik kasik deus ez baitzuten uzten Frantziari.⁹³²

Analisi sakona eta zehatza egin zuen artikulua hartan. Horrez gain, politikoki, ezkerrearen kritika eta eskuinaren propaganda aurki zitezkeen artikulua hartan, boterean ziren agintariei leporatu baitziren Frantziako egoera ez biziki ona izatea. Hala ere, zergen igotzeak eragin zezakeen kezken ezteitzeko, Alsazia Frantziara bilduz eta Alemaniari ezarriko zitzaizkion zigorren bidez, baliabide berriak izanen zituztela esplikatu zuen.

Frantziak diruaren beharra zuela behin eta berriz errepikatu zuen *Eskualduna*-k. Irakurleei beren dirua emateko dei egin zuen. Urre emateko deiak aski erregularrak ziren, eta urrea zenbaterik ematen zuten ere kontatzen zuen. Batean Manex Hiriart-Urrutik kontatu zuen «Español batzuk» urre biltzen ibili zirela, baina alemanei emateko. Ipar Euskal

⁹³⁰ Jean Etxepare, «Ogia», *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 2a.

⁹³¹ Jean Etxepare, «Makila bi buruetarik», *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 13a.

⁹³² Etxepare, «Budjeta». 1917/7/6.

Herriko batzuek eman bide zuten urrea, ordainez dirua interesekin itzultzen zitelako. Baina *Eskualduna*-k ohartarazi zien hori dirua galtzea zela. Horregatik, Frantziako Gobernutik urrea emateko deia heldu zela, eta hori dirua alemanei ematea baino hobea zela aipatu zuen. Baina, oro har, biziki urre guti zuten Iparraldeko anitzek urre hori eman izana goraiatu zuen⁹³³.

Dirua emateko deia buruz bi argudio erabiltzen zituzten: lehenik, Frantziak diru hori behar zuela eta herritarren eginbidea zela diru edo urre horren ematea. Soldaduek janaria eta armak behar zituztela, eta horretarako diru anitz bildu behar zela argudiatu zuten artikulu anitzetan. Bigarren argudioa dirua uzten zutenen interesekoa zen. Zergak emendatzea ezin zela aterabide ona izan, beraz Frantziako Gobernuak dirua %5eko interesarekin mailegatzeko zuela esplikatu zuten. Gisa hartan, dirua alfer zeukatenei diru hura Gobernuari emateko deia egin zuen Adémak⁹³⁴. Beste batean ere errepikatu zuen dirua prestatzea hobea zela, abisatuz etxean atxikitzen zen dirua galduko zutela⁹³⁵. Alderantziz, prestatuko zuten diruak «umeak» emanen zituela esplikatu zuen. Artikulu guztietan bi argudio horiek erabili zituzten diruaren ematea eskatzeko, batetik eginbeharra zela, bestetik dirua ematen zutenen interesetan izanen zela⁹³⁶. Oraino beste argudio pare bat ere eman zuten beste artikulu batean, urrea etxean atxikitzen zutenak urre horren ematera bultzatzeko: batetik, urre hori Espainiari emanaz balioa galduko zuela eta beraz hobea zela urre hori Frantziari ematea; eta bestetik, urrea etxean atxikiz gero, urte anitzentzat galduko zutela, gerlatik landa ez baitzen legezkoa izanen⁹³⁷. Eginbeharrari loturiko argudioak edota interes ekonomikoari lotutakoak ez baziren aski, urrea ematen zuten emazte baten aipamena egin zuen Adémak beste behin, eredu gisa aurkeztuz eta besteek ere horrela egin zezaten eskatuz⁹³⁸.

Artikulu horietan Baionako apezpikuak ere urrea emateko eskaera egiten zuela zehaztu zuten. apezpikuek eta elizgizonek diru biltze eskaerak eginez erakutsi zuten abertzaletasuna aztertu dute Philippe Fabasek eta Annette Beckerrek⁹³⁹. Alde horretatik, *Eskualduna*-koek ere gauza bera egitea ez zen batere harrigarri. Elizaren ildo ofiziala jarraitu baizik ez zuten egin.

⁹³³ Manex Hiriart-Urruti, «Urre biltzaileak», *Eskualduna*, 1915ko uztailearen 16a.

⁹³⁴ Blaise Adéma, «Gerlako dirua», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 3a.

⁹³⁵ Blaise Adéma, «Dirua», *Eskualduna*, 1916ko irailaren 29a.

⁹³⁶ Blaise Adéma, «Dirua», *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 30a.

⁹³⁷ Blaise Adéma, «Urhea», *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 19a.

⁹³⁸ Blaise Adéma, «Urhea», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 3a.

⁹³⁹ Becker, *La guerre et la foi. De la mort à la mémoire 1914-1930*, 37; Fabas, «Aspects de la vie religieuse dans le diocèse de Bayonne (1905-1965)», 169.

Baina egiten zituen deiak ez ziren horretara mugatzen. Dirua ez gastatzeko deia ere egiten zuen Adémak, gero dirua eskastuko zela abisatuz. Hain zuzen, batzuek dirua sobera gastatzen zutela eta gerlak dirua behar zuela ohartarazi zuen⁹⁴⁰.

Ororen buru, diruaren edo errearen ematearen dei errepikakorraren gibelean, gerlako inplikazioa ikusi behar da. Beti mezu bera zen: Frantziak dirua behar zuen gerla irabazteko. Eta gerla bukatzera zihoan garaietan, Adémak erabili zuen azken argudioa zen dirua eman behar zela, gerla irabazteko⁹⁴¹. Hots, diru beharrak islatzen zuen egoera ekonomiko txarraren edo ez biziki onaren gainetik, gerla irabaziko zutelako segurtamena agertzen zen beti, gerla irabazi ondoan dirua berreskuratuko zutela hitz emanez edo laster irabaziko zutela segurtatuz. Diruari buruzko artikulu kopurua aski handia izateak beste erranahi bat ere bazuen: gerla lekuetatik kanpo bizi zirenei ere beren parte-hartzea eskatzeko modu bat zen.

Ildo estrategikoaren aldetik begiratuz, *Eskualduna*-k eman zituen azalpenak baikorrak ziren, oro har. Lubakien teknika gerlaren luzarazle bazen ere, hori aukera paregabe gisa ikusi zuen Aliatuak beren armadak azkartzeko eta epe ertainera gerla irabazteko. Lurrean gauzak zail ikus bazitezkeen, astekari horrek itsasoaren garrantzia azpimarratu zuen, gerla itsasoan jokatuko zela ulertaraziz eta itsasoan Aliatuak nagusi zirela segurtatuz. Ekonomiaren aldetik ere, Alemania egoera txarragoan zegoela azpimarratu zuen. Baikor egoteko arrazoiak eman nahi izan zituzten euskal idazle horiek, estrategiaren alde horiek aipatzean.

C. Etsaigoa

Kalkulu politiko, diplomatiko edo estrategikoez harago, gerlak ezaugarri hotz horiek baino osagai beroagoak baditu. Gerla, gutxienez bi etsaien artean egiten da. Kasu honetan, *Eskualduna*-k etsaitzat zeuzkanak alemanak ziren, Frantzia Alemaniaren kontra zegoelako gerlan. Aitzineko bi ataletako gisa bateko arrazionalismotik urrunduko gara atal honetan, etsaiaz mintzatzea bihotzetik edo sabeletik heldu zen zerbait baitzen. Gai horrek presentzia konstantea zeukan *Eskualduna*-n eta beraz aztertu behar da.

⁹⁴⁰ Blaise Adéma, «Diru hori», *Eskualduna*, 1918ko irailaren 13a; Blaise Adéma, «Chuhurki», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 24a.

⁹⁴¹ Blaise Adéma, «Idek moltsak», *Eskualduna*, 1918ko urriaren 25a.

Etsaien arloan, alemanek zuten protagonismo nagusia astekariko lerroetan. Ikusiko dugu nola aipatzen zituzten alemanak eta Alemania, nolako deskribapenak egiten zituzten, hori bera gerlako jarrera baten erakusle zelako. Sail horretan gehiago sakonduz, arreta berezia jarriko dugu alemanak abere gisa definitzeko egiten zuten indarrean. Etsaien abere izaera azpimarratzen dituen etsaia hiltzeko gogoaren erakustera tarte txikia dago, eta hiltzeari buruzko aipamenak nola egiten zituzten ere aztertuko dugu.

I. Alemanen deskribapenak

Nola deskribatzen zituzten alemanak *Eskualduna*-ko zutabeetan? Idazlearen arabera aldatzen zen, baina ñabarduren gainetik, ikusiko dugu haien irudi txarra ematen zutela. Lehenik, Alemania bera eta alemanak nola aipatzen zituzten ikusiko dugu, zer informazio ematen zuten haiei buruz. Gero ikusiko dugu nola aipatu zuten alemanak gerlan nolakoak ziren eta nola jokatzeko zuten. Atal horretan ez ditugu gerlako gertakari guztiak sartuko, geroagoko utziko baititugu hainbat gertakari. Dena den, alemanak ez ziren frantsesek zituzten etsai bakarrak, eta *Eskualduna* austriarrez eta turkiarrez nola mintzo zen ere ikusiko dugu.

a) Alemania eta alemanak

Alemanei eta Alemaniari buruzko aipamenak ez ziren eskas *Eskualduna* astekarian. Haien presentzia biziki handia zen, artikuluko gehienetan agertzen baitzen alemanen aipu bat edo beste. Baina ondoko lerroetan bereziki alemanei edo Alemaniari buruzko artikuluko aztertuko ditugu. Batetik, gerla hasi eta laster, Jean Etxeparek alemanei buruzko hainbat deskribapen egin zituen. Artikulu batean, adibidez, alemanen hizkuntza deskribatu zuen aski zehazki⁹⁴², eta euskararekin konparatu. Ahoskera bortitza eta hiztegi aberatsa dutela azaldu zuen, eta deklinabide sistema ere aipatu zuen. Horrez gain, aleman batzuek frantsesa ikasi zutela ere aipatu zuen, konparaketa berezi batekin: argitu zuen gaskoiek euskara ikasi zuten bezala ikasi zutela frantsesa.

Beste artikuluko batean, Alemaniaren garapen ekonomikoa azaldu zuen, erranez Frantziarena baino hobea zela⁹⁴³. Artikulu horrekin, gainera, gerlaren ikuspegi ekonomikoa azaldu zuen, eta Frantzia Alemaniaren aberasteaz ez zela ohartu kritikatu. Dena den, ez zen

⁹⁴² Jean Etxepare, «Alemanak hurbiletik III», *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 6a.

⁹⁴³ Etxepare, «Alemanak hurbiletik V». 1914/11/13.

hori Etxeparek, alemanak aipatuz, Frantziari egin zion kritika bakarra. Alemanek Frantziako gizartea gibelera zihoala zioten, Etxeparek aipatu zuenez. Haren arabera, alemanek Frantziari leporatzen ziotena zen erlijioa bazter utzi izana⁹⁴⁴. Zati horretan ere Frantziari begirako kritika egin zuen Etxeparek, azken hamarkadetan Frantzia giristinoa desegiten ari zelakoan.

Etxepareren artikuluek sakontasun bat baldin bazuten, Jean Saint-Pierrek alemanek buruzko artikulua egiten zituenean, trufa eta ironia gehiago sendi zen. Batetik, Alemania aipatzean, gerlaren sustatzaileak zirela erraten zuen⁹⁴⁵, alemanek gerla nola justifikatzen zuten zehaztuz, baina ez zutela arrazoirik erantzunez.

Beste artikuluetan, alemanez trufatzen zen, indarririk ez zutela erranez. Adibidez, 1915eko otsaileko artikulua batean⁹⁴⁶, alemanek Parisen sartu nahi zutela baina ezin zutela idatzi zuen. Jatekoa eta erregaia xuhurtzen ari zitzaizkiela eta horregatik urduri zeudela kontatu zuen, ironia erabiliz, Paris arrautza bezala «klik» irentsi nahi zutela erran zuenean. Alemanak ez ziren Parisen sartu, baina aipatutako artikulua horretan ongi aztertu zuen alemanen ahulezia zein zen. Besterik da ea hark uste bezain ahul ziren ala ez, beste hiru urte iraun baitzuten gerlan. Baina gisa berean jokatu zuen etorriko ziren borrokak aipatzean ere, erranez alemanek ez zutela baliabiderik edo gizonik aski⁹⁴⁷. Beste artikulua bat trufaz eta ironiaz bete zen, Gilen II.aren urtebetetze ospakizunak aipatu zituenean:

Horra nun hameketakoa Frantsesek igorri dioten beren kanoiekin. Zer erauntsia! Ez dute goiz hartan gure aitzineko Aleman guziek beren bazkaria milikatu. Ea nun diren iragan urtheko oihera eta trufa hek, zilkoa beroturik ari baitziztaizkigun bertze aldetik "Frantsoss, kaput! Fainéants!"⁹⁴⁸

Alemaniko enperadorearen urtebetetze ospakizunaren egunean frantsesek sekulako zafraldia eman zieten azaldu zuen, baina bereziki, alemanek frantsesek egin trufak aipatu zituen, eta trufa haiei erantzun zien, etsaia mespretxatuz.

Alemanekiko mespretxuaren agerpenak orokorrak ziren. Stéphane Audoin-Rouzearen arabera, egunkariak alemanekiko ulerkortasunik ez zuten erakusten, alderantziz, etsaiari sinesgarritasuna kentzeko ahaleginak egiten zituzten⁹⁴⁹. Saint-Pierre eta Etxepareren adibide batzuk eman baditugu ere, jarrera hori etengabea zen *Eskualduna* astekarian, tesi honetan aipatzen ditugun beste edozein pasartetan agertzen den bezala. Eta

⁹⁴⁴ Etxepare, «Alemanak hurbiletik IV». 1914/11/13.

⁹⁴⁵ Saint-Pierre, «Zertako gerla?». 1915/12/24.

⁹⁴⁶ Jean Saint-Pierre, «Alamanen ezin egona», *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 19a.

⁹⁴⁷ Jean Saint-Pierre, «Soldadoen galde bat», *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 23a; Saint-Pierre, «Gizon eskasa». 1915/12/24.

⁹⁴⁸ Jean Saint-Pierre, «Gilamuren pesta», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 4a.

⁹⁴⁹ Audoin-Rouzeau, *A travers leurs journaux: 14-18, les combattants des tranchées*, 196.

nahiz eta bereziki militarren kontrako jarrera zen *Eskualduna*-ren eta gainerakoen artean ageri zen gogorra⁹⁵⁰, egunerokoan, alemanen kontrako arrazakeria agertzea ohikoa zen, besteak beste haien usainak goiti botarazten zuela erranez edo haien herrietako sorkuntzak gutxietsiz⁹⁵¹.

Alemanei buruzko hitz edo adjektibo soiletan mugatu gabe, etsai gisa jokatzearen beharra ongi erakutsi zuen anekdota bat aipatu behar genuke. Saint-Pierrek, 1915eko urtarrileko artikulu batean kontatu zuen alemanek halako su-eten bat proposatu zutela, bakoitzak bere hilak ehorzteko artean. Alemanak gezurtiak zirelakoan, hori ez sinesteko galdegin zien irakurleei. Horren gibelean ageri da ez zuela bi aldeen arteko adiskidetzarik nahi:

*Ez liteke horrengatik behar sinhetsi noiz nahi eta nun nahi gerthatzen direla gisa hortako solasaldiak. Ez behar ere: etsaiak adixkidetzen balire guduaren tokian, hanitzek ez lukete behar orduan bihotzik gehiago gerlako lan izigarriari buruz. Galduak litezke berak eta heiekin bertze frango.*⁹⁵²

Hots, gerla egitea etsaiaren hiltzea zen. Eta etsaiaren hiltzeko, adiskidantza edo harreman onak saihestu behar zirela idatzi zuen. Atal honetan ez dugu herraren elikatzerik ikusten, geroago landuko ditugun adibideen gisan. Baina gogoan hartuko dugu gerla egitea etsaia hiltzeko «bihotza» zela, hurrengo atalak lantzerakoan.

b) Alemanak gerlan

Alemanei buruzko deskribapen orokorrez gain, alemanek gerlan zein jarrera zuten aipatu zuten *Eskualduna* astekarikoek. Nola aipatu zuten jarrera hori? Arlo horretan ere Jean Etxepare izan zen argibide zehatzenak eman zituen. Alde batetik, alemanei buruz egin zuen lehen artikuluan, haien jantziak eta kaskoak deskribatu zituen, bereziki frantsesen jantziekin konparatuz⁹⁵³. Alemanen azpiegitura horiek frantsesenak baino hobeak zirela esplikatu zuen, zenbait orri lehenago aipatu dugun gisan. Alemanen armei buruzko xehetasun anitz agertu zen alemanen hizkuntzari buruzko artikuluan ere⁹⁵⁴.

Beste batean, aldiz, preso ziren soldadu alemanen deskribapen ona egin zuen. Zer jaten zuten, zer gustatzen zitzairen, nola tratatzen zituzten eta abar azaldu zuen. Haren arabera, frantses soldaduek aleman presoek ongi ematen zieten lo egiteko tokia eta janaria:

⁹⁵⁰ Ibid., 191.

⁹⁵¹ Jeissmann, *La patrie de l'ennemi, la notion de l'ennemi national et la représentation de la nation en Allemagne et en France de 1792 à 1918*, 304.

⁹⁵² Jean Saint-Pierre, «Hil ehorzte bat», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.

⁹⁵³ Etxepare, «Alemanak hurbiletik». 1914/10/23.

⁹⁵⁴ Etxepare, «Alemanak hurbiletik III». 1914/11/6.

bereziki barazkiak maite zituzten, ez hainbeste haragia. Alemanek ez zuten iritzi bera. *Alldeutsche Blätter* egunkari alemanaren arabera⁹⁵⁵, soldadu alemanek frantses presoak ongi tratatzen zituzten, eta Frantzian preso egon ziren soldadu alemanak goseak hilak itzultzen ziren: hots, alemanek Frantzia Afrikaren pare ezartzen zuten eta Alemania Europaren baitan kokatzen.

Ikuspegi desberdin horien gainera, Etxeparek alemanei buruzko alde onak ere aipatu zituen. Ospitalean preso bat hiltzen zitzaienean, nola eta zein ederki ehorzten zituzten kontatu zuen⁹⁵⁶. Deskribapen biziki neutroa zen, ez zen alemanen kontrako solasik, errespetuzko azalpenak ziren, bereziki ehorzketari buruzko hori. Horrek ez zuen deus ikustekorik *Eskualduna*-ko beste artikuluen tonuarekin. Baina hainbat kasutan agertu zen etsaiaren errespetu hori. Audoin-Rouzeauk aipatu du etsaia errespetatzeko joera bat bazela:

*L'ennemi est également respecté pour sa force, son courage, et pour le danger qu'il représente.*⁹⁵⁷

Gure kasuan, Etxepare litzateke errespetua hain argi agertzen zuena. Baina Aldudeko medikuak ez zuen jarrera finko eta koherente bat. Hainbat artikulutan, modu hotzean idazten zuen, irainik eta horrelakorik gabe, oraintxe aipatu bezala. Lehenbiziko borroketan zehar alemanek egindako kalteak aipatzen zituenean ere, ez zen beste batzuk bezain gogor mintzo. Alemanek, hasieran, frantsesak anitz gibelarazi zituztela eta kasik Pariseraino sartu zirela aitortu zuen. «Zer apaltzea guretzat! Zer gaztigual», idatzi zuen. Gerora, Marne-ko batailaren ondorioz, berriz aitzinatu ahal izan zirela gehitu zuen, baina anartean alemanek egin zauri handiak onartu zituen⁹⁵⁸, alorrak eta lantegiak suntsitu eta erre zituztela zehaztuz. Artikulu berean aipatu zuen Reims-eko katedrala xehatu zutela. Katedral horren aipua maiz agertu zen *Eskualduna* astekarian.

Aipatutako artikulu hori *Eskualduna*-ko beste anitz baino hotzagoa baldin bazen ere, alemanen kontrako hainbat solas bazituen Etxeparek. Batetik, gerla hastapenean egin zituzten sarraskiak kondenatu zituen. Gerla hasieraz espantuka ari zirela idatzi zuen⁹⁵⁹, baina salatu zuen ez zutela aitortu, haatik, zer «modu itsusian» sartu ziren, Belgika eta Luxenburgo «zangopean lehertuz». Etxeparek bi gisetara jokatu zuen, errespetu zerbait erakusten zuen batzuetan, baina alemanak gogor kritikatzeko zituen beste hainbatetan.

⁹⁵⁵ Jeissmann, *La patrie de l'ennemi, la notion de l'ennemi national et la représentation de la nation en Allemagne et en France de 1792 à 1918*.

⁹⁵⁶ Jean Etxepare, «Alemanak hurbiletik II», *Eskualduna*, 1914ko urriaren 30a.

⁹⁵⁷ Audoin-Rouzeau, *A travers leurs journaux: 14-18, les combattants des tranchées*, 193.

⁹⁵⁸ Jean Etxepare, «Alemanak hurbiletik VI», *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 27a.

⁹⁵⁹ Etxepare, «Alemanak hurbiletik III». 1914/11/6.

Gerlako jarrera zuzenaz gain, zeharkako zenbait jarrera ere kritikatu zituen *Eskualduna*-k. Blaise Adémaren lana izan zen zenbait gertakari alemanen bizkar jartzea. Batetik, alemanak Errusiako iraultzaren bultzatzaile izan zirela kritikatu zuen, eta Frantzian ere beste hainbeste egin nahi zuketela argitu⁹⁶⁰. Adémaren ustez, Alemaniak diru anitz igorri zuen Errusiara, Espainiara edo Suitzara, herrialde haietan frantsesen kontrako herra zabaltzeko asmoz. Errusiako iraultza ere Alemaniako diruak eragin zuela idatzi zuen.

Diru solas, frantses batzuk erostea ere leporatu zien alemanei Adémak. 1917ko agorrilaren 17an Miguel Almercyda *Bonnet Rouge* astekari anarkistako zuzendaria atxilotu zuten, leporatuz alemanek dirua ematen ziotela, bakearen aldeko mezuak zabal zituzten. *Eskualduna*-k anitz idatzi zuen afera hartaz, geroago ikusiko dugun bezala⁹⁶¹. Baina Adémak gertakari hura ere erabili zuen alemanek jendea erosten zutela justifikatzeko:

*Alamanek hainbertze diru barreiatu dute Frantzian gizon batzuen erosteko, eta, gizon hoieri esker, gure soldadoen lotsarazteko, bakearen nahiarekin asaldarazteko.*⁹⁶²

Baina gizonen erosteari buruzko beste solas batzuk ere izan zituen Jean Saint-Pierrek. Frantses batzuk salatari lanetan jarri zituzten, kontatu zuen berri honen arabera:

Alamanek bazter guzietan bazituzten beren gizonetarik, dirutan erosiak. Ororen berri bazakiten, guk baino hobeki. Hemen berean, gudu erdi erdian, laborari etxe bat bazen alemanen eta gure artean, gizon zahar bat han bizi bakarrik.

Egun guziez brigadier frantses bat sartzen ikusten zuten etxe hortan. Bertzalde, alemanen bolborak etxe hori bethi xutik uzten, berteak ez bezala. Azkenean gizon zaharrak tripan zer daukan ikusi dute frantsesek. Gure saltzen ari zen. Brigadier frantses hura aleman aintzindari bat zen, frantses arropan.

*Gizon traidorea herriko plazan tiroz garbitu dute hamabi soldadok. Hamabi balak bihotzean zituen, erdiz erdi. Etxean atzeman daizkote bi mila eta zazpi ehun libera.*⁹⁶³

Hots, artikulua horren arabera, alemanek jende xehea ere pagatzen zuten, informazioak eman ziezazkieten. Jendearen pagatzea ez zen inguruko herrialdeen jarreraren eragiteko bakarrik erabiltzen, ez eta ere Frantzian berean gerlaren kontrako mezuak zabaltzeko. Laburbilduz, *Eskualduna*-k alemanak kritikatzeko zituen baita gerla arloko gaietan ere. Hori ez da harrigarri. Aurkariak, gerla edo gatazka garaian, beti besteek gerla horretan egiten dutena kondenatzeko ohitura daukate. Hori gertatu zen Lehen Gerla Mundialean ere. Bi arlotan egin zuen astekariak kritika nagusia: gerlako krimenak batetik, eta beste herrialdeetako edo Frantziako jendearen laguntzaren erostea bestetik.

⁹⁶⁰ Blaise Adéma, «Dirua», *Eskualduna*, 1917ko irailaren 14a.

⁹⁶¹ Ikus: 639

⁹⁶² Blaise Adéma, «Ez ahantz», *Eskualduna*, 1917ko urriaren 12a.

⁹⁶³ Jean Saint-Pierre, «Laborari traidorea», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.

c) Beste etsaien gutxiestea

Alemaniak presentzia handia zuen *Eskualduna*-ko lerroetan. Baina Alemaniarekin batera aliatuen kontra gerlan ziren beste indarrak ere aipatu zituzten, gutxiago bada ere. Horietarik bat zen Turkia. Oro har, ez zen Turkiari buruzko artikulu espezifikorik agertu *Eskualduna* astekarian; herrialde horren aipamenak artikulu orokorragoetan aurki zitezkeen. Gehienetan, aliatuak aitzinatzen ari zirela edo aitzinamendu bat egitekotan zirela zioten artikuluetan agertzen zen Turkiaren aipamena. Adibidez, 1915eko martxoan⁹⁶⁴, ingelesak ia Belgikara helduak zirela, eta Aliatuak aitzinamendu orokorrak egiten ari zirela idatzi zuen Jean Saint-Pierrek. Aitzinamendu horien baitan kokatu zuen epe laburrean Turkiara heltzea eta laster itsaso eremu guztia Aliatuen esku bihurtzea. Beste batean, Turkiako hiri nagusia, Konstantinopla, ia hartua zutela aipatu zuen⁹⁶⁵: Saint-Pierrek esplikatu zuen alemanek urpeko ontziekin «berenak» egiten zituztela, baina lortzen zuten bakarria etsai berriak egitea zela eta ordu arteko etsaiak gehiago berotzea. Eta testuinguru hartan Turkiarenak egina zuela baieztatu zuen, 1915eko martxoan. Gisa bereko baieztapen gehiago egin zuen aste batzuen buruan, gerla bere orokortasunean hartuz: 1915eko apirilean azaldu zuen Alsazian mendi bat hartu zutela, Verdunen azkar ari zirela eta Turkiako hiriburua gero eta hurbilago zutela, errusiarrak ere beren aldetik ari zirelako⁹⁶⁶.

Artikulu horietan guztietan Turkia ahul eta garaierraz gisa aurkeztu zuen. Alemaniaren kontra ere aise irabaziko zutela iragartzen bazuten ere, *Eskualduna*-koek ez zuten dudan ezartzen estatu haren indarra. Turkiaren kasuan, bigarren mailako etsai gisa ikusten zuten. Baina ez hori bakarrik, arrazakeria garbia ere ageri zen zenbait testutan, besteak beste oraintxe aipatu dugunean:

*Horra beraz lagun berri batzu, Turko zikhin heien urkhatzeko lehenbailehen.*⁹⁶⁷

Saint-Pierrek turkiarrei buruz idatzi zuen hori bortitza zen. «Zikin» adjektiboak ez zuen erran nahi turkiarrak ez zirela garbiak, nahiz eta erranahi horren arabera ere irakur dezakegun hitz hori. Adjektibo horren gibelean gehiago ikusi behar dugu mespretxua eta gutxiestea batetik, eta turkiarrek eragiten zieten higuina bestetik.

Austria eta Hungaria ez zituzten anitz aipatzen. Behin, Saint-Pierrek espresuki aipatu zituen errateko gibelatzen ari zirela⁹⁶⁸. Beste behin esplikatu zuen errusiarrak zergatik hartu

⁹⁶⁴ Jean Saint-Pierre, «Obrak haste», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 19a.

⁹⁶⁵ Jean Saint-Pierre, «Urpez eta lurpez», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 12a.

⁹⁶⁶ Jean Saint-Pierre, «Gerla berri», *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 16a.

⁹⁶⁷ Ibid.

⁹⁶⁸ Jean Saint-Pierre, «Idiaren urhatsa», *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 25a.

nahi zuten Hungaria eskualdea, hala nola hura baitzen Austriako eskualde aberatsena, zaldiak hazteko ere behar zutena, eta handik ateratzen zirelako soldadu hoberenak⁹⁶⁹.

Grezia ere ez zuten modu biziki onean aipatzen. Ez zen gerlan sartu Aliatuen kontra, baina alde ere ez. Eta Blaise Adémak kritikak egin zituen hango erregearen kontra. 1915eko artikuluko batean⁹⁷⁰, Greziaren jarrerak aliatuen estrategian zuen garrantzia esplikatzeko, aliatuek Serbia lagundu nahi baitzuten eta horretarako Greziatik pasatu behar baitzuten. Adémak azpimarratu zuen Greziako jendea Aliatuen aldekoa zela, baina erregea ezetz, Alemaniako enperadorearen koinatua zenaz gero. Ingelesen eta frantsesen ontziak Grezian lurreratzeko baimenik ez zuen eman nahi, eta hori kritikatu zuen Adémak, gogora ekarriz, 90 urte lehenago, Grezia Frantziari eta Ingalaterrari esker bihurtu zela estatu independente, eta beraz, horren ordainez, soldaduak hara igortzeko eskubidea bazutela, Serbiaren laguntzeko.

Urte pare bat geroago, beste berri mota bat aipatu zuen Adémak, Greziaren harira. 1917ko ekainean, Greziako herriak hango erregea kargutik kendu zuela kontatu zuen⁹⁷¹: berriz ere oroitarazi zuen Greziako herritarrak Aliatuen aldekoak zirela, baina Konstantino erregea zela «etsai handiena». Egoera haren ondorioz, Aliatuen tropak urte bat eta erdiz geldirik zeudela esplikatu zuen, Greziaren oldarraren beldurrez. Azkenean erregea kanpo ezarri izanaz kontent agertu zen Adéma.

Greziari buruzko aipu horiek atal honetan sartu ditugu, erregea kanporatu arteko Greziari buruzko artikulukoak biziki kritikoak zirelako eta estatu hori ia etsaien lerroan jartzen zutelako. Dena den, erdizka baizik ez zuten jartzen etsaien lerroan, ongi azpimarratuz herritarrak ez zetozeela bat alemanekin. Gisa horretan, Greziaren balizko mehatxua gutxietsi nahi zuten, Austria-Hungariaren eta Turkiaren indarra gutxietsi zuten bezala.

2. Abere izaera

Eskualduna-ko artikulukoak irakurtzean, aski laster ohar gaitezke, gehienetan, alemanak aipatzerakoan abere gisa aurkezten zituztela. Alemanak abereen pare jartzea *Eskualduna*-ren berezitasuna zen ala zerbait orokorra zen ikusiko dugu. Horretarako, aztertuko dugu nola jartzen zituzten alemanak abereen lerroan, zer hitz eta konparaketa erabiltzen zuten horretarako. Gerlako gaietan, herritarrak alemanen kontra altxatzeko zabaltzen zituzten

⁹⁶⁹ Jean Saint-Pierre, «Hongria-ko bidean», *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 7a.

⁹⁷⁰ Blaise Adéma, «Grezia», *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 26a.

⁹⁷¹ Blaise Adéma, «Grezia», *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 29a.

gezurrak eta propagandak ere nola agertzen ziren barnatuko dugu. Azkenik, horrek guztiak beste helbururik ere bazuela ikusiko dugu, hain zuzen, *Eskualduna*-k alemanen kontrako herra nola elikatzen zuen aipatuko dugu, atal honen biribiltzeko.

a) Abereen lerroan jartzea

Alemanen kontrako hitzetan, presentzia handikoa zen abereekiko konparaketa. Ondoko lerroetan adibide adierazgarrienak aipatuko ditugu, baina alemanak abereen lerroan jartzeko joera biziki ohikoa zen *Eskualduna* astekarian. Gerla garaian, aski orokorra izan zen alemanei gizon izaera ukatzea. Alde batetik, alemanak barbaroekin konparatzen zituzten. Annette Beckerrek horrela azaldu du:

Pour l'essentiel des témoins français du conflit, la civilisation allemande se résume à la «kultur» de destruction. L'argument en est très simple: les «atrocités» allemandes en Belgique et dans le nord et l'est de la France occupée ne sont pas celles d'un peuple civilisé de l'Europe occidentale. Tout prouve leur appartenance aux peuples barbares que l'on situe entre Mongols et Vandales.⁹⁷²

Frantsesentzat Alemania ez zen herri zibilizatua, eta Henri Bergson filosofoak 1914ko agorrilaren 8an erran zuen Alemaniaren kontrako borroka zibilizazioak barbaroen kontra egiten zuena zela⁹⁷³. Giro horrek zinezko isla izan zuen *Eskualduna* astekarian. Ildo horretan, hara zer idatzi zuen Hiriart-Urrutik:

Izen bertsu eta izaite areagoko: 'alemankeria' eta 'alimalekeria'. [...] Nor non da ezen, bertze jendakiarik, non izan da ere holakorik egundaino, salbai hutsen demboran eta tokietan ere, Alemanian baizik?

Eta Alemanian berean ere noiz, herrialde hori girstinotu aitzinean, orai diren baino abreago, alimaleago, 'alemanago' alemanak, noiz dire izan? Egundaino ez. [...] zer nahasiak, zer gezurti kalapitari, bihurri higuigarriak diren alemanak! [...] Barne egosi ustel bat. [...] Aleman bakotchak dio: "Ni... Oro ni... Biba ni... Nor naiz ni?... Bethi ni... Bakarrik ni". [...] Bereaz baizik acholarik ez; bertzen zuzena, bertzen ona, bertzen bizia deus ez; urdekeriarik izigarrienek barnea ez kilikatzen den gutiena.⁹⁷⁴

Hiriart-Urrutik salbaien lerroan jarri zituen alemanak, «higuigarriak» bezalako irainezko hitzekin loturik. Baina hori baino urrunago joan zen, «alemankeria» hitza asmatuz, «alimalekeria» hitzaren itxura bertsea zuela idatziz. Etimologikoki justifikaziorik ez daukan hurbilketa horrekin irakurlea manipulatu nahi zuenik ezin dugu erran, ez baitzuen idatzi bi hitzek jatorri bera zutenik, baina hitz joko horrekin alemanak abereen pare ezarri zituen. Artikulu horretan berean azaldu zuen batzuek uste zutela 1870tik hara gizondua, jendetua edo zibilizatua zela. Iruzkin horretan argi ageri zen alemana ez zuela jende edo gizon gisa

⁹⁷² Becker, *La guerre et la foi. De la mort à la mémoire 1914-1930*, 18.

⁹⁷³ Lestocquoy, *Histoire du patriotisme en France. Des origines à nos jours*, 207.

⁹⁷⁴ Manex Hiriart-Urruti, «Alemankeriak», *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 7a.

kontsideratzen, eta alemana eta aberea sinonimo gisa ikusten zituela. Hain zuzen, *Eskualduna*-koak ez ziren mugatzen alemanak barbaro deitzera, hori baino urrunago joan zen Hiriart-Urruti, Alemaniako enperadorea eta haren semea «basa ihizi» gisa aurkeztuz⁹⁷⁵.

Lehenago aipatu dugun beste artikulu batean⁹⁷⁶, alemanak ihiziekin konparatu zituen: erran zuen janaria eskastuko zitzaielarik aterako zirela lubakietatik, ihizi bat bere zilotik ateratzearekin konparatuz. Artikulu hartan gerla ihiziarekin konparatu zuen Hiriart-Urrutik, eta frantsesak ziren ehiztariak eta alemanak ihiziak. Ihizia ongi errotua zen garai hartako gizartean, baserri munduan bereziki, François Cochetek esplikatu duen bezala⁹⁷⁷. Euskal Herrian ere horren erreferentzia ezagutzen zuten, beraz.

Alemanak abereen lerroan ezartzeko beste bide bat zen haien jokamoldeak «abrekeriak» bezala izendatzea. Hitz hori maiz aipatzen zen, baina adibide bat ekarri dugu ondoko lerroetara, Jean Saint-Pierrek idatzia, 1917ko martxoan⁹⁷⁸. Alemanen eraso baten mentura aipatu zuen. Artikulu hartan, alemanak abereekin konparatu zituen, abereen ezaugarriak adierazten zituzten hainbat hitz erabiliz, «aztaparrak» edo «ausikia» bezala. Alemanen atzaparrak edo ausikia aipatzea, alemanak abere edo ihizi gisa kontsideratzea zen, bi hitz horiek abereei lotzen zaizkielako.

Alemanak preso hartzeaz mintzo zen beste artikulu batean, aleman «ihiziaz» mintzo zen⁹⁷⁹, berriz ere ihizien lerroan sartuz. Bi urte geroago, 1917ko otsaileko artikulu batean, alemanak otsoarekin konparatu zituen:

*Otsoen gatik othe du bere izena hilabete berri hunek? Gure arbasoek bazakiten naski etsai hoi berri, elhurrak jauts arazten zituelarik oihan eta mendi zokhoetarik. Bi zangoetako otsoekin ditugu egungo egitekoak, ipharraldeko ordoki zabaletan. Jazko hatzetan ibili beharrak balin badira otsail huntan, berriz ikusiko ditugu azken oldarrari lotzen, haginak zorrotz. Ez ditu hotzak lotsatuko, ez eta elhurrak. Gauden beha, begiak erne, bihotzak azkar.*⁹⁸⁰

Artikulu horretan ere abere edo ihiziaren gorputz zatiak lotu zituen alemanekin, bereziki «haginak zorrotz» horrekin. Horrez gain, otsoek hotzaren eta elurraren parean irauteko duten gaitasunarekin parekatu zuen alemanen gaitasuna. Funtsean, froga garbiena «bi zangoetako otsoekin» daukagu, argi eta garbi alemanak «otso» izendatuz. Abereekin edo ihiziekin konparatuz baino gogorrago agertu zen otsoekin konparatuz. Alabaina, bildotsa

⁹⁷⁵ Lestocquoy, *Histoire du patriotisme en France. Des origines à nos jours*, 207.

⁹⁷⁶ Hiriart-Urruti, «Ezin jal araziak». 1915/9/3.

⁹⁷⁷ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 183.

⁹⁷⁸ Jean Saint-Pierre, «Bi ausiki», *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.

⁹⁷⁹ Jean Saint-Pierre, «Presuner aleman bat», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 24a.

⁹⁸⁰ Jean Saint-Pierre, «Otso hilabete», *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 9a.

ere aberea da, baina ez du otsoaren erranahi bera gizartearen baitan. Otsoa ihizi gaizto eta arriskutsu gisa ikusten zen.

Jean Etxepare bera ere antzeko terminologiaren erabiltzaile izan zen. Nahiz eta, oro har, testu hotzagoak idazten zituen alde horretatik, izaten zituen alemanen kontra beste batzuetan baino gogorrago idazten zuenaldiak. Beraz, salbuespen batzuetan, alemanen «aberekeriak» aipatu zituen, bereziki Londres bonbardatzeari buruzko artikuluan. Orduan, hiruzpalau aldiz errepikatu zuen, testu labur batean, «abre» edo «abrekeria»:

Iragan asteko bihozmin handienetarik bat dugu ukan Londresekoa: alemanen aeroplanak hiri horren gainerat heldu, eta gain behera burdinazko erauntsi izigarri bat aurdikiz, 537 jende kolpatu edo hil, erdiak baino gehiago emazte eta haur ttipi. Abrekeria. Daiteken abrekerietan itsusiena.

Ordainak emanez baizik ezin dezakegu ihardets. Emanen daizkoteгу ordainak, aleman abreer. Ez uste ukan hargatik, hainitzek nahi luketen bezala, horrela dugula laburtuko edo irabaziko gerla. Gu Frantsesak, hasteko, ez ginintazke ontsa hel bide hortaz.

Ezen gure sei departemenduetako jendea eskuetan dauka oraino etsaiak; eskuetan ere dauzka gure soldado bahituak. Eta hainbertzetaraino du barne beltza non, berak guri baino kalte gehiago egin baginezo berari, ahal hau baginu ere, abrekiago oraino bailitake mendeka, eta gure odolekoen beren gainean.

Ez, gosetetik ez bada, hunek lotsa berekin damala, ez dezakegu aeroplanekin, aipatu dugun aran, irabaz gerla hau. Bego azken hitza artilleriari, orok batean, Rusoak barne, Amerikanoak lauzkako, behar den iraupenarekin jo eta jo, emeki emeki xehatzen dugula eta lehertzen, ja gibelka abiatua dugun abrea.⁹⁸¹

Etxeparearentzat, alemanek egin zituzten bonbardaketak aberekeriak ziren, eta beste batzuetan, hori baino urrunago joan zen «aleman abreak» aipatuz. Beste artikuluan batean «ihizi higuingarriak» hitzekin izendatu zituen alemanak:

Beherago, amerikanoak aitzinatu dira halaber, hamar bat kilometraz Château-Thierryko hiria, inguru guzian garbitzen zutela, ihizi higuingarrietarik.⁹⁸²

Eskualduna-ren jarrera hori ez zen astekari horrena bakarrik. Orokorra zen. Nicolas Beaupré ongi esplikatzen du zer ulertu behar zen etsaia abere gisa definitze horren gibelean:

L'animalisation vient radicaliser encore l'image du barbare venu de l'au-delà des frontières spatiales et temporelles. Elle érige une autre barrière entre soi-même et l'ennemi. Alors que le barbare venait d'un au-delà dangereux pour l'humanité civilisée, l'animal est en deçà de l'humanité. A la frontière divisant l'espace franchi par le barbare, s'ajoute alors la frontière de l'espèce. L'évolution de ces images est elle-même tributaire des circonstances: à la guerre d'invasion et de mouvement sont associées les images de hordes barbares et, à la guerre des tranchées, celles des animaux comme les poux ou les rats.⁹⁸³

⁹⁸¹ Jean Etxepare, «Abrekeriak», *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 29a.

⁹⁸² Jean Etxepare, «Muthurrekoa», *Eskualduna*, 1918ko agorrilaren 2a.

⁹⁸³ Beaupré, *Ecrire en guerre, écrire la guerre. France-Allemagne 1914-1920*, 156.

Hots, etsaia abereen pare ezartzea ez zen zibilizaziotik kanpo kokatzera mugatzen. Abereak barbaroak baino are gutxiago ziren: ez ziren gizatasunaren heinera heltzen. Alemanak barbaroen lerroan ezartzea joera orokorra zen Frantzian, Michael Jeismannen arabera, baina bereziki Action Française mugimenduaren ingurukoak ziren gogorrenak, terminologia hori erabiltzerakoan⁹⁸⁴. Halaber, sozialisten eta nazionalisten artean ere ez zuten alemanen ikuspegi bera, Jean-Jacques Beckerren ustez:

*Pour les socialistes, les Allemands restaient des hommes, même s'il fallait les combattre. Pour les nationalistes, les Allemands, capables de toutes les vilénies, bassesses, cruautés, leurs artistes les plus illustres, même Beethoven, n'échappaient pas à cette dénonciation globale, n'étaient que les ennemis à abattre.*⁹⁸⁵

Azalpen horri jarraiki, ez da harrigarri *Eskualduna* astekaria hain gogor mintzatzea alemanen kontra. Ezkerrekoak zuhurrago agertu ziren bitartean, eskuinekoak eta giristinoak bortitz mintzatu ziren. Euskal Herriko astekari hori ildo horri jarraiki zitzaion.

b) Gezurrak eta propaganda

Funtsean, abereekiko konparaketak edo bestelako edozein irain propagandaren parte zela dio Sophie Branca-Rosoffek:

*[La propagande] est essentiellement constituée d'un lexique : le jeu des affrontements est notamment repérable dans les épithètes rhétoriques qui fonctionnent apparemment comme des condensés de slogans et dans les désignations qui permettent une démarcation radicale, soit que l'on cherche à enclore l'adversaire dans des formules injurieuses, soit que l'on s'auto-désigne comme groupe unifié. C'est surtout là qu'on attend le cliché.*⁹⁸⁶

Beraz, *Eskualduna*-k ere propaganda egiten zuen etsaiaren kontrako irain eta formula erretorikoak behin eta berriz errepikatzen zituenean. Baina propaganda ez zen horretara mugatzen. Abereekiko konparaketatik harago, alemanek egin zituztenak⁹⁸⁷ eta ez zituztenak salatu zituen *Eskualduna*-k. Horietatik ezagunenak Reims-eko katedralaren erretzea eta haurrei moztutako eskuena izan ziren. Lehenbizikoa, katedralarena, maiz aipatu zuen, zinez asaldaturik. Hiriart-Urrutik, apaiz gisa, bereziki hunkiturik aipatu zuen giristinoen ikurretariako bat zen katedral baten erretzea:

⁹⁸⁴ Jeissmann, *La patrie de l'ennemi, la notion de l'ennemi national et la représentation de la nation en Allemagne et en France de 1792 à 1918*, 300.

⁹⁸⁵ Becker, *La France en guerre 1914-1918. La grande mutation*, 33.

⁹⁸⁶ Sophie Branca-Rosoff, «Conventions d'écriture dans la correspondance des soldats», *Mots. Les langages du politique* 24 (1990): 21–36.

⁹⁸⁷ Alemanek egin zituzten gehiegikeriei buruz: John Horne eta Alan Kramer, *1914, les atrocités allemandes*, itzul. Hervé-Marie Benoît (Paris: Tallandier, 2005).

Hara non den lurrean, aleman asto tzar diren bezalakoeri gogoraturik, bertze abantail izpirik ez badute ere urdekeria hortarik jaliko, beren herra, beren bekaizgo, jelosia beltza hor haztea baizik.

Den gizonik barne tzarrekoenak norbeiti aiherr denean, kanibet sistako bat emanen dio gibeletik bizkarrera, edo bekaz beka bulharretara. Hilan du hots; ez du okhertuko; etzaio gogoratuko ere begitartearen histea, non ez duen egiten itsura zertaz nahi nola nahi jo eta uste gabetarik.

Ororen buruan gizon bakar bat, han edo hemen, aski mustro izaitea, holako lan tzar baten egiteko, paso; armada bat osoa, eta haren buruzagiak, nor gira gu, jaunen jaun direla uste... eta hek hoin basurde ?

Egundainotik begietan duten etsaia garhait ez badezakete, musuika behar bederen zikhindu, puskaturik ezarri haren edergailurik maitenak !

Jakin alabainan eta ezin jasan, bertzeak bertze, Reims-eko katredale famatua ez ginuela bakarrik gure lehengo langileak eta geroztik hunatekoak ere handizki ohoratzen zituen lan bat; bainan Frantziako; erresumaren hastapenezko, ba eta erljsionezko orhoitzapenik zaharrenak, bihotzean barnenik sarthu sendimenduak hor ginauzkala... ikusteak emaiten jelosia bat!...

«Nik oraikotik leher egin behar badut, hi ere, frantsesa, debruak ez baduk, geldi hadi hor zerbeit galdurik.»

[...]

Barbaroak, hitz horrek zer duen chuchen erran nahi etzakitenentzat, horra.⁹⁸⁸

Reims-eko katedrala 1914ko irailaren 4an bonbardatu zuten alemanek, eta are bonbardaketa gogorragoak egin zituzten haren kontra, hamar egun geroago, erre eta ia suntsiturik uzteraino. Gertakari hark oihartzun handia izan zuen Frantzian, eta Lehen Gerla Mundialeko historiaren atal aipatuetariko bat izan zen. Gertakari nagusi gisa aurkeztua izanik, *Eskualduna*-k ere gertakari handi gisa aipatu zuen, edozein frantsesek egin zuen gisan. Baina astekari horrek girstino gisa ere sentitu zuen bere burua erasotua Reims-en gertatuarekin, eta argudio sendo gisa erabili zuen alemanen kontra jotzeko. Artetik errateko, ohartaraz dezagun aztertzen ari garen artikulua horretan ere aberekin parekatu zituztela alemanak, «basurde» izendatuz edo haien «urdekeriak» aipatuz. Hori aski ez eta, «barbaroak» zirela ere idatzi zuten. Ondoko hilabete eta urteetan ere Reims-eko katedralaz mintzatu ziren, behin baino gehiagotan.

Reims-en gertatua nehork ez bazuen dudan ezartzen ahal ere, haien egiazkotasuna frogatzeko zailtasun gehiago zuten gertakariak ere ezarri zituzten alemanen bizkar. Baxenabarreko berriemaile batek hauxe kontatu zuen:

Ezin sinatsizko abrekeriak egiten daizkute omen aleman tzar hoiek, jendetasunaren urrinik den gutiena duten gerlatiarrek ez egitekoak.

Ez dire mintzo bakarrik frantses kazetak, bainan ba handik hunat jin soldado kolpatu gaizoak; beren begiz ikusiez mintzo direnean ez sinestekotz gure soldadoak, nor sinets?

⁹⁸⁸ Manex Hiriart-Urruti, «Elizarik ederrena», *Eskualduna*, 1914ko irailaren 25a.

Arren huna zer dioten: ikusi dituztela beren begiz alemanak gure kolpatu lurrerat erorien hiltzen, ez delarik egitate hori populu gizontasunik dutenen artean onetsia. Alegia uko, besoak goiti altchaturik hurbil gure ganat, eta giblean gorderik zauzkaten mitrailleuses batzuekin, gu erhauts. Urdeak!

Belgikanoen jauntzurekin beren buruak bezi, eta alegia gure adichkide hurbildurik, gure soldadoeri tiro.

Belgikan ala Frantzian zibilak eta oro hil : auzapez, apez, emazte, haur, eri ohatu ; etchetarik nork edo nork tiro tiratu diteke gezurra estakuru.

Estakuru gezurrezko beraz, 15 urtheko mutil gazte bati bi begiak lehertu.

Haur uken berri emazte bat oheari estekatu, haur gaichoa aldean, eta etcheari su eman.

Emazte haur hazle batzuri bulharra ezpata ukaldika moztu. Gizon dohakabe ihes zoazin batzuri, deus egin zutenez ere jakin gabe, eskuak moztu, edo besoak, gogora heldu zitzeien bezala.⁹⁸⁹

Hori idatzi zuenak ez zuen deus dudan ezartzen, iturria soldaduek berek osatzen zutenaz geroz. Alemanak abere edo barbaro deituz baino eragin handiagoa zuten horrelako xehetasunek edozeinen bihotzetan. Horrelakoak irakurri ondoan, nola ez ziren alemanen kontra altxatuko?

Baina dena egia ote zen? Hori besterik da. Esku mozteei buruzko solasak zabaldu zituen *Eskualduna*-k ere, eta ez gerlaren hastapenean bakarrik:

Aditu duzue nola muthiko ñimiño bat josteta ari zelarik, zurezko harma batekin giñatu zuen soldado alleman tropa bat, hil goorra aurdiki baitzuten bi tiroz, bere ama gaichoaren eskuetan. Aditu duzue ere nola 5 urtheko neskhatcha bati phikatu zaizkoten bi eskuak, zoinek baitzion azken hatsean. «Ama, ama, ez dira gehiago pusatuko.»

Bethi eta bethi haur maiteak behar zirezte orhoitu basakeria horietaz eta segitu herra bizienez, hoi en egile arraza madarikatua.⁹⁹⁰

Esku mozteen hori legenda zela argitu zen geroago, John Horne-k eta Alan Kramer-ek zehaztu duten bezala⁹⁹¹. Haatik, alemanek gerla hastapenean hainbat eraso bortitz egin zituztela baieztatu du Jose Ramon Cuberok:

Obsédé par la nécessité de développer rapidement son mouvement tournant à travers la Belgique pour envelopper l'aile gauche du corps de bataille français, il se livre à des représailles, perpétrant des exécutions de civils particulièrement nombreuses pendant que les troupes, ivres de fatigue mais portées par l'exaltation de la victoire, se livrent à de nombreuses exactions: incendies, pillages, viols. De plus, l'incendie de la célèbre bibliothèque universitaire de Louvain et, en France, le bombardement de la cathédrale de Reims sans raisons militaires frappent violemment les esprits pendant que les réfugiés répandent la légende – fausse comme toute légende – des enfants aux mains coupées.⁹⁹²

John Hornek dion gisan, alemanek Belgika eta Frantziaren zati bat inbaditu zutenean, 6.000 zibil baino gehiago hil zituzten eta milaka eraikin erre. Horrek berak indartu zuen

⁹⁸⁹ «Etsaiaren abrekeriak», *Eskualduna*, 1914ko irailaren 11.

⁹⁹⁰ P. D., «Minhartueri zor dugun errespetua», *Eskualduna*, 1918ko ekainaren 14a.

⁹⁹¹ Horne eta Kramer, 1914, *les atrocités allemandes*, 238.

⁹⁹² Cubero, *La grande guerre et l'arrière: (1914-1919)*, 174.

zibilizazioa barbaroen kontra gerlan ari zelako ustea, Horneren arabera⁹⁹³. Hornek eta Kramerrek bereziki azpimarratu dute garrantzitsuena zela egunkariak gertakari horien gainean lantzen zuten erretorika:

*En réalité, bien sûr, les journaux y ajoutent une rhétorique éditoriale puissante. C'est le second facteur à l'œuvre dans la construction journalistique des «atrocités allemandes», et c'est probablement le plus important. Car l'information incomplète ne limite en rien des jugements moraux absolus.*⁹⁹⁴

Gertakari horiek aipatzean, irakurleek alemanak barbaroekin nahasten zituztela dio Jeissmannek⁹⁹⁵. *Eskualduna* ere gertakari horien zabaltzen ibili zen, dena egia bezala aurkeztuz, nahiz eta dena ez egia izan. Baina ezin diogu *Eskualduna*-ri leporatu jakinaren gainean gezurra erratea, baizik eta zabaltzen ziren zurrumurruek egiazat jotzea. Dena den, soldaduek propaganda haren baitan ez zuten gehiago fede handirik, hilabete batzuk iragan ondoan⁹⁹⁶. Guri interesatzen zaigun kasuan, ordea, irakurleak ez ziren hainbeste soldaduak, baizik eta Euskal Herrian zeudenak, eta haiek ez zuten beren begiz ikusten zer gertatzen zen eta zer ez.

c) Herraren elikatzea

Propaganda horren eta alemanak abereen lerroan jartzearen helburu nagusia, aitzineko orrialdean agertu dugun pasartean ageri den bezala, herra bizia atxikitzea zen. Irakur berriz, lerro batzuk gorago, «segitu herra bizienaz» eskaera. *Eskualduna*-k berak aipatu zuen herra. Herra orokorra zen, Frantziako klase sozial guztietara zabaldua zen alemanen kontrako aiherkunde gogor hura, Annette Beckerren arabera:

*Des sommets intellectuels de la France aux lettres venues des milieux les plus humbles, on trouve la plupart du temps un esprit de haine, voire d'injure, tout un vocabulaire destiné à qualifier le néant apporté par les Allemands.*⁹⁹⁷

Eskualduna ere berdintsu mintzo zen alemanez, herra eta irainak zabalduz. Astekari horrek bezala gainerakoek ere aipatu zituzten alemanek Frantzia iparraldean eta Belgikan egin sarraskiak. Gerla hasi eta lehen asteetan giroa bero-bero zegoela, errazagoa zen horrelako gertakariak aipatuz herra zabaltzea, baina gerla ohitura bihurtu zenean, asetze bat

⁹⁹³ John Horne, «L'invasion de 1914 dans la mémoire», in *Traces de 14-18, actes du colloque international tenu à Carcassonne du 24 au 27 avril 1996*, ed. Sylvie Caucanas eta Rémy Cazals (Carcassonne: Les Audois, 1997), 115–126.

⁹⁹⁴ Horne eta Kramer, *1914, les atrocités allemandes*, 235.

⁹⁹⁵ Jeissmann, *La patrie de l'ennemi, la notion de l'ennemi national et la représentation de la nation en Allemagne et en France de 1792 à 1918*.

⁹⁹⁶ Branca-Rosoff, «Conventions d'écriture dans la correspondance des soldats».

⁹⁹⁷ Becker, *La guerre et la foi. De la mort à la mémoire 1914-1930*, 20.

gerta zitekeenean, Reims-eko katedralean gertatua gogora ekarri zuten, alemanen kontrako herra ez eztizeko⁹⁹⁸.

Cuberoren azterketari jarraituz, herra horren zabaltzea ez zen lehen asteetakoa izan. Haren arabera, lehen egun eta asteetan, soldaduek alemanak ez zituzten aipatzen hitz iraingarriz edo abereekin lotuak ziren terminoekin, baizik eta beren egiazko izenez, alegia, «aleman» deitzen zituzten⁹⁹⁹. Jean-Norton Cru urrunago doa. Soldaduen baitan zegoen ustezko herra ez zela hain handia dio:

On parle de la haine du poilu pour l'adversaire parce qu'en effet la haine est un élément essentiel du combat singulier. [...] Mais des raisons qui expliquent haine, colère ou fureur dans ces luttes d'animaux ou d'hommes, aucune ne subsiste au front où l'adversaire reste invisible, où individuellement il ne vous menace pas de sa personne, enfin et surtout, où l'on sait qu'il est un pauvre diable aussi torturé d'angoisse que soi. Cette absence de haine est confirmée par de multiples citations que l'on trouvera dans Témoins.¹⁰⁰⁰

Herra nabarmenago izan zitekeen gerlaren hastapenean, baina lubakietan sartu zirenez geroz, bazterrak lasaitu ziren. Hori da soldaduen arloa. *Eskualduna*-n idazten zutenen partetik, Jean Saint-Pierre oro har gogorragoa zen alemanen kontra, Jean Elizalde eta Jean Etxepare baino. Baina bi horiek ere erakusten zuten, zenbait aldiz, alemanen kontrako aiherkunde bizia. Aiherkunde horren presentzia gertakarien arabera handiagotzen edo txikiagotzen zen. Herra solas, artikulu gogorragoak aurkitu ditugu Baionatik idazten zuten Hiriart-Urrutiren eta Adémaren baitan. Eta hori ere ez da hain harrigarri, Audoin-Rouzeau-k dioenari kasu egiten badiogu, hark baitio herra ikusgarriena ez zela lehen lerroetako soldaduen artean sendi, baizik eta frontetik urrunago:

En revanche, il est exact que ce n'est pas aux premières lignes que la haine fut le plus visible: au front, de multiples et changeantes images de l'ennemi cohabitent en un dégradé complexe, allant de la conscience d'une misère commune à l'hostilité ouverte.¹⁰⁰¹

Frontean zirenen aldetik herraren agerraldi aldakorra nabaritu dugu. Astekarian ere nabari da, Audoin-Rouzeau-k aipatzen duen «bortizkeria ideologikoa».

⁹⁹⁸ Ibid., 22.

⁹⁹⁹ Cubero, *La grande guerre et l'arrière: (1914-1919)*, 174.

¹⁰⁰⁰ Cru, *Du témoignage*, 109.

¹⁰⁰¹ Stéphane Audoin-Rouzeau, «Historiographie et histoire culturelle du Premier Conflit mondial. Une nouvelle approche par la culture de guerre?», in *La grande guerre 1914-1918, 80 ans d'historiographie et de représentations (colloque international - Montpellier 20-21 novembre 1998)* (Montpellier: Université Paul Valéry - Montpellier III (E.S.I.D.), 2002), 323–337.

3. Etsaia hiltzeko gogo

Hurrengo orrialdeetan ikusiko dugun bezala, orain landuko dugun atalak lotura zuzena du aitzinetik aipatu dugunarekin. Alemanak abereen lerroan ezartzeak eta haien kontrako herra elikatzeak ondorio zuzen bat izan zuen, eta horretaz izanen dugu solasa orain. Gerlaren osagai gordinena heriotza zen. Heriotza bi aldeetako izan zitekeen, etsaiarena edo norberarena. Oraingoan etsaiaren heriotzaz ariko gara. Nola aipatzen zuen *Eskualduna*-k alemanen heriotza? Nola agertzen zen etsaiak hiltzeko gogo? Eta nola lotzen zen abere izaera hiltzeko plazerarekin? Horiek landuko ditugu ondoko lerroetan.

a) Hiltzearen aipamena

Hainbat artikulutan agertu zen hiltzeko ekintza bera. Egia erran, *Eskualduna*-ko berriemaileen kroniketan ez zen ikaragarriko presentzia zuen gai bat. Gerlako ekintzak berak baino gehiago aipatzen ziren geroago ikusiko ditugun bizi baldintzak eta kezkek. Baina hiltzearen goraiapatze batzuk aurkitu ditugu. Eta bereziki Jean Saint-Pierre zen gai hori aipatu zuena. Behin, marokoar zauritu batek aleman anitz hil zuela kontatu zuen Saint-Pierrerek, azaleko artikuluan batean¹⁰⁰². Modu anekdotikoan kontatu gai horretaz harago, etsaien hiltzea nola goraiapatzen zuen aztertzea da. Hona 1916ko martxoan idatzi zuena:

Gure aldi orakoan Aleman ihiziaren atzemaiteko.

Gure ezkerrean egin baitzuten gau batez jokoño bat, eta zonbeit gizon zakuan sartu, beha ginauden noiz eginen ginuen kito edo dobla.

[...] Jin ziren Alemanak. Etzen jostetarik, ez baitziren usaian bezala ahurtara bat gizon; bizpalauen orde berrogoi ta hamar!

Hobe! Hobe! Cho! Bego acheria, haizatu gabe... Hanbertzenarekin erauntsi bat izigarria bizkar hezurren gainera jausten zaiote, gure kanoiek igorria... Etzen bat eskapatu bizirik.

Emak hor, hogoi ta hamalau! Joko tcharra dute hor etsaiek!¹⁰⁰³

Harridurazko esaldiz beteriko pasarte horretan etsaia hiltzearen plazera islatzen da. Azpimarragarria da zenbat eta aleman gehiago izan parean eta orduan eta poz handiagoa agertu zuela, are gehiago hiltzeko aukera zutelako. Etsaien hiltzea josteta bat edo pilota partida bat bezala aurkeztu zuen, «emak hor» gisako hitzekin. Deigarria da ekintza hain gogor eta bortitza zein modu arinean aipatu zuen.

¹⁰⁰² Jean Saint-Pierre, «Marokano baten lana», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.

¹⁰⁰³ Jean Saint-Pierre, «Sare kolpe bat», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 24a.

sont une toute petite minorité, mais une approche globale ne permet pas d'affiner l'analyse. Pour aller plus loin, il faut s'interroger sur les circonstances et sur les personnalités.

La première limite à la brutalisation tient à la nature même d'une guerre industrielle où l'artillerie joue un rôle déterminant. Si la grande majorité des soldats du front occidental n'ont pas tué au sens de Norton Cru, c'est d'abord que les occasions de le faire n'étaient pas si fréquentes.¹⁰⁰⁸

Hain zuzen, sarraski handienak artilleriaren ondorioz gertatu ziren, hil gehienak bonben azpian gertatu ziren, tiroen azpian baino gehiago. Azalpen horien ondotik, hobeki ulertzen dugu alemanen hiltzeari buruzko aipuak ez hainbeste izatea, zuzen-zuzenean hiltzea ez baitzen hainbestetan gertatzen. Saint-Pierreren kasuan ere, aipatzen zituen kasuak bigarren eskukoak ziren, norbaitek kontatuak. Bere begiz ikusitako gisa horretako eszenarik ez zuen kontatzen, baizik eta batzuekin eta besteekin mintzatuz jakiten zituenak. Gisa horretan, Saint-Pierre, Elizalde eta Etxeparek gutxi ikusi bide zituzten zuzenean tiroz hiltzen.

b) Hiltzeko plazera

Erlatibizatze hori eginik, etsaia hiltzeko plazera ere agertzen zen, hala ere, *Eskualduna* astekarian. Kasu honetan ere Jean Saint-Pierreren luma da ikusi duguna. Baina *Zerbitzari* ere ez zen aparte gelditu: gerla hasi eta laster idatzi zuen milaka aleman hiltzen zituztela, baina ez nahi bezainbat¹⁰⁰⁹. Saint-Pierreren artikulu batzuk irakurriz, zenbait aldiz agertzen da, hiltzea ez zela soilik gerlak eskatzen zuen zerbait, baizik eta soldaduek hiltzen ere plazer hartzen zutela. Oraintxe aipatu dugun anekdota batean kontatu zuen euskal soldadu batek zioela ez zuela nahi bezainbat aleman hil¹⁰¹⁰. François Cochetek baieztatu du hiltzeko plazera gertatu zela:

Il faut bien reconnaître, [...] que le plaisir de tuer existe. Il s'articule, notamment, sur l'excitation qui prévaut au moment de certains combats, surtout lorsqu'il s'agit de repousser l'adversaire. [...] L'assaut de l'ennemi réveille sans doute de vieux réflexes enfouis chez l'être humain depuis le paléolithique. Celui qui attaque mérite de mourir. La présence du danger immédiat rend nécessaire la rapidité de réaction. Il faut «tirer dans le tas» afin de n'être pas tué soi-même.

Baina Saint-Pierre ez zen arlo horretara mugatu: alemanen hiltzea ihiziarekin parekatu zuen. Bada beste artikulu bat, hiltzen ziren etsaien orroak sortzen zuen plazera aipatzen baitzuen:

¹⁰⁰⁸ Antoine Prost, «Les limites de la brutalisation: tuer sur le front occidental, 1914-1918», *Vingtième Siècle* 81 (2004ko urtarrila-martxoa): 5–20.

¹⁰⁰⁹ Elizalde, «Frantzian gerla tokitik». 1914/10/16.

¹⁰¹⁰ Saint-Pierre, «Enea hilen diat». 1915/2/12.

*Horra nun gure kanoi ttipaki betbetan marrumaz hasten diren, aho betheka, erauntsi bat izigarria toki onerat igorritz, itzea bezen chuchen. Han ziren, han, gure gizonak! Zer orroak! Zer deiadarrak!*¹⁰¹¹

Hots entzumenaren zentzua sartu zuen hiltzearen arloan. Orroa sufrimenduarekin lotzen da, eta etsai bat gutxiago izateak baino gehiago etsaiak hiltzean jasaten zuen sufrimendua ederrestea bereziki bortitza zen. Etsaia aberearekin lotzeko ahaleginarekin jarraituz, ohar gaitetzke «orroa», ontsalaz, abereek edo ihiziek egiten dutela, jendeek baino gehiago, nahiz eta «orroa» gizakiaren oihuari ere erraten zaion.

Beraz, etsaiaren hiltzeak eragin zezakeen plazer hori abereekin lerrokatze horrekin lotu behar da. François Cochetek dioen bezala, etsaia abereen lerroan jartzea aspaldiko ohitura zen:

*L'animalisation de l'adversaire est un vieux procédé, y compris dans les moyens mis en œuvre pour le tuer.*¹⁰¹²

Abere baten hiltzeak ez zuen izaera larririk, eta beraz, etsaia abere gisa aurkezteak haren hiltzearen karga arintzeko balio zuen. Ez da gauza bera «hamar gizon hil ditut» idaztea espantu eginez eta hori balentria gisa aurkeztuz, edo «hamar otso salbai hil ditut» erratea. Orogen buru, etsaiari gizatasuna kentzean ez zen bakarrik etsaiaren kontrako propaganda ageri. Helburua ez zen bakarrik jendea etsai haren kontra altxatzea, baizik eta gerlako ekintza bortitzenak – hiltzea – kontzientzian kezkarik gabe egin edo justifikatu ahal izatea. Hain zuzen, Prosten arabera, ez da egia soldadu guztiak pozten zirela etsai bat hiltzean:

Le soldat qui tue ne devient pas pour autant une brute. Le meurtre s'accompagne très souvent d'un sentiment de culpabilité qui témoigne du respect profond de l'interdit.

[...]

A brutalisation définie par la levée de l'interdit de tuer et la libération des instincts meurtriers n'a pu concerner qu'une très petite minorité.

*Il convient, de toute façon, de renoncer aux affirmations de portée trop générale sur «les poilus». Ils ne constituent pas un bloc homogène. Les comportements individuels, les attitudes morales, l'affectivité sont divers. On compte parmi eux des tueurs, dont certains ont même pris plaisir à tuer.*¹⁰¹³

Etsaia abereen pare jartzeak ere bazuen bere partea errealtate horretan. Beauprék dioen bezala, etsaia abere edo arratoi gisa aurkeztuz, hiltzea justifikatzen zuten, erranez arratoiak «eliminatu» behar zirela, abere «kaltegarriak» zirelakoan. Aberearekin lotzea bezala, gizatasuna kentzearen parte ziren «barbaro» eta «boche» hitzak, adibidez:

¹⁰¹¹ Jean Saint-Pierre, «Mendekioa», *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 16a.

¹⁰¹² Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 221.

¹⁰¹³ Prost, «Les limites de la brutalisation: tuer sur le front occidental, 1914-1918».

Des expressions telles que «hordes barbares», «Huns», «Teutons» et autres «Germain» faisaient office de leitmotiv, tout comme l'emploi de «Boche». Toutes désignent un être extérieur à l'humanité civilisée avec qui on ne négocie pas. Il ne demeure qu'une seule alternative: l'éliminer ou être soi-même éliminé ou réduit en esclavage dans un rapport de domination négateur de sa propre humanité. Il n'est donc qu'une seule solution: le combattre.¹⁰¹⁴

Eskualduna-k ere «boche» hitza maiz erabili zuen alemanen izendatzeko. Beaupréren eta Fabrice d'Almeida eta Christian Delporteren azalpenei jarraiki, «boche» deitze hori gizatasuna kentzearen parte izanez, abereekin lotzearen baitan kokatzen dugu. Helburua beti bera zen: humanoa ez zen hori, abere hori suntsitu edo kendu behar zela ulertaraztea, baina d'Almeidak eta Delportek diote jarrera hori ez zela frantsesena bakarrik, Alemaniako egunkariak ere gizatasuna kentzen zuten gisa bereko terminoak erabiltzen zituzten:

Dans la presse comme dans les conversations, le mot «boche» est d'un emploi courant. L'étymologie que l'on donne alors du mot dit assez le dégoût qu'il doit inspirer: «un abcès répugnant», «une maladie infectieuse» (La Gazette de France, 22 août 1915). Comment mieux éliminer cette infection que par l'amputation?¹⁰¹⁵

Almeyda eta Delportek diote garai hartan «boche» hitzari ematen zioten azalpen etimologikoa «atses edo zorne nazkagarri» zela. Zehaztu behar da, ordea, Trésor de la Langue Française-ren arabera¹⁰¹⁶, «boche» hitzak «buru» erran nahi zuela XIX. mende erdialdean, «caboché» hitzetik etorririk. XIX. mende bukaeran erabili zuten hitz hori alemanak izendatzeko. Hori zehazturik, ikusiz hitzari zer adiera ematen zioten eta alemanez nola mintzo ziren, harritu behar ote dugu Jean Saint-Pierreren esaldi hau irakurriz?

Guk alemanekin ditugu gure egitekoak. Lan borhitzena, zailago delakotz alemana, zorria bezala gure lurrari lothurik ez baitu naski tokia hustuko leher egin artio.¹⁰¹⁷

Esaldi horretan, alemanak zorriekin parekatu zituen. Azeri, otso eta abere gisa izendatu ondoan, zorri gisa aipatzea beste urrats bat zen. Otsoa ihizi beldurgarri eta arriskutsua zen, eta hitz harekin alemanen gehiegikeriak salatu nahi zituzten. Zorriarekin konparatuz, suntsitu beharreko zomorro okaztagarri gisa aurkeztu zituzten alemanak. Saint-Pierreren aipu horrek ez du erran nahi konparaketa ohikoa eta maiz errepikatua zenik, baina etsaiaren gutxiesteko joera eta hiltzea justifikatzeko modua islatzen zuen. Zorriaren aipuekin, hiltzea bera ez zen hiltzea. Hiltzeko ekintzak are garrantzi gehiago galtzen zuen. Garbiketaren itxura gehiago hartzen zuen.

¹⁰¹⁴ Beaupré, *Ecrire en guerre, écrire la guerre. France-Allemagne 1914-1920*, 154.

¹⁰¹⁵ Almeida (d') eta Delporte, *Histoire des médias en France: de la Grande Guerre à nos jours*, 26.

¹⁰¹⁶ atilf.atilf.fr

¹⁰¹⁷ Saint-Pierre, «Idiaren urhatsa». 1916/8/25.

Eskualduna-k gerlaren irakurketa politikoa egiterakoan, ildo bat biziki argi zuen, eta etengabe leial jarraitu zion: etsaia alemana zen eta ez zuen irabazteko aukera izpirik. Gerlaren iturburuez ez bazuten azalpen handirik eman ere, argi utzi nahi izan zuten erantzulea bat eta bakarra zela, hala nola Alemania. Horrela, estatu hori etsaiaren lerroan kokatu zuten hastapenetik. Gauza jakina da aitzineko hamarkadetatik ere etsai zirela Frantzia eta Alemania, beraz hor ez zen deus berririk; baina ongi azpimarratu zuen erasotzailea nor izan zen, eta beraz Frantziari erantzutea zegokiola.

Beraz, batetik, Frantzia zuzenean zegoela erakutsiz, gerla justifikatu zuen. Bestetik, irakurleei itxaropena eman nahi izan zien, gerlaren garaipena sekulan dudan ez ezarriz. Hastapenetik bukaeraraino, gerla uste baino luzeago eta zailago izanik ere, beti ohartarazi zuten gerla Aliatuek irabaziko zutela. Horregatik, ez zezaketen onar Alemaniaren mesederako izan zitekeen bakerik. Politikoki bezala, estrategikoki eta ekonomikoki ere, Aliatuak indartsuenak zirela erakutsi nahi zuten.

Gerlaren eta hilketen justifikatzeko beste bide bat ere erabili zuen *Eskualduna* astekariak, garai hartako giroaren baitan. Etsaiaren gizatasunaren ukapena eta alemanak abereen pare ezartzea haien heriotza justifikatzea zen. Etsaiak ez ziren gizon, barbaroak edo suntsitu beharreko abereak ziren, astekariaren hitzetan. Modu horretan ekintza bortitzenak sostengatzeaz gain, arrazoia Aliatuen aldean zegoela erakutsi nahi zuten. Irakurketa politiko horrek hiru zutabe zituen, beraz: gerla alemanek sustatu zuten eta beraz frantsesak eta gainerako aliatuak beren zuzenean zeuden; Aliatuak ziren indartsuenak eta beraz gerla irabazi arte egitea zen logikoena, beste aterabiderik ezin zen onartu; alemanak ez ziren gizon, beraz zibilizazioak abere edo barbaro haiek garbitu behar zituen. Gerla hiru bide horietatik justifikatuz inplikatu zen *Eskualduna*, politikoki, Lehen Gerla Mundialean.

II. GERTAKARIEN KONTAKIZUNA

Zirkulu zabaletik zirkulu hertsiago batera joanen gara orain, gerlaren ikuspegi orokorretatik gerlako gertakari espezifikoagoetara, alegia. Ministerioetatik aitzindari militar nagusietara jaitsi ondoan, gerla tokietara hurbiltzen hasiko gara. Alabaina, gerla gertakari dramatikozen josia zen gertakari handi bat zen. Dudarik gabe, gertakari horiek bazuten beren oihartzuna prentsan eta, nola ez, *Eskualduna* astekarian. Egunero gertatzen zen zerbait, astero trumilka informazio bazen kontatzeko. Guk ez ditugu denak xehe-xehea aipatuko, sobera luze litzatekeelako. Gainera, gehienak modu bertsuan aipatzen zituzten, horregatik, adibide batzuk aipatzera mugatuko gara, gertakarien aipatzeko moduaren isla gisa.

Gertakari zehatzekin hasi baino lehen, zehaztasunaren eta orokortasunaren artean dagoen gai bat aipatuko dugu, hala nola armen gaia. Ohartu gara astekarian armek presentzia handia zutela, ez baitezpada armei buruzko artikulu espezifikoak egiten zituztelako, baizik eta arma horiei buruz anitz mintzo zirelako. Zer azalpen ematen zuten arma horiez eta zer komentario egiten zuten aztertuko dugu lehen zati batean.

Gero, bai, gerlako gertakariak, hala nola borrokak, gehiago barnatuko ditugu. Hor ere, gertakari zehatz batzuk aipatuko baditugu ere, oro har guduak eta haien ondorio eta emaitzak nola aipatzen zituzten aztertuko dugu, hori ere jarreraren erakusle handia baitzen. Gainera, gerlak iraun zuen denbora guztian zehar, gisa hartako berriek presentzia handia izan zuten.

Gudu horien guztien ondorioz, sekulako kalte material eta humanoak izan ziren. Milaka lagun hil, desagertu edo zauritu ziren. Etxeak eta herriak suntsitu ziren, eta ondorio sozialak ez ziren gutxienekoak. Gerlaren ondorio horiek nola agertzen ziren ere interesgarri iruditu zaigu.

A. Armak

Gerlako tresna nagusia armak ziren, eta soldaduek ez zuten odola bakarrik isuri haien ondorioz, tinta anitz ere bai, haien berri emateko. Gisa orotako armez hainbeste aipu aurkitu dugu *Eskualduna*-ko idazleen artikuluetan, pentsatu baitugu atal berezi bat merezi duela armen gaiak. Hiru multzotan banatu ditugu arma horiek. Lehen multzoan ez ditugu armak sartu, baina armen lerroan kokatu ditugu, babesteko tresnak baitziren. Bigarren multzoan erasorako armak aztertuko ditugu. Azkenik, arma berriagoak nola aipatu zituzten ere begiratuko dugu.

I. Babesteko neurriak

Armak berak aipatzen hasi aitzin, erasoaren bestaldean izaten dena babeska edo ezkutua da. Babesteko neurriak ez zituzten armak bezainbat aipatu *Eskualduna* astekariko idazleek, baina Jean Etxeparek hainbat xehetasun eman zituen gerlako tokiak deskribatu zituenean, hala nola burdin harien bidez osatzen zituzten defentsa eta jantziak. Horiek aipatuko ditugu hurrengo lerroetan.

a) Burdin hariak

Posizio gerla indarrean jarri zenean, alde bakoitzak bere lubakiak eraiki zituen, eta horiekin paisaia bereziak agertu ziren. Gisa orotako armek presentzia handia bazuten ere, lehergailuetatik eta baletatik babesteko neurriek ere ez zuten presentzia txikiagoa. Lekuari izaera gogor eta bortitza ematen zioten horietako batzuek, hala nola burdin hariak edo, hobeki erran, burdin hari ziztadunek. Jean Saint-Pierrek, artikuluan, hitz ederra aurkitu zuen burdin hari horien izendatzeko: «burdin-elorria»:

Anglesek bizpahiru tokitarik hel-arazi zaizkiguten beren milesker hoberenak erreka berregindurik utzi giniozkatelakotz, askak garbi, azkar eta barna, aterbe onak, eta burdin-elhorrizko hesi ederrak.¹⁰¹⁸

Lubakien eraikitzeaz, berreraikitzeaz edo txukuntzeaz mintzo zen artikuluan horretan. Eta «burdin-elhorrizko hesi ederrak» aipatzean, babesteko hari horiek ederretsi zituen. «Hesi» hitzarekin ageri da babesaren ideia, eta «ederrak» adjektiboarekin babes neurri horren eraginkortasuna.

¹⁰¹⁸ Jean Saint-Pierre, «Geroaren beha», *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.

Jean Etxepare zehatzago izan zen, hainbat artikulutan, baina ez zuen Saint-Pierreren kutsu baikorra erabili. Burdin sareen funtzioa ongi esplikatzen zuten hainbat aldiz, erranez alemanek horrelako burdin sareekin babesten zituztela beren lerroak, eta horrek zailtasunak eragiten zituela. Lubakietan, maila ezberdinen arteko bereizte edo zatitzea egin zezaketen, burdin hariekin, Etxepareren azalpenen arabera. Baina horrek aliatuentzat zailtasunak eragiten zituela argitu zuen, burdin hari haien ondorioz ez baitzitezkeen nahi bezala aitzinatu, alemanak ongi babestuak izanik¹⁰¹⁹.

Bestetik, burdin sareen teknika mendiaren alde banatan nabari zela deskribatu zuen, frontearen inguruko paisaien itxura bat eskainiz. Horren arabera, lekuak irudika zitzakeen irakurleak, batzuen eta besteen lerroak burdin hariz babesturik. Baina teknika hura lehenago ere baliatua izan zela esplikatzen zuten¹⁰²⁰. Burdin hari horiek indar handia zutela ohartarazi zuen, babesteko tresna gaitza zelako. Baina Frantziako agintarici kritika zorrotza ere egin zien, burdin hariena beste gerla batzuetan ere erabilia izan zela baina horretaz ez zirela gogoratzen leporatuz. Etxepareren arabera, huts horrengatik lur batzuk galdu zituzten.

Burdin haria, beraz, babesteko tresna gisa aurkezteaz gain, etsaiaren indartze tresna gisa ere agertu zuten. Ez zuten anitz aipatu gai hori gerlako artikuluetan zehar, baina horren inguruko bi aldeak zehazteak bazuen interesa egoeraz hobeki jabetzeko. Horrez gain, irakurlea gerlara hurbiltzen zuten horrela, halako elementu zehatzak emanez.

b) Jantziak

Soldaduen jantziek ere zenbait aipamen izan zituzten, ez anitz, baina lerro batzuk eskaintzeko adina bai. Kasu horretan ere Jean Etxepare izan zen emankorra. Burdin hariekin bezala, jantzien aldetik ere frantsesen jarrera kritikatu zuen. Kritika horiek lehen ere aipatu ditugu, eta hain zuzen, janzkerari lotuak ziren batzuk baziren. Frantziako soldaduen jantziak ikusgarriak zirela idatzi zuen Etxeparek¹⁰²¹. Kritikaren gainetik, jantzien garrantzia ongi ulertzeko balio izan zuten azalpen haiek. Joel Rocafortek deskribapen zehatzagoak egin ditu¹⁰²². Diskrezioa beharrezkoa zela azaldu du, eta txapeleko kolorearen gainetik, oihalezko estalki ilun bat jartzen zuten, eta bizkar gainetik kapota bat, edozein arotan jantzi behar zutena, bero sapa baldin bazen ere.

¹⁰¹⁹ Jean Etxepare, «Alhorka», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.

¹⁰²⁰ Etxepare, «Urrikitan». 1916/2/4.

¹⁰²¹ Etxepare, «Alemanak hurbiletik». 1914/10/23.

¹⁰²² Rocafort, *Avant oubli: soldats et civils de la côte basque durant la grande guerre*, 14.

Etxeparek ematen zituen deskribapenak, ordea, funtzioari buruzkoak ziren. Eta zenbait arlotan, modu baikorrean aipatzen zituen frantsesen jantziak. Kaskoei buruzko atal batean azaldu zuen frantsesenak alemanenak baino hobeak zirela. Aleman preso bati kaskoa hartu ziotela kontatu zuen, artikulu batean. Kasko hura 3,5 kilokoa zela-eta, komentario hau egin zuen:

Gure soldadoak orro irriz, eskuetan harekin. Mandoaren burua behar omen luke gizonak eta zezenaren lepoa, halako baten oren bat baino gehiagoz jasaiteko.¹⁰²³

Hori erranik, alemanen ahulezia bat aitortu zuen, eta frantsesen kasko berriak hobeak zirela gehitu. Bestalde, artikulu hartan, bota berriak ere bazituztela jakinarazi zuen, baina haiek ez zirela hain onak aipatu zuen.

Oro har, lau urteko epean, soldaduen janzkeraz ez zuten xehetasun handirik eman *Eskualduna*-ko lerroetan. Orain aipatuak baino pixka bat gehiago izanagatik, ez zen arlo horretakoa izan astekariaren ekarpen handiena. Baina aipu bakar horiek ere bazuten beren interesa, irakurleek gertakarien irudi orokorragoa izan zezaten.

2. Erasorako armak

Gerla bortitza izan zen, ordu arte sekula gertatu ez bezala. Industrializazioak mende bat baino gehiago zeukan, eta armamentuan ere eragin handia izan zuen. Horregatik, gerla industrial gisa definitu izan zen Lehen Mundu Gerra. Armen indarra ere araberakoa zen. Hiru gisetakoak aipatuko ditugu hemen. Kanoiekin hasiko gara. Idazleek kanoiak nola deskribatzen zituzten eta zer iritzi zuten haietaz aipatuko dugu, bide batez zer ziren, nolakoak ziren, zer motakoak eta zer kalte egiten zuten jakiteko asmoz. Bonbardaketen harira, hegazkinak ere leku handia izan zuten gerlan, eta *Eskualduna*-ko idazleen gutunetan. Haiek zer oihartzun izan zuten azalduko dugu bigarrenik. Azkenik, metrailadoreak aipatuko ditugu, haien tiroek ere kalte handiak eragiten baitzituzten eta astekarian aipatzen baitzituzten.

a) Kanoiak

Gerlako kroniketan, dudarik gabe, lehergailuek leku handia izan zuten, Lehen Mundu Gerraren ezaugarri nagusietariko bat izan baitziren. Kalte handienak eta herio gehienak bonben leherketek eragiten zituzten, alde batean eta bestean. Lehergailuak mota

¹⁰²³ Jean Etxepare, «Soldadoaren onetan», *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 21a.

ezberdinetakoak ziren, eta gehien aipatu zirenak kanoiak eta «crapouillot» izeneko lehergailua ziren. Ez zituzten modu berean aipatzen bata edo bestea, soldaduek desberdintzen zituzten, Jean Elizalde *Zerbitzari*-ren kronika bat lekuko, zeinetan kanoiak ari zirela eta «crapouillots» delakoak isilik zeudela zehaztu zuen¹⁰²⁴. Ageri zen, gainera, batzuk besteak baino nahiago zituztela.

Jean Etxeparek pixka bat aipatu zituen kanoiak. Aipua baikorrak ziren. Frantsesen kanoiek egiten zituzten balentriak goraiatu zituen¹⁰²⁵. Kanoi solas, alemanek frantsesen lehen lerroen kontra oldarra nola egiten zuten azaldu zuen, baina frantsesen kanoiek ere min ematen zieten erranez biribildu zuen artikulua, kutsu baikorrarekin. Halaber, artilleria ere aipatu zuen, Verduneko gudutik landako lasaitasun giroan izaten ziren zenbait borroka mintzatzean¹⁰²⁶. Artikulu hartan erran zuen hura zegoen eskualdean, 1916ko apirilean egun gogor batzuk jasan zituztela, bost egunez zenbait hil ukan zituztela, baina horrek ez zuela deus ikustekorik Verduneko guduarekin. Artilleriak eragin zituen kalteak erlatibizatzeaz aparte, geroago sakonkiago aipatuko dugun Verdunekoaren gogortasuna aitortu zuen.

Kanoiak beste gisa batzuek ere aipatu zituen, aldiz, Jules Moulier *Oxobi*-k. Alde batetik, urruntasun zerbait nabari zen haren aipamenetan, pare bat aldiz ihurtzuri edo trumoiekin konparatu baitzituen:

*Bazterrak berotzen hasiak dire. Ez niz aroaz mintzo. Zeruan ez da ihurtzuririk; lurrek aldiz inharrosaldi ederrik hartzen dute. Eta hostoaren belzten ari naizelarik han nonbeit ataala bezain usu jotzen dute kanoiek.*¹⁰²⁷

Pasarte hori irakurriz uler dezakegu *Oxobi* guduko lehen lerroetatik franko urrun zegoela, «han nonbeit» zehaztugabe horrekin urruntasuna adierazi baitzuen. Ihurtzuriari erreferentzia eginez ere hori uler daiteke. Bistan da, ihurtzuria hurbil gerta daiteke, baina urrundik heldu den burrunbaren kutsua dauka. Beste behin ere ihurtzuriarekin konparatu zituen kanoi hotsak:

*Gau eta egun ihurtzuria baiginuen joan den hilabetean, burrunbarik ez da gehiago hemen. Ohartu dea etsaia ez duela deus egitekorik Belfort-en gaindi? Ala maltzurkerian hari othe zaku? Gu hazkar eta erne gaude. Zinez, etzaut iduritzen alemanak iganen dituela berriz duela hirur urthe hartu daizkogun mendichkak. Ezin hobeki gerizaturik dauzkagu.*¹⁰²⁸

Kasu horretan, isiltasunaz ari zen, baina ihurtzuriaren erreferentziak hilabete bat lehenagoko bonbardaketak eta soinua adierazten zuen. Hor ere ihurtzuria aipatuz,

¹⁰²⁴ Jean Elizalde, «Oraiko egunak!», *Eskualduna*, 1916ko uztailearen 21a.

¹⁰²⁵ Jean Etxepare, «Nun bere gizonak», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.

¹⁰²⁶ Jean Etxepare, «Apirila gure gerla-tokian», *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 5a.

¹⁰²⁷ Jules Moulier, «Gudu bezpera», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 8a.

¹⁰²⁸ Jules Moulier, «Ihurtzuria», *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 1a.

kanoiazen soinua azpimarratu zuen. Kanoietarik hurbilago egon balitz, kanoiek eragiten zituzten desmasietan jarriko zuen arreta. Ondoko artikulua zati honetan ere distantzia nabaritu daiteke, *Oxobi*-k kanoien azantza azpimarratu zuelako, oroz gainetik:

Kanoien orro izigarriak itsas mugatik mendi mugara diraukuno, herritik urrun egonen da eskualdun soldadoa. Eginbideak hala manatzen baitio.

[...] *Kanoien burumbak inharrosten dituen bazterrek ez dire laket lekhuak. Hitz dautzuet ezetz.*

Sei, zazpi kilometretan zirelarik ere, buruko min bat lotzen zautzu ez arina, ikus beraz nolako jostetak dituzten musikaren pean daudenek. Eta den oldar aldi ttipienarentzat – euri uhar ezti bat, hots! – zonbat uste duzue irauten duela ihurtzuriak?

Joan den hilabetearen ondarrerat, hogoi-ta-lau edo hogoi-ta bortzean, irakurtu dukezue kasetetan frantsesak sarthu zirela Haute-Alsace-ko Aspach herrichka batean eta zokhoak ikhurturik, hamar bat alemanekin berriz erreketarat itzuli. Ez dakit gure ihiztariek zer tenorez chuchen egin duten joko hori. Dakitana da kanoiak goizeko bederatzi orenetan hasirik etzauzkula biharamun goizeko hiru orenak arte ichildu.¹⁰²⁹

Berriz ere ageri da bere burua ez zuela kanoikadak bete-betean jasaten zituzten soldaduen artean kokatzen. «Sei, zazpi kilometretan» kokatu zuen bere burua. Zehazki non zegoen ez bazuen argitu ere, garai hartan Alsazia aldean zegoela aipatu zuen beste artikulua batzuetan. Baina bereziki interesatzen zaiguna da ez zela suaren erdian, baina hala ere kanoikaden azantza gogor egiten zitzaiola. Aste horretako bere kronikako beste atal batean ere aipatu zuen «kanoien orroa» eta «kalerna izigarria». Argi da entzumena zela bereziki transmititu zuena bere artikuluetan. Funtsean, kanoien zarata sufrimendu bat zela idatzi du Cabanesez, erranez soldaduak, gehienak baserri mundukoak, ez zirela halako soinueta ohituak¹⁰³⁰.

Jean Elizalde *Zerbitzari*-k ere kanoiak beren soinutik aipatu zituen, artikulua zati hau horren lekuko:

Kanoiak ichilsko egon dire zenbeit egunez: orai orduko karraskak badauzkate. Etsaienak zalapartaka ari dire, erhotu balire bezala: gureak gutichago: heintto batean halere eta uste dut etsaiek guri baino min hainitz gehiago egiten duten hauk etsaieri.¹⁰³¹

Oxobi bezala, *Zerbitzari* ere kanoien burrunbaz mintzo zen. Argi gelditzen da kanoiek zer belarriko mina ematen zuten. Zuzeneko lekuko horien kroniken balio handietariko bat da hori: irakurleak kanoiak entzuten zituen, errateko maneran. Baina *Zerbitzari*-ren aipua ez ziren entzumenera mugatzen. Kanoikadek militariki zituzten ondorioak ere aipatzen zituen, beharbada *Oxobi*-k baino hurbilagoetik ikusten zituelako.

¹⁰²⁹ Jules Moulier, «Kanoiak», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 15a.

¹⁰³⁰ Cabanes, *La victoire endeuillée. La sortie de guerre des soldats français (1918-1920)*, 44.

¹⁰³¹ Jean Elizalde, «Kanoien karraska», *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 16a.

Kanoikaden ondorioen deskribapen fisiko bat eskaini zuen 1917ko ekaineko artikuluan batean, zehaztuz lurra iraulirik utzi zutela eta errekarik ez zela gehiago ageri; horri esker, etsaien zoko guztiak xehatuak zirela eta «guretzat» errazago zela argitu zuen.

*Oldar egunean ez diote etsaiari epherik utzi; zokho-mokho guziak zafratuak zauden. Bertze errechtasunik zen hola guretzat!*¹⁰³²

Artikulu horretan ez zuen entzumena erabili, baizik eta ikusmena. Irakurleak kanoikadek lurra nola xehatu zuten ikus edo irudika zezakeen. Kronika batzuk eta besteak irakurriz, zentzumen ezberdinak aktibatzen zituzten, eta beraz, dokumentu interesgarriak utzi zituzten. Bestalde, ohartarazi behar da aipu honetan kanoikadek xehatu lurra frantsesei eta, oro har, aliatuei mesede egiten ziela idatzi zuela. Hots, kanoikadak gogorrek izan zitezkeen kalteak frantsesek jasaten zituztenean, baina kalteak alemanei eragitean, modu baikorrean aipatzen zituzten.

Beste batzuetan obusak aipatu zituen *Zerbitzari*-k. Ez baitezpada modu negatiboan, ordea. 1916ko martxoan jasandako obusen bonbardaketa baten berri eman zuen:

*Duela bi egun, behin ere ikusi ez ginuen josteta eman daukute etsaiek, gure pausatokian, firurikan bizpahirur ehun obus ikaragarrienetarik, hamar minueta barnean, igorritz. Eta nola zapartatzen ziren! Min guti egin daukute halere.*¹⁰³³

Itxura guzien arabera, *Zerbitzari* ez zegoen suan, baizik eta gibel-frontean. Garai hartan, haren erregimentua, 57.a, Verneuil aldean zegoen¹⁰³⁴. Etsaien bonbardaketak zein axaletik hartzen zituen harrigarri da, josteta bat izan balitz bezala. Obusek eragiten zituzten kalteak gutxiesteko joera erakutsi zuen. Beste batean ere obusen gainean frantsesak nagusi zirela azpimarratu zuen, erranez alemanek beraiei baino gehiago botatzen zizkietela haiek alemanei¹⁰³⁵.

Bertze solasik zuen, ordea, «crapouillots» izeneko bonbak aipatzean. Lehergailu horiek presentzia handia izan zuten *Zerbitzari*-ren gutunetan, eta horrek erakustera eman dezake frontean ere arma mota horren beldurra zutela, gehienbat. Hona zer idatzi zuen 1915ean:

Crapouillots direlako mekanika tzar batzuetarik zer nahi igortzen daukute. Hein eta gisa guzietakoak baditugu, luze eta labur, mehe eta lodi.

¹⁰³² Jean Elizalde, «Kanoien lana», *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 1a.

¹⁰³³ Jean Elizalde, «Gathu debu baten asmua», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.

¹⁰³⁴ Le colonel commandant le 57^e R.I. Bussy, *57^e régiment d'infanterie*. «Le terrible que rien n'arrête». *Historique du régiment pendant la grande guerre 1914-1918*.

¹⁰³⁵ Jean Elizalde, «Kanoiak», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 2a.

Tikiak botoila dute airean direlarik iduri. Bat hoitarik ez da hamasei kilo bolbora baino gutiago tripan duenik.

Handiak aldiz egiazko barrika batzu dire. Zenbeitak badituzte ehun kilo bolboretaraino. Eta Crapouillots handi edo tiki gure erreketan zapartatzen direlarik, hitzemaitean dautzuet zinkako ederra hartzen dutela gure beharri gaichoek...

Beharrik ez dute harrabots bezenbat miñ egiten! Begi ona duenak, ehun bat metretan crapouillot bat ikusten duelarik, nahi duen bezen aise bazter egin dezake.¹⁰³⁶

Artikulu horrekin bakarrik ez da aski erakusteko *Zerbitzari*-k, oro har, bonba mota horiek hastio zituela, nahiz eta «mekanika tzar» batzuk aipatu. Aitzineko aipuekin bezala, kasu horretan ere alemanen «crapouillots» lehergailuen eragina gutxietsi nahi zuen, erranez anitz igortzen zizkietela, baina ez zutela hainbesteko minik egiten. Gerla lasai zegoen uneetan ere «crapouillots» eta granada batzuk ikusi zituela ere aipatu izan zuen¹⁰³⁷. Denbora joan ahala eta arma horiek hobeki ezagutu ahala, aldiz, garbiki aitortu zuen ez zitzaizkiola batere gustatzen:

Hala hala, "crapouillots" direlakoak berriz agertu zaizkigu. Nahiz aspaldiko ezagunak ditugun, ez ditugu plazerekin ikusi.¹⁰³⁸

Ez dakigu nondik ari zen, baina zinez ageri da «crapouillots» armak zirela gutxienik gustatzen zitzaizkienak. Alemanak tankeekin etorriko zirelako solasa zabaldu zela kontatu zuenean ere, «crapouillots» horien beldurra adierazi zuen:

[...] "Crapouillots" direlako debruakeriak ez othe dire betbetan trumilka airatuko, erortzean errekek eta erreketan direnak lehertzeko? [...] Alemana gathuaren parekoa da: zazpi izpiritu baditu. Egun hautan fama ibili da hemen gaindi, baizik eta diren bezalakoak "tanks" direlako tresnekin jazartzerat zoazkigula. Ikusiak ikusirik, deusek ez nau harrituko eta nere lagunak deusek ez ditu lotsatuko. Nere adichkideak dion bezala: Berantegi, berantegi. Oilaskoa oilar atchemanen dute.¹⁰³⁹

1918ko artikuluan, ez zuen tankeen beldurrik erakutsi. «Debruakeriak» beste arma haiek ziren. *Zerbitzari* biziki baikor mintzatu zen, erranez ez zela batere alemanen armen beldur, borroka irabazia edo ia irabazia zutelakoan.

Artikulu horiek irakurriz ageri da bonbardaketak gogor egin zitzaizkiela, ez zirelako ia nehoiz gelditzen, entzuteko jasangaitzak zirelako eta kalteak egiten zituztelako. Baina, oro har, lehergailuen kutsu negatiboa aitortzen bazuten ere, bonbardaketen arloan ere alemanei nagusitzen zitzaizkiela azpimarratzeari ematen zioten lehentasuna.

¹⁰³⁶ Jean Elizalde, «Han hemenka», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 17a.

¹⁰³⁷ Jean Elizalde, «Gerla», *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 19a.

¹⁰³⁸ Jean Elizalde, «Hemen gaindi», *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 23a.

¹⁰³⁹ Jean Elizalde, «Iraunen othe du horrek?», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 18a.

b) Hegazkinak

Lehen Gerla Mundialean agertu zen tresna berria airean zebilen. *Eskualduna*-ko idazleek «airetakoak» edo «aireplanak» deitzen zituzten, guk hegazkin deituko ditugun tresna haiek. Astekariko kroniken arabera, presentzia handia izan zuten, gerlan zehar. Idazleak hegazkinak egiten zituztenen lekuko ziren, ez aktore; halaber, hegazkinen ondorioak jasan bazitzaketen ere, haien mehatxua ez zen kanoiarena bezain handia. Frantzia zen hegazkin kopuruz nagusi zen estatua, 1.150 baitzituena, eta Alemaniak, aldiz, 764. Austriak 96 hegazkin zituen eta Ingalaterrak 166¹⁰⁴⁰. Haien arteko lehiaren berri kontatu zuten aireko borroken lekuko zuten izan ziren idazleak.

Hegazkinak anitz gustatzen zitzaizkion *Zerbitzari*-ri. Artikulu anitzetan aipatzen zituen. «Gerlako berri» sailerako idazten zuen kronika, gehienetan, atalka osatua izaten zen eta ia astero bazuen kapitulutxo bat hegazkinaz. Hegazkinen borroka deskribatu zituen, ikusgarri batzuk izan balira bezala. Aireko borroketan, frantsesak eta ingelesak nagusi zirela erraten zuen behin eta berriz. Horietan, frantses bat, Guynemer aipatu zuen maiz, eta hartaz idazten zituen artikulu guztietan erakustera ematen zuen zenbat miresten zuen. Itxura guztien arabera, zuzeneko tratua izan zuen hegazkin gidari harekin, haien zeru gainean alemanen hegazkin anitz zebilen batean mintzatu baitzen harekin, eta «gaitzeko» hegazkin gidaria zela idatzi zuen¹⁰⁴¹. Beste batean aipatu zuen alemanen hegazkinak hainbat eraso egin zituztela, baina ez zutela nahi zuten guztia egin ahal izan, Guynemerrek lau bota baitzizkien¹⁰⁴².

1917ko urrian, ordea, Guynemer hegazkin gidariaren galtzearen eta heriotzaren berri eman behar izan zuen *Zerbitzari*-k. Haren arabera, hegazkin gidari bikaina galdu zen Belgikan, eta beldurtzeko zen ez ote zen hila. Artikulu hartan oroitarazi zuen maiz aipatu zuela bere kroniketan. *Zerbitzari*-k esplikatu zuen 22 urteko soldadua, paristarra bazen ere, urtean bi hilabete iragaten zituela Miarritzen eta biziki atxikia zitzaiola Euskal Herriari, gisa hartan Frantziako soldadu hura *Eskualduna*-ko irakurlearengana hurbilduz.

Hala ere, nabarmendu zuen galtze edo herio horren gainetik, alemana ez zela irabaztekotan, Frantziak oraino beste gidari on batzuk bazituelakoan:

¹⁰⁴⁰ Isnenghi, *La Première Guerre Mondiale*, 41.

¹⁰⁴¹ Jean Elizalde, «Airetakoak», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 11.

¹⁰⁴² Jean Elizalde, «Airetakoak», *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 16a.

Bainan zenbat nigar-egingarri baita galtze hori gure erresumarentzat, horrengatik Alemana ez doa airetan ere nausitzerat. [...] Galdua galdu, altcha beraz bihotzak: esku onetan dugu oraino airetako gerla.¹⁰⁴³

Bestalde, hegazkinen eta kanoien lan osagarria esplikatu zuen, 1917ko maiatzaren 5ean Craonneko goi-lautadan izan zen gudu bati buruzko artikulua batean¹⁰⁴⁴. Kanoien «lan ederra» airetakoei esker egin izan zutela argitu zuen. *Zerbitzari*-ren argibideen arabera, alemanek ezin zuten urratsik egin hegazkinak ohartu gabe. Gisa hartan, alemanak oldartu ziren egunean, frantsesen hegazkinak ere alemanei tiroka aritu zitzaizkien. Kronika hartako beste pasarteei gehituz – paragrafo bakoitza arma edo armada mota bati buruzkoa zen: lehenik infanteria, gero kanoiak eta gero airekoak aipatu zituen – hegazkinei buruzko atalean guduaren ikuspegi zehatza eman zuen.

Zerbitzari-k anitz aipatzen zituen hegazkinak, baina Jean Saint-Pierrek ez zien hark bezalako garrantzia eman edo interesik erakutsi, gutxiagotan agertu baitziren hegazkinen aipamenak haren kroniketan. Hala ere, zenbait aipamen aurki daitezke. Aipamenak frantsesen aldekoak ziren, haiek irabazi zutela adierazteko. Adibidez, batean aipatu zuen alemanen hegazkinak Frantziako herri batzuen bonbardatzen hasi zirela eta frantsesen hegazkinek «haiatzatu» zituztela, lau aleman preso hartuz¹⁰⁴⁵. Beste behin, ez zutela jomuga gainditzeko gaitasunik erakutsi zuen, trufaz, erranez haien lehergailuak errekarra joan zirela, eta gizonik ez bazuten hil, arrainak hil zituztela eta Saint-Pierrek eta bere lagunek jan zituztela¹⁰⁴⁶. Beste batean, alemanen hegazkinen eraso baten menturaz mintzo zen, hegazkinak «gau-ainara» gisa aipatuz:

Gauazko lana lakhet dute biziki, herrien gainera sua burrustan igortzeko. Suaz bertzerik ere jausten da gain hartarik. Bixi pozoinduak egun hautan atzeman dituzte, izurrite aren hazia barnean; alemankeriak dira holakoak. Aire pozoindu ala bixi pozoindu ifernuko tzarkeria beltzenak odolean dituzte.¹⁰⁴⁷

Pasarte horren izenburua «Gau ainhara» zen, hegazkinak metafora horren bidez izendatuz. Honekin, hegazkinek gauaz eraso egitea adierazteaz gain, gau-ainara edo saguzarra abere ez maitatuaren bidez izendatuz, alemanekiko irudi txarra zabaldu zuen. Gau-ainara abere okaztagarri edo beldurgarria baldin bada, hara zer irudi eman nahi zuen alemanez.

¹⁰⁴³ Jean Elizalde, «Bi hitz airekarietz», *Eskualduna*, 1917ko urriaren 19a.

¹⁰⁴⁴ Jean Elizalde, «Airetakoak», *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 1a.

¹⁰⁴⁵ Jean Saint-Pierre, «Airetakoak», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.

¹⁰⁴⁶ Jean Saint-Pierre, «Aireplanak», *Eskualduna*, 1915ko uztailearen 2a.

¹⁰⁴⁷ Jean Saint-Pierre, «Gau ainharak», *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.

Jean Etxeparek ere hegazkinen aipuak franko modu ilunean egin zituen. Alemanen zenbait eraso aipatu zituen, hala nola Londresen egindako bat:

Iragan asteko bihozmin handienetarik bat dugu ukan Londresekoa: alemanen aeroplanak hiri horren gainerat heldu, eta gain behera burdinazko erauntsi izigarri bat aurdikiz, 537 jende kolpatu edo hil, erdiak baino gehiago emazte eta haur ttipi. Abrekeria. Daiteken abrekerietan itsusiena.¹⁰⁴⁸

Hegazkin bidez zibilen kontrako eraso gogorak egin zituztela kontatu zuen, tresna horren alde negatiboa nabarmenduz. Beste batean, Champagne inguruan alemanen hegazkinak torpedoekin egin zituzten erasoak aipatu zituen, erranez uste zuela bera ere hilen zela oldar gogor haren azpian, etxolak suntsitzen baitzituzten. Eraso hartan gizon anitz galdu zutela aitortu zuen, baina ez zela Verduneko bezain gogorra izan zehaztu zuen¹⁰⁴⁹. Aipu horrekin, Londreskoarekin ez bezala, Etxeparek erakutsi zuen lekuko zuzena izan zela, eta beraz, kontatu zituen hegazkinen erasoak ez zirela nonbait entzunak edo irakurriak. *Eskualduna*-ko irakurleek, berriz ere, lekuko zuzenaren bertsioa zeukaten.

Etxeparek, hortaz, ez zituen *Zerbitzari*-k bezainbat aipatu hegazkinak, eta ez zuen azalpen handirik eman. Beti ere, hegazkinen mintzatzean, alemanek egindako erasoak aipatzeko izaten zen.

Laugarren berriemailea *Oxobi* zen, eta *Zerbitzari*-rekin izan zen bezala, haren kroniketan, hegazkin guduek presentzia gehiago bazuten. Artikulu guztiak ez ziren biziki argi, baina batean alemanen bonbak aipatu zituen, estilo anitz nahasten zituen testuan:

Paristarrak baino maiteago gitzute alemanek. Egun gehienez, nun ez den zerua dena hedoi, heldu zauzku agurño baten egiterat. Arrano tzarrak! Badakigu aspaldian holako itzulien berri. Ez dugu behin jastatuz geroz, heien bonbonen gutziarik. Eta, urrundani aleman airezkari bat agertzen deneko, nunbeit gordeak dauden kanoiek erakusterat ematen diote badugula guhauk bonbarik aski.

Behartzen zako gora baitabila, biziki gora, doi doia ikusten dugula iguzkiak egiten dion disdirari esker. Hala ere badu lanik aski, jo ezker, jo eskuin, alde guzietarik heldu zazkon tiroer eskapatzeko.

Anartean, gure chorietarik zenbeit airatu dire. Tac, tac, tac... orai, orai jostetak! Ez dugu gehiago deus ikusten, bainan harrabotsetarik ageri da gudu errabiatua deramatela zeru gorenetan.

Zoin gogotik jautsiko zen etsaia, bildots bat aztaparretan hartzen duen arranoaren pare, hobenik gabeko zenbeit emazte edo haurren chehakatzeke!

Eta zer diote Parisen gaindi alemanek egin duten lan ederraz, mendiaz bertzaldeko germanofilos horiek?¹⁰⁵⁰

Testu zati honetan ageri da, batetik, ikusten ari zena idazten zuela, «ez dugu gehiago deus ikusten, bainan harrabotsetarik ageri da» esaldi zati horrekin. Baina hegazkinak

¹⁰⁴⁸ Etxepare, «Abrekeriak». 1917/6/29.

¹⁰⁴⁹ Jean Etxepare, «Khechu», *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 4a.

¹⁰⁵⁰ Jules Moulier, «Guduak airetan», *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 15a.

aipatzerakoan, berriz ere abereen erreferentziara itzuliko gara. Saint-Pierre «gau-ainara» aipatu zuen gisan, *Oxobi*-k ere fama txarreko abere baten izena aipatu zuen alemanen hegazkinen izendatzeko: «arrano tzarra». Frantsesen hegazkinak aipatzerakoan zegoen zinezko kontrastea: alemanen hegazkinak «arranoak» ziren bezala, frantsesenak «xoriak» ziren. Halaber, arranoak «bildotsak» harrapatzea, harrapariak biktima errugabe ahulak hiltzea zela adierazi nahi zuen.

Ez zen hori txori eta arranoen arteko bereizketa egin zuen kronika bakarra. Hain zuzen, beste batean, hegazkin aleman baten eta frantses baten arteko borroka aipatu zuen kronika bizi batean: kontatu zuen nola hegazkin aleman bat «hostoa bezala erori» zen:

Urrun danik beha baiginauden hiruzpalau lagun arras ontsa ikusi dugu jausten. Bainan gure choriatarik sei iganak ziren han harat. Ez othe zen hetarik bat joo? Jakin dugu etsaiatarik zela. Kapitain bat bazuen arranoak hegalean pean. Dohakabea. Ehun mila pusketan egin omen da lurreratzearekin.

Berantchago gure etcholatik arras hurbil, frantses aireskari bat erori zauku. Jainko maitea; zer itzulipurdia! Beharrik pentze baten erdian jautsi baita eta bi gizonak gogorki lothuak baitziren jar lekuer! Tresna ikusi eta etzana, errodak gora, arrunt uzkailea, ezin sinetsia da nola ez duten min izpirik hartu bi gidariak.¹⁰⁵¹

Hegazkinen eta hegaztien arteko konparaketa logiko eta errepikatu horretan, berriz ere ageri zena zen, alemanen hegazkinak hegazti ez maitatuak zirela eta frantsesen hegazkinak hegazti maitatuak. Txoriaren aipamenarekin bukatzeko, *Zerbitzari*-k maiz «xorigizonak» hitza erabili zuen hegazkinak eta beren pilotua aipatzeko.

Azkenik, *Zerbitzari*-k Zepelin delako airetako handiak ere aipatu zituen. Batean, Londresen kontrako eraso ahalegin bat ere kontatu zuen:

Frantsesari baino oraino Anglesari aiherrago dire Alemanak. Zeppelins direlako airetakoekin, noiz-nahi Angleterran gaindi badoazi min baino min gehiago egiteko. Ez haur ez emazte, nihori ez diote barkatzen Anglesea den ber. Bainan kukuak makur jo baitiote aste huntan, Zeppelins direlakoari!

Bidean beren lan tzarra eginik heldu zirelarik, lanho lodi batek hartu ditu eta bidea galdu dute: uste gabetan Frantziako lurretarat lerratu dire. Hamar baitziren, bortz bederen ez dire behin Alemaniarat itzuliko. Hirur mila phusketan dire, bat itsaso zolan naski eta bortzgarrena preso, oso osoa.

Nola Zeppelin delako bakotchean baitire hogoi gizon, Alemanek ehun gizon gutiago dituzte. Eta zer gizonak! Ez da gero nor nahi hola airetan ibiltzeko on!

Eta zer sos keta! Ainhara tzar hoitarik bakotchak bi miliun hurbil balio ditu. Heldu baita egun batez hamar miliunen galtzea. Zerbeit bada hori ere...¹⁰⁵²

Zerbitzari-k ere «ainara tzar» hitza erabili zuen alemanen airetako horien aipatzeko. Baina alemanen eraso ez zela haiek nahi bezala bukatu eta hainbat tresna eta gizon galdu

¹⁰⁵¹ Jules Moulier, «Bat gutiago», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 1a.

¹⁰⁵² Jean Elizalde, «Bertze berri on bat», *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 2a.

zituztela azpimarratu zuen. Oro har, hegazkinei buruz, *Zerbitzari* izan zen interes handiena jarri zuena, besteek alemanen zenbait erasoz mintzatzeko aipatu bazituzten ere. *Zerbitzari*-rentzat zeruan ikusten zituen hegazkinen arteko guduak ederrak ziren, bereziki frantsesak nagusi zirela azpimarratzen baitzuen.

c) Metrailadoreak

Beste arma mota bat metrailadoreak ziren. Ez zuten beste batzuek bezainbat aipamen ukan astekarian, baina zenbait xehetasun agertu ziren. Jean Etxeparek aski ongi deskribatu zituen zenbait artikulutan. 1918ko artikulua hau da adibide adierazgarriena:

Alemanek badute esku-arma bat hauta, arina, erabil errecha, aria. Gure soldadoek izendatua dakote mitraillette. Kargatuz geroz, bala andana handia igor dezake bahazuzan. Halakotsu bat badugu guk ere, bainan aithor dezagun arduregi trabatzen zaukula eta dendatzen. Mitralletaren ekarle bakotchak badakarza berezkin, haren hazkurri, hiru ehun bala.

*Mitraillette delakoaz bestalde, alemanek badakarte mitrallusa egiazkoa, bainan hau ere lehen danik hunat hobetua, erran ere ditake hoberendua. Gizon batek baderabil sorbaldan, bertze bat jarraikitzen zakolarik lagun; biek, azpirat bileduak dituen hiru changoak luzatzen daizkotela, ezartzen dute behar denean chutik; asto dabilan hirugarren batek atheratzen ditu keza batetarik bala zerrangak. Hirurak ar ditazken tokitan lan izigarria baderamakete.*¹⁰⁵³

Oro har, arma mota horri buruzko irakurketa aski negatiboa egin zuen Etxeparek. Alemanek ongi erabiltzen bazekitela eta kalte handiak eragiten zituztela aditzera eman zuen, eta frantsesen teknologia ez zela hain puntuan aitortu. Dena den, alemanen 1918ko ekaineko ofentsiba ez zela haiek nahi bezala pasatuko, hala nola ez zirela Parisera helduko, segurtatuz bukatu zuen artikulua. Beraz, armen ondorioz frantsesei eta aliatuei une latzak pairarazten bazizkieten ere, gerla ez zutela irabaziko azpimarratzea zen Etxepareren helburua.

Lehenago ere aipatu zituen arma mota horiek, orduan ere kutsu ezkorrekin. Alemanen metrailadoreek sortzen zituzten zailtasunak esplikatzen zituen, 1916an. Arma horien ondorioz, alemanen lehen lerroak hartzea zaila zela idatzi zuen, eta gero zailago izanen zitekeela bigarren eta hirugarren lerroen hartzea¹⁰⁵⁴.

Zerbitzari-k kanoiak eta hegazkinak baino gutxiago aipatu zituen metrailadoreak eta tiroak. Baina aipamena egin zien. Bereziki artikulua batean, biziki ongi deskribatu zituen, ia tiroen soinua entzunarazteraino:

¹⁰⁵³ Jean Etxepare, «Bara», *Eskualduna*, 1918ko ekainaren 14a.

¹⁰⁵⁴ Jean Etxepare, «Trabarik gaichtoenak», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 4a.

Jesus Maria eta Josepel! Kanoiak orroaz ari dire bazter guzietarik. Bainan gu bezalako gerlari zaharrentzat zer da hori? Gerlan bada lotsagarriagorik: "mitrailleuses" direlakoak. Zenbeit gau hautan etzauzkigu ichiltzen, tarratata eta tarratata. Hori tresna debrua!¹⁰⁵⁵

Lehenago komentatu dugu kanoikadez zer idatzi zuen *Zerbitzari*-k. Eraso gogorrak izaten ziren, baina artikulu honen arabera, ohitua zela zirudien. Aldiz, metrailadoreak are arma gogorragoak zirela ulertarazi nahi izan zuen. «Tarratata eta tarratata» horrekin entzuten zuen, irakurleak, tresna horiek ateratzen zuten soinua. Beste batean, zenbat bala botatzen zuten azaltzeko, erlearekiko konparaketa egin zuen:

Hala hala mitrailusak maizago ari dire, tira eta tira. Balak erlea bezen usu airean badabiltza. Uruski ez dute erle guziek ausikitzen.¹⁰⁵⁶

Etxeparek bezala, *Zerbitzari*-k ere aski modu ezkorrean aipatu zituen metrailadoreak. Hala ere, erlearen konparaketarekin jarraituz, bala guziek ez zituztela soldaduak jotzen ohartarazi zuen, arma haren eragina erlatibizatuz.

3. Arma berriak

Beste arma batzuk gerla hartan agertu ziren lehen aldiz, eta horietan bereziena aire pozoitua zen, alemanek erabili zutena. Aire pozoituei buruz ere frankotan idatzi zuten gerla egitera joanak ziren berriketariak. Zer iritzi zuten arma berezi hartaz? Galdera horri erantzutetik hasiko gara. Gerla hartan, denboraren buruan, beste arma berri bat ere agertu zen, hala nola tankea. Aipamen batzuk ukan zituen arma hark ere, eta guk aztertuko ditugu. Azkenik, itsasoko guduak aipatu ditugunez, itsaspeko arma bati buruzko azalpenak ere eman zituen *Eskualduna*-k, hala nola urpeko ontziari buruzkoak. Hori ere landuko dugu ondoko lerroetan.

a) Aire pozoitua

Lehen Gerla Mundialean, alemanek arma berri bat erabili zuten, gerla lehertu eta aski laster: gasa. Jean Saint-Pierrek aipatu zuen, 1915eko abenduan, arma izugarri «tzarra» zela erranez. Haiek zeuden tokira, hala nola Craonne inguruetara, ez zutela anitz bota zehaztu zuen, baina Champagne aldera bai. Han ere euskaldun anitz bazela zioen. Gas haiek nolakoak ziren ere argitu zuen: ez ziren denak pozoiak, batzuk hatsa mozteko ziren, besteak bista nahasteko, negar eginarazteko edo usain tzarra botatzeko. Berak ere halakorik dastatu izan

¹⁰⁵⁵ Jean Elizalde, «Jesus Maria eta Josepel», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 4a.

¹⁰⁵⁶ Jean Elizalde, «Han hemenka», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 10a.

zuela idatzi zuen¹⁰⁵⁷. Aire pozoitu horiek zer ziren modu ulerterrazean esplikatu zien irakurleei.

Gas horiek 1915eko apirilaren 22an erabili zituzten, lehen aldiz, Ypreseko bigarren guduan, Flandrian. Hastapenean, gas horiek lehen lerroetan askatzen zituzten, haizea aliatuen aldera zegoenean, pozoia hala zabaltzeko. Frantsesentzat kolpe latza izan zen, baina aurkitu zuten nola erantzun:

Devant les émanations de gaz, les troupes françaises, incapables de respirer, cèdent à la panique et battent en retraite. Mais, très vite, les soldats alliés trouvent une parade suffisante dans l'usage de masques à gaz improvisés (améliorés au fil de la guerre)¹⁰⁵⁸

Geroztik, *Eskualduna*-ko kroniketan ere maiz agertu ziren gas horien aipuak. Gerlako berriemaileek ez zieten gas itogarriak izena eman, baizik eta «aire pozoindatuak». *Zerbitzari*-k zehazki deskribatu zituen gas horren ondorioak:

Dakitana da bakharrik Alemanek aire pozoindatuatarik ausarki igortzen daukutela. Eta zer aire pozoindatuak! Soinekoetan barna sartzen zaizko menea kausitzen denari eta bi, hirur lau egunen buruan gorphutz guzia erretzen haragi biziraino.

Hanbat gaichto ere zuretzat aire pozoindatu zerbeit iresten baduzu, ahoko tresna berantegi emanik. Zortzi egun gabe zure bulharrak ustelduko zaizkitzu: ahotik odola igorriko duzu eta...¹⁰⁵⁹

Gasak eragiten zituen erredurek sor zitzaizketen minak konkretuki deskribatu zituen. Osagarriarentzat kalte are larriagoak izan zitezkeen, aurpegia ez bazuten babesten, horretarako sortu zuten maskarari «ahoko tresna» izena emanaz. Saint-Pierrek ere aipatu zuen maskara hori, «luneta» hitzarekin.

Lur lanak daramatzate gau eta egun, erreka berri, kanoi leku eta holako. Aire pozoin tzar hetarik ez daukute oraino igorri, gure lerroetan segurik. Begiak, sudurra eta zintzurra begiraten dira halakoetarik luneta eta oihal berezi batzuekin. Panpa pollitak gira, hoik soinean!¹⁰⁶⁰

Delako «luneta» horiek hitz laburrez deskribatu zituen, soldaduek zuten itxura bitxiaz trufa pixka bat eginez. Hala ere, maskara hark ez zuen erabateko babesik eskaintzen, gas harekiko kontaktua gorputzeko beste edozein zatirekin izan baitzitekeen, nahikoa baitzen gasa landareetan edo lurlean egotea. Horrek erredurak eragiten zituen eskuetan, zangoetan edo barrabiletan, eta gasa irensten zutenek beren bizia asmarekin edo tuberkulosiarekin bururatzen zuten¹⁰⁶¹.

¹⁰⁵⁷ Jean Saint-Pierre, «Aire pozoindatuak», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 10a.

¹⁰⁵⁸ Prior eta Wilson, *La Première Guerre mondiale 1914-1918*, 71.

¹⁰⁵⁹ Jean Elizalde, «Aire pozoindatuak», *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 26a.

¹⁰⁶⁰ Jean Saint-Pierre, «Gure astea», *Eskualduna*, 1915ko agorrilaren 13a.

¹⁰⁶¹ Meyer, *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*, 90–91.

Gasa hegazkin bidez ere botatzen zuten alemanek, Saint-Pierrek hegazkinei buruz idatzi artikulu batean agertzen zuen bezala¹⁰⁶²: hegazkinek suaz gain, aire pozoitua ere botatzen zutelako kexu zen, «suaz besterik» ere botatzen zutela azpimarratuz, eta gisa hartan aire pozoitua bonbak baino are larriagotzat joz.

Zerbitzari-k «urdekeria» gisa izendatu zituen aire pozoitu haiek, baina ez haiek bakarrik, artikulu baten arabera, besterik ere botatzen baitzuten:

*Dela aire pozoindatu, dela olio egosi, dela su, gehien urdekeriak asmatu dituzte han dauden gure lagun gaichoen lotsazeko. Frantsesa deusek ez du lotsatzen eta Craonne bethi gurea da.*¹⁰⁶³

Aire pozoitua eta olio egosia botatzen zituzten alemanek, *Zerbitzari*-ren lekukotasun horren arabera. Baina arma gogor horien gainetik, baikor bukatu nahi izan zuen, erakutsiz alemanek ez zutela lortzen aliatuei gaina hartzea. Oraino aipu gehiago egin zituzten aire pozoituez, eta horren arabera ageri zen ez zitzaizkiela batere gustatzen edo, hobeki erran, gas horien beldurra bazutela. Hala ere, gas hark eragiten zituen zinezko kalteak erlatibizatu ditu Bruno Cabanesekek:

*Peur de la mort invisible apportée par les gaz, qui ne causeront que 1 % des pertes totales de la Grande Guerre mais qui ont traumatisé les combattants bien au-delà de leur impact réel.*¹⁰⁶⁴

Horren arabera uler daiteke gasaren beldurra anitz aipatzea *Eskualduna* astekarian. Artikulu horiek ongi islatzen zuten gasak eragiten zuen beldurra, nahiz eta ez zen zinezko mehatxu handiena. Gerlako berriemaileen kronikek errealitatea islatzen zuten, hala ere, hots, gerla zuzenean bizi zutenek bizi zuten errealitatea, bizi zituzten beldurrekin eta sentimenduekin.

b) Tankeak

Eskualduna-ko artikuluetan franko gutxi aipatu bazituzten ere, Lehen Gerla Mundialeko berritasuna eta garrantzia izan zuena tankea izan zen. Nahiz eta ez zuten arma haietaz anitz idatzi, Jean Etxepareren artikulu bat nabarmentzekoa da, tankeen deskribapen zehatza egin baitzuen, alde baikorretik.

Ez ditzagun bizkitartean ahantz tank direlako otomobil hetsi, burdinazkoak. Hek gabe, nola gintuzken lehertu etsaiaren burdin-harizko sasiak, nola ichilarazi zoko guzietarik errepikan bahazuza gaichtoa igortzen zaukuten mitrallusak?

Zelhai izan dadin ala patar, malda chutak ez iganikan ere, badoazi norat nahi chuchen tank horiek, azpian zapataz oro, barnetik herioa zapartaka alde orotarar hedatzen dutela. Hemezortzi kilometraren

¹⁰⁶² Saint-Pierre, «Gau ainharak». 1917/3/23.

¹⁰⁶³ Jean Elizalde, «Craonneko eskualdean», *Eskualduna*, 1917ko irailaren 7a.

¹⁰⁶⁴ Bruno Cabanes, «Héroïsme et barbarie. Le tournant de 1914-1918», *L'Histoire* 267 (2002ko uztaila): 62–67.

orenean egiteak ez ditu higatzen. Obus ttipiek zila ditzazkete chuchenera, bainan ez ñimiñoek, are gutiago balek.

Lohiak ez ditu izitzen. Ez ditzake lerra. Beren lau erroten gainegain, aitzinekoetarik gibekekoetara, sahets bakotchean badabilkote inguruka gathe zabal bat, dena arteka erroten hortzen lotzeko, eta arteken artean dena ozka kamporat, lurrari aztaparka bezala finkatzeko. Motor batek derabil gathea; bertze motor batek erotak. Hok, gathearen barnez barne itzulikatzean, gathearen gainean dute bizkitartean egiten indar.¹⁰⁶⁵

Tankeak nolakoak ziren eta nola funtzionatzen zuten biziki xeheki esplikatzen zuten, kateak berak nolakoak ziren azalduz, «lurrari aztaparka bezala» formulazioarekin, irakurleak hobeki ikusteko gisan. Baina, xehetasun tekniko horiez gain, 1918ko iraileko artikulua horretan zehaztu zuen tankeak gerlan sartzearen ondorioz zela gelditu posizio gerla. Tankeek soldaduak lubakietatik mugiarazi zituztela eta mugimendu gerla berriz hasi zela idatzi zuen. Horrez gain, *Oxobi*-k beste xehetasun batzuk eman zituen, hala nola tankeak gidatzeari buruzko ikastaldiak kontatu zituen:

Gehienek badakizue, Eskualduna-ren irakurle maiteak, zeri esker duten bereziki Anglesek bururatu aintzin hortako oldar gaitza.

Tank deithu otomobila izigarri batzu baitire eta horiek egin dutela lanik gaichtoena entzunen duzue handik heldu diren guzietarik.

Holako alimaleak ehunka, milaka abiatuko direnean, etsaiaren indar eta zakurkeria guziak alfer izanen dire.

Geroago eta gutiago berri behar da salatu, muga zokho guzietan beharriak erne baitaude, bainan erran dezakegu Tank horieri lothuak girela gu ere, frantsesak. Naizen hirian hanitz ikasle bada gudu gai berri horietako, gazteak oro eta soldado fierrenetan hautatuak. Tankari horier biziki lakhet zaiote gure boneta eta gehienek sudur ÷ea eta mathelak garbi baitituzte, hoik ikustearekin iduritzen zaut Eskual-Herrian naizela.¹⁰⁶⁶

Tankeak alemanek ere erabiltzen zituzten, ordea, *Zerbitzari*-ren artikulua baten arabera¹⁰⁶⁷. Hainbat lehergailu motaren kezka agertu zuen artikulua hartan, alemanek tankeekin eraso eginen zutelako fama zebilela idatzi zuen, horrek kezka eragiten bazuen ere, alemanek ez zutela irabaziko segurtatuz. Baina, oroz gainetik, tankeei buruzko aipamen bakar haietan, aliatuentzako gerla irabazteko aukera on gisa aurkeztu zituzten arma haiek.

c) Urpekoak

Gerla guztia ez zen lehorrean pasatzen, eta nahiz eta *Eskualduna*-ko berriemaile guziak, Pierre Duhour salbu, lehorrean ibili ziren, itsasoko armamentuaz ere idatzi zuen Jean

¹⁰⁶⁵ Jean Etxepare, «Gure bigarren siska», *Eskualduna*, 1918ko irailaren 13a.

¹⁰⁶⁶ Jules Moulier, «Gudu gai berri», *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 14a.

¹⁰⁶⁷ Elizalde, «Iraunen othe du horrek?». 1918/1/18.

Etxeparek. Are gehiago, urpekoei buruz beste arnei buruz baino xehetasun gehiago eman zuen. Urpekoek sortzen zituzten kalteak zein ziren azaldu zuen, bereziki urpekoengatik merkantziak itsasoan ezin zirela lasai ibili. Eta aliatuek urpekoak suntsitzeko modu hoberena oraino ez zutela asmatu aitortu zuen 1917ko maiatzean¹⁰⁶⁸. Hala ere, kronika hartan kutsu baikorra eman nahi izan zuen, aitzineko urtean alemanek 250 urpeko atera zituztela eta aliatuek ehun bota zizkietela argituz.

Beste batean ere informazio negatiboak eman zituen, alemanen urpekoek hainbat merkantzia ontzi eta pertsona garraiatzaile botatzen zituztela azpimarratuz. Salonika aldean zituzten zailtasunez mintzo zen, 1917an, Grezian denak ez zituztelako alde. Errumaniak gerla galdurik, oraino zailtasun gehiago zutela gaineratu zuen. Inguru haietan, aliatuek 400.000 soldadu zituztela eta armak eta materiala itsasoz helarazi behar zitzaizkiela, baina urpekoek ontziak botatzen eta soldadu anitz galarazten zirela esplikatzen zuen. Hala ere, ez etsitzeko deia egin zuen, berri ezkorren gainetik baikortasunari lekua eman nahiz¹⁰⁶⁹.

Baina ez zen beti baikor ageri. Alemanen urpekoen beldur handia zuela agertu zuen, amerikarrek urpeko haien kontrako sistema aurkitu izana nekez sinesten zuela erakustera emanaz:

Amerikanoek asmatu omen dute untzi bat, itsaspekoen suntsitzeko gei litakena. Ttipia, dena kanoi, itsas-barnetik axialera «inomine-santian» sar-jalgitzen; urrunera senditzen etsaia, bai ere nuntsu ditaken; urpez bizkitartean ezin ibil. Omen ... omen.

Daukat nik alemanek asmatua dutela, ja, hura iduriko bat, ari bihurtzeko gei ditakena. Ez da alainan gaitz. Ez giten beraz oraino kukuruka has.

Izaitekotz, ketaz dira nausituko amerikanoen untxiak; alemanen baten orde, aterako baitira hogoi. Hanbatenaz non Alemanek ez baitezakete oraikotz aurki beren behar-orduontzat burdinarik aski. Auzo bati ari galdeka, holetan, eta ezin ardiets.¹⁰⁷⁰

Alde batetik, harrigarria da dudan ezartzea amerikarren tresna hura bazenik ere. «Omen» hitza azpimarratuz, berri horri ez zion hainbesteko sinesgarritasuna eman, eta ez «kukuruka» hasteko deia eginez, espantua baztertzeko eskatu zuen. Hori ez zen *Eskualduna*-n agertu ohi zen joera. Baina egia da Etxepareren ezaugarria zela besteak baino errealistagoa izatea eta itxaropenaren eztatzea. Ezin dugu erran, hala ere, artikulua guztiz ezkorra zenik. Ez, batere. Nahiz eta alemanek ere halako tresna bat bazutela aitortu, kopuru aldetik amerikarrak aise nagusi zirela erranez bukatu zuen, gerlaren bukaerari begira dudarik ez uzteko gisan.

¹⁰⁶⁸ Etxepare, «Nun elhorria». 1917/5/18.

¹⁰⁶⁹ Jean Etxepare, «Bigarren elhorria», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 25a.

¹⁰⁷⁰ Jean Etxepare, «Jaunen jaun», *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 22a.

Pierre Duhourrek urpeko ontzien beste alde bat aipatu zuen, zehaztuz alemanen urpekoek ontzi mota oro jotzen bazuten, aliatuek gerlako ontziak baizik ez zituztela erasotzen:

Alemanek deshoratu balinbadute bere egintza gaichto izigarriez ur-peko untzia, frantsesek jakin dute tresna horren onen erakusten goraki bainan izari zuzenean. Gerokotzat istorioak atchikiko du froga frangorekin gure ur-pekoek ez dutela gudukatu gerlako untzirik baizik, eta ez, etsaiek bezala, untzi mota guziak, gerlan ala gerlatik kampo diren, erresumetakoak, izanik ere hurrez, emaztez, eriz edo minhartuz betheak.

Duela zenbeit aste erraiten nuen hemen berian gure gerlako ontziak etzaudela deus egin gabe. Urpekoek badute bestek bezenbat parte harturik itsasoko lan handian.

Italia gerlan sartu baino lehen, ur-peko frantsesak beren pausuko geriza lekuetarik, Otrichia-ko leihorretarat, Cattaro Sebenico Pola deithu portuen hasteko johan ziren bakharrik; hanitz aldiz itsaso gaichtoenekin. Adriatique hortako haize kolpeak, ipar itsasokoak bezen borthitzak dira.

Behar ziren ur pean sartu gabe heldu portuaren aintzinerat gabaz, leihorretik aski hurbil, portuko jalgia padara ederrean izateko egun hastirian. Itzuli guti egin zitakeen gerthagarri gaichto zenbeit gabe. Deusek ez du hala harritzen nola gabazko ur-pean sartze horiek, lurretik hurbil, bereziki Otrichiako ur hegian. Dena irla ttipiz bethia baita ez da deus lanjerosagorik nola irla heien artean itzulikatzea gau ilhunean.

Noizean behinka lurreko «projecteurs» argikertzale batzuek miatzen dute itsasoa badenez untzirik ondoetan. Hanbat gaichto ur-pekoa ikusia bada. Leihorreko kanoiek zafrazten dute bazter guzia. Sar dadila ur pean, gutien ustean jotzen ahal du irla bat. Ez bada ikusia ere, argi harek frentsaterat emaiten dako etsaia guardian dagola... Goizalderat ur pean sartuko da egun osoa guardian egoiteko, doi doa «périscop» delako begi hura daukala uraren gainean.¹⁰⁷¹

Pierre Duhour marinela zen, eta beraz, itsasoko mugimenduen berri hobeki bazekien. Pasarte horretan biziki xeheki deskribatu zuen urpekoak nola ibiltzen ziren, zer arrisku zeukaten gauaz, portuetako argiengatik edo uharte txikiengatik, nola gordetzen ziren urpean eta nola barrandutzen zituzten inguruak.

Itsasoko guduari eta urpeko armei buruz informazio errealistak eman zituzten Etxeparek eta Duhourrek. Zenbait artikulutan, urpekoen funtzionamendua eta funtzioa argiki esplikatzen zituzten. Dena ez zen loriagarria, dena ez zen espantu, baina beti baikorki bururatu nahi izaten zituzten artikulua.

Arma aipatzean, balorazio gazi-gozoak egin zituzten *Eskualduna*-ko idazleek. Kanoiengatik zerbait-zerbait sufritu zuten, hegazkinengatik ere bai. Aire pozoituak hastio zituzten. Bai, armen alde gordin hori agertu zen astekariko zutabeetan zehar. Horren giblean, errealismo zerbait suma zitekeen, ez baitzuten dena edertzen edo desdramatizatzen. Hala ere, ez zuten

¹⁰⁷¹ Pierre Duhour, «Gure ur-pekoak», *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 1a.

egoera zen bezain larriki erakusten. Eta nahiz eta arma haien beldurra agertu, kasu guztietan, armen bidez ere Aliatuak nagusi zirela azpimarratu nahi izaten zuten beti. Egoera gogorrenetan ere baikor agertu behar hori gerlan jarrera inplikaturik edukitzearekin lot zitekeen.

B. Guduen aipamenak

Verdun, Somme, Andereen Bidea eta horrelako lekuak datozkigu burura Lehen Mundu Gerraz mintzatzerakoan. Han gertatu ziren gudu ezagunenak, baita sekulako sarraskiak ere. Gerla etsaien arteko guduen bidez aitzinatzen zen, eta gertakarien leku nagusiak haiek izan ziren, beste batzuen artean. Alabaina, Frantziaren eta Alemaniaren arteko frontean, hiru haiez gain, beste batzuk ere baziren, eta beste fronte batzuk ere baziren, Errusia aldean, Serbia aldean eta abar. Egia da *Eskualduna*-k, beharbada, gehiago aipatu zituela Frantziako lurretan iragan ziren borrokak, hurbiltasunagatik eta Euskal Herriko soldadu gehienak han borrokatu zirelako, hain segur. Baina beste lekuetako fronteek ere lekua izan zuten astekariko zutabeetan.

Ez ditugu borroka guztiak aipatuko, are gutxiago xeheki. Borroka zehatz gisa, adibide batzuk hartuko ditugu, eta gudu ezagun haiek nola aipatu zituzten ikusiko dugu, azpimarratuz lekuko zuzenak kontatu zituztela.

Interesgarriagoa iruditu zaigu aztertzea borroka haien ondorioak nola aipatu zituzten. Hots, gudu batetik landa, alde batekoak aitzinatzen ziren eta besteak gibelatzen. Aliatuak ere ez ziren beti aitzinatzen, gibelatzea ere gertatzen zitzaizkien. Zertaz mintzo ziren *Eskualduna*-koak? Zenbat aldiz aipatzen zituzten aitzinatzeak? Zenbat aldiz gibelatzeak? Eta aipatzen zituztenean, nola aipatzen zituzten? Galdera horiek oinarrizkoak dira *Eskualduna*-k gerlari buruz zuen jarrera hobeki ikusteko.

I. Borroken xehetasunak

Eskualduna-ra berriak igortzen zituztenek gerla bete-betean bizi izan zuten, eta horren lekuko dira hainbat guduri buruz idatzi zituztenak. Guk hemen aztertuko ditugunak, hain zuzen, euskaldunek parte hartu zuten guduak dira, hala nola Verdunekoak 1916an eta Andereen Bidekoak 1917an. Borroka haiei buruzko xehetasunak, lehen eskuko lekukoak lumatik nola kontatu zituzten aztertuko dugu. Ez gara borroka haiei buruzko azalpen xehe

eta orokorretan sartuko, horiek jadanik aipatu baititugu lehen zatian¹⁰⁷². Guk aztertuko duguna da zer oihartzun ukan zuten euskarazko astekarian. Baina Verdun eta Andereen Bidean aipatu aitzin, borroka horien prestakuntza fasea ere nola aipatu zuten aztertuko dugu. Azkenik, Serbia aldera joanen gara, eta hango borroka nola kontaktzen zituzten ere begiratuko dugu, euskaldun batek gutunak igorri baitzituen handik.

a) Prestakuntza

Gerlak iraun zuen denbora guztian ez zen gudu handirik izan. Posizio gerlak iraun zuen denbora zati handienera, gudu handi baten beha iragan zuten denbora, eta *Eskualduna*-ko artikulua batzuk eta besteak irakurritz gudu handien beha egote hori ageri zen. Alde batetik, gerla lekuetako berrikeriak zeuden, hainbat aldiz pausalekuetatik edo une lasaietatik idazten zutenak, baina noiznahi gerla lekura igorriko zituztelako kezkarakin zeudenak. Bestetik, Baionako idazleak zeuden, gerlaren ikuspegi orokorra eman nahi zutenak eta edozein mementotan gudu handi baten hasiera iragartzen zutenak.

Lehenbiziko horietarik bat zen *Zerbitzari*. Maiz aipatzen zuen lasaitasun mementoa bukatzen ari zela eta mugitu beharko zutela, gerla noiznahi berriz has zitekeelako. Hona hemen adibide bat:

*Herritar maiteak, sinhets zazue oren hori hurbiltzen ari dela, menturaz hurbildua dela. Lagun gaitzazue hortik. Egunetik egunerat, orenetik orenerat heda ditake gudua. Uste gabeen, hedatuko da, sua mendian hedatzen den bezala. Orduan ichuriko da odol. Berriz busti beharko dute begiek.*¹⁰⁷³

Artikulu hori idatzi zuenean, ez zekien noiz hasiko zen gudua, baizik eta noiznahi has zitekeela. Artikulua 1916ko apirilaren 4an argitaratu zen, eta garai hartan, *Zerbitzari*-ren erregimentua Verneuil eskualdean zegoen¹⁰⁷⁴, ia urte erdi bat hartan. Gudu handi baten mentura aipatu zuen, baina xehetasunik jakin gabe. Ez zekien hilabete baten buruan Verdun eskualdera joanen zirela, gudu bortitz batera. Gisa horretako artikulua maiz idatzi zituen; batzuetan astero aipatzen zuen gudu baten mentura, baina gudua beti gibelatzen zen. Verduneko guduaren mentura urte hartako martxoan ere aipatu zuen, zehaztu gabe haiek ere leku hartara igorriko zituzten ala ez. Bazekien zerbait gertatuko zela Verdunen, eta gerlarako prest zeudela erakutsi nahi zuen:

Gureek hamar aldiz orro handiagooa dute haatik. Ederki doa hola.

¹⁰⁷² Ikus: 180 eta 181.

¹⁰⁷³ Jean Elizalde, «Eta zer diote gerlariek?», *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 14a.

¹⁰⁷⁴ Le colonel commandant le 57e R.I. Bussy, *57e régiment d'infanterie. «Le terrible que rien n'arrête». Historique du régiment pendant la grande guerre 1914-1918.*

Bertzela, ez dute etsaiek gure eskualdean oraino sudurrik agertu. Menturaz, zenbeitek hala erranik ere, Verdun hortan ez dute azken oldarra hasi. Dena den gauden beha. Has bezate, gustu dutelarik eta nahi bezen laster ez gaude behin uko egitekotan. Zoko-moko guziak ederkisko alambre hortzdunetz estaliak ditugu. Eta alambrearen zaintzeko, Eskualdun odol garbiena bethi berme dago...¹⁰⁷⁵

Hamasei hilabetez lubakietan edo lubakien inguruetan egon ondoan, gerla trenka zezakeen gudu handi batek berantetsiak zituela igartzen da artikulu hori irakurtzean. *Zerbitzari* baikor zegoen, eta borrokatzeko grina eta motibazioa erakutsi zituen.

Verduneko gudutik hilabete batzuen buruan, 1916ko azaroaren 3an, 25 egunez Camp de Mailly-ko pausalekuan zegoela, eta pausaldia uste baino gehiago luzatzen ari zela idatzi zuen. Noiz joanen ziren galdetu zuen, eta ez zekitela erantzun¹⁰⁷⁶. Beste batzuetan, aroaren arabera egiten zituen iragarpenak. Negua urruntzean edo aroak edertzean, borrokarako prest izanen zirela adierazten zuen. Aroarengatik, bazterrak lasai zeudela idatzi zuen 1917ko urtarrilean. Eguzkia jinen zelarik gudura joateko xedea agertu zuen¹⁰⁷⁷.

Oxobi-ren kroniketan ez zen hain presente guduaren beha zeudeneko mementoa, baina bada aipatzea merezi duen artikulu bat, bereziki bere estiloaren aldetik. Alegia bat bezala idatzi zuen, azeriaren eta oilategiaren metafora jarraikiarekin. Irakurle laborariarentzat erreferentzia ona izateaz aparte, gerlari buruzko azalpen pedagogikoak eman zituen:

Nehork ez omen dezake erran chuchen, nun oldartuko zaukun aldi huntan etsaia... oldartzen bada batere. Ausiki on bat baino gehiago badauku asko tokitan emanik. Nun ere ase baita behin eta oilotegi hartara doa maizenik azeria. Begiak eta hortzak zorrotzurik beha dago Verdun eta Nancy hirier. Azken huntara nahi luke uste jauzi egin lehen bai lehen. Bainan oilo bat edo bertze eskastu direneko, zuhurra duen etcheko jaunak hedatzen ditu artekak. Gure aintzindariak orai ez dire azerien beldur. Gau batez artekan lephotik lotzen ahal balitz ohoin tzarra!!¹⁰⁷⁸

Gudu menturak aipatzean, izan zitekeen aliatuen ofentsiba edo alemanena. *Oxobi*-k aipatu zuen kasuan, alemanek Verdun edo Nancy erasotzeko xedea zutela erran zuen, eta aliatuek defentsa ongi prestatu zutela zehaztu. Hots, gudu menturaren arloan, aliatuak prestatzen ari ziren ofentsibaz bezala mintzo ziren aliatuek prestatzen zuten defentsaz.

Gerla hasi eta laster, Manex Hiriart-Urrutik behin baino gehiagotan egin zuen gudu handi baten iragarpena. Horrelakoetan, xehetasun guti ematen zuen, idazleak berak ez zekielako gudua non izanen zen eta noiz hasiko zen. Batzuetan gudu hori azken gudua balitz bezala mintzo zen, adibidez 1915eko martxoan lehertu beharra zen borroka handia

¹⁰⁷⁵ Jean Elizalde, «Han hemenka», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.

¹⁰⁷⁶ Jean Elizalde, «Erdi pausaturik», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 3a.

¹⁰⁷⁷ Elizalde, «Gerla». 1917/1/19.

¹⁰⁷⁸ Jules Moulier, «Nun abiatuko da?», *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 1a.

iragartzen zuenean. Frantziako eta Ingalaterrako armaden baitako konfiantza osoa erakutsi zuen, eta garaipena hurbil izan balitz bezala mintzo zen. Haren arabera, «oldar handia» martxoan hasiko zen, eta udaberriaren alemanak «haizatzeko» itxaropena zeukan¹⁰⁷⁹.

Baina gerla ez zen orduan bururatu, eta Baionako berriketariek gudu iragarpen gehiago egin zuten. Blaise Adémar gudu handiak iragarri zituen, adibidez, 1917ko otsailean eta martxoan. Bietan «sarraskiaren» mentura aipatu zuen. Batean gudua laster hasiko zela idatzi zuen:

*Zer ez dugu ahantzi behar? Orai laster, egunak luzatzen eta edertzen hastearekin, izanen dela karraska bat gaitza, eta beraz sarraski bat handia.*¹⁰⁸⁰

Hilabete bat geroago aipatu zuen gudu hura ez zela oraino hasia, eta oldarra alemanek egiten utzi nahi zutela. Guduaren prestaketa edo gudu aitzineko giroa ongi islatu zuen, itxaropen itsuaren eta beldur edo tentsioaren erdian:

*Guziek dakiguna da, norbeit nonbeit hasiko dela laster, bururaino joiteko chedearekin, eta orduan izanen dela sarraski bat ikaragarria.*¹⁰⁸¹

Gudua laster hasiko zela, baina non ez zekitela. Hori zen *Eskualduna*-ren leloa, artikulu horretan ere ageri zena. Lerro guzietan karraskan ari zirela azaldu zuen Adémar. Hastapenean erraten zen aliatuek martxo hastapenean egingen zutela ofentsiba, baina gero nahiago izan zuten etsaia utzi oldartzera, aiseago «zafratzeko». Hain zuzen, ingelesak aitzinatu zirela argitu zuen Adémar, eta haien hegazkinek ikusi zuten alemanek zer armada handiak zeuzkaten prest ingelesen kontra oldartzeko. Horregatik taktika aldatu zutela esplikatu zuen.

1918ko urtarrilean ere gisa bereko artikulu bat egin zuen, gudu aitzineko giroa agertuz. Orduan, alemanen oldarraren beha zeuden, amerikarrak Europara heldu aitzin oldar handi bat egin nahi zuten eta Paris hartu, Adémaren hitzetan. Alemanian ere solas berak zirela gehitu zuen, baina azpimarratu zuen hori bitxi zela, horrelako oldarrak nehork jakin gabe abiatzen baitziren. Adémaren ustez, Gilen II.a enperadoreak oldar hori egingen zutela sinetsarazi nahi zuen herritarren animatzeko. Baina ez zuen erraten oldarra non egingen zuen. Bitartean, Frantziako soldaduak zain zeuden, elurretan¹⁰⁸². Adémaren artikulu horiek xehetasun gutxi ematen zuten gertatuko zenari buruz; gisa guziez, informazioarik ez zen heltzen, erasoak sekretupean prestatzen baitzituzten. Baina horren gainetik, gudu

¹⁰⁷⁹ Manex Hiriart-Urruti, «Oldar handia», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 5a.

¹⁰⁸⁰ Blaise Adéma, «Ez ahantz», *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 16a.

¹⁰⁸¹ Blaise Adéma, «Karraskak», *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 16a.

¹⁰⁸² Adéma, «Goait». 1918/1/11.

aitzineko kalkuluei buruzko irakurketa bat eskaini zuen; urrats taktikoen garrantzia ulertarazi zuen, bere gisan.

Gertatuko ziren ofentsiben harira, zurrumurruak anitz zabaltzen ziren, François Cocheten arabera: Ukaldi handiari buruzko zurrumurruak zabaltzen ziren, eta horiek gudarien beldurra elikatzen zuten, baina diskrezioari ere kalte egiten zioten. Zurrumurruetan zabaltzen ziren aurreikuspenak ez ziren beti egiaztatzen, baina beste batzuetan franko zuzen zebiltzala dio Cochetek. Baina oroz gainetik, ukaldi handiari buruzko zurrumurru horiek azken ukaldi gisa bizi zituzten soldaduek¹⁰⁸³. Hori kontuan harturik, ezin gara harritu *Eskualduna* astekarian ere etorriko ziren ofentsiben harira mintzatzeaz, eta ofentsiba horiek gerla trenkatuko zutenak bezala aurkezteaz. Itxaropenari eusteko eta baikortasuna zabaltzeko bide gisa erabiltzen zituzten ofentsiba aurreikuspen horiek.

b) Verduneko adibidea

Guduak berak aipatzean, egia erran, ez zuten xehetasun handirik ematen gorabehera militarren inguruan. Verduneko gudua, Lehen Gerla Mundialeko gudurik aipatuena edo aipatuenetarikoa, maiz izan zuten aipagai *Eskualduna*-ko idazleek, baina, funtsean, orokortasunak kenduta, xehetasun militarrik ez zuten aipatu. Blaise Adémak gaia aipatzen zuenean, gauzak aliatuen aldera itzulikatzen zirela azpimarratzen zuen. Behin, adibidez, Alemanek Mort-Homme mendixka hartu zutela, baina geroago ez zutela hartu aitortu izana aipatu zuen, ohartaraziz alemanek gaitzeko gezurrak kontatzen zituztela eta Frantziako gobernuak erraten zuen guztia egia zela¹⁰⁸⁴. Beste batean Verduneko gudua aliatuen alde trenkatzen ari zela azpimarratu zuen, oraino 1916ko maiatz hastapena baizik ez zela:

Verdunen ahaleginak egiten ari dira alemanak, baina ez dute lortzen; laster beste bataila handi batzu izanen dira Errusian, Frantzian eta Balkanetan.

Beira bada zer gertatu den Verdun aldeko gudian. Badakizue baduela bi ilabete eta erdi gudu horrek hasia dela. Orai iduri du bururatuhea dela, Alamanak, aitzinatzeke edo hartu erreketan ihardokitzeke orde, gibelerat baitoazi.

Beraz, haste hartan, han ziren jeneralek, ikusirik zer oste handian heldu zitzaieten etsaia gainerat, gaztiazten diote Joffre buruzagiari ez ditekela ihardok. Hunek berehala egortzen du harat bere ondoan zuen jeneral-nausi bat. Jeneral-nausi hori badoa, eta, oren bat osoa othoitzean egon ondoan, manatzen

¹⁰⁸³ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 123.

¹⁰⁸⁴ Blaise Adéma, «Hango solasak», *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 14a.

*du zer behar den egin. Etsaiak ez ditezke gehiago aitzina, eta, erran diteke ordutik Verdun hiria Alamanen aztaparretarik beiratua zela.*¹⁰⁸⁵

Gudu hartan zernahi gertatu zen, eta ez zen dena Adémak kontatzen zuen bezain sinple, baina *Eskualduma*-ren mezua sinplea zen: aliatuak irabazten ari ziren. Jean Etxeparek ere halatsuko mezua zekarren:

*Bizkitartean, Verduneko intzaurra ezin hautsiz, haginak handizki behartzen ari zaizkiote.*¹⁰⁸⁶

Alemanek Verdunen sekulako ofentsiba hasia zutela, baina helburua ezin lortuz ari zirela aditzera eman nahi zuen. Orokortasun handiak baizik ez ematea eta xehetasun militarrek isiltzea ez zen *Eskualduma*-ren joera bakarrik. Verduneko guduaren denboran, zentsura zorrotz zuten, Olivier Forcaderen arabera. Alemanek eta frantsesek Verdunen egiten zituzten mugimenduak isilpean atxikitzeko agindua zegoen; are gehiago, armadak non zeuden zehaztea eta hildakoei buruzko datuak – alemanenak barne – ematea ere debekatua zen, alemanek inolako ondorioz ez zezaten atera:

*Cette stratégie de non-information est maintenue au mois d'avril et mai 1916. [...] De même, les succès français ne doivent pas être grossis par l'optimisme excessif de la presse selon la consigne générale du 27 juin 1916. Verdun devient alors l'un des enjeux des débats du premier comité secret de la Chambre. L'information est définitivement étouffée, pendant puis après les combats.*¹⁰⁸⁷

Zentsuratzailerak agindu zorrotzak ukan zituzten Verduneko gudu garaian, inoiz baino adiago egon zitezen argitaratzen zenari begira, Françoise Navet¹⁰⁸⁸-ek dioenez: informazio militarrek pasatzen ez uzteko aginduz gain, buruzagitza militarri edo Frantziako Gobernuari egindako kritikak agertzea ere ez zen haizu, ez eta ere guduaren deskribapen errealistegiak egitea.

Baina zentsura horren gainetik, Verduneko guduari buruzko zenbait xehetasun agertu ziren *Eskualduma* astekarian, 1916ko ekainaren 9an, *Zerbitzari* eta Jean Saint-Pierre gudu lekutik itzuli zirenean, Verduneko gudua oraino ez zela bururatua. Haien lekukotasunak aipatu aitzin, Ansoborloren hitzak ekarriko ditugu, Euskal Herriko erregimentuek Verdunen zer ikusi zuten azaltzeko:

On parle beaucoup de VERDUN et de la résistance sans esprit de recul. Division et Régiments vont tenir ainsi du 20 au 29 Mai 1916 devant les ruines de FLEURY, les Forts de DOUAUMONT, de VAUX et de SOUVILLE, le ravin de la CAILLETTE dans des conditions inimaginables en tâchant de s'organiser pour tout subir y compris les gaz et se battre jusqu'au corps à corps. Les pertes sont déjà sérieuses dans les boyaux des derniers hectomètres des relèves, les bombardements incessants, l'usure des Divisions rapide.

¹⁰⁸⁵ Blaise Adéma, «Jainkoa gurekin», *Eskualduma*, 1916ko maiatzaren 5a.

¹⁰⁸⁶ Jean Etxepare, «Gerlaren goiti-beheitiak», *Eskualduma*, 1916ko apirilaren 21a.

¹⁰⁸⁷ Forcade, «La censure politique en France pendant la Grande Guerre», 138.

¹⁰⁸⁸ Navet, «Verdun et la censure».

"On vit parmi les morts et les mourants, au milieu des cris et des râles des blessés; plus de vivres et plus d'eau; c'est pendant deux jours de supplice de la faim et celui plus épouvantable encore de la soif. C'est l'enfer, mais un enfer où l'ennemi ne passe pas et subit lui aussi des pertes énormes. La Division séjourne dix jours dans son secteur. C'est moins que la durée normale des séjours des grandes unités françaises à VERDUN. Le 49 a perdu en 10 jours 218 tués et 118 disparus. On ne compte plus les blessés."¹⁰⁸⁹

49. Infanteria Erregimentuak jasan zituen kalteak handiak ziren, eta gerla ondoko lekukotasunetan eta historian kontatu zen bezala, Verduneko gudua ikaragarria izan zen. *Zerbitzari* ere biziki ilun mintzatu zen Verduneko gudutik itzuli zenean:

Ez nuke haatik juramentu egin nahi batzuek eta bertzeek ez dutela beren lo gozoan ametsik egiten. Nahi-ta ez noizbeit gogorat ethorri behar dute Verdunen ikusi ditugunek: lurra hala itzulia iraulia hainbertze eremutan, non begiak heda ahala ez baitute belhar ondo bat ikusten; oihanak hala chirchikatuak, non dudatzen baituzu sekulan arbola ondo bat ere izan den han; herrichkak eta herriak hala erroz gora emanak non harri meta bat baizik ez baita gehiago ageri, etche orde.... Bainan gure ametsetan gehienik ikusiko duguna da naski hauche: Fleury deitzen zuten herrichka churi pollit batean, Douaumont delakotik hurbil, emazteki gaztesko bat jarria, hamarbat hilabebetako haurra besoetan, hila; eta urruntchago, bi gizon zahar, elkarri lotuak eskua eskuan adio errateko bezala, hilak hek ere...¹⁰⁹⁰

Zerbitzari-ren pasarte hori da, beharbada, gerla guztiko kroniken artean, pasarte hunkigarriena eta gogorrena. Fleury Douaumonteko gotorlekutik pixka bat beherago zegoen herri bat zen; gaur egun ez da deus gelditzen, obusek utzi zuloak baizik ez. Handik berrehun bat metrotan dago Verduneko guduaz gogoratzeko museoa. *Zerbitzari*-k Verdunen inguruko suntsiketa xeheki deskribatu zuen, baina bukaerakoa, herri batean ama eta haurra hilak eta bi gizon zahar hilak deskribatu zituen unea argazki bat bezala irudika dezakegu. *Zerbitzari*-k margolan baten gisan kontatu zuen Verdunen ikusi zuena, zein gogorra zen aitortuz. Gerlari buruko hain hitz gogor eta errealistak ez ziren maiz ageri *Eskualduna*-ko artikuluetan; horregatik, *Zerbitzari*-ren atal hau aski berezitzat jo dezakegu. Kronika berean, Verdunen bizi izan zuena infernuarekin konparatu zuen:

Eta zer diote bada Eskualdun gerlariek?

Ifernua zenbeit egun iraganik orai zeruan direla. Eta zer ifernua zen!...

Huna beraz nun garen orai sutik urrun, demendreneko irriskurik gabe. Kanoien orroa bera ez da ageri. Pausatzeko ez du guti balio.

[...] Zer loak ere! Verdunen begirik ez ginuen hesten ahal. Alde batetik, etsaiak jazarriko zaizkigulako beldur mina, eta bertzetik kanoia mota guzien musika dorphea. Hemen, ilhuna sartu orduko, gure

¹⁰⁸⁹ Ansoborlo, *Histoire militaire de Bayonne: 1789-1940*, 240.

¹⁰⁹⁰ Jean Elizalde, «Gure ametsak», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.

*lastorat goazi, oiloak iduri. Eta hitz dautzuet ez dugula oren handirik galtzen loaren beira. Lo bat, lo handi bat oilarra kukurukuka hasi arte. Zer bizia, hau!*¹⁰⁹¹

Verdunetik itzulirik, pausalekutik kontatu zuen hango bizia biziki gogorra zela, eta pausan anitzez hobeki zirela, jateko eta edateko eskasik gabe, eta lo ausarki eginez. Atsedean lekuko poz horren handitasunak erakusten zuen Verduneko zein gogorra zen. Verdun «ifernua» bazen, pausalekua «zerua» zen.

Jean Saint-Pierrek ere, oro har *Zerbitzari* baino gogorrago agertzen bazen ere, «ifernu» hitza erabili zuen Verduneko aipatzeko:

Bagoazi berriz pausu tokira, hamar bat egun emanik gudian.

Arte hortan ikusi ditugunak hemen uzteko hobe litezke. Gudu luze horren egun borthitzenetarik bat atzeman dugu, nahiz ez den bertzentzat ere egun ezitirik hemen gaindi.

*[...] Jainkoak lagundu ditu gure lagun gaizoetarik hanitzak, mirakulu bat baita hoinbertze gizon nola jali diren ifernu hortarik, den gutieneko minik gabe.*¹⁰⁹²

Zerbitzari-ren eta Jean Saint-Pierreren kronika ilun horiekin, 1916ko ekainaren 9ko zenbakia aski berezia zen. Verdunetik itzultzean, ohiz kanpoko tonuan idatzi zuten; horrek ez du erran nahi gerlari buruzko jarrera aldatu zutenik edo baikortasuna galdu zutenik, baina gerlaren gogortasuna hain gordinki kontatzea ez zen ohikoa. Baina haizu ote zen Verduneko guduaz halako xehetasunen ematea, bereziki *Zerbitzari*-k egin zuen margolan gisako haren egitea? Françoise Naveten arabera, inondik ere ez:

*Lors des premiers bombardements dont la ville est victime, le bureau de la presse fait preuve d'une extrême sévérité et censure tout ce qui a trait aux destructions. Avec les mois, les censeurs laissent passer quelques descriptions sur l'aspect de Verdun; ainsi, les rues qui ne sont plus qu'un amas de pierres, de débris de poutres calcinées où se dressent des pans de murailles branlants et d'où monte par-ci, par-là une mince fumée tremblotante, les fils du télégraphe et du téléphone tombés et enchevêtrés qui barrent certaines rues, et les maisons décapitées, éventrées du haut en bas. En revanche, le bureau de la presse supprime toute description sur les bombardements des édifices religieux (cathédrale et vieux cloître gothique).*¹⁰⁹³

Ez zen haizu bonbardaketek eragin suntsiketen kontatzea, ez eta ere aitzindarien kritikatzeko, eta zentsura zorrotz aplikatzen zen. Baina memento batetik goiti, eskuzabalago jokatu zuten eta zenbait herri suntsituen xehetasunen ematea onartu zuten, beti ere elizen bonbardaketen aipatzea debekatzen segituz. Beraz, *Zerbitzari*-ren kronikaren gisakoak onartuak zirela pentsa daiteke, ordukotzat bost hilabete iragan baitziren Verduneko gudua hasi zenetik.

¹⁰⁹¹ Jean Elizalde, «Eta zer diote bada Eskualdun gerlariak?», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.

¹⁰⁹² Jean Saint-Pierre, «Berriz pausura», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.

¹⁰⁹³ Navet, «Verdun et la censure».

Hala ere, *Zerbitzari*-ren eta Jean Saint-Pierreren kronika horietan ere ez zegoen borrokei buruzko informaziorik. Stéphane Audoin-Rouzeauk auto-zentsura izan zela dio, eta *Eskualduna*-ko berriketarien aldetik ere halatsuko zerbait izan zela pentsa daiteke. Audoin-Rouzearen arabera, gerlatik landa, gutxiengo batek baizik ez zuen lortu bonbardaketak eta erasoak xeheki azaltzea, gainerakoek ez zuten gauza handirik kontatu:

*Pourtant, l'origine de ce silence chez certains, de cette déformation du souvenir chez d'autres, est à chercher plus sûrement dans la terreur profonde que les combats ont inspirée à ceux qui ont risqué leur vie. Pour la plupart d'entre eux, taire la réalité de ces combats, masquer cette expérience de la peur, tenter d'en oublier l'atrocité, fut une nécessité d'ordre psychologique. Pendant la guerre déjà, cette nécessité paraît si impérieuse qu'elle oblige la majorité des combattants à éviter ce sujet, dans leurs correspondances comme dans leurs journaux.*¹⁰⁹⁴

Soldaduak Verduneko borroketan pairatu zutena kontatzeko ezintasunean zirela kontuan hartuz, pentsa dezakegu *Zerbitzari*-ren deskribapenak gogortasunaren ataltxo bat baizik ez zuela islatu. Funtsean, zenbait urteren buruan, 1936an, *Eskualduna* astekarian idatzi zituen eta Patri Urkizuk liburu batean bildu zituen oroitzapenetan ere idatzi zuen ez zuela hitzik han ikusi zituenen esplikatzeko¹⁰⁹⁵.

Zerbitzari ez zen baikor itzuli Verdunetik. 1916ko azaroan ere, frantsesek Verdunen irabaziko zutelako solasak zabaldu zirenean, ez zen sobera fida:

Egun fama dabila Verdunen urrhats handi bat egin dugula, Vaux eta Douaumont direlako dorreri buruz. Agian egia da. Bainan dorre horiez jabetzea bat da: horien gero zaintzeko izanen da lan. Ez dezagun beraz oraino espantu goregi egin.

Ez da gutiago egia, nihon ere ez duela gehiago Alemanak nahi duena egiten. Han zituen kanoia ikaragarrien gatik, Verdunen berean gaina dugu. Guk ere kanoi ederrak baditugulako frog.

*Horieri esker, goazi bethi aintzinat Somme delakoan. Eta Anglesen arabera, handienak ikusteak ditugu. Ochala.*¹⁰⁹⁶

Baikor ageri zen *Zerbitzari*, baina ez zen baikortasun itsu batean sartzen, gero ere izan zitezkeen zailtasunak ikusten baitzituen. Jean Saint-Pierre are baikorrago mintzo zen, 1916ko maiatzean eta ekainean berean, Verduneko «ifernua» aitortu zuenean:

Etsiak dio bere kazetetan izigarria dugula Verdun-en artilleria-ko tresneria. Zerbeit gisaz behar du alabainan jendeari erakutsi nola dauzkagun lurrari josiak. Hoinbertze indar eta zalapartarekin jazarriak zaizkigularik hiru hilabete huntan! Egiaren erraiteko, nunbeit zerbeit bada : ezen ikusi ditugu presuner Alemanak harritzen gure kanoietarat hurbiltzearekin, eta obusak atheratzean egiten duen orro samin harrek berak lurrerat aurdikitzen, gutartean zirelarik deskantsuan.

¹⁰⁹⁴ Audoin-Rouzeau, *A travers leurs journaux: 14-18, les combattants des tranchées*, 73.

¹⁰⁹⁵ Elissalde, *LVII.a gerlan*, 39–45.

¹⁰⁹⁶ Jean Elizalde, «Gerlako berriak», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 3a.

Marka onak, hoik oro, phereka ederrik batela bildurik bizkar hezurrean: bainan kanoi handi zonbeit oraino fornitzen badaukute, zalhu zalhua, hitzeman bezala, lana doblatuz gau eta egun, bertzerik ikus dezakegu, dembora laburrak barne. Ezen soldado frantsesa sekulan ez bezalako kurajez bethea dugu, gogoa fermu eta bihotza bero.¹⁰⁹⁷

Saint-Pierrek erakutsi nahi zuen frantsesak nagusi zirela, eta jasandakoak jasanik ere, ez zuen burutik kentzen gerlaren irabazleak frantsesak izanen zirela, ondoko pasarte honetan bezala:

Ez da gehiago dudarik Alemana muthurretik daukagula hemen, bere zalaparta izigarriean hezirik.

Badakigu zer gostarik, gudu hunek ez baitu parerik izan egundaino.¹⁰⁹⁸

Verduneko guduaren aipuetan, borroka hura anitz kostatzen ari zitzaizela aitortu zuten *Eskualduna*-ko idazleek. Bizi zutena infernua zela erratera ere heldu ziren. Baina horren guztien gainetik, etsipenari ez zioten lekurik uzten, eta beti konfiantzaz beteriko mezuekin osatzen edo bururatzen zituzten beren artikuluak.

c) Andereen Bidea

Euskal Herritik joan ziren soldadu eta erregimentuek, gerla denboraren zati handiena Andereen Bidean iragan zuten, Craonne herriaren inguruan. 1914ko irailetik 1916ko udaberrira egon ziren lehenik, eta Verduneko gudutik landa ere hara itzuli ziren, eta 1917an, Andereen Bideko gudu entzutetsuan parte hartu zuten. Gudu hari buruzko zenbait xehetasun kontatu zituen Jean Saint-Pierrek. 1917ko maiatzaren 18ko zenbakian, egunez egun kontatu zuen gudu hartan, euskaldunen erregimentuek egin zutena. Baionako 49. eta Paueko 18. Infanteria Erregimentuek¹⁰⁹⁹ borroka gaitza izan zuten maiatzaren 4an eta 5ean, Kaliforniako goi-lautadan (Plateau de Californie), Craonne herria alemanei hartzeko. Saint-Pierre, 18. Infanteria Erregimentukoa zen, orduan.

Maiatzaren 4an, arratsaldeko 6etan, maldan gora abiatu zirela idatzi zuen, guduaren deskribapen biziki zehatza eginez. Ageri da gudua bizi izan zuela:

Arratsaldeko sei orenetan ateratu ginen oro betan, sei gizon lerro, orok iduri gizon bat, urhats berean, hats berean, hain zalhu nun etsaiaren gainera helduak baikenen oartzeko astia utzi gabe. Gure kanoi ttipien erauntsiak idekitzen zitzaunkun bidea, eta hain hurbildanik josiak ginauden gure kanoien obuseri nun gutarik asko erauntsiaren barnean sartuak baitziren, etsaiari oldartzeko oraino harritua zagon arte hartan.

¹⁰⁹⁷ Jean Saint-Pierre, «Verdun-eko gudua», *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 26a.

¹⁰⁹⁸ Jean Saint-Pierre, «Frantziaren entsegua», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.

¹⁰⁹⁹ *Historique du 49^e régiment d'infanterie pendant la guerre 1914-1918*; *Historique du 18^e régiment d'infanterie pendant la guerre de 1914-1918*.

Ez dut egundaino deus ederragorik ikusi gure gizonen igaite hori baino. Erran daukute geroztik gure jeneralek nigarra jauzi zaiotela begietara, beren soldadoak ikustearekin, oro hain xuxen, zoin beren lerroetan, oro airean zeramatzela gain hartara heltzeko lehiak, batzu xutik arman bermatuz, bertzeak zango eta besoen, pino xehakatuen erroeri lotuak, bethi gorago.

Etsaiak etzuen gizon itchurarik. Oro besoak alchaturik gure artean sartzen ziren. Aterben barnean geldituak petrolaz erre dituzte. Lana laburrago baitzen gisa hortan, eta ttipiango hirriskua.

Anhartean baginoazin bethi aintzina. Hamaseigarren minotan gainera heltzen ginen. Hogoi minota baino gutiagoz errana zuten etzela nehor heltzen ahal, eta hortakotz ukana zuten manua artillurek arte hortan kanoiez patar gainaren joitea, eta gero ordokia gorago, ordukotz heltzen balinbaginen.¹¹⁰⁰

Pasarte hau artikulu luzeago batetik hartua da. Oldarra bera baino lehen, Craonne herriaren testuingurua azaldu zuen, nolakoa zen, non kokatua zen, eta zein zen Craonneko egoera militarra eta zergatik zen hain garrantzitsua herri haren hartzea. Craonne herri hura ez da gehiago existitzen. Oraingo Craonne metro batzuk beherago berreraiki zuten, lehengo Craonne gerlan suntsitu baitzen. Orain zuloak baizik ez dira gelditzen, elizaren arrastoak, hilobi baten aztarnak... Kaliforniako goi-ordokitik biziki hurbil dago, ia kaskoan. Herri hartara heltzeko deskribapen zehatzak eskaini zituen Saint-Pierrek, ia minutuz minutu. Gero, gaua nola iragan zen kontatu zuen, eta beste zati batean, bigarren eraso eguna, goizeko 9etan hasi zutena:

Oreanean xut jauzian lotzen ginen bideari sei gizon lerro, ibaia ibaia deraman bezala, bat bertzean jarraitzen zirela. Jausten gira harrabots izigarri baten barnean, hixtu, arro, herrauts, eta khe, etsaia gure aintzinean burdin erauntsi batek karraskan ehotzen duelarik. Bagohazi bethi aintzina. Huna nun zoko guzietarik ikusten dugun etsaia lasterka guri buruz, besoak gora, lerroka, harritua armak lurrerat utzirik. [...] Gure ondotik jin diren erreximenduek beren lerroak atzeman dituzte gu gelditu tokian. Verduneko orhoitzapenez bertzerik ditugu oraiakoak: Orduko gudua, gudu itsu nahasi bat. Gizon hanitz galdu ginuen deus handirik egin gabe. Hemen biziki gutiago galduz, hamar mila etsai bederen lehertu ditugu bi egunez, beren geriza toki azkarrena aztaparretarik kentzen giniotelarik.¹¹⁰¹

Funtsean, maniobrak berak nola egin zituzten ez zuen anitz deskribatu, baizik eta gudua laburra izan zela eta alemanek laster amore eman zutela. Hala ere, ohargarri da azken ofentsibaren deskribapen bizia egin zuela. Bide batez, urte bat lehenagoko Verduneko porrotaren aitortza egin zuen, baina beti ere Craonneko garaipena ohoratzeko. Baikor agertu zen Andereen Bideko ofentsiba hartaz, baina helburu osoa ez zuten bete, Jean Ansoborloren arabera:

Enfin gardons en mémoire deux cas de situations offensives. La première celle des 4 et 5 Mai 1917 à CRAONNE, dans un secteur que la Division retrouvait, au Nord de l'AISNE. L'attaque générale avait pour but de percer le dispositif ennemi, elle échouera. Mais dans sa zone d'attaque, qu'il connaît bien

¹¹⁰⁰ Jean Saint-Pierre, «Maiatzaren laua», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.

¹¹⁰¹ Jean Saint-Pierre, «Maiatzaren bortza», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.

*comme ses frères du 34 et du 18, le 49 atteint et conserve tous ses objectifs des plateaux de CRAONNE, de VAUCLERC et de CALIFORNIE.*¹¹⁰²

Andereen Bidean odol anitz isuri zen eta ez zen maiatzaren 5eko garaipen harekin trenkatu. Baina *Eskualduna*-k egun hura garaipen handi gisa aurkeztu zuen. Blaise Adémak ere azpimarratu zuen frantsesak Craonnez jabetu zirela, nahiz eta alemanek ez zuten uste halakorik gertatuko zenik. Adémak azpimarratu zuen euskaldun anitzek parte hartu zutela gudu hartan¹¹⁰³.

Jean Saint-Pierrek beste gudu batzuk ere kontatu zituen, xeheki, hala nola 1917ko ekainean Craonne eta Kaliforniako goi-ordokiaren inguruan izan zituztenak¹¹⁰⁴. Gudu bera nondik eta nola hasi zen aski zehazki kontatu zuen, baita ere erregimentu bakoitza nola lotu zitzaion borrokari. Ekainaren 2an izan ziren borrokak Craonne inguruan, alemanak ia hilabete bat lehenago galdu eremuaren berreskuratzeraz ahalegindu baitziren¹¹⁰⁵. Saint-Pierrek guztiz baikorki kontatu zuen gudu hura, beti azpimarratuz Baionako eta Paueko erregimentuko soldaduek zein ongi egin zuten beren lana eta nola nagusitu zitzaizkion etsaiari. Nahiz eta aitortu gudura joateko gogo handirik ez zutela, hala ere, kutsu baikorrez kontatu zuen gudu hura. Ukan zailtasunak aitortzen bazituen, beti ongi bukatzen den istorio baten gisan kontatu zuen.

d) Serbiako adibideak

Borroken xehetasun gutxi ematen bazuten ere, *Eskualduna*-ko idazleen artikuluekin, gerlaren osotasun bat aurki zitekeen. Serbian gaindi iragan ziren borrokak edo mugimenduak ere aipatu zituzten, zenbait aldiz. Euskal Herriko soldadu batzuk, Salonikan barna, Serbiara igorri zituzten 1915ean. Hori gertatu zitzaion Zuberoako laborari bati, artikulua A.I. inzialekin identifikatzen zituenari. Hainbat gutunetan, Serbia eta Grezia inguruetan ikusi eta bizi izan zuena kontatu zuen. Ez zitekeen hara joan zen bakarra, Jean Saint-Pierrek hainbat asteko isiltasunaren ondotik idatzi zuen testuaren baitan fidatuz gero: isiltasun horregatik irakurleek hila zela edo Serbiara igorria usteko zutela idatzi zuen¹¹⁰⁶. Saint-Pierre ez zuten Serbiara igorri, ez. Baina beste batzuk bai.

¹¹⁰² Ansoborlo, *Histoire militaire de Bayonne: 1789-1940*, 241.

¹¹⁰³ Blaise Adéma, «Zer guduak!», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 11.

¹¹⁰⁴ Jean Saint-Pierre, «Pauekoen gudua», *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 13a.

¹¹⁰⁵ *Historique du 49^e régiment d'infanterie pendant la guerre 1914-1918*; *Historique du 18^e régiment d'infanterie pendant la guerre de 1914-1918*.

¹¹⁰⁶ Jean Saint-Pierre, «Gerlarien berri», *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 5a.

Gérard Fassyren arabera, 1915eko udazkenean hartu zuen indarra espedizio bat Balkanetara igortzeko ideiak, Bulgaria Alemaniaren eta Austria-Hungariaren alde gerlan sartu ondotik¹¹⁰⁷. Gerla guztia kontuan harturik, Balkanetako borroka bigarren mailakotzat jo izan direla idatzi du, hastapenean hamarnaka mila gizon baizik ez zituztelako igorri¹¹⁰⁸. A.I. ere hastapeneko talde hartako bat zen, 1915eko udazkenean atera baitzen Marseillako portutik.

A.I.k *Eskualduna*-ra igorri zituen kroniketan ez zuen Verduneko edo Andereen Bideko guduen gisakorik kontatu, bai ordea leku batetik bestera egiten zituzten kilometroak. Eta kilometro horietan zehar, borroka batzuk gertatzen zirela kontatzen zuen. Batean esplikatzen zuen gauaz aitzinatzen zirela, oinez, errekek ere zeharkatu behar zituztela, nahiz eta ur hotza izan eta zubirik ez zegoen. Bide hartan, bulgariarren alde ari ziren *komitadji*-en¹¹⁰⁹ oldarrei kasu egin behar zieten, erne egonez:

Bulgaroak franko hurrun baratzen ziren. Hargatik khasurik handienaren egitia kombeni zeikun, zeren baziren Bulgaroen athe ari ziren kartieleko gizounak hanitch ountsa harmaturik, komitadji deitzen. Gorderik egoiten ziren zokho eli batetan eta, gutienik ugurikitzen gunianian, hantik tiro bat. Hambat sordei baztertzen zen soldadoarentako; komitadjiiek ehaiten zien eta korphitza arround bilhaizten.

Gibel jiten ginen hirourgerren egunian komitadji bat eskietara bildu gunian frantzes soldado arropan bestiturik. Goustarik ederrenian ihizettoa bazabilan goure artian noun bere hokhia eginen zian. Hatsarrian etzion ihoure arrankurutzen. Goiz hartan, bere fusulla bizkarrian, mendichka baten bizkarrian hazat-hounakatzen zelarik, alegia etsaiaren gouaitan, frantzes aintzindari batek galthatu zoan ea zer kompañako zen. Goure gizonttoa dudatu zen eta haren galtzia hartarik jin zen. Aintzindariak berehala karrerazi zian, estekaerazi eta behar zen lekhialat igorri. Jakin dut hantik laster jujatu ziela eta hiltzera kondenatu.¹¹¹⁰

Hots, armada arruntaz gain, milizia bati ere buru egin behar izaten zioten Balkanetara joan ziren soldaduek, eta arrisku horien berri eman zuen A.I.k;

Beste batean, Serbiako Guergeli herrira joan zirela kontatu zuen. Helburua Grezian sartzea zen eta aliatuen bi armadak elkarretaratzea, baina bulgariarrak sartu ziren artetik eta gauzak ez ziren nahi bezala joan. Gero guduak, tiroak eta kanoikadak izan zirela idatzi zuen A.I.k, Guergeli sutan zegoela eta ikusgarri penagarria zela gehituz:

¹¹⁰⁷ Gérard Fassy, *Le commandement français en orient: octobre 1915-novembre 1918: étude historique d'un commandement opérationnel français à la tête d'une force militaire alliée* (Paris: Economica, 2003), 16.

¹¹⁰⁸ Ibid., 7.

¹¹⁰⁹ *Komitadji*-ak Turkiaren, Serbiaren eta Bulgariaren kontra borrokatzen ziren mazedoniar batzuk ziren, batzuetan baten kontra, besteetan besteen kontra, estatu horietatik batek ala besteak finantziatu. Gerla denboran, estatu horiek erabiltzen zituzten gerlako ekintza batzuk egiteko. Aliatuek bulgariarrekin lotu zituzten, Bulgariako armadaren irudia histeko. Xehetasun gehiago: Jean Perrigault, *Bandits d'Orient, les comitadjis bulgares* (Paris: Valois, 1931).

¹¹¹⁰ A.I., «Zalonikatik letera», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.

Guergeli deithu Zerbiako azken hirialat behar umen gunian gai hartan heltu eta, hanko zubian, uhaitzaren beste gaintialat igan Greziako bidiaren atzamaiteko. Laou orenez ibili ginen, ihounere ukhuru gabe. Guergeliko hiria trebesatu gunin, hanko karrika hersiak gainti: gara esker utzirik igan ginen herri hortako zuku eder eta berrian. Bizpahirour orenez paousa eta berriz bidiari loth. Zerbian behera uhaitzaren bi aldetarik eraisten ziren goure armadek hor zien behar algarganatu, behin behin etsaiari hobeki burhurtzeko eta, gisa horrez, Greziako lurretan sobera damurik gabe sartzeko.

[...] Haserazi guntin batallan goure lagun setiatu rik zirenak behar guntiala libratu. Eguna oro igan gunian kourri eta tirokan. Goure kanouak ere etziren ichiltu. Hain chuchen lanho tink bat jeiki zen: hogoi metratan deusere ezin ikhous. Ulhuntzia jin zen eta, gerokoz, unguraturik ziren eta Bulgarek beren presouneretako khountatzen zien goure soldadoak ahal ukhen zien goureki juntatu. Ordu artino zuba chutik zagon, beha jeniako gizounak han ziren haiduru jaouzerazi beharrez. Noiz eta ere azken soldadoa igan beitzen, mitcha phiztu zien eta herots ikharagarriko bateki zapartatu zen burduñazko zuku ederra.

Jari ginen ordian Greziarat buruz. Buria unguratu nian azken lo batentako: Guergeliko hiria eta gara oro sutan. Bihotza lastu zeitan. Sekulan etzait ahatziren holako ikhousgarria!¹¹¹¹

Kronika honen arabera, A.I.ren taldeko soldaduek helburua bete zuten, bulgariarren esku zeuden beren presoak libratzea lortu zutelako eta Grezia aldera joan zirelako. Baina borrokaren emaitza lazgarria izan zela idatzi zuen, herri bat sutan utzi baitzuten. Operazio hori aski xeheki kontatu zuen, zubiaren botatzeari buruzko datuak emanaz, adibidez. Baina, baikortasun kutsurik ez zuen artikulu horrek, Jean Saint-Pierreren testuetan aurki zitekeen gisan.

2. Aitzinatzeak azpimarratzen

Astez asteko berriak hartzen baditugu, ohartuko gara berri txarrik edo balorazio txarrik ez zutela ematen. Ematen zituzten berriak onak ziren, beti Aliatuek egiten zituzten aitzinamenduak aipatzen zituztela ikusiko dugu lehenik. Are gehiago, egoera ederresten zutela eta espantuak egiten zituztela ikusiko dugu gero. Dena den, ñabardura batzuk aipatu behar ditugu, aitzinamenduak ez zituztelako beti espantuka aipatzen, eta zuhurtziaz idazten ere bazekitela erakutsi zutelako.

a) Beti aitzinamenduak aipatzen

Gerlako borroken berri ematean, noizbehinka guduen xehetasun batzuk agertzen bazituzten ere, gehienetan, gudua ondo ondorioetara mugatzen ziren, *Eskualduna*-ko berrikeriak. Eta bereziki aipatzen eta azpimarratzen zituzten ondorioak aliatuentzako

¹¹¹¹ A.I., «Zalonikatik letera». 1916/3/24.

baikorrek zirenak izaten ziren, hots, aliatuek aitzinamendu bat egin zutela kontatzen zutenak. Gibelatzeak ere gertatzen ziren, baina Jean Saint-Pierre eta *Zerbitzari*-k borroken ondoko aitzinatzeak, garaipenak, herri hartzeak eta abar anitzez gehiagotan aipatzen zituzten. Egoera txarra izanagatik, hala nola lur lohitsuak, adibidez, zenbait herri hartzen zituztela azpimarratzen zuen Saint-Pierrek, 1915eko urtarrileko artikuluko batean bezala¹¹¹². Maiz azaletik aipatzen zituen batean edo bestean egindako aitzinamenduak. Adibidez, Soissons inguruan egin zuten aitzinamendu baten ondotik, alemanek berreskuratzeko ahalegina egin zutela idatzi zuenean, hau komentatu zuen:

*Haurrek ere gisa berean egiten dute nigar eta orro, galduak berriz eskuratu nahiz.*¹¹¹³

Alemanei eremu bat kentze horretan, alemanak gutxietsi zituen, haurrekin konparatuz, erakustera emanez bezala, alemanei borroka bat irabaztea gauza erraza zela, gurasoek haurrei zerbait eskutik kentzea bezala.

Beste artikuluko batzuetan, aitzinamendu orokorrez mintzo zen. Adibidez, beren erregimentua beti toki berean zegoela erranik, besteak aitzinatzen zirela idatzi zuen 1915eko apirillean, zehaztuz martxoan Champagne aldean aitzinatu zirela, Verdunetik ezker, eta apirillean Verdunetik beheraxeago. Artikulua idazten ari zelarik, Metzen inguruan Eparges herriaren aitzoneko mendixka bat hartu zutela ere gehitu zuen, «nagusitu» zirela goraiapatuz¹¹¹⁴. Geroago, 1915eko ekainean, berriz ere Soissons inguruko berri eman zuen, aipatuz Ville-au-Bois herrian gudu bortitz bat izan zela baina frantsesek «gaina» zutela¹¹¹⁵.

Beste batzuetan artikuluko oso bat egiten zuen ezker-eskuin izan ziren aitzinamenduen zerrendatzeko, propaganda kutsua zuten artikuluko batzuetan. 1915eko martxoaren 19an¹¹¹⁶, adibidez, Reims-etik eskuin, Argoneko oihanean, gudu handi bat hasia zela idatzi zuen. Egun guzietan aitzinatzen zirela idatzi zuen, frantsesen artilleriak alemanak «lehertzen» zituela txalotuz. Chalons eta Epernay hirien gainean ere ari zirela gehitu zuen, eta ingelesak ia Belgikara heldu zirela edota Turkiara heltzen ari zirela eta itsaso eremu osoa laster beren esku izanen zutela. Beste aste batean, Reims hiriaren eskuinean gudu bortitzak iragan zirela, eta mendixka lerro bat eta mendi kasko bat hartu zituztela idatzi zuen; halaber, Belgikan ere alemanak gibelerara joan zirela zehaztu zuen¹¹¹⁷. Beste batean, aitzoneko asteko

¹¹¹² Jean Saint-Pierre, «Lohia», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.

¹¹¹³ Jean Saint-Pierre, «Aroa», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 22a.

¹¹¹⁴ Jean Saint-Pierre, «Aintzina», *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 30a.

¹¹¹⁵ Jean Saint-Pierre, «Gerlari berri», *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 18a.

¹¹¹⁶ Saint-Pierre, Obrak haste.

¹¹¹⁷ Jean Saint-Pierre, «Aintzina», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 26a.

aitzinamenduen bilduma egin zuen, tokiz toki¹¹¹⁸: Belgikan ingelesak aitzinatu zirela, eta alemanek obus mota berri batekin erantzun zutela, Aisne aldean lasai zeudela, Arras hirian mendixka bat hartu zutela, alemanek Reims-era bonbak bota zituztela eta aliatuak Alsazian aitzinatzen ari zirela kontatu zuen. Oraino 1915eko udaberria baizik ez zen, eta geroak erakutsi zuen gerla ez zela aliatuek espero bezain laster bukatu, eta beraz aipatzen zituen aitzinamendu haiek ez ziren garaipen seinale, nahiz eta baikortasun harekin aurkeztu. Berdin baikor aritu zen, alemanek Soissonseko katedrala erasotzen ahalegindu zirela aipatu zuenean, helburua ez zutela lortu azpimarratu baitzuen. Goraxeago, Arras hirian, aliatuek mendixka bat hartu zietela eta, Belgikan, ingelesak Lillera hurbiltzen ari zirela zehaztu zuen. Baina aitzinamendu horiek aipatzearekin batean, aliatuen eta alemanen indarrak konparatu zituen:

*Guk mila gizonekin egin lana, lau mila gizonekin egin beharrez entseatu dire, debaldetan.*¹¹¹⁹

Esaldi horretan, alemanen indarra gutxietsi nahi izan zuen, erranez lau aldiz gehiago izanagatik, ez zutela lortzen aliatuen heinera heltzea. Artikulu horiek, maiz, biziki orokorrak ziren eta ez beti zehatzak. Beste artikulu batean ere mintzatu zen Arras hiritik gora, ingelesek Lilleren parean egin zituzten aitzinamenduez, alemanei hainbat herri, gizon eta arma hartu zizkietela zehaztuz¹¹²⁰. Batzuetan ez zen deus jakiten, baikortasuna zabaltzeko artikulu huts batzuk baitziren. Adibidez, 1916ko martxoan, Verduneko guduari buruzko aipu hau egin zuen Saint-Pierrek:

*Gure aitzindariak konfientzia osoa daukate, gudu gure alde trenkatuko dela. Otsailaren hogoi-ta seitik goiti, hautsia dago etsaiaren oldarra: geroztik tokiari josia daukagu, adarretarik zezenari lotuak, buruaz ukaldi gaitzak eman ditu, eskuin eta ezker, urhats bat aintzin, urhats bat gibel, han berean geroztik, aste osoak, odol eta haguna dariola.*¹¹²¹

Ulertarazi zuen bakarra zen Verduneko frontea egonkortu zela, frantsesen indarraren ondorioz, eta zenbait egunez hala izan zen. Baina guduaren bukaera baikorra segurtatu nahi izan zuen, nahiz eta oraino hilabete anitez luzatu zen. Dena den, artikulu horretan ez zuen frontearen egonkortzeari buruzko xehetasunik eman; kontrolpean zuten zezenarekin konparatu zuen alemana, denbora gehienez. Berez, horrek ez zuen guduari buruzko informaziorik ematen, baizik eta iruzkina bakarrik.

¹¹¹⁸ Jean Saint-Pierre, «Aste bateko urhatsak», *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 7a.

¹¹¹⁹ Jean Saint-Pierre, «Gure inguruetan», *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 2a.

¹¹²⁰ Jean Saint-Pierre, «Urhats handi bat», *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 28a.

¹¹²¹ Jean Saint-Pierre, «Frantsesa tente», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 24a.

Beste artikulu batzuetan, gainerako aliatuek egin aitzinamenduak ere goraiatzuten zituen, adibidez errusiarrek Austriako Przemysl hiria hartu zuteneko. Hori erranik, alemanek ere austriarren gisan amore emanen zutela iragarri zuen:

Alamania guzia holako zerbeitek atzemanen du azkenean: hatsik ezin hartuz leher egin beharko!

Zer alegantzia gure lerroetan, holako berri on handiak jakiten ditugularik¹¹²²

Gerlako lekutik berriak igortzen zituen baten aldetik, Errusiaren eta Austriaren arteko guduak kontatzea bitxi izan zitekeen, halako berriak berri orokorretan sar baitzitezkeen. Saint-Pierreren lumatik, zuzenean bizi zuena kontatzea izan zitekeen logikoena. Baina aliatuek beste fronteetan ere egiten zituzten aitzinamenduak aipatu, gerla lekuetan zirenek hartzen zuten atsegina eta itxaropena islatu zituen. Helburu bera zen ingelesek eraso aipatu zuenean ere, non Saint-Pierreren arabera, alemanek berehala ihes egin zuten, baitzekiten «xahu» zirela¹¹²³. *Zerbitzari*-k ere halatsu egin zuen batzuetan, ingelesek Belgikan «berriz ere» aitzinamenduak egin zituztela eta Paschendaele herria hartu zutela idatzi zuenean¹¹²⁴.

Berri orokorrez gain, hala ere, bere erregimentuak hartu zituen eremuen berri ere eman izan zuen zenbait aldiz Saint-Pierrek. 1916ko martxoan, bera zegoen tokitik eskuinago, Craonne eta Aisne artean izan ziren guduak aipatu zituen, eta argitu zuen gerla hastapenean han zeuden erregimentuek hartu zuten Ville aux Bois inguruko ordokitik biziki hurbil zegoela. Alemanek gain hura berriz hartu nahi zutela, baina gudu hura isilpean iragaten ari zela zehaztu zuen, prentsak Verdun baizik ez zuelakoan aipatzen¹¹²⁵. Horrez gain, Craonne inguruan egin zituzten aitzinamenduak artikulu frankotan aipatu zituen. Batean azaldu zuen 1917ko apirilean nola aitzinatu ziren Hurtebise etxaldean eta Craonnen¹¹²⁶. Aste baten buruan berriz idatzi zuen Craonne herria hartu zutela apirilaren 16an, eta maiatzeko lehen egunetan Euskal Herriko soldaduek gunearen gainerako zatia berenganatu zutela¹¹²⁷. Artikulu beraren segidan, gudu hartan egin aitzinamenduak are gehiago azpimarratu zituen¹¹²⁸.

Zerbitzari-k ere frantsesek egiten zituzten aitzinamenduak aipatzeko joera bazuen. Eta bere erregimentuak edo inguru hartakoek egiten zituztenetan jartzen zuen arreta. Batean aipatu zuen, alemanak haien erreketara isilka sartu zirela eta ondorioz gizon bat «galdu»

¹¹²² Jean Saint-Pierre, «Biba Rusoak!», *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 2a.

¹¹²³ Jean Saint-Pierre, «Zertako joan diren», *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 6a.

¹¹²⁴ Jean Elizalde, «Beljikatik», *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 7a.

¹¹²⁵ Jean Saint-Pierre, «Eskuinean zalaparta», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 24a.

¹¹²⁶ Jean Saint-Pierre, «Gudu baten irabazia», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 11.

¹¹²⁷ Jean Saint-Pierre, «Craonne-ko herria», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.

¹¹²⁸ Saint-Pierre, «Maiatzaren laua». 1917/5/18; Saint-Pierre, «Maiatzaren bortza». 1917/5/18.

zutela, baina biharamunean «ordainak eman» zizkietela. *Zerbitzari*-ren erregimentukoek alemani «alanbre hortz-dunak porroskatu» zizkietela idatzi zuen, eta gero haien erreketan sartu zirela jauzian, eta anitz preso hartu eta beste anitz hil zituztela goraiatu¹¹²⁹. Artikulu hartan, etsaien lubaki baten hartzea aski labur baina ongi azaldu zuen, baina lekuari buruzko zehetasunik ez zuen eman, ez eta ere berak oldar hartan parte hartu zuenik.

Beste batzuetan bere «lagunek» egin aitzinamenduak aipatu zituen, adibidez, bera Euskal Herrian egon zen batez, bitartean, bere eskualdekoek alemani 40 kilometroz gora kendu zietela eta lubaki berrietara itzuli zela idatzi zuen¹¹³⁰. Kronika bereko beste atal batean, zehaztu zuen bere lagunak Saint Quentin hiriarri buruz oldartu zirela, eta Nesles hiria hartu zutela¹¹³¹. Azkenik, gerla bukatu zeneko zenbakian, baina gerla bukatu aitzin idatzi kronikan aipatu zuen 1918ko urriaren 10etik hara Nouvion-le Comte, Cheresis-les-Dames, La Ferté eta Chevresis Monteau herriak hartu zituztela¹¹³².

Gerlaz mintzatzean, normala zen guduak aipatzea, eta guduen emaitzak zein ziren argitzea, hots, ea aliatuek ala inperio zentralek irabazi zituzten. Jean Saint-Pierre eta Jean Elizalde *Zerbitzari* ere maiz mintzo ziren guduen emaitzez. Jean Etxeparek ere zenbait aitzinamendu aipatu zituen, modu baikorrean, 1917ko maiatzean bezala, non Mesopotamia aldean gauzak ongi ari zirela eta Frantziar ingelesen 30.000 aleman bahitu zituztela idatzi zuen¹¹³³. Verduneko guduaren garaian, ingelesen Somme inguruan aitzinamenduak egin zituztela, Péronnera hurbiltzen ari zirela, eta italiarrak eta errusiarrak biziki ongi ari zirela idatzi zuen¹¹³⁴.

Ez ziren *Eskualduna* astekarian agertu ziren aipamen bakarrak, gainerako berrietan ere gerlaren egoeraz mintzatu baitziren, baina atal honetan gerlako berrikerien kroniken aztertzer mugatu gara. Oro har, gehienetan frantsesek eta aliatuek egin zituzten aitzinamenduak azpimarratzen zituzten, eta egoera ona zela edo gauzak bide onetik ari zirela erakutsi nahi izaten zuten, itxaropena ez galtzeko eta ez galarazteko gisan; alderantziz, itxaropenari eusteko.

¹¹²⁹ Jean Elizalde, «Zimikoka», *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 1a.

¹¹³⁰ Jean Elizalde, «Oren onean», *Eskualduna*, 1918ko irailaren 27a.

¹¹³¹ Jean Elizalde, «St Quentin delakoari buruz», *Eskualduna*, 1918ko irailaren 27a.

¹¹³² Jean Elizalde, «Egun hauta lana», *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 15a.

¹¹³³ Jean Etxepare, «Lehorreko guduaz», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.

¹¹³⁴ Jean Etxepare, «Bihotz altchagarri», *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 21a.

b) Espantuak

Aliatuek gerlan aitzinamendu bat egiten zutenean, *Eskualduna*-k espantuak egiten zituen editorialetan. Ez zen maiz gertatzen, funtsean, editorialen gaia, gehienetan, ez baitzen guduaren nondik norakoetan oinarritzen, baizik eta gehiago politikan edo gai orokorretan, gerlarekin lotua izanik ere. Baina zenbait aldiz, editorialetan ageri ziren espantuak ugariak ziren. Adibidez, Champagne aldean lau kilometroz aitzinatu izana kontatzeko moldea aipagarria da: 1915eko irailaren 25etik 26rako gauean, aliatuak lau kilometroz aitzinatu ziren Champagne eskualdean. Artikulu guziaz dena espantu idatzi zuen Manex Hiriart-Urrutik¹¹³⁵, ongi azpimarratuz zer aitzinamendu handia izan zen. Irakurleei galdegin zien joan zedin oinez lau kilometroz, ikus zezan nolako distantzia zen. Horrela hasi zuen artikulua:

Oraikotik naski ba, egin dugu, bat. Naski eta segur ere. – Zer dugu egin? – Urhats bat. Eta bat hura ez urhats ttipia; handia holetan.

Engoitik entzuna dukezue; sinetsia duzuela ez nezake bi sos paria.

Bizkitartean egia da: larumbat, buruilaren 25eko eta igande, 26ko, bi egunen lana, gure soldadoen urhats handi hori.

Artikulu luzea egin zuen, behin ere zehaztu gabe delako aitzinamendu hura non izan zen, baina «Berriak egunka» sailean berri hori aipatu zuten, eta horren arabera ondorioztatu dugu aitzinamendua Champagne eskualdean izan zela. Artikuluaren helburua zen behin eta berriz errepikatzea zer aitzinamendu handia zen. Irakurleei distantzia hori bistarazteaz gain, Baionako ospitale militarrean zeuden zaurituen lekukotasuna eman zuen, berri hori jakitean zer erreakzio ukan zuten azalduz eta haien hitzetan jarriz frantsesek egindako aitzinamendua zinez balentria handia zela. Azkenean, balentria handia zela errepikatuz eta errepikatuz, Hiriart-Urrutiren artikulua espantuz betea zen.

Blaise Adémak ere zenbait espantu egin zuen, 1917an, frantsesek – horien artean anitz euskaldunak ziren – Craonne herria hartu ondoan:

Egun hautan zalaparta gaitzak dabilza ala Anglesen ala gure lerroetan. Primadera baita eta aroa eder, gure soldado gaichoak bermatzen dire etsaiari azkarki jazartzerat, nahiz eta udaren ondarreko gure lurretarik urrundu, amor emaiterat hertsatu, gerla hau burura dadien negua gabe. [...] Gure eskualdeko soldadoak ziren han lehenik gudukatu, eta eskualdun soldado hainiz hil izan da inguru hetan.

[...] Erran behar da [alemanek] beren ahal guziaz egin dituztela atchikitzeke; ez dute utzi, soldado hainiz eta hainiz galdu ondoan beizik. Hilak bazituzten metaka, eta preso hartu diozkategu bortz mila eta zortzi ehun. Gure kanoi larriek eta soldado gaichoek egin dute lan bat harrigarrikoa.¹¹³⁶

¹¹³⁵ Manex Hiriart-Urruti, «Urhats handi bat», *Eskualduna*, 1915ko urriaren 1a.

¹¹³⁶ Adéma, «Zer guduak!». 1917/5/11.

Artikulu osoa Craonne hartzearen balentriaz zen, baina bereziki erabili zituen hitzetan nabaritzen zen espantua: «zalaparta gaitzak», «bermatzen», «azkarki jazartzerat», «hilak bazituzten metaka», «lan bat harrigarrikoa» eta gisa horretan handietsi zuen, Adémak, borroka hartan egin aitzinamendua.

Beste batean ingelesen arma berri batzuez mintzo zen, aitzinamenduak aipatzeko, orduan ere:

Baditugu kanoi bereziak, hain handiak eta dorpeak non ez baititezka burdin-bidez beizik ibil araz. Hoik egortzen dituzten obusak sartzen dire barna lurrean, eta han zartatzen, zilo bat gaitza egiten dutela eta lurketa bat handia bazter guzietarat barriatzen. [...] Egun hautan herrirat heldu zaizkigun soldadoak ez dire gehiago mintzo lehenago bezala; lehenago uste ez zutena orai uste dute; segur dire higi-araziko dituztela etsaiak azkenean beren erreka ziloetarik.¹¹³⁷

Artikulu horretan alemanei egin kalteak goraiatu zituen. Hor ere hitzen bidez ageri zen espantua, baikortasun handia: «zilo bat gaitza», «hain handiak eta dorpeak»... Halaber, soldaduen segurtamenaz idatzi zuena ere jarrera horren beste adibide bat zen.

Gerla bururatu ondoan espantua egitea are ulergarriagoa izan zitekeen. Eta *Oxobi*-k Alsaziatik idatzi zuen kronika batean bazen kutsu hori. Mulhouse hirira heldu zirela kontatu zuen kronikan, bere armada salbatzaile gisa aurkeztu zuen:

Egun haize mindu batek hedatzen dauzkularik lehen elhur liliak, sartzen da gure jenerala Mulhouseko hirian. Ongi ethorri egingen diote. Aspaldiko egunetan ezin egonean zen hiri hortako jendea noiz agertuko ziren bada Frantziako soldadoak.

Herenegun ikusi dut Mulhouse-ko jaun auzapeza gure aintzindarietarat jina othoitzka lehenbailehen har ginezan hiriko bidea. Biderik ez baitzen haatik nun gaindi kurriaraz baitezpada soldadoeri jarreikarazi behar zaizkoten beribilak eta karroak.

Hemendik goiti bezituak ibiliko dire Mulhousen emaztekiak eta haur gaichoak; ukhanen dute jaterat.¹¹³⁸

Mulhousera heltze heroiko horren kronikan, salbatzailearen irudia eman zuen jendea Frantziako soldaduen zain zegoela edota hango emazte eta haur «gaixoek» jatera ukanen zutela idaztean. Bestalde, kronika hartan gerlaren alde *baikorrek* ere aipatu zituen, hala nola borroken irabazteak. Hain zuen, hori nabaritzen zen Mulhouse hirian sartzeari buruzko kronika horretan.

Gisa horretako espantua edo garaipenen edo aitzinamenduan ederresteak orokorrak zirela dio Jean-Norton Cruk. Aitzinamenduei buruzko zatian sartu ditugu Saint-Pierre eta *Zerbitzari*-ren aipuak, baina haien aipuak espantuen lerroan ere sar ditzakegu, edozein mendi

¹¹³⁷ Blaise Adéma, «Aitzinat», *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 27a.

¹¹³⁸ Jules Moulier, «Mulhouse-ra», *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 29a.

kaskoren hartzea edo zenbait metroz aitzinatzea garaipen handi gisa aurkezten baitzuten. Cruren arabera, aitzinamendu horiek faltsuak ziren, eta garaipenetik ez zuten deus:

La plupart de ces faits sont confus et se prêtent à deux interprétations contraires. L'histoire est trop souvent comme la presse de guerre : elle choisit l'interprétation la plus flatteuse. C'est ainsi qu'au printemps de 1915 nous avons, dit-on, remporté deux victoires en nous emparant des buttes de Vauquois et des Eparges. En réalité, on est parvenu, au prix d'efforts inouïs et de pertes scandaleuses, à s'accrocher péniblement au sommet sans pouvoir en déloger l'ennemi. La situation était pire qu'avant l'attaque et il aurait bien mieux valu rester où l'on était. Victoire française, disons-nous ; succès allemand, disent-ils. Qui a raison ? Il en est de même d'événements plus petits et plus grands. On s'empare d'un bout de tranchée et on annonce l'événement comme un succès, mais le poilu qui s'y trouve sait fort bien que la position est intenable et qu'il faudra l'évacuer de gré ou de force dans huit jours. Les offensives de Champagne et de la Somme sont annoncées comme des victoires parce qu'on a conquis du terrain, capturé des prisonniers et du matériel. Mais tous ces gains ne modifient pas la force de l'ennemi et ils sont payés d'un prix exorbitant.¹¹³⁹

Eskualduna-k ere goraitpatzen zuen alemanen hiltzea, atxilotzea eta arma eta materialaren hartzea, lerro batzuk gorago zehaztu bezala. Baina ez zituzten aipatzen ustezko garaipen haien lortzeko hil ziren soldadu kopuru handiak. Adibidez, 1917ko maiatzaren 4an eta 5ean Craonne herria hartzeari buruz espantu anitz egin zuten Saint-Pierrek eta Adémak. Baina ez zuten erran, adibidez, 49. Infanteria Erregimentuan 27 soldadu hil, 10 desagertu eta 113 zauritu zirela maiatzaren 4an, eta beste 32 hil, 9 desagertu eta 104 zauritu maiatzaren 5ean¹¹⁴⁰. Halako daturik ez zuten ematen eta ez zen haizu, baina hiltze eta zaurituei halako erreferentziarik ez egitea aitzinamendua are gehiago ederrestea zen, eta ez zen zinezko informazioa ematen.

c) Salbuespenak

Aitzinamenduak azpimarratzeak eta aitzinamendu horiei buruz espantuek egiteak ez du erran nahi salbuespenik ez zegoela *Eskualduna*-n. Jean Etxeparek, arlo horretan ere, jarrera zuhurragoa zuen. Aitzinamenduak aipatzean, bereziki gerla bukaerakoez aritu zen. Hala ere, aitzinamendu haiek espantu gutxirekin aipatu zituen, eta erlatibizatuz. Adibidez, frantsesak ez zirela ingelesak Lens eta Saint-Quentin-en bezainbat aitzinatu eta Laon oraino ez zutela hartu aipatu zuen, 1917ko maiatzean, Andereen Bideko gatazkaren garaian¹¹⁴¹. Artikulu orokorra zen, baina garaipenak erlatibizatzen bazekiela erakutsi zuen.

¹¹³⁹ Cru, *Du témoignage*, 37–38.

¹¹⁴⁰ Journaux des marches et opération des corps de troupe. 1914-1918. 26 N 639/5

¹¹⁴¹ Jean Etxepare, «Eta guk?», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.

Gerla hasieran, Marneko batailatik landa egin aitzinamendua aipatu zuenean ere, bitartean alemanek egindako kalteak aipatuz erlatibizatzen zuen aitzinatze hura. Alemanek, hasieran aliatuak anitz gibelarazi zituztela – ia Pariseraingo – oroitarazi zuen. «Zer apaltzea guretzat! Zer gaztigua!», aitortu zuen¹¹⁴². Halaber, arte hartan, alemanek zauri handiak egin zituztela idatzi zuen, hala nola alorrak eta lantegiak suntsitu eta erre zituztela edota Reims-eko katedrala xehatu.

Gerla ia bukatua zenean, 1918ko irailean, aliatuek Amiens hiriaren inguruan egin zuten aitzinamendua baikortzat jo zuen, baina oraino dena ez zutela berreskuratu aitortuz erlatibizatu zuen aitzinamendu hura. 1918ko agorrilaren 8an hasi ofentsibaren ondorioz, udaberrian alemanek hartu lurren hiru laurdenak hartuak zituztela, milaka aleman «bahitu» eta arma anitz kendu zizkietela idatzi zuen¹¹⁴³. Baina arreta jarriz oraino zati bat falta zela erratean, apaltasuna erakutsi zuen.

Serbiatik idazten zuen A.I. zuberotarrak ere espantu gutxi egiten zuen. Bulgariarrei nagusitu izana idatzi zuen artikulu batean, bulgariarren gibelatze hura kostatzen zitzaiela aitortu zuen. Afrikatik joan ziren legionario batzuek bulgariarrek gibelera igorri zituztela idatzi zuen 1916ko udaberrian, A.I. zegoen erregimentuaren artilleriak anitz lagundu zituela zehaztuz. Baina berek ere bulgariarren obusak jasan zituztela aitortu zuen; halaber, zaurituak mandoz eramaten zituztela, hiru oreneko bide txarrean, eta batzuk ez zirela hilen ez balira baldintza haietan eramanak izan gehitu zuen:

Etsaiaren obusak arren chuchen horra zitzeizkun. Nihaouk igan dut egun bat oso osoa frantses kanon batteria bateki. Bulgareen obusak oro erori ziren goure kanouen ungunian eskuin eta esker hamar metretan bezala. Erretreta dembora orotan hala hala.

[...] Bena haou zen bihotzaren erdiragarria! Behera ekharten ikhousia soldado kolpatu eta eriak! Khargatzen zutien mandoetan gañen, ahal bezain ountsa. Ttottoturik edo kako eli batetan etzanik, kolpia noulako zen. Gacho gizonak! Mandoaren behatz topa aldikal zer heiagorak! Bazien, noumbait han, hirour orenen bide karroucha bidialat heltu etzireno. Mandozañek khabiak bridatik etchek leizialat eror elitien, brankardierek aldiz kakoen edo bastore ahal bezain estiki arrima. Eztut dudarik ere soldado zombait orano bizirik lizatekiala ez baziren izan hola iharousirik eta egjazki lotsatzeko zen gaiñ hoietan kolpaturik izaitia. ¹¹⁴⁴

Bulgariarren kontra irabazteaz espantu egiteko orde, beren arteko soldaduen heriotzak ikustea «bihotz erdiragarria» zela idatziz eta zaurituen bide gogorra aipatuz, aitzinamendua ez zuen ederretsi; alderantziz, Saint-Pierrek halako berri bati kutsu baikorra ematen zion bezala, A.I.k kutsu ezkorra bideratu zuen gertakari hura.

¹¹⁴² Etxepare, «Alemanak hurbiletik VI». 1914/11/13.

¹¹⁴³ Etxepare, «Gure bigarren siska». 1918/9/13.

¹¹⁴⁴ A.I., «Zalonikatik letera - III», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 3a.

Blaise Adémar ere ez zituen aitzinamenduak beti baikortasun itsu-itsu batekin komentatzen. 1917ko martxoko gudu batetik landa, alemanek gibelera egin behar izan zutelako espantu egin bazuen ere, alemanek gibelatze hartan egin zituzten kalteak – bidean laneko on ziren gizonak, apaizak eta zenbait neskatxa hartu eta etxe anitz erre zituztela – aipatu zituen eta, horrez gain, alemanek kontra-ofentsiba prestatuko zutela iragarri zuen:

Joanden asteko berri onak guziek badakizkatzue: zerrenda luze batean etsaiek gibelerat egin dutela, berrehun bat hiriska eta herriska frantses uzten dituztelarik. [...] Atzo etorri zait ikusterat handik zazpi egunentzat heldu den soldado gazte bat. Bere begiz ikusiak ditu herri hoitarik zenbeit, ihesi zoazin Alamanen ondotik han ibilia baita egun hautan. Erran daut ezin sinhetsiak direla hango desmasiak. Ikusi ditu etcheak erreak edo biluziak; karrketan oheak, mahainak, kadirak, unziak porroskatuak; sagar-ondoak, udare-ondoak, eta holako bertze arbolak, gaichtakeriaz moztuak eta han berean utziak. Nigar egingarri zen hoik guzien hola ikustea. Nork beiratuko ditu holakoak ikusi dituzten soldado frantsesak izigarriki mendekatzetik, Alamaniako lurretan sartuko direnean? [...] Ezin ukatua da ez dela hori arras gezurra. Baitire uste dutenak etsaiak, hola behin ihesari emanez geroz, berehala Frantziako mugetarik kampo ezarriko direla, ez da naski hoin laster holakorik gertatuko. Gure aitzindariak badakite arras ongi non geldituko diren orai etsaiak, non dituzten hain azkarki antolatuak diren toki hek.¹¹⁴⁵

Beraz, aitzinamenduen eragina erlatibizatu zuen, nahiz eta argi utzi nahi izan zuen alemanak ez zirela beren nahitara gibelatu, baizik eta ezin zutelako ingelesen eta frantsesen oldarrari iharduki.

Beste batean ere aliatuen aitzinamenduak txalotu zituen, baina euriak sortzen zituen mugak aipatuz, baikortasuna erlatibizatu zuen. Euriak oldarrak geldiarazten zituela azaldu zuen, 1917ko agorrilean. Bi urte lehenago oldar handi bat egin zutela Champagne eskualdean, eta urte bat lehenago, Somme eskualdean. Bi aldi haietan euriak aitzinamendua trabatu zuela eta gelditu behar izan zutela esplikatu zuen. Orduan, aldiz, Flandria aldeko oldarrean ere euria traba izan zela argitu zuen¹¹⁴⁶.

Oro har, *Eskualduna*-k arreta aitzinamenduetan jartzen bazuen ere eta garrantzia garaipean erakusteari ematen bazion ere, zenbait salbuespen baziren, eta aitzinamenduak ez zirela hainbeste ederretsi behar agertu zen batzuetan. Hala ere, erlatibizatze horren ginetik, baikortasun orokorrari eusten zioten. Eta, dena den, orain aipatu artikuluko horiek ez zuten balantza erlatibizatzearen aldera ekartzen, eta jarrera baikoritsuak ez zuten nagusitasuna galdu.

¹¹⁴⁵ Blaise Adéma, «Gibelerat doazi», *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 30a.

¹¹⁴⁶ Blaise Adéma, «Uria», *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 10a.

3. Gibelatzeak erlatibizatzen

Ukaezina da Aliatuek ere gibelatzeak jasaten zituztela. Baina horien berri zenbat aldiz ematen zuten *Eskualduna*-n? Oro har, galtze gutxi aipatzen zutela aztertuko dugu lehenik. Eta galtzeak aitortzen zituztenean ere, ikusiko dugu zein epetan aitortzen zituzten, hala nola berant, eta zergatik. Hala ere, salbuespenak baziren, eta zenbait aldiz gibelatzeak ere deblauki aitortzen zituztela ikusiko dugu. Baina zer zegoen aitorten horien gibelean?

a) Galtze guti aipatzen

Borroketan, aliatuek zerbait galtzen zutenean, ez zuten aipatzen, edo noizbehinka. Aipatzen zutenean ere, gehienetan, apaltzen edo erlatibizatzen zituzten. Jean Saint-Pierreren kasuan, aitzinamenduak gibelatzeak baino gehiago aipatzen bazituen, guztiz logikoa zen gibelatzeak eta porrotak erlatibizatu nahi izatea. Hain zuzen, gibelatzeak aipatzen zituen gehienetan, horri garrantzia kentzeko, berri on bat ematen zuten. Adibidez, errusiarrek Varsovia galdu zutenean, aleman anitz hil zela azpimarratu zuen, 1916ko agorrilaren 13an. Artikulu berean, alemanek Verdunen eta Alsaziako mendietan egiten zuten oldarra aipatu zuen, baina aleman anitz hiltzen zizkietela erranez biribildu zuen artikulua¹¹⁴⁷.

Berdintsu jokatu zuen Verduneko guduan hastapenean gibel egin zutela aitortu zuenean, errateko alemanak ahul zirela:

Guduaren lehen egunak izan ziren gaichotenak guretzat. Gure lehen lerroak herraustu zituzten, eta hiriri buruz jautsi ginen, lau bortz kilometrez.

*Geroztik, han berean gaude. Geroak zer emanen baitu ere, orai artio metaka lurrera doazi Alemanak, toki berean bermatzen direlarik.*¹¹⁴⁸

Saint-Pierrek hastapeneko alemanen nagusitasuna gutxietsi zuen zenbait denbora geroago anitz hiltzen zituztela idatzi zuenean. Aitortu zuen azkar zeudela, bai; baina irabazteko ez zutela aski indar gehitu zuen. Honekin, egoera zailari itzulua eman nahi izan zion, hain txarra izan ez balitz bezala aurkeztuz. Beste batean, Verduneko gudu bortitz bat aipatu zuenean, iragana iragan zela erranez ihes egin zion egoera txarrari:

*Jasanak jasan dira. Ez daude hemen gogo bihotzak eroriak.*¹¹⁴⁹

Beste gudu batean hilak izan zituztela idatzi bazuen ere, hil gutxi izan zirela segurtatzeko izan zen:

¹¹⁴⁷ Saint-Pierre, «Gure astea». 1915/8/13.

¹¹⁴⁸ Jean Saint-Pierre, «Verdun-eko gudua», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.

¹¹⁴⁹ Saint-Pierre, «Berriz pausura». 1916/6/9.

*Kolpatu eta hil bakhar zonbeit, ez aiphatzekorik.*¹¹⁵⁰

Bestela ere ez zituen aliatuen hilak anitz aipatzen. Eta, kasu horretan, «ez aiphatzekorik» jartzeak erakusten zuen hilak ukaiteari garrantzia kentzen ziola, hil kopurua ez bazen bereziki handia bederen. Haien arteko galtzeak gutxiesteko joera erakutsi zuen beste artikulu batean ere. 1917ko maiatzaren 4ko gauean Craonne herria hartzeko operazioaz ari zenean, lurrean ziloak egin zituztela etsaien kanoietatik babesteko idatzi zuen, eta ez zutela galtze handirik izan zehaztu¹¹⁵¹. Frantsesen artean hil franko izan zen egun haietan, baina horiek gutxietsi zituen Saint-Pierrek.

Jendea etsiturik zegoela aipatzen zuenean, ez zela etsitzeko arrazoirik erantzuten zuen. Hala izan zen 1915eko martxoan. Kontatu zuen nola batzuek zioten aliatuak emeki ari zirela, baina pazientzia hartzeko eskatu zuen, aitzina ari zirelakoan, eta hobe zela zuhurtziaz jokatzea, «erokeriak gal» baitzezakeen gerla¹¹⁵².

Zerbitzari-k ere ez zituen maiz aipatu gibelatzeak edo galtzeak. Aipatu zituenetariko bat Italian gertatu zen. Italian alemanek eta austriarrek lur batzuk hartu zituztela idatzi zuen, eta frantsesek eta ingelesek soldadu batzuk igorri zituztela, horietan euskaldun franko¹¹⁵³. Baina Italian izan ziren gibelatze haiek urruntasunez bezala aipatu zituen.

Beste artikulu batean, ordea, ia den-denak hil zitzaizkiela aipatu zuen gertakari bat xeheki kontatuz. Kanoiak «karraskan» ari zirela, bazter guziak porroskatzen zituztela, alemanak «herrestan» heldu zirela, «sugeak bezala» deskribatu zuen. Lau soldadu horretaz ohartu ziren eta granada ukaldika hasi ziren, eta beste bat tiroka. Beste egun batez, metrailadore batek sarraski handiak egin zituela kontatu zuen. Soldadu bat joan zen kanoi ttipi bat eskuan, eta metrailadorea oren erdi baten buruko frantsesen eskuetan gelditu zela txalotu zuen. Beste gudu batean, obus batekin frantses guziak hil zirela idatzi zuen, bat salbu. Aipatu hiru soldaduak euskaldunak zirela argitu zuen.

Mitrailusarekin hasten dire Frantsesak, bainan, huna non betbetan "obus" ikaragarri batek phorroskatu dituen frantses guziak bat salbu. Hunek anaia aldean baitzuen, hil zaio hura ere. Burua galdu behar du naski? Batere. Minari gogor egiten dio, mitrailusari lotzen eta etsaiak hurbilduak baitziren, azkeneraino erretzen. Eta Frantsesek hartu lurra atchiki zuten. Soldado bati esker: Eskualduna oraino, Larresoroarra.

*Horra hirur soldado eder, gure herritarrak. Milaka eta milaka badire holakoak gure armadetan. Nola nahuzue beraz Alemanak lotsa detzan Frantsesak? Datorzila ifernuko debru guziekin nahi badute, tanks edo bertze edozoin tresnetan sarturik, debaldetan dute.*¹¹⁵⁴

¹¹⁵⁰ Jean Saint-Pierre, «Gure astea», *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 4a.

¹¹⁵¹ Jean Saint-Pierre, «Gaua», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.

¹¹⁵² Jean Saint-Pierre, «Emeki», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 19a.

¹¹⁵³ Jean Elizalde, «Berri hitsago bat», *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 23a.

¹¹⁵⁴ Jean Elizalde, «Nola lotsa holako soldadoak?», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 18a.

Xehetasun horiek biziki gogorak ziren, soldadu guztiak edo ia guztiak hiltzea porrot baten aitortza zen. Horrelako aitortzak salbuespenak baldin baziren ere, ohar gaitezke, hala ere, soldadu batzuk ohoratuz bukatu zuela artikulua, porrotari garaipen kutsu bat emanez.

Azkenik, beste arlo batean, Manex Hiriart-Urrutik gerlaren kontra oihu egin zuen euskaldun baten kasua aipatu zuenean, kritika haren gibelean arno gehiegi zegoela zehaztuz, jarrera kritikoari garrantzia kendu zion:

Agorrilaren lehenko arratsean, larunbatetik iganderako gau erditsutan, gerlarat orotako lehen zoazilarik Doniane-Garazirat buruz Donazaharren barna, karrosatara bat gazte, – ja gerlak erhoenari furfuriak barna sar-araizak behar zazkon demboran – batek zintzuraren hausteko heinera oihu egin zuen; «Biba Frantzia! Fuera Ybarnegaray».

Gaizo zoroa! Nor eta nungo baitzen ere, freskatuhea ahal da engoitik, hil edo bizi!

Onik baizik ez diogu desiratzen. Eta zinez egia, ordu berean ere, nahiz ez ginuen atsegin hartu, oren latz hartan frantses eskualdun soldado baten ahotik athermaldi koska bihurri hura – halere gaizki baino nahiagoz ontsa jujatu – gogoratu zitzaunkun arnoa zela mintzo, ez gizona!¹¹⁵⁵

Adibide honen gisara, berri negatibo bat aipatu behar zutenean, gibelatze edo negatibotasun horri garrantzia kentzeko ahalegina egiten zuten, beste berri baikor bat emanez horren ondotik, edo baikortasuna ez galduz.

b) Galtzeen aitorten berankorra

Aitortzen zituzten gibelatzeei garrantzia kentzeko eta beti baikortasunez bururatzeko ahaleginaz gain, merezi du ikustea, gehienetan, gibelatze horiek noiz aitortzen zituzten. Adibidez, Charleroiko porrota, zenbait aste edo hilabete geroago aitortu zuten, ordurako gerlak beste bilakaera bat hartua zuela. Jean Saint-Pierrek gerlako lehen lau hilabeteen laburpenean aitortu zuen Charleroiko gudutik landa nola gibelatu ziren. Agorrilaren 23an, eskuineko armada «zafratua» izan zela onartu zuen, eta gero gibelera egin behar izan zutela. Baina bereziki azpimarratu nahi izan zuena Marneko guduan, frantsesek aitzinamendu handia egin zutela, Alsazian herri batzuk berriz hartu zituztela eta Mulhouse, bi aldiz hartua, laster berreskuratzea espero zuela. Gerla laster irabaziko zutela hitz eman zuen:

Lau hilabete eta erdi, gerlan girela. Ordu da naski begi lolpe batez ikus dezagun zer bide dugun eginik. Erhotzen niz erraiten dautazularik bethi hein berean gaudela. Ezagun duzu etxean gelditua zirela, eta ez dituzula hiru zapeta pare higatu bostutik hunat. [...] Ikusten duzu lau hilabete hauk ontsa betheak direla. Bethi azkartuz joan gira, eta orai ikusten dugu nahi dugunean xehatuko ditugula. Artilleriaz bazter guziak estaliak ditugu; kanoi ttipiak ixilduxeak dire, bainan geroko ari gira heien hazkurria bil eta bil, metaka. Zer azantzak entzun behar diren, berriz hasiko direnean burrunban!

¹¹⁵⁵ Manex Hiriart-Urruti, «Biba Frantzia», *Eskualduna*, 1914ko irailaren 11.

*Kuraiez ere nausi gira. Alemanek diote frantsesa bezalako Soldadorik ez dela. Zer erranen dute gure zilhoetarik atherako girenean zinez, Alemaniarat buruz abiatzeko? Noizko egun hura? Menturaz bihar berean. Ez dakit. Dathorla lehenbailehen!*¹¹⁵⁶

Lau hilabete geroago, bitartean Marneko gudua iragana zela, Frantziako armada indartsu erakutsi nahi zuen, eta gisa hartan, ez zen hain gogorra Charleroikoaz mintzatzea. Beste artikulu batean ere aipatu zuen gibelatze hori, Omiasaindu inguruan, hilak gogoan zituela. Lehen hilabetean egin gibelatzearekin, hil anitz ehortzi gabe utzi zituztela idatzi zuen.

Hiriart-Urrutik ere gibelatzeak aitortzen zituenean, gibelatze horiei gaina hartu ondoan baizik ez zen izaten. Charleroiko porrota berant baizik ez ziren aitortzen hasi:

*Eskas, guduari lotzeko, Charleroi-ko gudu lazgarriak berehala erakutsi zaungun bezala; eskas, ordutik laster, La Marne-ko garhaitze aiphagari hartan, erhaustera gineraman etsaia utzi behar ukan baikinuen, ihesi zoala, tresna eta tresnen hazkurri eskasez, artilleria eta bertze.*¹¹⁵⁷

1915eko apirilaren 23an baizik ez zuen aipatu Charleroiko gudutik landa ia Pariseraingo heldu zirela alemanak:

Hasia da, hasia, bera ere ohartzen: ezteela oraino izan, zonbat ere baita gosea, holako ezteietan, Alemania.

Alta bazuen hastean trufa – trufa ta musika – nehoren, ez deusen ez zela beldur; orori atchikitzeko bera ber-ber, askiko zela.

Egun non gosalduko, bihar non bazkalduko, non afalduko etzi, oro bazazkien, den bezalako hertze luzeak.

Hiru aste gabe Parise berea zuen. Eta izaitz beretzer du; gutitarik da gelditua gure Hiri Nausia etsaiaren aztaparretaratu gabe.

Holako amets bat badio Aleman oro erhautsi gogo zitueneri haizeak lanhotan eremanik hamar hilabete huntan.

*Trufatu nahi zen orotaz haste hartan. Sarthu baitire trufak, eta oraino sarthuko, gero eta barnago.*¹¹⁵⁸

Gerla hasi zenean ez zen halako solasik zabaltzen. Paris arriskutik kanpo zegoenean eta Alemania helburuak ezin betez ari zela erraterakoan aipatu zuen larrialdi hori. Zer erakusten zuen horrekin? Hain zuzen, alemanak ez zirela helburu hori lortzeko adina indartsuak. Beraz, gibelatzearen aitortza berankorra mezu baikorra zabaltzeko erabili zuen.

Marneko gudua ere baikorki aipatu zuen, ordu arte alemanek egin aitzinamendua erlatibizatuz, aitzinamendu haren geldiaraztea lortu baitzuten frantsesek; are gehiago, Frantziak hamar departamendu galtzeari ere kutsu baikorra atera zion:

¹¹⁵⁶ Jean Saint-Pierre, «Abendoaren 15ean», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 1a.

¹¹⁵⁷ Hiriart-Urruti, «Ziloetan». 1915/4/23.

¹¹⁵⁸ Hiriart-Urruti, «Azkarrenaren alde». 1915/6/4.

Guillaume urguluntzi handia, gure Frantzia ederretik ja bere ustez hamar bat departamenduz jabetua, zortzi egun gabe Parisen bazkal uste zuena, hara non dugun igorri han harat, jin bidez edo ahal duenez, ehun kilometre eta gehiago gibelerat: aitzindari eta soldado choil, oso eta kolpatu, kanoi, zaldi, mitrailleuses, karro, tresneria, karraskan guziak oro buruzkain.

*Ah! Zer itzulipurdia!*¹¹⁵⁹

Gerla hasi baino lehen, Alsazia eta Lorrena eskualdeak ziren okupatuak; Marneko gudutik landa, Frantziako departamendu gehiago ziren Alemaniaren esku, baina Hiriart-Urrutik azpimarratu nahi izan zuena zen hori baino gehiago aitzinatzea ez zutela lortu, eta aliatuek egoerari itzulia eman ziotela. Gogora ekarriz gero hastapenean zein baikor ziren, gerla berehala eta aise irabaziko zutelako itxaropenez, hamar departamendu okupatuak izatearekin baikor agertzeak ez zuen logika handirik, itxuraz bederen. Baina, egia da, hastapeneko mugimenduak guztiz frantsesen itxaropenen kontrakoak baldin baziren ere, Marneko gudutik landa egoera aldatu zela, eta itxaropena berreskura zezaketela.

Gibelatze gehiago ere izan zen. Errusiarrek egin gibelapenak aitortu zituen Saint-Pierrek 1915eko ekainean. Maiatz hastapenean, alemanen eta austriarren eraso gogorretatik landa, errusiarrek Premysl berriki hartu hirira buruz gibelatu behar izan zutela argitu zuen. Austriarren eta alemanen erasoaren helburua Italia gerlan sartzea ekiditea zela, baina Italia ez zela beldurtu eta gerlan sartu zela zehaztuz bukatu zuen artikulua Saint-Pierrek, Errusiaren kinka txarrari amaiera baikorra emanez¹¹⁶⁰. Beraz, maiatz hastapeneko galtzeak ez ziren gehiago hain larriak, maiatzaren 23an Italia gerlan sartu zenez.

Beste behin, Champagne aldeko gudu baten huts egiteko mekanismoak azaldu zituen. Aitzineko gudu batean, soldaduen moralala apal izan zela aitortu zuen, kanoiak ez zirelako behar bezala erabili:

*Zerk duen bada hutsegin galdutako dautazue. Hemen girenen iduriko, gure kanoiek ez dute beren lana bururatu. Hortan ez dugu dudarik. Hutsa balin bada hortan da hutsa. Bertze oldar frango eginik huntan ere gerthatu direnek diote soldadoari kanoiek ez diotela bere bidea ideki behar bezala. Nor den hobendun? Ez dakigu: norbeit badela hobendun, bistan da. Beren kargua galdua dute hor aintzindari batek baino gehiagok. [...] Geroztik egun dorpheak ditugu. Bainan etzauku aski atxikitzea: joiten ez duena joa da. Gaitzeko indarrean ari da gure artilleria, gau eta egun, eta naski luzaz arituko.*¹¹⁶¹

Aliatuen porrot hori aitorturik, huts egitearen arrazoiak azaldu zituen eta huts hori egin zutenak zigortuak zirela segurtatu. Bukaeran, soldaduak azkar ari zirela borrokan azpimarratu zuen, eta horrekin, aipatutako huts egitea, iraganeko kontu gisa aurkeztu.

¹¹⁵⁹ Manex Hiriart-Urruti, «Gaina dugu», *Eskualduna*, 1914ko irailaren 18a.

¹¹⁶⁰ Jean Saint-Pierre, «Rusoak», *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 11.

¹¹⁶¹ Jean Saint-Pierre, «Agintzak handiago», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 11.

Zerbitzari-ren ustez, alemanek Champagne eskualdean egin zuten ofentsiba debaldekoa izan zen:

Champagne deitzen duten eskualdea dugu ezker hortan. Duela urhetsu bat, gudu garratzak izan ziren hor. Aurthen ere holako zerbeiten beha ginauden.

Zerbeit asmatu dutelakotz edo Jainkoak daki zertako, Alemanak hats gogorrean jazarri dire egun hautan eskualde hortako soldadoeri. Zer haro gorria zaukaten kanoiek! Erran gabe doa, debaldetan hasi direla Alemanak. Verdunen ez eta, nola nahi daukute irabazi Champañan? Kukuak makur jo diote behin, eta kontu ez dioten oraino makurrago joko hanbat dembora gabe.¹¹⁶²

«Gudu garratzak» aipatu bazituen ere, halako erasoak ez zuela aliatuen garaipena dudan ezarriko segurtatuz, berri gogorrak ez zitu zituen.

Beste porrot bat ere aitortu zuen Jean Saint-Pierrek, 1918ko martxoan. Hura zegoen lekutik eskuin, 34. Infanteria Erregimentuak egin guduan, etsaiek ustekabearik inguratu zituztela eta hainbat hil zizkietela eta beste guztiak preso hartu azaldu zuen. Dena den, galtze hori erlatibizatu zuen, batetik:

Ez dut uste bazela hor ahurtara bat baino gehiagokorik: ezen orai giren moldean, lehen lerroetan arteka hutsak badira, frango luzeak batzuetan, nun ez baituzu kristorik ikusiko.

[...] Bertzelako berririk ez dut. Lehen auzoan zer den gerthatzen ez da hemen aise jakiten ahal. Itxura guziak bizkitartean hala dira, gizon bakhar hoik bizirik egin dituztela presuner. Irabazi lurra osorik atxiki dugu: etsaiak hustu zuen zalhu eta geroztik egun lerroak iragan dira erdi ezteki.¹¹⁶³

Soldadu guztiak hilak edo preso hartuak izan zirela aitorturik ere, bukaerako emaitza zen ikusi behar zena, ondorio baikorra atera baitzuen, hala nola aliatuek ez zutela lurrik galdu.

Serbia aldetik, A.I. soldaduak egin behar izan zuten gibelatze bat deskribatu zuen. Gibelatze hori «ordre hoberenean» egin zela erranez salbatu zuen soldaduen fama. A.I.ren arabera, hotza eta aro txarra zituzten, frantsesek Serbiako armadarekin juntatzeko asmoa zuten, handik Sofiara joateko, baina gauzak ez ziren nahi bezala pasatu, etsaia bien erdian sartu baitzen eta Monastir hartu baitzuen. 1915eko azaroaren erdialdetik etsaia azkartu zela aitortu zuen. Artikulu horretan, gibelatu behar izana eta gauzak nola gertatu ziren garbiki aitortu bazuen ere, azpimarratu behar da zenbait hilabete geroago baizik ez zuela hori kontatu¹¹⁶⁴. Beste behin ere aipatu zuen, Serbiarrak Monastirren garaitu zituzteneko gibelatzea, eta ondorioz haiek ere Greziara gibelatu behar izan zuten, 1915eko abenduaren 8an, obusen azpian:

¹¹⁶² Jean Elizalde, «Ezker hortarik», *Eskualduna*, 1916ko urriaren 6a.

¹¹⁶³ Jean Saint-Pierre, «Ordaina», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 8a.

¹¹⁶⁴ A.I., «Zalonikatik letera II». 1916/3/3.

Houna noun, Azaroaren azkentzialat, naba zolan ikhousten dutugun treñak goiti jouailik oro hutsik igaraiten, behera jiliak, aldiz, lehenik haatuz eta pouskez, gero soldadoz betherik eraisten. Zer aire dugu hori? Hantik bertan jakin gunian noula gacho goure adichkide Zerbak izan ziren errahoutsirik bai etare Zerbiako hiri handi bat, uhaizaren alde eskuñatik dena, Monastir, harturik. Unguraturik ez izaiteko guk ere behar gunian gibel egin.

Etzeikun baratzen bide bat baizik zabalik; jin ginen bidia, Greziarat buruz. Etzen demborarik galtzeko. Haimbeste gizon eta gaizentzat burdin bide choil bat; eta aldiz, ez deusik utzi nahi etsaiaren eskietan. Hamabost egunez, gau eta egun, etzen treña ukhuratatu. Azken egunak bereziki izigarriak izan ziren. Alde orotarik kanouak, mitrailleusak, fusillak tiroka. Zer herotsak! Gu prest ginen, manhu baten haiduru. Abentiaren 8an, obusak horra zitzeizkun bai eskuneko ba eskerreko aldetik goure burietan gañen khurutchatzen zirelarik. Aisa ageri zen behar guniala hantik laster lekhia hustu edo, bestela, etsaiaren aztaparretara erori. Bena behar beitu batek azkenik abiatu. Gerokoz, parte bat gai hartan berian, bestiak biharamen goizan argitzialat houinka abia erazten gutie, uhaizaren bi bazterretarik. Ni agitzen nintzan eskuñetik, gaiaz hora trebesaturik. Zubia bazen. Argi azkorrin behar gunin zubia jaouzerazi.

[...] Horra erretreta hasirik. Hirour egunez batere ez paousurik: gaiaz ahal bezain zalhe ibil Greziarat buruz, egunaz aldiz etsaiari buhurt mendietarik eraisten zen bezala. Batian gibel, bestian aitzina, bai houñezko soldadoak, bai artilleria bethi gudukan. Ulhuntzia jiten zen bezain sarri, zombait barreiatzen ziren han heben tirokan etsaiari uduri azteko eta, arte hortan, saldo handia gibel abiatzen ginen ahal bezain urrun biharamenian ukuratzeko markaturik guntian lekhietan. Artilleriak hala hala.¹¹⁶⁵

Gibelatze horren deskribapen interesgarria eskaini zuen, eta errealismo horrek ez bazirudien ere bat egiten zuenik ildo orokorrarekin, zenbait hilabete geroago kontatuz, informazioak garrantzia galdu zuen, halako epeetan gauzak anitz aldatzen baitziren gerlan. Lekukotasun interesgarria zen, baina hilabete batzuen gibelapenarekin, kutsu ezkorra galdu zuen.

Hilabete batzuk geroago, Blaise Adémak Verduneko guduaz idatzi zuen, gudua ez zenean gehiago alemanen alde bihurtua. Beranta horrekin aitortu zuen alemanen lehen bost hilabeteetako oldarra, eta frantsesen geriza handienak hartu zituztela. Baina hilabete batzuk geroago, frantsesak denetan azkar zirela segurtatu zuen, etsaiak ahulduak zirela ondorioztatuz. Denboraren buruan, gaina berriz hartu ondoan, aitortu zituen hastapeneko porrotak:

Lehenbiziko bortz ilabethetan, etsaiak hartu dauzkigute, urhatsez urhats, hiriko geriza gehienak, biez bertze guziak. Gero atchiki ditugu han, gehiago aitzinatu gabe. Nola guk ere oldar handi bat egin baitiogute Somme delako eskualdean, harat behar izan dituzte egorri beren armada hoberenak, eta beraz gutitu Verdun hiriko inguruan zituzten soldadoak.

[...] Hoin nekez irabazia hoin errechki galtzeak zer dauku erakusten? Gure etsaiak flakatuak ditugula; ez dutela gehiago gizonik aski gure oldarrari bi tokitan ihardokitzeko.

[...] Gizon hainiz galdu behar izan dugu guk ere; bainan hoi en odola ez da debaldetan ichuri; higatu ditu etsaiak, eta erakusten dauku orai zenbatetaraino diren flakatuak.

¹¹⁶⁵ A.I., «Zalonikatik letera». 1916/3/10.

Frantsesek ere gizon anitz galdu zutela aitortu bazuen ere, ez da hori idaztea gauza bera galtze horien ondorioz frantsesak kinka txarrean zeudenean edo behin frantsesek egoerari itzulia eman ondoan. Aitzineko lerroetan aipatu adibideetan bezala egin zuten Verduneko kasuan ere: behin egoera aldatu ondoan aipatu zituzten egoera txarreko uneak. Horrez gain, isuri odola ez zela debaldekoa izan ondorioztatuz, galera haiek baikortzeko ahalegina egin zuten.

Berdin jokatu zuten 1918an ere, urte hartako udaberrian alemanek egin aitzinamenduak hilabete batzuk geroago aipatzean. 1918ko apirilean, alemanek, Parisera hiltzeko asmoz, oldar handia hasi zutela eta beren ustez ongi hasia zutela idatzi zuten. Lehen egunetan ingelesak gibelarazi zituzten eta, ondorioz, frantsesak laguntzera joan zitzaizkien. Eta ordutik etsaien aitzinatzea gelditu zela argitu zuen Adémak. Beraz, alemanen oldar hori geldiarazi ondoan aipatu zuten, erakutsiz gudu hartarik arras ahuldurik aterako zirela¹¹⁶⁶.

Jean Etxeparek berdintsu egin zuen urte bereko uztail bukaerako artikuluan; alemanen aitzinamenduak xeheki esplikatzen zituen, baina frantsesak berriz ere gaina hartzen ari zirela erranez bukatu zuen artikulua. Alemanen ofentsiba uztailaren 15ean hasi zen Château-Thierry eta Massiges herrietaraino. Hala ere, hiru kilometroz baizik ez zirela aitzinatu ahal izan erranez, aliatuen gibelatzea gutxietsi zuten. Are gehiago, alemanei gizon anitz hil zieten eta aliatuek galtze gutxi ukan zutela gehitu zuten. Herri hartzei buruz, alemanak Marne ibaian barna sartu zirela, Eperney hiritik arras hurbil, Fort de la Pompelle, Mont Cornillet eta Mont Haut hartu zituztela, baina Reims ez zutela hartu eta ez hartuko idatzi zuten. Azkenik, «azken oreneko» berri bat eman zuten, frantsesek Soissons eta Fère-en-Tardenois berriz hartu zituztela jakinarazteko, eta «berri ona» zela komentatzeko¹¹⁶⁷. Aipamen errealista egin zuten, alemanen aitzinamenduak aitortu zituen, baina beti baikortasuna atxiki nahi zuten, bukaera aldera bereziki, garaipena hitzemanetz.

Azkenik, garai hartako une larriena, hala nola alemanak ia Parisera heldu zirela, gerla bukatu ondoan baizik ez zuten aitortu *Eskualduna*-k. 1918ko uztailean alemanak ia Parisen sartu ziren, baina ez zuten lortu:

*Orhoit zarezte nola, joanden uztailaren erdian, Alemanek egin zuten oldar bat hain ikaragarria non aitzinatu baitziren hainiz Parisera buruz. Ez duzue aiantzia zenbat Paristar etorri ziren orduan izituak ihesi gure eskualde hautaraino. Beraz arras hinka txarrean aurkitzen ginen.*¹¹⁶⁸

¹¹⁶⁶ Blaise Adéma, «Azken othe», *Eskualduna*, 1918ko apirilaren 5a.

¹¹⁶⁷ Jean Etxepare, «Aurthengo bortzgarrena», *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 26a.

¹¹⁶⁸ Blaise Adéma, «Nori esker?», *Eskualduna*, 1919ko urtarrilaren 10a.

Gerla bukaera aldeko kinka txar hori noiz aitortu zuen? 1919ko urtarrilean, hots gerla bururatu eta bi hilabetera. Beste behin ere aipatu zuen Parisera hurbiltze hori, baina hilabete batzuk geroago:

Eta goiti-beheiti hoiek zoin betan gertatu diren! Ez da oraino lau ilabete, Alamanek, aitzinaturik hainiz, dichidatzen zutela Parise behinere baino gehiago. Joanden uztailaren erditsutan zen. Eta orai zertaratuak diren!¹¹⁶⁹

Gerla alemanen aldera itzultzen zen unean ez zuten halakorik aipatzen. Halakoak aipatzen zituzten beti zenbait denbora geroago, bereziki, egoera berriz ere aliatuen aldera itzuli ondoan. Beraz, gibelatzeekin ere mezu baikorra eman nahi izaten zuten.

c) Salbuespenak

Ikuspegi orokorra emateko, zehaztu behar dugu gerlan gauzak ez zirela beti aliatuen aldera itzulikatzen garbikiago aitortu zutela, aldi bakar batzuetan. Jean Etxepareren eta Blaise Adémaren testuetan izan zen hori. Erran nahi baita, tenorean tenoreko galtzeak aitortzea gertatzen zitzairen, eta beren gordintasuna onartuz.

Jean Etxeparek hainbat aldiz deskribatu zuen alemanek nola egiten zuten oldarra frantsesen lehen lerroen kontra. Serbia lehertua izan zela aitortu zuen 1915eko abendu bukaeran¹¹⁷⁰. 1916ko martxoko kronika batean, nahiz eta ez zen ongi ageri nongo borrokaz ari zen eta nor atera zen galtzaile, alemanen oldarraren deskribapen ona eskaini zuen¹¹⁷¹. Ez zen aldi bakarra izan. Bera zegoen eskualdean – artikuluan zehaztu ez bazuen ere, Champagne eskualdea izan zitekeen, zenbait egunen buruan handik itzuli zela idatzi baitzuen – apirilean egun gogor batzuk izan zituztela eta bost egunez zenbait hil ukan zituztela aitortu zuen. Hilak eta zaurituak aipatu zituen aski zehazki, nahiz eta borrokaz deus ez argitu. Hala ere, borrokaren ondorio txar horiek aitorturik ere, gisa batez erlatibizatu zituen, Verduneko guduarekin deus ikustekorik ez zuela argituz¹¹⁷².

Verdun aipatu dugu lehenago, hango galtzeak berantarekin aitortu zituztela errateko. Jean Etxepareren artikulua batean salbuespena zegoen, frantsesek galdua xeheki esplikatuz baitzuen. Verdun inguruko egoera biziki gogorra zela idatzi zuen. Mosa inguruan alemanak otsailaren 23tik erasoka ari zirela, aitzinatu zirela eta hainbat herri hartu zituztela argi utzi

¹¹⁶⁹ Adéma, «Leher eta zapart». 1918/12/15.

¹¹⁷⁰ Etxepare, «Nola geldituko». 1915/12/31.

¹¹⁷¹ Etxepare, «Nun bere gizonak». 1916/3/17.

¹¹⁷² Etxepare, «Apirila gure gerla-tokian». 1916/5/5.

zuen. Ekainaren 23an Souville hartu beharrez hasi zirela, baina ez zutela lortu, eta Thiaumont eta Fleury hartu zituztela argitu zuen:

Bada, muthur hori jan nahiz, etsaia oldartu zitzakon otsailaren hogoi ta-hiruan; geroztik hunat guzia ezin iretsiz lanak baitaizko emaiten. Hamar kilometra bizkitartean jabetuak badaizko, bere kanoi gaitzekin lurra itzulipurdikatu ondoan emeki emeki aitzinaturik.

Mendiskarik gorenarat heldua da, eta han kokatua, ja bi hilabete huntan. Gure eta ur-handiaren ezkerretarik bere eskuetan du Mort-Homme delakoa, eskuinetarik Douaumont, orotako gotorrena, urrunerat ikusbiderik hoberena emaiten dakona, eta Vaux, hau ere laguntza handikoa.

Zendako den etsaia hoin zorrozki oldartu holako eremu hertsian eta gure armada hainbertze nekhatu hor, ez dugu hemen atherako hitzik. Badakizue deputatuak bildu izan direla ichilik, Verduneko guduaz beren artean elhatzeko ; halaber zenaturrak. Gaitzeko bokheta churitu izan bide da hor. Jakinen du araz gerochago Frantziak, nahiz alferretan, nun diren gure hutsak eta hobendunak nor; eta agian hobendunen alderat agertuko dira behar bezain garratz gure buruzagiak!

[...] Iragan hilabetearen azkenerat, errearoaren hogoi ta hiruan, chuchen chuchena, indar gaitzean lothu dira, Souville inguratu nahiz. Bizpahiru egunez hek igorri duten obus keta, eta obus larri, ez omen ditake sinets. Gero agertu dira oldarrean, mailaka, itsasoko uhinak iduri, berrogoi ta hamar mila gizonez gainetik.

Aitzinatu ere ba polliki bi gunetan, Thiaumont eta Fleury delako herriñoaren gehientsua hartzen zaizkigutela.

Souvillei petik gora edo sahetsetarik abiatuko ziren laster, noiz gure kanoi ttipiek urhuriaka igorri baiteele muthurrerat egundaino ez bezalako erauntsia. Ez ginen han, ez dugu geure begiz ikusi, bainan badakigu lekukoetarik, presunerretarik ere ba, odol ichurtze gaitza jasaiteko ukan duela orduan etsaiak.¹¹⁷³

Azpimarratzekoa da kronika hau, oro har, aski negatiboa zela, egoera hobetu gabe idatzi baitzituen galtzeak. Garbiki aipatu zituen alemanen aitzinamenduak, nahiz eta bukaeran erran frantsesek ostiko bat eman zietela.

Alemanek Amiens inguruan, ingelesei lur eremu zabal bat hartu zietela ere aitortu zuen beste aste batez. Haren azalpenen arabera, gudua lau hilabete haietan prestatua zuten, eta 1918ko martxoaren 21ean eraso egin zuten, eta apirilaren 15 eta 20 artean Bailleul eta Ypres artean ibili ziren erasoka:

Badakizkitzue engoitik ondarrekoaren xehetasunetarik zonbait. Etsaia oldartu da, Paris-etik, Amiens-eko hirian gaindi, iparrerat doan burdin-bidearen hartzera. Ez balin bada arras heldu, bederen ostiko bat gaitza eman dako angles armadari. Jabetu zauku kasik departemendu baten eremuaz. Errazu, nunbait han eremu hori bazaukala, ja duela bi urte; utzia zuen jaz, erdi bere nahitara, erdi ezinbertzez. Aitzinatze horren izialdurak, airezkarien beldurrak, ihesari eman ditu herritar hainitz; badakizue bertzalde, kanoi moldeberri ustegabeko baten bote luzeak zonbat paristar urrundu dituen beren hiri maitetik. Kalte gaitza ingumetaka bizizale guzientzat.¹¹⁷⁴

¹¹⁷³ Jean Etxepare, «Gure aldian», *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 21a.

¹¹⁷⁴ Jean Etxepare, «Gerthatuak gerthatu», *Eskualduna*, 1918ko maiatzaren 17a.

Gainerako testu gehienetan ez bezala, xehetasunak kontatu zituen, alemanen prestakuntzaren ikuspegitik. Aski negatiboa zen, ez zuen propaganda kutsurik edo zentsura zantzurik. Haatik, artikulua baikortasunez idatzi edo bukatu nahi izan zuen, azkenean alemanek galduko zutela hitzemanetz. Geroago, 1918ko martxoaren 21etik ekain erdialde arteko gorabeherak kontatu zituen. Haren artikulua arabera, alemanek eraso egin zuten Montdidier eta Amiens inguruan, eta maiatzaren 27an Soissons eta Reims artean. Parisera hurbiltzen ari zirela ere idatzi zuen, baina gero eta zintzur hertsiaigoan aitzinatu behar zutela eta haien trabak azaldu zituen. Ekainaren 17an oldartu ziren alemanak, baina frantsesek Reims inguruan «indar handirik egin gabe», kanoiekin «kalmarazi» zituztela gehitu zuen¹¹⁷⁵. Azken hilabeteetako kronologia labur baina zehatz horretan, alemanen aitzinamenduak aitortu zituen, nahiz eta bukaerak kutsu baikorra zuen, frantsesek garaipen txiki bat egin baitzuten.

Nahiz eta, oro har, gibelatzeak gertatzen zirenean ez zituzten berehala aipatzen, batzuetan alemanak aitzinatu zirela aitortu zuen Blaise Adémak. Baina, aitzinatze horiek nolazbait justifikatzen edo beste baten bizkar ezartzen zituen. Hain zuzen, gehien aipatzen zituen gibelatzeak 1917an gertatuak ziren, hala nola, Errusiako iraultzaren ondorioz, Errusiako tropak erretiratu ondotik. Alemanek ekialdeko frontea libre izanik, mendebaldean indar handia eginen zutela iragarri zuen *Eskualduna*-k¹¹⁷⁶. Ildo beretik, beste behin Italiak gibelera egin zuela, baina horren ardura errusiarrek zutela zehaztu zuen. Gerlak 1917an bururatu behar zuela baina errusiarrek uko egin ziotelako luzatzen ari zela eta Italiak gibelera egin zuela idatzi zuen¹¹⁷⁷. Beste artikulua batean ere mintzatu zen italiarren gibelatzeaz, eta horren ondorioz ustez betiko etxera igorri soldaduak berriz gerlara deitu zituztela erran zuen. Orduan ere errepikatu zuen Italiak gibelera egin zuela Errusiako «nahasmenduen» erruz. Adémaren arabera, alemanek oldar hori egin zuten Italian, beren tropei kemena emateko, eta pentsatuz frantsesek tropak igorri beharko zituztela hara eta, beraz, Frantzian aitzinatu ahal izanen zirela. Gauzak ez zirela alemanek pentsatu bezala gertatu eta alemanek Andereen Bideko gainak utzi behar izan zituztela erranez bukatu zuen artikulua Adémak¹¹⁷⁸. Italiako gibelatzeen aitortzea halako erlatibizatze batekin zetorren, hala nola, erakutsiz gauzak ez zirela alemanek nahi bezala jarraitzen ari. Bestetik, galtze hori errusiarren bizkar ezarriz, nonbait porrotaren ezitze edo justifikatze bat bazen, kutsu negatiborik ez emateko gisan.

¹¹⁷⁵ Jean Etxepare, «Zintzurra zabaldu», *Eskualduna*, 1918ko uztailearen 5a.

¹¹⁷⁶ Adéma, «Rusia». 1917/5/18.

¹¹⁷⁷ Adéma, «Ondorioak». 1917/11/2.

¹¹⁷⁸ Blaise Adéma, «Ez lotsa», *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 9a.

1918ko maiatzeko artikuluan batean ingelesek zituzten zenbait zailtasun aipatzen zituen, eta horrekin batean alemanak ahul zirela eta oraino azkarrean zirela zioten bi bertsoak ere eman zituen. Adémak garbiki azaldu zuen, batzuen ustez ingelesak gibelera zteraino oldartu zirela alemanak, ahul zirelako eta gerla laster bukatu nahi zutelako, eta beste batzuen ustez oldar hark erakusten zuela indarra bazutela eta amerikarrek aliatuak lagundu baino lehen egin nahi zutela oldar hori¹¹⁷⁹. Alemanen indarrari buruzko hipotesi hori ematea bera ere ez zen ohikoa, normalean alemanak ahul zirela erakustea baitzen *Eskualduna*-ren helburua. Alemanen indarraren hipotesia onartuz, aliatuen indarra erlatibizatu zuen. Dena den, artikuluan bukaeran aliatuek irabaziko zutela hitzeman zuen, kezkatzeko arrazoiak eman ondoan, ez kezkatzeko erran nahiz bezala.

Jean Etxeparek gerlako tokitik idatzi gutun batean, alemanek egin zituzten aitzinamenduak biziki zehazki aipatu zituen, hain argi kontatzea ez bazen ohikoa ere. Euskal Herriko soldaduek Craonne ingurua utzi eta Amiens eskualdera joan ziren, eta han, alemanek isilka, lanbro gau batez, aire pozoitua bota zutela idatzi zuen Etxeparek. Ingelesak gibelka joan zirela eta alemanak barna sartu zirela aitortu zuen:

Maiatzaren hogoi ta zazpikoa dugu hau. Ez ginuen igurikitzen; jin denean baizik ez gitzazko ohartu. Galtze puska bat, gizon, lur eta tresna, bainan guziz bihotz zimiko berri bat, ez ttipia.

Soissons eta Reims-en artian, arras mehatuak gintuen gure mailak: errechimendu andana bat igorririk hemendik Montdidier eta Amiens-eko alderat, martcho ondarreko haitada izigarrian. Bazakiten alemanek; ikusiak zituzketen lekutzen; salhatarietarik ere jakina zuketen lekutuak zirela. Mehatuak izan gatik, beldurrik ez ginaukan: toki gaichtoa delakotz oldar batentzat, dena bizkar, oihan eta zoko, bide on gutirekin. Angles aralde batzu bagintuen gureen artian. [...] Etsai zakurra! Gauaz eta oihanpean metatzen ari zen, urrundani jinez ichilka! [...] Anglesek etzuten atchiki; nahasi ziren berehala eta gibelka abiatu, tresna eta hazkurri ederrik uzten zutela lekuen gainian. Lehen kanoi lerroak ere galdu zituzten. Aleman soldadoak heldu ziren bethi aitzin, erreka erreka, zokoz zoko, oihanpe oihanpe, mitrallusak sorbaldan, zaldizkoak lagun han-hemenka, kanoi arinak urhatsez urhats jarraitzen zitzaizkotela. Airezkari andana batek ozarki erakusten zaizkoten angles gibelkarien hatzak.

Ziloa ausarki zabaldurik, hirugarren egunekoztat berrogoi ta bortz kilometraren zabaltasunean eta berrogoi barna sartzen zitzaukun etsaia, emperadorearen semea bera buru. Bi hegaletan, Soissons eta Reims hiri aiphatuak beretzen zituzten. Berrogoi ta hamar bat herrietako jende gaichoak beren aitzinian. Oldarraren abia ordutik hasirik, kanoi moldeberri bote luzegoak joiten zuen Parise, dotzena bat aldiz egunka. Gauaz, alferretan haatik, airezkariak hurbiltzen ziren inguruka, Parise nahiz lehertu. Zer kanoi ukaldiak gure aldetik, izar churitarra! Zer chichtu zorrotz eta ezkil joak! Zer elektrik inhar distiadurak zeruetan gora! Lo guti holako aldarte hitsetan; gogoa aldiz alha, min emaiterainoan...

Egun laugarren eguna. Berriak ez hainbat hobeak: etsaia bethi aitzina heldu. Atzo ja Château-Thierry bere kanoien azpiko zaukan. Gerlaren hastapeneko sail berareren hartzera doala iduri.

¹¹⁷⁹ Blaise Adéma, «Zer orai?», *Eskualduna*, 1918ko maiatzaren 3a.

Chehe chehea mintzo gitzautzue hemen, ez baita egia bezalakorik gogoaren argitzeko, nola azkartzeko bihotzaren. Fede osoa badaukat halere, nitaz bezenbatian, ihardukiko dugula, higituko otso errabiatua eta ehoko noizbait.¹¹⁸⁰

Dena den, bukaeran, gerla aliatuek irabaziko zutela segurtatu zuen Etxeparek, ezkortasun hori erlatibizatuz. Gibelatzeen edo galtzeen aitortzaren arlo horretan, salbuespen horien barnean ere nabarmendu dugu baikortasunari lekuri kendu nahi ez izatea. Aliatuentzat berri kezkarriak ematen zituztenean ere, konfiantza edukitzeko eskatuz bukatzen zituzten artikulua. Beraz, bai, salbuespenak ziren, gibelatze horiek ez zirelako berantarekin aitortzen, edo ez zituztelako beste batzuetan bezainbat erlatibizatzen. Baina, garaipena hitz emanez lasaitzeko mezuekin, intentzioa beti bera zen. Beti baikor egon behar zen.

Armen aipuak bezala, guduen aipuak ere gazi-gozaok ziren. Verduneko adibidea biziki garbia da, gudu hain bortitz batetik landako testuak ez ziren batere baikorrak. Andereen Bidea ere ez zen une atsegina izan. Baina gogortasuna onarturik ere, beti itxaropentsu zirela erakutsi nahi izaten zuten. Gerlan egiten zituzten aitzinamenduak azpimarratzea eta gibelatzeak erlatibizatzea edo berantarekin aitortzea ere helburu berarekin egiten zuten, balorazio orokor baikorraren egiteko. Eta nahiz eta batzuetan gibelatzeak deblauki aitortu, hala ere bukaerari begira baikor agertu nahi izaten zuten. Berri txarretan ere ona ikusi nahi zuten. Hori ere gerlan borondatez inplikatzeko bide bat zen, gerlarenganako fedea dudan ez ezartzekoa.

C. Kalte material eta humanoak

Gerlaren ondorio militarretatik landa, zirkulua pixka bat hetsiko dugu, soldaduen artera eta gerlako lekuetara begiratzeko, ondorio guztiak ez baitziren militarrek, taktikoak edo estrategikoak. Gerlak milaka hil utzi zuen. Tragedia ikaragarria izan zen. Gudu bakoitzak gizon andana bati kendu zion bizia. Gerlaren alde horrek ere ukan zuen bere lekua *Eskualduna*-ko orrialdeetan.

Kalteak bi gisatakoak ziren. Alde batetik giza kalteak zeuden, eta horiek nola aipatu zituzten aztertuko dugu lehenik. Bigarrenik, ondorio material eta sozialak aztertuko ditugu,

¹¹⁸⁰ Jean Etxepare, «Ukhaldi berria», *Eskualduna*, 1918ko ekainaren 14a.

horiek ere barnatu baitzituzten *Eskualduna*-ko idazleek, eta elementu interesgarriak aurkitu baititugu, arlo horretan, testuak aztertzerakoan.

I. Giza kalteak

Gerlaren ondorio larriena eta ikusgarriena, eragin zuen zauritu eta hil kopurua zen. Etxeetan ondorio haiek eragin handiagoa zuten gainerako ondorioek baino. Seme baten, aita baten edo senarraren galtzea drama handia zen, are gehiago etxe berean bizpahiru hil edo gehiago baldin bazituzten. Nahi ala ez, heriotzaren gaia *Eskualduna*-ra ere etorri zen, halaberharrez. Herrietako berrietan, gerlatik zauriturik heldu zirenen berriak agertzen ziren, eta baita ere, astero, gerla lekuan hildako baten edo besteren berriak. Gu ez gara herrietako berrien aztertzen hasiko. Giza kalte horiek gerla tokitik idatzi zutenek eta *Eskualduna*-ko editoriala idazten zutenek nola aipatzen zituzten ikertu nahi dugu. Lehenik, zaurituak aipatuko ditugu. Eta gero sakonduko dugu hildakoen gaia.

a) Zaurituak

Gerlak 3 milioi zauritu eragin zituen frantses estatistiken arabera¹¹⁸¹. Zaurien %60 obusen leherketek eragin zuten, %34 balek eta arma zuriek %0,3 bakarrik. Gerlak utzi zituen zauritu ugarien aipuak Baionan berean hasi ziren, *Eskualduna* astekarian. 1914ko irailaren 11n berean agertu ziren kolpatuen aipuak, Baionara hainbat zauritu heldu zirela idatzi baitzuten. Geroago ere, Baionan ziren zaurituez mintzatu zen Manex Hiriart-Urruti:

Ez baitezakete aski erran, zoin ongi, zoin gochoki, beren haur edo haurride batzu bezala dituzten arhatzen lotzen, garbitzen, pherekatzen, buluzten eta beztitzen, ahora hazten ahamenka, behar arau, deusek ez lotsatzeraino, ez okaztatzerainokoan. [...] Behar ere ba, eta zuzen: herriarentzat, guretzat beren odola ichuri duten gizonek deusen eskasik ez dezaten sofri.¹¹⁸²

Baionako eritegietan zaurituen artatzen ari ziren erizainak txalotu zituen artikulu horretan. Hain zuzen, gerlan zauritutako milaka soldadu ezin izan zituzten gerla tokian artatu, leku eskasez, eta arinkienik zaurituak zirenak beren herrira igorri zituzten, han arta zitzaten, eta Joël Rocaforten azalpenen arabera, Miarritzeko 38 hotelak ospitale gisa antolatu zituzten¹¹⁸³, eta Baionan eta Angelun ere hainbat leku prestatu zituzten gerlako zaurientzat¹¹⁸⁴. Hiriart-Urrutiren zenbait artikuluren arabera, ospitale edo erietxe horietan

¹¹⁸¹ Cazals, *Les mots de 14-18*, 18.

¹¹⁸² Manex Hiriart-Urruti, «Bihoztun, bihotzgabe», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 12a.

¹¹⁸³ Rocafort, *Avant oublié: soldats et civils de la côte basque durant la grande guerre*, 102.

¹¹⁸⁴ Ibid., 120.

gaindi ibiltzen zen, zaurituekin mintzatzeko eta haien lekukotasunen biltzeko. Zauritu horiek gerlara itzultzeko grina zutela erakutsi nahi izaten zuen.

Jean Saint-Pierrek, gerla lekutik, zaurituak hainbat aldiz aipatu zituen, baina haien izaria gutxiesteko joera ere nabaritu daiteke. Artikulu batean, adibidez, lehegailu batzuek gero eta zauritu gutxiago eragiten zutela aipatu zuen. Zehazki, «Crapouillots» izeneko lehegailuen deskribapena egin zuenean, lehegailu horiek gero eta kalte gutxiago egiten zutela erran zuen, eta zergatia ere esplikatu. Metro bateko goratasuna eta 30 zentimetroko zabalera zuen lehegailu hori berant lehertzen zen, eta beraz soldaduek ikasi omen zuten hura lehertu aitzin ihes egiten:

Erreketan ez da zalaparta handirik. Hurbiletik ari diren tresna tzar heiekin ez dute hastapenean bezalako kalterik egiten alamanek. "Crapouillots" direlako obus handi heiek badute metro bat baino gehiago goratasunean, hogoi-ta hamar zentimetro zabalean. Urrunerat badute bataila handi baten eite. Hala hala jausten dire, bataila bezala, bilintzi balantza, arras emeki. Bada beraz astia, lurpean barna gordetzeko, erortzen diren tokitik aldaratzeko. Ez dire berehala zapartatzen, lurreratu direneko.¹¹⁸⁵

Zauriak desdramatizatu zituen, armen eraginari garrantzia kenduz. Gogoraz dezagun, arma horiek aipatu ditugunean, *Zerbitzari*-ri ez zitzaizkiola batere gustatzen zehaztu dugula. Saint-Pierrek haien eragina gutxietsiz, gerlaren larritasuna eztitu edo ezkutatu nahi zuen. Beste artikulu bat, hainbat kanoikada izan zela eta alemanek lubaki bat hartu zietela jakinarazi ondoan, zauritu gutxi izan zutela zehaztuz bukatu zuen¹¹⁸⁶, erasoiei larritasuna apalduz. Gisa bereko mezuak izan zituen beste batzuetan ere, adibidez, gero eta zauritu gutxiago zutela eta erietxe batzuk itxi behar zituztela idatzi zuenean¹¹⁸⁷. Itxura guztien arabera, Jean Saint-Pierre ospitaleetan ibiltzen zen; ez da harrigarri, hainbat hilabetez 18. erizain atalean ibili baitzen, zaurituen garraiatzen. Eta, funtsean, artikulu horretan, azaletik bazen ere, zaurituak nola artatzen zituzten edo nola antolatuak ziren esplikatu zuen, gerlaren kalteak eztitu zirela berrestearekin batera¹¹⁸⁸.

Beste hainbat berri edo anekdotatan zenbait soldaduren zauri zehatzak aipatu zituen. Soldadu batek bazuen apaizen kontrako hitz gaixto bat larruan egina, eta zauritu eta apaiz soldadu batek artatu behar zuela idatzi zuen behin¹¹⁸⁹. Beste behin, apaiz euskaldun bat zauritu zela idatzi zuen, eta, auzo herriko elizara eramane zutela, ospitale gisa moldatua baitzen¹¹⁹⁰. Handizki kolpatua izan zen Durquet lotinanta, euskaldun eta apaiza ere aipatu

¹¹⁸⁵ Jean Saint-Pierre, «Kolpatuak», *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 14a.

¹¹⁸⁶ Jean Saint-Pierre, «Gerlarien berri», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 17a.

¹¹⁸⁷ Jean Saint-Pierre, «Kolpatu gutiago», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.

¹¹⁸⁸ Jean Saint-Pierre, «Giristino», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 5a.

¹¹⁸⁹ Jean Saint-Pierre, «Apeza besoan», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.

¹¹⁹⁰ Jean Saint-Pierre, «Apezak gerlan», *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 12a.

zuen¹¹⁹¹. Aipatutako adibide horiek ez zuten interes berezirik, baina gerlako ondorioen aipamen zuzena ziren.

Beste batzuetan zauriak desdramatizatu zituen. Hona adibide garbi bat, uztailaren 14an Parisen izan zen beste batekoa:

*Hoik oro hola, badakizue zer zen pesta hortan pollitenik? Pariseko jaun andere hoiek soldado kolpatu bat besarkatu dutela guzien aintzinean, matela poxi bat baizik ez zuelarik ageri bere loturaren erdian. Nunbeitik ere eskualduna hau ere. Min ttipia eta lotura handia.*¹¹⁹²

Aipatu zuen soldadu horren zauriei buruzko beste xehetasunik ez dugu, baina Sophie Delaportek aurpegia itxuraldaturik izan zuten soldaduei buruz aztertutakoa kontuan hartuz gero¹¹⁹³, nekez sinets dezakegu buruko lotura hain handia baldin bazen, zauriaren arrastoak ez zirela larriak.

Zaurituez zenbait aipamen egin zituen *Zerbitzari*-k ere, gertakari zehatzak aipatuz, Kanboko Chiquito (Joseph Apesteguy) pilotariaren¹¹⁹⁴ zauritzea bezala:

Bada haatik bat, omen handikoa, egun hautan kolpatua: Chiquito pilotaria. Orain arte ederki bethe zuen bere eginbidea. Etsaiari gizon bat baino gehiago hilik bazuen, heintto bat chuchen bombak heien erreketan sartuz.

*Orai bera da kolpatua: uruski ez du gerokorik. Sarrichago, ikusiko dugu segur Eskual-Herriko plazetan eta Eskualdun guziek merezi dituen laudorioak emanen diozkate...*¹¹⁹⁵

Pilotari ospetsu horren zauriei ez zien larritasunik ikusi, eta franko arinki aipatu zuen gertakari hori, Kanboko Chiquito heroi gisa aurkeztuz eta laster sendatuko eta Euskal Herriko pilota plazetara itzuliko zela segurtatuz. Gisa berean, Saint-Pierrek egin zuen bezala, zenbait guduz idaztean, zauritu gutxi ukan zutela azpimarratzen zuen, kalteak gutxiesteko:

Uste dut etsaiek guri baino min hainitz gehiago egiten duten hauk etsaieri. Chokhoak bilhatzen dituenak ditu pilotan ere kintzeak hobekienik hausten.

Orai arte baino kolpatu gehiago ez badugu hemen egon behar dugun azken egun hautan, ez dauku bihotzean min handirik eginen sarri "Somme" delakoaz orhoitzeak.

*Ah, nihun ez balute gure armadako Eskualdunek hemen baino odol gehiago ichuri!!!*¹¹⁹⁶

¹¹⁹¹ Jean Saint-Pierre, «Durquet lotinanta», *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 9a.

¹¹⁹² Jean Saint-Pierre, «Uztailaren hamalaua», *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 28a.

¹¹⁹³ Sophie Delaporte, «Les défigurés de la Grande Guerre», *Guerres mondiales et conflits contemporains* 175 (1994ko uztaila): 103–121; Sophie Delaporte, *Les gueules cassées. Les blessés de la face de la Grande Guerre* (Paris: Noësis, 1996).

¹¹⁹⁴ Louis Toulet, *La Pelote basque. Histoire, technique et pratique* (Paris: De Vecchi, 1979).

¹¹⁹⁵ Jean Saint-Pierre, «Maiatzaren 28an», *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 4a.

¹¹⁹⁶ Elizalde, «Kanoien karraska». 1917/2/16.

Pasarte horretan zauritu gutxi zutela kontatzen bazuen ere, ohar gaitzke oro har euskaldunek odol anitz isuri izana aipatu zuela, atsekabe puntu batekin. Beraz, zaurituak erlatibizatu nahi bazituen ere, ez zen hain modu itsuan ibili. Baina beste aldeko zauriak eta odola ere aipatu zituen, beste batzuetan, poz gehiagoz:

Hogoi-ta seietik hunat, hamalauetan lerroka jazarri zaizku. Uruski ez ginauden lo. Zer etsaiketak igorri ditugun lurrerat. Ura errekan bezen lodi soan aldi bakotch aleman odola, lurrean.¹¹⁹⁷

Beste behin, zauritua zela eta min zuela zioen soldaduaren eta sinesten ez zuen sarjentuaren arteko eztabaida interesgarria kontatu zuen, bera eztabaidaren lekuko zela eta paperarekin eta idazlumarekin idazten ari zela argituz:

Gerlako bizia ez da kasernakoa soldadoarentzat. Irrisku gehiago du: nekhea ere ba. Eta horregatik nihor guti sanjatzten du gerlak.

Hala nola, mendea iraun baleza ere gerlak, sarjant bat bethi sarjant geldituko zaitzue: orotan azken hitza behar.

Duela egun pare bat, soldado kolpatu bat baderamate eritegi batetarat. Tente potente, athean eritegiko sarjanta. Marrumaka ari baita kolpatua, kechatzen da gure gizona:

- *Haizen bezalako ninia, nahi duk ichiltzen haizela...*
- *Ai, ei, ail!*
- *Allo, egoadi geldirik eta ichilik, deus ez duk hori.*
- *Zuk bazinu...*
- *Muthiko bitchia, ichil hadi, hemendik fueratzea nahi ez baduk...*
- *Ai, ei, ai, hiltzerat noa...*
- *Hil hadi debruetarat: orduan eginen duk nahi dukan bezenbat oihu!¹¹⁹⁸*

Delako sarjentu hori miarritzarra zela zehaztu zuen gero, eta ez zela inondik ere gizon gaiztoa, eta kanpotik azal gogorra erakusten bazuen ere, bihotz handikoa zela azpimarratu zuen. Ezin dugu erran zauria desdramatizatu zuenik, baina zauria hain larrizat jo zuenik ere ez, eztabaida hori aski arinki kontatu baitzuen, sarjentuaz gaizki mintzatu gabe. Baina, *Zerbitzari*-ren tonu ezti edo arinaren gibelean, informazio interesgarri bat eman zuen, beharbada nahigabe: zaurituak ez zirela beti sinetsiak edo haien larritasuna ez zela beti kontuan hartzen.

Gutziz beste ildo batean dugu A.I.ren artikulu bat, atal batzuk lehenago aipatu duguna¹¹⁹⁹. Hain zuzen, zaurituak eramateko zituzten baldintza txarrak salatu zituen. Kexatze hori ez zen ohikoa *Eskualduna*-ko artikuluetan. Baina soldadu soil baten jarrera

¹¹⁹⁷ Jean Elizalde, «Hamalau oldar», *Eskualduna*, 1918ko apirilaren 19a.

¹¹⁹⁸ Jean Elizalde, «Irri egiteko, hau: ez gaichatakeriaz», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11.

¹¹⁹⁹ A.I., «Zalonikatik letera II». 1916/3/3.

ageri zen, eta ez hainbeste ildo politiko batean integratzen zen apaiz edo soldadu aitzindari batena. Kritika horri erreferentzia egin behar badiogu ere, salbuespen gisa hartuko dugu, gainerakoan, zaurituak aipatzen zituzten gehienetan aski modu arinean izaten baitzen, beti berri txarrak eztitzeko edo tapatzeko intentzioarekin.

b) Hilak

Nekez egin dakioke ihes heriotzari, gerla aipatzean, jakinez European bederatzi milioi lagun hil zirela, eta hori baino hiru aldiz zauritu gehiago izan zela, sei milioi elbarritu, hiru milioi alargun eta sei milioi umezurtz¹²⁰⁰. Heriotza kopuru handienak laborarien artean izan ziren, haien arteko heriotza tasa %17,5koa izan zen¹²⁰¹. Ez gara harrituko Euskal Herriko soldaduen artean ere anitz hil baldin baziren, beraz, 6.000 bat lagun hil baitziren. *Eskualduna*-k ere, nahi ala ez, hilak aipatzen zituen, beharbada bere testu hunkigarrienetarikoetan. Jean Saint-Pierrek hilak zenbait artikulutan aipatu zituen, besteak beste hildako euskaldunetz ari zenean. Batzuetan zaurituen edo hildakoen artatze lekuak eta hilerriak deskribatzen ditu. Eta alde horretatik, Luc Babaquy apaizaren heriotzaz idatzi zuena interesgarria eta hunkigarria izan zen.

Ehortze hunkigarri bat nago ikusirik egun ochtian. Aita Blaise, Frantziako lurak galdurik Espainia Oyharzunen bizi zena ehortzi dugu; "tranchées" direlako lur zilo hetarik batean kolpaturik hila. [...] Hilerrietan bi apez omonierek adiarazi dituzte zonbeit hitz hunkigarri. Bat mintzatu da bereziki apez fraidearen kurai gaitzaz eta Frantziari erakutsi dion amodioaz, Frantziak bizkitartean Espainian bizitzerat bortchatua zuelarik, hemen pocholuz hura zen frantses ona!

Bertzeak aipatu du kaputchin eskualdun misionesta, bertze chederik etzuen, baizik ere Jainkoaren maitaraztea bere Herrian; gizonen artean bakearen hedatzea, San Frantses Asisekoak bezala, eta azkenik bere odola ichuri duena, salbai higuigarri batzuen urruntzeko Frantziatik. [...] Koka ahala baino gehiago soldado hil badire hilerri hartan ehortzirik; inguruko harrasiaz kampo lurra hartuz handitu beharko da edo ja handiturik dago Fismes herriko hilerria.¹²⁰²

1914ko abenduaren 1eko gutunean kontatu zuen hori Saint-Pierrek. Aita Blaise nor zen ez zuen zehaztu, baina zenbaki bereko editoriala ere gizon horri eskaini ziotenez, une batez Babaquy deitura zuela eta Lekornen sortua zela zehaztu zuten¹²⁰³. Gerlan hil zirenen datu basean¹²⁰⁴ begiraturaz baieztatu ahal izan dugu Saint-Pierrek eta Hiriart-Urrutik aipatu

¹²⁰⁰ Audoin-Rouzeau eta Becker, «Violence et consentement: la «culture de guerre» du premier conflit mondial», 255.

¹²⁰¹ Christophe Charle, *La crise des sociétés impériales. Allemagne, France, Grande-Bretagne, 1900-1940. Essai d'histoire sociale comparée* (Paris: Seuil, 2001), 253–254.

¹²⁰² Jean Saint-Pierre, «Gerlari berri», *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 11.

¹²⁰³ Manex Hiriart-Urruti, «Eskualdun kaputchin soldadoa», *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 11.

¹²⁰⁴ <http://www.memoiredeshommes.sga.defense.gouv.fr>

zuten apaiz horren izen-deiturak Luc Babaquy zirela, 1914ko azaroaren 29an hil zela, Fismes herrian, gerlako zaurien ondorioz eta 249. Infanteria Erregimentukoa zela. Saint-Pierreren artikuluak dena zuzen kontatu zuen: 42 urte zituela eta berez ez zela sura joan behar, baina bere baitarik joan omen zela, emaztea haurdun zuen soldadu baten lekua hartzeko. Artikulu interesgarria da, ez bakarrik heriotzaren eta ehorztearen kronikarengatik, baina baita ere eman zituen hainbat xehetasunengatik, Fismeseko eritegia eta hilerriari buruz. Babaquy zortzi egunen buruko zauritu zuen obus batek. Zauriturik Fismeseko (Reims eta Soissons artean) geltokira eraman zuten, zauritu guztiak bezala. Han eman zizkioten artak zehaztu zituen Saint-Pierrek. Zauriaren, heriotzaren eta ehorzketaren kronika ohargarri horretan, hildako euskalduna goraiatu nahi izan zuen, heroi gisa aurkeztuz. Babaquy Fismeseko hilerrian ehortzi zuten¹²⁰⁵, eta ohargarria da Saint-Pierrek nola zehaztu zuen «koka ahal» betea zela, gerlak hil anitz eragiten zuela aitortzea baitzen hori.

Denak ez zituzten hilerrietan ehortzi, ordea. Beste artikulu batean gerla hastapenean hil anitz ehortzi gabe gelditu zirela esplikatu zuen:

*Gerla tokian hil soldadoak ehorzten dire lehenbailehen: gerlako lehen hilabetean, gibelerat egin ginuen hartan, gure hiletarik: hanitz utzi behar izan ginuen etsaiaren eskuetan.*¹²⁰⁶

Aipatzen zituzten heriotza anitz bonbek eraginak ziren, eta Prosten arabera, ulergarria da, buruz buruko hilketak anitzez gutxiago izan baitziren, artilleriaren bidezko hilketekin konparatuz¹²⁰⁷. Eta ehortzi gabe gelditzen ziren gorpuak bonbek nola suntsitzen zituzten ere deskribatu zuen *Zerbitzari*-k:

Verdunen bezala gero kanoiek han berean phorroskatzeko, gudu tokian gelditzen ziren soldado hilez orhoitu-eta, bihotz altchagarri handia da guretzat hemengo hil-herrien ikustea.

Nahi dut hemen ere soldado frango hil diren tokian gelditu direla eta zorigaitzez gero kanoiek phorroskatu. Ezin dezaket hori uka, nere begiz ikusi baititut hemen buru bat, han beso bat, urruntchago ichter edo zango bat. Eta behin baino gehiagotan. Ezinbertzea delarik, nihork ez du hortan hobenik.

Egia hau da halere: hemengo hil gehienak altchatu dituztela lagunek eta behar den errespetuarekin hil-herri pollit batzuetan ehortzi. Hobiak han daude, han-hemenka, lerro-lerro bidearen bazterrean eta bakotchak badu bere gurutzea hilaren izenarekin. Gurutzea besoak zabaldurik han dago, gerlako karraska guzien gatik, hilaren zaintzeko bezala

[...] Artea nuelarik sartu naiz hil-herri horietan eta denetan othoitz labor bat egin. Nigar chorta zenbeit ere ichuri, gurutzean eskualdun izen bat irakurtu dutalarik. Ezen hemen ere, naski denetan bezala, hil

¹²⁰⁵ Memorial du Chemin des Dames webgunearen arabera, Suippes-eko hilerrian ehortzia da, gaur egun, Luc Babaquy. <http://bit.ly/qnf0dr>

¹²⁰⁶ Jean Saint-Pierre, «Gerlako hilarriak», *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 19a.

¹²⁰⁷ Prost, «Les limites de la brutalisation: tuer sur le front occidental, 1914-1918».

*dire Eskualdunak. Badakit: muthiko maite horien amek herriko elizaren gerizan nahiko zituzten horien gorputzak, noizetik noizerat lore bat eskaintzeko.*¹²⁰⁸

Pasarte horretan gerlak eragiten zuen sarraskia eta gorputz xehatuak biziki konkretuki deskribatu zituen, baina horrez gain gorputz haiek hilerrietan ehorzteko ahalegina azpimarratu zuen, eta hilerrietan egiten zituen bisitak kontatu. Euskaldun anitz hilak izateak eragiten zion pena eta etxekoek jasaten zutena gogora ekartzean, heriotzaren alde iluna erakutsi zuen. Hilak ez zituzten ahanzten, eta hilerrietatik pasatzen ziren, euskaldunen hobien aitzinean lore baten uztera eta negar baten isurtzera:

*Sortu eta zabaldu diren, erreka hegietan, lore tiki usainduak. Artharekin erhi punttez krikakoan mozturik, erematen ditugu gure Eskualdun hilen hobietarat: hori zor diotegu naski gaichoeri. Noizetik noizerat ere loreñoetarik bat, nigar batekin bustirik eta musu gozo bat erdian, gure letretan igortzen dugu etcherat, amak laket baitu haurraren musua eta haurrak aitarena...*¹²⁰⁹

Hilerriei garrantzia eman zien Saint-Pierrek ere, eta haren artikulua irakurritz, ageri da soldaduek arreta berezia ematen zietela, adibide honek erakusten duen bezala:

*Nahuzue bertze Eskualdun baten berri? Ez dut emaiten izenik. Hilarri batean Eskualdunen hobiak aphaintzen ditu bertze guzien gainetik. Bertze guziak ere gogotik artha lezazke, astia balu, bainan bederen herritar gaizoer egiten diote bere ikustatea, bihotzez eta eskuz.*¹²¹⁰

Lagunen herioak sortzen zion mina ere adierazi zuen behin, idazten zuen gutuna lurpean gelditu zela kontatu zuen artikuluan. Alemanen bonba baten azpian harrapatu zuten, eta lurpean, aterpea suntsiturik gelditu zen:

Iragan asteko irakur-aldian ene sail tipiak huts egin zuen. Ene lehen auzoekin samurtua nintzen Zinez: etxeak eta oro erhautsi daizkit alemanak. Nihaur barnean ehortzirik ene ontasun guziekin. Banintuen zenbait lerro moldatuak, bospasei aldiz orratzean haria sarturik. 'Papera eta gizona biak lohian egonak gira hiru metre barna: bietarik bat jali zen nolazpeit, hatsa labur eta sudurra zimur; papera nahi duena datorla aintzurra bizkarrean; Eratutsiko diot nun atzeman.

*Funtsean bego den tokian. Bada hemen bertze lanik. Atherbea laster berritu nuen, eskualdun langile batzu jinik laguntzera. Bainan ez nuen nehoi salhatzen ene sabeleko mina: debruak hartua nindagon, nola behar othe nion alemanari pagatu nere zorra, nola endekatu nere lagun gaizoen zauri eta heriotzeak.*¹²¹¹

Gehiago mintzo zen lurpean gelditu zen gutunaz, baina, funtsean, ez zen hori min handiena eman ziona, artikulua bukaeran agertu zuen bezala, baizik eta lagunen zauriak eta heriotzak. Ez zituen anitz barnatu, baina min hori aitortu zuen. Lehenago aipatu dugun beste artikulua batean ere euskaldun baten heriotzak eragin zion minaz mintzatu zen:

¹²⁰⁸ Jean Elizalde, «Hemengo hil-herriak», *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 2a.

¹²⁰⁹ Jean Elizalde, «Han hemenka», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 31a.

¹²¹⁰ Jean Saint-Pierre, «Hilarri batean», *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 4a.

¹²¹¹ Jean Saint-Pierre, «Eskualduna lurpean», 1917ko azaroaren 16a.

*Bihozminekin jakin nuen heien artean zela Mendiondo aphez eskualduna, Hendaiaiko ala Baionako gaztek ezagutu dutena beren onari bihotzez jarraikia, eta hemengo eskualdunek ere, lagun maitagarri eta soldado bihoz dun.*¹²¹²

Zerbitzari-k ere aipatu zituen hildakoak, eta gudu batetik landa hil anitz ukan izan zutela deblauki aitortu izan zuen, nahiz eta berek ere etsaiak hil dituztela gehitu. Mont-Renaud gainaren inguruko «egun garratza» aipatu zuen, gisa hartan. Soissons ingurutik apirilaren 29an joan ziren autoz. Lehen egunean aleman anitz hil omen zuten, baina ondoko egunetan alemanen erasoak jasan zituzten, maiatzaren 3an gibelatu behar izan zuten arte:

Apirilaren 29ean, beribiletan harturik, burumban ereman gintuzten aipatu hiri horri buruz. Beribiletarik jautsi orduko oldar egiteko manua ginuen. Goizeko bederatzi orenetan atheratu ginen ziloetarik. Hamar orenetan, bi kilometraz aintzinatua gintuen gure lerroak, etsaiari hamabi mitrailusa eta ehuneta hogoi-ta bat soldado eta aintzindari khenduz, bertzeak ehunka hilik.

Zer gudu ikharagarria! Ogipean ginohazen, herrestan, sugeak iduri. Noiz-nahi etsai multzo bat buruz buru egiten ginuen. Eskuak berehala altchatzen ez bazituzten, pan, pan, pan, tiroka bota lurrerat. Eta segi aintzinat, kolpatueri ere kasurik egin gabe, arthatzeko lana gibeletik heldu zirener utziz.

Zer egun ederra guretzat Aphililaren hogoi ta bederatzia!

Hala hala, biharamunean, aleman kanoien karraskak. Milaka heldu zitaizkun burutik behera obus ikharagarrienak. Orobat Maiatzaren lehen eta bieran.

Hiruan, gizonik bizirik atchikitze kotz, gibelatu behar izan gintuen gure lerroak. Ondikotz berantegi. Eskuinetik zilatuak zituzten frantses lerroak Alemanek. Osoki inguratuak ginen.

Handik atheratzeko ikusi gintuenak! Zer gizon-keta galdu ginuen!

Halere arratsaldeko hirur orenetan etsaiak amor eman zuen eta guk lerro berriak egin.

*Arratsaldean haatik, beribilak han gintuen berritz bilha ethorriak, pausurat eremateko. Erran gabe doa, ederki gochatu ditugula pausuko egunak. Damurik ez dute gehichago iraun...*¹²¹³

Pasarte hau gibelatzeei buruzko atalean komenta genezakeen, baina heriotzari buruzkoan sartu dugu, pare bate aldiz garbiki aitortu baitzuen gizon kopuru handia galdu zutela. Bukaerako bilakaera baikorrak nekez ezaba zezakeen heriotza anitz jasan izanaren aitortza. Hala ere, ez zuen zehaztu zenbat gizon galdu zuten Mort-Homme eskualde hartan.

Gizonak galdu izana aitortu zuen beste borroka bati buruzko artikuluan ere. Zegoen eskualdeko oldarra hasi zutenean, lehenik beltzak eta gero euskaldunak atera zirela ziloetatik zehaztu zuen. Hasieran eremu hori gizonik galdu gabe hartu zutela, baina gero harpeetan gordeak ziren alemanek tiroka erantzun zutela eta hil anitz ukan zutela aitortu zuen, nahiz eta alemanek ukan zituzten hilekin konparatu, errateko gizon gutxiago galdu zutela:

¹²¹² Saint-Pierre, «Ordaina». 1918/3/8.

¹²¹³ Jean Elizalde, «Egun garratzak», *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 12a.

Bainan gero zer chichtuak! Harpe ikaragarri batzuetan gordea, etsaia hasi zitzaikun tiroka errabia gaitzean. Soldado beltzak, erhotuak, hamarretan, hogoietan alde alderat hurbildu zitzaizkoten: aldi bakotch, etsaien mitraillusek gelditu. Han berean gaude geroztik, buruz buru, hek gordeak, gu agerian. Ez dute amor eman nahi, hek: guk, hartu lurra atchiki nahi, ezen ondoko egunetako oldarrentzat, baitezpadakoak ditugu guretu ditugun oihanak eta mendichkak. Jada bospaseietan, metaka jazarri zaizkigu Alemanak, gu, lehengo erreketarat fueratu nahiz. Debaldetan: hilez lurra estali dugu eta beren harpe debruetarat itzuli dire. Horra zertan garen eskualde huntan. Galdu dugu gizon, bainan ez hurbiltzeko ere etsaiek bezenbat. Ez gare lotsatuak ichuri odolaren gatik ez eta lotsatuko. Zer gertatuko den beha gaude... eta prest.¹²¹⁴

Gizon anitz hil zaiela onarturik ere, artikulu honetan ere aurkitu zuen bidea itzulikatze baikor baten emateko, alemanek ustez galdutako gizon kopuruarekin konparatuz eta odola ez zutela alferrik isuri eta irabaziko zutela segurtatuz. Nola baieztatu zitekeen alemanek frantsesek baino gizon gehiago galdu zutela? *Zerbitzari*-k ez zukeen halako daturik, heriotzei buruzko zenbakirik ez baitzen ematen. Baina hil kopuruaren konparaketa maiz errepikatu zuten; ororen buru, ez da garrantzitsua jakitea ea egia zen ala gezurra; garrantzitsuena dena da, beti garailearen paperetik idatzi nahi izaten zutela. Gauza bera egin zuen lehenago aipatu dugun beste artikulu batean ere¹²¹⁵, non beste borroka batean frantses guztiak hil zirela euskaldun bat salbu aipatu zuen. Orduan ere alemanek gizon gehiago galdu zutela eta bizirik gelditu zirela azpimarratu euskaldunak heroi batzuk bezala aurkeztu zituen.

Aitzindari anitz hil zitzaizkiela kontatu zuenean ere, ez zen mezu ezkorra ikusi behar. Haien sakrifizioa txalotzeko zen, eta gisa hartan aitzindariak kritikatzeko zituztenei erantzuteko. 1917ko maiatzaren 5ean Craonneko goi-ordokian izan zen eraso aipatuan hainbat aitzindari hil zela komentatu zuen:

Ederki baino ederkiago egin dute beren lana aitzindariak Maiatzaren bortzean: hil da eta kolpatu franko: bat grenada eskuan, bertzea baioneta eskuan, hirur garrena nun zen etsaia tente chutik beha. Eta hola.¹²¹⁶

Delako gudu hori, lehenago aztertu dugun Saint-Pierreren artikulu batean xeheki aipatua izan zen. *Zerbitzari*-ren artikulu horretan aitzindariak kritikatzeko zituzten «mihi gaixtoei» erantzuteko gogoia agertu zen. Heriotza heroismoarekin lotu zuen, beraz, zerbait baikor bezala aurkeztu zuen.

Baina heriotzak garaipen handienak ere histu zituen, nahi ala ez, gerla bukatu ondoko kronikan agertu zen bezala. *Zerbitzari*-k kontatu zuen nola irrintziak eta euforiak isildu

¹²¹⁴ Jean Elizalde, «Egun hautako oldarra», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 11.

¹²¹⁵ Elizalde, «Nola lotsa holako soldadoak?». 1918/1/18.

¹²¹⁶ Jean Elizalde, «Gure aitzindariak guduaren», *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 1a.

zituzten, hilak gogora ekartzeko¹²¹⁷. Gerla bukatu baino hilabete franko lehenago, *Oxobi*-k ere alde ilunetik aipatu zituen heriotzak, trenetik ikusten zituen hilobiez ari zenean, adibidez:

Goizaldera hirugarren gaua iraganik harat hunat-ka burdin bidez, ikusi ditut lehen aldikotz soldadoen hobiak. Bide bazterrean, alhorren erdian edo oihanpetako arbola hormatuen pean kurutze ttipi batzuek zaintzen dituzte duela hirur urthe ezin ahantzizko gudueta erori direnen gorputzak. Eta hotzaren, akhiduraren trufatzeko bezala, nork elhe zozoagoak erran ari baikin, irriak guziera sartu zauzku bat batean. Utzi ditugu astokeriak, gure gogok jo dute norapeit, gorago; Jainkoak bereganatu dituen lagunentzat othoitz egin dugu.¹²¹⁸

«Irriak sartu» zitzaizkiola zehaztean, herioaren gordintasuna ongi islatu zuen. Heriotzaren aurpegi guztiak agertu ziren, beraz, *Eskualduna* astekarian: alemanek baino hil gutxiago izatea eta sakrifizioa edota heroismoa azpimarratzeak ez zezakeen ezaba heriotzak sortzen zuen errespetua eta eragiten zuen mina. Mendeetan zehar heriotzaren ikuspegia aldatuz joan zen, dena den, eta XIX. mende bukaeran eta XX. mendean gizartearen zati handi batek ez zuen infernuaren beldurrik edo zeruaren itxaropenik. Baina Elizak jarraitu zuen itxaropen mezuekin eta heriotzaren ondoko fasearen edertzearekin: horrek onargarriago egiten bide zuen heriotza¹²¹⁹.

Heriotzarekin bukatzeko, beste egoera bat ere komentatu behar da, desagertuena. Desagertuak ziren borroka batetik itzuli ez ziren soldaduak, eta beste soldaduek ikusi ez zituztenak. Ez zekiten, beraz, hilak ziren ala bizirik zeuden, kasu hartan, preso edo zauriturik¹²²⁰. Desagertuez ez ziren anitz mintzatu *Eskualduna*-ko idazleak, baina herrietako berrietan hainbat aldiz agertu ziren halako edo holako gaztea desagertua zelako berria. Maiz, desagertu bat Alemanian preso zegoela jakiten zuten berriak ematen zituzten. Kasu bitxiak ere gertatu ziren, desagertu bat hiltzat eman, haren emaztea, alargundu zelakoan, beste batekin ezkondu, eta gero desagertua preso zela jakin. Baina anekdota horretatik harago, Blaise Adémaren artikulua bat aipa dezagun, desagertuen familiei ez etsitzeko deia egin baitzien¹²²¹.

Desagertuek eta hilek mina eragiten zuten, baina ikusi dugu erlatibizatzen zituztela ere, eta aise baikortzen zituztela hilak, sakrifizio gisa, alferrik isuri ez zen odol gisa. Baina garai hartan, biziak eta heriotzak ez zuten oraingo balio bera, bizi itxaropena ez baitzen 50 urtetik gora joaten eta haur anitz hiltzen zelako. Ez dezakegu gaur egungo begiekin

¹²¹⁷ Elizalde, «Zer dioten gerlariek». 1918/11/22.

¹²¹⁸ Jules Moulier, «Hobiak», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 11.

¹²¹⁹ Philippe Ariès, *L'homme devant la mort* (Paris: Éditions du Seuil, 1977), 607.

¹²²⁰ Rocafort, *Avant oublié: soldats et civils de la côte basque durant la grande guerre*, 125.

¹²²¹ Blaise Adéma, «Ez etsi», *Eskualduna*, 1916ko irailaren 8a.

interpretatu gerla hartako heriotzek sortzen zuten erreakzioa. Horregatik uler dezakegu Saint-Pierrek eta *Zerbitzari*-k heriotzak erlatibizatzeke edo alde baikorra erakusteko joera. Baina faltsua litzateke erratea heriotzak ez ziela zinezko mina eragiten bihotzean.

2. Ondorio materialak eta sozialak

Heriotzarekin batera, herri osoak ere suntsitu ziren gerla hartan. Leku haietara joan gara eta gure begiekin ikusi ditugu garai batez herri izan zirenen aztarnak: Craonne zaharra, handik hurbil Beaulne-Chivy herrixka, Verdun aldean Fleury herria. Denek itxura bertsua dute: ziloz beteak dira. Artetan, pareta zati batzuk gelditzen dira, edo hil harri baten arrastoak. Herri haiek guztiak bonben azpian suntsitu zituzten. Ondorio material haiei buruzko aipuak egin zituzten *Eskualduna*-ko idazleek eta horiek aztertuko ditugu lehenik. Ondorio materialez aparte, ekonomikoak eta sozialak ere izan zirela ikusiko dugu. Gizonak gerlara joateak herrietako bizia aldatu zuen, eta horrek zenbait liskar ere sortu zuela ikusiko dugu bigarrenik.

a) Herri suntsituak

Hainbeste lehergailurekin, gerla hartan kalte material ikaragarriak ere eragin zituzten, bistan denez. Ondorio materialen lehenbiziko aipuetariko bat Reimseko katedralaren erretzeari buruzkoa zen, 1914ko irailekoa¹²²²: Manex Hiriart-Urrutik katedral eder eta zaharra suntsitu izanaren pena eta haserrea adierazi zituen, lehenago aztertu dugun artikuluan.

Herriak edo eraikinak suntsiturik ikustearena gerlak iraun zuen denbora guztikoa zen, eta paradoxikoki, Aliatuek egiten zituzten aitzinamendu batzuk aipatzean, kutsu ezkor bat eman izan zion Blaise Adémak, aitzinatu ahala alemanek herriak nola suntsiturik utzi zituzten deskubritzen baitzuten. Gibelera egiten zutenean, herriak erretzen zituztela eta hori pagatu beharko zutela idatzi zuen¹²²³. Halaber, herriak suntsituz, alemanek gerlako legeak urratzen zituztela salatu zuen, haien «basakeria» aipatuz¹²²⁴. Beste artikuluan batean, alemanek hainbat herri uztearekin batera, bidean laneko on ziren gizonak, apaizak eta zenbait neskak hartu eta etxe anitz erre zituztela salatu zuen, eta herrien suntsiketa deskribatu:

Atzo etorri zait ikusterat handik zazpi egunentzat heldu den soldado gazte bat. Bere begiz ikusiak ditu herri hoitarik zenbeit, ihesi zoazin Alamanen ondotik han ibilia baita egun hautan. Erran daut ezin

¹²²² Hiriart-Urruti, «Elizarik ederrena». 1914/9/25.

¹²²³ Blaise Adéma, «Zer dioten?», *Eskualduna*, 1918ko urriaren 11.

¹²²⁴ Blaise Adéma, «Zer dioten!», *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 6a.

sinhetsiak direla hango desmasiak. Ikusi ditu etcheak erreak edo biluziak; karrketan oheak, mahainak, kadirak, untiak porroskatuak; sagar-ondoak, udare-ondoak, eta holako bertze arbolak, gaichtakeriaz moztuak eta han berean utziak. Nigar egingarri zen hoik guzien hola ikustea. Nork beiratuko ditu holakoak ikusi dituzten soldado frantsesak izigarriki mendekatzetik, Alamaniako lurretan sartuko direnean?¹²²⁵

Adémak lekuko zuzen baten hitzak ekarri zituen astekariko lerroetara. Herrietako kalte material handien deskribapen biziki zehatza eta hunkigarria eskaini zuen. Gerlaren ondorioak garbiki ikusteko gisan ezarri zituen, artikulua argazki bat balitz bezala.

Herriak suntsitu aitzin, bonbardaketen ondorioz herri batzuk hustuak izan ziren eta jende anitz hil edo zauritu zen. Horrelako baten kronika bat eskaini zuen *Oxobi*-k, egoera horren gogortasuna ongi erakutsi zuen artikulua batean:

Ez dire gure herritar dohakabe batzu bezala johan beldurrez, ukho egiten dutela eginbideari. Ez. Azken egun hautaraino ikusi dituzte etcheko teilak bat bertzearen ondotik pusketan airatzen eta murruetan arraildurak geroago eta zabalago idekitzen.

Bainan kalerna guzien gatik etche andetuari lothuak zauden. Obus puska zorrotzek urratu alhorretan ogia ereina zuten, geroa Jainkoaren dela eta Jainkoak nahiko zuela aurthen bederen uzta eder batek urhezta zitzan guduak zikhindu bazterrak.

Zorigaitzez, horra nun – herioaren auzo, herioa baino hazkarrago – pizten hasi delarik ogi bihia, gaindi egin duen alemanen herrak.

Goiz batez, uste gabean, herriko haur gehienak eritu dire eta hetarik hanitz hil, sorthu berrietan bereziki, ithoak. Gaichoek etzakiten hatsaren hartzea etzaiotela haizu; ezin dute beren begitharte argia aski goiz gerizatu. Zaharragoetan eritu guziak ez dire hil, bainan ez dukete arrangura eskasik geroko. Pazkak ere orotan aire gaichtoak jo ditu. Kabalarik ez ditake haz gehiago.

Azkenean Jainkoaren etcheari aihertu zaizko abre tzarrak. Nahigabe borthitzenetan, dohakabe guzieri zerua erakusten zuen dorre pollita lurrerat aurthiki dute. Min handienen arthazailleak, zauri gaichtoenen eztigailu egiazkoak, zeru lurren nausiak atherberik ez du hemen – Elizarat ez da nehor haizu.

Eta herria hustu da!...¹²²⁶

Oxobi-k biziki konkretuki kontatu zuen nola edo zeren ondorioz hustu zuten herri bat. Alemanek bonbardatu zutelako eta aire pozoitua bota zutelako, haur anitz hil zen eta zaharrak eritu, bazkak xehatu. Herritarrei handik joatea baizik ez zitzairen gelditzen. Ez zuen zehaztu zein herriz ari zen, baina pentsatzekoa da herri suntsituetariko bat izan zitekeela huste hartarik landa.

¹²²⁵ Adéma, «Gibelerat doazi». 1917/3/30.

¹²²⁶ Jules Moulier, «Ihesi», *Eskeualduna*, 1918ko apirilaren 19a.

Jean Saint-Pierre herri suntsituen lekuko zuzena izan zen. Bidean zebilenean ikusten zituen herriak deskribatu zituen, eta batzuetan herri suntsituei buruzko xehetasunak aipatzekoak dira, Somme ibaiaren bazterreko kasu hau bezala:

Ez galda zoin herritan giren. Ez da gelditzen izenaz bertzerik. Ene pezoin artearen aintzinean bazen herrichka bat, arras hurbil, bizpahiru ehun metretan, bere kapera ttipiarekin.

Hiru edo lau harri handi ezagun dira, lurtean etzanak, bertze deus ez, ez arbol, ez behar, ez bide; iduri lur ikhara batek oro iretsi eta ehortzi dituela, ikus ahal urrun, oro herrautsi sekulakotz.¹²²⁷

Garai batez herri bat izan zela, baina ez zela deusik gelditzen ulertarazi zuen. Hori ez zen Adémak aipatzen zuen eszena bezalakoa, suntsiketa are handiagoa zen. beste herri suntsitu bat aipatu zuen beste noizbait:

Gau hautarik batez, gudu dorphe baten ondotik, bazterrak ezitu zirenean, kolpatuak ereman zituzten soto batzuen barnetik gibleko ospitale batetarat. Alamanen erreka bizpahiru ehun metrotan ziren. Herri hartan etzen etxerik gelditu xutik. Han hemenka harresi hegal zenbeit, zilhokatuak. Kolpatuak ixilik zeramazten gibelerat, balak oraino hixtuka baitzabiltzan han gaindi.¹²²⁸

Zaurituen ebakuazioari buruzko zati hori ez dugu aipatu kolpatuen atalean, atal horretatik interesgarriena etxe guztiak eroriak zituen herriaren deskribapena zelako. Ez zuen zehaztu zein zen herri hori, baina ohikoa bihurtzen ari zen argazki bat zen. *Zerbitzari*-k egin zuen beste deskribapen bat aipatu dugu lehenago, Fleury herrikoa¹²²⁹. Kronika egin zuenean, oraino etxe hondarrak gelditzen ziren. Gaur egun, oroitarri bat baizik ez dago, eta mapetan «Fleury village détruit» idatzia da.

Euskal Herritik begiratu, beste sentsibilitate bat edo beste ikuspegi bat ekarri zuen Blaise Adémak. Irakurleei ulertarazi nahi zien, gerlak eskualde eta herri batzuk suntsitu zituela, Euskal Herrian ez bezala. Berriz ere soldadu baten lekukotasuna ekarri zuen:

Lehenago ere erran dautzuet, guk hemen ez dezakegula amets zer ditezken gerla batek dakarzkana izigarrikeriak, etsaia ibilia den eskualdeetan. Hemengo gure lurra eder dire beren mozkina beti aitzinat emaiten daukute, gerlarik ez balitz bezala. Gure herriak chutik dagode beren etcheekin; gerlak ez ditu ez barreiatu ez itsustu. [...] "Ez da hitzik hango izigarrikeriak nolazbeit aipa ere detzakzenik. Hainz herritan, etche guziak beren elizarekin behereraino barreiatuak dire; karrikako bide handia bera ez da gehiago ageri; ez da han gelditzen harri muilo batzu beizik. Ikusi dut, egun batez, gizon adineko bat bila non zukeen bere etchearen tokia, eta ez zezaken atzeman; ez zezaken sinhets ere han zitekela hiruetan hogoi urthez egon zen herri hura. Bertze aldi batez, zilorik eta harririk beizik ez zen toki batean, Anglesek ezarri dute pazota handi bat hitz haukiekin: hemen zen holako herri." [...] Zoin dohatsu garen beraz gu hemen, hangoen aldean! Dohatsutasun hortan kurubilkatuak bezala egon behar othe dugu, bertzeez orhoitu gabe? Hek hemengoak balire eta gu hangoak, zer nahi ginuke? Zer

¹²²⁷ Jean Saint-Pierre, «Toki berria», *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 12a.

¹²²⁸ Saint-Pierre, «Kuraia». 1915/3/5.

¹²²⁹ Elizalde, «Gure ametsak». 1916/6/9.

*nahi ginuken? - Lagunduak izan gure etheen erreberitzeko, gure lurren behar bezala antolatzeko eta garbitzeko, gure herrian lehenago bezala berriz egoiteko eta bizitzeko.*¹²³⁰

Berriz ere herri suntsituen deskribapen lazgarri bat eskaini zuen. Baina artikulua harago zihoan: euskaldunei ohartarazi nahi zien sufrimendu haietatik urrun bizi zirela, ez zekitelara zer zen hori, eta beraz, elkartasunerako deia egin zien. Herri suntsituetako biztanleen laguntzeko batasunak sortu zirela esplikatzen zuen, eta horietatik bat Baionan. Baionako batasunak erreberitu beharrak zituen Moyencour, Rethonvilliers eta Marché-Allouarde, Somme aldean. Artikulu horrek suntsiketen argazki gordina eskaini zuen. Gerla ia bukatua eta irabazia zenean, kalteei so egiteko eskatu zuen.

b) Ondorio ekonomikoak eta sozialak

Gerla bete-betean bizi zuten eskualdeetatik urrunago, gerlak herritarren eguneroko bizian hainbat zailtasun sortu zituela komentatu zuen *Eskualduna*-k, eta horiei buru egiteko aholkuak eman zituen. Batetik, gerlaren ondorioak laborantzan ageri zirela esplikatzen zuen, gizonik ez zelako laborantzarako; baina lanean segitzeko eta bereziki elkar laguntzeko deia egin zuen Manex Hiriart-Urrutik, gerlan zeuden laborari horiek atsegin har zezaten:

Hartako nautzu mintzo, langile eskasia izigarri hunen ezitzeko norapeit, gelditzen giren bakharrek elgar laguntzeaz. – Nola ordean? – Lanak, ahal dugun lan guziak, eginez elgarrekin. Oro ez ditazke; oro, oro, oro elgarrekin egitea nahaspide litake askotan eta dembora galtze, zonbeit aldiz, irabazte orde.

Bainan hainbertze lan bada, guziz udakoetan, hala nola artho ereite eta jorratze, mahasti sarhatze, belhar ephaite, sarrichago ogi eta bertze asko lan, hasi eta zalhu eginik hobeki baitoazi; hetan ginuke behar lagundu elgar, bat bederen eta ororen onetan.

Zu jinen zira gure etcherat ephaile, ni zurerat; bakotchak bereari baino zain beroagoz lothuren gitzazko elgarren pentze edo alhorrari.

Nere bi muthikoak enekin ekharriko daitzute hots emaiterat; emazteak eta alaba jincheak, oro kurutzatuko ditugu kenka gaichoetan, beren lasto zapelak soinean, arrastelu eta jorrai lan pozi zonbeiten egiteko.

[...] *Halere ageriko da, samin izanen da jasaiteko, gerlak hor-harat ereman gizonen eskasa; da ordean arinduko eta ezituko. Emazue hortarik guti dugula irabaziko; guti bada guti, dena ere on.*

*Nik hitz dautzuet, behinik behin, etcheke-andereak, zueri: zuen senharrek bereh lanean, gerlan, ez balute laguntzen elgar orok, sekulan ez lezaketela etsaia garhait.*¹²³¹

Etxeetan gelditu ziren emazteei, haurrei eta nerabeei egin zien dei horren gainetik, gerlak utzi zuen egoera soziala islatu zuen artikulu horrek. Hiriart-Urrutik gehiagotan egin zuen lurra lantzeko eskaera, janaririk gabe ez zitezten geldi eta ez zezaten goserik pasa¹²³².

¹²³⁰ Blaise Adéma, «Eta han!», *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 8a.

¹²³¹ Manex Hiriart-Urruti, «Elgar lagunduz», *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 14a.

Gerlako azken urteetan, irina eta janaria eskasten ari zirelako kezka barreiatzen ari zela onartu zuen *Eskualduna*-k. 1917ko azaroan ogia eskastuko zelako kezkaren berri eman zuen, nahiz eta amerikarrek eramanen zutelako itxaropena eman¹²³³. Lau hilabete geroago, ogia uste baino gutxiago zegoela aitortu zuen eta ogi guti jateko eskaera egin. Ogia Amerikatik ekarri beharra zuten, baina etsaiek ontzi batzuk botatzen zituzten. Eta ontziak behar zituzten soldaduak ekartzeko ere, beraz berantzen ari zirela esplikatu zuen Blaise Adémak¹²³⁴.

Beste artikuluko batzuek zailtasun handietan ziren emazte, haur edo gurasoen egoerak aipatu zituzten. Batean, haurrik gabe gelditu ziren guraso zaharrek laguntzarik ez zutela ukanen eta horien egoera larria izan zitekeela komentatu zuen Hiriart-Urrutik. Haren azalpenen arabera, Frantziako Gobernutik bizi osorako laguntzak bazituzten gorputz atal bat galdua zutenek, alargunek eta umezurtzek; eta gerla denboran lagunduak ziren senarra gerlan zuten amek edo haur beharretan zirenek. Hori ontzat eman zuen. Bestalde, horien laguntzeko hainbat batasun sortu zirela gehitu zuten. Baina semea galdu zuten gurasoak ahantziak zirelako kexu zen, haiek ez baitzuten laguntzarik:

*Umezurtz eta umezurtz, erradazue nor den hor ahantzienik, abandonatuenik, eta bizkitartean zaurthuenik, urrikalgarrienik, geroa bederen eta adin ederra begien aitzinean duten haur gazteak, ala burhaso, aitama gaizo zahartuak, edo zahartzen hasiak, nehondik laguntza izpirik gabe gelditzera doazinak?*¹²³⁵

Gerlaren ondorio sozial iluna zen hori. Beste behin ere aipatu zuen haurrik gabe gelditu ziren gurasoek ez zutela laguntzarik eta prestatu behar zirela laguntzarik gabe bizitzera, gurasorik gabe gelditu zen haur bat hartuz edo horrela.¹²³⁶

Beste artikuluko batean, senarra gerlan zuten eta bizia ateratzeko ahalik ez zuten emazteen egoera aipatu zuen, hirira ez zitezen joan eta aterabidea kanpainan bila zezaten eskatuz. Lanik gabe ziren emazte horiek hirira joateko tentazioa zutela baina hiria zepo arriskutsu bat zela ulertarazi nahi izan zuen Hiriart-Urrutik:

Hiriaren izen horrek lillurutzen ditu asko, ustez eta dirdirutzen duten guziak urhe eta zilhar diren.

Behinik behin hirian chokorik hoberenak ez dire jende beharrentzat, edo pagatuko dituzu itsuski kario.

Pochirik hoberenak ere hirian sinesten ahal duzu ezataudela zure sudurarentzat.

¹²³² Manex Hiriart-Urruti, «Lurraren itchura», *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 30a.

¹²³³ Blaise Adéma, «Ogia», *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 16a.

¹²³⁴ Blaise Adéma, «Ogia», *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 1a.

¹²³⁵ Manex Hiriart-Urruti, «Burhaso laguntzaz gabetuak», *Eskualduna*, 1915ko irailaren 17a.

¹²³⁶ Manex Hiriart-Urruti, «Gu gurera», *Eskualduna*, 1915ko irailaren 24a.

[...] *Eta zuhaur, zu, gaicho haur erdi umezurtz heien ama, zu emazte alharguntsa gazte dohakabea, zer behar zinitazke bilhakatu hirian? Sehnhar on batekin ere hiriko bizia, harentzat ala zuretzat lanjerdun litake.*

Lanjeraren berri dakizularik balinbazoazi aitzina, otsoaren ahora acholarik gabe, ichiltzen naiz, tcharrenak gogoan, bi eskuak beren baitarik bi begien gainera doazkidalarik.

Egia da artikulu hori gerlaz baino gehiago hiriaren eta kanpainaren arteko lehiaz zela, hiriaren kontrako testu bat zela. Baina agerian utzi zuen dirurik gabe ziren alargunen edo senarra gerlan zuten emazteen arazoa. Hiriko jendearen kontrako solasak agertu ziren *Oxobi*-ren artikulu batean ere. Haren arabera, denbora joan ahala, soldaduek ez zutela beti aise onartzen etxeetan ziren emazteak josta zitezten. *Oxobi*-k bi soldaduren gutunak aipatu zituen: bata Miarritzen permissionez edo baimenez zegoen eta ez zen kontent hango emazteen itxura ikusita, gizonak sufritzen ari ziren artean; besteak aire pozoituaren berri eta oihaneko biziaren berri kontatu zuen:

Bi adiskide onen berriak ukhan ditut egun berean. Eskualdunak onhartuko dauzkita zenbeit lerro frantsesez? Behar bada. Goazen aintzina beraz. Eta eskuara ez dakiten ama eskualdunek, galda alaba jakintsun bati:

Huna Baionatik:

«Me voici en permission depuis deux jours. Hier 15 août, grande fête, j'ai visité la plage de Biarritz. Elle présentait la même animation qu'avant-guerre, mais chose frappante, toutes les poupées qui s'y font admirer portent des toilettes plus excentriques encore qu'autrefois.

On est écoeuré de penser que les frères et les maris mènent l'existence la plus misérable que je puisse imaginer et ici c'est à celle qui se fera distinguer par sa toilette tapageuse: ce qui amuse énormément les Américains.

«Ce ne sera sans doute pas pour remonter la pauvre idée qu'ils avaient de la famille française d'avant-guerre».

Hola mintzo den mutiko gaztea, zazpigarren urthea soldado dela. Kasernala sarthu baino lehen Parisen zagon. Ez da beraz deus ikusi ez dutenatarik.

Huna orai ifernutik:

«Voici huit jours que nous allons par monts et par vaux et par toits derrière, le boche et laisse-moi te dire que mon régiment pour ses débuts a fait merveille. Mais comme toujours l'on ne fait pas d'omelette sans casser d'oeufs. J'ai passé des moments tels que tu peux le supposer et le 11 entre autres j'ai cru ma vie à sont dernier jour; mais je suis sain et sauf. J'ai avalé comme tous les copains pas mal de gaz et je m'en ressens souvent. Un peu de repos parviendra je l'espère à me débarrasser complètement des malaises qui en résultent. Nous attendons le repos avec impatience, car Dieu sait si nous en avons besoin.

«Fort heureusement le temps est beau et nous ne souffrons pas trop du soleil. Nous vivons dans le bois, à la belle étoile, au gré de la Providence en qui nous plaçons notre confiance.»

Adiskide hautarik ez batek ez bertzeak ez dautate gero ichkiriatu Eskualduna-ren chokho bat belztekotan. Balukete lan Eskualduna irakurtu nahiz abiatzen balire.

*Iduritu zaut noizean behinka bederen gure irakurtzaleak on duela erdiz erdi jakitea gutaz bertze soldado batzuek zer daukaten gogoan eta bihotzean.*¹²³⁷

Artikulu horretako lekukotasun horien gibelean, soldaduen sufrimendua ageri zen, eta txartzen ari zen giroa ere bai. Bigarren gutunak fronteko egoera deskribatzen zuen, eta ez hainbeste herri husteena edo suntsitzeena. Baina bi lekukotasunak bata bestearen ondotik ezarri, *Oxobi*-k kontrastea egin nahi izan zuen sufritzen ari ziren soldaduen eta bizi normala segitzen zuten emazteen artean. Ororen buru, helburua sufritzen ari zirenekiko sentsibilitatea haztea zen. *Zerbitzari*-k ere gisa bereko aipu bat egin zuen, 1918ko udan, erranez bero ala hotz, beti arropa zaharrak soinean ibiltzen zirela eta ez zuela begi onez ikusten herrietan jendea moda segituz beti arropa berriekin ibiltzea¹²³⁸.

Hiriart-Urrutik kanpainan lan egiteko eskaera egin zuen gisan, Blaise Adémak lanean ari ziren emazteak aipatu zituen. Gizona gerlan zuten etxaldeek diru laguntza ukaiten zuten, eta kasu batzuetan gerla hasi aitzin zorretan zirenek zorrak estaltzeko aukera izan zuten laguntza haiei esker. Beste batzuk xuhurki bizi ziren eta beste emazte batzuk lur lanak egiten zituztela txalotu zuen. Euskal Herriko herri txikietakoko argazki soziologikoa egin zuen, gisa horretan ere.

Bainan nahi dut soldado eskualdunek jakin dezaten zoin ederki kampoko lan hoitan ari zaizkigun Eskual-herriko emaztekiak, ez bakarrik adin batetakoak, bainan neskatcha gazte hainiz ere, iguzkiaren beldurrik gabe.

*Egun hautarik batez, norbeitek erraiten zioten neskatcha andana bati: «Gerla hunen gatik, hainitzek mutzurdin egon beharko duzue. Gerlatik itzuliko diren gizon gazteak beren emazteak hautatuko dituzte, iguzkiak gehienik belztu dituztenetan».*¹²³⁹

Argazki soziologikoaz gain, soldaduen bihotza ere aipatu nahi izan zuen. Etxean gelditu ziren emazteei ere beren eginbidearen betetzeko eskari bat zen, beraz. Adémak ulertzea eman nahi zuen Frantziaren defentsa ez zela gerlan zirenen esku bakarrik, baizik eta frontetik urrun ziren emazte eta neska gazteen ardura ere bazela, eta soldaduek horri garrantzia ematen ziotela. *Oxobi*-k aipatu zuen Miarritzeko emazteen kontra kexu zen soldaduekin batetik, eta lanean ari ziren neska gazteek soldaduen saria ukanen zutela azpimarratuz bestetik, *Eskualduna*-k herrietan bizi ziren emazteei inplikatzeko dei zuzena egin zien.

¹²³⁷ Jules Moulier, «Soldadoen gogo», *Eskualduna*, 1918ko irailaren 6a.

¹²³⁸ Jean Elizalde, «Bi hitz aroaz», *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 26a.

¹²³⁹ Blaise Adéma, «Emaztekiak», *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 4a.

Gerlari buruzko begirada hurbiltzean, hala nola politika orokorretik gerla tokietara joatean, balorazioa eta gertakarien aipamena ezin zen osoki baikorra izan. Gerla lekutik idazten zutenek, nahi ala ez, errealtate gordinak ere erakutsi zituzten. «Crapouillots» izeneko obus haien beldurra, hegazkinen arteko borrokek eragiten zuten miresmenarekin batera, zerutik hel zitezkeen tiroen kezka, aire pozoituen trauma, ez ziren gerlaren ikuspegi baikorrak. Verduneko sarraskitik erakutsi zituzten argazkiak ere ez ziren loriagarriak. Andereen Bideko guduak latzak izan ziren. Eta guduen ondorioak ez ziren beti baikorrak, batzuetan gibelatzen baitziren. Ezin zuten aldi guzietan hori ukatu. Halaber, zaurituak eta hilak zinezko tragedia ziren, eta giza ondorio haiek ere isla izan zuten *Eskualduna*-ko zenbakietan.

Kontakizun gazi-gozotik, ordea, alde gaziak ez zuen gaina hartu. Nekez erabil dezakegu gerlari buruzko adjektiboetan, «gozo» hitza, baina bai ordea balorazio orokor baikorra. Hots, beldurra eta ondorio larriak eragiten zituzten armez mintzatzean, Verdun, Andereen Bidea eta horrelako guduak aipatzean, beti bukaera baikorra ematen zuten. Edozer jasanik ere, ez zuten sekulan dudan jartzen gerla bide onetik ari zela eta garaipena aliatuena izanen zela. Ez zuten idazten Verdunen edo Andereen Bidean gizon gehiegi hil zela, alferrik. Ez, sufritzen zutena sufritu eta ere, hil anitz ukanik ere, ez zela alferrik izanen baieztatzen zuten. Guduetan gibelatzen baziren ere, aitzinamenduak edo aitzinamendu menturak azpimarratuz, gerlari buruzko berri onak ematea zen *Eskualduna*-ren asmoa eta grina. Hilak gauza on baten aldeko sakrifizioak ziren. Eta beren herrietan bizi ziren herritarrek ere indarra egin behar zuten gerla hartan, inplikatu behar ziren, *Eskualduna*-ren hitzetan. Ez bakarrik dirua emanaz, lehenago ikusi bezala, baizik eta xuhurki biziz, gizonak jasaten zituzten pairamenen artetik, emazteak ez dibertituz. Hots, sufrimendua, sakrifizioa izateaz aparte, gerla tokian ez zirenak ere beren gisan inplikatzera deitzen zituzten. Gerlaren alde ilun horren aipatzea, beraz, inplikazio handiaren goraiatzea zen, eta ez gerlaren kritikatzeta.

III. GERLAKO TOKIETAKO BIZIPENAK

Zirkulua oraino gehiago hetsiko dugu eta begirada oraino gehiago zorrotzuko, gerlako tokietara gehiago hurbiltzeko eta soldaduen eguneroko bizia eta sentimenduak ezagutzeko. Gerla agintari batzuek erabaki bazuten ere, milioika gizonek bizi izan eta pairatu zuten, eta baitezpadakoa iruditu zaigu gizon horien bizia *Eskualduna* astekarian nola islatzen zen ikustea. Eta gerla tokian zirenen ikuspegi horren ezagutzea ahalbidetu duena da hainbat berriketarik erregulariki igortzen zituztela beren lekuko berriak *Eskualduna*-ko erredakziora, eta astekarian astero agertzen zirela gerlarien berriak. Jean Saint-Pierre, Jean Elizalde *Zerbitzari*, Jean Etxepare, Jules Moulier *Oxobi* eta beste hainbaten gutunak gelditu dira, haien bizipenaren eta sentimenduen lekuko.

Bistan dena, lehen ikusi dugun bezala, zentsura eta auto-zentsura bazeudela kontuan hartu behar da. Horrek erran nahi du, hain segur ez zutela den-dena kontatzen edo gauzak ez zituztela zinez bizi zituzten bezala agertzen. Guk azter dezakegun bakarra da zer eta nola kontatu zuten, eta hortik ere hainbat ondorio atera ditzakegu, *Eskualduna*-k gerlaz eman nahi zuen irudiaz eta mezuaz.

Gerlako tokiez eta hango bizipenez ariko gara, beraz, ondoko orrialdeetan. Bizipenek leku garrantzitsua zuten soldaduen lekukotasunetan, Jean-Norton Cruk aipatzen duen bezala. Haren ustez, gerlako lekukoak ez ziren borrokez bakarrik mintzo, bereziki kontatzen zuten gerla lekuko bizipena¹²⁴⁰, eta sail horri lotuko gatzazkio orain. Tokiak aipatzean, ez gara toki geografikoez ariko, baizik eta gerlako leku desberdinez. Bi gune

¹²⁴⁰ Jean-Norton Cru, *Témoins: essai d'analyse et de critique des souvenirs de combattants édités en français de 1915 à 1928*, [lehen edizioa: 1929]. (Nancy: Presses Universitaires de Nancy, 1993), 23.

ziren, bereziki, soldaduek hunkitzen zituztenak: lehen lerroak eta gibel lerroak. Lehen lerroak aipatzean, lubakiak edo trintxerak ziren, gerlarekin zuzen-zuzenean kontaktuan ziren lekuak, herio arrisku handiena zuten lekuak. Leku haiek nola aipatzen zituzten aipatuko dugu lehenik.

Soldaduak ez ziren beti lehen lerroan edo – haiek erabiltzen zuten hitza erabiltzeko – «suan» egoten. Hainbat denbora pausa lekuetan iragaten zuten, lehen lerroetatik zenbait kilometro gibelago. Leku haietatik ere idazten zuten, eta han nola bizi ziren ere aztertuko dugu bigarren atalean. Azkenik, aztertuko dugu nola agertzen zuten lehen lerroen eta gibel lerroen arteko aldea. Dudarik gabe, bi lekuen arteko kontrastea ikaragarria zen, eta kontraste horrek hainbat eztabaida sortzen zuen soldaduen artean. Ikusi nahi dugu ea *Eskualduna*-ko idazleek zer zioten lehen lerroez, gibel lerroan zeudenean, soldaduen bizipenen ikuspegi orokorrago baten ukaiteko.

A. Lubakiak

Gerlako leku esanguratsuenetik hasiko gara. Soldaduek orenak eta orenak, egunak eta egunak iragaten zituzten lurlean egin zuloetan, lubakietan, etsaiarekin parez pare, tiroen edo obusen mehatxuaren azpian. *Eskualduna*-n idatzi zuten berriketarien lekukotasunen arabera, eta baita haien erregimentuen ibilbideen arabera ere, argi da berriketari horiek zenbait denbora lubakietan pasatzen zutela eta hurbiletik ezagutu zutela zer ziren.

Toki haiek berak nola deskribatzen zituzten aztertuko dugu lehenik, ikuspegi orokor batekin hasteko eta non ibiltzen ziren irudikatzeko. Gero, xehetasunetan gehiago sartzeko eta lupa gehiago hurbiltzeko, lubakietan zer lan eta zer gudu egiten zuten aipatuko dugu, hots *Eskualduna*-ko berriketariak denbora zertan iragaten zuten jakiteko. Azkenik, soldaduen eguneroko bizitzara gehiago hurbilduko dugu lupa, pairatzen zituzten baldintzez ideia bat egin ahal izateko.

I. Tokien deskribapena

Lan honetan aipatzen ditugun berriketariak zeuden lekuak deskribatzeko joera bazuten. Bereziki leku berri batera joatean, leku haiek nolakoak ziren azaltzen zuten. Gu ere, urrunetik hurbilerako bide horretan, inguruko bazterrak nola deskribatzen zituzten aztertzetik hasiko gara. Gero, lubakiak berak nolakoak ziren eta nola egituratuak ziren

aiapatuko dugu. Azkenik, lubakietan beretan sartuko gara, beti ere, *Eskualduna*-ko berriketarien lumaren bitartez, eta han hilak eta leku suntsituak hurbil zituztela ohartuko gara.

a) Inguruko bazterrak

Gerla lekuetatik idazten zutenek gerla egiteaz gain, leku berri anitz bisitatu zuten. Eta ikusten zituzten bazterren berri ere ematen zuten maiz. Hemen ez dugu atal hori sobera luzatuko, baina zenbait adibide aiapatuko ditugu, erakusteko nolakoak ziren beren begiz ikusi eta deskribatzen zituzten leku horiek. Eta beren herritik ateratzearen eta leku berrien ezagutzearen lekukotasun garbiena Zuberoako A.I. berriketariarena zen. Serbian gaindi ibili zen, eta egin zituen kroniketan, lekuei buruzko xehetasun anitz eman zuen. Marseillatik Salonikara eta handik Serbiara egin zuen bidea gutun ezberdinetan zehar kontatu zuen, aldian zati bat:

[...] Heltzen gira Marseillako bazterrilat eta hasten oihalezko atherberen hedatzen. Zer ekhia eta zer beroa! Zoumbat fruta eta lili. Marseillako hirirat ere heltu niz, aitzindari baten lagun, hala manhaturik. Zer jentetzia! Nazione eta lenguaje orotakoak han juntatzen ahal dira. Hor ikhousi tut lehentze japonese mariñelak, gizoun tchipiñi eli bat hanitch chahuki bezti, larría holli ezkoua uduri, begiak okher eta soua franko zorrotz. Eta itsasoa! Lein leiña, tinta bluia bezain blu, ez hullanik ere hain gaitz uduri Baiona altheko itsasoa bezain. Halarik ere bihotzean chimiko bat egiten zeitan hartan gañen abiatu behar niala gogorotziak.

[...] Batián haier so, bestian itsasoari eta artetarik hurrúan ageri ziren lurrer franko aisa igan gentian egunak.

[...] Bester erraiten dikuzie harmetan jar gentian eta jo aitzina! musika handian trebesatu gunian Salonika hiri itsousia. Goure aitzindariak ouste zien bagindouola Salonika hiri baztereko camp batetara egoitera, bena beste manhurik jin zen eta arrount sartu ginen treiñ tchar batetara eta ber gaian abiatu.

Orai Zerbian gira. Ezta kartiela aberats. Bazterrak oro pikarrai, batere ez biderik, oro borthu, elhor eta lohi.¹²⁴¹

Deskribapenak franko azalekoak ziren, baina tenperatura, bazterrak ederrak ala itsusiak ziren, nolako jendea ikusten zuen eta abar azaldu zuen. Ez zen kronika abstraktu bat. Irakurleak tokiak gutxi gorabehera irudika zitzakeen. Ondoko astean beste xehetasun batzuk eman zituen bere ibilbideaz:

Bordaletik tarrapatan joan ondoan, Marseillan egon gira hamar bat egun. Ouste dut hiria ountsa ikhertu dudan: Karrika famatu itsas bazterrian Cannebieri deitzen dena; Ama Birjinaren eliza bere mendi kaskotik ageri den bichta chorigarriereki.

¹²⁴¹ A.I., «Serbiatik letera». 1915/12/31.

[...] Hirour egun, baratch ibiltez, ezarri gunin Malterat heltzeko. Munduko porturik segurrena ahal da, alde orotarik ountsa begiraturik. Ezta mirakullu Malte-ko hiria eta lurra ezpeitu, egundano ihourkeek bortchaz hartu ahal izan. Hango itsas bazterreko murru lodiak! Hango kanouak! Portia ountzi frantses eta angleasez bethia. Haien artian espreseko erien diren outzni eli bat.

Malteko hiria oro phatar umen da, hiria hanitch zahar, etchiak ulhun, karrikak hersi, ahuntz saldoak noun nahi. Jentia erdi beltz, mota guzietarik; emaziak manta beltz handi baten pian gorderik Uskalherriko emazte elizalat jouailiak uduri. Komentu hanitch. Elizak izigarri eder eta aberats.¹²⁴²

Atal horien interesa kronikaren zehaztasunean zegoen. Bidai kronika kutsua ere bazuen, eta bidai kronika horrek ematen zuen inpresioa zen, A.I.k berak azpimarratu zuen bezala, gerla bidaiatzeko eta etxetik ateratzeko aukera paregabea zela. Ikusten zituen lekuak xeheki deskribatu zituen, eta horretan ere dokumentu balioa zuten haren testuek. Baina ez gaude ibilbide turistiko batean; gerlaren presentzia zinezkoa zen hurrengo deskribapenetan, erranez lekuak hitsak zirela eta abar. Lekuen deskribapenari loturik, jendeen eta lekuko gizartearen deskribapena ere eskaini zuen. Horretan ere, dokumental bat zirudien. Hango bizimodua eta merkatua nolakoak ziren esplikatu zuen:

Erran neizun noula, Zerbian ginelarik ez gunian deusere erosten ahal. Orai atzamaiten dugu behen saltzeko zerbait. Han behen Grekoek kantina eli bat zabaltu dutie. Etxekiten die ardou, ezne kontserbako, iranje, chokolat eta tabak. Bena gaizak oro zouin khario! Segur saltzale hounak dira beren gaintialat goure adichkide direlako horik eta sos zerbait irabazten die soldado gachoen khostuz.¹²⁴³

Lekuko jendeari buruzko xehetasunak ere ematen zituzten beste berrikerariet. Leku berri bat ezagutzean, hango jendea nolakoa zen, gisakoa ala ez, aipatzen zuten. Baina atal honetan ez gara horretan luzatuko. Jean Saint-Pierreren artikulu bati interesatuko gatzazkio, aipagarria baita, besteetatik bereizten dena eta balio berezia duena: xehe-xehe eta biziki ederki deskribatu zuen bere lubakitik ikusten zuena, aitzinetik zehaztu ondoan ordu arte ez zuela toki haiek nolakoak ziren deskribatu. Ez zuen zehaztu lekua zein zen, baina itxura guztien arabera Andereen Bidean nonbait zegoen, kasko batean, Laon, Soissons eta Reims hirietatik 25 kilometrotan:

Zato. Goazin jartzera. Bada hor, gain batetarik bista bat choragarria. Zeru gain argi batekin, ageri dire bazter handiak. Inguruetako hiru katedraleen dorreak ere ikus detzazkegu, bederen larga-bistaz lagundurik begiak. Hogoi-ta bortz kilometre eskuin, inguzki partean, Reims-eko dorreak, bertze hanbertze ezker Soissons hirikoak. Gure aitzinean, bide bera eginez, Laon-eko hiria. Eliza nasai eta lan ederrekoa, mendichka baten puntan jarria, bere zaharrear eskualde guzian ez baitu parerik.¹²⁴⁴

Telebistarik ez zen garai hartan, baina irakurleak telebista ikustea bezala zen Saint-Pierreren deskribapen haren irakurtzea. Inguruko herriak nolakoak ziren, etxeak

¹²⁴² A.I., «Serbiatik letera». 1916/1/7.

¹²⁴³ A.I., «Zalonikatik letera», *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 14a.

¹²⁴⁴ Jean Saint-Pierre, «Gerlarien berri», *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 25a.

elkarrengandik hurbil, laborantzako lur zabalak eta abar zituztela zehaztu zuen. Biziki ongi irudika dezakegu han nonbaiteko gain batean jarririk idatzi zuela artikulua, 1915eko ekainaren 18an, ikusten eta entzuten zuen guztia zuzenean kontatuz, horren segidan eman zituen beste xehetasun batzuei jaramon egiten badiegu:

Handik hunatago, zola batean, bi edo hiru herri. Iguzkia gainean dute. Ori, balia zaite ikusteko, zoko zokoan ageri den hura, oihan pean. Ez da gehiago etxe bat osorik. Urtharrilaren hogoi-ta bortzean, erhautsi zuten ondarra.

Eta han, ezkerago, ur hegian, bixkar baten zolan, zoin da bertze hura? B...ko herria. Eskualdunetz ithoa dago. Halako bat egiten dautzu han sartzeak, bazter guzietan eskuaraz mintzo baitire. [...] Horra hor, eskuaren menean kasik, uretik berehala, herri pollit gotor bat. Ez uste bertze bat ageri den hemendik, hoin begikoa. Izena ere halakoa du, Beaurieux, ur hegi eder.

Eskuinago, ordoki zabal bat, oihanak lerroetako bidean, eta hantxet, gain batean, Craonne. Hor gaindi erabili diren zalapartak, gerla ondoan bakharrik dire agertuko, zoin bere xehetasunekin.

Brram! Brram!... Hauxe dugu azantza betbetan zola hortarik! Zer da? –Alamanek igorri «marmita» bat, alimalekoa. Ori, horra nun erori den, ur hegian. Zubi horri buruz ari othe diren, ala bide berri luze horren gainerat, ikusiko dugu laster. Bat, bia, hiru..., zortzi, hamar, ez othe dire aseko?

[...] Herri guzien erakustea luzegi nuke. Oraino bizpahiru, eta gero banoha «patata saltsaren» jatera.

Horra bat, ur hegiz alde huntan, bere eliza zahar beltzarekin, Maizy. Badakizu nor zaukun jin berria herri hortara? Soldadoen «omonier» berri bat. Eskualdunak zion bidean zela egun hautan, Etxeber apeza, hunat buruz.

[...] Bertze herri kukuso bat, eskuinago, zoko batean. Igande aratsaldean itzuli bat egin dut hor gaindi. Hein bat goxoki afaldu nintzen Eskualduna-ren berriktari biphil, Zerbitzari-ren mahainean. [...]¹²⁴⁵

Deskribapen horiekin guztiekin, gutxi gorabeherako kokapen bat egin dezakegu. Saint-Pierrek ez zuen erran zehazki zein herritan zegoen, zein gainetan, baina zegoen lekutik inguruko hiru hiri nagusiak ikusten zituenez, Laoni begira, Reims eskuinaldean eta Soissons ezkeraldean baldin bazituen, Aisnes ibaiaren hegoaldean – «ur hegiz alde huntan» – zegoen Maizy herria ere ikusten zuenez, Beaurieux herrixka ezkeraldean ikusten zuenez, Maizy eta Fismes herrien inguruetan zegoela pentsa daiteke. *Zerbitzari* ikusi zuen herria zein zen zehaztu izan balu, beharbada aiseago lokaliza genezakeen oraino. Ez zuen zehaztu zein zen urtarrilaren 15ean suntsitu zuten herri hura, baina egun hartan alemanek ofentsiba handia egin zuten Caverne du Dragon delako lekuan, eta Creuteko baserria suntsitu zuten. Egun hartan, Andereen Bideko gain guztiak alemanen esku gelditu ziren¹²⁴⁶. Leku hartara joanez ageri da horrek zer erran nahi zuen. Andereen Bide gutzitik sekulako bista zegoen hainbat kilometrotan zehar. Gainean ziren alemanak, beherean frantsesak. Alemanek dena ikusten zuten. Baina ez zuten horrelakorik aipatu *Eskualduna*-n.

¹²⁴⁵ Jean Saint-Pierre, «Herriak», *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 25a.

¹²⁴⁶ Xehetasun gehiago Andereen Bideari buruzko webgunean: <http://bit.ly/nHM5B4>

Inguruko herrien zerrendatzeaz gain, lubakiak edo errekek ere gisa berean deskribatu zituen, ikusten zituen bezala, eta irakurleari ikusmena emanez:

Hiruetan hogoi mila gizon badire hor kukutuak, lurpean, edo pausu herrietan. Ez da ezagun krixtorik. Nun mirakulu dire? Ikusten duzu hantxe, gain hetan lur zuri hori bat, itzulia, iduri baitu bidexka luze bat?

Bazirea? – Bueno, ikus ahala urrun jarraik zazkio begiz, ezker eta eskuin. Hara han nun galtzen dugun bistatik oihan batean; gero berriz ageri da, patar bati goiti, zuri zuria. Bazirea gero?

Lur itzuli hori da gure erreken lerroa. Hor daude gure soldadoak, etsaiari buru egiten dutela gisa berean, Frantzia gainetik Belgika leihorretarik Suisako mugetaraino.

Ikusten dituzu bertzalde erreka lerro hartarat doazila, bertze bidexka batzu, han hemenka, elgar iduriak? Hautan ere lurra iraulirik, barna zilhatua dute bidea. Hauk dire "boyaux" direlako lurpeko bide hertsi gordeak, erreketarat heltzeko eginak, etsaiaren tiroetarik begiratuz soldadoa.

Zati horretan ere ageri da lehen lerroetatik aski urrun zela. Baina, oroz gainetik, lubakien urruneko ikuspegi horrekin, haien zabaltasuna ematen zuen. Ez da gauza bera lubakiaren plano hurbila egitea (gehienetan egiten zen bezala), edo lubakiak paisaian nola islatzen ziren erakustea.

Horrez gain, gerla tokietan dena xehatua zela ere kontatu zuen zenbait aldiz. Deskribapen adierazgarriak egin zituen, lur eremu suntsituak edota herri eroriak, eliza eroriak eta abar aipatuz:

Ez da gehiago pezoin arterik hor gaindi, Lurra iraulia da gau eta egun, bazter guzietan zilhokatua. Alimaleko zilho hetan gordetzen da gizona. Baliteke bakotcharen barnean hamabortz zaldiren tokia. Lurra osoki erria, buluzia, larrutua, belhar ondorik gabe. Oihanak eta oro iretsiak, chehakatua, egur kozkor ondar batzu han hemenka...

Lazdura batek hartzen du gizona hor sartzean, obusen harramantz izigarriak inharosten dituelarik bazter guziak. Sar zilho batean. Ez dakizu noiz artio iraunen dautzun zure aterbeak. Orobat bertze zilho batek iretsiko du zurea, obus handi bat aldean erortzearekin : ezen lurra harat hunat badabila, itsasoko ur handien pare, atzemanak oro uzkailirik ehortzen dituela.¹²⁴⁷

Andereen Bidearen inguruak biziki xeheki deskribatu zituen Saint-Pierrek, baina beste gunee bateko deskribapenak ere eskaini zituen. Deskribapen biziki interesgarriak ziren, konkretuak zirelako, eta beraz irakurlearen aurrean errealismo handia hartzen zutelako.

¹²⁴⁷ Jean Saint-Pierre, «Lerro hegiak», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.

b) Lubakia eta haren egitura

Urruneko planotik hurbilagoko planora ekarri zituen irakurleak Jean Etxeparek¹²⁴⁸. Orokortasunetik hasiz, lubakien eraikitzeari buruzko artikulu batean, lubakien historia esplikatzen zuen pixka bat, hala nola, alemanengandik anitz bazela ikasteko, haiek trebeago baitziren lubakien eraikitzen¹²⁴⁹. Baina artikulu berari loturik, teknika hori hamar mende lehenago ere erabiltzen zela, lur-zulo eta etxola egitea ez zutela alemanek asmatu eta bi urte lehenago japoniarrek eta errusiarrek erabili zutela zehaztu zuen¹²⁵⁰. Hala ere, Jean Saint-Pierrek erabili hitzei fidatuz gero, lehenik «tranchées» hitza erabiltzen zuen, eta gero «erreka ziloak» edo «sator ziloak». Horrek erakusten du zerbait berria zela harentzat. Hain zuzen, jakinarazi zuen lubakien egiten ikasi behar izan zutela gerlan zehar; alemanen teknika zela, baina frantsesek ez zutela ezagutzen¹²⁵¹. Lubakien eraikitzeari dagokionez, artikulu batean ingeniarietza militarreko soldaduak aipatu zituen, erranez haietaz gutxi idazten zela, baina lan handia egiten zutela, hala nola bideak, harresiak, zubiak eta abar eraikitzeako. Lubakiak indartzeko lanak ere egiten zituzten, aro txarrarekin, lurra noiznahi erortzen baitzen soldaduen gainera¹²⁵². Egia da *Eskualduna*-k berak ere ez zituela maiz aipatu ingeniarietza militarreko soldaduak.

Lubakiak berak nola eginak ziren aipatu zuen artikulu eder batean. Lubakiak eraikitzea bera zein arriskutsua zen, tiroen erdian ibiltzen zirela, handik ateratzeko tenoreei kasu eman behar zitzaizela eta abar esplikatzen zuen Etxeparek:

Etsaiak ez du behar jakin zonbat dembora egoiten giren lurpean. Bertzenaz, sar jalien berri jakinez geroz, burrustan, gure gainerat sua bota lezake, harakoan, edo gibelerat gohazilarik pausatzerat. Ezen bidea, nahi ala ez, barna zilhatua izana gatik, tiroen menea gelditzen da.

Hola ere, tenoreak bethi kambiatzen ditugularik, beharri onak dituzte, senditzeko noiz hartzen dugun gure posta "tranchéan" eta bidean gohazilarik dugu hurrisku handiena.

Etsaiaren aintzinean harek bezalako arroila luze handi batzu eginak ditugu. Zerbeit gostaik ditugu, buruilaren erditsuan hasi ginenean haitzur eta pala, eskuan, tiroz emokatuak, Alamanak jada gordeak ginintuelarik gorachago.

Emeki emeki gure ohantzeak handitu ditugu, zabaldu, barnatu. Gainetik estali, ahal bezen ontsa, lur zohi, zur, taula zahar, arbola darthe, abar. Ofizio guziak jakin behar dire. [...] Harrigarri da zoin hurbil diren tokitan Frantsesak eta Alamanak. Aintzindarien manuak eta oro aditzen dituzte. Elgarri lur puska

¹²⁴⁸ Lubakien antolaketari buruzko beste hainbat xehetasun : Rémy Cazals eta André Loez, *Dans les tranchées de 1914-18* (Pau: Éd. Cairn, 2008), 42–44.

¹²⁴⁹ Etxepare, «Langileak nundik». 1916/2/11.

¹²⁵⁰ Jean Etxepare, «Alemanek trebatu», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11.

¹²⁵¹ Jean Saint-Pierre, «Lur lan», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.

¹²⁵² Jean Saint-Pierre, «Genia-ko soldadoak», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 22a.

*zonbeit ere botatzen, bai eta ere zonbeit elhe bizi, irri egiteko. [...] Gauaz ezartzen dire burdin hariz edo alanbrezko sare batzu zilhoen aintzinean, etsaiak bidea zerratua kausi dezan. Lan gochoa, segur, tiroak hichtuka, gau beltzean iragaiten direlarik!*¹²⁵³

Hainbat aldiz, entzumenari erreferentzia egin zion, bereziki beste alemanen solasak entzuten zirela azaldu zuenean, horrek erakusten baitzuen batzuen eta besteen zuloak zein hurbil ziren elkarrengandik. Horiek hola, frantsesen lubakiak alemanenak eta ingelesenak baino txarragoak ziren, lurra taulaz babesten baitzuten, eta ez betonaz alemanek bezala, eta jende gutxiago ere zutelako lubakien eraikitzeke edo haien arta hartzeko. Horrek lubakien kalitatean eragiten zuen eta, beraz, bizi baldintzetan¹²⁵⁴.

Aipamen horiez gain, lubakien sistema bera nola antolatua zen biziki xeheki esplikatzen zuen Jean Etxeparek 1916ko urtarrilean. Lehenik, lehen lerroak berak nolakoak ziren eta nola egituratuak ziren argitu zuen:

Aitzin aitzinean huna, trebes, karrikarte bat barna zilatu, bi metra gora, metra bat baino gehiago zabal. Beha, ildo handi horren hegitik, aitzinerat: gordea zaudelarik, ikusten dituzu berehala pachet batzu landatuak eta burdin-hari elhorridun batzu pachet batetik bertzeari lothuak; hamar bat pachet lerro, orotarat; urrunchago, hala hala burdin-hariz beiratua, alemanen lehen karrikartea.

Bi karrikarte hoik elgarri buruz igortzen dituzte han-hemenka adar batzu, nun baitaude gau ala egun begiztariak

Gure lehen karrikartea doblatua da, bizpalau ehun metra gibelchago, bertze karrikarte batez, zabalerat hau ere, halaber burdin-hariz aitzin guzia sasitua.

Gure bi karrikarte hotarat gibeletik sartzen dira, zeiharka, marratuz, luzerat bertze karrikarte batzu hertsichagoak. Hauien sahetsetan, lurpean gorderik, athez karrikarat, dira eginak etchola batzu: aitzindari soldado, ala tresnen atherbe.

Lehen bi karrika zabalerat daudenetan han-hemenka, huna mitrailleuses deithu harma izigarriko lasterrak.

*Karrikarte eta hetarako bide, batzu oihanpetan, bertzeak ageri, orok egiten dute gerla tokiko lehen maila.*¹²⁵⁵

Etxepareren deskribapen biziki konkretu, zehatz eta interesgarria ez zen horretan bururatu, ondoko paragrafoetan bigarren lerroak nola antolatuak ziren esplikatzen baitzuen. Bigarren lerroak kilometro bat gibelago zeudela azaldu zuen; haiek ere lubakiak ziren, burdina-hariz babestuak, eta lehen lerrokoekin beste karrikarte batzuen bidez lotuak. Halaber, bigarren lerro horien gibelean kanoi tipiak eta handiak gorderik zeudela gehitu zuen. Ondotik, hirugarren lerroa nola antolatua zen aipatu zuen:

¹²⁵³ Jean Etxepare, «Sathor gerla», *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 18a.

¹²⁵⁴ Charle, *La crise des sociétés impériales. Allemagne, France, Grande-Bretagne, 1900-1940. Essai d'histoire sociale comparée*, 255.

¹²⁵⁵ Jean Etxepare, «Mailka», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.

Huna orain hirugarren maila. Hau pochi bat gibelago da, dotzena bat kilometretan nunbait han lehen mailetik. Hemen bada kanoi, otomobil, zaldi, tresneria zernahi, bai eta zurezko atherbe, pausatzerat igorri tropentzat. Hemen dira ere herriak, guti edo hanitz alemanek hastapenean andeatuak. Hunat dira heltzen Frantziako burdin-bide handiak, berekin dakarzaten puska guziekin. Hemendik gero, gauaz, trein ttipi batzuek burdin-bide hertsu batzuetan baderamate hazkurria bigarren mailerat, bai eta lehenbizikorat. Bazireztea?

Artikulu hori, eta hori bezala beste batzuk, dokumentu batzuk dira. Gerla urruneko zerbaite bezala ikusten zuten irakurleek, beren ahaideak non eta nola zebiltzan ulertzeko balio zuten. Gisa berean, lubakien barneko etxolak, lurpeko lo egiteko tokiak eta abar ere ongi azaldu zituen:

Alemaner ikasirik, badituzte orai gureek ere hautak. Lehen mailean, karrikarteen sahetsari pik, horra zilo batzu, piktcharekin eginak; sar eta, eskaler chut batek jausten zitu zortzi metraz, nun baita etzanik egoiteko barne bat hamabortz gizon badauzkena

Ernai batzuek badatchikote gaina lehertzetik. Lurpez aitzina bazoazke batzutan, eskuin edo ezker bihurtuz, hala-halako auzo barne batetara; athera baitzitzazke ere auzoaren eskalerei goiti. Horrela ez du soldadoak ithoa izaiteko beldurrik.

Lubakien inguruan beraz, lurpeko bizi bat ere bazela esplikatzen zuen. Lubakietan, soldaduak eta aitzindariak nola antolatzen eta banatuak ziren ere azaldu zuen xeheki. Fronteko bizia kontatu zuen, eta koronela zela babestuena argitu, sutik 800 metrotan baitzegoen, lurpean babesturik; haren funtzioa eta harat-honatak zehaztu ondoan, urrun izate hori justifikatu zuen, 3.000 gizonen ardura bere gain baitzuen:

Eta ez da zuzen baizik hola gerizatua egon dadien. Errechimenduaren aita da.¹²⁵⁶

Lehen lerroen deskribapena ere eskaini zuen aste batzuen buruan. Gerlaren hastapenean, lehen lerroetan mila soldaduko batailoiak zituztela kontatu zuen, baina anitz hil zirela eta ez zela hainbeste gizon heldu ordainez gehitu zuen. Beraz, gizon gutxiago ezartzen zuten lehen lerro horietan, baina arma gehiagorekin. Nahiz eta gizon gutxiago izan, azkar zeudela segurtatu zuen¹²⁵⁷.

Jean Etxepareren artikulu horiek zinezko dokumentu batzuk baziren ere, hastapenean aipatu ditugun Jean Saint-Pierrerenak ere aberasgarriak ziren. Lubakien antolaketari buruzko aipu horiez gain, beste aipu anitz ere izan zen, hango bizi baldintzak argitu zituztenak. Baina horretan sartu aitzin, atera daitekeen ondorioa da artikulu bakar baina biziki mamitsu batzuen bidez, *Eskualduna*-k Ipar Euskal Herriko irakurleei balio handiko informazioa ere ematen ziela gerlaz.

¹²⁵⁶ Jean Etxepare, «Lanjerik gutiena nor», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 18a.

¹²⁵⁷ Jean Etxepare, «Ara zahar-berrikatuak», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.

c) Hilan presentzia hurbila eta erreka suntsituak

Heriotza eta hilak hainbat gisetara agertzen ziren *Eskualduna*-ko artikuluetan. Eta lubakiak deskribatzerakoan ere, ezin dugu burutik kendu han egoten ziren soldaduek hilekin eta heriotzarekin harreman hertsia zutela. Lehenago ere aipatu dugun artikuluan batean, Jean Saint-Pierrek Andereen Bideko lubakien inguruan zituen hilerrien zerrenda egin zuen:

Gerla tokian hil soldadoak ehorzten dire lehenbailehen: gerlako lehen hilabetean, gibelerat egin ginuen hartan, gure hiletarik: hanitz utzi behar izan ginuen etsaiaren eskuetan.

[...] Geroztikako hilak Aisne delako ur laster handiaren hegian ditugu.

Banaka batzu, lerroen artean eroriak, ezin altchatuz han utziak gelditu ziren egundaino geroztik.

Bertze batzu aldiz, biziaren hirriskuan lagunek harturik, han hemenka ehortzi zituzten. Emeki emaki, hilarriak ere moldatu dira, eta egungo egunean hil guziak gerla tokiko hilarrietarat deramatzate.

Hamar bat hilarri badire gisa hortan, gure armadako Eskualdun asko dauzkatzenak.¹²⁵⁸

Gerlan ari zirela, hilak nonnahi zeuzkaten, batzuk ehortzi gabe, beste batzuk inguruetan muntatu zituzten hilerrietan ehortzirik, ahal bezala. Ekialdetik mendebaldera zerrendatu zituen hilerri horiek. Hasteko, Blanc Sablon oihaneko hilarria aipatu zuen:

Lerroen hegi hegian, eskuinetik hasiz, Blanc Sablon oihaneko hilarria.

Oihan handi horren erditsuan bada etche handi bat, erdi gaztelu, erdi laborantza etche; ez dakit zer ari diren horko jendeak, bake demboran, hain da toki basa; alde guzietarat oihana.

Gaztelu horren ondoan egina da hilarri bat, lerroetarik arras hurbil.¹²⁵⁹

Inguru haietako mapei so eginez eta lekura berera joanez zehaztu dugu Blanc Sablon-eko hilerri hori, izen bereko gazteluaren ondoan zegoela, Craonnelle herriaren hegoaldean. Oihan bide batez baizik ez daiteke joan hara, ez baitago errepedirik. Aipatu zituen beste hilerriak mendebalderago ziren Oulches herriko bizpahiru ttipi, Vassognes eta Jumignykoak, eta gibelago Beurieux, Meurival, Glennes eta Fismeskoak ziren, azken bi horiek zirelarik handienak.

Lubakietan eta inguruetan hilak bazirela gehiagotan aipatu zuen, lubakien alde ilunaren lekuko. Batean, «usain txarra» izan zuen hizpide. Inguruko herriak suntsituak zirela eta jendeak ahal zuen tokira joan behar izan zuela, soldadua lurpean bizi zela, satorrek bezalako barneak moldatuz, hilak metaka zituztela inguruan eta usain txarra zegoela idatzi zuen:

Toki batzuetan hilak gure aintzinean metaka, eroriz geroz han berean datzanak. Pentsa zer usain gochoa zokoetan!¹²⁶⁰

¹²⁵⁸ Saint-Pierre, «Gerlako hilarriak». 1915/11/19.

¹²⁵⁹ Ibid.

Ez zen Saint-Pierrereña gorpuen usain txarra aipatu zuen lekukotasun bakarra. Halakoak eta gogoragoak aski ohikoak ziren Bruno Cabanesen arabera¹²⁶¹. Artikulu horretan lubakien alde okaztagarri horrez gain, beste xehetasun batzuk ere eman zituen, hala nola, lehentxeago aipatu bezala, alemanen lubakiak ere hurbil zituztela, haien solasak entzuten baitzituzten. Bonbardaketen mehatxu etengabea eta babestu beharra ere aipatu zuen. Tiro eta borrokak aipaturik, beste artikulu batean kontatu zuen nola alemanen eta frantsesen lubakien arteko eremuan hilak bazeudela eta alemanek frantsesei zuloetatik ateratzeko aukera eman zitetela, hilak ehortzeko, eta ez zutela tiro eginen. Ez zutela sinesten argitu zuen Saint-Pierrek, baina azkenean atera eta alde bakoitzak bere hilak ehortzi zituen¹²⁶².

Jean Etxeparek ere lubakietako egunak kontatu zituen zenbait artikulutan. Lubakien antolaketari buruzko xehetasun haiek guztiak eman zituen aste hartan, artikulu haren beste atal batean hiltzeko arriskua zenbatekoa zen zehaztu zuen. Lubakietako egunak lasaiak baldin baziren, lehen lerroetan zauritu eta hil guti izaten zutela jakinarazi zuen: astean bizpahiru zauritu eta hamabost egunean behin hil bat. Borroka egunetan, aldiz, lehen lerroetan anitzez gehiago hiltzen zela argitu zuen, kopururik ez bazuen eman ere:

*Horra eztika egunetako goiti-beheitia. Oldarte delarik bertzerik da ikusten. Orduan dira, orduan chimichtak! Obuzak harria zerutik bezain usu erortzen dira aipatu ditugun bi mailetako toki beretarat, sutan zartatzen direla; norat nahi, choko guzietarat barreatzen ere ditu apur bat etsaiak. Zonbait aldiz, heltzen ere ditu hirugarren maileraino.*¹²⁶³

Hilen presentzia edo hiltzeko arriskua etengabeak ziren lubakietan, *Eskualduna*-ko berrikerari horiek erakutsi zuten bezala. *Zerbitzari*-k hil guti ukan zuten aste bat eskertu zuen:

Harritzeko da egun hautan zer bakea uzten daukuten!

Noizetik noizerat kanoi bumbako ikharagarri bat; egunean bizpahiru. Tiro bat ere ez. Tarbeko errechimendu batek sei egun iragan baititu «tranchetan» badakizu zenbat kolpatu izan dituen? – Bat. Hilik batere.

*Agian ondoko egunetan, hola hola izanen da.*¹²⁶⁴

Baina beti ez zuten halako lasaitasunik, eta bonbardaketen ondorioz suntsiturik gelditu zen erreka-zulo bat aipatu zuenean zer mina sentitu zuen idatzi zuen, ondoko artikuluan:

¹²⁶⁰ Jean Saint-Pierre, «Gerlarien berri», *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 4a.

¹²⁶¹ Cabanes, *La victoire endeuillée. La sortie de guerre des soldats français (1918-1920)*, 28.

¹²⁶² Saint-Pierre, «Hil ehortzte bat». 1915/1/29.

¹²⁶³ Jean Etxepare, «Lanjeran nun», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.

¹²⁶⁴ Jean Elizalde, «Martxoaren 8an», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 19a.

Othoi ez dezagun aipha. Nigarra begitarat heldu zaut, lehengo lekuan halako erreka utzi eta, hemengoak ikustea. Obusek egin ziloak ditugu errekatzat eta han gaude, gau eta egun, zerua atherbe. Ez ditake urrhatsik egin, burua ez ditake altcha, han berean ez hiltzekotan. Hemendik bizirik atheratuko dena zerbeit ikusirik atheratuko da.¹²⁶⁵

Lubakiak hauskorrak zirela erakusten zuen lekukotasun horrek, lana suntsiturik ikusteak eman zezakeen penaz gain, halako lekuetan hiltzeko arriskua are handiagoa zela ere erakutsi zuen *Zerbitzari*-k. Dударik gabe, heriotzaren eta arriskuaren presentzia hurbil horrek lubakietako egoeraren aurkezpen beltza emateko bidea eskaintzen zuen.

2. Lanak eta guduak

Behin lubakietan sartuz geroz, ez ziren tokiak nolakoak ziren deskribatzera mugatzen. Han zer egiten zuten kontatzen zuten, xeheki edo ez. Lerro hauetan, kontatzen zutenaz ariko gara, ez soldaduek egiten zuten guziaz edo *Eskualduna*-koek kontatzen ez zutenaz. Hainbat gairen artean, lau azpimarratu zituzten edo lau gai aipatu zituzten gehienik. Batetik, lubakiez edo zuloak egiteko lanaz mintzatu ziren, eta hori izanen da lehenbizikorik landuko duguna. Bigarrenik, lubakietako eguneroko bizia borroken erdian iragaten zutela eta leherketen mehatxupean egoten zirela ikusiko dugu, eta hori haien gutunetan nola islatzen zen aztertuko dugu. Borrokaren beste alde bat gauaz egin beharreko zaintzak ziren, eta horren deskribapenak ere nola egiten zituzten ikusiko dugu. Azkenik, egoera gogor horretan nekea nola agertzen zen begiratuko dugu.

a) Zuloak egiten

Lubakietako eginbideetariko bat, lubakiak berak egitea eta artatzea izaten zen. Baina lan horiek, lasaitasun denboretakoak izaten ziren, Jean Saint-Pierreren lekukotasun batzuen arabera, eta ez da maiz gertatzen. Dena den, balio digu ulertzeko gerlako lana ez zela beti tiro egitea edo bonbak igortzea, baizik eta aitzurra eta pala erabiltzea ere:

Emeki emeki gure ohantzeak handitu ditugu, zabaldu, barnatu. Gaietik estali, ahal bezen ontsa, lur zohi, zur, taula zahar, arbola darthe, abar. Ofizio guziak jakin behar dire.¹²⁶⁶

Erreka-zulo horien antolatzeaz ez zen informazio anitz argitaratu *Eskualduna* astekarian, baina garrantzia handia zuela azaldu du Frédéric Rousseauk. Lubaki horien

¹²⁶⁵ Jean Elizalde, «Eta erreka!», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 2a.

¹²⁶⁶ Etxepare, «Sathor gerla». 1914/12/18.

antolatzea eta egokitzea biziki garrantzitsuak izan ziren leku haietan hilabeteak iragan zituzten soldaduentzat:

Par-delà l'exagération perce le fantasme de la vie normale du temps de paix. Ce phénomène, que nous appelons le syndrome de Robinson, concerne les combattants de toutes les armées III. Partout, dès que le front se stabilise et quel que soit celui-ci, les hommes ménagent leurs abris, leurs trous, leurs tranchées, leurs cabanes. [...] Alors qu'ils vivent pour la plupart au milieu de ruines, de paysages brisés, tous les hommes s'adonnent à cette occupation; et pas seulement pour passer le temps, tromper l'ennui. Non, les hommes prennent un plaisir évident à bâtir, à construire, à enjoliver, à emménager les lieux dans lesquels ils passent parfois plusieurs mois. Plaisir d'homme, plaisir qui relie à l'enfance, plaisir qui relie à la vie. Incontestablement, ce comportement les aide à vivre la guerre, les accroche à une certaine normalité qui est humanité. Surtout, le syndrome de Robinson permet aux hommes d'échapper, par moments, à la vaste entreprise de destruction à laquelle ils collaborent et de résister à la dépersonnalisation que leur imposent la guerre et l'organisation des armées.¹²⁶⁷

Lubakietako biziaz elementu berri bat ageri da hor, nola antolatzen zituzten, eta soldaduak berak nola antolatzen ziren argitzen duena. Etxean bezala sentitzearen garrantzia islatzen zen. Saint-Pierrek beste behin ere aipatu zuen garai lasaietan lurpeko lan anitz egin zutela eta tokiak ongi ezarri zituztela. Gisa hartan, pausa egunak goxoki iragaten omen zituzten dantzan eta pilotan¹²⁶⁸.

Baina lubakien antolaketa horretan ere dena ez zen baikorra. Artikulu batean informazio inportantea eman zuen. Hots, lurraren zulatzea soldadu zaharren lana zela argitu zuen, baina euskaldun eta bretoi zaharrenak leku arriskutsuenetara igortzen zituztela zehaztu:

Bide gainean soldado zaharrak ari dire, zaku tzar btzu bizkarrean, pipa ere maiz ahoan churgatuz, harri chehatzen, arroila garbitzen, edo pala batekin saltsa biltzen.

Hemen berekoak dire. Eskualdun zaharrak behar ginintuen hemen lan hortako, bainan atzeman diote gaizoer bertze emplegurik, jo hunat, jo harat, nun ere baita hurriskua eta behar handiena, Eskualduna beti han.

Bretania-ko zaharrak ere gisa berean derabiltzkate, erreketan.¹²⁶⁹

Lekuko zaharrak ibiltzen omen ziren arroila konpontzen, eta euskaldun zaharrek, lan hori egin beharrean, leku arriskutsuetara joan behar izaten zuten. Hala ere, Saint-Pierrek hori ez zuen gauza txar gisa erraten, ez zuen hori kritikatzeko, alderantziz, euskaldun horiek txalotu zituen. Baina normala ez bide zen zerbait aitortu zuen.

¹²⁶⁷ Rousseau, *La guerre censurée. Une histoire des combattants européens de 14-18*, 132.

¹²⁶⁸ Jean Saint-Pierre, «Bethi deskantsua», *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 16a.

¹²⁶⁹ Jean Saint-Pierre, «Aroaren berri», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 10a.

b) Eguneroko bizia, lehergailu mehatxuen eta borroken artean

Aste batetik bestera ez zen giro bera nabaritzen *Eskualduna*-ko berriketarien artikuluetan. Jean Saint-Pierrek batzuetan idazten zuen alemanak beti tiroka ari zirela, baina ez baitezpada modu negatiboan, baizik eta erranez aliatuak zirela nagusi, eta alemanek ez zezaketela jasan frantsesek janari gehiago eta baldintza hobeak izan zituzaten¹²⁷⁰. Tiroen balorazio baikor baten egiteko modua zen, baina tiroen errealitatea erakusten zuen.

Beste batzuetan borroka guti izan zela aipatu zuen, edo entzun zituzten kanoikadak ziren lekutik aski urrun zirela, hala nola Soissonsetik harago¹²⁷¹. Baina lasaitasun giro horretan, batzuetan alemanei granada batzuk botatzen zizkietela argitu zuen. Artikulu batean eman xehetasunen arabera, euskaldunak gain batean zeuden, eta alemanak beherago, eta zenbait lehergailu botatzen omen zizkieten:

*Tokiak ere laguntzen ditu gure Eskualdun andana bat, bereziki errechimendu batean, Alamanak baino gorago baitire patar batean; gu gainera aldean, etsaia beherago, buruz behera jiten baitzaizko gure presentak.*¹²⁷²

Bonben presentzia beste alde batetik aipatu zuen, hala nola,aldi horretan, berek jasateko ordez, berek jasanarazten zituzten. Ohar bat merezi du lehergailuak adierazteko erabili «presentak» (opariak) hitz horren ironiak. Lehergailuen aipatzeko hitz baikorra erabili zuen, baldin eta haiek botatzen bazizkieten alemanei. Horren harira, batzuetan gudueta parte hartzaile izan zela kontatu zuen, beste batzuetan lekuko zuzen gisa mintzo zen, eta beste batzuetan urrunago gertatu guduen berri eman zuen. Kronika orokor batean, adibidez, zegoen eskualde ingurueta gorabeherak zerrendatu zituen, laburki, pluraleko lehen pertsona erabiliz, baina ez bere erregimentuaz mintzatzeko, baizik eta bera armada osoaren partaide gisa mintzo zelako, hala nola Paueko eta Tarbeseko bi erregimentu Reimseko aldera joan zirela, beste batzuk Soissons aitzinatu zirela, Ville-au-Bois inguruan gudu bortitz bat izan zela, baina frantsesek gaina zutela erranik, bere eskualdean une lasaiak zituztela argitu zuen, 1915eko ekainaren 18an¹²⁷³.

Handik gutxira ere beren lerroetan atsedena izan zutela idatzi zuen. Kanoiak azkarki aritu omen ziren bizpahiru aldiz, lekuka. Bera zegoen lekutik ezkerrean, Soupir eta Soissons eraso zituzten kanoi eta obus ukaldika; eskuinean, aldiz, Craonne lasaiago zegoen. Berry-au-

¹²⁷⁰ Jean Saint-Pierre, «Errabian», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 12a.

¹²⁷¹ Saint-Pierre, «Bethi deskantsua». 1915/4/16.

¹²⁷² Jean Saint-Pierre, «Kolpatuak», *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 30a.

¹²⁷³ Saint-Pierre, «Gerlarien berri». 1915/6/18.

Bacen ere erasoak izan zirela baina alemanek huts egin zutela gehitu zuen. Bitartean, haiek erreka gehiago zulatzen ere ari ziren¹²⁷⁴.

Beste batzuetan, kanoikada erasoak biziki baikorki kontatu zituen, garaile gisa agertuz. Batean, aitzineko aste osoan kanoi borroka anitz izan zela eta denak irabazi zituztela idatzi zuen, hala nola Berry au Bac, Ville aux Bois, Craonne eta Corbényn. Vaclair ordokian ere alemanei kalte handiak eragin zizkietela gehitu zuen:

*Bigarreanean etsaiaren aterbe azkarrenak herraustu; hirugarrenean, langile andana bat chehakatatu. [...] Harrotu diozkategu beren lan hoberenak. Zer ihurtzuriak! [...] Alemanek ere, bizpahiru aldiz igorri daizkigute kanoi kolpe erauntsi ederrak.*¹²⁷⁵

Hitzen baikortasuna nabari zen artikulu horretan, gerlaren edertzea bezala. Alemanen erasoak gutxien zituen, erranez kolpatu bakar batzuk egin zituztela, frantsesen artean. Kanoi txikien bidezko erasoak ere nola egiten zituzten erran zuen, beste behin. Alemanak maiz ibiltzen ziren Saint-Pierre zegoen toki inguruan. Gaez lagun batek barrandatzen zituen bazterrak eta Saint-Pierrek ematen zituen aginduak. Gero kanoi ttipiz eraso egiten zieten alemanei¹²⁷⁶.

Beste borroketariko bat zen etsaien lubakietan sartzea eta «dena garbitzea». Hitz horiekin adierazi zuen euskaldun batzuek ere egin izan zutena:

*Etsaiaren erreka batean sartu ziren gure eskualdun erreximendu bateko gizon andana bat, eta atzemanak oro garbitu. Hitz dautzuet trenpuan zirela gure putikoak, edateko horitto hartarik naski hurrupatua baitzuten ausarki, bihotzaren berotzeko. Biharamunean ikusi zen hauxe, jeneral nausiak egin berri labur hetan: «En Argonne, on a nettoyé une tranchée».*¹²⁷⁷

Erreka «garbitzearena» ez zen Jean Saint-Pierreren hitza, armadan hala erabiltzen zuten, hala nola «nettoyeurs de tranchées» delakoen lana zen, oldarraldi baten buruan joatea etsaiaren lubakiari buruz, han gorderik egon zitekeen tiro egile oro neutralizatzeko, granada, pistola edo ganibet bidez. Odol hotzeko jendea igortzen zuten lan haren egitera¹²⁷⁸. Jean Saint-Pierrek ez zuen odol hotza aipatu, baizik eta alkoholaren erreferentzia egin zuen, lan haren desdramatizatzeko edo, alderantziz, lan hura zein zaila eta gogorra zen erakusteko.

Jean Saint-Pierre ez zen maiz mintzatu tiroez. Anekdotak batean goraiatu zuen, ordea, aliatuek tiro egile onak zituztela; adibidez, aleman bat 500 metrotik hurbiltzen ari

¹²⁷⁴ Jean Saint-Pierre, «Gure astea», *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 30a.

¹²⁷⁵ Jean Saint-Pierre, «Kanoiak lanean», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 4a.

¹²⁷⁶ Saint-Pierre, «Mendekioa». 1917/11/16.

¹²⁷⁷ Jean Saint-Pierre, «Erreka bat garbitu», *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 28a.

¹²⁷⁸ Cazals, *Les mots de 14-18*, 110; François Cochet, «Nettoyeurs de tranchées», in *Dictionnaire de la grande guerre 1914-1918* (Paris: Laffont, 2008), 751.

zen, bi emazte zituela ondoan. Frantses batek tiro egin zuen eta erdiz erdi jo omen zuen aleman hura¹²⁷⁹.

Kanoien eraso gogorretatik ere nola babesten ziren kontatzen zuen beste behin Saint-Pierrek, gisa horretan kanoikaden eragina gutxietsiz. 1915eko azaro bateko asteazkenean kanoien orro handiak entzuten omen zituzten, baina zuloan sarturik, musean ari ziren, babesean. Babesguneak azkar zirela eta han ongi zirela iduri zuen, Saint-Pierreren artikulua araber¹²⁸⁰.

Funtsean, lubakietako gerlako lanaz beraz ez ziren hainbeste luzatu *Eskualduna*-ko berrikeriak. Eta Jean Saint-Pierreren azalpenez jarraiki, ezin dugu erran aurkezpen negatiboa egiten zuenik, beti ahalegintzen baitzen alemanen tiroen eta lehegailuen eraginaren mugatzera eta frantsesen gaitasunaren edertzera. Baina hori ez zen errealitatea, Jean-Norton Cruen araber¹²⁸¹. Hark dio frantses infanteria alemanen artilleriak zafratu zuela, frantsesen gibleko artilleria astunak alemanen obusak eta abar jo zituela, aleman hegazkinek frantses artilleria bonbardatu zutela, frantsesen ehiza hegazkinek aleman hegazkinak jo zituztela eta abar, hots, ez zela sekula bukatzen, eta dena sufrimendu bat zela. Rémy Cazalsek eta André Loezek soldaduen eguneroko liburuxketatik hartu testuetatik ondorioztatu zuten bonben mehatxupean egotea etengabeko beldurra eta sufrimendua zela¹²⁸². Ikusi dugu *Eskualduna*-ko berrikeriek maiz aipatzen zituztela gudu horiek, baina edertuz, eta ez zutela erakusten hainbesteko beldur eta sufrimendurik. Baina ez da gauza bera gutunetan idazten zena eta soldaduek berekin atxikitzen zituzten liburuxketan idazten zutena, are gutxiago argitaratzeko eginak ziren gutunen kasuetan.

c) Gaueko zaintza eta beste

Gau eta egun gerlan ziren, bistan denez. Eta gauak ere bazituen bere arriskuak eta eginbeharrak, logikoa den bezala. Eginbide ezagunenetariko bat zen lubaki inguruak ongi zaintzea, paretik tiro egilerik edo granada jaurtikitzailerik ez zedin etor. Lan horretaz ere mintzatu zen Jean Saint-Pierre, zenbait aldiz. Ez zuen bere berri ematen lan horretan; pentsa daiteke ez zela bere eginbidea, baina zenbait soldadu lagunak bizipenak kontatu zituen, euskaldunenak bereziki. Lan horretan ere aliatuak alemanei nagusitu zitzaizkiela erakustera eman zuen, ordu arte entzuten zituen zurrumurruek gezurtatuz:

¹²⁷⁹ Jean Saint-Pierre, «Tirari onak», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.

¹²⁸⁰ Jean Saint-Pierre, «Gure astea», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 3a.

¹²⁸¹ Cru, *Du témoignage*.

¹²⁸² Cazals eta Loez, *Dans les tranchées de 1914-18*, 70–73.

Ehun aldiz entzun dut erraiten Alemana nausi ginuela azeri joko guzietan, gordeka eta ichilkako jukutria tzarretan ez duela parerik. Baditeke.

Hemen segurik aspaldion gaina dugu gauazko patrouille hoitan, erreketarik kampo zoko mokoan berri jakin behar denean.

Bizpahiru aldiz Alemanak gisa hortan eskuratu ditugu, choria bezala sarean atzemanik, nor da bada hor azeriago?¹²⁸³

Ondorioz, alemanak ez zirela gehiago gauaz beren zuloetatik ateratzen eta frantsesak aise zebiltzala gauzako barrandatzetara lanetan idatzi zuen, anekdota bat kontatuz, non sarjentu bat zaintza lanetara joan zela, baina soldaduak ez zirela biziki ausart. Azkenean, harekin joan ziren bi soldadu euskaldunak zirela esplikatu zuen Saint-Pierrek.

Jean Etxeparek ere gaueko ikerlarien lana aipatu zuen, xeheki, eta haren hitzetan utziko dugu nolakoa zen haien eginbidea:

Patrullari edo bazter-ikerzaleak. Gauaz dute egiten beren lana; atheratzen ohi dira bizpahiru, aitzindari batekin, lehen karrikarteak aitzinerat baitauzka adarño batzu, hetarik. Badoazi harma eskuan burdin-harizko sasiak bertzalderat, berek dazkiten arteka hertsu batzuetarik.

Gero herrestan abiatzen dira, batzutan hil usteltzen ari diren batzu hunkiz, heien itzalean gordez; ezen etsaiak artetan argitzen du eremua, su-firinda batzu (fusées) airez aire goiti igorritz.

Han-hemenka arbola petan dabilta. Aleman bat chede beretan dabilala ohartzan badira, krak! Eztatzen dira, edo chut geldi geldia baratzen, edo arbola-ondo bati kontra gordetzen.

Aitzinatzen tuzu holachet ehun bat metretan gorenaz. Ikertzen dute nun diren etsaiaren lehen karrikarteak aitzinerat dakarzen adarrak, hotarik baitago bethi goait begiztari edo entzule bat, harma eskuan. Go-man huni! Etsaiaren burdin-harizko sasiak baratzen ditu gure gizonak arduenik; behatzen dute doidoi ea heien azpitik heldu othe diren, karrikaz edo lurpez...

Oren bat edo bien buruko itzultzen dira beren lagunetar, bethi ahal bezain polliki.

Ofizio lazgarria, ba, bazter-ikerzaleena, bainan heriotze guti hargatik. Bihotza pil-pil, ile ondoak chut-arazten dituen lana, soldado gaizo hek derabiltena.¹²⁸⁴

Bazter zaintzaileen lanaz gain, lubakien inguruetakoa beste lan batzuk ere deskribatu zituen, hala nola orga-zainena, puskak ekartzen eta bi lerroen arteko eremu arriskutsu horretan maiz bakarrik ibiltzen zirenen lana, eta aitzindarien sukaldariena, beti oihanera joan behar izaten baitzuten egurketa, eta eskerrik ez zutela ukaiten.

Lehen lerroetan ibiltzen ziren soldaduen beste lan bat zaurituen biltzea zen, andazain edo «brankardierren» lana, hain zuzen. Jean Saint-Pierrek berak bere lehenbiziko gutunean, frantsesez idatzi zuenean, bere burua aurkeztu zuen andazain gisa¹²⁸⁵. Bi andazain mota baziren, zaurituak tiro eremuetatik hartu behar zituztenak, beren bizia arriskuan ezarriz,

¹²⁸³ Jean Saint-Pierre, «Azeri zilhoak», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 28a.

¹²⁸⁴ Jean Etxepare, «Nork merezimendurik gehiena», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 18a.

¹²⁸⁵ Jean Saint-Pierre, «Nouvelles de la guerre», *Eskualduna*, 1914ko irailaren 25a.

edota gibelago zeudenak, hala nola anbulantzietakoak. Besteak beste Sophie Delaportek eman azalpenei jarraikiz, zaurituak lubakien artetik mugitzea lan arriskutsua eta zaila zen, sekulako inarrosaldiak biltzen zituztelako¹²⁸⁶. Anbulantzietakoak, berez, Genevako hitzarmenek babesten zituzten, baina gibel lerroetara heltzen ziren obusen arriskupean zeuden. Jean Saint-Pierrek ez zuen argitu zer andazain mota zen, baina 1917an bi aldiz ukan zuen aipamen berezia, gudu bortitzenen erdian ukan zuen jarrera kementsuagatik¹²⁸⁷.

Jean Etxeparek xehetasun batzuk eman zituen erregimentuen osatzeaz, eta horietan andazainen lekuaz. Erregimentu bakoitzak hiru batailoi eta batailoi bakoitzak lau konpainia zituen; konpainia bakoitzak erizain bat eta lau andazain zituen, eta gibelago batailoi bakoitzeko mediku bat bazen¹²⁸⁸.

Andazainekin bukatzeko, *Zerbitzari*-k kontatu zuen nola Dufau deitura zuen senpentera batek anda berriak asmatu zituen, lubakien barnetik ibiltzeko; hori Frantzia guzira hedatuko zela segurtatu zuen, «Brancard Dufau» izenarekin¹²⁸⁹.

Gaueko eta gainerako lan horien aipamenak ez ziren beste batzuk bezain ugariak, beharbada, baina artikulua bakar horiek interes handikoak izan ziren. Beti ere, lan horretan ere ongi ari zirela erakutsi nahi izan zuten Saint-Pierrek eta Etxeparek, gainerako gaietan bezala.

d) Nekea

Lehen lerroetan ibiltzen ziren soldaduek kilometro anitz egiten zuten batetik bestera, trenez, autoz edo, maiz, oinez. Hainbat artikulutan agertzen zen mugimendu horiek eragiten zuten nekea edo akidura. Jean Saint-Pierrek berak ere aitortu zuen, behin, aspaldian ez zuela berririk igorri, lau departamendu zeharkatu baitzituzten, oinez, aro txarraren azpian¹²⁹⁰. Haren artikuluan ez zen baikortasunik, nekea ageri-agerian zegoen.

Gerlan egoteak eragiten zuen nekea beste gisa batez ere agertu izan zuen. Behin, Argonetik joan zirela kontatu zuen, lehen lerroetatik 80 kilometro urrunago. Bidea ez zuten oinez egin, akigarri izan zitekeelako, 25 kiloko zakua bizkarrean, eta akituak baitziren. Zaku astuna bizkarrean oinez ibili izan ziren beste batzuetan, baina aipatu artikulua horretan,

¹²⁸⁶ Delaporte, «Les défigurés de la Grande Guerre».

¹²⁸⁷ Archives départementales des Pyrénées Atlantiques, Série R (1 R 755).

¹²⁸⁸ Jean Etxepare, «Brankardier eta musikari», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11.

¹²⁸⁹ Jean Elizalde, «Agur sempertarrak», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 3a.

¹²⁹⁰ Jean Saint-Pierre, «Gerlarrien berri», *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 12a.

Saint-Pierrek aitortu zuen haien akidura nolakoa zen¹²⁹¹. Beste behin ere, modu gordinean adierazi zuen haien nekea:

Bizkitartean, etzauku iduri berehala gure armada guduan sar-araziko dutela, negua bere beltzenean leku gaixto huntan emanik. Zor daukute pausua. Ez da dudarik ahulduak girela, nekhatuak: zango, barne, bulhar, zintzur, buru, nork berea jasan du, guti edo aski. Badukegu zonbeit egunen bakea.¹²⁹²

Hor aitortu zuen, besteak beste hotzarengatik, zenbat jasanik zeuden. Diskurtso aski negatiboa zen. Ordurako gerla laugarren urtean sartua zen, 1917a baitzen, eta fisikoki nekea jasaten ari ziren.

Serbia aldetik idazten zuen A.I.k ere oinez egin zituzten kilometroak aipatu zituen. Oro har oinez anitz ibiltzen zirela agertzen zen haren artikuluetan, eta horrek sortzen zuen akidura aipatzen zuen. Oinezko bideen kronika haiek, bidai kronika baino gehiago ziren gerlaren nondik norakoen kronika. Ageri zen, Serbiako harat-honaten kasuan, lubakietan egotea bezain gogorra edo gogorrago zela hainbeste ibiltzea batetik bestera. Akidura hori transmititzen zuen bere artikuluetan:

Jauna, erraiten neizun, azkeneko aldian, noula, usian, gaiatz gunian gibel egiten. Ibilten ginen ahal bezain ichil, pipatzia ere ez sori. Gero, oren bost edo seien bidia egin ondoan, herri zombaiten khantian ukhura etsaiari buhurtzeko. Gaiazko bidaje horiek etziren noula nahikoak. Bide handiz bagindouatzen, beha hebenko bide handiak ez dira Uskalherriko errege-bidiak uduri. Gutienik ouste gunian bidia mouzturik atzamaiten gunian eta bost pa-sei metra zabal zen erreka handi bat trebesatzeko. Zuburik batere. Batian harri handi esi bat baziren hourian eta zalhe ginenak harri hetan gañen igaraiten ginen jaouziz. Haborochetan etzen harririk ere ageri eta, nahi as'ez, behartzen zeikun hour hotzian sartu. Dozena bat erreka horietarik ohart dut hola igaranik.¹²⁹³

Bide zailak zirela erakutsi zuen artikulua horretan, oren anitz oinez, batzuetan bidea moztua edo erreka zabalak zeharkatzeko zubirik ez. Gerlako beste errealitate bat zen hori, presentzia eta garrantzia handia zuena. Eta bide horietan, aroa ere jasan behar izaten zuten:

Beroak zer nahi erakatsi deiku. Hebenko uda gozatu eztiak eztaki ekhiaren borthitzaren berri. Itzalian 45, 50 degre; ekhi toltzian 70. Guk halere, houraren khantian ginelakoz, artetarik mañhatzen ahal ginen. Bena bestek? Zuhain adar bat ez ihounere; bazterrak oro tchokaturik; lurrian zilho eli bat egin eta han erdi pikarrai egoiten.

Berriz bero horrek aphotorroak, suge, ullu, ilhounezko bizizale khara gaistokoak oro phitzerazten ezizkun saldoka. Lanak emaiten zeizkun ezin ohiltuz. Ichtant baten deskantsurik ez.

Soldado hanitch mardotu ziren, flakatu, eritu. Nihaou ere egon niz egun zombaitz elgaitzeki. Bena gaitzari buhurtu ahal izan niz ospitalialat bildu gabe. Horren gatik hasi nintzanian berriz serbutchian hain nintzan deseginik eta zainhiturik noun ene lagunek doi doia ezagutu beinun dien.¹²⁹⁴

¹²⁹¹ Jean Saint-Pierre, «Lerroetarik urrun», *Eskualduna*, 1916ko urriaren 6a.

¹²⁹² Jean Saint-Pierre, «Anglesak», *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 23a.

¹²⁹³ A.I., «Zalonikatik letera». 1916/3/17.

¹²⁹⁴ A.I., «Zalonikatik letera», *Eskualduna*, 1916ko irailaren 22a.

Artikulu honen arabera, soldaduek ez zuten etsaiaren tiroen menpe egon behar bakarrik, arriskua ez zegoen zauritzean edo zaurien ondorioz hiltzean bakarrik. Ahultzeko eta eritzeko arriskuan ere bizi ziren. Baina soldaduek bizi zuten nekea bestelakoa ere izaten zen, hala nola Frédéric Rousseuren ustez beldurrak beheitiko eragiten zien soldaduei¹²⁹⁵. Eta Jacques Meyerren arabera, baldintza material txarren ondorioz «miseria moral handia» jasaten zuten¹²⁹⁶. Nekearen edo miseria moralaren alde hori ez zuten hainbeste aipatzen, baina baldintza material txarrez luzaz aritu ziren lubakietatik idazten zuten berrikeriak, ondoko orrialdeetan barnatuko dugun bezala.

3. Baldintza gogorrak

Lubakietan, gauzak egin behar izateaz gain, egon behar izaten zuten. Eta egote hori bera ere ez zen guti! Nola bizi ziren eguneroko bizitzan? Ez da beti erraza lubakiez ala gibel lerroez ari zirela zehaztea, bereziki elikagaien kasuan, baina bereizketa baten egiten ahalegindu gara. Lehenik, nola jaten zuten eta nolako janaria zuten aztertuko dugu. Hain zuzen, *Eskualduma*-ko idazleentzat janariak zer garrantzi zuen jakitea interesgarria iruditu zaigu. Bigarren pairamena eguraldiari edo aroari lotua zen. Hotza eta lohia izan ziren soldaduek gogor jasan behar izan zituztenak, eta nola mintzo ote ziren horiez gure berrikeriak? Lubakietako bizia gogor egiten zuen beste arloa zorrien eta arratoien presentzia zen, eta ez gara harrutuko *Eskualduma*-ko berrikeriek gai hori maiz aipatzen zutela irakurtzean. Zer zioten eta zer tonurekin idazten zuten begiratuko dugu.

a) Janaria

Janariak presentzia handia zuen bereziki Jean Saint-Pierreren eta *Zerbitzari*-ren artikuluetan, eta gutxiago Jean Etxeparerenetan. Zaila da zehazki jakitea janariaz mintzo zirenean, lubakietan izaten zuten janariaz ala pausalekuetakoez ari ziren, maiz ez baitzuten halako xehetasunik ematen. Jean Etxeparek, nahiz eta besteek baino garrantzia gutxiago eman zion janariari, behin janaria berorik atxikitzeke teknika batez idatzi zuen, eltze mota berri bat asmatu zutela eta nola funtzionatzen zuen esplikatu:

Bainan zer salda on eta beroa milikatzen dugun! Zer saltsak, beren usain gocho guziarekin! Haragia zoin uzter den! Eta nolako ilhar, lutsagar, irrisak! Egiatzki ahotik ezin utziak dira. [...]

¹²⁹⁵ Rousseau, *La guerre censurée. Une histoire des combattants européens de 14-18*, 157.

¹²⁹⁶ Meyer, *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*, 114.

Eskualdun batek erran daut nola, ondar etcheko-aldian, aipatu daizkon español ahetz bati. Hunek bekaizgo khechu batean, berehala:

Arraioa! Frantses mila kemonioak! Gerla tokietan berdin mahain on egiten dute nola Donostian don Alfonso, gure errege maiteak!¹²⁹⁷

Gerla lekuetan jaten zuten janaria edozein jate txer handitakoa bezain ona zela idaztea espantu handia egitea zen, eta haien jateko kalitatea zena baino ederrago aurkezten zuela pentsa daiteke. Baina halako edertzeak ez dira sinesteko eginak izaten, eta ez bide zen Etxepareren xedea Donostiako jate txeraren pare jaten zutela sinetsaraztea. Horrekin, zeukaten janariaren kalitatea ona zela erakutsi nahi zuten.

Baikortasunez idazten zuen Jean Saint-Pierrek ere, janariari ari zenean. Oro har, ongi jaten zutela adierazi nahi izaten zuen, besteak beste alemanen tratuaerakiko konparaketen bidez. Batean azaldu zuen alemanek bazekitelako haien ongi jaten zutela eta janari onaren trukean, zigarroak eskaini zituztela¹²⁹⁸. Beste batean, alemanen etengabeko tiroen azalpena eman zuen, hala nola haien janariari «jelos» zirela¹²⁹⁹. Militarki alemanei nagusitzen zitzaizkiela erakutsi nahi izaten zuen bezala jokatzeko jaten zuten janariarekin ere, arlo hartan ere baldintza hobetan zirela azpimarratuz. Jateko eta edateko zeren eskubidea zuten ere azaltzen zuten erregularki, zehaztuz egunean pinta erdi bat arno haizu zutela¹³⁰⁰.

Baikortasun horren gibelean, dena ez zela hain baikorra ere suma daiteke. Nahiz eta maiz agertzen zuten janari ona zutela, batzuetan beti gauza bera jateaz asetzen zela ere ulertzerako eman zuen, hala nola haragi gisa beti xingarra zutela idatzi baitzuen behin:

Jatekoaz kestione, ogi hauta dugu bethi; chitchiaz nardatzen hasia niz haatik, chingarra baitugu kasik egun guziaz. Ez dut erregurarik bertzenaz. Puska frango handia hunkitzen dugu. Ni segurik chakhur batekin partzuer ari niz.

Chingarrarekin irrisa gehienetan. Barnearen freskatzeko ez omen da halakorik.¹³⁰¹

Beti janari bera izateaz baino kezka handiagorik ez zuten erakutsi Saint-Pierrek eta beraz, ez dago hor jarrerako ezker handirik. Gisa horretako janariaren deskribapenak maiz egin zituen, ongi azpimarratuz ogi ona zutela, eta beste behin ere aipatu zuen haragiari asetzen hasia zela:

Jatekoaz ez dezakegu erregura handirik egin, nahiz haragiari aseak gauden aspaldion. Ogi dugu orotarik hobereko memento huntan, churi eta ontsa egin.

¹²⁹⁷ Jean Etxepare, «Asmurik hobereko», *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 21a.

¹²⁹⁸ Jean Saint-Pierre, «Jateko», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.

¹²⁹⁹ Saint-Pierre, «Errabian». 1915/3/12.

¹³⁰⁰ Jean Saint-Pierre, «Jan edanak», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 5a.

¹³⁰¹ Jean Saint-Pierre, «Jan edanak», *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 2a.

[...] *Haragia frango maiz zikirokia. Batzuetan haragi horman beiratu hartarik, behartzen baitzauku. Kontserbako haragitik ere noiztenka, soldadoek «ziminokia» deitzen duten hartarik.* ¹³⁰²

Haragiaren deskribapen hori ez zen loriagarria, bereziki «ziminokia» edo haragi hormatua aipatu zituenean, baina oro har janariaz aski baikor mintzo zen. *Zerbitzari*-k ere ogiaren kalitate ona azpimarratu izan zuen, eta ongi eta ausarki jaten zutela ere idatzi izan zuen:

Egia dena den erran ditake orai. Frantziako egunkariak ehunetan errepikatuko dautzue ba-eta, Alemanian etzutela bethi nahi zutena jaten; hau eta hura eskas zituztela. Baditake eta sinhets errecha da.

Hau gordetzen zuten haatik : Frantzian ere soldadoeri gero-ta gehiago gutitzen ari ziotela jatekoa. Ez ginen oro egun guziz asetzen. Zertako? Ez dakit.

Orai berriz ederki jaten dugu: sekulan baino hobeki. Deusen eskasik ez dugu. Ogia hauta da. Etchekoa baino hobea dela ere erran nezake, etcheko arthoa bera ez balitz hemengo ogi churi ederra baino hobea. Haragia hoberenetarik dugu eta aski bada. Baratzekariak berriz ematen dauzkigute eta ausarki. Arnoa ona da.

*Aise ageri da Frantzian badela sos... edo gerla bururatzen ari dela. Hau balitz, harri zintazkete, gu, ikustearekin, nola edertuak garen !!*¹³⁰³

Pasarte horretan bi informazio garrantzitsu eman zituen *Zerbitzari*-k. Batetik, prentsak soldaduen elikadura txarrari buruzko informazioak ez zituela eman. Bestetik, aitortu zuen ez zutela beti ongi jaten. Baina pasartearen bigarren zatia irakurriz, Euskal Herrian zegoen irakurleak pentsa zezakeen gerlariak jaunak bezala bizi zirela, ongi janez, eta gorputzez indartsu eta eder. Janariaren baikortze hori ez zen biziki sinesgarria, Audoin-Rouzearen azalpen batzuei fidatuz gero. Haren arabera, soldaduek janaria anitz aipatzen zuten beren gutunetan, baina bereziki janaria eskatu zen unean. *Eskualduna*-n, aldiz, kontrakoa, otordu bereziak edo ongi jan izana aipatzen zuten maiz,¹³⁰⁴ Eguberriko otorduak bezala.

Jean Saint-Pierrek Eguberri eta Urtats gau eta egunetako otorduak aipatu zituen, ohiz kanpoko otordu bat bezala. 1914ko Eguberri gaua pausalekuan pasatu bide zuen, supazterrean. Agintariek bazkari on bat hitzeman zietela kontatu zuen xeheki: xingarra, laranja bat, sagarra, zigarroa, arnoa eta xanpaina botila bat lau lagunentzat¹³⁰⁵. Ondoko asteen kontatu zuen Eguberri eta Urtatseko bazkari ona ukan zutela, artikulua labur eta ez biziki interesgarrian¹³⁰⁶. Ondoko urteko Eguberriko afarien berri eman zuen *Zerbitzari*-k:

¹³⁰² Jean Saint-Pierre, «Osagarria», *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 23a.

¹³⁰³ Jean Elizalde, «Bizia», *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 14a.

¹³⁰⁴ Audoin-Rouzeau, *A travers leurs journaux: 14-18, les combattants des tranchées*, 42.

¹³⁰⁵ Jean Saint-Pierre, «Abendoaren 22an», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 1a.

¹³⁰⁶ Jean Saint-Pierre, «Bazkari on bat», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.

*Aphairuño bat egin dugu haatik zenbeit Eskualdunek. Oilachko bat edo berze eta zenbeit gazteina, herritik izanak, nahi bezen gochoki klikatu ditugu. Hori bederen gabe, ez ginezaken gau maitea iragaiterat utz. Zor zaio hoinbertze...*¹³⁰⁷

Oro har, Eguberriko otordu horiek aski xumeak ziren. Saint-Pierreren kasuan, berezitasuna zigarroak eta xanpainak ezarri zuten. Xingarra beste egunetan ere jaten zuten. Oilaskoa ohiz kanpoko janaria zela nabariago zen, ez baitzuten halakorik maiz aipatzen. Ohiz kanpoko otorduen gaia inauterietan ere atera zuen Saint-Pierrek:

*Atzo, bi arroltze atzemanik, lagun batekin partitu ditut. Etzuen jan arroltze bat oraino, gerlarat joanez geroz. Huna zer erran dautan berak: "Agorrilaren bian ikusi nituen azken arroltzeak; amak: emanik partitzean, goizean goiz... Han berean utzi nituen"*¹³⁰⁸

Baina inauteria horietan ez zuten arrautzarik aski kruxpeten egiteko, Saint-Pierrek berak idatzi zuenez, beraz ezin izan zuten ohitura errepikatu, eta arrautza banarekin konformatu behar izan zuten. Arrautza zer janari arraroa bihurtua zitzaizen idatzi zuen horretan, janariaz ematen zituen xehetasun baikorrak ahuldu ziren. Nahi gabe aitortu zuen ez zutela nahi adina edo nahi guztia jaten ahal, egoera normalean baino xuhurrago bizi zirela.

Soldaduek berez ukaiten zituzten otorduez gain, maiz beren aldetik bilatzen zuten janari gehiago, eta inguruko biztanle edo saltzaileei erosten zieten, garesti ordainduz¹³⁰⁹. Beste bide batzuk ere aipatu zituen *Zerbitzari*-k, hala nola oihanetik fruituak hartzen zituztela¹³¹⁰ edota ezta biltzen zutela¹³¹¹. Baina gauzak ez ziren beti nahi bezala izaten, inguruko janari iturri horiek ere urritzen ari baitziren:

*Jatekoaz ez dugu erraitekorik, tropak fornitzen baitauku. Hemen deusik ez litake kausi. Haste hartan bazen aski basa lapin; orai bat ez da ageri; oro garbituak dituzte artillurrek. Karakoilik ere ez da gehiago; oro janak hek ere. Egun hautan arrainari lotuak dire. Amu, kordela, sare, deus ez dute eskaz gure arraintzalek. Arrainak du bakharrik eskas eginen, egun laburrik barne.*¹³¹²

Beste zenbaitetan, garbiki, janari gutxi zutelako kexatu zen¹³¹³, ondoko artikulua honetan bezala:

Gure hertzeak denetarat egiteko edo nik ez dakit zertako, ez dugu aintzineko demboretan bezen ederki jaten. Maiz mehe eguna dugu. Handik eta hemendik ez baginu, sosaren puntan bederen, zerbeit eskuratzen, irauteak lan luke. Etchetik ere zerbeit igortzen baitaukute, ez gare oraino arras ahulduak.

Bainan egia erran, lan hainitz egin eta guti jan, no me gusta, españolak dion bezala.

¹³⁰⁷ Jean Elizalde, «Oi Eguberri gaua», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 7a.

¹³⁰⁸ Jean Saint-Pierre, «Kruspetak», *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 26a.

¹³⁰⁹ Miquel, *La grande guerre au jour le jour*, 192.

¹³¹⁰ Jean Elizalde, «Arregak», *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 19a.

¹³¹¹ Jean Elizalde, «Eta erleak?», *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 12a.

¹³¹² Jean Elizalde, «Maiatzaren 11n», *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 21a.

¹³¹³ Jean Elizalde, «Jan edanak», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 2a.

Arrautzako jaun erretorak salatu dautzue zer apetitua dutan eta lerro hauk irakurtzearekin erranen du: «Gizagaizoa ez bada bethi asetzen, ez da harritzeko».

Jaun erretora, nion bezala baitire haatik bertzeak ere hemen. Eta maiz

Mahain petik kokoriko

Gardian dago Churiko

eta hezurtoa etzaio sekulan ereriko, guhaurek baitugu churgatzen.

Damurik ez dugu zure... Bainan ez dezagun kanta bera has berritz. Badakizu orai nere triparen berri...¹³¹⁴

Egia da *Eskualduna*-ko berriketariak janariari buruzko informazio baikorra eman zutela oro har. Baina pasarte honekin eta atal honetan pixka bat gorago aipatu dugun beste batekin, *Zerbitzari*-k deblauki aitortu zuen ez zutela beti nahi bezainbat jaten. Etxeparek ere, beste artikulu batean, janariaren eskatea aipatu zuen, soldadu batzuk laborantzara igorri zituztela azaldu zuenean. Hain zuzen, eskaste horri buru egiteko, janaria produzitzeko beharra sortu zela esplikatu zuen¹³¹⁵. Beraz, janariari zegokion alde ezkorrak lekua ukan zuen astekari horretan, xumea bazen ere. Ezkorragoa ote zen ofentsiba gogorren garaian? Lubakietan? Izan zitekeen. *Zerbitzari*-k une batean janaria eskas zutela idatzi zuen artikulua 1916ko udakoa zen, hots, Verduneko gudutik landakoa. Bien arteko lotura egin daiteke. Dena den, janariaz mintzatzean, ez zuten zehazten lubakietakoa edo pausalekuetakoa zen. Beraz ez gara ondorio zehatzetan sartuko. Laburbilduz erran daitekeena da noizbehinka ezkortasunak ihes egin bazien ere, Etxeparek, *Zerbitzari*-k eta Saint-Pierrek itxura baikorra eman nahi ziotela janariaren gaiari ere.

b) Hotza, lohia eta abar

Lehen Mundu Gerraz gelditu den irudi ezagunenetakoa lubakien barneko ur putzu eta lohiena da. Rémy Cazals eta Nicolas Offenstadek soldadu baten gutunak argitaratu zituztenean lubakietako soldaduek ura eta lohia belaunetaraino zeukatela azpimarratu zuten¹³¹⁶. Stéphane Audoin-Rouzeauk ere dio lohiaren «oinazea» agertzen zuten lekukotasunak «zenbatezinak» zirela, eta lohi hori etengabe presente egon zela soldaduen bizitzan¹³¹⁷. Pierre Barral-en arabera, ofizioz laborari ziren soldaduek gehiago aipatzen zituzten sufrimendu materialak (ibiltzea, lanak, hotza, akidura eta abar), gainerakoak

¹³¹⁴ Jean Elizalde, «Jatekoaz», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 3a.

¹³¹⁵ Jean Etxepare, «Laborantzaz», *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 8a.

¹³¹⁶ Rémy Cazals eta Nicolas Offenstad, «Du Bois-le-Prêtre au «Front intérieur». Les expériences de guerre des Papillon», in *Si je reviens, comme je l'espère. Lettres du front et de l'arrière* (Paris: Grasset, 2003), 370–371.

¹³¹⁷ Audoin-Rouzeau, *A travers leurs journaux: 14-18, les combattants des tranchées*, 37–39.

baino¹³¹⁸. Lohiaren eta egoera klimatikoaren presentzia hainbestekoa ote zen *Eskualduna*-ko artikuluetan? Aroari buruzko xehetasunekin has gaitezten.

Zerbitzari-k, gehienetan, bere artikulua beti hasten zituen aroaren berri emanez. Ez zen beti gerlarekin lotua, baina aro euritsu eta hotza lubakietan bizi zuela kontatzen bazuen, orduan islatzen zen egoera latza. Maiz aipatzen zuena hotza zen; izan hotza bera, elurra edo izotza. Jean Saint-Pierrek lubakietako sufrimendu handienetarikoa hotzaren ondoriozkoa zela agerrarazten zuen maiz, besteak beste Sommeko eskualdetik itzuli ziren batez jasan zuten hotza kontatzean¹³¹⁹. Hotza zangoetatik ere senti zitekeen, eta bizpahiru aldiz kontatu zuten soldaduek nola egiten zuten hotzaren kontra borrokatzeko. Zangoetako hotza gogorra zela eta horri buru egiteko Baselina ezartzen zuten, baina behin soldadu bat joan omen zitzaion Baselina gehiagoren galdez, eguberriko argiak egiteko erabili zutelako¹³²⁰. Umore kutsua zuen anekdota berezi horren gainera, zangoetako hotzaren aipu garbia egin zuen oro har baikor agertzen zen Saint-Pierrek. Hotzari buruzko beste aipu ezkor bat egin zuen 1917an:

*Hemengo gaichtoena, zangoak aise hormatzen direla. Oinetakoak soinean atchiki behar baitezpada gau ala egun, uraren barnean izana gatik. Sasoin huntan hotzak atzemaiten ditu, eta gizona ez da on gehiago gerla tokian egoiteko.*¹³²¹

Pasarte horretan ez zen hotzaren kontra biziki gogor mintzo, ez zen kexu ageri. Baina hotzak zangoetan eragiten zituen kalteak, laburki bazen ere, aipatu zituen. Elurra zailtasun bat zela idatzi zuen bestaldi batez, hala nola gauaz egin behar lanetarako, lerroak zaintzeko edo burdin hesien egiteko, elurraren gainean eta ikaragarriko hotzean aritzea zela zailena¹³²².

Zerbitzari-rentzat, ordea, ez zen elurra gehien kezkatzen zuen arazoa. 1916ko martxoaren 10ean argitaratu zuen elurra ari zuela, baina ez zela kezkatzerik¹³²³; elurrarekin elur pilotak egiten jostatzen zirela kontatu zuen beste behin¹³²⁴. Berriz ere elurra ari zuela zehaztu zuen batez, ordea, aditzera eman zuen elurra erran nahi zuela gero sekulako lohia edo «saltsa» jasan beharko zutela¹³²⁵.

¹³¹⁸ Pierre Barral, «Mémoire paysanne de la Grande Guerre», in *Mémoires de la Grande Guerre. Témoins et témoignages, Actes du colloque de Verdun, 12, 13, 14 juin 1986*, ed. Gérard Canini (Nancy: Presses Universitaires de Nancy, 1989), 131–139.

¹³¹⁹ Jean Saint-Pierre, «Somme-ko azken berri», *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 23a.

¹³²⁰ Jean Saint-Pierre, «Zangoetako hotza», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.

¹³²¹ Jean Saint-Pierre, «Galtze guti», *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 12a.

¹³²² Jean Saint-Pierre, «Egun gaichtoak», *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 23a.

¹³²³ Jean Elizalde, «Han hemenka», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 10a.

¹³²⁴ Jean Elizalde, «Hemengo modua», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 18a.

¹³²⁵ Jean Elizalde, «Zer dembora ari zaikun», *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.

Baina *Zerbitzari*-k elurra ez zuen gauza txar bezala aipatzen. Euria zen gehien hastio zuena, itxura guztien arabera. Garbiki aitortu zuen ez zela euria baino zailagorik, lubakietan zirenentzat, baina hala ere haien artean gutxi eritzen zirela eta eritzen zirenak ere ez larriki, zehaztu zuen, ongi artatzen zituztela azpimarratuz¹³²⁶. Aro txarraren kalteak gutxietsi nahi bazituen ere, euriaren gogortasuna onartu zuen. Euria, hotza eta harria gogor zirela ere aitortzen zuen batzuetan, bereziki ezin zutenean surik egin, alemanek ez zitzaten ikus¹³²⁷. Hala ere, soldaduek ez zutela kemena galtzen segurtatu zuen.

Euria zein gogorra zen adierazteko beste modu bat zen lubakietatik urrun zegoenean euria ari zuenean idazten zuena:

Hamabortz egun hautan guzietarik ikusi dugu: egun eder baino tzar gehiago haatik. Bainan hemen ez da erreketan bezala: han, nola nahikoa izan dadien aroa, lanak egin behar du: hemen, aro tzarra balinbada, ez dugu kampoan ibiltzerik. Euriak ez gaitu beraz hanbat kechatzen.

Lehen lerroen eta gibel lerroen arteko kontraste hori aztertu gabe, azpimarra dezagun pausalekuko egoera hobetik eta horrek ematen zion gibelaenetik mintzatuz eta konparaketa eginez aitortu zuela euria lubakietan zein gogor zen. Gisa bereko beste aitorten bat egin zuen atertu zuen une batez:

Iduri luke arras ederrerat emana dugula oraikoa aroa. Goizetik arratserat hor dugu bethi iguzkia zeru urdin batean. Bero ari du. Hobe. Gure ziloetako urak emeki-emeki agortuko dire hola eta egun guzia zangoak chuko atchikiko ditugu, mafrundi higuigarri baten beldurrik gabe.¹³²⁸

Euriteak gelditu ondoan lubakiak idortzeak eta zangoak lehorrean atxikitzeak eragin zuen atsegina aipatzean aitzineko egoera gogorra aitortzen ari zen. Saint-Pierrek ere garbiki aipatu zuen soldaduek zangoak urean izaten zituztela, 1915eko urtarrilaren 22an:

Erreka zilhoetan gorderik dauden soldado gaizoek zangoak urean dituzte. Beharrik zenbeit egunen pausua baitute gero; bertzenaz irauteak lanak lituzke.¹³²⁹

Bere burua ez zuen multzo horretan kokatu, hirugarren pertsona erabili baitzuen lehenaren orde. Beraz, artikulua idatzi zuen unean ez zituen zangoak ur putzuetan. Baldintza hobetan zegoen, baina bazekien zer zen hala egotea, eta han zeuden soldaduez urrikaltzen zela erakutsi zuen «soldado gaizo» idaztean.

Gainerako soldaduek bezala, *Zerbitzari*-k eta Saint-Pierrek oroz gainetik hastio zutena, bai, lohia zen. Saint-Pierrek berak maiz aipatzen zuen lohia.

¹³²⁶ Jean Elizalde, «Han hemenka», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 24a.

¹³²⁷ Jean Elizalde, «Aroa», *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 2a.

¹³²⁸ Jean Elizalde, «Aroa», *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 14a.

¹³²⁹ Saint-Pierre, «Aroa». 1915/1/22.

Eskual herrian jendea erregura baita, lohiaren barnean daudela belhaunetaraino, hobe du denik ere han berean egonik. Hemengo lohia mota tzarragotik dugu, aise lotzen, lotuz geroz ezin kendua, ezin idortua, zolarik gabekoa.¹³³⁰

Euria, hotza, horma urtzen ari zela eta horrek lohia eragiten zuela deskribatu zuen. Lohi hori txarra zen zaldientzat eta gizonentzat, gogorra. Ez zen artikulu baikorra eta Saint-Pierrek gerlaren alde gordin hori agertu zuen. Halatsu egin zuen ondoko artikulu honetan ere:

Jadanik hasia da hemen nausitzen ura eta lohia. Emazu gainera, aroa gordinarekin, hemen egiten duen hotz saila eta lanho higuigarria. Ez du guti balioko, gure bulhar eta zangoen onetan, bertze ohantze batean kokatzea. Gaineratik ez galda. Zonbeit egunen deskantsua badukegu aski hurbil, itchura guzien arabera.¹³³¹

Azkenik, lohia aitzinatzeko arazoak ematen zizkiela ere aitortu zuen, 1915eko hasieran, nahiz eta hala ere aitzinatzen zirela segurtatu¹³³². *Zerbitzari*-k ere usu aipatzen zuen lohia, errateko bazterretan lohi anitz bazutela¹³³³, edo leporaino putzuan sartuak zirela:

Lohian gaude leporaino gure erreketan, achainetarik gorago ura dugularik atherbeetan beretan. Hala irauten badu uda huntan, zer erromatismak gerla ondoan! Akiztarrak aberasten ez badire, nihor ez da aberastuko.¹³³⁴

Somme eskualdeaz aseak zirela idatzi zuen beste batean, lohia buruzko artikulu ezkor batean:

Nahiz hik eta kolpatu guti baino gutiago izan dugun hemen iragan ilhabetetsuan, leku hitsa zauku hau: urrun egoteko hobe. Latzgarri da bethi lohian kasik ithoak ibili behar izatea eta gu hala ibili gare hemen. Eta balitz bertze deusen manerarik? Baina ez. Hemen egonen dena, hola-hola ibiliko da zenbeit demboraz, hori nahi baitu hemengo lur motak.

Bi egun hautan elhurra ari zauku, par par par. Ez baiginuen bertze deusen beharrik saltsa hunen gutitzeko!¹³³⁵

1917ko otsaila zen. Jasaten ari ziren hirugarren negua zen, eta artikulu horretan egoera gogor horretaz asea zela erakutsi zuen *Zerbitzari*-k. Elurra ere aipatu zuen, baina aldi horretan, beste batzuetan ez bezala, alde ezkorretik aritu zen kasu horretan ere, baina ez elurra ez zitzaielako gustatzen, baizik eta elurra lohiaren areagotzearen faktore baizik ez zelako izanen, eta beraz elurraren aipamen horretan ere lohiaren beldurra ikusi behar da. Ikaragarriko lohi eta putzuak umorez ere aipatzen zituen:

¹³³⁰ Saint-Pierre, «Aroaren berri». 1915/12/10.

¹³³¹ Jean Saint-Pierre, «Neguari buruz», *Eskualduna*, 1916ko irailaren 29a.

¹³³² Saint-Pierre, «Lohia». 1915/1/15.

¹³³³ Elizalde, «Martchoaren 8an». 1915/3/19.

¹³³⁴ Jean Elizalde, «Oraike egunak», *Eskualduna*, 1916ko uztailearen 21a.

¹³³⁵ Jean Elizalde, «Bethi «Somme» delakotik», *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 2a.

Ez uste izan haatik lotsatzekotan garela hemengo soldadoak. Hori sekulan, lurra ez bada ur bilakatzen...

*Ochala arno bilaka baledi; chuhursko bezala baitugu hamarbat egun hautan!*¹³³⁶

Euriarekin eta putzuekin zutela arazoa agertu zuen, nahiz eta kemenik ez zutela galtzen erakutsi nahi izan zuen. Bide batez, arnoa eskasten ari zitzaieela ere adierazi zuen, eta umorez lotu zituen ur putzu soberakinak eta arnoaren eskasia, putzuak arno bihurtzeko desira adieraziz. Baina umorea bazter utziz, beste testu batzuetan urrun joan zen, errekek purgatorioarekin parekatzen baitzituen:

Verdunen ifernua ginuen: hemen purgatorioa. Nigar-egingarri da gizona holako plantan ikustea, zango puntetarik bururaino lohiz estalia.

Belhaunetarik goiti dugula lohia erranez ez dut aski erraten, tokitan baitugu gerritik goiti: hainitzetan, batek bertzea saltsatik atheratu behar, itzea bezala han sekulakotz landatua ez egotekotz.

*Ez da beraz harritzeko «pieds gelés» hoitarik hoinbertze balinbada: ehunka igorri dituzte eritegiatarat. Egiak dena den erran behar baitu, uste dut gutiz gehienak laster sendatuko diren haatik.*¹³³⁷

Testua biziki argi mintzo zen: lubakietan bizi zuten lohia jasangaitza zen, eta osasun arazoak sortzen zituen, epe luzeko ondorioak gutxietsi nahi bazituen ere. Oro har, lohiaren gaia modu biziki ezkorrean aipatu zuen *Zerbitzari*-k, Saint-Pierrek bezala. Eta ez zen baikorrago mintzatu, Serbia aldetik, A.I. inzialez idazten zuena. Nahiz eta lubakietako bizimodua azaltzeko, Jean Saint-Pierre eta *Zerbitzari*-ren testuak anitzez baliagarriago ziren, A.I.ren testuek balio digute ikusteko Serbia inguruko lubakietan nola bizi ziren. Zenbait aldiz lohia aipatu zuen, eta Frantziako lubakietakoarekin konparatu, erranez Serbiakoa oraino gogorragoa zela:

*Jauna, gezokoz jin zeiku heben ere dembora aski houna, tzarra ederki gozaturik orai artino; ezi zer nahi ikhousi dugu boustiareki. Ouste nian, Frantziako tranchées tan izanik, banakiala lohieen azken berria. Bena heben behartu zait orano haboro ikhasi.*¹³³⁸

Beste muturreko aroaz ere mintzatu ziren, hala nola beroaz. Baina hotza baino anitzez gutxiago aipatu zuten. *Zerbitzari*-k kontatu zuen anekdota batek bazuen, ordea, bere interesa. Bero ala hotz izan, beti jantzi bera soinean zutela idatzi zuen, eta beraz, beroa gogorragoa zela jasateko¹³³⁹. Jean Saint-Pierrek ere aipatu zuen bero handiegia edo idortea ere ez zutela atsegin¹³⁴⁰. A.I.k maiz aipatzen zituen klimaren ezaugarriak. Salonikarako bidean zehar edo lekuan bertan ukan zuen aroaren berri ematen zuen, baina gehienetan muturreko tenperaturak azaltzeko. Haratekoan ikaragarritzko beroa zela aipatu zuen,

¹³³⁶ Jean Elizalde, «Zer erran aroaz?», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 1a.

¹³³⁷ Jean Elizalde, «Hau da saltsa!», *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 12a.

¹³³⁸ A.I., «Zerbiatik letera». 1916/1/28.

¹³³⁹ Elizalde, «Bi hitz aroaz». 1918/7/26.

¹³⁴⁰ Jean Saint-Pierre, «Aroa», *Eskualduna*, 1915ko uztailearen 2a.

1915eko abenduaren 31n¹³⁴¹. Udan, beroa zuten partida, eta bero jasangaitzak eragin zituen eritasunak aipatu zituen, 1916ko irailaren 22ko gutunean¹³⁴².

Euskal Herritik idazten zutenek ere lubakietako egoera gogorra aipatu zuten batzuetan. Euskal Herrian bizi zirenei han zeudenez gogoratzeko eskatzen zieten, eta ez hainbeste kexatzeko, beren egoera anitzez hobea baitzen. Euskal Herrian zirenak supazterrean zeuden bitartean, soldaduek lohia eta hotza jasan behar zituztela kontatu zuen Blaise Adémak, uztariztar baten lekukotasuna emanez:

*"Hemen guziak partazko muilo batzu bilakatuak gare; ez dugu gehiago gizonaren itchurarik ere". [...]
Eta gehienek ez omen dute mafrundi bat ere atzemaiten. Hemen, zazpi egunentzat heldu zaizkigularik, etcheko supazter chokoan dire mafrunditzen. Horra zer dioten berek. Ez dakit eia arras egiaz mintzo zaizkigun. Ez soberarik lotsatzeko, sinhets dezagun hola dela. Eder da ikustea irri egiten dutela gure aitzinean beren pairamen handiez.*¹³⁴³

Lohiaren gaia modu ezkorrean aurkeztu zuen, eta soldaduek hango pairamena erlatibizatzen zutela gehitu zuen, nahiz eta berak ez zuen sinesten. Hots, soldaduak beren egoeraz ez zirela gehiegi kexatzen, baina hain segur erraten zuten baino gehiago sufritzen zutela aditzera eman zuen Adémak. Gisa bereko beste artikulu bat ere egin zuen 1918ko urtarrilaren 4an, etxeko goxotasuna eta lubakietako pairamena konparatzeko¹³⁴⁴. Beste batean, neguaren beldurraz mintzo zen:

*Geroni gure aterbe onetan, gure ohe guri eta beroetan, gure subazter gochoan, lotsatzen gaitu neguak.
Eta soldado gaichoak bere erreka-ziloetan, lur hotzaren gainean gau eta egun, bustia, hormatua, belaunetarainoko ichtilean, zer ez du pairatzen!*

*Ez du zortzi egun hola mintzo zitzaitala hogoi-ta-hamabi urthetako soldado bat. Oren bat edo bertze hoztua, bustia eta ichtilean ibilzea, hori noiz edo noiz guzieren gertatzen zaikuna da. Bainan hola egoitea aste osoak tokiaren gainean, higitu gabe, gizonaren itchura bera galdua, ichtilezko muilo batzu iduri, hori da izigarri.*¹³⁴⁵

Dudarik gabe, lubakietako aroa eta lohiaren aipamena egitean, gerlaren ikuspegi negatibo bat eman zuen *Eskualduna*-k. Nekez egin zitekeen lohiaren kaltearen erlatibizatzerik. Saint-Pierre bera ere hain ezkor agertzea adierazgarria zen: lubakietako baldintzak biziki gogorak ziren, besteak beste lohiari zegokionez. Hala ere, agertzen zituzten kexu horiek aroaren kontrakoak ziren, eta ez dugu aurkitu baldintza haietan egotera behartzen zituztenen kontrako protestarik.

¹³⁴¹ A.I., «Serbiatik letera». 1915/12/31.

¹³⁴² A.I., «Zalonikatik letera». 1916/9/22.

¹³⁴³ Blaise Adéma, «Lohia», *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 26a.

¹³⁴⁴ Elizalde, «Urthe on!». 1918/1/4.

¹³⁴⁵ Blaise Adéma, «Ez ahantz», *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 8a.

c) Arratoiak eta zorriak

Lubakietako beste elementu ezaguna arratoiena zen. Soldaduak arratoiekin elkarbizitzan egon ziren gerlak iraun zuen denbora guztian. Arratoiak denetan zeuden, soldaduen janaria jaten zuten, baina lerroen artean gelditu ziren soldaduen gorpuetatik ere elikatzen ziren¹³⁴⁶. Eta euskaldunek ere arratoien presentzia pairatu zuten. Deus baino gehiago, Jean Saint-Pierreri gutxien gustatzen zitzaizkionak ziren arratoiak. Lubakietan anitz ikusten zituzten, eta zenbait aldiz artikuluetan aipatzen zituen. Sortzen zituzten zenbait arazo esplikatzen zituen:

Breton zahar bat ikusia dut atzo, etzanik, besoa hantua, begia ilhun.

- "Zer duk?

- Zer dutan? Garratoin baten ausikia". Bertze batek erhia zuen zilhatua; hirugarren batek, beharri puntan petenten ezartzeko tokia, merke egina.¹³⁴⁷

Arratoiak ondoan edukitzea ez zen, beraz, kezka bakarra, arratoi horiek ausiki egiten baitzuten eta, beraz, soldaduak arratoiek ere zauritzen baitzituzten, gerlako zaurien gainera. Baina ohargarri da Saint-Pierrek ironia erabili zuela, petenta ezartzeko tokia aipatu zuenean, eta beraz giro jostakin batez aipatu zituela arratoi horien kalteak.

Zerbitzari-ren artikulua irakurriz, argi da arratoiek leku handia zutela lubakietan, bere kronika anitzetan atal bat eskaintzen baitzien arratoiei. Arratoiek egiten zutenari buruzko hainbat testu interesgarri eta polit idatzi zituen:

Ni segurik arras lotsatzen hasia naiz. Gathuak bezen handi dire, eta zer kopetakoak!

J.S.P. kechu da lasteia tokiz aldaratu behar izan duela, garratoin ohandze baten gainean zuelakotz. Zerbeit delarik, deus ez da hori guk ikusten ditugunen aldean. Nik lasteia eman dezadan eskuin edo ezker, airean edo lurrean, debaldetan dut. Begirik ez dezaket hets gau guzia. Azkenekotz, sudurretik ausikika zait bat lothu karra karra. Den bezalakoa! Hitz ematen dautzuet haatik hantcheharat laster haikatu dutala, buztanetik harturik eta berriz lotzeko minak khendurik...

*Sekulan gerla hau ahanzten badut, ez ditut bederen hemengo garratoinak ahantziko! Urdeak...*¹³⁴⁸

Ausikika sudurretik lotu izanaren anekdotari umore kutsu bat aurki dakioko, aski egoera komikoa balitz bezala aurkeztu baitzuen, nahiz eta komikotik baino gehiago ukan tragediatik. *Zerbitzari*-k ez bide zuen irri egin arratoiak ausiki egin zionean, eta artikuluan ageri da zenbat nardatzen eta beldurtzen zuten. Sudurretik ausiki egitearena beste behin ere aipatu zuen:

¹³⁴⁶ Meyer, *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*, 110–111.

¹³⁴⁷ Jean Saint-Pierre, «Garratoinak», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 7a.

¹³⁴⁸ Jean Elizalde, «Burutuko othe dugu?», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11.

Eta zer kopeta duten! Sudurretik ausikika hasiko zaizkitzu gauaz, burua estalkietan gordetzen ez baduzu! Ez duzu zeren jateko pichka bat agerian utz: mikorik ez da geldituko: burua itzuli artean, kilimiliklik milikatua dautzute. Gure zaku gehienetan larruak berak iretsiak dituzte, diren bezalakoek! Eta badakizue zeri diren jazartzen azkenekotz nere atherbean? Burdinazko untzietan, barnean zilhatu eta zerbeit kausituko dutelakoan. Karra, karra, karra, nola diren ari!¹³⁴⁹

Arratoiak ausikian lotzeaz gain, janaria kentzen zitelako ere kexu zen *Zerbitzari*. Baina, ironiaz-edo, arratoiek alde on bat bederen bazutela argitu zuen euria hasi zuela kontatu zuen batez:

Gu sar eta arrotainak athera. Hauk euriarekin dute beren besta. Euriarekin ederki zaintzen dauzkigute errekek. Holako errechimenduak ikustearekin, ez litazke aintzinatzerat etsaiak mentura: ihesari kurrinkan eman litazke arrotainak... eta gu zerbeit badela ohart.¹³⁵⁰

Arratoi tropa aipatzeko «errechimendua» hitza erabiltzeak bazuen bere grazia. Arratoi kopurua zein handia zen ulertarazteko balio zuen, eta baita ere arratoi horien indarra edo garrantzia azpimarratzeko. Haien traba hainbestekoa zen non arratoiak harrapatzen ibili behar izaten baitzuten, eta horretaz idatzi zuten *Zerbitzari*-k eta Jean Saint-Pierrek, zehaztuz harrapatzen zuten arratoi bakoitzeko diru bat eskuratzen zutela. Eta ez zituzten gutxi harrapatzen:

Harrigarri da zenbat arratoin den hemen ere. Bainan hemengoak maltoak dire: bethi tun tun tun, zokoz zoko dabilza. Harrapatzeko eskua hedatzea aski da kasik. Bakotcharentzat sosa badugu.

Badire jornal ederrak egiten dituztenak josteta hortan. Nere lagun batek chakur tchar batekin egun batez atcheman ditu berrehun-ta hemezortzi.¹³⁵¹

Jean Saint-Pierrek beste gisako anekdota bat kontatu zuen behin, nola arratoi batek soldadu bat lotarik trabatu eta soldaduak uste izan zuela alemanak lubakira heldu zirela. Ondorioz denak tiroka hasi omen ziren, baina alemanik ez ageri¹³⁵². Gisa horretako trabak ere eragiten zituzten, beraz, arratoiek.

Baina ez ziren arratoiak lubakietan arazoak sortzen zituzten bakarrak. Arratoiak joan ondoan, zorriak etorri zirelako kexatu zen, behin, *Zerbitzari*¹³⁵³. Hain zuzen, zorriekin ere arazo larria izaten zuten soldaduek, are gehiago, haietarik ezin baitziren babestu¹³⁵⁴. Saint-Pierrek ere aipatu izan zituen zorriak edo ulitxak, baina oroz gainetik, arratoiak ziren presentzia handiena zutenak. Eta zenbateraino gorroto zituzten adierazteko, horra Saint-Pierreren artikulua zati bat, 1915eko ekainaren 18an:

¹³⁴⁹ Jean Elizalde, «Aspaldiko ezagunak», *Eskualduna*, 1917ko irailaren 7a.

¹³⁵⁰ Jean Elizalde, «Euria berriz ere», *Eskualduna*, 1916ko irailaren 1a.

¹³⁵¹ Jean Elizalde, «Arratoinak», *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 4a.

¹³⁵² Jean Saint-Pierre, «Garratoin bat», *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 26a.

¹³⁵³ Jean Elizalde, «Eta arratoinak?», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.

¹³⁵⁴ Meyer, *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*, 113.

Garratoinez eta saguz bazterrak betheak ditugu. Ez dute lolako pestarik egin aspaldian, eta bizkarra legun derabilate. Garbitu bezen laster, bertze bat ikusten dugu zillhotik atheratzen. Alamana iduriak dire, hots, nonbrez, bai eta ere okaztagarriz.¹³⁵⁵

Lehenago aipatu dugu alemanenganako nazka zenbaterainokoa zuten, besteak beste abereen lerroan jartzen zituztenean. Pasarte hau ere alemanak abereen pare jartzearen beste adibide bat da, hots, alemanak arratoiekin konparatzen baitzituen. Baina, funtsean, alderantzizkoa da hor egin zuena, hala nola arratoiak konparatu zituen alemanekin. Beraz, arratoiak zenbateraino hastio zituen ulertzeko balio zuen konparaketa horrek. Baina baita alemanak berriz mespretxatzeko ere...

Audoin-Rouzeauk dio laborari munduko soldaduak hiritarrak baino gogorragoak zirela eta aiseago jasan zituztela aroaren gorabeherak eta horiek eragiten zituzten egoera gogorrak:

De surcroît, les citadins qui sont à l'origine de la presse des tranchées ont davantage souffert que les paysans des intempéries, des efforts physiques de toutes sortes, du manque de tout confort, de la saleté, et de l'insuffisance de nourriture. Pour les premiers, et surtout pour ceux d'origine aisée, habitués à la vie très protégée - sinon vraiment confortable - des classes moyennes du début du siècle, nul doute que la vie de tranchée n'ait été une expérience redoutable. Ce choc peut aussi expliquer l'abondance de tant de témoignages.¹³⁵⁶

Izan liteke hiritarrentzat laborarientzat baino gogorrago izatea. Baina *Eskualduma*-ko artikuluei jarraikiz, eta jakinik Euskal Herriko soldaduak eta *Eskualduma*-n idatzi zutenak laborariak zirela, ez dezakegu erran laborarientzat ere ez zela gogorra. Nahiz eta laborariak egoera fisiko gogorragoetara ohituak izan, lekukotasun horiek guztiak irakurri ondoan argi gelditzen da gerla lekuetan bizi izan zuten egoerak ez zuela deus ikustekorik beren eguneroko bizitzan eta lanean ezagutzen zuten egoerarekin. Argi da guztiz beste egoera bat zela, eta egoera gogor hori transmititu zuten *Eskualduma*-ko idazleek.

Lubakietako egoeraz idatzi zutena irakurtzean, aski argi gelditzen da ez zirela ongi bizi, eta ez zutela beti gogortasun hura gordetzen. Inguruan dena suntsitua ikustea, hilak ondoan ukaitea, herio mehatxupearan etengabe egotea, janaria nola-halakoa izatea, lohia eta hotza jasatea edota arratoiak eta zorriak ezin haizatu izana aitortzea baldintza txarren aitortzea zen. Irakurleei egiaren alde hori eman zieten *Eskualduma*-koek. Hortik ezin dugu ondorioztatu, ordea, gerla harekin bat egiten ez zutenik eta baldintza txar horiek onartzen ez zituztenik. Ez zitzaizkien gustatzen, baina ez zuten dudan jarri hori jasatea beren

¹³⁵⁵ Saint-Pierre, «Gerlarien berri». 1915/6/18.

¹³⁵⁶ Audoin-Rouzeau, *A travers leurs journaux: 14-18, les combattants des tranchées*, 47.

eginbidea zela. Eta beren eginbideari leial agertu zitzaizkion denbora guztian. Horrela ere erakusten zuten nola inplikatu ziren gerla hartan.

B. Gibel lerroak

Lehen Mundu Gerraren irudiak lubakietakoak baldin badira ere, soldaduek ez zuten denbora guztia erreka-zulo haietan iragaten. Pausatzera ere joaten ziren, maiz. Eta denbora luzeak ere iragaten zituzten leku lasaietan. Leku lasaiak izan zitezkeen lehen lerroetan ere, garai batzuetan borrokak beste gune batzuetan izaten zirelako. Baina zinezko pausalekuak, lehen lerroetatik zenbait kilometrora izaten ziren. *Eskualduna*-ko berriketariek maiz idazten zuten leku haietatik, eta gutun anitzetan ageri zen pausalekuetan zirela.

Orain ere ikuspegi orokorretik hasteko, gibel lerro horiek nola egituratuak ziren ikusiko dugu, *Eskualduna*-k hainbat xehetasun eman baitzuen lerro horien antolaketaz. Gero, lehen lerroekin egin dugun bezala, gibel lerroetan zer lan egiten zuten ikusiko dugu. Baina dena ez zen lana, eta atsedanak leku edo garrantzi handia zuela erakustera emanen dugu hirugarrenik, gai hori ere ongi barnatu zutelako berriketariek.

I. Gibel lerroen egitura

Gerla lekuaren antolaketa konplexua zen, hain segur *Eskualduna*-k eman azalpenak baino konplexuagoa, baina eskertzekoa da Jean Etxeparek bereziki egin zuen lana, antolaketa horren esplikatzeko. Haren artikulua pedagogikoei jarraiki, ikusiko dugu nolako loturak zeuden lehen lerroen eta bigarren lerroen artean, eta baita ere zer ziren delako bigarren lerro horiek. Bigarrenik, ikusiko dugu hirugarren lerroak ere bazirela, eta lerro horiek zer ziren aipatuko dugu.

a) Lehen eta bigarren lerroen arteko loturak

Lubakietako edo lehen lerroetako mundua eta gibel lerroak ez ziren mundu bakartuak, bistan denez. Eta *Eskualduna*-ko irakurleek bi mundu horien arteko komunikazio bideak ezagutzeko aukera izan zuten, Jean Etxepareri esker. Etxepareren ekarpen handienetarikoa zen frontearen egituraren deskribapen biziki zehatza egin zuela. Lubakiak ongi deskribatu zituen bezala, lubakien eta gibel lerroen arteko loturak ere biziki ongi esplikatuko zituen.

Batetik, garraioa eta horren arriskuak azaldu zituen. Hirugarren lerrotik bigarren lerroko garraioa autoz egin ohi zen, baina bigarren lerrotik lehen lerroa, soldaduek eramaten zituzten gauzak bizkar gainean, alemanen tiro eta bonben arrisku pean:

*Bigarren mailetik lehen mailerat, soldado gaiztoek dituzte behar bizkarrean eraman, karrikartez karrikarte, egun guzietz lauzpabortz orenez: kartuxa, grenada, edateko ur, arnoa barrikot batzuetan, jateko, lasto, zur, burdineria, argigei, soineko...*¹³⁵⁷

Bizkar gainean eramaten zuten beste zerbait soldaduentzako gutun edo paketez beteriko zakuak izaten ziren. Garraio lanak murrizteko, Etxeparek irakurleei eskatu zien gutun gehiegi ez igortzeko, hori baitzen gehien garraiatzen zen zerbait.

Bestalde, artikulu interesgarri bat egin zuen informazioaren ibilbideaz, eta bereziki agiri ofizialak idazteko sistemaz:

Batallun bakotcheko aitzindariak bere guneko gerthakariak heltzen ohi ditu berehala kolonelari ; hunek brigadako jeneralari; bi errechimendu manatzen baititu; brigadakoak divizionekoari; lau errechimendu baitauzka hunek bere eskuko; divizionekoek corps d'armee-koari; hunek Groupe d'armees-ko jeneralari (mail bat ahanzi zaut, bainan berdin du balio) ; gero, bizpahiru orenen buruko jakiten du zer izan den armadako buru lehenak, au grand quartier général ; azkenik ministroak; eta azken azkenik funtsa, zuek eta guk.

*Abiadura egia balin badu, eta den bezala balin badoa bidez bide, hertu ez hantu gabe nehon, ez dagoke berria chuchen baizik.*¹³⁵⁸

Informazioaren bidez baino gehiago, armadaren antolaketaz eman zituen xehetasunak. Hor biziki ongi ageri zen armadaren barneko hierarkia. Har dezagun 49. Infanteria Erregimentuaren adibidea. Hiru batailoi zituen, batailoi horietako agintariak erregimentuko aitzindariari ematen zioten eguneko bilduma, eta 49. Erregimentukoak 71. Infanteria Brigadako arduradunari, Mont-de-Marsaneko brigada horren parte baitzen 49. Infanteria Erregimentua. Brigadako aitzindariak 36. Infanteria Dibisioarengana helarazten zuten informazioa, eta honek Bordeleko 18. Armada Gorputzari.

Frontearen egitura osoaren arteko loturak eta eraikuntza lanak egiten zituzten pertsonak eta haien lana xeheki deskribatu zuen Etxeparek beste artikulu batean:

Dela lehen mail, dela bigarren, gerla-karrikartean antolatzaleak, han diren mitrallus tegiekin, géniako gizon batzu dira. Gibeletik noiztenka lan hortako heldu.

Badira zonbait heien artean telefonari eratchikiak. Aitzindari handien etcholatik etcholara heier dago telefona harien hedatzea; karrikartean eta hotarateko arteken barnez barne, sahets bati burdin krako batzuez lotzen dituztela.

¹³⁵⁷ Jean Etxepare, «Lanik nekeena», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.

¹³⁵⁸ Jean Etxepare, «Communiqué», *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 4a.

Hirugarren mailetik bigarrenera, bigarrenetik lehenera heltzen diren errekak antolatzen dituzte, aldiz, gibelchago danik jin gizon adinetakoek (territoriaux). Bideak hauien gain; gerla-karikarteak jeniaren, soldadoen laguntzarekin.¹³⁵⁹

Egun horretako kronikako beste atal batzuetan, xeheki esplikatu zuen soldaduen aterpeak nola eraikiak ziren, nola lurpean eginak zituzten lo egiteko tokiak. Halaber, aitzindarien etxolak ere nola eraikiak ziren esplikatu zuen. Orain agertu dugun atal horretan, aldiz, mailen arteko komunikazioaren beste alderdi bat esplikatu zuen, hala nola telefono lineena edota lerroen arteko loturak egiten zituzten pasarteena. Hori ere inportantea zen, bistan da; eta interesgarri da jakitea telefonoz komunikatzen zirela. Ez zen zuzenean gerlari lotua, baina azpiegitura hori baitezpadakoa zen, eta ez zen gauza txarra irakurleei hori esplikatzea.

b) Hirugarren lerroa

Gibel lerroko egiturarekin bururatzeko, Jean Etxeparek gehitu zuen beste elementu bat aipatuko dugu. Hirugarren lerroaren egitura eta funtzioa deskribatu zituen, eta hori oraindik beste zerbait zen. Bere kronika ezberdinetan, ororen buru, lehen, bigarren eta hirugarren lerroak zer ziren eta nola funtzionatzen zuten esplikatu zuen, baita ere batetik bestera nola joaten ziren:

Hirugarren maila guk, lehen mailaren karrikartetik hamabi, hamabostz kilometretan dugu. Hemen ditugu taulazko etxe batzu, pausa eguentako. Hiru oren eta erdi, batzutan lau, emaiten ditu soldadoak, bere zakua bizkarrean, bide guziaren egiteko.

Pausa lekutik arras hurrari baditugu herri batzu, guti edo aski gerlaren hastarenean alemanek andeuririk izanak. Heien sahetsean dira, oihanpetan, gure armada-zatiari dagozkion genia, kabaleria, artilleria, ordainezko, brankardier, eta bertze asko zerbitzu.

Herri hoitaraino dira heltzen, gibeletik, Frantziako burdin-bide handiak. Gero burdin-bide hertsu batzuek («Decauville» deituak) baderamatzate gauzetarik zombait, mailez-mail, lehen mailaren gibeleraino. Gauaz, erran gabe doa; eta ez beti aitzin hartaraino, etsaiaren larderiaren beldurrez.¹³⁶⁰

Xehetasun interesgarriak eman zituen, egoeraren baloraziorik egin gabe, halako distantzia eta neutraltasun batekin. Alde batetik, artikulu horren arabera ageri zen Etxepare, idazten ari zen unean, hirugarren lerroan zegoela. Bestetik, soldaduek batetik bestera hiruzpalau oren behar zituztela zehazteak ere hango bizimoduaren ideia bat egiteko balio digu. Azkenik, gerla hastapenean suntsitu edo andeatu ziren herri batzuetan zeudela esplikatzeak ere dekoratua hobeki kokatzen laguntzen gaitu.

¹³⁵⁹ Jean Etxepare, «Gerla karrikarteentzab», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11.

¹³⁶⁰ Jean Etxepare, «Jaun kazeta-egile», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.

Baina aipu horiez gain, lehen eta hirugarren lerroen artean zeuden bigarren lerroetan egoten zirela kanoiak argitu zuen, hala nola lehen lerroetatik bost kilometrotan. Horrez gain, lehen lerroetako lubakien arteko antolaketa ere esplikatzen zuen, bereziki lubaki ezberdinak lotzen zituzten komunikazio karrikarteak. Etxepare leku anitzetan ibili zen, artikulu horretan aipatu zuenaren arabera, eta ikusten zuenaren berri emateko ohitura hartu zuen, zehaztuz kontatzen zuena gainerako lekuetan ere ikusi zuela. Ez zen kazetaria, eta deskribapen horiek ez ziren kazetari lanak, baizik eta azalpen pedagogikoagoak, hotzagoak. Baina dokumentu interesgarriak ziren.

2. Gibel lerroko lanak

Lehen ikusi dugu zer egiten zuten lubakietan zeuden garaian. Pausalekuean zeudenean ere zerbait ari zirela azaldu zuten *Eskualduna*-ko idazleek. Atal honen helburua egiten zituzten lan horien aipamenean aztertzea da. Batetik, gerlarako prestakuntza izaten zen, gerla teknika berrien ikasteko. Horretaz aritu ziren Jean Saint-Pierre eta bere lagunak. Bestetik, besterik gabe, ariketa fisikoak egiten zituztela ere kontatu zuten. Ikusiko dugu zergatik eta zertarako egiten zituzten eta zer zioten idazle horiek.

a) Maniobrak eta prestaketak

Soldaduak ez ziren beti lehen lerroan edo suan. Maiz, gibel lerroetan ziren, eta ez ziren beti alfer egoten. Hango lan haiei buruz ere idatzi zuen Jean Saint-Pierre. Nolako maniobrak egiten zituzten kontatzen zuen, azpimarratuz ez zela pentsatu behar ez zirelako lehen lerroetan, lasai bizi zirela:

Pausuan ginela entzunik, uste dukezue loz asean harra bezala gizentzen ari girela. Hemen ez segurik.

Armada guzia oraikotz inguru herrietara bildua da. Gure eskualdeko errechimenduen auzo ditugu Bordale aldekoak, zoin bere herrietan kokatuak.

Gerlaren orde, malobrak ditugu.

Bazter guzietan soldadoa, goizetik arats, lerroka, sugea bezala herrestan, edo jauzika, edo lasterka, edo grenada botatzen besogainka. Zer ere baitu bere lan berezia gerlako gizon bakotchak, hartan da gehienik eskolatzen.¹³⁶¹

Hots, pausa denboran gerla egiten ikasten ari zirela argitu zuen. Aste pare bat lehenago ere kontatu zuen pausalekuean lanean ari zirela, gerla teknika berriak ikasten. Sommeko guduan frantsesek eta ingelesek nola irabazi zuten esplikatzearekin batera,

¹³⁶¹ Jean Saint-Pierre, «Toki berean», *Eskualduna*, 1916ko urriaren 27a.

soldadu bakoitzari funtzio bat irakatsi zieten, espezializazioaren bidean eta ez denek gauza bera ikasteko, hala nola arma erabiltzen. Euskaldunak granada botatzen trebatu zituztela zehaztu zuen¹³⁶².

Aipatu ditugun bi artikulu horiek aski azalekoak ziren, hala ere; beste batzuetan sakonkiago deskribatu zuen maniobra horiek nolakoak ziren. 1917 hastapeneko prestakuntzaz ari zen. Mailly-ko prestakuntza gunean zeuden, Champagne eskualdearen hegoaldean. Ordu arte lubakien artean gerla nola egin ikasten aritu zirela, baina aldi hartan berriz ere mugimendu gerlarako prestatzen hasi zirela argitu zuen, gerla fase berri batean sartuko zela iragarritz.

Bainan aldi huntan, bertzelako malobrak ditugu. Aintzindarien ustea da lurpeko gerla debru hunek ez duela iraunen luzaz, eta lehengo gerla moldean beharko dugula jokatu, lehen egunetan bezala, bide handietan barna.

Gisa hartara gerabiltzate. Etsaia zilhoetarik haizutuz geroz hola eho, nola jarraik urhatsez urhats, guri jarraiki zen bezala, han harat urruntzeko gisan, horra zer daukuten erakusten egun oroz.

Malobra ederrak ikusten ditugu. Nekeak ere handiagoak guretzat, askotan bide luzea, edo gauazko lana, gisa guzietara behar baita gorphutza plegatu.¹³⁶³

Posizio gerlaz eman duen adjektibo ezkorra («debru») azpimarraturik, segi dezagun ohartaraziz berriz ere bilakaera baikor baten beha zegoela Saint-Pierre. Prestakuntza ariketa horiek akigarriak baldin baziren ere, justifikatzen zituen, gizonak horretarako gaitasuna lortu behar zuelako. Beste artikulu batean ere justifikatu zituen ikasteko ariketa horiek. Goizetan ariketa fisikoak egiten zituzten, gimnastika, eta arratsaldetan gerla egiten ikasteko ariketa berriak:

Aratsaldean gerlaren ikastea. Zer mila sorgin othe dugu bada oraino jakiteko, denboraren buruan? Bada bethi zerbeit berri. Gerlaren hastean bezala jokatu bagine bethi, aspaldi garbituak ginen. Orduan gizon hanitz arma gutirekin, eta denak ere tcharrak: orai gizona, bainan arma azkarrekin. Orduan, kapitain batek bazituen manatzeko gudu batean berrehun gizon baino gehiago: egungo egunean, ehun bat soldado ditu suan gorenaz, zerbeit ari direnak: bizkitartean indarrez lehengoeri nausi dira, dituzten armeri esker.

Orduan orok xixpa zuten beren arma bakharra: egun badute grenada delako tresna, eskuz aurdikitzen dena; badira bertzalde, konpainia bakhotxean, kapitain baten eskuko, hamabi mitrallusa ttipi gotor hetarik; ez niz mintzo mitrallusa handiez; horiek berex dira, hiru konpainietan erreximendu bakharreko gutienaz hogoi-ta lau. Azkenekotz bada bertze grenada bat, xixparen puntan kokatzen dena, bere moldeko untzi batean, berrehun metre urrun igortzen ahal dena: tresna hau arras baliosa. Hautarik badugu ausarki: berrehun eta hamasei erreximendu batean.

¹³⁶² Jean Saint-Pierre, «Lana», *Eskualduna*, 1916ko urriaren 6a.

¹³⁶³ Jean Saint-Pierre, «Malobretan», *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 9a.

Arma hoieri esker, ahurtara bat gizon aski da, uste gabeko oldar baten hausteko. Oldar handiagoak kanoien lanak salhatzen ditu.

Bainan arma baten ezagutzea lan luzea da. Ez da egun batez ikasten zer eman dezaken behar orduan, nun nola jokatu. Hortan dago bitoria baten erroa. Gerla huntan bereziki, bertzeak bertze, bego jakitatea nausi.¹³⁶⁴

Artikulu horretan, gerla hastapeneko eta bukaerako arnei buruzko hainbat xehetasun emateaz gain, bereziki azpimarratu zuena zen zergatik zen inportantea gerlako teknika berrien ikastea eta arma berrien erabiltzen trebatzea. Ororen buru, hori ere gerlaren alderdi bat zen, eta horren berri eman zuen. Beharbada, gibel lerroetan zegoenean idazteko asti gehiago ere bazuelako, idazteko astia zuen unean zer egiten zuen kontatzen zuen. Eta une hartan egiten ari zena gerlarako prestatzea baldin bazen, hori zen irakurleei eskaintzen ziena, ariketa horien aldeko diskurtoarekin segituz.

b) Ariketa fisikoak

Gibel lerroetan egiten zituzten ariketa fisiko horien helburua ez zen gerlako teknika berrietara prestatzera mugatzen. *Zerbitzari* edo Saint-Pierreren artikuluetan, maiz irakur zitekeen «pausuan» zirela. Horrekin ulertu behar zen lehen lerroetatik urrun zeudela hori idazten zuten unean, baina François Cocheten ustez, «pauza» hitz desegokia zen gibel lerroetako egonaldia izendatzeko. Alabaina, soldaduek egunero egiten zituzten ariketak, ez alfertzeko¹³⁶⁵. Eta ez alfertze horren beharra aipatu zuen Jean Saint-Pierrek ere, erreketatik urrundu zituztela eta beraz denbora ariketak egiten pasatzen zutela kontatu zuenean:

Soldadoa deus ez da, behin nagituz geroz. Bertzalde nork atchik holako gizonketa alfer zotz?

[...] Ez dut erengura handirik entzuten bazterretan. Ene iduriko, bazen zinkurina gehiago Aisne-ko eskualde hartan, hain luzaz tokiaren gainean egoiteak mintzen baititu azkenean gogoak, eta zainak hiltzen.

Hemen aldiz, harritzeko da zoin laster egunak eguna iresten duen.¹³⁶⁶

Ariketa fisikoen beharra justifikatzeaz gain, zati horretan agertzen zuen gibel lerroetan denbora luze joaten zitzaiela, eta beraz denbora ariketa fisikoak eginez iraganez, gutxiago aspertzen zirela. Hala ere, ez zen hainbeste mintzo horrelako ariketa fisikoez, eta mintzo zenean ere, azaletik. Baina beste artikulu batean ere agertu zuen ariketa fisikoen beharra, pausan geldirik egonez gizentzen zirelako:

¹³⁶⁴ Jean Saint-Pierre, «Gure lanak», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 29a.

¹³⁶⁵ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 120.

¹³⁶⁶ Jean Saint-Pierre, «Zer ari giren», *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 19a.

*Gure soldadoak osagarri onean, eta badire hanitzak gizendutik jarriak direnak. Bainan lekuaren gainean egoite hunek nagitu ere dituelako beldurra badut. Horra zertako lerroen gibelean beirutzen duten orai soldado andana bat, bethi kurri, bethi zalapartan ari direnak, zangoak eta bulharrak on ukan ditzaten oldar handi bati buruz, alamaneri jarraikitze zangotik urhatsez urhats.*¹³⁶⁷

Soldaduak indartsu atxikitze eta ez alfertze behar hori aipatu zuen Jean Etxeparek. Ez zen maiz aipatu zuen gai bat, baina gibel lerroetako giro lasai horretan, ariketak ere egiten zituztela aipatu zuen, behin, Verduneko gudutik landa Reims aldera joan zirela idatzi zuenean. Lekuen deskribapena egin ondoan, lasai zeudela, baina ez alfertze, ariketak egiten zituztela idatzi zuen, laburki¹³⁶⁸.

Gerla lekuetatik idazten zutenek ariketa horiek maiz aipatzen zituztela dio Frédéric Rousseauk. Baina soldaduek ez zuten Etxeparek edo Saint-Pierrek bezala justifikatzen ariketen egitea. Haien ustez, zinezko atsedena merezi zuten:

*Le repos doit-il signifier inaction totale, et donc repos total, ou bien doit-il être mis à profit pour entraîner, encore et encore, des hommes qui sortent des tranchées? Les soldats sont unanimes à revendiquer le droit au repos complet à la sortie des tranchées. Qu'ils aient besoin de sommeil ne fait guère de doute; qu'ils doivent reconstituer des réserves d'énergie, non plus; alors les critiques fusent.*¹³⁶⁹

Beste arrazoi bat ere ikusten du Rousseauk ariketen eginarazteko, hala nola lehen lerroetara itzultzeko gogo sortzea edo, hobeki erran, pausalekuetan gehiegi laketzen ez uztea, lehen lerroetara aiseago itzultzeko:

*Les séances de dressage de l'arrière ont-elles aussi pour but de faire regretter la première ligne? Dans ce cas, on comprend que les jours de repos ne soient que rarement des jours de repos. Le vrai problème qui est posé est en fait celui du dosage; il faut apporter aux hommes le repos qui leur est nécessaire tout en leur ôtant l'envie d'y demeurer au-delà de quelques jours.*¹³⁷⁰

Rousseauk aipatzen duen soldaduen kexu hori ez zen islatzen *Eskualduna*-ko idazleen artean. Ariketa fisikoen arloan eta prestakuntza militarrean, alderantzizko joera erakutsi zuten, hala nola aitzindarien aginduak onartzen eta justifikatzen zituzten.

Ariketa fisikoak ez ziren lehen lerroetatik kanpo egin behar izaten zituzten bakarrak. Zuzenean gerlako borrokak ez ziren beste lan gogor batzuk ere bazirela aipatu zuen; adibidez, gerlako tokien zaintzea, burdin sareen egitea eta abar. Lan horiek baldintza gogorretan egiten zituztela azaldu zuen, hala nola elurpean eta hotzean¹³⁷¹. Beste lan bat errekek zulatzea zen, eta lan horiek ere aipatu zituen, erranez euskaldunak lan horretan trebeak zirela:

¹³⁶⁷ Jean Saint-Pierre, «Osagarri», *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 26a.

¹³⁶⁸ Jean Etxepare, «Jabaletik oraino», *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 8a.

¹³⁶⁹ Rousseau, *La guerre censurée. Une histoire des combattants européens de 14-18*, 146–147.

¹³⁷⁰ Ibid., 151.

¹³⁷¹ Saint-Pierre, «Egun gaichtoak». 1917/2/23.

*Denean den, orok lan bertsua dute, lurraren erabiltzea bereziki, aintzur eta palarekin langile gaitzak baitira Eskualdunak.*¹³⁷²

Horrez gain, lan horiek soldadu zaharrenek egiten zituztela azaldu zuen¹³⁷³. Baina beste gai batzuk baino gutxiago barnatu zituzten lan horiek denak. Jacques Meyerren liburuan hobeki zerrendatuak dira zein diren lan horiek guztiak, «lan gaiztoak» egitea alegia: gero eta tresneria gehiagoren garraioa, lurketa lanak, hornikuntza lanak eta abar. Lehen lerroetakoak bezala, erreserbako soldaduak ere lan horietara behartuak ziren¹³⁷⁴. Baina *Eskualduna*-ko idazleak ez ziren horrelako lanez kexatu. Alderantziz, euskaldunak trebeak zirela goraipatzen zuten, zerbait aipatzen zutenean.

3. Atsedena

Gibel-lerroen helburu eta funts nagusia atsedena zen, nahiz eta oraintxe ikusi dugun bezala ez zuten beti denbora deskantsuan iragaten. Nahiz eta hainbat ariketa egin, *Eskualduna*-ko kroniketan ongi ageri zen besterik ere egiten zutela, edo hori zen bederen maiz azpimarratzen zutena. Hiru zatitan banatu dugu atsedena uneetan egiten zutena. Batetik, edatearen eta bestaren gaia zegoen. Alkoholak presentzia handia zeukan gerlan, eta *Eskualduna*-ko idazleek ere aipatu zuten. Nola aipatu zuten jakin nahi izan dugu. Bigarrenik, dibertitzearen gaia ageri zen, kirolaren edo jostetaren bidez. Horretaz ere mintzatu ziren idazleak. Azkenik, janariarekin lotua baldin bazen ere, denbora pasa gisa ikusi dugu guk ehizaren eta arrantzaren aipamena. Horretaz ere hainbat aldiz mintzatu ziren ikertzen ditugun idazleak.

Beste gai batzuk ere baziren, jakina denez, bereziki prostituzioarena eta sexuarena¹³⁷⁵. Ez dugu gai hori aipatuko, astekarian ez baitzen lerro bakar bat ere agertu gai horretaz. *Eskualduna* irakurriz, ez genezake jakin soldaduak prostituitzen zirenik. Gai hori ez zen existitzen. Baina nahiz eta ez garen horretaz ariko ondoko lerroetan, beharrezkoa iruditu zaigu argitzea astekari girstinoan presentziarik ez zuen gai bat zela, nahiz eta hori ez den batere harrigarri. Alderantziz, elizako gaiek, mezak eta otoitzek presentzia handia zuten atsedena uneei buruzko kroniketan. Euskal Herriko soldaduen denbora-pasa handi bat elizara joatea omen zen, artikulua horiek irakurriz gero. Gai hori ez dugu atsedinari eta gibel

¹³⁷² Saint-Pierre, «Geroaren beha». 1917/3/23.

¹³⁷³ Jean Saint-Pierre, «Arras-eko gudua», *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 11.

¹³⁷⁴ Meyer, *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*, 139.

¹³⁷⁵ Soldaduen frustrazio sexuala, Lehen Gerla Mundial denborako prostituzioaz eta garai hartako moralaz xehetasun gehiago: Jean-Yves Le Naour, *Misères et tourments de la chair durant la Grande Guerre: les mœurs sexuelles des Français, 1914-1918* (Paris: Aubier, 2002).

lerroetako biziari buruzko atalean landuko, baizik eta hirugarren zatian¹³⁷⁶, nortasunari buruzko gogoetetan.

a) Edatea, besta

Gibel lerroetan ausarki jateko aukera zutela ikus daiteke Jean Saint-Pierreren artikulua bat irakurtzean. Somme eskualdeko lehen lerroetatik urrundu eta pausalekuan zirenean, ongi jaten zutela idatzi zuen:

Ez dugu bertzenaz deusen eskasik. Jatekoa badugu ausarki, gehienek bederen. Ez da orotakoa. Egun goitia uzten balinbadut, duela hamabortz egun iretsiko nintuen gogotik untziak beren barneko guziekin.¹³⁷⁷

Baina gibel lerroetan ausarki jaten zutela errateaz gain, beste informazio bat ere eman zuen, hala nola bi aste lehenago gutxi jaten zutela. Hots, gerlako mugimenduekin egiten zuen bezala, hala nola aliatuen gibelatzeak berantarekin eta behin beste aitzinamendu bat lortu ondoan aitortzen zituen bezala, janaria eskas zutela ere behin janaria ausarki zutenean aitortzen zuen. Gibel lerroetan, gainera, beste gisan ere biltzen zuten janaria, hala nola inguruko oihanean gereziak¹³⁷⁸ edo onddoak bilduz. Onddoketa joateko astia atzematea zaila zela aitortu zuen, haatik, baita ere ez zutela haizu, onddo pozoituak biltzeko beldurrez¹³⁷⁹.

Janariaz gain, edariak ere bazuen leku handia gibel lerroetan. Arnoari garrantzia eman zion, arnoa murriztu zutela kritikatu zuen batez:

Ala jokoa! Zer behar dugu ikusi uda minean? Bi basotarik bat kendu beharra daukute, heldu den astean, omen. Ez dezake luzaz iraun gerlak.¹³⁸⁰

Arnoa gutxiago ukaitea ez zuen begi onez ikusten, bere ustez arnoa gauza ona baitzen. Frantziako gizon guztien ohitura bide zen arnoaren edatea, batetik, baina bestetik arnoa «alegeratzeko» bide bat omen zen:

Lurra bezala zintzurra ere idortzen baitu beroak, gure lan handiena dugu edatekoaren atzemaitea. Urrun ibili behar urketariak. Arnoa xuhur, bidean ez baita emendatzen hanbat, ez eta ontzen. Arno xorta bat gabe ez da gizonik ez soldadorik Frantzian. Arnorik gabe "boxek" nola dirauketen hain luzaz, berek ikustekoa dute. Ez ahal zuten hanbat hurruputzen gerla baino lehen ere. Dena den ez dugu axolarik batere heien tripa tzarren zinkurinez.

¹³⁷⁶ Ikus: 603

¹³⁷⁷ Saint-Pierre, «Lerroetarik urrun». 1916/10/6.

¹³⁷⁸ Jean Saint-Pierre, «Gerezi asean», *Eskualduna*, 1917ko uztailearen 20a.

¹³⁷⁹ Jean Saint-Pierre, «Eta hemen?», *Eskualduna*, 1916ko irailaren 22a.

¹³⁸⁰ Jean Saint-Pierre, «Arnoa eskas», *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 4a.

*Guti balin bada guti, alegeratzeko doia biltzen dute frangok hemen, eta noiztenka bederen ikusten ditugu eskualdunak fandangoetan eta kantuz.*¹³⁸¹

Euskaldunei arnoa edanez kantu eta dantzarako gogoa jiten bazitzaien, xehetasun horrek pisu handia duela ohartu behar dugu. Gerla giroan kantuz edo fandango dantzatzen aritzea ez zen herriko bestetan hala ibiltzea bezala. Dantzak kontraste handia egiten zuen gerlaren gogortasunarekin, eta beraz dantza horien gibelean, «lundurak» ahanzteko modua ikusi behar zen, Saint-Pierrek ondoko pasarte honetan hitzez hitz agertu zuen bezala:

*Arno hurrupa baten erosteko bidea orok ezagutzen, hori baitute gehienek barneko ilhunduren erremedia.*¹³⁸²

Hots, janaria eta edaria gerlako penen ahanzteko funtsezko elementu gisa aurkeztu zituen, eta horien presentziak erakustera eman zuen soldaduek zenbateko beharra zuten gogortasun horren eztitzeko. Edatearen aipamena beraz, gerlako egoera bortitzaren nolabaiteko aitorpena zen.

Pausan zeuden soldaduek denbora franko pasatzen zuten ostatuan edo edaten, *Zerbitzari*-ren arabera. Batzuetan hori umorez hartzen zuen:

Ez naiz hanbat edariari emana, ezagutzen nautenek hori badakite. Aithortu behar dut haatik iragan astean sekulako karrosa biltzen dutala. Eta huna nola.

Saratar bat berritan izan da permisionez. Hango guardak lo zagozila oharturik, herriko aguardientetik pinta bat galtzarrean ekarri du hunat.

Bankar bat, Arrangoiztar bat eta ni gombidatu. Edan eta pipa, pipa eta edan, botoila guzia hantche hustu dugu, hats batean kasik.

Hitzemaiten dautzuet ez ginuela beharrietan hotz handirik. Demuntren Saratarra!

*Guarda zenbeitek lerro hauk irakurtzen baditu, othoitz bat hari: ondoko egunetan begiak idek detzan... nere onetan...*¹³⁸³

Alkohola ekarri zuen saratar horretaz idaztean, «demuntren saratarra» jarriz, ez zen pentsatu behar zinez kexu zela haren kontra. Eta guardari begiak irekitzeko eskatzean ere, ez da ikusi behar guarda haren kontrako kexurik. Mozkortu zela aitortuz, ez zuen damu handirik erakutsi. Azken bi esaldi horiek ez zuten zinezko damutze bat agertzen, alderantziz baizik, umorezko tonuan idatziak baitziren. Ageri zen lau euskaldun horiek une goxo bat iragan zutela, beren gisako besta ttipia egina zutela eta, *Zerbitzari*-k ez bazuen horrela idatzi ere, horren beharra bazutela. Eta funtsean, François Cochetek arnoak gerlan zuen famaz dioenak bat egiten du Saint-Pierrek eta *Zerbitzari*-k erakutsi duten jarrera horrekin:

¹³⁸¹ Jean Saint-Pierre, «Bero», *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 11.

¹³⁸² Jean Saint-Pierre, «Pausu guti», *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 22a.

¹³⁸³ Jean Elizalde, «On dakiotel», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.

La consommation d'alcool constitue une très forte béquille psychologique du combattant. C'en est même devenu un topo et le «pinard» a été sacralisé dans les descriptions d'après-guerre de la vie des tranchées. [...] Il faut d'ailleurs préciser que le regard social de l'époque est assez ambivalent. Si la bourgeoisie condamne car elle en fait un signe de dépravation des catégories populaires, le regard le plus courant est plutôt celui de l'indulgence face à l'ivrognerie. Le vin passe pour une boisson saine. [...] L'ivrogne fait rire le plus souvent. Il est facilement excusé car la société fait de la consommation d'alcool un signe de virilité.¹³⁸⁴

Saint-Pierrek aipatzen zituen «ilundurak» ahanzteko beharraz mintzo da Cochet, alkohola makulu psikologiko azkar gisa definitzean. Halaber, herritar xumeen artean mozkortzea barkatzen eta umorez hartzen zela zehaztean, *Zerbitzari*-ren umore hori ulertzen dugu. *Zerbitzari*-k aipatzen zituen euskaldun horiek, bera barne, ez ziren familia burgesekoak, baizik eta laborantza mundukoak. Erdi umorez aipatu zuen larresoroar bat baimenez joan eta 24 oreneko berantarekin itzuli zela, mozkortu zelako¹³⁸⁵. Mozkortzea kritikatu zuen, baina eztiki, anekdota hori desdramatizatu baitzuen. Alabaina, mozkortzea aski ohikoa bihurtua zen pausalekuetan, Jacques Meyerren arabera¹³⁸⁶.

Haatik, soldaduen mozkorrez aski arinki mintzo bazen ere, ez zuen jarrera bera pausalekuetako herrietako biztanleekiko. Hango herritarrek mezara joatea baino nahiago zuten ostatura joatea, eta hori gogor kritikatu zuen. Meaux hiriaren inguruko leku aberatsetan zebilela esplikatu zuen, hango alor emankorrak deskribatuz. Baina aberastasun hura ostatuan gastatzea deitoratu zuen:

Zorigaitzez, sosaren biltzea baino dorpheago zaiote atchikitzea. Zoko-moko guzietan ostatua da eta hitz dautzuet osatuko athean ez dela belhar ondo handirik. Zer trichetzia!

Hala-hala, elizako athea ez da hola lagundua!¹³⁸⁷

Sosaren biltzeaz egin zuen aipu horrekin gerla lekuetako prezio garestieci egin zien erreferentzia, beste zenbait artikulutan bezala. Funtsean, François Bouloc-ek dio gerlako lerroen ondoko herrietako biztanleek prezioak goratu zituztela eta iruzurgileak zirela¹³⁸⁸. Soldaduei, bai, onartzen zien, *Zerbitzari*-k, jostatzeko edo besta egiteko baimena. Haren lekukotasunen arabera, soldaduek, eta baita euskaldunek ere, besta ere egiten zuteno, adibidez bombardaketa batetik landa hilik eta zauriturik ez zenean izan:

Hilik, batere. Kolpaturik ere, ez: handia baita, holako phereka-aldi baten ondotik.

Eta gehiago dena, hantche, azken ziloan, tira-ahala fandangotan ari kausitu ditut hogoi-bat soldado, Eskualdun bat, zaku baten gainean jarria, musikari. Bere accordeonean erriak lerratzen zituen Pausuko

¹³⁸⁴ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 205.

¹³⁸⁵ Jean Elizalde, «Chahako maiteak», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 31a.

¹³⁸⁶ Meyer, *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*, 96.

¹³⁸⁷ Jean Elizalde, «Hemengo bazterra», *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 15a.

¹³⁸⁸ François Bouloc, *Les profiteurs de guerre, 1914-1918* (Paris: Éd. Complexe, 2008), 24–25.

*bestetan izan balitz bezen trankilki. Zer den haatik gaztetasuna! Eta egia, gerla huntan ez nuela oraino holakorik ikusi...*¹³⁸⁹

Nekez erran dezakegu atal hau gibel lerroetako gertakari bati buruzkoa zela; alabaina, «azken ziloa» lehen lerroetako zilo bat baitzitekeen. Gainera, eszena hori lehen lerroetara joan zenean ikusi bide zuen. Gisa bereko beste eszena bat deskribatu zuen beste behin, hura ere, itxura guztien arabera, lohiaren erdian zeuden soldaduen artean ikusia, beraz, lehen lerroetan. Soldaduak musika jotzen eta dantzan ari ziren egiten. Irri egitea maite zutela azpimarratu zuen maiz, gerla josteta bat balitz bezala mintzatuz:

*Gerlari azkenekoz egiten da gizona, oilachko jateari bezala.*¹³⁹⁰

Dantzarako eta irrirako joera horiek lubakietan ere sendi zitezkeen arren, gibel lerroetan anitzez ugariagoak ziren, Cocheten arabera. Pausalekuetan besta giroa zegoen, gauero kontzertuak eta abar izaten ziren. Eta giro hori maiz ageri zen *Eskualduna*-k argitaratzen zituen gutunetan¹³⁹¹. Une horiek gerlari «ebatsi» uneak ziren, Cochetek ongi esplikatzeko duen bezala:

Les moments volés à la guerre constituent des béquilles bien plus concrètes pour les combattants que les médailles. Ces petits moments d'évasion peuvent prendre des visages fort différents, qui tous s'appuient sur un sentiment commun.

[...] *Cette prise de distance par rapport à la guerre passe parfois par des impressions gustatives. Le repas partagé avec les copains, loin des obus, constituant d'excellentes poches d'oubli de la guerre.*¹³⁹²

Janariaren, edariaren eta dantzaren presentzia hori bazen *Eskualduna* astekarian ere. Gai horiek berriz barnatuko ditugu herrimina aztertuko dugunean. Baina jadanik erran dezakeguna da, lubakietan edo pausalekuetan distraitzeari buruz maiz idazteak isla zezakeela gerlaren gogortasunaren ahanzteko beharra. *Zerbitzari*-k eta Saint-Pierrek alkoholaz idaztean, adibidez, ez zuten gerlaren gogortasunaz idazten. Funtsean, berriak jakin nahi zituen irakurle bati zer ekartzen zion jakiteak gau batez lau euskaldun edaten aritu zirela? Gerla nola zihoan jakiteko ez zuen balio. Izatekotan, soldaduak ez zeudela hain gaizki sinesteko. Eta hori ere inportantea zen; baina gerlaren gogortasunaren ukatzea zen. Ukatze horren beharra sendi zutelako, gisa batez. Edo, berriz ere, egoera gogorraren desdramatizatzeko eta gerlari itxura baikorragoa emateko.

¹³⁸⁹ Jean Elizalde, «Hau da sanfretal», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.

¹³⁹⁰ Jean Elizalde, «Han hemenka», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.

¹³⁹¹ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 123.

¹³⁹² Ibid., 196.

b) Kirola eta josteta

Atsedena beste alde bat dibertimenduarena edo jostetarena zen. Eta horrek era bazuen oihartzuna *Zerbitzari*-ren eta Jean Saint-Pierreren kroniketan. Oro har, *Zerbitzari* gehiago mintzatu zen kirolaz eta jostetaz, baina Jean Saint-Pierrek ere aipatu zituen, bereziki mus partidak egitea. Kartetan aritzea ohikoa zen gerlako lekuetan, denbora hil anitz izaten zutelako. Denbora pasatzeko modu bat zen, beraz, Meyerrek aipatzen dituen karta higatuek erakustera ematen zuten bezala. Itxura guztien arabera, eskualde bakoitzeko jendea bere lekuko karta jokoetan aritzen zen¹³⁹³. Euskaldunak, beraz, musean.

Gisa hartan, Saint-Pierrek behin Hego Euskal Herriko irakurle bat eskertu zuen, museko bi karta pare igorri zizkielako¹³⁹⁴. Beste behin, bera bere kronikaren idazten ari zen bitartean, lau euskaldun musean ari zirela eta gogoia haiengana joaten zitzaizela idatzi zuen¹³⁹⁵. Baina hori idatzi zuenean ez ziren baitezpada gibel lerroetan. Ez zuen zehaztu ea lehen lerroetan ziren, nahiz eta kronika horretan agertu beste berri batzuen arabera, lehen lerroetan zirela pentsa daitekeen. Halaber, 49. Infanteria Erregimentua eta 18.a Andereen Bideko Hurtebise laborari etxearen inguruko lubakietan zeuden, 1915eko urtarrileko egun haietan.

Nahiz eta, pausalekuetan bezala lehen lerroetan ere, musean aritzen ahal ziren, kirola egiteko pausalekuetan izan behar zuten. Eta euskaldunak pilotan aritzen ziren. Jean Saint-Pierrek Maizy eta Beurieux inguruko pausalekuetako kronika idaztean, leku haiek euskaldunez beteak zirela eta pilotan aritzen zirela idatzi zuen:

*Eskualdunetz ithoa dago. Halako bat egiten dautzu han sartzeak, bazter guzietan eskuaraz mintzo baitire. Nahi balin baduzu egin pleka partida bat, zoaz harat. Bai, har lagun onak, xuhurra baduzu, eta ez izi kanoi kolpe bat edo bertzek plaza hegia harrotzen badu.*¹³⁹⁶

Beste egun batez ere inguru haietako herrietan pilotan aritzeko aukeraz mintzatu zen:

Nun ariko gira pleka, pausu egunetan? Herrietan direnek atzemanen dute oraino etche bizkar bat edo bertze, nahiz ez diren hanbat legunduak hemengo etche piltzarrak.

*Egiazko pilota plazak ere baditugu. Ea nor ariko den aurthen Bourg-eko zoko hartan? Ez haatik jin nehor gehiago Glennes-ko plazara.*¹³⁹⁷

Zerbitzari-k ere aipatzen zuen pausalekuetan kirola egiten pasatzen zutela denboraren zati bat. Zein herritan zegoen zehaztu ez bazuen ere, Andereen Bideko inguruetako herri

¹³⁹³ Meyer, *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*, 153.

¹³⁹⁴ Jean Saint-Pierre, «Milesker Espainiara», *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 2a.

¹³⁹⁵ Jean Saint-Pierre, «Muslariak», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.

¹³⁹⁶ Saint-Pierre, «Herriak». 1915/6/25.

¹³⁹⁷ Jean Saint-Pierre, «Pleka», *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 4a.

batean bide zegoen kronika hori idatzi zuenean, eta pilotan edo futboleant aritzen zirela kontatu zuen:

Artetan zenbeit pilota partida egiten ditugu, etche zahar bati kontra. Ez dugu berinarik hausten; kanoiek aspaldi hautsiak zituzten. Foot-baal hortan ere ari gare hartako doia.¹³⁹⁸

Herri haietako paretak erabiltzen zituzten pilotan aritzeko. Saint-Pierreren artikuluan ez zen argi ea etxeak osorik zeuden edo xutik gelditu ziren pareta batzuetan ageri ziren, baina *Zerbitzari*-renean garbiago ageri ziren alemanen artilleriak herrietako etxeetan eragindako kalteak, hala nola berina hautsiak. Beste batean futboleant ari zirela argitu zuen, baina ez hala nahiago zutelako, baizik eta pilotan aritzeko lekurik ez zegoelako¹³⁹⁹.

Dena den, kirolaren aipu horiekin, *Zerbitzari*-k eta Saint-Pierrek ongi azpimarratu nahi izan zuten gerlan ez zela dena bortizkeria, baizik eta jostatzeko astia ere bazutela, eta horretan gerlaren eztitze bat egiten zuten, nahi ala ez.

c) Arrantza eta ehiza

Oihanetik fruituen biltzen ibiltzen zirela aipatu dugu janariari buruzko atalean. Atal horretan sar genitzakeen ere ondotik aipatuko ditugunak, hala nola ehizari eta arrantzari buruzkoak, baina aparte aipatzekoak dira, bi jarduera horiek janari bila joatea baino gehiago zirelako denbora pasatzeko modu bat, pilota edo alkohola bezala. *Zerbitzari*-ren zenbait artikulua irakurriz, ageri zen euskaldunek arrantzarako eta ehizarako joera zutela. Behin, basurde ehizaz aritu zen, errateko ez zutela basurderik harrapatu, baizik eta basahuntzak¹⁴⁰⁰. Baina artikulua ez zuen interes berezirik. Beste behin arrantzaz mintzatu zen, eta esplikatu zuen nola pausalekuetako erreketan, jendea arrantzara joaten zen, eta errekarat granadak botaz arrain guztiak hil eta berehala biltzen zituztela¹⁴⁰¹. *Zerbitzari*-k aipatu zuen hori aski ohikoa omen zen, Jacques Meyerren arabera, hala nola arrainak granada ukaldika hiltzea edota oihanean ehizan ibiltzea, baimenik gabe. Jarduera horiek soldaduen «distrakzioen» lerroan sartu zituen¹⁴⁰². Pierre Miquelen arabera, aldiz, distrakzioaz gain, eguneroko otorduen hobetzeko erabiltzen zuten legez kanpoko ehiza, beti ere nagusiki baserri munduko jatorria zuten soldaduek¹⁴⁰³, hots, euskaldun gehienek.

¹³⁹⁸ Elizalde, «Maiatzaren 11n». Eskualduna.

¹³⁹⁹ Jean Elizalde, «Igandeak», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 3a.

¹⁴⁰⁰ Jean Elizalde, «J.S.P. adiskideari mila goraintzi», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.

¹⁴⁰¹ Jean Elizalde, «Arrantzaleak», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.

¹⁴⁰² *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*, 159–160.

¹⁴⁰³ Miquel, *La grande guerre au jour le jour*, 180.

Zerbitzari-k beste aktibitate bat ere aipatu zuen beste artikuluko batean, hala nola baratzean lan egitea. Baina baratzeke lana ez zen soldaduek beren denbora pasatzeko berek sortzen zuten baratzea, baizik eta zeuden herrietako biztanleen baratzeetan lan egitea, lan-esku eskasaren ondorioz, soldaduen laguntza preziatua zelako:

Ez gabiltza orai haste hartako zalaparta beretan. Estakuru ttikiena aski barnean egoteko. Ez dugu halere dembora handirik galtzen. Guzietan bezala hemen ere gizonkia gutitua baita gerlari medio, hekien orde, soldadoak ari dire landetan: beterraba atheratzen, iraultzen, ogi eraiten. Ez du guti balio hemengo jendearentzat hola langileak ukhaitea... jornalik eman gabe.¹⁴⁰⁴

Xehetasun horiekin guztiekin, gerlarien gerlaz aparteko beste jardueren berri eman zien irakurleei. Giroaren kokatzeko balio zuten, elementu guztien ezagutzeko, ez bakarrik gerlari buruzko informazioak emateko. Hain segur, herritarrek jakin nahi zuten beren seme, aita, senar edo anaiak zertan zebiltzan, eta informazio horiekin zerbait gehiago jakin zezaketen.

Gibel lerroetako edo pausalekuetako bizia anitzez gozoagoa zela erakutsi zuten *Eskualduna*-koek beren artikuluetan. Han egin beharreko indarkako lanak edo ariketa fisikoak ez zituzten begi txarrez ikusten, beste soldadu batzuek bezala. Lan haiek justifikatuz, gerlaren arauak onartzen zituzten. Atsedean uneei buruz mintzatzean, halako mementoez xehetasun anitz kontatzean eta hori guztia modu arinean, gerla desdramatizatzen zuten. Batzuetan iduri zuen denbora gehiago pasatzen zutela edaten edo bestan, eta gerlara jostatzerara joaten zirela.

C. Kontrastea

Bi egoerak aipatu ondoan, begi bistakoa da lehen lerroen eta gibel lerroen arteko kontrastea handia zela. Eta kontraste hori maiz ikusi zuten soldaduek, edo sutik pausalekura joaten zirenean, edo leku batetik bestera joaten zirenean. Hain zuzen, frankotan aldatzen zituzten lekuz. Euskal Herritik joan ziren soldadu gehienek hilabete anitz leku beretan pasatu bazituzten ere, leku berrietara ere igortzen zituzten zenbait aldiz. Frédéric Rousseauk esplikatzen du¹⁴⁰⁵ erregularki leku berrietara joatea beharrezkoa zela oroitzapen txarrek eragiten zuten giro pisuegitik ihes egiteko. Leku berri batera joateko bidea bera atsedean une

¹⁴⁰⁴ Jean Elizalde, «Lana», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 24a.

¹⁴⁰⁵ Rousseau, *La guerre censurée. Une histoire des combattants européens de 14-18*, 134.

bat zen, paisaia berrien ikustea zainen lasaitzea zen. Alderantziz, beti hil anitz gertatzen ari zen leku berean egotea etsigarria zitzaizen soldaduei, Rousseaturen arabera.

Baina mugimendu guztiak ez ziren norabide berekoak. Ez zen batere gauza bera lubakietatik pausalekuetara joatea edo pausalekutik gudu bortitzak iragaten ari ziren lekura. Batzuk gibel lerroetan egonez eta besteak lehen lerroetan, edo bi lekuak ezagaturik, bi lerroen arteko aldea ikusi zuten. *Eskualduna*-ko artikulua irakurriz ere ikusiko dugu bi lekuen arteko kontrastea adierazten zutela.

Eta kontraste horrek bazuen eragin zuzen bat gudura joateari buruz. Ikusiko dugu kronikak igortzen zituzten euskaldun horiek zer gogo zuten pausalekuetatik gudu tokietara itzultzeko. Sura joateko borondatea zenbaterainokoa zen aztertu behar dugu, gerlako jarrera aipatzen ari baldin bagara.

I. Gibel lerroen eta lehen lerroen arteko aldea

Hainbat gisatan begiratuko dugu nolakoa zen gibel lerroen eta lehen lerroen arteko aldea. Alde batetik, gudu tokietan zirenek atsedena behar zutela *Eskualduna*-n nola agertzen zen aztertuko dugu. Bigarrenik, erakutsiko dugu nola erakusten zuten leku batean goxo zela eta bestean ez. Kontrastea beste gisa batez ere ager zitekeen, hala nola gudu bortitzetatik landako lasaitasuna adieraztean ageri zen zer nolako desberdintasunak ziren une edo leku batetik bestera. Azkenik, pausan zirenen eta gerlan zirenen arteko zatiketa bat bazela eta hori *Eskualduna* astekarian nola islatzen zen begiratuko dugu.

a) Atsedeen beharra

Lubakietan iraun ahal izateko, atsedeen uneak premiatsuak zirela dio François Cochetek. Atsedeen une horiek baitezpadakoak ziren gudariak psikologikoki iraun zezaten eta jasandakoa ahantzi edo estali ahal izateko¹⁴⁰⁶. Atsedeenaren behar hori ageri zen *Eskualduna*-ko idazleen artikuluetan ere. Jean Saint-Pierreren testuetan argi gelditu zen gibel lerroetako ezaugarri eta funtzio nagusietariko bat atsedeen hartzea zela, Aube eskualdean goxoan zeudela idatzi zuenean bezala¹⁴⁰⁷. Pausalekuak nolakoak ziren edo nola egiten zituzten deskribatzen zuen zenbait aldiz:

Ez diozu zeren eman eskuetan tresnarik, ez deusetarik aterako dautzu aterbe pollit baten geia.

Cherritegi batean ikusi ditut atzo bi soldado etzanak. Hitz dautzuet ez dutela saltzekoa bere gambera.

¹⁴⁰⁶ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 134–135.

¹⁴⁰⁷ Jean Saint-Pierre, «Bethikotz othe?», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 10a.

Hein bat ederki eta beroki kokatuak dira hor, zolatik gaineraino berregindurik borthakuairen egoitza zaharra.

Nik antzerak ditut lehen auzo. Ez da etsaia hurbilduko.¹⁴⁰⁸

Pausalekua zenbat atsegin zuten ageri da pasarte horretan. Zerritegi batean biziki ongi direla idazterakoan, beste interpretazio bat ere egin zitekeen: pentsa zein egoera txarrean egoten ziren, zerritegi bat hainbeste estimatzen bazuten! Baina Saint-Pierre ez zen mintzo beste egunetako egoera txarrez. Zerritegi batean egotea bezalako egoera ez hain ohoragarri bat baikortzeko trebezia hori azpimarratzekoa da. Hitz baikorrez kontaktzen zuen, berez, baikorretik gauza handirik ez zuen egoera. Baina une horietan atsedenean zeudela eta atsedean hori zein garrantzitsua zen ulertzen zen hori irakurriz.

Alabaina, atsedean hartzea garrantzitsua zen indarrak berriz biltzeko. Argona eskualdeko Grurie oihanean zegoen batez idatzi kronikatik sendi zitekeen hori:

Sartu zaizkit erregurak bizkitartean, ikustearekin udako toki hauta dugula, itzal eta freskura nasaiki, eta bertze alde hortan Alamana maltsa.¹⁴⁰⁹

Artikulu horretan atsedean leku berria deskribatu zuen, besteak beste hango soldaduek arnoa ausarki edan eta zenbait mozkor bildu zutela edota inguruetan gerezi anitz bazela kontatuz. Garbiki senti zitekeen pausan egoteak zer eragin zuzena zuen Jean Saint-Pierreren baitan:

Hasteko osagarri ona dugu, osagarri hauta. Bihotzeko ilhundura izpi bat baitzen iragan aste hoitan, iduri du ttipitu dela, eta gogoak arindu direla norapeit. Kantu gehiago entzuten dut bazterretan. Deskantsuan luzaz egoiteak egiten duenez, ala berri on zonbeiten ikasteak, ez nakike xuxen. Bat eta bertzea on dira hortako.¹⁴¹⁰

Saint-Pierrek garbiki aitortu zuen hori idazten ari zen unean morala azkartua zitzaiola eta zenbait egun lehenago ahulagoa zuela. Cochetek aipatzen duen ideia konfirmatzen du pasarte horrek, hala nola atsedean hartzeak soldaduen bihotzerako zuen garrantzia. Gainera, 1916ko azaroko artikulu hori baino lehenagokoak irakurriz, Saint-Pierre etsituago ageri zen, artikulu ilunagoak idatzi baitzituen aitzineko asteetan. Atsedean unean soldaduen bihotza gorago zegoela aipatu zuen Soissons inguruan zeuden aldi batez ere¹⁴¹¹.

Zerbitzari-k hainbat aldiz azpimarratu zuen pausa merezitua zutela. Denbora anitz leku arriskutsuetan eta gerla betean iragan ondoan, atsedena behar zutela idatzi izan zuen, kasu honetan bezala:

¹⁴⁰⁸ Jean Saint-Pierre, «Egoitza eta herri», *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 9a.

¹⁴⁰⁹ Jean Saint-Pierre, «Itzalpean uda», *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 7a.

¹⁴¹⁰ Saint-Pierre, «Armada eder». 1916/11/17.

¹⁴¹¹ Saint-Pierre, «Guduaren segida». 1917/5/4.

*Orai pausurat goazi. Hogoi egunez, begirik hetsi gabe, obusen karrasken erdian bidez bide ibili denak noizpeit pausatu behar du.*¹⁴¹²

Atsedena estimatzeaz eta horren beharra aldarrikatzeaz gain, horrelako uneetan agertzen zen lehen lerroetako egoera zein gogorra zen. Atsedena har zezakeenean kexa zitekeen aitzineko egunetan lorik egin gabe egon izanaz. Pausa denboraren alde baikor horrek erakusten zuen gerlaren beste aldea ez zela batere baikorra, nahiz eta *Zerbitzari* eta Jean Saint-Pierre ez ziren zinkurin egileak. Atsedena uneko goxotasunaz maiz idatzi zuen *Zerbitzari*-k, arriskurik gabeko bizimodu ederra goretsiz¹⁴¹³, oharkabean bi lerroen arteko kontrastea erakusten zuela.

b) Batean goxo, bestean ez

Atsedena lekuen berri kontatzean ongi erakusten zuten nola gibel lerroetan goxo zen, eta lehen lerroetan ez. Begi bistakoa dirudi, baina hori garbiki adieraztea besterik zen. Jean Saint-Pierreren artikulua batean biziki ongi ageri zen lubakietako egoeraren eta atsedena lekuetakoa arteko desberdintasuna:

Ori, zato gurekin, zilhoetarik atheratzen girenean. Ez izi, gure bizar eta muthur zikhinak ikusirik, gure arropa lohitsuak; gure zapetak ligaz estaliak, eta larrua ere, gure larrua, zimur eta hori jarria. [...]
Gero lo aldi bat ederra egin, baitugu beharra; zer gau gochoak iraganen ditugun orain, hirriskutik urrun, lau, sei, zortzi egunez! Eta zer aphairuak! Jatekoaren partetik ez dugu den gutieneko errenguririk.

*Bethi tenorez hor dugu, eta ona. Ogi churi garbia, haragi freskoa, lur sagar, ilhar, irris, ba eta askotan gasna, errechimenta, chokoleta... Ez haatik egun guziez.*¹⁴¹⁴

Alde batetik, erranez lubakietan lohitsuak eta zikinak zirela, irakurleak ongi uler zezakeen pausalekuetan garbitzen zirela. Bestetik, pausalekuetan lo «ederra» egiten zutela edo ausarki jaten zutela azpimarratzean, atera zitekeen ondorioa zen lubakietan ez zutela nahi bezainbat lo egiten, ez eta ere jaten. Bi lekuen arteko kontrastea argiki agertu zen artikulua horretan.

Kontrastea beste gisa batez aipatu zuen zegoen lekuan lasai zeudela eta zenbait kilometrora borroka gogorrak zirela idaztean, Verduneko adibidea emanez. Bera Bar-le-Duc inguruko pausalekuetan zegoela idatzi zuen, erranez une hartan lasai zeudela, guduak Verdunen baitziren¹⁴¹⁵. Lekuaren araberako kontraste hori ere maiz ageri zen *Eskualduna*-ko

¹⁴¹² Jean Elizalde, «Eta orai?», *Eskualduna*, 1918ko irailaren 27a.

¹⁴¹³ Jean Elizalde, «Oraiko gure berrin», *Eskualduna*, 1917ko urriaren 12a.

¹⁴¹⁴ Jean Saint-Pierre, «Pausu egunak», *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 18a.

¹⁴¹⁵ Jean Saint-Pierre, «Oihanetan», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 23a.

idazleen kroniketan. Maiz zehazten zuten beren lekuan bazterrak lasai zeudela eta handik urrunxeago ari zirela borrokan.

Kontrastea garbiki erakutsi zuen beste artikulua bat ere aipa dezakegu, aldi honetan *Zerbitzari*-rena. Verdunetik landako atsedenaaren deskribapenak biziki garbiki adierazi zuen zein kontraste latza zen gudu-lekuen eta pausalekuen artean:

Eta zer diote bada Eskualdun gerlariek?

Ifernuan zenbeit egun iraganik orai zeruan direla. Eta zer ifernua zen!...

Huna beraz nun garen orai sutik urrun, demendreneko irriskurik gabe. Kanoien orroa bera ez da ageri.

Pausatzeko ez du guti balio.

Jateko eta edateko, hemen ez da eskasik. Egia erran, sosaren puntan baizik ez ditake gauza kausi.

Gutaz ongi baliatzen da hemengo jendea. Bainan «Verduneko» garizumaren ondotik, ez othe da zuzen hemen Phazko egitea? Moltsak «atch» erraten duelarik geldi... eta kito. Horra soldadoentzat zer den zuhurtzia.

Zer loak ere! Verdunen begirik ez ginuen hesten ahal. Alde batetik, etsaiak jazarriko zaizkigulako beldur mina, eta bertzetik kanoia mota guzien musika dorphea. Hemen, ilhuna sartu orduko, gure lastorat goazi, oiloak iduri. Eta hitz dautzuet ez dugula oren handirik galtzen loaren beira. Lo bat, lo handi bat oilarra kukurukuka hasi arte. Zer bizia, hau!¹⁴¹⁶

Verduneko infernuarena lehenago ere aipatu dugu. Baina azpimarratzekoa da *Zerbitzari*-k pausalekuko goxotasuna zenbat konparatu zuen Verduneko guduarekin. Batean kanoien «orroa» eta arriskua, bestean arriskurik ez eta pausatzeko aukera. Pausalekuan janari eta edari eskasik ez izateak erran nahi zuen Verdunen eskas zutela, Verduneko «garizumaren» erreferentzia dugula horren lekuko.

Are gehiago, gerla lekutik urrun izatearen goxotasunaren erakusle zen beste artikulua bat ere: nahiz eta atsedan lekuetan lan anitz izan egiteko, besteak beste burdinbide eraikitzen iragaten zutenean eguna, *Zerbitzari*-k egun haiek atsedan eguntzat zeuzkan, lehen lerroetatik urrun izate hutsa bera atsedan iturri baitzen:

Pausuan gare sei egun hautan. Ezen guretzat bethi pausua da sutik eta irriskutik urrun iragaiten dugun dembora.¹⁴¹⁷

Bi lekuen arteko kontrastea biziki garbi agertu zen. Arazoa ez zen baitezpada indar fisikoan, baizik eta lehen lerroetako bortizkerian, hiltzeko arriskuan, etengabe tentsioan. Nahiz eta lehen lerroetako egoera gordin hori ez zuten anitz deskribatzen, atsedan lekuetan egiten zituzten konparaketekin ageri zen bien arteko diferentzia. Lerroen artean ateratzen zitzaien *Eskualduna*-ko berrikerariei, gerlaren alde ilunaren isla.

¹⁴¹⁶ Elizalde, «Eta zer diote bada Eskualdun gerlariek?». 1916/6/9.

¹⁴¹⁷ Jean Elizalde, «Pausutik», *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 6a.

c) Borroka gogorretarik landako lasaitasuna

Zerbitzari, Saint-Pierre eta Etxepare borroken erdian zeudenean, ez zuten zuzenean gauza handirik idazten, hain segur asti eskasez edo egoera bereziarengatik. Gehienetan, borroka gogorrez mintzatzen ziren behin pausalekuetara joan ondoan, pausalekutik. Beraz, borroka gogorrek haren ondoko lasaitasun girotik kontatzen zituzten, eta baita lasaitasun hura bera. Borroka ondoko lasaitasun horrek aurpegi berezia zuen. Jean Saint-Pierrek artikulu batean ederki deskribatu zuen suntsiketaren erdiko lasaitasuna:

Herri hartan etzen etxerik gelditu xutik, Han hemenka harresi hegal zenbeit, zilhokatuak. Kolpatuak ixilik zeramazten gibelerat, balak oraino hixtuka baitzabiltzan han gaindi.¹⁴¹⁸

Lasaitasun horrek karga astuna zuen. Borroka bat jasan zuen herri suntsitu batera itzuli zen, eta borrokaren kalteak (materialak eta zauriak) nabari utzi bazituen ere, deigarria da zaurituak «ixilik» eramatearen aipamena. Isiltasun eta lasaitasun pisu bat nabari zen. Beste gisako lasaitasun bat zen, aldiz, kanoikadak gelditu zirenekoa:

Deus handirik ez aste huntan. Deskantsua ginuen lerroetan; kanoiak ere ez dire hanbat alhatu.¹⁴¹⁹

Kasu horretan, lehen lerroetako egoeraren berri ematen zuen, baina lehen lerroetan ere borrokak eta kanoikadak ez ziren etengabekoak. Batzuetan une lasaiagoak ere baziren, artikulu horrek aditzera eman zuen bezala. Beste lasaitasun mota bat zen Alsazian gertatzen zena, non nehorik ez zuen gudua hasi nahi, herria ez suntsitzeko, hots, alemanek berentzat nahi zutelako, frantsesek bezala:

Lorrainan hasirik gure gerla lan dorphea, duela hiru urthe, hogoi ta bortz itzuli eginik gaude geroztik Belgikan eta Frantzia gaineko bide guzietan gaindi, gudu borthitzak jasaiten gintuela han hemenka, harrabotsez aseak, bethi gerlaren ondorio izigarriak begietan, gizonen ala lurraren zauri, heriotze, lohi, herrauts.

Zor zaukuten azkenean gerla toki gochoago bat, nunbeit oraino balinbazen lerroen hedaduran. Hatzeman dugu.

Ez du bakarrik mendi zelhaien ederrak alegeratzen soldadoaren bihotza, hemengo mugetan gaindi sartzen delarik gerla toki berrian; bainan bai bazterren bake gozoak.¹⁴²⁰

Jean Saint-Pierrek aitortu zuen hiru urte gogor iragan zituztela, gudu leku bortitzenetan. Azpimarratzekoa da «aseak» hitza, hots kanoikaden eta tiroen azantzaz eta haiek eragiten zituzten kalteez aseak ziren. Eta Alsazian bizi zuten egoera une gogor haiekin kontrastean sartzen zen. Hiru urtez gune bortitzenetan egon ondoan, gune baketsuagoetara

¹⁴¹⁸ Saint-Pierre, «Kuraia». 1915/3/5.

¹⁴¹⁹ Jean Saint-Pierre, «Gure astea», *Eskualduna*, 1915ko agorrilaren 6a.

¹⁴²⁰ Jean Saint-Pierre, «Alsace-ko bazterrak», *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 3a.

joatea merezia zutela azpimarratuz garbi ageri zen borroka gogorren ondotik zeukaten lasaitasun giroa zenbat estimatzen zuten.

Champagne edo Verduneko guduetatik landako atsedean uneak aipatu zituen Jean Etxeparek. Lasaitasuna ez zen erabatekoa, baina bi gudu haiekin konparatuz, deus ez zela aditzera eman zuen. Adibidez, Champagneko gudutik landa bazterrak lasai zituztela argitu zuen. Batzuetan alemanek oldar batzuk egiten zituzten, baina deus ez omen zen Verdunekoekin konparatuz. Hamabost egunetik behin hil bat edo bi ukaiten zituztela zehaztu zuen, kalte haien gutxiesteko gisan¹⁴²¹. Lasaitasunaren adierazteko bide zuzenago bat erabili zuen Verduneko gudutik landa herri batean bilduak zirela kontatu zuenean. Herri haren deskribapena eskaini zuen, bereziki hango laborantzarena. Gero berriz Verdunera itzuliko zirela zehaztu zuen¹⁴²², baina laborantzaren deskribapen hark gerlarekin deusik ez zuela ikustekorik kontuan hartuz, halako giro bat kontatuz, lasaitasunean zegoela transmititu zuen, gudu leku gordinenetan izan balitz, ez zuelako halakorik egiteko paradarik izanen, lekuak suntsituak zirelako edo besterik izanen zuelako kontatzeko.

Zerbitzari-k lehen lerroen eta gibel frontearen arteko kontrastea erakutsi zuen behin baino gehiagotan. Hain zuzen, borroka gogorretatik landa pausalekura joatean sentitu zuen lasaitasuna aipatu zuen Verdunetik itzuli zenean. Adibidez, Verdunen gizon anitz galdu ondoan, gerlara beltzak ekarri zizkietela idatzi zuen, baina elkarren artean komunikatzeko problemak ba omen zituzten, hizkuntzarengatik. Hala ere, elkarrekin josteta ari zirela zehaztu zuen¹⁴²³. Verdunen gizon anitz galtzearen eta handik landa elkarrekin josteta aritzearen arteko kontrastea garbia zen. Kontrastea berdina agertu zuen Craonneko gudu batetik landa. Eguzkitan, belar egiten, arrantzan edo ehizan egoten omen ziren, merezitako atsedenean:

Zer ari garen, irriskurik gabe sala dezaket. Ori, tripa iguzkiari arbolapean pausan edo, altcharraztelu bat eskuan, belharretan. Bakhan batzu arraintzarat badoazi, bainan ez dut oraino ikasi nihork ere halako ketarik kausitu duela. Zenbeit zokhoz zokho ikusten ditut, chichparekin, erbi zahar bat kausitu nahiz: bainan erbiak hankak arinegi ditu hirur urthe gerlan ibili denarentzat... Dena den, gehiagokorik erran gabe, ikusten duzue, oreneko, ez dugula hezurrik hausten lanean ez eta odol gaichto handirik egiten. Craonneko zinka haren ondotik, ez othe ginuen hoinbertze merezi? Ba naski...¹⁴²⁴

Craonnen borroka gorrak izan ziren 1917ko maiatzean, eta euskaldunak zituzten tropek herri hura berriz hartu zieten alemanei. Hainbesteko guduak jasan ondoan atsedena merezita zutela berriz ere azpimarratuz, bi egoeren arteko aldea erakusten zuen, eta argi zen

¹⁴²¹ Jean Etxepare, «Gure itzulikak», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.

¹⁴²² Jean Etxepare, «Jabaletik», *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 21a.

¹⁴²³ Jean Elizalde, «Lagun berriak», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.

¹⁴²⁴ Jean Elizalde, «Zer ari garen», *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 6a.

zein nahiago zuen. Beste artikulu batean ere argi utzi zuen zer egoera nahiago zuen. 1918ko apirilean Somme eskualdeko Mont-Renaud baserrian egun «garratzak» iragan ondoan, maiatzean Soissons inguruan beste une gogor batzuk jasan zituzten, obusen ondorioz hainbat hil ukan baitzituzten. Azkenean etsaiari nagusitu zitzaizkiola eta lerro berriak egin zituztela idatzi zuen. Handik landa pausura eraman zituzten:

Arratsaldean haatik, beribilak han gintuen berritz bilha ethorriak, pausurat eremateko. Erran gabe doa, ederki gochatu ditugula pausuko egunak. Damurik ez dute gehichago iraun...¹⁴²⁵

Zer zioen pausa egunez? Atsegin handiz hartu zituztela eta luzeago izatea nahi zukeela. Azkenik, borroka lekukoaren eta atsedean lekuaren arteko alde izugarria garbiki azaldu zuen ondoko pasarte honetan:

Erreketarik bi kilometretan badugu hirichka polit bat: oraino oso-oso dago. Horko jende guzia hor da, bere lanetan ari, igandetan meza-bezperetarako Eskualdunak Eskual-Herrian bezen trankil elizarat bilduz. Harrigarri ere da.

Hala-hala erreketan beretan, zer hirriskua. Egun eta gau – behinere ikusi ez ginuena – bala kasik erlea bezen usu dabila airean eta errekek ez dire aski barna gizonaren gerizatzeke: konkortua behar da egon eta ibili hor.¹⁴²⁶

Zuri eta beltza zen alde bateko eta besteko egoera. *Zerbitzari* osorik zegoen herri batean, lasaitasuna estimatzen, eta beste hainbat lubakietan, tiroen erdian. Horrelako artikuluekin biziki argiki erakusten zuten zein desberdintasun latzak ziren toki baten eta bestearen artean. Horiek ez ziren gerlaren goraiatzeko bideak, ez eta ere edertzeoak, nahiz eta lasaitasun giroak azpimarratuz berri onak eman nahi izan.

d) Bi lerroen arteko zatiketa

Lehen lerroaren eta gibel lerroaren arteko egoera hain desberdin horrek soldaduen arteko liskarrak eragiten zituela aitortu zuen Jean Saint-Pierrek noiz edo noiz, lubakietan zirenak jeloskor jartzen baitziren:

Urriaren ondotik hazila gerlatik urrun deramagu gure chokoan, ichil ichila. Ahantziak gituzte naski. Bertze armadeko soldado zonbeit jasa ohartuak ditugu neguari buruz leku onean kokatu girela, eta beltzuri egiten daukute trein hoitan permisionez gabiltzalarik.¹⁴²⁷

Saint-Pierreren arabera, leku txarretan zirenek begi txarrez ikusten zituzten toki hobeetan zeuden soldaduak. Baina horrelako desadostasunen edo kritiken aipuak biziki bakan agertu ziren *Eskualduna* astekarian. Gisa guziez, orain arte ikusi dugun bezala, Saint-

¹⁴²⁵ Elizalde, «Egun garratzak». 1918/7/12.

¹⁴²⁶ Jean Elizalde, «Zer eskualde den hau», *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.

¹⁴²⁷ Jean Saint-Pierre, «Purruskeriak», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 17a.

Pierre ez zen beti leku hoberenetan egoten, eta gerla bortitz izan zen leku eta mementoetan lehen lerroetan egon zen.

Zatiketa handiagoa zen lehen lerroetan eta denbora guztian babesean zeudenen artean. François Cochetek ongi esplikatatu du zein ziren bi soldadu motak, hots, lehen lerroetan eta pausalekuetan aldizka egoten zirenak, eta denbora guztian gibel lerroetan, beraz leku aski seguruetan, zeudenak:

Ces mondes sont composés de «permanents» et de «précaires». Les soldats de la biffe font des séjours alternés aux tranchées et dans les villages de l'arrière, en repos, terme d'ailleurs fallacieux, comme nous allons le voir. Ce sont les précaires de «l'arrière-front». La précarité de leur vie se poursuit dans les tranchées. En revanche, les permanents de l'arrière, nombreux, mènent une vie de caserne, exposée parfois aux tirs de l'artillerie lourde de l'adversaire. Eux sont installés plus facilement dans la guerre et la voient avec un regard distancié et nettement plus marqué par une certaine abstraction que le poilu. Ils ne connaissent du feu ennemi que des sons lointains et les obus lourds, mais ignorent l'odeur permanente des cadavres et les conditions de vie dans les «guitounes», comme ils ignorent le feu meurtrier des armes automatiques.¹⁴²⁸

Bi mundu horiek ia inoiz ez zituzten aipatu *Eskualduna*-ko idazleek. Saint-Pierre eta *Zerbitzari* ez ziren horiez mintzatu, beharbada ez zutelako haien zuzeneko berririk. Baina zeharkakoak entzuten bide zituzten, lehen lerroko soldaduen kritiken bidez. Hala ere, ez ziren horrelako eztabaidetan sartzen. Pare bat aldiz, ordea, Jean Etxeparek gaia mahai gainera atera zuen:

Aldiz gerla hastetik hunat soldado hartuak izan direnetarik askok, sutik urrun gochoki egonak baitira orainokoa, hek lezakete egin, etsaiari buruz igorri lerroan, aralde bat ez charra.

Iragan urthean, hemen aiphatuko ez dugun Frantziako eskualde batean, gibel, aitzindari begi chorrotch batek holachet jaiki zituen 5.930 soldado, beren sailean etzirenak. Bertzalde 3.513 aurkitu, zibil batzuek edo behar orduan emazteek egin zitzaizketen lan batzuetan beren egunak eramanki. Horra 10.000 gizon han berean, zuzen kontra gerla tokitik bazter zaudenak.

Aitzindari harek zion, chokoak ontsa ikhertuz, hatzeman zitazkela bertze 160.000 heien iduriko.

Su-tokitik hurbil, zonbat ez dituzte geroztik jaiki, ara beretan gordeak, eta ez guziak orobat beren nahitik!¹⁴²⁹

1917an soldadu gehiago behar zelako, erreforma eginen zutela jakinarazi zuen. Erreforma horrekin, 1914an gerlatik libratu ziren hainbat eta hainbat gerla tokira deituko zituzten. Horren harira mintzo zen Etxepare, erranez hobe zela beti gibel lerroetan lasai zeudenak lehen lerroa igortzea. Ahoan bilorik gabe idatzi zuen lasaitasun hartan zeuden gizon gazteak «zuzen kontra» zeudela toki haietan. Beste artikulua batean armak egiten ari

¹⁴²⁸ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 97; Cazals eta Loez, *Dans les tranchées de 1914-18*, 181–184.

¹⁴²⁹ Etxepare, «Aizka». 1917/3/3.

zirenen edota armak garraiatzen zituztenen eta soldaduen arteko tratu ezberdinak sortzen zituen kritikak aipatu zituen. Artikuluaren arabera, emazte batek gerla hastean erran zuen ontsa zela denek ezartzea bizia arriskuan. Baina gerlan ez zirela denak egoera berean zehaztu zuen Etxeparek. Batzuk lantegietan gerlarako hornikuntzak ekoizten ari ziren. Hori ere behar zela onartu zuen, ezin zirelako denak soldadu izan. Baina haien soldata lau liberatik hamar liberara emendatzea sobera zitzaion. Halaber, ez zitzaion onargarri beste batzuk puska garraiatzen ibiltzea, arriskurik hartu gabe, eta soldadu deitzea¹⁴³⁰. Christophe Charlek bere liburuan azaldu du bizia arriskuan jartzen zuten soldaduei ez zitzaicela ongi iruditzen langile mobilizatuek soldaduek baino hogeitaz gehiago irabaztea:

Surtout, le retour périodique à l'arrière (à l'occasion des permissions ou en raison du traitement des blessures, des maladies, ou des traumatismes psychologiques nés des bombardements d'artillerie) nourrit la rancœur et l'incompréhension entre l'avant et l'arrière. En particulier, les soldats constatent que ceux qui risquent leur vie touchent cinq sous par jour tandis que les ouvriers mobilisés dans les usines subissent, certes, une surcharge de travail, mais reçoivent en contrepartie des salaires vingt fois plus élevés (cent sous, soit cinq francs par jour) et ne sont pas séparés de leurs proches, comme les combattants.¹⁴³¹

Bi lerroen arteko desadostasun horiek isla izan zuten *Eskualduna* astekarian, Etxepareren artikuluetan agertu bezala. Dударik gabe, kontuan hartu behar da, errealitatearen alde ezberdinak, baikorrak ez zirenak ere, aipatu zituztelako. Baina Saint-Pierrek eta Etxeparek hain gutxitan aipatu zituzten horrelako kezkek, non salbuespen gisa baizik ez ditzakegun har. Gerlaren ikuspegi orokorraz ematen zuten irudian ez zuen hainbesteko eraginik izan.

2. Sura ez joan nahi

Bi lekuen arteko kontrastea ikusirik, zer begiradarekin so egiten zioten gerla tokiari pausa lekutik, gerla tokira itzuli behar zuten unean? Nola aipatzen zuten *Eskualduna*-ko idazleek berriz sura itzultzearen mentura? Gudura joateko mehatxuaz gain, beste une bat ere bereizi dugu kontraste horretan, hala nola joateko eguna finkatua edo kasik finkatua zeneko giroa nolakoa zen gibel lerroetan. Nola agertzen zen hori *Eskualduna*-ko kroniketan?

¹⁴³⁰ Jean Etxepare, «Desbardin», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 3a.

¹⁴³¹ Charle, *La crise des sociétés impériales. Allemagne, France, Grande-Bretagne, 1900-1940. Essai d'histoire sociale comparée*, 256.

a) Sura itzultzeko beldurra

Soldaduek, Euskal Herritik joandakoek bederen, denbora luzeak iragaten zituzten leku berean. Horregatik, *Eskualduna*-n idazten zuten berriktariak maiz aipatzen zuten beti leku berean zeudela edo, bestela, laster tokiz aldatuko zituztelako solasak zabaltzen zirela. Gehienetan ez zuten zehazten non zeuden, are gutxiago nora joanen ziren. Berek ere ez zuten jakiten zein tokitara eramane zituzten, eta zehazki noiz. Aste gehienetan aipatzen zuten mugimenduen mentura zegoela. Batzuetan, ondoko astean argitaratzen zuten kronikan agertzen zen ez zirela tokiz mugitu, beste batzuetan bai. Ez gara atal horri buruzko xehetasunetan sartuko, kasu berezi batzuk baizik ez ditugu aipatuko. Jacques Meyerrek ongi azaldu du soldaduek oro har sentitzen zutena toki berri batera joateari buruz. Rémy Cazalsek eta André Loezek lubakietara joatea nola pasatzen zen azaldu dute¹⁴³². Toki hobearen itzaropenaren eta toki txarragoaren beldurraren arteko zerbait izaten zen soldaduek bizi zutena, halaber, toki ezezagunaren beldurra edo aitzinetik ezagutu tokiaren alde txar eta ona agertzen ziren¹⁴³³. Hori islatzen zen *Eskualduna*-koen artikuluetan. Toki berriak deskribatzen zituzten, edo lehenago ezagutu tokiak zenbait hilabete geroago nolakoak ziren.

Leku aldaketa bortitzena, dena den, pausalekutik edo toki aski lasai batetik toki gogor batera joatea zen. Horretan jarriko dugu arreta ondoko lerroetan. Borroka gogorak zeuden lekuetara joateko mentura etengabea zen, eta horregatik atsedenean egoteak ere ez zituen kezka lasaitzen, Jean Saint-Pierreren artikulua horretan islatu zen bezala:

*Bertze orduz bihotzak ere norapeit arintzen dire sasoinarekin batean; bainan aurthen nola berech gogoak Verdun inguruko gudu izigarri hartarik?*¹⁴³⁴

Oraino Aisne inguruan zeuden euskaldunak ez zeuden hain lasai, artikulua horren arabera. Bihotzak ilun zituzten, Verdunen gudu gogorak gertatzen ari zirela bazekitelako. Hori idatzi zuen unean, Saint-Pierrek ez zekikeen oraino laster Verdunera joanen zirela, baina mehatxua gainean zeukatela nabari zen artikulua irakurtzean. Gudu bortitzaren presentziak, distantziaz aski urruna izanik ere, kezka handia sortzen zuen, epe laburrera haiek ere bizi zezaketelako. Saint-Pierrek ahoan bilorik gabe idazten zuen toki lasaiagoak nahiago zituela:

¹⁴³² Cazals eta Loez, *Dans les tranchées de 1914-18*, 50–53.

¹⁴³³ Meyer, *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*, 75–76.

¹⁴³⁴ Jean Saint-Pierre, «Gure tokian deskantsu», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 24a.

Gu ez gira higitu gure lekutik. Badire gutartean, toki huotaz aseak diren batzu, bertze norapeit abiatu nahiz, zangoak kilika dituztenak. Ez da batere harrigarri, denboraren buruan, bertze toki batzuen amets aren erabiltzea gogoan, ustez eta berria bethi hobe den.

Bizikartean, lerro hauk holatsu direno, duguna baino toki hoberik ez dugu atzemanen buru batetarik bertzerat. [...] Bethi bezala bi hegaletan gerthatzen dire gudu gaixtoenak. Erditik haustea, lan tzarra litake, eta ondorio gutikoa.¹⁴³⁵

Hain zuzen, denbora luze bat borrokarik gabeko gunean iragan zuen 1915 inguruan, eta erran zuen nahiago zuela han egon. Toki lasaitik errazagoa zen gerlaz modu arinean eta baikorrean mintzatzea.

Zerbitzari-ren artikuluetan ere lasaitasuna bukatu eta gerla toki gogorrenetara berriz itzul zitezkeelako solasak aipatzean, gerlaren lazgarritasuna ageri zen. Horren seinale zen mugimendu mentura aipatzen zuen guziez, irakurleei otoitz egiteko eskatzen ziela. 1916ko udaberrian idatzi zuen norbaitek ziola laster Verdunera igorriko zituztela. Hori errateko oinarririk ez zegoela erantzun zuen *Zerbitzari*-k. Une hartan ez zekiten nora joanen ziren, Verdunera edo Belgikara. Batera joan ala bestera, otoitz egiteko deia egin zuen:

Herritarrak, ez lotsa. Gu ez gaude lotsatzekotan. Othoitz egizue bakharrik guretzat.¹⁴³⁶

Esaldi horretan bi sentimendu kontrajarri ageri ziren. Batetik, indartsu eta kementsu agertu nahi zuen, baizik eta leku gogorrera joateko beldurrik ez zeukatela. Bestetik, otoitz egiteko deiak, nahiz eta apaiz baten eskutik ohikoa izan, larritasun zerbait transmititzen zuen. Hainbesteko konfiantza edo baikortasuna izan balu, otoitzen beharrik ba ote zuen? Handik gutxira berretsi zuen Verdunera igorriko zituztela, eta orduan ere otoitzerako deia egin zuen, etorriko zen guduaren bortizkeria iragarritz:

Herritar maiteak, sinhets zazue oren hori hurbiltzen ari dela, menturaz hurbildua dela. Lagun gaitzazue hortik. Egunetik egunerat, orenetik orenerat heda ditake gudua. Uste gabeen, hedatuko da, sua mendian hedatzen den bezala. Orduan ichuriko da odol. Berriz busti beharko dute begiek. Sekulan baino kartsukiago, egizue guretzat othoitz...¹⁴³⁷

Etorriko zenerako errealismo zerbait agertu zuen *Zerbitzari*-k. Lerro horiek biziki gogorrak ziren. Biziki ongi islatzen zuen olde bortitza hurbiltzen ari zela, ekaitza zetorrela, eta ondorioak biziki txarrak izanen zirela, odol isuria eta begi bustiak aurreikusiz. Gudu hori modu hain larrian iragarritz, gerla tokira joateko beldurra zabaltzen zuen, kemenaren gainetik.

Mehatxua beste norabide batekoa ere izan zitekeen. Verduneko guduaren kasuan, *Zerbitzari* eta gainerakoak Aisne eskualdetik Verdun eskualdera eramán zituzten, hots, toki

¹⁴³⁵ Jean Saint-Pierre, «Maiatzaren 1an», *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 14a.

¹⁴³⁶ Jean Elizalde, «Hegalak motz», *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 28a.

¹⁴³⁷ Elizalde, «Eta zer diote gerlariek?». 1916/4/14.

aski lasai batetik gudu bortitzenak gertatzen ari ziren tokira. Baina beste batzuetan, gudu bortitzak berak edo bonbardaketak etorriko ziren toki lasaira edo pausa lekura, *Zerbitzari-*ren iragarpenen arabera:

Lurpean soldadoak erdi trankil daude; hitz dautzut aireplanak ez daudela hala. Ez dakit zeren ondotik dabilizan zenbeit egun hautan. Gau eta egun hor dabilta, eskuin eta ezker.

Uste dut dembora laburrik barne, hemen ere, gure ezker hortako zalaparta berak ikusiko ditugun. Aroa hortakoa da.¹⁴³⁸

Hegazkinen bonbardaketak jasan zitzakeela idatzi zuen. Hain zuzen, nahiz eta pausan izan, artetan bonbardaketa batzuk jasaten zituzten¹⁴³⁹. Beraz, lasaitasuna hausteko beldurra edo mehatxua etengabea zela islatzen zen artikulu horietan.

Arras beste gisa bateko lekura ere igor zitzaketen. Hala gertatu zen Alsazia aldera eramán zituztenean. Hara joan aitzin, toki hura nolakoa zen jakiten ahalegindu zirela erakustera eman zuen Jean Saint-Pierrek. Toki hartan bazterrak lasaiago zeuden, eta hori jakinik, gustura zegoen:

Bihotza harat, bainan gure bidea berriz ere gerla tokirat. Bizkitartean, gure toki berriaz ez dugu deus gaixtorik ikasi. Hango berri dakiten guziek diote harramantza guti daukala gerlak han gaindi, gizon ala tresnak ez direla higatzen asko tokitan bezala. Hobe segur.¹⁴⁴⁰

Gerlako azken urteetako artikuluetan gero eta gehiago ageri zen Jean Saint-Pierrek nahiago zuela gune lasaietan egon edo gune lasaietara joan. Nahiz eta oro har soldadu diziplinatu gisa agertzen zen, Frantziaren alde, gerlaren alde eta abar, bere barneko pertsona mintzo zenean, gudu tokitik urrun egotea nahiago zuela aitortzen zuen, 1916an berean ere. Kontraesana bazen hor, adibidez, permissionetik ez itzultzeko gogoia adierazi zuenean:

Erdi lo dago gerla gure zokoan. Eskual Herrian itzuliño bat eginik, berriz oihanean sartzera nindohalarik, uste baino arramantz gutiago kausitu dut bazterretan. Ez niz batere harrabots gose, bainan gure herrietako bake gozo hartarik landa, gerla tokiko asalduran sartzeak berak barnea hozten du.¹⁴⁴¹

Saint-Pierrek nahi zuen bezain baikor eta diziplinatu agerturik ere, ez zuen gordetzen lasaitasuna nahiago zuela. Gudu tokietara joatea betebeharrak gisa onartzen bazuten ere, eta hara joateagatik ez baziren protestaka hasten ere, argi uzten zuten ez zutela hori plazerez egiten, inondik ere. Permissionez Euskal Herrian egon ondoan gerlara itzultzea gogorra zela adieraztea interesgarria da. Saint-Pierre bezalako engaiatu batentzat gogorra baldin bazen, nolakoa bide zen besteentzat?

¹⁴³⁸ Jean Elizalde, «Maiatzaren 28an», *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 4a.

¹⁴³⁹ Elizalde, «Gathu debru baten asmua». 1916/3/17.

¹⁴⁴⁰ Jean Saint-Pierre, «Norat buruz», *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 20a.

¹⁴⁴¹ Jean Saint-Pierre, «Eskual Herritik lekora», *Eskualduna*, 1916ko irailaren 22a.

b) Itzuli aitzineko giroa

Gudu tokira joateko beldurraren eta mehatxuaren une berean, lasaitasun garaiek kolore berezia hartzen zuten. Gudu tokira itzuli aitzineko une horietako giroa aipatzea da ondoko lerroen xedea. Lehen aipatu dugu atsedean tokia nola hartzen zuten gudu tokitik landa, eta zer kontraste zegoen. Orain, gudu tokira joateko menturarekin, atsedean gune hori nola agertzen zen aipatuko dugu. Ondoko artikulua idatzi zuenean, *Zerbitzari*-k ez zekien ea Somme eskualdera igorriko zituzten ala Champagne aldean jarraituko zuten:

Egia den bezala errateko, gutiz gehienen ustea da hemendik lekora Somme delakorat gan beharko dugula.

*Bakar batzuek Champanan geldituko garela diote. Dena den, gudu handi zenbeitetar goazi. Lerro hauk agertuko direlarik, erdiz-erdi suan izanen gare.*¹⁴⁴²

Beste batean bazekien hamar egunen buruan joanen zirela, baina ez zekien nora:

Aspaldiko demboretan ez dugu nihun hanbat laketzen. Maiz toki sailda dugu.

*Hemen laketuko othe dugu bada? Ez. Hemendik hamarbat egunen buruan guk bederen hemengo aldia egina izanen dugu eta hemendik urrun izanen gare.*¹⁴⁴³

Hor ez zuen aipatu ea gerla tokira joanen ziren ala beste toki lasai batera, baina erakustera eman zuen garai hartan maiz aldatzen zirela tokiz, ez baitzuten inon laketzeko astirik ukaiten. Leku batetik bestera joateko iragarpenak presentzia handia zuen soldaduen kezketan, *Zerbitzari*-ren gutun horretan ageri zen bezala. Baina baita Jean Saint-Pierreren gutunetan ere. Verdunera abiatu aitzineko lasaitasunak ez zuen beste une batzuetako lasaitasunaren gustu bera, pasarte horretan ageri zenez:

Uste baino luzeago dugu hemen gure pausua. Hemen gira, toki berean maiatzaren hogoiean oraino; gure eskualdeko bortz errechimendu, bospasei herritan kokatuak, lerroetarik hogoi ta zonbeit kilometreren bidean.

Aro ederra, ez baita gauza ttipia egun guzietz malobretan ibili behar denean. Sosarekin oraino gauza frangoren ukaiteko parada badugu, bederen edatekoa.

[...] Bide guziak tropen harat hunatek hartuak dauzkate.

Ikustekoak dira hemengo otomobil handien lerroak, ehunka baitabiltza, bat bertzearen ondotik, herrautsaren barnean, gizonak daramaztela Verdun-era, edo Verdun-etik pausura.

*Ez da dudarik guk ere egunak laburtuak ditugula, eta sartu beharko dugula laster karrosa handi hoiien barnean.*¹⁴⁴⁴

¹⁴⁴² Jean Elizalde, «Zeri gauden», *Eskualduna*, 1916ko urriaren 20a.

¹⁴⁴³ Jean Elizalde, «Noiz arte garen hemen», *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.

¹⁴⁴⁴ Jean Saint-Pierre, «Pausu luzea», *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 26a.

Pausa luzatzen ari zitzairen Saint-Pierreri eta bere ingurukoei, baina han gaindi ikusten zituen mugimenduetarik bazekien laster Verdunera joateko tenorea etorriko zitzaiea. Nahi bezainbat arno edo garagardo edateko parada eta eguzkiaren azpian ariketak egiten baina arriskutik kanpo zeuden unea bukatzen ari ziren; eta horrek lasaitasun giroari pisu berezia ematen zion.

Gisa berekoa zen ondoko pasarte horretan agertzen zen mezua ere:

Ez ahantz bizkitartean, goiz edo berant gudura goazila, zonbeit egunen deskantsua izana gatik gure armadan.

Bertzalde, gutaz bertzerik asko eskualdun bihar berean ikusiko ditugu hirrisku handienen erdian.

Orena halakoa dugu. Bertzelako ametsetan lokartzea gozoago litake, bainan are galgarriago.¹⁴⁴⁵

Somme ko lerroetatik idatzi zuen, 1917ko otsailaren 10ean. Gudura joatearen perspektibak kalte egiten zion atsedean guneetako lasaitasunari. Ez zitekeen kezkarik gabe egon, burua arranguraz josten zuen.

Borroka toki batera joan gabe ere, zegoen tokira borroka etortzearen menturak ere lasaitasun giroari kutsu berezia ematen zion, Argona eskualdeko Grurie oihanean bezala:

Geldirik gaudeno, ausartzia guti dute bertze aldeko auzoek ere. Bizkitartean, azken egun hautan iduri du berotu nahi duela guduak, eta kanoien orroa dohala azkartuz.

Entsegu handi baten egiteari lotzekoak baitira naski guziak, egun laburrak barne, bistan da kanoiak bederen alhatuko zaizkigula bortizki hemen ere: bertze deus handirik ez, ene iduriko.¹⁴⁴⁶

Grurie oihan inguruko geriza handiak aipatu zituen, eta Aisne aldeko lehen lerroekin konparatu. Aisne aldean lehen lerroetan egoten ziren bezala, gune hartan gutxi baizik ez zituzten bidaliko lehen lerroetara eta behar orduetan aterpe handietan jarriko ziren. Hala ere, etor zitezkeen kanoikadei garrantzia kendu nahi izan zien. Beste batzuetan etsaiak zer erasoren prestatzen ari ziren pentsaketan ari zirela eta kezkatuak zeudela aipatu zuen, horrek ere lasaitasun uneari halako kutsu berezi bat ematen ziola. Adibidez, negu betean, otsoen arriskuarekin konparatu zuen alemanen arriskua¹⁴⁴⁷. Hotza, negua eta gaua otsoen arriskuarekin lotuz, lasaitasun hark ez zuen deus lasaitik.

Baina Jean Saint-Pierrek baikor agertu nahi zuen, borroka edozein izanik ere, irabaziko zutelako segurtamena adieraziz. Alemanek egin izan zituzten aitzinamenduak gutxietsi zituen, azpimarratuz aliatuek berriz nagusitzea lortzen zutela:

¹⁴⁴⁵ Saint-Pierre, «Soldadoen galde bat». 1917/2/23.

¹⁴⁴⁶ Jean Saint-Pierre, «Gerla moldea», *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 7a.

¹⁴⁴⁷ Saint-Pierre, «Otso hilabete». 1917/2/9.

Dena den, lan bortitzena hemen izanen da. Orai artio bi ausiki eginik etsaia gelditua zauku. Verdun-en eta Champanan oldar bat hasi dueneko, muturreko bat atzeman du, hartu lurak galdu, eta geroztik kitzikan ari gira, bereziki Anglesen juntako lerroetan.¹⁴⁴⁸

Hurrengo gudua nork hasiko zuen gogoetatzerakoan, ez zen batere kezkatua nork hasiko zuen eta non, aliatuak alde orotarik nagusi zirela azpimarratu baitzuen¹⁴⁴⁹. Hau zen borroka gogorren mehatxuaren eztitzeko bidea. Edozer gertaturik ere, edozer jasanik ere, beti baikor agertu nahi izaten zuen, beti garaipenaz segur. Horrek ematen bide zion indarra, baina hori zen irakurleei mezu baikorra zabaltzeko bidea.

Gerla luzatu ahala, gerlaren alde txarrak agertzen hasi ziren *Eskualduna*-ko berriketarien kroniketan. Ez protesta gisa, ez gerlaren kontrako solas gisa, baizik eta kontakizun aski zintzoen baitan. Nahigabe bazen ere, gudura joatea ez zitzaiera gustatzen eta lubakietako egoera zinez gogorra zela islatu zuten haien artikuluetan. Lehen lerroak leku suntsituz beteak ziren, herri suntsituak nonahi; bigarren edo hirugarren lerroetan, etxeak osorik zituzten herrietan egoten ziren. Lehen lerroetan tiro bategatik edo bonba baten azpian hiltzeko arriskua anitzez handiagoa zen. Lehen lerroetan zikinak egoten ziren, lohipean, hotzak; gibel lerroetan garbi zitezkeen. Janaria ere desberdina zen batean edo bestean. Pausalekuetan besta egin zezaketen, josta zitezkeen.

Gerla gogorra zen, bai, eta lubakiez mintzatzea gertatzen zitzaientean, kronikak ez ziren biziki baikorrak. Ez ziren beti guztiz ezkorrak, eta gehienetan egoera zen baino ederrago aurkezteko joera bazuten. Tiroak edo bonbak jasaten bazituzten, azpimarratzen zuten haiek alemanak baino trebeagoak zirela eta nagusi zirela. Arratoiez mintzatzean, umorea ere agertzen zuten. Azkenik, jasateko zaila zena jasateko ere prest agertzen ziren. Beraz, alde ezkorra erakutsi zuten zenbait salbuespenen gaineratik, konfiantza eta deliberamendua ez zituztela galtzen erakutsi nahi izan zuten. Aitortzen zituzten baldintza txar haien gaineratik gerlarekiko leial jarraitzea bera astekariaren inplikazio handiaren erakusle zen.

¹⁴⁴⁸ Saint-Pierre, «Bi ausiki». 1917/3/23.

¹⁴⁴⁹ Jean Saint-Pierre, «Bota ala errefera?», *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 9a.

Zati honetan guztian aipatu dugun atal bakoitza xehekiago azter badaiteke ere, argazki orokor baten egiteko balio digu orrialde horietan zehar ikusi dugunak. Nola inplikatu zen *Eskualduna* astekaria Lehen Gerla Mundialean? Galdera horri erantzun ahal izateko elementuak ausarki eman ditugu. Gerlarekiko jarrera baikorra ala ezkorra zuen? Gerlarekin bat egin zuen ala kontra egin zuen? Argi da, zati honen azken atalari so eginez, galderaren erantzuna ez dela sinplea. Lubakiez mintzatzean eta, bereziki, lubakien eta pausalekuen arteko aldea aipatzean, errealitate gogorra zela erakutsi zuten. Ez zioten ihes egin gordintasun horri. Arratoien erdian bizitzea, zorritz betea egotea, egunak lohipean sarturik eta hozturik iragatea eta, gehiago dena, hori guztia jasatea noiznahi tiro edo bonba baten azpian leherturik hiltzeko arriskupean zeudela, nehork nahi ez zuen egoera bat zen. Irakurleek errealitate hori erakusten zuten kronikak irakurtzean, gerlaren irudi txarra egiteko aukera handia zegoen. Hastapeneko baikortasunak urrun zeuden. Baina soldaduak baimenez beren etxeetara etortzen hasiak ziren, berek ere gutunak igortzen bide zituzten etxe horietara, beraz *Eskualduna* ez zen informazio iturri bakarra, eta Jean Saint-Pierrek, *Zerbitzari*-k eta Jean Etxeparek kontatzen zituztenak beren etxekoen ahotik ere entzun zitzaizketen.

Lubakietako egoeraz idazten zutenean idazten zituzten artikulu ezkorrenak. Hala ere, kontatzen zutena baino egora jasangaitzagoa bizi zutela pentsa daiteke. Arratoiekin¹⁴⁵⁰ izan zituen nahigabeak umorez kontatu zituen *Zerbitzari*-k. Irri egiteko gogorik ba ote zuen arratoia sudurretik ausikika lotu zitzaionean? Hain segur ez, baina bere artikuluan modu arinean aipatu zuen. Bonben mehatxua, tiroak edo hegazkinen bombardaketak ere franko modu arinean kontatzen zituztela ikusi dugu, erakutsiz frantsesak nagusi zirela. Alkoholaren

¹⁴⁵⁰ Argitu behar dugu lan honetan arratoiak anitz aipatzearen arrazoia *Eskualduna*-ko idazleek berek anitz aipatzean aurkitu behar dela.

presentzia ere aipatu zuten. Rémy Cazalsen eta André Loezen arabera, egoera hura umorez hartzea «alaitasun artifiziala» zen, helburua gerlako «itsuskeriak ezitzea»¹⁴⁵¹ baitzen. Umore faltsu hura lubakietako egunkarietan ere islatzen zela diote. Egunkari haiek aitzindariak idazten zituzten, gehienetan, eta ez ziren soldaduek zinez bizi zutenaren isla, Loezen eta Cazalsen arabera. *Eskualduna* astekarian agertzen ziren artikulua eta lubakietako egunkarietakoak konparatu beharko lirateke ikusteko *Eskualduna*-ren aipuak zenbateraino umore faltsu horren arabekoak ziren eta zenbaterainoko antza zuten lubakietako egunkariekin. Soldaduek egiazki bizi zutena beren eguneroko liburuxkan idazten zuten, publiko egiten ez zenean. Hainbat historialarik nahiago izan dute eguneroko horiek aztertu, zinezko errealitatea jakiteko. Interesgarri litzateke ere *Eskualduna*-ko gutunak eta halako egunerokoen arteko testuen konparaketa egitea. Baina horrek berak beste ikerlan baterako mamia eskaintzen duenez, beste baterako edo gaia landu nahi duen batentzat utzi beharko dugu.

Ikusi duguna da lubakietako egoera gordina aipatzen zutenean ere, edo umorez aipatzen zutela batzuetan, edo indar harremana frantsesen aldera zegoela azpimarratuz erlatibizatzen zutela han jasaten zutena. Pausalekueetatik lehen lerroetara itzultzeko gogorik ez zeukatela aitortzen zutenean ere, ez zuten dudak ezartzen gerla egitera joan behar zutela.

Gerlaren ondorioak txarrak zirela aipatu zuten batzuetan, baina gutxitan. Verduneko gudutik landa Fleury herriko ikuspegi hain beldurgarria salbuespena zen berriemaileen artikuluetan. Ez zuten ia sekula aitortzen frantsesek gudu bat galtzen zutenean edo leku batean gibelatzen zirenean. Bai, aipatzen zituzten, baina behin zenbait denbora iragan ondoan eta galdua berreskuratu ondoan. Ez zuten gerlaren balorazio txarrik egiten, ez zuten Frantziaren irudia histuko zuen artikulurik egiten.

Alderantziz, beti baikor agertzen ziren gerlaren bukaerari begira. Ez zuten dudak ezartzen aliatuek irabaziko zutela. Hastapenean gerla laburra zela uste zuten, denek uste zuten bezala. Gerla luzatu ahala, bukaera iragartzera ahalegintzen ziren, beti epe aski laburrerako iragarritz, eta bereziki, beti frantsesen garaipena segurtzat joz. Bai, Etxeparek batzuetan frantses aitzindarien hautu estrategiko batzuk kritikatu zituen, aitzineko urte eta hamarkadetako jarrera politikoak ere bai, baina funtsean, horrek ez zuen dudak ezartzen haren inplikazioa. Kritikak arazoa behin gaingitu ondokoak ziren, edo bestela, barne politikaren baitan koka zitezkeenak, boterean zirenen eta oposizioan zirenen arteko edozein desadostasunen gisan. Noizbehinka ager zitezkeen kritika horien gainetik, bat egiten zuten

¹⁴⁵¹ Cazals eta Loez, *Dans les tranchées de 1914-18*, 217–218.

Frantziarekin, eta gerla ongi egiten ari zirelako eta irabaziko zutelako segurtamena transmititzen zieten irakurleei.

Alemanak aipatzeko modua bera ere inplikazioaren beste adibide bat zen. *Eskualduna*-koak alemanen etsai amorratu gisa mintzo ziren. Horretan ere, gainerakoek jarrera bera zuten: salbai eta abere batzuk bezala aurkezten zituzten etengabe. Ez inplikatzea litzateke alemana aleman deitzea, gainerako irainezko hitzak baztertuz. Etsaien lerroan jarriz eta abereen pare ezarriz, gerlan bete-betean inplikatzen zen *Eskualduna*.

Laburbilduz, horra nola inplikatzen zen gerla hartan, Frantziaren alde: gerlaren ardua guztia alemanen bizkar ezarriz, memento guztietan Frantziaren garaipena segurtatuz, Alemania lehertu arte bakerik nahi ez izanez, alemanak abereen lerroan jarriz, guduetan aitzinamenduak bakarrik aipatuz eta gibelatzeak berantarekin baizik ez aitortuz eta, azkenik, lubakietako egoera gogorra umorez erlatibizatuz. Hirugarren zatian ikusiko dugu egoera gogor horien onartzeak zer erran nahi zuen, zer asmorekin agertzen zen hain leial Frantziarekiko.

HIRUGARREN ZATIA:
NORTASUN
HIRUKOITZA

Argazki orokor batean erakutsi dugu nola inplikatu zen *Eskualduna* astekaria Lehen Gerla Mundialean. Baina euskal astekariak gerla nola aipatu zuen deskribatzeak interesa izan badezake ere, azterketa maingu geldituko litzateke, horretara mugatuko bagina. Interesgarri eta aberasgarri izan da ikustea zein zen gerlaz ematen zuen irudia, informazioa. Baina gisa batez, lehen zatian erantzun dugun galderaren ondorio logikoa ere bada. Ulertu dugu zergatik inplikatu zen: testuinguruak giro hartan kokatua zuelako, eta gerlaz nahi bezala hitz egiteko askatasun handirik ez zegoelako. Baldintza horietan, salbuespenak eta ñabardurak egon baziren ere, aski ulergarria da gerlaren aipatzeko modua gerlaren eta Frantziaren aldeko ildotik joatea. Baina horiek argiturik, eta *Eskualduna* Frantziaren ondoan eta frantses gisa argi eta garbi inplikatu zela erakutsirik, hedadura handiagoa du ondoko galdera honek: zertarako? Zertarako hartu zuen jarrera hori? Zein motibazioekin? Zerk bultzatzen zuen hain frantses agertzera?

Galdera horrek azterketa beste plano batean kokatzera bideratzen gaitu. Eta galdera horri erantzuteko, gerlari buruzko aipuetan nortasunaren gaia nola agertzen zen ikertuko dugu. Zein zen *Eskualduna*-ko berriketariak erakusten zuten nortasun ikuspegia? Elementu desberdinak ageri dira artikuluetan zehar, eta lan horien borobiltzeko, elementu horiek barnatzea beharrezkotzat jo dugu.

Alde batetik, interesa pizten du jakiteak nola uztartzen zen astekariaren izena, hizkuntza eta nortasuna bera, Frantziaren aldeko jarrerarekin. Nahiz eta frantses agertu, euskal nortasunaren zantzurik ageri ote zen *Eskualduna*-ko artikuluetan? Euskaldun izateari egiten zizkieten erreferentziak bildu ditugu hirugarren zati honetako lehen atal nagusian. Baina bereziki, erreferentzia horiek aztertu ditugu, hala nola nolakoak ziren, zer erakusten zuten euskal nortasunaz zuten ikuspegiari dagokionez, zer kontzientzia kultural islatzen zuten edota ea kontzientzia politikorik bazen. Horrek lagunduko gaitu ikusten zenbateraino erlatibiza dezakegun ala ez orain arte erakutsi dugun inplikazio sakon hori.

Hortik landa, frantses izaerari edo nortasunari egiten zaizkien erreferentzietan jarriko dugu arreta. Euskal nortasuna nola agertzen zuten azaldu ondoan, gauza bera egingen dugu frantses nortasunarekin, euskal nortasunarekin ere lotuz eta ikusiz ea bien arteko uztarketarik bazen. Horrekin batera aztertuko dugu zenbaterainoko kontzientzia politikoarekin erakusten zuten frantses nortasuna. Frantses edo gerlari on agertzearen asmo guztiak politikoak ote ziren?

Hirugarren atalak beste bide bat hartzen du, baina nortasunarekin lotua dela ikusiko dugu. Lehen bi ataletan ikus daiteke *Eskualduna*-koek euskaldun ala frantses ikusten zuten beren burua, edo beste gisa batez formulatzeko, euskaldunago ala frantsesago. Galderaren erantzuna aski konplexua dela ikusi ondoan, hirugarren faktore batekin egin beharko dugu lotura. Giristinotasuna ere nortasunaren arloan sartu dugu, ohartuko garen bezala giristinotasunari egiten zizkieten erreferentziak nortasun erreferentziazat jo baitzitezkeen. Erreferentzia horiek aztertu ditugu eta euskal eta frantses nortasunarekin izan zezaketen lotura ikertu dugu. Hain zuzen, azterketa bururatu ondoan agerian geldituko da hiru elementu horiek elkarrekin lotuak direla, eta horrek ezarriko gaitu tesi honen ondorioetara heltzeko bidean.

I. EUSKAL HERRIA LUMAREN PUNTAN

Nortasunaren gaia ikertzean, kasu honetan, giltzarri nagusia da Euskal Herria eta euskaltasuna nola agertzen ziren jakitea. Lehen galdera litzateke, bistan da, ea erreferentziarik agertzen zen; atal bat eskaini diogu, hain zuzen, euskal izaerak presentzia handia zuelako. Baina presentzia hori nolakoa zen? Zenbateraino islatzen zen? Zer ondorio kultural edo politiko zeukan? Gaineko irakurketa batetik azterketa finagoa egiterako garaian, bi atal nagusitan banatu dugu euskal izaeraren gaia, eta horiek ikusiz ohartuko gara zein zen *Eskualduna*-k euskaltasunaz zuen ikuspegia.

Gerlan zirenek Euskal Herria maiz aipatzen zutela ikusiko dugu. Hori bera euskaldun izatearen edo sentitzearen erakusle zen, argi eta garbi. Horrek erakusten zuen *Eskualduna*-koek ez zutela beren burua guztiz beste soldaduak bezala ikusten. Baina lehen zati batean ikusiko dugu Euskal Herriaren aipu horiek herriminarekin zutela lotura. Orogen buru, beraz, lehen zati hori herriminaren erakusketaren azterketa bat da.

Bigarren zatian jarrera politikoa aztertuko dugu gehiago. Erakutsiko dugu Euskal Herria edo Euskal Herriko gauzak maiz erabiltzen zituztela erreferentzia gisa. Ez gara argazki horretara mugatuko, erreferentziak ematen zituztela erratea ez baita nahikoa. Horrekin ikusiko dugu erreferentzia horien gibelean zer ideologia edo jarrera politiko gordetzen edo agertzen zen.

Hori azterturik, *Eskualduna*-rentzat euskaldun izateak zeukan garrantzia nolakoa zen argituko dugu, eta horrek bidean jarriko gaitu gero jakiteko euskal izaera horren zer erabilera egin zuten.

A. Herrimina

Zati honetan agertuko da zergatik jarri dugun Euskal Herriari buruzko aipuen azterketaren zati handi bat «herrimina» izenburupean. Herrimina baino zerbait gehiago ageri da, baina oro har, Euskal Herriaren aipuen zati handi batek urrunetik edo hurbiletik herriminarekin zerikusia zuelako egin dugu banaketa hori. Herrimina da etxetik eta herritik urrun egoteak eragin dezakeen tristura. Kasu honetan, Jean Saint-Pierre, *Zerbitzari*, *Oxobi* eta abar Euskal Herritik ehunka kilometrotan zeuden, are gehiago, gerlan, baldintza gogorretan, lehen ikusi dugun bezala. Euskal Herriaren aipua eta herriminaren agerpenak testuinguru horretan ere kokatu behar dira, noski. Baina guk, herrimin hori nola agertu zen aztertuko dugu.

Batetik, herriaz eta, oroz gainera, etxeaz eta etxekoez gogoratzen zirela erakutsiko dugu. Komeni da sentimendu horrek zenbateraino euskal berezitasuna markatzen zuen ala ez zehaztea. Bigarrenik, euskaldunak elkarretaratzen zirela ere ikusiko dugu, horren erakusle ziren hainbat pasarteren bidez. Jarrera horren arrazoiak eta berezitasunak ere iruzkinduko ditugu. Hirugarrenik – eta hori ere herrimin gisa ikusi dugu – aztertuko dugu gerlako lekuetan edo inguru haietan Euskal Herriaren presentzia nola agertzen zen, ohituren bidez.

I. Etxea

Urrunetik hurbilerako bide batean jarriko gara atal honetan, ez baita etxeaz bakarrik izanen solasa. Hasteko, ikusiko dugu gerla lekutik idazten zutenek – eta haiek kontaktzen zutenaren arabera, gerlan zirenek – zenbat aldiz izaten zuten gogoan Euskal Herria. Baina Euskal Herria kontzeptu zabala izan daiteke, eta bigarren puntu batean zehaztuko dugu gehienetan Euskal Herriko bazterrak izaten zituztela gogoan. Eta horrekin hurbilduko gara etxeoko sukaldera, eta erakutsiko dugu zenbat aldiz gogoratzen ziren etxeaz eta ahaideez.

a) Euskal Herria gogoan

Euskal Herritik ehunka kilometrotan hainbeste hilabete iraganik, euskaldunek Euskal Herria maiz gogoan zutela erakutsi zuten Jean Saint-Pierrek eta *Zerbitzari*-k. Hori bera herrimin baten seinale zen. Horren adibide garbia da Saint-Pierrek han gaindi ikusi zuen auto batean Euskal Herriko herri baten izena irakurtzean bihotza «pil-pil» jarri zitzaiola

kontatu zuen anekdota. Konkretuki «Brisconsin» (Beskoitze) idatzia zen ibilgailu hartan¹⁴⁵². Soldaduen lekukotasunen berri eman zuen Blaise Adéma ere, eta erakustera eman zuen gerlako tokietan zirenek Euskal Herriko berriak estimatzen zituztela gain-gainetik. Adibidez, batek aipatu zuen *Eskualduna* irakurtzea eta euskaraz irakurtzea zinez eskergarri zitzaioela:

[...] Atsegin dugu holako hitzak entzuteaz. Ezen gure lan hau hainiz nakaitz-garria liteke guretzat, ez baginaki zer zorion emaiten dugun bihotz hainitzetan. Eta, gerla hasiz geroz, gehienik sustatzen gaituena hau da : jakitea gure soldado eskualdun maiteen gogoa arrai emaiten dugula apur batentzat, hemen gure mintzaira gochoan ezartzen ditugun berri eta solasekin. Sari hori aski zaiku gure lanari gogo onez beti aitzinat jarrekitzeko, Jainkoak nahi duen arte.¹⁴⁵³

Beste bat poztu zen bere herriko berriak irakurtzen zituelako:

«Eskualdun kazeta urrun hartarat heldu zaiotelarik gure soldado eskualduneri, bakotchak lehen-lehenik bilatzen du aipu denetz haren herriaz. Begietarik ageri du eia atzeman duen ala ez. Atzemaiten duelarik, irri gozo bat heldu zaio, eta ezdeuseria bat izana gatik, bozkariatua da. Bere herriaren izena bera hor irakurtzeak arintzen dio bihotza egun guzikotz.¹⁴⁵⁴

Adéma soldadu baten gutun zatia jarri du, jendeari herriko berriak igortzea eskatzeko. *Eskualduna*-ren garrantzia ez zuen bakarrik Adéma azpimarratu. *Zerbitzari*-k eta Saint-Pierrek ere argitu zuten astekari hori zela Euskal Herria gogora ekartzeko elementu nagusia. Euskaldunentzat poz iturri zen astekari horren eskuratzea, horrek erran nahi baitzuen beren herriko berriak jakin ahal izanen zituztela. Saint-Pierreraren arabera, *Eskualduna*-k berrehun ale igortzen zituen gerla tokira, eta euskaldunek errabiaturik irakurtzen zuten; zehazkiago, batek ozen irakurtzen zuen eta hamarrek entzun:

Lurpeko barne ilhun hetarik batean Eskualdun kazetak berehala bihotzak argitzen ditu eta arintzen: «To, Eskualduna!... Irakurrak hik, Beñat... Ea zer dion!»

Ordu berean, bortz, sei, hamar gizon eta gehiago, Eskual-herriko berriari buruz ahoa zabaldurik daude, lagun bat ari delarik irakurtzen, emeki, hitz bat edo bertze uzkailez, bethi aintzina, bar, bar, bar...

Bakotchak bere herriaren izena maizago nahi luke begiz ikusi, han, bere hitz handi larriekin.¹⁴⁵⁵

Euskal Herriko astekari horren eskuratzearen eta lurpeko egoeraren arteko kontrastea markatu zuen hor Saint-Pierrek. Bateko iluntasuna eta besteko argitasuna azpimarratu zituen, gisa horretan Euskal Herriko berrien eskuratzeak bihotzari ematen zion berotasunaz ohartaraziz. Etxeko andereei galdetu zien eskuratzen zuten *Eskualduna* alea ez zezaten irakurri eta sura bota, baizik eta gutun-azal batean sartu eta soldaduei igorri. Funtsean, herriko berriak jakin nahi gorri horretan edo bakoitzak bere herriaren izena ikusi nahi

¹⁴⁵² Jean Saint-Pierre, «Beskoitzeko karrosa», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 26a.

¹⁴⁵³ Blaise Adéma, «Soldadoak», *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 26a.

¹⁴⁵⁴ Blaise Adéma, «Berriketariak», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 17a.

¹⁴⁵⁵ Jean Saint-Pierre, «Eskualdun kazeta», *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 30a.

horretan ere ageri zen herrimina. Astekari horrek soldadu euskaldunen artean zeukan arrakastaz mintzatu zen *Zerbitzari* ere. Zegoen herriko saltegi batean *Eskualduna*-ren bi ale saldu zirela kontatu zuen behin¹⁴⁵⁶. Astekari horretako parte hartzailea zenez gero, ulergarri da atxikimendua erakutsi ziezaion, baina atxikimendu horren gibelean, Euskal Herria gogoan zuela ere erakusten zuen.

Astekari hark ekartzen ziena idatzi zuen beste behin, soldaduen euskarazko astekari baten sortzeko ahalegina egin zutela baina ideia bere gisa utzi zutela kontatu zuenean:

Eskualdun gerlariek kaskoinek bezala egiteko, kazeta berri bat egiter dutela...

Eta, chede horren bururatzetik, zerk othe ditu gibelatu? Oh, gauza gutik, arras gutik!

Eskatu zaizkote berrikeriak: eskatu imprimatzailea: eta azkenekotz, berri hartzeko, papera. Ez deus batentzat baginuen beraz hemen ere kaseta Eskualduna bezen ederra. Damu da ez baita sortu.

Ez zaukun haatik Eskualdunak bezala, aste guziz herriko aire on hartarik bere lerroetan ekarriko...

Hortako baizik ez balitz ere, nola ez maita gure Eskualduna!¹⁴⁵⁷

Euskarazko aldizkari baten sortzeko ideia horrek aditzera ematen du soldaduak euskararen edo euskal komunitatearen inguruan biltzen zirela, baina ahalegin baizik izan ez zenez, *Zerbitzari*-ren aipu honetan interesgarriagoa iruditu zaigu *Eskualduna* astekariak nola asetzen zituen. Zer da astekari horretatik azpimarratu zuena? «Herriko aire ona». Hots, astekari hori ez zuten preziatzen gerlako berri orokorrak ematen zituelako, baizik eta beren herriko berriak ematen zituelako. «Airea» hitzarekin, hala ere, berriak baino gehiago zekartzan *Eskualduna*-k. Ez zen hainbeste ageri herrian zer gertatzen zen jakin nahi zutela, baizik eta lerro haien bitartez, beren herria hurbilago sentitzen zutela eta hurbiltasun hori bilatzen zutela. Hain zuzen, astekariari Euskal Herriko herrietako berrien igortzeko eskatzen zioten, oroz gainetik¹⁴⁵⁸.

Horiek hola, ezin da ukatu *Zerbitzari* eta horien kronikak irakurtzeko ere preziatzen zutela *Eskualduna* soldaduek, *Zerbitzari*-ren artikulua batean ageri zen bezala. Hainbat egunez lur azpiko galerietan egon ondoan, behin euskaldun batekin gertatu zen buruz buru:

Egun, Aphiirilaren 25 garren egun edo gau huntan, tente bidechka baten erdian nindagon, laminak nun ikusiko nituen noiz-eta ere ilhumbetan norbeit hurbildu baitzaut.

Zer zoriona! Eskualdun bat nuen, Hazparne Brioutegiko seme Edouard, bere bidea galdurik zabilana?¹⁴⁵⁹

¹⁴⁵⁶ Jean Elizalde, «“Eskualduna» gerlan», *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 16a.

¹⁴⁵⁷ Jean Elizalde, «Ez dakizue berri?», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 17a.

¹⁴⁵⁸ Jean Elizalde, «Huntan akhabo», *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 19a.

¹⁴⁵⁹ Jean Elizalde, «Eskualdunaz orhoit den bat», *Eskualduna*, 1918ko maiatzaren 10a.

Egun haietan zinez jende gutxi ikusi zuela kontatu zuen, eta euskaldun baten gurutzatzeak eragin zion zoriona agerian utzi zuen. Baina hortik harago, gurutzatu zuen euskaldun horrek galdetu zion zergatik ez zuen aspaldi *Eskualduna*-n idatzi. Horrekin erakutsi nahi izan zuen astekariak euskal soldaduen artean zeukan atxikimendua. Erne ibili behar da astekariak Euskal Herriko soldaduen artean zuen arrakasta zenbaterainokoa zen ondorioztatzerakoan. Gisa batez, *Eskualduna*-ko idazleak beren astekariak mintzatzea eta astekari horren arrakasta goraiatzeko aritzea ez da harrigarri, baina ez da elementu nahikoa joera orokorrak ezagutzeko. Guri interesatzen zaiguna da, besteak beste astekari horren aipuen bidez, Euskal Herria gogoan zutela eta gisa bateko herriminaren presentzia aitortzen zutela.

Euskal Herria gogoan zutela ez zuten euskaldunen bidez bakarrik adierazten. *Zerbitzari*-k airetakoak miresten zituela ikusi dugu lehenago. Maiz aipatu zuen hegazkinak gidatzen zituen Guynemer soldadua. Aldi guzietz azpimarratu zuen Euskal Herria eta euskaldunak maite zituela¹⁴⁶⁰. *Zerbitzari*-k horrekin erakusten zuen Euskal Herriak zer presentzia zuen bere bihotzean. Euskal Herria gogoan izate horrekin azpimarratzen zuten beren nortasuna ez zela beste soldaduen.

b) Euskal Herriko bazterrak

Euskal Herria gogora ekartzean, paisaiaren edo bazterren garrantzia handia zela ohar gaitezke. Hainbat aldiz ekartzen zituzten gogora Euskal Herriko mendiak eta itsasoa. Jean Saint-Pierrek Euskal Herriaren edertasuna goraiatzeko zuen, eta kasik iduri zuen Euskal Herrira itzuli nahi izatea hango bazterren ikusteko plazerak eragiten zuela gehienik:

Hunat heltzeko mendietan gaindi gabiltza Eskualduna laster alegeratzen du mendiaren itzal nasaiak, mazela baten hegalean gordea dagon bazter etche pollitak, oihan handien pherdeak.

[...] Gure mendiek badute zoin bere moldea; horra zertako diren begien choragarri, batetik bertzero itchura berrian jarriak baitira, batzu kaskoa chut, harroka idor jauntzian, bertze batzu pisuago, lurraren mamiaz aski gizen, arthalde leku hautak, orok hain ederki zeru gaina pikatzen dutela, nun iduri bailuke norbeitek lantuak dituela bere eskuz gure egoitzaren edergailu. Nehun baino minago hemen dugu bihotzaren deia entzuten; hemendik bihotzak dio: Zoaz Eskual Herrira!¹⁴⁶¹

Bihotzaren deia, «Zoaz Eskual Herrira»¹⁴⁶² aipatu zuen mendiak aipatzean. Euskaldunek mendiak ikusi nahi bide zituzten, eta oroz gainetik beren mendiak. Kasu

¹⁴⁶⁰ Jean Elizalde, «Airetakoak», *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 12a.

¹⁴⁶¹ Jean Saint-Pierre, «Mendietan barna», *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 20a.

¹⁴⁶² Jose Mari Iparragirreraren «Gazte-gaztetatikan» bertso sortako «Herrialde guzietan toki onak badira, bainan bihotzak dio zoaz Eskual-Herrira» esaldia ageri zen *Eskualduna*-ren zenbaki guztietan, orrialdearen gaineko

horretan, herrimina leku ederren faltak eragiten zuen, ikusmenari loturikoa zen. *Zerbitzari*-k ere maiz aipatu zituen Euskal Herriko mendiak, eta baita itsasoa eta eguzkia ere. Euskal Herrira bisita egiten zuenean eta handik gerlara itzultzen zenean, Euskal Herriko lekuak zituen goraiatzeko, haiek zioten indarra ematen eta haiek zioten falta egiten:

Oraidik, nere agurra igortzen dut herritar guziera. Agur ere, Eskual-Herriko mendi zabalak: agur, gure itsaso ederra. Milesker bihotzean emanen dautazuen gozoarentzat. Zuek utziz hunat itzultzeko, negar bat erortzen balitzaut begitik harritzeko othe litake? Hain maitagarriak zaizte guziak! Agur eta biba nere Herria!¹⁴⁶³

Ez zituen mendiak aipatu bakarrik, eta negarra ez zien eragin mendiak berriz ez ikusteak, edo ez horrek bakarrik. Bistan da, herritarrak aipatu zituen, baina baita itsasoa eta mendiak ere. Oraintxe aipatu dugun pasarte hori Euskal Herrira permisionez itzuliko zela iragartzeko idatzi zuen artikulu batekoa da. Erran nahi izan zuen ondoko astean ez zuela gerlako lekutik berririk igorriko. Baina ondoko astean ere artikulu bat idatzi zuen, laburra, haatik. Euskal Herrian zela eta han zein goxo zen idatzi zuen. Baina orduan ere mendiak, itsasoa eta eguzkia zituen bihotzean. Badirudi Euskal Herriarenganako atxikimendua materiala zela, bazterretara eta eguzkira mugatzen zela:

Oi, zoin gocho den Eskual-Herria hoinbertze dembora urrun igon denarentzat! Hemengo begitharte maiteak! Hemengo iguzki ederra! Hemengo aire gozoa! Hemengo itsaso urdina! Hemengo mendi zabalak!¹⁴⁶⁴

Euskal Herriko bazterren eta gerlako eremu zelai eta suntsituen arteko kontrastea agerian gelditu zen pasarte horiekin, eta ez zuen gorde zer plazera sentitu zuen leku hits haiek utzirik, bere mendi, itsaso eta bazterrez – eta jendeaz – gozatzean. Hain zuzen, horrelako kontrastea egin zuen 1918ko irailean¹⁴⁶⁵. Gerlako lekuak hitsak zirela erratea zerbait da. Ez zen gehiago gerlaren edertze handirik sumatzen. Baina Euskal Herriaren maitasuna bazterretara mugatzen zuela ere azpimarratu dugu. Bere bazterretatik urrun izateak eragiten zion herriminaz mintzatu zen zenbait aldiz, adibidez, batzuetan tabakoa errez tristurak ahanzten zituela idatzi zuen artikuluan, tristura hori nabari zitzaion:

Bizia laburra da eta bizkitartean orenak luze zauzku hemen. Nolazpeit herriko mina ahantzi behar. Pipa makur bat ahoan ditugu gure bihotzminak ahanzten, erre eta erre.¹⁴⁶⁶

Herriak gogora ekartzean bazterrak azpimarratze horrek badauka azalpen sakonagoa. Hubert Pérèsen ustez, objektuak, paisaiak eta esperientzia sensorialak norbanako

zatian, prezioaren eta dataren ondoan. Esaldi horren ezartzea aipatu zuen Hiriart-Urrutik: Manex Hiriart-Urruti, «Biba eskuara», *Eskualduna*, 1891ko azaroaren 13a.

¹⁴⁶³ Jean Elizalde, «Azken solasa oraia», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11.

¹⁴⁶⁴ Jean Elizalde, «(Izenbururik gabe)», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 18a.

¹⁴⁶⁵ Jean Elizalde, «Eskual herrian», *Eskualduna*, 1918ko irailaren 27a.

¹⁴⁶⁶ Jean Elizalde, «Azken hitza», *Eskualduna*, 1917ko urriaren 19a.

nortasunaren parte dira¹⁴⁶⁷. Anne-Marie Thiesserek gehitu du paisaiak, geografia, historia edo lur eremu hartako produktuak «aberri txikiaren» elementuak zirela:

Des paysages, une géographie, une histoire, des produits du terroir, des hommes illustres et un folklore: tels sont les éléments, en relation d'analogie, d'une petite patrie. Relation d'analogie plutôt que complémentarité car les divers marqueurs identitaires d'un terroir sont supposés n'être pas le fruit du hasard. Ils sont censés émaner de la même force créatrice, qui détermine les hommes tout autant que la terre et ses produits.¹⁴⁶⁸

Thiessek azpimarratzen duenean horiek guztiak aberri txiki guztien ezaugarriak direla, eta «indar sortzaile berak» eragin zituela, aditzera ematen du bazter eta ohitura horien guztien gainetik Jainkoa zegoela. Beraz, Euskal Herriko mendien goraiapatzea ez da alde materiala ikusi behar, ez da begien plazera ikusi behar, baizik eta aberri txiki horren nortasunaren alde bat eta, hori baino gehiago, Jainkoak sortu eremu horrenganako atxikimendua.

c) Etxekoak gogoan

Euskal Herriko bazterrak eta Euskal Herria gogoan zituztela ikusi dugu, baina ikusi dugu ere grina oraino hurbilagoko eskala batera mugatzen zela, hala nola soldaduek beren herria bera zutela gogoan, bereziki, Euskal Herria baino gehiago. Bakoitzak bere herria gogoan izatearekin batera, ikusiko dugu oraino eskala mugatuago batera heltzen zela soldaduen herrimin hori. Hain zuzen, Euskal Herriak edo euskal herriek presentzia baldin bazuten ere, soldaduen aipuetan etxeak ere bazuen presentzia handia. Jean Saint-Pierrek maiz aipatzen zuen etxea bera, elementu ezberdinekin. Maiz ageri zen elementu bat janariari lotua zen. Adibidez, permisionez Euskal Herrian egonik itzuli zirenen berri ematean ere, janariak presentzia handia zeukan. Itzuli zirenak xingar eta piperrekin itzuli zirela kontatzen zuenean ageri zen hori¹⁴⁶⁹. Janari horiek etxeko jatekoa zekarten gogora. Beste batean, oihan batera joan eta onddoak biltzen ibili zirela kontatu zuen: bi euskal erregimentu Champagne aldera igorriak zituzten, eta han onddoketa ibili ziren. Medikuek ez omen ziren fida, pozoitzearen beldurrez. Soldadu bat onddo prestatzen ari zen batez, aitzindariak ikusi zuen eta zortzi egunez zigortu. Saint-Pierrek, ordea, azpimarratu zuen euskaldunek arras ongi bazekitela

¹⁴⁶⁷ Hubert Pérès, «Individus entre village et nation. Une expérience identitaire dans la formation de la France républicaine» (doktorego-tesia, zuz. Albert Malabieau, Université de Bordeaux I, Institut d'Etudes Politiques, 1993), 216.

¹⁴⁶⁸ Thiesse, *Ils apprenaient la France: l'exaltation des régions dans le discours patriotique*, 34.

¹⁴⁶⁹ Jean Saint-Pierre, «Permisioneak», *Eskualduna*, 1915ko agorrilaren 13a.

onddoak zer ziren¹⁴⁷⁰, eta hori azpimarratuz, Euskal Herriko kulturari eta jakintzari erreferentzia egin zion. Hots, etxeko janaria eta ohitura ekarri zituen gogora.

Blaise Adémak dei bat egin zien Euskal Herriko familiei, bere editorial batean, baizik eta soldaduek nahi eta behar zituztela Euskal Herritik igorri gauzak, Euskal Herria gogora ekartzeko:

Orhoitzen da bere etcheaz, hango jauntzi eta oinetako idorrez, hango ohe beroaz, hango subazter chokoaz, eta bihotza ttikitzen zaio.

[...] Eta gure ganik etorriko zaioten orhoitzapenak on handia egingen diote bihotzean, lagunduko ditu hormaren, elhurraren, ichtilaren hobeki jasaiten.¹⁴⁷¹

Janariaz gain, etxeko berotasuna zen soldaduek etxetik falta zutena, Adémaren arabera. Ondoko astean, irakurleei ideia batzuk eman zizkien, jakin zezaten zer igor. «Euskal Herriko usain zenbait» zuten gauzak igortzeko eskatu zuen, hala nola piperra edo, zerria hil ondoan, lukainkak eta xingarra¹⁴⁷². Hori zen soldaduei «pairamena eta mina» ahantzarazteko bidea. Ongi ohar gaitezen zer janariz ari zen: etxeko janariaz, etxeko usaina zuenaz. Nahiz eta etxekoek eskura zutena igortzea zen gauza errazena edo normalena, Adémak ez zuen horregatik erran igortzeko, baizik eta etxekoa izateagatik etxea gogoraraziko zieten gauzak zirelako. Hori, hala ere, aski orokorra zen, François Cocheten arabera:

Le réconfort apporté par les membres de la famille restés au village n'est pas seulement d'ordre psychologique. Les lettres colis reçues de l'arrière, sont autant de madeleines proustiennes qui permettent la remémoration non seulement des visages aimés mais également des odeurs, même si la distance à parcourir les a rendus davantage prégnants qu'à l'accoutumée.¹⁴⁷³

Hots, Cochetek ere azaltzen du Blaise Adémak aipatu zuen etxeko usainaren garrantzia. Janaria ez zen beti egoera onean heltzen, ordea, Pierre Miquelen arabera, maiz fruitu edo barazkiak igortzen baitzituzten eta bidean andeatzen baitziren¹⁴⁷⁴. Baina *Eskualduna*-k ez zuen janariaren andeatzearen aipurik egin. Dena den, horren gainetik zegoen dena. Baconnier, Minet eta Solerren arabera, janari haren balioa sinbolikoa zen, etxekoak gogora ekartzeko balio zuelako:

De cette nourriture, on peut donc dire qu'elle a d'abord valeur de symbole : des rêveries accompagnent son attente, sa réception, sa consommation, de sorte que l'on absorbe avec elle – et grâce à elle, quelque chose du pays natal, des sentiments familiaux, des jours anciens de paix. La matérialité des

¹⁴⁷⁰ Saint-Pierre, «Eta hemen?». 1916/9/22.

¹⁴⁷¹ Adéma, «Ez ahantz». 1916/12/8.

¹⁴⁷² Blaise Adéma, «Noiz egor?», *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 15a.

¹⁴⁷³ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 201.

¹⁴⁷⁴ Miquel, *La grande guerre au jour le jour*, 193.

*aliments est toute imprégnée de sentimentalité, et cette communion qu'est le repas, les combattants la recréent spontanément sur le front.*¹⁴⁷⁵

Janariaren eta etxeoenganako sentimenduaren arteko lotura hertsi horren adibide garbia da ondoko pasarte hau:

*Atzo, bi arroltze atzemanik, lagun batekin partitu ditut. Etzuen jan arroltze bat oraino, gerlarat joanez geroz. Huna zer erran dautan berak: "Agorrilaren bian ikusi nituen azken arroltzeak: amak: emanik partitzean, goizean goiz... Han berean utzi nituen"*¹⁴⁷⁶

Lehenago ikusi dugu janariak leku handia zuela *Eskualduna*-n idazten zuten soldaduen kroniketan. Goiko pasarte hori aipatu dugu lehenago; inauteri garaian idatzia zen, eta kruxpetei buruz ari zen. Baina oraingo xedea ez da janariaz beraz aritzea, baizik eta janari horren aipuak zekarzkien oroitzapenez. Arrautzarik ez izateak amaren oroitzapena piztu zion soldadu bati. Agorrilaren 2a mobilizazio eguna izan zen, eta esaldi labur horretan nabari zen etxetik joan eta ama agurtzeak zuen karga. Arrautzak ez ziren inportanteenak, funtsean, «han berean utzi» zituen. Arrautzak etxea eta familia ekartzen zituen gogora, eta hor ageri zen minaren pisua.

Ez ziren janariarekin bakarrik gogoratzen etxeaz. *Zerbitzari*-k behin baino gehiagotan erreferentzia egin zion etxeko supazterrari:

Neguko hotz handietan, etxeko supazterrean zenbeit egun berotzea, zer plazera!

Oi, neguko arratsak, supazter chokoan

Haizea ari dela hichtuka kampoan,

Atheak hertsirikan, suaren ondoan,

*Elgarri kontra guziak berotzen sukaldean!*¹⁴⁷⁷

Neguko artikulu horretan, Euskal Herrira permisionez itzuli zela idatzi zuenean, bertsoa egin zuen etxeko supazterra goraiatzeko. Herrimina diogunean, ohartu behar dugu etxeko supazterrak zuen garrantziaz. Ez bakarrik supazterrak, baizik eta sukaldeak, eta denak elkarren kontra berotzeak. Hots, supazterra eta sukaldea funtsezko lekuak ziren; berotasun fisikoaz gain, bihotzeko berotasuna ekartzen zuten. Horren adibide da ondoko esaldi hau:

*Euriak euriari, hotz minenekin, tente kampoan egotea, chichpa eskuan, supazter chokoan, amacho ichtorio kondari, hain gocho litakelarik, dorphe zaiku.*¹⁴⁷⁸

¹⁴⁷⁵ Baconnier, Minet eta Soler, *La Plume au fusil. Les poilus du midi à travers leur correspondance*.

¹⁴⁷⁶ Saint-Pierre, «Kruspetak». 1915/2/26.

¹⁴⁷⁷ Jean Elizalde, «Permisioneak», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 24a.

¹⁴⁷⁸ Elizalde, «Zaharrak berri». 1917/12/7.

Zerbitzari-k kontraste handia egin zuen gerlariak kanpoan jasaten zuten hotzaren eta etxeko supazterraren artean. Baina etxeko supazter horretan ez zen bakarrik aterpea eta berotasuna, baizik eta amaren presentzia, haren istorioekin. Eta ez ama, baizik eta «amatxo», ttipitzaile eta amultsutasun horrekin. Ttipitzaile horrekin, etxekoen falta are handiagoa zela erakutsi zuen *Zerbitzari*-k.

Oxobi-k gerla leku inguruko emazte zaharrak nolakoak ziren aipatzean, Euskal Herriko amatxiekin konparatu zituen. Itxura guztien arabera, kexu zen hango biztanleek gauzak biziki kario saltzen zizkietelako eta ez zirelakoan maitagarriak:

Ez du hunek egite izpirik hoin maite ditugu Eskualherriko amatchi gaichoen.

Ez du hunek behin ere supazter chokoan haurñoa lokharrarazi, hamar, hogoi aldiz eztki ziolarik:

Arri arri mandoko

Bihar Iruñerako...

Ez du gogorik ez du bihotzik diruarentzat baizik. Dago bethi nola pagaraziko daukun bost libera edo gehiago hiru liberetan erosi arrotzeak, nondik ebatsiko daukun ogi ophil bat bere oiloen asetzeko edo pinta bat arno bertze soldado batzuer salduko duena gero.

Eta holako batekin bizi behar! Bainan gutaz bertze zenbeitek ikasia baitute atsoaren aztaparren berri dagola geldi geldia ez badu Frantzia barneko jauregien itzala jastatu nahi.¹⁴⁷⁹

Euskal Herriko amatxi ez zuen hala ikusten, supazterrarekin lotzen zuen, haurra goxoki lokarrazten zuen pertsonarekin. Berez, pasarte horrek ez zuen etxekoen falta edo herrimina adierazten, baina amatxiren presentzia hark urruntasun hura eta haurtzaroaren oroitzapena zekartzan. Jean Saint-Pierreren ondoko adibide honetan ere ederki islatu zen etxekoen edo maiteengandik urrun izatearen mina:

Eta ilhutzetan, elizakoak egin ondoan, ostaturat biltzen ginelarik, behar ginuela baso bat arno hartu, – ez baitzen orai bezain kario – zoin laket zen bi chuberotarren entzutea, ziotelarik:

«Maitia nun zira,

«Nik etzutut ikusten,

«Ez berririk jakiten,

«Noura galdu zira?»

Hitz dautzuet arrats hetan ez nintzela lo gose.

Nun ditugu orai gure menditar gaizoak? Urrun dituzte maiteak.¹⁴⁸⁰

Saint-Pierreren kontakizun horretan ageri da «Maitia nun zira» euskal kantu tradizional ezagunaren kantatzeak ez duela indar bera egoera batean ala bestean. Zenbat bazkaritan, elkarretaraztetan edo bestetan ez da kantatzen, gaur egun ere, kantu hori?

¹⁴⁷⁹ Jules Moulier, «Atso bat», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 1a.

¹⁴⁸⁰ Jean Saint-Pierre, «Eskualdun: fededun», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.

besterik da, etxetik ehunka kilometrotan, egunero hiltzeko arriskuan egonez kantatzea. Saint-Pierrek ongi adierazi zuen hori kantatzen edo entzuten ari ziren bitartean, soldadu bakoitzak bere maiteak zituela gogoan, emaztegia edo etxeoak. Baina bihozmin handia islatu zuen.

Hots, herrimina oroz gainetik etxearenganako sentimenetan oinarritzen zen. Eta Gérard Baconnier, André Minet eta Louis Solerrek diotenaren arabera¹⁴⁸¹, soldaduek beren gutunetan beren hizkuntzako hitz batzuk idazten zituztenean, katalanez adibidez, «hitz goxoak» edo «bihotzeko hitzak» sartzeko izaten zen. Hizkuntzek alde afektiboa zeukaten, maitasunari lotua.

Herrimina ez zen bakarrik etxeoak falta izatea, baizik eta etxetik urrun egoteagatik etxeoek zuten penaren adierazpena ere bai. Soldaduak gerlan zeuden bitartean, eta are gehiago pausan ziren bitartean, etxeoak lanean ari zirelako pena adierazi zuen *Zerbitzari*-k, hots, lanean ez izateko errudun sentimendua:

*Hameka gogoeta egiten dugu. Hoinbertze egun deusik egin gabe hemen iragaitea, Eskual-Herrian gure beharra dutelarik, latz iduritzen zaiku.*¹⁴⁸²

Kezka hori ere nahiko ohikoa zen. Paul Lazarsfeldek esplikatu du baserri mundukoek hirikoek baino atsekabe gehiago zeukatela. Soziologo batzuen ustez, maila intelektual handiagokoei eta hiritarrei, baserritarrei eta maila intelektual apalagokoei baino gogorrago egin zitzaien gerla jasatea, besteak beste baldintza gogorretara ez zirelako laborariak bezainbat ohituak. Hori gezurtatu zuen Lazarsfeldek, baserritarrek kezka handiak zituztelako, baserriko lanak ezin eginak eta etxeo emazteen gain uzteak hiritarrei baino kezka handiagoak eragiten zizkietelako:

*P. Lazarsfeld dressait alors une série de constats contre intuitifs : étaient en réalité les soldats à faible niveau d'études qui présentaient plus de troubles, psychologiques, de même que les ruraux, pensant aux moissons et autres travaux de la ferme qui nécessitaient leur présence, souffraient davantage de l'éloignement que leurs camarades urbains.*¹⁴⁸³

Jean-Jacques Beckerrek ere azaldu du soldadu gehienak laborariak zirela eta beraz egoera fisiko zailenetara ohituak zirela, baina kezka handia zutela beren etxaldeko lanak

¹⁴⁸¹ Gérard Baconnier, André Minet eta Louis Soler, «Quarante millions de témoins», in *Mémoires de la Grande Guerre. Témoins et témoignages, Actes du colloque de Verdun, 12, 13, 14 juin 1986*, ed. Gérard Canini (Nancy: Presses Universitaires de Nancy, 1989), 141–169.

¹⁴⁸² Elizalde, «Zaharrak berri». 1917/12/7.

¹⁴⁸³ Nicolas Mariot, «Faut-il être motivé pour tuer? Sur quelques explications aux violences de guerre», *Génèses* 53 (2003): 154–177. Zati honetan Paul Lazarsfeld-en teoria aipatzen du: Paul Lazarsfeld, «The American Soldier. An Expository Review», *The Public Opinion Quarterly* 13 (1949): 379–380.

ongi joateaz eta emazteei aholku zehatzak ematen zizkietela, gutunez¹⁴⁸⁴. Testuinguru horretan kokatu behar da *Zerbitzari*-k agertu kezka, hala nola etxeoak lanean ari zirela jakitearena eta berek ezin lagundu izana.

Beste kezka bat ere bazuten soldaduek, *Zerbitzari*-k adierazi zuenaren arabera. Soldaduek sufritzen zuten pentsatuz beren etxeoak sufritzen ari zirela, gerlan zirenengatik, gerlan zirenei gertatzen zitzaizkien kezkatuak:

Hotzak jasan ditazke, ez dugu hanbat nekatzerik eta askitto jaten dugu.

Etcheko eta herriko mina ez baginu, ez ginuke erraiterik!

Ah, hori ba, badugu! Eta hameka aldiz elgarri erraiten dugu: «Zer diote othe etxean, zertan othe dire gure burhasoak, gure emazteak, gure haurrak?»

Baginaki gurek ez dutela sufritzen gu hemen izaitez, nola ari gintazken! Horko minak gaitu higatzen.

Adichkidea, othoi hori errazu: «Eskualdunear»: guk ez dugula bertze minik herrikoa baizik.¹⁴⁸⁵

Gerlan izateaz, gerlan zirenentzat bezain sufrimendu handia zen etxean gelditu zirenentzat, lekukotasun horien arabera. Maite zituzten pertsonak sufritzen zutela edo pena handia zutela pentsatzea bera sufrimendu iturri bide zen soldaduentzat. *Zerbitzari*-k erakutsi nahi izan zuen, baldintza gogorrenak jasateko prest zirela, baldin bazekiten maite zituzten pertsonak ez zutela bihozminik. Baina etxeoak berek ere sufritzen zutela ahaideak gerlan izanez aitortu zuen Manex Hiriart-Urrutik, bereziki Eguberri garaiari lotu artikulu batean:

Bi solas hunkigarri supazter chokoetan; eta zonbat nigar chorta! Zoin samin eta kirets! Beharrik ez esperantzarik gabeak ororentzat, dioten bezen egia balinbada, gu baino hanitz ahulduagoz doala etsaia, nahiz hurriki.

Halere ordean elgarrenak elgarretarik hoin luzaz hoin urrun bizitzea, zer bihotzmina ezta? Etcheko lan eta zer guzien gibelatzea bertzalde. [...] Gizona bere adinik hoberenean familiarentzat etxean beharrenik liatekenean, eritasunik gabe hila!

Ondokorik uzten eztuen etcheko semea berriz gazteago eta urrikalgarriago, burhaso, haurride eta oro nigarretan uzten dituelarik.¹⁴⁸⁶

Berriz ere ageri zen supazter xokoa, baina ez *Zerbitzari*-k aipatu zuen bezala; oraingoan beste aldetik ikusten zen, supazterrean zirenek gerlan zeudenak gogoan zituztela eta horrek sortzen zuen pena adieraziz. Dena den, Euskal Herriko kulturaren supazterrak zuen garrantzia nabari gelditu zen.

Etxekoak uzteko sufrimendua ere ageri zen zenbait kasutan. Artikulu hunkigarri bat bazen, non soldadu zahar batek kontatu zuen behin permisionez jin zela eta gerla hastean bi urte zituen haurrak ez zuela ezagutu:

¹⁴⁸⁴ Becker, *La France en guerre 1914-1918. La grande mutation*, 41.

¹⁴⁸⁵ Jean Elizalde, «Urtarrilaren 9an», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.

¹⁴⁸⁶ Manex Hiriart-Urruti, «Eguberri gerlan», *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 25a.

[...] *Bi urthe eta erdi zituen ni gerlarat joaitean. Deusek ez daut hala hautsi bihotza, nola ikustek ezuela haur gaichoak bere aita ezagutu. Egungotzat haatik adichkidetuak ginen. Damurik noa hoin fite.*¹⁴⁸⁷

Hiriart-Urrutik kontatu zuen berri hori, ipuin baten gisan, soldadu haren lekukotasuna emanez. Permisionez jinak zirenen eta aita familiakoen sufrimendua erakutsi zuen. *Eskualduna*-k erakutsi zuen soldaduentzat eta familientzat mina eta sufrimendua bazirela. Horrek ez du erran nahi gerlagatik kexatzen zirenik edo egoera ez zutela onartzen adierazten zutenik. Ez. *Zerbitzari*-k idatzi zuen bezala, baldintza txarrak jasateko prest ziren, gerla irabazteko gogoia zuten. Bi urteko haurraren aitaren lekukotasun horretan ere, aita horrek mendiz haraindira joan eta desertore izateari uko egin ziola ere idatzi zuen Hiriart-Urrutik, jarrera hori gorai patuz. Annette Beckerrek azaldu duen gisan, soldaduak itxaropenaren, tristuraren, sufrimenduaren eta otoitzaren artetik zebiltzan:

*L'on ne peut comprendre les soldats que dans le va-et-vient d'espairs, de tristesses, de souffrances, de prières, qui les reliaient à l'arrière, leurs familles, leurs amis, leur Église, leur patrie.*¹⁴⁸⁸

Otoitza luzaz aipatuko dugu geroago, baina hor ageri da familiaren eta lagunaren garrantzia soldaduen bihotzetan, eta baita beren herriko elizarena ere. Aberriari dagokionez, lehen aipatu dugun «aberi txikia» behar da Annette Beckerren aipu horretan. Euskal Herria aipatzerakoan, herria (parrokia) agertzen zen, etxekoekin batera, eta hori gainerako soldaduen artean ere nabari zen, Hubert Pérèsen tesian zehar ageri denez. Ordu arteko nortasun kontzeptuan, barnealdekoek herria zuten eremu eta erreferentzia, herriko jendearekin bizi zelako, denbora guztian han egoten zelako eta haiekin, eta hori zen haien eremu konkretua, frantses nazioa abstraktua zen bitartean. Baina gerla egitea beren herri konkretu horren kontrako mehatxuari buru egiteko modu gisa onartu zutela ere badio¹⁴⁸⁹. Beraz, bereziki bakoitzak bere herria bihotzean izatea ez zen euskaldunen baitan gertatzen bakarrik, baizik eta barnealdeko soldadu ororen baitan. Euskalduna izateak ez zuen berezi egiten. Are gehiago, Pérèsen arabera, herria (frantses) nazioaren parte gisa ikustera ekarri zituen gerlak berak.

¹⁴⁸⁷ Manex Hiriart-Urruti, «Bortz haurren aita», *Eskualduna*, 1915ko uztailearen 26a.

¹⁴⁸⁸ Annette Becker, «Les dévotions des soldats catholiques pendant la Grande Guerre», in Chaline, Nadine-Josette(zuz.): *Chrétiens dans la Première Guerre mondiale* (Paris: Cerf, 1993), 16.

¹⁴⁸⁹ Pérès, «Individus entre village et nation. Une expérience identitaire dans la formation de la France républicaine», 332.

2. Euskaldunak elkarrekin

Herriminaren beste ezaugarri batez ariko gara ondoko orrialdeetan. Euskal Herriaz gogoratzea euskaldunen aipamenetan ere ageri zen. Gerla lekuan euskaldun anitz bazen, eta euskaldun anitz erregimentu gutxi batzuetan elkarretaratuak ziren. Horrek beharbada herritik urrun izatearen mina ezitzen lagun zezakeen, baina ikusiko dugu euskaldunek euskaldunen artean egoteko beharra sentitzen zutela. Hori islatzen zen *Eskualduna*-ko artikuluetan, eta beraz hori aztertuko dugu lehenik. Bigarrenik, euskal izaeraren baitan, ikusiko dugu zenbait aldiz erakustera ematen zutela frantsesez mintzatzen ez zekitela, edo ez biziki ongi.

a) Euskaldunak elkarretaratzen

Etxekoak urrun izanik, Euskal Herriaren presentzia soldadu euskaldunen bidez agertzen zen. Berezi *Zerbitzari*-ren artikulua irakurriz ohar gaitzke erregimentu ezberdinetako euskaldunak ahal zutenean elkartzen zirela; hori azpimarratzen zuen. Adibidez, 249. erregimentuarekin elkartu zela kontatzen zuen behin. Pausa egunetariko batzuetan elkartzen zirenean, «egun goxoak» iragaten zituztela idatzi zuen, euskaldunak musean eta xahakotik arno edaten aritzen ziren. Iluntze batez ondoan zegoen erregimentura joan zen *Zerbitzari*, 249. erregimentuko euskaldunengana. Haiek ere bazekiten jostatzen, pilotan eta musika jotzen. Fandango bat ere eman zuten, hango musikari batek moldatua¹⁴⁹⁰. *Zerbitzari* batzuetan Jean Saint-Pierrerekin elkartzen zen, haren tokira bisitan joanez; edo alderantziz. Elkarretaratze horien berri ematen zuen batak ala besteak, bere kroniketan¹⁴⁹¹.

Bere buruaz gain, ikusten zuenaz ere mintzo zen *Zerbitzari*. Elkarren lagun egin ziren euskaldunen berri eman zuen behin, adibidez, eta nola ez ziren sekulan elkarrengandik bereizten azaldu zuen:

*Hiltzekotz, batean dute nahi hil. Bainan Jainko Onak zain detzala, eta sarri, Garindane eta Donibane urrun izanagatik, bi bihotz maiz, airez aire, elkarretaratuko dire sekulan baino gochokiago.*¹⁴⁹²

Beste batean Jean Saint-Pierre mintzatu zen Euskal Herriko lagunez. Acheriberro izeneko bat eta haren lagunak permisionez joanak ziren Euskal Herrira, eta haiek gabe pausa egunak tristeak zirela idatzi zuen, haiek “andre madalen” eta “uso xuria” kantatzen

¹⁴⁹⁰ Jean Elizalde, «Atzoko gure berri», *Eskualduna*, 1917ko urriaren 12a.

¹⁴⁹¹ Jean Elizalde, «Gerlarien berri», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 26a.

¹⁴⁹² Jean Elizalde, «Bi adichkide», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.

zituztela gogora ekarriz¹⁴⁹³. Euskal Herriko lagun presentziaren faltak ere erakusten zuen herrimina.

Euskaldunak elkartzearen garrantzia esplikatu du Robert Elizondok. Euskaldunen artean egonez, gerlan zirela ahanzten zutela idatzi du:

Les Souletins se retrouvent massivement engagés dans les régiments du Sud-Ouest: 18ème R.I. de Pau, 49ème R.I. de Bayonne et les régiments de réserve qui en dépendent. Ils se retrouvent parfois sous le commandement de notables de leur pays qu'ils connaissent. Dans les tranchées ou les cantonnements en arrière des lignes, retrouver des compatriotes, partager avec eux des colis, chanter ensemble, sont les moments les plus heureux de leur vie au front. On n'oublie pas de les raconter aux proches dans les lettres. Le menu des repas est décrit avec précision. En retrouvant d'autres Basques, on échappe un instant à la guerre, on redevient un peu civil, on recrée un peu de la vie d'autrefois, la belle époque d'avant-guerre.¹⁴⁹⁴

Gehienetan eskualde bereko soldaduen artean osatzen ziren erregimentuak, eta eskualde bereko erregimentuek gune berean egiten zuten gerla. Hala zen Baiona eta Paueko erregimentuentzat, Ansoborlok zehaztu bezala¹⁴⁹⁵. *Zerbitzari* ez zen Baiona edo Paueko erregimentuetan, baizik eta Libournekoan, baina guztiak gune beretan ibiltzen ziren denbora gehiengan, beraz Aisne eskualdean zirenean bereziki, bazuten elkar ikusteko aukera.

Egoera desberdina bizi zuen A.I.-k, Serbia aldean zegoenean. Gerla aitzinatu ahala, erregimentuak birmoldatzen zituzten, hildakoak ordezkatu ahal izateko. Gisa hartan, hastapenean eskualde beretako soldaduak elkarrekin baziren ere, denborarekin beste eskualdeetakoekin nahasten hasi ziren eta bakoitzak bere eskualdekoak aurkitzea zailago zen¹⁴⁹⁶. A.I.-ren kasuan, soldadu zuberotarrak ez zuen beste euskaldunik ikusi Serbia aldera igorri zutenean:

Jauna, galthatzen deitadazut ea badenez Zerbian soldado Uskaldun hanitch. Eztut orano bakhotchik ere ikhousi, nahiz ari nizan bethi galthatzen. Bat utzi dut hargatik nihaouren khantian ezagutu gabe igaraitera. Geroztik jakin dut Donapaleu altheko dela, Domintchaineke. Ez ta algar atzamaitia aisa; tropak orai diren lekhia hanitch zabal da.¹⁴⁹⁷

Ez dakigu nori mintzo zitzaion, *Eskualduna*-ko zuzendariari edo bere herriko norbaiti (apezari? *Eskualduna*-ko berriketariari? Beste bati?). Baina uler dezakeguna da harremana bazuela norbaitekin, eta norbait horrek galdegin ziola ea euskaldunik bazuen berekin. Euskaldunak elkartzearena, beraz, bi aldeetako kezka zen: bai Euskal Herrian zeudenena,

¹⁴⁹³ Jean Elizalde, «Eta Acheriberro?», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.

¹⁴⁹⁴ Elissondo, *Mémoires de la Soule: 1914-1918: une petite vallée du Pays Basque dans la guerre*, 45.

¹⁴⁹⁵ Ansoborlo, *Histoire militaire de Bayonne: 1789-1940*, 236.

¹⁴⁹⁶ Elissondo, *Mémoires de la Soule: 1914-1918: une petite vallée du Pays Basque dans la guerre*, 46.

¹⁴⁹⁷ A.I., «Zerbiatik letera». 1916/1/28.

eta bai gerlan zeudenena. A.I.-k berak aitortu zuen euskaldunen bila ibili zela. Lehenago ere aipatu zuen euskaldunekin egon izana:

*Etzen beste uskaldunik bi aphez baizik, bata herri tchipi batetako erretora, hanitch jaun pollita, bestia misionest bat Afrikatik edo Madagaskarretik jinik, biak soldado simple eta koraje handiko gizounak.*¹⁴⁹⁸

Soldadu haiekin ez zen denbora anitz egon, baina garrantzia eman zion haiek ikusi izanari. Baina geroago euskaldunen bila ibili izana aipatu zuen. Beste euskaldunik ez ikustean, bakartasun zerbait sentitzen zuela erakusten zuen, bere testuetan. Lehen ere aipatu ditugu A.I.-ren lekukotasunak, eta ez ziren beti biziki baikorrak, eta euskaldunik gabe egoteak tristura bat salatzen zion. Bakartasun egoera hori transmititzen zuen, *Zerbitzari*-k eta Saint-Pierrek ez bezala.

Bakoitza bere eskualdekoekin egoteak edo beren buruzagia beren eskualdekoa izateak gerlan parte hartzeko motibazioa handitzen zuela dio Cochetek. Honen arabera, soldaduek gerla egitea onartzen zuten, baina ez arrazoi ideologikoengatik, baizik eta gizonen arteko loturak bultzaturik:

*Alors, lorsque ces conditions sont réunies, les soldats consentent effectivement. Ils consentent à vivre la guerre. Leur guerre avec leur chef et leurs copains. Ces micro-consentements se font à un homme et non une idée. 1914-1918, c'est la revivification quotidienne du lien féodal entre l'officier subalterne (le suzerain) et ses soldats (les vassaux).*¹⁴⁹⁹

Are urrunago doa Cochet, gerla egiteko motibazioa eskualde berekoen artean izanez handiagoa zela idaztean. Erregionalismoa oraino azkar zela dio, eta Errepublika bakarraren ideiak oraino bazuela bide egiteko:

*Le peuple des tranchées trouve également un réconfort certain dans la fréquentation de «pays». Nous pouvons, par là, mesurer combien le réflexe régional joue encore énormément dans les années de la Grande Guerre, même si la République se veut une et indivisible. [...] La culture régimentaire rejoint alors, jusqu'à la réforme de la conscription en 1916, un fort sentiment régionaliste. [...] L'idéal d'une France ferrysienne, parfaitement unifiée et centralisée, n'est encore que très imparfaitement réalisé.*¹⁵⁰⁰

Cochet ez da euskaldunetz mintzo bereziki, ez eta ere britainiarrez edo korsikarrez. Orokorki mintzo da. Eskualdeko jendearekin biltzearen gibelean, hurbiltasuna ikusi behar dugu. Edozein eskualdetako jendearentzat berdin zen, beren hurbileko jendearekin elkartu nahi zuen. Beraz, azalpen horien guztien arabera, Euskal Herriko soldaduen kasua ez zen salbuespena.

¹⁴⁹⁸ A.I., «Serbiatik letera». 1915/12/31.

¹⁴⁹⁹ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 155–156.

¹⁵⁰⁰ Ibid., 204.

b) Frantsesa arrotz

Euskal Herriarekiko lotura ageri zen hizkuntzaren aipamenean ere. Egia erran ez dugu euskara edo frantsesa aipatzen zuen zati anitz aurkitu; beraz, hizkuntzaren gaiari ez diezaiokegu leku handirik eman herriminaz mintzatzerakoan. Baina frantsesarekin arazo zenbait zutela aitortu izan zuten noizbehinka. *Zerbitzari*-ren kronika zati bat dugu horren lekuko. Hain zuzen, haien artean euskaraz komunikatzen zutela aise uler dezakegu. Batetik, lehen ere aipatu ditugun kantuen bitartez, eta baita euskarazko *Eskualduna* astekariaren irakurketaren bitartez ere. Euskara bezala beste hizkuntzak ere maiz erabiltzen zituzten fronteko soldaduek, Pierre Barralen arabera. Hain zuzen, hastapenean, eskualde beretako soldaduak elkarretaratzen baitzituzten:

La langue dialectale, «le patois», est restée d'abord d'usage au front, car le recrutement d'origine était à base régionale [...]. Puis le brassage des unités [...] généralise l'emploi de la langue nationale.¹⁵⁰¹

Zerbitzari-ren kronikak irakurriz ere ohar daiteke euskaldunak elkarrekin euskaraz mintzo zirela, baina gerla denboran frantsesa ere erabili behar izan zutela. Hala ere frantsesa ez zela euskaldunen hizkuntza eta gerla hartan frantsesa ikasten ari zirela aitortu izan zuen behin edo beste, adibidez Somme eskualdean ziren batean:

Oren oneko sortu ginen. Gerla huntan hoinbertze kurrída badabilkagu, urririk. Erdara, entzunaren bortchaz, guti edo aski ikasten ari gare,... errienterri sosik eman gabe.¹⁵⁰²

Hor ageri da gerlara joan ziren euskaldunek ez zekitelako frantsesa biziki ongi. Baina *Zerbitzari* kontent zen frantsesa ikasten ari zirelako, are gehiago, ikasketa hori doan ateratzen ari zitzaielako. Frantsesa jakinik ere, euskarari leku berezia ematen zion. Aipu batean argi ageri zen soldadu euskaldunak eta frantsesak bereizten. Kontatu zuen nola aleman batek frantsesetik aitortu ziola frantsesak soldadu onak zirela, baina beste bati, beste aleman batek euskaraz hitz egin omen zion. *Zerbitzari*-k ez bide zuen gauza handirik jakin elkarrizketa hartaz:

Nere lagunetarik batek bertze etsai bat kausitu bide du espainolez... eta eskuaraz aski polliki mintzo zena. Damu da hau ez baitut ikusi Eskualdunetz zer zion galdetzeko.¹⁵⁰³

Alemana espainolez mintzatzea ez zitzaion hain harrigarri, baina hiru puntu horien ondotik «eta eskuaraz» zehaztean, hiru puntu horiek erakusten zuten euskaraz mintzatzea bai harrigarri zitzaiola. Eta gisa batez, horrek piztu zion interesa ere *Zerbitzari*-ri, nahiz eta

¹⁵⁰¹ Barral, «Mémoire paysanne de la Grande Guerre».

¹⁵⁰² Jean Elizalde, «Somme delakotik», *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 12a.

¹⁵⁰³ Jean Elizalde, «Zer dautan erran etsai batek», *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 1a.

ez zuen aukerarik izan harekin mintzatzeko. Euskara eta frantsesa, soldadu frantsesak eta euskaldunak bereizten zituela erakutsi zuen.

3. Euskal Herriko ohiturak

Hirugarren ikuspegia, euskaldunak elkarretaratzearekin loturik, Euskal Herriko ohiturak gerla lekuan errepikatzea zen. Alde batetik ikusiko dugu dantzak eta pilotak zuten lekua. Bigarrenik, eta honekin zerikusia izanik, gainerako jokoak, musa bereziki, nola ageri ziren azalduko dugu. Horiek ere Euskal Herria gerla lekura ekartzeko balio zuten, eta Euskal Herriaren presentziaren lekuko ziren.

a) Dantza, pilota

Euskal Herriak beste arlo batzuen bidez ere bazeukan presentzia Euskal Herriko soldaduen testuetan. Ikusiko dugu hainbat aldiz aipatzen zutela, astia ukanez gero, kantuz, dantzan edo pilotan aritzen zirela. Euskal Herrian antz praktikatzen diren ohitura horien bidez, Euskal Herriaren zati bat ekartzen zuten beren gerla lekura. Lehen kantu batzuk aipatu ditugu, eta beste kasu batzuetan ere idatzi zuten kantuz aritu zirela edo euskal kantuak entzun zituztela. Jean Saint-Pierre, adibidez, Elizanbururen «Ikusten duzu goizean» kantua aipatu zuen:

Lasterka Eskualduna nausi; kantuz ere, bai.

Ikusten duzu goizean,

Argia hasten denean.....

Ea emanen duzuen hemen bezen ederki? Kolonela harritia zagon, Eskualdunek eman kantu ederrari.

Eskualdunek bihotzeko begiez bakarrik ikusten zuten, urrun, biziki urrun, kantuak aipatzen duen etche ttipia, mendi hegalean.¹⁵⁰⁴

Pasarte honetan ez da kantua bakarrik ageri gai gisa. Kantu horrek Euskal Herritik ehunka kilometrotan ikaragarriko pisua hartzen zuen, etxea, etxe inguruko bazterrak eta familia ekartzen baitzizkieten gogora. Horren gibelean herrimina nabari zen, eta horregatik diogu kantuaren bidez Euskal Herria ekartzen zutela gogora, Euskal Herriak presentzia hartzen zuela. Beste batean ere agertu zuen kantuaren bidez Euskal Herriaren presentzia:

Ilhuntean guziak elizarat. Baginen bospasei ehun, benedizioneko bilduak. Choragarriak dire hango gure kantuak, nigarra begietarat jauzten zaut, orhoituz orduan gure Eskual herriaz, galdu ditugun lagunez, oraiko eta geroko hirriskuez.¹⁵⁰⁵

¹⁵⁰⁴ Saint-Pierre, «Oihanetan». 1916/6/23.

Kantuek Euskal Herria ekartzen zieten gogora, eta horrek negarra begietara. Beraz, kantuak herriminen pitzarazle edo adierazle ziren. Kantuaren erreferentzia gehiago agertu zen, maiz dantzarekin nahasiz, ondoko pasarte honetan bezala:

Arno xorta bat gabe ez da gizonik ez soldadorik Frantzian. Arnorik gabe "boxek" nola dirauketen hain luzaz, berek ikustekoa dute. Ez ahal zuten hanbat hurruputzen gerla baino lehen ere. Dena den ez dugu axolarik batere heien tripa tzarren zinkurinez.

Guti balin bada guti, alegeratzeko doa biltzen dute frangok hemen, eta noiztenka bederen ikusten ditugu eskualdunak fandangoetan eta kantuz. Uda minak dirauno hobe dute segur dantza piko baten emaita, ilhuntzetan, etsaiaren ondotik tarrapatan ibiltzea baino.¹⁵⁰⁶

Hor ere ageri da pausa denboretan euskaldunek dibertitzeko bidea dantzan edo kantuan zeukatela, eta Saint-Pierreren ustez hobe zutela dantzatzea, gerla egitea baino. Saint-Pierre ez zen kantuak edo dantzak aipatu zituen idazle bakarra. *Zerbitzari* ere mintzatu zen fandangoaz. Gerla tokietan edo gibel frontean euskaldunek denbora Euskal Herriko gisan pasatzen zutela erakustera eman zuen. Adibidez, izan zitekeen fandangoa dantzatzuz:

Zer gerlariak fandangotan ari direla! Bai jauna, bai. Nigarrez ari bagine hogoita lau ilabete hautan, urtuheak gintazke naski!

Chaharskoa da haatik ichtorioa: Verdunetik lekora eman zaukuten pausa demborakoa. Hiri eder batean zen pausan berrehun eta berrogoi-ta bederatziz garrena. Hiri den alegerena: dena musika. Eskualdun musikariari etzioten hatsaren hartzeko astirik utzi nahi hango jendeak.

Arratsalde batez beraz, aintzinetik hitz harturik, fandango arin bat hasten dute Eskualdun musikariak. Erhotzen dire gure herritar guziak, eta irrintzinaka fandangotan hasten zoin gehiago zoko guzietan.

Bainan zer da, zer da?

Colonelak musikariak ichil-arazten...

Zertako?

«Eskualdun guziak, hunat!» du manatzen, zerbeit gaztigu eman nahi baliote bezala. «Zer dituzue manera horiek. Ez duzue deusetako plantarik. Zoazte dantzariak musikariak dire gain hortarat, musikariak behere huntarik joko dituzte beren aireak. Guk ere ikusi nahi zaituztegu. Eta berma hor, muthikoak!»

Bai eski, bermatu baitziren orduantxe Eskualdunak. Ez dut egundaino halako saltorik ikusi, ez-eta hain irrintzina saminik entzun!¹⁵⁰⁷

Fandangoa dantzatzeara eta musikarena euskaldunen ezaugarri gisa aurkeztu zituen *Zerbitzari*-k. Euskaldunek horrela pasatzen bide zuten denbora pausalekuetan. Eta hori gauza on gisa aurkeztu zuen: *Zerbitzari*-rentzat, euskaldun gisa, zerbait baikor izatea bat da,

¹⁵⁰⁵ Saint-Pierre, «Pausu egunak». 1914/12/18.

¹⁵⁰⁶ Saint-Pierre, «Bero». 1916/8/11.

¹⁵⁰⁷ Jean Elizalde, «Fandangoak gerlan!», *Eskualduna*, 1916ko uztailearen 28a.

bestea da aitzindariak ere begi onez ikusten zutela azpimarratu nahi izatea, artikulu horretan egin zuen bezala.

Dena den, *Zerbitzari*-ren artikuluetan presentzia handia zuen gaia pilotarena zen. Maiz aipatu izan da Lehen Gerla Mundialeko euskal soldaduak granada botatzaile onak zirela, pilotan trebeak zirelako. Beti egon da duda ea hori zenbateraino egia zen ala kondaira bat. 49. Infanteria Erregimentuaren egunerokoa bildu zuen liburuak ere nabarmendu zuen euskaldunek pilotari dohaina erabili zutela granadak botatzerakoan:

*Après un long séjour dans la forêt d'Argonne et en Champagne où le Basque retrouve dans la lutte à la grenade toutes ses qualités de pelotari, le régiment s'installe au camp de Mailly, pour se reformer et s'instruire d'après les méthodes récentes.*¹⁵⁰⁸

Horri fidatuz, gutxienez atera dezakegun ondorioa da pilotak zinezko presentzia bazuela eta pilota eta euskaldunak elkarrekin lotzeko joera zegoela. *Zerbitzari* ez zen mintzo granada botatzeaz. Pilotaz mintzo zenean, pausa denboretako jolasaz ari zen, eta Euskal Herriarekin lotzen zuen pilotaren aipamena.

Azkaindar bat eta Itsasuar bat pilotan ikusi ditut, bidearen erdian, sagar batekin. Urruntchago lau Azkaindar elheketa zauden Ortzaitar batekin.

Behin batzueri eta bertzeeri agur erran-eta, ostatuari buruz abiatu denak tropan. Harat gabe, errechimenduko musika ikusi eta hurbildu. Choratua han atchiki naute eskualdun musikariek! Nola charamelatu dituzten «Bethi Eskualdun», «Reverte», «Kinkirri Kunkurru» eta akabatzen «Arin-Arin»!

*[...] Ah, eta ez nuke ederrena ahantzi behar: musikari horiek eman daukutela ere fandango bat Eskualdun batek moldatua: Sencilia delako fandangoa, Vicendoritz donibandarrak moldatua.*¹⁵⁰⁹

Pasarte horretan ez zuen pilota bakarrik aipatu, baizik eta kantua eta fandangoa ere. Euskal kultura herrikoiairen hiru ezaugarri ezagunenak bildu zituen artikulu horretan, bereizezinak balira bezala. Pilotari dagokionez, ohargarria da edozer aski zutela pilotan aritzeko. Bi euskaldun horiek sagarrekin ari ziren pilotan, beren herriko kirol horretan aritzeak haientzat zenbaterainoko garrantzia zuen erakutsiz. Beste behin aipatu zuen nola euskaldun batzuek pareta bat eraiki zuten, pilota plaza izan zezaten:

*Gure pausuko tokitik bi kilometretan baten pilota plaza bat pollita, beren izerdiaren gostuz 249 garreneko eskualdunek egina, ene ustez segurik. Artillur kaskoin batzuek arras funditu daukute.*¹⁵¹⁰

Pilotaren bidez Euskal Herria berengana ekartzen bazuten ere, ondoko pasartean ikusiko dugu nola Euskal Herrian pilotan aritzen zirela jakiteak ere bihotza altxatzen zion *Zerbitzari*-ri:

¹⁵⁰⁸ *Historique du 49^e régiment d'infanterie pendant la guerre 1914-1918*, 28.

¹⁵⁰⁹ Elizalde, «Atzoko gure berri». 1917/10/12.

¹⁵¹⁰ Jean Elizalde, «Gerlarien berri», *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 12a.

«Milesker» handi bat nere eta hemengo Eskualdun guzien partez azkeneko artikulu nausientzat. Zer bihotz altchagarria guretzat gure herritarrek ez gaituztela ahanzten ikustea: ez dutela gehiago plaza bestarik: gazteak, ostatuak utzirik, pilotan ari direla sarri guri nausitzeko !

Emazue hor, puttikoak! Berma gogotik!

*Gerla akabatu-eta lehen igandean eginen diagu partida bat ederra: horko hirur, hemengo hirur. Irabazten baduzue partida, plaza zuentzat izanen duk handik aintzinat. Berma beraz. Eta biba pilota!*¹⁵¹¹

Garbi ageri zen pilotak Euskal Herria ekartzen ziola gogora, eta beraz herrimin zerbaiten adierazle zela. *Eskualduna*-ko artikulu bat irakurriz, Euskal Herrian gazteak pilotan ari zirela jakiteak atsegina handia egin zion *Zerbitzari*-ri, baina hori baino gehiago, hurrengoan pilotan Euskal Herrian aritzea amesten zuela adierazi zuen. Pilota, dantza eta kantua gerla tokian hainbeste agertzea ez dugu soilik lotzen pausa denboran gerlako gogortasuna ahanzteko beharrek, baizik eta sorterriarekin lotzearekin, nahiz eta ulergarria den bakoitzak egiten dakiena egitea, hala nola euskaldunek kantua, pilota eta dantza.

Baina hori baino gehiago ikusi behar da pilotaren gibelean. Pilotaren bidez jarrera kultural garbi bat ere erakutsi zuen *Zerbitzari*-k, futbolaren eta pilotaren artean, pilotaren alde egin baitzuen, ikusten baitzuen futbolarik gainera har zezakeela bi jokoen artean. Euskaldunak pilotan ari ziren bezala, gainerakoak bereziki futboleant ari ziren. *Zerbitzari*-ri ez zitzaion hain eder iruditzen, nahiz eta euskaldunak ere futboleant aritzen ziren, nahiago zuen pilotarekin segi zezaten:

*Artetan zenbeit pilota partida egiten ditugu, etche zahar bati kontra. Ez dugu berinarik hausten; kanoiek aspaldi hautsiak zituzten. Foot-baal hortan ere ari gare hartako doia. Ez du haatik gure pilota balio joko horrek. Itsasuko jaun erretorak dion bezala: «Ez utz pilota foot-baalarentzat, Eskualdunak: astokeria litake.»*¹⁵¹²

Pilotarekin, beraz, euskal nortasunari eusteko bide bat ikusten zuten. Zekitenean jostatzea zen, alde batetik, baina beren kultura defendatzea ere bai, eta horrekin batera beren nortasuna. Eta Baconnier, Minet eta Solerrek dioten bezala¹⁵¹³, hori ez zitzaion euskaldunei bakarrik gertatzen; katalanek haien herriko jokoak ere bizitasun berarekin aipatzen zituzten, herria gogora ekarrarazten zirelako.

¹⁵¹¹ Jean Elizalde, ««Eskualduna»-ri», *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 4a.

¹⁵¹² Elizalde, «Maiatzaren 11n». *Eskualduna*.

¹⁵¹³ Baconnier, Minet eta Soler, «Quarante millions de témoins».

b) Jokoa, gizartea

Kirolaz edo denbora-pasa fisikoaz aparte, beste gisan ere dibertitzen ziren soldaduak, hala nola kartetan. Euskaldunak musean aritzen ziren, *Zerbitzari*-ren eta Jean Saint-Pierreren hainbat gutunetan ageri zenaren arabera. Euskal Herriko herritarrei maiz eskatu zieten, *Eskualduna*-ko artikuluen bidez, museko kartak igor ziezazkieten, *Zerbitzari*-k¹⁵¹⁴ bezala Jean Saint-Pierrek ere. Azken honen artikulua zati honetan ageri da oren anitz iragaten zutela kartetan, kartak beraiek higatzeraino:

*Ari zaizkit hemen sahetsean lau Eskualdun «musean» karta españolekin. «Biak inbido eta pareak ba!»
Hauche, dire oihuak! Fantasia gorrian dire, eta beharriak airean deramazkate beren inbido debruekin.*

Nik ere gogoa horietan, jokoari so eta so.

Gaicho kartak! Ukhan berriak nintuen eta jadanik piltzartuak! Ez niz batere urguluz mintzo. Norbeitek bertez pare bat igor baleza, balukete begitarte!¹⁵¹⁵

Bonbardaketa gogorak izaten zirenean ere aritzen omen ziren musean, babesean zirelarik. Saint-Pierrek beste artikulua bat idatzi zuen aitzineko asteazkenean, kanoien orro handiak entzuten zituztela baina erreka zuloetan sarturik egon zirela, babesean. Denbora musean iragan zutela kontatu zuen¹⁵¹⁶. Horrela, beste batzuetan ere eskatu zien *Eskualduna*-ko irakurleei museko kartak igor zituzaten, eta behin irakurle batzuek kartak igorri zituztelako eskerrak eman zituen¹⁵¹⁷.

Oxobi-k ere aipatu zuen nola euskaldunek nahikoa zutela mus karta sorta bat, denbora lasai iragateko. Hango jendearen ohiturarekin konparatu zuen euskaldunena, erranez hangoak futbolekin aritzen zirela, eta euskaldunek ez zutela hainbeste lekuren beharrik, xoko bat aski zutela zenbait orenen iragaiteko:

Jendea ez ditake bethi kanoien orroari, ikharan egon. Eta batzu kalerna izigarrienaren erdian dagozilarik, ez hain urrun, herioarekin borroka, bertzeak josteta ari dire. Foot-ball hori dute hemengo muthiko gaztek igandetako. Futbolari ederrak ditugu eta pausura jausten diren soldado gaiztoek hatzemaiten dute nori buru egin.

Sarri, ortzegun igande gehienetan bezala, Théâtre-ra joanen zauzku aintzindariak herriko jaun andere eta anderechkak. Zer nahuzue, ez da chitoekin luzegi utzi behar oilo bat ez eta amarekin oilandak. Batzuek eta bertzek on dute norapeit harrotzea!... (beharritik)

Lau eskualdunek aski dute bizpahiru orenen iragaiteko, elgarrekin, gosturik ederrenean, chokoño bat:

- *Biak imido eta pariak ba!*

¹⁵¹⁴ Elizalde, «Gerlarien berri». 1915/11/12.

¹⁵¹⁵ Saint-Pierre, «Muslariak». 1915/1/15.

¹⁵¹⁶ Saint-Pierre, «Gure astea». 1915/12/3.

¹⁵¹⁷ Jean Saint-Pierre, «Muslarien eskerrak», *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 12a.

- *Biak iduki.*
- *Pariak ba.*
- *Parerik ez; ez eta; ez.*
- *Jokoa ba.*
- *Ba joko.*
- *Bos tantoz imido!*
- *Bortz gehiago!*
- *Hordago!*
- *Kanta!!*

Elizaber'tar norbeiti egun

Doatzi gure eskerrak,

Zeren baitauzku hunat igorri

Kartaño batzu ederrak.

Karta gaichoer ilhun zaizkote

Alsace Goiko bazterrak...

Irria dute entzun orduko

Aleman hoien uzkerak!¹⁵¹⁸

Saint-Pierrek egin bezala, honek ere euskaldun bat eskertu zuen, bertso baten bidez, museko kartak igorri zizkielako. Musari buruzko zati luze horrek ez zuen xehetasunik ematen gerlaz. Museko joko denborako elkarrizketa horrek ez zuen informaziorik ekartzen, ez eta ere giroari buruzko xehetasun berri handirik. Musean aritzen zekien edozein irakurlek bazekien museko elkarrizketa horiek nolakoak diren. Baina lerro horien bidez, *Oxobi*-k, Euskal Herriko ostatueta edo etxeetako giroa ekartzen zuen gerla lekuetara; edo gerla lekuetan ere giro haren berreraikitze ahalegina egiten zutela adierazten zuen. Musean jostatu nahia beste artikulu batean ere aipatu zuen:

Duela hamabortz bat egun Belfort-eko garan utzi nuen Arrangoitzarra lehen auzoa dut. Hitzemana ere daut igande goizean nonbeitik bilduko dituela bertze bi eskualdun. – Muthikoa, zer mus partidak behar ditugun egin? – Bainan, bauzu kartarik? – Ago deskantsu, ethorriko zauzkiguk kartak.

Hea beraz noren ohoretan eginen dugun mus partida bat?¹⁵¹⁹

Artikulu horiek eta gehiago irakurriz, ongi ulertzen da Euskal Herriko soldaduek aisialdian denbora pasatzen zutela eta aisialdi hori pilota eta musa zela gehienetan. Baina horren gibelean Euskal Herriarekiko kezka edo herrimina ikusi behar ote da? Baconnier, Minet eta Solerren arabera, eskualde bakoitzeko jendea bere ohiturekin dibertitzen zen.

¹⁵¹⁸ Jules Moulier, «Josteta», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 15a.

¹⁵¹⁹ Jules Moulier, «Mus partida bat», *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 15a.

Futbola eta errugbia ziren nagusiki praktikatzen zituztenak. Katalanek beren herriko ohiturak zituzten¹⁵²⁰, eta *Eskualduna*-ko artikulua horiek ikusiz, ez gaitzke harri euskaldunek ere beren ohiturak zituztela ikustean. Ez zen salbuespena, eta ez zen beren herriarekiko gogoratzea edo herrimina ikusi behar. Bakoitzak zekiena egiten zuen, ezagutzen zuen jokoan aritzen zen. Horregatik ari ziren euskaldunak pilotan eta musean.

Euskal Herria gogoan izatearen gibelean ez dugu kontzientzia politikorik ikusi. Ikusi dugu herritik urrun dagoen edozeinek zeukala herrimin hori, eta euskaldunek bezala, beste lekuetakoek ere gisa bereko sentimenduak ukan zitzaizkien. Ikusi dugu euskaldunak elkarretaratzen ziren bezala, beste eskualdeetakoak ere beren artean elkartzen zirela, eta hori errazten zuela erregimentuen eskualdekako antolaketak. Beraz, hori ere ez zen euskaldunen berezitasuna. Baina Euskal Herria gogoan zutela aipatzean, ez zen bereziki ageri beren burua herri arrotz batean ikusten zutelakorik, ez eta ere Euskal Herriak nortasun propio bat zuelakorik. Ohartu gara Euskal Herritik eskas zutena, oroz gainetik, itsasoa eta mendia zirela, hala nola, Euskal Herriko bazterrak. Hots, etxeko leihotik ikus zezaketena. Eta hor dago herrimin horren indar nagusia: etxea eta etxeokak (ama, etxeko salda, supazterra, ohea...) ziren falta handiena egiten zietenak. Herrimin horren gibelean ez dezakegu jarrera politiko berezirik ondorioztatu. Herria hurbiltasuna da, eta hala zen orduan ere. Hubert Pérès-ek ongi esplikatatu du Frantziako agintariak zein ederki baliatu zuten herri izaera hori, hurbiltasun hori, gerlan hil zirenak ohoratzeko. Gerlan hilen omenezko oroitarriak herrietako elizen aitzinean jartzea funtsezkoa izan zen herriak Frantziarekin lotzeko:

D'autre part, si la commune est à l'origine de la célébration, c'est parce que les morts en sont issus, comme on pourrait dire, et comme d'ailleurs dit leur nom, qu'ils sont issus d'une famille.

[...] Dans le langage des monuments aux morts, une dualité similaire est postulée par l'association d'une identité communale acquise et d'une identité nationale choisie. [...] La nation et la commune se présentent comme les deux référents d'une identité collective. [...] La nation apparaît aussi comme un assemblage de communes.¹⁵²¹

Eskualduna-ren kasuan, herriaz mintzo zirenean, herriari ez zioten Euskal Herriaren izaera edo nazio izarria ematen. Herria, udalaren zentzuan ere ulertu behar da. Hurbiltasun behar hori orokorra zen, eta *Eskualduna*-k ere islatu zuen. Eta hurbiltasun hori izan zen herri hartan hildakoak Frantziarekin lotzeko bidea. Ageriko herrimin horrek ez zuen, beraz, inolako balio politikorik.

¹⁵²⁰ Baconnier, Minet eta Soler, *La Plume au fusil. Les poilus du midi à travers leur correspondance*, 252–253.

¹⁵²¹ Hubert Pérès, «Identité communale, République et communalisation. A propos des monuments aux morts des villages», *Revue de Science politique* 39, n°5 (1989): 665–682.

B. Euskal Herriarekiko lotura

Herrimina ez zen Euskal Herria aipatzeko arrazoi edo bide bakarra. Gainera, ikusi dugu herrimina zein orokorra zen eta, beraz, horrek ez zuela balio Euskal Herriarekiko kontzientzia berezi bat bazela ondorioztatzeko. Baina ez gaitezke horretara muga, Euskal Herriaren aipuak aztertzerakoan. Beste ezaugarri batzuen bidez ere agertzen zen Euskal Herria, eta horiek ere aztertu behar dira, ikusteko ea herriminaz gain, nortasun berezi batekiko kontzientziak garrantzia zeukan ala ez eta haienez Euskal Herriak zer erran nahi zuen argitzeko. Alabaina, beste gisa batez ere ageri zen Jean Saint-Pierre, *Zerbitzari*, Jean Etxepare edota *Oxobi*-ren kontakizunetan, Euskal Herriak zinezko presentzia zuela beren baitan. Presentzia hori gisa anitzetan ageri zen, eta agerraldi mota horiek aztertzeari ekinen diogu ondoko orrialdeetan.

Alde batetik, ikusten edo bizi zutena Euskal Herriarekin gisa batez edo bestez konparatzeko joera agertzen zen hainbat aldiz, hala nola Euskal Herriko erreferentziak erabiltzen zituzten zenbait gauza esplikatzeke. Bestetik, eta euskal nortasunari buruzko atal honen bururatzeko eta hurrengoarekin lotura egiteko, euskaltzaletasuna zein motakoa zen aztertuko dugu.

I. Euskal erreferentziak

Euskal Herriaren erreferentziak hainbat gisatan ageri ziren *Eskualduna*-ko artikuluetan. Lehen aipatu ditugu hainbat gai, herriminaren edo euskal nortasunaren seinale gisa, hala nola pilota edo musa. Baina, adibidez, pilotaren eta musaren aipuak beste helburu batekin ere egiten ziren; hain zuzen, azalpenak ematerakoan, Euskal Herrian ezagunak ziren erreferentziak erabiltzen zituztela ikusiko dugu lehen puntuan. Bigarrenik, han gandi ikusten zituzten lekuak Euskal Herriarekin konparatzeko zuten joeraz ariko gara. Azkenik, Euskal Herria nahiago zutela eta hara itzultzeko gogoia agerrarazten zutela ohartuko gara.

a) Euskal Herria erreferentzia

Lerro batzuk gorago pilota eta musa aipatu ditugu, eta ohartu gara bi joko horiez maiz mintzo zirela, euskaldunek gerla lekuan denbora nola iragaten zuten kontatzerakoan. Baina *Eskualduna*-ko berriemaile horiek beste gisan ere aipatzen zituzten joko horiek, eta

beharbada hori lehengoa baino interesgarriagoa da Euskal Herriarekiko lotura edo atxikimendua adierazterakoan. Hainbat aldiz, pilota metafora tresna gisa erabili ohi zuten, gudu bat esplikatzeke. Adibidez, gudu bat hasi aitzin, maiz izaten zuten galdera zen nork egingen zuen eraso. Eta eraso hori pilota partidaren hastearekin konparatu izan zuen Jean Saint-Pierrek, artikulu bati «bota ala errefera» izenburua emanez¹⁵²², edo beste batean, gudu bat hasi aitzinekoa aipatzen zuen artikuluan berean aipatuz bota eta erreferaren ideia:

Gure lagunen bitoria handi horrek erakutsiko du zer indarren jabe diren gero ta gehiago. Horra zertako alemana gero ta khexuago jarriko den. Entsegu berri handi bat egin dezake. Hobe liteke guretzat etsiak eman dezan lehen bota. Erreferaren ondotik, bigarrena gure.¹⁵²³

Guduaren bilakaera orokorrakoak edo gerla bera ere pilotarekin konparatzeko joera bazuten zenbait aldiz. Horrela egin zuen *Zerbitzari*-k, behin:

Gerla aintzinean pilotan artzea laket nuen, josteta ederra baita. Ez ditut egin partidak bethi irabazi. Galtzen nuenean, aldi guziz zerbeit estakuru banuen: edo itzea sortu edo chacharia kontra izan, edo bertze zerbeit. Behinere ez nuen aithortu nahi nere partida ni baino gehiago zela. Eta bizkitartean...!
Alemanek ere ez othe dute berak baino partida hobea atcheman? Nere arabera, bai.¹⁵²⁴

Gerla pilota partida batekin konparatu zuen eta gerlariak pilotariekin. Kasu horretan, alemana zen galtzen ari zena eta galtzen ez zekiena, *Zerbitzari*-k berak lehenago egiten zuen gisan. Funtsean, konparaketa hori erabili zuen gerla irabazten ari zirela errateko. Jean Saint-Pierrek ere zenbait aldiz pilotarekin konparatu zituen borroka batzuk edo guduaren bilakaera batzuk:

Pilota partida batean, dembora luzaz partida dilingo egon delarik, ados, Jinkoak beira batek gaina har dezan, bet betan, eta atchik. Bertzeari zainak ahultzen zaizko, bihotza ttipitzen: hartaraz geroz lehertua da, gero ta lasterrago.
Holakotsu zerbeit ikusiko dugu. Gerla baten gora behera guzia armetan dago, eta gizonen bihotzetan.¹⁵²⁵

Zerbitzari-k egin bezala, kasu horretan ere pilota partida noizbait irabaziko zutela adierazi zuen. Pilota partida bat nahi bezainbat luzaturik ere, ahulena noizbait kraskatzen dela esplikatu zuen, gerla hartan ere berdin gertatuko zela argitzeko. Bistan denez, kraskatuko zena Alemania zela ez zuen dudan ezartzen.

Gisa bereko konparaketak egin zituen gerlaren eta mus partida baten artean Jean Saint-Pierrek, gerlaren luzatzea esplikatzeke eta azken unean gerla aliatuek irabaziko zutela segur uzteko:

¹⁵²² Saint-Pierre, «Bota ala errefera?». 1917/2/9.

¹⁵²³ Jean Saint-Pierre, «Etsaia khechu», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 25a.

¹⁵²⁴ Jean Elizalde, «Craonne-tik hurbil», *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 7a.

¹⁵²⁵ Jean Saint-Pierre, «Bethi aintzinal», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 19a.

- «Zer den gerla hau? Mus partida bat. Alemana, joko gaitza eskuetan, Frantsesari jazarri. Gocho gochoa hasi zen partida.

Alamanak: «Inbido! – Frantsesak: Tira!

- Hiru tantoz inbido! – Tira!
- Hor dago! – Kanta!

Bainan nork egundaino ikusi du holako karten agertze luzea?

Zer da bada gertatu? Hirugarren jokolari bat artean sarturik jokoa nahasi.

Anglesak ditu eskuetan pare eta jokoa, partidaren trenkatzeko.¹⁵²⁶

Karta jokoak duena da, halabeharrak egin dezakeela garaipena edo porrota, hain zuzen karta onak izateak edo ez. Musaren kasuan, ez horrek bakarrik, karta txarrekin ere, gezurra ongi erabiliz, irabaz daitekeelako, baina Saint-Pierrek Ingalaterraren karta onak aipatu zituen partidaren irabaztea esplikatzeko. Hor ulertu behar duguna da Ingalaterra militarki indartsuagoa zela erran nahi zuela. Azpimarratzekoa da, bide batez, frantsesek ingelesen laguntzarik gabe ez zezaketela irabaz aitortzen ari zela, nahiz eta ez hori izan helburua, orain arte ikusi dugun bezala, beti goraiatu baitzuten frantsesak nagusi zirela. *Zerbitzari*-k ere musarekin konparatu zuen gerla, eta, gisa horretan, metafora jarraikiak erabiliz osatu zuen ondoko zatia zeukan kronika:

*Zerbeit egiterat abiatzen badire, bego gure gain partida: hogoi-ta hameka eta eskua guk ditugu oihan hautan...*¹⁵²⁷

Kartak alde zituztela erranez, gerla aliatuek irabaziko zutela adierazi zuen *Zerbitzari*-k. Baina musa hitza erabiltzeko ordez, museko oinarrizko elementu bat aipatu zuen, «hogeita hamaika eskutik». Esaera hori Euskal Herrian erabiltzen da, mus jokokoa delako, eta musetik harago, aukera guztiak alde daudela edo garaipena eskura dagoela errateko ere erabiltzen den esaera bilakatua da. Poker jokoa ere erreferentzia egin nahi izan balio, ez zuen esaera hori erabiliko; baina poker jokorako ohiturarik ez dago Euskal Herrian. Musari lotutako erreferentzia horiek egokiagoak ziren irakurleek ulertzeko.

Gerlako gorabeherez aparte, Euskal Herriko erreferentzia hango lekuen deskribatzeko ere erabili zuten. Maiz, hango bazterrak Euskal Herriarekin konparatu zituzten. Jean Saint-Pierrek zehaztu zuen haren inguruko eremuak lur aberatsak zirela, eremu zabalak eta herri bildu-bilduak; hots, ez zirela Euskal Herrian bezalakoak zehaztu zuen. Artikulu hartan laborantza moldeak ere konparatu zituen Euskal Herrikoekin, hala nola lau laborari eta gero langileak bazituztela zehaztu zuen¹⁵²⁸. Beste batean, Aube ibaiaren

¹⁵²⁶ Saint-Pierre, «Mus partida». 1917/3/23.

¹⁵²⁷ Jean Elizalde, «Argonako berri», *Eskualduna*, 1918ko agorrilaren 16a.

¹⁵²⁸ Jean Saint-Pierre, «Bazterrak», *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 25a.

bazterreko hiri batean zela, lekuak Errobi ibaiarekin eta inguruarekin konparatu zituen¹⁵²⁹. Alsaziara joan zenean, aldiz, hango lekuek Euskal Herriaren egiten zutela ere idatzi zuen:

*Eskual Herriaren egite handia zuten hemengo bazterrek: mendi-ta zelhai, oiha, erreka, pentze, landa ttipi, uzta baino kabala gehiago, jendea ere idekiago soldadoari buruz, begitarte onekoa, girichtinoago bertze asko lekutan baino.*¹⁵³⁰

Jendea soldaduari buruz irekiagoa edo giristinoagoa zela idaztean, ulertu behar da aitzineko hilabeteetako lekuetako jendearekin konparatzen zuela. Baina hortik harago, ohartu gara Euskal Herriko paisaiak ekartzen zizkiola gogora Alsaziak. *Zerbitzari*-k ere bazuen joera ikusten zuen herri bat Euskal Herriko batekin konparatzeko:

*Duela zenbeit demora, eskualde hautarat ethorri gineneko, erran nautzuen zer Itsasuko chokoaren itchura duten. Gereziak zirela bakarrik eskas. Geroztik ohartu naiz gerezirik ere ez dela eskas.*¹⁵³¹

Serbia aldetik gauza bera egiten zuen A.I.k ere, Serbia inguruko bazterrak Zuberoarekin konparatzen baitzituen. Gisa hartan, irakurleek ezagutzen zuten leku batekin identifika zezaketen A.I.k aipatzen zuen lekua.

*Nahi baduzu jakin kartiel horren berri zer utchureko den, so egizu Maoule eta Atharratze arteko ordoki ejerrari. Hor bezala uhaitza erdi erditik, ordokia bi aldetarik eta gero mendiak. Goure herri tchipitik aitzina Atharratzerik goiti bezain, naba hersatzez doua, mendiak goratzez doi-doia uzten dielarik uhaitzaren eta burdun bidiaren arte eskaz bat.*¹⁵³²

Oxobi-k ere bazuen leku bat aipatzean Euskal Herriarekin konparatzeko joera. Versailles inguruan egon zen garai batez, eta hango lekuak deskribatu zituenean, Euskal Herriarekin konparatu zituen:

Arbolen artean ez dut entzun Eskual-Herriko haizearen hichtua; ithurrietan, erreketan ura geldi geldia, gure mendietako mazelak behera, jauzika, kantuz hain polliki doalarik! Errege eta erreginen demborako jaun andre buluziak ichil ichila dagozi, Baigorri-ko harria bezen tente.

Jauregiko murrak ilhun dire, leihoak hetsirik daduzkate.

*Herioak garbitu ditu bat bertzearen ondotik etche, oiha, ithurri bazter hautan jostatu direnak oro...*¹⁵³³

Versailleseko jauregiaren edertasunak ez zitzaizkion Euskal Herria bezain eder, artikulu horretan ulertzer eman zuenaren arabera. Baina Euskal Herriaren ederrestea ondoko lerroetan barnatuko dugu. Ikusten duguna da Euskal Herriaren presentzia ia etengabea zela *Eskualduna*-ko berriketarien artean. Egoera baten edo leku baten esplikatze edo deskribatzeko maiz erabiltzen zuten baliabidea zen Euskal Herriko

¹⁵²⁹ Saint-Pierre, «Lerroetarik urrun». 1916/10/6.

¹⁵³⁰ Saint-Pierre, «Gerezi asean». 1917/7/20.

¹⁵³¹ Jean Elizalde, «Arregak», *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 4a.

¹⁵³² A.I., «Zalonikatik letera», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 18a.

¹⁵³³ Jules Moulier, «Edertasun hilak», *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 21a.

erreferentzietara jotzea. Herrimina? Ondorio horretaraino heltzea baino hobe da erratea euskal nortasunaren adierazpena zela, oroz gainetik.

b) Euskal Herria ederrago

Euskal Herriko erreferentziak ez zituzten erabiltzen deskribapenak eta kontakizunak irakurleentzat ulergarriago izateko bakarrik. Maiz, Euskal Herriarekin konparatzen zituzten ikusten zituzten lekuak edo jendeak. *Zerbitzari*-k bidean ikusten zituen herriak, bazterrak eta etxaldeak deskribatzeko ohitura zuen¹⁵³⁴; leku haietako jendea ere nolakoa zen kontatzen zuen. Alsazia ere xeheki deskribatu zuen, han egonaldia egin zuenean. 1870etik landa eskualde hori Alemaniaren esku egon zela, eta eskualde aberatsa zela idatzi zuen, zehaztuz han ez zutela arno anitz edaten, baizik eta «biera hortarik», hala nola garagardoa¹⁵³⁵. Hango lurrak eta laborantza nolakoak ziren ongi begiratzen zuen, hartarik zerbait ikasteko edo irakurleei irakasteko xedez. Euskal Herriko laborariak beti inguruko lurri begira egoten omen ziren, nola lan egiten zuten ikusteko, Euskal Herrira itzuli baino lehen beti zerbait bazelakoan ikasteko¹⁵³⁶.

Zati horren arabera, ikusten zituzten bazterren gainetik, beti Euskal Herria zetorkien gogora. Ez ziren leku berriak ikustearekin konformatzen. Euskal Herria nahiago zuten, edo ikusten zutena Euskal Herrian erabiltzea pentsatzen zuten. Argi dena da, Euskal Herriaren presentzia handia zela. Jean Etxeparek ere hori egin zuen zenbait aldiz. Ez zen gerlaz mintzo bakarrik, ikusten zituen lekuetako laborantza deskribatzeko joera handia zuen, eta Euskal Herrian ere laborantza nagusi izanik, konparatzeko joera zuen, kasu honetan bezala:

*Soissons-eko inguruetan, non baikira orai, laborantzak ez du itcura bera nola Eskual-herrian, nola Verduneko aldean, nola Reimsekoan. Laborantza handia dugu ikusten egun hotan, chehearen ondotik.*¹⁵³⁷

Eta lekuak konparatzen zituenean, Euskal Herria ederragoa zela eta Euskal Herriko laborantzak itxura hobea zuela idazten zuen. Behin, adibidez, permisionez Euskal Herrira joan zeneko bidaia kontatu zuen, ikusten zituen lekuak deskribatuz. Euskal Herria beste lekuak baino ederragoa zela edo gutxienez beste lekuak bezainbat bazela idatzi zuen:

Gure choko maitea, azkenekotz. Arratsalde aphala; mendiñoak Espainia alderat urdin-urdin ageri, beren bizkar makur pullit chorrotchekin. Bazterra berde; berde ilhun, musker.

[...] *Zer ikusgarri gochoa, Champanatik lekhora! Zer ichiltasun ezitia!*

¹⁵³⁴ Jean Elizalde, «Bideko berri», *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 15a.

¹⁵³⁵ Jean Elizalde, «Hemengo bazterra», *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 27a.

¹⁵³⁶ Jean Elizalde, «Laborariak», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.

¹⁵³⁷ Jean Etxepare, «Laborari etchalde handi», *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 11.

[...] Hitz laburrez erranen dautzuet Eskual-herriak, ñimiño izanagatik, ez duela Frantziako edozoin chokori deus zorrik. Bizpahiru gizenagoak baditazke; begikoagorik zinez ez da.

Beha egonik uzta guzieren abiadurari, goraki diot toki gehienetan baino aitzinago ditutzuela. Nehon bertzalde, nik ikusi eremuetan, ez da lurra garbiago; nehon artha hertsia gorekin lanthua.¹⁵³⁸

Baina Euskal Herriaren ederresten gehienik ari izan zena *Oxobi* zen. Berant joan zen gerlara, baina kronika biziak idatzi zituen. Hark ere ikusten zituen lekuak deskribatzen zituen. Zinez ona zen deskribapenen egiteko; are gehiago, deskribapen horietan beti egiten zuen Euskal Herriarekiko konparaketa. Mendiak aipatzen zituenean Euskal Herrikoekin konparatzen zituen, erranez Euskal Herrikoak ederragoak zirela:

Churi churiak dire bazterrak oro. Laguneri diot: «Lakhet lekua litake hau enetzat. Mendiak orhoitarazten nute Eskual-Herriaz. Elhurra etzauku hemen bezala nausitzen han; hemengo jendek eskas dute guk dugun hotz handienen eztigailu ona: haize hegoa. Ontsa ezagutzen dugun itsasoa ez dakite zer den bertzalde. Dena den, ez da goizegi etcheak eta etcholak ikusten baititut gure herrietan bezala mendi mazelari josiak...».

Vosges eskualdeko basherri zabalenean egon bainiz bi egun eta erdi, ezagutzak egin ditut jaun erretorarekin. Erran gabe doha asko solas ibili dugula Eskual-Herriaz eta Eskualdunetz. Bazakien jadanik gure bazterretako berri, eta ez nor nahiren ganik: Laplume Atharratzeko jaun bikarioa johan omen zako noizean behinka ikhusterat. Jakin ere dut – salha ditakea? – bazkari on baten ondotik, aphez eskualdunak harritu dituela bazkaltiarrek oro gure kantu ederrenetarik bat charamelaturik!¹⁵³⁹

Kasu horretan klimarekiko konparaketa egin zuen, Euskal Herrikoa atseginagoa zela azpimarratuz, hala nola haize hegoari edo itsasoari esker. Klimari buruzkoa da ondoko aipu hau ere:

Bainan zenbeit aldiz, gogoratuko etzinuen toki hoberenean eror zitazke.

Horra zer gerthatu zautan.

Ez dut uste badela Frantzia guzian bertze herri bat gurearen hunek bezenbat iduri duenik. Negua haatik Eskual-Herrian baino borthitzago dugu. «22 à 25 degrés au-dessous de zéro» ez dute oraino Baionan holakorik jasan.¹⁵⁴⁰

Aroa gehiagotan deskribatzen zuen, beti Euskal Herrikoarekin konparatuz eta erranez Euskal Herriko elurra nahiago zuela, adibidez:

Otsaila etzauku sobera gaichto agertu. Bainan huna nun Martchoa jeiki zaukun dena churiz aphaindua.

Churiak ez du hemen Eskual-Herrian bezalako distirarik. Iguzkia ez ditake elhurrekin josteta har. Zerua, dena lanho kasik lurrari josia da. Papo gorririk ez oihanean ez eta sasietan chochorik. Lanho bustian bizi bakharrik beleak, ehunka.

Noiz ikusiko ditugu baratze mahastietako mertchikak lore? Noiz jauzaraziko gure aintzinean papo-gorri gaichoak eta entzunen sasi gibeletik chochoaren trufak?¹⁵⁴¹

¹⁵³⁸ Jean Etxepare, «Eskual-herria», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 16a.

¹⁵³⁹ Jules Moulier, «Mendien zolan», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 11.

¹⁵⁴⁰ Jules Moulier, «Alemaneri hurbilago», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 11.

Denbora osoan egin zuen Euskal Herriarekiko konparaketa. Ez zuen bakarrik alde bateko eta besteko elurraren dirdira konparatu, baizik eta erakutsi nahi izan zuen Euskal Herria alaiagoa zela, besteak beste papogorri edo xoxoei esker. Beste batean, zegoen lekuko beleak eta Oriko txoria konparatu zituen, Euskal Herriko hegaztiak ederresteko:

Kanoien orro izigarriak itsas mugatik mendi mugara diraukuno, herritik urrun egonen da eskualdun soldadoa. Eginbideak hala manatzen baitio.

Bele itsusien karrankari baino atsegin handiagorekin idek liro beharria Orhiko choriaren kantuari.¹⁵⁴²

Kasu horietan, *Oxobi*-k Euskal Herria ez zuen bakarrik konparaketa tresna gisa erabiltzen, irakurlearengandik hurbilago izateko; Euskal Herritik urrun izateak min ematen ziola erakustera ematen zuen, Euskal Herria leku ona eta bera zegoen lekua txarra zela azpimarratzen zuen. Konparaketa horiekin, bai, ageri zen Euskal Herritik urrun izateak eragiten zion herrimina.

c) Herrira itzuli nahi

Euskal Herria ederrestetik Euskal Herrira itzultzea amesterako tartea laburra izan daiteke. Hainbat artikulu irakurriz ohartzen gara *Eskualduna*-n idazten zuten soldadu diziplinatu horiek guztiek Euskal Herrira itzultzeko gogo bizia zutela eta erakusten zutela. Eta hori, gerla hasi eta laster. Jean Saint-Pierrek gerla hastapenari buruzko anekdota bat kontatu zuen, gerla hasi eta urte bat geroago. 1914ko agorrilean, Charleroiko porrotetik landa, Frantziako armadak Belgikatik gibelera egin zuen, ia Parisera. Euskaldunak ere baziren egunez egun gibelera joan ziren milaka soldadu horien artean. Soldadu batek zer erran zuen idatzi zuen Saint-Pierrek:

Beljikatik gibelerat ginoazilarik, gau eta egun, gudu batean nausi izana gatik, bethi aintzina Frantzia barnerat, aintzindari bati bihotza ilhundu zitzaion nigarra begietarat jauzterainokoa. Eskualduna zen, eta Eskualdunekin.

Soldado batek erraiten dio: «Zer duzu, jauna, nigarrez?» – Ez duk bada ikusten makhur handia badela nunbeit? – Bego, bego, jauna: Eskual herrirat buruz ari gira!»¹⁵⁴³

Gerla gaizki hasia zela eta kalte ikaragarriak gertatu zirela aitortzeaz aparte, umore kutsu batekin, gibelatze haren ondorioz Euskal Herrira hurbiltzen ari zirela azpimarratzeak erakusten du, hastapenetik beretik, euskaldunek Euskal Herria zutela gogoan, herrira itzultzeak edo herrira hurbiltzeak bihotza berotzen zuela. Ez zen Saint-Pierre bera horrela

¹⁵⁴¹ Jules Moulier, «Aroa», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 15a.

¹⁵⁴² Moulier, «Kanoiak». 1918/3/15.

¹⁵⁴³ Jean Saint-Pierre, «Eskualdunen «sanfrela»», *Eskualduna*, 1915ko agorrilaren 6a.

mintzo zena, baina anekdota hori kontatuz, soldaduen artean zegoen sentimendu baten berri eman zuen.

Saint-Pierre bera ez bazen maiz gisa hartan mintzo ere, *Zerbitzari*-ren lumatik maiz ageri zen Euskal Herrira itzultzeko gogo. Gorago aipatu dugu nola laborariek ikusten zutenetik ikasteko gogoia erakusten zuten. Baina hortik harago, Euskal Herriarenganako maitasuna ere adierazten zuen *Zerbitzari*-k:

*Guzien gatik, bihotzak Eskual-Herria diote galdetzen. Han dire sortu. Han handitu. Han dute zahartu eta zango herrestatu nahi. Ah, Eskual-Herri maitea!*¹⁵⁴⁴

Euskal Herrira itzultzeko nahia beste batzuetan ere adierazi zuen. Gerla bukatzeko itxaropena eta gogoia agertu zituen, Euskal Herrira itzuli ahal izateko. 1915etik ageri zen gogo hori, baina bereziki 1917 bukaeratik landa gehiago sendi zen. 1918ko urtarrilean, berriz ere adierazi zuen Euskal Herrira itzultzeko gogo handia. Adierazgarria da zein ziren azpimarratu zituen gogoak: mendiak eta itsasoa ikustea, kantuak entzutea, pilota ikustea edo otoitz egitea. Hots, gehienbat bazterrak eta kultura ziren eskas zituenak. Arlo hartan kokatzen zen herrimina:

*Laster elkarretarat gaitzala Eskual-Herrian, hango mendiez eta itsasoz gozateko, hango kanta zaharrak lorietan entzuteko, hango pilota partida ederrak ikusteko, hango elizetan othoitz egiteko sekulan gehiago Herria ikusiko ez duten lagun maiteentzat!*¹⁵⁴⁵

Beste behin, Belfort ingurutik joan behar zutela kontatu zuen. Leku hartan ez zeudela gaizki idatzi zuen, gudurik ez zegoelako, baina euskaldunek etxera itzuli nahiko zutela gehitu zuen; hala ere «Jainkoaren nahia» egin zedin eskatu eta onartu zuen¹⁵⁴⁶, argi utziz herriminen eta Euskal Herriarenganako maitasunaren gainetik, eginbidea ontzat hartzen zuela eta gerlan behar adina jarraitzeko prest agertu zela.

Gerla bururatu ondoan, itzultzeari pentsatzeak beste kutsu bat zuen. Ez zuten gehiago gerlako eginbiderik, eta beraz itzultzeko tenorea hurbiltzen ari zen; ez gerla bururatu eta berehala, baizik eta 1919ko uda hastapenean. Baina udaberrian jadanik, Euskal Herrira itzultzeko menturak anitz poztu zuela erakutsi zuen *Zerbitzari*-k:

*Eta nik aldiz nere azken egunak hemen. Martchoaren hogoieko etchean! Bethikotz gozatuko Eskual-Herriaz, hango mendi ederrez, hango itsaso urdinaz! Jainkoari eskerrak...*¹⁵⁴⁷

Ohar gaitezen berriz ere itsasoa eta mendia zituela ikusi nahi, oroz gainetik. Gauza bera adierazi zuen aste batzuk geroago, herrira itzultzeko eguna finkatua zenean. Orduan

¹⁵⁴⁴ Elizalde, «Laborariak». 1916/6/9.

¹⁵⁴⁵ Elizalde, «Urthe on!». 1918/1/4.

¹⁵⁴⁶ Jean Elizalde, «Belfort-eko inguruetarik», *Eskualduna*, 1917ko urriaren 19a.

¹⁵⁴⁷ Jean Elizalde, «Azken egunak», *Eskualduna*, 1919ko otsailaren 28a.

ere itsasoa eta mendia ikustearen poza adierazi zuen, baina baita gurasoak eta etxeak ikustekoa ere:

Beraz, Eskualdunak, altcha bihotzak demborak heldu dire. Uste guzien arabera, udan gure Herria, gure burhasoak, gure etcheak, gure mendiak eta gure itsasoa ikusiko ditugu. Eta agian, orduan eginen den bakeak irauen du, gure haurrak eta gure haurren haurrak handitu arte.¹⁵⁴⁸

Gerlan zirenek Euskal Herrira itzultzeko zuten gogoa eta bake gosea beste aldetik ere ageri zen, hala nola Baionatik beretik idazten zutenen lumatik. Blaise Adémak, gerla bururatu ondoan, Alemanian preso ziren soldaduak Euskal Herrira, beren etxeetara, itzuliko zirela iragarri zuen, horri ere herriminaren edo etxe-minaren kutsua emanez:

Etcheko saldak eta gozoak antolatuko eta azkartuko ditu laster.¹⁵⁴⁹

Alemanian preso egon zirenak itzuliko zirela eta horrek zer atsegina eta atseden hartzea eraginen zuen bai soldaduentzat, bai familientzat, komentatu zuen. Artikulu horretan nahasi ziren itzuleraren poza eta sufrimenduaren eta herioek eragin negarren adierazpena. Bukaera gazi-goza zen, eta hor aitortzen zen zenbat kalte eragin zuen gerlak.

Herrira itzultzeko gogoan bi alde horiek ikusi behar ziren: etxeko goxotasunaren eta leku ezagunen berreskuratzea batetik, eta gerlako sufrimenduaren bukaera bestetik.

2. Euskaltzaletasun kulturala

Euskal Herriarenganako atxikimenduaren seinale anitz ikusi dugu orain arte. Baina atxikimendu horren izaera sakonkiago nolakoa zen ulertzen ahaleginduko gara, beste artikulu batzuen edukia aztertuz. Hasteko, ikusiko dugu euskararen aldeko jarrera zutela eta hori goraiatzeko zutela. Baina politikoki nolako jarrera zuten erakutsiko dugu beste bi puntutan, hala nola zer zioten Hego Euskal Herriko jendeari buruz eta zein iritzi agertu zuten euskal estatu baten sortzeko hipotesiari buruz.

a) Euskararen alde

Euskal Herriaz gogoratzea mendiengatik, itsasoarengatik edo etxekoengatik ez da nahikoa jarrera euskaltzale bat zutela ondorioztatzeko. Ondoko orrialdeetan begiratuko dugu nola agertzen zen jarrera euskaltzalea, baina lehenik hona ekarri behar dugu Jon Casenavek argitutakoa: XIX. mendean erregionalismo bat piztu zen Britainian eta Provence aldean.

¹⁵⁴⁸ Jean Elizalde, «Martchoaren 21ean», *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 2a.

¹⁵⁴⁹ Blaise Adéma, «Laster hemen dire», *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 22a.

Euskal Herrian ere euskal jatorriari buruzko gogoetak izan zituzten, Lore Jokoeekin eta abar. Zazpiak Bat kontzeptua ere agertu zen (horren lekuko, Gratien Adéma *Zaldubi*-ren «Gauden eskualdun» bertso sorta, 1893koa), baina neurri kulturalera mugatu zuten. Euskaltzaletasun horrek inflexio puntu bat ukan zuen eta 1910erako ahuldua zen¹⁵⁵⁰. Beraz, 1914tik 1918ra, ordurako euskaltzaletasuna ez zen garai batez zen bezain indartsua.

Jean Saint-Pierreren jarrera euskaltzalea ez zen beste batzuen bezainbat ageri. Egia da batzuetan euskaldunak eta frantsesak bereizten zituela, hala nola hildakoak aipatzen zituenean, zehazten zuen ea euskaldunik hil zen ala zenbat. Uztailaren 14 kari, zenbait bonbardaketa egin zituzten alemanek. Jean Saint-Pierre zegoen herria huts egin zuten, ordea, nahiz eta Maisy herri bazterreko lerroak torpilla batzuekin «zafatu» zizkietela aitortu. Hil franko izan zela, baina haien artean ez zegoela euskaldunik zehaztu zuen¹⁵⁵¹. Bereizketa egin zuen frantsesen eta euskaldunen artean, baina nortasun desberdintasunaren azpimarratzeko baino gehiago, hurbiltasunaren izenean, hain segur. Baina euskal komunitatea ageri zen hainbat aldiz, adibidez beren meza ukan zutela aipatzen zuenean:

Eliza hortan bildu dira igande aratsean hogoi ta hamalau-garren eko lau ehun Eskualdun; Etcheber jaun omonierak eskuaraz eman diote bere mintzaldia, eta kantu guziak eskuaraz errepikatu dituzte, ez baitzuten aspaldion holako atsegirik ukan.

*Atsegin bera zuten aste huntan berrogoi ta bederatzigarreneko eskualdunek.*¹⁵⁵²

Euskararen aldeko zenbait artikulu ere agertu ziren Saint-Pierreren kronika andana horien artetik. Anekdota bat bada aipatzeko, non, frantsesez bekatuak aitortu zituen euskaldun batek euskaraz kofesatu nahi izan zuen, iruditzen baitzitzaion ez zela kofesatua¹⁵⁵³. Horrela, euskararen balioa azpimarratu zuen.

Jean Etxeparek, oro har, ez zuen euskara anitz goraiatzeko edo aipatzeko. Bere hoztasun horretan, Euskal Herriarekiko ere hotz agertzen zen. Haatik, euskara txukun erabiltzea aldarrikatzen zuen, besteak beste hizkuntza landuz, eta bereziki gerlari buruzko lexikoa edo hiztegia. Erabiltzen zituen eta ekartzen zituen hitz berriak aztertuz ikus daiteke hori, baina bere hitzetan ere aipatu zuen gauzei euskarazko izena emateko beharra, adibidez «tranchées» hitzari buruz. «Gerla karrikarte» edo «gerla karrika» erabiltzea proposatu zuen. Haatik, *Eskualduna*-n idazten zuten guztiek ez zuten hitz hori erabiltzen, gehienek «erreka» erabiltzen zuten. Funtsean, hortik interesatzen zaiguna da, euskararen aberastasunaz kezkatzen eta desagertzearen beldur zela:

¹⁵⁵⁰ Casenave, *De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etxepare.*, 154.

¹⁵⁵¹ Jean Saint-Pierre, «Gure astea», *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 23a.

¹⁵⁵² Jean Saint-Pierre, «Maiatzeko hilabetea», *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 26a.

¹⁵⁵³ Jean Saint-Pierre, «Eskuaraz-ko kofesioa», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.

Haren nahitik da gure eskuara zaharra, edo endurtuz, frantsesak emeki emeki ithotzen duela edo apur bat aberastuz joanen.¹⁵⁵⁴

Gisa bereko deia egin zuen *Zerbitzari*-k ere, hala nola, frantsesa ikasi zutenei galdegin zien euskara ez galtzera uzteko. Jean Etxeparek euskarazko hitzen kalitateaz kezka zuen bezala, *Zerbitzari*-k ere halako euskarazko klase batzuk eman zituen bere gutunetan:

Beharren beharrez, gerla hau hasi zelarik, oro lothu ginen frantsesari. Orai gutiz gehienek badakigu guretzat askitsu.

Frantsesa ikasteko, ez dezagun haatik ahantz Eskuara. Eta guzien gainetik, kasu huni: Eskuara dagola garbi. Aski aberatsa da ez gure dohain beharretan izaiteko. Ez eman hitz berririk.

Nahi duzue jakin zerk dautan hori hemen ezar-arazten?

*Bortz Eskualdunek batetarat jo dugu ustegabeen. Chorta bat elkarrekin edan. Asko gauzez mintzatu. Solasetik solaserat sua aipatu. Milafrangar batek orduan galdetzen dio Mehaindar bati zerekin egiten duen sua. – «To, ahal dutan bezala, du Mehaindarrak ihardesten, bainan ardurenik **charbonarekin**».*

*Othoi, Eskualdun lagun maiteak, eman dezagun Eskuaraz eta erran dezagun: Sua egiten dut **ikatzarekin**.¹⁵⁵⁵*

Hain zuzen, gerlarekin euskaldunek frantsesa ikasi zutela komentatu zuen. Beste behin, euskaldunak elkarrekin euskaraz mintzo direla eta frantsesek ez zutela ulertzen aipatu zuen¹⁵⁵⁶. Azkenik, euskara ahantzi zutenak kritikatu zituen, beste artikuluko batean:

Haurrak haatik, gure eskoletan ibilki baitire, aski polliki frantsesez hasiak dire. Gerla aintzineko zaharretan ere kausitu ditut berrogoi ta bortz urtheren buruan frantsesa ahantzia etzutenak. Eta guk Eskual-Herrian baititugu neska ergel batzu, bi urthe hirian sehi egon direlakotz, Eskuara ahantzi dutenak!¹⁵⁵⁷

Kritika neskei zuzendua zitzaien. «Ergel» adjektiboarekin erakusten zuen zenbateraino gaitzesten zuen batzuek euskarari uko egitea. Dударik gabe, jarrera euskaltzale garbia erakutsi zuen *Zerbitzari*-k. Jose Ariztimuño *Aitzol*-en arabera, *Zerbitzari* Euskal Herriaren batasun politikoaren alde zen¹⁵⁵⁸. Aitzolek ez zuen bereziki gerla garaiko jarrera aipatu, baizik eta *Zerbitzari*-k bizian zehar erakutsi zuena. Hori besterik da, eta aparte aztertu beharko litzateke. Ondoko lerroetan ikusiko dugu *Zerbitzari*-k batasun politikoari buruzko zer jarrera erakutsi zuen gerla denboran.

Oxobi guztiz euskaltzale agertu zen bere artikuluetan. Euskara gorai patzen zuen, eta horren adibide da berriak igorri zituen bati euskaraz idazteko eskatu ziola:

¹⁵⁵⁴ Jean Etxepare, «Eskuaraz», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.

¹⁵⁵⁵ Jean Elizalde, «Eskualdunak, gauden gerlaren gatik eskualdun», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 31a.

¹⁵⁵⁶ Jean Elizalde, «Dena ere on», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 1a.

¹⁵⁵⁷ Jean Elizalde, «Hemengo jendea», *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 27a.

¹⁵⁵⁸ Altzibar, «Zazpiak bat gaia XIX. Mendean (The zazpiak bat topic in the XIXth century)»; José Ariztimuño «Aitzob», «Union inter-estatal vasca. Historia y Poesia», *El Dia*, 1932ko irailaren 14a.

Atseginekin irakurtu dut Eskualdunean René Delzangles adiskideak Paris-tik igorri gutun ederra. Biba zu, jaun gaztea! Ez ahal da lehen eta azken aldikotz?

*Bainan Eskualdunak nahi du eskuara. Aita eta ama eskualdunak dituzu. Zuhaur garbiki mintzo zire eskuaraz. Zertako ez izkira eskuaraz?*¹⁵⁵⁹

Hots, ez zitzaion ongi iruditzen euskara zekien batek frantsesez idatz zezan. Baina euskararenganako atxikimenduak bazuen beste motibaziorik, Blaise Adémaren artikulua batean garbi ageri zen bezala. Hiriart-Urruti hil zenean, hark euskararengan zuen atxikimendua goraiatu zuen:

*Handik edo hemendik heldu zitzazkon berriak behar zituen aphaindu. Ezen eskuara ez dute orok hitz berez izkiribatzen. Bertzeetarik ukhan berriak behar zituen beraz bere eskuz berriz izkiribatu. [...] Eta nola aspaldidanik giristinoek baiterabilte eskuara, hitzek bere hartu dute erlijionearen leinhuru bat bezala. Hain ongi nun eskuararekin batean ikhasten ohi baitu haurrak erlijionea. Geroztik ez da miragarri eskuara izan dadin erlijionearen begirale. Horra zer zuen ikhusten Hiriart-Urruty kalonjeak, zertako zuen hain maite eskuara, zertako hogoi eta bederatzi urthez eman dazkon bere indarrak bururadino. Hartan zela zaukan eskualdunen artean erlijionearen oso eta azkar begiratzeko biderik hoberena.*¹⁵⁶⁰

Jean Saint-Pierrek ere aipatu zuen Hiriart-Urrutiren heriotza eta haren euskara aberatsa goraiatu. *Eskualduna* astekarian lan handiena egiten zuela, «errotik» euskalduna zela eta hari esker berak ere euskaldun zirela idatzi zuen:

Gaineratikoez mintzatzea ez dauku hanbat bihotzak emaiten kanoien burrunbaren artetik. Bizkitartean, eskualdun girenaz geroztik, nola ez erran zer laguntza daukun eman guzieri, bere lan jarraikiaz, eskualdun egoiteko, mintzaiaz ala gogoz eta bihotzez? Bazuen hortako dohainik: beharrena, bera eskualduna baitzen osoki.

*Zaharren hatz onetan ibiltzean bildu nahi zuen bethi eskualdun jendea, familia, erlisionea, gure mintzai ederra atxikiz ahalik gorena. [...] Eskuara mintzaia bazeraman bertzalde berak egina bezala, legun eta garbi.*¹⁵⁶¹

Zati horietan, Adémarenean bereziki, ikusten den bezala, euskararen aldeko atxikimendua ez zen euskarara mugatzen. Atxikimendu hori erlijioarekin lotzen zuen Hiriart-Urrutitik. Hots, euskara zen giristinotasunaren begirale; hainbat urtez *Eskualduna*-ko zuzendari izan zenaren arabera, euskara giristinotasuna salbatzeko tresna zen, eta horregatik salbatu nahi zuen.

Xabier Itzainak xeheki azaldu bezala, Ipar Euskal Herriko euskaldun horiek euskaltzaleak ziren, baina kontzientzia kulturala zuten soilik, eta ez politikoa¹⁵⁶². Jarrera hori

¹⁵⁵⁹ Jules Moulrier, «Eta eskuaraz?», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 1a. René Delzangles diputatu hautatu zuten 1936an.

¹⁵⁶⁰ Blaise Adéma, «Hiriart-Urruty kalonjea», *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 12a.

¹⁵⁶¹ Jean Saint-Pierre, «Gerlako berri igortzaleak Hiriart-Urruty zenari», *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 26a.

¹⁵⁶² Itçaina, *Les virtuoses de l'identité. Religion et politique en Pays Basque*, 97.

ageri zen *Eskualduna*-ko artikulua guztietan. Euskararen aldeko jarreraren ez zegoen Euskal Herriaren kontzientzia politikorik; horrelakorik ez zen inoiz agertu. Hurrengo orrietan barnatuko dugu gehiago kontzientzia politikoa zein norabidetakoa zen. Philippe Vigier-ek ere dio lehenbiziko erregionalismoak hizkuntzari lotutakoak izan zirela, XIX. mendean, hala nola eskualde hizkuntzaren defentsa egin zutela, «nazio hizkuntzaren parean»¹⁵⁶³.

b) Hego Euskal Herriarekiko jarrera

Nahiz eta *Eskualduna* Hego Euskal Herriaz ez zen anitz mintzo, hala ere aski arduratzen agertzen zen eremu hori, bereziki desertoreak aipatzen zituztenean. Kasu horretan ohartzen gara «Espainiara» joan zirenak aipatzen zituztela. *Eskualduna*-rentzat Euskal Herriaren alde batekoak Espainian ziren eta besteak Frantziaren. Egoera administratibo hori bere egiten zuten hitz horiek erabiliz. Desertoreez gain, beste gaiak aipatzean ere «Espainia» hitza agertzen zen.

Eskualduna-k bazuen kezka bat Hego Euskal Herrikoiei begira, hala nola alemanen alde zirela hango anitz. Gerla hastapeneko artikulua batzuetan agertu zen kezka hori. Hiriart-Urrutik hainbat aldiz kritikatu zituen Hego Euskal Herriko euskaldunak, alemanen propaganda aise sinesteagatik edo Frantziaren kontra zirelakoan, alemanen alde jartzeagatik¹⁵⁶⁴. Erran behar da Europako herrialde neutroak, Espainia bezala, alde batekoen eta besteakoen propagandaren jomuga zirela, Jean-Claude Montant-en tesiaren arabera¹⁵⁶⁵: Alemaniak propaganda handia egin zuen Espainian eta hango izaera kristau handiaren eraginez, iritzi publikoa Frantziaren kontra itzultzea lortu zuten. Horri erantzunez, Frantziak propaganda taldeak antolatu zituen, giristinoak eta elizgizonak zirela horien buru. Donostiako taldea izan zen handienetariko bat¹⁵⁶⁶. Behin, ahoan bilorik gabe, «alemanegi» izatea leporatu zien:

Gu Frantzia aldeko Eskualdunak frantsesegi bagauzkatzue, Espainia aldeko eskualdunek,... zer erran zuetaz Espainia aldeko eskualdunek, baizik ere miletan zuzen gutiagoz, jakinean edo ez jakinean, alemanegi zaretela hor bilhakatuak?

*[...] Gu bagine hutsean, gure baitharik ginitazke: zuek aldiz, Alemaniaren gezurak errechkiegi sinetsirik.*¹⁵⁶⁷

¹⁵⁶³ Vigier, «Régions et régionalisme en France au XIXe siècle», 165.

¹⁵⁶⁴ Bidegain, *Gerla Handia, muga sakona*.

¹⁵⁶⁵ Jean-Claude Montant, «La propagande extérieure de la France pendant la Première Guerre mondiale: l'exemple de quelques neutres européens» (doktorego-tesia, zuz. Jean-Baptiste Duroselle, Université de Paris I, 1988), 118–119.

¹⁵⁶⁶ Ibid., 130.

¹⁵⁶⁷ Manex Hiriart-Urruti, «Alemaniaren adiskidantza», *Eskualduna*, 1914ko urriaren 30a.

Jean Saint-Pierrek ere erakutsi zuen ez zela biziki fida Hego Euskal Herriko euskaldunen baitan. Hain zuzen, alemanei gauzak salatzeke gai zirela leporatu zien, eta horrela justifikatu zuen zenbait informazio ez idaztea *Eskualduna* astekarian, Hegoaldekoek ez zitzaten irakur:

Ez diotet nik erranen zorbatez huts egin duten, laburregiz ala luzeegiz: aiher dire alaman debru hek ene eskuararen berri jakiteko, edo atzeman lezakete salhatari bat hor gaindi, mugaz bertze alde hortan ... Gauden ixilik.¹⁵⁶⁸

Hego Euskal Herriarekiko jarrera kritiko hori ezitu zen, denbora joan ahala, eta beharbada Hiriart-Urruti hil ondoan. 1916ko artikulu batzuetan, Hegoaldeko euskaldunak alemanen alde zirelako solasak gezurtatu nahi izan zituen Blaise Adémak, erranez ohartu zirela frantsesak ez zirela paganoak eta alemanak gaiztoak zirela:

Ezen lehenago ere errana dautzuet zertako ditugun, guk bereziki Eskual-Herrian, Españolak maite: zeren gure anaia Eskualdun gehienak erresuma hortan baititugu. Lastimagarri da maite direnez ez maitatua izaitea.

[...] Bertze gauza bat, gutitu duena Alamanen alderat zuten khar handia, huna; Alaman hoik, beren ur azpiko untzietarik batekin, itsasoaren erdian zilatatu eta suntsitu diote Santanderino izena zuen untzia. Untzi hori Bilbaokoa baitzen, beraz Eskualdunena, Españolen artetik Eskualdunak bereziki hasi dire oihuz tzarkeri horrentzat.

Erran dezagun berehala bazutela holako zerbeiten beharra Alamanen ongi ezagutzeko; Eskualdun hoitan baitziren Alaman hoien adiskiderik khartsuenak. Tzarkeria handienak auzoan baino hobeki miresten dire ttikienak etchean. Beren adiskideri hola egiten diotenaz geroz Alamanek, amesten ahal dute zer egiten ahal dioten etsaieri.

Beraz Españoleri, eta bereziki Eskualduneri, gutitzen ari zaiote Alamanen alderateko amodioa. Orai arte baitzioten: Frantses arraiok; orai hasiak dire erraiten: Alaman arraiok.¹⁵⁶⁹

Blaise Adémak Hego eta Ipar Hego Euskal Herriko euskaldunen arteko adiskidetasunaren alde egin zuen artikulu horretan. Nahiz eta euskaldunak espainolen parte ezartzen zituen, bereizketa egiten zuen, eta euskaldunenganako hurbiltasuna argi uzten zuen. Are gehiago, beste batean kritikatu zuen Hegoaldeko euskaldunak alemanen alde zirela ziotenek bi aldeetako euskaldunak elkarrekin hoztu nahi zituztela, eta, horren aurka, bere osaba *Zaldubi*-ren bertsoak gogora ekarri zituen:

Eta orai ere izanen othe dire aski itsuak, hango Eskualdunek hemengoentzat dituzten bihotz eta chede onen ukatzeko? Zer batasun ederra egina duten Nabarroan, gure eskualdun soldado ezinduen laguntzeko! Hobeki erakuts othe dezakete, zenbat zaizkigun atchikiak?

[...] Hoieri jarreikiz, behar gintuzke guziek gure buruak eta elgar sustatu elgarri geroago eta gehiago atchikiak izaiterat. Eta nola gure lotgarri hoberena gure mintzaira baitugu, beira dezagun arta handirekin.

¹⁵⁶⁸ Saint-Pierre, «Gure astea». 1915/7/23.

¹⁵⁶⁹ Blaise Adéma, «Gure auzoak», *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 28a.

Hori idatziz, Adémak euskararen balioa ez zuen mugatu giristinotasunaren zabaltzeko edo salbatzeko berme izaerara. Euskal Herri osoaren lotura gisa aurkeztu zuen euskara, eta horrekin abertzaletasun izpi bat sendi zitekeen, Hego Euskal Herriko euskaldunen elkartasuna goraiatzearekin batera. *Zerbitzari*-k ere, asmo horrekin berarekin, Euskal Herriaren osotasuna aipatzen zuen noizbehinka. Behin «zazpiak bat» kontzeptuaz aritu zen, Hego Euskal Herrikoek ematen zuten sostengua eskertzeko:

Gerla hau hasi zelarik, mendiz bertzaldeko Eskualdun zenbeit gure kontra agertu ziren, egunkari batzuek erran zaukutenaren arabera.

Bihotzmin zorrotza Eskualdun gerlarientzat izan zen horren ikastea. Zer, anaiak anaia hola ukatu behar zuela, gure zerna ilhundu zelakotz! Zer bihotz-gabe tasuna!

Eta horra non betbetan gure egunkari maite hunek gan den astean erran daukun etzela egia: bethi Zazpiak bat garela, Espainiako Eskualdunak Frantziakoan alde direla.

Laguntza guzietan baliosena ematen daukute guretzat hain kartsuki eginez. Eta orai bertze gisa batetarat ere frogatu nahi daukute guretzat duten atchikimendua. Oraidanik milesker diotegu Eskualdun gerlariek. Sekulan ez dugu hori ahantziko, anaia maiteak.

Zuek bezala gu ere gero-ta gehiago lehiatuko gare zuekin bat izaiteko.

Biba "Zazpiak bat!"

Milesker hortarat Espainian lehiatzen diren jaun bihotz duner. Milesker ere chede beretarat lanean kartsuki ari diren egunkari eder eta oneri eta guzien gainetik zueri, Euzkadi eta Napartarra.¹⁵⁷⁰

Hego Euskal Herriko euskaldun horien goraiatzea eta Zazpiak Bat azpimarratzea gerla hartan Hegoaldekoek zuten jarreraz mintzatzeko zen. Hots, Hegoaldeko euskaldunek Frantziaren aldeko laguntza eskaintzea zen *Zerbitzari*-k, Adémak bezala, nabarmendu zuena. Bi aldeko euskaldunen arteko anaitasun mota horren beste adibide bat eman zuen Jean Saint-Pierrek. Behin, Gudalgai¹⁵⁷¹ agurtu zuen, haren bisita espero baitzuen eta azkenean ez baitzuen ukan, eta horrek pena handia eragin ziola aitortu zuen. Gudalgai goraiatu zuen, gustatzen baitzitzaion Espainiari frantses armadaren berri nola ematen zion:

Bihotzmin dugu gutartean ez ikusirik jaun aipatu hori, dakigularik bereziki gure anaien agurrak ekartzen zituela mendiz bertze aldetik gure soldado lagun guzier.¹⁵⁷²

«Anai» hitzarekin, euskaldunen arteko halako lotura bat ageri zen artikulu horretan, nahiz eta horrelako aipuak zinez gutxi izan Saint-Pierreren artikuluetan. Idazle horien

¹⁵⁷⁰ Jean Elizalde, «Azken solasa», *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 12a.

¹⁵⁷¹ Manuel Aznar Zubigarai *Gudalgai* (Etxalar 1894-Madril 1975) euskal kazetari abertzalea izan zen, 36ko gerlatik landa frankisten aldera pasatu zen arte. Lehen Gerla Mundialeko kronikak idatzi zituen, gerlako tokietan kazetari gisa ibili baitzen. Xehetasun gehiago: Javier Diaz Noci eta Koldobika Meso Ayerdi, «Manuel Aznar Zubigaray: los inicios de la prensa nacionalista vasca. De Imanol a Gudalgai (1913-1914)», *Obra Periodistica* 1 (2010), Sarean: upf.edu.

¹⁵⁷² Jean Saint-Pierre, «Gudalgai-en agurra», *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 26a.

artean, euskaltzaletasun eta ia abertzaletasun agerraldi horiek hain ziren puntualak eta kasu berezia non hortik ez baitezakegu ondorioztatu *Eskualduma* abertzale bihurtu zela. Ez, gero ere jarraitu zuen Frantziaren aldeko diskurtsoan. Baina ageri da ñabardurak bazirela, eta mugaren bestaldean ere Euskal Herria bazela eta denen artean herri bera osatzen zutelako kontzientzia bazutela. Jon Casenavek argitzen duen bezala, astekariaren eduki politiko eta ideologikoa finkoa zen, baina euskal nortasunari eta euskarari buruzko jarrera ez zen hain bateratua¹⁵⁷³. Euskararen aldeko jarreraren ginetik, Hego Euskal Herriko euskaldunak edo etsai edo anai gisa ikusten zituzten, jarrera hori garaien arabera edo idazleen arabera aldatzen bazen ere. Euskararen aldeko jarreratik euskal kontzientzia politikorik ondoriozta ez daitekeen bezala, Hego Euskal Herriarekiko atxikimendutik ere ez zen kontzientzia politikorik ikusi behar, nortasun kultural beraren kontzientzia bakarrik, orain ikusiko dugun bezala.

c) Euskal estatuaren aurka

Euskararen alde agertzetik edo Hego Euskal Herriko euskaldunengan anaitasun bat aipatzetik kontzientzia politiko bat izatera distantzia handia bazela ikusiko dugu orain. Garai hartan abertzaletasun edo nazionalismoak sortzen ari ziren leku ezberdinetan. Jean-Yves Guiomarrek¹⁵⁷⁴ dio Britainian alderdi abertzale bat sortu zela 1911n, nahiz eta jende gutxi biltzen zuen eta gehiengoak trufaz edo kontrako jarreraz hartu zuen. Kataluniaren berpizkundeak ere eragin handia izan zuen Okzitaniako zenbait lekutan, abertzaletasun edo erregionalismoak piztean. Hego Euskal Herrian ere ideia abertzaleak aitzinatzen ari ziren, Euzko Alderdi Jeltzalearen bidez. Baina, Xabier Itzainaren arabera¹⁵⁷⁵ Sabino Aranaren ideologiak eragin txikia ukan zuen Ipar Euskal Herrian, Aranek interes guti agertu zuelako Ipar Euskal Herriarentzat eta EAJk politikaren eta klerikalismoaren arteko autonomia aldarrikatzen zuelako. Hala ere, abertzaletasun hastapen bat bazen Pierre Broussain-ekin, nahiz eta apaizek haren mezua anitz mugatzen zuten.

Hego Euskal Herriko abertzaletasunaz eta Pierre Broussainen inguruan bildu zirenez (bakar batzuk baizik ez zirela erranez) idatzi zuen Manex Hiriart-Urrutik, 1914an, ordurako gerla lehertua zenean. Hego Euskal Herrian Euskal Herri osoaren batasuna aldarrikatzen zutenak bazirela, baina ideia hori ez zuela begikoa idatzi zuen, bere gisan argudiatuz:

¹⁵⁷³ Casenave, *De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etxepare.*, 57.

¹⁵⁷⁴ Guioimar, «Régionalisme, fédéralisme et minorité nationales en France entre 1919 et 1939».

¹⁵⁷⁵ Itçaina, *Les virtuoses de l'identité. Religion et politique en Pays Basque*, 96.

Eskualdun eskualzale hangotiar eta hemengotiar bilkura batean galdatu zioten bati – eztu ere aspaldi, – elhetik elhere: «Española zirea? – Ez, jauna – Frantsesa beraz? – Ez jauna. – Zer zira beraz – Eskualduna – Eskualdun frantses ala española – Bat ez bertze. – Beraz? – Beraz Eskualduna, ke karamba!»

Atheraldi pullita: nahuzue dezagun erran ederra? Eta gero? – Geroaren berri eztakigu, ez zuek ez guk.

Balethor egun bat, erresuma osoak pusketan eman litzazkena – gerla ondorioz edo bertzela – ezta noizpeit gertha ez ditakena, Eskual-herriaren bi zathiek bat egitea, oraiko Frantses eta Español bi erresumetarik berech.

Batasun hoberik ez lakiguke guri.

Anhartean ez othe da guretzat aneiaki, elgarrekin bizitzerik?

Gobernamenduz, politikazko biziz bateratu arte, arrotz othe gira eta atze?

Nere burua nor nahi bezen eskualdun daukatarik, ene hitzean nago: berech izaiteko eztela aski erraitea: «Espainia bat da, Eskual herria bertze bat». Bainan hola zaiotenek hola erran bezate berentzat. Guk eskualdun frantsesek eztugu Frantziatik berechtea galdatzen: are gutiago erraiten ja bi direla Frantzia eta gure Eskual-herri hau?

[...] Noizpeiko aspaldiko ethorkiz bat izanik ere, demborak berezi bagitu erresumaz: bi zathitan ezarri bagitu bi populu auzori eratchikiak, bien ararteko edo lokarri izaitea gu hiruen onetan ez litakea?

[...] Ezkontzaz berechten zira, lehen auzo geldituz, burhaso eta haurridetarik,... ahultzen direa sor- etchearekilako lokarriak, ala luzatuz, hedatuz, azkartzen? – Ezta bardin. – Ez osoki: bainan hein batez, adichkidea, eza?¹⁵⁷⁶

Euskal Herriaren independentziaren kontra zegoen Hiriart-Urruti¹⁵⁷⁷. Ez zuen ukatzen erro berekoak zirela Hegoaldeko eta Iparraldeko euskaldunak, herri bera zela. Anaiatzat hartzen zituen Hegoaldekoak, familia bereko kidetzat. Nortasun bakar hori bazela aitortzen zuen, eta batasun ideal horren ideia zilegitasuna ez zuen ukatzen. Baina nortasun horren kontzientzia ez zen politikoa, artikulua horretan ageri den bezala. Hizkuntzara edo kulturara mugatzen zen *Eskualduna*-ren kontzientzia. Nortasun politikoaz mintzatzerakoan, Frantziaren parte izatea ez zuten dudan ezartzen. Jon Casenavek ere dio 1914-1918ko gerla denboran, mugimendu kulturalak geldialdi bat izan zuela eta Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko banaketa sakondu zela¹⁵⁷⁸.

Gorago aipatu dugu ez zegoela jarrera baturik *Eskualduna* astekarian, nortasunaren edo euskararen inguruan. Baina kontzientzia politikoari dagokionez, ez dugu aurkitu Hiriart-Urrutiaren artikulua horrek erakusten zuen jarrera gezurtatu zuen besterik. Euskararen aldeko artikulua eta Hegoaldekoekiko anaitasun seinaleak baziren, bai. Baina Euskal

¹⁵⁷⁶ Manex Hiriart-Urruti, «Frantzia eta Espainia», *Eskualduna*, 1914ko urriaren 23a.

¹⁵⁷⁷ Artikulu hori eta jarrera hori xeheki aztertu genuen beste lan batean: Bidegain, *Gerla Handia, muga sakona*.

¹⁵⁷⁸ Casenave, *De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare.*, 172.

Herriaren ikuspegi politikoa aipatzen zuen artikulurik ez zegoen, are gutxiago euskal estatu baten aldekorik.

Ukaezina da Euskal Herriak zinezko lekua zuela *Eskualduna* astekariko berriketarien lumetan. Euskaldunak ziren, eta goraki eta harro erraten zuten. Baina Euskal Herriarenganako maitasun horretan ez zen ageri asmo politikorik. Herritik urrun izatearen mina ez zen arrotz-herri batean izatearen minaren gisakoa, edo ez zuten hala erakusten. Gerla lekuak leku gogorrak ziren, hango baldintzak ere jasangaitzak bide ziren, nahiz eta artikuluetan ez ziren hain gogor mintzo. Hori hala izanik, ulergarri ere izan daiteke etxearen falta sentitzea, bereziki etxeko berokia eta etxekoen maitasuna. Herrimin hori – are gehiago, etxe-min hori – sentitzea ez zen jarrera politiko bat.

Eta Euskal Herriaz egiten zituzten gainerako erreferentzietan ere ez zitekeen jarrera politiko gehiago ikus. Inguruko lekuak eta jendeak Euskal Herrikoekin konparatzea aski baliabide erraz eta natural gisa uler daiteke. Irakurleak Euskal Herrian zituzten, Euskal Herrikoak ziren ezagutzen zituzten lekuak, eta beraz zerbait erakusteko modu eraginkorra zen irakurleek ezagutzen zutenarekin konparatzea.

Euskaltzaleak ziren, bai. Baina hizkuntzaren defendatzaile, soilik. Argi eta garbi mintzatu ziren Euskal Herriaren batasun politiko baten kontra; franko jarrera kritikoa zuten Hego Euskal Herriko euskaldunekiko. Beraz, nahiz eta Euskal Herria bihotzean izan, nahiz eta euskararen alde agertu, nortasun politikoa Frantziari atxikia zutela gezurtatzeko biderik ez dago, gerla garaian idatzi zituzten testuetan.

II. EUSKALDUN ON, SOLDADU ON

Aztertzen ari garen astekariak ez bazuen ere ikusten Euskal Herriaren nortasun politiko propiorik, eta hori horrela erraten bazuen ere, denek ez zuten uste euskaldunak bereziki bero zirela Frantziaren defendatzeko. Miquèl Ruqueten arabera, Euskal Herriko populazioa ez zen bero gerlan parte hartzeko, eta ez zeukan frantses nazioarenganako atxikimendu handirik:

Dans les Pyrénées, la mobilisation se fait avec angoisse, surtout en ce qui concerne les femmes, et l'enthousiasme semble limité aux centres urbains. L'apathie des populations du Pays Basque et de la Cerdagne et les départs vers l'Espagne des habitants de ces régions marquent un attachement moins grand à la nation.¹⁵⁷⁹

Eskualduna astekariaren azterketaren helburua ez da euskal gizarteak zinez zer pentsatzen zuten jakitea, baizik eta astekari horrek euskal gizarteari zer mezu zabaltzen zion argitzea, sarrera nagusian esplikatuz dugun bezala. Baina argi da berezitasun zerbait bazela Euskal Herrian, eta berezitasun hori islatzen zela *Eskualduna*-n ere. Baina oraitan aipatu dugun Euskal Herriarenganako atxikimendu hori eta euskararen goraiatzeko hori ez daiteke bereiz ondoko orrialdeetan landuko dugun gaitik eta frantses nortasunaren aldarrikapenetik. Hain zuzen, atal honetan askatu nahi dugu lan honetako korapiloetariko bat. Zergatik azpimarratzen ote zuten euskaldun izaera, zergatik goraiatzen ote zuten, beren gisan, Euskal Herria, aldi berean beren burua guztiz inplikaturik ikusten bazuten Frantzian eta gerlan, Frantziaren alde? Zertan uztartzen ziren bi jarrerak?

Galderari erantzun aitzin, nortasunaren beste ikuspegi bat landuko dugu. Aitzineko orrialdeetan euskal nortasunaren aldetik aztertu dugu *Eskualduna*-ko idazleen jarrera.

¹⁵⁷⁹ Miquèl Ruquet, «Désertions et insoumissions sur la frontière des Pyrénées pendant la guerre de 14-18», in Denis, Gwendal: *Mémoire et trauma de la Grande Guerre. Bretagne, Catalogne, Corse, Euskadi, Occitanie* (Rennes: Rennes 2 Université Haute Bretagne, 2010), 65–93.

Oraingoan, frantses nortasunaren ikuspegitik ariko gara. Aitzineko orrialdeen jarraipen gisa, euskal estatuaren kontra agertu ondoan, Euskal Herria Frantziaren parte ikusten zutela nola adierazten zuten ikertuko dugu lehen zatian.

Gero, berriz ere jarriko dugu arreta euskaldunetan, baina bereziki soldaduetan. Nahiz eta Euskal Herria Frantziaren parte ikusi, eta beraz, dena herri bera bezala kontsideratu, euskaldunak frantsesengandik bereizteko joera hori nola agertu zen aztertuko dugu, eta bereziki, hori eginez zinez zer bilatzen zuten ulertzeko ahalegina egingen dugu. Azkenik, gerlako engaiamenduaren izaera konplexuagoak ere ikusiko ditugu. Frantziaren aldeko jarrera politikoaren gainetik, gerlan motibatua izateko beste faktore batzuk ere agertu zirela erakutsiko dugu, joera orokorrekin konparatuz.

A. Euskal Herria Frantziaren parte

Euskal Herriaren batasun politikorik ez zutela nahi argi utzi ondoan, orain ikusiko dugu nola agertzen zuten Ipar Euskal Herria Frantziaren parte. Bi gisetan ikusiko dugu jarrera hori zutela. Alde batetik ohartuko gara politikoki edo nazio ikuspegi aldetik, aztertu ditugun idazleak Frantziarekin identifikatzen zirela. Zehazkiago aztertuko dugu identifikazio hori nola erakusten zuten. Bigarrenik, Frantziatz nola mintzo ziren aztertuko dugu.

I. Frantziarekiko identifikazioa

Frantziarekiko identifikazioa aztertzerakoan, hiru arlotan bereizi dugu jarrera hori. Alde batetik, aztertu dugu *Eskualduna*-ko berriketariak berak nola mintzo ziren beren buruaz, hots, beren buruaren zein nortasun erakusten zuten idazten ari zirenean. Bigarrenik, Frantziarekin bat egiten zutela aztertuko dugu bereziki. Hirugarrenik, nolako lurralde ikuspegia erakusten zuten garatuko dugu.

a) Frantses gisa mintzo

Eskualduna-ko idazleek, bai Baionatik editorialak idazten zituztenek, bai gerla lekutik ari zirenek, euskaraz ari baziren ere, beren burua frantses gisa agertuz idazten zuten. Frantses

gisa agertzearen lehen seinalea, aitzineko lan batean agertu genuen bezala¹⁵⁸⁰, frantses soldaduei edo Frantziari buruz aritzean pluraleko lehen pertsona erabiltzea zen. Frantzia idazteko, maiz «gu» idazten zuten. Hainbat adibide badago¹⁵⁸¹, artikulu gehienetan, gerlaren gorabeherak aipatzean eta Frantzia zertan zen zehaztean, «gu» erabiltzen baitzuten, Arraseko guduari buruzko artikulu¹⁵⁸² batean bezala. Jean Saint-Pierrena da ondoko adibide hau ere, garbi ageri baita «gure alde» horrekin, «Frantziaren alde» ari zela idazten:

*Jendea gure alde jartzen ari da gero-ta gehiago, ezagun baita nork duen gerla egiten gizonki. Hiri handietan gerlaren alde oihuz egiten dire bilkurak. Berek diote gerla hobe dela, hola egoitea baino, geroari beha, gisa hortako lazduran.*¹⁵⁸³

Saint-Pierrek «Frantziaren alde» idazteko orde «gure alde» idatziz, bera frantses zela erraten zuen. Egia da, hala ere, gerlan inplikaturik zela, eta beraz horren gibelean Frantzia baino gehiago, alemanen kontra ari zen soldadu taldea ikus zitekeela. Ondoko adibideak dudak uxatzen lagunduko gaitu, pluraleko lehen pertsonaren ondoan «frantsesak» gehitu baitzuen:

*Egia da. Bainan hori dugu frantsesek egundainoko eskasa, amets handiegiz asetzeari, gogo beroturik lotzen baikira lanari, zer nahi egin beharrak, bethi eta zalhu, harrituak gero, eta eroriak lurrera, uste baino laburrago hedatu dugulakotz besoa.*¹⁵⁸⁴

Zati horretan, beste batzuetan bezala, argi eta garbi idatzi zuen frantsesak haiek zirela, bera frantsesa zela. Berdintsu jokatu zuen, Frantziako lekuak laudatu zituen batean. Frantziako lur batzuk okupatzean eta gero frantsesek berreskuratzean, alemanek gibelean dena suntsitu zutela, denari su eman ziotela eta gizonak, emazteak eta apaizak berekin eramane zituztela salatu zuen Saint-Pierrek. Gerlan zubiak-eta suntsi zitezkeela aitortu zion alemanari, baina behar gabeko suntsiketak egitea leporatu zion. Alemanek suntsitu zituzten Frantziako leku «xoragarriak» laudatzean, ordea, leku haiek «gure» gisa aurkeztu zituen, Frantziarena berena zela argi utziz:

*Gure lur eta herri choragarriak itzultzen daizkigute zikindurik, hauts eta herrauts, oro larre, odol hotzean, deus ahanzi gabe.*¹⁵⁸⁵

Hau ere, Frantziaren lehen pertsonan mintzatzea zen. Bere burua frantses gisa aurkeztearekin batera, Frantziarena zena berea zela idatziz, are gehiago baieztatzen zuen

¹⁵⁸⁰ Eneko Bidegain, «Quand les Basques écrivait «Biba Frantzia!»», in Denis, Gwendal (zuz.): *Mémoire et trauma de la Grande Guerre. Bretagne, Catalogne, Corse, Euskadi, Occitanie* (Rennes: Rennes 2 Université Haute Bretagne, 2010): 41-64.

¹⁵⁸¹ Saint-Pierre, «Aintzina». 1915/4/30.

¹⁵⁸² Saint-Pierre, «Arras-eko gudua». 1915/6/11.

¹⁵⁸³ Jean Saint-Pierre, «Italiaren laguntza», *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 7a.

¹⁵⁸⁴ Saint-Pierre, «Gudu baten irabazia». 1917/5/11.

¹⁵⁸⁵ Jean Saint-Pierre, «Oro larre», *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 6a.

bere burua frantses ikusten zuela. Eta Jean Saint-Pierre ez zen hori egin zuen bakarra. Jean Etxepare ere gisa berean mintzo zen. Nahiz eta gehienetan aski modu hotzean idazten zuen, gerla bukatzera buruz, bere burua frantses ikusten zuela aipatu zuen, hark ere «gu frantsesak» eta gisa horretako hitzak erabiliz. Adibidez, behin idatzi zuen frantsesek – pluraleko lehen pertsonan – ezin izan zutela ingelesak Lens eta Saint-Quentin-en bezainbat aitzinatu. Laon «ez dugu» hartu, baina mendi bizkar batzuk bai, idatzi zuen¹⁵⁸⁶. Ez zen ohikoa Etxeparek «guk frantsesek» idaztea, baina artikulu horretan hola da. Ez zen kasu bakarra izan, inondik ere. Horra beste adibide bat:

Gu Frantsesak, hasteko, ez ginintazke ontsa hel bide hortaz.

*Ezen gure sei departemenduetako jendea eskuetan dauka oraino etsaiak; eskuetan ere dauzka gure soldado bahituak.*¹⁵⁸⁷

Batetik, «gu frantsesak» idatzi zuen, ongi azpimarratuz bere burua frantsestzat zeukala. Are gehiago, Alemaniak Frantziari hartu zizkion departamenduak ere «gure» departamenduak bezala aipatu zituen. Hots, Saint-Pierreren arrazoinamendu bera zuen: Ipar Euskal Herriko euskaldunak frantsesak zirela zioen eta, beraz, Frantziaren jabetza Ipar Euskal Herriko euskaldunen jabetza zela ondorioztatu zuen.

Zerbitzari ere ildo beretik ibili zen. Maiz mintzo zen euskal soldaduez, eta argi uzten zuen horiek frantses soldaduak zirela, haren iritziz, anekdota batzuk kontatzean, adibidez:

Nor da bada bihotz gaitzeko soldado hori? Frantses soldado bat eta gehiago dena: Eskualduna: Bezkoitzekoa.

[...] Nori esker? Soldado frantses bihotzdun bati esker. Eskualduna hau ere, Haltsukoa.

*[...] Horra hirur soldado eder, gure herritarrak. Milaka eta milaka badire holakoak gure armadetan. Nola nahuzue beraz Alemanak lotsa detzan Frantsesak? Datorzila ifernuko debru guziekin nahi badute, tanks edo bertze edozoin tresnetan sarturik, debaldetan dute.*¹⁵⁸⁸

Aipatutako artikulu horretan frantsesak aipatzean ez zuen pluraleko lehen pertsona erabili. «Frantsesak» eta «alemanak» aipatzen zituen, baina ez «gu» eta alemanak edo «haiek». Hala ere, eman dugun pasarte horretan ageri zen euskaldunak frantsesak zirela uste zuela. Hain zuzen, hiru euskaldunetaz mintzo zen, euskaldunak zirela zehaztuz, baina euskaldun horiek beste nortasun bat zuten gainetik, hala nola frantsesa, *Zerbitzari*-ren arabera. Hots, euskaldun izatea frantses izatea zen. Euskaldunak desberdintzen zituen, baina ez aparteko zerbeit bezala, ez frantsesak ez balira bezala, baizik eta hurbiltasun arrazoiengatik eta haiek ere frantsesak zirela azpimarratuz.

¹⁵⁸⁶ Etxepare, «Eta guk?». 1917/5/18.

¹⁵⁸⁷ Etxepare, «Abrekeriak». 1917/6/29.

¹⁵⁸⁸ Elizalde, «Nola lotsa holako soldadoak?». 1918/1/18.

Manex Hiriart-Urrutiren eta Blaise Adémaren editorialetan ere beren burua frantses gisa ikusten zuten, Frantzia aipatzeko pluraleko lehen pertsona erabiltzen baitzuten, ia beti. Kasu guztiak zerrendatu behar balira, biziki luze litzateke. Dozenaka adibide aipa daitezke, non «Frantzia» errateko ordez «gu» erraten zuten, edo beste batzuetan «gu frantsesak». Hego Euskal Herria «Espainia» gisa definitzearen beste aldea zen hori.

Jean Saint-Pierreren adibide bat biziki adierazgarria da alde horretatik. Ipar Euskal Herria Frantziaren parte ikusten zuen, eta Hego Euskal Herria Espainiaren parte; horrela mintzo zen bi leku horiek aipatzean, Oiartzunen bizi zen apaiz soldadu baten ehorzketaren kronikan:

Aita Blaise, Frantziako lurrik galdurik Espainia Oyharzunen bizi zena ehortzi dugu; "tranchées" direlako lur zilo hetarik batean kolpaturik hila. [...] Frantziak bizkitartean Espainian bizitzerat bortchatua zuelarik, hemen pocholuz hura zen frantses ona!¹⁵⁸⁹

Pasarte hori lehen ere aipatu dugu, baina aldi honetan beste arrazoi bategatik ekarri dugu. Biziki garbi utzi zuen – bi aldiz zehaztuz – Oiartzun Espainian kokatzen zuela. Zergatik hori zehaztu? Zergatik ez geldi mugaren bestaldean, mendiaren bestaldean edo Gipuzkoan zela idaztearekin? Bestetik, euskaldun hori «frantses ona» zela azpimarratzean are gehiago markatzen zuen alde batekoak frantsesak zirela eta bestaldean Espainia zela. Hori frantses gisa agertzea zen.

Frantses gisa agertze horretan, hein bat gorago joan zen Jean Etxepare, artikulua batean. Frantses nortasuna gainerako herrialdeetako jendeen eraginez ahulduko zelako kezka agertu zuen. Gerla tokietan zeuden atzerritarrek gerlatik landa beren herrira itzuli behar zirela idatzi zuen, frantsesen odola ez zedin haienarekin nahas. Beldur zen alemanen, ingelesen, espainiarren edo indiarren eraginez, frantses izaera ez ote zen gehiegi ahulduko:

Ruso multzoño bat badugu gure leihorrean, zombait aste hotan, gerlan gure laguntzerat etorriak. Bertze andanaño bat jinen omen zaizkigu gerochago. Ez guk nahi edo uste bezenbat haatik.

Halaber gure lantegietarat bildu ditugu gure kolonietako ume zombait: Annamita eta Kabyla. Bai eta, nork behar zuen erran? bortz mila Chino, aitzinean ginauzkanez bertzale.

Nagusi bilku batek ekar arazi gogo omen ditu oraino bertze berrogoi mila Chino, guziak haatik gerla ondoan beren sor-herrirat itzultzekotan, nahi badute edo ez.

Odol arrotz sobera ez ginuke alabainan sarthu nahi gure zainetan. Ja nahasi zauzkunarekin baginuke aski.

Alemanek hamar departemendutan, Angles eta Indioek bospaseietan, Parise barne, Españolek eguerdi aldetik, Italianoek iguzkikotik, iduri luke guziek ithotzera geramatzatela.

¹⁵⁸⁹ Saint-Pierre, «Gerlarrien berri». 1914/12/11.

Gauden halere azkar eta konfiantzaz betheak, lanari bethi jarraikiz. Gure lurrrak, gure indarrek, gure legeek, gure bihotzak bilhakaraziko ditu emeki emeki frantses, arrotz horiek guziak.

Frantses epel behin, nahi badugu, bainan denik ere frantses. Arrunt gure idurikotzeak emanen baitauzkigu lanak, uste dut gudu berri hortan handituko diren oraino, eta noizbait gizonduko.¹⁵⁹⁰

Ongi zitzaion gerla tokian hainbat atzerritar – txinatarrak eta abar – aritzea Frantziaren laguntzen, baina ez zuen nahi gerla bururatu ondoan erroak han egin zitzaten, frantses odola ez sobera nahasteko. Arrazakeria zerbait nabari zen hor, baina bereziki frantses nortasunarenganako grina. Berriz ere bere burua guztiz frantses aurkezteaz gain, frantses izaera horretaz mintzo zen. Ez zen soilik frantses hiritartasuna ukaitea, Frantzia osoaren nortasun «garbia» zaindu nahi zuen, beti ere bere burua nortasun horren parte eginez.

Horiek hola, ez zuen hainbesteko kezkarik frantses nortasunaren galtzeari begira. Gero aski fede erakutsi zuen Frantziaren baitan, zehaztuz frantsesek aski indar bazutela kanpoko jendea bertakotzeko eta frantses bilakarazteko, bistan denez, pluraleko lehen pertsona erabiliz, bera ere indar horren jabe eta frantses gisa kokatuz. Lehenago erakutsi badugu ere Euskal Herriarekiko atxikimendu eta herrimin bat bazela, Pierre Purseiglek ongi azaltzen du¹⁵⁹¹ lekuko nortasuna frantses nazioarenganako atxikimenduaren helduleku bat baizik ez zela, gerla hartan.

b) Frantziarekin bat

Eskualduna-ko idazleek beren burua frantses ikusten zutela behin eta berriz erakustera eman eta gero, ondoko urrats logikoa da Frantziarekin bat egiten zutela. *Zerbitzari*-k guztiz Frantziaren parte eta gerla logikan kokatu zuen bere burua, alemanen kontrako gudu horretan. Beti pluraleko lehen pertsona erabiliz, Alemaniari hartu zizkion lurren doblea berriz hartu arte Frantziak ez zuela amore emanen idatzi zuen:

Verdun gurea da eta gure egonen. Aski pagatu ahal dugu gauden urthean, orai ez etsaiari uzteko!

Alemanek eskualde hortan badituzte gutien gutienik bortz ehun mila soldado utziak. Eta egia erran, hek direnekin handia litzaiket bertze bortz ehun mila gizon galdu gabe etsitzen balute. Astoari zerbeit buruan sararazteko eman behar zaio panpako. Ala ez, Nani?¹⁵⁹²

Verdun «gurea» zela azpimarratuz, ez zen bakarrik Frantziako eremu bat berea bezala kontsideratzen ari. Kasu hartan, gerlako leku garrantzitsu bat aipatzen ari zen. Halako leku baten berreskuratzea garrantzitsua zitzaion gerlaren bilakaerarentzat eta, beraz, Frantziaren

¹⁵⁹⁰ Jean Etxepare, «Lagunak», *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 5a.

¹⁵⁹¹ Purseigle, «Mobilisation, sacrifice et citoyenneté, Angleterre-France 1914-1918», 151.

¹⁵⁹² Jean Elizalde, «Verdunen gaindi», *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 7a.

etorkizunarentzat. Horrela, politikoki ere bat egiten zuen Frantziarekin. Gisa bereko beste adibide batzuk, eman dezagun, Craonne herria «gurea» zela idatzi zuenekoak¹⁵⁹³. Eta hori ez zen Craonne aipatu zuen kasu bakarra:

Guretu ditugu goiz batez hirur kilometra eta erdi lur: zortzi mila presoner hartu.

*Nahi dut ez dela hortan akhabo gerla. Etsaia ez da oraino gure erresumako mugetan.*¹⁵⁹⁴

Berriz ere, Frantziarentzat «gure erresuma» aipatuz, identifikatze garbia egin zuen. Baina gerla logikan, Frantziaren garaipena nahi zuela eta alemanak Frantziako mugetatik kanpo igorri nahi zituela adierazi zuen. Beste behin, euskaldun anitz zituzten bi erregimentuk Frantziako Noyon eta Mont-Renaud herriak hartu zituztela idatzi zuenean, Frantzia salbatu zutela idatzi zuen:

*Batek eta bertzeak lan handiak egin dituzte gerla huntan; baina Frantzia guziak ahantzi beharko ez duena da, bi errechimendu horiek dutela gan den Martchoan gure Herria salbatu, «Noyon» delakoan lehenik eta gero «Mont-Renaud» delakoan etsaia lehertuz.*¹⁵⁹⁵

Frantzia aipatzean, «gure herria» idatzi zuen. Hots, euskaldun batzuen laguntzaz salbatu zuten beren herria, hala nola Frantzia. Beste anitzetan, euskaldun bat gerlan hiltzen zenean, *Eskualduna*-k azpimarratzen zuen bizia «herriarentzat» eman zuela¹⁵⁹⁶. Frantziarekin bat egiteko jarrera politiko bat ikus daiteke horren gibelean.

Manex Hiriart-Urrutik ere azpimarratu zuen euskaldunek Frantziarekin bat egiten zutela eta nolako atxikimendua zuten herri harengan. Hori agertu zen, adibidez, gerla hastapeneko artikuluan batean, mobilizazio eguna kontatu zuenean:

Frantzia guzia, egun hautan, bere armada maiteari dago. [...]

*Gerlaz osoki hartua zutela gogoa, ezagun zuten Baionako karrketan profesioneari zarrizkon zazpi, zortzi ehun soldadoek. Hain zuten gogotik egiten othoitz gizagaizoez, berentzat, beren familientzat, Frantziarentzat.*¹⁵⁹⁷

Frantziako armada «maitea» aipatzean Frantzia maitatzea aipatzen ari zen. Euskal Herrikoek ere maite zuten Frantziako armada eta othoitz egiten zuten Frantziarentzat. Frantziarekin bat egiten zuela erakusten ari zen Hiriart-Urruti une horretan. Blaise Adémak ere azpimarratu zuen Euskal Herrian Frantzia maitatua zela:

*Bai egiazki Frantzia maitatua da Eskualherrian. Zenbat Eskualdun ez dire etorri Ameriketarik etsaiari buruz gudukatzeko!*¹⁵⁹⁸

¹⁵⁹³ Elizalde, «Craonneko eskualdean». 1917/9/7.

¹⁵⁹⁴ Jean Elizalde, «Bertze eskualdean», *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 2a.

¹⁵⁹⁵ Jean Elizalde, «Besta eder bat», *Eskualduna*, 1918ko agorrilaren 16a.

¹⁵⁹⁶ Hori beste lan batean barnatu dugu: Bidegain, *Gerla Handia, muga sakona*.

¹⁵⁹⁷ Manex Hiriart-Urruti, «Gure soldadoak», *Eskualduna*, 1914ko agorrilaren 21a.

¹⁵⁹⁸ Blaise Adéma, «Milesker!», *Eskualduna*, 1917ko uztailearen 13a.

Mobilizazioan Frantzia «maitea» aipatzea, gerlan Frantziako lurraldeen okupazioari edo libratzeari halako garrantzia ematea Frantziarekin politikoki bat egitea zen. *Eskualduna*-k bat egiten zuen Frantziarekin. François Cochetek dio Frantziako nazio sentimendua bazela, nahiz eta «berria eta hauskorra» izan:

*Le sentiment national existe d'autant plus qu'il est récent et fragile à bien des égards. Il vient se superposer à une culture encore très régionale, exprimée en des parlers locaux.*¹⁵⁹⁹

Soldaduak gerlara joan zirenean, frantses sentimendua bazuten, beraz. *Eskualduna*-k ere ideia hori zabaldu zuen. Euskaldunek frantses nazioarenganako identifikazioa zutela idazten bazuen ere, hori bera ez da aski hori hala zela baieztatzeko. Baina *Eskualduna*-ko idazleek frantses nazioarekin bat egiten zutela baieztatzeko bai, ordea.

c) Frantziaren lurralde ikuspegia

Eskualduna-koek Frantziarekin bat egitearekin batera, interesgarria da ikustea Frantziako lurraldearen zein ikuspegi zuten. Bereziki Alsaziaren eta Korsikaren kasuetan jarri dugu arreta. Euskal Herritik urrun diren eskualde horiek ere, Frantziako gainerako lekuak bezala, beretzat jo zituen *Eskualduna*-k, hots, «gure» eskualde gisa aurkeztu zituen. Manex Hiriart-Urruti horrela mintzatu zen Korsikaz:

*Bainan etzelarik alta ethorki handikoa, sortzez ere doi-doi frantsesa, "Corse" ugarte, haren sor-lekhuak ez baitzuen urthe bat guretua ginuela, Napoleon hori han sorthu zenean.*¹⁶⁰⁰

Artikulua ez zen Korsikaz, baizik eta Napoléon eta Gilen II.a enperadoreen arteko konparaketaz. Baina guk esaldi hori azpimarratu dugu, hor ageri baita, Hiriart-Urrutik azpimarratu zuela nola Korsika garai bat arte ez zen frantses, eta garai batetik goiti frantses zen. Kasu honetan, «guretua» hitzak garrantzi handia du, ez bakarrik Korsika frantsestu zela erraten ari zelako eta gisa hartan Frantziaren lurralde ikuspegian Korsika integratzen zuelako, baizik eta «guretua» horrekin Korsikaren jabe ikusten zuelako bere burua. Eta ez euskaldun gisa, baizik eta frantses gisa.

Eskualdez aldatzeko, Jean Saint-Pierrek, frantses sentitzearen ildoan, Alsaziaren autonomia aipatu zuenean, Euskal Herrian ez zela nehor gaitzitzen frantses deitzen bazuten argitu zuen:

Ez erran hemengo jendeari aleman direla: odola jauzten zaio, gaitzitzen zaio solasa, haur ttipi ala jende handi, laido eta eskarnio tzar baten pare.

¹⁵⁹⁹ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 56.

¹⁶⁰⁰ Manex Hiriart-Urruti, «Napoléon eta Guillaume», *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 6a.

Eskualdunari eder zaio eskualdun agertzea; bainan ez du hala gaizki hartuko frantses edo espainol dela entzutea; hemengoer. Ez aipha aleman direlakorik. Egundaino ez dute onhartu Alemanarekilako junta.¹⁶⁰¹

Bi ondorio atera daitezke zati honetatik. Alde batetik, Alsazia ez zuela aleman ikusten eta are gutxiago alsaziarrak. Baina horren errateko erabili zituen alsaziarrak, alsaziarrek beren burua ez zutela aleman ikusten azpimarratuz. Horrekin ez zuen zuzenean erran alsaziar horiek beren burua frantses ikusten zutela, baina orain arte aipatu dugun testuinguru guztiarekin berehala ondoriozta daiteke hori zela adierazi zuena. Are gehiago idatzi zuenean euskaldunei ez zitzaiea gaizki iruditzen frantses zitzaten. Saint-Pierrentzat, alsaziarrek beren burua frantses ikusten zuten, euskaldunek berena bezala. Lurralde beraren parte ikusten zituen euskaldunak eta alsaziarrak.

Oxobi-k ere hainbat aldiz laudatu zuen Frantzia, egiten zituen deskribapenetan zehar. Bereziki Alsaziari buruzko artikulu bat da azpimarragarriena:

Demagun herri huntan bazirela gerla hasi baino lehen bostpasei ehun gizon. Bostpasei ehunetarik, zonbat uste duzue herrian berean sortuak? Goren gorenaz ehun. Bertzeak oro hiruetan hogoi-ta hamarrez geroz jarriak hemen, ez bakotcha bere gostura, nola nahika itsura, ez, ez, Alemaniako buruzagiek hautaturik: burdin bidetako langile, jaun eta muthil, muga zain, hiri zain eta debu botiga guziak.

[...] Herri hau gure duguia oso osoki? Nik ez uste. Hemen dagozinek Alemanian dituzte eta ahaide gehienak! Edo Frantzian direnak preso dauzkagu.

Egia erran ez da errech jakitea nor dugun alde eta nor ez.

Gauza bat behar zakote eman hemengoer ere. Jarraikiak dire elizari. Alsace-tarrak fededunak dire. Aiphatzen ditugun hauek hanbertze protestantekin bizi zirelarik – Alemaniako empleatuetan ez da bertzerik – oso beiratu dute fedea. Goiz guziez ikusiko dituzu haur gehienak elizan mezaren entzuteko eskolarat joan baino lehen.¹⁶⁰²

Oxobi-k kontatu zuen nola sartu ziren Alsaziako herri txiki batean. Alsaziako egoera, azken hamarkadetako historia eta 1870etik landa alemanek Alsazia nola populatu zuten azaldu zuen Alsazia Frantziaren parte gisa agertuz, eta ez Alemania gisa. Alsaziako gizartea kritikatu zuen, baina ez alsaziarrak, baizik eta Alsaziara bizitzera joan ziren alemanak. Horrekin ongi bereizi nahi izan zituen berez alsaziarrak zirenak eta Alsazia, gisa batez, kolonizatzeraz etorri ziren alemanak. Alsaziar horiek giristino onak ziren, frantses onak. *Oxobi*-k haiekin lotzen zuen Alsazia. Hiriart-Urrutik Korsika «guretu» zutela idatzi zuen bezala, *Oxobi*-k aipatutako herri hori «gurea» zela zehaztu zuen. Beraz, haren lurralde ikuspegian ere, Alsazia Frantziaren parte zen, Euskal Herria edo Korsika bezala. Frantziako

¹⁶⁰¹ Jules Moulier, «Ez dire aleman», *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 10a.

¹⁶⁰² Jules Moulier, «Zeren gatik», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 8a.

lurralde mapa inguruko eskualde horiekin batera osatzen zuen, *Eskualduna*-ko gainerakoek bezala. Hori ere frantses agertzearen beste seinale bat zen.

2. Frantzia goraiatzeko

Argi ageri da *Eskualduna*-koek beren burua frantses ikusten zutela, nahiz eta euskaldun ere ageri ziren. Frantzia haien nazio edo aberri gisa ikusten zuten. beste arrazoi batzuk ere badira pentsatzeko guztiz bat egiten zutela, politikoki, Frantziarekin, orain aztertuko dugun bezala. Alde batetik, erakutsiko dugu nola konparatzen zuten Frantzia gainerako herrialdeekin, erakutsiz besteak baino hobea zela. Bestetik azpimarratuko dugu Frantziako estatuaren alde eta bere agintarien alde agertzen zela argi eta garbi.

a) Frantzia besteak baino hobea

Gisa asko erabil daiteke norbaiten edo herrialde baten goratzeko, eta horietarik bat da besteekin konparatzea, besteak baino hobea dela erakutsiz. Ikusiko dugu hori zela *Eskualduna*-koek egiten zutena Frantziarekin. Zehazkiago, Frantziaren aliatuak aipatzerakoan erakusten zuten jarreran ageri da hori. Jean Saint-Pierreren artikuluetatik ateratzen dira azterketa honetan sartzeko iruzkin gehienak. Hasteko, Errusia aipatzeko modua dago. *Zerbitzari*-k Frantzian zeuden eta ikusi zituen errusiarrak deskribatu zituen, alde batetik haien edertasuna eta handitasun fisikoa laudatuz, baina bestetik haien ahuleziak azpimarratuz:

Gure Frantzia zerua zaiote. Ongi jaten bide dute, hobeki edaten. Etzuten egundaino holako erreka ederrik ikusi. Gure artilleriaz ere harrituak daude. Holakorik izan balute Rusian, aspaldi garhaituak omen zituzten Alemanak, diren gizon ketarekin.

[...] Dena den, bihotz-altchagarri ederra da. Frantses batentzat hemen ditugun Rusiano ederren ikustea eta gaizoekin bi solas egitea.¹⁶⁰³

Zerbitzari-ren iruzkina ez zen mugatzen errusiarrak frantsesen artilleriaz jelos zirela erratera. Errusiarrentzat «gaizo» adjektiboa erabiltzean edo Frantzia «zerua zaiote» idaztean, errusiarrak gutxietsi eta Frantzia goretsi zuten.

Geroago, Errusian Iraultza izan zen eta herrialde hori gerlatik erretiratu zen. Hainbat aldiz aipatu zituzten hango gertakariak, egoerak kezka eragiten baitzien; Errusiako iraultzaren kritika zorrotzak agertu ziren hainbat artikulutan. Jean Saint-Pierre errusiarrez

¹⁶⁰³ Jean Elizalde, «Rusianoak», *Eskualduna*, 1916ko urriaren 6a.

idatzi zuen «kaskoa zilo» zutela¹⁶⁰⁴, hots burutik ez zeudela ongi. Jean Etxeparek errusiarren erretiratzea edo iraultzaren ondorioz ahultzea kezka iturri gisa agertu zuen, haien ahulezia komentatuz:

*Rusoak ez balaizkigu orai berebaitarutzen, etsitzeko litake. Etsitzeko ere lukete berentzat Rusoek, ezen alemanak alde batetik ausiki, bertzetik japonesak, kreit guzia galdua bazterretan, errautsetan litazke eror gizagaizoak.*¹⁶⁰⁵

Jean Elizaldek ere bere gisan mespretxatu zituen errusiarrek, 1918an. Frantsesek alemanekin zuten gudu batean nagusitzeko aukera guztiak zituztela idatzi zuen; alemanek frantsesen kontra ez zutela errusiarren kontra bezain aise irabaziko zehaztu zuen:

*Behartuko zaio Alemanari balinbazuen gizon. Gisa huntan ez du hanbat iraunen. Ez baitu hemen Rusoekin egiteko!*¹⁶⁰⁶

Azken esaldi hori errusiarren mespretxatzea baino gehiago, frantsesen laudatzea zen. Gisa berean, Errumania ere gaintetik bezala hartzeko joera zuten. Herrialde hori ez zuten maiz aipatu, hainbat aldiz gerlan sartu ala ez erabakitzen ari zen garaian¹⁶⁰⁷, edo errumaniarrek zailtasunak ukan zituztenean. Etxeparek aipatu zuen behin berri hitsak zituztela Errumaniatik, baina burua altxatuko zutela¹⁶⁰⁸. Lehenago ikusi dugu Frantzia gertatzen ziren gibelatzeen berri ez zutela ematen; haatik, beste herrialdeen zailtasunak aipatzen zituzten. Horrekin ere Frantzia goratzen zuten, haren estatu-lagunen ahuleziak aipatuz.

Italiarekin ere jarrera bertsua zuen Jean Saint-Pierrek. Lehenik, artikuluko pare batean aipatu zuen Italia gerlan sartzekotan zela, eta horri buruzko xehetasunak eman zituen. Hainbat denboraz egon zen gerlan sartu ala ez erabaki gabe, eta sartzekotan noren alde. Lehenik, herrialde hark zituen dudak kritikatu zituen, nola denekin ari ziren elkarriketak ukaiten:

Italia hainbat Italia ere hor dago, ez-baiean, orori agurka, orekin solasean beharri chilorat, ooren ganik eske... [...]

*Aingira bezen legun eta erne izana gatik, traba guzien artetik uste gabean lerratzeke, aldi huntan ez dakit nola iraganen den atheka gaichto huntarik, gerlarat erori gabe.*¹⁶⁰⁹

Gero, italiarrak aliatuen alde jarriko zirela idatzi zuen. Baina Saint-Pierrek argi zuen zergatik hartu zuten erabaki hori:

¹⁶⁰⁴ Jean Saint-Pierre, «Erhoak hautsi», *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 21a.

¹⁶⁰⁵ Etxepare, «Stokholmen». 1917/6/22.

¹⁶⁰⁶ Elizalde, «Hamalau oldar». 1918/4/19.

¹⁶⁰⁷ Jean Saint-Pierre, «Estranjeren errechimendua», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.

¹⁶⁰⁸ Jean Etxepare, «Gerla zertan den», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 3a.

¹⁶⁰⁹ Jean Saint-Pierre, «Oro betan», *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 14a.

Jendea gure alde jartzen ari da gero-ta gehiago, ezagun baita nork duen gerla egiten gizonki. Hiri handietan gerlaren alde oihuz egiten dire bilkurak. Berek diote gerla hobe dela, hola egoitea baino, geroari beha, gisa hortako lazduran. Tropak prest dire: bi miliun gizon. Zer soldado diren, geroak erakutsiko; orai artio ez dire agertu gerlari handi. ¹⁶¹⁰

Hots, gerla «gizonki» egiten zutenak aipatzean, aliatuez eta bereziki frantsesez ari zen. Italiarrek erabaki zutenean gerlan aliatuen alde sartzea, gerlan ongi ari zirenak nor ziren jakitea irizpide handia zela ulertarazi nahi zuen. Horrekin, Frantzia goraiatzen ari zen. Eta Italia gerlan sartu ondoan, herrialde horren mespretxuzko ohar batzuk egin zituen. Alde batetik, aldaketa horren ondorioz Austriak zailtasun gehiago ukan zuela idatzi zuen¹⁶¹¹. Baina egoera horretan ez zuen Italiaren merezimendua ikusi, baizik eta Austriaren prestakuntza falta eta ahulezia azpimarratu zituen. Beste une batez, bereziki 1917ko altxaldiak aipatzean, Italian alemanak aitzinatu zirela argitu zuen. Aitzineko artikuluan aipatu zuen dena ez zela baikor, baina egoera ezkorra beste herrialdeetan zela zehaztu zuen. Hots, frantsesak ongi ari zirela¹⁶¹², eta gaizki ari zirenak beti besteak zirela azpimarratu zuen, kasu honetan Italia. Beste batean ere goraiatu zuen Frantzia, Italia gutxietsiz. Italia ez zela galduko idatzi zuen, azalduz Frantzia laguntzera joanen zitzaiola, Foch mariskala buru. Marne eta Somme aldean hark zuela irabazi gehitu zuen¹⁶¹³.

Saint Pierrek, artikulua horietan erakustera eman nahi zuen, nahiz eta Italiaren alde zen, Italia ez zela Frantzia bezain ongi ari gerlan, edo Frantzia zela egoeraren salbatzailea. Gauza bera egin zuen beste batean, Grezia, Errumania eta horiek gutxiesteko:

Ez badire lotzen, gure lanetik ez dute zeren gogoan har zerbeiten milikatzea. Partzuer gutiago eta hobe guretzat!¹⁶¹⁴

Artikulu haren mezua zen frantsesek Champagne aldean gaina hartzean, etsaiak Reims eta Verdunetik urrunduko zituztela eta Errusiari bidea irekiko ziotela horrela, Alemaniari bidea hetsiez bezala. Eta gehitu zuen eskualde hartako populu ttipiak Frantziaren («gure») alde jarriko zirela azkarrena nor zen ikusiko zutenean. Are urrunago joan zen, mespretxuzko jarreran, zehaztuz ez zutela herrialde txiki haien beharrik, eta Frantziaren alde jartzen baziren haien onetan izanen zela.

Beste lekuetako jendearen gutxiesteko jarrera Frantziaren menpe ziren Afrikako herrialdeetakoan aipatzean ere ageri zen. Batean, adibidez, afrikar batekin ukan zuen elkarrizketa agertu zen:

¹⁶¹⁰ Saint-Pierre, «Italiaren laguntza». 1915/5/7.

¹⁶¹¹ Jean Saint-Pierre, «Italianoak», *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 11.

¹⁶¹² Jean Saint-Pierre, «Italian», *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 23a.

¹⁶¹³ Jean Saint-Pierre, «Gure laguntza», *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 23a.

¹⁶¹⁴ Jean Saint-Pierre, «Obren ondorioak», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 19a.

*Ganibeta eskuan egin zautan sudurraren pikatzeko kheinua, erraiten zuelarik, bere frantses bitchian:
"Porqui ti n'as pas coupé li nez?"¹⁶¹⁵*

Afrikarrek gerlarako zuten motibazioa goraiatu zuen, baina aski ohargarria da afrikar haren frantses azentu bereziaren kontatzeko modu arina, ia trufakorra; are gehiago sudurra ganibetarekin moztearen ideiarekin afrikarrez ematen ari zen salbai irudia. Jarrera kolonialista edo arrazakeria kutsua ageri zen kontatzeko modu horretan. Jarrera arrazista hori aski ohikoa zen garai hartan, ordea, François Cochetek zehaztu bezala:

Les Français de 1914 sont, au même titre que les autres Européens de l'époque, imprégnés d'une culture de supériorité des races blanches envers les peuples de couleurs. De ce point de vue la «haine ethnique» n'attend pas 1914 pour s'exprimer. L'ensemble du second XIXe siècle se construit sur la notion de supériorité raciale.¹⁶¹⁶

Laburbilduz, Frantziatik kanpoko herrialdeak aipatzean – eta ez gara alemanez edo austriarrez ari, haiek gutxietea gerlaren logikan sartzen baitzen – konparaketa egiten zuten, oharkabean edo oharturik. Frantsesak besteak baino gehiago zirela azpimarratzen zuten maiz. Frantsesak besteak baino hobeak zirela edo besteak frantsesak baino ahulagoak zirela azpimarratzea Frantziaren goraiatzeko modu bat zen, eta beraz Frantziarekin bat agertzeko modu bat ere bai.

b) Frantziako estatuaren alde

Frantses nortasuna aldarrikatzeaz gain, politikoki edo instituzionalki ere Frantziaren alde egin zuten *Eskualduna*-koek, zehazkiago, Frantziako estatuaren alde. Estatu horren zilegitasuna azpimarratu zuten. Hasteko, *Zerbitzari*-k Frantziako armadako buruzagiak goraiatu zituen, adibide honetan garbi ageri den bezala:

Frantziak baino soldado hoberik duen erresumarik ez da. Gauza bera erran ditake aintzindarietz. Joffre, Nivelle, de Castelnau, Pétain eta Gouraud dituen erresumak bi beharrien ganean egin dezake lo... baldin behar den gerlako tresneria ematen badiote.¹⁶¹⁷

Beste batean, Euskal Herria eta Frantzia goratu zituen, artikulua bukaera batean, biak elkarrekin lotuz eta Euskal Herria Frantziaren parte eginez. Baina, bereziki, «Frantzia Frantzia»¹⁶¹⁸ oihuarekin, Frantziaren izaera babestu zuen. Jean Saint-Pierrek artikulua gehienetan zabaldu zituen Frantziaren aldeko mezuak, kontuan hartuz Italia edo beste herrialdeak aipatzean, Frantzia nola goraiatzen zuen, alemanak aipatzean, nola agertzen

¹⁶¹⁵ Jean Saint-Pierre, «Afrikanoen barnea», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 22a.

¹⁶¹⁶ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 39.

¹⁶¹⁷ Jean Elizalde, «Bertze berriez», *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 29a.

¹⁶¹⁸ Elizalde, «Hegalak motz». 1916/4/28.

zen Frantziaren alde, eta nola erakusten zuen Frantziak irabaztea nahi zuela. Baina artikulua bat azpimarratu behar eta, estatuaren beharra nola azaltzen zuen aipatu behar litzateke. Desertoreen kontrako artikulua horretan justifikatu zuen estatu bat – bere hitzetan, «nazione» bat – beharrezkoa zela, gizonak familia behar zuen gisan:

Familia eta herria biak baitezpadako ditugu bizitzeko. Bataren ala bertzearen beharretan gaude.

Familian sortzen da gizona, eta familian handitzen, ez baita on bereaz berearen egiteko.

Berak familia moldatzen duenean, ez da on bere indarrez familiaren zaintzeko, bere dretcho eta ontasunen begiratzeko; herriak edo nazioek dio zaintzen, bere legeaz, bere indarraz.

Zeri esker, nori esker gizonak bere ontasunak goza ditzazke deskantsuan beldurrik gabe, bakeak dirauen ephe luze hartan? Zeri eta nori esker? Nazioek direlako elgarretarik berech, azkarrenak geldirik dauzkala luzaz bat bertzearen beldurrik, ttipienak aldiz deskantsuan handien gerizak.

Ez baliz holakorik, gizona gizonari buruz otsoaren pare litake, indartsuena beti nausi, ahulena zangopean, oro nahasmendu, bethi gerla, salbaien artean gerthatzen den bezala. Hala bizitzea izigarri litake, mundu huntako eta bertzeko. Bakearen onean partzuer denak behar du parte hartu gerlako hirriskuetan ere, edo gerlako makurretan.

Ala gizona zautzue, behar ordu minean ihesi dohan hura, bertze nazione baten gerizan gordetzerat dohan hura, onean partzuer zuekin, tzarreen berex eta berkhoi, ororen ezinbertze beltzenean?

[...] Jainkoak nahi ditu nazioek eta familiak, gizonaren onetan. Familiari sustengu zor diogu, behar orduan, ez dugularik guk hautatua; gisa berean herriari eta herritareri.¹⁶¹⁹

Artikulu horretan, desertore izan nahi zuketenei erantzun zien, erranez pertsonak estatua ere behar zuela, bestela salbaiak ziratekeelako. Estatua hiritarrentzat babes bat zela azaldu zuen, lagun batentzat familia bezala, eta beraz hiritar bakoitzak estatuarekiko betebeharrak bazituela ere azpimarratu zuen, horien artean, gerla egitea gerla egin behar bazen. Familiaren erreferentzia erabiliz, modu argi batean esplikatua nahi izan zuen zergatik zen beharrezkoa estatuarekiko leial egotea. Estatuaren aldeko mezu hori ez zen nortasunari lotua, baina Frantziako Estatuaren aldeko hautua egin zuen, Frantziako Estatuaren parte izatea justifikatuz.

Frantziako Estatuko parte izatea babes bat baldin bazen eta horrek betebeharrak bat eskatzen bazuen, Blaise Adémak ere ildo beretik jo zuen, bigarren atalean aipatu dugun artikulua batean¹⁶²⁰. Gerlak hainbat herri suntsitu ondoan, suntsitu ez zituzten herrietatik elkartasuna heldu behar zela esplikatua zuen. Baionan herriak berreraikitzeke batasun bat sortu zela idatzi zuen eta elkartasunerako deia egin. Horren gibelean frantsesen arteko elkartasunaren aldarrikapena zegoen, eta euskaldunak frantses gisa ikusten zituela eta Frantziarekiko atxikiak zirela pentsatzen zuela adierazi zuen.

¹⁶¹⁹ Jean Saint-Pierre, «Permissionek», *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 23a.

¹⁶²⁰ Adéma, «Eta han!». 1918/11/8.

François Cochetek aipatzen duena berrets daiteke hor. Cocheten arabera, Frantziako lurraldean zeuden eskualdeetan «lekuko edo eskualdeko parte izatearen sentimendua ez zen desagertu», nahiz eta Estatu baten parte izatearen sentimendua indartsu izan:

*Le sentiment d'appartenance à un État est certes fort, souvent parce qu'en construction encore, mais il n'a pas fait disparaître pour autant un sentiment d'appartenance régional ou local. Dans le cas de la France, le senti ment national n'a pas éteint, loin s'en faut, le sentiment d'appartenir à un «pays».*¹⁶²¹

Saint-Pierre, *Oxobi* eta horiek ere sentimendu hori islatu zuten. Guztiz onartzen zuten Frantziako estatuaren parte zirela, zilegitzat jotzen zuten eta barneratua zuten, baina beren euskal nortasunari uko egin gabe. Horiek hola, guk alderantzizko arrazoinamendua ere egin dezakegu: nahiz eta euskal nortasunari ez zioten uko egiten, frantses estatuaren parte izatearen sentimendua azkar erakusten zuten.

c) Frantziako agintarieko miresmena

Frantziako estatuarekiko leialtasuna ez zen estatuaren beharraren aipatzera mugatzen. *Eskualduna*-k estatu horretako aitzindariak ere goraiatzen zituen, hainbat aldiz. Horietarik bat zen Ferdinand Foch jenerala (geroago mariskal egin zutena). Blaise Adémak goraiatu zuen, gerla bururatzen ari zen unean, Euskal Herriko biztanleei haren aldeko komunioa emateko eskatuz:

*Eta orai, Foch guzien buru jarriz gero, ez da gehiago hatshantzerik ez gelditzerik. Oldarra beti aitzinat doa. Armada guziak esku beretan baitire eta buru berak baititu ibil-arazten, bat gelditu orduko bertzea lotua da; eta hola izanen dela diote, batere epherik gabe, negua hasi arte bederen.*¹⁶²²

Adémak Fochen esku ezarri zituen gerla bukaera zekarren oldarra eta Frantziaren garaipena. Aitzindari militar hori gain-gainetik ohoratu zuen, gerlaren azken bilakaera hari esker zela azpimarratuz. Horrez gain, giristinoa zela ere txalotu zuen, eta horregatik, euskaldunei, eta haurrei bereziki, Fochen alde komunioa egiteko eskatu zien. Frantziako aitzindari militarrek goresteako eskaera horrekin, Frantziarenganako atxikimendua zabaldu eta erroto nahi izan zuen euskaldunen baitan, helduetarik hasiz haurretaraino.

Lau urte lehenago, Manex Hiriart-Urrutik beste frantses agintari bat goraiatu zuen, bere gisan. Ez zen kasu bera, inondik ere. Hiriart-Urrutik aipatzen zuena hila zen, aspaldi, gainera. Baina haren handitasuna aitortuz, Frantzia zuen miresten. Artikuluaren helburua Alemaniako enperadore Gilen II.a apaltzea zen, eta horretarako beste enperadore batekin konparatu zuen, hala nola Frantziako Napoleonekin. Bi astez segidan aipatu zuen

¹⁶²¹ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 14.

¹⁶²² Adéma, «Foch». 1918/9/27.

Napoleon. Ez zen Napoleon III.az ari, baizik eta Napoleon Lehenaz, 1804an Frantziako enperadore bihurtu zenaz. Gilen II.ak Alemaniako mugak inguruetakoa herrialdeetara zabaldu nahi zituen gisan, Napoleon ere inperialista izan zela esplikatu zuen Hiriart-Urrutik, baina Napoleon Gilen II.a baino hobea zela ohartaraziz:

Bere jitez zen Napoleon gizon handi: Guillaume aitaren eta aitatoren seme delakotz da leher egiterainoko urguluntzi bat bilhakatua. [...] Hots, adichkideak, Guillaumez bertzerik zen Napoleon, bere itzal guziekin. Astokeriarik bederen etzuen erraiten harek. Hunek ba. Hert bedi. Nigar guti zaio jarraikiko.¹⁶²³

Nahiz eta Napoleonen gerlarako joera eta inguruko herrialde guztiak bere esku hartu nahi izatea kritikatu zuen, Hiriart-Urrutik «gizon handi» gisa aurkeztu zuen. Are garbiago utzi zuen ondoko astean, Napoleonen handitasunaz zer iritzi zuen:

Erran dugu: bazutela zerbeit elgar idurikorik; ohore gose bat, oro manatu, oro zangopean ezarri-ta berak oro baino gorago beharrez nehon ezin egon bat gaitza.

Ezta horrek erran nahi orotaz bardin direla. Urrun da. Hura, bere itzal guziekin, gizon handia zen, agertu diren handienetarik: hau handi "nahia"; berak "uste", hala dela ere, menturaz oraino. [...] Hots, egunetik egunera histuz doa, eta aphalduz Guillaumeren izarra. [...] Hola hola zuten garhaitu Napoleon Handi zena bertze orduz. Zer nahi izanik ere, ez ahal da hau hura baino garhait gaichtoago izanen.¹⁶²⁴

Napoleonen handitasunaren ideia da hor nabarmentzekoa dena. Egia da Napoleon bere garaian garaitu zutela idaztean ez zuela haren irudia defendatzen, Gilen II.aren irudia Napoleonenaren gisa histen ari zela zehaztuz. Baina, zernahi izanik, gizon «handi» gisa aurkezte horretan, Frantziako agintariarenganako errespetua ageri da. Gilen II.aren eite handia zuen enperadore horrekiko diskurtso eztiago horrekin erakusten zuen Napoleon onargarria edo barkagarriagoa zitzaioela, frantsesa zelako. Gilen II.aren «gosea» salatu izan bazuen ere, artikulu haietan haren pertsonalitateaz zen trufatzen, eta Napoleonekin konparatu zuen, pertsonalitate aldetik agintari frantsesa alemana baino hobea zela erakusteko. Ororen buru, jarrera horrekin Frantziako agintariak bere agintari gisa ikusten zituela eta kritika guztien gaintik bere agintariekiko errespetu edo leialtasun bat zuela erakutsi zuen Hiriart-Urrutik.

Euskal Herriaren izaera politikoa ukatzeaz gain, Euskal Herria Frantziaren parte zela azpimarratu zuten *Eskualduna*-n. Ez ziren bakarrak izan. 49. Infanteria Erregimentuaren harat-honatak kontatzen zituzten liburuxkaren azken lerroek zehazten dute soldadu ohiak Baionara heldu zireneko ekitaldian, «Gernikako Arbola» kantatu zutela:

¹⁶²³ Hiriart-Urruti, «Napoléon eta Guillaume». 1914/11/6.

¹⁶²⁴ Hiriart-Urruti, «Guillaume bera». 1914/11/13.

Et voilà qu'on aperçut dans la salle notre compatriote Cazenave, le fameux ténor de l'Opéra. Quoique pris à l'improviste il chanta superbement La Marseillaise. Quelqu'un lui réclame ensuite le Guernikako Arbola, qu'il enleva d'une voix de véritable stentor, et c'est ainsi que par hasard se termina cette cérémonie par ces quelques mots qui le résumant si bien: "Viva Eskual-Herria eta Eskualdunak"¹⁶²⁵

Liburuxka horren bururatzeko erabili zuten pasarte hori 1919ko uztailaren 28ko *Courrier de Bayonne* egunkaritik hartu zuten; gerlariak herrira itzuli ziren eguneko kontakizuna egiten zuen artikulu hark. Azpimarratzekoa da frantses nazionalismoarekin batera, euskal «bereztasuna» eta abertzaletasun erdi bat ageri zela, «Gernikako Arbola» kantuarekin eta «Viva (sic) Eskual-Herria» oihuarekin. Euskal Herriarenganako atxikimendu baten seinale zen, eta 49. Infanteria Erregimentuaren liburuxka hitz horiekin bukatzea ere zerbaiten adierazle da. Dударik gabe, ez Euskal Herria goraiatzeko Euskal Herri gisa, baizik eta Frantziaren parte gisa.

Horrelakoa zen *Eskualduna* astekariaren jarrera ere. Denbora guztian Frantziarekin identifikatu ziren, Frantziatz mintzo zirenean lehen pertsona erabiliz, Frantziako edozein eskualde beren eskualde gisa agertuz, etengabe Frantziako estatua goraiatuz edota gerla denboran aitzindariak zenbat miresten zituzten erakutsiz. Euskal nortasunaren goraiatzea, beraz, Frantziako nortasun berezi baten adierazteko modu bat zen, oroz gainetik.

B. Euskaldunen jarrera baikorra

Eskualduna-k goraiatu eta bere egin zuen Frantzia horretan, euskaldunek leku berezia zuten, astekari horren lerroetan zehar. Frantziaren aldeko jarrera orokor hori baino sakonagoa zen euskaldunak nolako frantsesak ziren azpimarratu nahi izatea. Hots, beti ere *Eskualduna* astekariaren arabera, euskaldunak gerlan nola inplikatu ziren aztertuko dugu; zehazkiago, astekariak euskaldun soldadu horien zein itxura eman nahi zuen. Astekariaren hitzetan euskaldunek erakutsi zuten jarrera nolakoa zen hainbat puntutan bereizi dugu. Batetik, soldaduek erakusten zuten kemena nola deskribatzen zuten aztertuko dugu. Ondotik, jarrera horren baitan beste aldaera batean jarriko dugu arreta, hala nola gerlak eragin zitzakeen ahulgune edo etsipenen aitzinean nola ihardukitzen zuen *Eskualduna*-k. Hirugarrenik, gerlaren kontrako mugimendu batzuen baitan, astekari honen ustez, euskaldunak nola portatu ziren aipatuko dugu.

¹⁶²⁵ *Historique du 49^e régiment d'infanterie pendant la guerre 1914-1918*, 65. 1919ko uztailaren 28ko *Courrier de Bayonne* egunkaritik hartu pasarte.

I. Kemena

Euskaldunen jarrera aztertzen hasterakoan, lehenik hiru puntu barnatuko ditugu. Astekariko idazleek azpimarratu nahi zuten euskaldunak zein soldadu eredugarriak ziren, eta horren erakusteko goraiatu zuten mobilizazio egunean – eta ondoko garaietan – nola portatu ziren. Gerla bera maiz josteta bat bezala aurkeztea ere aztertuko dugu, ikusiz horrekin gerlari eta soldaduei buruzko zer mezu zabaltzen zuten. Azkenik, gerlako gurutzeen harira ere bada zer aztertua, beti ere ildo horri jarraikiz.

a) Mobilizazioa

Mobilizazioa aipatzen dugunean, hainbat fasez ari gara. Gerla hasi bezperan, 1914ko agorrilaren lehenean, mobilizazio nagusia izan zen Frantzian. Egun hori *Eskualduna*-n nola aipatu zuten aztertuko dugu, baina baita ere gerlak iraun zuen denbora guztian mobilizazioa nolakoa izan zen, hala nola 1914an gerlara joateko adinean ez zirenak mobilizatzeko tenorea edo pausaldi baten ondotik edo zauriturik egon ondoan gerlara itzuli behar zen unea.

Mobilizazioaren lehen egunari buruzko artikulua irakurriz, ohar gaitzke astekari horrek modu baikorreetan kontatu zuela gertakaria. Mugimendu handia izan zen agorrileko lehen hiru egunetan, Baionan eta inguruetan. Orotara, ia 25.000 gizon pasatu zen Baionako geltokitik eta hiri osoan zehar milaka soldadu ibili zen egun haietan¹⁶²⁶. Une hura biziki ederra bide zen, *Eskualduna*-n idatzia zenaren arabera. Agorrilaren 7ko zenbakiko berriak idatzi zituenak erabili zituen hitzak ikustea aski da ondorio horren ateratzeko:

Hau da berriz mobilizazione gaitza! Egundaino Frantzian ez da ikusi holakorik. Hainbertze gizon, holako ordre ederrean, hoin fite, oro utzirik, denak soldado.

*Gerla behar badugu, doala gerla. Biba Frantzia!*¹⁶²⁷

«Ordre ederra» edo «mobilizazione gaitza» gertakariaren baikortzearen keinuak ziren. Ondoko esaldiari ere baikortasun eta ia euforia zerion. Jarraian, Euskal Herriko mobilizazioa biziki ederra eta baikorra izan zela kontatu zuen artikulua egileak:

Eskual-herrian bezala joan balinbada gizon-altchatzea bertzetan, eztugu zeren, behin eta behin, Frantziatz etsi ; ez eta ere lotsa.

Chuberon, Bachenabarren, Lapurdin, orotan oldar bera.

¹⁶²⁶ Ansoborlo, *Histoire militaire de Bayonne: 1789-1940*, 232.

¹⁶²⁷ «Gizon altchatzeak», *Eskualduna*, 1914ko agorrilaren 7a.

[...] Berrogei-ta bortz urtherainoko gizon guziak altcha; batzu berehala gaurditik goiti; bertzeak andanaka, lau, bortz egunez kasik oro.

Gaua zoin beren etchetan solasen eta gogoetan egonik, biharamunekotzat oro deliberatuak ziren eginbidearen bethetzeari; uko egin gabe.

Zenbeitek uste ez bezalako dute hor beren burua erakutsi Eskualdun gizonak. Ederki!¹⁶²⁸

Mobilizazio horretan, euskaldunak eredugarri gisa aurkeztu zituen *Eskualduna*-k, horretaz espantu eginez. Mobilizazio horren balorazio guztiz baikorra egin zuen, inork ez zuela uko egin azpimarratuz. Handik bi astera ere mobilizazioaren uhin baikor horren deskribapena egin zuen astekariak, Andre Dena Mari eguneko meza eta prozesioa aipatzean. Orduan ere goraiatu zuen Euskal Herrian mobilizazioa zein ongi iragan zen:

Ah! Zoin gogotik ginioten guk ere oihu eginen, iragan larunbat arratsaldean, hemenche, Baionako hirian, bezperak ondoko profesioneari, kantuz eta othoitzean jarraiki diren frantses on, eskualdun on, girstino soldadoeri: Gaizo gizonak, ... nongo nahiko izan zaitezten, zuen etcheak eta etchekoak oro utzirik, burhaso zahar, emazte, haur eta haurride, zoinen guziak nigarretan,... hanitzek eri, ezindu, berenaz egiteko ez on, behar hotzak, bazoazte.

Zoazte kuraiez, lotsatu gabe. Jainkoak eta Andredena Mariak zaitzaztela begira!

Oihu ba eginen ginioten bihotz onez, bereziki herritarren artean herritarrago ditugun eskualdun gizagaizoeri : Altcha bihotza goiti ; orhoit egon bethi, eta guziz oren latz hautan : gure bizia eta biziarekin ditugun on guziak Gaineko Haren ganik ditugula ; oro bethi haren eskuko.

[...] Gerlaz osoki hartua zutela gogoa, ezagun zuten Baionako karrketan profesioneari zarraizkon zazpi, zortzi ehun soldadoek. Hain zuten gogotik egiten othoitz gizagaizoek, berentzat, beren familientzat, Frantziarentzat.¹⁶²⁹

Ez gaitezke osoki fidatu *Eskualduna*-ren bertsioan. Astekari honen arabera, Euskal Herriko gizonak bihotz onez eta baikorki joan ziren gerlara, mobilizazioa perfektua izan zen. Gauzak ez ziren hain garbi izan, gero ikusiko dugun bezala. Hain zuzen, intsumisio eta desertore tasa handia izan zen Euskal Herrian, eta horrek erakustera ematen du denak ez zirela hain baikor agertu, delako egun hartan¹⁶³⁰. Funtsean, mobilizazioa ez zen beti berdin ikusia izan. Yves Pourcherren arabera, batzuek berri txar eta beldurgarri gisa hartu zuten, baina bereziki, harridura, emozioa, tristura, konfiantza eta suhartasuna tartekatu ziren zenbait orenez:

En quelques heures, en un jour et une nuit, la stupeur, l'émotion, la tristesse, la confiance et l'enthousiasme ont pu se succéder. Ainsi le tableau est-il hésitant, les sentiments paraissant, en apparence, se contredire.¹⁶³¹

¹⁶²⁸ «Biba Eskual-herrial», *Eskualduna*, 1914ko agorrilaren 7a.

¹⁶²⁹ Hiriart-Urruti, «Gure soldadoak». 1914/8/21.

¹⁶³⁰ Desertoreen gaiak atal oso bat merezi duenez, urrunago garatuko dugu: 563.

¹⁶³¹ Yves Pourcher, «Les clichés de la Grande Guerre. Entre histoire et fiction», *Terrain* 34 (2000): 143–158.

Honen arabera, egia da herritarrak azkenean modu baikorrean joan zirela. Antzeko zerbait dio Annie Moulinek ere, baina azpimarratuz laborarien baitan ez zela halako garririk piztu gerlara joateko beharraren berri ukaitean:

*La nouvelle de la guerre n'a pas suscité l'enthousiasme souvent décrit. La tristesse, voire la consternation et l'abattement l'emportent dans un premier temps. Quelques jours plus tard, après le regroupement des mobilisés dans les centres urbains, les premiers convois de troupes suscitent un grand élan patriotique et des manifestations bruyantes qui sont plutôt le fait de citoyens.*¹⁶³²

Jarrera abertzaleenak hiritarrek erakutsi zituzten, Moulinen arabera. Beraz, laborariak ez baziren hain bero, *Eskualduna*-k erakustera eman nahi izan zuen mobilizazio hori ez bide zen hain erreala, jakinik gainera euskaldun anitzek gerlari uko egin ziotela. Hala ere, gehiengoak onartu zuen gerla egitea. Jean-Jacques Beckerren arabera, betebeharra betetzera joan ziren gerlara. Ez gogotik, baina erasoari erantzuteko beharra barneraturik. Alemaniaren probokazioari erantzutea guztiz normal zitzaien¹⁶³³. *Eskualduna*-k mobilizazio egunaren argazki ederra egin nahi izan zuen; eta ikusiz azkenean gehiengo handi batek normaltzat hartu zuela gerlara joatea, hein batez pentsa dezakegu argazki hori erreala zela. Baina bereziki interesatzen zaiguna da *Eskualduna*-k argazki hori eman nahi izan zuela, hori erakutsi nahi izan zuela, eta mobilizazioa kontatzean, guztiz baikor agertu eta gerlara joatearen aldeko jarrera hartu zuela.

Gerlak aitzina segitu ahala, hastapeneko mobilizazio hori eta horretan ageri zen motibazioa ahultzeko arriskua egon zitekeen. Jean Saint-Pierrek soldaduen motibazioa aipatu zuen zenbait aldiz, eta motibazio edo kemen hori aldakorra zela uler daiteke haren artikulua irakurriz. Artikulu batean, ordea, erakustera eman nahi zuen gudu gogor baten ondotik soldaduen moralak azkar jarraitzen zuela:

*Gizonen biltzea ezin ederkiago eginga zen; gogo bihotzak ere orenari zohakon bezala bero beroak zauden. Ez nuen uste, Champagneko gudua ikusiz geroz, berriz halako moldean su hartuko zutela gure soldadoen bihotzek. Hautsaren barnean badaukate bethi gerlako phindar berezi bat, behar orduan sustatzen baititu guziak, hilabete osoak nagi edo buru gaixto egonak eta oro.*¹⁶³⁴

Saint-Pierreren ustez, gerlak bi urte baino gehiago iraun zuen garaian eta gudu biziki bortitzak iragan ondoan, ulergarri izanen zen soldaduak ez hain bero izatea beste gudu batera joateko. Baina bere harridurarako, soldadu horiek bihotzak bero zituztela erakutsi zuten. Honekin zabaldu nahi zuen mezua zen mobilizazioak beti indartsu segitzen zuela. Horri loturik, Blaise Adémaren artikulua baten arabera, engaiamenduaren eta motibazioaren

¹⁶³² Moulin, *Les paysans dans la société française. De la Révolution à nos jours*, 170.

¹⁶³³ Becker, 1914. *Comment les Français sont entrés dans la guerre*, 337.

¹⁶³⁴ Saint-Pierre, «Agintzak handiago». 1917/5/11.

ezaugarrietariko bat zen gerla tokira joateko prest agertzen zirela, nahiz eta baldintza biziki gogorrak izan:

Harrigarri da zoin errechki hartu duten soldado gaichoek, hurbildua dugun negu hunen etsia. Ikusten dute ez litekela oraino egin bake egiazkorik, eta badoazi aitzina. Orhoitzen dire zenbat pairatu duten hotzarekin eta ichtilarekin azkeneko neguan eta bizkitartean ez dire lotsatuak. [...] Orai duela urthe bat, orai baino lotsa gehiagorekin mintzo ziren neguaz.¹⁶³⁵

Hots, negua zen soldaduen amesgaizto handiena, baina nahiz eta jakin beste negu bat gehiago egin beharko zutela 1917an, hala ere joateko prest zirela azpimarratu zuen *Eskualduna*-k. Neguaren ildotik, artikulu batean engaiamenduaren alde berezi bat aipatu zuten, hala nola 1915ean 18 urte bete zituzten soldaduen kasua:

Aurten hemezortzi urthe eginak edo egiten dituzten mutiko gazteak soldadogoan sartuko diren, helduden ilabetearen bortzean.

Hainitzek uste zuten ez zituztela hartuko primadera arte. Eta hori zertako? Zeren azkeneko neguan hartu soldado gazteek azkarki pairatu baitzuten aroaren gatik: gehienak eritu ziren, eta hainitz hil. Mutiko gaztea hemezortzi urthetan guri da oraino, eta ez du iraupen handirik negu borthitz bati buruz, bereziki ez bada lehenchago trebatzen hasia soldadogoarekin. Etcheko supazter eta ohe gochotik berehala, egon behar izaita gau eta egun kampoan, egin dezan uri elhur ala horma, bada hor zertaz makur hemezortzi urtheko gorputz bat. [...] Bainen deputatu churi, soldado-aitzindari den batek - Driant du deputatu horrek izena - othoiztu du utz detzan beren burhasoekin, Eguberri eta Urthats iragan arte. Egun hoik, dio erran, dire familietako besta maiteenak eta gozoenak; utzatzu, othoi, mutiko gazte hoik, egun hoien, beharbada azken aldikotz, beren etcheetan iragaiterat.¹⁶³⁶

Aitzineko urtean adin hartako anitz hil zen neguan, eta oraingoan udaberri arte ez igortzeko solasa bazela, baina azkenean gibel egin zutelako berriaz aritu zen Adéma, aipatuz 18 urtekoentzat zein gogorra zen gerla. Azpimarratu behar da «beharbada azken aldikotz» hitz horiekin, gerlara joatearen alde tragikoa agertu zuela, modu biziki garbian. Baina, hala ere, 18 urtekoak gerlara igortzeko neurriaren alde agertu zen *Eskualduna*, baldintza bereziak eta hobeak segurtatuko zitzaizkiela sinetsirik. Hots, nahiz eta gogortasuna aitortu eta gerlaren alde tragikoa erakutsi, denak gerlara joatearekin bat egiten zuen.

Gerla hastapen aldean, baina ordurako hilabete andana bat iragana zela, Manex Hiriart-Urrutik, garaztar baten lekukotasuna eman zuen. Lekuko hori trenean gurutzatu zuen eta gerlara joateko prest zegoela azpimarratu zuen:

Ororen buruan zertsu entzunik nagon soldado on haren ahotik, zagozte beha. Batetarik badukezue ororen izaria. Ondar elhe galdatu diotanean, ja gerlan izana, egona han luzaz, beso bat moztekotan ukanik, orai sendo, berriz gerlarat, lehen aldian bezen nekez joanen denez ala errechkiago, ihardetsi daut, ezteki, bainan finki: "Diote hanitz biziki nekez doazila bigarreanean. Ni ez, eta bertze asko enekin.

¹⁶³⁵ Adéma, «Ez ahantz». 1917/10/12.

¹⁶³⁶ Blaise Adéma, «Soldado gazteak», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 17a.

Lehen aldian ez ginakien zeri ginauden; orai ba. Guhaur hil ala bizi, etsaia garhaituko duela Frantziak, bere lagunekin, badakigu. Hortan da guzia".

*Nork erranen daut holako soldadoa ez dela soldado ona?*¹⁶³⁷

Gerla zein bortitza izaten ari zen garbi gelditu ondoan, Euskal Herriko soldaduek berriz ere gerlara itzultzeko erakusten zuten gogo eta prestasun hori goraiatu zuen *Eskualduna*-k, maiz. Hori, mobilizazioa goraiatzea baino gehiago zen. Hots, hastapenean gerla gogorra izanen zenik ez zuten uste. Are gehiago, egun gutxiren epean garaile gisa itzuliko zirela konbentzituak ziren. Beraz, gerlara mobilizatzea errazago izan zitekeen, gerla hasi baino lehen. Behin gogortasun hori ikusi ondoan gerlara itzultzeko gogoia erakutsiz, Euskal Herriko soldaduen mobilizazioa edo motibazioa are handiagoa zela azpimarratzen ari ziren¹⁶³⁸. Erran behar da, Stéphane Audoin-Rouzeauk eta Annette Beckerrek dioten gisan, motibazioak fase desberdinak ukan zituela gerlan zehar. 1916tik landa beheeranzko joera bat izan zuen, eta 1918an berriz izan zen gorakada bat. Orain arte ikusi dugu *Eskualduna*-ko idazleen bihotza ez zela beti berdín ageri, baina oro har, euskaldunak soldadu motibatu eta mobilizatuak zirela azpimarratu zuten behin eta berriz.

b) Gudua josteta bezala

Gerlaren alde gogorrak eta guduaren erdian egoteak sortzen zuen sufrimenduak oihartzuna izan zuen *Eskualduna* astekariko zutabeetan, lan honen bigarren zatian ikusi dugun bezala. Ez zuten, beraz, beti irudi baikorra ematen. Baina gogortasun haren ezititzeko edo gogortasun haren onartzeko prest zirela erakusten zuten beste hainbat zati ere irakurri dugu gerlara joan zirenen testuetan. Ezititzeko bide bat zen gerlako ekintzak jolasarekin konparatzea edo jostetaren pare jartzea. *Zerbitzari*-k holako zerbait egiten zuen, gerlako zenbait ekintza deskribatzean. Lehenago aipatu dugun adibide batean Kanboko Chiquito pilotariak zuen solas. Zauriturik egon ondoan gerla itzuliko zenean etsaiari berriz lotzeko xedea agertu zuen, etsaiekin ukanen zuen borroka pilota partida bat izanen balitz bezala kontatuz:

*Pilotari bat edo bertze balinbada uko egin duenik, Chiquitok ez du egin; ez da ere egitekotan. Berak erran daut, oraino hunat itzuliko dela: «Aintzinetik pagatuak nituen handizki etsaiak. Orai kito gira. Ondoko egunetan hirugarren partida; bortz egin ahalak eginen ditut irabazteko».*¹⁶³⁹

¹⁶³⁷ Manex Hiriart-Urruti, «Soldado ona», *Eskualduna*, 1915ko uztailearen 9a.

¹⁶³⁸ Gerlako lehen hilabeteetan, gerla lekutik zauriturik Euskal Herrira itzuli ziren euskaldunek lehenbailehen gerlara itzuli nahi zutela kontatu zuten *Eskualduna*-koek. Atal hori beste lan batean sakondu dugu: Bidegain, *Gerla Handia, muga sakona*.

¹⁶³⁹ Elizalde, «Maiatzaren 28an». 1915/6/4.

Hori irakurriz, iduri du gerla zerbait arin zela, gerla egitea pilotan aritzea bezala zela. beste gisa bateko konparaketa egin zuen beste behin *Zerbitzari*-k, pilotaren erreferentzia erabiliz. Kanoikadak pilota partida batekin konparatu zituen:

*Kanoiak ichilsko egon dire zenbeit egunez: orai orduko karraskak badauzkate. Etsaienak zalapartaka ari dire, erhotu balire bezala: gureak gutichago: hein ho batean halere eta uste dut etsaiek guri baino min hainitz gehiago egiten duten hauk etsaieri. Chokhoak bilhatzen dituenak ditu pilotan ere kintzeak hobekienik hausten.*¹⁶⁴⁰

Pilotaren erreferentzia azken esaldi horretan dago bakarrik, baina ororen buru pilotan nola irabazten zen erranez, «ere» horrekin, kanoien botatzeko lana pilota partida baten gisan egiten zela adierazten ari zen. Beste batean oraino garbiago agertu zen gerlako ekintza batzuk josteta bezala hartzen zituela. Granadak botatzeaz ari zen, eta euskaldunen eta gaskoien artean norgehiagoka egiten zutela kontatu zuen, erranez euskaldunak nagusi zirela:

*Zoin gehiagoka arizan dire nire errechimenduko soldadoak «grenades» direlakoan besainka botatzen. Eskualdun bat da azkenekotz nausitu. Tresna tzarra berrogoi bat metretarat fueratu du, bertze guziek baino hirur-lau metra urrunago. Bergako sudurra egiten zuten kaskoinek. Handichagoa egin-araziko diote sari etsaieri gaizo muthikoak.*¹⁶⁴¹

Gerla egitea onartzeko bide bat zen eginkizuna jolas edo lagunen arteko lehia gisa hartzea. Kasu honetan, euskaldunek gaskoien kontra egiten zuten norgehiagoka. Baina guduak jostetaren bidez desdramatizatzearena ez zen *Eskualduna*-koek egiten zutena bakarrik, Baconnier, Minet eta Solerren arabera:

*Les fusillades de tranchée à tranchée n'impressionnent guère les soldats aguerris. Ils les prennent comme un jeu palpitant et inoffensif.*¹⁶⁴²

Soldaduek idatzi gutunak aztertu zituzten hiru ikerlari horiek, eta gutun horietan ikusi zuten lubakietako tiroketak jolas gisa hartzen zituztela. Ororen buru indartsuago edo kementsuago agertzeko bide bat izan zitekeen gerla jolas bat bezala hartzea edo aurkeztea. Gerla egitea bera onargarriago bihurtzen zen, josteta bat izanez. François Cocheten ustez, gerlaren onartzeak bilakaerak zituen soldaduen baitan, eta lasaitasun uneak baitezpadakoak ziren soldaduentzat, onartzea berreskuratzeko. Eta frontean zirenek hainbat modu zituzten «saihestezina onartzeko»:

La société du front, celle des vrais combattants, est animée de relations complexes faites de certaines formes de contraintes, mêlées à des dimensions d'acceptation de l'inévitable, le tout sur fond de micro-

¹⁶⁴⁰ Elizalde, «Kanoien karraska». 1917/2/16.

¹⁶⁴¹ Jean Elizalde, «Biba eskualdunak!», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 10a.

¹⁶⁴² Baconnier, Minet eta Soler, *La Plume au fusil. Les poilus du midi à travers leur correspondance*, 218.

*négociations avec la hiérarchie de contact. Au final, il nous faut juger de la nature du consentement des combattants.*¹⁶⁴³

Cochetek pausa lekuetako «errekuperazio zakuen» garrantzia aipatu zuen, gerla egitearen onarpena berreskuratzean. Gehienetan, *Eskualduna*-ko berriketariak «errekuperazio zaku» horietatik mintzo ziren, lehen lerroetatik itzultzen zirenean. Horrek ere esplikaz dezake diskurtso hain baikorra eta jostakina, zenbait kasutan. Baina ororen buru, gerlaren onartzea eta gerlarekiko jarrera baikorraren isla ziren aipu horiek.

c) Gerlako gurutzeak eta sakrifizioa

Mobilizazioaren unean edo gerlara joateko unean engaiamendua eta mobilizazioa erakusteaz gain, euskaldunak ez ziren bakarrik jostetara bezala zihoazen soldadu motibatu gisa ageri. Haien engaiamenduaren saria jasotzea ere gustatzen zitzairen. Egia erran, Jean Etxepareren arabera, ez. Esplikatu zuen gerlako gurutzearen ukaitea biziki arbitrarioa zela, aitzindarien edo suertearen arabera aldatzen zela. Gerlako gurutzea gerla denboran jarri zen indarrean, Frantziako diputatuek aho batez onartu zuten lege bati esker¹⁶⁴⁴. Etxeparek paristar baten anekdota kontatu zuen: kapitainak erran zion gurutzea emanen ziola eta orduantxe kapitaina obus batek hil zuen; beraz, gurutzea ukan gabe ere merezimenduak bazirela, eta ukan zuten guztiek ez zutela baitezpada merezimendurik idatzi zuen Etxeparek. Haatik euskaldunek eta laborariak eskuratzen baldin bazuten, zinez merezita ukaiten zutela azpimarratu zuen. Hots, frantsesak gurutzearen gibeletik ibiltzen ziren; eta euskaldunak ez¹⁶⁴⁵. Ez baldin bazihoazen sariaren bila ere, kolektiboki, *Eskualduna* astekariari eder zitzaion euskaldun anitz sarituak zirela jakitea. Astero, herrietako berrietan, batean edo bestean, herritar batek gerlako gurutzea ukan zuelako berria ematen zuten, eta gehienetan, herritar horri laudorioak egiten zizkioten. Gurutzeak harrotzeko bide bat ziren soldaduentzat, Frédéric Rousseuren arabera, desfile militarretan harro erakusten zituztelako beren papoetan¹⁶⁴⁶.

Zerbitzari, Saint-Pierre eta Etxepare ez ziren mintzatu beren buruaz edo beren balentriez. Gerlako gurutzeak ukan zituzten, baina nahiago izaten zuten besteenez mintzatu. *Zerbitzari* harro zegoen bere herritarrek balentriak egin eta gurutzea ukaiten zutenean. Gisa hartan, azkaindar batek ukan zuen saria eta saria lortzeko egin zuena kontatu zuen, dena laudorio:

¹⁶⁴³ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 13.

¹⁶⁴⁴ Bonnefous, *Histoire politique de la Troisième République. Tome second. La Grande Guerre 1914-1918*, 65–67.

¹⁶⁴⁵ Jean Etxepare, «Kurutzeak», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 25a.

¹⁶⁴⁶ Rousseau, *La guerre censurée. Une histoire des combattants européens de 14-18*, 123.

Saltoan gainerat kasik ethorri zaizko lau etsai. Burua galduko zuen bertze batek eta ihesari emanen zen. Ez ordea Eskualdun batek:

Tiroka hasi da ohartu deneko gaizo muthikoa hirur etsai hil hotzak aurdiki ditu eta laugarrena lotsaturik, ihesari eman da.

Hirur hiletarik batek hogoi-ta bortz bala tripan bazituen. Baten doia, hots!

*Biba Azkaindarra!*¹⁶⁴⁷

Hasteko, *Zerbitzari*-k euskaldun ezak erakusten zuen irudia aipatzekoa da. Haren arabera, edozeinek ihes egingen zuen, euskaldun batek salbu, euskaldunak besteak baino gehiago balira bezala. Euskaldunek beren buruaz eta beren indarraz edo kemenaz zuten irudiaz zenbait argitasun ematen badizkigu ere, horri ez diogu garrantzirik emanen azterketa lan honetan. Bai ordea euskaldunak gerla horretan osoki inplikatu ziren heroi gisa aurkezteari. Edozein beldurtuko zuen hori egiteko gaitasuna zuen euskaldun horrek. Gisa horretan gerlan, beraz Frantziaren alde, kementsu eta heroi gisa agertu zen. Azkaindar horren balentriak modu arin edo erdi umorezkoan aipatu zituen, hogeita bost bala horien aipuekin adibidez.

Beste herri batzuetako euskaldunak ere goraiatu izan zituen *Zerbitzari*-k. Hazpandar batek ere gurutzea ukan zuela aipatu zuen behin, gogoraraziz Hazparnek soldadu anitz «eman» zuela gerla hartan, hala nola anitz hil zirela. Kasu hartan, ordea, gurutze baten solasa zuen *Zerbitzari*-k, hala nola Edouard Lahirigoyenek ukan zuena, 1914an gudu batean hiru aldiz zauritu zutelako¹⁶⁴⁸. Gisa berean, beste behin Jean Landetcheberryk zango bat galdu zuela eta horregatik aipamena ukan zuela idatzi zuen¹⁶⁴⁹, eta François Diharceri ere ohorezko aipamena eman ziotela ere bai¹⁶⁵⁰. Halaber *Zerbitzari*-ren erregimentuak ere gurutzea ukan zuela goraiatu zuen. Hain zuzen bere erregimentuari (57.ari) eta 123.ari gurutzea eman zieten, «besta eder» batean. Idatzi zuenaren arabera, martxoan beren herria «salbatu» zuten Noyon herrian eta Mont-Renaud-en. Erregimentu horietan euskaldun anitz bazela azpimarratu zuen, oroz gainetik:

*Nola bi errechimendu horietan baita hainitz Eskualdun, etzaiku itsusi holako solasak aditzea. Eskualduna gerlari gaitza da, grenada eskuan. Hirschauer jenerala harrtua badago egin ditugunez, oraino gehiago harrituko da egingen ditugunez. Gerla ez da akhabo eta Alemana gero-ta higuinago dugu.*¹⁶⁵¹

¹⁶⁴⁷ Jean Elizalde, «Biba Azkaindarra», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 4a.

¹⁶⁴⁸ Jean Elizalde, «Biba Hazparne», *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 11.

¹⁶⁴⁹ Jean Elizalde, «Anglesen ondotik, eskualdun batez», *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 2a.

¹⁶⁵⁰ Jean Elizalde, «Emak hor, Pantchoual», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 7a.

¹⁶⁵¹ Elizalde, «Besta eder bat». 1918/8/16.

Gurutze kolektibo hori erregimentuko soldadu guztientzat zen, baina *Zerbitzari*-k azpimarratu zuen hor euskaldun anitz bazela, eta beraz sari horrek Euskal Herriko soldaduak bereziki ohoratzen zituela. Ageri da *Zerbitzari*-ri gustatzen zitzaiola euskaldunek sariak ukaiten zituztenean, horretaz espantu egitea. Saritua izatea, gerlan inplikatzearen eta lana seriooki egitearen seinale gisa hartzen zuen, eta, beraz, horrekin erakutsi zuen euskaldunek beren ardurak betetzen zituztela gerla hartan, Frantziaren alde.

Euskaldunen inplikazioa ez zuten sarietan bakarrik neurtzen, anitzek gurutzea edo aipamena lortzen bazuten ere, beste anitz hil egiten baitziren. Heroi gisa agertzearen beste alde bat zen biziaren ematea, eta hori ere goraiatu zuten *Eskualduna*-koek. Euskaldun anitz hiltzea sakrifizio gisa aurkeztu zuen *Zerbitzari*-k, eta, beraz, euskal soldaduak goraiatzeko bide gisa erabili zuen, erranez beren eginbidea ongi egiten zutela. Hildakoen eta isuri odolaren gaintik, euskaldunak beti kementsu zirela agertu nahi zuen:

*Galdu dugu gizon, bainan ez hurbiltzeko ere etsaiek bezenbat. Ez gare lotsatuak ichuri odolaren gatik ez eta lotsatuko.*¹⁶⁵²

Beste behin kontatu zuen nola 1918ko apirilaren 13an alemanek oldar handia egin zuten Mont-Renaud hartu beharrez, baina ez zuten lortu, eta hil anitz ukan zutela. «Guretan» ere bazirela hilak eta zaurituak zehaztu zuen, horien artean Haltsuko Lesgoirres eta Mauleko Montalibet aitzindaria¹⁶⁵³. Baina garaipen baten ondotik aipatu zituen hil horiek heroï gisa agertu zituen; aski da ikustea besteetan ere nola aipatzen zituen hilak, kasu honetan bezala:

*Biba beraz Azkaine! Holako herri giristinoak etzezaken gutiago egin Frantziarentzat!*¹⁶⁵⁴

Azken artikuluko horretan, *Zerbitzari*-k aipatu zuen Azkainek 32 hil bazituela, baina hil kopuru hori ederretsi zuen, aditzera emanez zenbat eta hil gehiago (sakrifizio handiagoa), orduan eta herri «hobe» zela.

Heriotza heroïsmoarekin lotuz, Frantziaren alde hiltzea onargarriago bihurtzen zuten. Eric Desmons-en arabera, soldaduek «aberriaren alde» hiltzea onartzen zuten, hori heriotzaren ondoko bizia segurtatzea zelakoan:

Comment leur faire accepter le sacrifice de leur vie dans l'intérêt de l'Etat? La réponse, on l'a dit, est également invariable: en présentant toujours et encore la mort au combat comme un acte héroïque, comme un triomphe sur la mort elle-même.

¹⁶⁵² Elizalde, «Egun hautako oldarra». 1917/5/11.

¹⁶⁵³ Jean Elizalde, «Gerlaz bi hitz», *Eskualduna*, 1918ko maiatzaren 10a.

¹⁶⁵⁴ Jean Elizalde, «Bakotchari berea eta biba Azkaine», *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 6a.

[...] *La mort pour la Patrie est ainsi censée ouvrir la porte de l'immortalité, assurer le déploiement d'une sorte de corps mystique du combattant dans la mémoire collective, sur lequel le temps n'a pas de prise.*¹⁶⁵⁵

Desmonsek erlijioa eta Estatu maila berean kokatzen zirela dio, aberriaren alde hiltzeari zentzu hori emanez. Fededun batentzat, herioa pasabide bat zen, betiereko bizira. Estatuaren baitan sinesten zuen batentzat eta Estatuaren alde hil zen batentzat ere, girstino batentzat bezala, herioa pasabide bat zen, betiereko bizira. *Eskualduna*-koek heriotza sakrifizio gisa aurkezten zutenean, antzeko zerbait egiten zuten.

Gauza bera egiten zuen Blaise Adémak ere, bere editorialetan. Batzuetan hil ziren pertsona berezi batzuez artikulua oso bat egiten zuen, edo oro har euskaldun anitz hil zela erraten zuen beste batzuetan. Hil horiek heroi gisa aurkeztu nahi zituen, adibidez, Jean-Baptiste Erreca aldudar apaizaren herioaz artikulua bat idatzi zuen, zeinetan haren bizia eta gerlako balentriak aipatu zituen. Adémak Larresoroko seminarioan ezagutu zuen. Urte bat lehenago Verdunen gerlako gurutzea irabazi zuen, bere eskuz 30 etsaiez gora hil omen baitzuen, granada botaka. Craonne-eko guduan hil zen, maiatzaren 8an¹⁶⁵⁶. Baina Errecari buruz egin zuen oharretarik bat hauxe zen:

*Gerla hunek zenbat gizon iresten daukun behin betikotz... eta hoberenatarik! Egun ere aipatu behar dautzuet soldado eskualdun bat, bere odola herriarentzat ichuri izan duena.*¹⁶⁵⁷

Hala nola, heriotza hori «herriarentzat» izan zela azpimarratu zuen, eta herriarentzat hiltzeak badu sakrifizioaren puntu bat, heroismo puntu bat. Euskaldunak beren betebeharren betetzen ari zirela erakutsi nahi zuen. Beste batean Louis Veisse mauletarraren herioaz mintzo zen. Hastapenean 249. erregimentuan hasi zen eta Marneko gudutik landa kapitain egin zuten, 19. konpainian:

*Eskualdun soldado hainiz bada ja hilik gerla huntan. Noiz eta ere, gerla bururatu ondoan - orai ez liteke haizu - erranen baitautzuegu, herriz herri, hil hoik zenbat diren, orduan agertuko da zoin handizki Eskual-herriak bethe duen bere zorra Frantziari buruz.*¹⁶⁵⁸

Azken hitz horiek biziki adierazgarriak dira. «Handizki» eta «zorra bete» erabateko inplikazioaren adierazle dira. «Handizki» hitzarekin, hiltze horiek baikortu zituen, ohoragarri zitzaien euskaldunak hiltzea Frantziaren alde, beren engaiamendu onaren seinale baitziren. Adémari, beste idazleei bezala, garrantzitsua zitzaien Euskal Herriak, modu kolektibo batean, Frantziaren alde bizia ematea. Kontzeptu hori hilen monumentuen inguruan

¹⁶⁵⁵ Eric Desmons, *Mourir pour la patrie* (Paris: Presses universitaires de France, 2001), 9–13.

¹⁶⁵⁶ Jean-Baptiste Erreca, 1885eko apirilaren 18an sortua, 1917ko maiatzaren 8an hila, zaurien ondorioz, Courlandon-eko 13. ebakuazio ospitalean (Marne).

¹⁶⁵⁷ Blaise Adéma, «J.B. Erreca», *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 15a.

¹⁶⁵⁸ Blaise Adéma, «Veisse kapitaina», *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 9a.

gauzatu zen, Hubert Pérèsen arabera. Hain zuzen, herrietan ezarri zituzten hilen monumentuek islatzen zuten Frantziaren alde, «guztien nazio komunaren alde», herri horrek eman zuen bizia:

Néanmoins, la constellation des sujets identifiés est supposée rassemblée par les liens d'appartenance au pôle le plus vaste de l'identité ici énoncé : la France, ou Patrie. Etant donné que le symbolisme patriotique des monuments aux morts retient spontanément l'attention, rien n'est plus aisément explicite que ce mode d'identification. D'abord, parce que le regroupement des individus énumérés suppose une destinée commune dévoilée par l'appartenance nationale.¹⁶⁵⁹

Hubert Pérèsen argibide horietan biziki ongi islatzen da *Eskualduna*-ko idazleek erakutsi zutena, izan *Zerbitzari*-k Azkaine herriari buruz idatzi zuena edo Adémak oro har Euskal Herriari buruz. Bakoitzak bere herriak Frantziaren alde egin zuena azpimarratu eta goraiatu nahi zuen. Euskal Herriaren aipurekin, euskal komunitate bat bazela ageri zen, baina komunitate hori, beste edozein herriren antzera, Pérèsek aipatzen zuen logika horren baitan kokatzen zuten: hala nola Frantziaren alde bizia eman zutenen arteko bat zen, eta Frantziaren alde lagun anitz hil izana betebeharra ongi bete zutela goraiatzeko erabiltzen zuten. Eta hiltzea osagai baitezpadakoa zen are gehiago nazio horren parte sentitzeko, Patrick Cabanelen arabera:

Dans toute l'Europe du XIXe siècle, des vieux États-nations aux jeunes nationalités à peine «réveillées», les programmes se multiplient qui tendent à inculquer un sentiment d'appartenance à une langue, à une histoire, à une «nation» communes. Ces programmes ont plus ou moins abouti à la veille de la Première Guerre mondiale. Plusieurs nations déplorent des pertes ou des manques, les «provinces perdues» d'Alsace-Lorraine pour la France, les terres irrédentes pour l'Italie, la nostalgie ou l'espérance de l'unité pangermaniste en Allemagne et Autriche, une véritable fusion «belge» entre Flamands et Wallons... Peut-être aussi manque-t-il un élément plus cruel et plus fondateur, le baptême collectif du sang, que le conflit va offrir à profusion.¹⁶⁶⁰

Eskualduna-k euskal soldaduek jaso zituzten sariak edo isuri zuten odola goraiatuz, euskaldunak frantses nazioaren parte sentitzeko prozesuaren azken urratsean parte hartu zuten. Eder bazitzaion euskaldunek beren bizia Frantziaren alde ematea, Frantziako nazio eraikuntza horrekin bat egiten ari zen.

2. Ahulguneei buru egin

Gerla josteta bat bezala eta sari iturri bezala aurkezturik ere, ezin zuten ukatu gertakari biziki gogorra zela, eta horrek ondorio txarrak ere izan zitzakeela soldaduen baitan.

¹⁶⁵⁹ Pérès, «Identité communale, République et communalisation. A propos des monuments aux morts des villages».

¹⁶⁶⁰ Cabanel, «Sentiments nationaux et terre «irredente'», 35.

Ondorio horietatik batzuk izan zitezkeen soldaduen artean zabaldu zen etsipena, gerlaren luzatzeak motibazioan eragin zezakeena, garaipenaren baitan sinestea galtzea edota gerla lekutik etxera egun batzuk iragaitera joateko gogoia areagotzea. Lau puntu horiek barnatuko ditugu ondoko orrialdeetan, eta ikusiko dugu *Eskualduna*-ren arabera, euskaldunek zein jarrera zuten puntu horiekiko.

a) Etsipena

Gerla denboran baikortasuna ez zen etengabea izan soldaduen baitan. Hainbat ikerlarik aztertu dute etsipenak gaina hartu zuela hainbat aldiz. Jean-Jacques Beckerrek soldaduen nekea aipatu du. Neke hori 1916 bukaera aldera agertu zen, eta 1917an berpizte bat ukan zuten, azken urtea izanen zela pentsatuz, Amerikako Estatu Batuak gerlan sartu baitziren¹⁶⁶¹. Baina hori ez zen beti horrela izan soldaduentzat, Christophe Charleren ustez. Hiru urtez emaitzarik ez zutela lortzen ikusiz, bizi zituzten baldintza gogorrak gero eta jasangaitzagoak zitzaizkien:

*La misère physique, la fatigue, le manque de sommeil, la pluie, la boue, le froid, la saleté, les poux, les rats, la mauvaise nourriture, la misère sexuelle, le bris constant des liens familiaux ou de camaraderie, la peur permanente d'être tué ou blessé, la perte de toute prise sur le temps et l'espace, l'incompréhension grandissante entre le haut encadrement et la troupe, faute de résultats tangibles des sacrifices des trois premières années, toutes ces malédictions du poilu contribuent à la baisse progressive du moral des troupes françaises.*¹⁶⁶²

Bigarren zatian aipatu ditugu gerla lekuetako egoera gogor horiek, edo bederen, batzuk. Lohia, hotza, zorriak, arratoiak, janariaren kalitatea eta gisa horretako gaiez luzaz mintzatu ziren; ez ordea miseria sexualaz, adibidez. Ez zuten, ordea, baldintza gogor horiek eragin zezaketen etsipena aipatzen. Bruno Cabanesek osasun arazo larriak, gripe espainiarra eta abar ere aipatu ditu etsipen eragile gisa¹⁶⁶³. *Eskualduna*-k ez. Izatekotan, Stéphane Audoin-Rouzeauk aipatu zuen beste elementu batek ukan zezakeen oihartzuna, hala nola permissionetik itzultzea bera izan zitekeen etsipen faktore, edo gutun bat berantegi heltzea¹⁶⁶⁴. Baina ez zuten aipatzen soldaduak, edo berriemaileak berak, etsipenean sartzen zirela. Bigarren zatian aipatu dugu Jean Saint-Pierrek Euskal Herritik itzuli ondoan idatzi gutun batzuetan nabari zela etsipen puntu bat, nahiz eta berak ez halakorik erran.

¹⁶⁶¹ Becker, *La France en guerre 1914-1918. La grande mutation*, 112.

¹⁶⁶² Charle, *La crise des sociétés impériales. Allemagne, France, Grande-Bretagne, 1900-1940. Essai d'histoire sociale comparée*, 256.

¹⁶⁶³ Cabanes, *La victoire endeuillée. La sortie de guerre des soldats français (1918-1920)*, 32.

¹⁶⁶⁴ Audoin-Rouzeau, *A travers leurs journaux: 14-18, les combattants des tranchées*, 58.

Soldaduen artean etsipena agertzen zen, beraz. Baina hori ez zen ia batere ageri *Eskualduna* astekarian; ez zituzten aipatzen gerlaz aseak ziren euskal soldaduak. Salbuespen batzuk baziren, baina horiez ere modu arinean aritzen ziren. Adibidez, beren burua nahitara zauritu zutenen kasua ez zen ia sekula agertu. Baina Jean Saint-Pierrek artikulu batean eman zuen alemanek zauritu zutelako pozik zegoen euskaldun baten berri:

Bigarren solasa, kolpatu batena. Lapurtarra zen. Irri gozo bat egiten daut hurbiltzen nitzaiolarik. Egia erraiteko etzuen zauri handiegia. – Zu bederen etzira erregura Alamanez. Heiek jo, eta zuk irri! – Ba, ori, aspaldian bala ttipitto baten beha nindagon, zonbeit egun pausuren biltzeko. – Hor duzu; horra bi hilabetheren bakea. – Errazu, eta ordukotz finituko dea mekanika hau? – Zer? Gerla? Baditake, bainan ez niz sobera fida – Zer nahuzu! Huntaz kontent behar niz. Luzechagoko zerbeit atzeman banu, chantza gaitza nuen!¹⁶⁶⁵

Soldadu honek ez zuen bere burua zauritu, ez. Baina zauritua izatea gerla lekutik urruntzeko aukera gisa ikusten zuen, eta horregatik pozik zegoen. Aski ohiz kanpokoa da kasu hori, Saint-Pierrek euskaldunen «odol hotza» erakutsi nahi izaten baitzuen, baina anekdota horretan gerlaz aseak zirenak bazirela ageri baitzuen. Ez zitzaion gaizki iruditu soldadu batek zauri larriagoak nahi izatea, gerlatik urruntzeko? Saint-Pierrek ez zuen jarrera hori epaitu, eta badirudi ulertzen zuela. Ez zion, ordea, garrantzirik eman. Ez zuen kritikatu, baina ez zuen erabili soldaduen artean etsipena zabaltzen ari zela ondorioztatzeko ere, nahiz eta lerroen artetik aztertzen hasita, ondorio horretara hel zitekeen.

Zerbitzari urrunago joan zen eta argi eta garbi mintzatu, errateko gezur hutsa zela soldaduak gerlaz aseak zirela:

Bethi badire mihi gaicthoak. Zenbat ez dire alhatu gutaz gerla huntan: soldadoa aseaz zela gerlaz, bakea baizik etzuela nahi, nola nahizko bakea. Zenbatetan ez dut erran gezurra zela hori?

Bai, gerlaz aseak gare. Bai, bakea nahi dugu. Bainan etsaia lehertu eta!

Ikus bazinetzake orai gerlaz hain aseak diren soldado hauk. Nola mintzo diren! Pausuan dena bera, tokiaren gainean ez dagoke. Suan erdiz-erdi nahi luke egun hautan etsaiari min baino min gehiago egiteko. Zer haginean gauden! Ez da harritzeko. Egun hautan libratu diren emazte gaicho batzu ikusi ditugu. Hek ikusi dutenik ez da. Alemana baino jende urdeagorik ez ditake lurrean, salbaitan beretan ere. Otsoa herrirat hurbiltzen delarik, guziek bortz egin ahalak egiten dituzte haren hiltzeko. Otsoa baino tzarrago da Alemana. Hil dezagun.¹⁶⁶⁶

Zerbitzari-k soldaduak gerlaz aseak zirelako zurrumurru hori gezurtatzeko sentitu zuen beharrak berak erakustera eman dezake etsipen zerbait bazela nonbait. Gerlaz aseak zirela, bai, onartu zuen, baina gerla irabazi arte zutik egonen zirela segurtatu. Soldaduek etsaia lehertu arte irau nahi izatea zehaztean, gerlaz aseaz izatearen solasa indargabetzen ari

¹⁶⁶⁵ Saint-Pierre, «Eskualdunen «sanfrela»». 1915/8/6.

¹⁶⁶⁶ Jean Elizalde, «Zer dioten soldadoek», *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 6a.

zen. Asea izateak ez zuen erran nahi dena bere gisa uztea, gerla irabazi gabe. Beraz zinezko etsipenik bazenik ukatu zuen.

Beste batean, ordea, *Zerbitzari*-k bere etsipen propioa agertu zuen, Jean Saint-Pierre eta bere anaia preso zirela jakin zuelako:

Mendeak ditu "Eskualdunari" ez nuela gure berririk igorri. Astia noiztenka bederen izan dut, gogoa nuen eskas. Behin J.S.P. nere adichkide mina galdua zela ikasi, eta gizagaizoa Alemanian preso zela jakindu orduko, nere anaietarik bat eskastu zela berria ethorri. Nola nahuzue deusetako gogorik izan nezan?¹⁶⁶⁷

Baina etsipen hori ez zen baitezpada gerlagatik sortu zen etsipen iraunkorraren seinale, baizik eta berri txarrak ukan ondoan sortu zen tristura handi baten seinale. Etsipen iragankorra izatekotan. *Zerbitzari*-k ez zuen hala ere dudan jarri gerlarenganako fedea. Hain zuzen, hilabete batzuen buruan erakutsi nahi izan zuen gerlaz aseak eta etsiak zirenek sekulan baino motibazio gehiago zutela:

Badugu lagun bat, errechimendu huntan haste-hastetik dena, Muthiko ona, langilea, eta behar orduan gerlari ederra. Deusek ez du lotsatzen: Bainan gerlaz lephoraino ase da. Chorta bat edan eta, aise ferafutro igor letzazke aintzindari, lagun eta gainerateko guziak!

Bainan ikus bazinezate egun hautan! Loriaekin erhotua dugu. Hain berri onak dire!

- *Nahi huke gerla orai berean akhaba baledi» diot egun goizean galdegin? – Gerla orai berean akhaba? Ez ahal ditek gure aintzindariek holako astokeriarik eginaraziko» daut ihardetsi.*

Hori hola mintzo denaz geroz, ikusazue zer haginean dauden bertze soldado guziak.¹⁶⁶⁸

Anekdotan horretan ere aitortu zuen etsipena bazegoela. Helburua ez zen hori, baizik eta kontrakoa, alegia etsipena gutxiestea, eta etsituak zirenak ere indarberritzen zirela erakustea. *Zerbitzari*-k egin zuen baikortze horrek hanpatua dirudi. Gerlaz aseak zen bat gerla bururatzeko berantetsia ez izatea harrigarri da. Berriz ere, euskaldunen baitan etsipenik ez zela edo etsipena ez zela uste bezain handia erakusteko ahalegin bat egin zuen. Orogen buru, inplikazioaren eta engaiamenduaren beste alderdi bat baitzen egoera txarretan ere tinko eusteko gaitasuna erakustea.

b) Gerlaren luzatzearen ondorioa

Soldaduek kemena galtzearen beste arrazoi bat zen gerla ez zela sekula bururatzen; espero baino gehiago luzatzen ari zela. François Cochetek dio 1917an Andereen Bideko ofentsibatik landa soldaduen etsipena are handiagoa izan zela, esperantza handiegia izan zutelako:

¹⁶⁶⁷ Jean Elizalde, «Agur herritarrak», *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 12a.

¹⁶⁶⁸ Jean Elizalde, «Pompon gure laguna», *Eskualduna*, 1918ko urriaren 18a.

La guerre s'installe dans la durée, mais chacun ne tient que parce qu'il est convaincu que cette durée est provisoire. La déception terrible des soldats après l'offensive du Chemin des dames d'avril 1917 est à la mesure des espoirs qu'ils avaient mis dans ce dernier effort, incontestablement consenti, pour pouvoir en finir avec la guerre. Toutes les approches du moral des soldats avant les mutineries montrent que ce dernier était excellent avant le déclenchement de l'offensive.¹⁶⁶⁹

Cocheten aipu horren lehen esaldian garbi ageri da *Eskualduna*-koen jarrera. Irauteko prest ziren, konbentzituak baitziren gerlak ez zuela luzaz iraunen. Baina gerla gehiago luzatzea ez zen entzun nahi zuten aukeren artean sartzen. Artikulu anitzetan egiten zituzten iragarpenak gerlaren iraupenari begira. Beti iragartzen zuten aski laster bukatuko zela, edo iragarpen txarrenak egiten zituztenean ere, iragarpen horiek ez ziren errealitatea bezain txarrak. Jean Saint-Pierrek ez zuen onartu nahi gerla anitz luzatuko zenik, sorgin batek bi urtez luzatuko zela erratea kritikatu zuenean ageri zen bezala:

Emak hori sakelan. Beharrik ez dira sorgin guziak mota bereko. Arrakasta guti lukete. Hunek segurik enekilakoak eginak ditu.¹⁶⁷⁰

Saint-Pierre eta bere lagun bat sorgin baten ikustera joan ziren, jakiteko gerla noiz bururatuko zen. Sorginaren erantzuna beste bi urtez luzatuko zela erran ondoan, sorgina kritikatu zuen, ez zuelako sinetsi nahi. Ezin dugu jakin ea delako sorgin hark etorkizuna asmatzeko gaitasuna bazuen ala ez, baina kasu hartan, asmatu zuen. 1916an erran zuen gerla bi urteren buruan bukatuko zela, eta hala gertatu zen. Baina atal honen interesa ez da jakitea sorginak zer zioen, baizik eta gerla laster bukatuko zela entzun nahi izateak berak erakusten zuela Saint-Pierrek ez zuela gerla luzerik nahi. Gerla luzerik nahi ez izatea lehenago ere agertu zuen, hala nola 1915eko uda hastapenean:

Negu berri baten iragaiteak lotsatzen ditu hanitzak. Bertze batzuek jada gogoan emana dute, itxura guzien arabera hartaratu beharko dugula.¹⁶⁷¹

Beste negu bat gerlan iragaitearen aukera hori ez zuen berri on gisa ikusi. Gerlaren luzatzea gauza txar gisa aipatu zuen, modu hotzean, iruzkinik gabe. Bada beste artikulu bat non aitortu baitzuen zailena gerla luzea izanen zela onartzea izan zela:

Hoik oro hola, ez uste ukhan kuraia eskastua dugula. Gerla hau oraino nahasia dago eta badauka nehork uste baino itzuli gehiago bere bidean. Lan handiena guretzat gogoari emaita luze joanen zela. Orai orok hartua dute. Agian Jainkoak lagunduko gaitu ondoko egunetan ere, behar denaren jasaiten!¹⁶⁷²

Baina gogorrena gerla luzea izanen zela aitorturik ere, baikortasuna ez zuela galdu azpimarratu zuen. Behin gerla luzea izanen zela onarturik, beti kementsu segitzen zutela

¹⁶⁶⁹ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 124.

¹⁶⁷⁰ Jean Saint-Pierre, «Sorginaren ikusten», *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 14a.

¹⁶⁷¹ Jean Saint-Pierre, «Partida luzatu?», *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 16a.

¹⁶⁷² Jean Saint-Pierre, «Jan edanak», *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 5a.

azaldu zuen. Ildo beretik, beste batean, gerla sobera luzatzen ari zela ziotenei, pazientzia ukaiteko erantzuten zien. Batzuek zioten emeki ari zirela aitzinatzen, baina Saint-Pierrek ihardetsi zuen pazientzia hartzeko, baizik eta aitzina ari zirela eta hobe zela zuhurtziaz jokatzeari, erokeriak gal baitzezakeen gerla¹⁶⁷³. Gerlaren luzatzeak gizartean edota soldaduen artean etsipena zabaltzen zuela ondoriozta daiteke artikulu horretatik, baina Saint-Pierrek ahulezia horiei ere baikorki erantzuteko joera atxiki zuen denbora guztian. Nahiz eta kutsu baikorrarekin segitu, errealitatean gerlaren luzatzeak denei eragiten zien txarrera, Jacques Fontanaren arabera:

Il est impossible d'envisager que, moralement, les troupes n'aient subi le contrecoup de la guerre, surtout à cause de sa longueur et de la quasi-continuité des combats. Personne n'a donc été épargné par la lassitude, même les résignés et les croyants.

[...] Quelle qu'en soit l'origine, constatons le désarroi qui s'insinuait dans les âmes et pouvait, à certaines heures, ébranler les courages les mieux trempés. L'action du temps se fait rudement sentir.

[...] La guerre se prolonge et les morts s'accumulent ; c'est une cause de lassitude et de démoralisation chez les soldats ; c'est une conséquence des attaques qui étaient lancées deux ou trois fois par jour, à découvert ; les soldats étaient fauchés par les mitrailleuses allemandes dès qu'ils en approchaient. Ne parlons pas de l'effet d'épouvante causé par les gaz et les obus asphyxiants.¹⁶⁷⁴

Nahiz eta *Eskualduna*-ko idazleek kemenaren aldeko aldarria egin eta beti baikor agertu nahi izan, Fontanak dioen bezala, etsipena denen artean sartu zen, batzuetan baizik ez bazen ere. Bigarren zatian aipatu ditugu *Eskualduna*-ko idazleen gutunetan nabaritu zitezkeen gorabeherak. Egia da ez zutela beti gordetzen ahal baikortasun falta edo bihotzaren hoztea. Baina orain ikusi duguna da, horren guztien gainetik, kuraia atxikitzeko beharra aldarrikatzen zutela eta arazo guztien gainetik, bururaino segitzeko prest zeudela erakutsi nahi zutela.

c) Sinestea galtzen dutenak

Etsipenaren beste agerraldi bat zen erabateko ezkortasuna, gerla galduko zutela uste zutenen jarreraren agertzea¹⁶⁷⁵. Jean Saint-Pierre edota *Zerbitzari* irakurritz, garbi ulertzen zen bazirela gerla sekula ez zela bururatuko eta sekula ez zutela irabaziko uste zutenak. Gai hori ez zen maiz ageri Jean Saint-Pierreren testuetan, baina permisionez joan ziren batzuek, itzultzen zirenean, halako mezu negatiboak zabaltzen zituztela kritikatu zuen zenbait aldiz.

¹⁶⁷³ Saint-Pierre, «Emeki». 1915/3/19.

¹⁶⁷⁴ Fontana, *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*, 99.

¹⁶⁷⁵ Galit Haddad, «La querelle du «défaitisme» en 1917», *Mots. Les langages du politique* 76 (2004): 59–73.

Alde batetik baziren Euskal Herrian berean gerla sobera luzatzen ari zela eta laster bururatuko zela ziotenak; beste batzuek, ordea, ez zela sekula finituko zioten:

Bertze batzuek ez dute sinhetsi nahi gerla geldituko dela sekula santan. Ez irakurtzen ere gehiago kazetarik, hatsa gezurra dutela, oro ari direla zoin gehiagoka «bourré le crane» ene adichkide eskualdun batek dion bezala. ¹⁶⁷⁶

Artikulu horretan ez zuen iruzkinik egin herritar batzuen aurreikuspen ezkorrez. Beste batean, bai, ordea. Gerlako lekuetan gertatzen zirenak eta ez zirenak kontatzen zituztelako kexu agertu zen:

Aintzindariak arregura ditugu, permisionez hor gaindi dabilzanek mihi luzea dutela, mintzo direla hemengo gora beherez atso zaharrek baino kalaka biphilagoan, on direnak eta bertzeak burrustan beharri guzieren derasaztela. Baditake. Handia daukat bizkitartean nola duten atzemaiten alhatzekoa, belhar ondorik ez duen lurrean. ¹⁶⁷⁷

Horiek erranik, Saint-Pierrek beti azpimarratu nahi izaten zuen, erantzun gisa, ez zela etsi behar, iragarpen txarrenak ez zirela beteko, eta gerla irabaziko zutela. Alde batetik edo bestetik, etengabeko mezua zen hori. Baina, horren gibelean, eta garrantzia kendu nahi bazion ere, gutxienez herritar batzuk ezkor zirelako informazio baliosa eman zuen. Bera ez zen ados pronostiko horiekin, ez zitzaion ongi iruditzen halako mezuek zabaltzea, eta gutxietsi nahi zituen, baina horiei erantzunez erraten ari zen uste hori bazela.

Egia erran, zibilek solas ezkorrak ukaiteak ez zuen kezka berezirik eragiten aitzindarien artean, Jose Ramon Cuberoren arabera. Haatik, militarren ahotik halako solasak ateratzea gogor zigor zezaketen¹⁶⁷⁸. Hala mintzo ziren soldaduez gutxi aritu ziren *Eskualduna* astekarian, baina zeharka uler zitekeen batzuetan soldadu batzuek berri ezkorrak zabaltzen zizkietela beren etxekoei, *Zerbitzari*-k Beskoitzeko andere honi eman erantzunean ageri den bezala:

Baitire gizon batzu bethi etsaiaren nausitasunaz hartuak direnak, aski dute hunat ethortzea: ikusiko dute nor den nausi airetan. Bardin-bardina nausituko gare lurrean, baldin hortako behar dena egiten badugu. Hori hola da zure semeak bertzerik baderasa ere, andere Kattalin Bezkoitzekoa. Ochpine! ¹⁶⁷⁹

Hegazkinen arteko borrokari buruz ari zen *Zerbitzari*. Itxura guztien arabera, Euskal Herrian batzuk mintzo ziren, baizik eta alemanak nagusi zirela. Hori ez zezakeen onar *Zerbitzari*-k, eta Euskal Herritik hala mintzo zirenei gerlako lekuetara beretara joateko proposatu zien, beren begiz ikus zezaten zer zen egia eta zer ez. Baina hala mintzo zen ama horren iturriak gerlari batenak ziren, semearenak hain zuzen. *Zerbitzari*-k seme haren

¹⁶⁷⁶ Saint-Pierre, «Eskual Herritik lekora». 1916/9/22.

¹⁶⁷⁷ Saint-Pierre, «Purruskeriak». 1916/11/17.

¹⁶⁷⁸ Cubero, *La grande guerre et l'arrière: (1914-1919)*, 188.

¹⁶⁷⁹ Jean Elizalde, «Airetakoak», *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 19a.

erranak gezurtatu nahi zituen. Oro har, ezkorrak gezurtizat jotzen zituen. Gauzak gaizki zihoazela zioten gizonei kasurik ez egiteko idatzi zuen, baizik eta etsaiaren alde ari zirela. Ezkorren solasak gezurtatzeko eta bazterren lasaitzeko zehaztu zuen gerla guztietan bazirela gorabeherak, eta hartan ere bazirela¹⁶⁸⁰. Baina ezkortasunari garrantzia kendu nahi bazion ere, baikortasun itsua desagertua zela dio John Hornek: «le mythe du chef porteur de la victoire totale et rapide est enterré par la réalité». Soldaduek eta zibilek inozentzia galdu zutela dio¹⁶⁸¹.

Inozenteak, aldiz, ezkorrak ziren, Blaise Adémaren arabera. Euskal Herritik, gerlaz iragarpen ezkorrak egiten zituztenei erantzun zien, ezkor horiek ergeltzat joz:

Herri gehienetan badire minjulin batzu beti intzirinaz dagozinak. Hoi en arabera, etsaiak behinere baino azkarrago ditugu, eta beldur izaiteko da ez ditugula batere garhaituko. Hola mintzo dire beren inguruetan, eta beren gogo goibelaren kutsua hedatzen dute urrun. Zenbat aldiz neronek ez dut entzun erraiten: Zer zaitzu gerla hunen irauteaz? Noiz eta nola bururatuko othe da? Etsaiak beti azkar dire; ez ditugu Frantziako lurretarik khenduko. Nola nahi duzu amor emanaraz dezotegun? [...] Baina nor nausituko da gerla huntan? Hortaz egoiten ahal gare deskantsurik handienez, hori ja ageri baita arras ongi. Bakea gostatzen ahal zaiku oraino hainiz, baina ona izanen da guretzat. Segur gare, arras segur.

Beraz hastean aipatu ditudan minjulinetarik atzemaiten baduzue zuen bidean, emozuete harro aldi bat ona, ichil diten behin betikotz. Holakoak ez dire bihotzen hozteko beizik; eta gure bihotzeko khar guziaren beharretan gare.¹⁶⁸²

Biziki adierazgarria da ezkor horien izendatzeko erabili hitza: «minjulin». Mindulina da beti erdi negarrez ari den pertsona, ahulezia baten marka. Funtsean, Adéma erraten ari zena zen ezkorrak negarti eta ahul hutsak zirela, ninikerietan ari zirela eta inarrosi behar zirela, haien uste ilunak haizatzeko. Hots, gisa horretan sinesgarritasun osoa kendu nahi zien gerlaren bilakaeraz ezkor ageri zirenei: ez zuten halako solasik hori pentsatzeko arrazoiak zituztelako, baizik eta mindulin hutsak zirelako. Uste ezkorrak gezurtatzea baino gehiago zen hori: ezkorrak gutxiatea zen.

Jarrera ezkorrak bazirela argitu zuten *Eskualduna*-ko idazleek. Helburua ez zen ezkortasun horren berri ematea, baizik eta ezkor horien gutxiatea eta, horiei erantzunez, beti mezu baikorrarekin amaitzea. Baina, ororen buru, gizartearen baitan zeuden sentimendu horiek agertu zituzten, eta hori interesgarria da. Hala ere, *Eskualduna*-ren mezua beti bide beretik ari zen: gerlaren eta garaipenaren baitako fede osoa, eta, beraz, Frantziako armadarekiko eta aitzindariakiko leialtasun osoa.

¹⁶⁸⁰ Jean Elizalde, «Azken hitza», *Eskualduna*, 1918ko maiatzaren 10a.

¹⁶⁸¹ John Horne, «Les Chefs au secours des patries pendant la Grande Guerre (France, Allemagne, Grande-Bretagne)», *Matériaux pour l'histoire de notre temps* 28 - 1 (1992): 22 – 25.

¹⁶⁸² Blaise Adéma, «Ez! Ez!», *Eskualduna*, 1916ko urriaren 20a.

d) Permisioneen garrantzia

Euskal Herrian ibiltzen ziren solas ezkorrek soldaduak *keutsatzen* zituztela aditzera eman zuen behin Blaise Adémar, apezpikuaren mintzaldi baten berri ematean. Itxura guztien arabera, Euskal Herrira zenbait egun pasatzeko baimena ukanik berriz gerla lekura itzultzen ziren soldadu anitz bihotza ilundurik agertzen ziren. Jarrera ezkorra ez zuen berez soldaduen baitan ikusten, baizik eta etxeetan zeudenen baitan, bereziki etxeke egoera zaila pairatzearen ondorioz:

Zenbat soldado, etchean aste bat egon eta behinere baino ilunago, dohagabeago itzultzen direnak beren lagunengan! Zertako hori? Zeren, etchean, bihotza azkartzeko orde, eri-arazi baitiote. Hango nigarrak ikusi dituzte hango intzirinak entzun. Aitak, amak, emazteak, haurrek, erran diote ez dezaketela gehiago lanarekin ihardok; ontasun guzia larre utzi beharko dutela, ez bada laster behin betikotz handik gibelerat heldu. Zer bihotz duke bada gizagaizoak, etchetik harat itzuli behar duelarik, holako solasak entzun ondoan! [...] Ez dezagula ere aipa han pairatzeko dituzten neke eta grina izigarriak. Berek gordetzen dauzkigute; egin dezagun batere ez baginakizka bezala. Hemen direlarik, mintza gaiten hemengo berri onez, bihotza alchatuko dioten berriez. Eta joateko ordua heldu denean, atchik barna gure nigarrak.¹⁶⁸³

Hori irakurririk, badirudi permisionek zerbait txar bezala ikusten zituztela. Ez dago hori errateko arrazoirik aski. Batetik, aitzineko zatia lotuz, solas txarren edo soldaduen moral ilunaren erantzukizuna bakean bizi zirenen gain ezarri zuen *Eskualduna*-k. Ez zuen dudan ezarri soldaduen borondatea, edo beren baitariko borondatea. Arazoak, sortzekotan, zibilek sortzen zituzten, gauzak modu ilunean kontatuz.

Horiek hola, permisionek zerbait beharrezko gisa aurkeztu zituzten, gehienetan. Emmanuelle Cronierrek¹⁶⁸⁴ esplikatu du permisionek nola sortu ziren: gerla uste baino gehiago luzatzeak eragin zuen halako neurri baten pentsatzea 1915eko udaberrian. Neurri honek helburu hirukoitza zeukan: soldaduen morala laguntzea, bizitza ekonomikoa aktibatzea eta sortze-tasa bultzatzea. Oro har, soldaduei, aldizka, sei eguneko baimena ematen zieten beren familiarengana joateko. Orotara arras egun gutxi egon ziren gerla lekutik kanpo – gehienik hirurogei egun – baina aldi horiek garrantzi handia zeukaten gerlariek aiseago irauteko.

Gerla lekutik urrundu eta etxekeengana joateko behar hori islatu zen *Zerbitzari*-ren eta Jean Saint-Pierreren kroniketan. Saint-Pierrek, adibidez, artikulua batean aipatu zuen

¹⁶⁸³ Blaise Adéma, «Hitz on bat», *Eskualduna*, 1917ko uztailearen 6a.

¹⁶⁸⁴ Emmanuelle Cronier, «L' échappée belle: permissions et permissionnaires du front à Paris pendant la première Guerre mondiale» (doktorego-tesia, zuz. Jean-Louis Robert, Université Panthéon-Sorbonne (Paris), 2005).

«azkenean» ukan zuela permisionea¹⁶⁸⁵. Horrek erakustera ematen du atsedean horren beharra bazuela eta berantetsia zuela. Horren ondotik permisioneen mekanismoa nolakoa zen xeheki esplikatu zuen, eta lerroen artetik gerlaren gogortasuna eta pausa horien beharra azpimarratu zituen. Permisionez lehenik joanen ziren sekulan ukan ez zutenak eta sei hilabete baino gehiago haietan gerlan zirenak, bigarrenik haurrak zituztenak, ezkonduak, zaharrenak... Ehunetik bost edo hamar joanen zirela iragarri zuen, eta udazkenerako denak joanen zirela. Soldaduak kontent zirela idatzi zuen Saint-Pierrek, bihotza ilundua baitzuten:

*Ez da hemen orai bertze solasik: gogoa arindurik jarriak dire soldado zaharrak: eta bertzeak ere, urthe bat iraganez geroz etxetik urrun, bereziki oraiko moldean, hango grinak, nahi ala ez, ilhutzen baitu bihotza.*¹⁶⁸⁶

Permisioneek soldaduentzat zeukaten garrantzi horrek eta oporraldi horren behar gorriak erakustera ematen du gerlaren gogortasuna aitortzen zutela, lerroen artetik bazen ere. Beste gisako adibide bat aipatu zuen *Zerbitzari*-k:

Arrangoiztar artillur bat zeruari bezala zagon bere permisioneari. Alde batetik aspaldi hemen eta bertzalde... berrogoita hamarbat erhaztun izanki berberak eginak hari eta huni herrian emateko.

Eta horra non hain chuchen, hura orduko, gure herritarako permisioneak kentzen dituzten!

*Muthiko gaizoak, hori ikasiz geroztik, debruetarat igor letzazke Aleman guziak... eta bertze zenbeit.*¹⁶⁸⁷

Permisionea berantetsirik, azken mementoan baimen hori kentzeak eragin zuen frustrazioaz mintzo zen. Jacques Garaten arabera, 1915eko lehen sei hilabeteetan permisione ondoko desertoreen kopuruak gora egin zuen, eta ondorioz neurriak hartu zituzten permisioneak mugatzeko¹⁶⁸⁸.

Argi da arnasberritzeko neurri funtsezkoa bilakatua zela. Eta horrela ulertu behar da *Zerbitzari*-ren eta Saint-Pierreren lumetan ere. Bai, gerlaren gogortasunaren seinale zen permisioneen garrantziaren aitortzea. Baina seinale aitortu bat, Frantziako agintariek legez onartu zuten geroz. Are gehiago, soldaduak permisionetik gogotik itzultzen zirela ere adierazi nahi zuen Saint-Pierrek, erranez ez zela egia permisionez joandako soldadu gehienak mendiz bestaldera pasatzen zirela, hala nola desertore egiten zirela. Permisionez joan ziren guztiak xingar eta piperrekin itzultzen zirela gehitu zuen, tonu baikor batekin, eta berentzat ere atxikitze eskatuz¹⁶⁸⁹.

¹⁶⁸⁵ Jean Saint-Pierre, «Permisioneak», *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 16a.

¹⁶⁸⁶ Jean Saint-Pierre, «Nor baliatuko?», *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 16a.

¹⁶⁸⁷ Jean Elizalde, «Hau da penaren pena», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 3a.

¹⁶⁸⁸ Garat, «Insoumissions et désertions en France pendant la Grande Guerre: Le Cas des cantons basques», 18.

¹⁶⁸⁹ Saint-Pierre, «Permisioneak». 1915/8/13.

Permisioenez joan nahi horrek erakuts zezakeen ahuleziaren parean, soldaduen kemena erakutsi nahi zuten, berriz gerlara itzultzeko indarra zutela azpimarratuz, edo, ondoko kasu honetan bezala, permisioenez joan baino gerlan segitu nahiago zutenen kasua txalotuz:

Nork sinhets gerlan badela gizon bat ere oraino permisioenez izan ez denik, hastetsutik gerlan, delarik. Bizkitartean egia da. Eskualduna da gizon hori. Haur tiki eder eta maitagarri baten aita. Izan zezaken permisioea. Ez du galdetu ere. Beldur zen etchetik itzultzean bihotzak gaindi eginen ziotela. Lagunek hameka egin diote ba, gan zadin herrirat. Debaldetan. Ez du behinere deliberatu. Hola bere burua ezagutzen duen gizona, hola bere buruari gogor egiten dakien gizona, zer gizona! Ez ditut urrikari horren emazte ona eta haur maitea! Jainkoak eman dezotela laster, eta orduan bethikotz, elkarretaratzeko zoriona.¹⁶⁹⁰

Soldadu honen bihotz gogorra goraiatu zuen *Zerbitzari*-k. Baina funtsean ahulezia bat ere ikus zekioken, soldadu horrek ikusten baitzuen etxetik berriz gerlara buruz abiatzea biziki gogor eginen zitzaioela. Memento zail hori ez jasateko, nahiago zuen gerlan gelditu. Baina *Zerbitzari*-k gogor egite hori zuen txalotu, haren familiakoak ez «urrikari» izanez. Orogen buruz, soldaduen kemena azpimarratu nahi zuten, baita permisioenen gaian ere.

3. Gerlaren kontrako kontra

Hainbat soldaduren baitan, etsipen uneak zabaltzeaz gain, gerlaren kontrako jarrerak ere errotu ziren. Kontrako jarrera ez zen baitezpada motibazio politikoek eragina; ez gara jarrera politikoaz ari, baizik eta funtsean gerlaren kontrako neurri batzuen hartzeaz. Horietarik bat zen desertoreen gaia, Euskal Herrian presentzia handia izan zuena, eta *Eskualduna* astekariak ere maiz aipatu zuena. Bigarren neurria, Euskal Herrian oihartzun gutxi izan zuena baina Lehen Mundu Gerraren historian garrantzia ukan zuena, 1917ko altxaldiena izan zen. Bi gai horiek izan zuten oihartzun zerbait aztertzen ari garen astekarian, eta horien aurrean euskaldunen portaera nola deskribatu zuen aztertuko dugu.

a) Desertoreak

Desertoreen gaiak presentzia handia izan zuen *Eskualduna* astekarian. Alde batetik, edozein artikulutan azpimarratu nahi izaten zuten gezurra zela euskaldun anitz mendiz bestaldera joan zela gerlatik ihesi. Nahiago izaten zuten euskaldunen balentriak kontatu, eta hori kontatzean desertoreak izatearen fama ahuldu. Hori bera, ordea, desertoreak bazirela

¹⁶⁹⁰ Jean Elizalde, «Ezin sinhetsia», *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 7a.

aitortzea zen. Bestetik, zein heinetan ziren desertoreen kontra erakusten zuten. Hirugarrenik, desertoreak berriz gurlara joateko deia zabaltzen ibili ziren, horretarako legeak aipatuz.

Jean Saint-Pierrek, adibidez, permisioneei buruzko artikulu batean, euskaldun anitz desertore egiten zirelako solasa gezurtatu nahi izan zuen¹⁶⁹¹. Manex Hiriart-Urrutik berak ere, 1915eko udan, ukatu zuen Euskal Herrian desertore anitz izan zenik:

Bakar batzu (beldur ziren eta ginen baino gutiago, deus jakin gabe oro bethi gaizki, bethi makurrerat ikusi eta aiphatu behar dituztenek derasaten baino hanitz gutiago), joan dire holetan ihesi, etsai gaichtoak bidean bihotza janik.

Zer izanen bada eta ez bada, irakurtzale onak, othoi, othoi, ez bederen sinets alemanek eta heien kidekoek hemen gaindi besotaraka hedatzen daizkuten gezurrak: badirela hunenbertze, harenbertze desertur, holako eta halako herrian.¹⁶⁹²

Desertoreak aipatu zituenean, uste baino gutxiago izan zirela azpimarratu zuen beti. *Eskualduna*-k ez zuen erakustera ematen edo ez zuen aitortzen desertore anitz bazela. Baina ezin zuen ukatu, eta lerroen artetik ihes egiten zion informazio horrek. Norbaitek desertore ez izateko hautua egitea azpimarratzean erakusten zuen beste anitzek kontrako hautua egin zutela, bestela ez zuten desertoreen aipamena hala eginen:

"[...] Bi urthe eta erdi zituen ni gurlarat joatean. Deusek ez daut hala hautsi bihotza, nola ikusteak ezuela haur gaichoak bere aita ezagutu. Egungotzat haatik adichkidetuak ginen. Damurik noa hoin fite. [...] - Espainiako mendi horier behako bat ez dakozute zuk beraz eman bertze zonbeitek bezala? - Nik ez.¹⁶⁹³

Azkenean, *Eskualduna*-k hainbeste aldiz desertore kopuruari garrantzia kendu nahi izanak erakusten zuen Euskal Herriko desertoreekin arazo bat zeukala Frantziako armadak. Egoera hori baieztatu dute, geroztik, hainbat ikerlarik. Miquel Ruquetek gauzak beren lekuan jarri ditu, azpimarratuz intsumisio eta desertzio kasuak norbanakoen ekintzak zirela eta ez zutela oinarri ideologikorik, salbuespen batzuk salbu¹⁶⁹⁴. Euskal Herrian desertore anitz izan zela dio. Lehen desertore kasuak 1915ean onartu ziren permisioneen ondotik etorri ziren, hainbat gudari ez baitziren gerla lekura itzuli, Jacques Garaten arabera¹⁶⁹⁵. Euskal Herriko intsumitu eta desertore tasak biziki handiak ziren Pirinioetako beste lekuekin konparatuz. Pirinio Behereak departamenduan, intsumitu eta desertore tasa

¹⁶⁹¹ Saint-Pierre, «Permisioneeak». 1915/8/13.

¹⁶⁹² Manex Hiriart-Urruti, «Zortzi egunak», *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 30a.

¹⁶⁹³ Hiriart-Urruti, «Bortz haurren aita». 1915/7/26.

¹⁶⁹⁴ Ruquet, «Désertions et insoumissions sur la frontière des Pyrénées pendant la guerre de 14-18».

¹⁶⁹⁵ Garat, «Insoumissions et désertions en France pendant la Grande Guerre: Le Cas des cantons basques», 13.

%17,06koa zen, gainerako departamenduetan %2 eta %5 bitartean zegoenean¹⁶⁹⁶. Pirinio Beheretan intsumitu kopurua 14.355ekoa zen eta desertore kopurua 948koa.

Gerlara joan ez ziren gehienak, beraz, intsumituak ziren. Horietatik andana bat, 1915etik landa armadan sartzeko adinean zirenak ziren, Garaten arabera. Hegoaldearekin mugan zeuden kantonamenduetan, gerlara joan behar zutenen herenak intsumisioaren hautua egiten zuen¹⁶⁹⁷. Gainerako intsumituak emigrazioz joanak ziren. Alberto Sarramonek euskaldunen emigrazioa aztertu du¹⁶⁹⁸, eta han dio, Bernard Schnapperren ikerlan bat¹⁶⁹⁹ oinarri hartuz, San Frantziskon eta Mexikon zeuden euskaldun gehienak intsumituak zirela. Asun Garikanok ere dio Ipar Euskal Herriatik Kaliforniara joan ziren euskaldunak soldaduskatik ihes egiteko joan zirela¹⁷⁰⁰. *California'ko Eskual-Herria* egunkariko 1894ko apirilaren 14ko artikuluko bateko pasarte bat erabili du hori zehazteko.

Ez ziren intsumitu 1914ko gerlari ihes egiteko; aspaldian zeuden intsumitu gisa. Aski da Paueko artxibora joan eta biztanle bakoitzaren Erregistro Militarrari so egitea, ikusteko zenbat ziren zerbitzu militarera agertu ez zirenak eta intsumitu gisa ekarriak zirenak. 1909an Ipar Euskal Herriko parrokia guztietako apaizei galdetegia egin zietenean, Ahurtiko erretoreak erantzun zuen ez zegoela gehiago 18 eta 35 urte bitarteko gazterik herrian. Urepelekoak erantzun zuen 18 urteko guztiak Ameriketara joanak zirela¹⁷⁰¹. Halaber, Philippe Boulangerren arabera, intsumitu «faltsuak» ere baziren, atzerrian zirenak baina hilak zirenak beren Herriko Etxeek heriotzaren berririk ukan gabe eta beraz hiltzat ekarriak izan gabe¹⁷⁰². Beraz, desertoreez mintzatzerakoan, intsumisioaren eta desertzioaren datuak ez dira nahasi behar. Horrek ez du erran nahi desertoreen fenomenoaren gutxietsi behar denik. Asun Garikanok hainbat lekukotasun bildu ditu, Kaliforniara gerlatik ihesi joandakoenak edo haien ahaideenak, zehazki:

*Lehen Mundu Gerran Frantziako Gobernuak pasaportea ukatu zien 19 urteko gazteei. Baina erabakia hartuta zeukanak, Frantzian ezin bazuen, mugaz bestaldeko portu batean hartzen zuen ontzia, gehienetan Pasaiko portuan.*¹⁷⁰³

¹⁶⁹⁶ Ruquet, «Désertions et insoumissions sur la frontière des Pyrénées pendant la guerre de 14-18».

¹⁶⁹⁷ Garat, «Insoumissions et désertions en France pendant la Grande Guerre: Le Cas des cantons basques», 12.

¹⁶⁹⁸ Alberto Sarramone, *Les cousins basques d'Amérique*, itzul. Mirentxu Irigoyen (Biarritz: J&D Editions, 1997).

¹⁶⁹⁹ Bernard Schnapper, *Le Remplacement militaire en France. Quelques aspects politiques, économiques et sociaux du recrutement au XIX^{ème} siècle* (Paris: S.E.V.P.E.N., 1968).

¹⁷⁰⁰ Asun Garikano, *Far Westeko Euskal Herria* (Iruñea: Pamiela, 2009).

¹⁷⁰¹ Fabas, «Aspects de la vie religieuse dans le diocèse de Bayonne (1905-1965)», 60.

¹⁷⁰² Philippe Boulanger, «Le refus de l'impôt du sang. Géographie de l'insoumission en France de 1914 à 1922», *Guerres mondiales et conflits contemporains* 188 (1997ko abendua): 3–25.

¹⁷⁰³ Garikano, *Far Westeko Euskal Herria*, 106.

Desertore kopuruak kezka eragiten zizkion administrazioari, eta baita *Eskualduna* astekariari ere. Kopuru hori, dena den, aldakorra izan zen denborarekin. Intsumisioa azkarrenik 1915ean izan zen, eta gero anitz apaldu zen, Boulangerren arabera¹⁷⁰⁴. Claude Lahariek Paueko prefetaren kezken berri ematen du. 1917ko ekainaren 18an Frantziako Barne Ministroari idatzi zion, soldaduen artean hastapeneko ilusioa falta zela, baina egoera ez zela larritzekoa, euskaldunek beren frogak egin baitzituzten Craonne aldean¹⁷⁰⁵.

Desertoreei eta intsumisioari buruzko argibide horiek emanik, *Eskualduna*-k gutxietsi nahi izan zuen fenomeno zinezkoa zela erakutsi nahi izan dugu. Fenomenoa zinezkoa zelako marka zen *Eskualduna*-koek desertoreei edo desertore izateko tentazioa izan zezaketenei idazten zieten. Jean Saint-Pierre argiki mintzo zen desertoreen kontra, erranez ahalkegarri zela euskaldunek muga zeharkatzea gerlari ihes egiteko:

*Eskualdun batzuen begietan, gerla denboran ihes egite horrek ez du kontrabandako lanak baino gehiago hobetik. Atzema dena, atzema. Hanbat gaixtoago harentzat, eta hortan fini. Ez dezakete gogoan eman egitate hita dela, eta guziz ahalkegarria.*¹⁷⁰⁶

Desertore izatea ez zela kontrabandoa baino larriago ziotenei erantzun nahi izan zien, desertoreen kulpabilizatzea eginez. Artikulu hori bera lehenago aipatu dugu, Estatuaren justifikazioa egin baitzuen gero. Argudio filosofikoak ziren, elkartasunari buruzkoak. Gizon izatearen balioa azpimarratu zuen. Bukaeran legezko neurriak aipatu zituen, soldaduak oraino gehiago konbentzitzeko.

Zerbitzari-k ere permisionez joaten ziren eta gerlara itzultzen ez ziren euskal soldaduak kritikatu zituen:

Oraiko atseginekin baditugu ere gure bihotzminak. Permissionetik hainbertze lagun etzaizku gehiago itzultzen! Diren bezalako choroak! Bi urthe gerla egin dituzte eta orai uko egiten dute, gerla bururatzera doalarik. Zerk diote bada burua itzul-arazten? Hemen zireno etzuten chede gaichtorik. Burhasoek othe diote uko egin-arazten?

Sekulako lurrak galtzea, zer haurkeria! Balakite zenbat nigar eginen duten sarri! Egundainkoa da: uste dute mendiz bertaldea kausituko duten eltzea izanen dela bethea urrhez. Balute lurrez.

*Eta gero, uste ez duguna gertatzen balitz sekulan, deserturrak uzten balituzte Frantzian sartzerat, thu egin ginezokete guk bi begien erdirat. Fuera uko eginbideari egin eta egin-arazten dutenak!*¹⁷⁰⁷

Zerbitzari-k testu gogorra egin zuen desertoreen kontra, bereziki azken paragrafo hori non erran baitzuen gerlatik landa ez zirela batere ongietorriak izanen. Halaber, Hego Euskal Herrian bizi hobearen esperoan zirenei erran nahi zien ez zutela espero zutena atzemanen.

¹⁷⁰⁴ Boulanger, «Le refus de l'impôt du sang. Géographie de l'insoumission en France de 1914 à 1922».

¹⁷⁰⁵ Laharie, *Les Basses-Pyrénées pendant la guerre 1914-1918*, 75.

¹⁷⁰⁶ Saint-Pierre, «Permissionek». 1915/7/23.

¹⁷⁰⁷ Jean Elizalde, «Diren bezalako zoroak!», *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 21a.

Errekurtso hori maiz erabili zuten *Eskualduna* astekarian. Baina bereziki azpimarragarria da gerlari uko egitearen erabakia ez zuela soldaduen gain ezartzen, baizik eta norbaitek hartara bultzatu zuelako edo norbaitek «burua itzul-arazi» ziolako segurtasuna eman zuela. Berriz ere, gorago aipatu bezala, gerlaz behar bezala mintzo ez zirenak etxean edo gerlatik urrun zeudenak ziren. Gauza bera uler daiteke ondoko pasartetik:

Eskualdun hainitz Eskual-Herrirat ganen da. Hek eta burhasoek ez bezate ahantz gerla bururatzan ari dela: egun batetik bertzerat akaba ditakela. Desertatzea astokeria litake. Kasu beraz mihi ederreri ez dute zuen ona bilhatzen.¹⁷⁰⁸

Gerlari uko egitearen erabakia soldadu ez ziren pertsonen gain ezarri, soldaduen ospea salbu utzi nahi zuela dirudi. Soldaduak beti gerlari on gisa erakutsi nahi zituen. Hala ere, batzuetan zuzenago jotzen zuen desertore egiten ziren soldaduen kontra. Behin, hiru euskaldunen balentriak kontatu zituen, hala nola Kanboko Chiquito, Petri Duhalde eta Bastidako Durquetenak. Duhalderi buruzko berrian idatzi zuen alemanei tiro egin nahi ziela, eta frustratua zela ezin izan zuelako egin, kapitainak gelditzeko erran baitzion. Euskaldunak gerlari onak zirela, eta ez ihes egin zuen beste pilotari hura bezala, idatzi zuen:

Hire egintzak Espainiarat pasatu delako pilotariarena balio dik.¹⁷⁰⁹

Halaber, mozkorturik 24 oreneko berantarekin itzuli zen bati buruzko kronika kontatzean ere kritikatu zituen itzultzen ez zirenak:

Beraz gure Larresoroarra permisionez izan zaiku berritan. Neskatcha bat bezen ederki aphaindurik, urrundu zitzaukun gerla tokitik ilhuntze batez. Parisen gaindi, Bordelen gaindi, Baionan gaindi, Larresororat heldu bi egunen buruko. Han sei egun gocho iragan. Eta gero, Espainiako alderat bururik itzuli gabe, berriz gerlako bidea hartu.¹⁷¹⁰

Dena den, desertoreei buruzko aipamenak arras gutxi ziren, *Zerbitzari*-ren artikulua guztien artean, irakurri ditugun 329 artikulutatik 4 baitziren desertoreei buruzkoak. Euskaldunak zein gerlari onak ziren erakutsi nahi zuenarentzat, ez zen sobera komeni erakustea zenbat desertore baten. Gutxi aipatuz, fenomeno hori txikitu nahi zuela pentsa daiteke.

Desertore izatea zerbait ahalkegarri zela idatzi zuen beste artikulua batean Jean Saint-Pierrek, non emazte batek zioen nahiago zuela senarra permisionerik gabe geldi zedin, desertore baten emaztea izatearen ahalkea ukaitea baino. Delako emazte hark senarrari idatzi omen zion desertoreak besta egiten ari zirela mugako herrietan, eta nahiago zuela

¹⁷⁰⁸ Jean Elizalde, «Permisioneak», *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 4a.

¹⁷⁰⁹ Saint-Pierre, «Gerlarien berri». 1914/12/4.

¹⁷¹⁰ Elizalde, «Chahako maiteak». 1916/3/31.

berak bere senarra holakatu baino, permisione egunak han pasa zitzaizkan pausaleku batean¹⁷¹¹. Blaise Adéma antzeko aipamen bat egin zuen, azpimarratu zuenean ama batek nahiago zuela jakin semea hila zela desertore izan zela baino¹⁷¹².

Etxeko maiteenek jarrera hori zutela erakutsiz, *Eskualduna*-k soldaduei desertore izateko gogoia kendu nahi zuten. Beste bide batzuk erabili zituzten, *Oxobi*-k adibidez. Desertoreei deia egin zuten, modu aski diplomatikoan, nahiz eta «dohakabe» deitu. Deia Pablo Fermin Irigarai *Larreko* idazle eta *Napartarra* aldizkari laguntzaileari egin zion eta haren bidez Nafarroako agintariei:

*Zuk adichkidea, eta zure lagunek badakizue norat jo iheskarietarik ikusteko. Ez da nehor horien izitzekotan hari behar. Izialdurak ez dakharte ondorio iraunkorrik. Bainan gehienak behar bada elhe kartsu ezti baten aiduru daude lanerat itzultzeko. Lan baitezpadakoa dela erranen dakozuete: sua lothu zaukula herrian eta etche hanitz erretzera doazila ez delakotz besorik aski garraren urruntzeko, ontasun osoak garbitu behar direla, nausiak ez baititugu hemen, gordeak baitaude nonbeit, ukho eginik gutarteko eginbideetan lehenari.*¹⁷¹³

Artikulu horretan erakutsi zuen uste zuela desertoreek gerla egin behar zutela. Ez zen beharbada gogor mintzo desertoreen kontra, baina kritikatu zituen, bere gisan. Nabarmenezkoa da, ordea, ezintasunez konbentzitzea aldarrikatzen zuela, ez zuela errepresioaren edo zigorraren aldeko deia egiten. Oraino pentsatzen zuen gerlari uko egin zuten horiek konbentzitu zitzaizkela gerlara itzul zitezkeen. Funtsean, horrelako deiak maiz agertu ziren *Eskualduna* astekarian. Fenomeno horren berri azaltzen du Jacques Garatek¹⁷¹⁴ ere, hala nola Frantziako Justizia Ministeriotik zirkular bat igorri zutela 1917ko azaroaren 13an Euskal Herriko apaiz eta auzapez guztiei, berriz itzultzeko baldintzak azalduz. Baionako apezpikuak bere elizbarrutiko apaiz guztiei igorri zuten deia desertoreen familiengana joan zitezkeen, konbentzitu beharrez.

Miquel Ruquetek dioten bezala, desertore guztiak ez ziren mota berekoak; larriena gudu baten erdian uko egitea zen, horren zigorra heriotza izan zitekeelarik. Besterik zen permisione denboran beste estatu batera ihes egitea¹⁷¹⁵. Guy Pedroncinik zehaztu du kasu horietako zigorrak ez zirela larriak, maiz, gainera, eteten zituztela¹⁷¹⁶. Argudio hori maiz erabili zuten *Eskualduna*-n desertoreei itzultzeko deia egiteko.

¹⁷¹¹ Jean Saint-Pierre, «Permisioneak», *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 30a.

¹⁷¹² Adéma, «Milesker!». 1917/7/13.

¹⁷¹³ Jules Moulier, «Larrekoari», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 22a.

¹⁷¹⁴ Garat, «Insoumissions et désertions en France pendant la Grande Guerre: Le Cas des cantons basques», 23.

¹⁷¹⁵ Ruquet, «Désertions et insoumissions sur la frontière des Pyrénées pendant la guerre de 14-18».

¹⁷¹⁶ Pedroncini, *Les mutineries de l'armée française*, 65.

Batetik¹⁷¹⁷, ongi ulertarazi nahi izan zuten, ihesi joan ziren batzuek uste baldin bazuten gerlariak baino lehen itzultzen ahalko zirela, deus problemarik gabe, aitzineko gerlan bezala, guztiz tronpatzen zirela. Legea gogortu zutela eta desertoreak atzemanen zituztela eta atzematen ez zituztenei ontasunak kenduko zizkietela azpimarratu zuen. Legeak epe bat ematen zuen armadara itzultzeko, eta itzultzeko erabakia hartzen zutenak gerlara joanen ziren, gaztigu gutxirekin. Hori ere azpimarratu zuten artikulu hartan. Ihesan zirenen gurasoei ere egin zieten deia, gerlara itzultzera susta zitzaizten. Beste batean beste argudio bat erabili zuten Hegoaldean ziren desertoreen konbentzitzeko, hala nola Espainiako erregeak adierazi zuela desertoreak Frantziara igorriko zituela¹⁷¹⁸.

Beste behin ere egin zien deia Blaise Adémak. Euskaldun anitz desertore zela, eta ez zutela sinesten barkamena ukanen zutela ohartu zen. Beraz berriz errepikatu zuen barkamenarena egia zela, beren borondatez itzultzen zirenek barkamena ukanen zutela. Haatik desertoreei ontasun guztiak kentzeko lege berri baten prestatzen ari zirela ere gehitu zuen. Azken erabakia desertoreen esku utzi zuen¹⁷¹⁹. Ez zen biziki moralista, bakoitzaren zuhurtziaren esku utzi zuen erabakia, ez zuen erran «egin hori», baina hori aditzera eman zuen.

Barkamenaren alde ageri zen, oro har, *Eskualduna*. Inporta zitzaiona zen euskaldunak gerlara itzul zitezten. Ez zen hain hitz gogorrik edo gaitzespen irmorik editorial horietan. Baina barkamena gauza giristinoa da, eta giristinotasun horren baitan uler dezakegu, bekatuak aitortzen diren bezala. Azkenean desertore kopurua gutxitu nahiaren, gerlari uko egiteko hautuaren erantzulea soldadua zela ukatu nahiaren, desertoreen erabakiaren gaitzeste irmoaren eta bigarren aukera bat ematearen aldeko iritzien artean nahasten zen *Eskualduna*-ren jarrera. Baina irakurketa orokorra garbia da: gerlari uko egitea zinez gaizki iruditu zitzaion astekari horri. Hori ere zen gerlarekin eta Frantziarekin lotzeko bide bat; eta desertoreak gutxiengo zirela erakutsi nahi horretan ageri zen euskaldunak Frantziarekiko leial zirela erakuste nahi bat.

b) Altxaldiak

Gerlaren barne istilu ezagunenak 1917an Andereen Bidean gertatu ziren altxaldiak izan ziren¹⁷²⁰. Soldadu andana batek gudura itzultzeari uko egin zion une batez, eta horren

¹⁷¹⁷ Blaise Adéma, «Hauta hor», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 29a.

¹⁷¹⁸ Blaise Adéma, «Ba othe?», *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 18a.

¹⁷¹⁹ Blaise Adéma, «Bigarren aldikotz», *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 31a.

¹⁷²⁰ Ikus lehen zatian: 181

ondorioz zenbait atxilotu, epaitu eta hiltzera kondenatu zituzten. Arreta pixka bat jarri dugu jakiteko *Eskualduna*-ko berriketariek nola aipatu zituzten altxaldi haiek; alabaina, euskaldunek hilabete anitz iragan zuten eskualde hartan, eta Andereen Bideko 1917ko guduetan ere parte hartu zuten. Lehen ikusi dugu 49. Infanteria erregimentua, Baionakoa, ez zela busti altxaldi haietan. Baina Paueko 18. Infanteria Erregimentuan izan ziren zenbait istilu. Jean Saint-Pierre erregimentu hartakoa zen.

Altxaldiak maiatzaren 20an hasi ziren, baina maiatzeko edo ekaineko zenbakietan ez zen gertakari haien aipamenik izan *Eskualduna*-ko zutabeetan. Erran behar da Jean Saint-Pierrek eta *Zerbitzari*-k ez zutela kronikarik igorri garai haietan, hain segur guduen erdian aski okupatuak baitziren. Craonne inguruan gertatu zenaz xehetasun gehiago kontatu zuten uztailen. *Zerbitzari*-k euskaldunek Craonnen egin balentriez espantu egin zuen, baina altxaldiak ez zituen aipatu¹⁷²¹. Jean Saint-Pierrek hitz erdika aipatu zituen altxaldiak. Bizpahiru artikulutan gaia aipatu zuen, baina garrantzia kenduz:

Mendekosta arratsean jin zitzaukun manua. Atsegin egin zaukula ezin erran dezaket, oraino akituak baikinen, eta gure ustez Craonne-ko zelhaia sekulako hustua baikinuen.

Konpainia bat edo bertze aphur bat asaldatu zen ere, arno zorta bat izariz kampo baitzuten edana. Bizkitartean, hartan gelditu zen; bertzeak etziren ohartu ere zer zitakeen chuchen. Gero famak egin zuen bere lana: ez deus batetarik harritzeko nahasmendua moldatu.¹⁷²²

Artikulu horretan erabat gutxietsi zuen altxaldiekin gertatu zena, altxaldiek konpainia «bat edo beste» baizik ez zituztela hunki idatziz, eta gainera «apur bat». Saint-Pierren ustez ez zen deus gertatu, edo zinez gutxi, eta gainerakoa zurrumuruak izan ziren. Guy Pedroncinik ez du uste hain konpainia gutxi hunkitu zutenik. Haren ustez, Frantziako armadaren bi herenak hunkiak izan ziren, baina dibisioen %10 baino gutxiago ziren altxaldiek zinez inarrosi zituztenak¹⁷²³. Beraz Saint-Pierre ez zebilen zuzen, altxaldiak hainbeste gutxiestean. Hala ere, Craonnera itzultzea ez zitzaizela «laket» zehaztean, altxaldien abiapuntua kontatzen ari zen, nahiz eta berak ez zuen hori altxaldiak justifikatzeko erran. Are gehiago, altxaldiak gutxiesteko modu gordina erabili zuen, mozkor batzuen kontua zela idatziz eta mozkortzearen bizkar ezarriz. Ondoko astean, ordea, garrantzi handiagoa eskaini zion gaiari, bere kronikaren zati aski handi batean barnatu baitzuen:

Duela hilabete bat iragan da sukar bolta bat Frantzia guzian barna.

¹⁷²¹ Jean Elizalde, «Biba Eskualdunak», *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 6a.

¹⁷²² Jean Saint-Pierre, «Ekhaineko guduak», *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 13a.

¹⁷²³ Pedroncini, *Les mutineries de l'armée française*, 64–65.

Iduri zuen bihotzak eri zirela, erortzera zohazila, edo asaldura zerbeiti buruz. Soldadoen artean ere kutsua hedatu zuen hein batean sukar horrek; jin bezala gure begiz ikusi dugu erortzen haize tzar kolpe baten pare.

Erroak bazituen nunbeit gaitz horrek. Lehen lehenik ez da mirakulu gerlaren iraute luzeak bihotzak hausten baititu han hemenka; oro ilhuntzen, batzu nahasten. Ez dugu guk soldadoen eta bertzen lan dorpea den baino tipiago eginen: gerla hau izigarria da.

Bainan barneko ilhundura hori balinbada delako sukar harren ohantzea, nola da han piztu, hazi eta hedatu? Zertako ez lehenago? Zertako ez borthizkiago?

Lehen zinkurinak agertu ziren apherilaren ondarreko guduen ondotik. Zerbeit egin ginuen bainan ez aski, dena ere sobera pagatu. Soldadoari zernahi hitzeman bertzalde bainan funtsean artha guti hartu haren onaz.

[...] Holakoetan etsaiak sudurra sartzen du laster saltsaren nahasteko: gezurra gezurraren ondotik ibili zen zoko guzietan etsaiaren sustenguarekin.

Harritia nago gezurrak zer hegalak dituen, ta zer indarra jendearen titulikatzeke.¹⁷²⁴

Nahiz eta artikulua horretan aitzineko astekoan baino leku gehiago eman gaiari, gertakari haren hedadura txikitzeke ahalegina egin zuen. Sukarrarekin konparatu zituen altxaldiak, eta epe laburrean gauzak egoera normalera itzuli zirela azpimarratu zuen gero. Azalpen bakar batzuk eman zituen, hala nola soldaduei ez zitzaizela hitzeman eman eta egin zutena «sobera pagatu» zutela, hala nola Andereen Bidean lortu zutenaren arabera, sobera hil ukan zutela. Funtsean, horretan zegoen altxaldien muina, baina Saint-Pierrek biziki gainetik eta azaletik baizik ez zuen esplikatu. Gerla anitz luzatzearen arrazoiak ere eman zuen, soldaduen frustrazioa edo nekea gisa batez justifikatzeko. Nonbait, altxatu ziren soldaduei barkatzeko arrazoiak bilatzen zituela dirudi. Hots, soldaduen jarrera ez zuen kritikatu. Saint-Pierren jarrera bestelakoa zen: gertakariari pisua kendu nahi zion, Frantziako armadan krisi handirik izan zela ukatu nahi zuen. Gauza bera egin zuen, labur-labur, hilabete batzuen buruan, Italiako armadan antzeko istiluak gertatu zirenean. Orduan ere, «sukar» hitza erabili zuen, altxaldiak eritasunak balira bezala, eta gogorarazi zuen Frantzian ere halako zerbait gertatu zela.

Azken egun hautan Italiak jasan du bere sukhar aldia, guk bezala; folsua nahasia zuen, bihotz asko ahulduak: orenaz alemana baliatu.¹⁷²⁵

Altxaldiak epe laburrean sendatu ziren eritasun gisa aurkeztuz, azalpen gutxi emanez eta xehetasunak ez kontatuz, haien kontra mintzatu beharrean, ia deus gertatu ez balitz bezala mintzatu zen. Baina, funtsean, xehetasunetan ez bazen sartu ere, altxaldien arrazoiak ematerakoan, aski zuzen zebilen, Guy Pedroncini, Stéphane Audoin-Rouzeau, Annette

¹⁷²⁴ Jean Saint-Pierre, «Soldadoen gogo», *Esnealduna*, 1917ko uztailearen 20a.

¹⁷²⁵ Saint-Pierre, «Italian». 1917/11/23.

Becker eta Charles-Henri Taufflieben arabera. Hauek diote altxaldietan parte hartu zuten soldaduen gehiengo handia ez zela arrazoi politikoengatik – bakearen aldeko mugimendua edo Errusiako Iraultza – sartu mugimendu hartan, baizik eta gerlako baldintzen kontra protestatzeko¹⁷²⁶. Baina euskaldunak ez zituzten mugimendu horretako partaide gisa aurkeztu; ez beharrik ere, funtsean, Rocaforten arabera¹⁷²⁷ eta baita Pedronciniren liburua¹⁷²⁸ irakurri ondoan ere, ageri baitzen Euskal Herrikoek ez zutela parte hartu.

Eskualduna-k euskal soldaduen itxura zehatz bat eman nahi izan zuen. Astekariaren azalpen eta deskribapenen arabera, euskaldunak arras motibaturik joan ziren gerla egitera, eta motibazio berarekin segitu zuten gerlan. Gerla luzatzearekin eta baldintza gogor haietan hainbat soldaduren baitan etsipena zabaltzen bazen ere, euskaldunak ez zirela etsitzen zuten haietarik azpimarratu zuten *Eskualduna*-ko idazleek. Desertoreak aipatzean ere, eta nahiz eta euskaldunen artean desertore anitz izan, astekariak zabaldu nahi zuen mezua zen euskaldun gehienak ez zirela gerlari uko egiten zutenak. Bide batetik edo bestetik, euskaldunek gerla hartan jarrera baikorra erakutsi zutela erranez pozten zen *Eskualduna*. Gerla hartan inplikatur, zein frantses onak ziren ohartarazi zuen, alabaina, frantses gisa ari baitziren gerla egiten, aitzineko zatian zehaztu dugun bezala.

C. Engaiamendu abertzaletik gizakoiera

Euskaldunen Frantziarekiko atxikimenduaren agerraldi horiek aipatzean, ñabardura bat egin behar dugu. Oro har, ikerlari guztiak ez datoz bat, ea soldaduek gerlan izan zuten motibazioa abertzaletasunak (Frantziaren edo Alemaniaren aldekoak, adibidez) bultzatu zuen ala beste arrazoirik izan ote zen erraterakoan. Aitzineko bi atalak irakurririk, badirudi *Eskualduna*-ren arabera ez zela dudarik, eta euskaldunek beren eginbeharra bete zutela Frantziaren baitan guztiz sinetsirik eta haren alde bizia emateko prest izanez. Baina orain ikusiko dugun bezala, hainbat historialariren arabera, gauzak ez ziren hain sinple, eta motibazioaren edo iraupenaren azalpenak beste alde batzuetan ere bilatu behar dira. Eta hor sartzen da, bereziki, engaiamenduaren alde gizakoa; izan ohituraren hartzea, izan giza

¹⁷²⁶ Audoin-Rouzeau eta Becker, «Violence et consentement: la «culture de guerre» du premier conflit mondial», 264; Pedroncini, *Les mutineries de l'armée française*, 65; Charles-Henri Taufflieb, «Les mutineries de 1917: l'exemple du 37^e corps d'armée», *Guerres mondiales et conflits contemporains* 182 (1996ko apirila): 137.

¹⁷²⁷ Rocafort, *Avant oublié: soldats et civils de la côte basque durant la grande guerre*.

¹⁷²⁸ Pedroncini, *Les mutineries de l'armée française*.

faktore orokor batzuk. Ikusiko dugu ea delako faktore horiek isla bazuten *Eskualduna* astekarian ala ez.

I. Engaiamendutik ohiturara

Soldaduak, gerla laster irabaziko zutela pentsatuz, hastapenean franko engaiatuak izan bazitezkeen ere, denbora luzatu ahala, gerlan irauteko beste arrazoi batzuk agertu ziren. Protestak ere baziren, eta ikusiko dugu *Eskualduna*-n nola islatu ziren zenbait kexa, eta horren gainetik hala ere nola obeditzen zuten. Abertzaletasunaren faktoreaz gain, diziplinaren faktorea bazela ere ikusiko dugu. Azkenik gerlara ohitze bat gertatu zela eta hori nola islatu zen ere aztertuko dugu.

a) Kexu, baina obeditzen

Altxaldiak protesta mota bat izan ziren, eta gisa hartan aipatu zituen *Eskualduna*-k, azaletik bazen ere. Soldaduak kexatzen zirela idatzi zuten beste batzuetan ere, zehaztu gabe euskaldunez ala frantsesez ari ziren, batzuetan denak zaku berean sartzen baitzituzten. Soldadu frantsesek kexatzeko joera bazutela idatzi zuen behin Blaise Adémak, baina kexatze horri garrantzia kendu zion, zehaztuz frantsesek aise protestatzen zutela, baina ardurak hartu behar ziren unean eta obeditu behar zenean, kexuak ahanzten zituztela eta soldadu bikain agertzen zirela:

Beren erreka ziloetan elgarrekin mintzo direlarik, erranen dautzute ez direla biziaren galtzeko menean eman nahi; aski dutela aitzindariak berek joatea, behar badute. Eta manatua bazaiote etsaiari oldartzea, zalu beren ziloetarik jauzi egiten dute; ezin atchikiak dire. Aitzindariak lan gehiago dute heien atchikitzen hein onean, heien sustatzen baino. Harrigarriak dire.

Soldado frantsesa hola izan da betitik, eta hola da behinere baino gehiago: mihiz ez hanbatekoa, bainan gogoz eta bihotzez ezin hobea.[...] Soldado frantsesak, nahi bezenbat pairaturikan ere ala gudu batean ala erreka ziloetan, bere pairamen guziak berehala ahanzten ditu, gibelchago deskantsatzerat egortzen dutelarik... bereziki zerbeit diru balin badu sakelan.¹⁷²⁹

Soldaduak beti marmarka ari zirela edo kexu zirela aipatu zuen artikuluko horretan. Baina kexu horren gainetik, obeditu behar zenean berehala diziplinaz eta motibazioz erantzuten zutela gehitu zuen. Nonbait, arintasun batez aipatu zuen soldaduak «ezin atxikiak» zirela, haien diziplina edertu nahiz bezala, gogoz kontra ari zirelako solasak baliogabetu nahiz bezala.

¹⁷²⁹ Blaise Adéma, «Soldadoa», *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 12a.

Kexu ez agerturik ere, batzuetan kezka handiaren erdian bizi zirela ere ulertarazi zuten astekarian. Blaise Adémak aipatu zuen nola atsegin handia zen soldaduentzat gudu bortitz batetik bizirik atera zirela jakinaraztea, baina baita kezka iturri biharamunean berriz bizia arriskuan ezarriko zutela ohartzea:

Bertzeek izkribatzen daukute nola atera diren ifernu hortarik, eta heien atsegina handia da ikusteaz eta gaztiatzeaz bizi direla oraino. Bainan atsegin horren erditik orhoitzen dire biharamunaz; ezen badakite lan bat gaitza badutela oraino egin beharra. Eta ez da harritzeko lan horrek lotsatzen baditu guti edo aski. Egun bizirik atera badire, ez dezakete erran bihar berdin ateratuko direla.¹⁷³⁰

Baina kezka horren gainetik, Euskal Herriko soldaduak beti prest zirela erakutsi nahi zuen Adémak, gainerako idazleek bezala. Euskaldunak motibatuak, engaiatuak eta diziplinatuak zirela erakutsi nahi zuen astekariak. Kexuen gainetik edo kezkek bazterturik, gerlan aitzina segituko zutela azpimarratzen zuten. Horren adibide, Euskal Herriko soldaduen balentriak goraiatzen zituztela. Ondoko artikulua hau J.P. inizialak zituen soldadu batena zen, Aisnes eskualdetik Verduneko gudura joan zirela kontatu zuen, eta euskaldun batzuen lana txalotu zuen:

Gure jaun gomendant Dibar luhosoarrak, nahiz bere adin handiaren gatik nekatua eta pisatua den, etzuen boza galdua, ez eta ere errumatismarik senditzen. Uste nuke Alemanek egundaino ez dutela halako oihurik aditu Verduneko eskualdean.

Ez du gutiago merezi ohoratua eta goretsia izatea gure jaun mediku eskualdun, biphil eta kuraiosak.

Miresgarri izatu da, Henri Heugas mauleko auzaphezaren semea, gudu izigarri hortan. Zenbatek ez diote bizia zor izanen, hura eta haren laguna direlakotz agertu, beren buruaz artharik hartu gabe, irrisku guzien erdian, soldado kolpatuen sustengatzerat.

Segur naiz, egun laburrik barnean jaun horiek oro izanen direla, bertze asko eta askorekin, ohorezki saristatuak, merezi duten bezala.¹⁷³¹

Egoera arriskutsuen gainetik, euskaldunak zein kementsuak ziren erakutsiz, gerlan zein seriozki inplikatzeko ziren azpimarratu zuen soldadu horrek. Artikulu horretan ez zen ageri kexatzearen edo protestatzearen ideiarik, baina jarrera arduratsuarena bai. Beste batean, Jean Etxepare zen erne egoteko deia egin zuena:

Gauden atzar. Inguruetako herrietan ez dezagun onets, zer gertha, egoiliarrik. Gure hiru mailen gibelean, izan bedite kanoiak usuchago. Amerikanoak orai beretik, direnak oro eta jin arau bidean direnak, jar ditela lerroan, lauzkako. Airezkariak beren aldetik jarraik ditela hain garrazki deramaten lanari. Geroa gure dugu.¹⁷³²

Jean Etxeparek gutun horretan azaldu zuen Euskal Herriko soldaduak Craonne ingurua utzi zutela eta Amiens aldera joan zirela. Alemanek, isilka, lanbro gau batez, aire

¹⁷³⁰ Blaise Adéma, «Eskualdunak», *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 1a.

¹⁷³¹ J.P., «Verdun», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 2a.

¹⁷³² Etxepare, «Ukhaldi berria». 1918/6/14.

pozoitua bota zutela eta ingelesak gibelka joan zirela idatzi zuen. Ondorioz alemanak anitz aitzinatu zirela Soissons eta Reims artean gehitu zuen, baina aliatuek irabaziko zutela segurtatu zuen. Baina segurtamen horrekin, «gauden atzar» gisako hitzekin eta paragrafo horrekin guztiaren, leial eta trebe egoten jarraitzeko deia egin zuen. Ez zuen garbiki obeditzearen kontzeptua aipatu, baina egoera zailen gainetik – eta hau beste egoera zail mota bat zen, gorago aipatu etsipen eta protestez gainera – tinko segitzeko eskatu zuen.

Orain arte landu ditugun atal guztietan eta ikusi ditugun adibideetan, gerla lekutik idazten zutenek obeditzen zutela ageri zen; gorabehera guztien gainetik beti gerlan engaiatzeko prest ageri ziren. Baionatik idazten zutenek ere Euskal Herriko soldaduen itxura hori ematen zuten. Taldean obeditzeko joera hori eskolan eta zerbitzu militarrean bildu zutela diote Nicolas Mariotek eta François Cochetek¹⁷³³. Cochetek zehaztu du eskolan eta zerbitzu militarrek hasi akulturazio prozesua ez zela osoa, eta behartzeari ihes egiteko bideak bazituztela, mozkortzea adibidez:

Le service militaire participe, au même titre que l'école, à une entreprise d'acculturation. Il s'agit de remplacer les comportements individuels de chacun des jeunes Français, par une culture de groupe faite toute entière d'obéissance et de discipline. Dans le même temps, et tout comme pour l'école également, l'acculturation est forcément incomplète. Des formes de contournement, plus que de refus, de l'institution existent. Ces comportements alimentent les archives militaires sous la forme des multirécidivistes de la salle de police, punis à de nombreuses reprises pour leurs actes d'insubordination. L'ivresse constitue également une forme de contournement de la contrainte que l'on va retrouver totalement dans les tranchées.¹⁷³⁴

Alkohola beste atal batean landu dugu, baina ikusi dugu euskaldunen artean ere bazirela mozkortzen zirenak. Obeditze behar horretatik pixka bat urruntzeko moduetariko bat zen. *Eskualduna*-koek ez zuten mozkortzea txalotzen, baina ez zuten gogor kritikatzeko ere, lehen ikusi dugun bezala. Funtsean, ihesbide horiek guztiek ez zutela behar zen mementoan obeditzeko gaitasuna histen erakutsi zuen beti euskarazko astekariak.

Haatik, gerla hartan obeditzea ez zen gerla aitzineko hezkuntzan bakarrik oinarritzen André Bachen arabera¹⁷³⁵. Gerla hastapenetik neurri zorrotzak hartu zituzten soldaduak obeditzera behartzeko. Justizia militarra indarrean jarri zuten, obeditzen ez zutenak gogor zigortzeko:

¹⁷³³ Mariot, «Faut-il être motivé pour tuer? Sur quelques explications aux violences de guerre»; Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 46.

¹⁷³⁴ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 46.

¹⁷³⁵ Bach, *Fusillés pour l'exemple: 1914-1915*, 210, 234.

Il s'agit de la mise en place d'un système de terrorisation institué par l'autorité légale, qui prévient que la justice sera impitoyable et que le pouvoir représentant la volonté nationale se refusera désormais à intervenir et à vérifier le bien-fondé des décisions prises par la justice militaire.¹⁷³⁶

Eskualduna astekariak ez zuen horrelako justizia militar baten berririk eman, ez eta ere soldaduen beldurtzeko asmoen berririk. Astekaria irakurriz, ez zuen iduri soldaduen diziplina eta obeditzea arau gogorrek beharturik gertatu zela. Horrek ez du erran nahi *Eskualduna*-k horrelakorik ez zuelako aipatzen, ez zenik gertatzen. Baina astekariak ematen zuen itxura zen soldaduek bihotz onez obeditzen zutela, nahiz eta batzuetan kexatu. François Cochetek ongi laburbiltzen du *Eskualduna*-k ematen zuen irudia:

Une certaine culture démocratique existe également chez le soldat français, surtout depuis 1870. Elle est construite sur le consentement à donner quelques années de sa vie pour la patrie. Elle l'amène le plus concrètement du monde, à «rouspéter» fréquemment, mais à obéir quand même. C'est une thématique que l'on retrouve constamment dans les tranchées.¹⁷³⁷

Kexatzen zirenen artetik euskaldunak zenbat ziren jakitea ez da beti erraza *Eskualduna* irakurriz. Baina orain arte ikusi dugun bezala, dena ez zuten modu baikorreen kontatzen, bereziki lubakietako egoera. Baina beti prest ageri ziren obeditzeko. Hori ere, azken batean, Frantziarekin leial egoteko bide bat zen.

b) Abertzaletasuna eta diziplina

Oraintxe ikusi dugu euskaldunek obeditzen zutela, protesten gainetik eskatzen zitzaiena egiten zutela, hori zela, bederen, *Eskualduna*-k eman zuen mezua. Lehenago ikusi dugu astekari hori bera Frantziarekiko identifikatzen zela eta Frantziarekin bat egiten zuela gerla horretan. Beraz frantses abertzaletasun bat sendi zen. Hortik ondoriozta ote daiteke Péronneko taldeak dioen onespén edo «consentement» delakoa zela *Eskualduna*-koen begietan gertatzen zena? Hots, euskaldunek berek onarturik egiten ote zuten gerla? Rémy Cazals Péronne taldearen kontra doan teoriaren sustatzailea da. Hark dio ez zela «onespenik» izan, baizik eta «behartzea», hala nola «contrainte» delakoa. Ez da mintzo euskalduneez bereziki. Baina bere azterketaren arabera, euskaldunak ere hor sar daitezke. Onespén izateko, hautua behar zela dio Cazalsek¹⁷³⁸, hots, ezetz edo baietz errateko hautua utzi behar zela. Argi da gerla hartan ez zela hauturik, denek joan behar zutela gerlaren egitera. Horregatik dio soldaduen «onespenaz» baino gehiago mintzatu behar dela «obeditzeaz». Orain arte ikusi dugun bezala, euskaldunek obeditu zuten. Obeditzea ez zen

¹⁷³⁶ Ibid.

¹⁷³⁷ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 48.

¹⁷³⁸ Cazals eta Rousseau, *14-18, le cri d'une génération*, 143.

gogo onez onestea, baina orain arte aipatu ditugun adibide horietan ez dugu ikusi gogoz kontrako obeditzearen arrastorik. Hori ere aitortu behar da.

Stéphane Audoin-Rouzeau «onespenaren» teoriaren bultzatzaileetako bat da. Soldaduek Frantziarengan zuten abertzaletasuna ez zela ahuldu azpimarratu du. 1914ko agorrilean sentitu zen oldar abertzale hura desagertzen joan balitz, soldaduen egunerokoetan nabarituko zela dio; baina soldaduen egunerokoak aztertu dituen ikerlari honek ukatu du abertzaletasunaren agerraldiak ahuldu zirenik, 1918ko udaberrian salbu, eta beraz soldaduek abertzale izaten segitu zutela baieztatu du¹⁷³⁹. Jean-Jacques Beckerren eta Stéphane Audoin-Rouzearen ustez, gerla egitea onartzea frantses nazioan inplikatzearren froga zen:

*[...] Investissement des Français de 1914-1918 sur leur nation. C'est leur sentiment, si fortement intériorisé, qu'ils avaient à la défendre, quel qu'en puisse être le coût.*¹⁷⁴⁰

Urtez urteko *Eskualduna*-ko artikuluak irakurriz ere ez dugu ikusi Frantziarenganako atxikimenduaren adierazpena desagertu edo ahuldu zenik.

Bruno Cabanes erdibide batera heldu da. Haren ustez onespenak ez du erran nahi soldaduek bozkarioz egin zutenik gerla. Baina gerlan engaiatu ziren hainbat arrazoi nahasi zirelako, gudian galdu lagunak mendekatzeko edota beren familia hartzen zuen lur nazionala defendatzeko gogoa:

*Un mélange de volonté de vengeance des camarades morts au combat, de haine de l'ennemi et d'investissement personnel dans la défense du sol national, de sa famille, de son foyer.*¹⁷⁴¹

Hots, Audoin-Rouzearen eta Cazalsen teoriaren arteko hautsi-mautsi bat proposatu du Cabanesek: gerla egitea ez zen onespen edo borondate hutsa, ez eta ere behartze hutsa. Orain arte aztertu ditugun *Eskualduna*-ko zatietan ere horrelako zerbait nabari da. Idazleek bazituzten garai batzuk baikor eta gerlarako prest agertzen zirenak edo Euskal Herriko soldaduen kemena goraiatzeko zutenak. Beste batzuetan, une gogorak jasan ondoan edo lasaitasun unetik gerla bizira itzuli behar zirenean, gerlaz ez zuten halako baikortasunik erakusten; bai ordea betebeharraren kontzientzia eta beren eginkizunari ez ziotela uko egingen azpimarratzea.

Sophie Branca-Rousofek beste giltza bat ematen du *Eskualduna*-koen jarrera ulertzeko. Hain zuzen, soldaduei ez zitzaion aberria maitatzea bakarrik eskatzen, baizik eta diziplina ere maitatzea:

¹⁷³⁹ Audoin-Rouzeau, *A travers leurs journaux: 14-18, les combattants des tranchées*, 203.

¹⁷⁴⁰ Becker eta Audoin-Rouzeau, *La France, la nation, la guerre: 1850-1920*, 335.

¹⁷⁴¹ Cabanes, «Héroïsme et barbarie. Le tournant de 1914-1918».

*Le discours officiel, celui de l'école, par exemple, apprend au soldat la beauté de l'obéissance et la nécessité d'un commandement : dans Francinet. Ouvrage de lecture des années 1870, M. Edmont explique que «la première vertu du soldat après l'amour de la patrie et le respect des lois, c'est l'amour de la discipline. Une armée indisciplinée peut causer la ruine de la patrie. [...] Il faut vous soumettre avec un entier dévouement à tous les règlements militaires».*¹⁷⁴²

Eskualduma-ko idazleak biziki diziplinatuak ageri ziren armadari begira, eta euskaldunak berak ere hala zirela erakutsi nahi izan zuten, desertoreak gutxi baizik ez zirela azpimarratuz bezala. Frantziako Aberriaren aldeko atxikimendua ere erakusten zuten, ikusi dugun bezala. Eskatzen zitzaien gisan, beraz, Frantzia eta diziplina maitatu zituzten. Gainera, diziplinarekiko atxikimendu edo errespetu hori giristino gisa ere bazuten. Eugen Weberrek dio Action Française mugimenduan autoritatearen, hierarkiaren eta diziplinaren aldeko joera zegoela¹⁷⁴³, eta beraz gerlan ere joera hori izanik, mugimendu hartako jendeak jadanik bere eginak zituen balioak aurkitu zituen gerlan. Lan honen lehen zatian aipatu dugu *Eskualduma* astekaria zein hurbil zegoen Action Française mugimendutik. Astekari giristino horrek diziplinari garrantzia ematen zion beste gisan ere, eta, beraz, normal da gerlan ere berdin egin zezan.

Are gehiago, laborariak lurraren eta aroaren baldintza gogorretara ohituak zirela eta beraz gerlako egoera gogorrak jasateko prestago zirela dio Jacques Meyerrek:

*Le paysan, élevé à la dure école de la terre et de ses caprices, résigné de longue date aux privilèges porté à l'acceptation de l'inévitable, était en général moins enclin à "rouspeter", encore moins à se révolter.*¹⁷⁴⁴

Eskualduma barnealdean saltzen zen bereziki, eta idazten zutenak ere laborantza munduan hazi ziren. Gerla egin zuten euskaldun gehienak ere laborariak ziren. Beren bizitzan baldintza gogorretara ohituak izanik, gerlako beharretara egokitzea aiseago onartu zutela pentsa daiteke, Meyerren baieztapen hori irakurri ondoan. Euskaldunek, laborariak eta giristinoak izanik, aise obeditzen zuten, horretara ohituak zirelako. Horrek ez du baitezpada erran nahi borondate onez eta onespenez egiten zutenik gerla, baina *Eskualduma*-k hori ematen zuen aditzera.

Laborariak gerlan diziplinatuak izateaz gain, gerla egitea Frantziako «nazioan integratzeko» modua izan zen Georges Duby eta Armand Wallonen arabera:

*L'énorme aventure nationale de 1914-1918 a été pour une large part déterminée par cette intégration des paysans à la Nation, intégration que 1789 a voulue, dont tout le XIXe siècle a vu les péripéties et les peines, et que la République de Ferry et de Gambetta a eu l'honneur et le mérite de mener à bien.*¹⁷⁴⁵

¹⁷⁴² Branca-Rosoff, «Conventions d'écriture dans la correspondance des soldats».

¹⁷⁴³ Weber, *L'Action française*, 33.

¹⁷⁴⁴ Meyer, *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*, 28.

Honen arabera, gerla Frantziako nazio eraikuntzaren eta baserritarrak frantses nazioaren parte sentitzearen gailurra izan zen. Euskaldunentzat ere berdin erran daiteke, *Eskualduna* irakurriz. Beren jarrera diziplinatuarekin, Frantziarekin bat egiten ari ziren. Eta gerlan armada hain sendoa izateak ere eragina izan zuen Frantziako nazioaren gorpuztean edo trinkotzean, Jean-Jacques Beckerren arabera:

*Plus peut-être que certains aspects quelquefois artificiels de l'union sacrée, la solidité de l'armée a été le révélateur de la robustesse de la communauté nationale. Elle n'a pas été le résultat d'une sorte d'embrigadement momentané des esprits, d'une sorte d'intoxication par la propagande, elle a été tout simplement le résultat d'une profonde maturation de ce sentiment national au cours des âges, et ce fut peut-être la plus grande surprise de cette guerre que ce peuple si désuni en apparence, ait été si profondément solidaire dans l'épreuve.*¹⁷⁴⁶

Honen arabera, gerlak eragin zuen Frantziako «herri» sakabanatuaren batzea. Euskal Herriko soldaduak bete-betean inplikatu ziren gerlan, obeditzeko joera eta jarrera diziplinatuak zituztelako. *Eskualduna*-ko idazleek, horren gainera, Frantziarekiko batasuna aldarrikatzen zuten. Dena uztarturik, frantses abertzaletasuna eta diziplina, euskaldunak frantsesteko bidean garrantzi handiko gertakaria izan zen gerla, eta *Eskualduna* joko horretan sartu zen.

c) Ohitura hartzea

Ikerlari batzuek, diziplinaz eta abertzaletasunaz gain, beste arrazoirik ere aurkitu dute soldaduek gerlan segitzea azaltzeko. Marc Ferrok nabarmendu bezala, Frantziak ordu arte ez zuen ezagutu hain gerla luzerik¹⁷⁴⁷. Posible dea, beraz, hainbeste denboraz borondate onez eta politikoz soilik jartzea bizia arriskuan eta halako egoera gogorrak onartzea? Onespeneren teoria defendatzen duen Stéphane Audoin-Rouzeauk ñabardura batzuk aipatu ditu, hala nola soldaduen testuetan ez dela beti ageri abertzaletasuna edo betebeharez jokatzeko. Soldadu batzuk borrokatzen ziren, ez zezaketelako «bestela egin»:

*Si le soldat a tenu, écrit par exemple Louis Mairet dans ses souvenirs, c'est qu'il se bat par honnêteté, par habitude et par force. Il se bat parce qu'il ne peut pas faire autrement». Cette image assez noire des combattants, aux raisons de tenir purement négatives, et dépourvus par ailleurs de toute hostilité véritable envers l'ennemi, telle est la version qui se dégage souvent de la littérature combattante.*¹⁷⁴⁸

Ez zezaketela bestela egin, horixe idatzi zuen Louis Mairet izeneko soldadu hark. François Cochetek egoera modu gordinagoan aipatu du. Gerla biziki bortitza izaten ari zela

¹⁷⁴⁵ DUBY eta WALLON, *Histoire de la France rurale. Apogée et crise de la civilisation paysanne: 1789-1914*, 3:545.

¹⁷⁴⁶ BECKER, *La France en guerre 1914-1918. La grande mutation*, 43.

¹⁷⁴⁷ FERRO, *La Grande Guerre*, 24.

¹⁷⁴⁸ AUDOIN-ROUZEAU, *A travers leurs journaux: 14-18, les combattants des tranchées*, 190.

berehala ulertu zuten soldaduek, Cocheten arabera, eta egoera hartan, hiltzeko arrisku etengabearen erdian, soldaduek iraun egin behar zuten:

Les combats d'août à novembre 1914 révèlent l'échec de toutes les convictions que les soldats ont intériorisées, en tant que citoyens. L'héroïsme des scènes de batailles de 1870 ne résiste pas à la puissance létale des armes de 1914. Les comportements évoluent alors vers des réflexes de survie individuelle ou au sein du groupe restreint, vers plus d'animalité et moins d'héroïsme.¹⁷⁴⁹

Hots, Cochetek heroismoa baino gehiago ikusi zuen abere izaera, iraun beharra. Jean-Jacques Beckerrek ez du uste soldaduak beti abertzaletasunez jokatu zirenik. Soldaduen heroismoaz eta abertzaletasunaz idazten zen testu anitz propaganda hutsa zela dio, eta soldaduek berek halako mezuak idazten zituztela jendeak haiengandik irakurri nahi zuena hori zelako:

Pendant la guerre elle-même la réponse à cette question fut souvent engloutie dans le «bourrage de crâne», et dans la description quelquefois ridicule, à force d'excès, d'un héroïsme permanent. A l'usage de l'arrière, cette littérature, souvent consternante, ne risquait pas de tromper les soldats qui, eux, vivaient la guerre, encore qu'il leur arrivait de participer au «bourrage de crâne», ne serait-ce que pour dire ce qu'on attendait qu'ils disent. Ils n'étaient pas d'ailleurs insensibles à l'héroïsme de certains moments.

Après la guerre on eut tendance par réaction à noyer le problème d'une autre façon: si l'on concédait qu'au début le soldat avait agi par patriotisme, rapidement il serait devenu un soldat par habitude. On était soldat comme on était cantonnier en quelque sorte, et pour les quelques-uns qui auraient voulu échapper à leur «devoir», il y avait les conseils de guerre ...¹⁷⁵⁰

Beckerren ustez, beraz, soldaduak «ohitu» ziren gerlara, eta gerla «ohituraz» egiten zuten, ez borondatez. Baina hori gerla bukatu ondoan agertu zela dio. *Eskualduna* astekaria gerla denboran idatzia zen, beraz astekari horretan idatzi zutenek gerla bukatu ondoan zein jarrera zuten ikusi behar litzateke, baina hori beste ikerlan baterako gaia da. Beckerrek diolarik hainbat aldiz soldaduek haiengandik espero zena idazten zutela, hori egiten ote zuten Saint-Pierrek, *Zerbitzari*-k eta Etxeparek? Hiru horiek fede onez ala fede txarrez ari ziren argitzea interesgarria litzateke, baina orain arte aztertu ditugun testuen arabera, ez dirudi fede txarrez ari zirenik, eta idatzi behar zutena idazten zutenik bakarrik. Baina ohiturazko soldadu bihurtuak zirelako zantzuak baziren. *Zerbitzari*-k, adibidez, ia kronika guztietan aipatzen zuen eguraldia, egoera beti bertsua zela eta hori. Kronikak ez ziren biziki desberdinak batetik bestera, gehienetan. Beti ziren hegazkinen gorabeherak, pareko lubakietatik zetozen kanoikadak edo tiroak, arratoiak, zorriak eta abar. Edo beste egoera batean, atsedean uneetan, janaria, kirola eta josteta, kantua, meza. Lau urteko kronika haiek

¹⁷⁴⁹ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 74.

¹⁷⁵⁰ Becker, *La France en guerre 1914-1918. La grande mutation*, 40.

guztiak errutina zerbait transmititzen zuten, borroka handi batzuen kontakizuna kenduta. Beraz, bai, ohitura hartzearen isla izan ziren kronika haiek guztiak, ikuspegi orokor batetik hartzen baditugu. Baina *Eskualduna*-ren kasuan, ohituraren agerraldia bazela errateak ez du kentzen frantses abertzaletasunaren agerraldiak ere garrantzia zuela.

2. Giza faktoreak

Ohartuko gara euskaldunentzat ere garrantzia zuten beste faktore batzuek ere eragin zutela gerlan aiseago irautea, engaiamendu politikoarekin loturarik ez zuten beste faktore batzuek. Alde batetik ikusiko dugu nola agertzen zen talde izaeraren garrantzia *Eskualduna*-n, eta bestetik, gizentasunaren ideia. Bi horiek ere elementu garrantzitsuak izan ziren gerlan irautean, eta interesgarria da ikustea euskaldunen ikuspegitik ere hala izan zela. Bururatzeko, euskaldunen baitan, langile izaeraren eta soldadu izaeraren arteko lotura begiratuko dugu.

a) Talde izaera

Gerla egitea edo gerlan irautea onartzeko beste faktore batzuk ere baziren, eta horietarik bat, garrantzia zuena, talde izaera zen. Frédéric Rousseuren arabera, gerlako lagun bakoitzak zeukan besteengan eragina, besteak beste lagunen arteko elkartasunak zein talde giroak, horri esker irauten zutelako:

En réalité, si les soldats parviennent à surmonter la peur handicapante, s'ils réussissent le plus souvent à la maîtriser, ceci est non seulement dû à l'emprise d'un cadre institutionnel mais aussi à la pression du groupe, à la pression morale exercée sur chaque individu par ses camarades. Le courage du combattant puise sa source dans l'esprit de corps, la solidarité, la camaraderie. Mais la présence de ses frères d'armes ne fait pas que stimuler le combattant, elle l'oblige surtout à tenir son rôle; à remplir son devoir.¹⁷⁵¹

Hots, taldearen parte izateak eta lagunen arteko elkartasunak garrantzia handia zeukaten, abertzaletasunak berak baino handiagoa. Gauza bertsua dio François Cochetek ere¹⁷⁵², bereziki hierarkia mailan hurbilen zuten agintariarekiko leialtasuna izan zela. Gerla egitearen onarpena arrazoi politiko orokorragoekin baino gehiago lotu zuen hurbileko agintariak emandako aginduen onartzearekin.

Mario Isnenghik ere azpimarratu du taldearen izaera. Haren arabera, soldaduek etsipen handiagoarekin itzultzen ziren permissionetik, eri faltsuak, aberats semeak,

¹⁷⁵¹ Rousseau, *La guerre censurée. Une histoire des combattants européens de 14-18*, 109.

¹⁷⁵² Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 163.

erreboltariak edota egunkari satirikoak ikusten baitzituzten. Hori ez zuten gustuko; beraz, haien familia fronteko jendea zen, eta elkarrenganako elkartasun handi batek atxikitzen zituen¹⁷⁵³.

Talde giro horrek bazuen isla *Eskualduna* astekarian ere. Kasu horretan, taldea euskal komunitatea zen. Behin, Jean Saint-Pierrek azpimarratu zuen ehun bat euskaldun elkartu zirela Eguberriko mezan¹⁷⁵⁴. Horren zehazteak berak ez zion hainbesteko erreferentzia egiten talde izaerari gerla egiterakoan, baina meza hartan hainbeste euskaldun bildu zirela argitzea komunitate horren balioa azpimarratzea zen. Beste artikulua batean, pausalekuan zelarik, euskaldun gehienak gune hartan zirela idatzi zuen Saint-Pierrek. Euskaldun multzo bakoitza non kokatua zen xehekiago aipatu zuen: zaharrenak Arras hiritik gora, beste batzuk Reims eta Soissons artean, beste multzo bat Lorrena eskualdean eta beste batzuk Alsaziako mendietan¹⁷⁵⁵. Andereen Bidearen Hegoaldean, pausalekuetan, Beaurieux eta Maisy herrien inguruan euskaldun anitz bazela idatzi zuen beste behin, zehaztuz *Zerbitzari*, Chiquito pilotaria edota Etxeber apaiza ere inguru haietan zebiltzala¹⁷⁵⁶. Orogen buru, talde giroa edo lagunak – hurbilekoak – ondoan edukitzearen garrantzia transmititu zuen. Inguru haietan berean, Maisy herriaren inguruan, uztail batez alemanek zenbait bombardaketa egin zituztela eta horiek hil anitz eragin zutela kontatu zuen, baina hilen artean ez zegoela euskaldunik zehaztu zuen. Euskal komunitateari ematen zitzaion garrantziaz gain, berriz ere ageri zen taldeari ematen zitzaion atxikimendua¹⁷⁵⁷.

Komunitatea bere zabaltasunean hartzeaz gain, lagunarteko harremanaz ere mintzatu ziren. Behin *Zerbitzari*-k kontatu zuen garindaindar bat eta donibandar bat adiskide egin zirela eta beti elkarrekin egoten zirela¹⁷⁵⁸. Soldaduen artean lagun minak egitearena ez zen ez ohikoa, Rousseauk dioen bezala. Eta adiskidetasun hori ere gerlan irauteko bidea zen:

*Pour le soldat, son régiment, et son unité la plus petite, l'escouade, représentent un foyer de substitution; on y connaît ses chefs, et on est connu d'eux. Et puis surtout, il y a les camarades, le copain, l'inséparable que l'on n'a pas toujours choisi.*¹⁷⁵⁹

Adiskidetasunaren edo talde giroaren erreferentziak baziren *Eskualduna* astekarian, nahiz eta gerlako gaietan ez zen hori leku handiena zuen gaia. Bereziki erran daitekeena da ez zutela adiskidetasunaren edo talde izaeraren gaia aurkezten gerlan irauteko edo gerla

¹⁷⁵³ Isnenghi, *La Première Guerre Mondiale*, 83.

¹⁷⁵⁴ Jean Saint-Pierre, «Eskualdun kantikak», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.

¹⁷⁵⁵ Jean Saint-Pierre, «Deskantsua», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 26a.

¹⁷⁵⁶ Saint-Pierre, «Herriak». 1915/6/25.

¹⁷⁵⁷ Saint-Pierre, «Gure astea». 1915/7/23.

¹⁷⁵⁸ Elizalde, «Bi adichkide». 1916/1/21.

¹⁷⁵⁹ Rousseau, *La guerre censurée. Une histoire des combattants européens de 14-18*, 127.

egitea onartzeko arrazoi gisa. Ageriko arrazoiak lehenago aipatu arrazoi «politikoak» ziren, hala nola Frantzia defendatzearen aldekoak. Hori zen *Eskualduna*-k eman nahi zuen mezua, nahiz eta horrek ez duen berez erran nahi euskaldunek horregatik onartu zutela gerla egitea.

b) Gizontasuna

Talde giroari eta hurbileko aitzindariarekiko leialtasunari loturik, soldaduek heroi eta gizon agertzeko beharrak ere bazuen eraginik gerla egitearen onartzean, François Cocheten arabera¹⁷⁶⁰. Beren inguruko lagunen begiradapean zeuden denbora osoan, eta lagunen aurrean, gizonki jokatzeko zutela erakutsi behar zuten. *Eskualduna* astekariak ere garrantzia ematen zion gizontasunaren alde horri, gerla hasi zen asteko artikuluan batean ageri zen bezala, adibidez:

*Probek lana, lanik gabe edo lan gutiz bizi zirena bere izaite gochoa, orok oro utz eta loth, hala behar denaz geroz, zinkurinarik gabe, gizonki, gerlarako bideari.*¹⁷⁶¹

Esaldi honen arabera, gizon batek ez zezakeen negarrik egin edo ahuleziarik erakutsi. Zinkurinak hurrek egin ohi dituzte, zerbait ez dutenean egin nahi, adibidez. Gizonen artean ez da ohikoa, edo ez agerikoa bederen. Gizonki agertzea haurra izatearen kontrakoa zen, hots, ardurak betetzea erran nahi zuen, ez kexatzea, ez beldurtzea, ausart jokatzeko. *Eskualduna* astekariak gerla egitera joatea onartzeko beste argudio bat eman zuen, Frantzia defendatzeaz gain: gizon gisa jokatu behar zen, eta «gizon» hitza ulertu behar zen zeukan karga guztiarekin, indarrarekin eta ausardiarekin. Italia gerlan sartzekotan zenean ere, gizonki ibiltzearen erreferentzia egin zuen *Eskualduna*-k:

*Jendea gure alde jartzen ari da gero-ta gehiago, ezagun baita nork duen gerla egiten gizonki.*¹⁷⁶²

Kasu honetan, «gizonki» hitzarekin «duintasunez» ere uler daiteke. Dena den, gizontasun balioaren goraiatzeko modu bat zen. Gizontasunaren aldeko jarrera hori biziki ongi uler daiteke, laborantza mundutik begiraturik. André Rauchek dio gizonari laborantzan indartsu izatea eskatzen zitzaioela. Indarrik ez ukaitea eta ez produktiboa izatea desohoragarria zen. Baina erreproduzitzeko gaitasuna ere agertu behar zuen, gizon izateko. Halaber, gaizki ikusia zen ezkongabea izatea, haurrik ez ukaitea edo guti; emazte indartsua ere behar zuen, laborantzako lanak egiteko gaitasuna zuena¹⁷⁶³. Are gehiago, gizonak bizia

¹⁷⁶⁰ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 156.

¹⁷⁶¹ «Biba Eskual-herria!». 1914/8/7.

¹⁷⁶² Saint-Pierre, «Italiaren laguntza». 1915/5/7.

¹⁷⁶³ André Rauch, *Crise de l'identité masculine 1789-1914* (Paris: Hachette-Pluriel, 2000), 125.

arriskuan jarri behar zuen, bai lanean, bai gerlan, heroiko agertzeko¹⁷⁶⁴. Gizontasunaren balio horrek XIX. mendearen bigarren erdian hartu zuen indarra, eta XVIII. mendean baizik ez zen agertu, George L. Mosseren arabera¹⁷⁶⁵. Gizontasunaren irudi hori kristautasunak ere zabaldu zuen, Jainkoak gizonari indar fisikoa eta mentala eman omen zizkiolako, bere burua babes zezan¹⁷⁶⁶. Eta hortik gerla egitera urrats laburra zegoen:

*Chrétiennes, grecques ou les deux, les vertus militaires habitent le stéréotype qui se créa dans une période de guerres et de révolutions. L'héroïsme, la mort et le sacrifice furent associés à la virilité, sans oublier le sens de la discipline, qui avait poussé les militaires à plaider pour l'introduction de la gymnastique à l'école. [...] Des soldats furent conscrits pour une noble cause, et le service militaire devint un apprentissage de la virilité.*¹⁷⁶⁷

Cochetek dio garai hartako usteen arabera lanak egiten zuela laboraria indartsu eta kementsu¹⁷⁶⁸, eta horrela bihurtuko zela armadarako on. Odile Roynettek 1890eko soldaduentzako gida bat aipatu du, eta gida horretan ageri da zer eskatzen zitzairen soldaduei. Laborariak indartsu eta langile on baldin baziren, soldadu on izanen ziren. Hots «ar onetarik soldadu onak ateratzen dira eta neskek soldadu onak dituzte»:

*«Les bons mâles font les bons soldats et les filles aiment les bons soldats ; ceux qui ne peuvent payer l'impôt du sang sont dédaignés par elles», écrit en 1890, E. Coralys. Rien ne saurait être plus clairement exprimé dans la lecture sexuelle du travail physique et du service militaire, même s'il s'agit là d'une représentation élitare à destination des catégories populaires.*¹⁷⁶⁹

Soldaduak gizon kementsu eta indartsu izatera prestatzen zituzten, laborariak bezala. Baina hori ez zen armadan bakarrik gertatzen; Rousseuren arabera, haurtzarotik prestatzen zituzten mutikoak gizon izatera:

*Ainsi tout garçon apprend-il dès son plus jeune âge à réprimer ses larmes ; aux filles, les jeux tendres et gracieux ; aux garçons, les sports violents et risqués, véritables exercices à la virilité. On apprend au garçon à réprimer ses peurs ; on lui enjoint de supporter stoïquement la douleur ; en cas de faiblesse trop ostensible de celui-ci, son proche entourage, parents et camarades, fait montre à son endroit d'un mépris à peine voilé ; les épithètes sexuées et péjoratives de «gonzesse» et de «femmelette» lui sont décochées sans réserve.*¹⁷⁷⁰

¹⁷⁶⁴ Ibid., 11.

¹⁷⁶⁵ George Lachmann Mosse, *L'image de l'homme: l'invention de la virilité moderne*, itzul. Michèle Hechter (Paris: Abbeville, 1997), 11–12.

¹⁷⁶⁶ Ibid., 54–55.

¹⁷⁶⁷ Ibid., 56.

¹⁷⁶⁸ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 28.

¹⁷⁶⁹ Odile Roynette, *Bon pour le service: l'expérience de la caserne en France à la fin du XIXe siècle* (Paris: Belin, 2000), 340; Ernest Louis Baussan, *L'éducation morale du soldat* (s.l.: Charles-Lavauzelle, 1890), 54.

¹⁷⁷⁰ Rousseau, *La guerre censurée. Une histoire des combattants européens de 14-18*, 114.

Eta jarrera bera zuen *Eskualduna*-k ere indar hori erakusten ez zutenekiko. Konkretuki, desertoreen kontra mintzo zela, ez aski gizon izatea leporatu zien Jean Saint-Pierrek:

*Ala gizona zautzue, behar ordu minean ihesi dohan hura, bertze nazione baten gerizan gordetzerat dohan hura, onean partzuer zuekin, tzarrean berex eta berkhoi, ooren ezinbertze beltzanean?*¹⁷⁷¹

Desertore izatea ez zen gizon izatea, testu horren arabera. Pierre Lhandek garai berean idatzi liburu batean «gazteria emaztetua» aipatu zuen, baina guduaren kemenarekin berrindartu zela eta «anaien alde» odola isuriz ohorea berreskuratu zuela¹⁷⁷². Gizontasunaz beste irakurketa bat egin zuen Jean-Norton Cruk. Soldaduek arriskuak egoera arras muturrekoetan hartu zituztela dio, eta beraz, kemen hori erlatibizatu behar dela:

*Une confusion [...] existe au sujet du courage et de la peur qui, à la guerre, n'ont pas le moindre rapport avec le courage et la peur en temps de paix. Dans ce dernier cas courage et peur s'excluent, tandis qu'à la guerre ils coexistent le plus souvent, ou du moins le courage n'exclut jamais la peur. Le seul poilu qui puisse être indemne de peur, temporairement, est l'insensé : l'homme commotionné par un obus ou insensibilisé par excès d'émotion.*¹⁷⁷³

Eskualduna-k gizontasuna aipatzen zuenean, soldaduen balentriez mintzo zenean, beldurra ez zen ageri. Soldaduak gizon kementsu gisa aurkeztu nahi zituzten. Ez da gauza bera aitzineko orrialdeetan aipatu dugun guduaren erdira ez itzultzeko gogoia eta beldurra. Ez zutela gogorik erakusten bazuten ere, ez zuten erakusten beldurrik jasaten zutenik. Baina Cruen aipu horri eta beste bati kasu eginez, soldadu kementsuaren irudia gibel lerroetakoen eta zibilen diskurtsoa zen:

*Tous les soldats sans exception ont peur, et la grande majorité font preuve d'un courage admirable car, en dépit de la peur, ils accomplissent leur tâche. Nous avons peur parce que nous sommes des hommes, et c'est la peur qui a préservé la vie de nous tous qui survivons. Sans peur nous n'aurions pas vécu. [...] La peur a une mauvaise presse chez les civils parce qu'ils y voient la seule peur qu'ils connaissent, d'homme à homme, la peur d'un autre homme plus fort, plus courageux que soi. On doit en effet condamner cette peur qui conduirait à la tyrannie et à l'esclavage. Le civil ne peut pas concevoir que nous ayons peur de l'ennemi qui lui même a une peur égale de nous. Il ne comprend pas que les uns et les autres nous ne nous craignons pas en tant qu'hommes mais en tant que machines.*¹⁷⁷⁴

Cruk dioena nabari da *Eskualduna*-n. Gizontasuna goraiatzean, beldurraren agerraldiak ez aipatzean, argi da astekaria idazten zutenek ez zutela zinez ulertzen zer zen soldaduek bizi zutena. *Zerbitzari*-k eta Saint-Pierrek hurbilagotik bizi izan zuten frontea, baina ez zuten aitortu beldurrik jasan zutenik; funtsean, beren buruaz ez ziren maiz

¹⁷⁷¹ Saint-Pierre, «Permissionek». 1915/7/23.

¹⁷⁷² Pierre Lhande, *Le Prix du sang* (Paris: Beauchesne, 1915), 17.

¹⁷⁷³ Cru, *Du témoignage*, 108.

¹⁷⁷⁴ Ibid., 57.

mintzatu, ez bederen frontean egin zutenaz. Gehiago mintzo ziren ikusten zutenaz, gainerako soldaduez eta abar. Baina soldadu haien beldurraz ere ez ziren anitz mintzo. Argi geldi bedi, beldurra ez zuela adierazten idaztean, Cruk aipatzen duen beldur horretaz ari garela, hala nola ikaraz, armak hartu eta etsaiaren kontra borrokatzeak sor zezakeen ikara fisikoaz. Neguaren beldurra edo hiltzeko beldurra, kezka zen gehiago. Hori ageri zen maiz, baina beste beldur mota bat da.

c) Euskaldunen langile eta soldadu on fama

Gizontasun balioa lanean indartsu eta gerlan kementsu agertzeak ematen zuela ikusi dugu. Gerla lana edo ofizioa bilakatu zen soldaduentzat, François Cocheten arabera. Lubakietan bizi zirenek ofizio bat bezala bizi zuten gerla haren ustez, eta langile on batek bezala egiten zuten beren lana¹⁷⁷⁵. *Eskualduna*-k maiz errepikatu nahi izan zuen euskaldunak perfil horretako soldaduak zirela, hala nola eredugarriak, langile onak, indartsuak eta kementsuak. *Zerbitzari*-k, adibidez, gerlaren inguruko lanetan euskaldunak nekaezinak zirela idatzi zuen, adibidez erreka zuloen egiten ari zirenean:

Horra hortche, oihan choko batean, ehun bat gizon. Lehertuak, etzanik daude, palak eta aintzurrak aldean, salbu hirur. Hirur hauk, hortzez eta haginez, ari dire oraino. «Zer, adichkideak, ez duzue naski zuek nekhea senditzen?» – «Eskualdunak dire, daut hirur Eskualdunak aintzinduz lotinant gazte batek ihardesten. Mandoaren parekoak dire Eskualdun horiek!» – Etzezaken itsuskiago konplimendu hoberik egin...¹⁷⁷⁶

Euskaldunak langile onak izateaz gain, gainerakoak baino iraupen handiagoa zutenak zirela goraiatu zuen. Gibel lerroetako soldadu euskaldunek, zaharrenek, egin beharreko lanak kuraiez egiten zituztela txalotu zuen Jean Saint-Pierrek¹⁷⁷⁷. Jean Etxeparek ere mezu bera zuen, lubakietako lanetan, bazter zaintzeetan eta abar, euskaldunek ez zutela parerik azpimarratu baitzuen:

Atseginekin, urgulurekin, ezarriko dut hemen, aitzindari guziak hitz bereko baitira, eskualdun soldadoek ez dutela urhats hoitako parerik. Aldi bakotch hainbertzek beren burua eskaintzen dute non soberakin aurkitzen baitira. Ohore gure herritarrer!¹⁷⁷⁸

Gudutik kanpoko lanetatik harago, frontean berean ere eredugarri zirela txalotu zuten behin eta berriz. *Zerbitzari*-k euskaldunak zeuden erregimentuen balentriak aipatzen zituen. Behin, Verdun aldean aitzinamendu handienak egin zituztela idatzi zuenean, Tarbeseko 12.

¹⁷⁷⁵ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 177.

¹⁷⁷⁶ Elizalde, «Gerlarien berrir». 1915/11/12.

¹⁷⁷⁷ Saint-Pierre, «Arras-eko gudua». 1915/6/11.

¹⁷⁷⁸ Etxepare, «Nork merezimendurik gehiena». 1916/2/18.

Infanteria Erregimentua eta Sainteseko 6.a han zirela, eta erregimentu haietan euskaldun anitz bazela argitu zuen, euskaldunei «ohore» eginez, gerlari on agertu zirelako¹⁷⁷⁹. Jean Saint-Pierrek ere gauza bera egiteko joera zuen, Euskal Herriko soldaduez maiz idazten baitzuen. Hainbat aldiz haien balentriak gorai patzen zituen eta haien heroismoa azpimarratzen. Adibidez, zauriturik itzuli berria zen batek ez zuela nahi bezainbat etsai hil kontatu zuen behin, soldadu haren jarrera ederretsiz¹⁷⁸⁰. Halaber, euskaldunak arrisku handiena zen lekuetara joaten zirela ere idatzi zuen:

*Eskualdun zaharrak behar ginintuen hemen lan hortako, bainan atzeman diote gaizoer bertze emplegurik, jo hunat, jo harat, nun ere baita hurriskua eta behar handiena, Eskualduna beti han.*¹⁷⁸¹

Bestalde, euskaldunak pilotari onak izanik, granadak botatzen ere paregabeak zirela kontatu zuen zenbait aldiz. Soldaduek granada botatzen ikasten zuten pausalekuetan, eta elkarren arteko zeingehiagokak ere egiten zituztela idatzi zuen, euskaldunak nagusi zirela nabarmenduz:

*Eskualdun soldadoa jitez grenadier hauta dela, ez dugu zeren aipha hemen. Nor da gutartean haurretik pilota bat bederen higatu ez duenik beso ganka, edo harrika lagunekin haitz ondo bat edo bertze larrutu. Joko bertsua da hemen: besoa trebe duenak badu nun balia. Badazkit frango eskualdun, "boxak" erhautsi dituztenak grenada hoiekin, ez baxharrik Verdunen, bainan hemen berean, gauaz parada ona ukhanik.*¹⁷⁸²

Euskal Herriko soldaduak zituzten erregimentuek hainbat aipamen edo sari ukan izan zituztela ere idatzi zuen. Andereen Bideko gudutik landa, behin, Baionako erregimentuek aipamena eskuratu zuten¹⁷⁸³, beste behin Tarbeseko soldaduek euskaldunak gerlan ikusi eta gorai patu zituzten¹⁷⁸⁴. *Zerbitzari*-k ere maiz idazten zuen gudu denboran Euskal Herriko soldaduak biziki trebe agertzen zirela. Batean Senpereri ohore¹⁷⁸⁵ egin zion, hango soldadu batzuen balentria aipatuz. *Zerbitzari*-rena da ondoko pasarte hau ere:

*Bainan hola gertatzen bada, ez naiz eskualdun zenbeiten zintzurrentzat beldurrik gabe. Somme hartan frantsesak eta anglesak etsaiari hain borthizki jazarri zaizkoten egunetik, goizetan argi hastean, eta arratsetan ilhuntean, zoin gehiago irrintzinaka ari dire. Bai eiki, phiztu baitire soldado eskualdunak. Nork atchik gu, sekulan etsaien iphurditik abiatzen bagare? Urrikari ditut...*¹⁷⁸⁶

Hori irakurriz iduri du euskaldunak gaitasun handiko soldaduak zirela, beldurrik gabeak eta guztiz motibatuak. Nola uler, bestela «irrintzinaka» abiatzen zirela? Gerlara joan

¹⁷⁷⁹ Jean Elizalde, «Bi hitz gerlaz», *Eskualduna*, 1917ko irailaren 7a.

¹⁷⁸⁰ Saint-Pierre, «Enea hilen diat». 1915/2/12.

¹⁷⁸¹ Saint-Pierre, «Aroaren berri». 1915/12/10.

¹⁷⁸² Jean Saint-Pierre, «Eskualdun grenadierak», *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 25a.

¹⁷⁸³ Jean Saint-Pierre, «Baionakoen gudua», *Eskualduna*, 1917ko uztailearen 13a.

¹⁷⁸⁴ Jean Saint-Pierre, «Zaldizko soldadoak», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 22a.

¹⁷⁸⁵ Jean Elizalde, «Ohore Senpereri», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 23a.

¹⁷⁸⁶ Jean Elizalde, «Bazterretako berri», *Eskualduna*, 1916ko uztailearen 21a.

eta errabiatu rik abiatzen zirela etsaiaren gibeletik? Gauza bera egin zuen beste behin, gudu batetik landa euskaldunen balentriak aipatzean, zein gerlari ederrak ziren erranez:

*Eskualdun ez mintzatzen hasi, eta, ez ditake ichil. Hain gerlari ederrak dire eta zenbat errateko nuken oraino hetaz!*¹⁷⁸⁷

Gudua aitzin ere ibili zen euskaldunen gorai patzen, erranez edozein leku edo edozein gudu izan, euskaldunak denetan bikainak zirela:

*Dakiguna da, nihun ez gara aintzineko egunetan izan garen egunetan baino gaizkiago izanen. Igor gaitzabela nahi duten lekurat. Eskualdunak non nahiko on dire orai. Biba Eskualdunak!*¹⁷⁸⁸

Gisa bereko beste adibide bat da hau ere, euskaldunak egoera guztietarako prest zirela azpimarratu baitzuen:

*Jo dezagun eskuin edo ezker, Verdunerat, Champagnerat edo Somme hartarat, Eskualdunek ederki gure eginbidea betheko dugu. Nun nahi halako gisan gudukatuko gare non ohore ekarriko baitiogu gure ama Eskual-Herriari.*¹⁷⁸⁹

Baina azken bi adibide horietan beste datu batez ere ohartu behar da. Batean «Biba *Eskualduna*-k» idatzi zuen, bestean Euskal Herria ohoratu beharraz. Gerlaren bidez, euskaldunek eta Euskal Herriak fama ona ukan zezaten nahi zuen eta euskaldunak gerlari on gisa ikusiak izan zitezten. Horregatik, Euskal Herriaren omena urrun helarazi behar zela idatzi zuen¹⁷⁹⁰.

Horregatik, egunkariak edo aitzindariak Euskal Herriaz eta euskaldun ez ongi mintzo zirenean, *Eskualduna*-koek horren berri plazer handiz ematen zuten. Behin, mundu osoko egunkariak euskaldunen balentriez mintzo zirelako kontent agertu zen *Zerbitzari*:

Mundu guziko egunkariak mintzatu dire Eskualdun ez: guziek ganden Maiatzean kondatu zuten nola Eskualdunek Alemaniako soldado hobereneri khendu zioten Craonneko eskualdea.

Badire egunkariak gutaz oraino espantuka ari direnak, sekulako harritu bagintu bezala. Hona atzo berean zer zion Angleterrako egunkari handienetarik batek, Times delakoak:

«Bere gizon ederrenak ekharriak zituen Guillaumek Craonnerat, Roumanian asean eta bethan atchikirik, guk behiak landan atchikitzen ditugun bezala. Debaldetan: Eskualdunekin zuten egiteko. Eskualdun pilotariek laster garbitu zituzten hainitz, eta hainitz eta gaineratekoak han-harat fueratu. Biba Eskualdunak».

*Behin harritu dugu mundua Eskualdunek. Agian ondoko egunetan Alemania bera dugu harrituko eta bakearen galdetzerat bortchatuko.*¹⁷⁹¹

¹⁷⁸⁷ Jean Elizalde, «Azken hitz bat», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 18a.

¹⁷⁸⁸ Jean Elizalde, «Noiz arte?», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.

¹⁷⁸⁹ Jean Elizalde, «Egia ala gezurra», *Eskualduna*, 1916ko urriaren 6a.

¹⁷⁹⁰ Elizalde, «Zeri gauden...». . 1916/10/20.

¹⁷⁹¹ Elizalde, «Biba Eskualdunak». 1917/7/6.

Eskualduna astekarian euskaldunen laudatzen ibiltzean, balentrien berri euskaldunei baizik ez zieten ematen. Argi da beren irakurleei ere euskaldunen irudi hori emateaz kezka handia zutela astekari horretan, baina goiko artikuluz zatian ageri den bezala, Euskal Herritik kanpo ere euskaldunetz baikorki mintzatzeko grina bazeukaten. Blaise Adémak ere azpimarratu zuen, Craonneko gudu horretaz, Parisko egunkariek euskaldunak nola ohoratu zituzten:

Egun hautan, Pariseko Kazeta gehienak mintzatu dire eskualdun soldadoen balentria ederrez. Balentria ederra zaiote - eta hala da - Craonne hiriskako gain hartarat heltzea eta hartaz jabetzea, Alamanek han zituzten tresna izigarriez acholarik gabe. Diote eskualdun zangarrak behar zirela harat heltzeko, etsaiek uste baino lehenago. [...] Horra, hoieri esker, nola goretua den Eskualherria Frantzia guzian.¹⁷⁹²

Prentsaz gain, Parisko Legebiltzarrean berean ohoratuak izatea ere eder zitzaion Adémari. Behin aipatu zuen nola euskaldunak soldadu bikainak zirelako solasa Frantziako Legebiltzarreraino heldu zen:

Eta bizkitartean ez omen dut zertaz hola beldur izan. Egia omen da ez dela gure Eskualdunak baino soldado hobirik. Egia omen da badirela jeneralak ez dutenak nahi izan gudu dorpe bati lotu soldado eskualdunak gabe. Egia omen da gure soldado eskualdunak handizki goretsiak direla Frantzia guzian.¹⁷⁹³

Baina hori ez zen kasu bakarra izan. Behin, Jean Ibarnegarai euskal diputatuak gainerako diputatuen eta ministroen aitzinean egin zuen mintzaldia anitz txalotua izan zela idatzi zuen Adémak. 1888tik 1892rako klaseetako soldaduak etxera igortzeko eskatu zuen Ibarnegaraik, baita ere soldadu guztiek maizago egin ahal izatea etxerako itzulia, erreka zuloetan egon ondoan, atsedean on bat ukaitea merezita zutela ohartaraziz. Gerlako ministroak eskaera horiek guztiak onetsi zituen. Mintzaldi hartan, Ibarnegaraik Euskal Herriko soldaduak goretsi zituen, bereziki Craonnen egin zutenagatik. Foch aitzindariak erran omen zion euskaldunak nolako soldaduak ziren bazekiela eta ez zela hobirik¹⁷⁹⁴.

Aitzindari baten ahotik horrelako ohoreak entzutea eder zitzaion. Beste behin, Jean Saint-Pierrek kontatu zuen aitzindari batek erran zuela euskaldunak soldadu onak, konfiantzazkoak eta osagarri onekoak zirela¹⁷⁹⁵. Beste behin ere gisa bereko solasak ukan zituen Saint-Pierrek. Haren arabera, euskaldunak soldadu hoberenetarik zirela zioten aitzindariak:

¹⁷⁹² Adéma, «Eskualdunak». 1917/6/1.

¹⁷⁹³ Blaise Adéma, «Goretsiak», *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 25a.

¹⁷⁹⁴ Blaise Adéma, «Eskualdun deputatua», *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 20a.

¹⁷⁹⁵ Jean Saint-Pierre, «Eskualdun soldadoa», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.

Beljika-ko mugetarik Lorraine-ko bazterreraraino, badugu Frantzian soldado onik. Aintzidariak diote goraki hoberenetarik direla eskualdunak.

[...] Ezin bertze gorririk balinbada nonbeit, jo harat eskualdunak ! Verdun hortan ziren Jeneral nausiek etsitua zutelarik, Caslelnau jin baita beharrik aski goiz, hiriaren gerizatze eta zaintzeko pausuan zauden soldado hoberekin, eskualdunak ditu hautatu, eta eskualdunak utzi Petain aiphatuari.¹⁷⁹⁶

Euskaldunek aitzindarien artean zuten famagatik harro ziren *Eskualduna*-ko idazleak. Eta fama horrek ukan zuen bere gisako saria ere. Andereen Bidean, Craonnelle herriko lurretan, obelisko handi bat eraiki zuten 1928an, Landetako eta Behe Pirinioetako hautetsiek bultzaturik. «Monument des Basques» du izena, eta eskualde hartako monumentu esanguratsuenetarikoa da¹⁷⁹⁷. Euskaldunek gerlan Frantziaren alde egin zuten lana goraiatzea zen monumentu haren helburua, eta hitz horiekin aipatzen du Annette Beckerrek euskaldunen parte hartzea gerlan:

Les Basques venus mourir au Chemin des Dames ont leur monument à Craonnelle. Le béret traditionnel sur la tête, l'homme venu du Sud-Ouest dit sa tristesse d'avoir perdu tant de camarades, malgré la fierté d'avoir tenu. De Biarritz, de Hendaye, à Craonne. Destin de Basque, destin de Français. Dauphinois, Auvergnats, Bretons... Huit millions de mobilisés ont défendu la France agressée et imposé le retour parmi eux des Alsaciens et des Lorrains. Différents mais égaux, devant le devoir, devant la victoire.¹⁷⁹⁸

Monumentu horren harira, euskaldunak, Frantziako leku guztietako jendeak bezala, borroka berean ibili zirela eta beraz denak berdín zirela azpimarratu nahi zuen. *Eskualduna*-ren mezua ere bide beretik ari zen, ongi azpimarratu nahi baitzuen euskaldunak, edozein frantsesen gisan, soldadu onak zirela eta beren betekizuna ederki bete zutela.

Euskal Herria Frantziaren parte eta euskaldunak frantses ikusten zituen *Eskualduna*-k. Bat egiten zuen Frantziako estatuarekin, baita ere Frantziaren lurralde ikuspegiarekin. Ikuspegi politiko orokor batetik begiraturik, *Eskualduna* guztiz inplikatu zen Frantziarekin, baina ez gerla hartan arrazoia Frantziak zuela pentsatzen zuen Frantziatik kanpoko eragile gisa, baizik eta Frantziarekin identifikatzen zelako.

Horiek hola, euskaldunak frantsesak zirela baieztatzearekin, zergatik mintza, bereziki, euskaldunez, artikulua anitzetan egiten zuten bezala? Astekariak indar handia egin zuen euskaldunak zein frantses onak eta zein gerlari onak ziren erakusten. Frantsesen – edo, *Eskualduna*-ren ikuspegitik begiraturik, gainerako frantsesen – eta euskaldunen arteko bereizketa egiten bazuen ere, hor ez da ikusi behar bi nortasun desberdinen arteko bereizketa egiteko ahalegina, nahiz eta hori egiten zuen, baizik eta frantses guztien artean

¹⁷⁹⁶ Jean Saint-Pierre, «Ehun eta berrogoi ta bigarrena», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.

¹⁷⁹⁷ Ikus argazkia eranskinetan.

¹⁷⁹⁸ Becker, *Les monuments aux morts. Mémoire de la Grande Guerre*, 65.

euskaldunak ere zein frantses «onak» ziren frogatzeko ahalegina. Euskaldunak nehor baino soldadu hobeak zirela erakutsi nahi izan zuen *Eskualduna*-k, hala nola euskaldun onak, frantses eta soldadu onak zirela azpimarratuz.

Baina orduan, zergatik erakutsi gerlan irautea ohiturak, edo talde izaerak edo gizontasunak ere eragin zuela, baita euskaldunen artean ere? Astekariak gehiago azpimarratu zuen euskaldunen jarrera «abertzalea». Baina beste faktore horiek eragiten zuten diziplina ere erakusteak ez du erran nahi alde politikoa gutxiesten zutenik. Hain zuzen, euskaldunak soldadu on gisa agertzen zituzten, langile onak eta pertsona diziplinatuak ere bazirelako. Eta horrekin lotura egingen dugu orain datorren hirugarren zatiarekin. Diziplinatu eta langile ona izatea lotzen zituen fededun on izatearekin.

III. NORTASUN GIRISTINOA

Euskal berezitasuna eta frantses nortasuna aldarrikatzeaz gain, hirugarren ezaugarri bat ere guztiz presente zen *Esknalduna*-ko artikuluetan: giristinotasunaren goraiatzea. Hori ez da harrigarri, astekariaren aurkezpena egin dugunean garbi azaldu baitugu giristinotasunak zer garrantzia zeukan beretzat. Baina gerlaz mintzatzean ere presentzia handia zeukan gai horrek, ondoko orrialdeetan ikusiko dugun bezala. Astekariaren izaera giristinoan ez gara hainbeste luzatuko, eta fedeari eta Jainkoari egin zizkioten erreferentzia guztiak ez ditugu aipatuko, anitz baitziren eta nahiko errepikakorrak. Atal honen helburua ez da mugatzen astekariak soldadu euskaldunen nortasun giristinoa nola aipatzen zuen aztertzea. Hori baino helburu sakonagoetara heltzea da xedea, hor baitago ikerlan honen giltza. Horretarako, nortasun giristinoari buruzko atal hori testuinguru orokorrean kokatuko dugu.

Lehenik, soldaduen izaeraren deskribapenarekin jarraituz, ikusiko dugu euskaldunek zer presentzia ematen zioten fedeari, gerla lekuan. Hots, aztertuko dugu *Esknalduna* astekariak nola erakusten zuen soldaduak, oro har, fededun onak zirela. Baina hori baino gehiago, ohartuko gara astekari horrek bazekiela Jainkoak zer pentsatzen zuen eta noren alde zen. Bigarren atalean, hain zuzen, Jainkoa Frantziaren alde zegoela nola errepikatzen zuten aipatuko dugu.

Azkenik, hori guztia, testuinguru politiko orokorrean kokatuko dugu. Lan honen lehen zatian ekarri dugu gogora zer gatazkak izan ziren Elizaren eta Estatuaren artean, eta *Esknalduna* zeinen alde zen. Gatazka hura gogora ekarri behar da *Esknalduna*-k gerlari buruz zuen jarrera orokorraren ulertzeko. Hori da hirugarren atal horretan egingen duguna, ondorioei bidea zabalik uzteko.

A. Soldaduak fededun onak

Gerlako berri ematean, *Eskualduna*-ko idazleak ez ziren gerlaz bakarrik mintzo. Gerlako lekuetan fedea nola bizi zuten ere aipatzen zuten. Giristinotasunak leku handia zuen berriketari horien artikuluetan; horrekin erakutsi nahi zuten fedea soldaduen artean zeukala leku handia. Alde batetik, gerla garaian fedearen iratzartze bat gertatu zela goraipatu zuen *Eskualduna*-k. Bigarrenik, eta lehen puntuari loturik, hitzordu giristinoek artikuluetan zeukaten presentzia barnatuko dugu.

I. Fedea indartzen

Gerla denboran soldaduen artean federa itzultzeko joera bat agertu zela pentsa daiteke *Eskualduna* irakurriz, baina baita beste zenbait ikerlariren arabera ere, nahiz eta denak ez datozen bat federa itzultze horri buruzko irakurketarekin, ondoko lerroetan erakutsiko dugun bezala. Gure astekariak fedearen iratzartze hori nola aipatu zuen aztertuko dugu. Batetik, lubakietan, soldaduak giristinoagoak zirela adierazi zuela argituko dugu, eta bigarrenik fedearen iratzartzeaz aritu zela.

a) Lubakietan, giristinoago

Soldaduak giristino gisa aurkezten zituen *Eskualduna*-k, are gehiago Euskal Herriko soldaduak. Soldaduen kontzientzia giristinoari dagokionez ñabardurak egin zituzten, horrez gain. Jean Saint-Pierreren arabera, lehen lerroetako soldaduak hurbilago zeuden erlijiotik, gibel lerroetan zirenak baino. Arrazoia zen heriotzatik hurbilago zeudela, eta horrek giristinotasunera hurbiltzen zituela:

Suari hurbilago eta erlisione gehiago bai ta ere kuraie gehiago. Hainizetan ohartu nitzari gauza horri.

Hirriskutik urrun bizi direnek bihotza hilago dute, gisa guzietarat. Gerla luze hunen lana gau eta egun erreka zilhoetan egiten duten gizonak dire ikustekoak: hek dire gutienik lotsatuak. Gorputzez zailago, jarriago eta gogoz ala bihotzez beroago, azkarrago, harroka batzu iduri; espanturik egin gabe, ichilik bururen buru beren eginbide dorphea deramate azkarki.¹⁷⁹⁹

Lehen lerroetakoak giristinoago eta kementsuago zirela idatzi zuen. Lehen aipatu dugun gizontasunaren ezaugarriak dira hor deskribatuak, baina horren eragile edo laguntzaile gisa ageri zen giristinotasuna ere. Beste artikulua batean hobeki azaldu zuen

¹⁷⁹⁹ Jean Saint-Pierre, «Azkar», *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 2a.

zergatik ziren giristinoago suan zirenak eta ez gibel lerroan zirenak, hots heriotzatik hurbilago zirelako:

Ez da gaitz ikustea zeri esker finkatu dituen erroak gerla huntan erlisioneak. Behar ordu minean gizona bere baitharik itzultzen da gaineko nausiari buruz; bere gustuko dohazkonean aferak, orduan ahantz dezake Jainkoa, iduri baitzaio nehoren ez deusen beharrik ez duela.

[...] Eskolatzale hauta da herioa, lehen auzo duguno. Urrunagotik ez ikusiarena egiten diogu, eta beharriak tapatzen. Hemen ez da holakorik, boz saminegia baitu herioak, eta gutartean baitabila bethi.

Holakoetan, orok badute beren erlisionea, orok beren sinhestea, ez orok argi eta iraupen berarekin, bainan aski barna, memento lazgarri batean arimaren itzultzeko.

Erlisionearen beharra sendi dute bertzalde hurriskutik urruntzen diren egunetan, gogo bihotzak ilhun eta pisu daudelarik: deusek ez diote holako gozoa emaiten, nola elgarrekin eginikako othoitz eta kantu batek.

[...] Su hegiko gizonak dire hortan ere idekienak, goxoenak, begitarte onekoak, aiherkeria gabekoak apezari buruz. apeza den tokian, bada bethi hein batean erlisioneazko gauzen gogoeta.¹⁸⁰⁰

Beraz, heriotzarekin harreman hurbila zutelako, lagunak hiltzen ikusten zituztelako, berak minutu batetik bestera hil zitezkeelako, Jainkoarenganako grina handitu zitzairen, Saint-Pierreren arabera. Halaber, apaiz eta omonierrekiko goxotasun handia erakusten zuten. Baina Saint-Pierre bereziki euskaldunetz mintzo zen, eta *Eskualduna*-k maiz goraiatzen zuen euskaldunak giristino onak zirela. Manex Hiriart-Urrutik goraiatu zuen Euskal Herritik joan ziren soldaduak biziki giristino onak zirela eta horri esker ez zutela beldurrik ukanen:

Biba zuek, oraino eta bethi, eskualdun fededun seme, haurride, aita eta senhar zinezko giristinoak ! Aurthengo Andre-dena-Maria egunean Baionako katedral handi ederretik Eskual-herriko eliza ttipieneraino inharrosi dituzuen zeru lurak ez dira zeren izan gerla hunen beldur.

Zeren beldur nahuzue dadin izan Jainkoa berekin duena ?¹⁸⁰¹

Beldurraren eta fedearen arteko loturaz mintzo da Jacques Fontana. Haren ustez, lubakietako borrokek eta guduen bortizkeriak erakutsi zien gizona zinez gauza txikia zela, eta Jainkoaren beharra zutela indarren hartzeko:

La guerre de tranchées, surtout, a opéré chez quelques-uns comme un bain purifiant l'âme ; l'approche de l'attaque, la violence d'un combat ont pu faire comprendre que, dans ce conflit gigantesque, l'homme n'était plus grand-chose, et qu'en se tournant vers Dieu il acquerrait la force dont il avait alors suprêmement besoin.¹⁸⁰²

Zenbait urte geroago ere, 1917an Craonnen izan ziren gudu batzuetatik landa, Baionako apezpikuaren espantuak aipatu zituen Blaise Adémak, baizik eta euskaldunek

¹⁸⁰⁰ Jean Saint-Pierre, «Zertako?», *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 9a.

¹⁸⁰¹ Hiriart-Urruti, «Gure soldadoak». 1914/8/21.

¹⁸⁰² Fontana, *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*, 266.

kartsuki otoitz egiten zutela eta biziki giristino ageri zirela¹⁸⁰³. Euskaldun baten heriotzaren berria ematen zutenean ere, maiz zehazten zuten giristino ona zela, soldadu ona izatea eta giristino ona izatea elkarrekin lotuak balira bezala. Horrelako zerbaite uler zitekeen Adémak J.B. Errecaren heriotzaren berri eman zuenean, giristinoa zela azpimarratu baitzuen¹⁸⁰⁴.

Annette Beckerren arabera, giristinoek gerla erlijio ikuspegitik justifikatzen zuten: giristinoenak segur ziren «zibilizazioa barbaroen kontra» borrokatzen ari zela, hots, «Kristo deabruaren kontra» ari zela¹⁸⁰⁵. Horrez gain, beti Beckerren ustez, fededunek sufritu nahi zuten Jainkoarengandik hurbil egoteko¹⁸⁰⁶. Beraz, *Eskualduna*-k aipatzen zituen euskaldunen kasuan, ez zen bakarrik gizon izaeraren azpimarratzea ikusi behar, baizik eta erlijioaren pisua ere bai. Horri loturik, gerla garaiko herioari sakrifizio kutsu bat ematen zioten. Zenbait aldiz egin zuen *Eskualduna*-k gerlan hiltzearen eta Jesus Kristo bezala hiltzearen arteko parekatzea, adibidez fraide bat hil zenean:

*Salbatzaleak, bere irakaspen eder guzietz bezenbat edo gehiago balinbadu guretzat egin bere odola ichuriz, kurutzefikatua hilez, nola ez eta zertako ez lukete bardin edo are gehiago arimentzat egiten ahal, hor gerlak adinik hoberenean deramazkigun apez kartsuek?*¹⁸⁰⁷

Jesus gurutziltzaturik hil zen, eta horren erreferentzia eginez, Jesusek bizia sakrifikatu zuen gisan soldaduek ere berdin egiten zutela erran nahi zuen *Eskualduna*-k. Ildo beretik idatzi zuen Eguberriko mezan egin gogoeta bat, non erran zuen sakrifizioa ez zela galtze bat:

*Altxa bihotzak goiti. Ez etsi. Sakrifizio eginak eta egitekoak handiago, eta gu Gure Aita zerukoaren nahari atchikiago, jarraikiago gauden bethi, orhoituz han emana sekulan ez dela gal.*¹⁸⁰⁸

Bizia galtzea ez zela galtze bat idatzi zuen Manex Hiriart-Urrutik. Soldaduentzat – eta baita familiarentzat ere – aiseago bide zen heriotzaren onartzea, hori sakrifizio bat baldin bazen, eta sakrifikatzea zerbaiteetan laguntzea zen. Annette Beckerrek ere dio garai hartako apaizek soldaduak lasaitzeko betekizuna zutela, Kristo ere haiek bezala hil zela erranez:

*Pendant la guerre, les messes célébrées sur des autels de fortune ont souvent été des messes des morts. Il fallait rassurer les soldats, leur promettre qu'ils ne mourraient pas seuls, que leurs douleurs étaient partagées, qu'elles l'avaient été par le christ.*¹⁸⁰⁹

¹⁸⁰³ Adéma, «Milesker!». 1917/7/13.

¹⁸⁰⁴ Adéma, «J.B. Erreca». 1917/6/15.

¹⁸⁰⁵ Becker, «Les dévotions des soldats catholiques pendant la Grande Guerre», 16.

¹⁸⁰⁶ Ibid., 19.

¹⁸⁰⁷ Hiriart-Urruti, «Eskualdun kaputchin soldadoa». 1914/12/11.

¹⁸⁰⁸ Hiriart-Urruti, «Eguberri gerlan». 1914/12/25.

¹⁸⁰⁹ Becker, *Les monuments aux morts. Mémoire de la Grande Guerre*, 101.

Horien arabera, erlijioari esker, aiseago onartzen zuten hiltzea. Fededunek gerla eta heriotza aiseago onartzen zituzten, Jainkoari egiten zioten eskaintza gisa ikusten zutelako. Horrela uler daiteke *Eskualduna*-k zergatik ematen zion halako itxura sakratua gerlari.

*Pourquoi et comment ces victimes désignées par la patrie ont non seulement accepté d'ailer au martyre mais ont subi pour l'essentiel sans le refuser ce martyre pendant quatre ans? Pour les militants de la foi, le sacrifice a un sens précis, celui de la grâce.*¹⁸¹⁰

Nicolas Beauprék ere dio heriotzak «heroi-martirio» kutsua zeukala, sakrifizioarena, eta horrekin erlijioaren gaiak presentzia handia hartu zuela¹⁸¹¹. Beraz, heriotzatik hurbilen ziren soldaduak giristinoagoak ziren. Euskaldunak ere giristinoak ziren, eta horrek laguntzen zituen hiltzeko arriskua aiseago jasaten. Gutxienez, *Eskualduna*-ko idazleek halako mezuak zabaldu zituzten. Aiseago onar zitekeen zerbaiten alde sakrifikaturik hiltzea, graziaren truke hiltzea. Horrek ere lagundu zituen, beraz, gerlaren egitea onartzen.

b) Fedearen iratzartzea

Gerla egoeran, heriotik hurbil ziren soldaduen artean fede handia zegoela aipatu zuten *Eskualduna*-ko idazleek. Baina horri loturik, ohartu ziren soldadu anitzen baitan fedearen iratzartze bat gertatu zela. Jean Saint-Pierrek, adibidez, kontatu zuen Eguberriko mezan, sei edo zazpi urte haietan erlijioaren bidea utzi zutenak mezara joan zirela¹⁸¹². Saint-Pierrek beste artikulu batzuetan ere aipatu zuen gerlako tokietan fedea azkartzen ari zela:

Eman ditzagun eskualdunak berex! Soldado guziak barne hartuz, egia othe da gerla hunek zerbeit onik ere egin duela?

- *Egia da, segur.*¹⁸¹³

Euskaldunak eta gainerako soldaduak desberdindu zituen, fede kontuak aipatzerakoan. Alabaina, ez zuen dudan ezartzen euskaldunak lehendik ere fededunak zirelakorik. Erakutsi nahi zuena zen soldaduen artean anitz itzuli zirela giristinotasunera. Eta hori zerbait on gisa aurkeztu zuen, alegia gerlaren abantailetariko bat zen fedetik urrundu zirenek fedea berreskuratzea. Manex Hiriart-Urrutik ere alde hori azpimarratu zuen, gerlak gauza baikor bat bederen bazuela erakutsiz. Hain zuzen, Euskal Herriko eta Biarnoko soldadu fedegabe batzuk, gerlara joanez geroz, fedeari berriz lotu zitzaizkiola kontatu zuen. Biarnoko gazte «ez jainkotiar» batek gutuna eman omen zion lagunari, apaizari goraintziak emateko eta federa itzuli zela errateko. Ortzaitzen beste bi gizon apaizen

¹⁸¹⁰ Becker, «Les dévotions des soldats catholiques pendant la Grande Guerre», 18.

¹⁸¹¹ Beaupré, *Ecrire en guerre, écrire la guerre. France-Allemagne 1914-1920*, 138.

¹⁸¹² Jean Saint-Pierre, «Gauerdiko meza», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.

¹⁸¹³ Jean Saint-Pierre, «Erlisioea gerlan», *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 9a.

kontra mintzatu eta gerlara joateko bezperan kofesatzera joan zirela gehitu zuen Hiriart-Urrutik. Hori guztia, errateko gerlak alde on bat bazuela:

Barna, barna fanfarrunkiak, herioa hurbil duzularikan sendi.

*Nigar eta bihotzmin, oinhaze guzien artetik, dezagula ekhar, onik ere, holako zerbeit ondorio gerlak.*¹⁸¹⁴

Gerlak fedearen berrindartzean izan zuen eraginak poztu zuen *Eskualduna*. Ondoko adibide honetan ere garbiki ageri den bezala:

Gerlaz osoki hartua zutela gogoa, ezagun zuten Baionako karrketan profesioneari zarratzkon zazpi, zortzi ehun soldadoek. Hain zuten gogotik egiten othoitz gizagaizok, berentzat, beren familientzat, Frantziarentza.,

Nehork deithu gabe jin baitire, beren baitharik, Andre-dena-Maria egun handiko ofizioetarar: meza nausi, bezpera eta profesione.

*[...] Gerlak ez balu fedearen hola piztea, sustatzea baino ondorio makurragorik, benedikatzeko litake zinez gerla; baitu ordean bertzerik!*¹⁸¹⁵

Gerlak alde biziki ilunak zituela aitortu zuen Hiriart-Urrutik, hain zuzen, sufrimendu handia eragiten ari baitzen. Baina pozik zegoen erlijioak gora egin zuelako. Eta Jacques Fontanaren arabera, egia da erlijioak gora egin zuela: gerlak fedearen iratzartzea eragin zuen, eta mobilizazio egunean eta ondokoetan soldadu anitz joan zen elizara¹⁸¹⁶. Horiek hola, den-denak ez zirela giristinotasunera konbertitu gehitu zuen, batzuek sinestera eman nahi zuketzen bezala. Mezak eta zeremoniek soldadu anitz erakartzen zituzten, gudu handiak baino lehen, soldaduek trumilka konfesatzen ziren, praktikanteak zirenak eta hala ez zirenak¹⁸¹⁷. *Eskualduna*-k ez zuen federa itzultze hori erlatibizatu, alderantziz baizik. Goraipatu zuen. Annette Beckerren arabera, gerlak fedea piztarazi zuen, baina Elizak hori bere bidera ekartzeko ahalegina egin zuen:

*Pour un chrétien comme Albert de Mun, toute renaissance de vie guerrière dans une nation s'accompagne d'une renaissance de vie religieuse. La guerre stimule la foi. L'Eglise a tenté de canaliser cette ardeur spirituelle renouvelée. La tâche se révèle d'autant plus indispensable que la guerre c'est la mort. Le besoin d'un discours consolant grandit avec l'horreur des statistiques.*¹⁸¹⁸

Egoerak esplikatzen zuen fedearen gorakada. Eta fedearen igaitea goraipatu zuen prentsa giristinoak, Jean-Jacques Beckerren arabera:

Or, l'Eglise allait constater avec surprise et enthousiasme que la guerre provoquait un magnifique retour vers les autels. Les témoignages abondent. La presse catholique - on le conçoit - les a recueillis précieusement, que ce soit Le Pèlerin qui accorde une place particulière à toutes les manifestations d'une

¹⁸¹⁴ Manex Hiriart-Urruti, «Goraintzi jaun erretorari», *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 18a.

¹⁸¹⁵ Hiriart-Urruti, «Gure soldadoak». 1914/8/21.

¹⁸¹⁶ Fontana, *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*, 35–37.

¹⁸¹⁷ *Ibid.*, 269.

¹⁸¹⁸ Becker, *Les monuments aux morts. Mémoire de la Grande Guerre*, 99.

recrudescence de la foi chez les soldats et dans le pays, que ce soit La Croix qui intitule un article «Le Renouveau religieux»¹⁸¹⁹

Eskualduna ere ildo horretan zegoen, leku garrantzitsua ematen zion fedearen berrindartze horri. Ez zen, beraz, hori egiten zuen astekari giristino bakarra. Baina giristinotzea ez zela aldizkari giristinoek zioten bezain handia gehitu du Beckerrek. Irakasleen txostenetan oinarritu da ondorio hori ateratzeko. Fedea kontsolamendu bat, babes bat, sostengu bat zen gerlaren hastapenean, haren hitzetan, baina gerla luzatu ahala ahuldu zen¹⁸²⁰. Frédéric Rousseauk ere antzeko erlatibizatze bat egiten du. Fedearen agerraldiak izan zirela ukatzen ez badu ere, horren gibleko zinezko motibazioa besterik zela uste du, hala nola beldurraren aitzinean lasaitzeko bide bat zela:

D'après de nombreux témoins, les soldats ont paru recourir assez massivement au soutien de la religion; cependant la nature exacte de cette spiritualité des tranchées reste très ambiguë; pour l'essentiel, cette religiosité n'est pas synonyme, sauf exceptions, d'un retour à la foi chrétienne, ni même d'un retour à Dieu; plus simplement, et comme en toute période de crise profonde, comme en toute période d'insécurité, les hommes cherchent à se rassurer, à se donner des assurances; ni la foi, ni la raison n'interviennent ici; c'est la peur, la peur de la mort, la peur de la blessure, de la souffrance, de la mutilation qui provoque cette explosion de croyances qui relèvent davantage de la superstition que de la religion.¹⁸²¹

Annette Beckerrek berdin dio. Fedearen iratzartze bat izan zela onartu du, baina kantitatez soilik, ez kalitatez. Are gehiago, ez zela iraunkorra gehitu du¹⁸²². Fedeak bazuen beldurrari eta gerlako egoerari lotutako beste funtzio bat ere, Hiriart-Urrutik berak aipatu zuena. Gerlako sufrikarioak ezitzeko bide gisa ere aurkeztu zuen fedea. 1914ko Eguberri egunean argitaratu zuen artikuluan idatzi zuen Jainkoaren baitan sinestea modu ona zela penak hein batez arintzeko:

Fedeak, fedezko sendimendu onek ditzatela ezti hunkituenak direnen arimetako zauriak.

Orok ororentzat, eta bereziki urrikalgarrirentzat dezagun othoitz egin Jainkozko egun hautan.¹⁸²³

François Cochetek ere aipatu du hori, hala nola fedea «makulu» bat bezala zela soldaduentzat, eta beraz ez zela zinez barnetik heldu zen fede bat, baizik eta egoeran beharturik sortu zen halako zerbait:

La religion a donc constitué une incontestable «béquille» pour les combattants, souvent dans une configuration relevant davantage de pratiques magiques de protection que dans une foi profondément construite, voire renouvelée par la guerre.¹⁸²⁴

¹⁸¹⁹ Becker, 1914. *Comment les Français sont entrés dans la guerre*, 452.

¹⁸²⁰ Ibid., 456.

¹⁸²¹ Rousseau, *La guerre censurée. Une histoire des combattants européens de 14-18*, 313.

¹⁸²² Becker, *La guerre et la foi. De la mort à la mémoire 1914-1930*, 95.

¹⁸²³ Hiriart-Urruti, «Eguberri gerlan». 1914/12/25.

Hots, soldaduak zerbaiti lotu behar zitzaizkien jasangaitza aiseago jasateko. Erlijioa izan zen horretarako bide bat. Baina muturreko egoera hark bultzaturik hartzea erlijioaren bidea ez zen apaizek eta Elizak zinez nahi zuten egoera. Errealitatean federa itzultze bat izan zen, bai, baina ez *Eskualduna*-k erakutsi nahiko zukeen bezain sakona, ordea. Haatik, interesgarriena da ikustea euskarazko astekari horrek, errealitatea bere gisara interpretatu ala ez, giristinotasunaren goraiatzeko erabili zuela soldaduen fedearen ustezko iratzartze hori.

2. Fedearen hitzorduak

Fedearen iratzartze hori modu konkretuan ere aipatu zuen *Eskualduna*-k, hala nola hitzordu giristinoen kontakizuna eginez. Ohartuko gara, batetik, igandeetako mezaren eta soldaduen arteko harremanaz maiz aritu zirela. Bigarrenik, besta egun berezietako mezak aztertuko ditugu. Azkenik, mezatik harago, soldaduen artean otoitzak zuen presentzia nola adierazten zuten aztertuko dugu.

a) Soldaduak igandeetako mezan

Fedeak adierazpide konkretuagoak ere bazituen gerla garaian, eta horietarik bat zen, ohikoena, asteroko mezara joatea. *Eskualduna*-ko berriketariak maiz aipatzen zuten elizako hitzordu hori, hala nola igandeetako meza. Euskaldunak meza horretara saldoan biltzen zirela idazten zuten Jean Saint-Pierrek eta *Zerbitzari*-k, mezaren garrantzia azpimarratuz. Saint-Pierrek behin idatzi zuen ehunka euskaldun bildu zirela igande arratseko meza batean, euskarazko meza entzuteko¹⁸²⁵. Euskarari buruzko atalean aipatu dugu pasarte hori, euskaldunei euskarazko meza entzutea atsegingarri zitzaielako. Baina hemen azpimarratzekoa dena da euskara entzuteaz gainera, mezara joatea zela plazer iturri eta euskaldunek ez zeukatela huts egitekoa elizako hitzordua; hori da, bederen, Saint-Pierrek erakutsi nahi zuena. *Zerbitzari*-k ere idazten zuen igandeetan eliza betetzen zela¹⁸²⁶.

Euskaldunak pausa denboran mezara joaten zirela azpimarratzen zuen *Zerbitzari*-k, ostatuan ibiltzeko ordez, gehienak elizara joaten zirela goraiatuz:

¹⁸²⁴ Cochet, *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*, 211–213.

¹⁸²⁵ Saint-Pierre, «Maiatzeko hilabetea». 1916/5/26. Ikus 34. orr.

¹⁸²⁶ Elizalde, «Igandeak». 1916/11/3.

*Ostatuan ez badute askok demborarik galtzen, hitz dautzuet elizan dabilzanek oraino hobeki badakitela demboraren balioa. Zer kartsutatsuna! Zoin hunkigarri den hoin gizon gazteak holako bildutasunean ikustea, ostatura aldean dutelarik!*¹⁸²⁷

Euskaldunek fedearrekiko hitzorduentsat zuten grinaz kontent ziren bi idazle horiek. Eta zituzten atsedean uneetan ostatuan baino denbora gehiago mezan pasatzearekin uler daitekeena da euskaldun horiek izugarriko giristino onak zirela, beren denbora-pasa maiteena mezara joatea zelako, ostatura joatea baino gehiago. Alderantziz, hango herri batzuetako jendeak ez zuela mezara joan nahi izaten, eta ostatuan denbora gehiago iragaten zuela kritikatu zuen *Zerbitzari*-k:

Zorigaitzez, sosaren biltzea baino dorpheago zaiote atchikitzea. Zoko-moko guzietan ostatura da eta hitz dautzuet ostaturako atxean ez dela belhar ondo handirik. Zer trichtezia!

*Hala-hala, elizako athea ez da hola legundua!*¹⁸²⁸

Litekeena da eskualde hartako jendea ez euskaldunak bezain fededuna izatea. Baina euskaldunak gerlan ziren, soldadu gisa joanak zirenez geroz. Hango biztanleak han bizi zirelako zeuden han. Eta pausa denboretan mezara joate hori bereziki soldaduentzat zela ulertzen da, Annette Beckerreren esplikazioen arabera¹⁸²⁹. Honek dio gerla ez zela plegatzen erlijio giristinoak finkatzen zituen hitzorduetara, igandeak igande izateak edo meza orenean meza izateak ez zuen gerlako jarduna aldatzen. Bonbak edo erasoak gerta zitezkeen mezako tenorean. Beraz, fededunek aldatzen zuten egutegia, gerlaren gorabeheren arabera. Horregatik, mezak ez ziren beti tenore beretan edo egun beretan izaten. Soldaduak ez zeudenean pausalekuetan, gerla erdian zeudenean, ezin ziren elizara joan. Normal da, beraz, berezko tenoreetan egin beharreko ekintza erlijioso horiek atsedean uneetan egitea.

Eguna edo tenorea gerlaren agendaren arabera finkatzen zen bezala, meza emateko lekua ere gerlak inposatu egoeraren arabera finkatzen zen, Jean Saint-Pierreren lekukotasun honetan ageri den bezala:

Bertze toki batzuetan, elizak lurtean dira. Bertze nunbeit atzeman behar igandetako aterbea, lurpe, harroka zilho, edo etche zahar, aberetegi eta holakoetan.

*[...] Aurthengo eguberriak hei zahar batean eginak ditut. Badut beldurra ez dela luzaz egonen chutik: zur bat dilindan ikusia diot, gain hartarik goiti so egitearekin.*¹⁸³⁰

Egoera hartan, bitxikeriak ere gertatzen ziren tarteka. Lubakietan alemanek hil soldadu baten aldeko meza eskatu zion norbaitek *Zerbitzari*-ri behin, baina honek erantzun zion goizeko meza jadanik errana zuela eta beste bat ezin zuela erran egun berean. Soldadu

¹⁸²⁷ Jean Elizalde, «Gure manerak», *Eskualduna*, 1916ko urriaren 20a.

¹⁸²⁸ Elizalde, «Hemengo bazterra». 1916/12/15.

¹⁸²⁹ Becker, *La guerre et la foi. De la mort à la mémoire 1914-1930*, 38.

¹⁸³⁰ Jean Saint-Pierre, «Eguberri», *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 7a.

hark katixima jakin balu apaiz batek egun berean bi meza ezin zituela erran jakinen zuela gehitu zuen¹⁸³¹. Artikulu hartan, idatzi zuen bezala, emantzat jo zuen *Eskualduna*-ren irakurleek hori bazekitela, berez.

Euskaldunak praktikante onak zirela goraipatze hartan, apezpiku batek euskaldunetz egin espantuak ekarri zituen behin Jean Saint-Pierrek. Ruch apezpikua 142. Infanteria Erregimentuko omonierria zen, eta euskaldunak biziki maite omen zituen, bereziki mezan euskal kantuak nola kantatzen zituzten:

*Zer zautzue, irakurleak? Ez ahal dire gureak omonieraren saltzekotan. Ez dut uste! Hemen gaudenek Eskualdunaren arartekoz eskerrak dazkogu Ruch jaun apezpikuari igortzen, ezin hobea delakotz soldado eskualdunentzat. Jainkoak heien erdian eta heiekin beira dezala partida irabazi arte.*¹⁸³²

Saint-Pierrerenentzat ohorea zen euskaldunetz halako laudorioak entzutea. Laudorioak, kasu hartan, ez ziren soldadu gisa zituzten kalitateei buruzkoak, baizik eta giristino gisa zuten kalitateari buruzkoak. Eta Saint-Pierreri ohoragarri zitzaion euskaldunak eredugarri izatea sail horretan. Halaber, Euskal Herrian bizi ziren biztanleak ere mezara joaten zirelako pozik zegoen, Euskal Herriatik itzuli berria zen soldadu batek jendea mezan ibiltzen zela kontatu ondoan:

Egun horiekin Eskual Herrian gerthatu den omonier baten ahotik entzun dut han ere arras ederki eta kartsuki iragan direla pesta hoik. Gaurko mintzaldia soldadoeri hortaz zuen, etzuela ezagutzen, Eskual herria hango soldadoez baizik, bainan orai bazakiela hango berri berak ikusirik, bai Cambon, bai Baionan bai Hazparnen, eta oren batez chehatu deraizku horko familien etsemplu hunkigarriak.

*Eskualdun andana bat baikinen han, ez zitzaunkun guti eder holakoan entzutea, bertzen aintzinean.*¹⁸³³

Gerlan ziren euskaldunentzat garrantzitsua zen mezara joatea, *Eskualduna*-ren arabera, baina fedea ez zen gerlako egoerara mugatua edo egoera haren ondotik berpiztua, euskaldunen kasuan, astekariko artikuluak irakurriz. Fedea barna sartua bide zuten, eta horren seinale zen Euskal Herrian ere praktika giristinoek segitzen zutelako kontu hori. beste gisa batez errateko, behin mezara joan nahi ez zuen soldadu zahar baten jarrera kritikatu zuen Jean Saint-Pierrek, erranez soldadu hark «bereak eta asto beltxarenak» entzun zituela¹⁸³⁴.

¹⁸³¹ Jean Elizalde, «Nork nahi daut katixima bat igorri?», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 4a.

¹⁸³² Jean Saint-Pierre, «Ruch Jaun apaizpikua», *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.

¹⁸³³ Jean Saint-Pierre, «Umiasaindu», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 17a.

¹⁸³⁴ Jean Saint-Pierre, «Mezaz futitzen», *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 26a.

b) Beste mezak

Asteroko edo iganderoko mezak eta besta buruetakoak bereiz aipa daitezke, ez hainbeste giristinotasunaren agerraldian anitz aldatzen duelako, baizik eta Eguberri, Pazko eta Omiasainduko mezek eta ospakizunek gainerako egunetakoek ez zuten pisu edo erranahi berezia zutelako. Horien artean ere bereizketa bat egin daiteke; batetik aipa daitezke Andre Dena Mari eguna eta Pazko eguna, eta bestetik Eguberri eta Omiasaindu. Alabaina, ondoko adibideak aztertzean ohartuko gara soldaduek ez zituztela larritasun berarekin bizi egun batzuk eta besteak.

Andre Dena Mari eguneko mezari dagokionez, Jean Saint-Pierrek egun hartako besta aipatu zuen eta soldaduen fedea zinez azkar zela erakutsi. Baina, egun haren ifrentzuaz ere idatzi zuen, gorago aipatu dugun egoera baten isla zena, alegia: erreketan zeuden soldaduek ezin izan zuten mezara joan, eta horrek pena eman ziela kontatu zuen Saint-Pierrek¹⁸³⁵. Alabaina, hor bereizten zen igande arrunt bateko edo besta buru bateko egoera. Igande arrunteko meza, goizean ez bazen arratsaldean segi zezaketen, edo egun batez ez bazen bestean. Besta buru batekoa aldiz, urtean egun bakarrean izaten zen. Andre Dena Mari eguneko mezara ezin joanez penaturik zeudenak aipatuz, begi bistakoa da Saint-Pierrek berriz ere erakutsi nahi zuela euskaldunak zein giristino serioak ziren.

Pazko egunez ere euskaldunen fedea zein indartsu agertu zen txalotu zuen. Erljio giristinoaren ospakizun handiek leku handia zuten, hain zuzen, Jean Saint-Pierreren testuetan. Adibidez, Pazko hurbildu ahala, zenbait aipamen egiten zituen, erranez euskaldunak trumilka inguratzen zirela elizara eta eliza gaietan ere euskaldunak nagusi zirela:

*Elizak bazter hautan soldadoz betheak ikusi behar lituzkete, goiz arratsetan, horko aho handi batzuek.*¹⁸³⁶

Azpimarratzeko zatia da «aho handi» horiena. Itxura guztien arabera, laikotasunaren aldekoen kontrako esaldia zen. Horrez gain, elizatik ateratzean soldaduek bihotza azkarturik zutela ere idatzi zuen, beraz meza bihotz altxagarri gisa aurkeztu zuen. *Zerbitzari*-k beste arrazoi bat ere eman zuen soldaduak Pazkoko mezara joateko: Jainkoarekin «konduak garbi» behar zituzten¹⁸³⁷.

¹⁸³⁵ Jean Saint-Pierre, «Andre dena Maria», *Eskualduna*, 1915ko agorrilaren 27a.

¹⁸³⁶ Jean Saint-Pierre, «Pazkoak», *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 2a.

¹⁸³⁷ Jean Elizalde, «Konduak garbi», *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 28a.

Eguberri egunak are garrantzi handiagoa zuen. Euskaldunak Eguberriko kantuen emateko elkarretaratzen zirela idatzi zuen Saint-Pierrek¹⁸³⁸. Beste urte batez, Eguberrietako mezak ahal bezala nola ematen zituzten kontatu zuen, baina euskaldunek hitzordua ez zeukatela huts egitekoa gehitu zuen:

*Pausu tokietan zauden gizonetarik hanitz hurbildu dire mahain sainduetara, Eskualdunak bereziki.
Aintzindari hanitz ere bai.¹⁸³⁹*

Horrelako xehetasunak kontatuz erakustera eman nahi zuen besta giristino horiek zer garrantzia zuten bere begietan. Berez egun garrantzitsuak direnak giristinoentzat, gerla denboran garrantzi handiagoa hartzen zutela islatzen zen Saint-Pierreren eta besteen testuetan. Beste batean, 1918ko urtarrilean, bozkariozko eguna izan behar zukeen hori zein tristeki iragaten zen aipatu zuen, ordea:

Gauerdia da laster: ene aldia erreka lerroetan argi artino ibiltzeko, nun zer gertatuko den gau beltzaren erdian.

Eguberriko gauerdia, ezkila gabekoa, bozkario gabekoa, bertze gauak iduria; bihotzean bakarrik bertze orduz ezagutu gozoaren orhoitzapena.¹⁸⁴⁰

Herriminaren kutsu bat sendi daiteke pasarte horretan. Baina herrimina baino gehiago, etxeko goxotasuna, familiarekin egotea eta Eguberriko negu hotza nola berotu ohi duen erakustea zen artikulua ondo. Bereziki Eguberri bake eguna izanik, gerlaren erdian egotea zen mingarri, edota ohiz kanpoko eguna ohiko eguna izatea. *Zerbitzari*-k idatzi zuen Eguberri mezara joateko okasio bat zela, baina alemanen bonben mehatxuagatik, hori ere ez zezaketela lasai egin gehitu zuen:

*Gauaz haatik bakotcha bere chokoan egon da, Alemanen beldurrez. Diren bezalakoak elizeri baitire guziz aihar deusik sumatu balaukute gauerditan, karraskan hasiko zitzauzkun beren kanoiek.
Hainbertze nahiko ginuen ba, herritar maiteak Jesus Haurrari zuekin batean othoitz egin!¹⁸⁴¹*

Ororen buru, besta eguna izan behar zuten horiek, egun gogorragoak ziren, kontrastea nabari gelditzen baitzen. Egundurteagoa da, berez, Omiasaindu, hilak ekartzen baitira gogora. Eta gerla garaian, egun hark karga berezia zuen, gerlan hildakoek baitzuten leku guztia. Jean Saint-Pierrek 1915eko azaroan azpimarratu zuen Omiasaindu inguruan, hilak zituztela gogoan, bestenaz ere urte hartan, familia gehienek bazutelarik hurbileko bat hila¹⁸⁴². Gauza bera adierazi zuen beste artikulua batean ere, erakustera eman ez Omiasainduko meza negarrek agerian uzten zutela gerlak eragiten zuen sufrimendua,

¹⁸³⁸ Saint-Pierre, «Eskualdun kantikak». 1915/1/8.

¹⁸³⁹ Saint-Pierre, «Eguberri». 1916/1/7.

¹⁸⁴⁰ Jean Saint-Pierre, «Laugarren eguberri», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 4a.

¹⁸⁴¹ Elizalde, «Oi Eguberri gaua». 1916/1/7.

¹⁸⁴² Saint-Pierre, «Gerlako hilarriak». 1915/11/19.

familia gehienetan bazelako hil bat¹⁸⁴³. Jarrera hori orokorra zen Annette Beckerren arabera. Hots, fedearen agerraldiaren lekukotasun anitzez gehiago izaten zela hilen ehorzketei edota Omiasainduri buruz¹⁸⁴⁴.

c) Otoitzaren presentzia

Mezak hitzordu finkoak baziren – nahiz eta gerlako gorabeherak ordutegi eta egutegiak baldintzatu – bazen beste biderik fedearen adierazteko, hitzordu finkorik gabeko bideak. Bide hori otoitza zen. Otoitzak sekulako presentzia zuen *Eskualduna*-ko artikuluetan. Ez dezakegu osatu otoitz egiteko deia egiten duten edo otoitzari erreferentzia ttipiena egiten dieten artikuluen zerrenda, hain litzateke luzea. Jean Saint-Pierreren eta *Zerbitzari*-ren testuetan leku handia zeukan otoitzak. Jean Saint-Pierre, adibidez, soldaduek maiz otoitz egiten zutela azaldu zuen, batzuetan anekdoten bidez, non arrosarioa egiten zutela zehaztu zuen. Egur zama bati buruz mintzo zen behin, eta kontatu zuen azkenean egurra utzi eta arrosarioa hartu zutela¹⁸⁴⁵.

Zerbitzari-k artikulua anitzetan aipatzen zuen otoitza; adibidez, lubakietan otoitz egiten zutela errateko. Ondoko adibidean, erlijioaren praktikatzeko modu desberdinez mintzatu zen, baizik eta mezara joaten zirela, han kantatzen zutela gogotik, arrosarioak ematen zituztela astean bitan eta gainerako uneetan noiznahi otoitz egiten zutela, lubakien erdian ere, horretarako asti ttipiena zutelarik:

Bainan dakidana da, eskualdun soldadoek beren eginbidea egingen dutela. Ah, ikusten bazintu eta entzuten! Zer gizonak!

Funtsean, nola ditake bertzela? Fedea badute; Jainkoarekin bakean dire, heriotzeak ez ditu lotsatzen.

Zer meza bezperak igandetan! Segur hemengo elizek ez dituzte ahantziko Eskualdun soldadoen «Jainkoaren Ama» eta «Uhalde baten pare» ederrak.

Gehiago dena, Eskualdun soldadoeri etzaiote aski igandetan elizarat ibiltzea: astean bi bilkura badituzte arratsetan, arrosarioaren emaitako, Sakramendu Sainduaren benedizionearekin. Ez dea eder?

Eta bertzalde zenbat othoitz ez dute egiten? Ori, huna froga bat, gogotik kazetan ezarriko duzuen.

Bayonako errechimendua trantchetarat abian zen; orenaren goait. Durquet baztidar apheza, bere gizonekin choko batean zagon. Egon eta egon, orena ez heldu. Ohartzen dire betbetan oren erdi bat goizegi prestatu direla. «Zer egingen dugu, diote Durquet-ek bere lagunerik?» – «Gora gora arrosarioa erranen, bertzek ihardets, arrosarioa emaiten dute. Eta gero, orena baitzen, joan ziren trantchetarat.»¹⁸⁴⁶

¹⁸⁴³ Saint-Pierre, «Umiasaindu». 1916/11/17.

¹⁸⁴⁴ Becker, *La guerre et la foi. De la mort à la mémoire 1914-1930*, 40.

¹⁸⁴⁵ Jean Saint-Pierre, «Egur zama», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.

¹⁸⁴⁶ Elizalde, «Martchoaren 8an». 1915/3/19.

Beste behin ere aipatu zuen nola biltzen ziren soldaduak otoitz egiteko, bakarrik ez bazen, taldean, elizan:

Orai bezenbat othoitz ez dute maiz egin soldadoek. Noiz izan dute ere orai bezenbat errechtasun? Igan de goiz-arratsaldetan eliza mukurru bethetzen da. Eta zer errepikak! Astean arrats guziez andana handi bat, zazpi orenak aintzintchean, biltzen da elizarat apezarekin arratseko othoitzaren egiteko.

Zuhurrak dire holako soldadoak. Badakite ez dutela bethi othoitz egiten ahal, eta bide luzeari lotzerat doanak bezala dute egiten: gerokoa hartzen. Chahakoa aintzinetik bethetzea ez othe da hobe, zer gerta ere?¹⁸⁴⁷

Bazekiten ez zutela beti otoitz egiteko aukerarik izaten, eta horregatik egiten zituzten ahal zutenean. Orrialde batzuk lehenago azaldu dugu Annette Beckerrek dioenaren gisan, ezin zutela mezara nahi zutenean joan, gerlarengatik. Otoitzekin ere gauza bera zen, *Zerbitzari*-ren lekukotasun horren arabera.

Otoitza helburu batzuekin ere egiten zuten, hala nola zerbaiten erdiesteko. Adibidez, lohi artean zirenean, otoitz egiteko eskaera egin zuen *Zerbitzari*-k, eguzkia atera zedin¹⁸⁴⁸. Hots, anitz otoitz egiten zutela errateaz aparte, irakurleei soldaduen alde otoitz egiteko deia etengabea zen *Eskualduna* astekarian. Saint-Pierrek kontatu zuen behin eliza ederrak zirela zeuden lekuaren inguruko herrietan, eta soldaduak arrats guziez mezara joaten zirela. Artikulu berean Euskal Herrian bizi ziren euskaldunei ere deia egin zien otoitz egin zezaten¹⁸⁴⁹. Gerla irabazteko ere otoitz egiteko eskatu zien euskaldunei. Batean, Saint-Pierrek iragarri zuen lasaitasun une batean zeudela, baina ez luzazko, euskaldun batzuk gudu gogorak ukanen zituztelako. Saint-Pierrek ez zuen dudarik alemanek galduko zituztela borroka horiek, baina hala ere irakurleei otoitz egiteko eskatu zien¹⁸⁵⁰. Antzeko eskaera bat egin zuen *Zerbitzari*-k ere beste behin:

Herritar maiteak, sinhets zazue oren hori hurbiltzen ari dela, menturaz hurbildua dela. Lagun gaitzazue hortik. Egunetik egunerat, orenetik orenerat heda ditake gudua. Uste gabeen, hedatuko da, sua mendian hedatzen den bezala. Orduan ichuriko da odol. Berriz busti beharko dute begiek. Sekulan baino kartsukiago, egizue guretzat othoitz...¹⁸⁵¹

Gisa berean, laster Verdunera igorriko zituztelako solasaz idaztean, nora joanen ziren ez zekitela, baina irakurleek haientzat otoitz egin zezaten galdegin zuen¹⁸⁵². Ez zuen dudan ezartzen alemanei nagusitzeko tresna guztiak bazituztela, baina azken hitza Jainkoak zuela

¹⁸⁴⁷ Jean Elizalde, «Othoitz», *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 24a.

¹⁸⁴⁸ Elizalde, «Oraiko egunak». 1916/7/21.

¹⁸⁴⁹ Jean Saint-Pierre, «Elizan», *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 19a.

¹⁸⁵⁰ Saint-Pierre, «Soldadoen galde bat». 1917/2/23.

¹⁸⁵¹ Elizalde, «Eta zer diote gerlariek?». 1916/4/14.

¹⁸⁵² Elizalde, «Hegalak motz». 1916/4/28.

erranez, otoitz egiteko eskatu zuen beste behin¹⁸⁵³ eta berriz¹⁸⁵⁴. Gerlaren azken urratsetan, lau urte lehenago hasi zela idatzi zuenean, ez zela bukatzekotan eta otoitz egiteko eskatu zuen¹⁸⁵⁵.

Baina bereziki, otoitzari esker kemena bazutela aipatzen zuen Jean Saint-Pierrek. Batean zehaztu zuen Paueko erregimentuek erretreta egin zutela hiru egunez, hala nola predikuak entzuteko, kofesatzeko eta horrelakoak egiteko¹⁸⁵⁶. Halaber, euskaldunak soldadu onak zirela eta sinestea azkar begiratzen zutela, otoitz eginez, gehitu zuen¹⁸⁵⁷. Hiltzekotan zirenean, hil baino lehen otoitz egin nahi izaten zutela ere idatzi zuen. Behin, ospitalean lagun bat bisitaturik atera zela kontatu zuen. Hiltzen ari zen oloroar batek otoitz egiteko eskatu omen zion, otoitz egin zuen eta hil zen¹⁸⁵⁸. Kontrako adibide bat da hurrengoa. Batek zauri larriak zituen, baina otoitz egin ondoan sendatu zela kontatu zuen. Zauria ur bedeinkatuarekin garbitu eta sendatu omen zioten:

Bazuten horrat ekharria soldado bat, izigarriki kolpatua, ez baitzuen gehiago ezagun, ez ahorik, ez sudurrik, mihiak eta oro xehakatuak, gizonaren itxura galtzerainokoan. Gizon hori ez du mediku batek egundaino geroztik hunkitu; baxharrik eri arthatzale andere on batek, apez baten laguntzarekin, egun oroz lotzen zion bere saki izigarria, goiz guzia hortan iragaiten baitzitzaioten.¹⁸⁵⁹

Pasarte hori zauriei buruzko atalean ere sar zitekeen, zauriak zein bortitzak eta itsusiak ziren gordinki erakusten baitu. Ez zioten bizirik segitzeko itxaropenik ematen, baina Saint-Pierreren arabera, erlijio kontuek salbatu zioten bizia.

Denak ez ziren salbatzen, ordea, eta hilen eta sarraskien aurrean ere otoitz egiteko eskatu zuen *Zerbitzari*-k. Hilek otoitzak behar zituztela azaldu zien amei:

Ama onak, loreen orde emotzute zuen othoitzak. Hitz dautzuet eskerrak guzien gatik zor ditutzuela Jainkoari.

Hil dire zuen haurrak. Bainan badute egoitza. Nihor bidean ez da iraganen haur gaichoentzat othoitz bat egin gabe. Eta gisa hortan hil gaichoak ez dute deusen beharrik izanen, zuen orhoitzapen baten baizik.¹⁸⁶⁰

Otoitza kontsolamendua ere izan zitekeela ikus daiteke orain aipatu pasartean. Hilek ez bazuten deusen beharrik otoitz haiei esker, familiak ere goxatzen bide zituzten

¹⁸⁵³ Jean Elizalde, «Ondoko eguneri buruz», *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.

¹⁸⁵⁴ Jean Elizalde, «Azken hitza», *Eskualduna*, 1918ko apirilaren 19a.

¹⁸⁵⁵ Jean Elizalde, «Bortzgarren urthea», *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 19a.

¹⁸⁵⁶ Jean Saint-Pierre, «Erretreta», *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.

¹⁸⁵⁷ Saint-Pierre, «Eskualdun: fededun». 1916/6/9.

¹⁸⁵⁸ Saint-Pierre, «Giristino». 1915/3/5.

¹⁸⁵⁹ Jean Saint-Pierre, «Maiatzeko deboziona», *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 14a.

¹⁸⁶⁰ Elizalde, «Hemengo hil-herriak». 1917/2/2.

segurtamen hori emanez, nahiz eta semearen falta otoitzek ezin zuten ordezkatu. Baina Annette Beckerrek dioen bezala, otoitzak bazuen kontsolamendu funtzio hori:

Il est plus facile de faire de belles phrases que d'aimer et de souffrir. Mais la foi donne des ressources insoupçonnables. Enterré en uniforme, le jeune soldat sera-t-il à jamais cette sentinelle? Il reste à ses parents le réconfort de la prière.¹⁸⁶¹

Otoitzaren leku handi horrek erakusten du soldadu fededunentzat eta haien familientzat garrantzitsua zela, baina bereziki erakusten du *Eskualduna*-k soldaduen girstinotasuna azpimarratu zuela, horren bidez.

Soldaduak girstinoak zirela goraki argi utzi nahi izan zuen *Eskualduna*-k. Batetik, euskaldunak berak fededun onak zirela erranez, fededun onak izanez soldadu onak ere bazirela adierazi zuen, gisa horretan, fededun ona izatea eta frantses ona izatea elkarrekin lotuz. Are gehiago, soldadu girstinoak aipatzean, ez zen mugatzen euskaldunetara, eta bereziki azpimarratu nahi zuen gerlan zeuden frantsesak girstino eredugarriak zirela. Euskaldun izan ala ez, lehen lerroetan zirenen jarrera girstinoa goretsiz, Frantzia salbatuko zutenak girstinoak zirela azpimarratu zuen.

B. Jainkoa Frantziaren alde

Soldadu girstinoak goraiatzeaz aparte, beste bide batetik ere lotu zuen Frantzia girstinotasunarekin. Maiz aipatu zuen Jainkoa bera Frantziaren alde zegoela gerla hartan. Lehenik, apaizak berak gerlan ibili zirela eta garesti ordaindu zutela azpimarratu zuen *Eskualduna*-k, apaizen engaiamendu desberdinak ohoratuz. apaizek presentzia handia zeukaten artikuluetan, baina baita Jainkoak berak ere. Gerla irauten ari zen bitartean, berriktariak maiz errepikatzen zuten Jainkoa Frantziaren alde zela, eta ez Alemaniaren alde. Gerla bururatu ondoan, edo gudu batzuk irabazi ondoan, garaipen haiek Jainkoari zor zitzaizkiola azpimarratzea ere gustatzen zitzaion *Eskualduna*-ri, azken puntuan ikusiko dugun bezala.

¹⁸⁶¹ Becker, *Les monuments aux morts. Mémoire de la Grande Guerre*, 97.

I. Apezen sakrifizioa

Eskualduna astekarian idazten zutenak, bai Baionatik, bai gerla lekutik, apaizak ziren, Jean Etxepare salbu. Ulegarri da beraz apaizen engaiamenduaz aipamen bereziak egin zituzten. Ikusiko zer moldez azpimarratu zituzten apaizen sakrifizioak. Batetik, polemika giroak hartara behartu zituela aditzera eman zuten, hain zuzen, apaizen balentriak aipatzen zituztelako haien kontrako akusazioei erantzun gisa. Bigarrenik ikusiko dugu zer idatzi zuten apaiz soldaduez eta nola goraiatu zituzten.

a) Antiklerikalen akusazioak

Apezek hainbat kritika jasotzen zuten, gerla garaian, *Eskualduna* irakurriz ageri den bezala. Gisa bateko eta besteko kritikei erantzuten tinta franko isuri zuten lau urte haietan zehar. Alde batetik, Hego Euskal Herriatik eta Espainiatik Frantziaren kontra hedatzen ziren kritikek min egiten zietela erakutsi zuten. Ez ziren Frantziaren alde ageri, Frantziak erlijio giristinoa baztertu zuelakoan, hala nola 1905eko legetik landa. Jean Saint-Pierrek, «Zer eta zer» sailean idatzi zuen, kritika haiei erantzunez, baizik eta Frantziak erlijioarekiko zuen jarrera hori diputatuengatik zela. Artikulu haren arabera, aleman anitz bazen Espainian, baina espainiarrak bakearen alde ziren. Euskal Herriko auzapez batek erran omen zuen Frantziak irabazteak on guti ukanen zuela haientzat:

Zer da bada? Frantzia erlisionearen etsai, Frantzia nahasmendu guzien ithurri pozoindatu, Frantzia eskandala emaile.¹⁸⁶²

Errozute Frantziako katolikoak ez direla hobendun gobernamentuaren tzarkeriez, ez dela zuzen Frantzia guziaren zikintzea lege tzarrak egin dituztelakotz gure deputatuek, fedea azkar dagola oraino, eliza, eskola, obra zer nahi betan sortu direla lege tzarren artetik, mundu zabalean frantses apezak direla bereziki fedearen hedatzale, errozute gure soldadoak nola diren hiltzen: etzaiote aski: behar bezalakoak izan bagine, gobernamentuan ere nausi geldituko ginela!

Frantziaren jarrera laikoa kritikatzeko zutenei argi utzi nahi izan zien Frantzian ere giristino onak bazirela, eta Frantziako apaizei esker zegoela fedea azkar. *Eskualduna*-k ez zuen onartzen fedea baztertu zutenen lerroan jarriak izatea. Gainera, hori aski ez eta, beste norabideko kritikak ere jasan behar zituzten. Hain zuzen, Frantzian gairi, maiz errepikatu zen apaizak izan zirela gerlaren bultzatzaileak¹⁸⁶³. Horrelako akusazioei behin baino

¹⁸⁶² Jean Saint-Pierre, «Zer dioten gerlaz», *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11.

¹⁸⁶³ Antiklerikalen akusazioak ongi laburbilduak dira André Lorulot anarkista eta antiklerikalaren liburuan. Elizak gerlan izan zuten jarrerari buruzko bere irakurketa eskaini zuen. Elizak hainbat arrazoiengatik zeukan interesa gerla izan zedin, Loruloten ustez: besteak beste, fedea berzpiztarazten zuelako eta Frantzia laikoak eta

gehiagotan erantzun zien *Eskualduna*-k, solas haiek gain-gainetik gezurtatuz. Gerla hasi eta aski laster, Baionan gizon bat apaizen kontra mintzo zela eta gerla haiek bultzatu zutela erran zuela kontatu zuen Manex Hiriart-Urrutik:

Dena dela, gure gizona kechu zen biziki, zariola ; «Debru apez hoik ! Urhats bat eztezaket egin goizetik arrats, non nahi bi, hiru, lau ikusi gabe, karrika hok oro berenak balituzte bezala.

«Hoik gerlarat, behar ederrez : iduri-ta ez jakin orok, on baino hanitz kalteago direla gerlan apezak ! Hasteko ez ginuke gerlarik, ez balitz apezik.

«Eta gero, herriaren trahitzeko baizik ez dire. Gerla huntan berean nork daki zonbat den hoitarik Frantziako armadetan alemanaren alde» ?

Oro harrituak gizonari beha, burutik othe zuen ala zer ?

Batere : gerla egun hits hautan, Jainkoari esker, guti diren bezalako barne egosi tzarretarik bat zen, haguna zolatik goiti zariola, dena lohi.¹⁸⁶⁴

Hiriart-Urrutik nabarmendu zuen delako gizon hura ez zela euskalduna, hots, erran nahi zuen euskaldunak ez zirela apaizen kontra mintzo zirenak eta giristino onak zirela. apaizak alemanen alde zirelako akusazioari beste batzuetan ere erantzun zien *Eskualduna*-k; ondoko honetan, adibidez:

Aita Sainduaren iduriko eta barne tzar, chede nahasi beretako apezpikuak, eza? Eza apezak? Eza ere aberats apeztiar dirudunak?... Guziak oro, edo gehienak ez direa Frantziaren etsaiekin besoz beso ibilki bethi, agerian ez bada, gordeka?

Horra zer derasaten omen frantses batzuek Frantzian. Eta noiz? Memento izigarri huntan.¹⁸⁶⁵

Elizgizonen eta Frantzia laikoaren aldekoen arteko gatazka islatu zen, beraz, gerla hasi eta laster. Beste behin gerla apaizek sustatu zutela erran zutenei erantzun zien Hiriart-Urrutik:

Gerlaren piztalea nor den, zer den, zer eta nor izan den, orotan ez bada, gehienetan, bethidanik, galda zozuete gure etsai framazon eta diren bezalako nahasi tzar horier. Ahoa bethez erranen dautzuetu direla izan eliza gizon, fededun, apezak eta apeztiarrak.

Gezur bat hori, deus dakitenek nekez sinetsiko dutena; bizkitartean, erranaren bortchaz, jende cheheari asko aldiz irets-arazi diotena.

Erlisionearen etsaiek ba; ezin ikusiz begien aitzinean erlisionea, piztu dute hogoita bortz aldi gerla, pocholuz erlisionea, suntsitu, ezeztatu nahiz.

Bainan erlisionea, bereaz bera, ez da gerla piztale; kontrarat.

Bakarrik herriaren amodioa da, herriko zuzenen zaintzeko karra ba sustatzen du, azkartzen bihotzean, bizi atchikitzen; soldadoari alchatzen dio bihotza erlisioneak; erakasten dio bere eginbidea; gogoan ezartzen: eginbidetan den handienari, herriaren begiratzekoari ez diola behar egin uko.

errepublikak gerla galduz gero, monarkia eta sistema klerikala itzuliko zela espero zuelako. André Lorulot, *L'Eglise et la Guerre* (Herblay: Editions de l'Idée libre, 1932), 39; 117.

¹⁸⁶⁴ Hiriart-Urruti, «Biba Frantzia». 1914/9/11.

¹⁸⁶⁵ Hiriart-Urruti, «Zorria leher». 1914/10/2.

*Hori zeiea gaizki zonbeiti? Non litake herria? Non ginitazke oro, zoin gureaz gure, soldadorik ez balitz, ez armadarik, ez herriko zedarrien zaintzalerik? Arrotz etsaiari nork nola iharduk, zuzen kontra jazarri nahi zaukunean, edo gure lurreri, ontasuneri lothu.*¹⁸⁶⁶

Apezek ez zutela gerla sustatu errateaz gain, apaizak bakezaleak zirela azpimarratu zuten. Baina bereziki adierazgarria den zatia da apaizek, erlijioari esker, soldaduei Frantziaren alde borrokatzeko kemena ematean funtsezko papera bete zutela, erlijioak soldaduei bihotza berotzen ziela, beren eginbideari ez ziezaioten uko egin.

Geroago ere izan zen antzeko akusazio bat, eta hartan ere apaizen jarrera justifikatu zuten *Eskualduna*-k. Albert De Mun-ek *Echo de Paris* egunkari «onean» idatzi zuen artikulua bat erabili zuten akusazio haiei erantzuteko. Akusazioaren arabera, apaiz frantsesek dirua ematen zieten alemanei, eta hori sinesten zutenak bazirela salatu zuten *Eskualduna*-k. Horregatik erantzun zuen Baionako elizbarrutitik 400 apaiz soldadu bazirela:

*Lau ehun apez gure diosesa huntarik beretik, bertzeak bertze, soldado direlarik, batzu eri arhatzen, kolpatu karrean harat hunat ibilki, lehertuak, bertze hanitz suan, zakua bizkarrean, harmak eskuan, tiroka, hanche ari; ja zonbeit hilak; 'dekoratuak' hanitz, kuraia gaitza erakutsirik; eta ororen sari, hatsa gezurra hor gizon batheiatu, elizan ere dabiltzan batzuek: apezak direla, Aita Saindua dela gerla hunen piztale eta iraun-arazle.*¹⁸⁶⁷

Artikulu hartan apaizen kontrako akusazioen inkoherentziak azpimarratu zituen Hiriart-Urrutik: batetik gerlaren arduradun egiten zituzten, baina baita bakezale ere. Bake otoitzak egiteaz akusatzen omen zituzten apaizak, baina «guk bakea nahi dugu, guk irabaztekotan, ez etsaiak!» oihukatuz erantzun zuten.

Azkenik, apaizen kontrakoek erraten omen zuten apaizek ez zutela gerla lehen lerroetan egiten eta lasai bizi zirela, Blaise Adémaren artikulu baten arabera. Egunkari «gorri» batek salatu zuen apaizak ospitaleetan ari zirela lanean, sutik ihes egiteko. Diputatu batek galdetu zuen apaiz horiek sura igortzeko. Gerlako ministroak erantzun zion soldadugoa hamar urte baino geroago egin zutenak, beren adinekoekin zeudela suan; eta hamar urte baino lehenago egin zutenak eritegietan zeudela, legeak zioen bezala. Adémak eman zuen azalpena zen apaizen kontrakoek ez zutela jasaten apaizak gerlara joan izana, horrela haien fama hobetzen baitzen eta, gainera, ezin baitzieten gerlari uko egin izana leporatu eta haien kontra jazarri. *Eskualduna*-ren erantzuna zen apaizek gerla egiten zutela besteek bezala:

¹⁸⁶⁶ Hiriart-Urruti, «Bake ala gerla?». 1914/7/31.

¹⁸⁶⁷ Manex Hiriart-Urruti, «Gerlaz hobendun, hobendun bakeaz», *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 26a.

*Bizpahiru aldiz ja errana dautzuet, nola Frantses guzien artean etsaiari buruz behar liteken batasun hertsia ez duten zenbeitek beiratu nahi. Hoiiek jasan ez dezaketena hauche da: apez soldadoek beren soldado lagunen ganik duten amodioa, eta herri guzian bildua duten omen ederra.*¹⁸⁶⁸

Giro hartan, *Eskualduna*-koei laket zitzaien erakustea apaizek gerlan seriooki parte hartzen zutelara, eta haien fama hobetzen ari zela. Behin Jean Saint-Pierrek kontatu zuen soldadu batek bazuela apaizen kontrako hitz gaizto bat larruan idatzia, eta zauritu zutenean apaiz soldadu batek artatu behar izan zuela¹⁸⁶⁹. Gerla denboran soldaduen artean giristinotasuna iratzartzen ari zela ikustea eder zitzaion bezala, egoera hark erlijioaren kontrakoan kexua pizten zuela ere nabarmendu zuen *Eskualduna*-k. Hain zuzen, batzuek apaizei leporatzen zieten gerlaz baliatzea eliza giristinoaren propaganda egiteko:

Erlisionearen etsai handienen begiak ohartuak dire aspaldian, eta kazetak deiarrez betheak ikusi ditugu, baizik eta nausitzen ari dela armadetan erlisionea; holakorik ezin jasan dezaketela, bertzenaz «libertatea» Frantziatik debruak eraman duela...

*Hola mintzo direnean, hein batean bederen sinhesten ahal ditugu. Larruaren barnean ez dauzkenean, bada hor zerbeit, minberatzen dituena.*¹⁸⁷⁰

Eskualduna ez zen kexu erlijioa handitzen ari zelako, eta egoera horretaz kexatzen zirenez mintzatzean ere, ez zuen erabili kexu horren salatzeke, baizik eta kexu hori erlijioaren haztearen seinale gisa erabiltzeko. Jacques Fontanak ere ondorioztatu du garai hartan erlijioaren berpizteak polemika piztu zuela eta egunkari batzuek Elizaren kontrako mezuak idazten zituztela. Baina horrek gizartean antiklerikalismoa errotua izatea erran nahi zuela gehitu du:

*Malgré le sursaut de ferveur religieuse qui s'est dessiné au début, ou peut-être à cause de lui, l'opposition entre catholiques et anticatholiques n'a fait que se durcir, révélant ainsi la profondeur de l'œuvre de déchristianisation dont la loi de Séparation n'a pas été le point de départ, mais plutôt une résultante.*¹⁸⁷¹

Giristinoen eta giristinoen kontrakoan arteko polemika hori islatu zen *Eskualduna* astekarian. Eta hori ez zen bakarrik nabari oraintxe aipatu ditugun adibideetan, baizik eta astekariak Eliza Frantziaren defendatzaile handien gisa aurkeztu nahian. Artikulu batean azpimarratu nahi izan zuen Alsazian apaizei esker Frantziarenganako atxikimendua errotu zela, jendea biziki giristinoa baitzen:

Alsaceko bihotza oraino gure balinbadugu, zor diogu bereziki apezari, bethi gure alde agertu baitire, frantses mintzaiaeren erakusle. Lege batzuek gutarik urruntzen zutelarik populua, apezek argitu dituzte

¹⁸⁶⁸ Blaise Adéma, «Tzarkeria», *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 10a.

¹⁸⁶⁹ Saint-Pierre, «Apeza besoan». 1915/1/29.

¹⁸⁷⁰ Saint-Pierre, «Erlisionea gerlan». 1915/7/9.

¹⁸⁷¹ Fontana, *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*, 154.

*Frantziaren fedez mintzaturik, gure on gaitzak garbiki berexirik, alemana gure aphaltzen ari zen denboran.*¹⁸⁷²

Alsazia karga sinboliko handikoa zen Lehen Gerla Mundialean. Eta Jean Saint-Pierrek erraten zuenean Alsazian Frantziarenganako atxikimendua apaizei esker izan zela, erraten ari zen frantses nazionalismoaren zauri minberenaren sendatzea apaizei zor zitzaizela. Alegia, laikotasunaren aldekoek apaizen kontra egiten zituzten kritikei erantzuteaz aparte, astekari honek grina berezia erakutsi zuen apaizen defentsa egiteko, eta frantses onak zirela erakustez gain, frantses hoberenak zirela azpimarratzeko.

b) Apez soldaduak

Frantzian 1905etik – eta baita lehenagotik ere – laikoan eta Elizaren aldekoen arteko polemikaren jarraipenaren testuinguruan kokatu behar da *Eskualduna*-k hainbeste aldiz azpimarratzea apaizek zenbaterainoko inplikazioa izan zuten gerlan. Elizaren inplikazioaren adibide gisa, Reims-eko kardinalaren solasak ekarri zituen bere astekarira Jean Saint-Pierrek. Katedrala bonbardatu zioten kardinala, soldadu zaurituei bisita egitera joan zenean, zaharturik ikusi omen zuen. Horiek hola, artikuluaren arabera, kardinalak adierazi zuen katedrala berrituko zutela eta gerla irabaziko¹⁸⁷³.

Lan honen hastapenetik ageri da *Eskualduna*-ko apaizak gerlan guztiz bustiak zirela eta gerlazale ere agertu zirela. Ez zen hori bakarrik; *Eskualduna*-k azpimarratzen zuen apaizak inplikatuak zirela gerlan; ez zen astekariaren inplikazioa bakarrik. Jean Lestocquoy ere apaizen gerlazaletasuna eta Frantziarekiko abertzaletasuna azpimarratu dutenatariko bat da¹⁸⁷⁴. Jacques Fontanak ere dio apaizak sutsuki ibili zirela Frantziaren defentsan, gerla hartan:

*Quand on dit que le prêtre a fait preuve de dévouement et d'abnégation, on dit vrai. Car il a trouvé, depuis sa mobilisation, un champ d'apostolat immense. Il l'a cultivé pendant quatre ans, et jamais il n'a douté de sa mission. Celle-ci lui était imposée par la guerre : il devait défendre la France.*¹⁸⁷⁵

Apezen parte hartzea hainbat modukoa zen. Frantziako 32.699 elizgizon mobilizatu zituzten, horietatik erdia osasun sailean¹⁸⁷⁶ inplikatu zen. Beste 1.500 omonier gisa ibili zen, eta Jean-Jacques Beckerren arabera, funtsezko papera bete zuten, hiltzen ari zirenen

¹⁸⁷² Jean Saint-Pierre, «Bigarren erengura», *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 15a.

¹⁸⁷³ Jean Saint-Pierre, «Reims-eko kardinala», *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 28a.

¹⁸⁷⁴ Lestocquoy, *Histoire du patriotisme en France. Des origines à nos jours*, 215.

¹⁸⁷⁵ Fontana, *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*, 305.

¹⁸⁷⁶ Becker, *La guerre et la foi. De la mort à la mémoire 1914-1930*, 36.

ondoan. Antoine Redierrek dio, aldiz, omonierrek ez zutela administrazioaren eta agintarien laguntzarik, «botererik gabe» utzi zituztelako etengabe:

*En réalité, le clergé de France à la guerre fut systématiquement laissé, par l'administration malveillante ou par le commandant sans pouvoir, dans un état d'abandon pur, contre lequel il réagit avec un souci de servir qui commande l'admiration.*¹⁸⁷⁷

Osasungintzan ari zirenak, hein handi batez, andazain gisa ibili ziren, Jacques Fontana eta Jacques Meyerren arabera¹⁸⁷⁸. Frédéric Rouvierrek¹⁸⁷⁹ zehaztu zuen zer andazain mota zegoen: batetik, armada gorputzari lotuak, gudu lekura noizbehinka baizik joaten ez zirenak; bigarrenik, dibisioko andazainak, astean zehar maiz ibiltzen zirenak batetik bestera, zaurituak garraiatzeko; hirugarrenik, erregimentuei lotu andazainak, borrokak ziren tokietara joaten zirenak, soldadu zaurituen bila. Beste apaiz batzuk osasun trenetan ibili zirela – zaurituak gerla lekutik Frantzia Hegoaldera eramaten – gehitu zuen Rouvierrek¹⁸⁸⁰. *Oxobi* halako trenetan ibiltzen zen¹⁸⁸¹. Jean Saint-Pierre bera ere andazain gisa ibili zen gerla hartan, berak bere lehenbiziko kronikan (frantsesezkoan) idatzi zuen bezala¹⁸⁸².

Apezen inplikazioa Estatuaren eta Elizaren bereizte legeak sortu egoera bereziaren gainetik izan zela erakustera eman nahi zuen *Eskualduna*-k. Frantziak bere lurraldetik kanporatu zituen apaiz eta fraideak gerla egitera itzuli zirela goraipatu zuen hainbat aldiz Saint-Pierrek. Aita Blaise fraidearen heriotza eta haren ehorzketa aipatu zituen behin, azpimarratuz Frantziak lehenago «Espainiara» kanporatu zuela, baina bere baitarik erabaki zuela berriz itzultzea eta gerlan engaiatzea:

*Bat mintzatu da bereziki apez fraidearen kurai gaitzaz eta Frantziari erakutsi dion amodioaz, Frantziak bizkitartean Espainian bizitzerat bortchatua zuelarik, hemen pocholuz hura zen frantses ona!*¹⁸⁸³

Hori ez zen Saint-Pierrek aipatu zuen kasu bakarra. Belokeko fraidetegitik «Espainiara» igorri zuten Landetako fraide bat hil zela idatzi zuen beste behin. Halaber, artikulu berean Akizeko beste bat ere lehen lerroan hil zela edota apaiz euskaldun bat zauritu zela gehitu zuen¹⁸⁸⁴. *Eskualduna*-k apaizen inplikazioa azpimarratzean, egia erraten

¹⁸⁷⁷ Antoine Redier, *Les aumôniers militaires français* (Paris: Flammarion, 1940), 193.

¹⁸⁷⁸ Meyer, *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*, 31.

¹⁸⁷⁹ Frédéric Rouvier, *En ligne. L'Église de France pendant la Grande Guerre* (Paris: Perrin, 1919), 233.

¹⁸⁸⁰ Ibid., 257.

¹⁸⁸¹ Ikus *Oxobi*-ri buruzko atala: 210

¹⁸⁸² Saint-Pierre, «Nouvelles de la guerre». 1914/9/25.

¹⁸⁸³ Saint-Pierre, «Gerlarien berri». 1914/12/11.

¹⁸⁸⁴ Saint-Pierre, «Apezak gerlan». 1915/2/12.

zuen, apaiz anitz joan baitzen gerlara. Philippe Fabasen arabera, Baionako elizbarrutiko 500 apaizetatik 361 falta ziren, gerlara igorri baitzituzten¹⁸⁸⁵.

Eskualduma-n ez zuten bakarrik goraiatzten apaizak gerlan inplikatu zirela, gerlan hil zirela ere azpimarratzen zuten. Jean Saint-Pierreren lehenbiziko kronikak kontatu zuen Montmirail inguruan egin zituzten borroketan Dominique Charo apaiza hil zorian aurkitu zutela, eta 1914ko irailaren 8an hil zela¹⁸⁸⁶. Lehen aipatu dugun Aita Blaise-ren herioaz ere idatzi zuen Saint-Pierrek, baina baita Hiriart-Urrutik ere. Hiriart-Urrutik ez zuen apaiz bakarra aipatu, hil ziren apaizez pluralean mintzo zen:

Frantziarentzat, Eskual-herriarentzat emaitako ukan balitu ere bi bizi, segur emanen zituen. [...] Salbatzaleak, bere irakaspen eder guziez bezenbat edo gehiago balinbadu guretzat egin bere odola ichuriz, kurutzefikatu hilez, nola ez eta zertako ez lukete bardin edo are gehiago arimentzat egiten ahal, hor gerlak adinik hoberenean deramazkigun apez kartsuek?¹⁸⁸⁷

Orotara, Euskal Herriko 25 apaiz eta 27 apaizgai hil ziren gerlan, Fabasen arabera¹⁸⁸⁸. Gerlaren lehen hilabeteetan berean idatzi zuen Hiriart-Urrutik apaiz anitz ari zela hiltzen gerlan. Baina baieztatze horren gibelean ez zen ikusi behar apaizek ordaintzen zuten prezioaz harrotzea, baizik eta erlijioaren kontra zirenei apaizak hiltzera igorri izana leporatzea. Hiriart-Urrutiren arabera, erlijioaren kontrakoek apaizak gerlara igorri nahi zituzten, hil zitezten. Haren kezka zen hiltzen ziren apaiz edo apaizgaien ordainak aurkitzea zaila izanzen zela:

Hartako zituzten ere igorri nahi gerlarat apezak, apeztasunaren eta erlisionearen herra hezurren muñari barna sarthua dakartenek, han gerlan hil ditzen apezak; hil, azkeneraino. [...] Nork dauka, zerk dauka soldado gaizoen bihotzetan hango kharra, hango kuraia, amodioa, Frantziarentzat, Eskualherriarentzat azken odol chortaren ichurtzerainoko atchikimendu zail eta azkarra? Erlisioneak, erlisioneko ministro apezek.¹⁸⁸⁹

Hiriart-Urrutiren hitz horietan islatzen zen Elizaren eta Estatuaren arteko gatazka. Baina horren gainetik, apaizek beren eginbidea seriooki betetzen zutela azpimarratu zuen, ohartaraziz haien funtzioa funtsezkoa zela soldaduak, hil aitzinekoan, artatzeko edo goxatzeko, eta hori bera kontsolamendua zela familientzat. Hori bera berretsi du Nadin-Josette Chalinek ere:

Le rôle du clergé fut important, dans les paroisses auprès des familles comme au front avec les soldats. Prêtres et séminaristes mobilisés avec les hommes de leur «classe» et mêlés à eux dans une fraternité

¹⁸⁸⁵ Fabas, «Aspects de la vie religieuse dans le diocèse de Bayonne (1905-1965)», 168.

¹⁸⁸⁶ Saint-Pierre, «Nouvelles de la guerre». 1914/9/25.

¹⁸⁸⁷ Hiriart-Urruti, «Eskualdun kaputchin soldadoa». 1914/12/11.

¹⁸⁸⁸ Fabas, «Aspects de la vie religieuse dans le diocèse de Bayonne (1905-1965)», 174.

¹⁸⁸⁹ Manex Hiriart-Urruti, «Apezak gerlarat», *Eskualduma*, 1915ko urriaren 29a.

*qui survivra à la guerre; religieuses actives dans les hôpitaux; aumôniers dépêchés auprès de ceux qui se battent: tous participent largement à l'effort de guerre.*¹⁸⁹⁰

Horrez gain, dirua edo urrea eskatzearena lehen ere aipatu dugu, *Eskualduna*-k artikulu anitz egin baitzuen irakurleei beren urrea emateko eskatuz. Jean-Jacques Beckerrek ere dio apaizek diruaren eta urrearen biltze kanpainetan buru-belarri parte hartu zutela. Halaber, gehitu du Elizak zabaldu zuen mezua zela «Frantzia giristinoa soldadu giristinoek salbatuko» zutela¹⁸⁹¹. Lau urtetako *Eskualduna*-ren zenbakiak irakurriz ateratzen den inpresioa ere hori da, Frantziaren geroa giristinoen esku zela.

2. Jainkoa Frantziarekin

Apezak ez ziren Frantziaren alde ari ziren bakarrak, *Eskualduna*-ren arabera. Eragile inportanteago bat bazegoen Frantziaren alde, hala nola Jainkoa. Lehenik esplikatu zuen nolaz zegoen Frantziaren alde. Bigarrenik, Frantziako buruzagi militarrek berak ere giristinoak zirela azpimarratu zuen, Jainkoa Frantziarekin zetorrela gehiago nabarmentzeko. Horri guztiari loturik, Jainkoari otoitz egiteko eskaera anitz egin zioten jendeari *Eskualduna* astekarian.

a) Gerla, Jainkoaren zigorra, baina Frantziaren alde

Argi ikusi da *Eskualduna*-koak eta apaizak gerlan inplikatu zirela eta inplikazio horretaz harro agertu zirela. apaizak bakearen aldekoak izatea ulergarriago edo logikoago izan zitekeen, hamar manamenduetarik bat nehor ez hiltzea denaz geroz. Oinarrizko galdera izan liteke Jainkoak nola onar zezakeen halako sarraski bat, nola onar zezakeen gerla bera. Galdera edo ohar hori garai hartan ere batzuek egiten zutelako seinale da Hiriart-Urrutiren artikulu bat. Artikulu haren arabera, batzuek zioten Jainkoak gerla ez zezakeela onar, baina Hiriart-Urrutik erantzun zuen gerla zigor bat zela, eta horrela justifikatu zuen:

Eta populu osoak, milaka, miliunka ikusi behar guk gure begiz, elgarri jazarriak hilka: batzuek bertzeri ezin aski gizon hil-araziz, hatzeman ahal tresnarik izigarrienekin!

Nola den ere hori haizu! [...] Gizonak gizon, gaichtaginak gaichtagin, bederen Jainkoak, gure Jainko onak ez kenduko gerla mundu huntarik behin bethikotz! Horra zer zautzuen heldu egun hits hautan gogora, eztea hala? Eta nori ez? [...] Ez direa batzu aski ehroak, erho bihurri Jainkoaren etsai ditaken hats gaichtoeneoak, han berean jo ditzan Jainkoak ez baitire beldur, derasatenean: "Jainkoa zuzen balitz, ez lukela behar, neholere, gerla nahi".

¹⁸⁹⁰ Nadine-Josette Chaline (zuz.), *Chrétiens dans la Première Guerre mondiale* (Paris: Cerf, 1993), 13.

¹⁸⁹¹ Becker, *La France en guerre 1914-1918. La grande mutation*, 44–47.

*Ohoin batek erran balezazu bezala da: gobernamendu zuzen batek ez lituzkela presondegiak nahi behar.*¹⁸⁹²

Hiriart-Urrutik eguneroko gizartearekin konparatu zuen Jainkoaren funtzioa: presondegia gerlarekin, gobernu Jainkoarekin eta ohoina alemanarekin. Hots, gerla, Jainkoak ezarri zuen zigorra zen, eta zigorra ontzat eman zuen Hiriart-Urrutik, gaizkileak ordaindu behar zuela zehaztuz. Gerlaren hobendun bakar gisa alemanak ikusten zituen, eta zigorra alemanen kontrakoa bide zen, nahiz eta frantsesek ere jasan zigorraren ondorioak. Baina hori lotu behar da lehentxeago sakrifizioaz erran dugunarekin. Gerla zigorra zen alemanentzat, eta sakrifizioa – beraz, saria – frantsesentzat. Hiriart-Urruti ez zen horrela pentsatzen zuen bakarra, garai hartan. Jacques Fontanak ere garai hartako giristinoen jarrerak aztertzerakoan, antzeko irakurketa egin du:

Malgré tout, pour un catholique, reste en vigueur le commandement «Tu ne tueras point». Or, on peut se demander comment il est possible de concilier ce commandement de Dieu et l'attitude qu'a adoptée l'Église de France en face de la guerre.

*[...] Ainsi, sans nier le caractère cruel et odieux de la guerre, chacun s'évertuera à démontrer qu'elle peut être juste, d'autant que, pour certains, celle de 1914 était inévitable à cause des ambitions démesurées de l'Allemagne, dangereuses pour la France, car elle en aurait été la première victime.*¹⁸⁹³

Lan honen bigarren atalean hainbat aldiz ikusi dugu gerla infernuarekin konparatzen zutela edo suaren erdia «infernu» izendatzen zutela. Infernuaren aipuekin, gerla biziki egoera bortitza eta lubakietan egotea jasangaitza zela adierazten ari ziren, baina oraintxe aipatu dugun zigorraren ideiarekin ere lot daiteke infernuaren erreferentzia, Nicolas Beaupreren arabera: infernuan ziren, bai, eta infernu guztietan bezala, deabruak baziren han. Kasu hartan, deabruak alemanak ziren¹⁸⁹⁴. Stéphane Audoin-Rouzeau eta Annette Beckerrek zibilizazio kontzeptuarekin lotu dute gerlaren eta erlijioaren arteko harremana. Haien irakurketaren arabera, alde bateko zein besteko gerlariek etsaia nazio batzuen kontrako mehatxu gisa baino gehiago, gizakiaren eta zibilizazioaren kontzeptu baten kontrako mehatxu gisa ikusten zuten¹⁸⁹⁵. Alemanak zibilizazioaren kontrako etsai gisa ikusten zituen *Eskualduna*-k ere. Halaber, alemanak deabruak baldin baziren, frantsesak aingeruak bide ziren, edo bestela errateko, Jainkoak Frantzia – zibilizazioa – babesten zuen. *Eskualduna*-ren teoria hori zen, hasteko: Jainkoa Frantziaren alde zela.

¹⁸⁹² Manex Hiriart-Urruti, «Gerla gaztigu», *Eskualduna*, 1914ko urriaren 16a.

¹⁸⁹³ Fontana, *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*, 11.

¹⁸⁹⁴ Beaupré, *Ecrire en guerre, écrire la guerre. France-Allemagne 1914-1920*, 155.

¹⁸⁹⁵ Stéphane Audoin-Rouzeau eta Annette Becker, «Vers une histoire culturelle de la Première Guerre mondiale», *Vingtième Siècle* 41 (1994): 5–8.

Nahiz eta erran Frantziako agintariek ez zutela Jainkoa aipatzen, Blaise Adémak azpimarratu zuen horrek ez zuela eraginik Jainkoaren iritzian, soldaduen aitzindariak girstinoak zirelako eta Jainkoari otoitz egiten ziotelako:

Gure buruzagiek ez dutela beren hitzetan Jainkoaren izena aipatzen. Hori ezin ukatuzkoa da. Haren ganat itzul balite, Jainkoa lasterrago urrikal litekela gutaz, hori ere uste dut finki. Bainan zeren hoik Jainkoa bazterrerat uzten duten, ez dutelakotz haren baitan sinhesterik, beldur izan behar othe dugu madarikatuak garela eta beraz galduak?

[...] Horra zertako uste dutan, gure armadetako aitzindari hoiien othoitz ederreri esker Jainkoak laguntzen eta lagunduko gaituela.

Beira bada zer gertatu den Verdun aldeko guduan. Badakizue baduela bi ilabete eta erdi gudu horrek hasia dela. Orai iduri du bururatu chea dela, Alamanak, aitzinatze edo hartu erreketan ihardokitzeko orde, gibelerat baitoazi.

[...] Berrikitan jeneral-nausi haurren ahaide batek izkribatu izan du, gertatu dela hola mirakuilu bat, gerochago jakinen dena, gerla huntan gertatu diren mirakuilu guzietarik handiena.

Ageri da Jainkoa gurekin dugula, gurekin dugu bereziki zeren gure armadetako aitzindari-nausiek baitakite hari khartsuki laguntza galdetzen behar orduan, eta hola bertze hainitzen eskasaren bethetzen. Agian laster entzunen du bere adiskide hoiien galde osoa.¹⁸⁹⁶

Hiriart-Urrutik ere idatzi zuen Jainkoa alde zutela. Charleroi-ko porrotaren eta Marneko guduaren ondoren ere gauzak eskas zituztela aitortu ondoan, lubakietan zortzi hilabetez eskas zutena bildu zutela idatzi zuen. Hori lortzea mirakulua zela ere gehitu zuen, baina mirakulu horren azalpena zen, «Jainkoa alde» zutela¹⁸⁹⁷. Jainkoa eta zuzentasuna elkarrekin lotu zituen *Oxobi*-k, eta ez zuen dudan ezartzen Jainkoak zuzentasunaren aldeko indarra eginen zuela, hots, gerla Frantziak irabazteko ahaleginak eginen zituela:

Geroa Jainkoaren da. Eta Jainkoarekin ez dugu sekula etsitu behar.

Zuzenak azken hitza bere du bethi. Zeruko izarren argia ezeztatu nahi zutenetarik errabiatuenak lurpean edo itzalean daude. Eta gaichtagin horien ahala ttipitzearekin huna nun ohart gitazkeen ahuldu dela ere Alamanen indarra. [...]

Erranak erran, eta laguntza guzien indarra ezaguturik, aithortu behar dugu Jainkoak daukala partidaren gakhoa eskuetan.¹⁸⁹⁸

Pasarte hau irakurriz gero uler daiteke erraten ari zela giltzak Jainkoaren eskuetan zirela. Horrekin pentsatu behar ote da soldaduek berek ez zutela deus egiten ahal eta Jainkoak zerbait egin arte beha egon behar zutela? Ez. Horrelakorik ez zuen adierazi. Soldaduek gudua egin behar zutela zehaztu zuen, eta Jainkoak erabakiko zuela noiz arte egin beharko zen gerla:

¹⁸⁹⁶ Adéma, «Jainkoa gurekin». 1916/5/5.

¹⁸⁹⁷ Hiriart-Urruti, «Ziloetan». 1915/4/23.

¹⁸⁹⁸ Moulier, «Goizaldea». 1918/8/16.

*Bainan gutarik bakotcha dei bat entzunik dago bere bihotzaren deia baino goragokoa. Eta behar deno Jainkoak nahi dueno, eskualduna guduaren egonen da.*¹⁸⁹⁹

Zati horretan ulertu behar da euskaldunen gerlako diziplina aitzindari militarrekiko baino gehiago lotua zela Jainkoarekiko diziplinarekin. Lehen aipatu dugu nola euskaldunen gerlarako leialtasunaz harro agertu zen *Eskualduna*. Pasarte hau irakurriz, ordea, pentsa dezakegu gerla egitea onartzea Jainkoarekiko leialtasunak bultzaturik gertatu zela. Gisa batera ala bestera, *Eskualduna*-k erakutsi nahi zuen euskaldunek obeditzen zutela, eta Jainkoa baldin bazen obeditzeko aitzakia, are gehiago.

Baina Jainkoa alde zutela azpimarratzearen gibelean, otoitz egiteko eskaera ere ikusi behar zen. Frantses guztiak ez zirela hain giristino erakusten zuten hainbat aldiz, eta horren adibide da *Oxobi*-ren artikulu zati hau:

Joana Dohatsua jausten balitz zerutik hiri huntako jenden artera, baluke nori erran lehen bere gudukarier ziona: «Etsaia garhaitzekotz, egizue lehenik bakea Jainkoarekin».

*Hanitzek hemen achola guti dute salbatzaileak utzi irakaspen handiez.*¹⁹⁰⁰

Jainkoa Frantziaren alde zegoela erran arren, Jainkoari otoitz egin behar zitzaioela eta Jainkoa ez zela baztertu behar erakutsi nahi zuen. Hots, dena ez zen zerutik etorriko, frantsesek berek agertu behar zuten Jainkoarenganako errespetua, ordainez Jainkoak lagun zitzan.

Jainkoa Frantziaren alde zegoela ez zen *Eskualduna*-koen solasa soilik. Jacques Fontanaren arabera, apezpikuek behin eta berriz azpimarratzen zuten, eta hala komunikatzen zieten mobilizaturiko apaizei eta apaizgaiei, Frantziaren garaipenaren segurtamena zeukatela¹⁹⁰¹. Beraz, *Eskualduna*-ko idazleek zabaltzen zuten mezua Elizaren hierarkian zabaltzen zen mezuarekin bat zetorren.

b) Buruzagiak giristino

Jainkoa Frantziaren alde zela erakutsi nahi zuten bezala, Frantziako armadako aitzindariak ere giristinoak zirela azpimarratu nahi zuten *Eskualduna*-koek. Blaise Adémak garbiki bereizi nahi izan zituen Frantziako gobernuko kideak eta armadako aitzindariak. Frantziako agintariak ez zirelako giristinoak kezkatua baldin bazen ere, kezka hori zutenei begira mintzo zen, erranez armadako aitzindariak giristino sutsuak zirela. Eta Adémak garrantzi handiagoa ematen zion aitzindarien fedeari, gobernukoenerari baino:

¹⁸⁹⁹ Moulier, «Kanoiak». 1918/3/15.

¹⁹⁰⁰ Jules Moulier, «Jendea», *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 14a.

¹⁹⁰¹ Fontana, *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*, 87.

Gure gobernamentuko buruzagiak erlisionerik gabekoak baditugu, gure armadetako aitzindari nausienak aldiz ez dire batere holakoak. Hoitarik gehienak – edo, hobeki, erraiteko, guziak hurbil – erlisione handiko gizonak ditugu.

Badire bi jeneral-nagusi bertzeak baino aipatuago bilakatu direnak Verdun inguruetako gudu izigarri huntan; hoieri esker beiratu baitugu galtzerat ginoazin hiri hori. Orai duela zenbeit aste, hoitaz mintzo zen ministro bat deputatu zenbeitekin, eta huna zer zioten erraiten: «Jeneral hoitarik bat ezagutzen duzue ; badakizue, egun guziez, ahal badu, mezan aurkitzen dela. Bertzea oraino gehiagokoa omen da; ezen jakina naiz honek, meza bat baino gogotikago, bia entzuten dituela egunean».

Eta hoientzat erran dutana bertze gehientzat erran nezake hein batean : erlisioneari ongi jarreikiak direla, nahiz batzu bertzeak baino kartsuago agertzen diren. Hoitan ere bertze giristino onetan bezala: batzu gehichago, bertzeak gutichago.

Eta nork eman behar dio gehienik Frantziari bere etsaien garhaitzea: gobernamentuak ala armadak? Dudarik batere gabe, armadak.¹⁹⁰²

Pasarte honek islatzen du Elizaren ingurukoen eta laikoen arteko gatazka. *Eskualduna*-k bere gisako kritika egin zion laikotasunaren aldeko Frantziako gobernu horri. Gehiago dena, gerla horretan gobernuak izan zezakeen papera guztiz gutxietsi zuen, erranez gerla armadak egiten zuela. Armadari, ordea, zilegitasun osoa eman zion Adémak, bai erranez gerla haiek egiten zutela baina baita ere erranez giristinoak zirela. Gerla egiten zutenen eta erabaki politikoak hartzen zituztenen arteko zatiketa bat islatu nahi zuen *Eskualduna*-k horrela, geroago barnatuko dugun bezala.

Beste batean ere aipatu zuen aitzindari militarren fedea, soldadu baten gutunari erreferentzia eginez. Soldadu batek *Eskualduna* astekarira gutuna igorri zuela idatzi zuen Adémak. Soldaduak gutun hartan idatzi zuen gustatu zitzaiola hogeitau egun lehenagoko artikulua, soldadu aitzindariak giristino onak zirela idatzia baitzen¹⁹⁰³. Astekariak garrantzi berezia eman zion aitzindariak giristino izateari, Jainkoaren laguntza lortzeko hobe zelakoan horrela. Aitzindari bat bereziki aipatu zuen Blaise Adémak, hala nola Foch. Pare bat aldiz gutxienez goraiatu zuen haren kristautasuna. Artikulu batean zioen giristinoa zela, eta armadako aginte nagusia hartu zuenetik gerlak beste bide bat hartua zuela, eta lubakiak utzirik ordu arte baino lasterrago ari zela aitzinatzen. Ingeles giristinoek eta frantses erretoreek Fochen xedeetarart jaunartzea eman zutela gehitu zuen, espero izanez Euskal Herriko haurrek ere beste hainbeste egingen zutela¹⁹⁰⁴. Beste batean ere goraiatu zuen Foch, hala nola gerla bururatu ondoan:

Guk ez dugu ahantzi behar Foch hori katoliko khartsu bat dela, gizon bat bere sinhestea, batere beldurrik gabe, agertzen duena eta sinheste horren arabera bizi dena. [...] Alamanen aztapar

¹⁹⁰² Adéma, «Jainkoa gurekin». 1916/5/5.

¹⁹⁰³ Adéma, «Soldadoak». 1916/5/26.

¹⁹⁰⁴ Adéma, «Foch». 1918/9/27.

*izigarrietarik lur guziaren beiratzeko, Jainkoak hautatu izan du beraz Frantziako katoliko hoberenetarik bat. Ez dugu hori ahantzi behar.*¹⁹⁰⁵

Gerlaren irabazleak giristino zirela azpimarratuz, kristautasunaren aldeko mezua zabaldu zuen Adémak. John Hornen arabera, ez litzateke harritu behar *Eskualduma*-k aitzindari militarrek ohoratzeko zuen jarrera horretaz. Hark dio buruzagi militarrek laudatzen zituztenak «errotik kontserbadoreak» zirela, «ohiko autoritate balio eta nozioak» islatzen zituztelako:

*Le culte des chefs militaires en 1914-15 fut, somme toute, profondément conservateur. Les images de la presse (même satirique) en témoignent. Il répondit à une guerre industrielle et technologique sans précédent par des valeurs et des notions d'autorité traditionnelles qui se révélèrent vite inadéquates aux complexités du conflit.*¹⁹⁰⁶

Buruzagi militarren gurtza hori ikusi dugu *Eskualduma*-n ere. Gizarte eredu tradizionalistarekin bat egiteko modua izateaz aparte, aitzindariak giristino zirela azpimarratuz, gerla giristinoei esker irabazten ari zirela – eta gero, irabazi zutela – ohartarazi nahi zuen, gisa hartan giristinoen aldeko propaganda eginez.

c) Otoitz egiteko deia

Foch jeneralaren giristinotasunaz erreferentzia gehiago agertu zen *Eskualduma* astekarian. Giristinoen ezaugarrietariko bat zen otoitz egiten zutela. Astekari honek maiz aipatzen zituen soldaduen otoitzak eta noiznahi egiten zuen otoitz egiteko deia. Foch jenerala, alde horretatik, eredu gisa aurkeztu zuen Blaise Adémak. 1918ko udaberrian, frantsesek alemanen aitzinatzea geldiarazi zutela idatzi zuen. Gehitu zuen hori horrela gertatu zela Foch jeneralari esker, Jainkoari ere laguntza galdetzen ziolakoan¹⁹⁰⁷.

Hain zuzen, nahiz eta Jainkoa alde izan, alde izate hutsarekin bakarrik ez zutela gerla irabaziko azpimarratu nahi zuen *Eskualduma*-k, eta jendeak otoitz egin behar zuela errepikatu zuen etengabe. Behin, gudu handi baten mentura izan zenean, Jainkoaz oroitzeko deia egin zuen Blaise Adémak. Marneko gudua Jainkoari esker irabazi zutela, baina geroztik lasaitu eta otoitz guti egiten zela zehaztu zuen, eta gerla horregatik luzatzen ari zela ondorioztatu:

Gerla haste hartan; noiz eta ere gure soldadoak garhaituak ihesi heldu baiziren, zenbat othoitz egin zen! Jainkoak berehala lagundu gintuen, eta etsaia gelditu behar izan zen Pariserat buruz hasia zuen

¹⁹⁰⁵ Blaise Adéma, «Foch», *Eskualduma*, 1918ko abenduaren 6a.

¹⁹⁰⁶ Horne, «Les Chefs au secours des patries pendant la Grande Guerre (France, Allemagne, Grande-Bretagne)».

¹⁹⁰⁷ Adéma, «Azkena othe». 1918/4/5.

*bidean behin betikotz. [...] Hasteko khartsutasuna erori da; elizetan egiten diren othoitzeri jendea gutiago jarreikia da. Hainitzek ez diote erlisioneko urhatseri emaiten bakezko egunetan baino gehiago.*¹⁹⁰⁸

Horregatik, Adémak zehaztu zuen soldadu aitzindari baten eskaera izan zela otoitz egitea, eskuetan gerlako tresna anitz ukanik ere, hori ez omen baitzen aski eta katolikoek laguntza behar omen zutelako. Beste behin gisa berean mintzatu zen Manex Hiriart-Urruti. 1915eko martxoan oldar handia hasiko zela argitu zuen. Alemanak haizatzeko heineko armak bazituztela segurtatu zuen, baina hala ere Jainkoari «laguntza» eskatu behar zitzaiola berretsi zuen¹⁹⁰⁹.

Jainkoari laguntza eskatzea eta otoitz egitea gauza bera ziren, edo hala ageri zen *Eskualduna*-ko artikuluetan. Baina otoitz egitea aipatzean, *Eskualduna*-k eta gerlan ziren euskaldunek Euskal Herrikoei otoitz egiteko eskaeraz mintzo gara. Hain zuzen, gerlan ez ziren pertsonen lana otoitz egitea zen haien ustez. Hori noiznahi errepikatzen zuten mezua zen, gerlan ez zirenen ardura eta inplikazioa bilatzeko. Euskal Herriko soldaduek berek otoitz egitea eskatzen zutela aipatu zuen Blaise Adémak:

*Beraz Eskualdunak beti soldado eder agertzen dire, beren eginbideari beldurrik gabe jarreikiak; baitakite Jainkoaren ganik bilatzen bihotza hobekienik azkar dezaken indarra.*¹⁹¹⁰

Otoitz egiteko deia beste askotan ere ageri zen. Hiriart-Urrutik aipatu zuen Frantziako apezpiku guziek soldaduen alde otoitz egiteko deia egin zutela¹⁹¹¹. apezpikuen gisa bereko beste eskaera batez mintzatu zen geroago Blaise Adéma, hain zuzen 1917ko martxoan oldar handi bat egiteko asmoa zegoela eta hori ongi iragaiteko, otoitz egiteko eskaera egin omen zuten¹⁹¹². Beste gudu batean, alemanak gibelera ari zirela idaztean ere otoitz egiteko eskatu zuen Adémak¹⁹¹³. Ildo berean ere aipa dezakegu ondoko pasartea, zenbat lagun izenean eskatu zuen otoitz egitea erakusten duelako:

*Beraz gure soldado maiten izenean, etsaiaren baratzeko eta gure lurren etsaiari khentzeko; gure presuneren izenean, etsai borthitz eta murga handiko batek gose, hotza, eta beste hainbeste oinhaze mota jasan arazten dioten presuner horien izenean; beren lurretarik urundu behar zaioten guzien izenean; etsaiak zaurtua daukan gure Frantzia maitearen izenean, erresumako fededun guzier, gerlako bostgerren urthe hunen hastean, othoitz berezi batzu galdatzen dioztegu.*¹⁹¹⁴

¹⁹⁰⁸ Adéma, «Ez ahantz». 1917/2/16.

¹⁹⁰⁹ Hiriart-Urruti, «Oldar handia». 1915/3/5.

¹⁹¹⁰ Blaise Adéma, «Beti eder», *Eskualduna*, 1918ko apirilaren 12a.

¹⁹¹¹ Manex Hiriart-Urruti, «Soldadoentzat othoitz», *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 4a.

¹⁹¹² Adéma, «Karraskak». 1917/3/16.

¹⁹¹³ Adéma, «Gibelerat doazi». 1917/3/30.

¹⁹¹⁴ Blaise Adéma, «Othoitzak Frantziarentzat», *Eskualduna*, 1918ko agorrilaren 2a.

Otoitzaren helburua ez zen gudu soil batzuen garaipena lortzeari begira mugatzen, baizik eta bakea lortu ahal izateko ere otoitz egiteko eskatu zuen Adémak¹⁹¹⁵. Alemanak biziki ahul zirela idatzi zuen 1918ko urrian, eta batzuek bakea berehala espero zutela gehitu. Adéma, ordea, beldur zen bakea ez zela zenbait hilabetez gertatuko. Hori ez hala izateko, otoitz egiteko eskatu zuen berriz ere¹⁹¹⁶. Beste behin, baina anitzez lehenago, gerlaren bukaeraren eta bakearen erantzukizuna giristinoen esku zegoela aditzera eman zuen, berriz ere otoitz egiteko eskaerarekin batera:

*Guk katolikoek, laguntzen ahal dugu buztan horren moztan ahalik lasterrena. Aspadian othoitz hainiz egiten da, bereziki gure Eskual Herrian, Jainkoak lagun gaitzan gure etsaien zafrazten, bake eder eta egiazko baten ardiesteko.*¹⁹¹⁷

Behin eta berriz esplikatu zien irakurleei gerlako garaipena eta soldaduen bizia beren eskuetan zela; gisa horretan, nahitara edo nahigabe, gerla egiten zutenen eta aitzindarien merezimendua txikitzen zuen, Jainkoarena eta giristinoena handituz. Bistan da, horrek badu bere irakurketa politikoa ere. Elizaren aldeko mezua zabaltzen ari zen, ororen buru, gerlaren bururapena giristinoen otoitzen esku zegoela hainbeste aldiz errepikatuz.

3. Garaipena Jainkoari zor

Aitzineko puntuekin zuzeneko lotura dauka orain barnatuko dugunak. Jainkoa Frantziaren alde izateaz gainera, gerlan azkarki inplikatu zela ulertarazi nahi zuen *Eskualduna*-k. Alabaina, garaipena norbaiti zor izatekotan, ez zitzaien soldaduei zor, baizik eta Jainkoari. Gudu irabazteak mirari gisa aurkeztu zituztela ikusiko dugu lehenik. Bigarrenik, argi eta garbi nola erraten zuen garaipena Jainkoari esker izan zela aipatuko dugu.

a) Mirakuluak

Otoitzaren beste aldea mirakulua zen. Otoitz egitea Jainkoaren laguntza eskatzea zen bezala, mirakulua Jainkoaren laguntza zen, hala nola otoitzaren saria. Gisa hartan, gudu bat baino lehen otoitz egiteko eskatzen zuten bezala, gudu zail bat irabaztea mirakulu bat izan zela idazten zuten. Marneko guduarekin hala izan zen. Jean Saint-Pierrek idatzi zuen Frantzia gerla hastapenean ez zela prest, eta doi-doietarik salbatu zela:

¹⁹¹⁵ Blaise Adéma, «Urthe on», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 4a.

¹⁹¹⁶ Blaise Adéma, «Bakeaz», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 18a.

¹⁹¹⁷ Adéma, «Urthe on». 1915/12/31.

*Frantsesak atheratu dira hinka tchar hortarik, mirakulu handi bat baitzauku nola ez gituzten etsaiek garbitu lehen egun lazgarri hetan. Atheratu gira, Jainkoak lagundurik eta gizonek ere, beren batasunaz, soldadoek beren kurajaz, aintzindariak beren zuhurtzia handiaz.*¹⁹¹⁸

Saint-Pierrek ez zuen Jainkoaren gain bakarrik utzi gerlaren hastapeneko egoera zailetik ateratzearen balentria, baina hala ere, Jainkoari esker izan zela azpimarratu zuen. Mezu bera izan zuen Manex Hiriart-Urrutik garai bertsuan. Frantziako armadak Charleroi eta Marneko guduetan gauzak eskas izan zituela esplikatatu zuen, argituz 44 urtez alemanek gerla ongi prestatu zutela, baina frantsesak ez zirela hain prest agertu. Baina eskas zituzten horiek ondoko zortzi hilabeteetan bildu zituzten, lubakien garaian. Hori «mirakulua» izan zela dio Hiriart-Urrutik, eta salbamendua Jainkoari esker izan zela gehitu zuen:

Errazue: mirakulu bat handia eztea, hainbertze gerlako tresna eta puska: bala, arma, kanoi handi eta ttipi, batzu zahar berrituak, bertzeak osoki berriak, egin baitituzte, zortzi hilabetez?

Lurpean sartze beharrik etzuten alemanek... Guk ba, zilo hetarik etsaia lardarian atchikiz, lan gibelatua egiteko. Guretzat arizan dire, ustegabetarik, alemanak, zilo egiten, beren kaltetan.

*Jainko onak du hori nahi ukhan.*¹⁹¹⁹

Orain aipatu bi artikulua horien arabera, Frantzia gaizki hasia zen gerlan. Lehen aipatu dugu nola aitortu zituzten zailtasunak, behin kinka larrietatik atera ondoan. Aldi honetan, zailtasun haietatik ateratzea zein zaila izan zen azpimarratu zutela nabarmendu nahi dugu. Zailtasuna handiago eta Jainkoaren laguntza beharrezkoago zela ulertzeko moduan gelditu zen, artikulua horiek irakurri ondoan, Frantzia gerlaren irabazteko – edo, hobeki erran, ez galtzeko – bidean jartzea mirakulutzat jo baitzuen.

Marneko gudua gisan, 1916an, *Eskualduna*-k idatzi zuen Verduneko gudua Jainkoari esker irabazi zutela. Are gehiago, mirakulua baino gehiago, mirakuluetan handiena izan zela idatzi zuen Blaise Adémak:

*Berrikitan jeneral-nausi haurren ahaide batek izkribatu izan du, gertatu dela hola mirakuilu bat, gerochago jakinen dena, gerla huntan gertatu diren mirakuilu guzietarik handiena.*¹⁹²⁰

Jean Saint-Pierre Verdunetik itzuli zenean ere hitz berekin aritu zen. Soldaduek beren lana egin zutela, baina horretan Jainkoaren laguntza ukan zutela azpimarratu zuen, hain zuzen, Jainkoaren laguntzarik gabe gudu hartarik bizirik ateratzea ezinezkoa zela aditzera emanaz:

*Egin du bakotchak bere egitekoa, egundaino baino hobeki. Jainkoak lagundu ditu gure lagun gaizoetarik hanitzak, mirakulu bat baita hoinbertze gizon nola jali diren ifernu hortarik, den gutieneko minik gabe.*¹⁹²¹

¹⁹¹⁸ Jean Saint-Pierre, «Zer eskas», *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 30a.

¹⁹¹⁹ Hiriart-Urruti, «Ziloetan». 1915/4/23.

¹⁹²⁰ Adéma, «Jainkoa gurekin». 1916/5/5.

Mirakulu hitza maiz erabiltzen da euskaraz, eta ez dugu atal honetan sartu «ez da mirakulu» bezalako esaldien erreferentziarik, ez duelako baitezpada erlijio kargarik, nahiz eta gizarte giristino baten hizkeran agertzen den hitza izan. Baina Marneko gudutik landako egoeraz eta Verdunekoaz «mirakulu» hitza aipatzean, eta horren laguntzeko Jainkoaren laguntzari erreferentzia egitean, hitzaren zinezko erranahitik hurbiltzen gara. Giristinoa ez zen batentzat ez ziren Jainkoari esker lortu garaipen horiek, eta ez ziren mirakuluak izan. Baina *Eskualduna*-k, mirakulua izan zela erranez, Jainkoaren laguntzarik gabe gerla irabaztea ezinezkoa izanen zela ulertzera eman nahi zuen. Eta bidez batez, Frantzia laikoia izateagatik kritikatzeko zutenei (Hegoaldekoiei eta espainiarrei bereziki) erantzun nahi zien ez zela egia Jainkoak Alemania nahiago zuela arrazoi harengatik.

b) Gerla «Jainkoari esker» irabazi

Mirakulua aipatzean, Jainkoaren eskua ageri zen. Gudu handi horien irabaztea mirakulua baldin bazen, *Eskualduna* erraten ari zen garaipen horiek Jainkoari esker izan zirela. Hain zuzen, garbiki idatzi zuen gerla Jainkoari esker irabazi zuela Frantziak. Jainkoak hainbat gisatan lagundu zuen Frantzia, astekariaren arabera. Hasteko, Jean Saint-Pierrek idatzi zuen Jainkoak lagunduko zituela guduan jasan behar zena jasaten, behin gerla luzea izanen zela onartu ondoren:

*Lan handiena guretzat gogoari emaita luze joanen zela. Orai orok hartua dute. Agian Jainkoak lagunduko gaitu ondoko egunetan ere, behar denaren jasaiten!*¹⁹²²

Blaise Adémak ere azpimarratu zuen Jainkoaren laguntza ezinbestekoa zela soldaduek egoera zaila aiseago jasan zezaten. Adibidez, nahiz eta neguaren pairatzea biziki gogorra izan, Jainkoaren laguntzari esker horren onartzeko prest zirela idatzi zuen:

*Orai duela urthe bat, orai baino lotsa gehiagorekin mintzo ziren neguaz. Jainkoak atchikitzen diote bihotza handi eta gora. Horrek erran nahi du gurekin dela egiazki.*¹⁹²³

Horren gibelean zegoena zen, *Eskualduna*-ren ustez, soldaduak ez zirela beren baitarik aski azkar izaten ahal halako egoera gogor batean irauteko. Beraz, eskerrak Jainkoari eman behar zitzaizkion, eta baita laguntza eskatu ere. Txanponaren beste aldea zen, Jainkoa ez zela beti han, eta hori zen gerlaren luzatzearen arrazoa Adémaren ustez. Frantziak behar ziren gizon eta tresna guztiak bazituela azaldu zuen, baina gehitu zuen gerla irabazteko ez zela nahikoa ongi armatua izatea eta Jainkoa beharrezkoa zela:

¹⁹²¹ Saint-Pierre, «Berriz pausura». 1916/6/9.

¹⁹²² Saint-Pierre, «Jan edanak». 1915/11/5.

¹⁹²³ Adéma, «Ez ahantz». 1917/10/12.

Iduritzen zait orai arterainoko adiskide eta lagun guziak ez ditugula aski; bat eskas dugula, eta, eskas dugun hori gabe, ez dezakegula gerla hau ongi bururatu. Eskas eta hoin beharra dugun hori nor da?... Jainkoa! [...] Eta nola galda dezakete Jainkoa laguntzat?... Jainkoak badu lurrean ordain bat, eta ordain hori da Aita Saindua. Aita Sainduarekin hitz hartzea Jainkoarekin hitz hartzea da. Aita Sainduarekin antolamendu bat eginez, hileri egin ebasgoa ezezza liteke. Eta orduan Jainkoak, ikusirik haren laguntza egiazki galdatzen dugula, eman lezaguke osoki.¹⁹²⁴

Horregatik, Frantziari eta frantsesei Aita Santuarekin akordio bat egiteko eskatu zien, hura baitzen Jainkoaren ordezkaria. Hala nola, Jainkoak ez zuen Frantzia bere baitarik lagunduko, lagunduko zuen laguntza eskatzen bazitzaion. Gauza bertsua errepikatu zuen bi aste geroago, euriak oldarrak geldiarazten zituela aipatu zuenean. Bi urte lehenago oldar handi bat egin zuten Champagne eskualdean, eta urte bat lehenago, uztailean hasirik, Somme eskualdean. Bialdi haietan euriak aitzinamendua trabatu zuela eta gelditu behar izan zirela idatzi zuen Adémak. Artikulua idatzi zuen garaian ere arazo bera zuten euriarekin, Flandria aldean. Zergatik? Jainkoari galdetzeko idatzi zuen, berretsiz gizonak eta tresnak ez zirela aski, eta Jainkoa ere behar zela¹⁹²⁵.

Jainkoaren laguntza modu berezikoarekin ere izan zitekeen, Hiriart-Urrutiren ondoko artikuluan fidatuz gero. Lehenago aipatu dugun artikulua baten pasarte bat da orain ekarriko duguna. Erreka zulo edo lubakietako egoera gogorra Jainkoaren nahia zela idatzi zuen Hiriart-Urrutik. Irakurleek horren aitzinean ukan zezaketen harridura aurreikusitakoak izan zirela, eta segidan eman zuten erantzuna:

Nola zaioken gogoratu, zagote galdez. Gogoratu, nola? Bertzerik ez ditake ihardets, baizik ere hau: «Jainkoaren nahiz. Jainko on harek, ororen buruan, Frantzia nahi baitzuen salbatu, eta Frantziarekilakoak. – Zer? Arroil-erreka itsusi hoik, zilo beltz hoik Jainkoak nahi zituela, gure onetan? – Ene eta bertze hanitzen gogora ba.

Alabainan, gauzak diren bezala ikusi nahi dituenarentzat zilo hoiek gaituzte hastapenean begiratu, gu, Frantsesak, orduan ahulenik ginenak.

Eta huna zortzi, ja hurbil bederatzi hilabete, zilo hoiengizari esker iraun dugula, eta iharduki etsaiari.¹⁹²⁶

Lan honetan lehenago aipatu dugu lubakiak gerlaren luzarazle izan zirela¹⁹²⁷, baina baita ere Frantziarentzat aukera bat izan zirela denbora irabazteko eta armamentuan aitzinamenduak egiteko¹⁹²⁸. Baina lubakiak gerla Frantziaren aldera bihurtarazteko bidea izan zirela errateko modu bitxia zuen *Eskualduma*-k. Egoera gogor haren jasatea Jainkoaren

¹⁹²⁴ Adéma, «Bat eskas». 1917/7/27.

¹⁹²⁵ Adéma, «Uria». 1917/8/10.

¹⁹²⁶ Hiriart-Urruti, «Ziloetan». 1915/4/23.

¹⁹²⁷ Ikus: 304

¹⁹²⁸ Ikus: 303

nahia zela erratea ez zen, itxura batean, Jainkoaren ohoratzea. Nola igor zitzakeen Jainkoak gizonak halako egoera baten jasatera? Hiriart-Urrutik esplikatu zuen hori zela bidea gerlan armamentua berreskuratzeke, eta beraz garaipen bidean jartzeko. Itxura guztien arabera, Jainkoak hori bazekien, eta horregatik sortu zituen, beti ere *Eskualduma*-k zabaldu zuen mezuari jarraitzen bagatzaizkio.

Baina bereziki azpimarratzekoa dena da gerla bukatzen ari zen mementoan eta gerla bukatu ondoan, nola mintzo zen Blaise Adéma, Jainkoaz. Armistizioaren berri ematean berean idatzi zuen Jainkoari esker irabazi zutela gerla:

Itzulikaldi eder hori egin du gure aitzindarien, eta bereziki Foch jeneral-nausiaren buru onak, gure soldadoen bihotz handi azkarrak, eta gehienik Jainkoak. Bai, Jainkoak azkenean entzun du gure othoitz, eta nahi izan du guduaren gelditze hori egin dadin San Martin goizean, Frantziaren geriztzaile handienetarik baten besta egunean.

[...] Milesker Jainkoari eta, Jainkoaren laguntzarekin, lan eder hori duten guzietan!¹⁹²⁹

Gerla hasi zenetik iragartzen ari zirena gertatu zen. Otoitz egin behar zen Jainkoak gerlan lagun zitzan, eta azkenean otoitz egin zuten eta Jainkoak entzun zituen. Horregatik bururatu zen gerla, aliatuen aldera, Adémaren artikularen arabera. Soldaduak eta Foch aitzindaria ere eskertu zituen, eta haien erantzukizuna aitortu; baina oroz gainetik, laguntzaile nagusia, gerla bukatuko zela erabaki zuena, Jainkoa izan zela azpimarratu zuen.

Baina Adéma ez zen horretara mugatu: handik zenbait astera, Foch hitzetan ezarri zuen gerla Jainkoari esker irabazi zutela. 1918ko uztailean alemanak ia Parisera heldu zirela, baina Fochek otoitz egin zuela idatzi zuen. Geroztik etsaiak ez zirela gehiago aitzinatu, eta beti gibelera joan zirela gaineratu zuen. Horrez gain, Alemaniaren, Austria-Hungariaren eta Turkiaren arteko batasuna hautsi zela eta Alemanian «nahasmendu» handiak hasiak zirela kontatzean, bere azalpena eman zuen: Jesusek zituen etsaiak elkarren artean samurrarazi:

Orhoit zarezte nola, joanden uztailean erdian, Alemanek egin zuten oldar bat hain ikaragarria non aitzinatu baitziren hainiz Parisera buruz. Ez duzue aiantzia zenbat Paristar etorri ziren orduan izituak ihesi gure eskualde hautaraino. Beraz arras hinka tzarrean aurkhitzen ginen. [...] Jesusen Bihotz Sakratuak gerizatu ditu horren armadak, eta eman diote etsaiaren garhaitea osoki eta laster.

Ezen harrigarri da, etsai batzu, hoin azkar zirenak oraino uztailean, gure oinetarat erortzea betbetan, hiru ilabetheren buruko. Zer gertatu zaiote? Jainkoak makurtu ditu elgarrekin. Heien batasunetik ilki dire lehenik Bulgaroak, gero Turkoak, gero Autrichianoak.¹⁹³⁰

Gerlaren hastapenean ere Hiriart-Urrutik ez zuen dudan ezarri gerla Jainkoaren laguntzarekin irabaziko zutela: «Jainkoaren laguntzarekin, partida eskuetan dugu» idatzi

¹⁹²⁹ Adéma, «Leher eta zapart». 1918/12/15.

¹⁹³⁰ Adéma, «Nori esker?». 1919/1/10.

baitzuen¹⁹³¹. Nahiz eta, Jainkoaren laguntza horren lortzeko, soldaduei otoitz egiteko galdegin, memento batean ere ez zuten dudan jarri Jainkoa Frantziaren alde zegoela. Eta gerla aliatuek irabaztea ere Jainkoaren erabakia zela ulertaraziz, garbi utzi nahi zuten gauzak hala zirela.

Apezen ahotik edozein egoeratan otoitz egiteko eskatzea bera ez da gauza harrigarri bat, edo azpimarratu beharreko bat. Desberdina da kasu honetan, Lehen Gerla Mundialean eta Frantzian, hain zuzen. apaizen inplikazioa azpimarratzeko beharra ikusi zuen *Eskualduna*-k, hainbatek salatzen omen zutelako apaizak goxoan bizi zirela edo, izatekotan, alemanen aldekoak zirela. Hori gain-gainetik ukatzeko beharra sentitu zuten *Eskualduna*-ko idazleek, beren artean ere anitz baitziren gerlan zeudenak. apaizak soldadu eredugarriak zirela errateaz gain, Jainkoa bera Frantziaren alde zela eta garaipena hari zor zitzaiola erakusteari garrantzia eman zion. Gisa horretan, astekariak hirugarren nortasun bat erakutsi zuen: euskalduna zen, frantsesa zen, baina baita giristinoa ere. Eta gerlari on haiek hiruak batera ziren. Orain datorren atalean ikusiko dugu zergatik zen garrantzitsua, *Eskualduna*-rentzat, alde giristino horren azpimarratzea.

C. Frantziako barne eztabaidaren erdian

Giristinoek gerlan izan zuten inplikazioaren azpimarratzea Frantziako testuinguru politiko orokorraren baitan kokatu behar da. Lehen zatian ikusi dugu gerlak halako batasun sakratu bat piztu zuela eta, horrekin, lehen begirada baten arabera, Estatuaren eta Elizaren bereizte legeak mindu zuen gatazka izozturik gelditu zela. Astekariaren aleak irakurriz gero ohar gaitzke gatazka ez zela guztiz izoztu. Laikoen eta fededunen arteko Frantziako eztabaida politikoak izan zuen isla gerla lehertu ondoan ere. Testuinguru hori azaldu nahi dugu orain, ondorio orokorretara heltzeko baitezpadakoa delako.

Lehenik, esplikatu dugu zergatik diogun gatazka ez zela guztiz izoztu, gatazka horren seinaleak agerian utziz, astekarian hainbat aldiz agertu baitziren. Bigarrenik, gatazka horri loturik, batasun sakratuaren nahia nola erakusten zuten ere ikertuko dugu. Azkenik, gatazka horretan – *Eskualduna*-ren jarrera zein zen baldin badakigu ere – Frantzia giristino

¹⁹³¹ Hiriart-Urruti, «Lau hilabetez». 1914/11/27.

zela azpimarratzeko nahi hori aztertuko dugu, ikusteko zein zen zinez astekariak bilatzen zuena.

I. Estatua-Eliza gatazkaren ziliportak

Gerla egoerak ez zituen gatazka politiko guztiak izoztu, eta erregulariki azaleratu ziren *Eskualduna* astekarian gatazka haren ziliportak. Alde batetik, apaizen eta fraideen egoera berezia aipatzen zutela ikusiko dugu. Bigarren gai batean ere agertu zen laikoen eta fededunen arteko desadostasuna, hala nola umezurtzen kudeaketan. *Eskualduna*-ko zenbait artikulu aritu ziren horretaz. Hirugarrenik, 1905eko bereizte legearen ondorio orokorragoetz ere mintzatu ziren gerla denboran eta ikusiko dugu nola eta zein zen *Eskualduna*-ren nahia.

a) Apezen eta fraideen egoera

Apezak eta fraideak gerlan parte hartzen ari zirela edota soldaduak eta aitzindari militarrek zein giristino onak ziren erakustea ez da ikusi behar erlijioaren parametroetatik bakarrik. Fraide eta apaiz soldaduen goraiatzea Frantziako testuinguru politikoan kokatu behar da. Hain zuzen, lehen zatian aipatu dugun bezala, 1905eko legearen ondotik, Ipar Euskal Herriko fraidetegiak hustu eta fraideak Frantziako lurraldetik kanporatu zituzten, eta gehienak Hego Euskal Herriko fraidetegietara joan ziren. Hala ere, hainbat fraide itzuli ziren, gerla egiteko asmoz, eta *Eskualduna*-k hori azkarki goraiatu zuen. Horietarik bat izan zen, lan honetan maiz aipatu duguna, Aita Blaise edo Luc Babaquy. Manex Hiriart-Urrutik haren heriotzaz idatzi zuenean¹⁹³², beste fraideen gisan jasan zuen egoera hura ere aipatu zuen, hala nola Ipar Euskal Herriatik lekuak hustu behar izan zituela baina hala ere gerla egitera joan zela. Ideia hori garrantzitsua da, zeren eta nahiz eta fraideen borondate ona erakustea zen ageriko helburua, fraide haien baztertzearen leporatze bat sendi baitzen, zein zuzen kontra kanporatu zituzten erakustera emateko bezala.

Horren haritik, fraideen kanporatzeari egin zion beste erreferentzia bat egin zuen Blaise Adémak, 1917an. Frantziako Legebiltzarrean Denys Cochin diputatu giristinoak mintzaldia eskaini zuela idatzi zuen. Mintzaldi hartan, diputatu hark azpimarratu zuen katolikoek zein ongi betetzen zituzten gerlako eginbeharrak, besteak beste zortziehun jesuita hil zirela zehaztuz. Adémak argitu zuen Clémenceauren erantzuna izan zela fraideak ez zituztela berriz ere kanporatu beharko. Bistan da, Adémaren artikulu hori bazterketa

¹⁹³² Hiriart-Urruti, «Eskualdun kaputchin soldadoa». 1914/12/11.

hura izan zenaren adierazle zen, eta argi zen *Eskualduna*-k ez zuela halakorik berriz gertatzerik nahi:

Zer trufak entzun letzazketen, Espanolen ganik, gure eskualde hautako fraideek, berriz, gerla ondoan Espainiarat itzulzen balire! Bainan badakit ez direla holako trufen menean emanen.

Badire gutartean uste dutenak eta diotenak, ez direla Frantziako katolikoak, gerla hunen ondotik, lehenago baino hobeki izanen. Nik ez dut batere hola uste; eta zertako? Gorachago erran dutanaren gatik. Zeren ez baigare lehenago bezen beldurti agertuko. Zeren gure zuzenak guk ere hartuko baititugu diren tokitik, bertzeek egiten duten bezala. Zeren erakutsiko baitugu bertzeek bezenbat zuzen badugula guk ere, gure frantses eginbideak bertzeek bezen ongi, edo oraino hobeki, bethe ditugulakotz.¹⁹³³

Aita Blaise fraideari buruzko testuarekin lotura egin dezakegu. Lehenbiziko testu horretan, fraideak kanporatu izana kritikatu zuten, eta erakutsi, nahiz eta kanporatuak izan, Frantziaren alde gerla egin eta odola isuri zutela. Bigarren artikulua horrek ere erakutsi zuen gristinoak soldadu eredugarriak izan zirela, eta aldi honetan, iraganeko bazterketari begira baino gehiago, bazterketa hori ez errepikatzeari begira jarri zuen soa Blaise Adémak. Ideia hori apaizen engaiamenduari buruzko artikulua horiei guzietan gehitu behar zaie. Ez ditugu berriz ere zerrendatuko edo aipatuko.

Eta ez da harrigarri. Jacques Fontana elizgizonak Frantziako gizartean birgizarteratzeari buruz mintzo da. Ordu arte, apaizek ez zuten sekula egin gerlarik, eta 14ko gerla izan zen apaizek gainerako herritarrekin batera gerla egin zuten lehen aldia, Fontanak zehaztu duenez. Horrela, soldaduekin eta familiekin harreman biziki hurbila zuten, eta beren burua hobeki ezagutarazteko parada izan zuten. Gisa hartan, antiklerikalismoa hein bat ahuldu zela uste du Fontanak:

Mais, en se pliant à la loi, le clergé ne fait pas seulement acte de soumission. Il se révèle à lui-même en même temps qu'il se fait connaître. Il n'est plus différent des autres, il est l'égal de tous. Il saura devenir l'ami de tous. [...]

Le prêtre est sorti du ghetto et, désormais, il va partager avec ses compatriotes, mobilisés ou non, les mêmes dangers, les mêmes souffrances, les mêmes espoirs. Ainsi, bon nombre de préjugés vont tomber ; lui-même apportera quelques réformes à son comportement ; il saura comment agir, il bénéficiera de la camaraderie acquise dans les tranchés, il jouera auprès des familles désunies par la guerre le rôle de guide, enfin il grandira dans l'idée de ceux qui ne le connaissaient pas ou qui le connaissent mal.

[...] En réintégrant la communauté des hommes, le prêtre a aidé à désamorcer le vieil anticléricalisme légal et militant. Malgré les réserves que d'aucuns ont émises quant à l'opportunité de sa mobilisation en temps de guerre, il est incontestable que celle-ci a modifié l'idée que l'on se faisait de lui et qu'il se faisait de lui-même.¹⁹³⁴

¹⁹³³ Blaise Adéma, «Guziak berdin», *Eskualduna*, 1917ko urriaren 19a.

¹⁹³⁴ Fontana, *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*, 17–19.

Artikulu horiekin guztiekin, apaizek eta, oro har, giristinoek, Frantzia zerbitzatu zutela erakusten zuten, baina funtsean, bazegoen beste helburu politiko edo erlijioso bat horren gibelean. Hain zuzen, gerla elizgizonentzako salbamendu gisa ikusten zuen *Eskualduna*-k; gerlako engaiamenduari esker, gerla zen bazterketa neurriak bertan behera uzteko bidea, eta astekariak horren defentsa egin zuen.

b) Umezurtzen kudeaketa

Manex Hiriart-Urrutik, zenbait astez, gerlaren beste ondorio bat aipatu zuen: umezurtzen gaia. Garrantzia duen gaia da, umezurtzekin nola jokatu ez zutelako berdin ikusten gobernukoek eta *Eskualduna*-k. Hots, giristinoen eta laikoen arteko desadostasun eta interes kontrajarriak aipatzen hasi baino lehenagotik erraten zuen *Eskualduna*-k bere ustez umezurtzak haurrik ezin ukanez edo haurra galdu zuten bikoteen esku uzten ahal zirela, eta ahalaz, umezurtzen beren herrian¹⁹³⁵. Solas horiek errepikatu zituen ondoko astean ere, irakurle batek gehiago sakontzeko galdeginik¹⁹³⁶.

Geroago ere berriz aritu zen umezurtzez. Eta artikulu hartan garbikiago ageri zen laikoen eta giristinoen arteko gatazka izan zela, umezurtzen harira:

Ez-bai batzu hor izan dire haur umezurtzen altchatzeaz erlisione dun ala gabe. Eskola giristinoez urtheak iraun duen gerla bera hor nahi zaukuten etsai berek piztu, gerlako umezurtz dohakabe hoi en estakuruan, ondorio gaichtoenak horieri jasan araziz.

Mementoa baitzen! [...] Guk galdatua umezurtz hoientzat atabal joiterik eta eske publikorik gabekoa da. Herri bakotchean edo herri andanatto batean balitz teilatu bakar bat bera, gerlako umezurtzño bati atherbearekin aita hilaren ordain bat emanen diona, eskerrak giniozke Jainkoari. [...] Laguntza guziak on direla ginion gorachago. Erran gabe doa hoberenak, nasaienak, iraunkorrenak, ondoriorik hoberenetakoak, holako hautan, direla bethi Erlisionetik heldu direnak.

Laguntzale guzien ithurri nausi, bego bethi Jainkoa.

Hiriart-Urrutiren arabera, Frantziako Gobernuak umezurtzentzako egoitzak zabaldu nahi zituen, eta horretarako diru biltze bat egin. Aldiz, Euskal Herriko apaizen proposamena eske publikorik gabekoa eta umezurtzarentzat hobe zela zioen Hiriart-Urrutik, hain zuzen herrian bertan etxe batean hartzea baitzen nahi zuena. Proposamen hoberena elizgizonena zela idatzi zuenean, gauzak kudeatzeko Eliza Estatu baina egokiagoa zela erraten ari zen. Beraz, gerlaren harira zeukaten eztabaidaz baliatu zen, berriz ere, Elizaren aldeko mezua zabaltzeko. Eta Frantziako Gobernuaren eta giristinoen

¹⁹³⁵ Manex Hiriart-Urruti, «Umezurtzak», *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 18a.

¹⁹³⁶ Manex Hiriart-Urruti, «Umezurtzez oraino», *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 25a.

arteko gatazkarik ez zuela nahi erraten bazuen ere, umezurtzei eskain zekiekeen laguntza hoberena erlijiozkoa zela erraten zuenean, gatazka hori elikatzen zuela erran daiteke.

Beste batean oraino garbiago mintzo zen Gobernuaren kontra, umezurtzez jabetu nahi izatea leporatu baitzion:

Aita hilaren haurrak lehen lehenik amarenak dire; ba eta oraino zuzenez aitarenak ere, hil ondoan hil aitzinean bezala. Hil ala bizi, burhasoen chedeak haurren altchatzeari buruz, beren sinestearen arabera, sakratuak dire. Nehor ez da chede heien kontra deusen egiteko dretchoa duenik, haurra laguntza beharretan delako estakuruz. [...] Gure laguntzea da Gobernamentuaren eginbidea; ez oro bere gain hartzea. [...] Nor da zuzenago eta zuhurrago, aita eskualdun giristinoa, zu gerlan hiltzen bazira, zure haurrak haz ditzan zure emazteak baino; haren eskasean, etcheko zaharrek; kampoko ahaide edo atze, zure konfiantza gehienik dutenek; lehen lehenik haur gaichoan arimaz oroz gainetik achola duketenek?¹⁹³⁷

Umezurtzen amak edo zaintzaileak laguntzen zituen gobernuak, eta hori ongi iruditzen zitzaion Hiriart-Urrutiri, baina argi utziz Gobernuak ez zitzaieela haur horiek eskolatu berak nahi zuen gisan, eta gurasoen borondatea errespetatu behar zuela. Garbiki errateko, eskola giristinoan eskolatuak ziren haurrak eskola giristinoan atxikitzeke eskaera zegoen horren giblean. Hots, 1905etik edo lehenagotik zetorren gatazka ari zen gorpuzten 1915ean, gerlako umezurtzen harira. Baionako apezpikuak gerlako umezurtzen aldeko obra bultzatu zuen, haur euskaldunak beren «aberri txikitik» ez bereizteko:

Dès 1915, sous l'impulsion de l'évêque, est créée l'œuvre des orphelins de la guerre, dont le but est de "faire de ces enfants de bons chrétiens, de bons Français, en les préservant du malheur de quitter leur petite patrie, basque ou béarnaise". Grâce à de nombreux élans de générosité et de dévouement, l'œuvre aura secouru 1970 orphelins.¹⁹³⁸

Haurrak beren herrian bertan atxikitzeke grina horretan asko jota «aberri txikiaren» aldeko joera ikusi behar zen, baina ez Euskal Herriaren eta Frantziaren arteko bereizketaren azpimarratzea. Hiriart-Urrutiren ustez, kontua zen herri ttipi batean bizi ziren haurrak ez zirela beste herri batera igorri behar, nahiz eta Euskal Herrian izan. Baina bereziki azpimarratu behar dena da haur horien hezkuntza giristinoa bermatzeko kezka zeukala.

c) Estatuaren eta Elizaren bereiztea aipagai

Fraideen baztertzea edo umezurtzen kudeaketa gatazka handiago baten zatia baizik ez ziren. 1905ean Estatua eta Eliza bereizteke legeak zauri handiak utzi zituen alde batekoen eta bestekoen arteko harremanetan. Gutxienez, Euskal Herriko giristinoek, *Eskualduna* horien bozeramaile, biziki gaizki hartu zituzten Frantziako Estatuaren erabakiak. Eta nahi

¹⁹³⁷ Manex Hiriart-Urruti, «Gerlarien haur umezurtzak», *Eskualduna*, 1915ko irailaren 10a.

¹⁹³⁸ Fabas, «Aspects de la vie religieuse dans le diocèse de Bayonne (1905-1965)», 168.

ala ez, lerroen artetik bada ere, orain arte aipatu ditugun hainbat eta hainbat artikuluren gibelean gatazka hori ikus daiteke. apaizen inplikazioa erakutsiz, *Eskualduna*-k zabaltzen zuen mezua zen ez zirela Frantziatik bereizi. Astekariak hainbat artikulua egin zuen, bestalde, urrea biltzeko eskatuz. Frantziak urrea behar zuen gerla denboran, eta apezpikuaren mintzaldiei oihartzuna emanez edo beren hitzekin, zazpi eginahalak egin zituzten irakurleak konbentzitzeko dirua eman zezaten. Gisa hartan ere *Eskualduna*-k Elizaren lekua salbatu nahi zuen, Estatuaren alde inplikatzeko zirela erakutsiz.

*Apezpikuak berak mintzatu dire – eta gurea lehenetarik – erraiteko: gure giristinotasunak galdetzen daukula, herriaren alderat ditugun eginbideen ongi bethetzea; eta orai herriari buruz egin dezakegun gauza hoberenetarik dela, gure urhearen hari emaita paperean truk.*¹⁹³⁹

Diru biltzeari buruzko deia egin zuen bezala, maiz desertoreei ere zuzendu zitzairen *Eskualduna*. Lehen garbi ikusi dugu desertoreen kontra zegoela, baina bazuen kezka berezi bat, desertore horiek berriz ere armadara itzularazteko xedean. Desertoreak aipatzen zituzten artikuluetan, nabarmen ohartarazten zuten zein ziren lege berriak, eta Nafarroan edo Gipuzkoan ziren euskaldunei itzultzeko gomendioa egiten zien. Behin, Fermin Irigarai *Larreko*-ri egin zion eskaera *Oxobi*-k, han gaindi ikusten zituen desertoreekin bil zedin:

Irakurtu duzu Otsailaren hogoi-ta biko Eskualdunean Etcheber eta Miguras jaun ohoragarriek egin galdea.

Eskual-Herriko buruzagier mintzo dire, eskatzen dutela argitasun eta laguntza zuen aldetarat ihes egin dute anai dohakabeak bide zuzenean sararazteko berriz.

Eskualdunak hedatuko du jaun horien deia mendiaz bertzalde ahal duen tokietan ez behar litakeen herri eta etchetaraino. Eskualdunak hasi lana Euzkadik eta Napartarrak behar lukete bururatu. Gure auzapezak, gure jaun errektorak ez ditazke bideari loth arthalerik espakatu edo galdu direnen bilhartzeko. Nork ordainduko ditu hobeki zuen buruzagiak baino? Ba ahal dire asko gure alde!

*Zuk adihckidea, eta zure lagunek badakizue norat jo iheskarietarik ikusteko.*¹⁹⁴⁰

Alde batetik, apaizen ezintasuna aitortu zuen, «ardien» biltzeko. Desertoreak mendiz bestaldera iragan ondoan, Ipar Euskal Herriko apaizek eta auzapezek ez zezaketen deus egin haiengana joateko, eta gerlara itzul zitezten konbentzitzeko. Astekariaren deiak zeharkakoak ziren, beren lagunei eskatuz ihesi joanak zirengana joateko. Baina hori bera eliza gerlan Frantziaren alde inplikatzeko eta inplikatzeko horren azpimarratzea zen. Eta *Eskualduna* eta eliza gain-gainetik inplikatzeko zirela oroitarazteko beharra sentitu zuen Adémak:

¹⁹³⁹ Adéma, «Urhea». 1916/5/19.

¹⁹⁴⁰ Moulrier, «Larrekoari». 1918/3/22.

Zenbat aldiz ez ditugu othoiztu Espainiarat ihesi joanak diren gizon gazteak, itzul dituen berriz herrirat beren eginbidearen bethetzeko! Eta hori eginen dugu berriz ere, heieri buruz den lege berriak ephea emanen dueno. Ez zaiku iduritzen ahantzi dugula behinere zer zor diogun Frantziari.¹⁹⁴¹

Desertoreen gaia erabili zuen *Eskualduna*-k azpimarratzeko Frantziarekin elizak ez zuela zorrik. Estatuaren eta Elizaren arteko gatazkan kokatzen badugu aipamen hori, garbi da Eliza Estatuan inplikatzeko bide gisa ikus daitekeela hori. Hain zuzen, gisa horretan, Elizak Estuari lotu gaietan sartu zuen sudurra. Jacques Fontanak ongi esplikatzeko du 1905eko legetik landa, Eliza baztertua¹⁹⁴² sentitu zela, baita moralki ere. Eta gerla bide bat izan zen Elizak galdua zuen bere baitako konfiantzaren berreskuratzeko, hain zuzen, gerlaren bidez erakutsi baitzuten girstinotasunaren transmisioak balio izan zuela gazteek Frantziaren aldeko sakrifizioa egiteko:

N'est-ce pas aussi pour l'Église de France l'occasion de reprendre confiance en elle-même ? Car, dans le désarroi où l'avait plongée la politique anticléricale du début du siècle, elle avait pu se demander si elle n'avait pas failli à sa mission. Après des années de réflexion et de silence, elle se rend compte qu'elle n'a pas perdu son temps en donnant une éducation chrétienne aux enfants qu'elle recevait dans les patronages et dans les écoles. La Semaine religieuse de Nice déclare : «Nos jeunes gens chrétiens se sont offerts et ont été immolés sur l'autel de la Patrie, sous les yeux du Dieu béni de leur enfance et de leur jeunesse.» Même si l'idéalisation semble trop poussée, un tel langage était tenu non seulement par les catholiques, mais aussi par ceux qui ne l'étaient pas. Tous exaltent le sacrifice des combattants. C'est dans une optique essentiellement salvatrice pour le présent et pour l'avenir que l'on considère le terrible conflit qui ensanglante le monde.

Si la guerre est juste, on en arrive à la considérer comme sainte. Les évêques sont unanimes à ce sujet.¹⁹⁴³

Jean-Jacques Beckerrek ere aipatu du Elizaren famaren hobetzeari begira prentsa girstinoak egin zuen ahalegina. Ahoan bilorik gabe dio Elizak gerla aukera gisa erabili zuela Frantziako gizartean galdu zuen lekuaren berreskuratzeko:

Il y a donc, nous semble-t-il, une certaine discordance entre la réalité et le ton triomphant de la presse catholique. Il est vrai qu'après les années bien grises traversées par l'Eglise, la situation pouvait apparaître favorable. Mais l'important pour elle n'était pas seulement de s'émerveiller ou de feindre de s'émerveiller, il était indispensable de profiter des circonstances pour se faire rendre la place qui lui avait été contestée dans la société française.¹⁹⁴⁴

Eskualduna-ren jarrera, beraz, giro horretan ere kokatu behar da. Ez zen kasu bakarra, Beckerren eta Fontanaren aipu horietan ageri den bezala, baina argi da Elizaren

¹⁹⁴¹ Blaise Adéma, «Salatari», *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 22a.

¹⁹⁴² Fontana, *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*, 9.

¹⁹⁴³ Ibid., 67.

¹⁹⁴⁴ Becker, 1914. *Comment les Français sont entrés dans la guerre*, 460.

inplikazioaren goraiatzeko horren gibelean, Estatuan berriz integratzeko edo fama onaren berreskuratzeko ahalegina bazela.

2. Batasun eskaera

Batasun sakratuaren alde zegoen *Eskualduna*, hainbat artikulutan ageri zen bezala. Baina ez zen beti garbi. Lehenik ikusiko dugu batasun sakratua nola goraiatzen zuten, eta bigarrenik ohartuko gara goraiatzeko horrekin batera, batasun horrek arraildura batzuk ere bazituela eta afera zuritze politikoak ez zirela hartan gelditu.

a) Batasun sakratua goraiatzen

Errepublikarren eta laikoen kontrako polemikan hain eroso zebilen *Eskualduna* beste gisan mintzo zen gerla denboran. Batasun sakratuarekin osoki bat egin zuen haste-hastetik, eta ahoan bilorik gabe aldarrikatu zuen frantses guztien – tendentzia politiko guztien – arteko bakea, Ipar Euskal Herria Frantzia horren barne kokatuz, bistan da. Gerla lehertu zeneko asteen hitz argiekin azaldu zuen Manex Hiriart-Urrutik batasun horren nahia:

Aiphatzearen ohorea ere hemen egungo Eskualdun-ean etzuketean merezi, ezpalitz garbiki eta goraki erraiteko, zoin den atsegin, zoin eder, zoin gozo, ikustea egun latz hautan, frantses guztien, eskualdun guztien batasuna.

Ezta gehiago gutartean politikazko herrarik, ez eta hoztasunik ere.

Diot ; politikazkorik : zertako behar litake bertzelakorik ere ?

Balitz han edo hemen oraino zonbeit piru gaichto, gerla hunek ezeztatu ez duenik oraino, ez dezatela iraun. Egun zortzi giniona ; «Fuera herra !»

Biba bakea, gutartean.

[...] Hainbertze ondorio gaichto badu gerlak, non on bat ikusten diogunean, eta hura gutarteko, herritarren elgarrekilako bakea, herraren orde atchikimendua elgarrentzat, bihotza hunkitzen baitaiku hemen huntaz mintzatzeak berak.¹⁹⁴⁵

Frantsesen – eta euskaldunen – arteko batasun horretaz hitz gozoak erabiliz erakutsi zuen Hiriart-Urrutik zenbateko garrantzia ematen zion egoera hari. Idazle polemikazaleak gatazka politikoak baino nahiago zuen bake egoera, berak aitortu zuenez. Aitzineko kapituluetan ikusi dugu bake egoera horren gainetik Elizaren aldeko mezuekin jarraitu zuela *Eskualduna* astekariak, ororen buru gatazka guztiz ezabatu gabe, baina argi dena da batasunarengan polemika harengan baino atxikimendu handiagoa zuela. Horrela ere ageri

¹⁹⁴⁵ Hiriart-Urruti, «Biba Frantzia». 1914/9/11.

da zein frantses ikusten zuen bere burua. Batasun horretaz mintzo da Jean-Jacques Becker. 1914an zatiketa politikoak ahanzi zituzten, beraz, baita ere apaizen eta irakasleen arteko erlijio borrokak. «Berradiskidetze ikusgarri» hori azpimarratu zutela dio Beckerrek¹⁹⁴⁶, eta funtsean, hori da *Eskualduna*-k egin zuena.

Hilabete batzuen buruan berriz ere azpimarratu zuen frantsesen arteko batasuna. Hain zuzen, Frantziako apezpiku guziek soldaduen alde otoitz egiteko deia egin zutela kontatu zuenean, Frantziako buruzagiek halako galderik egin ez zutelako pena adierazi bazuen ere, elkarren arteko batasuna bazutela eta hori ez zela guti azpimarratu zuen, nahiz eta zehaztu batasun horrek ez zuela kentzen giristinotasuna gorde behar zutenik¹⁹⁴⁷.

Batasun horretan zurien eta gorrien arteko su-eten gisako bat ageri zen, besteak beste Baionan izandako mintzaldi bati buruzko artikuluan, non Garat Baionako auzapez eta diputatu gorriarenganako errespetuzko hitzak ageri ziren. Belgikako Segers ministroa Baionan izan zen, eta bertako antzokian mintzaldia eskaini zuen, jende anitzen aitzinean, besteak beste berrehun bat belgikarren aitzinean. Garatek ere hitzaldi bat egin zuen, eta Belgikako apaizak goraipatu, Hiriart-Urrutik pozez kontatu zuenez:

Frantzia guziarekin, Europako eta munduko gizon zuzen deus onik direnekin, Baionako jaun merak. Gurekin da hortaz, eta gu harekin, agian ez azken aldikotz.

Gerlak ez balauku ekartzen oraiko batasuna bezala, geroko bakea gutartean, etsai arrotzarekin bezen beharra eta beharrago dugun bake on hura; huntarik lekhora berriz haste baginu gerla frantsesek frantsesekin, urrikari ginituzke gure ondokoak.¹⁹⁴⁸

Batasun giro horren seinale izan zen Hiriart-Urrutik Barthou diputatu gorriaren defentsa hartu izana, haren kontra mintzo zen bati erantzunez. Artikulu hartan¹⁹⁴⁹, entzuten ziren «ele makurrei» erantzun zien: ingelesak motelak zirela, errusiarrek ez zekitela gerla galtzen baizik, italiarrak funts gabekoak zirela eta abar entzuten omen zen. Horrelako solasak ahalkegarri zitzaizkion Hiriart-Urrutiri. Beste batek erran omen zion Barthou ministroak gerla ez egiteko baimena emanen ziola ezagun baten semeari. Ez zuela halakorik egingen segurtatu zuen Hiriart-Urrutik. Gisa hartan, gorrien defentsa egiten ari zen.

Ildo beretik, beste batean, Georges Clémenceau Frantziako Lehen Ministro bihurtu izanaren berria aipatu zuen *Eskualduna*-k. Nahiz eta Clémenceau bera «gorria» izan eta gobernu hartako ministroak gorriak zirela kritikatu, Blaise Adéma ez zen sobera kexu

¹⁹⁴⁶ Becker, 1914. *Comment les Français sont entrés dans la guerre*, 373.

¹⁹⁴⁷ Hiriart-Urruti, «Soldadoentzat othoitz». 1914/12/4.

¹⁹⁴⁸ Manex Hiriart-Urruti, «Beljikano ministroa Baionan», *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 21a.

¹⁹⁴⁹ Manex Hiriart-Urruti, «Elhe makhurra», *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 11.

agertu, Clémenceau ontzat hartzen zuelako, hark erorarazi baitzuen Malvy, eta Caillaux¹⁹⁵⁰ ministro ohia Frantziaren «saltzailetarik» zeukalako:

*Dio, Bolo eta horren iduriko bertze errementa tzar guziek ez zezaketela gauza handirik egin, ez balira izan goradanik sustatuak eta lagunduak.*¹⁹⁵¹

Batasun giro hark luzaz iraun zezan nahi zuen *Eskualduna*-k, gorago aipatu bezala, hainbat aldiz agertu baitzuen gerla bururatu ondoan ere Frantzian sortu zen barne bake horren segitzeko desioa¹⁹⁵² eta fraideen haizatzeko neurriak bertan behera uztea, azpimarratuz Clémenceauk berak iragarri zuela gerla bururatu ondoan fraideak ezin izanen zirela Frantziatik igorri¹⁹⁵³. Pentsa daiteke, ororen buru, *Eskualduna*-ren batasun gogo hori interesatua zela, ez zela mugatzen Frantziaren defendatzeko beharrezkotzat zeukan batasun sendo baten kontzientziara, baizik eta aukera horrekin Elizaren egoeraren hobetzeko itxaropenarekin zuela lotura.

b) Batasunaren ahuleziak

Erakusten zuten batasun hori zenbateraino zen sakona, dudak jar daiteke. Lehen aipatu dugu zer nolako akusazioak egiten zizkieten apaizei¹⁹⁵⁴. Politika arloan ere zatiketaren arrastoak bazirela ikusiko dugu orain. 1915eko udazkenean gobernu aldaketa bat izan zen Frantzian, eta horren berri ematean, Blaise Adémar aspaldiko partez ministro zuri bat – Denis Cochin – izatea goraiatu zuen, baina ministro gehiegi bazela kritikatu ere egin zuen¹⁹⁵⁵. Ez zen artikulu polemikoa, ezin daiteke erran batasun giroa hausten zuenik. Baina ministro zuri bat izatea azpimarratzeak erakusten zuen oraino ere garrantzia ematen ziotela erabaki guneetan lekua edukitzeari.

Beste kasu batean aipatu dugun Manex Hiriart-Urrutiren artikulu batean ageri da batasun sakratuak arraildurak bazituela. apaizen kontrako akusazio batzuei erantzutean, biziki gogor mintzatu zen antiklerikalen aurka, alemanak berak baino gaiztoago zirela errateraino heldu baitzen:

Nor uste duzue direla Prusiano eta Aleman guzien nausi tzarkeriaz? Hok baino bihotz-gabeago eta abereago? - Frantses batzu, edo bederen frantses izena dutenak, bertze deus ez dutelarikan frantsesarekin, ez bihotz, ez buru, ez jendetasunaren itzalik.

¹⁹⁵⁰ Ikus Malvy eta Caillaux auzia aipatzen duen atala: 639

¹⁹⁵¹ Blaise Adéma, «Clémenceau», *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 23a.

¹⁹⁵² Hiriart-Urruti, «Bi bakeak». 1915/1/8.

¹⁹⁵³ Adéma, «Guziak berdin». 1917/10/19.

¹⁹⁵⁴ Ikus: 607

¹⁹⁵⁵ Blaise Adéma, «Ministro berriak», *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 11.

[...]

Aita Sainduaren iduriko eta barne tzar, chede nahasi beretako apezpikuak, eza? Eza apezak? Eza ere aberats apeztiar dirudunak?... Guziak oro, edo gehienak ez dira Frantziaren etsaiekin besoz beso ibilki bethi, agerian ez bada, gordeka?

Horra zer derasaten omen frantses batzuek Frantzian. Eta noiz? Memento izigarri huntan.

Hemen deus onik diren guziak, ba eta orain arte hanbateko gizon ez izanak ere, gurekin eta orok elgarrekin bat ezin aski eginez ari direlarik; arrotz etsaiaren kontra indar guziak sobera ez ditugun oren latzean, baditazkela gutartean, frantses batzu alemanik tzarrenak baino areagokoak!¹⁹⁵⁶

Apezen eta apaizen kontrakoen arteko polemika horren beste agerraldi bat bazen Blaise Adémaren artikuluan batean, non idazten baitzuen batzuek ez zutela begi onez ikusten apaizek fama ona bil zezaten soldaduen artean:

Bizpahiru aldiz ja errana dautzuet, nola Frantses guzien artean etsaiari buruz behar liteken batasun hertsia ez duten zenbeitek beiratu nahi. Hoiek jasan ez dezaketena hauche da: apez soldadoek beren soldado lagunengatik duten amodioa, eta herri guzian bildua duten omen ederra.¹⁹⁵⁷

Antiklerikalismo agerraldi horietan ageri da batasun hori ez zela biziki azkar, eta batzuek apaizak akusatu nahi zituztela. Edo, hori da bederen, *Eskualduna*-k eman nahi zuen irudia. Bestalde, Hiriart-Urrutik ere Errepublikaren kontrako piko bat bota zuen, hitz erdika, gerla lehertu eta berehala batasuna goraiatu zuen artikuluan, jendeak «biba Frantzia» eta ez «biba Errepublika» oihukatzen zuela azpimarratu zuenean:

Zonbat aldiz othe gaude bi hitz hoik aditurik iragan egun eta gauetan Baiona hiriko karraketan !

Bereziki soldadoak ehunka, milaka zoazilarik hiritik burdin-biderat, gogotik zuten, eta dute oraino bethi bulhar guziek oihu egiten «Vive l'armée ! Vive la France !»

Nagon karrikan dut azkenik entzun, arratseko hamarrak ondoan, ehun, berrehun heintsu hori soldado atabal eta kleron musikaz karrakako bi etche lerroak inharrosten zituztelarik, jendea etche alhazetarik, leihoetarik esku zartaka, oihuka, gauaz, ari: «Vive la France!»

Zer zautzue, bat, baño ez baitzen ageri, ez orduan ez bertze egunetan ez gauetan, oihuka; «Vive la Répu...»?

Hastiatu othe ordu artean maite zutena ? Ene arabera batere.¹⁹⁵⁸

Pasarte honek bi irakurketa ditu. Alde batetik, batasunaren izenean «gora Errepublika» ez oihukatzea eskertu zuen, ontzat emanez hori Errepublikaren kontrakoen errespetuzko seinale bat izan zitekeela. Dena den, Errepublika hitza ez bukatzea ironia baten adierazle zen. Pozez hartu zuen jendeak hori ez oihukatzea, eta hein batez Elizaren aldeko agerraldi gisa ikusi zuela uler daiteke. Baina, horiek hola, errepublika ez dutela hastiatu erranez bukatzean aitortzen ari zen errepublikarren eta elizaren aldekoen arteko

¹⁹⁵⁶ Hiriart-Urruti, «Zorria leher». 1914/10/2.

¹⁹⁵⁷ Adéma, «Tzarkeriaz». 1915/12/10.

¹⁹⁵⁸ Hiriart-Urruti, «Biba Frantzia». 1914/9/11.

zinezko zatiketa ez zela desagertu. Zatiketa izoztu zela ulertarazi zuen. Ez besterik. Ororen buru, batasunak ez zituen hain erro sendoak.

3. Frantzia giristino

Eskualduna-k interes berezia erakutsi zuen Frantzia herrialde giristinoa zela frogatzeko ahaleginean. Lehen aipatu puntu guztien gainera, hainbat aldiz azpimarratu zuen Frantziako agintari politikoak fedegabeak baziren ere, frantses gehienak giristinoak zirela. Bestetik, barne gatazkaren giroan, ezkerrekoak eta laikoak gerlaren kontra zirela erratera ere heldu zen astekaria, une batez. Bukatzeko, Euskal Herriko soldaduak frantses giristino zirela azpimarratu zuen.

a) Frantziaren kristautasuna justifikatzeko ahalegina

Gorago aipatu dugu *Eskualduna*-k nola erakutsi nahi zuen Jainkoa Frantziaren alde zela¹⁹⁵⁹ edota armadako buruzagiak giristino zirela¹⁹⁶⁰. Hori kokatu behar da Frantziako barne gatazkaren baitan, eta aitzineko lerroetan aipatu dugun batasun sakratu horren ahulezien baitan. Frantziako gobernuburuak sinesgabeak izanik ere, armadako aitzindariak fededunak zirela¹⁹⁶¹ edo Foch armadako buruzagia guztiz giristinoa zela¹⁹⁶² azpimarratzea Frantziak giristinotasunarekin zuen harremana justifikatzeko ahalegin bat zen. Beste hainbeste egin zuen, luze eta zabal, Jean Saint-Pierrek:

Gogoeta eskasa erhokeria hanitz eginarazirik dago munduan; adinak ez du bethi errotik kentzen gizonaren baithako haurkeria, gogo labur eta arina. Horra nun gerlak, egun eta gau luze hautan, gogoeta hanitzen astia nasaiki gizon guziera emaiten duen. Gogoeta hoitarik bat eta barna sarturik daukatena, hauxe da: erlisioneari bere bidea behar zaiola utzi; erlisioneari egina den gerla, herriaren ahultzeko baizik ez dela; azken urte hautan bertze biderik atxiki balute gure nausi batzuek, izanen zela menturaz kanoi gehiago, eta soldado gehiago. Familien zimendua da alabainan erlisionea, eta oraiko ez bertzelako familia azkarrak ikusi ditu Frantziak. Ikusi beharko ere, bizi nahi badu.

[...] Bainan aintzindari hoberenatarik eta lehenatarik hainitzak ezagutuak dire mundu guziaren begietan jainkotiar bezala. Ez da nehun armadarik, ez da izan ere naski sekulan, holako aintzindarien eskuetan: bat edo bertze bazen bethi etsenplu horren emaille: orai bezalako multzoa, sekulan. Horra zertako, bertze arrazoin guzien gainerat, hortarik ere behar dugun jali esperantza handia.

¹⁹⁵⁹ Ikus: 614

¹⁹⁶⁰ Ikus: 617

¹⁹⁶¹ Adéma, «Jainkoa gurekin». 1916/5/5.

¹⁹⁶² Adéma, «Foch». 1918/12/6.

*Auzo erresuma batzuetako jende hobereenen begietan, osoki larre joana zen erlisionea Frantzian. Ez zakiten gure berri. Gure hobenak ikustea ez da aski: gure xuriketak gutartean eginen ditugu: utz ditzatela gure gain!*¹⁹⁶³

Lehen ere agertu dugu Frantziaren inguruko herrialde giristinoek (Espainiak bereziki) Frantziari egiten zioten kritikaren aurrean *Eskualduna*-koek zuten kezka edo kexua eta sentitzen zuten justifikatzeko beharra. Frantziak erlijioarekin zuen harremanaren eztabaidan kokatzen da goiko pasarte hori. Ez zitzaion bidezkoa iruditzen Frantziak erlijioarekin zuen arazoa beste herrialdeek jorratzea, erranez frantsesek berek konponduko zituztela beren auziak beren artean. Orogen buru, gobernuburuak fedegabeak izanik ere, armadako aitzindariak fededun eredugarriak zirela eta frantsesak berak fedeari atxikiak zirela goraipatuz, frantses nortasunaren eta nortasun giristinoaren arteko lotura egin zuen. Erlijioaren kontra egitea herriaren ahultzea zela erratea ere Frantziaren eta erlijioaren arteko lotura hertsia erakusteko bide bat zen.

Maurice Rajsfusek zentsuraren gaia aztertu du, eta une batez argitu zuen prentsa giristinoak zentsuraren arauak zorrotz errespetatzen zituela. La Bonne Presse etxeak *La Grande Guerre du XXe siècle* aldizkaria argitaratu zuen, eta bertan etengabe azpimarratzen zuen apaizen heroismoa, Rajsfusen azterketaren arabera:

Dans chaque numéro, il n'est question que de messes dans les tranchées ou dans les cantonnements, de l'héroïsme des prêtres ... et de l'ennemi exécré. Entre deux litanies, on exalte l'esprit guerrier de la France éternelle, fille aînée de l'Église. Tout comme on désigne le «Boche» comme l'Antéchrist.

*Avec de tels alliés de circonstance, le pouvoir ne peut faire la fine bouche. En effet, en des temps où la colère gronde, au front comme à l'arrière, l'Église prêche la résignation et l'obéissance aux lois. Les soldats peuvent mourir en paix, dans les tranchées, avec l'assistance d'un prêtre, tandis qu'à l'arrière les fidèles font confiance à Dieu pour envisager une bonne issue à la guerre ...*¹⁹⁶⁴

Zentsurari buruzko arauak errespetatuz, gobernuak ez zezakeen deus egin aldizkari horren kontra, Rajsfusek dioen bezala. Pierre Pursegilek beste aldizkari batzuk ikertu ditu, eta hark ere ondorioztatu du aldizkari giristinoek Frantziako giristinoen engaiamendua azpimarratu zutela¹⁹⁶⁵. Baina prentsa giristinoaren jarrera hori goitik heldu ziren aginduen arabera ulertu behar da, Pursegileren arabera:

Les églises contribuèrent également à cette circulation des discours et des images qui, élaborés à destination d'un public national, gagnaient l'espace public local par l'intermédiaire de groupes organisés et de leur appareil médiatique. Les églises en illustrent toutefois une modalité différente car à la différence des journaux locaux qui s'inséraient dans un réseau horizontal d'organes de presse, ces

¹⁹⁶³ Saint-Pierre, «Zertako?». 1915/7/9.

¹⁹⁶⁴ Rajsfus, *La censure militaire et policière 1914-1918*, 25.

¹⁹⁶⁵ Pursegile, «Mobilisation, sacrifice et citoyenneté, Angleterre-France 1914-1918», 116.

*dernières diffusaient un message élaboré d'abord au sommet de la hiérarchie cléricale avant d'être transmis, verticalement, par l'intermédiaire du clergé et des bulletins diocésains et paroissiaux.*¹⁹⁶⁶

Aldizkari horien modura zebilen *Eskualduna* ere, beraz ildo orokor baten baitan kokatu behar da euskarazko astekari horren jarrera. Elizgizonen eta giristinoen papera funtsezkoa zela erakutsiz, Frantziaren defendatzaileak giristinoak zirela frogatu nahi zuten, gisa horretan Frantziaren eta kristautasunaren arteko lotura hertsia eginez. Bistan da, horren gibelean gatazka politikoaren isla ikusi behar da.

b) Ezkerrekoak eta laikoak gerlaren kontra direla erratea

Eskualduna ez zen mugatu elizaren inguruko jendea eta giristinoak zein soldadu onak ziren erakustera edo gerla Jainkoari eta aitzindari giristinoei esker irabazten ari zirela azpimarratzera. Ezkertiarren eta fedegabeen gerlako jarrera auzitan jartzera ere heldu zen astekari hori. 1917an eskandalu bat lehertu zen Frantzian, baizik eta zenbait frantses alemanen alde ari zirela lanean, horretarako alemanek diru kopuru handia emanik. *Action Française* aldizkaria izan zen afera hari buruzko salaketak egin zituen lehenbizikoa, Maurice Barrès diputatuak Legebiltzarrean afera zurrizko eskaerak egiten zituela¹⁹⁶⁷. Gaiaren jarraipen handia egin zuen *Eskualduna*-k, edo garbiki errateko, *Action Française* aldizkariak ateratzen zuenaren oihartzun bihurtu zen euskarazko astekaria, berriz ere erakutsiz ideologikoki zein hurbil kokatzen zen astekari hartarik.

Afera hasi zen Miguel Almereyda *Le Bonnet Rouge* ezker muturreko aldizkariko zuzendariaren atxiloketarekin¹⁹⁶⁸. Militante bakezaleak bat egin zuen, hastapenean, abertzaletasun olde harekin, baina gerla luzatu ahala bakezale izatera itzuli zen. 1917ko uztailaren 7an atxilotu zuten, ustez alemanen dirua jaso zuelako. Errugabetasun ustekizuna errespetatu gabe, Blaise Adémak errudun gisa aurkeztu zuen atxiloketa haren berri eman zuenean. Adémak idatzi zuen Leon Daudet diputatu zuriak abisua emana zuela¹⁹⁶⁹, baizik eta bazirela alemanen alde ari ziren frantsesak, baina kasurik ez ziotela egin. Azkenean Almereyda atzeman zutela, baina Malvy ministroaren adiskide izanik, orain arte bakean utzi zutela salatu zuen Adémak¹⁹⁷⁰.

¹⁹⁶⁶ Ibid., 140.

¹⁹⁶⁷ Afera honi buruz argitasun batzuk eman zituen Georges Bonnefousek: Bonnefous, *Histoire politique de la Troisième République. Tome second. La Grande Guerre 1914-1918*, 301–307.

¹⁹⁶⁸ Ikus: 282 eta 319 orrialdeak.

¹⁹⁶⁹ Léon Daudet-ek Malvy-ri buruz ikertu zuen eta ohartu zen Almereydarekin harremanak zituela. Broche, *Léon Daudet: le dernier imprévu*, 260.

¹⁹⁷⁰ Blaise Adéma, «Harrigarri!», *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 31a.

Istorio haren hurrengo kapitulua Louis-Jean Malvy Frantziako Barne ministroaren kargu uztearena izan zen, Almereyda atxilotu eta laster. Horren berri ematean, Adémak ez zuen dudan ezartzen alemanen alde ari zirenen lagun mina zela. Halaber, Malvyk egunkari zuriei gezurrak erratea leporatzen ziela-eta, Adémak erantzun zuen Clémenceau gorriaren aldizkariak zuela ministroa erorarazi¹⁹⁷¹. Hurrengo kapitulua izan zen Malvyren ondotik gainerako ministro guztiak erori zirela¹⁹⁷². Ondoko kapitulua zen Almereydaren ondotik, Paul-Mari Bolo atxilotu eta espetxeratu zutela, alemanen dirua jasotzea leporatuz. Horren berri ematean berean, Adémak idatzi zuen Malvy ere presondegiko bidean zela¹⁹⁷³.

Hurrengo kapitulua Caillaux ministro ohi eta diputatua auzi hartan bustitzea izan zen, 1917 bukaeran. Adémak kontatu zuen Clémenceauk galdegin zuela Caillaux gerlako epaile berezi baten aitzinean pasatzea. Adémak gehitu zuen bazuela aspaldi epaileek deitu behar zutela, baina ordu arte nehor ez zela ausartu. Artikuluaren arabera, Italiatik zabaldu zuten berria zen Caillaux ibili zela Italian, Italiak eta Frantziak Alemaniarekin bakea egin beharrez, Ingalaterra bakarrik utziz, eta haren xedea zela gero ministro nagusi bihurtzea. Horra zer hitzekin erakutsi zuen soldaduek diputatuak oro har, eta Caillaux bereziki, ez zitzaketela ikus:

*"Deputatuak, daut ihardetsi, soldadoek ez dituzte batere maite; bainan hori, higuin dute osoki". [...]
Clémenceau behar zen, bere hartz eta aztapar zorrotzekin, holako chede baten hartzeko. Hunek orai
bere aztaparretan hartua du, eta ez du utziko, gatuak sagua baino gehiago.*¹⁹⁷⁴

Hortik landa, Caillaux-ren preso sartzeari buruz aritu zen *Eskualduna*. Adémak azpimarratu zuen jendeak nahi zuela preso izan zedin. Preso sartzeaz gain, astekariak salatu zuen ministro ohi hark Ameriketara erraten zuela frantsesen egiazko etsaiak ingelesak zirela, ez alemanak. Halaber, Italiako Florentzia hirian 2 milioi libera bazituela ere salatu zuen, ondoko iruzkina eginez:

*Zer gizona hori! Berak, ministro moltsero zelarik, galdetua zuen lege berri bat, ontasunen araberako zerga berezi baten ezartzeko. Eta horra non bere ontasunetarik zati on bat gordetzen zuen Italian, zerga horri ihes egiteko! [...] Guk lañoki gure urhe guzia eman ginon. Eta horra non Caillaux delako jaun handiak bazituen, Italiako kutchan hortan gordeak ehun eta berrogoi-ta hamar mila libera urhetan!
Horra jende cheheaz trufatzen den jaun bat.*¹⁹⁷⁵

Adémak egin zuen kritika ez zen mugatzen Caillaux alemanen alde ari zela erratera, nahiz eta lotura bat aurki daitekeen. Gogoan dugu nola *Eskualduna*-k zenbat aldiz egin zuen

¹⁹⁷¹ Blaise Adéma, «Malvy», *Eskualduna*, 1917ko irailaren 7a.

¹⁹⁷² Blaise Adéma, «Ministroak», *Eskualduna*, 1917ko irailaren 21a.

¹⁹⁷³ Adéma, «Ez ahantz». 1917/10/12.

¹⁹⁷⁴ Blaise Adéma, «Caillaux», *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 21a.

¹⁹⁷⁵ Blaise Adéma, «Preso!», *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 25a.

urrea emateko eskaera¹⁹⁷⁶. Caillaux diputatu gorriak bere errearekin eta diruarekin egiten zuena kritikatu, Adémak fededunen zintzotasunaren eta Caillaux-ren jarreraren arteko kontrastea markatu zuen. Hots, erakusten ari zen ezkerrekoak ez zirela behar bezain frantses onak, batetik alemanen alde ari zirelako, eta bestetik dirua berentzat atxikitzen zutelako.

Clémenceau goraiatzearen salbuespena kenduta – hura izan baitzen, Adémak azpimarratu zuenez, gerla irabazteko bidean jarri zuen eta hainbat ministro erorarazi zituen gobernuburua¹⁹⁷⁷ –, *Eskualduna*-k gogor kritikatu zituen ezkerreko politikariak, Frantziari traizioa egin ziotelakoan. Horretan ere erakutsi zuen zein frantses zeukan bere burua, legebiltzarkideak eta hainbat ministro baino hobeak zirelako espantu egiten zuenaz gero.

Are garbiago mintzatu zen beste behin, Frantziari traizioa egitea erlijiotik urrun izatearen bizkar ezarri baitzuen. Almereyda kasuaz ari zen batez, alemanak diru truke laguntzen ari ziren frantsesei buruzko artikuluan azaldu zuen zein ziren, bere ustez, atxilotu haien motibazioak. Adémaren ustez, horretara bultzatu zituzten arrazoiak «diru gosea» eta erlijio falta ziren. Afera hartan arduradun andana bat atxilotu zutela kontatu zuen, besteak beste diputatu bat edota Parisko epaile handienetariko bat. Halaber, Bolok berak Miarritzen jauregi bat bazuela eta Arbonan etxalde bat erosi berri zuela ere zehaztu zuen Adémak¹⁹⁷⁸.

Almereyda-Bolo-Malvy-Caillaux auzi horren gibelean, *Eskualduna*-k frantses onak giristinoak zirela eta fedegabeak frantses txarrak zirela erakutsi nahi izan zuen. Ez zen astekari hori jarrera hori erakutsi zuen bakarra. Jean-Jacques Beckerrek ere dio ezkerreko alderdietan desadostasunak bazirela gerlari begira, eta eskuina indartzen ari zela, batasun sakratu haren baitan¹⁹⁷⁹; hain zuzen, eskuineko aldizkari eta egunkariak gogor aritu ziren, oro har, auzi haren harira, inplikatuak ziren politikarien kontra. *Eskualduna*-k ez zuen aukera huts egin oroitarazteko gisakoak fededunak zirela eta gaiztoak fedegabeak.

c) Soldadu euskaldunak, frantses giristino

Lan honetan zehar maiz aipatu dugu euskaldunak zein soldadu onak ziren erratea gustatzen zitzaiola *Eskualduna*-ri. Halaber, maiz aipatu dugu euskaldunak zein frantses onak ziren azpimarratzen zutela. Horrez gain, euskaldunen fedea dudarik gabekoa zela ere goraiatzen zuten. Azterketa lana bururatzeko, eta ondorioetara pasatu aitzin, so egin dezagun

¹⁹⁷⁶ Ikus: 314.

¹⁹⁷⁷ Blaise Adéma, «Clémenceau», *Eskualduna*, 1918ko abenduaren 20a.

¹⁹⁷⁸ Blaise Adéma, «Zenbat», *Eskualduna*, 1917ko urriaren 5a.

¹⁹⁷⁹ Becker, *La France en guerre 1914-1918. La grande mutation*, 78.

batzuetan nola uztartzen zituzten elementu horiek guztiak. Gerla lehertu eta laster, Hiriart-Urrutik Baionako mobilizazioan bildu ziren soldaduez mintzatzean azpimarratu zuen soldadu giristinoak izateaz gain, frantses eta euskaldun onak zirela, hots, hiruak batera:

Ah! Zoin gogotik ginioten guk ere oihu eginen, iragan larunbat arratsaldean, hemenche, Baionako hirian, bezperak ondoko prosesioneari, kantuz eta othoitzean jarraiki diren frantses on, eskualdun on, giristino soldadoeri: [...]

Zoazte kuraiez, lotsatu gabe. Jainkoak eta Andredena Mariak zaitzaztela begira!

Oihu ba eginen ginioten bihotz onez, bereziki herritarren artean herritarrago ditugun eskualdun gizagaizoeri : Altcha bihotza goiti ; orhoit egon bethi, eta guziz oren latz hautan : gure bizia eta biziarekin ditugun on guziak Gaineko Haren ganik ditugula ; oro bethi haren eskuko.

[...] Gerlaz osoki hartua zutela gogoa, ezagun zuten Baionako karrketan prosesioneari zarrakon zazpi, zortzi ehun soldadoek. Hain zuten gogotik egiten othoitz gizagaizoek, berentzat, beren familientzat, Frantziarentzat.

Nehork deithu gabe jin baitire, beren baitharik, Andre-dena-Maria egun handiko ofizioetarat: meza nausi, bezpera eta prosesione.

Huntarik gibelerakoan, eliza katedralean gizon hoiien sartzea, ikusgarri zen : charamelatuz zeramatela, chanre eta apez kantariekin aldizka, Magnificat ; zoin ederki ! Zonbat aldiz !

Bulharretarik bezenbat bihotzetik ari zirela, hitz dautzuet.

[...] Biba zuek, oraino eta bethi, eskualdun fededun seme, haurride, aita eta senhar zinezko giristinoak! Aurthengo Andre-dena-Maria egunean Baionako katedral handi ederretik Eskual-herriko eliza ttipieneraino inharrosi dituzuen zeru lurak ez dira zeren izan gerla hunen beldur.¹⁹⁸⁰

Frantzia giristinoa zela erakusteko nahi horretan, garrantzia zeukan, *Eskualduna*-rentzat, soldaduak zein giristinoak ziren azpimarratzeak. Beste behin, Andre Dena Maria besta buru kari, soldaduen fedea zinez azkar zela azaldu zuen Jean Saint-Pierrek¹⁹⁸¹. Idazle honek berak, hamabi euskaldunen herioaz idatzi zuenean, soldadu haiek borrokara joan aitzin komuniatu nahi zutela kontatu zuen:

Izigarriki gudukaturik sartzearekin berriz gure phezoinartean ohartu ginen hamabi eskualdunak eskas zirela. Zer bihozmina enetzat! Gaizo, gaizo eskualdunak! Hetarik bati ez nuen gehiago komunionea emanen...

Zeruko zorionean sarthu dire hamabiak betan eta Jainkoaren aintzinean agertzearekin hamabiek enetzat egin dute galde bera.¹⁹⁸²

Heriotzaz harago, euskaldun horien fedea zen Saint-Pierrek ederretsi zuena. Gogoraz dezagun Blaise Adémak apezpikuak soldadu apaizei idatzi gutunaz idatzi zuena ere, non azpimarratu baitzuen soldadu euskaldunak biziki giristinoak zirela eta Frantzia

¹⁹⁸⁰ Hiriart-Urruti, «Gure soldadoak». 1914/8/21.

¹⁹⁸¹ Saint-Pierre, «Andre dena Maria». 1915/8/27.

¹⁹⁸² Jean Saint-Pierre, «Hamabi eskualdun», *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 7a.

maitatua zela Euskal Herrian¹⁹⁸³. Annette Beckerrek dio frantses kristautasuna gerlaz baliatu zela bere mezuaren hedatzeko:

*Le catholicisme français a profité de la guerre pour étendre son message.*¹⁹⁸⁴

Eskualduna ildo horretan kokatzen zen eta gauza bera egin zuen, eta euskaldunak giristino eta frantses on zirela erakutsiz, giristinoak frantses onak zirela erran zuen, eta frantsesak giristino onak.

Nortasunaren hirugarren alderdi horretan, ez zuen euskaldunetz bakarrik solasa gure astekariak. Frantsesak ere txertatzen zituen hor, baina euskaldunak hor ere eredu gisa agertuz. *Eskualduna*-k izaera giristinoari eman zion garrantzia eta lekua hain zen handia non nortasun giristinoaren ezaugarritzat har baitzitekeen. Soldaduak giristinoak zirela azpimarratuz, beren erlijio nortasunaz ari zen *Eskualduna*. Halaber, apaizak eta Jainkoa ere Frantziaren alde zirela erakutsi zuen, apaizek beren besoz eta odolez egin zutelako gerla, eta Jainkoak zerutik Frantzia babesten zuelakoan.

Hori Frantziako barne eztabaidaren testuinguruan kokatuz gero, nortasun giristino horren azpimarratzeak beste izari bat zuela ikusten dugu. Laikoen eta fededunen arteko polemika arras bizia zen azken urteetan. Gatazka horretan, *Eskualduna*-k bi aldetatik heldu ziren kritika edo akusazioei erantzuteko ahalegina egin zuen. Alde batetik frantses laikoek elizgizonak eta fededunak kritikatzeko ez zuen begi onez ikusten, eta haiei erakutsi nahi zien ez zebiltzala zuzen, eta apaizak eta giristinoak frantses gisa beren lana egiten ari zirela. Jainkoa Frantziaren alde zela erratean ere publiko berari ari zitzaion, fedegabeek jakin zezaten Jainkoaren sostenguari esker salbatuko zela Frantzia.

Baina hori Frantzia laikoa kritikatzeko zuten beste herrialdeetako kritikei erantzuteko bide bat ere bazen. Hego Euskal Herrian eta Espainian, adibidez, Frantzia ez jainkotiarra izateagatik, Jainkoa ez zela Frantziaren alde erraten zelako kexu zen *Eskualduna*. Hori gezurtatu nahi izan zuen, beste herrialde horien begietan Frantziaren fama hobetzeko.

¹⁹⁸³ Adéma, «Milesker!». 1917/7/13.

¹⁹⁸⁴ Becker, *Les monuments aux morts. Mémoire de la Grande Guerre*, 94.

Astekariaren inplikazioa ulertzeko hirugarren galderari erantzun diogu zati honetan: «Zertarako?». Eta galdera horri erantzuteko, nortasuna aipatu behar dugu, bere alde konplexuarekin. Euskaldun izaera goraki azpimarratzen zuten gerlan zirenek, eta Euskal Herritik gerlaz mintzo zirenek. Frantziaren alde ari ziren borrokan, eta alde horretatik kontraesan bat ikus daiteke: nola zitekeen euskaldun nortasuna hala azpimarratzea eta aldi berean Frantziaren alde gerla egitea onartzea? Gerlan ziren euskaldun horientzat, euskalduna izateak ez zuelako automatikoki erran nahi frantses ez izatea. Nortasunaren lehen ezaugarria herriak (ez nazioak) markatzen zuen. Argi ikusi dugu bereziki inguruko mendiak, etxeko janaria, herriko ohiturak edo laborantza lanak zirela aipatzen zituztenak. Horretan ez zen euskal nazio edo aberri baten erreferentziarik. Ordu arte, jendea ez zen ia batere ateratzen beren herritik, hirira bizitzera joaten zirenez aparte. Beren ingurune ia bakarra beren herri eta herri inguruetan zen, eta nazio bateko partaide izatearen sentimendua orduan ari zen errotzen. Nortasun hartaz ari ziren *Euskalduna*-ko idazleak, ez nazio izaerako nortasunaz. Euskal Herriaz mintzatzean, ez zuten Euskal Herria nazio gisa aipatzen.

Alderantziz, argiki erakusten zuten beren burua frantses ikusten zutela, eta Frantziako nazioaren parte ikusten zutela ondoriozta daiteke aztertutako artikuluak irakurriz. Euskaldun izatea frantses izatea zen, haien arabera. Euskaldunak gerlari eredugarriak zirela azpimarratu nahiarekin, euskaldunak frantses onak zirela ere azpimarratzen zuten. Beraz, herria baino eremu zabalagoa hartzen zuen nortasuna garatzen ari zen garai hartan (ikus berriz Hubert Pérèsen tesia¹⁹⁸⁵), Ipar Euskal Herriko euskaldunentzat, eremu zabalago hura Frantzia izan zen, Frantziako edozein herri txikitako biztanleen gisan, haiek ere gerla egin

¹⁹⁸⁵ Pérès, «Individus entre village et nation. Une expérience identitaire dans la formation de la France républicaine».

zutelako Frantzia horren alde, ordura arte franko abstraktua zen baina gerlan odolez defendatu zuten Frantzia horren alde. *Eskualduna*-k ongi erakutsi nahi izan zuen euskaldunak ere frantsesak zirela edo Frantzia beren herri gisa ikusten zutela; halaber, euskaldunen engaiamendua txalotu zuen, zein baikorki mobilizatu ziren goraipatuz, egiten zituzten balentriak, lortzen zituzten sariak edo isurtzen zuten odola azpimarratuz, desertoreen kontra mintzatuz eta abar. Dena ez zen zuri ala beltza, bistan da; gerla egitea onartzearen arrazoa ez da Frantziaren aldeko jarrera politiko edo abertzale batekin ulertu behar, giza taldearen faktoreak sekulako garrantzia izan baitzuen. Baina, gisa batez edo bestez, euskaldunak frantses onak zirela erakutsi nahi izan zuen *Eskualduna*-k gerlako jarrera baikor horren bitartez.

Eta euskaldunak fededunak izanez, beste asmo bat ere nabari da *Eskualduna*-ren artikuluetan, hala nola fededunak ere frantses onak zirela erakustea. Lehenik, soldaduak berak giristinoak zirela azpimarratu zuten, erranez frontean fedeak gora egin zuela eta elizkizun anitz antolatzen zela. Bigarrenik, garrantzia eman zion erakusteari apaizek gerla egiten zutela besteek bezala, nahiz eta urte batzuk lehenago hainbat fraide Frantziako lurretatik kanpo igorri. Eta horri loturik, Jainkoa bera Frantziaren alde zegoela nabarmendu zuten behin baino gehiagotan. Horrek izari handiagoa hartzen du kontuan hartzen badugu garai hartako Frantziako testuinguru politikoa, nola Elizaren eta Estatuaren bereizte legearen harira, zatiketa handia zegoen fededunen eta laikoen artean. Zertarako inplikatu, beraz? Orain ondorioetan azalduko dugu xehekiago, baina argi da Frantziatik baztertua sentitu zen Elizak bere lekua berreskuratzeko zilegitasuna nahi zuela bilatu, gerlan zenbateraino inplikatu zen erakutsiz.

ONDORIOAK

Lau urte eta ia lau hilabetez, *Eskualduna* astekaria astez aste argitaratu zen, gerla egoera izanik ere. Aste horietako zenbaki guztiak irakurri eta aztertu ondoan, astekari horrek gerlaz eman zuen irudiaren eta zabaldu zuen ideologiaren argazki orokor eta zehatza egiteko aukera izan dugu. Orain garbikiago jakin dezakegu zein ildo defendatu zuen eta zein ziren ildo horren hari mutur desberdinak. Egin dugun eduki azterketa zabalak balio izan digu gerlaren inguruan ager zitezkeen gaien ezaugarri ezberdinen ikusteko, ikertzeko eta hortik ondorioen ateratzeko. Alde batetik, gerlari buruzko ezaugarri orokorrak neurtu ditugu, hala nola gerlako lekuak berak nola deskribatzen zituzten, gerlako bizipenez zer kontatzen zuten, gerlak soldaduen moralean eragiten zituen gorabeherak nola agertzen ziren eta abar. Baina gerlari buruz egin diren tesietan anitz aztertutako sail orokor horretaz gain, beste batzuetan ere jarri dugu arreta, hala nola euskaldun gisa zer jarrera agertzen zuten, eta baita ere fededun gisa. Gure

irakurketa eta azterketa parametroetan garrantzi handia zuen sail horrek, eta aterako ditugun ondorioetarako funtsezko zutabea izanen dira.

Lehen Mundu Gerra anitz ikertu da, eta ikertuko da oraino ere. Gure kasuan, oraino gutxi ikertu den ikuspegi batekin ibili gara, hala nola gerla hori Euskal Herritik begiraturik ikertu dugu. Hainbat ezaugarri orokorren gainetik, interesgarria da ikustea euskaldunen kasuan ezaugarri horiek berak nola errepikatzen ziren; baina interesgarria da ikustea ere beste ezaugarri berezi batzuk zein ziren. Biak aztertuz, *Eskualduna*-ren jarrera ulertu ahal izan dugu.

Ikerketa honekin, *Eskualduna* astekariaren ideologia aztertu dugu, eta gerla *Eskualduna*-k nola kontatu zuen. Ikerketa, beraz, muga horien barnean uler bedi. Ez du deskribatzen euskaldunek, orokorki, nola bizi izan zuten gerla eta zer iritzi zuten bai gerlaz, bai Frantziatz. Dударik gabe, eragin handia zuen astekari bat aztertu dugu, baina aztertu duguna astekari hori da, ez besterik. Beraz, orain emanen ditugun ondorioak ere astekari horren mezuari dagozkio.

Ondorioen atal hau lau zatitan banatuko dugu. Lehenik, ikerketa honen laburpen orokor bat eskainiko dugu, ondorio nagusiei bidea eskaintzeko. Ondotik, ikerketan zehar egin ditugun zeharkako aurkikuntzak gogora ekarriko ditugu. Gai eta hari nagusia *Eskualduna*-ren mezua ikertzea bazen ere, astekari hori aztertzerakoan, honen ezagutza egin dugu, hurbiletik, eta hainbat datu berri atera dugu. Datu horiek puntuz puntu emanen ditugu ondoko orrialdeetan. Azkenik, ondorio nagusiak xeheki azaldu ondoan, etorkizunera begirako ikerketa perspektiba batzuk proposatuko ditugu.

Laburpen orokorra

Euskarak ez zuen huts egin prentsaren garapenaren eta orokortzearen hitzordua. 1881ean Frantzian prentsaren legea onartu zutenean, egunkariak eta aldizkariak sortzeko bide berriak zabaldu ziren. Legea ez zen egunkari berriak agertzeko erraztasunak eman zituen faktore bakarra: alde batetik, aitzinamendu tekniko handiei esker, inprimatzea eta zabaltzea errazago izan zen; bestetik, eskola orokortu zen eta derrigorrezko bihurtu, XIX. mende bukaeran. Horrek eragina izan zuen Ipar Euskal Herrian ere, eta nagusiki euskara erabiltzen zuen astekari bat sortu zuten, 1887an: *Eskualduna*. Gainerako aldizkari eta egunkariak bezala, *Eskualduna*-k ere Ipar Euskal Herriko herrietako eta mundu zabaleko berriak aipatu eta iruzkintzen zituen. 1914an Lehen Mundu Gerra lehertu zenean ere, mundu zabaleko

berriak herrietako berriekin uztartu zituen, gerlak Ipar Euskal Herriko herri eta etxe guztiak hunkitu baitzituen.

Gerla lehertu zenerako, *Eskualduma* astekari garrantzitsu egina zen Ipar Euskal Herrian, astero 7.000 ale saltzen baitzuen. Barnealdeko herrietan saltzen ziren aldizkarien artean salduena zen, gehiengo handiz. Ondorioz, pentsa zitekeen astekarian argitaratzen zen mezuak oihartzun zabala zuela eta herritarren artean eragina ere ukan zezakeela. Astekariaren egile eta laguntzaile sarea arras zabala zen, eta Ipar Euskal Herriko apaiz andana batek idazteaz gain, politika arloko arduradun andana bat ere bazen kideen artean. Politika arloko horiek guztiak «zuriak» ziren, hala nola errepublikarren eta Frantzia laikoaren kontrakoak. Hain zuzen, astekaria sortu zuena ere politikari bonapartista bat zen: Louis Etcheverry. Astekaria hauteskunde giroan sortu zuen, hilabete batzuk lehenago Martial Henry Berdoly hautetsi «gorriak» sortu zuen *Le Réveil Basque*-ri erantzunez.

Politikarien parte hartzea eta elizgizonen lekua kontuan hartuz eta jakinez XIX. mende bukaerako eztabaida politiko handienetarikoa Elizaren eta Estatuaren bereizte xedeari buruzkoa zela, ez gara harrituko *Eskualduma* astekariak orduko eztabaida politikoetan bere iritzia ematen zuela jakiteaz. Giro politiko beroaren erdian sortu eta garatu zen. Eskola arloan, Frantziako Gobernuak, irakaskuntza eskumena eta baimena kendu nahi zien apaizei, eta eskola laikoa bultzatu. Gero etorri zen 1905eko Elizaren eta Estatuaren bereizte legea. Garai haietan, halaber, fraidetegiak hustu zituzten eta Ipar Euskal Herriko fraideek Hego Euskal Herrira erbesteratu behar izan zuten. Giro hartan harrapatu zuen *Eskualduma* Lehen Mundu Gerrak.

Gerla lehertu aitzineko hamarkadetan, Europan nazionalismoak piztu ziren, eta estatu-nazio handien eraikuntza prozesua bizkortu zen. Frantziak desohore handi gisa bizi zuen 1870ean Prusiaren kontrako gerla galdu eta Alsazia eta Lorrena eskualdeak haren esku utzi izana. Orduz geroztik, Alemaniaren kontrako errebantxaren bila ibili ziren urte haietan zehar. Frantses izaera indartzeko ahaleginak oro egin zituzten, eta bide horretan, herri guztietan frantsesa irakasteari lehentasuna eman zioten. XIX. mendearen bigarren erdian, oraino, Frantziako biztanleen kopuru handi batek ez zekien frantsesa. Hori zuzendu beharrez, eskolak eta armadak funtzio handia izan zuten. Haurrei frantsesa irakasteaz aparte, eskoletan etorkizuneko balizko gerla baterako prestakuntza ere eskaintzen zieten, ariketa fisikoen bidez, baina bereziki, frantses aberriaren maitatzen irakatsi zieten. Hori are gehiago indartu zuten soldaduska denboran. Aberri txikiaren eta aberri handiaren kontzeptua agertu zen. Gisa hartan, Euskal Herria zen euskaldunen aberri txikia, eta

Frantzia, aldiz, aberri handia. Gerla lehertu aitzineko urteetan, kontzientzia hori errotzeko lan handia egin zuten.

Nazionalismoen iratzartze hura beste estatuetan ere sendi zen, eta Alemaniak Europan nagusi izateko borondatea zeukan. Austria-Hungariak bere barneko nazioekin arazoak zeuzkan, Balkanetan bereziki. Armamentu lasterketa handia zegoen estatuen artean, eta gerla mehatxua etengabea zen. Giro hartan, aliantza kateak sortu ziren: Alemania, Austria-Hungaria eta Otomandar inperioa zeuden alde batetik; Errusia, Frantzia eta Erresuma Batua bestetik. Gutxi aski zen estatu haiek guztiak elkarren aurka gerlan hasteko, eta 1914ko ekainean, Sarajevon gertatu zen atentatu bat izan zen hilabete bat geroago Europa osoa gerlaren erdira eraman zuen aitzakia. Frantzia mobilizazioa izan zen, eta 18 eta 49 urte arteko gizon guztiak gerlara deitu zituzten. Euskal Herriko milaka gizon ere joan ziren Frantzia iparraldera eta Belgikako mugara, alemanen kontra borrokatzera. Baina gerla eta mobilizazio haren harira, ordu arteko polemika giro bizia ezitu zen, bat-batean, eta Frantzia batasun sakratua indarrean jarri zen. Zurien eta Gorrien arteko liskarrak izoztu ziren, eta denek bat egin zuten Alemaniaren kontra. Hots, Frantziako nazioaren eraikuntzan urrats bat gehiago izan zen, zatiketa guztien gainetik, frantses guztiak – eta baita euskaldunak ere – Frantziaren defenditzera joan baitziren.

Gerla laburra espero zuten, bai frantsesek, bai alemanek. Bi aldeek espero zuten aste gutxiz irabaztea. Baina ez zen halakorik gertatu. Lehen asteetan, alemanak franko barna sartu ziren Frantzia, frantsesek Marneko guduan geldiarazi zituzten arte. Gero, posizio gerla hasi zen, eta soldaduak ia lau urtez egon ziren lubakietan, baldintza gogorretan, gerla egiten. Gudu batzuk bereziki bortitzak izan ziren eta Lehen Gerla Mundialeko gertakari nagusitzat jo ziren: Somme, Verdun edota Andereen Bideko guduak. Azken bi horietan, euskaldunek ere parte hartu zuten. Euskaldunek hilabete anitz iragan zuten Andereen Bidearen inguruetan, 1914tik 1916 arte lehenik, eta 1917an gero. Garai gogorrak bizi izan zituzten han. 1917an Errusia gerlatik atera zen, hango iraultzaren ondorioz; baina urte berean, Amerikako Estatu Batuak gerlan sartu ziren, Aliatuen alde. 1918a oraino urte zaila izan zen; alemanek ofentsiba handia hasi zuten Frantzia, baina azkenean, Aliatuek irabazi zuten gerla eta 1918ko azaroaren 11n, armistizioa izenpetu zuten.

Gerla hark zuzeneko ondorioak izan zituen *Eskualduna* astekarian, gainerako aldizkari eta egunkarietan bezala. Zenbait aldizkari desagertu baziren ere, euskarazko astekari horrek aitzina segitu zuen, orrialde gutxiagorekin eta erredakzio talde murriztuago batekin bazen ere. Erredaktoreak gerlara joan zirenez, idazle gutxiago zeukaten Baionan berean; baina ororen buru, hainbat erredaktore gazte gerlara joan izana aukera ona izan zen *Eskualduna*-

rentzat, gerlako lekuetatik beretik soldaduen bizipenak kontatzeko, erredaktore horiek ia astero igortzen baitzuten beren kronika. Jean Saint-Pierre, Jean Elizalde *Zerbitzari* eta Jean Etxepare berriemaile erregularrak ziren, ia astero idazten baitzuten. Geroago, Jules Moulier *Oxobi*-ren kronikak ere argitaratu ziren, eta erregularitasun gutxiagorekin Pierre Duhour marinelaren artikulua eta Salonika aldetik idazten zuen eta A.I. inzialekin izenpetzen zuen zuberotar batenak. Euskal Herritik editorialak idazten ibiltzen ziren Manex Hiriart-Urruti eta, hura hil ondoan, Blaise Adéma.

Erredakzio talde hori gerla lekutik beretik zuzeneko berriak emateko aukera gisa ikus bazitekeen ere, ondorio sakonagoak utzi zituen gerlak, eta *Eskualduna* astekarian ere nabaritu ziren. Batasun sakratuaren giro hartan, eta frantses abertzaletasun agerraldi orokor hartan, aldizkari guztiek mezu bera edo bertsua zeukaten, denek bat egin baitzuten Frantziaren alde. Horrez gain, informazio zehatzak emateko zailtasun handiak zituzten, Frantziako Gobernuak igortzen zituen agiri ofizialez aparte, ez baitzen beste informazio iturririk. Gainera, zentsura neurriak ezarri eta bete zituzten, eta hainbat datu argitaratzea ez zen haizu, alemanek ez zezaten jakin Frantziako armada zertan zegoen edo zeren prestatzen ari zen. Gisa hartan, zenbait aldiz, *Eskualduna* astekarian lerro edo lauki zuri batzuk agertu ziren: zentsuratutako pasarteak ziren. Zentsurak astekari hori ez zuen anitz jo, idazten zuen edukia ez baitzen Frantziako armadak jarri baldintzen kontra joaten. Are gehiago, zentsura guztiz onartzen eta justifikatzen zuten. Zentsuraren garaian, auto-zentsura handia zegoela ageri zen, astekari horretako artikulua irakurtzean.

Artikulu horietan, gerlaren arlo desberdinak jorratu zituzten, eta Frantziak nahi zuen mezuarekin bat egiten zuten arlo horietan. Gerlari buruzko informazio orokorrak – politikoak eta estrategikoak – azaltzerakoan, xehetasun guti ematen zuten, ez bazen errateko gerlaren erantzule bakarrak alemanak zirela. Lehen egunetan denek ziotena errepikatzen zuen *Eskualduna*-k ere, hala nola gerla airez aire irabaziko zutela. Zenbait hilabete iragan arte baizik ez ziren hasi onartzen gerlak luze joko zuela. Gerla luzatzearekin batera, bakea egiteari buruzko eztabaidak lekua hartu zuen, oroz gainetik Aita Santuak hainbat aldiz bakerako deia egin baitzuen. *Eskualduna*-k ahoan bilorik gabe erran zuen nahiago zuela bakerik ez egitea Frantziak galtzea baino, hala nola bakea egitekotan, Frantziak galdu lurra (Alsazia eta Lorrena barne) berreskuratu ondoan baizik ez zitekeela egin. Eta garaipena posible zela erakustea zen denbora guztian zabaltzen zuten mezua, strategiari buruzko azalpen edo irakurketak eskaintzen zituztenean. Baliabide ekonomikoen aldetik, itsasoan gaindi edota lubakietan, Aliatuak nagusi zirela azpimarratzen zuten *Eskualduna*-ko idazleek. Indar harremana Aliatuen aldekoa zela erratea ez zen gerlan

Frantziaren alde sutsu agertzeko arrazoi bakarra. Alemanen – eta haien lagunen – kontra gerla egitea justifikatzeko bide bat zen erratean alemanak ez zirela jendeak, abereak edo barbaroak zirela. Horrekin, haien kontrako herra elikatzen zuten, eta horrela justifikatzen zuten alemanen hiltzea edo hiltzeko plazera.

Hiltzeko tresnak maiz aipatzen zituzten gerlako berrikerariak. Arma desberdinei buruzko aipamen anitz agertu zen *Eskualduna*-n, eta batzuek sortzen zuten beldurra («crapouillots» delako kanoi gisakoek, aire pozoituek) edo beste batzuek sortzen miresmena (hegazkinek) kontatzen zuten. Borroken xehetasunez ez ziren biziki mintzo, Verduneko edo Andereen Bideko une gogorretatik landa idatzitako artikulu hunkigarri batzuk kenduta. Oro har, ez zituzten aipatzen Aliatuentzat gaizki itzultitako guduak; ez zuten aipatzen gudu batetik landa alemanek egin zutenean aitzinamendua. Aipatzekotan, garaipenak aipatzen zituzten. Gibelatzeak aitortzen zituztenean, denbora pasa ondoan baizik ez zituzten aitortzen, hain zuzen, geroztik beste garaipen bat lortu zutenean eta gibelatze haren ondorioak jadanik baliogabetuak zirenean. Kontua zen beti baikor gelditzea, gerlaren garaipena beti ziurtzat jotzea. Alde horretatik, guduen ondorioz jasaten zituzten zauri eta heriotzak aipatzen bazituzten ere, hori gerlaren ondorio ilunen lerroan ezar bazitekeen ere, heriotza horiek kausa justu baten aldeko sakrifizio gisa aurkezten zituzten, inoiz ez alferrik galdutako bizi batzuk bezala.

Guduez berez baino xehetasun gehiago eman zuten gerlako lekuez eta hango bizipenez. Biziki ongi esplikatu zuten nolakoak ziren gerlako lekuak, nola egituratuak ziren lubakiak eta gibel lerroak, zein ziren lubakiak egiteko edo antolatzeke egin behar izaten zituzten lanak eta abar. Halaber, lehen lerroetako baldintzak zein gogorrak ziren ere deskribatzen zuten, batzuetan serio, beste batzuetan umore kutsu batekin. Baina nekez ihes egin ziezaioketen kontakizun ezkor bati, heriotzaren mehatxu etengabea egotea aipatzen zutenean, lohipean, hozturik eta arratoi edo zorrien konpainian bizi behar zutela deskribatzen. *Eskualduna*-ko berrikerariak ez ziren baldintza gogor horiez kezkatzen; onartu beharreko prezio gisa aurkezten zituzten, prest ziren hori jasateko, Frantziaren alde. Gainera, ez zuten denbora gutzia lubakietan iragaten. Denbora anitzez egoten ziren gibel lerroetan, pausalekuetan. Pausalekutik maiz idazten zuten, eta pausako bizimodua kontatzen zuten, lubakietakoa baino gehiago. Lan batzuk egiten bazituzten ere, jolaserako, bestarako edo mezarako astia bazuten, eta hartaz anitz mintzo ziren *Eskualduna*-ra artikuluak igortzen zituzten soldaduak. Baina, nahi ala ez, lubakien eta gibel lerroen arteko kontrastea islatzen zuten, garbi erakusten baitzuten, anitzez nahiago zutela pausalekuan

egon, gerla lekura itzuli baino, nahiz eta beren eginbidea betetzeko prest agertzeari garrantzia ematen zioten.

Eskualduma garbiki ageri zen Frantziaren alde, bai, bat egin baitzuen batasun sakratuaren giroan, informazio urriak eta zentsura onartzearekin, bai guduaren kontakizuna beti Frantziaren aldeko ikuspegitik egiten baitzuen. Baina euskaldun gisa ere berezitasun bat ekarri zuen astekari hark. Gerla lekutik idazten zutenek garbiki erakusten zuten euskaldunak zirela, eta beren herria gogoan zutela. Herriminak presentzia handia zuen haien testuetan, Euskal Herriko lekuen eta etzekoen falta sentitzen zutela adierazten zutelako, eta gerlako lekuan euskaldunek elkarretaratzeko joera zutelako. Halaber, Euskal Herriko ohiturek, dantzak eta pilotak bereziki, leku handia zuten gerlako lekuetan, *Eskualduma*-ko berriktariak kontatzen zutenaren arabera.

Nahiz eta Euskal Herria bihotzean presente egon, nahiz eta hango lekuak eta gertakariak deskribatzerakoan, Euskal Herriko erreferentzia kulturalak erabili edo Euskal Herriko lekuekiko konparaketak egin, nahiz eta Euskal Herria ederrago zela erran, jarrera hartan ez zen Euskal Herriari begirako kontzientzia politikorik ikusi behar. Herrimina soldadu guztien artean sentitzen zen zerbait zen, etzekoen falta baitzen oroz gainetik nabaritzen zena. Euskararen aldeko jarrera erakutsi zuten *Eskualduma*-ko idazleek, baina ez ziren Euskal Herriaren batasun politiko baten aldekoak. Nortasunaren aldetik, euskaldunak zirela garbiki erakusten zuten, bai. Baina hori izari kulturalera mugatzen zen, eta estatu egituraren aldetik, Frantziaren parte izatearen aldekoak ziren.

Artikuluz artikuluz argi ageri zen *Eskualduma*-ren lurralde ikuspegia Frantziakoena bezalakoa zela. Haientzat, Ipar Euskal Herria Frantziako eskualde bat gehiago zen. Frantziar mintzatzean, pluraleko lehen pertsona erabiltzen zuten, Frantziako eskualdeak beren eskualde gisa ikusten zituzten, Alsazia adibidez. Etengabe Frantzia goraiatzeko zuten, eta agintari militarrek laudatzen zituzten.

Logika horrekin, Ipar Euskal Herriko euskaldunak ere frantsesak ziren, *Eskualduma*-ren arabera, eta beraz, Euskal Herriko soldaduak eredugarri gisa aurkeztu zituzten. Hainbat puntutan erakutsi zuten zein soldadu onak ziren. Alde batetik, astekari horren arabera, euskaldunak kemen handiz joan ziren gerlara, mobilizazio deiarri baikorki erantzun zioten. Gerlako ekintzak berak ere desdramatizatzen zituzten, guduak jolas batzuk izan balira bezala kontatuz. Halaber, *Eskualduma*-ri eder zitzaion euskaldunek sariak eskuratzea, hala nola gerlako gurutzeak edo aipamenak. Euskaldunek Frantziaren alde – beren herriaren alde – egiten zuten sakrifizioa txalotu zuten. Astekari honen arabera, euskaldunak indartsuak ziren, kementsuak, eta izan zitezkeen ahuleziei baikorki ihardukitzeko gaitasuna

zuten. Gerlaren luzapenak etsipen zerbait sor bazezakeen ere, euskaldunen artean ez zela halakorik erakusten zuten; *Eskualduna*-ko berriketariak, hasteko, beti baikor agertu nahi zuten. Euskaldun anitzek desertore egitea erabaki bazuten ere, euskarazko astekariak hautu hori gutxiesten zuen, eta alderantziz, bereziki azpimarratu zuen euskaldunek desertore izateko tentazioari uko egin eta gerlan segitzearen aldeko hautua egiten zutela.

Soldaduen motibazioa ez zuen jarrera abertzaleak bakarrik eragiten, eta hori ere islatu zen *Eskualduna*-ko lerroetan. Beste faktore garrantzitsu bat zen diziplinak funtsezko papera zuela eta soldaduek diziplinaz jarraitu zutela gerla egiten. Euskaldunak bereziki diziplinatuak zirela erakutsi nahi izan zuen *Eskualduna*-k, eta beren taldekideekiko leialak. Diziplinari loturik, gerlan irauteko beste faktore bat zen gizentasunaren garrantzia. Gizon gisa jokatzeari balio handia ematen zioten; egiazko gizon izatekotan, kementsu agertu behar zen, eta gerla egitea onartu behar zen, «gizonki». Euskaldunak diziplinatuak eta gizonak zirela erakutsi nahi zuen *Eskualduna*-k, eta bereziki azpimarratzen zuen armadako agintariak edo hedabideak euskaldunen aldeko laudorioak egiten zituztenean; euskal soldaduen fama ona goraiatzeko zuten, erakutsiz euskaldunak frantses onak zirela, beren eginbidea modu eredugarrian betetzen zutenaz geroz.

Soldaduen hirugarren ezaugarria fedea zen, *Eskualduna*-ren arabera. Erligioak leku handia zuen astekari horren edukietan. Garrantzia handia ematen zion gerla lekuetan fedearen berreskuratze agerraldien azpimarratzeari. Lubakietan zeuden soldaduak giristinoagoak zirela erakutsi nahi zuen, otoitzari eta mezari zioten atxikimendua azalduz. Bide horretan, mezen eta besta buru berezien kronika anitz ageri zen *Zerbitzari*-ren eta Jean Saint-Pierreren kroniketan. Baina Frantziaren alde gerlan ari ziren soldaduen giristinotasuna azpimarratzeaz gain, Jainkoa bera ere Frantziaren alde zela ohartarazi zuen kazeta honek, jendeari otoitz egiteko deia eginez bezala. Gertatzen ziren garaipenak Jainkoari zor zitzaizkiola idazten zuten behin eta berriz. Ildo horretan, apaizek Frantziaren alde gerla egiten zutela eta haietarik anitzek bizia galdu zutela ere azpimarratu zuten.

Hori apaiz batzuen betiko solasa izan bazitekeen ere, testuinguru politikoan kokatu behar zen. Nahiz eta batasun sakratu bat izan zela idatzi dugun, eta batasun hori *Eskualduna*-n ere nabaritu zela egia izan, hastapenean aipatu ditugun gatazka politikoak – *Eskualduna*-ren sorreran eta lehen urteetan bizi-bizi zirenak – islatu ziren gerlako kontakizunetan ere. Estatuaren eta Elizaren bereiztearen ondorioz Frantziatik erbesteratu ziren eta gerla egitera itzuli ziren fraideen egoerak oihartzuna izan zuen astekarian, eta oihartzuna baino gehiago, horren gibelean fraide horien egoeraren konpontzearen eskaera ere ikusi behar zen. Orogen buru, batasun giroa ez zela hain sendoa agerian gelditu zen.

Batzuek apaizei leporatzen bazieten ere ez Frantziaren alde izatea eta gerlan ez aski inplikatzeari, *Eskualduna*-k, alderantziz, ezkertiarrei leporatzen zien ez aski egitea Frantziaren alde eta bakea egin nahi izatea garaipena segurtatu baino lehen. Polemika haiek lekua zuten bitartean, astekari honek goraki azpimarratzen zuen soldadu euskaldun giristinoak frantses soldadu onak zirela. Frantzia, izaera laikoaren gainetik, herrialde giristino bat zela aldarrikatu zuen *Eskualduna*-k.

Ondorio nagusiak

Ikerketa hau hasterakoan, abiapuntuko hipotesia zen *Eskualduna* astekariak bete-betean parte hartu zuela Ipar Euskal Herriaren frantsesezko prozesuan eta Frantziaren nazio eraikuntzaren azken fasean. Gure asmoa zen erakustea astekari horrek, zeukan hedapenaren eta eraginaren bitartez, gerlako garaian idatzi zuenarekin euskaldunak frantses sentiarazteko lan egin zuela. Ikerketa lanak hipotesia hori berresteko balio izan balu, aterako genuen ondorioa hauxe zatekeen: *Eskualduna* astekariak etengabe zabaldu zuen euskaldunak frantsesak zirelako mezua eta Frantziaren batasunaren alde egin zuten sakrifizioaren bidez, are frantsesago zirelako.

Gerla denbora osoko artikulua irakurri eta aztertu ondoan, onartu behar dugu hastapeneko hipotesia ez dugula guztiz berretsi, gauzak hori baino korapilatsuagoak direlako, eta hainbat ñabardura egin behar direlako. Irakurketa zehatza egiterakoan, beste faktore edo ezaugarri batzuk kontuan hartu behar izan ditugu. Frantses nortasunaren gaia edo Frantziarekiko leialtasunarena ez zen gai bakarra, eta euskaldun izatea nola agertzen zen ere aztertu behar izan dugu, frantses izaera berresten zuen ikusteko edo, alderantziz, frantses baino gehiago, euskaldun izaera baten seinale zelako. Halaber, ezin izan dugu azterketatik bazter utzi erlijioaren presentzia. Lehen begirada baten arabera, ez zen lotua hastapeneko hipotesiarekin, baina zeukan presentzia ikusirik, hori ere aztertu behar izan dugu, hastapeneko hipotesian eragin bat izan zezakeelakoan.

Hiru galderen inguruan oinarritu dugu ikerketa hau. Lehen Gerla Mundialean, *Eskualduna* astekaria Frantziaren alde inplikatu zela erakutsi dugu lanean zehar. Hori bera ez da hain harrigarri, baina jakin nahi izan dugu zergatik inplikatu zen, nola inplikatu zen eta, bereziki, zertarako edo zer asmorekin. Azterketa egin ondoan, hiru galdera horiei erantzuteko moduan gaude, eta horri esker, hastapeneko hipotesian ñabardura batzuk ezarri ahal izan ditugu eta ondorioak doi bat aldatu.

I. Lehen ikerketa galdera: gerlan inplikatzeko arrazoiak

Lanaren lehen zatian, testuingurua ematerakoan, «Zergatik?» galderari erantzuten ahalegindu gara, hala nola zergatik inplikatzen zen gerlan, eta Frantziaren alde. Hainbat arrazoi dago.

1. Ondorioa: gerlan inplikatzen zen, *Eskualduna*, asmo politikoak sortu zen aldizkaria zelako, eta Frantziako eztabaida politikoaren oihartzun eta parte izan zelako.

Lehenik, astekaria euskarazkoa izateak ez du erran nahi euskara bultzatzeko helburuz sortu zutela, baizik eta garai hartan herritarren hizkuntza euskara zelako. Astekariaren gaiak Frantziako politikarekin lotuak ziren, maiz. Louis Etcheverry astekariaren sortzaile eta lehen zuzendaria Frantziako Legebiltzarrerako hauteskundeetara aurkeztu zen, eta hauteskunde haiei begira zuen astekaria sortu. Hauteskundeak irabazi zituen eta bonapartisten koloreak defendatu zituen Parisen. *Eskualduna* zurien astekaria zen, beraz, eta gorrien aurkakoa. Banaketa politiko hori ez zen Euskal Herrikoa bakarrik; Frantziaren ere halako banaketa bat bazen. *Eskualduna* baino geroago sortu zen Action Française eskuin muturreko mugimendua, eta euskarazko astekariko hainbat lagun mugimendu haren ildokoak ziren, Errepublikaren kontrakoak eta giristino sutsuak. Euskal Herrian Elizaren aldeko eta Errepublikaren kontrako joerak indar handia bazuen ere, hori ez zen Euskal Herrian bakarrik gertatzen. Ez zen Euskal Herriko berezitasuna, beraz *Eskualduna* Frantziako gatazka politikoaren eragile edo Euskal Herriko oihartzun gisa kokatzen zen.

Eskualduna Frantziaren alde inplikatzen zen gerlan, sortu zenetik Frantziako politikan sartua zelako eta Frantziako politikan parte hartzen zuelako. Bere joera Frantziaren ere bazegoen, Action Française-ren bidez bereziki, eta mugimendu horrek goraki azpimarratu zuen Frantziaren alde sutsuki arituko zirela. Haiekin identifikatuz edo politikoki haiengandik hurbil izanez, haien inplikazioa *Eskualduna*-ren inplikazioa zen.

2. Ondorioa: Frantziaren alde gerlan jartzea orduko testuinguru politiko-sozialaren arabera ulertu behar da: Ipar Euskal Herrian euskal abertzaletasunik ez zen garatu XIX. mende bukaeran, eta, alderantziz frantses nazioaren errotze politika handia bizi izan zuen.

Ipar Euskal Herrian ez zegoen euskal abertzaletasunik, XIX. mende bukaeran. Frantsesa ez bazen biziki errotua ere, garai hartan Frantziako Gobernuak neurriak hartu zituen haur guztiek frantsesa ikas zezaten. Euskara bezalako «eskualde» hizkuntzei begira,

jarrera ezberdinak ager zitezkeen; batzuek frantsesa zabaltzeko oztopo gisa ikus zitzaketen, edo, bereziki, laikotasunaren traba gisa, euskara, bretoiera eta abar baitziren erlijioaren zabaltzeko hizkuntzak. Eskuinekoek, alderantziz, frantsesaren zabaltzea sostengatzen bazuten ere, tokian tokiko hizkuntzak ere atxikitzea begi onez ikusten zuten. Baina Frantziaren nazio eraikuntzaren oinarria hor zegoen sendo. Denek gaizki bizi zuten 1870eko gerlaren galtzea eta Alsazia eta Lorrena eskualdeak Alemaniaren esku gelditzea. Erlijioaren inguruko gatazkak ez zuen erran nahi batzuk besteak baino frantsesago sentitzen zirenik, edo alderantziz. *Eskualduna* ere ildo horretakoa zen.

3. Ondorioa: gerla lehertu zenean, Frantziako eztabaida politikoak izoztu eta batasun sakratua egin zen, eta *Eskualduna* ere batasun horretan sartu zen.

Hirugarrenik, gerla lehertu zelarik, joera politiko horiek guztiek zatiketak aldi baterako ahantzi eta Frantziaren alde bat egiteko erabakia hartu zuten. Batasun sakratu hori gain-gainetik goraiatu zuen *Eskualduna* astekariak ere, bere burua gatazka horren partetzat zeukalako, eta denak elkarretaratzea begi onez ikusten zuelako.

4. Ondorioa: informazioa lortzeko mugak eta zabaltzeko askatasun murrizketak gertatu zirelako, astekariak ez zuen gerlaren eta Frantziaren aldeko mezurik baizik.

Oraintxe aipatu dugun giro hartan, normal iruditu zitzaion informazio anitz falta izatea eta zentsura jasan behar izatea. Arrazoi material edo legal horien ondorioz, prentsak ez zuen hautu handirik, eta Frantziaren alde inplikatu behar izan zen gerlan. Beraz, zergatik inplikatu zen *Eskualduna* Frantziaren alde? Ez zezakeelako bestela egin, Frantziaren aldeko propaganda berriak zirelako zituzten informazio bakarrak, Frantziako Gobernuak argitaratzea nahi ez zuena ez zezakeelako argitara. Horrez gain, *Eskualduna*-ko berriketariak berak ere gerlan zeuden soldaduak ziren, Frantziako armadakoak ziren, eta hori horrela izanez, zuzenean inplikatuak ziren.

Bi hitzetan, zergatik inplikatu zen *Eskualduna* gerlan? Informazio iturri urriek eta zentsurak beste gisako hautuak egiteko zailtasunak ematen zituztelako; *Eskualduna*-ko berriketariak berak soldaduak zirelako; Ipar Euskal Herrian euskal abertzaletasunik ez zelako garatu, eta Frantziaren nazio eraikuntza prozesua errotzen ari zelako; *Eskualduna* Frantziako joera politiko orokorragoekin identifikatzen zelako, eta haiek bete-betean inplikatu zirelako Frantziaren alde, batasun sakratuaren giroan.

2. Bigarren ikerketa galdera: gerlan inplikatzeko modua

Bigarren zatian «Nola?» galderari erantzun diogu. Nola inplikatu zen *Eskualduna*, gerla hartan? Erantzuna gerlaren kontatzeko moduan dago.

- 5. Ondorioa: *Eskualduna* gerlaren logikan sartu zen Frantziaren alde, gerlaren erantzukizun guztia Alemaniaren gain ezarriz eta Frantziak irabaziko zuelako segurtamena beti azpimarratuz.**

Gerlan inplikatu zen mezu ofiziala bere eginez, gerlaren ardura guztia Alemaniaren bizkar ezarriz, gerla egitea zuzen kontrako erasoaren jasan zuen Frantzia defendatzea zela azpimarratuz, hastapenetik Frantziaren garaipenaren baitan sinesten zuela erakutsiz, gerla luzatuko zela onartuta ere garaipena Frantziarena izanen zela segurtatuz, etsipen uneetan ere itxaropenari bide emanez eta abar.

- 6. Ondorioa: alemanak ihizien lerroan ezarriz inplikatu zen *Eskualduna* Frantziarekin.**

Inplikatzeko beste bide bat izan zen etsiaiaz mintzatzeko eta haren izendatzeko modua. Alemanak abereen edo ehizakien lerroan ezartzea garai hartako errekurso aski orokorra bazen ere, *Eskualduna* ere joko horretan sartzea gerlan inplikatzeko bide bat zen. Alemanak aberetzat joz, haien gerlako jarrerak gaitzetsiz, egiten zituzten eta ez zituzten salbaikeriak kontatuz, haien hiltzeko gogoia erakutsiz, gerlan inplikatzeko ari zen.

- 7. Ondorioa: gerlako gertakariak eta gerla lekuetako bizipenak kutsu baikorrenekin kontatuz, Frantziarentzako berri onak azpimarratuz eta txarrak isilduz inplikatu zen.**

Soldaduen gutunak argitaratuz, bere berriemaileak berak gerlan inplikatuak zirela erakutsi zuen. *Eskualduna*-n idazten zutenak ez ziren zinezko kazetariak edo gerlako berriak segitzen zituzten berriemaile bereziak, baizik eta soldaduak. Soldaduak zirenez gero, nahiz eta astekari batentzat idatzi, beren soldadu larrutik idazten zuten, soldadu gisa bizi eta egiten zutena kontatzen zuten. Soldadu gisa gerlan inplikatuak ziren, eta beraz inplikazio horren arabera idazten zuten, zentsurari kasu emanez, kontatu behar ez zenik ahalaz ez kontatuz, gertakariak kutsu baikorra emanez, aitzinamenduak goraiatuz eta gibelatzeak isilduz.

- 8. Ondorioa: soldaduak beren betebeharrak betetzeko adina arduratsuak zirela etengabe goraiatuz erakutsi zuen Frantziarekin bat egiten zuela.**

Lubakietan pairatzen zutena kontatzen zutenean, ez zuten beti irudi ona ematen. Hor inplikatzeko ziren ala justu kontrakoa egiten zuten galde daiteke. Baina, funtsean, jasaten zuten egoera gogorraren gainetik, beti erakusten zuten beren betebeharra betetzen ari zirela, eta Frantziaren onetan hori jasatea onartzen zutela. Sufrimenduaren aipua ez zuten kezkatzeagatik egiten, baizik eta zein arduratsuak ziren hobeki erakusteko. Baldintza gogorrenak jasateko prest agertzea bera, Frantziaren alde zer pairatzen zuten erratea bera, nola inplikatzeko ziren erakusteko bideak ziren. Soldaduek sufritzen zuten, baina kausa justu baten alde sufritzen ari zirela azpimarratzen zuten.

3. Hirugarren ikerketa galdera: inplikazioaren motibazioa

Hirugarren zatian «Zertarako?» galderari erantzun diogu. Zein zen *Eskualduna*-ren motibazioa eta xedea gerla hartan hala inplikatzeko? Hor korapilatzen da gure hastapeneko hipotesia.

9. Ondorioa: euskaldunak soldadu eredugarriak eta, beraz, frantses onak zirela erakusteko xede eta gogo etengabea zuelako, *Eskualduna* bete-betean inplikatu zen Frantziarekin.

Argi da bazutela interes berezi bat euskaldunak gerlan nola inplikatu ziren azpimarratzeko eta gerlari eredugarriak zirela goraiatzeko. Euskal Herritik joan ziren soldaduek gerlako eginbidea ongi bete zutela erakutsi nahi horretan ikusi behar da euskaldunak frantses onak zirela frogatzeko xedea. Gorabehera eta une gogor guztien gainetik, euskaldunek tinko jarraitzen zutela erakustearen helburua hori zen. Bazuten aski kezka euskaldun anitz mendiz bestaldera pasatzen zirelako eta euskaldunen artean desertore anitz zegoelako fama zabaldua zelako. Hori gezurtatzeko grina zeukan *Eskualduna*-k, eta horregatik etengabe aipatzen zituen euskaldunek ukan sariak edo egunkarietan ukan aipamenak.

10. Ondorioa: *Eskualduna*-k erakutsi nahi izan zuen girstinoak frantses onak zirela eta Frantzia herrialde girstinoa zela.

Bigarrenik, girstino gisa ere anitz inplikatu ziren, eta etengabe azpimarratu zuten soldaduak fededun onak zirela, otoitz egiten zutela, mezara joaten zirela, aitzindariak berak ere girstino handiak zirela eta abar. Horrekin erakutsi nahi zuten girstinoak frantses onak zirela eta Frantziaren alde dena emateko prest zirela. Hots, argi utzi nahi zuten Frantzia herrialde girstinoa zela, Frantziako soldaduak girstinoak zirela azpimarratuz. Mezua

Frantziako Errepublika laikoaren aldekoen zuzendua zitzaien, baztertu zituzten giristinoak Frantziaren onetan gehien inplikatu zirenetarikoak zirela erakusteko. Mezu hori zuzentzen zioten bai Frantzia laikoaren aldekoen, baina baita ere Frantzia laikoa izateagatik gerla hartan Alemaniaren aldeko jarrera hartu zuten herrialde neutroetakoien.

11. Ondorioa: Frantziako Errepublikak Elizaren eta Estatuaren bereizte legearen ondotik hartu neurrien kontra eginez, apaiz, fraide eta seroren berrintegrazteko zilegitasuna azpimarratzea eta horren aldarrikatzea zen astekariaren beste motibazioa.

Ororen buru, *Eskualduna*-ren inplikazioaren motibazioetariko bat, kontzientea edo inkontzientea izan, Estatuaren eta Elizaren arteko bereizte legetik landa bazterrean gelditu zen Elizaren famaren berreskuratzea zen. Frantziatik joan ziren fraideak berriz integrazteko eskaera zegoen horren gibelean, baina baita ere Elizaren eta Elizaren inguruko egituren lekuaren aldarrikatzea. Erakutsi nahi zuen Frantziako Estatuak baztertu zuen instituzio horrek anitz eman zuela Frantziaren alde; baztertuak izanik ere, Frantziaren alde sakrifizioa egiteko hautua egin zuela eta horrek erakusten zuela zein frantses onak ziren. Ordainez, galdu lekua berreskuratzeke gogoia erakusten zuen.

Bi hitzez, zertarako inplikatu zen *Eskualduna*? Euskaldunak frantses onak zirela erakusteko, giristinoak frantses onak zirela erakusteko, Frantzia herrialde giristinoa zela erakusteko eta Elizaren eta Estatuaren bereizte legeak sortu egoera konpondu behar zela aldarrikatzeko.

4. Ildo editorial orokorrari buruzko ondorioak

«Zergatik?», «Nola?» eta «Zertarako?» galderei erantzun ondoan, gure hastapeneko hipotesiari ñabardura handiak ezarri behar zaizkiola argi gelditzen da. *Eskualduna*-ren lana ez zen izan euskaldunak frantses zirela azpimarratzea, edo ez zen horretara mugatu. Frantses izaerari ñabardurak ezarri behar zaizkio, baina euskaldun izaera agertzen bazen ere, hor ez zen ikusi behar euskaltasunaren aldarrikapen abertzale bat. Azkenik, giristino izaerak funtsezko garrantzia zuen.

12. Ondorioa: *Eskualduna*-k frantses jarrera abertzalea erakutsi zuen eta gerla borondatez egiten zelako mezua zabaldu zuen.

Eskualduna frantses gisa agertu ote zen Lehen Gerla Mundialean? Bai. Dudarik gabe, bai. Frantziatz mintzatzean lehen pertsona erabiltzea zen horren lekuko nabarmenena, baina

ez hori bakarrik. Etengabe Frantziaren alde agertuz, alemanak hainbeste irainduz, gerlako gertakariak beti Frantziaren aldera aipatuz eta abar, Frantziaren baitako inplikazioa argiki erakusten zuten. Euskaldunen mobilizazioa ederresten zuten, gerlan inplikatzearen motibazio abertzaleak bazirela erakutsiz, Péronneko taldearen teoriari sinesgarritasuna emanaz. Péronnekoek diote gerla egitea «onartu» zutela soldaduek, beren borondatez egin zutela.

Oro har, Frantziarenganako jarrera abertzalea nabaria zen *Eskualduna* astekarian, editorialetan bereziki, baina baita gerlako berriemaileen kroniketan ere, Jean Saint-Pierreren artikuluetan oroz gainerik. Rémy Cazalsen taldeak dio soldaduek gerla ez zutela beren borondatez egin, ez zutela gerla egitea «onartu», baizik eta ez zutela beste hauturik eta gerla egitera «behartu» izan zituztela. Gure lanaren helburua ez da izan jakitea ea euskaldunek gerla egitea onartu zuten ala behartuak sentitu ziren. Guk jakin nahi dugu *Eskualduna*-ren jarrera bi teoria horietatik zeinetara hurbiltzen den gehien. Jarrera abertzalea agertze hori, soldaduek frantses on gisa gerla egiten zutela errate hori, Péronneko taldearen teoriarekin lot dezakegu. Baina, bistan da, *Eskualduna*-k berak ere ez zezakeen bestela idatz. Idazten zutenaren arabera, ez dirudi bestela pentsatzen zutenik, baina mementoan berean idatzitakoa ez daiteke aztertu gibelapenarekin idatzitako testu bat bezala.

13. Ondorioa: Frantses jarrera abertzalearen gainerik, eta hori erlatibizatuz, diziplinaren eta gizontasunaren balioari ere garrantzia eman zioten *Eskualduna* astekarian.

Jarrera abertzale horretan ñabardurak ikusi ditugu, eta aipatu behar dira. Euskaldunak soldadu onak zirela erakusteko beste modu bat ere bazuten astekariko berriketariak. Ez ziren soldadu onak Frantzia salbatzeko borondate irmoa zutelako bakarrik; bazen beste faktore bat zenbait aldiz agertzen zena, eta gerora historialariak sakondu izan dutena. Gerla egiten zuten diziplinatuak zirelako, eta diziplina denek gainerik zegoelako. Soldaduen arteko elkartasuna ere nabari zen *Eskualduna*-ko artikuluetan, eta elkartasun eta talde giro hori ere gerlan irauteko faktore garrantzitsua zen. Horri loturik, beste faktore bat, *Eskualduna*-n hastapenetik garrantzia izan zuena: gizontasunarena. Gerla egitera ausartzen ez zena ez zen egiazko gizontzat jotzen, eta egiazko gizon izatea bertute handitzat hartzen zen garai hartan.

Beraz, bai, frantses izaera azpimarratu eta goraiatu zuten, baina ez zen gerlaren alde agertzeko faktore bakarra. Elkartasuna eta gizontasuna ere faktore inportanteak ziren. Baina beste aldetik begiratu gero, erran daiteke ere egiazko gizon izatea soldadu on eta frantses on izatea zela.

14. Ondorioa: *Eskualduna* astekariak euskal nortasuna gorai patzen bazuen ere, ez zegoen hor jarrera politikorik: Euskal Herriarekiko atxikimendua maila afektiboan agertzen zen, ez politikoan.

Frantses nortasunaz gain, euskal nortasuna ere arras agerikoa zen *Eskualduna*-ko artikuluetan. Baina komeni da hori ere erlatibizatzea. Hainbat aldiz agertu zen herriminarekin lot genezakeen sentimendu bat, Euskal Herria noiznahi gogoan baitzuten. Baina Euskal Herriaren aipu horiek hurbiletik begiratu, Euskal Herriko bazterretara eta etxera mugatzen ziren. Mendiak eta itsasoa urrun sentitzeak eragiten zuen mina, batetik; bestetik, etxeko salda, etxeko supazterra, amaren ipuinak eta abar zituzten falta. Hor ez zegoen herri desberdin batekiko atxikimendu baten agerraldirik. Etxearen falta edozein frantsesek sendi zezakeen, are gehiago lubakietako baldintza gogorretan zeudenean.

15. Ondorioa: *Eskualduna*-rentzat, euskaldun izatea frantses izatearen parte zen, eta gerlak euskal nortasuna – hurbilekoa – eta frantsesa uztartu zituen.

Euskararen aldeko atxikimendua agertzen bazen ere, hor ez zegoen jarrera politikorik. Horrek ez zuen erran nahi Euskal Herria aparteko herri bat zela uste zutenik. Alderantziz, argi eta garbi adierazi zuten ez zirela zazpi herrialdeak bilduko zituen euskal estatu baten alde, eta ongi iruditzen zitzaizela Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa Frantziaren parte izan zitezela. Alde horretatik, interesgarriak iruditu zaizkigu Hubert Pérèsen ondorioak: barnealdeko soldaduek (frantses) nazio «abstraktuaren» alde gerla egitea aise onartu zuten, nazioa defendatzea beren herrian lasai bizitzea defendatzea zelakoan. Hots, gerlak herri mailako nortasuna eta frantses nazio nortasuna uztartu zituen¹⁹⁸⁶.

Eta parametro horretan kokatu behar da euskaldunen aipamena eta euskaldunak soldadu onak zirela espantu egiteko joera. *Eskualduna*-ri kezka berezi bat ageri zitzaion, euskaldunak eredu zko soldaduak zirela erakusteari begira. Horrekin, euskaldunak frantses onak zirela frogatzea zen helburua, Ipar Euskal Herria Frantzian hobeki integraztekoa. Euskaldunak komunitate gisa erakutsiz, erran dezakeguna da ez zutela euskal komunitatearen izaera ukatzen – nola ukatuko zuten? – baina, bereziki, komunitate gisa komunitate zabalago baten parte gisa erakutsi nahi zituztela. Euskal komunitate horren aberri handia Frantzia zela azpimarratzen zuten etengabe, eta Frantziari ordaindu beharreko odolezko zerga gain-gainetik ordaindu zutelako espantu egin zuen astekariak. Hots, logika horren arabera, euskaldunak euskal komunitatearen parte zirelako, eta euskal komunitate hori Frantziaren parte zelakoan, euskaldunak frantsesak zirela azpimarratzen ari zen

¹⁹⁸⁶ Pérès, «Individus entre village et nation. Une expérience identitaire dans la formation de la France républicaine», 348.

Eskualduna. Euskaldunak frantses onak zirelako hainbeste poztea Frantzian sartzeko gogoaren erakusle ere izan zitekeen, erakustera emanaz euskaldunek garesti ordaindu zutela Frantziaren aldeko zerga, eta beraz merezimendu osoa zutela Frantziaren parte izateko.

Sintesia

Euskaldunek bezala, fededun guztiek. Kristautasunak leku handia zuen *Eskualduna*-ko lerroetan, eta nortasunaren azterketatik ezin da bazterrean utzi. Frantses edo euskaldun izatea baino garrantzitsuago ageri zen fededun izatea. Gisa horretan, giristino izaera erlijio nortasun baten erakusle zen. Horregatik diogu hirugarren nortasun bat ere ageri zela *Eskualduna*-ko lerroetan.

Giristino izaerak ez zeukan loturarik nazio ikuspegiarekin, munduaren zati handi bat, Europa bereziki, giristinoa baitzen. Euskaldunak, espainiarrak, italiarrak, frantsesak eta abar giristinoak ziren, nagusiki. Beraz, giristino agertzeak ez zeukan berezitasunik; *Eskualduna*-koak ez ziren besteengandik desberdinak kristautasuna erakusten zutelako. Baina ematen zioten garrantziak erakusten du erlijio nortasuna nazio nortasunaren gainetik kokatzen zutela.

Hori baino gehiago, izaera giristinoa beste nortasunekin lotzeko bide gisa ikusi dugu. Euskaldunak fededun eredugarri gisa aurkezten zituen. Euskaldunek otoitz egiten zuten, mezako hitzorduak ez zituzten huts egiten. «Euskaldun fededun» leloa¹⁹⁸⁷ islatzen zen astekariko artikuluetan zehar. Euskaldun izatea fededun izatea zela erakusten zuten, biak lotuak ziren. apaizentzat euskara beren mezuaren zabaltzeko tresna zen, Ipar Euskal Herriko herritar gehienek oraino euskara baizik ez baitzekiten. Alderantziz, estatu laikoa nahi zutenentzat, euskara bezalako hizkuntzak trabatu behar ziren, giristinotasunaren eragina ahultzeko asmoz.

Ikuspegi horrekin ere ulertu behar da *Eskualduna*-ko artikuluetan euskaldunak aparte aipatzeko joera. Hurbiltasunaz gain, euskaldunak giristino gisa ikusten zituztelako goraiatzan zituzten. Euskaldunak soldadu eredugarriak eta frantses onak zirela erakustean, helburua ez zen soilik – ez eta ere nagusiki – euskaldunak Frantzian ongi integratuak zirela frogatzea. Hori baino sakonago, euskaldunak giristino onak zirenez gero, giristinoak frantses onak zirela erakutsi nahi zuten.

¹⁹⁸⁷ Euskaldun izaeraren eta fede erlijioaren arteko loturaren historiaz ari da Belen Altuna: Belen Altuna, *Euskaldun fededun: euskaldun ona izateko modu baten historia* (Irun: Alberdania, 2003).

Baina giristinoak frantses onak zirela erakusteko bide gehiago ere erabili zuen *Eskualduna*-k. Euskaldunak ez ziren soldaduak ere giristino onak zirela azpimarratzeko joera zeukan, besteak beste lubakietako soldadu gehienak fededunak zirela aipatuz edota buruzagi militarrek osoki giristinoak zirela ohartaraziz. Eta horren gainera, Jainkoa Frantziaren alde zela erranez ere ari ziren adierazten Frantzia eta erlijio giristinoa elkarrekin lotuak zirela. Beraz, giristino izaeraren azpimarratzea ere lotua zen beste bi nortasunekin, euskaldunarekin, eta denen gainera frantsesarekin.

16. Ondorioa: Hiru nortasunen arteko hiruki bat ageri zen *Eskualduna* astekarian: euskaldun izatea, fededun izatea eta frantses izatea nortasun beraren ezaugarriak ziren, astekari horren arabera.

Euskal nortasuna, frantses nortasuna eta giristinotasuna elkarrekin harilkatuak ziren hiru izaera gisa ageri ziren, beraz, *Eskualduna*-ren orrialdeetan. Haientzat, euskaldunak frantsesak ziren eta giristinoak ere bai; halaber, giristinoak frantsesak ziren eta alderantziz. Hori erakutsi eta azpimarratu nahiak bazuen beste asmorik ere: batasun sakratuarekin bat egitea, gerlaren logikan sartzea, frantses agertzea eta gauza horiek baino sakonagoa zen *Eskualduna*-ren jarrera eta asmoa.

Estatuaren eta Elizaren bereizte legeaz mintzatu gara maiz, lan honetan zehar. *Eskualduna* astekariaren ildo editorialean eragin handia izan zuen gertakari hark, eta errepublikar laikoaren eta Elizaren aldekoen arteko gatazkaren oihartzuna etengabea zen astekari hartan. Testuinguru horren azaltzearen interesa ez datza soilik astekaria zein girotan sortu eta garatu zen kontatzearen beharrean. Beharrezkotzat jo dugu, bistan da, astekariaren nondik norako horiek guztiak ematea. Baina bereziki beharrezkoa iruditu zaigu gerla denborako jarrera horren hobeki ulertzeko. Gerla lehertu zenean, Estatuaren eta Elizaren bereizte legeak bederatzi urte baizik ez zituen, eta fraideak oraino ere Frantziatik kanporatuak ziren. Euskaldunen kasuan, Hego Euskal Herriko fraidetegietan zeuden. Gerla lehertu zenean, beraz, bereizketa legearen zauria oraino odoletan zegoen. Min handiago batek min txikia estaltzen duen bezala gertatu zen orduan ere, gerla bera are zauri handiagoa baitzen. Baina zauri txikiago hori ere ez zuten ahantzi *Eskualduna*-koek.

Batzuetan zuzenean egiten zioten erreferentzia lege haren ondorioei, hala nola Frantziak haizaturik ere gerla egitera itzuli ziren euskal fraideen balentriak aipatzeko. Fraide bat gerlan hil zenean, aski azpimarratu zuten bere borondatez joan zela gerlara, urte batzuk lehenago Frantzia uztera behartu zutela oroitaraziz. Aukera paregabea zen *Eskualduna*-rentzat, lege hura zein txarra izan zen aditzera emateko eta legearen ondorioak pairatu zituztenek erakutsi zuten jarrera kontuan hartuz, lege haren ondorioak baliogabetu behar

zirela adierazteko. Gerla bukatzera buruz ere garbiki agertu zuten desio hori, eta pozez hartu zuten Clémenceauk lege haren ondorioak berraztertu behar zirela erran izana.

Apezek gerlan zenbat parte hartzen zuten azpimarratzeak ere bazuen antzeko helburua. apaizak eta apaizgaiak ez ziren erbesteratuak, baina haien kontrako kritika zorrotzak zabaltzen zirelako kezu zen *Eskualduna*. Laikotasunaren aldekoen eta fededunen arteko gatazkaren isla zen hainbatek ziotela apaizak lasai bizi zirela, ez zutela gerla zuzenean egiten, bakea nahi zutela eta abar. Gisa hartako akusazioek min egiten zieten *Eskualduna*-ko idazleei, berak ere apaizak zirenez geroz. Horren kontra egiteko, etengabe erakusten zuten zenbat apaizek egin zuten gerla, zenbat hil ziren, zenbateko sakrifizioa egiten zuten gerla hartan, Frantziaren alde. Legez hainbat eskumen kendu bazieten ere, elizgizonek frantses gisako eginbidea zorrotz betetzen zutela ozen erakutsi nahi zuen *Eskualduna*-k. Hori ere modu bat zen errateko bereizte legea ez zela zuzena.

Horrez gain, soldaduak berak giristinoak zirela erakustea ere ildo horretan sartzen zen. Fraideek eta apaizek Frantziaren alde izan zuten engaiamendua azpimarratzea baino sakonagoa zen jende arruntaren izaera giristinoaren nabarmentzea. Euskaldunak soldadu on eta giristino onak zirela erranez, edo oro har, gainerako soldaduak ere giristino onak zirela zehaztuz eta giristino ona soldadu ona zela ondorioztatuz, Frantziako gizarteak giristino izaten segitzen zuela ohartarazi nahi zuten. Hori ere beste argudio bat zen Elizaren eta Estatuaren bereizte legearen gaitzesteko eta zuzen kontrakoa zela errateko. Soldadu gehienak fededunak zirela goraiatuz eta, beraz, Frantzia giristinoen engaiamenduari esker salbatuko zela erakutsiz, legearen funtsa baliogabetzen zuten. Orogen buru, legearen arbuiatzeko modu bat zen.

Baina dena ez zen legeari begira idatzia. apaizek eta fraideek, baztertutak eta haizatuak izanagatik, Frantziaren alde beren odola eman izana edota soldadu hoberenak giristinoak zirela edo soldadu gehienak giristinoak zirela azpimarratzea legearen berraztertzekeo argudio gisa har bazitekeen ere, asmo sakonagoak ageri ziren. *Eskualduna*-ri ez zitzaion ongi iruditzen Espainiako eta Hego Euskal Herriko hainbatek erratea Frantziaren kontra zirela, Frantzia estatu laiko bihurtu zenaz geroz. *Eskualduna*-k garbi utzi nahi zuen gauza bat zela estatuburuek egin zuten legea, eta beste bat zela gizarteak berak zeukan jarrera erlijioari begira. Hots, Estatu laikoa bazen ere, gizarte giristinoa zela azpimarratu nahi zuen. Eta hori da gerla denbora guztian egin zuena: soldaduen fedea eta fedearen agerraldiak behin eta berriz kontatuz, frantses gizarte beste edozein bezain giristinoa zela argi utzi nahi zuten.

Mezu hori Frantzia barnera ere zuzendua zen. Lege laikoek Eliza postura ahulean utzia zuten. Lehen Elizaren esku zeuden irakaskuntza eta osasun zerbitzua. Baina legeak aldatu ondoan, apaizek eta serorek eskumen hori galdu zuten, eta horrekin gizartearen baitan zuten eraginaren zati handi bat. Gerlan, apaizen eta giristinoen engaiamendua zintzoa bezain ezinbestekoa zela agerian utziz, erlijioaren eragina berreskuratzeko ahalegina egin zuten. Annette Beckerrek¹⁹⁸⁸ dioenarekin bat egiten dugu, alde horretatik. Antiklerikalek apaizei leporatzen zieten gerlaz baliatzea beren fama onaren berreskuratzeko, erlijioaren propaganda egiteko. Gerlak iraun zuen denbora guztiko *Eskualduna* astekariaren zenbakiak irakurriz, ondorio berera hel gaitezke. Astekariaren etengabeko mezua zen gerla irabazteko, soldadu giristinoei esker, jendeak egiten zituen otoitzei esker, aitzindari militarren otoitzei esker eta Jainkoa Frantziaren alde izateari esker izanen zela.

Bi publiko eta bi helburu izan zitzakeen mezu horrek. Batetik, *Eskualduna* astekariko gehienak edo guztiak zeuden, hala nola giristinoak. Irakurle gehienak edo guztiak giristinoak zirela diogu, mezatik ateratzean saltzen baitzen *Eskualduna*, eta beraz, giristinoek erosten zutela ondoriozta daitekeelako. Irakurle fededun horiei fedearen baitako konfiantzan tinko jarraitzeko deia egiten zieten gisa hartan. Fededunei berretsi zieten merezi zuela giristino izateak. Bere ohiko irakurle gotik urrunago begiratu, mezu horrek balio zuen fedetik urrunduak zirenengana heltzeko ere. Fedegabeei erran nahi zieten Frantzia Jainkoari eta fededunen otoitzei – eta sakrifizioari – esker salbatuko zela. Hori modu bat zen berriz giristino egin zitezten konbentzitzeko edo, horretara heldu gabe ere, gutxienez fededunak eta apaizak errespetatu zituzten eskatzeko. Funtsean, *Eskualduna*-k erlijio giristinoaren aldeko propaganda egin zuen Lehen Mundu Gerraren harira. Giristinotasunaren fama hobetzeko ahalegina egin zuen, legeari begira eta gizarteari begira, eragina galtzen ari ziren elizgizonek eragina berreskura zezaten.

Horregatik diogu *Eskualduna* gerlan inplikatzeko ez dela bakarrik ulertu behar edozein frantsesek eginen lukeen gisan, frantses abertzaletasun soil batek bultzaturik gertatu zen zerbait bezala. *Eskualduna* guztiz frantses agertu zen, Frantziako Estatuak marjinatu zituen erlijio gizonak eta instituzioak Frantziaren baitan defendatu nahi zituelako. Eta asmo horren inguruan harilkatu zituen hiru nortasun edo izaerak: euskaldunak giristino eta frantses onak ziren aldi berean. Frantses on izateko, euskaldun on izan behar zen, eta euskaldun on izateko giristino on. Beraz, frantses on izateko, giristino on izan behar zen. Euskal nortasuna giristinotasunaren eta frantses izaeraren arteko zubi gisa ikusten zuten; eta giristinotasuna euskal eta frantses nortasunen arteko zubi gisa ere bai.

¹⁹⁸⁸ Becker, *La guerre et la foi. De la mort à la mémoire 1914-1930*, 96.

Baina nola uler hiru izaera horiek uztartzea? Zergatik ez zuten Frantzia eta frantses izaera arbuaitzen, pentsatuz Frantziak giristinoak eta apaizak baztertzen zituela eta euskara ukatzen? Euskaldun fededun batek zergatik ez zion uko eginen bere bi izaerak baztertzen zituen Frantzia horri? Agerikoa da *Eskualduna*-k gauzak ez zituela horrela ikusten. Frantses izaerari ez zion uko egin, aldarrikatu zuenaz geroz. Hain zuzen, giristino izaerak lehentasuna zuelako, haien begietan. *Eskualduna*-koak, Hiriart-Urruti horien artean, joera orokorragoekin zeuden harremanetan. Action Française mugimenduko jendearekin eta Frantziako Elizarekin elkartuta zeuden. *Eskualduna*-ri ez zitzaion bidezkoa iruditzen Frantziako Gobernuak Elizaren kontra eraman zuen politika, baina ez zitzaion bidezkoa iruditzen ez Euskal Herrian, ez beste nehon. Ez zuen planteatzen Euskal Herria Frantziatik bereiztea, bertako elizgizonek erlijio lana lasaiago egin zezaten. Ordurako, barneratua zuten Ipar Euskal Herria Frantziaren parte zela, euskaldunak frantsesak zirela, euskaldun zirenez geroz.

Horrekin argi utzi nahi duguna da nahiz eta gerlaz mintzatzean giristinotasunaren propaganda egin eta Eliza Frantziak berriz integratzearen aldarrikapena egin, *Eskualduna*-k Frantziaren alde erakutsi zuen jarrera eta engaiamendua zintzoa zela. Are gehiago, Frantziarekin bat egitearen aldeko jarrerari indar gehiago eman zion. Elizgizonak eta giristinoak Frantziaren alde zintzoki ari zirelako espantu egiteaz gain, *Eskualduna* bera zintzoki ari zen. Hastapenetik onartu zituen gerlak inposatu arau zorrotzak, zentsura bereziki. Beti egin zuen ahalegina berri onak emateko, eta gauzak Aliatuen aldera eta alemanen kontra itzultzen ari zirela erakusteko. Berdin zuen errealitatean zer gertatzen zen, mementoan mementoko garaipenak frantsesenak, ingelesak edota errusiarrenak zirela kontatu behar zuen. «Biba Frantzia» eta horrelako oihuekin ere garbiki erakusten zuen noren alde engaiatu zen.

Ematen zituzten berriak baikorrak edo ezkorak ziren begiratzerakoan, garbi gelditu da gehienetan modu baikorrean ematen zituztela. Berri ezkor bat izan zitekeen galdutako gudu baten aipatzea. Baina lehen erran dugun bezala, eskualde bat galdu zutela aitortzen zuten, berreskuratu zutela kontatu zutenean. Gerla lekuetako – eta bereziki lubakietako – bizipenak kontatzen zituztenean, dena ez zen loriagarria. Une gogorrak aipatzen zituzten. Hori ukaezina da. Baina oro har, gauza gogorrak ere modu arinean kontatzeko joera zegoen. Ez ziren marmarka ari, ez ziren egoeraz kexatzen, ez zuten protestatzen. Gauzak umorez kontatzen zituzten, edo bestela, egoera gogorra jasateko prest zirela erakusten zuten. Frantziaren aldeko engaiamendu eta sakrifizio gisa aurkezten zuten hori, beren buruak eta euskaldunak gorai patuz, eta beraz frantses onak zirela aldarrikatuz.

Beraz, motibazioa frantses abertzaletasunak ala Elizaren fama hobetzeko gogoak piztu, *Eskualduna*-k gerla tratatu zuen moduaren ondorioa berdintsua zen: euskaldunak frantsesago sentiaraztea. Hainbeste aldiz goraiatu zituzten «beren herriaren» (Frantziaren) alde bizia eman zuten euskaldunak, hainbeste aldiz ohoratu zituzten «beren eginbidea» betetzen zutenak, hainbeste aldiz gaitzetsi zituzten gerlatik ihes egin zutenak, hainbeste aldiz goretsi zuten Frantzia («gure armada»), hainbeste aldiz iraindu zuten Alemania, non euskaldunen baitan frantses sentimenduaren errotzean eragin handia izan zuten.

Euskaldunak frantses onak zirela erakutsi nahi horretan eta soldadu eredugarri gisa aurkeztuz, soldaduak berak eta soldaduen familiak frantses sentiarazi zituzten, edo sentimendu hori pizteko aukera handiak sortu zituzten. Eragin bera zuen euskaldunak giristino on gisa frantses onak zirela erraten zutenean. Eta eragina are handiagoa izan zitekeen Frantziaren alde gerla egitea Jainkoaren alde gerla egitea zela azpimarratzen zutenean. Giristinoen artean eragin handia zuen mezua Jainkoari lotua zen, *Eskualduna*-ren artikuluetan fidatuz gero. Giristinoen eginbidea Jainkoaren zerbitzatzea zen; eta gerlan Frantziaren («beren herriaren») alde engaiatzea ere Jainkoaren zerbitzatzea zela azpimarratuz, giristino izaera eta frantses nortasuna lotu zituzten. Euskaldunak frantsesak zirela ulertaraziz eta Frantziako giristino horiek Frantzia zerbitzatu behar zutela konbentzitu, euskaldunen baitan frantses izaera gorpuzteko ahalegina egin zuten. Horrekin berresten dugu Xabier Altzibarrek dioena: mende hastapenarekin batera, «Zazpiak Bat» ideia ahuldurik gelditu zen, eta «Lehen Mundu Gerrak ere kolpe handia eman» zion¹⁹⁸⁹. Iñaki Aldekoak¹⁹⁹⁰ kontraesana ikusi du Frantziako Errepublikak Elizaren kontra hartu neurrien ondotik, gerla garaian apaizek eta *Eskualduna*-k Errepublika horrekin bat egitean, baina hori horrela izan zela onarturik, jarrera horrek Ipar Euskal Herriko laborarien kontzientzian funtsezko eragina izan zuela dio. Astekariak berak ukan zezakeen eraginaren gainetik, Eugen Weberrek zehaztu duen bezala, frantsesik ez zekiten soldaduek halabeharrez ikasi zuten frantsesa gerla garaian, eta gerla bururatu ondoan ere frantsesez mintzatzen jarraitu zuten anitzek¹⁹⁹¹.

Beren irakurleak, euskaldun gisa edo giristino gisa edo biak batera, frantsesak zirela azpimarratuz, irakurleei zabaltzen zieten mezua hori zen: «frantsesak zarete». Ez dezakegu neurtu astekariaren mezuak zer harrera zuen jendearen baitan; ez da hori izan gure lana. Baina astekaria idazten zutenean mezua beste batzuek ere erraten zutela pentsa daiteke,

¹⁹⁸⁹ Altzibar, «Zazpiak bat gaia XIX. Mendean (The zazpiak bat topic in the XIXth century)».

¹⁹⁹⁰ Iñaki Aldekoa, *Euskal literaturaren historia* (Donostia: Erein, 2008), 158–159.

¹⁹⁹¹ Weber, *La fin des terroirs, la modernisation de la France rurale, 1870-1914*, 123.

astekaria idazten zuten gehienak apaizak zirenez geroz eta apaiz horiek astekarian zabaltzen zuten mezuaren antzekoa zabaltzen bide zutelako beren herrietan. Astekariak zuen irakurle kopuru handia kontuan harturik, argi da Ipar Euskal Herriko gizartearen baitan nortasun frantsesa zabaltzeko eragile bat izan zela.

17. Ondorioa: euskal nortasuna erlijioaren babes gisa erabiliz, euskaldunak frantsesak zirela azpimarratuz eta frantsesak fededunak zirela gorai patuz, gerlan zehar Frantziaren alde etengabe zabaldu zuten mezuarekin, *Eskualduna*-k Ipar Euskal Herriko euskaldunak frantses sentiarazten parte hartu zuen.

Laburbilduz, *Eskualduna*-k hiru nortasun agertu zituen gerla denboran, gerlaz idatzi zuenean: euskalduna, frantsesa eta giristinoa. Nortasun horien artean nagusi zena giristino nortasuna zen. Hots, oroz gainetik, erlijioarenganako atxikimendua zuen erakusten. Baina bere burua frantses gisa kokatu zuen. Euskal nortasuna izaera edo helburu gisa agertzeko ordez, erlijioaren babes tresna gisa agertzen zuen, eta baita ere, nahiz eta paradoxa izan, frantses on gisa agertzeko tresna.

Gerlaren bitartez, *Eskualduna*-k zabaldu nahi zuen mezu nagusia zen, giristinoak eta apaizak frantses onak zirela eta, are gehiago, Frantziak gerla Jainkoari eta fededunei esker irabaziko zuela (eta irabazi zuela). Euskaldunak, giristino on izanez, gerlari eta frantses on gisa aurkeztu zituen, mezu nagusi horri indarra emateko. Hori kokatu behar da Estatuaren eta Elizaren bereizte legearen ondotik sortu zatiketa giroan: *Eskualduna*-k (Frantziako giristino anitzek bezala) Elizaren fama hobetu nahi zuen Frantzian: aitzineko urteetan Frantziatik kanporatu zituzten fraideak berriz integra zitezene nahi zuen, eta, oro har, krisian zegoela zirudien fedearen aldeko kanpaina egin zuen.

Ondorioz, Frantziaren alde gerla egitea Jainkoaren zerbitzatzea zela erakustera eman ez eta etengabe Frantzia gorai patuz, frantses nortasuna euskaldunen baitan errotze prozesuarekin bat egin eta horretan parte hartu zuen.

Zeharkako ondorioak

Ondorio nagusiak aipaturik, ikerlan honetan, bereziki testuingurua argitzeko egindako bilaketan bidez, beste ondorio batzuk ere aurkitu ditugu, hipotesiarekin edo ikerketa galderekin zuzenean loturirik ez zutenak. Astekaria hobeki ezagutzeko bidean, orain arte

ezagunak ez ziren datuk batzuk aurkitu ditugu. Alabaina, gure gaiaren ildo nagusietariko bat *Eskualduna* astekaria izan da. Nahiz eta gai nagusia Lehen Mundu Gerra izan edo lan honen gai nagusia hori dela pentsatu, lehenbiziko abiapuntua *Eskualduna* astekaria ikertzea izan dela gogora ekarri behar dugu. Lehen Mundu Gerrak zuen garrantziak eta oraino duen itzalak pentsatzera eman badezake ere gerlari buruzko tesia dela, argi utzi nahi dugu gerla horri buruzko begirada bat dela ikertu duguna, eta begirada hori *Eskualduna* astekarikoena da. Horregatik, denbora handia iragan dugu astekari horren eta gerla denboran idatzi zuten lagunen deskribatzen.

Aztertu ditugun pertsona horiek euskal literaturaren historian beren lekua izan dute, eta horregatik, euskal literatura eta prentsa ikertu dituztenek ere aipatu izan dituzte. *Eskualduna* astekariak ere hainbat lan izan dira. Baina orain arte, astekari horretako bi idazle dira gehien landu izan direnak. Literatura sailean, Jean Etxepare anitz¹⁹⁹² ikertu da, nahiz eta gerlan idatzi izan zituenak ez hainbeste ikertuak izan. *Eskualduna* astekariari buruzko lan gehienak¹⁹⁹³ Manex Hiriart-Urrutiren lanera mugatuak izan dira. Hiriart-Urrutiren testu anitz bildu da, haren biziak anitz idatzi da, haren estiloaz, izaeraz eta abar. Baina *Eskualduna* aztertzerakoan, ez gara Hiriart-Urruti aipatzearekin konformatu. Beste idazle anitzek parte hartu zuten astekari horretan, eta haien funtzioaz eta biziak ere arduratu gara. Eta ohartu gara haien lan anitz aztertutak izan badira ere, orain arte haien biziaren zenbait pasarte gutxi landu direla, eta azaletik, ez baitziren euskal literaturako pertsona erreferenteak. Lan honi esker, hainbat datu berri ekarri ditugu.

I. *Oxobi* gerlan izan zen

Orain arte nehon idatzirik aurkitu ez dugun informazio bat aurkitu dugu *Eskualduna*-ko artikuluen aztertzean:

18. Ondorioa: Jules Moulier *Oxobi* gerlan izan zen, 1917ko uztailetik aitzina, lehen urteetan osagarri arazoengatik libratua izan bazen ere.

Jules Moulier *Oxobi* euskal astekari horretako idazleatarik bat zen. Ezagutzen ziren datuen arabera, ez zen gerlara joan, eta garrantzi handia izan zuen astekarian, idazle

¹⁹⁹² Altonaga, *Etxepare Aldudeko medikua*; Casenave, *De l'article de presse à l'essai littéraire: Burubkake (1910) de Jean Etxepare*; Charriton, *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak*. III. *Kazetaritza (A) (1903-1915)*; Charriton, *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak*. IV. *Kazetaritza (B) (1916-1935)*.

¹⁹⁹³ Hiriart-Urruty, *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*; Lafitte, "Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) et les débuts du journalisme basque"; Hiriart-Urruty, *Jean Hiriart-Urruty. Mintzaira, aurpegia: Gizon!*; Hiriart-Urruty, *Gontzetarik jalgiaziazak*; Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*.

gehienak gerlan zirelako, eta astekariaren erredakzioan jende gutxi gelditzen zelako. *Oxobi*-ren pisua handia izan zen, are gehiago, 1915eko udazkenean Manex Hiriart-Urruti hil zelarik. Garai hartan, Hiriburuko bikario zen, eta denbora anitz iragaten zuen Baionan, *Eskualduna*-ren erredakzioan. Gerlako adinean izanik ere, ez zen gerlarako on, osagarri arazoengatik, eta Euskal Herrian gelditu zen. Hori da orain arte *Oxobi*-z genekiena, edo uste genuena.

Ez genuen, hain segur, uste hori dudan ezarriko 1917tik goiti «Gerlarien berri» sailean *Oxobi*-ren artikulu batzuk ez bagenitu aurkitu. 1917an eta 1918an, *Oxobi*-k hainbat artikulu idatzi zituen, ustez, gerlako lekuetatik. Artikuluetako deskribapen zehatzak irakurriz, ondoriozta zitezkeen gerla lekuetan zela. Baina duda bat gelditzen zen airean: izan zitezkeen *Oxobi*-k norbaitengandik ukan gutunetatik idazten zituen kronikak, Baionatik beretik. Baina 1917ko udaberrian mobilizazio zorrotzagoak izan zirela ere ikusi dugu, *Eskualduna* astekarian berean iragarri baitzuten¹⁹⁹⁴. 1914an osagarri arazoengatik libratu zituztenak berriz aztertuko zituztela iragarri zuten. Galdera hori argitzeko bide zuzenenera jotzea erabaki genuen: Pirinio Atlantikoetako Artxibora joan ginen, *Oxobi*-ren erregistro militarren kontsultatzera. Han garbi ageri da, 1914an osasun arazoengatik gerlatik libre gelditu bazen ere, 1917an gerlara deitu zutela, eta gerlako lekuetan gaindi ibili zela, treneko eskuadroietan¹⁹⁹⁵. Beraz hau da gure ekarpenetariko bat: Jules Moulier *Oxobi* gerlan izan zen, 1917tik 1918ra.

2. Jean Saint-Pierre, *Zerbitzari* eta Jean Etxepare gerlan

Jean Saint-Pierre, Jean Elizalde *Zerbitzari* eta Jean Etxepare ziren gerlari buruz gehien idatzi zutenak. Saint-Pierrek eta Etxeparek gerla lekutik idatzi eta *Eskualduna*-n argitaratu kronika gehienak liburuetan¹⁹⁹⁶ bilduak dira, eta liburu horiekin batera bi idazle horien biografiatxo bat agertu da. *Zerbitzari*-ren kasuan, gerla lekutik idatzi zituen kronikak ez dira argitaratuak liburu modura. Badago liburu bat¹⁹⁹⁷, *Zerbitzari*-k gerlaz idatzi testuekin, Patri Urkizuk osatua, baina han dauden testuak ez dira gerla denborakoak, baizik eta hamar urte geroagokoak. Hiru kasu horietan, gerlan izan zuten bidearen azaleko azalpenak baizik ez

¹⁹⁹⁴ Etxepare, «Aizka». 1917/3/3; Saint-Pierre, «Zer laguntza». 1917/4/13.

¹⁹⁹⁵ Ikus *Oxobi*-ri buruzko atala : 210.

¹⁹⁹⁶ Piarres Charriton, *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak*. III. *Kazetaritza (A) (1903-1915)*; Piarres Charriton, *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak*. IV. *Kazetaritza (B) (1916-1935)* (Donostia: Elkar, 1992); Jean Saint-Pierre «Anxuberro», *14eko Gerla Handia*.

¹⁹⁹⁷ Jean Elissalde, *LVII.a gerlan*.

dira eman. Horien arabera, Jean Saint-Pierre 49. Infanteria Erregimentuan ibili zen eta Jean Elizalde 57.ean. Jean Etxepareren erregimentuari buruzko daturik ez dago.

19. Ondorioa: Jean Saint-Pierre, Jean Elizalde *Zerbitzari* eta Jean Etxepare zein erregimentutan ibili ziren xeheki aurkitu dugu.

Aztertu ditugun kronika horiek guztiak nondik idatziak ote ziren ideia bat egiteko, edo noiz non ibili ziren jakiteko, bilaketa zehatz bat egin dugu, idazle horien biografietan agertzen ziren datuekin ez genuelako aski. *Oxobi*-rekin egin dugun bezala, Pirinio Atlantikoetako Artxibora jo dugu eta han aurkitu dugu zein erregimentutan ibili ziren. Hori lagungarri izan zaigu jakiteko gerlan berean non ibili ziren, zein gudutan parte hartu zuten eta abar. Hain zuzen, erregimentuen ibilbideak eskuragarri dira denentzat, gehienak Interneten baitira edo bestela liburutegietan. Ibilbideak osatzerakoan, beraz, ez dugu ekarpenik egin; baina hiru idazle horiek noiz zein erregimentutan ziren aurkitu ondoan, erregimentuen ibilbide karnetekin erkatzeak balio izan digu idazle horiek non ibili ziren jakiteko, eta zenbait artikulua idatzi zituztenean zehazki non zeuden argitzeko. Ez zaigu nahiko interesgarria iruditu artikulua bat aipatzen genuen bakoitzean zehaztea nondik idatzia zen; zehaztu dugunean izan da informazio horren jakitea azterketarako interesgarria zela iruditu zaigunean. Eranskinetan eskuragarri utziko dugu erregimentu horien kronologia bat, xeheatasun horietan sartu nahi duenarentzat.

Lan honetan egin dugun ekarpena eta eman ditugun datu berriak hauek dira: batetik, Jean Saint-Pierre ez zen denbora guztian 49. Infanteria Erregimentuan ibili. Egia erran, sei hilabete eta erdiz baizik ez zuen egin gerla erregimentu hartan, hala nola 1917ko irailaren 10etik 1918ko martxoaren 30a arte. Martxoaren 30ean preso hartu zuten, eta ordu arte 18. Infanteria Erregimentuan egon zen ia urte oso batez, eta 1914ko agorritik 1916ko irailaren 20era 18. Erizaingo Militarren Atalean egon zen. Zehazte hori, orain arte, nehorik ez zuen egin.

Bigarrenik, Jean Elizalde *Zerbitzari*-ren ibilbideaz ere zenbait zuzenketa egin ahal izan ditugu. Orain arteko datuen arabera, 57. Infanteria Erregimentuan ibili zen. Lehenbiziko hamabi hilabeteak, ordea, 123. Infanteria Erregimentuan egin zituen. Funtsean biak dibisio beraren peko ziren, hala nola 35. dibisioaren peko, eta beraz leku beretan ibiltzen ziren.

Azkenik, Jean Etxepareren ibilbideaz ere deus guti zehaztu izan da orain arte. 1915eko irailaren 25a arte Gaujacq-eko presoen ospitalean egon zen mediku gisa. Handik landa, ia bi hilabetez egon zen anbulantzia batean, hala nola 20/6 anbulantzian. Gero, zortzi hilabetez egon zen 172. Infanteria Erregimentuan, eta azkenik, 1916ko irailaren 28tik aitzina, Osasun Tren batean ibili zen, 19 bis trenean.

3. *Eskualduna*-ko erredakzio taldea

Lan hau egiterakoan, *Eskualduna* astekaria zer zen ongi aurkezteari garrantzia eman diogu. Astekariaren historia orokorraz gauza franko idatzi da, baina oro har, beti gauza bera edo bertsua idatzi da. Horri buruzko literaturak balio izan digu datu orokor batzuen jakiteko, baina xehetasun gehiago nahi izanez gero, horrekin ez zen nahikoa. Beraz gure bideak erabili ditugu ahal bezain argazki xehearen egiteko. Bilaketa horren emaitzak xeheki eman ditugu lan honen lehen zatian¹⁹⁹⁸, eta ez ditugu errepikatuko. Laburki, bakarrik, gogoraziko dugu zein diren gure ikerketatik atera ditugun datu berriak:

Alde batetik, erredakzioaren alde administratiboaz xehetasunak bilatu eta zerrenda batean eman ditugu, hala nola noiz non izan zuen egoitza, zein izan zituen kudeatzaileak eta administrariak eta non inprimatzen zuten.

Bigarrenik, xeheki eman dugu zein izan ziren astekariko zuzendariak, noiztik noiz arte. Arlo horretan ere informazio zehatzak falta ziren, Hiriart-Urrutiren zuzendaritza epeez bereziki, edota Hiriart-Urruti hil ondoko urteez, edo hark zuzendaritza hartu aitzineko garaiaz. Astekaria bera izan da informazio iturria, eta xeheki irakurriz osatu ahal izan dugu zuzendari karguen zerrenda kronologiko ahal bezain zehatza.

Hirugarrenik, zuzendaritza sailari loturik, baieztatu ahal izan dugu Hiriart-Urruti hil zenetik Blaise Adémak zuzendari kargua hartu arteko epean, Blaise Adéma bera izan zela editorialen egilea.

Azkenik, erredakzio taldearekin bururatzeko, *Eskualduna*-ko parte hartzaileen zerrenda bat osatu dugu, orain arte izan den osatuena. Orain arte, izen ezagunenez gain, zegoen zerrenda bakarra deitura zerrenda bat zen. Ez zen aski astekariko parte hartzaileak identifikatzeko. Deitura horien giblean nor zen, izen-deitura osoak zein ziren, nongoak ziren, noiz sortuak, zer ofizioak eta abar argitu dugu, pertsona bakoitzaren bila banaka joanez. Horrekin osatu dugu *Eskualduna*-ko erredaktore eta laguntzaileen orain arteko zerrenda osoa.

4. *Eskualduna*-ren irakurleen mapa

Eskualduna-ren irakurleei buruzko datuen bila ere ibili gara. Irakurle kopuruari buruzko datuak ezagunak ziren, eta kantonamenduka ere zer zenbaki zeuden aztertua zen, 1909ko

¹⁹⁹⁸ Ikus 73. orrialdetik goiti.

inkesta batean oinarriturik. Gu zuzenean joan gara Baionako elizbarrutiak antolatu zuen galdetegi haren erantzunen aztertzeraz, eta hari esker lortu ahal izan dugu herriz herri zein agerkarik zenbat salmenta zituen. Xehetasun interesgarriak jakin ahal izan ditugu, eta horrekin, *Eskualduna* astekariaren irakurleen mapa zehatza osatu ahal izan dugu, orain arte datu horiek nehorik ez baitzituen hain xeheki eskaini.

- 20. Ondorioa: *Eskualduna* astekariaren irakurleak euskaldunak eta barnealdekoak ziren, gehienbat, eta barnealdeko herri horietan prentsa erosten zuten gehienek *Eskualduna* erosten zuten.**

5. *Eskualduna* eta zentsura taldea

Bestalde, *Eskualduna*-k Lehen Gerla Mundialean jasan zituen atalei dagokionez, orain arte nehorik aipatu ez dituen dokumentuak aurkitu ditugu. Jakina zen zentsura batzordeak bazirela departamenduetako hiri nagusietan, eta Baionak ere bazeukala berea. Ez genekien, ordea, ea talde horretan bazen kide euskaldunik, *Eskualduna* irakurri eta zentsuratu ahal izateko. Pirinio Atlantikoetako Departamendu Artxiboan aurkitu ditugu horri buruzko xehetasunak eta argitu dugu gerlak iraun zuen denbora gehienez bazirela *Eskualduna* kontrolatzeaz arduratzeko espresuki izendatutako kideak.

- 21. Ondorioa: *Eskualduna*-k bere zentsuratzailerik propioak izan zituen, hala nola Chobirit, Fort, Hastoy eta Soubelet, bakoitza bere aldiaren. Halaber, Barne Ministerioa behin kexatu zen publikatutako artikulua batengatik.**

Horrez gain, Lurreko Armadaren Historia Zerbitzuaren Vincennes-eko artxiboan ere *Eskualduna*-ri buruzko dossier mehe bat aurkitu dugu, zeinean, Frantziako Barne Ministroa artikulua batez kexatu zen. Hots, gure ondorioa da, *Eskualduna* astekaria ere zentsuraren atzaparretatik pasatu zela, eta kontrolatu zutela, euskaraz izateagatik ez baitzen kontrol horretatik salbatu.

Ondorioen sintesia

Lehen ikerketa galderari buruzko ondorioak	
1. ondorioa	Gerlan inplikatu zen, <i>Eskualduna</i> , asmo politikoz sortu zen aldizkaria zelako, eta Frantziako eztabaida politikoaren oihartzun eta parte izan zelako.
2. ondorioa	Frantziaren alde gerlan jartzea orduko testuinguru politiko-sozialaren arabera ulertu behar da: Ipar Euskal Herrian euskal abertzaletasunik ez zen garatu XIX. mende bukaeran, eta, alderantziz frantses nazioaren errotze politika handia bizi izan zuen.
3. ondorioa	Gerla lehertu zenean, Frantziako eztabaida politikoak izoztu eta batasun sakratua egin zen, eta <i>Eskualduna</i> ere batasun horretan sartu zen.
4. ondorioa	Informazioa lortzeko mugak eta zabaltzeko askatasun murrizketak gertatu zirelako, astekariak ez zuen gerlaren eta Frantziaren aldeko mezurik baizik.
Bigarren ikerketa galderari buruzko ondorioak	
5. ondorioa	<i>Eskualduna</i> gerlaren logikan sartu zen Frantziaren alde, gerlaren erantzukizun guztia Alemaniaren gain ezarri eta Frantziak irabaziko zuelako segurtamena beti azpimarratuz.
6. ondorioa	Alemanak ehizakien lerroan ezarri inplikatu zen <i>Eskualduna</i> Frantziarekin.
7. ondorioa	Gerlako gertakariak eta gerla lekuetako bizipenak kutsu baikorrekarekin kontatuz, Frantziarentzako berri onak azpimarratuz eta txarrak isilduz inplikatu zen.
8. ondorioa	Soldaduak beren betebeharra betetzeko adina arduratsuak zirela etengabe gorai patuz erakutsi zuen Frantziarekin bat egiten zuela.
Hirugarren ikerketa galderari buruzko ondorioak	
9. ondorioa	Euskaldunak soldadu eredugarriak eta, beraz, frantses onak zirela erakusteko xede eta gogo etengabea zuelako, <i>Eskualduna</i> bete-betean inplikatu zen Frantziarekin.
10. ondorioa	<i>Eskualduna</i> -k erakutsi nahi izan zuen giristinoak frantses onak zirela eta Frantzia herrialde giristinoa zela.
11. ondorioa	Frantziako Errepublikak Elizaren eta Estatuaren bereizte legearen ondotik hartu neurrien kontra eginez, apaiz, fraide eta seroren berrintegrazteko zilegitasuna azpimarratzea eta horren aldarrikatzea zen astekariaren beste motibazioa.
Hipotesia orokorrari buruzko ondorioak	
12. ondorioa	<i>Eskualduna</i> -k frantses jarrera abertzalea erakutsi zuen eta gerla borondatez egiten zelako mezua zabaldu zuen.
13. ondorioa	Frantses jarrera abertzalearen gainetik, eta hori erlatibizatuz, diziplinaren eta gizotasunaren balioari ere garrantzia eman zioten <i>Eskualduna</i> astekarian.
14. ondorioa	<i>Eskualduna</i> astekariak euskal nortasuna gorai patzen bazuen ere, ez zegoen hor jarrera politikorik: Euskal Herriarekiko atxikimendua maila afektiboan agertzen zen, ez politikoa.
15. ondorioa	<i>Eskualduna</i> -rentzat, euskaldun izatea frantses izatearen parte zen, eta gerlak euskal nortasuna – hurbilekoa – eta frantsesa uztartu zituen.
Ondorio nagusiak	
16. ondorioa	Hiru nortasunen arteko hiruki bat ageri zen <i>Eskualduna</i> astekarian: euskaldun izatea, fededun izatea eta frantses izatea nortasun beraren ezaugarriak ziren, astekari horren arabera.
17. ondorioa	Euskal nortasuna erlijioaren babes gisa erabiliz, euskaldunak frantsesak zirela azpimarratuz eta frantsesak fededunak zirela gorai patuz, gerlan zehar Frantziaren alde etengabe zabaldu zuen mezuarekin, <i>Eskualduna</i> -k Ipar Euskal Herriko euskaldunak frantses sentiarazten parte hartu zuen.
Zeharkako ondorioak	
18. ondorioa	Jules Moulier <i>Oxobi</i> gerlan izan zen, 1917ko uztailetik aitzina, lehen urteetan osagarri arazoengatik libratua izan bazen ere.
19. ondorioa	Jean Saint-Pierre, 18. Erizainen Atalean, 18. Infanteria Erregimentuan eta 49. Infanteria Erregimentuan ibili zen. Jean Elizalde 123. Infanteria Erregimentuan eta 57. Infanteria Erregimentuan ibili zen. Jean Etxepare, Gaujacq-eko aleman presoentzako ospitalean egon zen lehenik, eta gero 172. Infanteria Erregimentuan eta 19. Osasun trenean.
20. ondorioa	<i>Eskualduna</i> astekariaren irakurleak euskaldunak eta barnealdekoak ziren, gehienbat, eta barnealdeko herri horietan prentsa erosten zuten gehienek <i>Eskualduna</i> erosten zuten.
21. ondorioa	<i>Eskualduna</i> -k bere zentsuratzaile propioak izan zituen, hala nola Chobirit, Fort, Hastoy eta Soubelet, bakoitza bere aldiari. Halaber, Barne Ministerioa behin kexatu zen publikatutako artikulua batengatik.

Irudia 18. Ondorioen sintesia taula

Ikerketa Ierroetarako perspektibak

Lan honetan lau urte baino gehiagotan astero-astero argitaratu artikuluak ikertu ditugu, hala nola editorial guztiak eta gerlako lekuetatik igorritako kronika guztiak. Honekin, *Eskualduna* astekariaren diskurtsoaren argazki orokor eta ahal bezain osoa egin nahi izan dugu. Orain arte ez zen ikertu *Eskualduna* astekariak Lehen Mundu Gerraz egin tratamendua hain modu zabalean. Zehaztasun anitz eskaintzen duen argazki orokor horrekin ekarpen interesgarria egin dugula espero dugu. Baina doktore tesi batek bere mugak ditu, bereziki ikertzeko eskaintzen den denboran. Horregatik gelditu gara argazki orokor horretan, baina gaia anitzez gehiago sakondu daiteke, eta hari-mutur anitzetik tiratu daiteke, beste ikerketa franko egiteko.

Hasteko, hor daude lan honetatik kanpo utzi ditugun eta ikertu ez ditugun artikuluak, hala nola, egunez eguneko berriak, herrietako berriak eta bertsoak. Egunez eguneko berriak gerlaren nondik norakoei buruzkoak ziren. Hainbat aldetik ikertu daiteke: beste egunkarietako egunez eguneko berriekin konparatu, hala nola *Courrier de Bayonne* egunkariak argitaratzen zuenarekin edota *La Croix* edo besteek argitaratzen zutenarekin, eta baita ere Frantziako Gobernuak egunero zabaltzen zuen buletinean idatzia zenarekin. Konparaketa horren helburua litzateke jakitea zein zen astekaria idazten zutenek erabiltzen zuten informazio iturri nagusia, eta zenbateraino egokitzen zuten beren gisara edo ez.

Egunez eguneko artikulu horiek kazetaritza ereduaren aldetik ere ikertu daitezke. Nola ematen zuten informazioa, zein ordenatan? Nola egituratzen zuten artikulua? Iruzkirik ematen al zuten? Nola? Halaber, *Eskualduna*-n berean beste garai batzuetako gertakarien kontatzeko moldearekin ere konpara daitezke gerlako berri haiek. Informazioaren kontatzeko modua aldatu al zen gerla garaian? Informazio iturriak aldatu al ziren?

Herrietako berrietan ere bada zer ikertua. Zer berri mota ematen zuten gerla garaian? Zenbat herio aipatu zituzten? Zenbat ez zituzten aipatu? Hori egiteko, begiratu behar da zein herritatik igortzen zituzten berriak, eta herri horietan gertatu ziren heriotza guztien zerrenda begiratu ondoan, begiratu ea hil ziren guztiek artikuluetan aipamenik ukan zuten ala ez. Zenbat gurutze edo sari emate aipatu zituzten ere begira daiteke. Aztertu daiteke ere nola aipatzen zituzten heriotzak edota sari emateak? Herrietako berrietan desertoreen eta desertoreen laguntzaileen gaia ere agertu zen; horren aztertzea ere interesgarri izan daiteke.

Lan honetatik bazter utzi dugun beste sail bat bertsoena da. Alta, ia astero argitaratzen zituzten bertsoak, gehienak gerlari buruzkoak. Bertso horiek ere ikertzea interesgarria da ikusteko zer mezu mota zabaltzen zuten, nola mintzo ziren gerlan bizi zutenaz, Frantziar zer ikuspegi zuten eta abar. Interesgarria da aztertzea, denek ez baitzuten mezu bera zabaltzen: Matxin *Senpertarra*-k, adibidez, kritika biziki gogorra egin zion gerlari.

Lan honetan aztertu ditugun artikulua beste parametro batzuen arabera ere aztertu daitezke. Ez dugu batere aipatu erretorika, baina argi da azterketa erretoriko batetik ere badela zer landu. Ikus daiteke idazle bakoitzaren estiloa ez dela beti bera, batzuek gisa batera erabiltzen dutela eta beste batzuek beste batera. Erretorikaren azterketa Lehen Gerla Mundialeko testuetan bezala egin daiteke beste garai batzuetakoetan, baina Lehen Gerla Mundialeko artikulua erretorikaren ikuspegitik landu daitezke aztertzeko nola egiten zuten eta zer bide erabiltzen zuten irakurleak beren ideietara konbentzitzeko. Nahi bada azterketa erretorikoari loturik edo nahi bada aparte, hitzen azterketa ere egin daiteke. Zein hitz eta zein esatera erabiltzen zuten, eta nola erabiltzen zituzten aztertu daiteke, hitzak mezu baten zabaltzeko bide gisa hartuz.

Beste distantzia batetik ere aztertu daiteke *Eskualduna*-k argitaratu zuena eta zabaltzen zuten mezua. Orain arte ez da argitaratu *Zerbitzari*-k gerla lekutik idatzi zituen kroniken bildumarik. *Zerbitzari*-ren artikulua batzuen bilduma argitaratu zuen Patri Urkizuk, baina artikulua haiek 1936an eta 1937an idatziak ziren. Hogei urteko gibelapenarekin idatzi zituen artikulua haiek gerla denboran idatzi zituenekin konparatzea ariketa interesgarria litzateke, jakiteko nola aldatu zen (edo ez) *Zerbitzari*-ren ikuspegia edota zer ez zuten kontatu gerla denboran.

Jean Saint-Pierrek idatzi zuena aztertu dugu eta zein frantses ageri zen ikusi ere bai. Ez litzateke txarra Jean Saint-Pierre *Anxuberro*-k beste egoera eta euskarri batzuetan idazten zutenarekin konparatzea. Gerlatik landa, Saint-Pierrek *Euzkadi* egunkarian idazten zuten, Ipar Euskal Herriko berrien emateko. Komeni da begiratzea zenbaterainoko euskal abertzaletasuna erakusten zuten *Euzkadi*-ko artikuluetan, eta jarrera hura zenbateraino koherentea zen – edo ez – gerla garaian *Eskualduna* astekarian idatzi zutenarekin. Halaber, *Eskualduna*-ko zuzendari izan zenean ere astekari horretan zer idazten zuten, bere mezua gerla garaiarekiko nolakoa izan zen aztertzea ere interesgarria izan daiteke.

Beste ikuspegi batetik, *Eskualduna*-k gerlaz idatzi zuena Britainiako, Korsikako edo Okzitaniako gisa bereko aldizkarietan idatzi zutenarekin konpara daiteke, ikusteko ea haiek ere beren herriko jendea frantses sentiarazteko gisako mezua zabaltzen ala beste gisa bateko solasetan zebiltzan. Konparaketa bide anitz egon daiteke, baina kasu honetan

bereziki merezi duen saila da nola agertzen zuten frantses izaeraren aldeko jarrera, edo alderantziz, kontrako jarrera bat agertu zen. Ikus daiteke ere ea erlijioaren gaia erabili zuten, *Eskualduna*-k erabili zuen bezala, eta ea erlijioa eta frantses izaera uztartu zituzten.

Astekariaren azterketa bera aparte utziz, Lehen Mundu Gerra Euskal Herriko ikuspegitik aztertzeke beste bide anitz ere badago. Euskaldunak gerlan nola ibili ziren jakiteko hari mutur anitz bada. *Eskualduna*-ri buruzko ikerketarekin lotzeko, astekarian idatziriko kronikak gutun pribatuetan idatziarikoarekin konpara daitezke. Horrek eskatzen du gutun pribatuen bila joatea, eta hori bera aski lan handia da; baina behin hori egin ondoan, gutun horien ikerketatik datu anitz atera daitekeela ukazina da.

Hurbilagotik ikertu daiteke, baita ere, zenbatekoa izan zen gerlak egin zuen kaltea Euskal Herrian: zenbat hil, zenbat zauritu. Hilak non, noiz eta nola hil ziren aztertu daiteke. Zein herritan izan zen hil gehien, familiak nola zauritu zituen, zein ondorio sozial utzi zuen etxeetan eta abar. Bestalde, euskaldunak gerlan nola ibili ziren ere azter daiteke; adibidez, Craonne eskualdeko egonaldi luzeetan zer gertatu zen eta euskaldunek zer egin zuten hurbilagotik begira daiteke.

Frantziako nazioaren eraikuntza prozesuaren aldetik, gerlatik landako garaia ere ikertzea beharrezkoa da. Lehen Mundu Gerrak Frantziako nazio eraikuntza prozesuaren bururapena markatu zuen, baina ez zen bukatua. Gerla ondoko parametro ezberdinek ere eragina izan zutela pentsa daiteke, hala nola gudari ohien alargun eta umezurtzek ukaiten zituzten pentsioak, gudari ohien batasunak eta omenaldiak, hilen monumentuak eta abar garrantzitsuak izan ziren, oraino frantsesago sentiarazte horretan. Merezi du horren ikertzea. Merezi du ere begiratzea ea euskal nortasuna zinezko krisi sakonean sartu zen ala ez, gerlari ohien artean zer sentimendu zegoen euskaldun izateari eta gerlari ohi izateari begira, bi gauzak nola uztartzen ziren. Eta sail horretan, *Eskualduna*-ren diskurtsoa ondoko urteetan nolakoa izan zen, bilakaerarik izan zuen eta, hala bazen, nolakoa, ikertzea ere interesgarria izan daiteke. Eta hor badira beste garai batzuk ikertzeke, besteak beste 1936ko Gerla eta Bigarren Mundu Gerra.

INDIZEA

12. Infanteria Erregimentua, 173, 586
123. Infanteria Erregimentua, 203, 674
142. Infanteria Erregimentua, 172, 173, 176
172. Infanteria Erregimentua, 208, 675
18. Armada Gorputza, 171, 175, 176, 178, 198, 203, 242, 446
18. Infanteria Erregimentua, 172, 173, 178, 181, 182, 185, 186, 198, 199, 457, 569, 674
218. Infanteria Erregimentua, 172
249. Infanteria Erregimentua, 172, 173, 227
34. Infanteria Erregimentua, 173, 385
49. Infanteria Erregimentua, 88, 172, 173, 175, 176, 178, 181, 182, 185, 186, 198, 199, 203, 208, 212, 227, 364, 378, 446, 457, 502, 540, 541, 569, 674
57. Infanteria Erregimentua, 178, 181, 185, 203, 674
Abadia, Antton, 67, 75
Abbadie, Arnaud, 77, 78, 92, 197, 207, 210, 220
Adéma, Blaise, 37, 77, 85, 96, 192, 195, 200, 202, 207, 209, 210, 211, 219, 224, 225, 226, 227, 228, 247, 277, 278, 281, 282, 283, 286, 289, 290, 291, 292, 293, 294, 295, 296, 299, 300, 301, 304, 305, 310, 311, 312, 315, 316, 321, 323, 331, 361, 362, 363, 368, 369, 376, 378, 379, 387, 389, 391, 403, 404, 405, 406, 407, 410, 441, 485, 490, 515, 518, 520, 521, 529, 531, 538, 539, 544, 545, 551, 552, 559, 560, 567, 568, 572, 573, 588, 593, 609, 615, 617, 618, 619, 620, 622, 623, 624, 625, 627, 628, 631, 634, 635, 636, 639, 640, 641, 642, 653, 675
Adema, François, 64, 225
Adéma, Gratien *Zaldubi*, 67, 84, 222, 225, 516
Agirre, Arnaud *Anai Juvenal*, 74
Agirre, Domingo, 153
Alamon, Jean-Pierre, 88
Alfonso XIII, 164
Almeryda, Miguel, 113, 183, 321, 639, 641
Alsazia, 48, 138, 140, 141, 142, 155, 158, 175, 187, 199, 251, 258, 286, 293, 315, 322, 344, 372, 377, 381, 383, 384, 464, 471, 510, 511, 532, 533, 581, 610, 651, 653, 655, 659
Althege, Mari, 220
Amette, Léon-Adolphe, 284
Andereen Bidea, 178, 181, 182, 185, 203, 358, 359, 367, 368, 393, 411, 416, 418, 457, 569, 570, 581, 589, 652
Andourandeguy, Catherine, 225
Andurain (D'), Laurent, 89, 97
Andurein (D'), Clément, 97, 153
Antchuberro, Catherine, 197
Apat (d'), Jules, 76, 78
Arana, Sabino, 153, 522
Arancet, Jean, 227
Arbelbide, Jean-Pierre, 74
Arcangues (d'), Nicolas, 83, 84, 96
Argona, 48, 461, 473
Armagnague, Clément, 77, 78
Arotzarena, Xalbat, 85
Arras, 177, 185, 373, 527, 581
Artois, 179
Azkue, Resurreccion Maria, 68, 117, 165
Babaquy, Luc, 398, 399, 627
Bainville, Jacques, 113
Barbier, Jean, 78, 195, 205, 210, 212
Baroja, Serafin, 67
Beaurieux, 178, 228, 417, 422, 457, 581
Beltzagi, Bertrand, 76, 78
Benedikto XV, 183, 283
Berdeco, Gustave, 75, 78, 153
Berdoly, Martial-Henri, 81, 108, 109, 110, 111, 651
Bernhardi, Friedrich von, 270
Bethmann-Hollweg, Theobald von, 158, 166, 168, 270
Bidart, Pierre *Oxkax*, 74, 78
Bidegarai, Catherine, 206
Bidegaray, 77, 78
Bilbao, Juan Bautista *Batxi*, 165, 234

- Bismarck, Otto Eduard Leopold von, 139, 140, 157, 158, 162
 Bolo, Paul-Mari, 640
 Brest-Litovsk, 185, 292
 Broussain, Pierre, 75, 77, 78, 88, 97, 116, 117, 119, 208, 223
 Bustinza, Evaristo *Kirikiriño*, 165
 Cabillon, Léon, 75, 78
 Caillaux, Joseph, 170, 183, 634, 640, 641
 Camp de Mailly, 360, 502
 Campion, Arturo, 67
 Carricaburu, Felix, 227
 Celhabe, Eugène, 88
 Châlons, 245, 372
 Champagne, 48, 179, 186, 349, 352, 372, 375, 376, 377, 380, 385, 389, 449, 465, 472, 489, 502, 536, 544, 624
 Charleroi, 175, 176, 203, 233, 234, 235, 244, 272, 277, 278, 303, 304, 333, 383, 384, 513, 616, 621
 Charo, Dominique, 612
 Chiquito, Kanbokoa (Joseph Apesteguy), 396, 546, 547, 566, 581
 Chobirit, 239
 Chorho Espil, Jean-Pierre, 77, 78
 Clémenceau, Georges, 113, 183, 634
 Cochin, Denys, 627, 635
 Combe, Emile, 105
 Constantin, Albert, 77, 88, 97, 116, 117
 Constantin, Jean-Baptiste, 77, 78
 Craonne, 48, 88, 176, 178, 181, 182, 199, 203, 227, 229, 348, 352, 354, 367, 368, 369, 374, 376, 378, 381, 392, 402, 403, 417, 422, 426, 427, 465, 531, 551, 565, 569, 570, 574, 587, 588, 589, 593, 680
 Curutchet, 74, 78
 D'Elissagaray, Renaud, 82, 83, 85, 86, 87, 96
 Daranatz, Jean-Baptiste, 74, 227
 Dardaneloak, 178, 179, 180
 Dassance, Louis, 205, 210
 Daudet, Léon, 114
 Debibié, Emile, 75
 Dératte, H., 88
 Diharce, François, 220, 549
 Diriar, Gustave, 76
 Dolhagaray, 74
 Dourisboure, Alexis, 89, 97
 Dreyfus, Alfred, 103, 106
 Drumont, Edouard, 82, 114
 Dubourdieu, E., 88
 Duhalde, Petri, 566
 Duhour, Pierre, 37, 197, 213, 214, 215, 256, 306, 307, 308, 309, 310, 311, 312, 355, 357, 653
 Dutey, Alphonse, 76
 Duvoisin, Jean, 75, 201
 Elissague, Joachim, 89
 Elissague, Pierre, 88
 Elizalde, Jean (aita), 202
 Elizalde, Jean *Zerbitzuri*, 23, 37, 46, 78, 193, 194, 195, 196, 200, 201, 202, 203, 204, 205, 206, 207, 209, 212, 220, 221, 222, 225, 245, 248, 252, 256, 275, 278, 279, 286, 287, 297, 298, 299, 334, 343, 344, 345, 346, 347, 348, 349, 350, 351, 352, 353, 354, 355, 359, 360, 363, 364, 365, 366, 371, 374, 375, 377, 382, 385, 395, 396, 397, 399, 400, 402, 403, 406, 409, 413, 417, 423, 424, 430, 432, 434, 436, 437, 438, 439, 440, 442, 443, 450, 454, 455, 456, 457, 458, 459, 461, 462, 463, 464, 465, 466, 467, 470, 471, 472, 475, 484, 485, 486, 487, 488, 491, 492, 493, 494, 495, 496, 497, 498, 499, 501, 502, 503, 504, 507, 508, 509, 510, 511, 514, 517, 521, 528, 530, 534, 537, 546, 547, 549, 550, 552, 554, 555, 558, 559, 561, 562, 565, 566, 567, 569, 580, 581, 585, 586, 587, 598, 599, 601, 602, 603, 604, 605, 653, 656, 673, 674, 679
 Elizanburu, Jean-Baptiste, 67, 500
 Elizanburu, Mixel *Anai Innocentius*, 74
 Erreca, Jean-Baptiste, 228, 551
 Etchandy, 75
 Etcheberry, Janbattitt, 75
 Etchegaray, 77
 Etcheverry, Augustin, 75
 Etcheverry, Jean, 75, 76
 Etcheverry, Jean-Baptiste, 81
 Etcheverry, Louis, 73, 76, 81, 82, 83, 86, 87, 96, 100, 108, 110, 112, 114, 118, 222
 Etxepare, Jean, 19, 23, 46, 53, 77, 89, 95, 193, 194, 195, 196, 200, 205, 206, 207, 208, 209, 210, 212, 220, 221, 222, 224, 225, 228, 229, 233, 252, 262, 271, 272, 273, 276, 279, 281, 285, 286, 288, 289, 290, 291, 293, 294, 297, 312, 313, 314, 317, 318, 319, 320, 321, 326, 331, 334, 340, 341, 342, 343, 349, 351, 352, 354, 356, 357, 363, 375, 378, 388, 389, 392, 413, 419, 420, 421, 423, 429, 430, 432, 433, 436, 445, 446, 447, 448, 451, 464, 465, 467, 468, 475, 507, 511, 516, 517, 528, 529, 535, 548, 549, 574, 580, 585, 606, 653, 672, 673, 674
 Etxepare, Jean (aita), 206
 Etxepare, Pierre, 208
 Eyheragaray, Jose Michel, 227
 Fagalde, Clément, 89
 Ferry, Jules, 61, 62, 104, 143
 Foch, Ferdinand, 300, 539
 Fort, 239
 Fourcade, Auguste, 75
 Frantzisko Josef, 158
 Franz Ferdinand, 159, 166

- Gallipoli, 178, 179, 180
 Gambetta, Léon, 104, 578
 Garat, Joseph, 68
 Garmendia, Jose, 201
 Gieure, François-Xavier, 201
 Gilen II.a, 157, 163, 166, 187, 270, 295, 318, 361, 532, 539, 540
 Gilen Lehena, 139, 140
 Giron, Dominique, 74, 79
 Godo, Ramon, 231
 Goitino, Jean-Pierre, 68
 Gombault, Michel, 77, 79
 Goyenette, Albert, 73, 75, 153
 Guichenné, Léon, 108
 Guise, 203
 Gutenberg, Johannes, 65
 Guynemer, Georges, 347, 487
 Halsouet, Hilaire, 227
 Harispe, Charles, 75, 76, 77, 81, 107
 Harispe, Pierre, 77
 Harriague Saint-Martin, Morrochco, 108
 Hastoy, 240
 Havas, Charles-Louis, 90
 Heguy, Julien, 77, 79
 Herriot, Edouard, 215
 Hiriart, Léon, 75
 Hiriart-Urruti, Jean (*gaztea*), 214
 Hiriart-Urruti, Manex, 22, 23, 32, 37, 76, 77, 79, 80, 83, 84, 85, 86, 90, 91, 92, 95, 96, 97, 104, 105, 106, 107, 116, 117, 119, 132, 153, 192, 193, 195, 197, 198, 200, 202, 204, 207, 208, 210, 211, 219, 220, 221, 222, 223, 224, 225, 226, 228, 229, 268, 269, 270, 274, 277, 278, 280, 281, 287, 288, 303, 304, 305, 306, 312, 315, 324, 325, 328, 331, 360, 376, 382, 383, 384, 394, 398, 404, 407, 408, 410, 494, 495, 518, 519, 520, 522, 523, 529, 531, 532, 533, 539, 540, 545, 563, 593, 594, 595, 596, 597, 607, 608, 609, 612, 613, 614, 616, 620, 621, 624, 625, 627, 629, 630, 633, 634, 635, 636, 641, 669, 672, 673, 675
 Hiriart-Urruti, Patin, 220
 Hirigoyen, Laurent, 74, 79
 Hourcade, 89
 Ibarregarai, Jean, 107, 108, 111, 588
 Irabola, Matxin *Senpertarra*, 194, 195
 Iriart, Michel, 77, 202
 Iribarne, 153
 Iribarne, Marie, 210
 Irigarai, Pablo Fermin *Larreko*, 567, 631
 Ithurry, Jean, 74, 75, 79
 Jaret, Laurent, 74, 79
 Jauffret, François-Antoine, 82
 Jaurès, Jean, 113, 170
 Joffre, Joseph, 52, 176, 180, 278, 537
 Konstantino Erregea, 180, 323
 Labat, Jean-François, 107, 108
 Laborde Noguez (de), Gaston, 89
 Laborde-Nogués (de), Amédée, 75, 79
 Lacombe, Georges, 77, 79, 202, 205, 208
 Laffitte, Piarres, 200, 201, 202, 205, 214
 Lahirigoyen, Edouard, 549
 Landerretxe, Martin, 77
 Landetcheberry, Jean, 549
 Larre, Gaston, 74, 79
 Larroulet Jauregi, Martin *Baigurako artzaina*, 195
 Laxague, Michel, 227
 Le Beuf, 239
 Lenin, 185
 Leoarat, 239
 Leon Leon, 200
 Leon XIII, 82, 103
 Lichnowsky, Karl Max Fürst von, 168
 Malecarie, Antoine, 239
 Malvy, Louis, 171, 183, 634, 639, 640
 Mandangaran, 239
 Maniel, Jacques, 81
 Maniel, Sophie-Marie-Jacqueline, 81, 87
 Manterola, José, 67
 Marioni, Hypolite Auguste, 64
 Marne, 175, 176, 177, 186, 199, 203, 279, 303, 304, 311, 320, 378, 383, 384, 385, 388, 536, 551, 616, 619, 621, 622, 652
 Mathieu, Clément, 197, 201
 Maurras, Charles, 114, 115, 141, 149, 153, 247
 Masuria, 177
 Mendiboure, Alexandre, 75, 79, 97
 Menditte (de), Justin, 77, 78
 Millerand, Alexandre, 159, 249
 Milox, A., 88
 Minjonnet, Charles, 75, 79, 89
 Mocoçain, Dominique, 77, 79
 Monge, Clément, 88, 193
 Montmirail, 176, 612
 Moulier, Jean (*aita*), 210
 Moulier, Jules *Oxobi*, 37, 78, 194, 195, 196, 200, 201, 205, 210, 211, 212, 213, 220, 221, 226, 227, 229, 256, 299, 343, 344, 349, 350, 355, 360, 377, 402, 404, 405, 408, 409, 410, 413, 484, 492, 504, 505, 507, 510, 512, 513, 518, 533, 539, 567, 612, 616, 617, 631, 653, 672, 673, 674
 Mun (de), Albert, 113
 Munduteguy, Jean, 228
 Napoleon Bonaparte, 74, 101, 102, 126, 138, 139, 140, 270, 532, 539, 540
 Nikolas II, 185
 Nivelle, Robert, 181, 182, 537
 Oihenart, Jean, 75, 79
 Oulches, 178, 227, 422

- Péronne, 19, 51, 295, 375, 575, 663
Pétain, Philippe, 182, 537
Pio X, 283
Plantié, Jean-Baptiste, 108
Pochelou, Arnaud, 73, 75, 79, 87, 88, 118
Poincaré, Raymond, 160, 168
Pradet-Labat, Jacques, 107
Préjean (de), Augustine, 81
Przemysl, 177, 184, 373
Quinquandon jenerala, 240
Reims, 178, 320, 328, 329, 330, 331, 372, 378, 388, 390, 392, 398, 404, 416, 417, 426, 451, 511, 536, 574, 581, 611
Renaud, Pierre, 107
Ritou, Hyppolyte, 75, 79
Saint-Pierre, Jean, 4, 5, 6, 19, 23, 37, 46, 78, 79, 85, 116, 193, 195, 196, 197, 198, 199, 200, 201, 202, 205, 206, 207, 209, 210, 212, 220, 221, 222, 224, 229, 233, 242, 245, 248, 252, 256, 269, 272, 276, 282, 286, 297, 298, 299, 318, 319, 321, 322, 323, 325, 326, 331, 332, 333, 334, 335, 336, 340, 341, 348, 350, 352, 353, 354, 363, 365, 366, 367, 368, 369, 371, 372, 373, 374, 375, 377, 378, 379, 380, 381, 382, 383, 385, 386, 394, 395, 396, 398, 399, 400, 402, 403, 405, 413, 416, 417, 418, 419, 421, 422, 423, 424, 425, 426, 427, 428, 429, 430, 431, 432, 433, 434, 435, 436, 437, 438, 439, 440, 441, 442, 443, 448, 449, 450, 451, 452, 453, 454, 455, 456, 457, 458, 460, 461, 462, 464, 466, 467, 468, 469, 470, 471, 472, 473, 474, 475, 484, 485, 487, 489, 492, 493, 496, 498, 500, 501, 504, 505, 507, 508, 509, 513, 514, 516, 518, 520, 521, 522, 527, 528, 529, 532, 533, 534, 535, 536, 537, 538, 539, 544, 549, 554, 555, 556, 557, 558, 561, 562, 563, 565, 567, 569, 570, 580, 581, 584, 585, 586, 589, 592, 593, 595, 598, 599, 600, 601, 602, 603, 604, 605, 607, 609, 610, 611, 612, 621, 622, 623, 637, 642, 653, 656, 663, 673, 674, 679
Saint-Pierre, Jean (aita), 197
Sala, Joseph, 89
Salaberri, Sabine, 202
Salonika, 51, 180, 187, 197, 215, 216, 217, 218, 279, 296, 306, 310, 311, 356, 369, 415, 440, 653
Santos Oliver, 231
Sarajevo, 34, 137, 159, 160, 161, 165, 166, 167, 168, 170, 174, 652
Sautet, 239
Segers, 634
Sidi-Abdallah, 310
Somme, 48, 51, 178, 180, 181, 185, 186, 199, 203, 236, 358, 366, 375, 377, 380, 387, 396, 405, 406, 437, 439, 448, 453, 466, 472, 473, 499, 536, 587, 624, 652
Soubelet, Domingo, 32, 85, 200
Soubelet, Jean-Pierre, 240
Tannenberg, 176
Thiers, Adolphe, 140
Tschirschky, Heinrich von, 166, 168
Vaughan, Ernest, 113
Veisse, Louis, 551
Verdun, 25, 48, 97, 178, 180, 181, 203, 244, 245, 246
Villeneuve Dubardier, Luzien *Soboluztarra*, 195
Vosges, 179, 296, 512
Wilson, Thomas Woodrow, 183, 288, 289, 293
Xaho, Agosti, 66, 67
Ypres, 177, 353, 390
Yser, 177
Zola, Emile, 113, 115

ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

ITURRIAK

Baionako apezpikutegiko artxiboa

Annuaire Diocésain, 1868.

Annuaire Diocésain, 1892.

Annuaire Diocésain, 1896.

Annuaire Diocésain, 1901.

Annuaire Diocésain, 1914.

Annuaire Diocésain, 1915.

Lettre circulaire de Mgr l'Evêque de Bayonne, Lescar et Oloron et questionnaire sur les oeuvres diocésaines, 1909.

Pirinio Atlantikoetako Departamendu artxiboa

Censure de la correspondance. Carton 1 M 122.

Censure de la presse. Carton 1 M 123.

Journaux et imprimés saisis. Carton 1 M 126.

Etats des journaux politiques et non politiques. Carton 4 M 155.

Recensement de la population des Basses-Pyrénées de 1911. Carton 6 M 1.

Registres de matricules. Série R (1 R 672)

Registres de matricules. Série R (1 R 743)

Registres de matricules. Série R (1 R 755)

Registres de matricules. Série R (1 R 800)

Etat civil: Senpereko sortze aktak. Sarean: earchives.cg64.fr

Frantziako Lurreko Armadaren Historia Zerbitzua

Commission de censure. Carton 5 N 389.

Contrôle postal. Carton 16 N 296.

Hilen fitxak: www.memoiredeshommes.sga.defense.gouv.fr

Gironde departamenduko artxiboa

Hôpitaux militaires pendant la Grande Guerre: instructions, listes... Carton 2 R 215.

Bordeleko Udal artxiboa

Militaires blessés ou malades, avis aux familles. Cartons 3161 H 1, 3161 H 2.

Militaires blessés ou malades, fiches d'entrée d'hôpital. Cartons 3160 H 1, 3160 H 2.

Aipatutako *Eskualduna*-ko artikuluak

A.I. «Serbiatik letera». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 31a.

----- «Serbiatik letera». *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 7a.

----- «Zalonikatik letera». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 18a.

----- «Zalonikatik letera». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 10a.

----- «Zalonikatik letera». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.

----- «Zalonikatik letera». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 24a.

----- «Zalonikatik letera». *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 14a.

----- «Zalonikatik letera». *Eskualduna*, 1916ko irailaren 22a.

----- «Zalonikatik letera - III». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 3a.

- «Zalonikatik letera II». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 3a.
- «Zerbiatik letera». *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 28a.
- Adéma, Blaise. «Agian». *Eskualduna*, 1917ko irailaren 28a.
- «Aita Santua». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.
- «Aita Santua». *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 24a.
- «Aitzinat». *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 27a.
- «Aldaira». *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 22a.
- «Azkena othe». *Eskualduna*, 1918ko apirilaren 5a.
- «Ba othe?» *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 18a.
- «Bakeaz». *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 5a.
- «Bakeaz». *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 18a.
- «Bakeaz». *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 18a.
- «Bat eskas». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 27a.
- «Berriketariak». *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 17a.
- «Beti aitzinat». *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 1a.
- «Beti eder». *Eskualduna*, 1918ko apirilaren 12a.
- «Bigarren aldikotz». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 31a.
- «Caillaux». *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 21a.
- «Chuhurki». *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 24a.
- «Clémenceau». *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 23a.
- «Clémenceau». *Eskualduna*, 1918ko abenduaren 20a.
- «Diru hori». *Eskualduna*, 1918ko irailaren 13a.
- «Dirua». *Eskualduna*, 1916ko irailaren 29a.
- «Dirua». *Eskualduna*, 1917ko irailaren 14a.
- «Dirua». *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 30a.
- «Emaztekiak». *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 4a.
- «Eskualdun deputatua». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 20a.
- «Eskualdunak». *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 1a.
- «Eta Alamanian?» *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 29a.
- «Eta han!» *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 8a.

- «Ez ahantz». *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 8a.
- «Ez ahantz». *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 16a.
- «Ez ahantz». *Eskualduna*, 1917ko urriaren 12a.
- «Ez etsi». *Eskualduna*, 1916ko irailaren 8a.
- «Ez lotsa». *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 9a.
- «Ez! Ez!» *Eskualduna*, 1916ko urriaren 20a.
- «Eztiki». *Eskualduna*, 1916ko irailaren 15a.
- «Foch». *Eskualduna*, 1918ko irailaren 27a.
- «Foch». *Eskualduna*, 1918ko abenduaren 6a.
- «Gerlako dirua». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 3a.
- «Geroago eta gehiago». *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 20a.
- «Gibelerat doazi». *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 30a.
- «Goait». *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 11a.
- «Goretsiak». *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 25a.
- «Grezia». *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 26a.
- «Grezia». *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 29a.
- «Gure auzoak». *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 28a.
- «Guziak berdin». *Eskualduna*, 1917ko urriaren 19a.
- «Hango solasak». *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 14a.
- «Harrigarri!» *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 31.
- «Hauta hor». *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 29a.
- «Hein batean». *Eskualduna*, 1918ko abenduaren 13a.
- «Hiriart-Urruty kalonjea». *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 12a.
- «Hitz on bat». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 6a.
- «Idek moltsak». *Eskualduna*, 1918ko urriaren 25a.
- «J.B. Erreca». *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 15a.
- «Jainkoa gurekin». *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 5a.
- «Karraskak». *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 16a.
- «Laster hemen dire». *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 22a.
- «Leher eta zapart». *Eskualduna*, 1918ko abenduaren 15a.

- «Lohia». *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 26a.
- «Malvy». *Eskualduna*, 1917ko irailaren 7a.
- «Milesker!» *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 13a.
- «Ministro berriak». *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 5a.
- «Ministroak». *Eskualduna*, 1917ko irailaren 21a.
- «Noiz egor?» *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 15a.
- «Nori esker?» *Eskualduna*, 1919ko urtarrilaren 10a.
- «Norte Amerika». *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 13a.
- «Norte Amerikanoak». *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 17a.
- «Ogia». *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 16a.
- «Ogia». *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 1a.
- «Oldar hau». *Eskualduna*, 1918ko irailaren 6a.
- «Ondorioak». *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 2a.
- «Oraitik». *Eskualduna*, 1916ko irailaren 22a.
- «Orotan». *Eskualduna*, 1918ko urriaren 4a.
- «Othoitzak Frantziarentzat». *Eskualduna*, 1918ko agorrilaren 2a.
- «Presol!» *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 25a.
- «Rusia». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.
- «Rusia». *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 14a.
- «Salatari». *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 22a.
- «Solas hainiz». *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 12a.
- «Soldado gazteak». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 17a.
- «Soldadoa». *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 12a.
- «Soldadoak». *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 26a.
- «Tzarkeriaz». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 10a.
- «Urhea». *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 19a.
- «Urhea». *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 3a.
- «Uria». *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 10a.
- «Urthe on!» *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 31a.
- «Urthe on!» *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 4a.

- . «Veïsse kapitaina». *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 9a.
- . «Zenbat!» *Eskualduna*, 1917ko urriaren 5a.
- . «Zer dioten!» *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 6a.
- . «Zer dioten?» *Eskualduna*, 1918ko urriaren 11a.
- . «Zer eskas?» *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 19a.
- . «Zer guduak!» *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 11a.
- . «Zer orai?» *Eskualduna*, 1918ko maiatzaren 3a.
- Duhour, Pierre. «Gerlako untzien lana». *Eskualduna*, 1916ko urriaren 27a.
- . «Gure itsasoko armada». *Eskualduna*, 1918ko urriaren 11a.
- . «Gure ur-pekoak». *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 1a.
- . «Itsasoko berri». *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 22a.
- . «Minhartueri zor dugun errespetua». *Eskualduna*, 1918ko ekainaren 14a.
- . «Misionest baten pairamenak». *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 17a.
- . «Phazko ospitale batean». *Eskualduna*, 1918ko apirilaren 26a.
- . «Tunisiako berri». *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 29a.
- . «Untzi ospitaleak». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 25a.
- . «Urpeko etsaiez». *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 2a.
- Elizalde, Jean. «(Izenbururik gabe)». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 18a.
- . «Agur herritarrak». *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 12a.
- . «Agur sempertarrak». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 3a.
- . «Aire pozoindatuak». *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 26a.
- . «Airetakoak». *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 12a.
- . «Airetakoak». *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 19a.
- . «Airetakoak». *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 16a.
- . «Airetakoak». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 11a.
- . «Airetakoak». *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 1a.
- . «Anglesen ondotik, eskualdun batez». *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 2a.
- . «Argonako berri». *Eskualduna*, 1918ko agorrilaren 16a.
- . «Aroa». *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 14a.
- . «Aroa». *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 2a.

- «Arraintzaleak». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.
- «Arratoinak». *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 4a.
- «Arregak». *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 4a.
- «Arregak». *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 19a.
- «Aspaldiko ezagunak». *Eskualduna*, 1917ko irailaren 7a.
- «Aspaldikoari ongi ethorri». *Eskualduna*, 1915ko irailaren 17a.
- «Atzoko gure berri». *Eskualduna*, 1917ko urriaren 12a.
- «Azken egunak». *Eskualduna*, 1919ko otsailaren 28a.
- «Azken hitz bat». *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 18a.
- «Azken hitza». *Eskualduna*, 1917ko urriaren 19a.
- «Azken hitza». *Eskualduna*, 1918ko apirilaren 19a.
- «Azken hitza». *Eskualduna*, 1918ko maiatzaren 10a.
- «Azken solasa». *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 12a.
- «Azken solasa orai». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11a.
- «Bakotchari berea eta biba Azkaine». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 6a.
- «Bazterretako berri». *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 21a.
- «Belfort-eko inguruetarik». *Eskualduna*, 1917ko urriaren 19a.
- «Beljikatik». *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 7a.
- «Berri hitsago bat». *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 23a.
- «Bertze berri on bat». *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 2a.
- «Bertze berriez». *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 29a.
- «Bertze eskualdean». *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 2a.
- «Besta eder bat». *Eskualduna*, 1918ko agorrilaren 16a.
- «Bethi “Somme” delakotik». *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 2a.
- «Bi adichkide». *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.
- «Bi hitz airekariez». *Eskualduna*, 1917ko urriaren 19a.
- «Bi hitz aroz». *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 26a.
- «Bi hitz gerlaz». *Eskualduna*, 1917ko irailaren 7a.
- «Biba Azkaindarra». *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 4a.
- «Biba Eskualdunak». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 6a.

- «Biba eskualdunak!» *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 10a.
- «Biba Hazparne». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 11a.
- «Bideko berri». *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 15a.
- «Bizia». *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 14a.
- «Bortzgarren urthea». *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 19a.
- «Burutuko othe dugu?» *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11a.
- «Chahako maitea!» *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 31a.
- «Craonneko eskualdean». *Eskualduna*, 1917ko irailaren 7a.
- «Craonne-tik hurbil». *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 7a.
- «Dena ere on». *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 1a.
- «Diren bezalako zoroak!» *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 21a.
- «Egia ala gezurra». *Eskualduna*, 1916ko urriaren 6a.
- «Egun garratzak». *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 12a.
- «Egun hauta lana». *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 15a.
- «Egun hautako oldarra». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 11a.
- «Emak hor, Pantchoual» *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 7a.
- «Erdi pausatirik». *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 3a.
- «Eskual herrian». *Eskualduna*, 1918ko irailaren 27a.
- «“Eskualduna” gerlan». *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 16a.
- «Eskualdunak, gauden gerlaren gatik eskualdun». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 31a.
- «“Eskualduna”-ri». *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 4a.
- «Eskualdunaz orhoit den bat». *Eskualduna*, 1918ko maiatzaren 10a.
- «Eta Acheriberro?» *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.
- «Eta arratoinak?» *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.
- «Eta erleak?» *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 12a.
- «Eta erreka!» *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 2a.
- «Eta orai». *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 22a.
- «Eta orai?» *Eskualduna*, 1918ko irailaren 27a.
- «Eta zer diote bada Eskualdun gerlariek?» *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.

- «Eta zer diote gerlariek?» *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 14a.
- «Euria berriz ere». *Eskualduna*, 1916ko irailaren 1a.
- «Ez dakizue berri?» *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 17a.
- «Ezin sinhetsia». *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 7a.
- «Ezker hortarik». *Eskualduna*, 1916ko urriaren 6a.
- «Fandangoak gerlan!» *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 28a.
- «Frantzian gerla tokitik». *Eskualduna*, 1914ko urriaren 16a.
- «Gathu debru baten asmu». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.
- «Gazteak». *Eskualduna*, 1919ko otsailaren 28a.
- «Gerla». *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 19a.
- «Gerlako berriak». *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 3a.
- «Gerlarien berri». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 26a.
- «Gerlarien berri». *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 12a.
- «Gerlaz bi hitz». *Eskualduna*, 1918ko maiatzaren 10a.
- «Gure aitzindariak gudian». *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 1a.
- «Gure ametsak». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.
- «Gure manerak». *Eskualduna*, 1916ko urriaren 20a.
- «Hamalau oldar». *Eskualduna*, 1918ko apirilaren 19a.
- «Han hemenka». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 17a.
- «Han hemenka». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 24a.
- «Han hemenka». *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.
- «Han hemenka». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 10a.
- «Han hemenka». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 10a.
- «Han hemenka». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.
- «Han hemenka». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 31a.
- «Hau da penaren pena!» *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 3a.
- «Hau da saltsa!» *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 12a.
- «Hau da sanfreta!» *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.
- «Hegalak motz». *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 28a.
- «Hemen gaindi». *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 23a.

- «Hemengo bazterra». *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 15a.
- «Hemengo bazterra». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 27a.
- «Hemengo hil-herriak». *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 2a.
- «Hemengo jendea». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 27a.
- «Hemengo modua». *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 18a.
- «Huntan akhabo». *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 19a.
- «Igandeak». *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 3a.
- «Iraunen othe du horrek?» *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 18a.
- «Irri egiteko, hau: ez gaichatakeriaz». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11a.
- «J.S.P. adiskideari mila goraintzi». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.
- «Jan edanak». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 2a.
- «Jatekoaz». *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 3a.
- «Jesus Maria eta Josepe!» *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 4a.
- «Kanoiak». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 2a.
- «Kanoien karraska». *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 16a.
- «Kanoien lana». *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 1a.
- «Konduak garbi». *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 28a.
- «Laborariak». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.
- «Lagun berriak». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.
- «Lana». *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 24a.
- «Maiatzaren 11an». *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 21a.
- «Maiatzaren 28an». *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 4a.
- «Martxoaren 21ean». *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 2a.
- «Martxoaren 8an». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 19a.
- «Martxoaren 31ean». *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 2a.
- «Noiz arte garen hemen». *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.
- «Noiz arte?» *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.
- «Noiz arte?» *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 7a.
- «Nola doan gerla». *Eskualduna*, 1917ko urriaren 19a.
- «Nola lotsa holako soldadoak?» *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 18a.

- «Nork nahi daut katichima bat igorri?» *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 4a.
- «Ohore Senpereri». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 23a.
- «Oi Eguberri gaua». *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 7a.
- «On dakiotelab» *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.
- «Ondoko eguneru buruz». *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.
- «Oraiko egunak». *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 21a.
- «Oraiko egunak!» *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 21a.
- «Oraiko gure berri». *Eskualduna*, 1917ko urriaren 12a.
- «Oren onean». *Eskualduna*, 1918ko irailaren 27a.
- «Othoitz». *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 24a.
- «Pausutik». *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 6a.
- «Permisioeak». *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 4a.
- «Permisioeak». *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 24a.
- «Pompon gure laguna». *Eskualduna*, 1918ko urriaren 18a.
- «Rusianoak». *Eskualduna*, 1916ko urriaren 6a.
- «Somme delakotik». *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 12a.
- «St Quentin delakoari buruz». *Eskualduna*, 1918ko irailaren 27a.
- «Urtarrilaren 9an». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.
- «Urthe on!» *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 4a.
- «Verdunen gairi». *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 7a.
- «Zaharrak berri». *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 7a.
- «Zer ari garen». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 6a.
- «Zer dautan erran etsai batek». *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 1a.
- «Zer dembora ari zaikun». *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.
- «Zer dioten gerlariek». *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 22a.
- «Zer dioten gure aintzindariak». *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 15a.
- «Zer dioten soldadoek». *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 6a.
- «Zer erran aroz?» *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 1a.
- «Zer eskualde den hau». *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.
- «Zeri gauden...» *Eskualduna*, 1916ko urriaren 20a.

- «Zimikoka». *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 1a.
- «Etsaiaren abrekeriak». *Eskualduna*, 1914ko irailaren 11a.
- Etxepare, Jean. «Abrekeriak». *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 29a.
- «Aizka». *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 2a.
- «Alemanak hurbiletik». *Eskualduna*, 1914ko urriaren 23a.
- «Alemanak hurbiletik II». *Eskualduna*, 1914ko urriaren 30a.
- «Alemanak hurbiletik III». *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 6a.
- «Alemanak hurbiletik IV». *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 13a.
- «Alemanak hurbiletik V». *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 20a.
- «Alemanak hurbiletik VI». *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 27a.
- «Alemanek trebatu». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11a.
- «Alhorka». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.
- «Apirila gure gerla-tokian». *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 5a.
- «Ara zahar-berrikatuak». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.
- «Asmurik hoberena». *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 21a.
- «Aurthengo bortzgarrena». *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 26a.
- «Bakarrik ez oraino». *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 29a.
- «Bakea?» *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.
- «Bara». *Eskualduna*, 1918ko ekainaren 14a.
- «Bigarren elhorria». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 25a.
- «Bihotz altchagarri». *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 21a.
- «Bilku-salgiak». *Eskualduna*, 1918ko agorrilaren 9a.
- «Bizia kario». *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 28a.
- «Brankardier eta musikari». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11a.
- «Budjeta». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 6a.
- «Communiqué». *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 4a.
- «Desbardin». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 3a.
- «Elgar hazt». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 25a.
- «Eskual-herria». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 16a.
- «Eskuaraz». *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.

- «Esperantza». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 22a.
- «Eta guk?» *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.
- «Ez urrik». *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 22a.
- «Frantziak hatsa luze». *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 14a.
- «Gerla karrikarteentzat». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11a.
- «Gerla zertan den». *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 3a.
- «Gerlaren goiti-beheitiak». *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 21a.
- «Gerlaren iraupena», 1915ko abenduaren 3a.
- «Gerlaren iraupena II». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 10a.
- «Gerthatuak gerthatu». *Eskualduna*, 1918ko maiatzaren 17a.
- «Gure aldian». *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 21a.
- «Gure bigarren siska». *Eskualduna*, 1918ko irailaren 13a.
- «Gure itzulikak». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.
- «Itsas-untziez». *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 9a.
- «Jabaletik». *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 21a.
- «Jabaletik oraino». *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 8a.
- «Jaun kazeta-egilea». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.
- «Jaunen jaun». *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 22a.
- «Khechu». *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 4a.
- «Kurutzeak». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 25a.
- «Laborantzaz». *Eskualduna*, 1916ko abenduaren 8a.
- «Laborari etchalde handi». *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 11a.
- «Lagunak». *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 5a.
- «Langileak nundik». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11a.
- «Lanik nekeena». *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.
- «Lanjera nun». *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.
- «Lanjerik gutiena nork». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 18a.
- «Lehorreko guduaz». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.
- «Mailka». *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 21a.
- «Makila bi buruetarik». *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 13a.

- «Muthurrekoa». *Eskualduna*, 1918ko agorrilaren 2a.
- «Noiz geldituko». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 16a.
- «Nola geldituko». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 31a.
- «Nork merezimendurik gehiena». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 18a.
- «Nun bere gizonak». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.
- «Nun elhorria». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.
- «Ogia». *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 2a.
- «Sathor gerla». *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 18a.
- «Société des Nations». *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 4a.
- «Soldadoaren onetan». *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 21a.
- «Stokholmen». *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 22a.
- «Trabarik gaichtoenak». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 4a.
- «Ukhaldi berria». *Eskualduna*, 1918ko ekainaren 14a.
- «Urrikitan». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 4a.
- «Zer uste». *Eskualduna*, 1918ko maiatzaren 24a.
- «Zintzurra zabaldu». *Eskualduna*, 1918ko uztailaren 5a.
- «Zuzentasuna». *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 8a.
- Hiriart-Urruti, Manex. «1870-1914». *Eskualduna*, 1914ko urriaren 9a.
- «Ahulena azkarren». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 1a.
- «Aita Santua». *Eskualduna*.
- «Alemaniaren adiskidantza». *Eskualduna*, 1914ko urriaren 30a.
- «Alemankeriak». *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 7a.
- «Anglesa». *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 12a.
- «Apezak gerlarat». *Eskualduna*, 1915ko urriaren 29a.
- «Azkarrenaren alde». *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 4a.
- «Bake ala gerla?» *Eskualduna*, 1914ko uztailaren 31a.
- «Bat gutiago». *Eskualduna*, 1893ko martxoaren 24a.
- «Beljikano ministroa Baionan». *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 21a.
- «Berri onak». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 19a.
- «Bertze alemanak». *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 20a.

- «Bi bakeak». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.
- «Biba eskuara». *Eskualduna*, 1891ko azaroaren 13a.
- «Biba Frantzia». *Eskualduna*, 1914ko irailaren 11a.
- «Bihoztun, bihotzgabe». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 12a.
- «Bortz haurren aita». *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 26a.
- «Burhaso laguntzaz gabetuak». *Eskualduna*, 1915ko irailaren 17a.
- «Edouard Drumont». *Eskualduna*, 1893ko otsailaren 10a.
- «Eguberri gerlan». *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 25a.
- «Elgar lagunduz». *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 14a.
- «Elhe makhurra». *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 11a.
- «Elizarik ederrena». *Eskualduna*, 1914ko irailaren 25a.
- «Eskualdun kaputchin soldadoa». *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 11a.
- «Eskuara gehiago». *Eskualduna*, 1894ko maiatzaren 18a.
- «Ez hirirat». *Eskualduna*, 1915ko urriaren 15a.
- «Ezin jal araziak». *Eskualduna*, 1915ko irailaren 3a.
- «Frantzia eta Espainia». *Eskualduna*, 1914ko urriaren 23a.
- «Gaina dugu». *Eskualduna*, 1914ko irailaren 18a.
- «Gerla gaztigu». *Eskualduna*, 1914ko urriaren 16a.
- «Gerlarien haur umezurtzak». *Eskualduna*, 1915ko irailaren 10a.
- «Gerlaz hobendun, hobendun bakeaz». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 26a.
- «Goraintzi jaun erretorari». *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 18a.
- «Gu gurera». *Eskualduna*, 1915ko irailaren 24a.
- «Guillaume bera». *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 13a.
- «Gure soldadoak». *Eskualduna*, 1914ko agorrilaren 21a.
- «Irakurtzaleri». *Eskualduna*, 1914ko agorrilaren 7a.
- «Italia». *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 28a.
- «Lau hilabetez». *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 27a.
- «Lurraren itchura». *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 30a.
- «Napoléon eta Guillaume». *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 6a.
- «Noiz finituko?» *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 2a.

- . «Nor ja nausi?» *Eskualduna*, 1915ko agorrilaren 27a.
- . «Oldar handia». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 5a.
- . «Soldado ona». *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 9a.
- . «Soldadoentzat othoitz». *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 4a.
- . «Umezurtzak». *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 18a.
- . «Umezurtzez oraino». *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 25a.
- . «Urhats handi bat». *Eskualduna*, 1915ko urriaren 1a.
- . «Urhe biltzaileak». *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 16a.
- . «Ziloetan». *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 23a.
- . «Zorria leher». *Eskualduna*, 1914ko urriaren 2a.
- . «Zortzi egunak». *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 30a.
- Moulier, Jules. «Alemaneri hurbilago». *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 11a.
- . «Aroa». *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 15a.
- . «Atso bat». *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 1a.
- . «Bat gutiago». *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 1a.
- . «Edertasun hilak». *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 21a.
- . «Eta eskuaraz?» *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 1a.
- . «Etcheari buruz». *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 29a.
- . «Ez dire aleman». *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 10a.
- . «Goizalde». *Eskualduna*, 1918ko agorrilaren 16a.
- . «Gudu bezpera». *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 8a.
- . «Gudu gai berri». *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 14a.
- . «Guduak airetan». *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 15a.
- . «Hobiak». *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 11a.
- . «Ihesi». *Eskualduna*, 1918ko apirilaren 19a.
- . «Ihurtzuria». *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 1a.
- . «Izkilak eta banderak». *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 22a.
- . «Jendea». *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 14a.
- . «Josteta». *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 15a.
- . «Kanoiak». *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 15a.

- «Larrekoari». *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 22a.
- «Mendien zolan». *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 11a.
- «Mulhouse-ra». *Eskualduna*, 1918ko azaroaren 29a.
- «Mus partida bat». *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 15a.
- «Nun abiatuko da?» *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 1a.
- «Soldadoen gogo». *Eskualduna*, 1918ko irailaren 6a.
- «Zeren gatik». *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 8a.
- Saint-Pierre, Jean. «Abendoaren 15ean». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 1a.
- «Abendoaren 22an». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 1a.
- «Afrikanoen barnea». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 22a.
- «Agintzak handiago». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 11a.
- «Aintzina». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 26a.
- «Aintzina». *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 30a.
- «Aire pozoinatuak». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 10a.
- «Aireplanak». *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 2a.
- «Airetakoak». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.
- «Alamanen ezin egona». *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 19a.
- «Alsace-ko bazterrak». *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 3a.
- «Andre dena Maria». *Eskualduna*, 1915ko agorrilaren 27a.
- «Anglesak». *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 23a.
- «Apeza besoan». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.
- «Aphezak gerlan». *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 12a.
- «Armada eder». *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 17a.
- «Arnoa eskas». *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 4a.
- «Aroa». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 22a.
- «Aroa». *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 2a.
- «Aroaren berri». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 10a.
- «Arras-eko gudua». *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 11a.
- «Aste bateko urhatsak». *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 7a.
- «Azeri zilhoak». *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 28a.

- «Azkar». *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 2a.
- «Baionakoen gudua». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 13a.
- «Bazkari on bat». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.
- «Bazterrak». *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 25a.
- «Bero». *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 11a.
- «Berriz pausura». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.
- «Beskoitzeko karrosa». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 26a.
- «Bethi aintzina!» *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 19a.
- «Bethi deskantsua». *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 16a.
- «Bethikotz othe?» *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 10a.
- «Bi ausiki». *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.
- «Biba Rusoak!» *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 2a.
- «Bigarren errengura». *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 15a.
- «Bota ala errefera?» *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 9a.
- «Craonne-ko herria». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.
- «Deskantsua». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 26a.
- «Durquet lotinanta». *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 9a.
- «Egoitza eta herri». *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 9a.
- «Eguberri». *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 7a.
- «Egun gaichtoak». *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 23a.
- «Egur zama». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.
- «Ehun eta berrogoi ta bigarrena». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.
- «Ekhaineko guduak». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 13a.
- «Elizan». *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 19a.
- «Emeki». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 19a.
- «Enea hilen diat». *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 12a.
- «Erhoak hautsi». *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 21a.
- «Erlisione gerlan». *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 9a.
- «Errabian». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 12a.
- «Erreka bat garbitu». *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 28a.

- «Erretreta». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.
- «Eskual Herritik lekora». *Eskualduna*, 1916ko irailaren 22a.
- «Eskualdun grenadierak». *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 25a.
- «Eskualdun kantikak». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.
- «Eskualdun kazeta». *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 30a.
- «Eskualdun soldadoa». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.
- «Eskualdun: fededun». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.
- «Eskualduna lurpean», 1917ko azaroaren 16a.
- «Eskualdunen “sanfrela”». *Eskualduna*, 1915ko agorrilaren 6a.
- «Eskuaraz-ko kofesioa». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.
- «Eskuinean zalaparta». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 24a.
- «Estranjeren errechimendua». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.
- «Eta hemen?» *Eskualduna*, 1916ko irailaren 22a.
- «Etsaia khechu». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 25a.
- «Etsaiaren barneko mina». *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 14a.
- «Frantsesa tente». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 24a.
- «Frantziaren entsegua». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.
- «Galtze guti». *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 12a.
- «Garratoin bat». *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 26a.
- «Garratoinak». *Eskualduna*, 1916ko urtarrilaren 7a.
- «Gau ainharak». *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.
- «Gaua». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.
- «Gauerdiko meza». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.
- «Genia-ko soldadoak». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 22a.
- «Gerezi asean». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 20a.
- «Gerla berri». *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 16a.
- «Gerla moldea». *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 7a.
- «Gerlako berri igortzaleak Hiriart-Urruty zenari». *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 26a.
- «Gerlako hilarriak». *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 19a.
- «Gerlarien berri». *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 4a.

- . «Gerlarien berri». *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 11a.
- . «Gerlarien berri». *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 18a.
- . «Gerlarien berri». *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 25a.
- . «Gerlarien berri». *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 5a.
- . «Gerlarien berri». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 17a.
- . «Gerlarien berri». *Eskualduna*, 1917ko abenduaren 12a.
- . «Geroaren beha». *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.
- . «Gilamuren pesta». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 4a.
- . «Giristino». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 5a.
- . «Gizon eskasa». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 24a.
- . «Gudalgai-en agurra». *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 26a.
- . «Gudu baten irabazia». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 11a.
- . «Guduaren segida». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 4a.
- . «Gure astea». *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 23a.
- . «Gure astea». *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 30a.
- . «Gure astea». *Eskualduna*, 1915ko agorrilaren 6a.
- . «Gure astea». *Eskualduna*, 1915ko agorrilaren 13a.
- . «Gure astea». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 3a.
- . «Gure astea». *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 4a.
- . «Gure inguruetan». *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 2a.
- . «Gure laguntza». *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 23a.
- . «Gure lanak». *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 29a.
- . «Gure tokian deskantsu». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 24a.
- . «Hamabi eskualdun». *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 7a.
- . «Herriak». *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 25a.
- . «Hil ehorzte bat». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.
- . «Hilarri batean». *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 4a.
- . «Hongria-ko bidean». *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 7a.
- . «Idiaren urhatsa». *Eskualduna*, 1916ko agorrilaren 25a.
- . «Italian». *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 23a.

- «Italianoak». *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 11a.
- «Italiaren laguntza». *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 7a.
- «Itzalpean uda». *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 7a.
- «Jan edanak». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 5a.
- «Jan edanak». *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 2a.
- «Jan edanak». *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 5a.
- «Jatekoa». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.
- «Kanoi handiak». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.
- «Kanoiak lanean». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 4a.
- «Kolpatu gutiago». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.
- «Kolpatuak». *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 30a.
- «Kolpatuak». *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 14a.
- «Kruspetak». *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 26a.
- «Kuraia». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 5a.
- «Laborari traidorea». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.
- «Lana». *Eskualduna*, 1916ko urriaren 6a.
- «Laugarren eguberri». *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 4a.
- «Lerro hegiak». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.
- «Lerroetarik urrun». *Eskualduna*, 1916ko urriaren 6a.
- «Letra idekiak». *Eskualduna*, 1915ko agorrilaren 13a.
- «Lohia». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.
- «Lur lan». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.
- «Maiatzaren 1an». *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 14a.
- «Maiatzaren 28an». *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 4a.
- «Maiatzaren bortza». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.
- «Maiatzaren laua». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.
- «Maiatzeko deboziona». *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 14a.
- «Maiatzeko hilabethea». *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 26a.
- «Malobretan». *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 9a.
- «Marokano baten lana». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 29a.

- . «Mendekioa». *Eskualduna*, 1917ko azaroaren 16a.
- . «Mendietan barna». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 20a.
- . «Mezaz futitzen». *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 26a.
- . «Milesker Espainiara». *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 2a.
- . «Mus partida». *Eskualduna*, 1917ko martxoaren 23a.
- . «Muslariak». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.
- . «Muslarien eskerrak». *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 12a.
- . «Neguari buruz». *Eskualduna*, 1916ko irailaren 29a.
- . «Noiz artio?» *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 19a.
- . «Nor baliatuko?» *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 16a.
- . «Norat buruz». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 20a.
- . «Noren meneko?» *Eskualduna*, 1917ko agorrilaren 3a.
- . «Nouvelles de la guerre». *Eskualduna*, 1914ko irailaren 25a.
- . «Nun gaindi?» *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 19a.
- . «Obrak haste». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 19a.
- . «Obren ondorioak». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 19a.
- . «Oihanetan». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 23a.
- . «Ordaina». *Eskualduna*, 1918ko martxoaren 8a.
- . «Oro betan». *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 14a.
- . «Oro larre». *Eskualduna*, 1917ko ekainaren 6a.
- . «Osagarri». *Eskualduna*, 1915ko otsailaren 26a.
- . «Osagarria». *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 23a.
- . «Otso hilabete». *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 9a.
- . «Partida luzatu?» *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 16a.
- . «Pauekoen gudu». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 13a.
- . «Pausu egunak». *Eskualduna*, 1914ko abenduaren 18a.
- . «Pausu guti». *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 22a.
- . «Pausu luzea». *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 26a.
- . «Pazkoak». *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 2a.
- . «Permissioneak». *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 16a.

- «Permisioeak». *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 23a.
- «Permisioeak». *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 30a.
- «Permisioeak». *Eskualduna*, 1915ko agorrilaren 13a.
- «Pleka». *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 4a.
- «Presuner aleman bat». *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 24a.
- «Purruskeriak». *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 17a.
- «Reims-eko kardinala». *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 28a.
- «Ruch Jaun apezpikua». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 9a.
- «Rusoak». *Eskualduna*, 1915ko ekainaren 11a.
- «Sare kolpe bat». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 24a.
- «Soldadoen galde bat». *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 23a.
- «Soldadoen gogo». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 20a.
- «Somme-ko azken berri». *Eskualduna*, 1917ko otsailaren 23a.
- «Sorginaren ikusten». *Eskualduna*, 1916ko apirilaren 14a.
- «Tirari onak». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 15a.
- «Toki berean». *Eskualduna*, 1916ko urriaren 27a.
- «Toki berria». *Eskualduna*, 1917ko urtarrilaren 12a.
- «Umiasaindu». *Eskualduna*, 1916ko azaroaren 17a.
- «Urhats handi bat». *Eskualduna*, 1915ko maiatzaren 28a.
- «Urpez eta lurpez». *Eskualduna*, 1915ko martxoaren 12a.
- «Uztailaren hamalaua». *Eskualduna*, 1916ko uztailaren 28a.
- «Verdun-eko gudua». *Eskualduna*, 1916ko martxoaren 17a.
- «Verdun-eko gudua». *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 26a.
- «Zaldizko soldadoak». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 22a.
- «Zangoetako hotza». *Eskualduna*, 1915ko urtarrilaren 8a.
- «Zer ari giren». *Eskualduna*, 1916ko maiatzaren 19a.
- «Zer dioten gerlaz». *Eskualduna*, 1916ko otsailaren 11a.
- «Zer eskas». *Eskualduna*, 1915ko apirilaren 30a.
- «Zer laguntza». *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 13a.
- «Zertako gerla?» *Eskualduna*, 1915ko abenduaren 24a.

----- «Zertako joan diren». *Eskualduna*, 1917ko apirilaren 6a.

----- «Zertako?» *Eskualduna*, 1915ko uztailaren 9a.

BIBLIOGRAFIA

- Abbadie, Antoine. *Anton Abbadiaren koplarien guduak: Bertso eta aire zenbaiten bilduma 1851-1897*. Bilbo, Donostia: Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, 1997. Sarean: eusko-ikaskuntza.org. 486 orr.
- Albert, Pierre. *Histoire de la presse* [lehen edizioa: 1970]. Paris: Presses universitaires de France, 2010. 127 orr.
- Aldekoa, Iñaki. *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Erein, 2008. 439 orr.
- Almeida (d'), Fabrice eta Christian Delporte. *Histoire des médias en France: de la Grande Guerre à nos jours*. Paris: Flammarion, 2003. 434 orr.
- Altonaga, Kepa. *Etxeperere Aldudeko medikua*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2006. 333 orr.
- . «Gure prosa zientifikoaren lehen urratsak: Albert Constantin jaun medikuaren Zuhainen eritarzunaz eta haien arraberrikatziak». *Ekaia* 17 (2003): 121–136.
- Altonaga, Kepa, ed. *Arnaut Abadiaren zoo ilogikoa*. Iruñea: Pamiela, 2011. 198 orr.
- Altuna, Belen. *Euskaldun fededun: euskaldun ona izateko modu baten historia*. Irun: Alberdania, 2003. 369 orr.
- Altzibar, Xabier. «Sarrera». In Hiriart-Urruty, Jean: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*, ed. Xabier Altzibar. Sutondoan sorta. Bilbo: Labayru ikastegia. Bilbo Bizkaia Kutxa Fundazioa, 2004, 19-93.
- . «Zazpiak bat gaia XIX. Mendean (The zazpiak bat topic in the XIXth century)». In *Antoine d'Abbadie (1897-1997), Congrès international Eusko Ikaskuntza, Ez obizko kongresua. Euskaltzaindia. XIV biltzarra*, 663–668. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1998.
- . «Zer dakarkio Hiriart-Urrutik euskal kazetaritzari?» In Etxeberria, Pilartxo eta Henrike Knörr: *Nerekin yaió nun. Txillardegiri Omenaldia*, Iker 17. Bilbo: Euskaltzaindia, 2005. Sarean: euskaltzaindia.net. 59–82.

- Ambrosi, Christian. *L'apogée de l'Europe, 1871-1918* [lehen edizioa: 1987]. Paris: Armand Colin, 1996. 284 orr.
- Ansoborlo, Jean. *Histoire militaire de Bayonne: 1789-1940*. Bayonne: Société des Sciences Lettres et Arts de Bayonne, 1995. 296 orr.
- Aranda, José Javier Sánchez eta Barrera del Barrio Barrera. *Historia del periodismo español: desde sus orígenes hasta 1975*. Iruñea: Ediciones Universidad de Navarra, 1992. 545 orr.
- Arbelbide, Jean-Pierre. *Erlisioea: eskual-herriari dobazkeon egia-rik beharrenak*. Lille: Jaun Desclée De Brouwer, 1892. sarean: armiarma.com. XVI-479 orr.
- Arbelbide, Xipri. *Californiakoko Eskual Herria: Jean-Pierre Goytino*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2003. 211 orr.
- *Janpierre Arbelbide: 1841-1905*. Donostia: Egan, 2005. 234 orr.
- *Jean Pierre Arbelbide (1841-1905)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2005. 24 orr.
- *Manex Hiriart Urruti*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia, 1998. 24 orr.
- Ariès, Philippe. *L'homme devant la mort*. Paris: Éditions du Seuil, 1977. 641 orr.
- Ariztimuño «Aitzol», José. «Union inter-estatal vasca. Historia y Poesia». *El Dia*, 1932ko irailaren 14a.
- Arkotxa, Fermin. «150e anniversaire de l'Uscal-Herrico Gasetan». *Lapurdum* III (1998): 125–154.
- Asselain, Jean-Charles. *Histoire économique: de la révolution industrielle à la première guerre mondiale* [lehen edizioa: 1985]. Paris: Presses de la Fondation nationale des sciences politiques; Dalloz, 1991. 385 orr.
- Aubert, Paul. «La presse espagnole et son public (1914-1918)» [doktorego-tesia, zuz. Louis Urrutia et Manuel Tuñon de Lara], Université de Pau et des Pays de l'Adour, 1983. 610 orr.
- Audoin-Rouzeau, Stéphane. *A travers leurs journaux: 14-18, les combattants des tranchées*. Paris: Armand Colin, 1986. 222 orr.
- Audoin-Rouzeau, Stéphane eta Annette Becker. *14-18. Retrouver la guerre*. Paris: Gallimard, 2000. 272 orr.
- «Vers une histoire culturelle de la Première Guerre mondiale». *Vingtième Siècle* 41 (1994): 5–8.

- . «Violence et consentement: la “culture de guerre” du premier conflit mondial». In Roux, Jean-Pierre eta Jean-François Sirinelli (zuz.): *Pour une histoire culturelle*. Paris: Seuil, 1997. 251–271.
- Audoin-Rouzeau, Stéphane. «“Bourrage de crâne” et information en France en 1914-1918». In Becker, Jean-Jacques eta Stéphane Audoin-Rouzeau: *Les Sociétés européennes et la guerre, 1914-1918. Actes du colloque d'Amiens - Nanterre, 8-11 décembre 1988*. Nanterre: Publication de l'université de Nanterre, 1990. 163–174.
- . «Historiographie et histoire culturelle du Premier Conflit mondial. Une nouvelle approche par la culture de guerre?» En *La grande guerre 1914-1918, 80 ans d'historiographie et de représentations (colloque international - Montpellier 20-21 novembre 1998)*. Montpellier: Université Paul Valéry - Montpellier III (E.S.I.D.), 2002. 323–337.
- Bach, André. *Fusillés pour l'exemple: 1914-1915*. Paris: Tallandier, 2003. 617 orr.
- Baconnier, Gérard, André Minet eta Louis Soler. *La Plume au fusil. Les poilus du midi à travers leur correspondance*. Toulouse: Privat, 1985. 381 orr.
- . «Quarante millions de témoins». In *Mémoires de la Grande Guerre. Témoins et témoignages, Actes du colloque de Verdun, 12, 13, 14 juin 1986*, ed. Gérard Canini. Nancy: Presses Universitaires de Nancy, 1989. 141–169.
- Balcells, Albert. «Los voluntarios catalanes en la Gran Guerra (1914-1918)». *Historia 16* 121 (1986ko maiatza).
- Bardin, Laurence. *L'analyse de contenu* [lehen edizioa: 1977]. Paris: Presses universitaires de France, 2007. 291 orr.
- Bardoux, Jacques. *Quand Bismarck dominait l'Europe*. Paris: Hachette, 1953. 346 orr.
- Barral, Pierre. «Mémoire paysanne de la Grande Guerre». In *Mémoires de la Grande Guerre. Témoins et témoignages, Actes du colloque de Verdun, 12, 13, 14 juin 1986*, ed. Gérard Canini. Nancy: Presses Universitaires de Nancy, 1989. 131–139.
- Barrès, Maurice. *Chronique de la Grande Guerre (1914-1920)*. Paris: Plon, 1968. 750 orr.
- Bascans, Aline eta Xipri Arbelbide. «Uztaritzeko seroren eskolen hestea». In *Elizak eta Estatua bereizteko legea: ondorioak Euskal Herrian (1905-1906)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2008, 31-37.
- Baussan, Ernest Louis. *L'éducation morale du soldat*. s.l.: Charles-Lavauzelle, 1890.
- Beaupré, Nicolas. *Ecrire en guerre, écrire la guerre. France-Allemagne 1914-1920*. Paris: CNRS Editions, 2006. 292 orr.

- Becker, Annette. *La guerre et la foi. De la mort à la mémoire 1914-1930*. Paris: Armand Colin, 1994. 141 orr.
- . «Les dévotions des soldats catholiques pendant la Grande Guerre». In Chaline, Nadine-Josette(zuz.) : *Chrétiens dans la Première Guerre mondiale*, 15–34. Paris: Cerf, 1993.
- . *Les monuments aux morts. Mémoire de la Grande Guerre*. Paris: Errance, 1988. 158 orr.
- Becker, Jean-Jacques. *1914. Comment les Français sont entrés dans la guerre*. Paris: Presses de la Fondation Nationale des Sciences Politiques, 1977. 637 orr.
- Becker, Jean-Jacques eta Stéphane Audoin-Rouzeau. *La France, la nation, la guerre: 1850-1920*. Paris: Sedes, 1995. 387 orr.
- Becker, Jean-Jacques. «La censure, ça sert à gagner la guerre». *L'Histoire* 143 (1991ko apirila): 92.
- . *La France en guerre 1914-1918. La grande mutation*. Bruxelles: Editions Complexe, 1988. 221 orr.
- . «La population française face à l'entrée en guerre». In Becker, Jean-Jacques eta Stéphane Audoin-Rouzeau: *Les Sociétés européennes et la guerre, 1914-1918. Actes du colloque d'Amiens - Nanterre, 8-11 décembre 1988*. Nanterre: Publication de l'université de Nanterre, 1990. 35–38.
- Bellenger, Claude, Jacques Godechot, Pierre Guiral eta Fernand Terrou. *Histoire générale de la presse française. Tome 3. De 1871 à 1940*. Paris: Presses universitaires de France, 1972. 688 orr.
- Benaerts, Pierre. *Unité allemande 1806-1938*. Paris: Armand Colin, 1939. 222 orr.
- Berelson, Bernard. *Content analysis in communication research*. Glencoe: Free Press, 1952. 220 orr.
- Bérenger, Jean. *L'Autriche-Hongrie, 1815-1918* [lehen edizioa: 1994]. Paris: Armand Colin, 1998. 193 orr.
- . *L'Empire austro-hongrois: 1815-1918*. Paris: Armand Colin, 2011. 239 orr.
- Berger, Marcel eta Paul Allard. *Les secrets de la censure pendant la guerre*. Paris: Editions des Portiques, 1932. 383 orr.
- Bernhardi, Friedrich von. *L'Allemagne et la prochaine guerre*. Paris: Ed. du Trident, 1989. XI-299 orr.

- Beurier, Joëlle. *Images et violence, 1914-1918: quand «Le Miroir» racontait la Grande Guerre*. Paris: Nouveau monde, 2007. 110 orr.
- Bidador, Joxemiel. «Jules Moulier “Oxobi”, alegigile eta olerkari apartaz». *Euskaldunon Egunkaria*, 2000ko abenduaren 29a. Sarean: armiarma.com.
- «Pierre Duhour beskoiztarraren lanak Gure Herria-n». *Euskaldunon Egunkaria*, 1999ko otsailaren 19a. Sarean: armiarma.com.
- Bidart, Pantxix. «Agustin Chaho eta bere aroko ideiak» [tesina-memoria, zuz. Txomin Peillen], Université de Pau et des Pays de l'Adour, 1997. 78 orr.
- Bidegain, Eneko. *Gerla Handia, muga sakona*. Donostia: Utriusque Vasconiae, 2009. 153 orr.
- «Itzuli bereziak eta estilo efektuak Eskualduna eta Herria astekarietan» [tesina-memoria, zuz. Jean-Baptiste Orpustan], Université de Pau et des Pays de l'Adour, 1999.
- «Quand les Basques écrivaient “Biba Frantzia!”» In Denis, Gwendal (zuz.): *Mémoire et trauma de la Grande Guerre. Bretagne, Catalogne, Corse, Euskadi, Occitanie*. Rennes: Rennes 2 Université Haute Bretagne, 2010. 41-64.
- Bilbao Elgezabal, Juan Bautista. *Hau mundu arrano hau*. Ed. Koldo Izagirre eta Iñigo Aranbarri. Susa, 1997. Sarean: armiarma.com. 189 orr.
- Birnbaum, Jean. «1914-1918, guerre de tranchées entre historiens». *Le Monde*, 2006ko martxoaren 10a.
- Bloch, Marc. *Réflexions d'un historien sur les fausses nouvelles de la guerre*. Paris: Editions Allia, 1999. 57 orr.
- Bonhomme, Eric eta Université Michel de Montaigne-Bordeaux III. *Députés et sénateurs de l'Aquitaine sous la Troisième République, 1870-1940: portrait de groupe*. Talence: Editions de la Maison des sciences de l'homme d'Aquitaine, 1995. 367 orr.
- Bonifassi, Georges. *La presse régionale de Provence en langue d'Oc: des origines à 1914*. Paris: Presses de l'université de Paris-Sorbonne, 2003. 393 orr.
- Bonnefous, Georges, Édouard Bonnefous eta André Siegfried. *Histoire politique de la Troisième République. L'avant-guerre (1906-1914)* [lehen edizioa: 1956]. Paris: Presses universitaires de France, 1965. 458 orr.
- Bonnefous, Georges. *Histoire politique de la Troisième République. Tome second. La Grande Guerre 1914-1918*. Paris: Presses universitaires de France, 1957. 474 orr.

- Bonville (de), Jean. *L'analyse de contenu des médias: De la problématique au traitement statistique*. Bruxelles: De Boeck Supérieur, 2006. 456 orr.
- Bonzon, Thierry. «Des tranchées au Palais-Bourbon (des pacifistes au temps de Verdun)». *Mots. Les langages du politique* 24 (1990ko iraila): 55–70.
- Borda, Bernadette. «Le journal “Eskualduna” et la guerre de 1914-1918» [tesina-memoria, zuz. Michel Papy], Université de Pau et des Pays de l'Adour, 1984. 164 orr.
- Boulangier, Philippe. «Le refus de l'impôt du sang. Géographie de l'insoumission en France de 1914 à 1922». *Guerres mondiales et conflits contemporains* 188 (1997ko abendua): 3–25.
- Bouloc, François. *Les profiteurs de guerre, 1914-1918*. Paris: Éd. Complexe, 2008. 386 orr.
- Boussel, Patrice. *L'affaire Dreyfus et la presse*. Paris: Armand Colin, 1960. 271 orr.
- Branca-Rosoff, Sophie. «Conventions d'écriture dans la correspondance des soldats». *Mots. Les langages du politique* 24 (1990): 21–36.
- Brandenberger, D. «La presse parisienne et les buts de guerre: (septembre 1916-février 1917)» [tesina-memoria, zuz. Pierre Renouvin], Université de Paris. Faculté des lettres et sciences humaines, 1964. 120 orr.
- Brin, Colette, Jean Charron eta Jean de Bonville. *Nature et transformation du journalisme: théorie et recherches empiriques*. Sainte-Foy: Presses Universitaires de Laval, 2004. 454 orr.
- Broche, François. *Léon Daudet: le dernier imprécateur*. Paris: R. Laffont, 1992. 463 orr.
- Brunel, Christian. «L'Académie bretonne au grand séminaire de Quimper». In *Les parlers de la foi, religion et langues régionales*, ed. Michel Lagree. Rennes: Presses Universitaires de Rennes, 1995. 31–46.
- Cabanel, Patrick. *1905, la séparation des églises et de l'état*. La Crèche: Geste, 2005. 62 orr.
- *La question nationale au XIXe siècle*. Paris: La Découverte, 1997. 121 orr.
- «Sentiments nationaux et terre “irredente”». In Audoin-Rouzeau, Stéphane eta Jean-Jacques Becker: *Encyclopédie de la Grande Guerre 1914-1918. Histoire et culture*. Paris: Bayard, 2004. 35–47.
- Cabanes, Bruno. «Ce que dit le contrôle postal». In Prochasson, Christophe eta Anne Rasmussen: *Vrai et faux dans la Grande guerre*. Paris: La Découverte, 2004. 55–76.
- «Héroïsme et barbarie. Le tournant de 1914-1918». *L'Histoire* 267 (2002ko uztaila): 62–67.
- *La victoire endeuillée. La sortie de guerre des soldats français (1918-1920)*. Paris: Seuil, 2004. 555 orr.

- Camino, Iñaki. «Hitzaurrea». In Hiriart-Urruty, Jean: *Gontzetarik jalgiaziak*, ed. Iñaki Camino. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte, 1994, XXII-LXI.
- Caron, François. *Les deux révolutions industrielles du XXe siècle*. Paris: Albin Michel, 1997. 525 orr.
- Caron, Jean-Claude eta Michel Vernus. *L'Europe au XIXe siècle: des nations aux nationalismes, 1815-1914*. Paris: A. Colin, 1996. 477 orr.
- Casenave, Jon. *De l'article de presse à l'essai littéraire: Burubkak (1910) de Jean Etchepare*. Madrid: Universidad nacional de educación a distancia, 2002. 564 orr.
- . «Eskualduna astekariaren “gizaldi gaztea” (1877-1888)». In Apalategi, Ur: *Belaunaldi literarioak auzitan*. Donostia: Utriusque Vasconiae, 2005. Sarean: artxiker.ccsd.cnrs.fr. 167–183.
- Cazals, Rémy. *Les mots de 14-18*. Toulouse: PUM, 2003. 123 orr.
- Cazals, Rémy eta André Loez. *Dans les tranchées de 1914-18*. Pau: Éd. Cairn, 2008. 297 orr.
- Cazals, Rémy eta Nicolas Offenstad. «Du Bois-le-Prêtre au “Front intérieur”. Les expériences de guerre des Papillon». In *Si je reviens, comme je l'espère. Lettres du front et de l'arrière*. Paris: Grasset, 2003. 363–381.
- Cazals, Rémy eta Frédéric Rousseau. *14-18, le cri d'une génération*. Toulouse: Privat, 2001. 160 orr.
- Chaline, Nadine-Josette (zuz.). *Chrétiens dans la Première Guerre mondiale*. Paris: Cerf, 1993. 203 orr.
- Chanet, Jean-François. *L'École républicaine et les petites patries* [lehen edizioa: 1994]. Paris: Aubier, 1996. 430 orr.
- Charle, Christophe. *La crise des sociétés impériales. Allemagne, France, Grande-Bretagne, 1900-1940. Essai d'histoire sociale comparée*. Paris: Seuil, 2001. 529 orr.
- . «Région et conscience régionale. Questions à propos d'un colloque». *Actes de la recherche en sciences sociales* 35 (1980): 37–43.
- Charriton, Piarres. Ikus : Xarriton, Piarres.
- Chauveau, Agnès eta Philippe Tétart. *Introduction à l'histoire des médias en France de 1881 à nos jours*. Paris: Armand Colin, 1999. 95 orr.
- Cholvy, Gérard. «Régionalisme et clergé catholique au XIXe siècle». In *Régions et régionalisme en France du XVIIIe siècle à nos jours*, ed. Christian Gras eta Georges Livet. Paris: Presses universitaires de France, 1977. 187–201.

- Choplin, Cédric. «La représentation des peuples exotiques et des missions dans Feiz ha Breiz (1865-1884)» [doktorego-tesia, zuz. Denis Gwendal], Université de Haute-Bretagne, 2009. 481 orr.
- Cochet, François. «Nettoyeurs de tranchées». In *Dictionnaire de la grande guerre 1914-1918*. Paris: Laffont, 2008. 751.
- . *Survivre au front, 1914-1918. Les poilus entre contrainte et consentement*. s.l.: 14-18 éditions, 2005. 268 orr.
- Cohen, Yolande. «L'antimilitarisme des jeunesses avant 1914». *Matériaux pour l'histoire de notre temps* 16 (1989): 42–48.
- Le colonel commandant le 57^e R.I. Bussy. *57^e régiment d'infanterie. «Le terrible que rien n'arrête». Historique du régiment pendant la grande guerre 1914-1918*. Rochefort: Imprimerie Norbertine, 1921. 85 orr.
- Congrès basque (Eskual-Zaleen Biltzarra): tenu dans la ville d'Irun le 29 septembre 1904 sous la présidence de Don Arturo Campion, ancien député de la Navarre*. Baiona: A. Lamaignère, 1905. 12 orr.
- Cornebise, Alfred E. *The Stars and stripes: doughboy journalism in World War I*. London: Greenwood press, 1984. XIII-221 orr.
- Cornillet, Gérard. «“Kroaz ar Vretoned” (1898-1920), son histoire et ses auteurs. Index analytique des articles, poèmes, pièces et autres publiés dans ce journal» [doktorego-tesia, zuz. Pierre Denis], Rennes 2, 1990.
- Cornu, Daniel. *Journalisme et vérité: L'éthique de l'information au défi du changement médiatique*. Genève: Labor et Fides, 2009. 486 orr.
- Cortés-Cavanillas, Julián. *Alfonso XIII y la guerra del 14*. Madrid: Alce, 1976. 343 orr.
- Cronier, Emmanuelle. «L' échappée belle : permissions et permissionnaires du front à Paris pendant la première Guerre mondiale» [doktorego-tesia, zuz. Jean-Louis Robert], Université Panthéon-Sorbonne (Paris), 2005. 983 orr.
- Cru, Jean-Norton. *Du témoignage*. Paris: Gallimard, 1930. 270 orr.
- . *Témoins: essai d'analyse et de critique des souvenirs de combattants édités en français de 1915 à 1928* [lehen edizioa: 1929]. Nancy: Presses Universitaires de Nancy, 1993. 727 orr.
- Cubero, José Ramon. *La grande guerre et l'arrière: (1914-1919)*. Pau: Cairn, 2007. 341 orr.
- D'Unrug, Marie-Christine. *Analyse de contenu et acte de parole : de l'énoncé à l'énonciation*. Paris: Éditions universitaires, 1974. 270 orr.

- Dalbin, Stéphanie. *Visions croisées franco-allemandes de la première guerre mondiale: étude de deux quotidiens: la Metzger Zeitung et L'Est Républicain*. Bruxelles: Peter Lang, 2007. 412 orr.
- Daranatz, Jean-Baptiste. *L'Église de Bayonne*. Baiona: Lasserre, 1924. 319 orr.
- Darrigrand, Pierre. «La guerre de 1870-1871 à Bayonne et dans les environs». *Revue d'histoire de Bayonne, du Pays-Basque et du bas-Adour* 154 (1999): 255–302.
- Débyser, Félix. *Chronologie de la guerre mondiale. De Sarajevo à Versailles (28 juin 1914 - 28 juin 1919)*. Paris: Payot, 1938. 264 orr.
- Delaporte, Sophie. «Les défigurés de la Grande Guerre». *Guerres mondiales et conflits contemporains* 175 (1994ko uztaila): 103–121.
- . *Les gueules cassées. Les blessés de la face de la Grande Guerre*. Paris: Noësis, 1996. 231 orr.
- Delaunay, Jean-Marc. «1914 - Les Espagnols et la guerre». In Becker, Jean-Jacques eta Stéphane Audoin-Rouzeau: *Les Sociétés européennes et la guerre, 1914-1918. Actes du colloque d'Amiens - Nanterre, 8-11 décembre 1988*. Nanterre: Publication de l'université de Nanterre, 1990. 117–132.
- . «La grande guerre ou la clé du retour». *Mélanges de la Casa de Velázquez* 19, n.º 1 (1983): 347–368.
- Delporte, Christian. «Journalistes et correspondants de guerre». In Audoin-Rouzeau, Stéphane eta Jean-Jacques Becker: *Encyclopédie de la Grande Guerre 1914-1918. Histoire et culture*. Paris: Bayard, 2004. 717–730.
- Desmons, Eric. *Mourir pour la patrie*. Paris: Presses universitaires de France, 2001. 113 orr.
- Diaz Noci, Javier. *Euskal prentsaren sorrera eta garapena, 1834-1939*. Donostia: Sociedad de Estudios Vascos, 1995. 298 orr.
- . *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1994. 191 orr.
- . «Euskarazko kazetaritza XX. mendearen hastapenean». In *Euskarazko kazetaritza: gogoetak, esperientziak eta analisiak*, ed. Asier Barandiaran. Iruñea: Nafarroako Unibertsitatea, Filosofia eta Letretako Fakultatea, 2007. 75–82.
- . *Kazetaritza-idazkuntzarako eskuliburua: informazio-generoak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1995. 227 orr.
- . «Liburuak, aldizkariak eta irakurleak XX. mendeko Euskal Herrian. Euskal testuak eta irakurketa ohiturak.» *Vasconia* 27 (1998): 61–85.

- Diaz Noci, Javier eta Koldobika Meso Ayerdi. «Manuel Aznar Zubigaray: los inicios de la prensa nacionalista vasca. De Imanol a Gudalgai (1913-1914)». *Obra Periodística 1* (2010). Sarean: upf.edu.
- Diaz Plaja, Fernando. *Francofilos y germanofilos. Los españoles en la guerra europea* [lehen edizioa: 1973]. Madrid: Alianza, 1981. 433 orr.
- Dolosor, Franck. *Matxin Irabola. Senpereko bertsularia*. Baiona: Elkar, 2010. 208 orr.
- Doucet, Marc. «Estadoaren eta Elizaren arteko borroka 1900 inguruan: fraide batzuen ihardespina Belokeko fraidetxean». In *Elizak eta Estatua bereizteko legea: ondorioak Euskal Herrian (1905-1906)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2008, 39-47.
- Douglas, Allan. *War, memory, and the politics of humor: The «Canard enchaîné» and World war I*. Berkeley; London: University of California Press, 2002. XIV-331 orr.
- Duby, Georges eta Armand Wallon. *Histoire de la France rurale. Apogée et crise de la civilisation paysanne: 1789-1914*. Vol. 3. Paris: Le Seuil, 1976. 568 orr.
- Duclert, Vincent. *L'affaire Dreyfus*. Paris: Fayard, 2006. 127 orr.
- E. «Hiriak». *Eskualduna*, 1927ko martxoaren 18a.
- Eglezou, Georgia. *The Greek media in World War I and its aftermath: the Athenian press and the Asia Minor crisis*. London, New York: Tauris Academic Studies, 2009. XIX-261 orr.
- Elias, Norbert. *La civilisation des moeurs*. Itzul. Pierre Kamnitzer [lehen edizioa: 1973]. Paris: Presses Pocket, 2002. 510 orr.
- Elissalde, Jean. «Etchepare jaun mirikuaren ohoretan». *Gure Herria* (1955).
----- *LVII.a gerlan*. Ed. Patri Urkizu. Zarautz: Alberdania, 1995. 118 orr.
- Elisondo, Robert, ed. *Mémoires de la Soule: 1914-1918: une petite vallée du Pays Basque dans la guerre*. Maule: Ikerzaleak, 2006. 144 orr.
- Espadas Burgos, Manuel. «España y la neutralidad en la Gran Guerra». *Historia* 16 5 (1983).
- Etchepare, Jean. «Quelques remarques sur le joueur de pelote». Méd.--Bordeaux, 1901.
- Etcheverry, Louis. «Changement de mains». *Eskualduna*, 1901ko uztailaren 19a.
- Euskalzaileen-Bilzarra: 1912garreneko Bil-Aldia egina 28ean Jaun Georges Lacombe buru-lehen*. Paris: Honoré Champion, 1913. 24 orr.
- Fabas, Philippe. «Aspects de la vie religieuse dans le diocèse de Bayonne (1905-1965)» [doktorego-tesia, zuz. Marc Agostino], Michel de Montaigne, Bordeaux III, 1999. 524 orr.

- Faivre, Roland. «Réactions de la presse d'Algérie à l'égard de la guerre 1914-1918, dans ses rapports avec les algériens musulmans et dans ses rapports avec la France» [tesina-memoria, zuz. Jean-Baptiste Duroselle], Université Panthéon-Sorbonne (Paris), 1971. 188 orr.
- Falcomatà, Italo eta Domenico Nunnari. *Il Corriere di Calabria e l'opinione pubblica nella grande guerra (1914-1918)*. Ravagnese: Città del sole, 2004. 215 orr.
- Farrar, Martin J. *News from the front: war correspondents on the Western Front, 1914-18*. Thrupp: Sutton Pub., 1998. XVII-238 orr.
- Fassy, Gérard. *Le commandement français en orient: octobre 1915-novembre 1918: étude historique d'un commandement opérationnel français à la tête d'une force militaire alliée*. Paris: Economica, 2003. 490 orr.
- Fayolle, Marie-Emile. *Cahiers secrets de la Grande Guerre*. Paris: Plon, 1964. 338 orr.
- Ferenczi, Thomas. *L'invention du journalisme en France: naissance de la presse moderne à la fin du 19e siècle*. Paris: Plon, 1993. 275 orr.
- . «Les transformations du journalisme». In *Traces de 14-18, actes du colloque international tenu à Carcassonne du 24 au 27 avril 1996*, ed. Sylvie Caucanas eta Rémy Cazals. Carcassonne: Les Audois, 1997. 59–66.
- Ferro, Marc. *La Grande Guerre* [lehen edizioa: 1969]. Paris: Gallimard, 1990. 412 orr.
- Feyel, Gilles. *La presse en France des origines à 1944. Histoire politique et matérielle*. Paris: Ellipses, 1999. 192 orr.
- Fischer, Fritz. *Les buts de guerre de l'Allemagne impériale, 1914-1918*. Itzul. Geneviève Migeon eta Henri Thiès. Paris: Ed. de Trévisse, 1970. 654 orr.
- Fontana, Jacques. *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*. Paris: Cerf, 1990. 440 orr.
- Forcade, Olivier. «Dans l'oeil de la censure: voir ou ne pas voir la guerre». In Prochasson, Christophe eta Anne Rasmussen: *Vrai et faux dans la Grande guerre*. Paris: La Découverte, 2004. 35–54.
- . «La censure politique en France pendant la Grande Guerre» [doktorego-tesia, zuz. Jean-Jacques Becker], Université Paris-X Nanterre, 1999. 992 orr.
- Fraenkel, Roger. *Joffre: l'âne qui commandait des lions*. Paris: Italiques, 2004. 257 orr.
- Fuentes, Juan Francisco eta Javier Fernández Sebastián. *Historia del periodismo español: prensa, política y opinión pública en la España contemporánea*. Madrid: Síntesis, 1997. 397 orr.
- G.E. «Espil jaun apheza». *Herria*, 1968ko azaroaren 21a.

- Galiano, Alvaro Alcalá. *España ante el conflicto europeo 1914-1915*. s.n., 1916. 312 orr.
- Garat, Jacques. «Insoumissions et désertions en France pendant la Grande Guerre: Le Cas des cantons basques» [tesina-memorioa, zuz. Jacques Julliard], EHESS, 1983. 52 orr.
- Garikano, Asun. *Far Westeko Euskal Herria*. Iruñea: Pamiela, 2009. 427 orr.
- Gaziel, Agusti Calvet. *Història de «La Vanguardia» (1881-1936): i nou articles sobre periodisme*. Barcelona: Editorial Empúries, 1994. 191 orr.
- Géa, Jean-Michel. «Ecrire en situation d'urgence, étude discursive et sociolinguistique de deux correspondances de guerre (1914-1918)» [doktorego-tesia, zuz. Sonia Branca-Rosoff], Aix-Marseille 1, 1997. 646 orr.
- George, A.L. «Quantitative and qualitative approaches to content analysis». In *Trends in content analysis*, ed. Ithiel de Sola Pool, 7–32. Urbana: University of Illinois press, 1959.
- Gerbod, Paul. «L'éthique héroïque en France (1870-1914)». *Revue Historique* 544 (1982ko urria-abendua): 409–429.
- Girardet, Raoul. *Le nationalisme français. Anthologie 1871-1914*. Paris: Seuil, 1983. 280 orr.
- Godfrin, Philippe eta Jacqueline Godfrin. *Une centrale de presse catholique: la Maison de la Bonne presse et ses publications*. Paris: Presses universitaires de France, 1965. 264 orr.
- Gómez Aparicio, Pedro. *Historia del periodismo español: de las guerras coloniales a la Dictadura*. Madrid: Editora Nacional, 1974. 735 orr.
- Goñi, Beñat. «Interdiction du catéchisme en basque». In *Elizak eta Estatua bereizteko legea: ondorioak Euskal Herrian (1905-1906)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2008.
- Goyhenetche, Manex. *Histoire générale du Pays Basque: Le XIXe siècle 1804-1914*. Donostia, Baiona: Elkarlanean, 2005. 359 orr.
- . «Les origines sociales de l'association Eskualzaleen Biltzarra». *Bulletin du Musée Basque* (1993).
- Goyhenetxe, Eukeni. *Historia de Iparralde: desde los orígenes a nuestros días*. Donostia: Txertoa, 1985. 172 orr.
- Guiomar, Jean-Yves. «Régionalisme, fédéralisme et minorité nationales en France entre 1919 et 1939». *Le mouvement social* 70 (1970): 89–108.
- Haddad, Galit. «La querelle du “défaitisme” en 1917». *Mots. Les langages du politique* 76 (2004): 59–73.
- Hernández Mata, Amelia. *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944): kultura jasoko eukaltzeleen sarearen baitan*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2007. 444 orr.

- Hiriart-Urruty, Jean «Manex». *Gontzetarik jalgiaraziak*. Ed. Iñaki Camino. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte, 1994. LXI-310 orr.
- *Jean Hiriart-Urruty. Mintzaira, aurpegia: Gizon!* Ed. Piarres Lafitte. Jakin, 1971.
- *Zezenak Errepublikan*. Ed. Joseba Intxausti. Arantzazu: Jakin, 1972. 402 orr.
- *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*. Ed. Xabier Altzibar. Bilbao: Labayru ikastegia. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 2004. 715 orr.
- Hiriart-Urruty, Jean. «Nola hasi zen Pierre Duhour izkiriatzan». *Herria*, 1968ko urtarrilaren 25a.
- Historique du 123e Régiment d'Infanterie. Campagne 1914-1918*. Paris-Nancy: Librairie Chapelot, s. f. Sarean: ancestramil.fr. 32 orr.
- Historique du 172e régiment d'infanterie pendant la Grande Guerre 1914-1919*. Paris: Imprimerie P. Orsoni, 1919. 12 orr.
- Historique du 18e régiment d'infanterie pendant la guerre de 1914-1918*. Nancy: Imprimerie Berger-Levrault, 1920. 39 orr.
- Historique du 49e régiment d'infanterie pendant la guerre 1914-1918*. Nancy: Berger-Levrault, 1919. 148 orr.
- Horne, John eta Alan Kramer. *1914, les atrocités allemandes*. Itzul. Hervé-Marie Benoît. Paris: Tallandier, 2005. 640 orr.
- Horne, John. «L'invasion de 1914 dans la mémoire». In *Traces de 14-18, actes du colloque international tenu à Carcassonne du 24 au 27 avril 1996*, ed. Sylvie Caucanas eta Rémy Cazals. Carcassonne: Les Audois, 1997. 115–126.
- «Les Chefs au secours des patries pendant la Grande Guerre (France, Allemagne, Grande-Bretagne)». *Matériaux pour l'histoire de notre temps* 28 - 1 (1992): 22 – 25.
- Horvat, Sophie. «De la naissance du BEPE à la Maison de la presse: les ambiguïtés de l'information en temps de guerre, août 1914 - mars 1916» [tesina-memorioa, zuz. Serge Berstein], Institut d'Etudes Politiques, 1998. 114 orr.
- Ikerzaleak elkarte. *La Soule dans la guerre de 1914-1918. Exposition d'Ikerzaleak*, 2006. Sarean: lyceedupaysdesoule.fr.
- Intxausti, Joseba. «Eliza katolikoa eta euskaldungoa. Ikerketaurreko zenbait ohar». *Jakin* 53 (1989): 131–139.

- . «Eliztarrak eta euskal kultura». In Lopez Atxurra (zuz.), Rafael: *Euskal Herriaren historiaz, III, kultura eta portaera erlijiosoak Euskal Herrian zehar. Donostiako Udako V. Ikastaroak. 1986ko uztaila*. Bilbo: EHU-UPV, 1987. 117–141.
- . «Hitzaurrea». In Hiriart-Urruty, Jean: *Zezenak Errepublikan*. Arantzazu: Jakin, 1972. 15-192.
- Irigarai «Apat Echebarne», Aingeru. «Zerbitzari hil da». *Egan* 1/2-1960 (1961): 110–111.
- Isnenghi, Mario. *La Première Guerre Mondiale*. Itzul. Fabrice d'Almeida. Firenze: Casterman, 1993. 159 orr.
- Itçaina, Xabier. *Les virtuoses de l'identité. Religion et politique en Pays Basque*. Rennes: Presses Universitaires de Rennes, 2007. 353 orr.
- J.P. «Verdun». *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 2a.
- Jeanneney, Jean-Noël. «Les archives des commissions de contrôle postal aux armées, 1916-1918». *Revue d'histoire moderne et contemporaine* (1960ko urtarrila-martxoa).
- . *Une histoire des médias, des origines à nos jours*. Paris: Seuil, 1996. 374 orr.
- Jeissmann, Michael. *La patrie de l'ennemi, la notion de l'ennemi national et la représentation de la nation en Allemagne et en France de 1792 à 1918*. Paris: CNRS Editions, 1997. 344 orr.
- Joly, Bertrand. «Le souvenir de 1870 et la place de la Revanche». In Audoin-Rouzeau, Stéphane eta Jean-Jacques Becker: *Encyclopédie de la Grande Guerre 1914-1918. Histoire et culture*. Paris: Bayard, 2004. 59–70.
- Journal Officiel*, «Loi du 29 juillet 1881 sur la liberté de la presse». 1881ko uztailearen 30a.
- Journal Officiel*, «Loi du 5 août 1914 réprimant les indiscretions de la presse en temps de guerre». 1914ko agorrilaren 6a.
- Juaristi Larrinaga, Patxi. *Gizarte ikerketarako teknikak: teoria eta adibideak*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen Zerbitzua, 2003. 258 orr.
- Kauffmann, Grégoire. *Edouard Drumont*. Paris: Perrin, 2008. 562 orr.
- Kayser, Jacques. *Le quotidien français*. Paris: Armand Colin, 1963. XII-171 orr.
- Kintana, Jurgi. *Intelektuala nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra*. Euskaltzaindia, 2008. 664 orr.
- . *Vizcaytik Bizkaira? R.M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)*. Bilbo: BBK eta Euskaltzaindia, 2002. 180 orr.

- Kirsch, Fritz Peter. *Ecrivains au carrefour des cultures: études de littérature occitane, française et «francophone» = estudis de literatura occitana, francesa e «francofona»*. Pessac: Presses Universitaires de Bordeaux, 2000. 283 orr.
- Kirsch, Fritz Peter, Georg Kremnitz eta Brigitte Schlieben-Lange. *Petite histoire sociale de la langue occitane: usages, images, littérature, grammaires et dictionnaires*. Itzul. Catherine Chabrant. Canet: Trabucaire, 2002. 189 orr.
- Kott, Sandrine. *L'Allemagne du XIXe siècle*. Paris: Hachette, 1999. 254 orr.
- Krumeich, Gerd. «L'entrée en guerre en Allemagne». In Becker, Jean-Jacques eta Stéphane Audoin-Rouzeau: *Les Sociétés européennes et la guerre, 1914-1918. Actes du colloque d'Amiens - Nanterre, 8-11 décembre 1988*. Nanterre: Publication de l'université de Nanterre, 1990. 65–74.
- Kurtz, Harold. *Le Deuxième Reich: l'Allemagne de Guillaume II*. Itzul. F Didier-Lauber. Ed. Rencontre, 1971. 127 orr.
- Labéguerie, Michel. «Zerbitzari Jaunari». *Gure Herria* 33-2 (1961): 120.
- Lachaga, José Maria. *Eglise particulière et minorités ethniques, jalons pour l'évangélisation des peuples minoritaires*. Paris: Le Centurion, 1978. 284 orr.
- Lacombe, Georges. «Jean Elissalde aphez jaunak bere euskaltzain sarreran irakurri zuen itzaldiari, Georges Lacombe Euskaltzain jaunak egin zion erantzuna». *Euskera* (1931): 77–83.
- Lafitte, Piarres. «Eskual astekarien ixtorioa». *Gure Herria Almanaka* (1971): 32.
- . *Euskal literatura* [lehen edizioa: 1934]. Donostia: Servicio central de publicaciones del Gobierno Vasco, 1990. 374 orr.
- . «Iriart kalonjea». *Eskualduna*, 1929ko apirilaren 26a.
- . «Jaun Elissalde jaun apheza Jainkoak bereganatu». *Herria*, 1961ko maiatzaren 11a.
- . «Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) et les débuts du journalisme basque». *Gure Herria* 43-6 (1971ko abendua): 321–338.
- . *Julien Héguy apheza*. Baiona: Imprimerie La Presse, 1930. 16 orr.
- . «Louis Etcheverry. Champion de la foi et de l'âme basque». *Gure Herria* 25 - 6 (1953ko azaroa-abendua): 338–344.
- . «Notre Maître: M. le Dr. Etchepare». *Gure Herria* (1932).
- . «Oxobi hil zaiku». *Herria*, 1958ko otsailaren 13a.
- . «Pierre Duhour itzali zaiku». *Herria*, 1968ko urtarrilaren 25a.

- . «Sarrera». In Hiriart-Urruty, Jean: *Jean Hiriart-Urruty. Mintzaira, aurpegia: Gizon!*, ed. Piarres Lafitte. Jakin, 1971.
- Laharie, Claude. *Les Basses-Pyrénées pendant la guerre 1914-1918*. Pau: Archives départementales des Pyrénées-Atlantiques, 1982. 102 orr.
- Landerer, Béatrice. «Les Idées politiques de Léon Daudet» [tesina-memoria], Science Politique - Paris I, 1972. 106 orr.
- Langlois, Claude. «Catholiques et laïcs». In Nora, Pierre (zuz.): *Les lieux de mémoire. 2. La Nation, les Frances*. Paris: Gallimard, 1997. 2327–2357.
- Latour, Francis. *La Papauté et les problèmes de la paix pendant la première guerre mondiale*. Paris: L'Harmattan, 1996. 350 orr.
- Lazarsfeld, Paul. «The American Soldier. An Expository Review». *The Public Opinion Quarterly* 13 (1949): 379–380.
- «Le Chanoine Hiriart-Urruty». *Eskualduna*, 1915ko azaroaren 19a.
- «Le Clergé et la Guerre, d'après saint Thomas d'Aquin». *Revue pratique d'apologétique* (1916ko azaroa): 130–131.
- Leclerc, Aurélien eta Jacques Guay. *L'entreprise de presse et le journaliste*. Sainte-Foy: Presses de l'Université du Québec, 1991. 433 orr.
- Leray, Christian. *L'analyse de contenu: de la théorie à la pratique: la méthode Morin-Chartier*. Québec: Presses de l'Université du Québec, 2008. 202 orr.
- Lestocquoy, Jean. *Histoire du patriotisme en France. Des origines à nos jours*. Paris: Albin Michel, 1968. 236 orr.
- Lezcano, Víctor Morales, Gabriel Cardona eta Jean-Marc Delaunay. *España y la Primera Guerra Mundial*. s.l.: Grupo 16, 1985. 33 orr.
- Lhande, Pierre. *Le Prix du sang*. Paris: Beauchesne, 1915. 137 orr.
- Lind, Francis Thomas. *The letters of Mayo Lind: Newfoundland's unofficial war correspondent, 1914-1916*. St. John's, Nfld: Creative Publishers, 2001. XXIII-159 orr.
- Livois (de), René. *Histoire de la presse française. 2, de 1881 à nos jours*. Lausanne: Spes, 1965. 325-660 orr.
- Lorolot, André. *L'Eglise et la Guerre*. Herblay: Editions de l'Idée libre, 1932. 158 orr.
- Manévy, Raymond. *Histoire de la presse: 1914-1939*. Paris: Corrèa, 1945. 360 orr.
- Mariot, Nicolas. «Faut-il être motivé pour tuer? Sur quelques explications aux violences de guerre». *Génèses* 53 (2003): 154–177.

- Martin, Gérard. *L'imprimerie d'aujourd'hui*. Paris: Edition du Cercle de la Librairie, 1992. 255 orr.
- Martin, Michel. «Histoire et actualité. La Revue historique pendant la Première Guerre mondiale». *Revue Historique* 518 (1976ko apirila-ekaina): 433–465.
- Mayeur, Jean-Marie. «Les catholiques français et Benoît XV en 1917». In Chaline, Nadine-Josette (zuz.): *Chrétiens dans la Première Guerre mondiale*, 153–. Paris: Cerf, 1993.
- Medeiros, Frédéric. «Les mouvements sociaux vus à travers la presse parisienne de janvier 1917 à mai 1918» [tesina-memorioa, zuz. Guy Pedroncini], Université Panthéon-Sorbonne (Paris), 1992. 104 orr.
- Meyer, Jacques. *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*. Paris: Hachette, 1966. 370 orr.
- Mgr Mathieu. «Un grand deuil». *Gure Herria* 33-6 (1951): 321–327.
- Michelena, Luis. *Historia de la literatura vasca*. Madrid: Minotauro, 1960. 196 orr.
- Micheu-Puyou, Jean. *Histoire électorale du département des Basses-Pyrénées sous la IIIe et la IVe République*. Paris: Librairie générale de droit et de jurisprudence, 1965. 390 orr.
- Minois, Georges. *L'Église et la guerre: de la Bible à l'ère atomique*. Paris: Fayard, 1994. 531 orr.
- Miquel, Pierre. *La grande guerre au jour le jour*. Paris: Fayard, 1988. 450 orr.
- Montant, Jean-Claude. «La propagande extérieure de la France pendant la Première Guerre mondiale: l'exemple de quelques neutres européens» [doktorego-tesia, zuz. Jean-Baptiste Duroselle], Université de Paris I, 1988. 1901 orr.
- Morales Lezcano, Victor. «La neutralidad española en la guerra de 14». *Historia* 16 63 (1981).
- Mosse, George Lachmann. *L'image de l'homme: l'invention de la virilité moderne*. Itzul. Michèle Hechter. Paris: Abbeville, 1997. 253 orr.
- Moulin, Annie. *Les paysans dans la société française. De la Révolution à nos jours*. Paris: Seuil, 1988. 322 orr.
- Muhlmann, Géraldine. *Une histoire politique du journalisme (XIXe-XXe siècle)*. Paris: Presses universitaires de France, 2004. 247 orr.
- Naour, Jean-Yves Le. *L'affaire Mahy: le Dreyfus de la Grande Guerre*. Paris: Hachette littératures, 2007. 388 orr.
- . *Misères et tourments de la chair durant la Grande Guerre: les mœurs sexuelles des Français, 1914-1918*. Paris: Aubier, 2002. 420 orr.

- Navet, Françoise. «Verdun et la censure». *Guerres mondiales et conflits contemporains* 182 (1996): 45–56.
- North, Douglass Cecil. *Structure and change in economic history*. New York, Londres: W. W. Norton, 1981. XI-228 orr.
- «Nos collaborateurs». *Eskualduna*, 1908ko urtarrilaren 3a.
- Notes sur l'éducation morale du soldat: 13e corps d'armée. 25e division. 49e brigade. 38e régiment d'infanterie*. Lyon: Imp S Pelletier, 1879. Sarean: gallica.bnf.fr. 175 orr.
- Offenstad, Nicolas, Philippe Olivera, Emmanuelle Picard eta Frédéric Rousseau. «À propos d'une notion récente: la "culture de guerre"». In Rousseau, Frédéric (zuz.): *Guerres, paix et sociétés, 1911-1946*. Neuilly: Atlande, 2004. 667–674.
- Oihartzabal, Beñat. «Euskarazko kazetaritzaren lehen entseia: A. Chahoren Euskal Herriko Gaseta (1848)». In *Patxi Altunari omenaldia. Mundaiz*, 5. Donostia: Mundaiz, 1990. 191–207.
- Orpustan, Jean-Baptiste. *Précis d'histoire littéraire basque, 1545 - 1950: cinq siècles de littérature en euskara* [lehen edizioa: 1996]. Baigorri: Izpegi, 2006. 298 orr.
- . «Rôle et pouvoirs de l'Eglise». In *La nouvelle société basque*, 108–158. Paris: L'Harmattan, 1980.
- Ory, Pascal (zuz.). *La censure en France à l'ère démocratique : (1848-...)*. Bruxelles: Ed. Complexe, 1997. 357 orr.
- Ozouf, Mona. *L'Ecole, l'Eglise et la République (1871-1914)* [lehen edizioa: 1963]. Paris: Cana, 1982. 261 orr.
- P.B. «Morde d'Apat». *Eskualduna*, 1890ko urtarrilaren 17a.
- Pappola, Fabrice. «Le "bourrage de crâne" dans la Grande Guerre: approche socioculturelle des rapports des soldats français à l'information» [doktorego-tesia, zuz. Rémy Cazals], Université de Toulouse-Le Mirail, 2007. (Toulouse 2). 912 orr.
- Pedroncini, Guy. *Les mutineries de l'armée française*. Paris: Presses universitaires de France, 1967. 328 orr.
- Pérès, Hubert. «Identité communale, République et communalisation. A propos des monuments aux morts des villages». *Revue de Science politique* 39, n°5 (1989): 665–682.
- . «Individus entre village et nation. Une expérience identitaire dans la formation de la France républicaine» [doktorego-tesia, zuz. Albert Malabieau], Université de Bordeaux I, Institut d'Etudes Politiques, 1993. 496 orr.

- Perrigault, Jean. *Bandits d'Orient, les comitadjis bulgares*. Paris: Valois, 1931. 205 orr.
- Picard, François. «Le journal La Croix». *La Croix*. Paris, 1883ko ekainaren 16a.
- Pingaud, Albert. *Développement économique de l'Allemagne contemporaine (1871-1914)*. Paris-Nancy: Berger-Levrault, 1916. 6 orr.
- . *Le développement économique de l'Allemagne contemporaine (1871-1914)*. Paris-Nancy: Librairie militaire Berger-Levrault, 1916. 108 orr.
- Ponty-Lavieuville, Janine. «La France devant l'Affaire Dreyfus : contribution à une étude sociale d'opinion publique : 1898-1899» [doktorego-tesia], École pratique des hautes études (Paris), 1971. 284 orr.
- Pourcher, Yves. «Les clichés de la Grande Guerre. Entre histoire et fiction». *Terrain* 34 (2000): 143–158.
- Prévotat, Jacques. *L'Action française*. Paris: Presses universitaires de France, 2004. 127 orr.
- Prior, Robin eta Trevor Wilson. *La Première Guerre mondiale 1914-1918* [jatorrizko edizioa: The First World War, Cassell, London, 1999]. Paris: Editions Autrement, 2001. 224 orr.
- Prochasson, Christophe eta Anne Rasmussen. *Vrai et faux dans la Grande guerre*. Paris: La Découverte, 2004. 360 orr.
- Prost, Antoine. «Les limites de la brutalisation: tuer sur le front occidental, 1914-1918». *Vingtième Siècle* 81 (2004ko urtarrila-martxoan): 5–20.
- Prost, Antoine eta Jay Winter. *Penser la Grande Guerre. Un essai d'historiographie*. Paris: Seuil, 2004. 350 orr.
- Purseigle, Pierre. «Mobilisation, sacrifice et citoyenneté, Angleterre-France 1914-1918: contribution à l'histoire des communautés locales en guerre» [doktorego-tesia, zuz. Rémy Pech eta Jay Murray Winter, Université de Toulouse-Le Mirail, 2006. 653 orr.
- Rajsfus, Maurice. *La censure militaire et policière 1914-1918*. Paris: Le Cherche Midi, 1999. 264 orr.
- Rauch, André. *Crise de l'identité masculine 1789-1914*. Paris: Hachette-Pluriel, 2000. 291 orr.
- Le Ray, Éric. «Un des fondateurs de la presse moderne, Hippolyte Auguste Marioni (1823-1904) : entrepreneur, innovateur, constructeur de machines à imprimer, patron de presse et homme d'influence» [doktorego-tesia, zuz. Frédéric Barbier eta Jean-Michel Leniaud], École pratique des hautes études (Paris), 2004. 1008 orr.
- Redier, Antoine. *Les aumôniers militaires français*. Paris: Flammarion, 1940. 248 orr.

- Régnier, Jean-Marie. *Histoire de la Soule (tome 4). La IIIe République*. Donibane Lohizune; Ozaze: Ekaina; Hitzak, 1991. 322 orr.
- Rémond, René. «Préface». In Fruchart, Vincent eta Daniel Conrod: *La Croix: un siècle d'histoire: 1883-1983*. Paris: La Croix-Bayard-Pressé, 1983.
- Renouvin, Pierre. *Histoire des relations internationales*. Paris: Hachette, 1955. 401 orr.
- Rioux, Jean-Pierre. *La révolution industrielle: 1780-1880* [lehen edizioa: 1971]. Paris: Seuil, 1989. 252 orr.
- Rocafort, Joël. *Avant oublié: soldats et civils de la côte basque durant la grande guerre*. Biarritz: Atlantica, 1997. 699 orr.
- Roth, François. *La guerre de 1870* [lehen edizioa: 1990]. Paris: Fayard, 1993. 778 orr.
- Rousseau, Frédéric. *La guerre censurée. Une histoire des combattants européens de 14-18*. Paris: Seuil, 1999. 412 orr.
- Rousseau, Norbert Georges Pierre. *Pouvoirs et privilèges des prêtres mobilisés. Législation canonique de la guerre. Fasc. 1*. Le Mans: Imprimerie Monnoyer, 1915. VII-32 orr.
- Rouvier, Frédéric. *En ligne. L'Eglise de France pendant la Grande Guerre*. Paris: Perrin, 1919. 554 orr.
- Rovan, Joseph. *Histoire de l'Allemagne*. Paris: Seuil, 1999. 1004 orr.
- Royette, Odile. *Bon pour le service: l'expérience de la caserne en France à la fin du XIXe siècle*. Paris: Belin, 2000. 472 orr.
- Ruquet, Miquèl. «Désertions et insoumissions sur la frontière des Pyrénées pendant la guerre de 14-18». In Denis, Gwendal: *Mémoire et trauma de la Grande Guerre. Bretagne, Catalogne, Corse, Euskadi, Occitanie*. Rennes: Rennes 2 Université Haute Bretagne, 2010. 65–93.
- Saint-Pierre «Anxuberro», Jean. *14eko Gerla Handia*. Ed. Piarres Xarriton. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte, 1998. XX-262 orr.
- Sáiz, María Dolores eta María Cruz Seoane. *Historia del periodismo en España. 2. El Siglo XIX*. Madrid: Alianza, 1983. 336 orr.
- Saly, Pierre, Alice Gérard, Céline Gervais eta Marie-Pierre Rey. *Nations et nationalismes en Europe. 1848-1914*. Paris: Armand Colin, 1996. 287 orr.
- San Martin, Juan. «Jose Manterola, egile eta eragile». *Euskera* (1984): 443–448.
- Sarramone, Alberto. *Les cousins basques d'Amérique*. Itzul. Mirentxu Irigoyen. Biarritz: J&D Editions, 1997. 434 orr.

- Schnapper, Bernard. *Le Remplacement militaire en France. Quelques aspects politiques, économiques et sociaux du recrutement au XIX^{ème} siècle*. Paris: S.E.V.P.E.N., 1968. 326 orr.
- Serman, William. *La Commune de Paris, 1871*. Paris: Fayard, 1986. 621 orr.
- Sohier, Anne. «L'enfant et la guerre à l'école primaire: en Bretagne 1871-1914». In Denis, Gwendal: *Mémoire et trauma de la Grande Guerre. Bretagne, Catalogne, Corse, Euskadi, Occitanie*. Rennes: Rennes 2 Université Haute Bretagne, 2010. 11–30.
- Soubelet, Domingo. «Auzotik erakaspent!» *Eskualduna*, 1936ko agorrilaren 7a.
- «Odol eta gezur». *Eskualduna*, 1936ko irailaren 4a.
- «Sutik herra». *Eskualduna*, 1936ko irailaren 11a.
- Soulé, Beñat. *Neurtizlari Bertsulari Iparralde*. s.l: Erroteta, 2011. 292 orr.
- Soulice, L. «Notes pour servir à l'histoire de l'instruction primaire dans les Basses-Pyrénées. 1385-1880». *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau* (1880).
- Soutou, Georges-Henri eta Jean-Baptiste Duroselle. *L'or et le sang: les buts de guerre économiques de la Première guerre mondiale*. Paris: Fayard, 1989. 963 orr.
- Statuts de la Société Anonyme «Eskualduna»*. Baiona: A. Foltzer, 1917. 27 orr.
- Tapié, Victor-Lucien. *Les nationalités slaves d'Autriche-Hongrie de 1850 à 1914*. Les Cours de Sorbonne. Paris: Centre de Documentation Universitaire, 1962. 107 orr.
- Taufflieb, Charles-Henri. «Les mutineries de 1917: l'exemple du 37^e corps d'armée». *Guerres mondiales et conflits contemporains* 182 (1996ko apirila): 123–138.
- Tauzia, Pierre. «La presse dans les Basses-Pyrénées d'après l'enquête diocésaine de 1909». *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* 130 (1974).
- Tavernier, Eugène. *Du Journalisme, son histoire, son rôle politique et religieux*. Paris: H. Oudin, 1902. 337 orr.
- Thiesse, Anne-Marie. *Ils apprenaient la France: l'exaltation des régions dans le discours patriotique*. Paris: Éditions de la Maison des sciences de l'homme, 1997. 130 orr.
- *La création des identités nationales: Europe, XVIII^e-XX^e siècle* [lehen edizioa: 1999]. Paris: Seuil, 2001. 307 orr.
- Thompson, J. Lee. *Politicians, the press and propaganda: Lord Northcliffe and the Great War, 1914-1919*. Kent (Ohio), London: the Kent state university press, 1999. XII-319 orr.
- Torrealdai, Joan Mari. *Euskal kultura gaur. Liburnaren mundua*. s.l: Jakin, 1997. 736 orr.
- Toulet, Louis. *La Pelote basque. Histoire, technique et pratique*. Paris: De Vecchi, 1979. 190 orr.

- Urkiza, Julen. *Elizaren Historia Euskal Herrian, I. Ikerlan materialak*. Markina: El Carmen, 1995. 1459 orr.
- Urkizu, Patri. *Anton Abbadia*. Bilbao: Bilboko Udala-Ayuntamiento de Bilbao, 2002. 445 orr.
- Vallaud, Pierre. *14-18, la Première guerre mondiale*. Paris: Acropole, 2008. 608 orr.
- Venturelli, Giuseppina. *La grande guerra in prima pagina : la stampa cattolica italiana tra neutralità e intervento*. Firenze: Atheneum, 1991. 195 orr.
- Verley, Patrick. *La révolution industrielle* [lehen edizioa: 1985]. Paris: Gallimard, 1997. 543 orr.
- Vigier, Philippe. «Régions et régionalisme en France au XIXe siècle». In *Régions et régionalisme en France du XVIIIe siècle à nos jours*, ed. Christian Gras eta Georges Livet. Paris: Presses universitaires de France, 1977. 161–176.
- Villasante, Luis. *Historia de la literatura vasca*. Bilbao: Editorial Senda, 1961. 446 orr.
- Vincent, André. «Johan Bojer, correspondant de presse: étude réalisée à partir de ses chroniques à Aftenposten sur la France de “La Belle Epoque” (1902-1907) et de la Grande Guerre (1915)» [doktorego-tesia, zuz. Frédéric Durand], Université de Caen, 1989. 458 orr.
- Walter, Henriette eta Michel Lagree. *Les parlers de la foi, religion et langues régionales*. Rennes: Presses Universitaires de Rennes, 1995. 161 orr.
- Weber, Eugen. *L'Action française*. Itzul. Michel Chrestien [lehen edizioa: 1962]. Paris: Stock, 1964. 649 orr.
- , *La fin des terroirs, la modernisation de la France rurale, 1870-1914*. Itzul. Antoine Berman eta Bernard Génies [lehen edizioa: 1983]. Paris: Fayard, 1984. 839 orr.
- Winock, Michel. *Édouard Drumont et Cie : antisémitisme et fascisme en France*. Paris: Seuil, 1982. 218 orr.
- Winter, Jay. «Les poètes-combattants de la Grande Guerre, une nouvelle forme du sacré». *Vingtième Siècle*, 1994.
- Wolfs, Gilles. «La Russie en guerre (1914-1918) vue par les périodiques occidentaux: relation des événements, nationalismes et propagande» [doktorego-tesia, zuz. Paul Dumont eta Vladimir Claude Fišera], Université Marc Bloch (Strasbourg), 2001. 1785 orr.
- X. «Un anniversaire. Monseigneur Saint-Pierre». *Gure Herria* 25-1 (1953): 1–11.
- Xarriton, Piarres. «Eskualduna-ren mendeurrena Baionan». *Euskera* 32 (1987): 245–252.

- . *Jean Saint-Pierre «Anxuberro» (1884-1951)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza, 2003. Sarean: euskomedia.org. 25 orr.
- . *Jules Moulier Oxobi*. Eusko Jaurlaritzza, 1990. 12 orr.
- . «San Josep lanbide ikastetxea - 30 urte». *Herria*, 1990ko maiatzaren 31a.
- . «Sarrera». In Saint-Pierre, Jean «Anxuberro»: *14eko Gerla Handia*, IX–XX. ed. Piarres Xarriton. Klasikoak bilduma. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte, 1998.
- . *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak. III. Kazetaritza (A) (1903-1915)*. Donostia: Elkar, 1988. 428 orr.
- . *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak. IV. Kazetaritza (B) (1916-1935)*. Donostia: Elkar, 1992. 408 orr.
- . «Piarres Broussain (1859-1920) : abertzale bat Iparraldean». *Jakin* 6: 108–110.
- . *Le droit des peuples à leur identité. L'évolution d'une question dans l'histoire du christianisme*. Montréal: Fides, 1979. 214 orr.
- . *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques (1895-1920)*. Bordeaux: CNRS, 1985. 331 orr.
- Zubillaga, Elisabete. «Joseph-Augustin Chaho, apologiste des Basques en France au début du XIXème siècle» [tesina-memoria], Département Interuniversitaire d'Etudes Basques, [d.g.]. 50 orr.
- «Albert Goyeneche». *Eskualduna*, 1900ko urtarrilaren 26a.
- «Bachenárre aldetik». *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 20a.
- «Biba Eskual-herria!» *Eskualduna*, 1914ko agorrilaren 7a.
- «Changement de mains». *Eskualduna*, 1901ko uztailaren 19a.
- «Eskerrak». *Eskualdun Ona*, 1904ko urtarrilaren 8a.
- «Eskualdun Ona». *Eskualduna*, 1903ko abenduaren 31a.
- «Eskualdun Ona». *Eskualdun Ona*, 1907ko abenduaren 27a.
- «Foltzer baithan». *Eskualduna*, 1909ko abenduaren 24a.
- «Fuera juduak!» *Eskualduna*, 1894ko azaroaren 9a.
- «Gizon altchatzeak». *Eskualduna*, 1914ko agorrilaren 7a.
- «Hirirat sehi». *Eskualduna*, 1907ko azaroaren 15a.
- «Hogoi urthe». *Eskualduna*, 1908ko urtarrilaren 3a.
- «Laurent Hirigoyen», *Eskualduna*, 1935eko uztailaren 26a.

«Mgr Adéma». *Eskualduna*, 1936ko maiatzaren 15a.

«Milesker?» *Eskualduna*, 1899ko irailaren 29a.

«Zalgize». *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 18a.

«Zalgize». *Eskualduna*, 1917ko uztailaren 27a.

«Zer guduak!» *Eskualduna*, 1917ko maiatzaren 11a.

«Zola». *Eskualduna*, 1908ko apirilaren 3a.

ERANSKINAK
